G.125. GRAFIKOA: HARREMAN INFORMALETAN EUSKARAREN ERABILERA %ETAN ADIERAZITA, ZONALDEKA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, IPAR EUSKAL HERRIA, 1996-2016 .....	726
G.126. GRAFIKOA: EUSKALDUNAK, EUREN AURREZ AURREKO HARREMAN-SAREAN EUSKARAZ DAKITEN HIZTUNEK DUTEN PISUAREN ARABERA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016.....	727
G.127. GRAFIKOA: LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUA (%ETAN ADIERAZITA), 5-9 ETA 35-39 URTEKO HIZTUNENGAN. EAE ETA NAFARROA GARAIA, 1986-2021 .....	731
G.128. GRAFIKOA: SEME-ALABEKIKO ERABILERA, GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKARA ONDO ULERTZEN DUTEN 50 URTETIK BEHERAKO GURASOAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (EUSKARAZ BATEZ BESTE, %-A).....	733
G.129. GRAFIKOA: EUSKARAREN BATEZ BESTEKO PISUA SEME-ALABEKIKO ERABILERAN, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKARA ONDO ULERTZEN DUTEN 50 URTETIK BEHERAKO GURASOAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016.....	735
G.130. GRAFIKOA: BELAUNALDIARTEKO TRANSMISIOAREN INDIZEA (BATI) HIZKUNTZA GUTXITUETAN, HIZTUN GUZTIAK AINTZAT HARTUTA. GALIZIA, HERRIALDE KATALANAK ETA EUSKAL HERRIA ADMINISTRAZIO-EREMUKA, (2013-2016).....	740
G.131. GRAFIKOA: HIZKUNTZA GUTXITUAREN BELAUNALDIARTEKO IRABAZIEN VILA INDIZEA, HIZTUN GUZTIAK AINTZAT HARTUTA. GALIZIA, HERRIALDE KATALANAK ETA EUSKAL HERRIA ADMINISTRAZIO-EREMUKA, (2013-2016).....	740
G.132. GRAFIKOA: JATORRIZKO EUSKALDUNEN ETA JATORRIZKO ERDALDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNA EUREN BIZITZAKO LEHEN URTEETAN ETA "GAUR EGUN". EUSKAL HERRIA, 2001.....	746
G.133. GRAFIKOA: GAITASUNEZKO HIZKUNTZA-BILAKAERA JATORRIZKO EUSKALDUN ETA JATORRIZKO ERDALDUNENGAN. EUSKAL HERRIA, 2016 .....	747
G.134. GRAFIKOA: JATORRIZKO EUSKALDUNEN ETA JATORRIZKO ERDALDUNEN ARTEAN ZENBATEK IKASI DUTEN "BESTE" HIZKUNTZA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%) .....	749
G.135. GRAFIKOA: "EGUNGO" GAITASUNEAN JATORRIZKO HIZKUNTZA NAGUSI DUTEN HIZTUNAK, ADINAREN ARABERA. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (%).....	749
G.136. GRAFIKOA: "BESTE" HIZKUNTZAN HITZ EGITEKO GAI DIREN HIZTUNAK, ADINAREN ARABERA. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (%).....	750
G.137. GRAFIKOA: GAITASUNEAN JATORRIZKO HIZKUNTZA NAGUSI DUTEN HIZTUNAK, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2016 (%) 751	
G.138. GRAFIKOA: "BESTE" HIZKUNTZAN HITZ EGITEKO GAI DIREN HIZTUNAK, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2016 (%).....	752
G.139. GRAFIKOA: JATORRIZKO ELEBIDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNEZKO NAGUSITASUNA (ZEIN HIZKUNTZATAN ARITZEN DIREN ERRAZAGO). EUSKAL HERRIA, 2016 (%) .....	753
G.140. GRAFIKOA: GAITASUNEAN JATORRIZKO HIZKUNTZA NAGUSI DUTEN HIZTUNAK. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%).....	754
G.141. GRAFIKOA: "BESTE" HIZKUNTZAN HITZ EGITEKO GAI DIREN HIZTUNAK. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%).....	754

G.142. GRAFIKOA: JATORRIZKO ELEBIDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNEZKO NAGUSITASUNA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%).....	755
G.143. GRAFIKOA: JARRAIPENA ETA ORDEZKAPENA HIZKUNTZA-BILAKAERAN. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (%).....	758
G.144. GRAFIKOA: JARRAIPENA (EE=H1); EGUNGO ETXEKO ERABILERAN LEHEN HIZKUNTZARI EUSTEN DIOTEN HIZTUNAK, HIZKUNTZAREN ARABERA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (%AK HIZTUN GUZTIEKIKO).....	759
G.145. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN EUSTE-INDARRA, LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (LEHEN HIZKUNTZA MULTZO BAKOITZAREKIKO %AK).....	760
G.146. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN ERAKARPEN-INDARRA, LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (LEHEN HIZKUNTZA MULTZO BAKOITZAREKIKO %AK).....	762
G.147. GRAFIKOA: EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN EUSTE- ETA ERAKARPEN-INDARRAK. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (EUTSI ZITEKEENAREKIKO %AK; ERAKARRI ZITEKEENAREKIKO %AK).....	762
G.148. GRAFIKOA: ERABILERAZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAN EUSKARARI ERAGITEN DIOTEN ORDEZKAPENAK. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011.....	764
G.149. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN ARTEKO ERABILERAZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAREN SALDO GARBIAK. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011.....	765
G.150. GRAFIKOA: EUSKARAREKIKO ORDEZKAPEN-FLUXUAK ETA ORDEZKAPEN-SALDO GARBIA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 1991-2011.....	767
G.151. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN BIZI-INDARRAREN INDIZEA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGO EUSKAL HERRIA, 2011.....	770
G.152. GRAFIKOA: EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN EUSTE-INDARRA, HIZTUNAK BIZI DIREN UDALERRIAN EUSKARAK DUEN NAGUSITASUN-MAILAREN ARABERA (NAGUSITASUN HORI ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERAKO MULTZO XEHEETAN AZTERTUTA). 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011.....	774
G.153. GRAFIKOA: EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN ERAKARPEN-INDARRA, HIZTUNAK BIZI DIREN UDALERRIAN EUSKARAK DUEN NAGUSITASUN-MAILAREN ARABERA (NAGUSITASUN HORI ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERAKO MULTZO XEHEETAN AZTERTUTA). 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011.....	774
G.154. GRAFIKOA: B BELAUNALDIAREN ERABILERA EROSOAREN KALKULUA ETA ERABILERA AITORTUA SEME-ALABEKIN ETA GURASO EKIN. EUSKAL HERRIA, 2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %).....	784
G.155. GRAFIKOA: A ETA B BELAUNALDIEN ERABILERA EUREN SEME-ALABEKIN, JAIO ETA LEHENENGO URTEETAN (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %). EUSKAL HERRIA.....	785
G.156. GRAFIKOA: B BELAUNALDIAREN HIZKUNTZA-BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, 1969-2016.....	788
G.157. GRAFIKOA: GURASO/SEME-ALABEN ARTEKO ERABILERAREN BILAKAERA, BELAUNALDIAK ETA HIZKUNTZA-BILAKAERA AINTZAT HARTUTA. EUSKAL HERRIA 1969-2016.....	790
G.158. GRAFIKOA: EUSKARA-ERDAREN EGUNGO EGOERAREN BERRI EMATEN DIGUTEN ZORTZI ADIERAZLEREN LABURPENA. EUSKAL HERRIA, 2011-2021.....	815



# IRUDIEN AURKIBIDEA

I.1.	IRUDIA: SOZIOLINGUISTIKAREN IKERKETA-EREMUA ZENTZU ZABALEAN HARTUTA .....	58
I.2.	IRUDIA: HIZKUNTZA GUTXITUEN JARRAIPENA/ORDEZKAPENA/INDARBERRITZEA NEURTZEKO ARDATZ NAGUSIAK, AZTERTURIKO LITERATURA SOZIOLINGUISTIKOAREN ARABERA .....	102
I.3.	IRUDIA: HIZKUNTZA GUTXITUEN JARRAIPENA/ORDEZKAPENA/INDARBERRITZEA NEURTZEKO ERABIL DITZAKEGUN ARDATZ NAGUSIEN ARTEAN ZEIN DIREN AZTERGARRIAK DEMOLINGUISTIKATIK .....	106
I.4.	IRUDIA: GIZABANAKOEN ELEBITASUN-MAILEN SAILKAPENA .....	110
I.5.	IRUDIA: HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ETA ERABILERAREN ARTEKO ALDEBIKO HARREMANA .....	119
I.6.	IRUDIA: HEDADURA ZABALEKO ERAGIKETA DEMOLINGUISTIKO EGONKORRAK EUSKAL HERRIAN (1981-2021) .....	159
I.7.	IRUDIA: EUSKARAREN EZAGUTZARI BURUZKO GALDERAK ZENTSUETAN, 2011KO ADIBIDEA .....	178
I.8.	IRUDIA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNARI ETA GAITASUN ERLATIBOARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2016 .....	183
I.9.	IRUDIA: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2001 .....	184
I.10.	IRUDIA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNARI ETA GAITASUN ERLATIBOARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2016 .....	184
I.11.	IRUDIA: ETXEKO HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERA ZENTSUETAN, 2011KO ADIBIDEA .....	188
I.12.	IRUDIA: ETXEKO ETA FAMILIAKO KIDEEKIKO ERABILERARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2016 .....	192
I.13.	IRUDIA: FAMILIA-GIROTIK KANPOKO ERABILERARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2016 .....	193
I.14.	IRUDIA: "EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA" ADIERAZLE SINTETIKOA NOLA OSATZEN DEN. ....	197
I.15.	IRUDIA: IRITZI ETA JARREREI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2016 .....	201
I.16.	IRUDIA: ETXEKO ETA FAMILIAKO KIDEEEN HIZKUNTZA-PROFILARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2016 .....	214
I.17.	IRUDIA: FAMILIA-GIROTIK KANPOKO HARREMAN-SAREAREN HIZKUNTZA-PROFILARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2016 .....	216
I.18.	IRUDIA: LEHEN HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERA ZENTSUETAN, 2011KO ADIBIDEA .....	220
I.19.	IRUDIA: ELKARRIZKETATUEN, EUREN GURASOEN ETA EUREN SEME-ALABEN LEHEN HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN, EAE, 2016 .....	223
I.20.	IRUDIA: TESIAREN IKERKETA-GALDERA OROKORRAK ETA HELBURU-GALDERA ZEHATZAK .....	240
I.21.	IRUDIA: GUNE SOZIOLINGUISTIKOAK ETA NAGUSITASUN-EREMUAK .....	356
I.22.	IRUDIA: URTEKA UDALERRI BATEAN JAIOTAKOEN LANKETA, EAEn ETA NAFARROA GARAIAN BIZI DIRENEKIN, HEGOALDEKO LAGINA OSATZERAINO (1950. URTERAKO LEGAZPIKO LAGINAREN ADIBIDEA) .....	360
I.23.	IRUDIA: BOSTURTEKOEN LANKETA, JATORRIZKO DATU XEHETATIK, LAGINA OSATZERAINO (1949-1953 BOSTURTERAKO LEGAZPIKO LAGINAREN ADIBIDEA) .....	362
I.24.	IRUDIA: HEKN-N INFORMAZIOA JASOTZEKO ERABILI DEN FITXA. EUSKAL HERRIA, 2016 .....	388

I.25.	IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA ADIERAZLE SINTETIKOA ERAIKITZEKO PROZESUAREN AZALPENA, LAU URRATSETAN .....	438
I.26.	IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA ADIERAZLEAREN KATEGORIEN KOKAPEN LOGIKOA EUSKAR-ERDAREN EZAGUTZA BI DIMENTSIOKO EREMU BATEAN IRUDIKATUTA .....	442
I.27.	IRUDIA: HIZKUNTZA-GAITASUNA ADIERAZLEA DIMENTSIO BAKARRERA EKARRITA .....	443
I.28.	IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN SAILKAPEN XEHEAREN ETA SOZIOLOGIAKON ARRUNTAK DIREN HAINBAT TERMINOREN ARTEKO BALIOKIDETASUNA .....	444
I.29.	IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERAKO MULTZO METATUAK, EUSKARAREN IKUSPEGITIK .....	450
I.30.	IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERAKO MULTZO METATUAK, GAZTELANIAREN/FRANTSESAREN IKUSPEGITIK.....	451
I.31.	IRUDIA: EUSKARAREN ERABILERA, EUSKALDUNEN HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERA AZTERTZEA ISL <sup>n</sup> OINARRITUTA, JATORRIZKO ALDAGAIETATIK ADIERAZLE SINTETIKOETARA .....	454
I.32.	IRUDIA: EUSKARAREN ERABILERA AZTERTZEA ISL <sup>n</sup> OINARRITUTA, JATORRIZKO ALDAGAIETATIK ADIERAZLE BAKUNETARA.....	455
I.33.	IRUDIA: ERABILERA AZTERTZEKO JATORRIZKO ALDAGAIK ETA HORIETATIK SORTU DITUGUN ADIERAZLE BAKUNAK .....	456
I.34.	IRUDIA: HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA AZTERTZEA ISL <sup>n</sup> OINARRITUTA, JATORRIZKO ALDAGAIETATIK ADIERAZLE BAKUNETARA .....	459
I.35.	IRUDIA: HARREMAN-SAREAK AZTERTZEKO JATORRIZKO ALDAGAIK ETA HORIETATIK SORTU DITUGUN ADIERAZLE BAKUNAK .....	461
I.36.	IRUDIA: EUSKALDUNEK EUSKALDUNEKIN EGITEN DUTEN ERABILERA AZTERTZEA ISL <sup>n</sup> OINARRITUTA, JATORRIZKO ALDAGAIETATIK ADIERAZLE BAKUNETARA .....	465
I.37.	IRUDIA: EUSKALDUNEKIN EGITEN DEN ERABILERAREN AZTERKETAN, JATORRIZKO ALDAGAIK ETA HORIETATIK SORTUTAKO ADIERAZLE BAKUNAK.....	466
I.38.	IRUDIA: HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNAREN, EUSKARAREN ERABILERA OROKORRAREN ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERAREN AZTERKETA ISL <sup>n</sup> OINARRITUTA, ADIERAZLE BAKUNETATIK (TASA ESLEITUETATIK) ADIERAZLE SINTETIKOETARA .....	473
I.39.	IRUDIA: 'FAMILIAKO ERABILERA' ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA .....	480
I.40.	IRUDIA: EGOERA INFORMAZIOAREN ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA.....	484
I.41.	IRUDIA: MERKATARITZAKO ETA ZERBITZU PUBLIKOETAKO ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA .....	487
I.42.	IRUDIA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA (LABURTUA).....	491
I.43.	IRUDIA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA (XEHEA).....	492
I.44.	IRUDIA: AZTERTUKO DITUGUN HIRU BELAUNALDIEN KOKAPENA DENBORA-LERROAN.....	779
I.45.	IRUDIA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, ERABILERA ETA MOTIBAZIOA, 'GAITASUNEAN INDARTSU, ERABILERAN AHUL' IKUSPEGIAN ETA GUK AURKEZTUTAKO IKUSPEGI BERRITUAN. EUSKAL HERRIA, 2022 .....	828
I.46.	IRUDIA: NAGUSIKI ERDARAZ BIZI DIREN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUN AHULEKO HIZTUN EUSKALTZALEEN SORGIN-GURPILA.....	869

## MAPEN AURKIBIDEA

M.1.	MAPA: EUSKALDUNEN DENTSITATEARI BURUZKO MAPAK VI. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAN. EAE, 1986-2016 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK) .....	207
M.2.	MAPA: EUSKARAREN KALEKO ERABILERA ESKUALDEKA, 2001 (%) .....	211
M.3.	MAPA: HEGOALDEKO UDALERRIAK, EUSKARAK XX. MENDE HASIERAN IZAN ZEZAKEEN BIZI-INDARRAREN ARABERA BI MULTZOTAN BEREIZITA (1904-1908 URTEETAN JAIOTAKOEN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA EGINDAKO BEREIZKETA; MUGA %20AN JARRITA) .....	379
M.4.	MAPA: ESKUALDE MAILAKO NAGUSITASUN-EREMUAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2011-2016 .....	689
M.5.	MAPA: NAGUSITASUN-EREMUAK, ETXEKO ERABILERAREN ARABERA (UDALERRIAK EAEn ETA EUSKALGEO-KO ESKUALDEAK NAFARROA GARAIAN). HEGOALDEA, 2011 .....	699
M.6.	MAPA: ETXEKO EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, ESKUALDEKA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2011 .....	718
M.7.	MAPA: ETXEKO EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, EAE-ko UDALERRIETAN ETA NAFARROA GARAIKO EUSKALGEO ESKUALDEETAN, 1991-2011 .....	719
M.8.	MAPA: KALEKO EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, ESKUALDEKA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016 .....	724



## LABURTZAPENEN ZERRENDA

- AAH – Aurrez aurreko harremanak
- BAEN - Belaun Arteko Etenaren Neurria
- BATI - Belaunaldiarteko transmisioaren indizea
- CIS - *Centro de Investigaciones Sociológicas*
- CLF- *Conseil de la Langue Française*
- EAE – Euskal Autonomi Erkidegoa
- EAS – Euskararen Adierazle Sistema
- EE – Etxeko erabilera
- EH - Euskal Herria
- EKB - Euskal Kulturaren Batzarrea
- EODA - Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa
- EULIB – *Enquesta d'Usos Lingüístics a les Illes Balears*
- EULP - *Enquesta d'usos lingüístics de la població*
- EUSTAT – Euskal Estatistika Erakundea
- GIDS - *Graded Intergenerational Disruption Scale*
- H1 – Lehen hizkuntza
- HAI - Hizkuntza-aldaketaren indizea
- HB - Hizkuntza-bilakaera
- HEH – Hego Euskal Herria
- HEKN – Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketak
- HG – Hizkuntza-gaitasuna
- HINBE - Hizkuntza INdarBErritzea
- HPS – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (Eusko Jaurlaritzza)
- HSE – Harreman-sareak eta Erabilera
- HZ – Hegoaldeko Zentsuak
- IBESTAT – *Institut d'Estadística de les Illes Balears*

ICL - *Índex de Canvi Lingüístic*

IDESCAT - *Institut d'Estadística de Catalunya*

IEH – Ipar Euskal Herria

IGE - *Instituto Galego de Estatística,*

INE – *Instituto Nacional de Estadística*

INED - *Institut national d'études démographiques*

INSEE - *Institut National de la Statistique et des Études Économiques*

ISL – Inkesta Soziolinguistikoa

ITI - *Índex de transmissió Intergeneracional lingüística*

IVAP-HAEA – Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea

NASTAT – Nafarroako Estatistika Erakundea

NFK – Nafarroako Foru Komunitatea

NG – Nafarroa Garaia

MZP – Merkataritza eta zerbitzu publikoak

RLS - *Reversing Language Shift*

SEI - Euskal Soziolinguistika Institutua sortzen

SLK – Soziolinguistika Klusterra

UEMA - Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

UZEI - Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea

# SARRERA

## Ez naiz neutrala, baina objektiboa izan nahi dut

Legazpin jaio nintzen, 1967. urtean, sukar industrialaren garai betean, oraindik Franco diktadorea agintean zegoela. *Baby boom* garaiko umea naiz, autoak kaleetan eta zuri-beltzeko telebistak etxeetan ugaritzen hasi ziren garaian munduratua. Ordurako nagusiki erdalduna zen Legazpia hartan, etxetik jaso genuen euskara eta euskararekiko maitasuna. Ikastolako umea naiz, eta oraindik nirekin ditut garai hartako oroitzapen-soinu-usainak: haurren zalaparta Elizak utzitako lokaletatik jolasgaraian kalera jaisten ginenean, gurasoak tortillak egiten herriko festetan ikastolaren txosnan, inspektore frankisten bisitek guri eta irakasleei eragiten ziguten larritasuna, Iratxeo udalekuan suaren bueltan kantatzen genituen kanta subertsiboak...

Bizipen horiekin guztiekin zerikusi zuzena du tesirako hartu dudan gaiak eta gai hori bizitzeko dudan moduak. Euskararen egoerarekin obsesionatuta bizi den milaka euskaldunetako bat gehiago naiz. Euskara osasuntsu ikusi nahiko nuke. Eta izua eragiten dit gure herriak, lehenago beste askok bezala, bestelakotuta buka dezakeela pentsatze hutsak (Irlandaren mamua beti mingarri gure irudimenean). Tesia egiten aritu naizenean ere, aldarte-aldaketa nabarmenak izan ditut lantzen nuen azpigaiaren eta egiten nituen "aurkikuntza" txikien arabera: datu edo joera itxaropentsu bat jo orduko pizten zitzaidan umorea ("ez gaitunk, ez, makalak!"); datu ezkorrekin batera iluntzen zitzaidan kopeta ("begira, horretan ere uste baino ahulago gaude"). Argi utz dezadan, beraz, hasieratik, ez naizela neutrala tesian aztertuko dudan gaiarekiko.

Haurtzaroa atzean utzita, nerabezaroan Donostia inguruan bizitzea egokitu zitzaigun. Legazpian baino are ahulago zegoen euskara Gipuzkoako hiriburuan. Erdara zen nagusi, baita Santo Tomas Lizeoko ikasle gehienon ahotan ere. Euskara zinez maite duen baina lagunartean nagusiki erdaraz aritzen den espeziekoa izan nintzen nerabe eta lehen gaztaroko garai urrun eta mugitu haietan. Urteak beharko nituen berriro nigan euskara hizkuntza nagusi bihurtzeko.

Gazte garaian, berriz, Bilbora joan nintzen ikastera, mundua aldatu behar genuen, eta Soziologia ikasketak aukeratu nituen. Etxean ikasitako Jesusen "egia ezagutuko

duzue, eta egiak aske egingo zaituzte” hartatik azkar aldatu ginen Che Guevararen “Egia beti da iraultzailea” lelora. Nolanahi ere, “egia”, errealitatearen argazki ahalik eta objektiboena, kemenez/gogoz bilatu beharreko altxorra zen ni bezalako soziologogaiantzat. Errealitate soziopolitiko-ekonomiko-kultural-linguistikoaren ezagutza ahalik eta sakon-zehatzena eskuratzea ezinbesteko eginbeharra zen ondoren errealitate hori eraldatzekotan. Fede horretan sinetsita egin nituen soziologia-ikasketak eta geroztik espiritu horrekin aritu izan gara lanean proiektu ugarriz. Beti errealitatearen argazki ahalik eta zehatzena bilatuz. “Egiak” batzuetan min egin zezakeela ondo jakin arren, ahal zen neurrian egia gordina, makillatu gabea, bilatzen saiatuz. Barruko aldarte horretatik heldu nion tesigintzari ere.

## **Tesiaz**

Izenburuak adierazten duen bezala, euskararen egoera soziala eta bilakaera aztertzekeo tresna metodologiko egokiak sortzea izan da tesi honen iparrorratza. Gure ahalegina paradigma positibistaren tradizioan kokatu da bete-betean. Eta hortik ekarpen bat egin izan nahi diogu demolinguistikaren diziplinatik hizkuntza gutxituei buruzko soziolinguistikaren lan-eremuari.

Zehatzago esanda, tesi hau euskal demolinguistikak duen tresna multzoa zabaltzeko eta hobetzeko sormen-saiakera bat da. Saiakera horretan, hizkuntza gutxituen inguruan dagoen jakintza soziolinguistikotik abiatuta, nazioarteko jardura demolinguistikoa inspirazio-iturri hartuta eta irudimenari eraginda, euskararen inguruko hiru eragiketa estatistiko nagusik (HZ, HEKN eta ISLk) adierazle berriak sortzeko zer-nolako aukerak eskaintzen dituzten ikertu da. Eta hainbat adierazletan gauzatu ditugu aukera horiek.

Tesi honek baditu, doktoregaiaren adinaz gain, atipiko samar egiten dituen beste bi ezaugarri, gutxienez. Batetik, lantzen duen gaitegiaren zabaltasuna. Hizkuntza gutxituen demolinguistikatik landu ohi diren funtsezko alderdi guztiak barnebiltzen saiatu gara tesian. Ez da ohiko hautua. Gaitegi zabal horrek ez digu lana erraztu, eta alderdi horietako bakoitza aztertzekeo orduan, sakontasunaren kaltetan eragingo zuen nahi baino gehiagotan. Hari asko gelditu dira bidean sakonago begiratzea merezi dutenak... Zergatik hartu dugu hain gai-esparru zabala? Euskararen egoera sozialari buruz eta berau aztertzekeo tresneriari buruz aritzerakoan, ezinbestekoak dira gai bakarra sakon, informazio-iturri bakarrean edo lurralde-eremu bakarrean oinarrituta aztertuko duten ikerketak. Ikerketa fokalizatuago eta partzial horien ondoan, baina, beharrezkoak dira ikuspegi orokorrago/integratuagoa egiteko modua emango digutenak ere. Horrexen falta sumatzen nuen, hain justu. Horregatik, norabide orokor horretan egin dugu gure ahalegina, hainbat gai aldi berean jorratuz, informazio-iturri ugariak uztartzen saiatuz eta horiek guztiak Euskal Herri osoaren ikuspegiarekin aplikatzen saiatuz.

Tesi hau gizarte-zientzien alorrean egiten diren gehienetatik bereizten duen beste ezaugarri bat ere badago: hautu metodologiko orokorra. Tesi honetan ez dago norberak hasi eta bukatu duen ikerketa enpiriko propiorik; eta ez da egon landa-lanik. Horren ordez, euskal demolinguistikari diharduten erakunde nagusiek egin izan dituzten ikerketetako mikrodatuen datu-baseak eskuratu eta horiekin lan egitea izan da nire hautua. Ziurrena, ikerketa originalagoa egin genezakeen ikerketa propioaren bidea hautatu izan banu. Bide hori baino erakargarriagoa egin zitzaidan, ordea, egindakoari



zukua ateratzea, euskal demolinguistikan orain arte eginda dagoen lan erraldoiari etekina ateratzen saiatzea. Etorkizunean ere eguneratu daitezkeen adierazleak sortuz eta adierazle horien emaitzen lehen irakurketa bat eginez.

### **Ikerketa-galdera nagusiak, lanaren egitura**

Tesiko 7. kapituluaren azaltzen dugu zein izan diren lan honetan gidari izan ditugun lau ikerketa-galdera nagusiak eta zer-nolako helburu eta ikerketa-galdera zehatzak landu ditugun horiek xehatzeko. Aurreratu ditzagun orain lau galdera horiek eta ikus dezagun nola uztartzen diren lan honen kapituluaren segidan.

Lehen kapituluaren, gure lana demolinguistikaren eremuan kokatu dugu. Bigarrenean jakintza soziolinguistikora jo eta lau ikerketa-galdera orokorretako lehenengoari erantzuten saiatu gara, honako honi hain zuzen:

*Zer-nolako gai multzoei edo ardatzei erreparatu behar zaie hizkuntza gutxitu batek lurralde batean duen egoera soziala jarraipen-/ordezkapen-/indarberritze-parametroetan ezagutzeko?*

Fishmanen ikuspegia eta minorizazioaren soziolinguistikarena landuta, ondorioa izan da honako zazpi ardatz nagusi hauen inguruan antola daitekeela hizkuntza gutxituen egoerari buruzko azterketa:

1. Hizkuntza-gaitasuna
2. Erabilera(k)
3. Motibazio-jarrerak
4. Testuinguru demolinguistikoa
5. Sozializazio-prozesuak
6. Hizkuntza-bilakaeraren prozesuak
7. Hizkuntzaren beraren uzurtzea (azkeneko hori demolinguistikaren ikerketa-eremutik kanpo gelditzen da).

Behin hori argituta, bigarren ikerketa-galderari heldu diogu:

*Zer-nolako tresnen bidez (aldagai, adierazle, indize edo dena delako) gauzatu izan da ardatz horien inguruko informazio-bilketa hizkuntza gutxituei buruzko demolinguistikatik orokorrean eta euskal demolinguistikako eragiketa nagusietatik bereziki?*

Galdera horren erantzunen bila, hirugarren kapituluaren aipatu ditugun ardatzen oinarritzko lanketa teorikoa egin dugu, arreta berezia jarrita hizkuntza gutxituei buruzko nazioarteko demolinguistikak gai horietara hurbiltzeko landu dituen bitartekoei. Ondoren, euskal soziolinguistikaren eremura etorrita, 4. kapituluaren bertako demolinguistikaren eragiketa nagusiak aurkeztu ditugu. Eta 5.ean eragiketa horietan lehenago aipatutako ardatzak nola landu izan diren aztertu dugu zehatz. Orokorrean, ikusi dugu ondare demolinguistikoko zabal eta aberatsa dugula Euskal Herrian, hizkuntza gutxitu gutxi duten neurrikoa. Eta euskal demolinguistikako eragiketekin biltzen den izugarritzko informazio-masak aukera eskaintzen digula Euskal Herrian jarraipen-,

ordezkapen- eta indarberitze-prozesuak zehatz eta angelu askotatik aztertzeko. Ikusi dugu, halaber, aurrera begira, garrantzitsua litzatekeela euskal demolinguistikak honako ildo hauetan aurreratzea: alor teorikoan sakontzea, nazioartekotzean aurreratzea, metodologia-alorra gehiago lantzea eta Unibertsitatearen inplikazioa areagotzea. Gure tesiak ekarpen bat izan nahi du bide horretan.

Behin metodologiaren atalean sartuta, hirugarren galdera orokorrari erantzuna ematen saiatu gara:

*Zer-nolako tresna metodologiko (adierazle) berriak sortu daitezke Hegoaldeko Zentsuetatik, Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketetatik eta Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta atal teorikoan finkatutako ardatzen inguruko informazio demolinguistikoa adierazgarria eta baliagarria modu ahalik eta koherente/egituratu/ alderagarriean eskuratzeko?*

Galdera horri zuzenean erantzun aurretik, helburu metodologiko zehatzak planteatu ditugu eta metodozko irizpide orokor batzuk finkatu 7.-8. kapituluetan. Ondoren, eragiketa bakoitzetik adierazleak sortu ditugu: Hegoaldeko Zentsuak landu ditugu 9. kapitulan, Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketak 10.ean eta Inkesta Soziolinguistikoa 11.ean. Hiru eragiketa horietan, ikerketa horien emaitza-txostenak eta bestelako dokumentazio teknikoa aztertzeaz gain, mikrodatuen fitxategiak ustiatu ditugu. Hiru iturri nagusi horietako bakoitzerako, eremu eta urte ezberdinetako datu-fitxategiak eskuratu ditugu, guztiak homogeneousatu, bateratu eta, jatorrizko aldagaiak birkodetuz, adierazle berriak sortu ditugu. Emaitza gisa euskararen egoera aztertzen lagundu diezaguketen 137 adierazle berri definitu eta sortu ditugu 9.-11. kapitulu horietan: 61 adierazle HZtik, 5 adierazle HEKNtik eta 71 ISLtik.

Azkenik, atal enpirikoan laugarren galdera orokorrari heldu diogu:

*Atal metodologikoan eraiki diren adierazle berrien emaitzen lehen irakurketa orokor bat eginda, zer esan dezakegu euskararen egungo egoera sozialari eta azken hiru hamarkadetako bilakaerari buruz?*

Galdera orokor hori galdera zehatzetan xehatu dugu 7. kapitulan, eta galdera zehatzei erantzunez antolatu dugu atal enpirikoa. Horrela, 13. kapitulan, XX.-XXI. mendeetako euskararen bilakaera orokorrari buruz aritu gara; 14.ean hizkuntza-gaitasuna landu dugu, 15.ean erabilera(k), 16.ean arreta jarri dugu gaitasunaren eta erabileraren arteko harremanean; 17.ean jarreraren eta motibazioen gaiak aritu gara, 18.ean testuinguru demolinguistikoez, 19.ean hizkuntza-sozializazioaz eta 20.ean hizkuntza-bilakaeraren fenomenoaz.

Azken bi kapituluetan lanaren ondorioak aurkeztu ditugu, ondorio teoriko eta metodologikoak 21. kapitulan eta ondorio enpirikoak 22.ean. Azken kapitulu horretan, ahalegina egin dugu, gure adierazleek zuzenean eman diguten informazioa interpretatzeaz gain, informazio hori euskal soziolinguistikaren beste ekarpen batzuekin uztartzeko. Kapitulu horren azken puntuan hainbat gogoeta egin ditugu azken urteotako euskararen bilakaeraz eta etorkizunari begira dituen erronkaz.

## **Txostena nola irakurri**

Txostena, berez, ohiko hurrenkeran irakurtzeko moduan dago antolatua, hasieratik bukaerara. Hala ere, sei ardatzetako batean sakondu nahi izanez gero, txostena berezko hurrenkeran irakurtzea baino interesgarriagoa izan daiteke kapituluetan salto eginez irakurtzea, ardatz horri buruzko puntuak bereiz hartuta. Horrela, hizkuntza-gaitasunaren kasuan, adibidez, honako puntu hauek irakurriz egin daiteke aurrera:

- Gaiaren inguruko hurbilpen teorikoa 3.2. puntuan.
- Euskal demolinguistikak gaia lantzeko izan duen modua 5.1. puntuan.
- Gure ekarpen metodologikoa (ardatz hori lantzeko sortu ditugun adierazleak) 9.3. eta 11.2. puntuetan.
- Adierazle berri horien irakurketa enpirikoa 14. kapituluan.
- Gaiari buruzko ondorioak 22.3. puntuan.

Antzeko ibilbidea egin daiteke gainerako ardatzetan ere. Kasu guztietan, 3. kapituluan teoria soziolinguistikoak eta nazioarteko demolinguistikak ardatz bakoitza nola landu duen azaltzen da (ardatz bakoitzari azpikapitulu bat dagokio). 5. kapituluan, gai hori bera landu da, baina euskal demolinguistikaren esparrura etorruta. Ondoren, atal metodologikoan, eragiketa bakoitza kapitulu batean landu da, eta hor barruan, azpikapituluetan aurkeztu dira ardatzez ardatz sortu ditugun adierazleak. Atal enpirikoan, ardatz bakoitzak bere kapitulua du; ondorio enpirikoetan ere berdin, bakoitzak bere azpikapitulu.

## **Ekarpen ireki bat**

Haurtzarora eta gaztarora jo dut sarrera honen hasieran. Helduaro betean, Errezilgo paraje eder-lasaietan suertatu zait tesia idaztea. Gogotsu aritu naiz lanean, esker onen atalean aipatu ditudan guztiek lagunduta. Asko ikasi dut bidean eta gustura nago emaitzarekin.

Tesi batek berezkoa duen osagai zientifiko-akademikoaren barruan, behin-behineko proposamen gisa aurkezten dut txosten hau, ikerketarako bide berriak urratzeko asmoz, eztabaida metodologikoa irekitzeko borondatez, ekarpenetara irekia, azken hitza esateko batere asmorik gabe.

Eremu akademikotik haratago, euskaldunok bizi dugun abagunean, gure egoeraren ezagutzarako elementuak eta ikuspegi berriak eskaintzen ahalegindu naiz. Neutraltasunetik urruti, baina errealitatearen argazki multzo ahalik eta objektiboena/zorrotzeta egiten saiatuz. Ea ezertan baliagarriak zaizkion gure hiztun-komunitateari!



# HURBILPEN TEORIKOA



# 1. SOZIOLINGUISTIKAREN ETA DEMOLINGUISTIKAREN BEGIRATUA HIZKUNTZA GUTXITUEI

Atal teorikoarekin hasteko, lehen kapitulu honetan, soziolinguistika eta demolinguistika zer diren eta demolinguistikako tresna nagusiak, zentsuak eta inkesta soziolinguistikoak, aurkeztuko ditugu.

## 1.1. SOZIOLINGUISTIKA

### 1.1.1. Soziolinguistikaren bilakaera eta mugaketa

Hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremanaren inguruko ikerketa eta gogoeta lehenagokoak badira ere, Haver C. Currie izan zen, 1952. urtean, *soziolinguistika*<sup>1</sup> hitza lehen aldiz aipatu zuena (Zarraga, 2010: 31) eta garapen handia izan zuen Amerikako Estatu Batuetan hurrengo hamarkadetan, jatorri europarra zuten autoreen eskutik hein handian. Soziolinguistikako eskuliburuetan sarri aipatuak dira Haugen-en (1950), Weinreich-en (1974), Ferguson-en (1959) eta Fishman-en (1972b; 1982; 1991) ekarpenak; eta baita Labov, Hymes, Gumperz eta beste hainbat ikerlari estatubatuarrenak ere, sarri aitortu den bezala (Boix eta Vila, 1998: 211; Mollà, 2002; Moreno, 2009: 211; Zarraga, 2010). Hortik aurrera, mundu osora zabaldu ziren hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremanari buruzko azterketak. Ahalegin horretan, diziplina ugariak ikertzaileak aritu izan dira soziolinguistikan: hizkuntzalariak, antropologoak, psikolinguistak, soziologoak, demografoak, eta abar.

Hurbilpen xume bat eginez, esan dezakegu hizkuntzaren eta gizartearen arteko elkarreraginak aztertzen dituen jarduera dugula soziolinguistika (Zarraga, 2010: 37). Mugaketa oso zabal horren barruan, ordea, denak ez datoz bat soziolinguistikaren aztergaiak eta ikuspegia finkatzerakoan, eta gaiaren inguruko eztabaidak ugariak izan dira azken hamarkadotan. Asko sinplifikatuz, batzuek hizkuntzalaritzatik gertuago ulertzen dute soziolinguistika, eta gizarte-aldagaien arabera hizkuntzaren aldakortasunaren azterketa izendatzeko erabiltzen dute soilik edo nagusiki terminoa. *Bariationisten* ikuspegi hori gaur egun nagusi dela pentsa daiteke, azken urteotan soziolinguistikaz argitaratutako eskuliburu eta hiztegi askoren edukia aztertuta (Milroy

---

<sup>1</sup> Hona hemen *soziolinguistika* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 57):

- Gaztelaniaz: sociolingüística.
- Frantsesez: sociolinguistique.
- Ingeleseaz: sociolinguistics.

eta Gordon, 2003; Trudgill eta Hernández, 2007; Wei eta Moyer, 2008; Moreno, 2009: 211; Hickey, 2010; Meyerhoff eta Schlee, 2010; Mesthrie, 2011; Drager, 2018). Fishmanek (1982) ere hizkuntzalaritzatik gertuago dagoen ikerketa-eremurako uzten zuen *soziolinguistika* terminoa. Hark, hizkuntzen egoera soziala aztertzerakoan, gizarte-aldagaietan eta -prozesuetan arreta jartzearen premia nabarmentzen zuen, baina zeregin horretarako *Hizkuntzaren Soziologia* izendapena hobesten zuen, jarduera horrek azken batean gehiago baitu soziologiatik hizkuntzalaritzatik baino. Gurean ere badaude ikuspegi horrekin bat egiten duten autoreak (ikus adibidez Zalbide, 2003; 2004; 2010b).

Horren aurrean, bada beste ikuspegi bat, *soziolinguistika* terminoa adiera *sozialagoan* erabiltzen duena. Ikuspegi horren arabera, gizartean hizkuntzek duten tokia aztertzen du soziolinguistikak, eta ikergaia hitzunenengan, hitzun multzoetan eta gizartean jartzen du. Bigarren ikuspegi horrek onarpen zabala izan du hainbat lurraldetan, hala nola Kanadan, Katalunian eta Euskal Herrian ere<sup>2</sup> (Zarraga, 2010: 38). Lan honetan, gurean nagusi den bigarren adiera horri lotuko diogu *soziolinguistika* terminoa.

Horiek horrela, ez da erraza soziolinguistika-gaietan diharduten autore eta ikuspegi guztiak bilduko dituen soziolinguistikari buruzko definizio bat aurkitzea. Gaur egun soziolinguistikaren zereginaz eta mugaketaz eztabaida-giroa dezente apaldu den arren, ezin pentsa gaiaren inguruko adostasun batera iritsi garenik. Xavier Vila katalanak (2004; 2012) ikuspegi interesgarria eskaintzen digu gaiaren inguruan: soziolinguistika, zentzurik zabalenean ulertuta, hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremana aztertzen duen jarduera izanik, diziplina zientifikoa baino gehiago, ikerketa-eremu partekatu gisa ulertu behar da.

Izan ere, nekez aitor diezaiokegu egungo soziolinguistikari diziplina zientifikoaren izaera. Oro har, diziplina zientifikoek hitz egiterakoan, paradigma bateratua duten ikerketa-eremuez aritzen gara (Kuhn, 2006). Autore horrek azaltzen duenez, paradigmak esan nahi du komunitate zientifiko osoak funtsezko galdera berak egiten dizkiola bere buruari eta komunitate osoa galdera horiei erantzunak bilatzeko ari dela lanean. Egoera horretan daude, -asko, natura zientzietako diziplinak, fisika adibidez. Diziplina batean, denborarekin paradigma alda daiteke (eta aldatzen da oso noizean behin), baina, oro har, komunitate zientifiko osoak egiten du aldaketa hori eta paradigma berriaren gainean jarraitzen du komunitate horrek lanean.

Ikuspegi horretatik, askoz zailagoa da paradigma bateratuak aurkitzea gizarte-zientzietan. Soziolinguistikaren kasuan, behinik behin, ez gaude inondik inora paradigma bateratu baten aurrean, eta ez dirudi etorkizun hurbilean ere diziplina bateratuaren izaera hori lortu ahal izango duenik<sup>3</sup>: “el propòsit de produir un mar teòric general i compartit per tota la sociolingüística ha esdevingut més que probablement una quimera inassolible” (Vila, 2012: 11).

---

<sup>2</sup> Euskal Herrian gaiari buruz izan den eztabaidarako, ikus Martínez de Luna (2015: 236-237).

<sup>3</sup> Soziolinguistikaren barruan diharduten hainbat korrante izendatzeko (*bariazionistak*, esaterako) aplikagarriagoa izan daiteke diziplina terminoa, ez ordea soziolinguistikaren eremu osoari buruz ari garenean.



Paradigma komun bati buruz hitz egitea ezinezkoa den arren, *soziolinguistika* esaten zaion azterketa-eremu zabal horretan badira onarpen zabala duten hainbat oinarrizko kontzeptu (Vila, 2012: 11). Vilak, zehazki, hizkuntza-komunitatea, erabilera-eremuak eta erabilera-arauak aipatzen ditu (hurrengo kapituluetan landuko ditugu hiru kontzeptuok). Oinarrizko hiru kontzeptu horietaz gain, soziolinguistikak ikertzen dituen fenomenoek azken arrazoiak kausa estralinguistikoei egoztearen ideiak ere onarpen zabala du soziolinguistikan diharduten korrante eta adar guztietan (Vila, 2012).

### **1.1.2. Hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremana aztergai duen diziplinarteko eremua**


Diziplina gisa bat baino gehiago, hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremanari buruz hainbat diziplinaren lan-eremu komun gisa uler daiteke hortaz soziolinguistika. Ugariak baitira, bakoitzak bere ikuspegi eta angelutik, hizkuntzaren eta gizartearen arteko harremanari buruz ikertzen duten diziplina eta jakintza-eremuak: linguistika, antropologia, demografia, soziologia, psikologia, ekonomia...

Soziolinguistikara euren ekarpena egiten duten diziplina guztien ikuspegia ordenatu nahian, hiru ardatz nagusiren inguruan kokatzen ditu Vilak (2004) diziplina horiek: ardatz linguistikoa, ardatz psikologikoa eta ardatz soziala (ikus I.1. irudia). Gizarte-zientzietan oro har gertatzen den bezala, diziplina horien arteko mugak ez dira argiak eta zurrunik, lauso eta malgu samarrak baizik. Hori gutxi balitz bezala, hiru ardatz horiek ontzat emanda ere (linguistikoa, psikologikoa eta soziala), ardatz horiekiko kokapena ere eztabaidagarria izan daiteke hainbat diziplinatan. Guri dagokigunez, ordea, argi dago demolinguistika ardatz sozialean kokatzen dela bete-betean, soziolinguistikaren lan-eremu makroenean hain zuzen ere.

*Soziolinguistika* terminoa lehen aldiz aipatu zenetik, asko ugaritu dira haren barruan lantzen diren ikerketa-ildoak, ikertzen diren gai multzo horietan diharduten ikertzaile eta ikerketa guneak eta baita, jakina, gai horien inguruko ikerketa zein argitalpenak ere. Ugaritasun horren barruan, azken hamarkadetako joera orokorreari begiratuta, esan daiteke maila mikroko azterketak (ikuspegi etnografikotik eginak) indarra hartzen joan direla, eta ikuspegi makroak pisua galdu duela (Ravindranath, 2019: 444). Halaber, eta aurrekoarekin loturik, esan daiteke ikergaia “hizkuntzan” edo “gizartean” jarri beharrean, gero eta gehiago gizabanakoan jartzen dela, gero eta soziolinguistika *indibidualistagoa* lantzen dela, alegia (Vila, 2016: 203). Testuinguru horretan, aurrerago ikusiko dugun bezala, demolinguistika ez da izan azken hamarkadetan ikuspegi teoriko metodologikotik gehien sendotu den alorra. Demolinguistikako gaietan sartu aurretik, esan dezagun soziolinguistikaren barruan bi ikuspegi edo paradigma nagusi daudela hizkuntzen eta hiztun-komunitateen arteko harremanak azaltzeko orduan.

1.1. IRUDIA: SOZIOLINGUISTIKAREN IKERKETA-EREMUA ZENTZU ZABALEAN HARTUTA

Gràfic 1. L'espai de recerca de llengua-i-societat o sociolingüística en sentit lat



*Iturria: Aportacions de les altres ciències socials a la sociolingüística catalana (Vila, 2004: 95).*

**1.1.3. Adostasunaren eta gatazkaren ikuspegiak soziolingüistikan**

Gizartean dauden baliabide eta aukeren banaketa azaltzeko eta gizarte-dinamika ulertzeko orduan, bi ikuspegi landu izan dira gizarte-zientzietan: adostasunaren paradigma batetik eta gatazkarena bestetik. Bi paradigma horien arteko eztabaidak puri-purian egon ziren XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan batez ere (Boix eta Vila, 1998: 52), eta gizartearen egituraketaren oinarritzko bi ikuspegi kontrajarri defendatzen dituzte. Patxi Juaristik (2018) sakon aztertzen du gaia “Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak euskal soziolingüistikan” artikuluan. Nagusiki lan horretan oinarrituko gara gaira hurbiltzeko.

Juaristik azaltzen duenez, bi ikuspegi horiek monolitikoak eta ñabardurarik gabeak ez diren arren, eta praktikan ikerketa eta gogoeta soziolingüistiko gehienek bi paradigmatako elementuak uztartzen dituzten arren, argia da (tipo ideal gisa bederen) bi paradigma horien arteko bereizketa.

Adostasunaren (kontsentsuaren, orekaren...) paradigmaren adibide argia da Talcott Parsons funtzionalismoa. Amerikako Estatu Batuetako soziologian hainbesteko indarra izan duen ikuspegi horren arabera, "gizarteak atal, organo edo azpisistemek osaturik daude, eta zati hauek guztiek elkarrekin lan egiten dute gizartearen elkartasuna, egonkortasuna, harmonia eta oreka lortzeko"(Juaristi, 2018: 302). Sistema eta azpisistemek beren funtzioak egoki betez gero, ez du zertan interes-gatazkarik edo eztabaida bortizik agertu, oinarrizko adostasun batzuk bai baitaude gizartea mamitzen eta integratzen dutenak. Horrekin batera, gizarteko ezberdintasunak ez dira injustizia eragile eta gatazka-iturri gisa hautematen, arrakasta pertsonala izan dutenen sari gisa baizik. Gizartea beti dago etengabe hobetzen ari den barne-oreka batean, eta guztiek onartzen dituzten arau orokor partekatu batzuen barruan egiten du aurrera. Ikuspegi horretatik, beraz, gizartean nagusitzen dena ez da botere-banaketen arabera talde batzuek besteei inposatzen dizkieten arauak eta harremanak, arau komunengatik bizikidetzak baizik. Funtzionalismoa bezala, adostasunaren paradigmaren barruan koka ditzakegu baita ere ikuspegi estruktural funtzionalista, sistemen teoria eta hizkuntza-ekologia.

Adostasunaren paradigmaren eragina agerikoa da soziolinguistikan, Amerikako Estatu Batuetan landu izan denean bereziki, baina baita mundu osoan ere. Paradigma horretatik edaten dutenen ustez, "gizarte batean hitz egiten den hizkuntza bakoitzak (azpisistema bakoitzak) bere funtzioa eta tokia (txoko ekologikoa) lortu behar ditu ekosisteman, eta guztiek, txiki zein handiek, elkarrekin, eta modu integratu, jasangarri eta erregulatuan lan egin behar dute" (Juaristi, 2018: 303). Paradigma horretatik, hizkuntzen galera-prozesuetako erantzuleei buruz modu abstraktuan hitz egiten da soilik. Azken batean, ordezkapen- eta jarraipen-prozesuak hiztunen erabakiaren ondorio baitira (Moreno, 2009: 243):

La sustitución o el mantenimiento de una lengua son consecuencia de una elección que practican los hablantes. El mantenimiento de una lengua supone que una comunidad ha decidido colectivamente utilizar la lengua o las lenguas que ha usado tradicionalmente, especialmente en una situación en la que se ha podido producir un cambio.

Gizarte zientzietako beste paradigma aipagarria gatazkarena dugu. Karl Marxen obran errotzen da nagusiki, eta Dahrendorf, Coser eta beste zenbait autorek landu izan dute (Ritzer, 1993: 80; Juaristi, 2018: 310)<sup>4</sup>. Ikuspegi horren arabera, munduaren historia gatazkaren historia da hein handi batean, interes kontrajarriak dituzten talde sozialen arteko etengabeko borrokarena. Borroka horretan, talde menderatzaileek beren baliabide indartsuak eta boterea erabiliko dituzte gainerako taldeak mende hartzeko. Eta zapalkuntza-egoera justifikatzen duen mundu-ikuskera sendotzeko eta hedatzeko duten ahalmena ere erabiliko dute. Abiapuntua hori izanik, gizarteetan berezkoak dira desadostasunak eta gatazkak. Gatazka horiek, gainera, aldaketa sozialaren motorra izan daitezke.

1950eko eta 1960ko hamarkadetan Erresuma Batuan eta, batez ere, Amerikako Estatu Batuetan gorpuztu zen soziolinguistikak oro har, adostasunaren ikuspegitik abiatuta,

---

<sup>4</sup> Vilak dio gatazkaren paradigmak Max Weber eta beste soziologo batzuetatik ere edan zuela (Boix eta Vila, 1998: 53).

ontzat ematen zuen diglosia<sup>5</sup> (Vila, 2016: 201). Aitzitik, hizkuntza gutxituen defentsaren eremutik, eta marxismoaren eraginpean, hainbat ikertzaile eta aktibista idazten hasi ziren 1960-1970eko hamarkadetatik aurrera. Darquennesek (2015: 7) eta Vilak (2014: 56) hainbat izen aipatuko dituzte, hala nola Lluís Vicent Aracil, Louis-Jean Calvet, Marcel Cohen, Jean-Claude Corbeil, Robert Lafont, Jean-Baptiste Marcellesi, Rafael Lluís Ninyoles, Francesc Vallverdú eta Peter H. Nelde. Azken horrek “Nelderren lege” gisa izendatuko dena formulatuko du: hizkuntza-ukipen egoerak halabeharrez dakar gatazka (Nelde, 1987). Gatazka linguistikoa azaleratzearen alde azalduko dira, oro har, autore horiek, eta auzitan jarriko dituzte diglosia, elebitasuna eta kontsentsua. Ikuspegi horren arabera, “gizarte batean bi hizkuntza edo gehiago ukipenean daudenean, hauen arteko desoreka, gatazka edo lehia sortzen da, hizkuntza bakoitzak funtzio eta erabilera-eremu berriak eskuratu nahi izaten dituelako edo lehendik dituenak babestu eta hedatu” (Juaristi, 2018: 310). Egoera horretan, komunitate gutxituak saiatu egin beharko du sakonean dauden botere-harremanetan eragiten, botere politikoa eskuratuz (estatu propio bat lortuz bada, hobeto) eta herri-ekimena indartuz. Helburu gisa, hizkuntza gutxituari funtzio guztiak eman behar zaizkio, ez bakarrik etxeokak eta hurbilekoak, diglosiaren defendatzaileek proposatu bezala. Ikuspegi horretatik, familiako transmisioa eta abar garrantzitsuak izanik ere, “goiko” mailak bereganatu behar ditu hizkuntza gutxituak, hizkuntzak estatusa eduki dezan. Eta horrek ekarriko du etxean ere transmititzen jarraitzea eta hizkuntzak aurrera egitea. Gatazkaren paradigmatik defendatzen den ikuspegi hori (hizkuntza gutxituak funtzio guztietara zabaltzearen premia) bere egiten dute adostasunaren paradigmaman kokatzen diren hainbat autorek (hizkuntza-ekologiatik diharduten askok, esaterako). Hasieran aipatu bezala, adostasuna/gatazka banaketa ez baita gure azalpen labur honek aditzera eman dezakeen bezain zurruna eta estankoa.

Gatazkaren ikuspegia asko landu izan zen 60ko hamarkadatik aurrera Europako hizkuntza-komunitate gutxituen barruan (katalanak, okzitaniarrak, bretoiak, galegoak, euskaldunak...). Horien artean, herrialde katalanetako autoreek (valentziarrek bereziki) pisu berezia eta eragin handia izan zuten gainerako komunitateetan, baita Euskal Herrian ere (Zalbide, 2011: 75; Pujolar, 2021). Aurrerago ikusiko dugun bezala, gatazkaren paradigma nagusi izan zen euskal soziolinguistikian XX. mendea bukatu arte. Hortik aurrera, adostasunaren paradigma indartzen joan da gurean (Juaristi, 2018).

Errealitate soziolinguistikoaz oinarrizko bi ikuspegi kontrajarri nagusi ditugu, hortaz. Bigarren kapituluan sakonago ikusiko dugu, halaber, ikuspegi horiei lotuta, ikuspegi ezberdinak daudela hizkuntzen ordezkapen-prozesuak aztertzeko eta biziberritze-prozesuak bideratzeko. Zehazki, adostasunaren paradigmaman kokatzen den eta funtsezko erreferentea den Fishmanen ikuspegia landuko dugu batetik, eta gatazkaren paradigmaman kokatzen den *minorizazioaren soziolinguistika* deitu izan denak landu duena bestetik.

---

<sup>5</sup> Aurrerago, Fishmanen ikuspegia aurkezterakoan lasaiago arituko gara diglosiaz.

## 1.2. DEMOLINGUISTIKA, IKUSPEGI KUANTITATIBO BATETIK HIZTUN MULTZOEN EGOERA ETA BILAKAERA MAILA MAKRO BATEAN AZTERTZEN DUEN DIZIPLINA

### 1.2.1. Demolinguistikaren sorrera eta bilakaera

Demolinguistika<sup>6</sup> (edo hizkuntza-demografia<sup>7</sup>) “hizkuntza baten egoera soziolinguistikoaren eta hiztunen ezaugarri demografikoen arteko erlazioa aztertzen duen diziplina” gisa definitzen da *Soziolinguistika Hiztegian* (UZEI, 2010: 55).

Duela hiru hamarkada, honela definitu zuen De Vries-ek zer den demolinguistika eta zein den haren zeregina (1990: 60-61):

The term demology indicates that we are dealing with the application of one discipline (in this case, demography) to a specific object (in this case, language). Thus, we take an approach usually applied to total populations [...] and adapt it to what has been called a *quasi-population*. A quasi-population may be defined as a proper subset of an overall population, which is ‘self-reproducing’. In other words, a quasi-population must have a structure by age and sex of such a nature that (in principle, anyway) the group could reproduce itself by the normal demographic processes. [...] A demological approach deals with the size, structure and geographic concentration or dispersion of language communities.

Laburrera joz, honela uler dezakegu demolinguistika (Vila, 2020: 629):

The demography of language or demology is the statistical study of populations and their flows from the point of view of the language(s) they know and use.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, hainbat lurraldetan hizkuntza-egoerari buruzko zentsuetako informazioa askoz lehenagokoa bada ere, demolinguistika gaur egun ezagutzen dugun moduan, 1960ko hamarkadan hasi zen lantzen Kanadan eta, bereziki, Quebecen (Sorolla, 2012: 11), bertako komunitate frankofonoak, ingelesa nagusitzen ari zela ikusirik eta horrekin kezkatuta, egoera eta bilakaera-joerak zenbakien bidez aztertzeko eta adierazteko beharra izan zuenean. Prévost eta Beaudet (2002: 91) diote ez dela kasualitatea demolinguistika Kanadan sortu eta hainbeste landu izana<sup>8</sup>. Autore horien arabera, tradizio demokratiko luzeko lurralde aberatsa izateaz gain, han gizabanakoaren printzipioan oinarritzen da hizkuntza-politika eta horrek inon baino beharrezkoago egiten du hizkuntza bakoitzaren hiztun multzoaren zenbaketa egoki, xehe eta ahalik eta era objektiboenean egitea, zenbaketa horiek ondoren arauetan ere ondorioak badituztelako, besteak beste. Aitzitik, autore

---

<sup>6</sup> Hona hemen *demolinguistika* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 55):

- Gaztelaniaz: demolingüística.
- Frantsesez: démologique.
- Ingelese: demology.

<sup>7</sup> Ingeleseko termino erabilienei begiratuta, *demology* Kanadan da nagusi batez ere; Australian, Hegoafrikan edo Indian gehiago jotzen dute *language demography* erabiltzera; *demography of language*, berriz, Albert Verdoodt belgikarraren lanei lotua azaltzen zaigu nagusiki (Sorolla, 2012: 15).

<sup>8</sup> Kanadako demolinguistikaren historiarako ikus Wargon (2000).

horiek diote, lurralde-irizpideetan oinarritutako hizkuntza-politikak indarrean dauden lurraldeetan, Suitzan eta Belgikan adibidez, ez dela hain beharrezkoa izan hiztunen zenbaketa hori, eta horrekin lotu dute herrialde horietan demolinguistika gutxiago landu izana (Prévost eta Beaud, 2002).

Ikerketa demolinguistikoak luze gabe zabaldu ziren Kanadatik eta Quebecetik munduko hainbat tokitara: Estatu Batuetara, Indiara, Australiara, Birmaniara eta baita Irlanda, Gales, Katalunia edo Euskal Herrira ere. Hizkuntza pertsona eta gizarte ororen ezaugarria izanik, berez edozein lurralde eta herrialdetan landu daiteke demolinguistika<sup>9</sup>. Hala ere, hizkuntza bat baino gehiago dauden gizarteetan landu izan dira, nagusiki, ikerketa demolinguistikoak.

### **1.2.2. Ikerketa-gaiak eta kokapena soziolinguistikaren eremu zabalean**

Zer aztertzen du demolinguistikak? Hiztun multzoen neurria, egitura, bilakaera eta ezaugarriak, ikuspegi kuantitatibo batetik betiere (Vila, 2009a: 7). Horrela, demolinguistikaren zeregin behinenak dira hizkuntzen hiztun kopuruak zehaztea, hizkuntzaz jabetzeko bideak kuantifikatzea, hiztun-tipologiak zehaztea eta erabilera-datuak eskuratzea (Torres, 2011: 183). Horretarako, teknika demografikoak eta soziologikoak erabiltzen ditu (Sorolla, 2017b: 1).

Zer-nolako tokia betetzen du demolinguistikak soziolinguistikaren eremu zabalean eta zer-nolako harremanak ditu auzo-diziplinekin? I.1. irudian ikusten genuen bezala, ardatz sozialean eta ikuspegi makroan kokatzen da erabat demolinguistika. Demolinguistika, zehazki, demografiaren eta hizkuntzaren soziologiaren uztarketa-eremuan agertzen zaigu, eta maila makro batean aztertzen du hiztunek nolako harremana duten hizkuntzarekin. Horretaz gain, lotura argiak ditu demolinguistikak beste diziplina batzuekin ere, hala nola, hizkuntza-plangintzarekin (Zhou, 2015), geolinguistikarekin (Dell'Aquila eta Iannàccaro, 2019: 524) edo giza geografiarekin (Moreno, 2014). Esan beharrik ez dago, gizarte-zientzietan arrunta den bezala, eremu horien arteko mugak lausoak izan ohi direla.

### **1.2.3. Administrazio publikoen eta politika arloaren eragina demolinguistikan**

Aurrerago azalduko dugun bezala, hizkuntzari buruzko galderak lantzen dituzten zentsuak eta inkesta soziolinguistikoak dira demolinguistikak landu dituen ikerketa-tresna nagusiak. Eragiketa estatistiko erraldoi (eta garesti) horiek, oro har, administrazioaren eskutik egin izan dira, eta ezinbesteko tresna dira hizkuntzen egoera orokorra aztertzeko eta hizkuntza-politikak finkatzeko, argudiatzeko eta ebaluatzeko (Cooper, 1980; Zhou, 2015; Ó Riagáin, 2018: 4).

Tokian tokiko ondorio praktiko zuzenak ere izan ohi dituzte eragiketa horiek askotan. Kanadan, adibidez, zentsuetan frantses- eta ingeles-hiztunen proportzioen arabera moldatzen da haurren eskolatzeko-erantzukizuna; Finlandian, hizkuntza bat lehen hizkuntza

---

<sup>9</sup> Gaztelaniaren kasuan, adibidez, aipatzekoa da Cervantes Institutuarekin batera hainbat autorek hizkuntza horrek munduan dituen hiztunak zenbatzen eta duen egoera demolinguistikoak deskribatzen egindako lana (Moreno eta Otero, 2006; Moreno, 2014).

duten hiztunen kopuruaren arabera ebazten da zerbitzu publikoak hizkuntza horretan eskaini ala ez eta haurrak zein hizkuntzatan eskolatu. Gurera etorrira, EAEko tokiko erakundeetako langileen hizkuntza-profilen banaketa, adibidez, tokiko eremu horietan zentsuek euskararen ezagutzari buruz ematen dituzten datuen arabera erabakitzen da. Eragiketa horien ondorio praktiko ukigarriez gain, hizkuntza gaiak identitateekin eta nazio-gatazkekin sarritan izan ohi duten harremana ere aintzat hartuta, politikak zuzenean eragiten dion eremua da, sarri askotan, demolinguistika<sup>10</sup> (Duchene eta Humbert, 2018; Humbert et al., 2018; Ó Riagáin, 2018; Urla eta Burdick, 2018; Dell’Aquila eta Iannàcaro, 2019: 527).

Argudio eta interes zientifikoak eta politikoak elkarrekin harremanean eta lehia azaltzen zaizkigu demolinguistikaren joko zelaian. Harreman horrek izaera hierarkikoa duela eta oro har politikak zientziak baino gehiago agintzen duela aipatzen dute Humbert, Coray eta Duchêne-k (2018: 58):

La légitimité des statistiques des langues est le fruit d’un dialogue permanent entre ces deux champs dans tous les contextes que nous avons rencontrés. La relation que les acteurs de ce dialogue entretiennent a cependant une connotation hiérarchique, puisque les scientifiques ont généralement un statut de consultant ou d’exécutant et les politiques ont le pouvoir de décider et de gouverner. Ce va-et-vient entre sciences et politique – tantôt convergent, tantôt divergent – apparaît autant dans l’élaboration de questions sur les langues que dans la diffusion et la réception des résultats statistiques.

Eragiketa estatistiko demolinguistikoak lantzearen ardura, oro har, administrazioaren esku egoteak berarekin ekarri du akademia-eremuan arreta apala eskaini izana eta diziplinaren garapen teorikoa ahula izatea (Sorolla, 2017b). Demolinguistikaren egoeraren inguruan idatzi duten autoreek ere gaiaren inguruko literaturaren urritasuna aipatzen dute (De Vries, 2006: 616).

Horrekin batera, esan dezakegu, soziolinguistikaren eremu zabalean, demolinguistika ez dagoela gaur egun garapen handiena duten alorren artean. Sorollak esaten duenez, makrosoziolinguistikaren fundatzaileek sortutako aldizkarietan ere urriak dira gaur egun demolinguistikaz argitaratzen diren artikuluak. Eta artikuluen argitalpenek ikerketa-lerro batzuk edo besteak indartzeko nolako garrantzia duten jakinik, horrek ez du laguntzen demolinguistika sendotzen. Dena den, arazo zabalago baten barruan sar daiteke hori guztia, aipatu diren errealitate eta joerek, demolinguistikari ez ezik, soziolinguistikaren ikuspegi makro osoari eragiten diote eta (Sorolla, 2017b: 1):

Actualment, les visions quantitativistes, o amb una perspectiva macrosocial, no són comunes en revistes acadèmiques d’impacte o en congressos internacionals.

---

<sup>10</sup> Adibide aipagarria da gaztelaniak munduan dituen hiztun kopuruak “puztuta” daudela defendatuz argitaratu den tesia (Pié, 2018).

#### 1.2.4. Demolinguistikaren tresna nagusiak: zentsuak eta inkesta soziolinguistikoak

Bere ikerketak gauzatzeko bi tresna erabiltzen ditu nagusiki demolinguistikak: zentsuak eta soziolinguistikazko inkestak. Horietaz gain, demolinguistikaren panorama orokorrean askoz ere garrantzi gutxiagorekin bada ere, badira beste ikerketa molde batzuk ere, behaketetan edo erregistro bidez jasotako datuen ustiaketan oinarritzen direnak adibidez. Hurrengo puntuetan azalduko ditugu.

Ikuspegi orokor bat ematearren, esan dezagun zentsuetako galderak laburrak eta zuzenak izan ohi direla, eta herritarren oinarriko ezaugarri objektibagarriak jasotzea izan ohi dutela xede. Inkestek, berriz, galdera kopuru handiagoa eta gai mota handiagoa onartu ohi dute (Ó Riagáin, 2018: 3). Hori bai, unibertso osoari beharrein lagin bati aplikatu ohi zaizkio, eta akats-tarteen barruan egin behar izaten dira datuen irakurketak. Teknika horiek historian kokatuz, esan dezakegu XIX. mende erdialdetik gaur arte jaso izan dela informazio demolinguistikoa zentsuen bidez. XX. mendearen erdialdetik aurrera, berriz, hizkuntzen egoera sozialari buruzko informazio kuantitatiboa eskuratzen hasi ziren inkestetan, eta XX. mendearen 70eko hamarkada inguruan, berriaz helburu soziolinguistikoak zituzten inkestak hasi ziren. Bi eragiketa mota horiek dituzten hizkuntza-komunitateen kasuan, bi iturri horien uztarketa izango da egoera demolinguistikaren azterketa ahalik eta sendoena egiteko bidea (Dell'Aquila eta Iannàccaro, 2019: 529):

It is clear that only careful, continuous, and methodologically rigorous comparison of census data and/or polls, and the outcomes of sociological and/or sociolinguistic research – which is more limited in space and time, but provides more detailed and precise language data – can provide a reasonably faithful picture of the use of a set of linguistic codes in a given area, and produce meaningful outcomes.

Mundu zabaleko egoera soziolinguistikoa ugaria eta askotarikoa izaki, tokiko errealitate horiei egokituta landu da demolinguistika han eta hemen. Ondorioz, beste alor batzuetan ez bezala (ekonomia edo lan alorreko estatistiketan, adibidez), mundu mailako estandarizazioa urruti duen ikerketa alorra da demolinguistika; ez dira asko, halaber, herrialde bateko eta besteko errealitateak demolinguistikoki alderatzen dituzten lanak<sup>11</sup>. Tokian tokiko garapen horren ondorioz, irizpide-ugaritasuna dugu bai ikertu izan diren gaitan, eta baita alderdi metodologiko nagusietan ere, hala nola, galdera-erantzunak formulatzeko moduetan. Formulazioan dauden aldeak, gainera, askotan ez dira aztertu izan ikuspegi metodologiko batetik sistematikoki (Ó Riagáin, 2018: 5-9), eta gaiari buruzko ekoizpen zientifikoa ez da oso oparoa:

There is, however, as yet no comparable publication assessing the quality of sociolinguistic measures in survey research. Writing in 2006, de Vries (2006, p. 616) found that there was only 'a small and not easily accessible literature' on the topic of language questions in censuses and surveys (Ó Riagáin, 2018: 6).

De Vriesek azaltzen duenez (2006), oraindik ez dago iturri zentralizatu bat munduko zentsuetan hizkuntzari buruz txertatzen diren galderak biltzen dituenena. Horrek izugarri

---

<sup>11</sup> Salbuespenen artean, Irlanda, Gales, Ipar Irlanda, Maneko ugarteia eta Eskoziako hizkuntza zeltikoen datu demolinguistikoki alderatuetakako ikus *Changes in the Celtic-language-speaking Populations of Ireland, The Isle of Man, Northern Ireland, Scotland and Wales from 1891 to 1991* (Mate, 1997).



zailtzen du gaiari buruzko ikerketa sistematikoak egin nahi dituzten ikertzaileen lana. De Vries berak dionez, soziolinguistikazko inkesten kasuan are okerragoa da egoera.

Hurrengo puntuetan, zentsuak, inkesta soziolinguistikoak eta gainerako iturri demolinguistikoak aurkeztuko ditugu lasaiago, eta eragiketa horien inguruko hainbat xehetasun azalduko dugu. Inkesta soziolinguistikoei eta zentsuei buruz ari garenean, dena den, badago ezinbestean aipatu beharreko gai bat: inkesta horietan (zentsuak unibertso osoari egindako inkestak dira) elkarrizketatu diren pertsonen erantzunak zenbateraino diren egiazkoak. Gaiari buruzko literaturak argi uzten du hitzunei euren portaera eta ezaugarriei buruz galdetzen diegunean, alboratze bat gertatu ohi dela erantzunetan; hots, erantzunak askotan ez datozela bat %100ean aztertu nahi diren portaera eta ezaugarriekin. Guretzat garrantzi berezia du gai horrek, baina horri buruzko lanketa ez dugu orain egingo, aurrerago baizik, metodologia-ataleko 8.6. puntuan.

## **1.3. ZENTSUAK (DEMOLINGUISTIKAREN TRESNAK I)**

### **1.3.1. Ibilbidea, definizioa, hizkuntza-zentsuak**

Orain dela milaka urte egin zituzten nekazarien eta biztanleriaren lehen zentsuak antzinako Babilonian, Txinan, Egipton eta Erromako Inperioan. Hasierako zentsu haien helburu nagusia zergei eta soldadutzari zegozkien betebeharrak finkatzea izan ohi zen. Estatu-nazio modernoan sorrerarekin, zentsuak eta erroldak ugaritu egin ziren, eta horietan jasotzen den informazio mota ere zabaldu egin zen (Leeman, 2017).

Zentsuak, gaur egun, lurralde batean bizi diren herritar guztien hainbat ezaugarri demografiko, ekonomiko, kultural eta sozial zehatz ezagutzeko bidea ematen die botere publikoei (adibidez, adina, ikasketa maila, jarduera...). Jardun estatistiko ofizialaren barruan, maila goreneko eragiketa da biztanleria-zentsua<sup>12</sup>, herritarrek nahitaez erantzun behar dutena. Eragiketa horren barruan biltzen dira eragiketa posible egiten duten hainbat zeregin, hala nola, ikergaiak eta galderak definitzea, informazioa biltzea, aztertzea eta argitaratzea. Honela definitzen du biztanleria-zentsua Nazio Batuen Erakundeak (United Nations -Department of Economic and Social Affairs Statistics Division-, 2017: 2):

A population census is the total process of planning, collecting, compiling, evaluating, disseminating and analysing demographic, economic and social data at the smallest geographic level pertaining, at a specified time, to all persons in a country or in a well-delimited part of a country.

Noiz eta zein testuingurutan hasi ziren zentsuetan hizkuntzei buruzko galderak txertatzen? XIX. mendeko erdialdean, estatistika ofizialen sortzaileen artean eztabaida

---

<sup>12</sup> Honela aurkezten dute zentsuen garrantzia Reher, Valerok eta Garcíak (1995: 9): “El censo de población es la fuente sociodemográfica más completa debido a sus características entre las que cabe destacar la cobertura, variedad y la cantidad de la información recogida, la simultaneidad en cuanto a la información obtenida y la periodicidad con que ésta se obtiene y se renueva. Se puede decir, sin lugar a dudas, que el censo es la operación mas amplia de recogida de información individual llevada a cabo en un país”.

ugarri izan zen talde nazionalen, etnikoen, arrazialen edo linguistikoen inguruko informazioa biltzeko modurik egokienaren inguruan. Belgika izan zen hizkuntza gaiak zentsuan lehen aldiz txertatu zituen estatua, 1846. urtean zehazki, eta Prusiak, Suitzak eta Erresuma Batuak 1850eko hamarkadan egin zuten gauza bera (Lieberson, 1966; Arel, 2002; Leeman, 2017; Ó Riagáin, 2018; Peytcheva, 2019). Demolinguistikan erreferentzia den Kanadan, bestalde, 1901ean hasi ziren zentsuetan hizkuntzari buruzko galderak txertatzen (Wargon, 2000). Ez da berri-berria, beraz, hizkuntzari buruzko informazioa zentsuen bidez biltzea. Gaur egun, praktika orokortua izan gabe ere, herrialde ugarritan txertatzen dira hizkuntzei buruzko galderak zentsuetan. Literatura espezializatuan hainbat izen eman izan zaizkie hizkuntzei buruzko galderak txertatu dituzten zentsuei: “censos lingüísticos” gaztelaniaz, “recensement linguistique” frantsesez eta “language census” (eta baita “linguistic census” ere) ingelesez. Guk “hizkuntza-zentsu” erabiliko dugu.

Hizkuntza-zentsua demolinguistikan gehien erabili izan den tresna da eta garrantzi berezia du gertaera soziolinguistikoen kartografia zehatza landu nahi denean. Eta baita epe luzeko ikuspegia landu nahi denean ere (Lieberson, 1966: 263):

Insofar as questions of change and stability are central concerns of sociolinguistics, the census provides a most powerful instrument for determining the past linguistic condition of the population.

Tradizionalki, aipatu bezala, zentsuetan herrialde bateko biztanle guzti-guztiei buruzko informazioa eskuratzen zen banaka-banaka (pertsonek bakoitzari galdetuta edo etxebizitza bakoitzeko pertsona batek etxeko kide guztiei buruzko erantzunak ematen zituela). Azken urteotan, berriz, sistema estatistiko sendoagoak dituzten herrialde aurreratuetan zentsua egiteko metodologia berria ari da nagusitzen (Humbert et al., 2018: 59; Ó Riagáin, 2018:24). Zentsua egiteko modu *berrian*, oro har, oso ondo aukeratutako lagin zabal bati inkesta demografiko bat egiten zaio batetik; bestetik, administrazioak bere esku dituen hainbat erregistro administratibotako informazioa erabiltzen da, falta diren datuak inputatzeko (Linaza, 2013; Miranda eta Martínez, 2013). Bi iturri horiek uztartuz kalkulatu dira zentsu berrian emaitzak.

De Vriesekek zentsuetako datu demografikoetan ager daitezkeen akats nagusiak aipatzen ditu (2005; 2006): estaldura-arazoak (ikertu beharreko herritarrak kanpo gelditzen direnean edo ikertu behar ez zirenak sartzen direnean), erantzunik gabe gelditzen diren galderak, akatsekin erantzun izan diren galderak, kodetze-akatsak, datuak ustiatzerakoan gertatzen diren bestelako akatsak eta inputazio-fasean egin daitezkeen akatsak. Akats horiek batzuetan antzematen dituzte ikertzaileek, baina ez da beti horrela gertatzen<sup>13</sup>.

Galderak egiteko eta erantzuteko moduei erreparatu, berriz, zentsuko datuen alboratze posibleek funtsezko bi iturri dituzte, Ravindranathen arabera (2019: 443). Batetik, galderen idazkerak berak erantzunetan eragina izaten du. Bestetik, pertsonen galderei erantzuterakoan inkoherentziaz jokatzeko dute hainbatetan. Horrela, testuinguruaren arabera, hiztunek aldatu egin ditzakete erantzunak. Adibidez AEBetan

---

<sup>13</sup> Kataluniako 2001eko zentsuetarako, adibidez, ikusi *Les dades lingüístiques del cens de l'any 2001: alguns dubtes i limitacions* (Vila, 2005).

nortasun etniko indartsuagoen sorrerarekin bat, ingelesa ez zen beste hizkuntzetako hiztun nabarmen gehiago azaldu ziren zentsuetan 1970. urtean hamar urte lehenago baino. Alderantziz, alemanez mintzo ohi diren Belgikako eskualdeetan, alemaniar hiztunen kopuruak nabarmen jaitsi ziren zentsuetan 1930 eta 1947 bitartean, Bigarren Mundu-gerra bukatzearekin batera.

Alboratzeak alboratze, zentsuak (eta inkestak) tresna baliagarriak dira hizkuntzen egoera soziala aztertzeko (Lieberson, 1980: 26):

There is often reason to think that census data on mother tongue, bilingualism and language spoken at home may provide reasonably close approximations of the 'real world' even if they are distorted to some unknown degree.

Alabaina, zentsuak, errealitate historiko, sozial eta politiko konkretuetan garatu izan direnez, ez dira unean uneko gatazketatik at garatu, jarraian ikusiko dugun bezala.

### 1.3.2. Zentsuak gatazka-zelai

Hizkuntza gaiak aztertzeko galderak zentsuetan lehen aldiz txertatu ziren garaietatik gaur arte ugariak izan dira estatistikak egin izan dituzten erakundeek hizkuntza gaiak aztertzeko izan dituzten sakoneko arrazoiak. Aktore askoren interesak daude jokoan, eta zentsuen inguruko erabakiak ez dira hartu izan irizpide tekniko metodologikoen arabera soilik. Aitzitik, zentsuek beren papera bete izan dute kategoria eta zenbaki ustez objektiboen bidez, estatuei komeni zaizkien irudiak eraikitzeko (Anderson, 1993: 229). Ildo horretan, hizkuntzen inguruko zentsuak ere tresna garrantzitsua izan dira botere eta eragile politikoaren eskuetan (Duchene eta Humbert, 2018: 8):

Therefore, it seems obvious that quantifying languages and speakers, and the ways in which this quantification is realized, raises not only methodological concerns, but, more fundamentally, epistemological ones that are influenced by political debates, in which governmental and institutional structures play a part in constructing what is understood as objective knowledge on languages. In turn, this knowledge has a considerable impact on how languages and speakers are imagined and reveals various understanding of what counts as a language.

Lehenik eta behin, hainbat erabaki hartu behar izaten ditu zentsugileak (estatuak, botere politikoak, administrazioak). Adibidez, hizkuntzen inguruko galderak zentsuetan txertatu edo ez txertatu; txertatzekotan, zein hizkuntzari buruz galdetu eta zein hizkuntzari buruz ez galdetu, eta zein aldaerari eman hizkuntza-tratamendua eta zein aldaerari ez eman horrelako tratamendurik... Tankera horretako oinarritzko erabakiak, arrazoi eta interes multzo ugariaren emaitza izan ohi dira (Kertzer eta Arel, 2002). Eta arrazoi horiek aldatu egiten dira testuinguru batetik bestera. Batzuetan, estatuko hizkuntza nagusia indartzea eta gainerako hizkuntzen heriotza-prozesua azkartzea zen estatistika egileen helburua, Frantzia esaterako (Boutet, 2016; Duchene eta Humbert, 2018: 3). Estatu Batuetan eta Australian, berriz, etorkin zein indigenen multzoa gizarte dominantean integratzea (edota integratu ezean negatiboki markatzea) izan da historikoki hizkuntzei buruzko zentsuetako galderen helburu nagusia (Leeman, 2017; Humbert et al., 2018).

Orain arte jarritako adibideen aurkako zentzuan, beste hainbat herrialdetan, Suitzan, Belgikan, Kanadan, Katalunian eta Hego Euskal Herrian, adibidez, gutxiengo

linguistiko edo nazionalak bistaratzea eta indartzea izan da zentsu linguistikoen helburua eta ondorioa. Edonola ere, hizkuntzen inguruko gatazka biziagoa izan den garai-tokietan zentsuen alorra ere ez da geratu gatazkatik at. Adibide adierazgarria da gai linguistikoak zentsuetan aztertu zituen lehen estatuak (Belgikak) gaiari buruzko galderak egiteari utzi ziola, horrek komunitate flandriarraren eta valoniarraren artean sortzen zituen tirabirengatik. Izan ere, zentsuko emaitzetan hizkuntza bakoitzeko hiztunek zuten pisuaren arabera erabakitzen zen hainbat udalerritan zein izango zen hizkuntza ofiziala. Azkenean, hizkuntzen mapa behin betiko finkatzea eta zentsuetan gaiari buruz ez galdetzea erabaki zuten.

Interesen joko horretatik ez dira kanpo gelditzen, jakina, estatistika egileek galderak egiteko erabiltzen duten modua, ezta eskaintzen dituzten erantzun-aukerak eta datuak aurkezteko aukerak dituzten moduak ere. Hurbileko adibide bat: Urlak (1993; 2012) dio EAEko zentsuko galderak erabaki zirenean, trebetasunari buruzko galderetan hiru erantzun-aukera eskaintzeak zera bilatzen zuela: galdera era dikotomikoan formulatzeak irudikatuko zukeen euskaldun/ez euskaldun multzokatze itxia saihestea. Era berean dio, *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* eta *Euskararen Borroka* lanetan argitaratu ziren inkestetan, Euskaltzaindiak lehena (1979) eta Eusko Jaurlaritzak bigarrena (Ruiz Olabuénaga eta Marañón, 1983), euskalkien gaian ez zela sakondu nahi izan euskaldun guztien batasuna azpimarratu nahi izan zelako; eta garai hartako inkestetan euskaraz irakurtzeko eta idazteko gaitasunari buruzko galderak euskara modernitatearekin lortzea bilatu zutela. Urla berak dioen bezala, gaur egun errealitatea neurtzeko ez ezik “egia” ekoizteko eta gizarteratzeko teknologiak dira estatistikak<sup>14</sup>.

Oro har, bada, gaur egungo ikerketa-lerroek zentsuen eta ideologiaren arteko alde biko harremana azaleratzen dute. Laburtuz: batetik, ikuspegi ideologikotatik definituko dira estatistika publikoak zer eta nola jasoko eta argitaratuko duten; eta bestalde, estatistika publikoak kuantifikatzeko praktika horiek errealitate sozialaren ikuspegi ideologiko jakin bat indartzen lagunduko dute (Leeman, 2017, 2019).

Esan dezagun, azkenik, estatuak (edo administrazio alorrek) zentsuetan hizkuntza-gaiak ikertzeko garaian ez ezik, herritarrek zentsuetako hizkuntzei buruzko galderei erantzuteko orduan ere interesak eta ideologiak zerikusia izan dutela, hizkuntza- eta nazio-gatazkek pil-pilean egon diren garai-tokietan bereziki. Literatura espezializatuan aipatzen diren adibideen artean daude Bruselako 1947ko zentsua, non gutxiengo flandriarreko hainbat kidek euren lehen hizkuntza frantsesa zela erantzun zuten, seme-alabak frantses eskolara eraman ahal izateko (Arel, 2002). Adibide esanguratsuak ditugu, halaber, SESBen mendeko herrialde baltikoetan: Lituaniar, 1979ko zentsutik 1989kora (independentziaren atarian) %52tik %28ra jaitsi zen zentsuetan errusieraz bazekitela erantzun zutenen kopurua. Estoniar ere, independentzia baino askoz

---

<sup>14</sup> Hori horrela izanik, zentsu, inkesta soziolinguistiko eta bestelako inkesten gaitetia zein multzokatze- eta izendatze-irizpideak kritikatuak eta eztabaidatuak izan daitezke. Gurean Xabier Isasik sarri idatzi izan du EUSTATEk, HPSk eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako zentsu eta inkestetako hainbat irizpide auzitan jarri (1994; 1997; 2004; 2011). Inkesta Soziolinguistikoaren inguruko irakurketan hainbat kritika argitaratu zituen, halaber, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak ere (2017). Eragiketa demolinguistikoaren emaitzak eta horien interpretazio baikorrak auzitan jarri zituen, halaber, Iñaki Larrañaga soziolinguistak “Euskararen egoerari buruzko ikerketak: euforia giroa ala konfusio-zeremonia?” artikuluan (1998).

lehenago, harrigarriro jaitsi zen errusiera bazekitela erantzun zuten herritarren kopurua: %29 ziren 1970ean eta %24 1979an. Silverrek dio (2001: 8) herritarren multzo batek protesta ekintza isil eta masiboa egin nahi izan zuela zentsuko euren erantzunak moldatuz, Estoniako Alderdi Komunistako lehen idazkaritzarako errusiarzalea omen zen arduradun bat izendatu zutelako.

### 1.3.3. Zentsuetan txertatu izan diren galdera linguistikoak

Zentsuen bidez mundu zabaleko errealitate soziolinguistiko oso ezberdinak aztertu izan dira han eta hemen. Ikusi berri dugun bezala, bestalde, interes politikoek zuzenean eragiten duten ikerketa eta gatazka-eremua dugu hizkuntza-zentsuena. Hori horrela izanik, ez da harrizkeoa oso ugariak izatea zentsuetan hizkuntzen gaia jorratzeko erabili izan diren moldeak: informazio-bilketarako hautatu diren hizkuntzak, aztertu izan diren gaiak, erabili izan diren galdera moldeak eta elkarrizketatuei eskaini izan zaizkien erantzun-aukerei erreparatuta, alde handiak daude herrialdetik herrialdera (De Vries, 2005: 1105; Ó Riagáin, 2018: 25). Baita lortzen den informazioarekin egiten diren multzokatzeetan eta horien izendapenetan ere (Ó Riagáin, 2018: 44). Horrek guztiak zaildu egiten du nazioarteko alderaketak zorrotz egin ahal izatea. Nazio Batuen Erakundeak ematen ditu hainbat aholku zentsugileek euren jarduna parametro bateratu batzuetara hurbil dezaten.<sup>15</sup> Errealitatea oso urrun dago, ordea, mundu mailako sistema alderagarri bat izatetik. Hori guztia gutxi balitz bezala, ez da arraroa herrialde baten barruan ere ikertu diren gaiak edo txertatu diren galderen formulazioa aldatzen joatea urte batzuetatik besteetara (Leeman, 2017). Are gehiago, salbuespena dira galderen formulazioan jarraitutasun argia duten zentsuak (Humbert et al., 2018).

---

<sup>15</sup> Hona hemen zentsuetan hizkuntzei lotutako gaien inguruan Nazio Batuen Erakundeak ematen dituen aholkuak hitzez hitz (United Nations -Department of Economic and Social Affairs Statistics Division-, 2017: 204):

#### 4.6. Language

4.179. There are four types of language data that can be collected in a census, namely:

- a) Mother tongue, defined as the language usually spoken in the individual's home in his or her early childhood;
- b) Main language, defined as the language that the person commands best;
- c) Usual language, defined as the language currently spoken, or most often spoken, by the individual in his or her present home;
- d) Ability to speak one or more designated languages, including the country's official language(s).

4.180. Each of these types of information serves a very different analytical purpose. Each country should decide which, if any, of these types of information is applicable to its own needs. International comparability of tabulations is not a major factor in determining the form of the data to be collected on this topic.

4.181. In compiling data on the usual language or on the mother tongue, it is desirable to show each language that is numerically important in the country and not merely the dominant language.

4.182. Information on language (including any sign language) should be collected for all persons. In the tabulated results, the criterion for determining language for children not yet able to speak should be clearly indicated.

Edonola ere, hizkuntza gaiekin zerikusia duten honako hiru gai hauen inguruko galderak txertatu izan dira nagusiki zentsuetan (Fasold, 1996: 182; Arel, 2002: 97; De Vries, 2006: 617; Leeman, 2017: 88):

- Lehen hizkuntzari (edo ama hizkuntzari) buruzkoak, hiztunei euren lehen haurtzaroko hizkuntza-ohiturez galdetuz. Hala ere, ez da termino unibokoa, eta modu batean baino gehiagotan ulertu izan da lehen hizkuntza hori han eta hemen (Verdoodt, 2017; Ó Riagáin, 2018).
- Zentsua egin den unean gehien erabiltzen duten hizkuntzari buruzkoak. Uneko erabilerari buruz galdetu izan denean, etxean erabiltzen den hizkuntzaz galdetu izan da nagusiki, baina, horretaz gain, beste esparru batzuetako erabileraz ere galdetu izan da. Adibidez, lantokiko hizkuntzaz galdetu zen Kanadako 2001eko zentsuan; eta lantokian edo eskolan erabilitakoaz Suitzako 1990eko eta 2000ko zentsuetan (De Vries, 2006).
- Hizkuntzen ezagutzari buruzkoak: gehienetan lurraldean ofizialak diren hizkuntzen ezagutzari buruz galdetzen da: hizkuntza ofizial guztien ezagutzari buruz (Kanadan adibidez), edo hizkuntza gutxituaren ezagutzari buruz soilik (Katalunian edo Hego Euskal Herrian, adibidez).

Zentsuetan hizkuntzei lotutako bestelako gaien inguruko galderak ere egin izan badira ere<sup>16</sup>, hiru gai horiek dira, nabarmen, ikertuenak hizkuntza-zentsuetan. Gai horietako bakoitzean, ordea, zehazki zer ikertzen den eta galdera-erantzunak egiteko modua aldatu egiten da (asko aldatu ere) toki batetik bestera eta garai batetik bestera.

Zentsuetan hizkuntzei buruzko galderak txertatzen dituzten herrialdeak hartuta, ez da arruntena hiru gai horiek batera lantzea. Aitzitik, De Vriesen arabera (2006: 617), salbuespen dira hizkuntzei buruzko galdera bat baino gehiago txertatzen duten herrialdeak. Horien artean ditugu Kanada, non 1971. urtetik aurrerako zentsuetan hiru gaiak landu izan diren<sup>17</sup> (Wargon, 2000: 332; Prévost eta Beaud, 2002: 89; Leeman, 2017: 88), eta Euskal Herriko Hegoaldea 1991tik aurrera. T.1. taulan ikus daitekeen bezala, Europako Batasunean ere hiru alderdiak aintzat hartzen dituzten bakarrak lirateke EAE eta Nafarroako zentsuak (Extra, 2010: 9).

---

<sup>16</sup> Nazio Batuen aholkuetan, adibidez, nagusi diren hiru gai horietaz gain, hiztunak hobeto menderatzen duen hizkuntzari buruz galdetzea proposatzen da (United Nations -Department of Economic and Social Affairs Statistics Division-, 2017: 204).

<sup>17</sup> Kanadako 2016ko zentsuaren bertsio luzean zazpi galdera txertatu ziren hizkuntza gaien inguruan, tartean laneko hizkuntzari buruzko bi (Dell'Aquila eta Iannàccaro, 2019: 527).

T.1. **TAULA: HIZKUNTZEI BURUZKO GALDERAK EUROPAKO BATASUNEKO 17 ESTATUETAKO ZENTSUETAN**

Table 5. Operationalization of language questions in 17 EU countries (Extra & Gorter 2008: 20)

EU countries	Mother tongue	(Other) language(s) spoken (frequently)	Language(s) (most frequently) spoken at home	Language(s) spoken with family or friends	Speak well/ average/ a little	Understand/ Speak/ Read/ Write
Austria	-	-	+	-	-	-
Bulgaria	+	-	-	-	-	-
Cyprus	-	+	-	-	-	-
Czech Republic	(1)	-	-	-	-	-
Estonia	+	+	-	-	-	-
Finland	+	-	-	-	-	-
Hungary	+	+	-	+	-	-
Ireland	-	(2)	-	-	-	-
Latvia	+	+	-	-	-	-
Lithuania	+	+	-	-	-	-
Malta	-	-	+	-	+	-
Poland	-	-	+	-	-	-
Romania	+	-	-	-	-	-
Slovakia	+	-	-	-	-	-
Slovenia	+	-	+	-	-	-
Spain	(3)	-	(3)	-	-	(4)
United Kingdom	-	-	-	-	-	(5)

- (1) Indicate the language spoken by your mother or guardian when you were a child  
 (2) Only Irish; if yes, daily within/outside the educational system/weekly/less often/never  
 (3) Both language questions in the Basque Country, Navarre and Galicia, for Basque/ Galician  
 (4) In Catalonia, Valencia and the Balearic Islands for Catalan  
 (5) Only in Wales and Scotland, for Welsh and Gaelic respectively

*Iturria: Mapping linguistic diversity in multicultural contexts (Extra, 2010: 9)*

*Oharra:* taula honetako azken zutabeak akatsa dago, ez baita jasotzen EAEn eta Nafarroan gaitasunari buruzko lau galdera txertatzen direla.

### 1.3.4. Zentsuetako emaitzen ustiaketa, galdera bat baino gehiago eskura dagoenean

Zentsuetan hiru gai horien inguruko informazioa biltzen denean, azterketa-aukerak areagotu egiten dira, demolinguistikan aspalditik landu baitira birkodetzeen bidez hizkuntza-bilakaera eta hizkuntzen jarraipena/ordezkapena aztertzekeo aldagai berriak sortzekeo prozedurak (Lieberson, 1966; De Vries, 1985; Fasold, 1996). Horrek izugarri handitzen ditu errealitate soziolinguistikoak aztertzekeo aukerak.

Zentsuetako hizkuntza-galderetan oinarrituta, hausnarketarako azterketa molde interesgarriak aurkitu ditugu han eta hemen. Familiarekin eta transmisioarekin zerikusia duten gaiak, adibidez, fin landuak aurkitu ditugu Galesko hainbat lanetan (Jones, 2012; Evas et al., 2017).

Liebersonek, Kanadako zentsuetako datuak baliatuta, erakusten digu lehen hizkuntzaren datuak eta hizkuntzen egungo ezagutzari buruzkoak gurutzatuta, jatorriz hiztun-komunitate bateko kideek zein neurritan ikasi duten beste komunitateko hizkuntza (Lieberson, 1966: 264-265). Xede berarekin landu da Euskal Herrian BILA

adierazlea, etxean jasotako hizkuntzaren arabera egun duten euskarazko ezagutza aztertuz hiztun-tipologiak sortzen dituena. Aurrerago sakonago arituko gara horretaz.

Aipatutakoaz gain, tradizio handia dago Kanadan zentsuko aldagaiak konbinatuz<sup>18</sup> adierazle berriak sortzeko (ikus, adibidez, Marmen, 2005). Kanadan bertan, lurralde-eremu ezberdinetako frankofonoen multzoa zedarritzeko ahaleginean, gurutzaketa ugari egiten dituzte zentsuko aldagaien artean. Tartean, lehen hizkuntzaren datua hizkuntzen ezagutzari buruzkoekin gurutzatzen dute eta baita etxean darabilten hizkuntzari buruzkoekin ere (Guignard et al., 2014).

Talde linguistikoen bilakaera orokorra aztertzeko ere, hainbat baliabide landu izan dira demolinguistikan, demografiako oinarriko hainbat faktore (berezko mugimendua eta migrazio-mugimenduak) aintzat hartuta eta hiztun multzoei egokituta, Finlandian De Vriesek (1977) eta Kanadan, adibidez, Marmen eta Corbeilek (1999) eta berrikiago Termotek (2019) egin bezala. Ildo berean, Veltmanek **a** eta **b** uneen artean hiztun multzoen bilakaera aztertzeko oinarriko formula aurkezten digu (1983a: 12).

$$\begin{array}{ccccccc} \text{Hiztun} & & \text{a uneko hiztun} & & \text{(jaiotzak/he} & & \text{migrazio-} \\ \text{multzoaren} & = & \text{multzoaren} & + & \text{riotzak)} & + & \text{saldoa} \\ \text{neurria } b \text{ unean} & & \text{neurria} & & & & \text{migrazio} \\ & & & & & & \text{linguistikoen} \\ & & & & & & \text{saldoa} \end{array}$$

Demolinguistikan gehien erabili izan den tresna dugu zentsuena. Pasa gaitezen orain bigarren tresna erabiliena aipatzera: inkesta soziolinguistikoak.

## 1.4. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAK (DEMOLINGUISTIKAREN TRESNAK II)

### 1.4.1. Inkesta, gizarte-zientzietan ikerketa kuantitatiboak egiteko teknika erabiliena

Inkesta da gizarte-zientzien eremuan metodologia kuantitatiboan artean teknika erabiliena. Onarpen zabala du, eta askoren iritziz, teknika zehatzena eta baliagarriena da gizarte-zientzietan egiten diren ikerketei nolabaiteko oinarri zientifikoa emateko (Juaristi, 2003: 85; Hernández, 2010b: 298).

Honako ezaugarri honek definitzen du inkesta egiteko teknikaren funtsa: elkarrizketatuei egiten zaizkien galderari emandako erantzunek osatzen dute azterketarako informazioa. Ikuspegi horretatik, zentsuak unibertso osoari egiten zaizkien inkestak dira. Zentsuez aritu gara orain arte, eta orain gainerako inkestez arituko gara (lan honetan zehar, inkestak aipatuko ditugunean, zentsuak ez beste inkestak hartuko ditugu aintzat).

---

<sup>18</sup> Berez, zentsuko hizkuntza-aldagaien arteko korrelazio maila handia da Kanadan (Marmen, 2005: 28).



Zentsuak ez gainerako inkestetan, unibertso osoari buruzko informazioa bildu beharrean, lagin adierazgarri bat aukeratzen da, lagin horretan aukeratu direnei galderak egin eta gero emaitzak unibertso osora estrapolatzeko asmoz. Estrapolazio hori, estatistikaz baliatuz, konfiantza-maila bat kontuan hartuta egingo da (gizarte-zientzietan %95 edo %95,5ekoa izan ohi da) eta kasu bakoitzean dagokion akats-tartearen kontuan hartuta.

Inkestako elkarrizketak egiteko hainbat modu dago: posta bidez, telefono bidez, aurrez aurre, Internet bidez, eta abar. Inkesta molde bakoitzak bere “urrezko aroa” izan du Europan eta Ipar Amerikan: XX. mendearen hasieran posta bidezko inkestak hedatu ziren, eta iritzi- eta merkatu-ikerketetarako erabiltzen ziren; 1990etik aurrera telefono bidezkoak nagusitu ziren, eta azken hamarkadotan Internet bidezko inkestak ari dira pisua hartzen (eta kanal anitzen bidez egindakoak) (Peytcheva, 2019: 501). Prozedura bakoitzak bere onurak eta oztopoak ditu (Sellitz et al., 1980: 399-409; Visauta, 1989: 263; Giddens, 1994: 726; Juaristi, 2003: 106-112). Autore horien arabera, tradizioz, aurrez aurreko inkestak jo izan dira informazioaren kalitatea bermatzeko prozedura egokientzat. Telefono bidezkoak badute hainbat abantaila (landa-lana merkatzea ez da txikiena) eta azken urteotan kanal anitzeko inkestak indarra hartzen ari dira (Internet bidezko elkarrizketak, telefono bidezkoak eta aurrez aurrekoak uztartuz).

#### **1.4.2. Erabilerari buruzko inkestak, inkesta soziolinguistikoak, eta abar**

Hizkuntzaren egoera soziala aztertzekeo testuinguru europarrean egiten diren inkestak era ezberdinean izendatzen dira han eta hemen. Europan azertu ditugun tankera horretako inkestetan, “erabilera-inkestak” edo “ezagutza- eta erabilera-inkestak” dira gehien aurkitu ditugun izendapenak. Horretan ere, ordea, homogeneizaziotik urruti dago lantzen ari garen alorra, T.2. taulan ikus daitekeen bezala.

Azertu ditugun inkesta gehienak eksklusiboki gai soziolinguistikoak lantzeko egin ohi diren arren, salbuespenak ere baditugu. Galizian<sup>19</sup> eta Suitzan, gai soziolinguistikoak inkesta zabalagoen barruan aztertzen dira. Inkesta zabalago horietan, dena den, demolinguistikan landu ohi diren gaien inguruko galdera multzo zabala izaten da<sup>20</sup>. Lan honetan inkesta soziolinguistikotzat tratatuko ditugu denak, eta izendapen hori bera erabiliko dugu guztiak izendatzeko: Inkesta soziolinguistikoak (ISL).

---

<sup>19</sup> Galizian berriaz gai soziolinguistikoetan sakontzeko inkestak egin ziren 1992. eta 2004. urteetan, *Mapa Sociolingüístico de Galicia* izenburuarekin (Rei-Doval et al., 1995; González, Rodríguez, Fernández, Loredo eta Suárez, 2007; González, Rodríguez, Fernández, Loredo eta Suárez, 2008; González et al., 2011).

<sup>20</sup> Kanadan ere, bertako estatistika-sistemako hainbat eragiketatan txertatzen dira hizkuntzarekin lotutako gaiak, hala nola *Enquête nationale sur les ménages* delakoan (bertako zentsuko informazioa osatzeko egiten da) eta beste hainbat eragiketatan (Bélanger eta Sabourin, 2013: 167).

T.2. **TAULA: INKESTA SOZIOINGUISTIKOAK EUROPAKO HAINBAT EREMUTAN**

Lurralde-eremua	Eragiketaren izendapena (aurkitu dugun azken edizioarena)	Guk jaso dugun argitalpenik berrienaren izenburua
Euskal Herria	<i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.</i>	<i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016</i> (Eusko Jaurlaritz, 2019).
Katalunia	<i>Enquesta d'usos lingüístics de la població 2018 (EULP).</i>	<i>Els usos lingüístics de la població de Catalunya. Resultats de l'Enquesta d'usos lingüístics de la població. 2018</i> (Generalitat de Catalunya, 2019). Emitzen laburpena da; 2018ko edizioan ez omen dira analisi-txosten sakonagoak argitaratuko, 2003, 2008 eta 2013ko edizioetan ez bezala.
Valentzia <sup>21</sup>	<i>Enquesta de coneixement i ús social del valencià 2015.</i>	<i>Coneixement i ús social del valencià. Enquesta 2015. Síntesi de resultats</i> <sup>22</sup> (Direcció General Política Lingüística, 2016).
Balear uharteak	<i>Enquesta d'usos Lingüístics a les Illes Balears 2014.</i>	<i>Enquesta d'usos Lingüístics a les Illes Balears 2014</i> (Melià eta Vanrell, 2018).
Galizia	<i>"Encuesta estructural a hogares/Enquisa estrutural a fogares"</i> eragiketaren 2018ko edizioaren barruan galdera multzo ohargarria egin zen hizkuntzaren egoerari buruz <i>"Módulos de nuevas tecnologías y conocimiento y uso del gallego"</i> atalean.	<i>Enquisa estrutural a fogares. Coñecemento e uso do galego. Resumo de resultados</i> (IGE - Instituto Galego de Estatística-, 2019a).
	<i>Mapa sociolingüístico de Galicia, 2004.</i>	<i>Mapa sociolingüístico de Galicia, 2004</i> (González et al., 2007; González et al., 2008; González et al., 2011).
Gales	<i>Welsh Language Use Survey 2013-15.</i>	<i>Welsh language use in Wales, 2013-15</i> (Jones, 2015).
Irlanda	<i>2013 Irish Language Survey.</i>	<i>Attitudes towards the Irish Language on the Island of Ireland</i> (Darmody eta Daly, 2015).
Suitza	<i>Enquête sur la langue, la religion et la culture.</i>	<i>Pratiques linguistiques en Suisse. Premiers résultats de l'Enquête sur la langue, la religion et la culture 2014</i> (De Flaugergues, 2016).

Iturria: egileak landua.

Oharra: taulan azaldu diren inkestez gain, Eskoziako errealitatea ere aintzat hartuko dugu, nahiz eta aipatuko dugun lana ez datorren bete-betean ISLren ereduarekin. Izan ere, *The Gaelic crisis in the vernacular community: a comprehensive sociolinguistic survey of Scottish Gaelic* lanean hainbat ikerketa lantzen eta uztartzen dira, tartean ISL partzialak, lurraldearen zati batean soilik eginak, edota adin -tarte mugatu bati soilik eginak (Ó Giollagáin et al., 2020).

<sup>21</sup> Valentziak tradizio handia du ikerketa demolinguitikoan. Egindako bidea gorabeheratsua izan da, Raquel Caesesnovesez azaltzen digun bezala (Casesnoves-Ferrer, 2017).

<sup>22</sup> Inkesta horren emaitzen azterketa eta lehenagoko inkestekin alderaketa *El valencià segons l'enquesta del SIES de 2015* artikuluan aurkitu daiteke (Mas, 2018).

### 1.4.3. Inkesta soziolinguistikoen zeregina eta bilakaera

Inkesta soziolinguistikoek ez dute, gaia salbu, beste edozein inkestarekiko berezitasun metodologiko aipagarriarik (Torrijos eta Solé, 2017: 7). Horregatik, gai horren azterketa, oro har, gizarte-ikerketako metodoen testuinguruan ulertu behar da (Ó Riagáin, 2018: 7). Inkesta soziolinguistiko bat diseinatzen denean, laginaren barne-osaketa definitzerakoan, arreta berezia jarri beharko zaie hizkuntzen ezagutzaren eta erabileraren aldakortasunean zerikusi handiena izan dezaketen aldagaiei, hala nola, herritarren jatorriari edo adinkako osaketari (Solé, 2000: 6). Lagina lurraldean banatzerakoan ere, ezagutzan eta erabileran izan daitezkeen lurralde-ezberdintasunak oso aintzat hartu beharko dira. Gainerako inkestetan bezala, galderak egiteko moduetan egon litezkeen aldaketa txikiak ere aldaketa adierazgarriak eragin ditzakete elkarrizketatuen erantzunetan (Ó Riagáin, 2018: 5).

Zertarako egin ohi dira inkesta soziolinguistikoak? Hauxe diote Torrijosek eta Solék Herrialde Katalanetako inkesta soziolinguistikoen helburuak deskribatzerakoan (2017: 7):

L'objectiu principal d'aquestes i d'altres enquestes sociolingüístiques és fer un recompte de les persones que coneixen i usen les diferents llengües presents als territoris. L'evolució de les anàlisis i també d'estudis de les polítiques ha comportat que un altre dels objectius d'aquestes enquestes sigui analitzar els factors clau que fan que les llengües s'aprenguin, es transmetin, s'usin en diversos àmbits socials i es vulguin conèixer els interessos i les actituds de la població respecte d'aquestes llengües.

Begiratu ahal izan ditugun inkesten arabera, unibertsoa, oro har, lurralde jakin batean bizi diren 15 edo 16 urtetik gorako hiztunek osatzen dute. Hala gertatzen da, besteak beste, Euskal Herrian, Katalunian, Valentzian, Balear uharteetan eta Suitzan (De Flaugergues, 2016; Direcció General Política Lingüística, 2016; Melià eta Vanrell, 2018; Eusko Jaurlaritzak, 2019; Generalitat de Catalunya, 2019). Galizian<sup>23</sup>, berriz, 5 urtetik gorako hiztunei buruzko informazioa biltzen dute (IGE -Instituto Galego de Estatística-, 2018). Eta Galesen bi inkesta egiten dituzte aldi berean: 16 urtetik gorako herritarrei zuzenean egiten zaiena batetik<sup>24</sup>, eta 3-15 urteko haur eta nerabeei buruzko informazioa eskuratzeko egiten dena bestetik, bestelako galdera sorta batekin, euren guraso edo tutoreei egiten zaiena (Jones, 2015). Irlandan, azkenik, 18 urtetik gorako hiztunek osatzen dute ikerketa-unibertsoa (Darmody eta Daly, 2015).

Inkesta soziolinguistikoek badute abantaila nabarmen bat zentsuekin alderatuta: gai gehiago bildu dezakete (Dell'Aquila eta Iannàccaro, 2019: 528). Inkesta batean galdera asko txertatu daitezke, eta horrek aukera ematen du gai ugari xehe aztertu eta gai horien arteko harremanetan asko sakontzeko. Zentsuekiko duten desabantaila handiena, berriz, honako hau da: desagregazioak (lurraldekakoak edo bestelakoak) lantzeko orduan muga handiak dituzte inkesta-datuek. Horregatik, laginen eta

---

<sup>23</sup> 2004ko Mapa soziolinguistikoan, berriz, 15-54 urte bitartekoei egin zieten inkesta Galizian (González et al., 2007).

<sup>24</sup> Galesen, adibidez, 16 urtetik gorako elkarrizketatu guztiei galdetzen zaie galesez ulertzen, hitz egiten, irakurtzen edo idazten badakiten (trebetasun guztiak aipatzeko esanez). Eta hitz egiteko gai direla erantzun ez dutenekin hor bukatzen da elkarrizketa. Galeseko Inkesta Soziolinguistikoa, beraz, lehen galdera horretan hitz egiteko gai direnen unibertsora mugatzen da praktikan (Jones, 2015).

azpilaginen neurriak eta akats-tarteak oso kontuan hartu beharko dira emaitzak irakurtzerakoan.

Zer esan inkesta soziolinguistikoen sorreraz eta garapen historikoaz? Tamalez ez dugu aurkitu berriaz soziolinguistikoak diren eta laginean oinarritzen diren inkestei buruzko ikuspegi orokorra emango digun lan eguneraturik. Izan ere, ikerketa demolinguistikoari buruzko literatura espezializatuan zentsuak lantzen dira batik bat, eta askoz urriagoak dira laginean oinarritutako inkestei buruzko aipamenak. Handik eta hemendik jasotako aipamenen arabera, gaur egungo inkesta soziolinguistikoen moldeko lehen eragiketak<sup>25</sup> 1970eko hamarkadan ingurukoak ditugu. Tankera horretako lehenengoetako bat Kanadan egin zen, 1965. urtean, *Elebitasun eta Kulturbitasun Errege Batzordearentzat*; Irlandan, berriz, 1973. urtekoa da berriaz egindako lehenengo inkesta soziolinguistikoak, nahiz eta bost urte lehenago telebista-kontsumoari buruzko inkesta batean hizkuntzari buruzko galderak ere txertatu ziren (Ó Riagáin, 2018: 3, 51). Katalunian (eta baita Euskal Herrian ere, aurrerago ikusiko dugun bezala), 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrerakoak ditugu lehen inkesta soziolinguistikoak (Torrijos eta Solé, 2017: 7).

Aurreko puntuan zentsuei buruz esan dugu interes politiko identitario askotarikoak nahasten direla tartean, eta gauza bera esan liteke inkestei buruz ari garenean ere. Ez ditugu, hortaz, han esandakoak errepikatuko.

#### 1.4.4. Inkesta soziolinguistikoetan ikertu ohi diren gaiak

Zentsuetan bezala, inkestetan ere ez dago gai multzo finkorik inkesta soziolinguistiko guztiek lantzen dutenik. Orokorrean, alde handia dago zentsuetatik inkestetara: askoz ere galdera gehiago txertatu ohi dira inkestetan zentsuetan baino. Hizkuntza gutxituen inguruan aztertu ditugun inkesta soziolinguistikoetan, badaude aldeak inkestetik inkestara, bai txertatzen diren gaietan, eta, batez ere, galdera-erantzunak egiteko moduan. Ikuspegi azkar batean, oraingoz xehetasunetan sartu gabe, honako gai nagusi hauek aurkitu ditugu begiratu ditugun inkestetan eta gaia aipatzen duten artikuluetan (Cooper, 1980; Torres, 2003; Darmody eta Daly, 2015; Jones, 2015; De Flaugergues, 2016; Direcció General Política Lingüística, 2016; Melià eta Vanrell, 2018; Eusko Jaurlaritza, 2019; Generalitat de Catalunya, 2019; IGE -Instituto Galego de Estatística-, 2019a):

- **Hizkuntza-gaitasunari buruzkoak.** 4 trebetasun nagusien inguruko gaitasunaz galdetzen da orokorrean (ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasuna). Galderak lurraldean erabiltzen diren hizkuntza ofizial edo/eta nagusiei buruz egin ohi dira (edo horietako batzuei buruz). Horretaz gain, elebitasun-egoeretan gaitasun erlatiboari buruzko galderak egon daitezke, hots, zein hizkuntzatan aritzen diren errazago. Hainbat kasutan, hizkuntzaren erregistro jakin batzuei buruzko ezagutzaz ere galdetzen da. Galderak asko

---

<sup>25</sup> Bibliografia espezializatuan, lehenagoko hainbat inkesta ere aipatzen dira, tartean 1794. urtean eta hurrengo hamarkadetan Frantzia egindakoak. Inkesta horiek helburu argiak omen zituzten: frantsesa ez beste mintzairaren neurketa egitea, betiere frantsesa indartzea eta zabaltzea helburu izanik eta gainerako mintzaira horien ordezkapena bilatuz (Humbert et al., 2018: 8).

aldatzen dira tokitik tokira: galdera dikotomikoak, trikotomikoak eta erantzun-aukera gehiagokoak aurkitu ditugu han eta hemen.

- **Erabilera-ohiturak.** Inkestari erantzuten diotenen beren harremanetan erabili ohi duten hizkuntza funtsezko gaia dugu inkesta horietan. Inkesta batzuetan euren erabilera orokorrari buruzko galderak txertatzen dira. Beste batzuetan, berariaz galdetzen zaie egoera edo harreman jakin batzuetan erabiltzen duten hizkuntzari buruz. Arreta berezia jarri izan zaio inkesta askotan familia-giroko erabilerari: gurasoekin, seme-alabekin, neba-arrebeekin, bikotekidearekin... darabiltenari. Beste batzuetan lan-giroa aztertu izan da sakon. Horretaz gain, bestelako alorretako erabilerari buruz ere galdetu ohi da: lagunekin, auzokoekin, dendetan, osasun guneetan, udal-zerbitzuetan, epaitegian, komunikabideetan, ezezagun batekin elkarrizketa bat hasterakoan, eta abar.
- Aurrekoarekin harremanean, hainbat inkestatan norberaren **harreman-sarea** osatzen duten hiztunen **ezaugarri soziolinguistikoak** ere bildu izan dira. Nagusiki zein hizkuntzatan hitz egiteko gai diren ingurukoak.
- **Hizkuntzen jabekuntza-prozesuaz:** lehen hizkuntza zein izan zuten, umetan gurasoekin erabili ohi zuten hizkuntza, eskolan zein hizkuntzatan ikasi zuten, heldutan hizkuntza(k) ikasteko saiorik egin duten...
- Azken gai multzo nagusi bat **alderdi subjektiboek** osatzen dute<sup>26</sup>. Sail horretan handia da azpigai eta galderen zerrenda. Deigarria egin zaigu, adibidez, galdera subjektiboen pisu handia Irlandako inkestan (Darmody eta Daly, 2015). Aipa ditzagun labur hango eta hemengo inkestetan alor honetan garrantzitsuenak iruditu zaizkigun galderak:
  - Identifikazio-hizkuntza.
  - Nazio- eta komunitate-sentimenduen ingurukoak.
  - Hizkuntzen egungo egoera sozialari, azken urteko bilakaerari eta etorkizuneko bilakaerari buruzko hautemate eta iritziak.
  - Hizkuntzei atxikitzen zaizkien balioen inguruko iritzi eta jarrerak.
  - Egiten den edo egin beharko litzatekeen hizkuntza-politikari buruzkoak.
  - Hizkuntza gutxituen izenari buruzkoak.
- Aurreko bloke horietaz gain, **aldagai askeak** jasotzen dituzten galderak ere badira: sexua, adina, jaiolekua, bizilekua, maila sozioekonomikoari buruzkoak, ikasketa maila, eta abar.

---

<sup>26</sup> Literatura zabala dago inkestek oro har alderdi subjektiboak neurtzeko dituzten ezintasun, zailtasun eta mugen inguruan. Inkesta soziolinguistikoak ez dira horretan salbuespen (Ruiz, Sanz eta Solé, 2001: 105-106).

## 1.5. BESTELAKO TRESNA ETA BITARTEKOAK (DEMOLINGUISTIKAREN TRESNAK, III)

Inkesta soziolinguistikoak eta, batez ere, zentsuak dira demolinguistikak erabili ohi dituen ikerketa-tresna nagusiak. Aipa ditzagun, labur, horietaz gain erabili izan diren beste hainbat:

**Erregistro administratiboetan oinarritutako estatistikak** ere iturri oparoa dira demolinguistika arloko ikerketak egiteko. Hori horrela gertatzen da erregistro horietakoren batean hizkuntzen egoerari buruzko informazio adierazgarria bildu izan denean. Finlandian eta Kanadan, adibidez, jaiotzei, heriotzei eta ezkontzei buruzko estatistiketan, erregistratu den gertaeraren protagonisten lehen hizkuntzari buruzko datua jasotzen da, eta horrek ikerketa-aukera ugari ematen du hiztun taldeen bilakaera eta egoera aztertzeko (Verdoodt, 2017: 35-36), ugalkortasunari buruzko estatistikak, adibidez, hiztun-komunitateka kalkulatzu. Adibide hurbilago bat ere jarriko dugu: hezkuntzan hizkuntza-eredu bat baino gehiago duten lurraldeetan (Hego Euskal Herrian esaterako) eredu bakoitzeko matrikulazioei buruzko datuak ustiatu ohi dira. Azken adibide bat: 2019ko azaroaren 15ean Euskaltzaindiko Jagon Jardunaldian aurkeztutako *Euskara eta lan-munduratzeara* analisisa (Zubeldia, 2019) Lanbideko erregistroetan oinarritutako azterketa da.

Hizkuntza gaietarako informazio-iturri administratiboen fidagarritasuna auzitan jarri izan bada ere (Leeman, 2017: 94), eragiketa horiek ondo egiten diren heinean, iturri funtsezkoak ditugu.

**Behaketan oinarrituz erabilerari buruz egiten diren ikerketak.** Erabilera aztertzerakoan inkestek eta zentsuek duten arazo handi bat da erabilera hori beti inkestan parte hartu dutenen erantzun aitortuetan oinarritzen dela. Muga hori ederki gainditzen dute behaketan oinarritutako eragiketek. Fasoldek aipatzen du, adibidez, Etiopiako hizkuntza-egoera aztertzeko Bender-ek, Cooper-ek eta Ferguson-ek hainbat salerosketa-prozesuren behaketa egin zutela 1972. urtean hango azoketan (apud Fasold, 1996: 198). Behaketaren teknika erabiltzen da baita ere Kataluniako Ofercat-en<sup>27</sup>, non saltokien lagin zabal eta adierazgarri batean behaketa parte-hartzailea aplikatuz, erorsketa-simulazioak egiten dituzten, ikusteko dendariak harrera zein hizkuntzatan egiten duten lehenik, eta ondoren bezeroa katalanez hasiz gero, dendariaren hizkuntza-portaera zein den.

Hurbilagokoa dugu literatura espezializatuan sarri aipatua den Euskal Herriko erabileraren kale-neurketa (Iñigo, 1994; EKBko Idazkaritza Teknikoa, 1991; Altuna, 1998; Altuna, 2002a; Amonarriz, 2007; Altuna et al., 2012; Soziolinguistika Klusterra, 2017; Altuna et al., 2022). Aurrerago sakon azalduko ditugu ikerketa garrantzitsu horren xehetasunak.

**Internet eta big data** ere demolinguistikarako iturri gero eta baliagarriagoa gertatzen ari da (Sorolla et al., 2017). Hein handi batean, multzo horretan koka ditzakegun hainbat eragiketa estatistiko erregistroetan oinarritzen dira, aurreko puntuan aurkeztu ditugunak bezala. Hasteko, Interneten eta sare sozialetan hizkuntzek duten tokiari

---

<sup>27</sup> Ikus adibidez Bartzelonako 2012ko neurketaren emaitzen txostena (Fabà, Torrijos eta Solé, 2014).

buruzko estatistikak ditugu (ikus adibidez: Astigarraga eta Cañas, 2019; Waliño, 2019). Hizkuntza bakoitzaren osasun digitalaren adierazgarri izanik ere, demolinguistikatik at kokatu beharko genituzke, ez baitira oinarritzen hiztunen zenbaketan. Horretaz gain, erabiltzaileen erabilerari buruzko estatistikak ditugu, Interneten hiztunek egiten dituzten hautuen adierazgarri. Sorollak, Nobajas eta Moralesek sare sozialen inguruan ikerketa demolinguistikorako irekitzen diren aukerak aipatzen dituzte. Laburtuz, gero eta errazagoa, merkeagoa eta ohikoagoa da sare sozialetako portaeren azterketa egitea hizkuntzaren ikuspegitik. Ikerketa ildo horrek hainbat abantaila du (merkea da, aldizkakotasun handiz egin daiteke, ez da erantzun aitortuetan oinarritzen...), baina baditu, halaber, hainbat muga aipagarri ere. Horien artean, adierazgarritasunarekin lotutakoa ez da txikiena. Edonola ere, hedatzen ari den eremu oparoa da zalantzarik gabe. Orain arteko ikerketa asko Twitterren inguruan egin izan da. Gurean ere aipatzekoak dira gaia sistematikoki aztertzeko landu den UMAP proiektua (Astigarraga et al., 2011) eta sare sozialen azterketan hizkuntza-aldagaiak landu dituzten hainbat ikerketa (Zubiaga, 2015; Apodaka eta Morales, 2017; Fernández de Landa, 2018; Fernandez, 2019).

**Bestelako eragiketa estatistikoetatik ere (inkestetatik nagusiki baina ez bakarrik)** har dezakegu informazio demolinguistiko garrantzitsua. Izan ere, gizarte elebidunetan egiten diren inkestetan arrunta da aldagai linguistikoak ere txertatzea inkestetan. Horien ustiaketa ere informazio-iturri garrantzitsua izan daiteke ikerketa demolinguistikorako. Adibidez, Euskal Herriko Hegoaldeko herritarrek hedabideen kontsumoa zein hizkuntzatan egiten duten aztertzen ari bagara, hainbat iturri izango dugu eskura: bai inkesta bidez hedabideen kontsumoari buruz datuak jasotzen dituztenak (EGM Espainiako Estatuan edo CIES Hegoaldean) eta baita audiometria metodoen bidez jasotzen dituztenak ere (Kantar Media Espainian).

Ikerketa demolinguistikorako tresnekin bukatzeko, **adierazle-sistemak** aipatuko ditugu. Adierazle-sistemak ez dira berez eragiketa demolinguistikoak, eragiketa demolinguistikoetatik hautatzen diren datu-bilduma egituratuak baizik. Joan den mendeko 90eko hamarkadaren hasieran *Indicateurs de la situation linguistique au Québec* lana argitaratu zen (CLF -Conseil de la Langue Française-, 1992). Gaur egun Euskal Herrian eta Katalunian badira horrelakoak (Solé, 2003; Solé eta Torrijos, 2008; Ferret et al., 2015; Bruguera et al., 2022; Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2022) eta Galesen ere landu ohi dira adierazle sorta egituratuak hizkuntzaren egoera neurtzeko (Jones, 2013).





## 2. HIZKUNTZEN ORDEZKAPEN- ETA INDARBERRITZE-PROZESUAK

Behin soziolinguistikaren eta demolinguistikaren aurkezpen orokor bat eginda, atal honetan hizkuntza gutxituen ordezkapen- eta indarberritze-prozesuak nola gertatzen diren azaltzera joko dugu. Gaiaren inguruko hainbat kontzeptu nagusi aurkeztu ondoren, soziolinguistikako bi ikuspegik gaia nola lantzen duten aurkeztuko dugu: Fishmanen ikuspegiak batetik, eta minorizazioaren soziolinguistikarenak bestetik. Azkenik, bi ikuspegi horien arabera, hiztun-komunitate batean ordezkapena edo indarberritzea gertatzen ari den jakiteko begiratu beharreko alderdiak zein diren zehazten ahaleginduko gara.

### 2.1. OINARRIZKO HAINBAT KONTZEPTU

Hizkuntzen ordezkapen- eta indarberritze-prozesuez hitz egiten hasi aurretik, atal honetan gaia kokatzeko beharrezkoak diren hainbat kontzeptu azalduko ditugu labur.

#### 2.1.1. Hizkuntzak eta hizkuntza-komunitateak

Hizkuntza bat zer den honela definitzen zaigu *Soziolinguistika Eskuliburuan*: “giza talde bateko kideek elkarrekin komunikatzeko duten hitzezko adierazpidea” (Zarraga, 2010: 26). Gaur egun munduan 6.000 hizkuntza inguru<sup>28</sup> daudela esan dezakegu (Juaristi, 2020: 8). Gaiaren inguruan adituek eskaintzen dituzten datuak ez datoz beti bat. Izan ere, sarritan ez da erraza erabakitzea aldaera jakin bat hizkuntza den edo beste hizkuntza baten dialektoa den; batetik, mugak oso lausoak direlako, eta bestetik, hizkuntza zer den eta dialektoa zer den erabakitzerakoan faktore estralinguistikoek eragin nabarmena dutelako.

Hizkuntza-komunitatea<sup>29</sup> linguistika mailako hizkuntza baten korrelatu soziala izango litzateke, hizkuntza horri lotu ahal zaion gizataldea alegia. Inork ez du auzitan jartzen mota horretako kontzeptu baten beharra, soziolinguistikan berez aztertzen duguna ez baitira hizkuntzak, hizkuntza horiek gorpuzten dituzten gizataldeak baizik. Gaiari buruz

---

<sup>28</sup> 6.000 baino gehixeago izango lirateke hizkuntzak, Patxi Juaristik bildutako hainbat zenbaketaren arabera: “Grimesek (2000) *Ethnologue* liburuko hizkuntza-zerrendan 6.800 baino gehiago jaso ditu, Bright-ek (1992) *International Encyclopedia of Linguistics* liburuan 6.300 sarrera bildu ditu, eta Moseley eta Asher-ek (1994) *Atlas of the world's languages* liburuan 6.796 hizkuntza dakartzate”. Beste iturri batzuek 5.000 inguruan kokatzen dute kopuru hori (Hagège, 2001: 160).

<sup>29</sup> Hona hemen *hizkuntza-komunitate* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 34):

- Gaztelaniaz: comunidad lingüística.
- Frantsesez: communauté linguistique
- Ingeleseaz: linguistic community.

kontsultatu ditugun eskuliburuetan eta artikuluetan (Boix eta Vila, 1998; Mollà, 2002; Moreno, 2009; Coyos, 2010; Joly eta Uranga, 2010; Vila, 2012) argi antzematen da adiera bakar bat izatetik urrun dagoela kontzeptua<sup>30</sup>. Aitzitik, autoreek egoera, testuinguru eta dimentsio askotarikoetan erabili izan dute kontzeptua. Ez da harrizkoa, hortaz, gaia landu duten autoreen artean ez egotea adostasunik kontzeptu hori zehazterakoan kontuan hartu behar diren alderdietan eta hizkuntza-komunitate batekotzat jotzeko pertsonak bete behar dituzten ezaugarrietan.

Bai esan daiteke, beti ez bada ere, *hizkuntza-komunitatearen* kontzeptua soziolinguistikaren maila makroan erabili izan dela gehienbat, hizkuntza batean mintzaten den hiztun multzo osoa izendatzeko. Azterketa xeheagoak edo lokalizatuagoak egiteko orduan, beste hainbat kontzeptu ere erabili izan da, hala nola, hizkera-komunitatea, edo are maila mikrogoan erabili izan den jarduera-komunitatea<sup>31</sup>.

Esan dugu, hortaz, ikuspegi askotatik landu izan dela kontzeptua. Nagusiki, hizkuntzen ezagutzarekin eta erabilerarekin lotu izan dute autore gehienek hizkuntza-komunitatearen ideia: hizkuntza-komunitatea hizkuntza jakin bat ezagutzen edo/eta erabiltzen duten hiztunek osatzen dute (Boix eta Vila, 1998; Mollà, 2002; Moreno, 2009; Coyos, 2010; Joly eta Uranga, 2010; Vila, 2012). Gaia landu zuten lehenengo autoreek hizkuntza-gaitasunera jo zuten nagusiki hizkuntza-komunitateen mugak zehazteko garaian; azken hamarkadotan, ordea, gehiago erabili izan da erabileraren irizpidea komunitatearen mugak finkatzerakoan. Irizpide horri jarraituta, hizkuntza bat erabiltzen duten hiztunek osatzen dute hizkuntza horri dagokion hizkuntza-komunitatea. Horiek horrela, gizabanakoak hizkuntza-komunitate bateko edo gehiagoko kide izan daitezke, erabiltzen dituzten hizkuntza adinako komunitateetakoak alegia.

Hizkuntza bat ezagutzea edo/eta erabiltzea ez dira izan hizkuntza-komunitatea definitzeko orduan proposatu izan diren irizpide bakarrak. Beste hainbat irizpide eta ezaugarri ere aipatu izan dira hizkuntza-komunitatearen mugak zehazterakoan (askotan ezagutzarekin eta erabilerarekin batera konbinatuz): hizkuntza hori lehen hizkuntzatzat izatea, komunitatearen oinarritzko erabilera-arauak partekatzea, hizkuntza horrekiko hiztunek lotura identitario afektiboa izatea<sup>32</sup>, interakzioan dagoen komunikazio-sare propioa osatzea... Ezaugarri horiek ere azaltzen dira han eta hemen hizkuntza-komunitatearen hainbat definiziotan edo komunitate baten sendotasuna neurtzeko garaian. Komunitate hori ezaugarri ugaritan oinarritu daiteke, eta multzoaren

---

<sup>30</sup> Mikel Zalbidetik ere hizkuntza-komunitate (edo *hiztun-elkarte* bere hitzetan) kontzeptuaren ibilbidearen azterketa sakona argitaratu du berriki *Bat* soziolinguistika aldizkarian (2020). Artikuluaren bukaeran euskaldunon egoerara egokitzen du kontzeptuaren inguruko hausnarketa.

<sup>31</sup> Euskal Herrirako, ikus Hernández (2007), Kasares (2014), Artetxe (2020), eta Altuna eta Hernández (2021).

<sup>32</sup> Hizkuntzarekiko atxikimenduan oinarritu zuen, adibidez, komunitatearen definizioa Eusko Ikaskuntzaren *Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen* egitasmoak (Goirigolzarri et al., 2021: 479-480):

Bere gizarte garapenerako eta sozializatorako perspektiban, lurraldeko hizkuntzarekiko (euskararekiko) identifikazio, sentimendu, jarrera eta portaera aktibo, positibo eta askotarikoak partekatzen dituen komunitatea, hau da, hizkuntza komunitatea zentzu zabalean ulertuta.

mugak lausoak izan daitezkeela azpimarratzen dute hainbatek. Jon Sarasuaren iritziz “hizkuntza komunitatea egitura mailakatu eta irekia da, hizkuntzarekiko gaitasun, motibazio eta praktika maila desberdinak dituztenak espiral batean hartzen dituen” (2013: 43).

Aipa dezagun, azkenik, badirela hizkuntza-komunitatea irizpide soziopolitikoetan oinarritu izan dutenak ere, eta estatu edo administrazio-eremu jakin bateko hiztun guztiak jo izan dituztela hizkuntza-komunitate bereko kideztat. Irizpide hori erabiliz gero, administrazio-eremu jakin bateko (edo batzuetako) hiztunen multzo osoak osatuko du hizkuntza-komunitatea. Mollàk (2002) adierazten du hori terminoaren inguruan batzuetan egin izan den irakurketa okerra dela. Bat gatoz Mollàren ikuspegiarekin: ingurune elebidunetako ikerketa soziolinguistikoak administrazio-eremuka egitea guztiz bidezkoa eta zuzena izanda ere<sup>33</sup>, administrazio-eremuko hiztun guztiak hizkuntza-komunitate bereko kideztat jotzeak edukiz husten du *hizkuntza-komunitatearen* kontzeptua, eta kontzeptu huts bihurtzen.

### 2.1.2. Hizkuntza-ukipena eta elebitasuna

Munduko hizkuntza-komunitate ia guztiak ez dira bakartuta bizi, elkarrekiko harremanean baizik. Harreman hori sakonagoa edo azalekoagoa, iraunkorragoa edo puntualagoa izan daiteke, eta arrazoi ugari eraginda gertatu izan da historian: harreman komertzialak, konkista militarrek eta gerrak, kolonizazio-prozesuak, migrazio-mugimenduak, muga inguruko harremanak... Horiek horrela, “gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen den erlazioari” esaten zaio hizkuntza-ukipena<sup>34</sup> (UZEI, 2010: 41).

Jatorriz, gizarte batean bi hizkuntza elkarrekin egoteak corpusean eragiten zituen aldaketen analisisira bideratu zen nagusiki hizkuntza-ukipenaren azterketa<sup>35</sup>. Haugen-ek (1950) hizkuntzen arteko maileguetan jarri zuen arreta eta Weinrich-ek (1974) hizkuntzen arteko interferentzia mota ugariak aztertu zituen (fonetikoak, gramatikalak eta lexikoak). Hizkuntza-komunitateen interakzioaren ondorioz hizkuntzetan izan diren aldaketa ugarien azterketak asko landu eta ugaritu dira Haugen eta Weinreichen garaietatik gaur arte. Horrela, soziolinguistikaren barruan, garapen handiena izan duten terminoetako bat dugu ukipenarena. Hasieran nagusi zen hizkuntzaren ikuspegitik ez ezik, ukipen-egoerak norbanakoaren eta hizkuntza-komunitatearen (maila sozialaren) ikuspegitik ere landu izan dira gero eta gehiago.

---

<sup>33</sup> Horrela (administrazio-eremuak aintzat hartuta) egin izan dira, adibidez, azken 30-40 urteotan Euskal Herrian egin izan diren eragiketa demolinguistiko nagusi guztiak, aurrerago aipatuko ditugunak.

<sup>34</sup> Hona hemen *hizkuntza-ukipen* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 41):

- Gaztelaniaz: contacto de lenguas; contacto lingüístico.
- Frantsesez: contact de langues.
- Ingeleseaz: language contact.

<sup>35</sup> Haugen eta Weinreich-en lanak jo ohi dira hizkuntza-ukipenaren ikerketen abiaburu nagusi gisa. Horrek ez du esan nahi, ordea, gaiari buruz kezkatu ziren lehenengoak haiek izan zirenik: Grezia eta Erroma klasikoko hizkuntzan *barbarismoek* zuten eraginari buruzko gogoetearaino jo gabe ere, XIX. mendearan amaieratik aurrera asko ugaritu ziren hizkuntza-ukipenari buruzko ikerketak. Haugen eta Weinreich-en lanek aipatzen duten bibliografia zabala begiratu besterik ez dago lehenagotik ere jorratutako gaien gainean ari zirela ikusteko (Galindo, 2006: 8).

Testuinguru horietan guztietan, pertsona batzuek (bakan batzuek batzuetan, gizarte osoak besteetan) bi hizkuntzak ezagutzen eta erabiltzen dituzte, hiztun elebidunak dira. Gizabanako elebidunen ikerketek argia eman dute bi hizkuntza (edo gehiago) ezagutzen eta erabiltzen dituzten hiztunengan gertatzen diren fenomeno psikologiko eta psikosozialen inguruan. Ikuspegi horietara hurbilduko gara 3. kapituluan.

*Elebitasun* hitza, baina, ez zaie gizabanakoei soilik aplikatzen eta bi hizkuntza partekatzen dituzten gizarteak izendatzeko ere erabiltzen da: “una comunidad bilingüe se podría definir como aquella en la que se hablan dos lenguas o en la que todos sus componentes o una parte de ellos son bilingües” (Moreno, 2009: 211).

Kasu horietan elebitasun sozialaz hitz egiten da. Elebitasun sozial mota asko dago, Morenok, Appel eta Muysk-en oinarrizko sailkapena ontzat emanez, hiru mota nagusi bereizten ditu (apud 2009: 211):

- 1) Hiztun batzuk hizkuntza bateko hiztun elebakarrak dira eta besteak beste batean dira elebakarrak (gutxi batzuek bi hizkuntzak menderatzen dituzte).
- 2) Hiztun (ia) guztiek dakite bi hizkuntzetan hitz egiten.
- 3) Multzo bat elebakarra da (hizkuntza menderatzailean) eta beste multzo bat elebiduna (hizkuntza menderatuan).

Ikuspegi sozial horretatik begiratuta, bada, hizkuntza-ukipenean egoera ugari egon da eta dago munduan. Horien azterketaren inguruko hainbat kontzeptu eta ikuspegi landuko ditugu hurrengo kapituluetan, hizkuntza-jarraipenari eta -ordezkapenari buruz arituko garenean. Lehenago, egoera muturrenokatik hasita, aipa dezagun hizkuntza-ukipen egoeran egon diren hainbat hizkuntza-komunitatetan hizkuntza batek lehenago besteak zuen tokia osoki bereganatu duela eta jatorrizko hizkuntzaren heriotzarekin amaitu dela ukipen-egoera hori.

### **2.1.3. Hizkuntzen heriotza eta aniztasun kulturalaren galera**

Hizkuntza hila<sup>36</sup> esaten zaio berezko hiztunik gabe gelditu eta jada hitz egiten ez den hizkuntzari (UZEI, 2010: 44). Hizkuntza hilak dira, adibidez, latina eta iberiera. Hizkuntzak desagertzera eraman dituzten prozesuak ez dira berriak, eta asko izan dira historian. Azken bostehun urteetan erdira jaitsi omen da hizkuntza bizien kopurua (Junyent, 1999) eta azken urteotan hizkuntza-aniztasuna galtzen ari dela nabarmena da egon diren ikerketa ugarien arabera (Juaristi, 2020).

Gaur egun hitz egiten diren hizkuntzetatik zenbatek jarraituko dute bizirik eta zenbat hilko dira hurrengo hamarkadetan? Galdera horri erantzutea ez da lan erraza, hasteko gaur egun zenbat hizkuntza hitz egiten diren jakitea ere zaila delako. Eta, jakina, ez da

---

<sup>36</sup> Hona hemen *hizkuntza hil* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 44):

- Gaztelaniaz: lengua muerta.
- Frantsesez: langue morte.
- Ingelesez: dead language.

lan errazagoa egun mintzatzaren diren hizkuntzen osasun-azterketa egitea eta horien artean hiltzerian dauden hizkuntzak zein diren zehaztea<sup>37</sup>.

Hala eta guztiz ere, ñabarduretan sartu gabe, lehen hurbilpen batean esan dezakegu egun hitz egiten diren 6.000 hizkuntza horien artean, ia hirutik bat (%30) ez dela jada gurasoetatik seme-alabetara transmititzen; beraz, 25-50 urtetan galdu egingo dira (Krauss, 1992). XXI. mendean egun bizirik dauden hizkuntzen %90 edo gehiago desagertu egingo direla diote hainbat ikertzailek: hala zioten Kraussek berak (Krauss, 1992) eta Junyent-ek (Junyent, 1999), eta suntsipena are handiagoa izan daitekeela iragartzen du Uriagerekak<sup>38</sup>, %98-%99rainokoa. Hain etorkizun beltza marraztu gabe ere, munduko hizkuntzen erdia inguru dago desagertzeko arriskuan, UNESCOren babespean egindako *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenaren* arabera (Martí et al., 2005). Thomasonek (2018: 66) adierazten duen bezala, XXI. mendean hizkuntzen %50 desagertuko direla diote baikorrek eta %90 desagertuko direla ezkorrek; edonola ere, eta kopuru zehatzen inguruko eztabaidetan sartu gabe, hizkuntzen suntsipen-prozesu sakon batean gaude, inolako ezbairik gabe.

Gaur egun, hortaz, ordezkapen-prozesuek eta heriotza-arriskuak munduko hizkuntza gehienei eragiten die. Izan ere, hizkuntza baten galerak ez dio eragiten dagokion kultura-komunitateari bakarrik, gizateria osoari baizik (Juaristi, 2020: 4):

Hizkuntzaren bat hiltzen denean galtzailea gizateria dela diodanean, zera adierazi nahi dut: denok galtzen dugula mundua era diferenteren baten ikusteko leiho bat. Aniztasuna da aberastasuna; uniformetasuna edo homogeneotasuna, ostera, pobrezia. Gugandik urrun egon arren, galerak txirotu egiten gaitu, gizakiok kolore bat gutxiago baitugu ikusgai eta, gainera, gure garunak sorturiko ikusmolde bat ezabatu egin delako, gizakion sorkuntzaren amaraunak harietako bat galdu duelako.

Hizkuntza baten heriotza ez da egun batetik bestera gertatzen, prozesu askotan luze eta gehienetan konplexuen ondorioa izaten da. Prozesu horietan, lehen hizkuntza batek betetzen zuen tokia beste hizkuntza batek beteko du. Horri esaten diogu, funtsean, ordezkapen-prozesua, ondorengo orriotan ikusiko dugun bezala.

#### **2.1.4. Hizkuntza-jarraipena eta -ordezkapena; gaiari begiratzeko hainbat ikuspegi**

Hizkuntzek munduan betetzen duten tokia eta hizkuntza-komunitateen hedadura eta bizi-indarra aldagarriak dira historian zehar. Hiztun taldeek *hizkuntza ugaltzeko*<sup>39</sup> joera izaten dute berez. Hainbat ukipen-egoeratan, baina, eta hainbat kanpo- eta barne-faktorek eraginda, gizatalde batzuek euren portaerak aldatu egiten dituzte, eta eten

---

<sup>37</sup> Hizkuntzen heriotza-arriskua neurtzeko eskalei buruz, ikus Lee eta Way (2018).

<sup>38</sup> Patxi Juaristik aipatua (apud Juaristi, 2020: 42).

<sup>39</sup> Hona hemen *hizkuntza ugaltzea* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 39):

- Gaztelaniaz: reproducción de la lengua.
- Frantsesez: reproduction de la langue.
- Ingeleseaz: language reproduction.

egiten da euren hizkuntza besterengantzeko prozesua. Hizkuntza-jarraipena eteten denean, hizkuntza-ordezkapena gertatzen da (UZEI, 2010).

Soziolinguistikaren maila makrotik aspalditik aztertu dira hizkuntzak heriotzara eraman ditzaketen prozesu horiek eta baita hizkuntzei eustea ahalbidetzen dutenak ere, ikuspegi eta terminologia ugaritatik landu ere. Hizkuntzen ordezkapen-prozesuen azterketa sistematikoa XX. mendearen hasieran hasi zen, eta Alemanian asko landu zen 1930eko hamarkadatik aurrera, Georg Schmidt-Rohr eta Heinz Kloss autoreen eskutik besteak beste (Darquennes, Salmons eta Vandenbussche, 2019: 1).

Bigarren Mundu-gerra amaituta, AEBetan kokatu zen ikerketagune nagusia, Europako jatorria zuten autoreen eskutik (Weinrich lituaniar-estatubatuarra eta Haugen norvegiar-estatubatuarra besteak beste). Aurreraxeago jatorri judua zuen Fishmanek bultzada handia eman zion hizkuntza-jarraipenaren eta -ordezkapenaren azterketari. Eta baita ordezkapen-prozesuak gelditu eta norabidez aldatzeko lanketari ere. Autore horietako gehienak adostasunaren paradigma deitu izan denaren barrutik aritu ziren.

Europako zenbait hizkuntza-komunitate gutxituetan, berriz, 1970eko hamarkadatik aurrera beste ikuspegi batetik aztertu izan dira fenomeno horiek; “minorizazioaren soziolinguistika” esan izan zaionaren eskutik, hizkuntza batzuen hedatzearen eta besteen ordezkapenaren izaera historikoa azpimarratu izan da, eta arreta berezia jarri izan zaie nazio eta komunitateen arteko gatazka-elementuei.

Ondorengo orriotan, jarraipenaren/ordezkapenaren inguruan arituko gara, batzuetan osagarriak eta besteetan kontrajarriak diren bi ikuspegietatik. Eta baita ikuspegi horiek hizkuntzen berreskurapenerako proposatzen duten bideari buruz ere<sup>40</sup>. Lehenik, soziolinguistikan erreferentzia saihetsezina den eta adostasunaren paradigman koka dezakegun Fishmanen ikuspegia landuko dugu. Ondoren, berriz, gatazkaren paradigman ildotik, minorizazioaren soziolinguistikaren ikuspegia azalduko dugu. Jakina, bi horiek ez dira soziolinguistikan landu izan diren begirada bakarrak. Bi ikuspegi horietan sakontzea erabaki dugu, biek ala biek dezenteko eragina izan dutelako Euskal Herriko soziolinguistikan eta hautaketa horrek aukera ematen digulako adostasuna/gatazka dikotomian alde bakoitzeko ikuspegi bana kontuan hartzeko.

## **2.2. HIZKUNTZEN GALERARI ETA INDARBERRITZEARI BURUZKO FISHMANEN EKARPENA**

Bere obra zabal eta oparoan, soziolinguistikan eragin handia izan duen ikuspegia plazaratu zuen Joshua Fishmanek. Gure helburua ez da, jakina, Fishmanen obra aberatsaren ikuspegi osoa eskaintzea, guri dagokigun gai multzoan Fishmanen ekarpen nagusiak labur adieraztea baizik. Horretarako, honako iturri hauetaz baliatuko gara nagusiki: Fishman beraren hainbat lan (1965; 1967; 1969; 1972b; 1982; 1991; 2001; 2006; 2012), soziolinguistikako hainbat eskuliburu (Boix eta Vila, 1998; Mollà, 2002; Moreno, 2009; Coyos, 2010; Joly eta Uranga, 2010; Vila, 2012) eta Fishmanen

---

<sup>40</sup> Hizkuntzen indarberritzeari buruz dauden estrategiei buruz ikus Vila (2014), Hinton (2018) eta Pérez, Vogel eta Okura (2018).

ekarpena Euskal Herrira egokitzen lan eskerga egin duen Mikel Zalbideren hainbat artikulu (2003; 2004; 2011; 2019a).

### 2.2.1. 'Language shift' (mintzaldatzea edo hizkuntza-ordezkapena)

Hiztun talde batek alor jakin batzuetan ordura arte zerabilen hizkuntzaren ordez beste hizkuntza bat erabiltzeari ekiten dionean, abian da *language shift* delakoa, hizkuntza-ordezkapena<sup>41</sup> edo mintzaldatzea<sup>42</sup>. Erabilera-ohituren aldaketa kolektibo horrek aurrera jarraitzen badu, jatorrizko hizkuntzaren heriotza ere ekar dezake. Aurkako fenomenoari, hots, hizkuntza-ukipen egoeretan komunitateak berezkoa duen hizkuntzari eusteari, *Language Maintenance* esaten zaio (Brenzinger, 2019: 454), hizkuntza-jarraipena euskaraz<sup>43</sup>.

Fishmanek azaltzen digunez, ordezkatze-prozesuak apurka-apurka eta era akumulatiboan gertatu ohi dira gehienetan, ez goizetik gauera; horregatik, berak sarritan hiru belaunaldien ikuspegia proposatzen du aldaketa-joerak egoki antzemateko. Oro har, bestalde, prozesu hori ez da aldi berean gertatzen hizkuntzaren erabilera-eremu guztietan. Aitzitik, erabilera-eremuka edo jardunguneka (*domainka*) gertatu ohi da.

Fishmanen ikuspegiaren arabera, diglosiaren galera eta hizkuntza-ordezkapena aldi berean gertatzen dira askotan, aurrerago azalduko dugun bezala. Prozesu horiek azaltzerakoan, faktore ekonomikoei azalpen-gaitasun handia aitortzen die Fishmanek: modernizazioak, industrializazioak eta urbanizazioak indarrez eragin ohi dute mintzaldatzera. Industrializazio eta urbanizazio-prozesuek dislokazio soziokultural sakona ekar dezakete, jatortasun etnokulturalaren galerarekin batera. Horrekin lotuta, kontuan hartu behar da, elebitasun-testuinguru jakin batean, hizkuntza guztiek ez dutela berdin balioko jarduera ekonomikoetan aritzeko. Horrela, hizkuntza nagusiak duen prestigioa bitarteko garrantzitsua izango da hizkuntza hori hedatzeko (eta bertako hizkuntza gutxitzeko): sozialki gora egiteko hizkuntza nagusia erabili behar izateak balio handia emango dio hizkuntza horri bertakoen artean, eta horrek hizkuntza horren hedapenaren alde (eta bertakoa uztearen alde) egingo du.

Baina ez dira Fishmanek aipatzen dituen faktore bakarrak. Horiekin batera, eragin garrantzitsua (erabatekoa ere bai hainbat kasutan) izan dezakete bestelako hainbat

---

<sup>41</sup> Hori da soziolinguistika hiztegiak *language shift* terminorako proposatzen duen euskarazko itzulpena (UZEI, 2010: 40). Honako hauek aipatzen ditu:

- Gaztelaniaz: sustitución lingüística; desplazamiento lingüístico.
- Frantsesez: substitution linguistique; transfert linguistique.
- Ingelese: language shift; language transfer.

<sup>42</sup> Fishmanen *language shift*en ordain gisa proposatzen dizkigu Mikel Zalbidek *mintzaldatzea* edo *luze-zabaleko mintzaldatzea* terminoak (Zalbide, 2004: 2).

<sup>43</sup> Hona hemen *hizkuntza-jarraipen* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 40):

- Gaztelaniaz: continuidad lingüística.
- Frantsesez: continuité linguistique.
- Ingelese: language maintenance.

faktorek ere (Zalbide, 2004: 8-9; 2016: 87): hizkuntza erabiltzeko debekua, dislokazio fisikoa (gosesteek, hondamendi naturalek, gerrate edo genozidioek eragindakoa) eta dislokazio demografikoa faktore erabakigarriak izan daitezke. Aldagai demografikoei erreparatuta, migrazio-mugimenduek (bertakoek alde egiten dutelako edo kanpotik bertako hizkuntza ez dakien etorkin asko etortzen delako) gogotik baldintza dezakete hiztun-komunitate baten bilakaera, eta berdin natalitateak (jaiotza kopuru apalak hiztun-komunitatea ahultzea ekar dezake zuzenean), bikote mixtoen ugaltzeak eta urbanizazioak. Prozesu horiei modernizazioak dakarren dislokazio kulturalaren arriskua erantsi behar zaie; modernitate supraetnikoan, komunitatearen etnokultura moldatu ezina.

Mundu zabaleko hainbat eta hainbat errealitate aztertuta, arau orokorrak finkatzetik ihes egiten du Fishmanek, eta gehienetan mintzaldatzea eragiten duten faktoreak ugariak direla esango digu. Are gehiago, faktore berak kasu batzuetan hizkuntza ahularen aurka eta beste batzuetan alde eragin dezakeela azaltzen digu (Fishman, 1982: 149-150):

Nuestro estado actual en cuanto al conocimiento generalizable en el área del mantenimiento y desplazamiento lingüísticos no nos permite postular relaciones de validez intercultural o diacrónica. De hecho, se ha demostrado que muchos de los factores citados con más generalidad como influyentes significativamente en el mantenimiento o desplazamiento lingüísticos, *hacen ambas cosas* en diferentes contextos.

### 2.2.2. 'Domain'-ak (jardunguneak edo erabilera-eremuak)

Fishmanek esaten digunez, hizkuntza-ordezkapena ez da era orokor eta homogeen batean gertatzen gizarteko alor guztietan, erabilera-eremuka edo jardunguneka baizik. Ikus dezagun lasaiago zer diren erabilera-eremu horiek.

Hizkuntzek gizarte batean duten tokia azertu nahi badugu, berez izugarri orokorra eta heterogeneoa den *hizkuntza-erabilera*<sup>44</sup> xehatu beharko dugu komunitate jakinen errealitateak aztertzeraz hurbildu nahi dugunean. Horrela, *komunikazio-egoera*<sup>45</sup> jakinak behatzeko eta aztertzeko, Fishmanek proposatu zuen hizkuntza nola erabiltzen den begiratu behar dela (1965): nork norekin, zeri buruz aritzeko, zein egoeratan eta zein bitartekorekin (ahoz edo idatziz; ekoizle edo jasotzaile gisa). Izan ere, aldagai horien guztien arteko konbinazioa posible guztiak aztertuta, komunikazio-egoera horien

---

<sup>44</sup> Hona hemen *hizkuntza-erabilera* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren arabera* (UZEI, 2010: 48):

- Gaztelaniaz: uso lingüístico; uso de la lengua.
- Frantsesez: usage de la langue; usage linguistique.
- Ingeleseaz: language usage.

<sup>45</sup> Hona hemen *komunikazio-egoera* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren arabera* (UZEI, 2010: 49):

- Gaztelaniaz: situación comunicativa.
- Frantsesez: situation communicative.
- Ingeleseaz: communicative situation.



aniztasuna eta ugaritasun izugarriaz gain, ikertzaileak hainbat erregularitate esanguratsu aurkituko dituela azaldu zuen Fishmanek. Alegia, hiztun elebidunek egoera bakoitzean hizkuntza bat ala beste aukeratzea ez duela zoriak erabakitzen; aitzitik, erregularitate argiak antzematen direla hiztunen portaeran aipatutako alderdiei erreparatuta. Ikertzailearen zeregina izango da erregularitate horiek egoki hautematea. Komunikazio-egoera jakinak aztertuta egiten dira, besteak beste, etnografia eta hizkuntza-antropologiaren barruko ikerketak.

Maila makroagoan aritzeko, ordea, kontzeptu orokorragoak beharko ditugu. Eta behar hori betetzera dator *domainen* kontzeptua. Fishman ez zen hutsetik hasi: 1930eko hamarkadan Schmidt-Rohr alemaniarrek plazaratu zuen kontzeptu hori (Haberland, 2019: 398); Fishmanek bere egin zuen 1965ean eta hurrengo urteetan garatu egin zuen (1965; 1982). Termino horren ordain gisa, *erabilera-eremu*<sup>46</sup> aurkituko dugu *Soziolinguistika Hiztegia*n (UZEI, 2010: 48) eta *Soziolinguistika Eskuliburuan* (Zarraga, 2010: 35). Mikel Zalbidek, berriz, *jardungune* terminoa proposatzen du ingelesezko *domainen* ordain gisa (2004).

Zer dira erabilera-eremuak (edo jardunguneak)? Tokiak, hiztunak eta elkarrizketa-gaiak aintzat hartuta egon daitezkeen milaka eta milaka egoera komunikatibo jakinetako errealitatea atal gutxi batzuetan bilduko duten oinarrizko multzoak dira, azterketa makrosoziolinguistikorako eraikiak<sup>47</sup>. Komunitate batean hiztun guztiak bi hizkuntzetan ondo moldatzen direlarik, hizkuntza bat eta bestea non erabiltzen zen aztertzeko landu zuen hasieran termino hori Fishmanek. Horrela, bada, jatorrian, erabilera-eremuen planteamenduak zerikusi estua zuen diglosiarekin (eta diglosiaren azterketarekin), hots, bizitzaren egoera bakoitzerako hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko arau sozial argiarekin. Aurrerago, bestelako egoeren azterketan ere erabili izan da terminoa. Nolanahi ere, erabilera-eremua errealitatea hobeto ulertzeko eraikitako konstruktua bat da, abstrakzio bidez sortua (Fishman, 1972a: 442):

Domain is a sociocultural construct abstracted from topics of communication, relationships between communicators, and locales of communication (...). The domain is a higher order summarization which is arrived at from a detailed study of the face-to-face interactions in which languages choices is imbedded.

Zenbat eta zein dira erabilera-eremu edo jardunguneak? Zalbidek azaltzen duen bezala, ez dago behin betiko zerrendarik, “ez zenbat *domain* diren ‘berez’, eta ez *domain* horietariko bakoitzean zer jende multzo, zer harreman-sare eta zer rol-

---

<sup>46</sup> Hona hemen *erabilera-eremu* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 48):

- Gaztelaniaz: ámbito de uso.
- Frantsesez: domaine d'utilisation.
- Ingelesez: language domain.

<sup>47</sup> Hasiera batean, New Yorkeko auzo batean jatorriz Puerto Ricokoa zen komunitatearen erabilera aztertzekoan Fishmanek egin zuen *domainen* lehenengo aplikazioa (1972a) gehiago zen meso maila batekoa, rol-harremana, edukia eta kokagunea aintzat hartuta. Hurrengo urteetan egin zuen lanketan, ordea, makro mailara eramane zuen *domain* kontzeptua.

harreman sartzen diren” (2004: 5). Hori argi utzita, eta *domain* zerrenda erabilienei erreparatuta, honako zerrenda hau aipatzen digu Zalbidek adibide gisa<sup>48</sup>:

1. Etxea eta familiartea
2. Auzo hurbila eta lagunartea
3. Lan-mundu "arrunta"
4. Aisialdia, kirolak eta jokoak
5. Eskola-mundua
6. Administrazioa
7. Eliza-mundua
8. Goi mailako teknologia, ekonomia-sareak, agintaritza eta ikerketa.
9. Informazio- eta zabalkunde-mundua.

*Hizkuntza-komunitatearekin* batera, soziolinguistikan gehien erabili izan den terminoetako bat dugu *domain* (Vila, 2012: 18). Hasieran gehienbat, gehiago jo izan dute termino horretara soziolinguistika adostasunaren ikuspegitik garatu dutenek gatazkaren ikuspegitik landu izan dutenek baino (Boix eta Vila, 1998). Gaur egun, dena den, termino orokortua da soziolinguistikan, hizkuntzen egoera gizartean orokorrean aztertzeko ez ezik, baita gizartearen alorkako ikuspegia landu nahi izaten denerako ere, nahiz eta askotan kontzeptuaren jatorrizko edukitik apur bat alendu: “Like so many sociolinguistic concepts, ‘domain’ is often used in a rather loose way, without overly much consideration of the epistemological status of the term” (Haberland, 2019: 397).

Aurrerago ikusiko dugun bezala, hizkuntzen egoera enpirikoki inkesten bidez aztertzen denean, jardungunekako egoera, rol-harreman eta espazio jakinetan egiten den erabileran oinarrituta egiten da.

### 2.2.3. Diglosia eta konpartimentazio soziofuntzionala

Hizkuntza-aldaera bat baino gehiago erabiltzen dituzten gizartearen egoera jakin batzuei buruz aritzeko, historian zehar etenaldiz betetako erabilera izan duen *diglosia* terminoa berreskuratu zuen Ferguson-ek (1959), eta hizkuntza beraren aldaeren arteko banaketa aski egonkorra izendatzeko erabili zuen; zehazki, goi mailako erabilera-eremuetan aldaera bat eta behe mailakoetan beste bat erabiltzen duten gizarteak izendatzeko (Ferguson, 1959: 336):

DIGLOSSIA is a relatively stable language situation in which, in addition to the primary dialects of the language (which may include a standard or regional standards), there is a very divergent, highly codified (often grammatically more complex) superposed variety, the vehicle of a large and respected body of written literature, either of an earlier period or in another speech community, which is

---

<sup>48</sup> *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa* proiektuan honako jardungune hauek zehaztu dira (Zalbide et al., 2015: 215-216): agintaritza eta administrazioa, aisia eta kirola, eliza, etxea eta familia, gertuko jendea eta ohiko lagunartea, informazio-hedapena eta kontsumoa, hezkuntza, lana, salerosketa eta, azkenik, aurreko multzoetan kokatu ezin direnetarako, “besterik” multzoa.

learned largely by formal education and is used for most written and formal spoken purposes but is not used by any sector of the community for ordinary conversation.

Diglosia dagoenean, beraz, aldaera biak *L* (*Low*, azpikoa) eta *H* (*High*, gainekoa) gainjarrita daude lurralde berean eta bakoitzaren erabilera-eremua osagarria da. Erabilera-eremuen arabera erabilera bereizi horri konpartimentazio soziofuntzionala esaten zaio eta diglosiaren funtsa dela esan genezake. Egoera horren hainbat funtsezko ezaugarri aipa daitezke (Zalbide, 2011: 41-52):

- Funtzioari dagokionez, aldaeren arteko gainjartzea txikia da eta bakoitzaren erabilera-eremuak mugatuak egon ohi dira. Oro har, *L* aldaera herri-hizkerari dagokio eta transmisio naturalez (etxean eta komunitate hurbilean) jaso ohi da. *H* ere hiztun-elkartearen aldaera da, baina eremu formalagoetan (eskola bidez nagusiki) eskuratu ohi da.
- Banaketa hori nahiko egonkorra da. Fergusonen arabera, “a relatively stable language situation” (1959: 336).
- Aldaerek antzekotasun genetikoa izanda ere, ezberdintasun asko dute: aldaera bat ezagutze hutsak ez dakar bestea ulertzea.
- Herentzia literarioa dauka *H*-k, eta aldaera hori da prestigiotsua, berari atxikitzen zaio zuzentasunaren ideia.
- *H* aldaera landuagoa da, jarduera jasorako gaituagoa eta gramatika konplexuagokoa. Lexiko aldetik ere, berba teknikoak *H* aldaerari dagozkio, eta *L* aldaera beste eremu batzuetarako mugatuta uzten da: etxea, lagun-giroa, harreman informal hurbilekoak.

Fergusonen diglosian oinarrituta, Fishmanek zabaldu egin zuen kontzeptuaren adiera, eta hizkuntza bereko aldaera biren arteko banaketa soziofuntzionalari ez ezik, bi hizkuntzen artekoari ere aplikatu zion. Haren iritziz, diglosia eta elebitasuna ez dira fenomeno bera, baina aldi berean gerta daitezke. Nolabait esatearren, elebitasuna hitzunei dagokie eta diglosia komunitateari (Fishman, 1967).

Fishmanen ereduak diglosiari emandako zentzu berria asko erabili izan da hizkuntza ahulduen egoerak aztertu izan dituzten ikertzaileen artean. Fishmanek hiru ekarpen nagusi egin zizkion Fergusonen oinarritzko deskribapenari, Zalbideren (2011) arabera:

1. Diglosia fenomeno soziala da, eta banaketa soziofuntzionala du ardatz nagusia. Hizkuntzen erabilera-eremuen (*domainen*) azterketa soziala egiteko aukera ematen du.
2. Diglosiak ezaugarri psikolinguistikoa dauka: hizkuntza-komunitatearen gaitasuna desberdina da hizkuntza batean eta bestean. Horretaz gain, aldaera bakoitza eskuratzeko bidea ere desberdina da. Alde batetik, hizkuntzetako bat egunerokoa da, etxekoa eta bizia, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da; bestetik, *H* aldaera soziala da, beranduagokoa, eta bigarren mailako sozializazioan (eskola bidez nagusiki) eskuratzen da.
3. Diglosiak ezaugarri ebaluatiboa dauka: *H* aldaerak duen balorazioa eta estatusa *L* aldaerak duena baino hobea da.

Gaur egun, Fergusonen jatorrizko eredua barne-diglosia edo endodiglosia azaltzeko erabiltzen da (Boix eta Vila, 1998; Coyos, 2010) eta Fishmanena kanpo-diglosia edo exodiglosia azaltzeko.

Soziolinguistikan asko erabili izan da *diglosia* terminoa, baina ez zaio beti esanahi bera eman. Fishmanen diglosian, hizkuntza ahulduak (hiztun-komunitate ahulduak) hurbileko erabilera-eremuak bereganatuta, belaunez belauneko jarraipena ziurtatzeko aukera du. Fishmanen iritziz, beraz, diglosia ahuldutako hizkuntzari eusteko eta bizirik jarraitzeko formula iraunkor-sendoa da. Minorizazioaren soziolinguistikak ere toki zentrala eman zion *diglosiaren* terminoari, baina Fishmanek emandako zentzua eta balorazioa nabarmen aldatuz: haien ustez, diglosia minorizazio- eta zapalketa-egoeran dagoen hiztun-komunitate baten egoera iragankorra da, hizkuntza menderatzailearen eskutik gertatzen ari den ordezkapen-prozesuaren azken aurreko estadioa. Herrialde Katalanetako soziolinguistikak eraginda, Euskal Herrian askotan bigarren zentzu hori eman izan zaio *diglosia* terminoari, Fishmanen ikuspegitik urrun (Zalbide, 2011).

#### **2.2.4. Hizkuntzen jarraipenaren muina: belaunaldiarteko transmisioa**

Belaunez belauneko jarraipena gai erabat zentrala da, hil edo bizikoa, Fishmanen ikuspegian. Bizirik jarraituko duten hizkuntzak eta hiltzera doazenak bereizten dituen alderdi nagusia, hain justu, horixe baita: hizkuntza biziak gurasoetatik seme-alabetara transmititzen dira ama-hizkuntza (edo lehen hizkuntza) gisa. Ezaugarri hori betetzen ez duten hizkuntzak (hizkuntza-komunitateak esatea zuzenagoa litzateke), latina adibidez, hizkuntza hilak dira (Zalbide, 2003: 5). Hizkuntza ahulduetarako belaunez belauneko transmisio horren erabateko garrantzia funtsezko alderdia da Fishmanen ikuspegian, eta ikuspegi hori, oro har, azken mende erdian ardatz sozialean landu izan den soziolinguistika guztiak onartu du, hein handi batean Fishmanengandik ikasita.

Aurrerago, 3.6. puntuan, sakonago landuko dugu transmisioaren gaia. Aurreratu dezagun, belaunez belauneko transmisio hori nagusiki familia-giroan eta etxean, hurbileko auzo-giroan eta kale-bizitza zabalean gertatzen dela (Zalbide, 2003: 6):

Hori da hizkuntzen belaunez belauneko transmisio-gune normal, natural, osasuntsua; hori da hizkuntza handien eta txikien jarraipen- oinarri nagusia. Hori da oinarri-oinarrizko puntua, hizkuntza ahulak osasun betekoetatik bereizten dituen.

Honekin hobeto ulertzen da Fishmanen ikuspegi osoa. Belaunez belauneko jarraipena ahalbidetzen duten erabilera-eremuak, hain justu, diglosiaren eskeman behe mailako gisa izendaturiko horiek dira. Eta horregatik diglosia-egoera bizirik irauteko modu bat izan daiteke hizkuntza gutxituarentzat, jarraipena ziurtatzen duten jardunguneak bere esku dauden heinean. Horrela, Fishmanek (1991) azken batean dio elebitasun sozial iraunkorra egingarria dela, hurbileko erabilera informalei eta horrekin belaunaldiarteko transmisioari eusten bazaio.

Arnasguneen garrantzia ere estuki lotzen da gai honekin: ahuldutako hizkuntza indartsu den espazio geoterritorialetan ziurtatzen baita, inon baino hobeto, belaunaldiarteko jarraipen hori.

Hizkuntza ahuldua indartzeko zereginean ere (RLS delakoan), belaunez belauneko jarraipena ziurtatzeari erabateko garrantzia emango dio Fishmanek. Are gehiago,

jarraipen hori ziurtatua ez dagoen komunitateetan, indarrak horretara bideratzea aholkatuko du, eta bestelako ekimenak (eskola, hedabideak, administrazioa...) belaunetz belaunetara berreskuratu ondorengorako uztea proposatuko du.

### **2.2.5. Komunitateen mugak babestu beharra; arnaguneen garrantzia**

Fishmanen ikuspegitik, garrantzi handia du komunitatearen mugak zaintzeak, komunitate barruan hurbileko harremanak X hizkuntzan egiteko (eta komunitatez kanpokoekin Y hizkuntza erabiltzeko). Mugaketa horren barruan, garrantzi berezia dute X hizkuntza nabarmen nagusi izango duten espazio geoterritorialek: “*Breathing space*” Fishmanen ahotan, *arnaguneak* Zalbideren itzulpenaren arabera (2019a). Espazio horietan hizkuntzak arnasa hartu ahal izango du.

Zer dira espazio horiek? “Demographically concentrated space where X-ish can be on its own turf, predominant and unharassed” (Fishman, 1991: 58). Espazio horietan, hizkuntza gutxituko hiztunen kontzentrazio handia dago, biztanle (ia) denek dakite X hizkuntzan mintzatzen, eta hizkuntza hori da euren arteko eguneroko harreman arruntetarako hizkuntza nagusi edo bakarra. Ingurune horretan, belaunaldi berriak X hizkuntzan hazten dira, bai etxean eta baita kalean ere, eta horrekin ziurtatu egiten da belaunaldiarteko jarraipena.

### **2.2.6. ‘Reversing Language Shift’ –RLS– (Hizkuntzaren Indarberritzea –HINBE–) eta hizkuntza-komunitate baten osasuna neurtzeko GIDS-BAEN eskala**

*Language Shift*aren aurrean, ordezkapen-prozesua eten eta norabidez aldatzea erraza ez baina posible dela adieraziko du Fishmanek. Hizkuntza-komunitatea indartzearen prozesu horri *Reversing Language Shift* (RLS) esango dio (1991); Zalbidetik Hizkuntza *IndarBerritzea* (HINBE) izendatuko du euskaraz (2004)<sup>49</sup>. Fishmanek bere RLS konstruktuan hizkuntza indarberritzeko ahaleginean “gure indar-apurkak alferrik ez galtzeko gomendio-sorta” eskainiko digu, Zalbideren hitzetan (2004: 2).

Fishmanen proposamenaren funtsa belaunetz belaunetara jarraipena ziurtatzea izango da, eta horretarako, jarraipen hori ziurtatzen duten erabilera-eremuetan (familian, lagunartean, kale-giroan...) biltzea hizkuntzaren aldeko ahaleginak; hizkuntza, konfigurazio etnokultural zabalago baten parte gisa ulertuta, betiere. Horrekin lotuta, arnaguneak indartzea eta ahal bada zabaltzea ezinbesteko zeregina izango da, eta horretarako, gune horiei bideragarritasun ekonomikoa eta demografikoa emateaz gain, komunitatea indartuko duten ildoak abian jartzea proposatuko du.

Horrekin batera, helburu lorgarriak eta errealistak jartzeko aholkatuko du Fishmanek. Zehazki, zera proposatzen du: Y hizkuntza etorkizunean ere gure artean biziko dela onartzea, hizkuntza hori X komunitateko kide guztiek ikastea (elebakartasuna

---

<sup>49</sup> Hona hemen *indarberritze* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 39):

- Gaztelaniaz: inversión del desplazamiento lingüístico.
- Frantsesez: inversion du transfert linguistique.
- Ingelesez: reversing language shift.

baztertuz) eta bi hizkuntzen erabilerarako diglosia berritu bat asmatzea eta adostea; horren baitan, X komunitateko hiztunek Y hizkuntza erabiliko dute komunitatez kanpoko kideekin aritzeko eta baita X komunitateko kideekin ere hainbat erabilera-eremutan. X hizkuntzarentzat, hizkuntzaren jarraipena ahalbidetuko duten eremuak (familia, lagunartea, kale-giroa...) beretzat ziurtatzea izango da garrantzitsua. Edonola ere, X eta Y hizkuntzetako hiztunak eskutik emanda eta elkarrekin aurrera egitea da Fishmanen ustez biderik onena hizkuntza ahulduarentzat. Are gehiago, Fishmanek esango digu, jende askok elebitasunari beldurra dioten arren, elebitasuna onuragarria dela guztientzat. Eta hizkuntza ahulduak gehienez lor dezakeena elebitasun-egoera horri eustea izango dela (Fishman, 1991: 84) :

Bilingualism is a benefit for all, for Xmen and for Ymen alike. (...).

Populations experiencing language shift have no alternative, by and large, but to be bilingual.

Helburua, beraz, elebitasun-egoera batean hizkuntza ahulduari eustea izanik, Fishmanen iritziz garrantzitsua izango da tokian tokiko esku-hartzeak pentsatzea eta egitea, hizkuntza ahulduak bizi duen egoera zehatzari aurre egingo diotenak. Izan ere, hizkuntza ahulduen alde lanean dihardutenen artean ohiko akatsa omen da (garesti ordaindu ohi den akatsa) berez hizkuntzaren egoeran eragin positibo nabarmenik izango ez duten jarduera ugaritan indarrak xahutzea (Fishman, 1991: 113).

Hizkuntza-komunitatea zein puntutan dagoen aztertzeko (eta horren arabera lehenetasunak finkatzeko), lurrikarak neurtzeko erabiltzen den Richter eskalaren antzeko batekin, zortzi egoera posibleko mailakatze bat landuko du Fishmanek: *Graded Intergenerational Disruption Scale –GIDS–*, Belaun Arteko Etenaren Neurria –BAEN- Zalbideren itzulpenean. Zortzi egoera posible horietako bakoitzak esku-hartze molde bat eskatuko du, eta garrantzi berezia izango du egoera bakoitzari dagokion moduan erantzuteak. Hemen Fishmanen BAEN eskala bere bertsio berrituan (Fishman, 2001: 466):

STAGES OF REVERSING LANGUAGE SHIFT: SEVERITY OF INTERGENERATIONAL Dislocation (read from bottom up)

1. Education, work sphere, mass media and governmental operations at higher and nationwide levels.
2. Local/regional mass media and governmental services.
3. The local/regional (i.e., non-neighborhood) work sphere, both among Xmen and among Ymen.
- 4b. Public schools for Xish children, offering some instruction via Xish, but substantially under Yish curricular and staffing control.
- 4a. Schools in lieu of compulsory education and substantially under Xish curricular and staffing control.

*II. RLS to transcend diglossia, subsequent to its attainment*

5. Schools for literacy acquisition, for the old and for the young, and not in lieu of compulsory education.

6. The intergenerational and demographically concentrated home-family-neighborhood: the basis of mother-tongue transmission.

7. Cultural interaction in Xish primarily involving the community-based older generation.

8. Reconstructing Xish and adult acquisition of XSL.

*I. RLS to attain diglossia (assuming prior ideological clarification)*

Ikusten denez, bi aldi nagusi bereizten ditu Fishmanek, diglosia eskuratu artekoa bata eta diglosia eskuratu ondorengoa bestea. Horrekin lotuta, berezko transmisioa etenda izatea edo ez izatea funtsezko alderdia izango da sailkapenean.

Mikel Zalbidek, eskala hori eta nazioarteko beste sailkapen batzuk aintzat hartuta, Euskararen osasun-diagnostikorako aplikazioa (EODA) landu du euskarak Euskal Herriko zonaldeetan bizi duen askotariko egoera aztertzeko (2016: 109-110).

## **2.3. HIZKUNTZA-JARRAIPENA ETA -ORDEZKAPENA MINORIZAZIOAREN SOZIOLINGUISTIKATIK**

### **2.3.1. Hizkuntza menderatzaileak eta gutxituak**

Gatazkaren ikuspegitik<sup>50</sup>, ukipen-egoera batean hizkuntza bat lehenago beste batek zituen erabilera-eremu eta funtzioak hartzen doanean, bigarren horren *gutxitzea*<sup>51</sup> edo *minorizazioa* gertatzen da. Gutxitze-prozesu horretan *hizkuntza gutxitua*<sup>52</sup> (edo mendekoa) esaten zaio funtzioak galtzen dituenari eta *hizkuntza menderatzailea*<sup>53</sup>

---

<sup>50</sup> Hona hemen *gatazkaren soziolinguistika* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren arabera* (UZEI, 2010: 55):

- Gaztelaniaz: sociolingüística del conflicto.
- Frantsesez: sociolinguistique du conflit.
- Ingelesez: conflict sociolinguistics.

<sup>51</sup> Hona hemen *gutxitze* eta *minorizazio* terminoen ordainak, *Soziolinguistika Hiztegiaren arabera* (UZEI, 2010: 39):

- Gaztelaniaz: minorización.
- Frantsesez: minorisation.
- Ingelesez: minorization.

<sup>52</sup> Hona hemen *hizkuntza gutxitu* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren arabera* (UZEI, 2010: 43):

- Gaztelaniaz: lengua minorizada; lengua subordinada.
- Frantsesez: langue minorisée; langue minorée.
- Ingelesez: minorized language; subordinated language.

<sup>53</sup> Hona hemen *hizkuntza menderatzaile* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren arabera* (UZEI, 2010: 44):

funtzio horiek bereganatzen dituenari. Kasu horietan, bi hizkuntzen artean (bi hizkuntza-komunitateen artean) lehia-harremana dago erabilera-eremuak eta funtzioak bereganatzeko. Lehia horri *hizkuntza-gatazka*<sup>54</sup> deritzo; gatazka hori ezkutukoa edo agerikoa izan daiteke (Ninyoles, 1989).

Hizkuntza-komunitateen desagerpenak eta ordezkatzekak garai historiko eta ingurune geografiko ugarian gertatu izan badira ere, *minorizazioaren soziolinguistika* esan izan zaionak Europako estatu-nazio moderno eta garaikideetan gertatu izan diren prozesuak izan ditu nagusiki aztergai.

Xavier Vilaren arabera (1998; 2014), estatu modernoak eratu aurretik, botereari, oro har, ez zitzaion hainbeste inporta bere mugen barruko herritarrek hizkuntza bat edo bestea erabiltzea. Estatu modernoak sortzearekin eta indartzearekin batera gauzak aldatu egingo dira, eta estatuaren esku-hartzea areagotu egingo da hizkuntza kontuetan. Burgesiak (klase menderatzaile berria izatera deituak) estatuko merkatu-batasuna bilatuko du, eta proiektu horri hizkuntza bat atxikiko zaio. Iraultza burgesen ondotik, nazionalismoaren eta demokraziaren hasierarekin, estatua zuzentzen duten eliteengan indartu egingo da estatu homogeneo bat eratzeko nahia. Prozesu historiko horietan, boteretsuek hizkuntza-errealitatean eragingo dute, hizkuntza nazionala indartuz eta gainerakoak ahulduz eta desagerraraziz (Vila, 2014). Testuinguru horretan, boterearena ez den hizkuntza darabilten komunitateetan, hizkuntza gutxitua lehenagotik lurralde horretan bizi eta jarduten zen hizkuntza-komunitatearena da, eta *bertako (edo berezko) hizkuntza*<sup>55</sup> esaten zaio.

Gutxitze-prozesua, beraz, koordenatu historiko jakin batzuetan gertatzen da. Prozesu horiek aztertzerakoan, minorizazioaren soziolinguistikak bereizi egin ohi ditu minorizazioa edo gutxitzea adierazten duten fenomenoak batetik eta gutxitzea eragiten duten sakoneko arrazoiak bestetik. Horretaz gain, gutxitze-prozesuaren faseez ere hitz egin ohi da. Ikus dezagun.

- 
- Gaztelaniaz: lengua dominante.
  - Frantsesez: langue dominante.
  - Ingelesez: dominant language.

<sup>54</sup> Hona hemen *hizkuntza-gatazka* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 40):

- Gaztelaniaz: conflicto lingüístico.
- Frantsesez: conflit linguistique.
- Ingelesez: linguistic conflict.

<sup>55</sup> Hona hemen *bertako hizkuntza* eta *berezko hizkuntza* terminoen ordainak, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 43):

- Gaztelaniaz: lengua propia; lengua autóctona.
- Frantsesez: langue autochtone.
- Ingelesez: native language.



### 2.3.2. Gutxitze prozesua gertatzen ari dela erakusten duten fenomenoak

Hizkuntzaren ugaltzea eten eta gutxitze-prozesua gertatzen denean, hainbat fenomeno joan ohi dira eskutik. Honako lau hauek aipatzen dituzte Boix eta Vilak (1998: 187):

- **Erabileraren** (edo hizkuntza-hautaketaren) eremuan **ordezkapena** gertatzen da. Hainbat hiztun (gero eta gehiago) ordura arte bertako hizkuntzarekin betetzen zituen hainbat funtzio hizkuntza menderatzailean betetzera pasatuko da.
- **Hizkuntza-gaitasunari** dagokionez, komunitate horretako hiztunek bertako hizkuntzan duten hizkuntza-gaitasunean “**galera**” gertatzen da (*pérdida*). Oro har, belaunaldi berriei eragiten die gehiago joera horrek zaharragoei baino. Horrela, galtzen ari den hizkuntza batean arrunta da zaharren artean aurkitzea hiztunik ugariak eta osoenak; eta gazteen artean, berriz, gutxiago izatea bertako hizkuntzan mintzatzen dakitenak eta euren gaitasuna ere kamutsagoa izatea euren guraso edo aitona-amonena baino.
- **Hizkuntzari** berari erreparatuta, hizkuntzaren **uzkurtzea**<sup>56</sup> (gaztelaniaz *encogimiento*) gertatzen da. Horrela esaten zaio ordezkapen-prozesua denboran asko luzatzen denean hizkuntza gutxituaren adierazpen-gaitasunean gertatzen den murrizketari: hizkuntza menderatzailearen egitura gramatikaletara hurbiltzen da hizkuntza gutxitua, hizkuntza menderatzailearen hiztegitik hitzak atergabe hartzen ditu eta berezko baliabideen mugaketa bat gertatzen da. Ordezkapen-prozesuak oso aurreratuta daudenean, alternantzia handia izaten da, joerarik ohikoena bihurtzeraino, baita esaldi barruan *kodez aldatzea* ere<sup>57</sup>. Aldaketa horiek hiztun osoagoetan baino ohikoagoak izaten dira hizkuntza gutxituan gaitasun apala duten hiztunetan (Boix eta Vila, 1998: 261-262).
- Horrekin guztiarekin batera, **hizkuntza-ideologiaren alorrean**, ordezkapen-prozesuaren **legitimazioa** gertatzen da. Hizkuntza propioa gutxietsi egiten da: bertako hizkuntza arlotea da, ezjakinena, iraganari eta atzerapenari lotua... Bien bitartean, nagusitzen ari den kanpoko hizkuntzari hainbat ezaugarri positibo atxiki ohi zaizkio: hizkuntza unibertsala da, modernoa, orotarikoa, praktikoa, gizabanakoen eta gizataldeen aurrerabide sozioekonomiko eta kulturala ahalbidetzen duena, jakintzaren eta zientziaren hizkuntza da....

---

<sup>56</sup> *Soziolinguistika Hiztegiaren* ez dator termino hau. Guk *uzkurtzea* erabiliko dugu gaztelaniazko *encogimiento*ren ordain gisa.

<sup>57</sup> Hona hemen *kode-aldaketa* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEL, 2010: 49):

- Gaztelaniaz: alternancia de códigos.
- Frantsesez: alternance codique.
- Ingeleseaz: code switching.

### 2.3.3. Gutxitze- edo ordezkapen-prozesuaren faseak

Gutxitze-prozesuek luze jo ohi dute (gehienetan hiru belaunaldi edo gehiago behar izaten dira prozesua burutzeko), eta ez dira beti abiadura berean gertatzen, ezta modu guztiz linealean ere. Hala ere, zenbait ikertzaileen arabera<sup>58</sup>, gutxitze-prozesu orokor hori hainbat fase eta azpi-prozesuren bidez deskriba daiteke, komunitateko hitzunen hizkuntza-gaitasunean eta erabilera-ohituretan gertatzen diren aldaketei jaramon eginda. Azpi-prozesu horiek historikoki hurrenkera jakin batean gertatu ohi dira. Horregatik, autore horiek zenbait fase nagusitan deskribatu izan dute ordezkapen-prozesua (fase bakoitzean azpimarra azpi-prozesu batean jarritz).

Abiapuntua bere beharrak berezko duen Hx hizkuntzan betetzen dituen X gizatalde elebakarra izanik, ordezkapenaren **lehenengo urratsa elebidun bihurtzea** da: X komunitateko hitzun batzuek Hy hizkuntza ikasi beharra dute, Y komunitateko kideekin harremanak izateko. Hainbat arrazoik eragin dezakete behar hori: migrazio-mugimenduek, mendekotasun ekonomiko, politiko edo militarrek... Nolanahi ere, elebidun bihurtze hori alde bakarrekoa izan ohi da: X komunitateko kideek ikasten dute Hy hizkuntza, ez Y komunitatekoek Hx. X komunitateko hainbat alor hasten dira elebiduntzen, gutxi batzuk hasieran, gehiago prozesuak aurrera egin ahala. Elite politiko eta ekonomikoak izan ohi dira Hy ikasten lehenak, eta lehenago bihurtzen dira elebidun gizarteko hainbat sail: hirietako biztanleak landaguneetakoak baino, gizonezkoak emakumezkoak baino, gazteak helduak eta adinduak baino... Hitzun gehienek, hala ere, X hizkuntzako elebakar izaten jarraitzen dute lehenengo fase honetan, eta komunitate barruko harremanak Hx hizkuntzan dira erabat; Hy hizkuntza *beste komunitatekoekin* hitz egiteko soilik erabiltzen da.

**Bigarren fasean, X komunitate barruko harremanetan erabiltzen den hizkuntzan aldaketak** hasten dira: X komunitateko hainbat kide Hy hizkuntza erabiltzen hasten da, kanpokoekin aritzeko ez ezik, baita komunitate barruko kideekin hainbat egoera eta gairi buruz elkarren artean aritzeko ere. Horrela, adibidez, funtzio formaletarako edo idatzizko harremanetarako sistematikoki Hy hizkuntzaz baliatzen hasiko dira: administrazioko jarduna, eskola eta komunikabideak Hy hizkuntzan izango dira. Urrats hori funtsezkoa da ordezkapen-prozesuan: ordura arte “kanporakoa” zen Hy hizkuntza, nolabait, etxekotu egiten baita X komunitateko alor batzuetan. Fase horretan, halaber, gune urbanoetan X komunitateko kide guztiak elebiduntzen dira; are gehiago, Hy hizkuntzako lehenengo elebakarrak azaltzen dira. Mollà (2002: 154) esaten digunez, hauxe da fase horretako banaketa prototipikoa: boterearen hizkuntza Hy da argi eta garbi, hirietako herritarrak elebidunak dira eta nekazari inguruneetakoek Hx hizkuntzako elebakar izaten jarraitzen dute.

**Hirugarren fasean**, Hx hizkuntzako hitzun elebakarrak desagertuta (elebidun bihurtzeko prozesua guztiz burututa), **belaunaldietako etxeko transmisioa eteten** hasten da. Etxeko transmisio hori hil edo bizikoa da hizkuntzari eusteko, eta *etenaldi* hori modu batean baino gehiagotan gerta daiteke. Batzuetan, Hy hizkuntzak erabilera-eremu kolokialenak ere bereganatu dituenean, X komunitateko bikote elebidunek Hy-n “natural” jarduten dute, eta “natural” uzten diote Hx- euren seme-alabei transmititzeari.

---

<sup>58</sup> Ikus adibidez: Ninyoles (1989), Boix eta Vila (1998: 188-192) eta Mollà (2002: 151-157).

Beste batzuetan, aldaketa zakarragoa izaten da: gurasoak elkarren artean Hx-z jarduten dira baina seme-alabekin prestigioa duen hizkuntza erabiltzen dute, Hy. Hainbat kasutan, azkenik, gertatu daiteke gurasoak Hx-z aritzea seme-alabekin baina etxeko haur eta gazteek kalean nagusi den Hy ekartzea etxera eta gurasoak ere hizkuntza horretara erakartzea. Prozesu horiek orokortzean, Hy hizkuntzaren “naturalizazioa” eta “bertakotzea” gertatzen da.

Hirugarren fasean deskribatutako prozesua ez bada gelditzen eta itzularazten, hamarkada gutxiren buruan, belaunaldien ordezkapenarekin batera Hx hiztunen zahartzea gertatuko da, eta belaunaldi berriek Hy besterik ez dute jakingo eta erabiliko. Horrela, Hx gero eta gehiago “zaharren hizkuntza” izango da, eta azken hiztunekin batera, hizkuntza hori desagertu egingo da, eta utzi egingo dio hizkuntza bizia izateari.

#### **2.3.4. Gutxitze-prozesuan faktore politikoaren pisu erabakigarria**

Ordezkapenaren berri ematen diguten eta elkarren eskutik gertatu ohi diren lau fenomenoak aipatu ditugu lehenago: hizkuntzaren uzurtzea, hizkuntzen ordezkapena erabileran, hizkuntza-gaitasunaren galera eta ordezkatzeko-prozesua bultzatzen duen legitimazio ideologikoa. Ordezkapen-prozesuaren faseak ere azaldu ditugu, komunitatearen hizkuntza-gaitasunean, erabilera-ohituretan eta belaunaldiarteko transmisioan gertatzen diren aldaketetan oinarrituta.

Orain arte, hizkuntzarekin lotutako aldagaiei eta prozesu soziolinguistikoei buruz aritu gara. Ordezkapena gerta dadin eragiten duten faktore nagusiak, ordea, estralinguistikoak dira eta zerikusi zuzena dute gizataldeen arteko botere-harremanekin. Azken batean, elkarrekin lehian dauden hiztun taldeen arteko botere-harremanak definitzen du hiztun-komunitateen bilakaera.

Soziolinguistikan, bi ildotako faktoreak aipatu izan dira nagusiki: faktore politikoak batetik, eta ekonomikoak bestetik (Boix eta Vila, 1998: 203, 206). Gatazkaren ikuspegia landu duten autoreek garrantzi berezia aitortu izan diete faktore politikoei (Boix eta Vila, 1998: 206):

La hipòtesi de la minorització lingüística atribueix la responsabilitat última de la substitució als estats, els quals, en la seva recerca d'homogeneïtat sociocultural, generen un seguit de mesures coercitives que acaben provocant l'abandó de les varietats no oficials.

Botere-egituretatik hizkuntzaren alorrean eragiteko ahaleginak lehenagoko gizarte gehienetan ere gertatzen ziren arren (Vila, 2014: 50), gutxienez XVI. mendetik aurrera Europako estatuetakoko gobernuak neurri politiko eta juridiko jakinak hartu zituzten progresiboki, eurek aukeratutako aldaera estatuko hizkuntza bihurtzeko eta herritarrak hori ikastera eta erabiltzera erakartzeko, estatuaren mugen barruan hitz egiten ziren gainerako aldaerak suntsipenera bultzatuta. Prozesu horretan mugarri garrantzitsua da estatuari dagokion hizkuntza nazionala finkatzea (estatu nazionalen sorrerarekin gertatu ohi dena); garrantzi handia izango dute, halaber, horren eskutik sortuko diren lege eta politikak, zeinak herritarrak behartu egingo dituzten hizkuntza nagusia ikastera eta erabiltzera. Estatuaren esku-hartze horretan bereziki azpimarratzekoak dira eskolaren orokortzea (hizkuntza nazionalen gertatuko dena) eta derrigorrezko soldaduzka (Boix eta Vila, 1998: 205-206). Gatazkaren ikuspegiak prozesu historiko

horien intentzionalitatea azpimarratzen du: estatuak nahita eta helburu argiekin jarri zituztela abian politika horiek, alegia. Hori irudikatuz, *glotofagia*, *linguizidioa* edo *genozidio linguistiko-kulturala* terminoak erabili izan dituzte prozesu horiek izendatzeko. Politika suntsitzaile horiei aurre egiteko eta hizkuntza gutxituari bizirik eusteko, faktore nagusia hizkuntza gutxituko hiztunen erresistentzia kontzientea izango da.

Gatazkaren ikuspegiak faktore politikoei emandako zentralitatea gehiegizkotzat jo izan da beste ikuspegi batzuetatik, eta zalantzan jarri izan dute baita ikuspegi horretan kokatzen diren hainbat autorek ere, eta aldagai politikoen aurrean aldagai demografiko-sozial-ekonomikoen garrantzia ere azpimarratu nahi izan dute. Aipagarria da, ildo horretan, Euromosaic-en ekarpena, faktore politikoekin batera, faktore ekonomikoak eta hizkuntza gutxituan mintzo den taldeak hartzen duen papera ere kontuan hartzen duena (Nelde, 1996; Williams, Nelde eta Strubell, 1997).

### 2.3.5. Hizkuntza-politika eta normalizazioa

Hizkuntza-ordezkapena bururaino iristen denean, hizkuntza hil egingo da. Posible da, ordea, prozesua norabidez aldaraztea, bertako hizkuntza indartuz. Jatorrizko ikuspegi konfliktibistan, ez dago hizkuntzen arteko orekarako aukerarik: luzera begira, hizkuntza bat edo bestea nagusituko da. Bestela esanda, hizkuntza-gatazkak bi bukaera posible besterik ez du: hizkuntza hori suntsitzea eta hiltzea (ordezkapen-prozesua bururaino eramanda) edo hizkuntza hori nagusitzea (normalizazio-prozesua bururaino eramanda).

Horrela, bada, *normalizazioa*<sup>59</sup> esaten zaio<sup>60</sup> gutxitze-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesuari (UZEI, 2010: 30). Normalizazioaren ikuspegiak estatu eta erakunde mailako politikajarduerak ez ezik, garrantzi berezia ematen dio behetik datorren herri mugimenduari ere.

Katalunian, autonomia-estatutua abian jarri eta hizkuntza-politikak abiatu zirenean normalizazioaren terminoari eutsi zitzaion arren, terminoak jatorrian zuen adierari muzin egin eta beste esanahi bat hartu zuen. Horrela, hizkuntza bat (katalana) bestearen (gaztelaniaren) gainean jartzea baino gehiago, helburutzat bi hizkuntzen bizikidetzat bermatzea zuen politika landu zen. Ninyolesen esanetan (2001), trantsizioko kontsentsuaren espirituari amore emanda, gatazkaren teoriak guztiz baztertu ziren, eta "orekaren paradigma" indartu zen eta korrante zientifiko nagusiei egin zitzaion men.

---

<sup>59</sup> Hona hemen *hizkuntza-normalizazio* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 30):

- Gaztelaniaz: normalización lingüística.
- Frantsesez: normalisation linguistique.
- Ingelesez: linguistic normalization.

<sup>60</sup> Normalizazioaren terminoa (eta baita planteamenduaren hainbat alderdi ere) gatazkaren ikuspegitik at dauden alorretara ere zabaldu den arren, gatazkaren paradigmatik aritu ziren Herrialde Katalanetakoa autoreei zor zaie ikuspegi horren jatorrizko planteamendua (Zalbide, 2003: 29-31).

## 2.4. KAPITULUAREN SINTESIA:

### JARRAIPENA/ORDEZKAPENA/INDARBERRITZEA (ETA HIZKUNTZEK UNE-EREMU JAKIN BATEAN DUTEN EGOERA SOZIALA) NEURTZEKO ZAZPI ARDATZAK

Ordezkapen eta indarberritze-prozesuak deskribatzerakoan, honako zazpi ardatz (edo aldagai multzo)<sup>61</sup> nagusi hauek argi identifikatu ditugu aztertu dugun literaturan<sup>62</sup> (Fishmanen obran edo/eta minorizazioaren soziolinguistikaren azalpenetan):

**Hizkuntza-gaitasuna.** Hitzunek X eta Y hizkuntzan duten ezagutza, erabilerarako ezinbesteko baldintza izateaz gain, alderdi garrantzitsua da ordezkapenaz eta indarberritzeaz aritzean ere, eta garrantzi hori aitortzen diote landu ditugun bi ikuspegiak. Horrela, X zein Y hizkuntzetan hitzunek duten ezagutzak finkatuko ditu ordezkapenaren faseak minorizazioaren soziolinguisten azterketan (hizkuntza bateko zein besteko elebakar kopuruek, elebidun kopuruek, eta abar). Fishmanek ere oinarri-oinarrizko aldagaitzat joko du gaitasuna: BAEN eskalan, adibidez, hitzunen hizkuntza-gaitasuna erabakigarria izango da hainbat maila definitzerakoan.

**Erabilera.** Erabilera ordezkapenaren osagai definitzailea, deskribatzen ari garen prozesuen funtsezko alderdia da bi ikuspegiak. Fishmanen *language shift* edo mintzaldatzea erabilera-ohituretan gertatzen den aldaketa bat da berez, erabilerari zuzen-zuzenean lotzen zaion errealitatea. Minorizazioaren soziolinguistikaren iritziz ere, hizkuntza batek zituen funtzioak besteak bereganatzean gertatzen da *ordezkapena*, funtzio jakin batean hizkuntza bat erabiltzeari uzten zaionean eta haren ordez bestea erabiltzen hasten denean alegia. Erabilera, hortaz, funtsezko aldagaia da ordezkapenaz eta indarberritzeaz aritzerakoan bi ikuspegiak. Hala ere, bakoitzak erabilera jakin batzuetan jarriko du azpimarra: Fishmanentzat (1991) komunitate barruko erabilera informala, etxe- eta lagun-giroan egiten den hori izango da garrantzitsuena, hizkuntza-komunitate baten etorkizunarentzat hil edo bizikoa. Minorizazioaren soziolinguistikaren ikuspegia landu duten autoreek, ordea, erabilera-eremu guztiei jarriko diete arreta, eta horietan guztietan hizkuntza gutxitua indartzea izango da beharrezkoa hizkuntzarentzat. Zehazki, goi mailako funtzioetan (irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan, ekonomia arloan...) egingo den erabilera erabakigarria izango da hizkuntza biziberritzeko edo *normalizatze*ko.

**Hizkuntzekiko motibazioak eta jarrerak.** Alderdi subjektiboek ere funtsezko tokia dute ordezkapen-prozesuetan. Fishmanen ustez, hizkuntzarekiko atxikimendua eta leialtasuna funtsezko alderdiak izango dira egoera bertsuetan komunitate batzuek berezko hizkuntza zergatik galdu duten eta beste batzuek zergatik eutsi izan dioten azaltzeko. Minorizazioaren soziolinguistikaren iritziz ere funtsezko alderdia da honako

---

<sup>61</sup> Aldagai edo gai multzo horiek izendatzeko, *ardatz* terminoa hobetsiko dugu txosten honetan, bere garaian EASen erabilitako terminologia bera (Soziolinguistika Klusterra, 2015). Termino horren edukia bat dator, gutxi-asko, *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa* proiektuan *dimentsio* gisa izendatzen denarekin (Zalbide et al., 2015: 225).

<sup>62</sup> Zerrendan ez ditugu sartu (gure ikergaia gaintzen duten heinean) ordezkapen- eta indarberritze-prozesu horien sakoneko arrazoi diren faktore estralinguistikoak (politikoak, ekonomikoak...).

hau: norbere hizkuntza gutxiestea/gorrotatzea eta hizkuntza menderatzailea ederrestea ordezkapen-prozesuaren alderdi legitimatzaile gisa aurkezten digute; era berean, hiztun-komunitate gutxituaren erresistentzia kontzientea funtsezko alderdia izango da komunitateak bizirik irauteko.

**I.2. IRUDIA: HIZKUNTZA GUTXITUEN JARRAIPENA/ORDEZKAPENA/INDARBERRITzea NEURTZEKO ARDATZ NAGUSIAK, AZTERTURIKO LITERATURA SOZIOINGUISTIKOAREN ARABERA**



Iturria: egileak landua.

Laugarren ardatza elkarrekin harremanetan dauden hainbat alderdik osatuko dute: **hiztun-komunitatearen banaketa lurraldean eta dentsitatea, hizkuntzen nagusitasuna lurraldean eta harreman-sareen osaketa**. Hizkuntza-komunitate baten osasunean zeresan argia duten alderdi horiek guztiak bilduko dituen laugarren ardatza aipatzeko, **testuinguru demolinguistikoa** izendapena erabiliko dugu. Fishmanen esanetan (1991), funtsezko garrantzia zuen komunitatearen mugak babesteak, eta komunitate barruko harremanak (hurbilekoak bereziki) bertako hizkuntzan gauzatzeak. Komunitate horretako hiztunak lurraldean sakabanatuak eta komunitatekoak ez diren hiztunekin (beste hizkuntzako hiztunekin) nahasian bizi izateak asko zailtzen du hizkuntzaren iraupena. Horren haritik, berebiziko garrantzia eman zien Fishmanek X hizkuntza nagusi izango diren gune geoterritorialei (*breathing space* edo arnaguneei<sup>63</sup>).

<sup>63</sup> *Arnasgunea* da Fishmanen *breathing space* horretarako Mikel Zalbidek asmatutako ordaina, azken urteotan euskararen aldeko mugimenduan asko zabaldu den terminoa; jatorriz zuen esanahiaz beste, eremu zabalagoetara ere zabaldu da (Salaberria, 2014: 63):

Arnasguneen ohiko irudia herri euskaldunena izan da: Aramaio, Azpeitia, Leitza, Lekeitio, Lakarra... Baina, herri edo eremu geografikoez gain, bada arnagunetzat kontsidera genezakeen beste esparru bat, espazio soziofuntzionalena edo jardunguneena, hain zuzen ere. Bada halako hainbat espazio zeinetan euskaldun ugari biltzen diren eta bertako hizkuntza ohikoena, nagusia, euskara den. Halakoetan, esparru horietan ere bertakotzeko, partaide normala sentitzeko, euskara behar dela sumatzen da.

Minorizazioaren ikuspegitik aritu den hainbat autorek ere aintzat hartu du gai multzo hori. Urrutira joan gabe, ezin aipatu gabe utzi Txillardegik erabilera azaltzeko orduan sareen trinkotasunari (isotropia-anisotropia mailari) ematen dion garrantzia (Álvarez Enparantza, 1984; Álvarez Enparantza, 1991; Álvarez Enparantza eta Isasi, 1994; Álvarez Enparantza, 2001): zenbat eta hizkuntza gutxituko hiztunak elkarrekin harreman handiagoan egon, orduan eta handiagoak izango dira hizkuntza erabiltzeko aukerak. Arnasguneen gaia ez ezik, ardatz horretan kokatu dugu, halaber, hiztun bati hizkuntza baten erabilera ahalbidetzen edo galarazten dion harreman-sarearen ezaugarritzea ere.

**Hizkuntza-sozializazioa, transmisioa edo belaunez belauneko jarraipena.** Alderdi hori da, nabarmen, hizkuntzen iraupenaren muina Fishmanen ikuspegian: belaunaldiarteko jarraipenik ez badago, hizkuntza hil egingo da; jarraipen sendoak soilik ekar dezake hizkuntza-komunitateak irautea. Horixe da hizkuntza-komunitatearen jarraipenaren ezinbesteko oinarria eta hizkuntzaren osasunaren adierazle nagusia. Fishmanek gaiari emandako garrantzia gaur egun ardatz sozialetik lantzen den soziolinguistika osoaren ezaugarritzat jo dezakegu, ikuspegi guztiek onartua, baita minorizazioaren soziolinguistikak ere.

**Hizkuntza-bilakaera** dugu seigarren ardatza. Hitzunek hizkuntza ezberdinetan duten gaitasuna eta erabilera aldatu egiten da bizitzan zehar: aldaketa horiek jasotzen dira “hizkuntza-bilakaera” izendapenaren azpian. Fishmanen ikuspegian, *shift* edo mintzaldatzea gertatzen ari denean, pertsonak lehenago erabiltzen ez zuten hizkuntza erabiltzen hasten dira lehenago bertako hizkuntza erabiltzen zuten jardunguneetan. Minorizazioaren soziolinguistikari erreparatuta ere, hizkuntza-bilakaeraren fenomenoek definitzen dituzte, hein handian, ordezkapen-prozesuetan aipatzen dituzten lehenengo bi faseak: lehenengo fasea, elebidun bihurtzea, gaitasun mailan gertatzen den bilakaerari lotua dago bete-betean, eta bertako hizkuntzan elebakar ziren hiztunen zati batek hizkuntza menderatzailea ikastea esan nahi du. Bigarren fasea ere hizkuntza-bilakaeraren prozesu batek definitzen du: hiztun-komunitateko kideek komunitate barruan hainbat zereginetarako hizkuntza gutxitua utzi eta hizkuntza menderatzailea erabiltzen hastea.

**Hizkuntza bera uzurtzea (“*encogimiento*”).** Ordezkapena faktore estralinguistikoek eragindako prozesua izanda ere, haren aztarnak argi antzematen dira hizkuntzan bertan ere (Coyos, 2010: 150). Uzurtze hori hizkuntza gero eta gutxiago erabiltzearen ondorio izan ohi da (Thomason, 2018: 77) eta zerikusi zuzena du hiztunen gaitasun mailako gabeziarekin. Minorizazioaren soziolinguistikaren ikuspegitik gaia landu duten autoreek ordezkapen-prozesuetan eskutik doazen lau osagaietako bat hizkuntza bera uzurtzea dela esango digute. Hizkuntza gutxituaren adierazpen-gaitasuna murriztea eta hizkuntza menderatzailearen eragina handitzea hizkuntza gutxituan ordezkapenaren sintoma argiak izango dira. Adostasunaren paradigman koka dezakegun Morenok ere (2009: 247) azaltzen du, komunitate batek hizkuntzaz aldatu eta hizkuntza-heriotza gertatzen denean, lehenago hizkuntzaren beraren narriadura, sinplifikazio, pobretze eta murrizketa-prozesu bat gertatu ohi dela gehienetan.

---

Horrela, gaur egun badira arnasguneen artean arnasgune geografikoak eta arnasgune funtzionalak biltzen dituztenak. Guk, ordea jatorrizko esanahiari helduko diogu lan honetan eta arnasgune “geografikoez” soilik arituko gara.

Zazpi ardatz horietan jarriko dugu, hortaz, arreta. Eztabaidagarria izan daiteke zein gai multzori eman ardatz izaera. Inor gutxik ukatuko du hiru lehenengo ardatz edo gai multzoak elkarrekiko ezberdinak direla kualitatiboki eta bereiz aztertu beharrekoak horregatik. Gurean, gainera, tradizio sakona dago errealitate soziolinguistikoa “gaitasuna/erabilera/motibazioa” hiru zutabe kontzeptual nagusi horien jiran aztertzekoa (Zalbide, 2010b: 31). Gainerako ardatzen kasua eztabaidagarriagoa izan daiteke. Horrela:

- Testuinguru demolinguistikoa aipatu ditugun gaiak, berez, gaitasunarekin eta erabilerarekin zerikusia duten alderdiak dira, baina fokua gizabanakoaren/hiztunaren mailan jarri beharrean gai horiek maila meso eta makroan lantzen dira, adibidez norbera bizi den udalerriko biztanleek duten gaitasuna edo erabilera-ohiturak aztertuta. Nolabait esatearren, testuinguru demolinguistikoa lantzen dugunean, aldatzen dena azterketa-unitatea da berez aztergaia baino gehiago.
- Hizkuntza sozializazioa hizkuntza-gaitasun, erabilera-ohitura eta hizkuntzarekiko jarrera multzo bat belaunaldiz belaunaldi transmititzeko prozesu gisa formula daiteke. Hots, hiru zutabe kontzeptual nagusiak aztertzeko ditugu berez, baina une jakin batean duten errealitatea aztertu ordez, belaunaldien artean duten bilakaeran jarrita gure arreta.
- Hizkuntza-bilakaeraren kasuan ere, hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren azterketa lantzen da izenburu horren azpian, eta aldagai horiek une jakin batean sinkronikoki duten egoera aztertu beharrean, pertsonaren bizitzan diakronikoki nola aldatu izan diren aztertzeko da.

Eztabaidagarria izan daiteke gaien multzokatzea eta ardatzen definizioa. Ardatz horiek finkatzerakoan, eztabaida horretan proposamen bukatu bat egiteko asmorik gabe, ondorengo orriotan zazpi ardatz horien eskemarekin lan egingo dugu guk, eskema hori lagungarria zaigulako tesi honen helburuak lortzeko orduan.

Hurrengo kapituluan, honako aldagai multzo edo ardatz hauek banan-banan hartu, horiek demolinguistikatik landu ote daitezkeen erabaki, eta demolinguistikatik landu daitezkeen horiei buruzko oinarrizko kokapen bat egiten ahaleginduko gara.



### **3. HIZKUNTZEN EGOERA SOZIALA ETA BILAKAERA AZTERTZEKO ARDATZ NAGUSIAK**

Atal honen helburua da, behin hizkuntzen ordezkatzeko/indarberritze prozesuen berri eta une jakin bateko hizkuntzen egoeraren berri ematen diguten aldagai multzo (ardatz) nagusiak identifikatuta, lehenik eta behin ikustea horietatik zein ardatz diren demolinguistikatik aztergarriak. Eta aztergarriak diren horietan, laburbiltzen saiatuko gara soziolinguistikatik eta demolinguistikatik ardatz horiei buruzko argibideak emateko egin den lana. Zertarako? Ondoren, atal metodologikoan, demolinguistikatik sortu beharko genituzkeen adierazleek nolakoak izan beharko luketen (zer eta nola jaso beharko luketen) finkatzeko, aldagai horiek ahalik eta gehien egokitu daitezzen egun soziolinguistikaren eremutik dugun jakintzara.

#### **3.1. ZEIN ARDATZ DIREN AZTERGARRIAK DEMOLINGUISTIKATIK (TESIAN LANTZEKO HARTUKO DITUGUN ETA BAZTERTUKO DITUGUN ARDATZAK)**

Aurreko kapituluko azken puntuan aipatutako zazpi ardatzak hartuta, erabaki dezagun demolinguistika tresna egokia ote den horiek aztertzeko. Zazpi ardatz horien artean honako bost hauek berezko lan-eremuak ditu demolinguistikak<sup>64</sup>: hizkuntza-gaitasuna, erabilera, testuinguru demolinguistikoa, hizkuntza-sozializazioa eta hizkuntza-bilakaera (urdin ilunez margotu ditugu horiek 1.3. irudian).


Hirugarren ardatz gisa jarrera eta motibazioena dugu. Ardatz hori aztertu al daiteke demolinguistikatik? Galdera horren erantzuna ez da aurreko bost ardatzetan bezain argia. Batetik, demolinguistikaren objektua aintzat hartuta (ikus 1.2. puntua), ez dirudi, inolaz ere, motibazioak, jarrerak eta gainerako alderdi subjektiboak lantzea haren lan-esparruan sar daitekeenik; demolinguistikak egitateak azterzea baitu xede. Gauza jakina da, bestalde, motibazioak eta jarrerak aztertzekoan sakontasuna bilatuz gero, metodologia kualitatiboak askoz ere emankorragoak direla, demolinguistikak erabili ohi dituen ikerketa-teknika demografiko-soziologiko guttiz kuantitatiboak baino (Ortí, 1989: 171; Juaristi, 2003: 86-87; Ruiz Olabuénaga, 2012: 44).

---

<sup>64</sup> Esan beharrik ez dago bost ardatz horiek, halaber, soziolinguistikako eremu zabalean diharduten gainerako disziplinetatik ere landu daitezkeela, eta lantzen direla.

Hala eta guztiz, egia da, baita ere, inkesten bidez alderdi subjektiboak aztertu daitezkeela<sup>65</sup> eta, 1.4.4. puntuan ikusi dugun bezala, arrunta dela inkesta soziolinguistikoetan hizkuntza-gaiei buruzko herritarren iritzi, jarrera eta hautemateak jasotzea. Horretaz gain, demolinguistikak egitateei buruz eskuratzen dituen datuak maila teorikoan interpretatzeko orduan, arrunta eta askotan beharrezkoa izan daiteke subjektuen balizko motibazio eta jarreretara jotzea. Hori dela eta, kapitulu honetan motibazio eta jarreraren gaiak ere landuko ditugu, nahiz eta, esan bezala, alderdi horiek ez izan berez demolinguistikaren berariazko ikergai (kolore urdin argia eman diogu gai multzo honi 1.3. irudian).

**1.3. IRUDIA: HIZKUNTZA GUTXITUEN JARRAIPENA/ORDEZKAPENA/INDARBERRITZEA NEURTZEKO ERABIL DITZAKEGUN ARDATZ NAGUSIEN ARTEAN ZEIN DIREN AZTERGARRIAK DEMOLINGUISTIKATIK**



Iturria: egileak landua.

Azkenik, *hizkuntzaren uzkurtzea* izendatu dugun ardatza dugu, hizkuntzaren sistemari berari, corpusari, dagokiona. Ardatz hori argi eta garbi demolinguistikaren azterketa-eremutik kanpo gelditzen da; beraz, ez dugu zuzenean landuko hurrengo orrietan. Argitu dezagun, hala ere, uzkurtzeak zerikusi zuzena duela guk landuko ditugun gainerako ardatzekin. Harreman zuzena du uzkurtzeak, hasteko, hiztunen hizkuntza-gaitasuna ahultzearekin, hizkuntza egoki eta jarioasunez erabiltzen jakiteko ezintasunarekin; horrela, hizkuntza-gaitasun mugatua uzkurtzearen adierazle izan ohi da. Bestalde, hizkuntza uzkurtzeak hiztunen hizkuntzarekiko motibazioan eragiten du,

<sup>65</sup> Tradizio zabala dago horretan ere. Bi adibide adierazgarri aipatzearren, hori da Espainiako Ikerketa Soziolinguistikoaren Zentroak (CIS) eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak nagusiki egiten dutena.

instrumentalki gero eta balio gutxiagokoa bihurtzen baita norbere hizkuntza, eta horrek eragina izan ohi du bai erabileran eta baita hizkuntza hurrengo belaunaldietara igaroarazteko orduan ere.

Ondorengo azpikapituluetan, demolinguistikatik landu daitezkeen sei ardatzak banan-banan hartu eta horien inguruko oinarritzko kokapen teorikoa egingo dugu lehenik. Ondoren, ardatz bakoitza demolinguistikan nola landu izan den aztertuko dugu. Horretarako, nazioarteko demolinguistika enpirikoari emango diogun gainbegiratuan, mendebaldeko Europakoari emango diogu lehentasuna eta hainbat eremutako lanak aztertuko ditugu: Suitza, Gales, Eskozia, Irlanda, Galizia, Katalunia, Valentzia, Balear uharteak, Kanada eta Quebec... Arreta berezia eskainiko diegu guretzat interes berezia duten honako hiru eremu hauetan landu izan den demolinguistikari:

- Quebec eta Kanadakoari, han landu duten demolinguistika mundu mailako erreferente nagusia delako (Prévost eta Beaud, 2002; Sorolla, 2012; Dell’Aquila eta Iannàccaro, 2019; Wargon, 2000).
- Katalunian landu dutenari, gure errealitatearekiko duen gertutasun geografiko-historiko-juridiko-politikoagatik.
- Galeskoari, hango egoera soziolinguistikoaren eta gurearen arteko antzekotasun ugariengatik.

## 3.2. HIZKUNTZA-GAITASUNA

### 3.2.1. Hizkuntza-gaitasuna zer den. Eta gaiarekin lotutako hainbat kontzeptu

Hizkuntza baten jabeakuntza, prozesu soziala izanik ere, hizkuntza baten ezagutza edo hizkuntza batean hiztunak duen gaitasuna<sup>66</sup> gizabanakoaren ezaugarri psikologiko-kognitiboa da (Vila, 2005b). Gaitasun hori dinamikoa eta, beraz, aldakorra<sup>67</sup> da pertsonaren bizitzaren fase guztietan (Grosjean, 2018: 9) eta ez da dimentsio bakarrekoa. Oro har, oinarritzko lau trebetasun aipatu ohi dira hizkuntza-gaitasunaren barruan: ulermena (hizkuntza entzunda ulertzeko gaitasuna), hitz egiteko gaitasuna, irakurtzeko gaitasuna eta idazteko gaitasuna (Baker, 1997: 31). Lau trebetasun horiek, halaber, bi multzokatzerekin bidez sailkatu izan dira:

---

<sup>66</sup> Hizkuntza-gaitasuna eta ezagutza sinonimo gisa erabiliko ditugu txosten honetan. Hona hemen *hizkuntza-gaitasun* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren arabera* (UZEI, 2010: 49):

- Gaztelaniaz: competencia lingüística; conocimiento lingüístico.
- Frantsesez: compétence linguistique; connaissance linguistique.
- Ingelesez: linguistic competence; language knowledge.

<sup>67</sup> Etengabeko aldakortasun hori eskailera mekanikoaren metaforarekin adierazten du Txepetxek:

Una lengua es como una escalera mecánica, en continuo movimiento. O se esta subiendo, o se esta bajando. Cuando se permanece en el mismo punto no es porque la escalera se detenga, sino porque la velocidad del aprendizaje (subida) se iguala con la velocidad del olvido (bajada) (Sánchez Carrión, 1991: 171).

Batetik, ahozko/idatzizko irizpidea aintzat hartuta: ahozko gaitasunari buruzkoak dira ulermena eta hitz egiteko trebetasunak; idatzizko gaitasunari (*literacidad*) dagozkio irakurtzeko eta idazteko trebetasunak.

Bestetik, hartzeari/ekoizteari buruzko irizpidean oinarrituta: hizkuntza hartzeari dagozkio hizkuntza ulertzeko eta irakurtzeko trebetasunak; eta hizkuntza ekoizteari dagozkio beste biak (hitz egitea eta idaztea).

Horretaz gain, lau trebetasun edo gaitasun horietako bakoitza azpigaitasun ugarik osatzen dute, nahiz eta horren inguruko irizpide eta proposamenak eztabaidagai diren. Adibidez, hitz egiteko gaitasuna honako azpigaitasun hauetan banatu dezakegu: ahoskera, hiztegiaren aberastasuna, zuzentasun gramatikala, testuinguru ugaritan esanahi jakinak adierazteko gaitasuna, estilo ugaritasuna... (Baker, 1997: 32).

Bestalde, arrunta da elebidunek gaitasun ezberdinak izatea gizarte-bizitzako erabilera-eremu (*domain*, jardungune) batzuetan eta besteetan (Grosjean, 2021: 14). Oro har, gaitasuna erabilera-maiztasunarekin lantzen delarik, arrunta da elebidunak hobeto moldatzea X hizkuntzan hizkuntza horretan komunikatu izan diren eremuetan eta hobeto moldatzea Y hizkuntzan nagusiki edo soilik bigarren hizkuntza horretan komunikatu izan diren jardunguneetan (Grosjean, 2015, 2021).

Errealitate aski konplexua da, ikus daitekeenez, hizkuntza-gaitasunarena. Orain arte esandakoei erantsi behar zaie, gainera, aipatu ditugun trebetasun eta azpitrebetasunetan hitzunek duten gaitasunak izaera jarraitua duela, tarteko egoera ugari egon daitezkeela eta berez ez dela ondo ezkontzen bai/ez edo zuri/beltz tankerako sailkapen dikotomikoekin (Lieberson, 1966: 270; Baetens, 1989: 21, 65).

Elebitasunaren inguruko sailkapenak aurkeztu aurretik, aipa dezagun guk hizkuntza-gaitasunaren kontzeptuarekin lan egingo dugula, baina ez dela gai horiek lantzeko erabili izan den bakarra. Horrela, komunikazioaren etnografiaren eremutik komunikazio-gaitasunaren kontzeptua proposatu izan dute Gumperz, Hymes eta beste hainbat autorek (Boix eta Vila, 1998: 116; Rotaetxe, 1990: 137). Eta hainbat adituk proposatzen dute hizkuntza-gaitasuna komunikazio-gaitasunarekin zuzenean lotzea (Martínez de Luna, 2016b: 8). Komunikazio-gaitasunak, zuzen hitz egiteko gaitasun gramatikalaz gain, beste hainbat trebetasun ere barnebiltzen ditu; hala nola, komunikazio-egoerari hobeto egokitzen zaion hizkuntza-aldaera aukeratzen eta erabiltzen jakitea edo inguruko arau sozial eta linguistikoak egoki betetzen jakitea. Canale eta Swainek (1980) gehiago landu zuten terminoa, eta komunikazio-gaitasuna honako lau azpigaitasun hauek osatzen zutela zehaztu: gaitasun gramatikala, gaitasun soziolinguistikoa (egoera bakoitzari dagokion aldaera aukeratzen jakitea), gaitasun diskurtsiboa (egoerak eskatzen duen diskurtsoa egoki osatzeko gaitasuna) eta gaitasun estrategikoa (itzulinguru, sinonimo eta abarren bidez egoerak hala eskatzen duenean komunikazioa ziurtatzeko gaitasuna izatea). Hizkuntzen jabe-kuntza-prozesuaren ikerketan bereziki emankorra den kontzeptua da komunikazio-gaitasunarena (Cenoz, 1996).

### **3.2.2. Elebitasunaren inguruko sailkapen ugariak; elebidun motak**

Elebitasuna gizabanakoen ezaugarri gisa landuz egin izan diren ikerketek eta sailkapen-lanek hiztegi zabala eskaintzen digute hitzunen profil ugariak hainbat

irizpideren arabera aztertzeko. Gure ikerketari oinarri teorikoa jarri nahian, arreta hiztunen gaitasunean bertan jartzen duten sailkapen eta kontzeptuak interesatzen zaizkigu gehien<sup>68</sup>: landuko ditugun kontzeptu gehienak I.4. irudian ageri dira. Aztertu dugun literaturaren arabera, hauek dira multzorik adierazgarrienak<sup>69</sup>:

- **Elebakar** esan ohi zaio hizkuntza bakar batean aritzeko eta ulertzeko gai den hiztunari.
- Oro har **elebidun** esan ohi zaio bi hizkuntzatan aritzeko gaitasuna duen hiztunari. Eztabaidagai izan da bi hizkuntza horietan aritzeko zein maila behar duen hiztunak *elebidun* izendatzeko, bi hizkuntzetan ondo eta maila bertsuan aritu behar ote duen, adibidez, edo bietako batean maila apalagoa izanda ere elebidun izendatu ote daitekeen (Rotaetxe, 1990: 54). Orokorrean, bigarren aukera hobesten dute gaur egun autore gehienek. Elebiduna nor den definitzerakoan, bestalde, gero eta gehiago dira elebiduntzat bi hizkuntzak egunero erabiltzen dituzten hiztunak hartzen dituztenak, gakoa ezagutzatik erabilerara ekarrita: “le bilinguisme est l’utilisation régulière de deux ou plusieurs langues ou dialectes dans la vie de tous les jours” (Grosjean, 2015: 16).
- **Elebidun ekoizle** (*bilingue productivo*) esaten zaie euren bigarren hizkuntzan ere hitz egiteko (edo idazteko) gai direnei (Baetens, 1989: 38). **Elebidun hartzaile** (*bilingue receptivo*) esan ohi zaio bi hizkuntzetako batean hitz egiteko gai izan gabe ere, hizkuntza hori ulertzen<sup>70</sup> duen hiztunari (Baetens, 1989: 35; Boix eta Vila, 1998: 222; Ruiz, Sanz eta Solé, 2001: 54; Moreno, 2009: 211; Coyos, 2010: 142; UZEI, 2010: 58).


---

<sup>68</sup> Guk baliatuko ez ditugun beste hainbat termino aurkezten dizkigu Baetensek (1989: 19, 41) elebitasun motak izendatzeko. Adibidez: elebitasun horizontala eta bertikala (H eta L bereizten dituen); lehen mailakoa edo naturala (hizkuntza etxean edo hurbileko komunitatean txikitik jaso dutenei dagokiena) eta bigarren mailakoa (nagusiki eskolan jaso dutenena); elebitasun hasiberria, gorakorra, errezesiboa, ezkutukoa, gehigarria, kengarria...; elebitasun goiztiarra eta berantiarra, eta abar.

<sup>69</sup> Esan beharrik ez dago aurkeztuko dugun termino multzo horrek adierazten duena baino askoz ugariagoak eta konplexuagoak direla egoera errealak. Horrela, adibidez, hiztun bat izan daiteke elebakar hizkuntza batean hitz egiteko gaitasunari dagokionez, baina bi hizkuntzetan elebidun irakurtzeko gaitasunari dagokionez. Beste adibide adierazgarri bat: *semilingue* esaten zaie bai hizkuntza batean zein bestean gabezia handiak dituzten hiztunei (Baetens, 1989: 26; Baker, 1997: 36).

<sup>70</sup> Edo irakurtzen duen.

#### 1.4. IRUDIA: GIZABANAKOEN ELEBITASUN-MAILEN SAILKAPENA



Iturria: *Sociolingüística de la llengua catalana* (Boix eta Vila, 1998: 222). Guk itzulitakoa.

Bi hizkuntzetan hitz egiteko gai diren **elebidunen artean** ere bereizketa egin beharra dago hizkuntza batean eta bestean hitzunek duten gaitasun mailaren arabera:

- Bi hizkuntzak hitzun natiboaren mailan hitz egiteko gai izan eta hizkuntza batean edo bestean **nagusitasun argirik ez duten** hitzun elebidunak ditugu alde batetik. Hainbat termino erabili izan da multzo hori izendatzeko: elebidun orekatuak, simetrikoak, anbilingueak, ekilingueak... (Baetens, 1989: 21, 24; Baker, 1997: 35). Bi hizkuntzetan berdintsu moldatzen direla diotenen multzoa nahiko handia izan daiteke, hango eta hemengo inkesta soziolinguistikoen emaitzei erreparatuta: euskal ISLko elkarrizketatu euskaldunen %29,5ek, Galeseko ISLko elkarrizketatu galesdunen %26k eta Galiziako hitzunen %29,5ek diote erraztasun berdinez moldatzen direla bi hizkuntzetan (Jones, 2015: 49; Eusko Jaurlaritz, 2019: 23; IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2019a). Adituek, ordea, auzitan jartzen dute hizkuntza baten edo bestearen nagusitasunik gabeko elebidunen talde horren *benetako* neurria (Cabrera, 2017). Baetensek (1989: 21) azaltzen du oso gutxi direla benetan bi hizkuntzak maila berean eta sakon menderatzen dituzten hitzunik: “els bilingües equilibrats són extremament poc freqüents si es mira més enllà de les valoracions superficials i impressionistes”. Ondorio horretara iristen da Grosjean ere (2018: 8). Txepetx ere bat dator ideia horrekin, eta adierazten du ez dela bideragarria komunitate osoa gaitasun maila horretara iristea, eta salatu egiten du hori lortzea helburu gisa jartzea ere (Sánchez Carrión, 1991: 161-162):

Del *ambilingüe (bizelebiduna)* poco que decir, porque solo se compara consigo mismo. Es el bilingüe completo o perfecto: aquel que conoce los resortes naturales y culturales de dos lenguas. Es lo que todos desearían conseguir, y lo que muy contados alcanzan a ser. Es el ideal lingüístico acariciado por muchos, y a veces incluso indecentemente sobado por personas con responsabilidades públicas que lo proponen alegremente como objetivo lingüístico de toda la comunidad cuando la realidad es que solo muy contadas personas están en condiciones de lograrlo, y, si lo logran, de mantenerlo indefinidamente, porque muy pocas pueden cumplir las

exigencias de tiempo, voluntad, capacidad y condiciones de uso que dicho objetivo exige.

- Elebidun gehien-gehienek, beraz, bi hizkuntzetan nolabaiteko jariora izan arren, **hizkuntza batean nagusitasuna** izan ohi dute. Hizkuntza hori askotan euren lehen hizkuntza izan ohi da, baina ez du zertan (Boix eta Vila, 1998: 223). Posible da, bestalde, erabilera-eremu edo jardunguneka nagusitasun ezberdina izatea hiztun berak; hots jardungune batzuetan X hizkuntzan hobeto moldatzea eta beste batzuetan Yn. Esan dezagun, azkenik, hizkuntza batean nagusitasuna duten elebidunen artean ere, nagusitasun mailak daudela: batzuk euren bigarren hizkuntzan erraz moldatuko dira, beste batzuek zailtasunak izango dituzte (*jario gutxiko elebidunak* izendatu izan dira azken horiek). Baetensen arabera (1989: 26), elebidun gehienak multzo horretakoak dira; ez dute jario handirik gutxienez bi hizkuntzetako batean.

### 3.2.3. Hizkuntza-gaitasunaren neurketa demolinguistikan

#### 3.2.3.1. Nola neurtu hizkuntza-gaitasuna? Proba objektiboak eta erantzun aitortuak

Hizkuntza-gaitasuna(k) berez izaera psikologiko-kognitiboa duen aztergaia izanik, ezinezkoa da hiztun baten gaitasuna (hitz egitekoa, ulertzekoa...) zuzen-zuzenean neurtzea. Nahitaez zuzenekoak ez diren bitartekoak erabilita ikertu beharko dugu, hortaz, hiztunen gaitasuna.

Ugariak dira hizkuntza-gaitasunean trebeziak neurtzeko proba objektiboak. Morenok, adibidez, trebetasun eta gaitasunak neurtzeko test asko aipatzen ditu (2009: 217). Hernándezek ere, Euskal Herrian erabili izan diren teknikak aurkezterakoan, elebitasuna neurtzeko testez gain, ipuin-kontaktaren teknika eta hiztunen ezagutza aztertzeko ikerketa konplexuak nabarmentzen ditu (Hernández, 2010b: 333-335). Garrantzi berezia du, halaber, Europako Erreferentzia Marko Estandarrak, hizkuntzen ezagutza estandar batzuen arabera neurtzeko eta alderatzeko aukera ematen du eta (Europako Kontseilua, 2005; Pikabea, Lukas eta Figueras, 2009).

Horrela, bada, bitarteko ugari landu izan da hizkuntza-gaitasuna kanpo-ebaluazioa erabiliz neurtzeko irizpide objektibagarrien bidez. Nolanahi ere, bitarteko horiek garestiak izan ohi dira eta ez dira erraz aplikatzekoak demolinguistikan landu ohi diren lagin zabaletan.

Horren ordez, gaitasun aitortua jasotzera jo ohi da zentsu eta inkesta soziolinguistikoetan. Elkarrizketatzen diren hiztunei beraiei eskatu ohi zaie euren gaitasuna kalifikatzeko: ulertzeko gaitasuna, hitz egiteko gaitasuna, eta abar. Gehienetan bere gaitasunaz galdetzen zaio elkarrizketatuari, beste batzuetan euren hurbileko hainbat pertsonarena ere balioesteko eskatzen zaie (euren aita-amena, bikotekidearena edo seme-alabena adibidez).

Askok idatzi da erantzun aitortuetan eskuratzen den informazioak zenbateraino distortsionatzen dituen benetan neurtu nahi diren errealitateak. Literatura espezializatuak onartzen du parte-hartzaileen erantzunetan neurtu nahi den errealitatearekiko alboratzeak gertatu ohi direla, eta hizkuntza-gaitasunarekin ere

halaxe gertatzen da. Nahiz eta horrek ez duen, inondik inora, jasotako informazioa baliogabetzen. Arazoa, jakina, ez da hizkuntza-gaitasunaren neurketara mugatzen, inkesta bidez jasotako informazio guztiei eragiten die hein handiagoan edo txikiagoan. Oraingoz gaia mahai gainean jarriko dugu. Metodologia-atalean (8.6. puntuan) berariaz helduko diogu datu demolinguistikoei lan egiterakoan nahitaez kontuan hartu beharreko alboratzeen gai garrantzitsu honi.

### 3.2.3.2. Tokian-tokian alde handiak hizkuntza-gaitasunera hurbiltzeko moduan

Lehenago aipatu dugu demolinguistikak era bateko bilakaera izan duela lurralde bakoitzean, eta homogeneotzetik oso urruti dagoen diziplina dela. Horrela, Inkesta Soziolinguistikoei begiraten badiegu, gaiak ezberdin galdetzen eta lantzen dira toki bakoitzean. Ezaugarri orokor hori bereziki azaltzen zaigu hizkuntza-gaitasunaren ikerketan. Aztertu ditugun inkestek alde handiak ageri dituzte gaia lantzerakoan eta galdera-erantzunak egiteko moldeak askotarikoak dira. Esan beharrik ez dago egiten diren hurbilpen molde hain desberdinek izugarri zailtzen dutela nazio eta eremu batzuetako eta besteetako datuak alderatzea.

Hainbat inkesta aztertu dugu (Darmody eta Daly, 2015; Jones, 2015; de Flaugergues, 2016; Direcció General de Política Lingüística, 2016; Melià eta Vanrell, 2018; Eusko Jaurlaritza, 2019; Generalitat de Catalunya, 2019; IGE -Instituto Galego de Estatística-, 2019a) eta hiru gaitan jarri dugu arreta: batetik, hizkuntza-gaitasuna zein hizkuntzekiko galdetzen den aztertuko dugu. Bestetik, bi hizkuntzetan duten gaitasuna alderatzeko eskatu ote zaien, hots, gaitasun erlatiboari buruz galdetu ote zaien. Azkenik, neurtzen diren trebeziak zein eskala motaren bidez jaso diren aztertuko dugu, zehazki eskala dikotomikoa edo beste batzuk ibili izan diren aztertuko dugu.

### 3.2.3.3. Zein hizkuntzaren ezagutzari buruz galdetu ohi da?

Lehenengo gaiari buruz, esango dugu gizarte elebidun batzuetan ohikoa dela bi hizkuntzetako gaitasunari buruz galdetzea. Horrela egiten da, adibidez, Quebec eta Kanadako zentsuetan eta Katalunia, Valentzia, Balear uharte eta Suitzako ISLetan (de Flaugergues, 2016; Direcció General de Política Lingüística, 2016; Statistique Canada, 2017; Melià eta Vanrell, 2018; Generalitat de Catalunya, 2019). Horrek aukera ematen du bi hizkuntzetan elebakarrak direnen eta elebidunen estatistikak sortzeko, Quebecen bezala (Bourhis eta Sioufi, 2017: 646). Beste toki batzuetan, aldiz, hizkuntza gutxituaren ezagutzari buruz soilik galdetu ohi da. Horrela egiten da gaur egun Galizian<sup>71</sup>, Galesen eta Irlandan, adibidez (Darmody eta Daly, 2015; Jones, 2015; IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2018). Euskal Herrian, bi hizkuntzen ezagutzari buruz galdetu zen 2001. urtea arteko Inkesta Soziolinguistikoetan; hortik aurrera euskarazko gaitasunari buruz soilik galdetu izan da (Aizpurua, 1995; Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Euskal Kultur Erakundea, 1997; Eusko Jaurlaritza, 2003; Eusko Jaurlaritza, 2008; Eusko Jaurlaritza, 2013; Eusko Jaurlaritza, 2019). Hegoaldeko zentsuetan ere, euskarazko gaitasunari buruz bakarrik galdetu izan da XX. mendeko

---

<sup>71</sup> *Mapa sociolingüístico de Galicia 2004* izenburupean egin zen inkesta soziolinguistikoan, gaztelaniaren ezagutzari buruz ere galdetu zuten (González et al., 2007).



laurogeiko hamarkadako zentsuetan hizkuntza-gaitasunari buruzko galderak txertatu zirenetik gaur egun arte.

#### 3.2.3.4. Gaitasun erlatiboa

Gaitasun erlatiboarekin, hiztun elebidunak X eta Y hizkuntzetatik hobeto zeinetan moldatzen diren aztertzen da. Aztertu ditugun eremu batzuetan, gaitasun erlatiboaz galdetzen da (Galesen eta Galizian<sup>72</sup> adibidez), beste batzuetan ez (Katalunian eta Irlandan adibidez). Euskal Herriari dagokionez, zentsuetan ez da gaiari buruz galdetzen, bai ordea Inkesta Soziolinguistikoa. Aldagai hori, gainera, erabilera-ohiturak azaltzeko orduan funtsezko aldagai gisa azaldu da gurean egindako azterketa ugaritan (Aizpurua, 1995: 121; Eusko Jaurlaritzak, 2013: 114; Aizpurua, 2018b; Eusko Jaurlaritzak, 2019: 62).

#### 3.2.3.5. Erantzun-aukerak: galdera dikotomikoak eta bi erantzun-aukera baino gehiago eskaintzen dutenak

Lehenago esan dugun bezala, elebitasuna aztertu izan duten autoreek argi diote hizkuntza-gaitasuna hobeto neurtu ahal izango dela mailaketa ugariko aldagai jarraitu batekin, bai/ez motako aldagai dikotomiko batekin baino (Lieberson, 1966: 270; Baetens, 1989: 21, 65;). Alabaina, inguruko tradizio soziolinguistikoak, beste gai askotan bezala, ikuspegi dikotomikoa lehenetsi du hizkuntza-gaitasunaren azterketa empiriko kuantitatiboan<sup>73</sup>. Katalunian, Balear uharteetan, Quebecen eta Galesen<sup>74</sup> egin izan diren zentsu eta inkesta soziolinguistikoetan hizkuntza-gaitasunari buruz galdetu izan denean (ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasunaz galdetu izan denean), “bai/ez” dikotomien arabera galdetu izan da, elkarrizketatuei tarteko erantzunetarako aukerarik eman gabe (lurrebaso, 2013: 9-22).

Ikuspegi dikotomikoak badu abantaila argi bat ikerketaren helburu nagusia hizkuntza baten hiztunak zenbat diren zehaztea denean. Helburu horri soil-soilik atxikiz gero, oso egokia da biko eredua: elkarrizketatuari berari zuzenean galdetzen zaio hizkuntza horretan hitz egiten badakien edo ez dakien, eta horrekin, hiztunen kopuru bakar, adierazgarri, alderagarri eta ulergarria eskuratzen da.

---

<sup>72</sup> Galesen, zehazki, erosoago (*most comfortable*) zein hizkuntzatan egiten duten galdetzen zaie (Jones, 2015: 48). Galizian, berriz, hitz egiteko zein hizkuntzatan moldatzen diren hobeto galdetzen zaie elkarrizketatuei: “Actualmente, ¿en que lengua se desenvuelve mejor para hablar?/¿En qué lengua se desenvuelve mejor para hablar?” (IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2018)

<sup>73</sup> Bat gatz Paula Kasaresekin; hark ere azpimarratu egiten du gure tradizio soziolinguistikoa azterbide dikotomikoak izan duen garrantzia, eta zalantzak adierazten ditu aurrera begira bide horrek izan dezakeen eraginkortasunaren inguruan (2011: 202):

Ikerketa soziologikoetan dikotomia pareetan eratutako azterketak continuumeko azalpenak baino usuagoak eta eraginkorragoak izan dira (Rocher 1990: 254-256). Gure tradizio soziolinguistikoa ere halako kategoria dikotomikoen bidez (euskara/erdara, euskaldunak/erdaldunak, gu/bertzeak, herri/hiri, hemengo/kanpoko...) azaldu dira euskararen eta erderen arteko harremanak (Sánchez Carrion, 1972, 1981; Erize, 1997). Baina gure gizarte konplexuan mintzairaren arteko harremanak aztertzeko baliagarriak al zaizkigu dikotomia pareetat agertutako kategoria horiek?

<sup>74</sup> Iragazki dikotomiko argia egiten duen gaitasunari buruzko lehen galdera baten atzetik, Galesen, hitz egiteko gai direla adierazi dutenen artean, gaitasun-mailaz galdetzen zaie (Jones, 2015).

Ikuspegi dikotomiko horren abantailak argiak izanda ere, agerikoa da ñabardura garrantzitsuak ezkututzen dizkigula. Izan ere, akatsa ere sistematikoki berekin dakar ikuspegi dikotomikoak, tarteko gaitasunak dituzten hiztunak sailkatzeko zailtasunagatik. Azken batean, tarteko ezagutzak dituzten herritarrak beren burua “ez dakitenen” edo “badakitenen” multzoan sailkatzera behartzen ditu galdera dikotomikoak, errealitate konplexuak gehiegi sinplifikatuz eta desitxuratuz. Tradizio dikotomiko horren barrutik ikertu dutenek dakite ondoen ikuspegi horren mugen berri. Honela mintzo zaigu, adibidez, Vila i Moreno katalan soziolinguista (2009b: 55-60):

Hi ha un sector no negligible de persones que d'alguna manera vacil·len a l'hora de declarar les capacitats lingüístiques pròpies, probablement perquè se situen en uns nivells intermedis d'adquisició que, per definició, no suporten bé els plantejaments dicotòmics. (...)

En l'enquesta esmentada, els «sé parlar català» dubtosos són un 23,9% de les persones que declararen saber parlar català i un 20,2% del total de la mostra. En termes generals, es tracta d'un col·lectiu amb competències baixes o intermèdies que es veu gairebé forçat pel procediment de preguntes dicotòmiques a autocatalogar-se com a coneixedor del català, però que en la pràctica no té ni l'hàbit ni la competència comunicativa real per servir-se del català amb comoditat raonable.

Elkarrizketatuei euren burua kokatzeko orduan eskaintzen zaien eskalak (izan dikotomikoa, trikotomikoa edo erantzun-aukera gehiagokoa), bistan denez, eragina du jasotako erantzunetan. Xavier Vilak berak, Kataluniako 2003. urteko Inkesta Soziolinguistikoaren argitalpenean adierazten duen bezala (*Estadística sobre els usos lingüístics a Catalunya 2003* delakoan), galdera dikotomikoek polarizazioa bultzatzen dute. Dena den, galdera dikotomikoekin eta eskala zabalagoekin jasotako erantzunek oinarrizko koherentzia argia erakusten dute<sup>75</sup> (Vila, 2005b: 24):

En definitiva, tot i que hi ha una associació considerable entre les dues mesures del coneixement, no es pot oblidar que funcionen de manera diferent i, de fet, descriuen la societat de manera distinta. (...) Les preguntes dicotòmiques afavoreixen la polarització, mentre que les escales d'interval permeten matisar molt més.

Testuinguru horretan, euskal demolinguistikak bestelako bidea jorratu du, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, hizkuntza-gaitasunaz galdetzerakoan hasiera-hasieratik gaudituz izan du ikuspegi dikotomikoa, erantzun-aukera ugariagoak eskainiz bai zentsuetan eta baita ISLn ere. Ondoren, galdera horien bidez jasotako informazioarekin hainbat adierazle sintetiko landu izan da, ulertzeko, hitz egiteko, idazteko eta irakurtzeko hiztunek dituzten jakintza-mailak uztartuz. Aurrerago arituko gara horretaz. Aipatu dezagun orain, Euskal Herrian ez ezik, bide ez-dikotomikoa hartu dutela hizkuntza-gaitasunaz galdetzerakoan beste hainbat lurraldetako ISLetan ere,

---

<sup>75</sup> Kataluniako inkestan, 2003ko EULPetik aurrera, galdera dikotomikoaz gain, autobalorazioa ere eskatzen zaie elkarrizketatuei trebetasun bakoitzerako 0-10 eskalan, bai katalanerako eta bai gaztelaniarako. Horretan oinarrirituta, bestalde, 2008 eta 2013ko inkestetan *tipologia de coneixements lingüístics* izeneko adierazle sintetikoa landu izan dute hiztunek hizkuntza bakoitzean zer-nolako gaitasuna duten a laburtzeko (2003 eta 2018ko inkestako argitalpenetan ez dute tipologia horren emaitzarik argitaratu). (Torres, Vila, Fabà eta Bretxa, 2005; IDESCAT-Institut d'Estadística de Catalunya., 2009a; IDESCAT-Institut d'Estadística de Catalunya, 2015; Generalitat de Catalunya, 2019)

hala nola Galizian, Valentzian eta Irlandan (Darmody eta Daly, 2015; Direcció General de Política Lingüística, 2016; IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2018).

### 3.3. ERABILERA(K)

Hizkuntza baten egoera soziala neurtzeko aldagai funtsezkoa dugu, ezbairik gabe, hizkuntza horren erabilera. Hasteko, hizkuntza bat bizirik bada, erabiltzen delako da (Coulmas, 2005); erabiltzen ez den hizkuntza ez da hizkuntza bizia. Ordezkapen- eta indarberritze-prozesuetan ere, ikusi dugunez, funtsezko ardatza da hizkuntza gutxituaren erabilera guk aztertu ditugun ikuspegi teorikoetan. De Vriesek, adibidez, Weinreichen ikuspegitik abiatuta, esango du ohiko hizkuntzaren aldaketa dela, funtsean, *language shift* delakoa (De Vries, 1992: 213).

Inor gutxik ukatuko du, beraz, erabileraren ardatzak garrantzi handia duela hizkuntzen ordezkapena/jarraipena aztertzeko orduan. Hori bai, ikuspegi teorikoaren arabera, erabilera-eremu guztietako erabilerari ez zaio garrantzi bera emango. Era berean, ez du garrantzi bera izango adinaren arabeko multzo guztien erabilerak. Nolanahi ere, osasun- edo gaixotasun-egoeraren neurgarri argia da hizkuntza baten erabilera<sup>76</sup>. Horregatik, hizkuntza edo aldaera bat baino gehiago erabiltzen den testuinguru geografiko eta sozialetan, soziolinguistikaren ikergai garrantzitsu izan dira erabileraren azterketa eta hiztun elebidunen hizkuntza-hautua.

#### 3.3.1. Hizkuntza-hautua eta erabilera-arauak

Hiztun elebidunek, elebakarrek ez bezala, komunikazio-egoera bakoitzean zein hizkuntza erabili *erabaki* behar izaten dute (Galindo, 2006: 13). *Hizkuntza-hautu*<sup>77</sup> edo *hautu linguistiko* (Erize, 2016) hori, inkontzienteki eta mekanikoki egin ohi da gehienetan (ez beti), hiztunak barneratuak dituen arauak (edo *habitusak*) aginduta hein handian (Boix eta Vila, 1998: 246). Hautu hori dela eta, hiztunek aldaera bat<sup>78</sup> (hizkuntza bat, dialekto bat...) erabiltzeko joera sistematikoa (ohitura) dute erabilera-eremu edo harreman jakin batean. Interakzio berri bat hasterakoan ere, *kodea negoziatu* egiten da<sup>79</sup>, eta hiztunek zein hizkuntza edo aldaera erabili behar duten *erabakitzen* dute fase labur batean.

---

<sup>76</sup> Hizkuntza-ordezkapena gertatzen ari bada, gainera, demolinguistikari lantzen diren gainerako aldagai nagusiek baino lehenago emango digu horren berri erabileraren bilakaerak lehen hizkuntzarenak edo hizkuntza-gaitasunarenak baino (Fasold, 1996: 183).

<sup>77</sup> Hona hemen *hizkuntza-hautaketa* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 49):

- Gaztelaniaz: elección de la lengua.
- Frantsesez: élection de la langue.
- Ingelesez: language choice.

<sup>78</sup> Elebidunek egin beharreko aukeraketa hori, X edo Y hizkuntza ez ezik, bien arteko etengabeko aldaketa ere (kode-aldaketa) izan daiteke (Myers-Scotton, 1993).

<sup>79</sup> Hona hemen *kodea negoziatze* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 49):

- Gaztelaniaz: negociación de código.

Egoera jakin batean hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko erabakia ez du hiztunak ausaz hartzen, eta ezta irizpide pertsonal soilez ere. Aitzitik, gehienetan esplizituki adierazten ez diren arren, arau eta espektatiba sozial argiak daude hiztun indibidualen erabakiak baldintzatzen. *Erabilera-arau*<sup>80</sup> horiek komunitate osoak partekatua izan daitezke edo ez. Hautu horiek, hortaz, sozialki baldintzatuak egongo dira, ikuspegi makroak ondo erakusten duen bezala; baina gizabanakoak ere bere erabakimena badu auzi horretan, ikuspegi mikroak azpimarratzen duen bezala. Hiztunaren intentzioek ere zerikusi argia izango dute hautu horretan, psikologia sozialetik erakusten zaigun bezala. Guztiarekin, fenomeno konplexuak dira hizkuntza-hautuarena eta loturik dagoen *kode-aldaketarena*<sup>81</sup>, eta ikuspegi teoriko-metodologiko askotatik landu izan dira soziolinguistikaren lan-eremu zabalean. Hainbat ekarpen adierazgarri aipatuko ditugu jarraian.

### 3.3.1.1. Ikuspegi makrosozial objektibistak: sozialki baldintzaturiko erabilera-hautuak

Ikuspegi makrosozialak erakusten digu hiztunak hizkuntza bat ala beste erabiltzen duenean, egiten duen hautua ez dela erabaki indibidual guztiz askea.

Soziolinguistika bariasionistak, bere ikuspegi objektibistatik, erakutsi digu hitz egiterakoan hiztunen aldakortasuna ez dela ausazkoa, eta hein handi batean hiztunen ezaugarri sozialen arabera azal daitekeela, hitz egiteko modua aldatu egiten baita mintzakideen adinaren, klase sozialaren, talde etnikoaren, generoaren eta beste hainbat ezaugarriaren arabera. Euren arreta ukipen-egoeretan jarri izan duten ikerketa bariasionistek diotenez<sup>82</sup>, hizkuntzen arteko kode-aldaketetan eta maileguen erabileran ere eragiten dute aipatu berri ditugun aldagaiek. Eta horietaz gain, guri bereziki interesatzen zaizkigun beste bi aldagairen eragina ere aipatzen dute: hizkuntza-hautuan eragin erabakigarria du hiztunak hizkuntza batean eta bestean duen gaitasunak eta baita norbera bizi den inguru hurbilean hizkuntza bakoitzak duen pisuak ere.

- 
- Frantsesez: négociation du code.
  - Ingelesezt: code negotiation.

<sup>80</sup> Hona hemen *erabilera-arau* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 33):

- Gaztelaniaz: normas de uso.
- Frantsesez: normes d'usage.
- Ingelesezt: usage norms.

<sup>81</sup> Hona hemen *kode-aldaketa* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 49):

- Gaztelaniaz: alternancia de códigos.
- Frantsesez: alternance codique.
- Ingelesezt: code switching.

<sup>82</sup> Galindok (2006: 25-26) azaltzen duenez, aldagai horien garrantzia aipatzen dute Nueva Yorkeko puertorricar komunitatean Shana Poplackek egindako ikerketak (1980. urtean argitaratutako "Sometimes I'll start a sentence in Spanish Y TERMINO EN ESPAÑOL" artikuluan aurkezten denak) eta Shana Poplack, David Sankoff eta Christopher Millerrek Kanadako Ottawa eta Hulleko auzo frankofonoetan egindakoek ("The social correlates and linguistic processes of lexical borrowing and assimilation" artikuluan 1988. urtean argitaratua).

Ikuspegi makro eta objektibistaren barruan, hizkuntzaren soziologiaren diziplinatik funtsezkotzat jotzen den ekarpena egin zuen Fishmanek (1965; 1982), hizkuntzen erabileraren aldakortasuna erabilera-eremuekin harremanetan jarrita. Gizarte elebidun askotan erabilera-eremuen (jardunguneen) araberrako arauak egon ohi dira, X hizkuntza eremu batzuetarako eta Y beste batzuetarako erabili behar direla arautzen dutenak, konpartimentazio soziofuntzionala tarteko. Gai horietaz aritu gara 2.2. puntuan, eta ez ditugu han esandakoak orain errepikatuko.

Horrela, bada, ikuspegi makro-objektibistak erakusten digunez, elebitasun-egoeretan hizkuntza-hautua ez da ausaz gertatzen. Bariasionisten ikuspegitik, aldagai makrosozialek eragiten dute hiztunen aldakortasuna. Fishmanen araberrera, egoera jakinek (eta erabilera-eremuek) eragin argia izango dute hiztunak hautatzen duen hizkuntzan.

### 3.3.1.2. Ikuspegi mikrosozial subjektibistak: gizabanakoen erabakimena hizkuntza-hautuetan

Ikuspegi mikro-subjektibistatik hizkuntza-hautua aztertzerakoan, gizabanakoen erabaki-gaitasuna eta ahalmena jartzen dute euren ikuspegiaren erdian; horrela, azalpena ematen diote ikuspegi makrosozialetik azaldu ezin diren hainbat portaerari. Hori erakusten dute, batez ere, *kode-aldaketar*<sup>83</sup> arreta jarri izan dioten hainbat ikerketak. Aipa ditzagun bi.

Elkarrekintzaren ikuspegitik Blom eta Gumperzek (1972) behaketa parte-hartzailearen bitartez Norvegiako Hamnesberget arrantzale-herrian egindako ikerketa etnografikoan oinarrituta, bi eratako kode-aldaketak berezi zituzten: egoerak eragindakoa (gaiaren, testuinguruaren edo mintzakidearen ondorioz) eta metaforikoa<sup>84</sup>. Bigarren kode-aldaketa hori elkarrizketaren beraren barruan gertatzen da, eta ezin da testuinguruaren eraginez azaldu. Kode-aldaketa metaforikoak hiztunak hainbat efektu komunikatibo lortzeko erabiltzen ditu, autore horien esanetan.

Auer-ek kode-aldaketa gertatzen den uneari, sekuentziari, jartzen dio arreta, eta X hizkuntzatik Y hizkuntzara aldatzen den edo Y-tik X-ra aldatzen den aztertzen du, eta aldaketa zehazki zein mintzakidek egin duen. Horretaz gain, bereizi egiten ditu diskurtsoarekin lotutako kode-aldaketak eta hiztunarekin loturikoak. Eta bigarren horien artean, bereizi egiten ditu hiztunaren gaitasunak eragindakoa kode-aldaketak eta lehentasunek eginarazten dituztenak (Auer, 1984).

Azken batean, ikuspegi mikrotik aktoreen intentzioa eta bere nahien araberrako erabaki-ahalmena azpimarratzen dute hizkuntza-hautua aztertzerakoan.

---

<sup>83</sup> Horrela definitzen dute kode-aldaketa Soziolinguistika Hiztegia: "Esakune edo berbaldi berean hizkuntza bat baino gehiago txandakatuz hitz egitea; adibidez, esaldi bat euskaraz hasi eta erdaraz amaitzea" (UZEI, 2010: 49).

<sup>84</sup> Ondoren, Gumperz-ek berak "elkarrizketa barruko" deituko dio kode-aldaketa mota horri (*conversational*). Aipatzen digu, gainera, hizkuntza batean ari den hiztunak bere jardunean *beste* hizkuntza txertatzen duenean, ez duela beti oinarritzko hizkuntzan gaitasun-gabezia bat izan beharrik.

### 3.3.1.3. Makro/mikro sintesi-ahaleginak

Ikuspegi makroen eta mikroen ekarpenak uztartu nahirik, sintesi-ikuspegiak ere landu izan dira kode-aldaketaren eta hizkuntza-hautuaren ikerketan. Ikuspegi horietan, oro har, marko sozial baldintzatzaile bat onartzen da hiztunen portaeretan, baina aktoreen erabaki-ahalmenari ere egiten zaio tokia (Boix eta Vila, 1998; Galindo, 2006; De Rosselló, 2010; Sorolla, 2016b).

Sintesi-ahalegin horien artean aipatu beharra dago ikuspegi soziologikotik abiatuta Pierre Bordieuren ahalegina (1985). Haren esanetan, badago lehen mailako objektibitate bat, gizarte-egituran gertatzen den baliabide eta balioen banaketarekin zerikusi zuzena duena. Lehian dauden kapitalak ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta sinbolikoak dira. Kapital kulturalen artean hizkuntzak ditugu, eta hizkuntza bakoitzak bere balioa izango du, hortaz, testuinguru bakoitzean. Objektibitate horretan luze bizi izanak egonkortu egiten du berak *habitus* izendatzen duen sinesmen, jarrera eta portaera multzoa. Hortik abiatuta interpretatzen dute aktoreek eguneroko euren jarduna eta hortik aztertu daitezke, halaber, hiztunen hizkuntza-hautuak. Oro har, Bordieuren esanetan, talde menderatzaileak euren balioak gainerakoei inposatzen saiatuko dira; talde menderatuak, berriz, baliabideak bereganatzen.

Makro eta mikro ikuspegiak uztartzeko ahalegin horretan bertan, Myer-Scottonek (1993) kode markatuaren eta ez markatuaren arteko bereizketa egiten digu: kode ez markatua da arau sozialen arabera hobesten dena eta, beraz, espero daitekeena. Dena den, hiztunen esku dago hala nahi badute kode markatua erabiltzea. Erabilera horri esanahi sozialak erantsiko zaizkio.

Sintesi-ahaleginen barruan, azkenik, sare sozialetan oinarritutako hizkuntza-portaeren azterketa-ildo emankorra aipatuko dugu. Horri buruz, ordea, aurrerago arituko gara, testuinguru demolingüistikoaren puntuan.

Hiztunen hautuak aztertzeko orduan ekarpen baliotsuak egin dira hizkuntzen psikologia sozialaren eremutik ere. Joan den mendeko 70eko hamarkadan, *bizi-ingar etnolingüistikoaren* kontzeptua landu zen, egoera elebidunetan hiztun-komunitateen indarrean eragiten zuten aldagaiak zehazteko<sup>85</sup> (Giles, Bourhis eta Taylor, 1977). Autore horiek bizi-ingar objektiboa aztertuko dute batetik (nagusiki estatusak, alderdi demografikoek eta babes instituzionalak osatuko dutena), eta bizi-ingar subjektiboa bestetik (nola irudikatzen duten hiztunek euren taldearen indarra). Bigarren alderdi horrek eragingo du, autore horien aburuz, hiztunak hizkuntzari eustea edo uztea (Giles, Rosenthal eta Young, 1985).

Giles eta haren ikerketa-kideek (Giles, Taylor eta Bourhis, 1973), bestalde, "hizkeraren moldaketaren teoria" landu zuten (*speech accommodation theory*). Teoria horren arabera, hiztunak testuinguru sozialaz duen hautemateak eragina izango du haren hitz egiteko moduan. Teoria horren esanetan, bi printzipio nagusik gidatuko dituzte hiztunak: moldaketarako joerak eta bereizketarako joerak. Egoera arruntetan, hiztunek egoerara egokitu nahi dutenean, elkarrekin komunikatzea bilatzen dutenean eta

---


<sup>85</sup> Kontzeptu horretan oinarrituta, bertako bizi-ingar etnolingüistikoa neurtu zen eta erabilerarekin harremanetan jarri Gipuzkoako bost udalerritan (Usarralde eta Martínez de Luna, 2004).

taldeko kidesuna azpimarratu nahi dutenean, euren hitz egiteko modua mintzakidearen ezaugarri sozialen arabera egokituko dute, euren hizkera bestearenera “hurbilduz”, moldaketaren bidez *akomodazioa* bilatuz. Beste egoera batzuetan, berriz, hiztunek mintzakidearekiko ezberdintasuna eta distantzia markatu nahi dutenean, bereizketara joko dute, eta hitz egiteko modua urrundu egingo dute mintzakideak izan dezakeenetik. Lehenengoa kidesuna adierazteko izan ohi da; bigarrena, berriz, ezberdintzeko. Zeren arabera aldatzen da hiztunen jokabidea? Aipatu ditugun autoreek egindako ikerketak aipatuz Morenok azaltzen duenez (2009: 241), honako hiru aldagai hauen konbinazioaren arabera aldatu ohi dituzte portaerak: talde menderatzaileko edo talde gutxituko hiztun izatea; aldaketa-aukerarik antzematen den edo ez, eta aldaketa hori positiboki edo negatiboki baloratzen ote den.

### 3.3.2. Hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: zorua eta motorra

Kapitulu honetan ikusi dugun bezala, errealitate ezberdinak dira hizkuntza-gaitasuna eta erabilera: izaera psikologiko kognitiboa duen aldagai bat da hizkuntza-gaitasuna (Vila, 2005b; Grosjean, 2021); testuinguruaren arabera moldagarria den portaera sozial normalean arautu bat da erabilera (Boix eta Vila, 1998: 246). Hala ere, aldebiko harreman argia dago funtsezko bi aldagai horien artean. Aldebiko harreman hori gure hitzekin asko laburtuz, eta I.5. irudian ikus daitekeen bezala, esan dezakegu erabilera dela hizkuntza-gaitasunaren motorra eta, era berean, hizkuntza-gaitasuna dela erabilerarako zorua.

#### I.5. IRUDIA: HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ETA ERABILERAREN ARTEKO ALDEBIKO HARREMANA



Iturria: egileak landua.

Zergatik diogu erabilera dela hizkuntza-gaitasunaren motorra? Hasteko, hizkuntza bat ezin delako ikasi beratu entzun eta erabili gabe; hori horrela gertatzen da bai ume garaitan eta baita helduaroan ere (Sánchez Carrión, 1991; Zalbide, 2004: 28). Horretaz gain, zenbat eta gehiago erabili hizkuntza bat, orduan eta hobeto, erosoago eta aberatsago hitz egiteko gai izango dira hiztunak (Grosjean, 2015; Grosjean, 2021). Eta zenbat eta gutxiago erabili, orduan eta kamutsagoa/herdoilduagoa egongo da hiztunaren ezpainetan hizkuntza hori, eta gaitasuna ahulagoa. Horregatik diogu

hizkuntza-gaitasunaren motorra dela erabilera, erabilerak bermatzen duelako hizkuntza bateko gaitasuna lantzea eta sendotzea.

Hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko harremana, ordea, ez da horretara mugatzen, eta aldebikoa da. Eta harreman hori beste noranzkoan aztertuta, esan dezakegu hizkuntza-gaitasuna erabilerarako zorua dela, honako bi zentzu hauetan gutxienez:

Lehenik eta behin, gaitasuna ezinbesteko baldintza da erabilerarako. Norbanakook ez dezakegu erabiltzeko gai ez garen hizkuntza erabili. Horretaz gain, komunikazioa ez da gertatuko igorleak darabilen hizkuntza hartzaileak ere ezagutzen ez badu (Álvarez Enparantza, 1984). Mintzakideen gutxienerako gaitasun bat ezinbestekoa da edozein hizkuntza erabiltzeko (komunikazioa gertatuko bada, bederen). Hizkuntzak pertsonen arteko hitzezko komunikazioa ahalbidetzen duten tresnak dira, baldin eta egoera komunikatibo jakin bateko igorleak eta hartzaileak hizkuntza bera ezagutzen badute. Bi hiztunetako bat Y hizkuntzan elebakarra bada eta beste hiztuna Y eta X hizkuntzetan elebiduna, praktikan, Y hizkuntza inposatuko<sup>86</sup> da bi hiztunen harremanean (Hartsuaga, 2009: 20):

Testuinguru elebidun batean, inposaketa ez egoteko modu bakarra dago: guztiak bi hizkuntzak ulertzea gutxienez. Gustukoenean jardun baina biak ulertu. Eskenatoki horretatik at beti gertatzen da inposaketa norako batean ala bestean. Hizkuntza inposaketa egunero eta etengabe dago gure artean arnasten dugun airea bezalaxe, era guztiz naturalean.

Eta horrekin lotuta, elebitasun-egoera bizi duen edozein herri edo hiztun multzotan, hiztunen artean hizkuntza bat eta bestea ezagutzen duten hiztunen kopuruak (X hizkuntzako elebakarren, Y hizkuntzako elebakarren eta bi hizkuntzetako elebidunen kopuruek, egoera asko sinplifikatuz) eta hiztun horien harreman-sare errealek (nork norekin duen harremana eta ahozko elkarrekintza) baldintzatu egingo dute hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko dagoen nahitaezkotasuna eta aukera.

Bigarren zentzu batean ere bada hizkuntza-gaitasuna erabileraren zoru: behin hizkuntza bat erabiltzeko behar den gutxienerako gaitasuna gaindituta, korrelazio argia dago gaitasunaren eta erabileraren artean (Aizpurua, 2018a). Oro har, zenbat eta errazago hitz egiteko gai izan euskaraz, orduan eta gehiago erabiliko dute hiztunek, eta alderantziz.

Lotura estu-estua dugu, beraz, erabileraren eta gaitasunaren artean. Zenbat eta guk eta ingurukoek hizkuntza batean gaitasun handiagoa izan, orduan eta gehiago erabiliko dugu; zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gaitasun handiagoa izango dugu. Ez dira, jakina, eragiten ari diren aldagai bakarrak: jabeakuntza-prozesuen eta erabileran eragiten duten faktoreen osotasunezko irudia osatzeko, alderdi subjektiboak (motibazio eta jarrerak) hartu beharko genituzke kontuan. Dena den, ezagutzaren eta erabileraren arteko harremanera mugatuta, argia da aldebiko harreman estua dutela,

---

<sup>86</sup> Argi dezagun, *inposaketa* hitza aldaera guztiz deskriptiboan erabiliko dugula txostenean (gizartean gertatzen den fenomenoaren deskribapen huts gisa), terminoak izan ditzakeen bestelako larritasun- edo bortxa-konnotazioetatik urruti.



eta horregatik genioen hizkuntza-gaitasuna erabilerarako zorua dela batetik, eta erabilera hizkuntza-gaitasunerako motorra bestetik. Patxi Saezek (2016) proposatu zuen gurdiaren paradigman oso era grafikoan adierazi zuen lotura hori: gurdi beraren bi gurpilak dira erabilera eta gaitasuna, eta egoera normaletan biak batera doaz jiraka ardatz berari lotuta.

### 3.3.3. Erabileraren azterketa demolinguistikatik

#### 3.3.3.1. Erabilerari buruzko informazio demolinguistikoa biltzeko teknikak

Demolinguistikan, zentsuak eta lagin adierazgarriei egindako inkestak dira askogatik teknika erabilienak erabilerari buruzko datuak eskuratzeko orduan. Gogoratu dezagun, ordea, erregistroetan oinarritzen diren estatistikak eta behaketa bidezkoak ere erabili ohi direla erabilera-datuak lortzeko. Eta esan dezagun bi teknika horiek inkestak baino baliozkotasun handiagokoak izan ohi direla. Hots, neurtu nahi dugun errealitatearen (erabileraren) isla leialagoa emango digutela bi teknika horiek inkestek baino<sup>87</sup>, aztergaia eta aztertutakoa gauza berbera diren heinean. Inkestak badu, ordea, abantaila oso handi bat beste bi tekniken aldean: erabilera-eremu eta azpiero askori buruzko informazioa eskuratu daitekeela inkesta bakarrarekin, eta horrekin erabileraren ikuspegi orokor baterako aukera eskain dezakeela. Puntu honetan, hain zuzen, inkesta bidezko ikerketari buruz arituko gara nagusiki.

#### 3.3.3.2. Erabileraren neurketa orokorra eta rol-harremanetan eta espazio jakin batzuetan egiten den erabileraren neurketa xehea

Demolinguistikaren ikergai nagusietako bat hizkuntzen erabilera da. Hizkuntza-komunitate edo lurralde bateko hiztunen erabilera-ohituretara hurbildu nahi dugunean, ordea, zer da ikuspegi teoriko batetik egokiagoa, *erabileraz* horrela hitz egitea, xehetasunik eta zehaztasunik gabe, edo *erabileraz* hitz egitea, pluralean eta modu xeheago batean?

Grosjeanek (2015; 2021) dio hiztun elebiduna osotasun gisa hartu behar dela eta horretarako “osagarritasunaren printzipioa” hartu behar dugula aintzat. Printzipio horren arabera, mintzatzen dituen bi hizkuntzetako bakoitza mintzakide jakinekin eta egoera jakinetan erabili ohi ditu hiztunak: “Bien entendu, il existe des domaines et activités où il est possible de se servir de plusieurs langues, mais un certain nombre de domaines et d’activités sont réservés strictement à une langue” (Grosjean, 2018: 9). Oro har, hizkuntza horiek egoera horietan eta mintzakide horiekin aritzeko behar izan ditugulako ikasi ditugu. Horretaz gain, bi elebidun elkartzen direnean, bi hizkuntzak erabiltzeko aukera egon daiteke, baldin eta bi hiztunek “elebidun modua” (*mode langagier bilingue*) badute<sup>88</sup>. Hiztun horiek lehenbizi elkarrizketarako oinarritzko hizkuntza zein izango den erabakiko dute. Eta ondoren, *nahi* badute, “elebidun moduan” batetik bestera ibili ahal izango dira (Grosjean, 2018: 11). Horrela, bada, ikuspegi teoriko batetik ez dirudi oso egokia hiztunei “erabilera orokorraz” galdetzea,

<sup>87</sup> Lan honetan baliotasunaz edo baliozkotasunaz bere zentzu estatistikoan arituko gara. Ikertu nahi dugun aldagaia egiazki zenbateraino neurtu dugun aztertuko du baliozkotasunak (Etxeberria, 2011: 25); teorikoki neurtu nahi dugunaren eta benetan neurtzen dugunaren arteko lotura aztertuko du (Juaristi, 2003: 61).

<sup>88</sup> Izan ere, badaude elebidunak egoera/mintzakide jakin batekin hizkuntza bakarrean arituko direnak beti.

elebidunen artean arruntena testuinguru eta egoeraren arabera hizkuntza batera edo bestera jotzea izango baita (edo biak nahastera).

Ikuspegi metodologiko batetik ere, ez dirudi komenigarriena zuzenean “erabilera orokorra” neurtzera jotzea denik, ez behintzat horrela jasotako informazioa erabilerari buruzko adierazle bakar eta baliozko gisa hartu nahi bada. Alabaina, hainbat tradizio demolinguistikotako inkestetan, erabilera xeheari buruzko galderez gain, erabilera orokorrari buruzko galderaren bat ere txertatu ohi da. Katalunian<sup>89</sup>, Balear uharteetan eta Galizian, adibidez, ohiko hizkuntzari buruz galdetzen zaie inkestatuei bertako ISLetan (IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2018; Melià eta Vanrell, 2018; Generalitat de Catalunya, 2019;). Galesen eta Irlandan ere hizkuntza gutxitua orokorrean zenbatetik behin erabili ohi duten galdetzen zaie elkarrizketatuei: egunero, astero, gutxiagotan edo inoiz ez (Darmody eta Daly, 2015; Jones, 2015). Erabilera orokorrari buruz zuzenean galdetzeak badu abantaila argi bat: elkarrizketatuek beraiek zuzenean emandako erabilera-datu orokor bat izatea. Pentsa daiteke erabilera-datu aitortu orokor horrek korrelazio handia izango duela *benetako* erabilerarekin. Baina, era berean, jakina da alboratze handiagoa izango dutela horrela jasotako datuek<sup>90</sup>, egoera xeheagoetan egindako erabileraz galdetzen diegunean baino.

Orokorrean, izan ere, zenbat eta xeheago galdetu, orduan eta aukera gutxiago izan ohi da alboratzeak agertzeko. Printzipio metodologiko hori orokortzat jo dezakegu inkestaren teknikaren barruan (Selltiz et al., 1980: 420; González, 1989: 230), eta baita demolinguistikari ere (Lieberson, 1966: 270). Modu orokorrean edo zehatzean galdetzeak dakarren ezberdintasuna oso modu argian azaltzen du Natxo Sorollak erabileraren neurketaren eta zoriontasunaren neurketaren arteko paralelismo honen bidez (2017a):

Les discussions es fan al voltant de com mesurar la felicitat, i com n'és de diferent si ens pregunten el nostre estat de felicitat, en general, en oposició a si la felicitat es mesura moment a moment. D'alguna manera, quan ens pregunten sobre els records de felicitat som més generosos amb la nostra vida que no pas quan hem d'apuntar cada moment de felicitat, perquè tot i que pensem que som força feliços (en general), bona part del nostre dia passa per situacions d'estrès, tristesa, o avoriment. D'alguna manera, la idea que nosaltres apuntem en sociolingüística és que, més enllà del record que tenim sobre l'ús que fem de les llengües, és molt més útil mesurar i sintetitzar quina llengua parlem en àmbits o interlocutors concrets, com la llengua usada amb els amics, amb la parella, amb els fills, amb els veïns, als grans establiments comercials... La primera forma de mesurar la

---

<sup>89</sup> Horretaz gain, Katalunian, egun arrunt batean euren ahozko jardun osoa aintzat hartuta, katalana, gaztelania eta beste hizkuntzetako bakoitza zenbat erabiltzen duten zehazteko eskatzen zaie elkarrizketatuei ehuneko bidez. Ondoren, galdera horiei emandako erantzunak adierazle sintetikoetarako erabiliiko dira (IDESCAT-Institut d'Estatística de Catalunya, 2015: 257).

<sup>90</sup> Honako iruzkin hau aurkitzen dugu ohiko hizkuntzaren alboratze posibleari buruz EULPren analisi-txostenean (Vila eta Sorolla, 2018: 125):

La pregunta sobre la llengua habitual és una forma molt genèrica d'aproximarse als usos lingüístics, que de fet sol estar molt contaminada per consideracions de tipus actitudinal. Per superar aquest biaix, a banda de les preguntes sobre la llengua habitual, les enquestes EULP també inclouen dos tipus de preguntes més a propòsit dels usos:

Preguntes sobre els percentatges d'ús de cada llengua.

Preguntes sobre usos en situacions o amb tipus d'interlocutors concrets.

felicitat segur que està més relacionada amb el que voldríem fer, més que no pas la segona, que ha de ser més realista amb el que realment fem.

Erabilera modu orokorrean jaso orde, beraz, egokiagoa izango da “erabilerak” aztertzea, erantzunak hurbilago egongo direlako aztertu nahi ditugun portaera errealetatik. Nola xehatu errealitate orokor hori neurgarri egiteko? Irtenbidea izan al daiteke datuak erabilera-eremuka (jardunguneka) biltzea? Horrek oinarri teoriko sendoa eskainiko ligukeen arren, erabilera-eremua oraindik ere zabalegia da, eta oraindik alboratze-maila handia espero daiteke erabilera-ohiturei buruz maila horretan galdetuz gero. Horregatik, gabezia hori maila mikrotik hurbilago dauden alderdiak neurtuz osatu izan da demolinguistikan. Zehazki, ISLetan hiztunek rol-harreman jakin batzuekiko (seme-alabekiko, lagunekiko, lankideekiko...) eta espazio jakin batzuetan (etxean, lantokian, bankuetan, udaletxean, dendetan...) dituzten erabilera-ohiturak aztertu izan dira. Erabilera-eremuak baino dezente zehatzagoak dira alderdi horiek, eta modu egokiagoan, alboratze txikiagoz, neurtu daitezke horietan izaten den erabilera inkesta bidez (eta baita, hainbatetan, behaketaren bidez ere).

Behin rol-harremanetan eta espazioetan egiten den erabilera neurtuta, horietako hainbat aintzat hartu eta erabilera-eremuetan gertatzen denera hurbilpen enpiriko kuantitatiboak egin ahal izango ditu ikertzaileak. Erabilera rol-harreman eta espazioei atxikita ikertzea, bakoitzak alderdi jakin batzuei buruz galdetuta eta bakoitzak bere moduan, hori bai, demolinguistikan aski orokorturiko ohitura dugu. Horrela egin izan da aztertu ditugun hainbat inkesta soziolinguistikotan, hala nola Euskal Herrian, Katalunian, Balear uharteetan, Valentzian, Galizian, Galesen eta Irlandan (Darmody eta Daly, 2015; Jones, 2015; Direcció General de Política Lingüística, 2016; IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2018; Melià eta Vanrell, 2018; Eusko Jaurlaritza, 2019; Generalitat de Catalunya, 2019).

Erabilerari buruzko informazioa horrelako modu xehean biltzeak bi abantaila handi eta eragozpen bat ditu. Lehen abantaila hau da: horrela biltzen den informazioa oso aberatsa dela. Informazioa rol-harremanka eta espazioka eskuratzen dugunean, informazio multzo hori adierazgarria izan ohi da. X hizkuntza non erabiltzen den gehiago eta non gutxiago aztertzeak pista baliagarriak eskainiko dizkigu egoeraren diagnostikoa egiteko (baita politiken ebaluazioa egin nahi dugunean edo aurrera begirako lehentasunak finkatzerakoan ere). Adibidez, familia barruko harremanak aztertzerakoan, garrantzi berezia izango dute rol-harremanek, ez baitugu zertan hizkuntza bera erabili batzuekin eta besteekin (bikotekidearekin, gurasoekin, seme-alabekin, anai-arrebekin, eta abar) eta horretan antzeman ahal izango ditugun ezberdintasunak esanguratsuak eta aipagarriak izango dira egoeraren argazkia osatzeko.

Bigarren abantaila informazioaren kalitateari loturik dago. Izan ere, baliozkotasun handiagoa izango dute xehe galdetuta eskuratzen diren datuek maila orokorragoan galdetuta eskuratu direnek baino. Hots, benetako erabileraren isla hobea eta alboratze txikiagoa izango dugu xehe-xehe rol eta egoera ugariri buruz galdetzen dugunean multzo handiagotik galdetzen dugunean baino.

Erabileraz xehe galdetzearen eragozpen argi bat, berriz, honako hau da: erabilera orokorrari buruzko daturik ez dugula zuzenean jasotzen. Hutsune hori betetzeko,

adierazle sintetikoak sortu daitezke, galdetu izan diren rol-harreman eta espazioetako erabilera-datuetatik abiatuta. Aurrerago arituko gara horretaz.

### 3.3.3.3. Erabilera neurtzeko teknikak eta eskalak

Nola neurtu daiteke eta nola neurtu ohi da rol-harreman batean edo espazio batean hiztunek egiten duten erabilera? Galdera horri erantzuten hasteko, neurtu nahi dugun fenomenoaren izaeratik abiatu behar dugu: hizkuntzen erabilera hiztunen portaera bat da. Portaera hori behagarria, objektibagarria eta zuzenean neurgarria da. Portaera hori, gainera, aldagai dikotomiko baten bidez egoki neurtu edo/eta laburtu daitekeen errealitatea da testuinguru elebidun gehienetan. Adibidez, hiztun elebidun batek espazio jakin batean, lantokian adibidez, aldi jakin batean egiten duen ahozko jarduna behatzen badugu (egun bateko jarduna, adibidez), erraz samar ekarri ahalko dugu haren portaera zenbakitara. Eta normalean egoki laburtu ahalko dugu hiztun horren portaera aldagai dikotomiko baten bidez: hiztun horrek  $X$  hizkuntzan hitz egiten eman du  $Dx$  denbora eta  $Y$  hizkuntzan hitz egiten eman du  $Dy$  denbora. Bi denbora horiek batuta, hiztunak hitz egiten eman duen denbora guztia aterako zaigu ( $D = Dx + Dy$ ). Eta kopuru horietatik abiatuta, eragiketa arrunten bidez, erraz kalkulatu ahalko dugu zein den hiztun horren egun horretako erabilera-tasa, %etan adierazita,  $X$  hizkuntzan (eta berdin  $Y$  hizkuntzan).

Era berean, antzeko neurketak egin ahalko genituzke, pertsona baten jokabidea beharrean, kolektibo batena jaso nahiko bagenu ere (lantokiko hiztun guztiena, adibidez). Emaitza, kasu horretan ere, erabilera-tasa batean laburbilduko litzateke. Horixe egiten du, besteak beste, HEKN-k, Euskal Herriko hiztunek espazio irekietan duten hizkuntza-portaera behaketa bidez neurtuta. Eta horixe bera egin daiteke hiztunen erabilera-hautua erregistro bidez jaso gelditu izan den kasuetan ere. Adibidez, zenbat bisita izan ditu webgune baten euskarazko bertsioak eta zenbat erdarazkoak; edo zenbatek eskatzen duten zerbitzu batean telefono-arreta euskaraz eta zenbatek erdaraz. Hiztunen portaeraren behaketa edo erregistro bidezko ustiatzea dira, beraz, erabilera-datuak jasotzeko teknikarik baliozkoenak; teknika horien emaitza erabilera-tasak izango dira.

Teknika horiek, ordea, hainbat muga eta zailtasun dute: eremu eta testuinguru jakinetan soilik erabili daitezke eta eskuratzen den informazioa oso mugatua izango da gehienetan (eta eskainiko dituen ustiatze-aukerak ere oso mugatuak). Horiek horrela, inkesta da hiztunen erabilera-ohituren berri izateko han eta hemen gehien erabiltzen den teknika. Inkesta soziolinguistikoetan, zehazki, hainbat rol-harremanetan eta hainbat espazioetan dituzten erabilera-ohiturei buruz galdetzen zaie parte-hartzaileei, galdera itxien multzo baten bidez. Normalean, galdera horien erantzunak hainbat erabilera-kategoriaz osatutako aldagai ordinal batzuen bidez jasoko dira.

Kasu horretan ikertzaileak erabaki beharko du zenbat kategoria-aukera eskaini parte-hartzaileei erantzuteko. Hor aukera teorikoak asko dira, formulazio dikotomikotik hasi eta inkestatuari berari bere portaera ehuneko baten bidez eskatzeraino. Bi mutur horiek ez dira oso komenigarriak izango metodologiaren ikuspegitik. Hori baino egokiagoak eta erabiliagoak dira lehian dauden bi hizkuntzen erabilera bost

kategoriatako eskala ordinal baten bidez jasotako erantzunak, Euskal Herrian<sup>91</sup>, Katalunian<sup>92</sup>, Balear uharteetan, Eskozian<sup>93</sup> eta Galesen<sup>94</sup> egiten den bezala (Jones, 2015; Melià eta Vanrell, 2018; Eusko Jaurlaritz, 2019; Generalitat de Catalunya, 2019; Ó Giollagáin et al., 2020). Valentzian, berriz, zazpi kategoriatako eskala ordinalaren bidez jasotzen dira elkarrizketatuen erantzunak<sup>95</sup> (Direcció General de

---

<sup>91</sup> Honako bost kategoria hauek erabili izan dira 2016ko ISLn adibidez, hainbat rol-harremanetan hiztunek egiten duten erabilera jasotzeko:

- *Beti euskaraz*
- *Euskaraz erdaraz baino gehiago*
- *Euskaraz erdaraz beste*
- *Euskaraz erdaraz baino gutxiago*
- *Beti erdaraz*

<sup>92</sup> Katalunian eta Balear uharteetan, berez, katalana/gaztelania hizkuntzetarako oinarrizko bost kategoriez gain, beste lau kategoria ere eskaintzen zaizkie elkarrizketatuari, gainerako hizkuntzak ere aintzat hartuta. Argitalpenetan, ordea, gainerako kategoria horiek "beste egoerak" (*altres situacions*) multzoan bilduta aurkezten zaizkigu. Oinarrizko bost kategoriei beste laurak gehituta, galdera-sortetan honako bederatzi aukera hauek eskaintzen zaizkie berez elkarrizketatuei (IDESCAT-Institut d'Estadística de Catalunya, 2015: 244):

- *Només en català*
- *Més en català que en castellà*
- *Igual en català i en castellà*
- *Més en castellà que en català*
- *Només en castellà*
- *Només en altra/es llengües*
- *En català i altra/es llengües*
- *En castellà i altra/es llengües*
- *En català, castellà i altra/es llengües*

<sup>93</sup> Eskozian, Euskal Herrian erabili ohi den saikapen bertsua erabili izan dute hiztunen erabilera aztertzeko (Ó Giollagáin et al., 2020: 165):

- *Always Gaelic*
- *Mainly Gaelic*
- *Gaelic and English mix, roughly even*
- *Mainly English*
- *Always English*
- *Another language*

<sup>94</sup> Galesen, Euskal Herrian ISLk darabilen bost aukerako saikapenaren oso antzekoa den saikapenez gain, lau aukerako beste saikapen bat ere erabiltzen dute hainbat alderditarako, erakunde publikoekiko harreman-hizkuntzaz eta lan arloko erabileraz galdetzerakoan, adibidez (Jones, 2015):

- *Yes, always*
- *Yes, usually*
- *Yes, sometimes*
- *No*

<sup>95</sup> Hona Valentzian inkestatuei eskainitako aukera multzoa (zazpi kategoria gaztelania/valentziera erabilera zehazteko eta kategoria bat gehiago beste hizkuntzetarako) (Direcció General de Política Lingüística, 2016):

Política Lingüística, 2016) eta Galizian, lauko eskala erabili ohi dute “bi hizkuntzetan berdin” aukera eskaini gabe (IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2018). Hegoaldeko zentsuetan etxeko erabilerari buruz jasotzen den informazioa euskararen/gaztelaniaren erabilera hiru aukeraren bidez jasotzen da eta laugarren aukera bat dago beste hizkuntzetarako, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Informazioa horrela jasotzen denean, kategoria horien araberrako emaitzak adierazgarriak izango dira hizkuntzen erabilera neurtzeko, eta maiztasunen azterketa izango da horrela eskuratzen den informazioa irakurtzeko bitarteko nagusia. Maiztasun-banaketa horiek, ordea, ez dira erabilera-tasekin zuzenean alderagarriak. Alderagarritasun hori lortzeko, kategoria horiei zenbaki bidezko balioak eman beharko zaizkie. Horrela, inkesta-datuetatik abiatuta, behaketa-datuekin alderagarriak izan daitezkeen erabilera-tasak kalkulatu ahalko ditugu. Horretaz arituko gara lasaiago metodologiaren atalean.

#### 3.3.3.4. Erabileraren inguruko adierazle sintetikoak

Lehenago aipatu dugu erabilera-ohiturak xehe jasotzearen onurak. Aipatu dugu, halaber, horrek dakarren eragozpena: hainbat rol-harreman eta espazioetako erabileraren berri izango dugula, baina ez dugula izango “erabilera orokorraren” berri emango digun daturik.

Hutsune hori betetzeko, adierazle sintetikoen bidea jorratu ahalko litzateke, hainbat erabilera xeheri buruzko datuak uztartu eta erabilera orokorraren kalkulu bat eginez. Zalbidek dio landu gabeko eremua dela nazioarteko demolinguistikan erabileraren batez bestekoaren berri emango ligukeen adierazle edo indize sintetikoarena, eta ez dagoela horretarako eredu baliagarriarik (2016: 28). Guk aztertu dugun literatura demolinguistiko zabal samarrean, tankera horretako bi adierazle sintetiko besterik ez dugu topatu: katalanena eta euskaldunena.

Kataluniako inkestan ahozko erabileraren indizea (*índex d'ús de català parlat-IUP10*) kalkulatzan dute. Indize horrek 10 erabilera-aldagai xehe uztartzen ditu, haztatu gabe eta guztiei pisu bera emanda. Indize horren emaitzak 0 eta 1 bitarteko balioak hartzen ditu (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 30):

L'índex d'ús de català parlat o IUP10 és la mitjana d'ús de català parlat en deu àmbits seleccionats: usos fora de la llar (amics, veïns, companys d'estudi, companys de feina, botigues, grans establiments, bancs i metges) i usos familiars (parella i fills). Lògicament, l'IUP10 té un valor d'interval que varia per a cada

- 
- *Sempre valencià*
  - *Generalment valencià*
  - *Més valencià que castellà*
  - *Indistintament*
  - *Més castellà que valencià*
  - *Generalment castellà*
  - *Sempre castellà*
  - *Altres llengües*

enquestat d'u a zero (ús només del català en els deu àmbits i gens d'ús de català en els deu àmbits, respectivament).

Bestalde, eta aurreko indizetik abiatuta, denbora osoko hiztunen neurketa ere (*mesura de parlants de català a temps complet-PTC*) egiten dute katalanek (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 30). Denbora osoko katalan-hiztunen zenbaketarako, 1 balioa ematen zaie katalan hutsez aritzen diren hiztunei, eta dagokion zatia katalana beste hizkuntza batzuekin batera erabiltzen dutenei (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 30):

La mesura de parlants de català a temps complet (PTC) és una mesura estàndard d'ús català d'una persona que faci servir el català a temps complet en els deu àmbits. Aquesta mesura comptabilitza els usuaris a temps complet seguint la mateixa filosofia que permet comparar el nombre de treballadors reals d'una organització amb distintes modalitats de contracte (dos de parcials poden correspondre a un de temps complet) amb el còmput dels seus teòrics treballadors a temps complet.

Katalanen ahozko erabileraren indizeak, beraz, erabilera guztiak maila berean hartzen ditu kontuan adierazle orokorra kalkulatzeko, nahiz eta horrek ez izan oinarri sendo-sendorik teoriaren eremuan. Izan ere, rol-harreman eta espazio batzuetako erabilera besteetako baino garrantzitsuagozat jotzea zentzuzkoa dirudi, bai hiztunek euren eguneroko bizitzan harreman eta espazio horietan besteetan baino denbora gehiago ematen dutelako, bai ikuspegi teoriko jakin batetik<sup>96</sup> beste espazio eta harremanek baino garrantzi handiagoa dutelako.

Bigarren ereduak Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa lantzen den euskararen erabileraren tipologia dugu (Eusko Jaurlaritzak, 2019: 48-49). Tipologia hori 2001eko ISLko argitalpenean aurkitu dugu lehen aldiz (Eusko Jaurlaritzak, 2003: 14) eta 5.2.3.2. puntuan aurkeztuko dugu zehatz. Katalanen kasuan ez bezala, kontuan hartzen diren jatorrizko erabilera-datuei ez zaie pisu berbera ematen eta, haztatze-irizpideak eztabaidagarriak diren arren<sup>97</sup>, pentsatzekoa da adierazle hori gehiago hurbiltzen dela erabilera orokorraren datua laburbiltzera, haztaketarik gabe sortutako adierazlea baino.

### 3.4. HIZKUNTZEKIKO MOTIBAZIOAK ETA JARRERAK

Ukipen-egoeretan alderdi subjektiboek ere zerikusi zuzena dute ordezkapen-prozesuak bultzatzeko edo oztotatzeko orduan, eta berdin indarberritze-prozesuetan ere (Fasold, 1996: 229-274; Boix eta Vila, 1998: 137-179; Mollà, 2002: 96-107; Joly eta Uranga, 2010). Horrela, pertsonen eta gizataldeen hizkuntza- eta nazio-identitateek, hizkuntza-ideologiek, hizkuntza-jarrerek, motibazioek, iritziek, balioek eta hautemateek zerikusi erabakigarria izan dezakete prozesu horietan. Alderdi horiek guztiek, izan ere, eragin zuzena izaten dute hizkuntzaren jarraipenerako, ordezkapenerako edo hura indarberritzeko funtsezkoak diren hiztunen portaeretan, hala nola, hizkuntza bat ala

---

<sup>96</sup> Horretan ziurrena ikuspegi teorikoak ez lirateke bat etorriko rol-harreman eta espazio bakoitzari eman beharreko pisuan.

<sup>97</sup> Zalbidetik dio, adibidez, komeni baino handiagoa dela eremu formaleko erabilerak adierazle sintetiko horretan hartzen duten %33,3ko pisua (2016: 28).

bestea erabili erabakitzerakoan, belaunaldi berrietara hizkuntza igaroarazi edo ez erabakitzerakoan edo hizkuntza bat ikasteko (edo ahazteko) prozesuan. Horiek horrela, hiztun-komunitate edo lurralde baten errealitate soziolinguistikoa aztertu nahi denean, nahitaez kontuan hartu beharrekoak dira aipatzen ari garen alderdiak ere.

### 3.4.1. Hainbat kontzeptu: hizkuntza-jarrerak, motibazioak, eta hizkuntza-leialtasuna

Esan bezala, gai multzo zabala dugu hizkuntzarekin lotutako alderdi subjektiboena, bere barruan alderdi asko biltzen duena (Erize, 2016). Ez da gure asmoa gai multzo zabal horren osotasuneko ikuspegia eskaintzea. Argitu ditzagun labur, hori bai, oinarritzko hiru kontzeptu, psikologia sozialaren eremuan landu ohi direnak, elkarren arteko harreman estua dutenak eta gure lanketan erabiliko ditugunak:

**Hizkuntza-jarrera**<sup>98</sup>. *Soziolinguistika Eskuliburuan* azaltzen zaigunez, hizkuntza-jarrera “hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera da” (Joly eta Uranga, 2010: 204). Hizkuntza edo aldaera batekiko jarrera positiboagoa edo negatiboagoa izango dute hiztunek, eta hizkuntza bakoitzari hainbat ezaugarri atxikiko zaizkio subjektiboki, edertasun, erraztasun, modernotasun eta beste hainbat balorazio-irizpideren arabera. Errealitatean, hiztun elebidun guzti-guztiek jarrerak dituzte hitz egiten dituzten bi hizkuntzekiko, eta jarrera horiek hizkuntza horietako hiztun multzoarekiko jarrerekin lotuta azaldu ohi zaizkigu (Fasold, 1996: 231). Horiek horrela, harreman estua dago hiztunen hizkuntza-jarreraren eta hizkuntza-portaeraren artean, jarreraren eta hizkuntzaz aldatzeko (edo hizkuntzari eusteko) joeraren artean zehazki, hainbat autorek azpimarratzen duten bezala (Ravindranath, 2019: 446). Eta arriskuan dauden hizkuntza-komunitateen artean, ez da arraroa komunitateak berezkoa duen hizkuntzarekiko jarrera negatiboak nagusitzea (Thomason, 2018: 70):

Unfortunately, however, negative attitudes toward endangered heritage languages seem to be at least as common as positive ones, and they are too often more effective as well.

**Motibazioak**<sup>99</sup>. *Soziolinguistika Hiztegiaren* motibazioa “pertsona bat portaera jakin bat izatera bultzatzen duen faktore edo eragingarria” dela adierazten zaigu (UZEI, 2010: 17). *Soziolinguistika Eskuliburuan* azaltzen zaigunez, “motibazioak azaltzen du zergatik erabakitzen duen pertsona batek ekintza bat egitea, esate baterako, hizkuntza bat

---

<sup>98</sup> Hona hemen *hizkuntza-jarrera* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 55):

- Gaztelaniaz: actitud lingüística.
- Frantsesez: attitude linguistique.
- Ingelesez: language attitude.

<sup>99</sup> Hona hemen *motibazio* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 17):

- Gaztelaniaz: motivación.
- Frantsesez: motivation.
- Ingelesez: motivation.



ikastea edo erabiltzea; zenbateko ahalegina egingo duen eta zenbat denboraz eutsiko dion ahalegin horri” (Joly eta Uranga, 2010: 206).

Motibazio edo *motibo* (Erize, 2016) horiek kanpotik eragindakoak edo barrukoak izan daitezke eta eragina dute hizkuntzarekiko portaeretan: hizkuntza edo aldaera bat edo beste erabiltzeko orduan, hizkuntza berriak ikasteko orduan (Baker, 1997: 137), seme-alabei hizkuntza bat edo beste transmititzeko orduan, eta abar. Hizkuntza-portaeretan eragiten duten motibazioak askotarikoak izan daitezke. *Berezko motibazioaz* gain (haurrak hizkuntza ikastearekin batera garatzen duena), beste bi motibazio mota aipatzen dira nagusiki aztertu dugun bibliografian: *motibazio instrumentala*<sup>100</sup> eta *integratzailea*<sup>101</sup>. Motibazio instrumentala motibazio erabilgarri edo praktikoa da, eta normalean onura materialen bat lortzearekin lotzen da (lana lortzearekin, estatus sozioekonomikoa hobetzearekin, eta abar). Motibazio integratzaileak, berriz, komunitatean integratzearekin du zerikusia, talde baten parte sentitzearekin edo talde batekin identifikatzearekin alegia (Mollà, 2002: 103; UZEI, 2010: 22).

Motibazioen oinarrian, askotan, hizkuntza-jarrerak egoten dira eta bi kontzeptu horien arteko muga oso fina da (Erize, 2016: 122). Literatura espezializatuan arakaturaz gero, *hizkuntza-jarreraren* kontzeptua gehiago lotu izan da hizkuntza-gatazkari eta hizkuntza-ordezkapen zein -biziberritzeari lotutako ikerketekin, eta *motibazioen* kontzeptua gehiago erabili izan da bigarren hizkuntzaren jabeakuntzaren azterketetan (García, 2004: 69; Joly eta Uranga, 2010: 206). Gure lan honen atal metodologiko eta enpirikoan, hiztunen hainbat portaeretatik hiztunen jarrera-motibazioak induzituko ditugunean, bi terminoak bereizi gabe erabiliko ditugu.

**Hizkuntza-leialtasuna**<sup>102</sup> hizkuntzaren galera-prozesua hasita dagoenean eta norbere hizkuntza arriskuan sumatzen denean sortu ohi den fenomeno da, Morenoren arabera, eta norbere hizkuntzari eusteko joera dakar berarekin (2009: 244). Weinreichen iritziz (1974), leialtasun linguistikoak hizkuntza mehatxatua gizarte-sinbolo eta “kausa sozial” bihurtzen du, arbasoengandik jasotako hizkuntzari bizirik eusteko ahaleginean. Nazio-azian nazionalismoa denaren parekoa izango litzateke hizkuntza-

---

<sup>100</sup> Hona hemen *motibazio instrumental* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 22):

- Gaztelaniaz: motivación instrumental.
- Frantsesez: motivation instrumentale.
- Ingelesez: instrumental motivation.

<sup>101</sup> Hona hemen *motibazio integratzaile* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 22):

- Gaztelaniaz: motivación integrativa.
- Frantsesez: motivation intégrative.
- Ingelesez: integrative motivation.

<sup>102</sup> Hona hemen *hizkuntza-leialtasun* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 17):

- Gaztelaniaz: lealtad lingüística.
- Frantsesez: fidélité linguistique.
- Ingelesez: language loyalty.

leialtasuna hizkuntza kontuetan. Leialtasun horrek hizkuntzaren garbitasuna mantentzera eramango du alde batetik, Weinreichen arabera, baita hizkuntzaren erabilerari eustera ere. Azken alderdi hori azpimarratzen du *Soziolinguistika Hiztegiak* hizkuntza-leialtasun terminoa definitzean: “hiztun batek egoera guztietan bere hizkuntza erabiltzeko jarrera” dela esaten du (UZEI, 2010: 17).

Fishmanen ustez, leialtasun horren oinarrian hiztunek euren lehen urteetan ikasitako hizkuntzarekiko duten maitasuna dago. Terminoa, hala ere, arriskuan dauden hizkuntzetarako gordetzen du Fishmanek. Nolanahi ere, funtsezko faktorea da ordezkapena gelditzeko edota buelta emateko. Askotan, baina ez beti, nazionalismoaren eskutik azaldu ohi zaigu hizkuntza-leialtasuna (Mollà, 2002: 100). Gure kasuan, *euskaltzaletasuna* ere esaten diogu hizkuntza-leialtasun horri: “gure hizkuntza babestu eta sendotu, osatu eta txukundu, zabaldu eta indarberritzera bultzatzen gaituen talde jokaera” (Zalbide, 2003: 11).

### 3.4.2. Alderdi subjektiboen ikerkuntza demolinguistikatik

Gizartean hizkuntzek duten egoera ikertu nahi duenak, hortaz, ezinbestean erreparatu beharko die alderdi subjektiboei. Alabaina, berez, demolinguistikaren berezko ikerketa-eremutik kanpo gelditzen dira alderdiok. Demolinguistikak, izan ere, 1.2. puntuan azaldu dugun bezala, egitateak aztertzea bideratzen du nagusiki bere ahalegina, ez hainbeste alderdi subjektiboak ikertzera. Demolinguistikaren jokabide hori ezin da hartu diziplinaren gabezia gisa, bere kokapen metodologikoaren ondorio logiko gisa baizik; demolinguistikaren orientazio metodologiko kuantitatiboak eta erabiltzen dituen teknikak (inkesta-teknikak nagusiki) berez dituzten mugen jakitun izatearen ondorio zuzena da alderdi subjektiboen azterketari lehentasunik ez ematea. Izan ere, inkesta teknika kamutsa eta mugatua da alderdi subjektiboetan zuzenean arakatzeko; horretarako egokiagoak dira metodologia eta teknika kualitatiboak (Ortí, 1989: 171; Juaristi, 2003: 86-87; Hernández, 2010b: 294; Ruiz Olabuénaga, 2012: 44).

Dena den, ikuspegi makro batetik hiztunak alderdi subjektibo horiekin ezaugarritu eta zenbatu nahi direnean, teknika kuantitatiboetara jo beharko du ikertzaileak. Horrela, hautemateei, iritziei edo jarrerrei buruzko inkestetako galderak baliagarriak izan daitezke gaiaren inguruko hurbilpenak egiteko. Ondorioz, demolinguistikaren azterketa nagusiki egitateetara bideratzen bada ere, alderdi subjektiboen neurketa ere ez zaio arrotza. Zentsuetan ez, baina Inkesta Soziolinguistikoetan alderdi subjektiboekin zerikusia duten galderak txertatzea jokabide arrunta da Europako demolinguistikan. Ondorio horretara iritsi gara T.2. taulan agertzen genituen inkestetako galdetegiak aztertuta. Zehazki, Galeseko *Welsh language use in Walesen* salbuespenarekin (Jones, 2015), non ez zen iritziekin lotutako galdera bakarra ere txertatu, gainerako inkesta soziolinguistiko guztietan txertatu ziren jarrerak, iritzia eta hautemateak jasotzeko galderak. Galesen beste muturrean, Irlandako inkesta dugu: bertan pisu bereziki handia izan zuten iritziei buruzko galderak (Darmody eta Daly, 2015).

Inkesta horietan alderdi subjektibo ugari jorratu izan da: identitate linguistikoarekin edo nazionalarekin zerikusia duten galderak, iritzi eta jarrerrei buruzkoak, hautemateei buruzkoak... Lehen begiratu batean, demolinguistikak nazio eta testuinguru bakoitzean modu jakinean lantzeko izan duen joera orokorra are indartsuago azaltzen zaigu alderdi horietan. Aipagarria iruditzen zaigu Kataluniako eta Balear uharteetako ISLen

kasua. Inkesta horietan, hautemate eta iritziei buruzko beste galdera gutxi batzuekin batera, egoera soziolinguistikoaren laburpena egiterakoan aldagai garrantzitsutzat jotzen duten “identifikazio-hizkuntza” deiturikoa txertatzen dute euren galdetegietan. Aldagai hori galdera sortako lehen galderari (“*Quina és la seva llengua?*”) elkarrizketatuek zuzenean emandako erantzuna da. Eta, esan bezala, katalan hizkuntzaren egoera soziala laburtzerakoan erabiltzen duten hiru adierazle nagusietako bat da, ohiko hizkuntzarekin eta lehen hizkuntzarekin batera (De Rosselló, 2018; Defior, 2018; Generalitat de Catalunya, 2019).

Euskal Herrira etorrira, aurrerago ikusiko dugun bezala, hainbat gairi buruzko iritziak galdetu izan dira Inkesta Soziolinguistikoan, eta horietan oinarrituta, “Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera” adierazle sintetikoa landu izan dute inkestaren egileek (Eusko Jaurlaritzak, 2019: 29).

Galdera subjektiboari emandako erantzunak erabili ohi dira alderdi horiek kuantifikatzeko (adibidez, zenbatek duten hizkuntza batekiko aldeko edo aurkako jarrera, edo zenbatek duten gai bati buruzko honako edo harako iritzia). Baina, horretaz gain, portaeren azterketa egiterakoan aldagai aske gisa ere erabiltzen dira iritzi eta jarrerari buruzko aldagaiak. Eta sarri asko frogatu da hiztunen portaerekin korrelazio handia dutela hizkuntza-jarrerak, hala nola, hiztunen erabilera mailarekin edo transmisioari eragiten dieten portaerekin.

Esandakoaz gain, kontuan hartu behar da, demolinguistikako tresnen bidez hiztunen portaerak deskribatzerakoan, hainbat kasutan ez dela erraza izango deskribapen oso bat lantzea, alderdi subjektiboen aipamenik egin gabe. Guk ere, atal enpirikoan Euskal Herriko hiztunen portaerak deskribatzearekin batera, euren motibazioak induzituko ditugu portaera horietatik, eta hiztunen portaera horiek euren balizko motibazio moten arabera interpretatuko ditugu.

### **3.5. TESTUINGURU DEMOLINGUISTIKOA: HIZTUNEN BANAKETA ETA DENTSITATEA LURRALDEAN; HIZKUNTZEN NAGUSITASUNA LURRALDEAN; HARREMAN-SAREEN OSAERA**

Hiztun motek lurraldean duten banaketarekin eta hiztunen harreman-sareekin zerikusia duten gaiak bildu ditugu ardatz honetan. Ez dira garrantzirik gabeko gaiak hizkuntzen iraupenaren ikuspegitik (Brenzinger, 2019: 454):

While individuals decide for different reasons to abandon or to continue speaking their ancestral languages, the maintenance of these languages requires networks of speakers, namely language communities.

Esan beharra dago orain arte aurkeztu ditugun ardatzen mugaketa baino lausoagoa dela hemen bilduko dugun gai multzoari dagokiona. Gai horietako batzuk soziolinguistikan eta demolinguistikan aspalditik aipatu izan diren arren, ezin esan toki zentralik eman zaienik. Aitzitik, gainerako ardatzei baino garrantzi txikiagoa eman zaie guk kontsultatu ditugun soziolinguistika-eskuliburuetan eta aztertu dugun literatura teknikoan.

Zehazki, ardatz honetan elkarren artean zerikusia duten baina lanketa berezia merezi duten hiru alderdi bilduko ditugu: hiztunen dentsitatea, hizkuntzen nagusitasuna lurraldean eta sareen osaketa. Hirurak biltzeko, “testuinguru demolinguistikoa” izendapena erabili dugu. Testuinguru hori, era berean, testuinguru zabalago baten atal gisa ere uler daiteke. Goazen, banan-banan, ardatz honetan landuko ditugun hiru gaiak aurkeztea.

### **3.5.1. Hiztunen banaketa eta dentsitatea lurraldean**

Hizkuntza gutxitu baten jarraipenean/ordezkapenean eragiten duten faktore demografikoei erreparatuta, hiztun kopuruaz gain, garrantzitsuak dira bai hiztun-komunitate horrek beste hizkuntzekiko hiztunen aurrean osatzen duen proportzioa eta baita komunitateko hiztunek lurraldean duten banaketa ere; hots, hiztunak bilduagoak edo sakabanatuagoak bizi diren (Coyos, 2010: 175; Potowski, 2013: 327-328). Hiztunen dentsitateak, hizkuntza horretan aritzeko aukera baldintzatzen duen errealitatea izanik (Marmen, 2005), harreman argia izan ohi du erabilerarekin. Ezagutza-dentsitatearen araberrako erabileraren aldakortasuna teorikoki landu zuen Txillardegik gure mugetatik kanpo ere literatura zientifikoan aipatua den eredu matematikoan (Álvarez Enparantza, 1984, 1991, 2001). Elebitasun-egoeretan, ezagutzaren araberrako hiztun multzoen pisuak (zenbat elebakar A hizkuntzako, zenbat elebakar B hizkuntzako eta zenbat AB elebidun), erabilera posiblean izan dezakeen eragina aztertu zuen Txillardegik matematikoki, mintzakide kopurua ere aintzat hartuta. Gurea bezalako egoeretan, hizkuntza gutxituko (ia) hiztun guztiek hizkuntza menderatzailea ere badakitenean, ezagutzaren eta erabileraren arteko harremana estua izaten da eta egoera horietan, ezagutzak gehienezko erabilera zuzenean baldintzatuko duela erakutsiko digu ereduak, eta hizkuntza menderatua ezagutzen dutenen kopurua handitu gabe erabilera handitzea ezinezkoa dela. Eredu horretatik abiatuta, eta Hegoaldeko zentsuetako ezagutza-datuez baliatuta, eredu hori sarritan erabili izan da gurean hainbat ikerketatan jasotako erabilera interpretatzeko/baloratzeko, eta oro har euskal hiztunen leialtasuna handia dela ondorioztatu da (Álvarez Enparantza eta Isasi, 1994; Isasi eta Iriarte, 1998; Isasi, 2004; Isasi, 2007; Altuna eta Basurto, 2013; Isasi, 2018).

Nazioarteko demolinguistika enpirikora jotzen badugu, han eta hemen aurkituko ditugu, zentsuetako datuetan oinarrituta, hiztun-komunitatea bizi den lurraldearen barruan, lurralde horretako eskualdeetan, zonaldeetan edo udalerrietan zenbateko proportzioa osatzen duten hizkuntza gutxituko hiztunek biztanleria osoarekiko (ehunekoen bidez zehatz adierazita taula eta mapetan). Horrelakoak aurkitu ditugu, adibidez, Galesen (Higgs, Williams eta Dorling, 2004; Jones, 2012; Jones, 2015), Irlandan (Giollagáin, Donnacha, Chualáin, Shéaghdha eta O'Brien, 2007: 24; Darmody eta Daly, 2015: 33), Katalunian (Querol, 2006: 24; IDESCAT-Institut d'Estadística Catalunya, 2009b; Sorolla, 2016a: 74), Balear uharteetan (IBESTAT, d.g.), Valentzian (Direcció General de Política Lingüística, 2016), Eskozian (Ó Giollagáin et al., 2020: 79-86) eta aurrerago xehetasun handiagoz azalduko dugun Quebecen (Lavoie et al., 2019). Hizkuntza batek lurralde batean duen egoera zein den definitzeko, ezinbesteko tresna dira tankera horretako mapak (Dell'Aquila eta Iannàccaro, 2019). Aurrerago ikusiko dugunez, Hego Euskal Herrian ere ohitura handia dago, nazioartean aztertu ditugun eremu gehienetan baino are handiagoa, zentsuko datuekin hiztunen dentsitatearen gaia lantzekoa.

Informazioa lortu ahal izan dugun kasuetarako, hizkuntza gutxituko hiztun-dentsitate handieneko eremuak urritzen ari dira azken hamarkadotan Europako hainbat tokitan: hori gertatzen ari da, adibidez, EAEn, Galesen eta Eskozian (Iurrebaso, 2015; Jones, 2015; Ó Giollagáin et al., 2020). Joera hori kezkarria da hizkuntza gutxituen iraupen eta garapenerako.

Lurraldean hiztunek duten pisua, bestalde, aztergai ez ezik, aldagai aske gisa ere erabiltzen da azterketa demolinguistikoan, hiztunak bizi diren testuinguru demolinguistikoa hiztunen euren ezaugarriak eta portaerak azaltzen laguntzeko aldagai gisa hartuta. Ez da, gainera, garrantzirik gabeko aldagaia izaten hiztunen portaerak azaltzerakoan, Liebersonek aspaldi adierazi zuen bezala (1966) eta Euskal Herrian behin eta berriz frogatu den bezala (aurrerago arituko gara horretaz). Gure mugetatik kanpo, molde horretako lanketak aurkitu ditugu Valentzian, non eskualde batzuk “zona valencianoparlant” izendatzen diren eta beste batzuk “zona castellanoparlant” (Dirección General de Política Lingüística, 2016). Geografikoki urrutiago joz, Quebec eta Kanadan arreta berezia eskaini izan zaio aspalditik azterketa molde honi ere<sup>103</sup>. Wargonek kontatzen duenez (2000: 336), irizpide demolinguistikoetan oinarritutako zonakatzeak aspaldikoak dira Kanadako demolinguistikan: Richard Joyk zazpi zonalde definitu zituen 1967an bere *Languages in conflict* lanean, eta norabide horretan jarraitu dute lanean hurrengo hamarkadetan ere. Ondorio argigarrietara iristen dira hiztun-dentsitateak dinamika soziolinguistikoarekin duen harremana aztertu duten ikerlan ugari. Horrela, Castonguayk argi frogatu du, Kanadako komunitateetan, frantses hiztunen dentsitateak zerikusi zuzena duela hizkuntzaren bizi-indarrarekin (Castonguay, 2005b) eta frantses-ingeles komunitateen arteko asimilazioarekin (Castonguay, 2002). Ondorio bertsuetara iristen da beste hainbat ikerketa, eta frogatu egin dute hiztun frankofonoen portaera nabarmen aldatzen dela bizi diren testuinguruko ezaugarri demolinguistikoaren arabera (Marmen, 2005: 26), komunitatea ahula den eremuetan hizkuntzari eustea zaila dela eta kontzentrazio handiko eremuek garrantzi handia dutela (Remysen, 2019). Quebec-en eta Kanadan ildo horretan sortu den literatura ugariaren beste adibide bat aipatzearren, lehen hizkuntza galtzearen inguruko Lepage-ren (2011) lana aipatuko dugu. Hiztunek euren lehen hizkuntza ahaztea hizkuntza baten erabateko ordezkapenaren adierazle ez oso ohiko eta gordinenetako bat izanik, Lepagek Kanadan egindako azterketetan frogatu zuen fenomeno horrek ez ziela eragiten anglofonoei baina bai frankofonoei, gutxiengoan bizi ziren zonaldeetako gehienbat. Eta are gehiago eragiten zien fenomeno horrek bertako hizkuntza indigenen hiztunei eta etorkinei. Hainbat ikerketa-lerro saiatu dira neurtzen, komunitate hurbileko eragina ez ezik, zonalde zabalagoen errealitatearen eragina ere (Langlois eta Gilbert, 2006). Azken batean, Kanadan eta Quebecen aski frogatua dago frankofonoen portaera aldatu egiten dela bizi diren ingurune territorialean frantsesak eta ingelesak duten pisuaren arabera.

### **3.5.2. Nagusitasuna lurraldean; erabilera-dentsitatea; arnasguneak**

Aurreko puntuan, hizkuntza gutxituko hiztunek hiztun guztiekiko duten dentsitatea izan dugu aztergai, ezagutza-dentsitatea nolabait esateko. Honako honetan erabilera-

---

<sup>103</sup> Veltmanek, adibidez, Montreal hiriko komunitatekako osaera, segregazio-maila eta horren bilakaera aztertu zituen 1961-1981 tarterako, hiztunen lehen hizkuntzari eta zonaldekako banaketari erreparatuta (1983b: 380-381).

dentsitatea dugu jomuga. Gai honek lotura estua du Fishmanen *breathing-space* edo arnaguneekin, hizkuntza gutxitua nagusi izango den lurralde-eremuekin. Eredu horiek ezinbestekoak izango dira hizkuntza gutxituak aurrera egiteko, Fishmanen ikuspegian (1991: 58):

Every pro-RLS movement must strive to provide physical breathing-space for its constituency, demographically concentrated space where Xish can be on its own turf, predominant and unharassed.

Aipamenean ikus daitekeenez, berebiziko garrantzia ematen zien Fishmanek *breathing-space* edo arnaguneei hizkuntzari eusteko edo indartzeko zereginen. Ezin esan, hala ere, soziolinguistikan oso zabal landutako gaia denik arnaguneena, Mikel Zalbidek gordin azaltzen duen bezala (2019a: 13):

Hizkuntza-soziologiak zer dio arnaguneez? (...) Erantzuna, aurrez aurreko emaitza operatiboei dagokionez, iluna da ezinbestean: ezer askorik ez. (...) Interes akademiko eta aplikazio enpiriko handirik gabeko jakite-esparrua da arnaguneena.

Hutsune hori osatze aldera, gaiaren inguruko sintesi- eta gogoeta-lan baliotsua egin du Mikel Zalbidek berak “Arnaguneak. Etorkizuneko erronkak” artikuluan (2019a). Bertan, Fishmanen ikuspegian oinarrituta, nazioarteko literatura zientifikoa aztertzen du eta eremu horien inguruko hausnarketa teorikoa lantzen du, euskal errealitatera egokituta.

Gaiaren lanketa enpirikoari dagokionez, nazioarteko literatura demolinguistikoan ez dugu aurkitu arnaguneen inguruan berariaz egindako lanketen adibide aplikaturik<sup>104</sup>. Hala ere, aurrerago aipatuko dugun bezala, praktikan, arnaguneen gaia erabilera-dentsitatearekin lot dezakegu. Eta gai hori, erabilera lurraldeka nolako den, alegia, bai aztertu izan da gure mugetatik kanpo. Galizian, adibidez, mapen bidez landu izan da lurraldean hizkuntza bakoitzaren erabilerak duen pisua (IGE-Instituto Galego de Estadística-, 2019a: 15). Aurrerago Hegoalderako aipatuko ditugun irizpideak hara aplikatuta, hots, X hizkuntzaren erabilera %60tik gorakoa duten lurralde-eremuak arnagunetzat joz (Lurrebaso, 2019), Galiziako lurraldearen zati handienak<sup>105</sup> arnagune izaera izango luke oraindik 2018n (IGE-Instituto Galego de Estadística, 2019d). Katalunian ere lurralde-eremu zabaletan katalana da gehien erabiltzen den hizkuntza (Rovira eta Serrano, 2019).

Esan beharrik ez dago hiztunen kontzentrazioarekin eta ezagutza-dentsitatearekin estuki lotzen dela lurralde-eremuetan hizkuntza batek edo besteak duten erabileraren eta nagusitasunaren gaia. Fishmanek eta Zalbidek argi adierazten dute hori: hiztunen dentsitate handia ezinbestekoa izango da nagusitasuna egon dadin. Ez da, ordea, nahikoa izango; ezagutzaren dentsitate handia ez ezik, erabileraren dentsitate handia ere ezinbestekoa izango baita nagusitasunaz hitz egiteko. Eta errealitate enpirikoan askotan bi fenomeno horiek eskutik joango badira ere, ez du beti horrela izan beharrik.

---

<sup>104</sup> Lan interesgarriak aurkitu ditugu gaiarekin nolabaiteko harremana duten Irlandako *Gaeltacht* delakoei buruzkoetan (Giollagáin et al., 2007; Donnacha eta Giollagáin, 2016); bestalde, Irlandako *Gaeltchten* eta Galeseko *Y Fro Gymraegen* arteko alderaketa interesgarria egiten du Colin H. Williamsek *The land in linguistic consciousness: Evidence from the British Isles* lanean (1987). Nolabaiteko harremana diogu, *Gaeltchtak* eta *Y Fro Gymraeg* delakoak ezin direlako zentzu hertsian *breathing-spacetzat* jo.

<sup>105</sup> Lurralde horiek nagusiki zonalde ez oso populatuak izanik ere.

Euskararen egungo EAEko egoeran, adibidez, hizkuntzaren oinarritzko ezagutza belaunaldi berrien artean asko orokortu den honetan, hiztun talde batean izan daitekeen ezagutza-dentsitate handiak ez du beti ekarriko nagusitasun bat erabilera. Eskola-eremuan, esaterako, D ereduko ikasgela askotan euskararen erabilera apala izaten da egoera informaletan (Martínez de Luna, Aizpurua eta Uranga, 2013; Martínez de Luna, Iurrebaso eta Suberbiola, 2015; Martínez de Luna eta Suberbiola, 2018, 2020). Horregatik, berriaz aztertu beharreko alderdia izango da erabilera-nagusitasunarena. Gaia bereziki garrantzitsua izango da, Fishman eta Zalbideri jarraituz, belaunaldiarteko jarraipenak testuinguruko erabilera-nagusitasunarekin zerikusi zuzenagoa izango baitu ezagutza-dentsitate handiarekin baino. Metodologia-atalean ikusiko dugun bezala, euskal demolinguistikan badago lanketa hori gauzatzeko moduko lehengairik.

### **3.5.3. Gizarte-sareen ikerketa eta hiztunen harreman-sareen azterketa ezaugarri linguistikoak aintzat hartuta**

Gizarte-sareen jakintza-eremuak egiten duen ekarpenaren arabera, harreman sozialen bidez elkarren artean konektaturik dauden aktoreen multzoa da sarea (Mitchell, 1986). Gizarte-sareez ari garenean, gizabanakoak zuzenean eta erregulariki dituen harremanak<sup>106</sup> (lehen mailako sarea osatzen duten horiek) eta zeharka dituenak hartzen dira kontuan. Horrela, sareen bitartez, norberak zuzenean dituen harremanez gain, zeharkako harremanak ere baditugu hurrengo mailakoekin, eta horrek badu eraginik subjektuengan. Oro har, gizarte-sareekin lan egiten denean, harreman sarrienak hartzen dira batez ere aintzat (De Rosselló, 2010: 37). Metodologia-ikuspegi kuantitatiboko eta kualitatiboko elementuak uztartzen dituen azterketa mota horretan, harremanean bertan jartzen da arreta, pertsonen eta taldeen arteko loturetan; horrela, harremanek osatzen duten egitura da aztergai nagusia (Hernández, 2010b: 315).

Soziolinguistika-azterketa interesgarriak egin izan dira gizarte-sareak aintzat hartuz: Milroyk ondorioztatu zuen (1987) Belfasteko langile-auzo bateko kideek hautatzen zuten ingelesaren aldaerak zerikusia zuela hiztunen sarearekin: ingurune lokalean txertatutako sareak zituztenek gehiago jotzen zuten aldaera lokaletara eta gainerakoek gutxiago. Susan Galek ere (1979), Austriako Oberwart hirian egindako ikerketan, azaldu zuen sareen eragina nabarmena zela hizkuntza-hautuetan: nekazari jendearekin harreman gehiago zuten hiztunek gehiago erabiltzen zuten hungariera eta gutxiago alemana<sup>107</sup>. Sareen osaketaren azterketa erabili izan da, halaber, migratzaileen jatorrizko hizkuntzarekiko jarraipena edo mintzaldatzea azaltzeko, eta ondorioztatu da gizarte-sareen osaketak zerikusia duela jatorrizko hizkuntzari eustearrekin edo mintzaldatzearekin (Wei, 1994). Gertuago etorrira, Herrialde Katalanetan ere erabili izan da sareen bidezko analisia portaera linguistikoak aztertzeko. Aipatzeko modukoak dira, besteak beste, Bartzelona Metropolitanoan egindako azterketa (Boix Fuster, 1993), valentziarren erabilera buruzkoa (Querol,

---

<sup>106</sup> Sare hori osatzen dute bai gizabanakoaren pertsona gertukoek (senide, lagun, lankide...) eta baita harreman aldizkakoagoa duten pertsonak ere.

<sup>107</sup> Bere azterketan, halaber, Galek azaleratu zuen hainbat kasutan hizkuntza bat edo bestea hautatzea balio kultural batzuk aukeratzea ere bazela, eta alderdi identitario politikoekin harremanean jarri zuen hizkuntza-hautua.

2000) eta Carles de Roselló (2010) eta Natxo Sorollaren (2016b) tesiak, non eskola-umeen portaerak aztertzen dituzten.

Horrela, bada, hizkuntza gutxitu bateko hiztunen erabileran eragiten duen funtsezko faktore bat izango dira euren mintzakideen ezaugarri soziodemografiko eta soziolinguistikoak. Ikerketa demolinguistikoan ere aztertu izan da familia barruko erabilera nola aldatzen den familiakideen eta bikotekideen ezaugarri demolinguistikoaren arabera (Marmen eta Corbeil, 1999: 76). Ikuspegi hori aski frogatua dago Euskal Herriko demolinguistikan, bai Inkesta Soziolinguistikoak eta baita zentsuek emandako datuekin ere. Aurrerago ikusiko dugun bezala, hiztunaren sareko euskaldunen dentsitatea funtsezko aldagaia izango da erabilera azaltzeko orduan.

Horiek horrela izanda ere, gai honetan sakontzea ez da ohitura orokortua inguruko ISLetan. Galizia edo Kataluniako ISLetan, adibidez, elkarrizketatuei ez zaie galdetzen euren inguruko pertsonen (familiakoek, lagunartekoek, lantokikoek eta abar) galizieraz edo katalanez hitz egiten ba ote dakiten (IDESCAT-Institut d'Estadística de Catalunya, 2015; Melià eta Vanrell, 2018; Generalitat de Catalunya, 2019; IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2019a). Galesko ISLn ere ez da horrelakorik galdetzen (Jones, 2015), baina zentsuko datuetan oinarrituta transmisioa aztertzen dutenean, familien tipologiak lantzen dituzte, gurasoen artean galesera dakitenak zenbat diren kontuan hartuta (Evas et al., 2017). Testuinguru horretan, salbuespen ohargarria da Euskal Herriko kasua: bertako ISLko edizio guztietan sistematikoki galdera multzo zabala txertatu izan da elkarrizketatuen inguruko pertsonen euskaraz ba ote zekiten edo ez zekiten jasotzeko. Horrek azterketarako aukera asko eskaintzen du, aurrerago ikusiko dugun bezala. Informazio hori baliagarria izango da bere horretan, baina hizkuntza gutxituko hiztunek euren hizkuntza erabiltzeko duten aukera kalkulatzeko oinarria ere eman diezaguke (Darquennes, 2020: 144). Eta horrekin batera, balio diezaguke euren erabilera harremanetan jartzeko gehienez egin ahalko luketen erabilerarekin.

### **3.6. HIZKUNTZA-SOZIALIZAZIOA**

Hizkuntza belaunaldi berrietara igaroaraztea ikergai garrantzitsua izan da soziolinguistikan eta demolinguistikan. Horren barruan, gurasoengandik seme-alabetara igaroaraztea aztertu izan da gehien, eta “transmisioa” terminoa da bibliografia espezializatuan gehien erabili izan dena. Guk, ordea, ardatz honi “hizkuntza-sozializazioa” esan diogu, gurasoengandik seme-alabetarako transmisio-prozesuez gain beste hainbat eragileren parte hartzea eta interakzioa ere kontuan hartuko duen ikuspegi zabalago baten bila.

#### **3.6.1. Hizkuntza-transmisioa, hiztun-komunitatearen jarraipenerako giltzarri**

Hizkuntza-jarraipena gerta dadin eta hizkuntzak bizirik jarrai dezan (eta, beraz, ordezkapena gerta ez dadin), belaunen arteko hizkuntza-transmisioa egoki egitea ezinbestekoa dela kontsideratzen da soziolinguistikan Fishmanez geroztik (1991). Hizkuntza-komunitate baten jarraipenerako giltzarria, benetan hil edo bizikoa, belaunaldiarteko transmisioa dela azpimarratu zuen Fishmanek (gurasoetatik seme-alabetara naturalki egiten dena bereziki). Bere hizkuntza hurrengo belaunaldira



igaroaraztea lortzen ez duen hizkuntza-komunitateak ezin izango dio hizkuntza-komunitate gisa eutsi, eta komunitate horretako kideak disolbatu egingo dira hizkuntza-komunitate nagusiaren barruan.

Berez duen garrantziaz gain, transmisioa hizkuntzaren egoeraren adierazle kualitatibo esanguratsua ere bada, hizkuntzaren egoera sozialaren berri eta hiztun-komunitatearen bizi-indarraren berri ematen baitigu zuzen-zuzenean (Oliver, 2013: 48):

En societats heterogènies i demogràficament canvians (en què són presents persones que pertanyen a dues o més comunitats lingüístiques socialment significatives, estretament interrelacionades i, tot sovint, en situació de conflicte), la tria de la llengua que es lliga als fills no és donada pel sentit comú, sinó que respon a una decisió que l'individu ha de prendre de manera més o menys conscient. El fet que un individu decideixi transmetre als fills la llengua que ha rebut dels pares és indicatiu que, en la seva representació social, la llengua de la comunitat té un paper prou positiu, bé com a element identificador del grup, bé per la seva utilitat instrumental, o bé per totes dues coses alhora. En canvi, si l'individu no decideix transmetre als fills la llengua que ha rebut dels pares, sinó una altra present a la societat, hem de pensar que, en la comparació entre totes dues llengües, percep que la de les persones de l'altra comunitat proporcionarà al fills més avantatges (bàsicament instrumentals) que la seva pròpia llengua.

Esan daiteke soziolinguistika guztiak onartzen diola gaiari erabateko garrantzia<sup>108</sup>, nahiz eta guztiak ez diren bat etorriko transmisioan eragiteko orduan lehentasunak finkatzerakoan: batzuek zuzenean transmisio-eragileen artean esku hartzea hobetsiko dute (familiar eta komunitatean nagusiki), eta beste batzuek alor zabalagoetan eragitea proposatuko dute (Vila, 2014: 62).

### **3.6.2. Eragile nagusiak: familia, komunitatea, eskola... hizkuntza-ugaltzea eta hizkuntza-ekoizpena**

Ikuspegi guztiak ere ez dira bat etorriko transmisio-prozesua gauzatzen duten eragile nagusiak identifikatzerakoan eta horietako bakoitzaren pisua erabakitzerakoan. Fishmanen ikuspegira zuzenean jotzen badugu, transmisioaren<sup>109</sup> eragile behinenak honako bi hauek dira: familia eta komunitatea (auzo-, kale- eta lagun-giroa). Beste hainbat ikuspegitatik eskola ere aintzat hartuko dute transmisiorako eragile nagusi gisa. Soziolinguistika hiztegiak, adibidez, honela definitzen du *Hizkuntza-transmisio*<sup>110</sup> terminoa: "Hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzea, bereziki familiaren eta hezkuntza-sistemaren bidez" (UZEI, 2010: 41).

---

<sup>108</sup> Oro har, hizkuntzen heriotza-arriskua neurtzeko landutako eskala guztietan azaltzen da transmisioa lehen mailako aldagai gisa (Lee eta Way, 2018). Adibidez, munduko 525 hizkuntza-komunitateen datuekin egindako azterketan, transmisioa hizkuntzen osasuna finkatzeko irizpide nagusizat azaldu zen, baita hizkuntza-komunitatearen hiztun kopuruaren ginetik ere (Barreña et al., 2007).

<sup>109</sup> Prozesu horri belaunez belauneko jarraipena esango dio Mikel Zalbidek.

<sup>110</sup> Hona hemen *hizkuntza-transmisio* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 41):

- Gaztelaniaz: transmisión lingüística.
- Frantsesez: transmission linguistique.
- Ingelesez: linguistic transmission.

Europako hiztun-komunitate autoktonoak aztertu zituen Euromosaic-en ereduari, bestalde, esango zaigu hiru arduradun nagusi daudela transmisioa gerta dadin: familia, komunitatea eta eskola. Beste maila batean, zeregin apalagoa aitortuko zaie transmisioan hedabideei<sup>111</sup> (Nelde, 1996: 6). Eragile horiek ezinbesteko zeregina izango dute belaunaldi berriak hizkuntza gutxituan trebatu daitezkeen eta euren hizkuntza-gaitasuna landu (Williams et al., 1997: 150).

Euromosaic-en oinarri teorikoan, hizkuntza gutxitua ondorengoei igarorazteko prozesuen artean bereizi egingo dute *hizkuntza-ugaltzea*<sup>112</sup> (*reproduction*) batetik, gehienbat komunitateko hizkuntzan bizi diren familia eta giroetan gertatzen dena; eta *hizkuntza-ekoizpena* (*production*) bestetik, komunitateari hiztun berriak ekarriko dizkiona, eskolaren bidez nagusiki (Williams et al., 1997: 147-148):

La reproducció la concebíem en termes de la capacitat de transmetre una llengua d'una generació a una altra entre parlants consolidats, mentre que la producció es referia a l'aprenentatge d'una llengua per part dels fills dels qui ja no la parlaven.

Hizkuntza-ugaltzearen eta -ekoizpenaren prozesuek zerikusi argia dute Txepetxek hizkuntzaz jabetzeko aipatzen zituen ibilbide naturalarekin (familian eta komunitatean gauzatzen dena) eta kulturalarekin (nagusiki eskola bidez garatzen dena) (Sánchez Carrión, 1991).

Soziolinguistikari tradizioz familiar garrantzi berezia eman izan zaio hizkuntzak geroratzeko prozesuen azterketan. Baina Paula Kasaresek argitzen digun bezala, familiak ez beste eragileek ere zerikusi erabakigarria izan dezakete haur eta nerabeen hizkuntza-sozializazioaren prozesuan, eta prozesu hori ez da bizitzaren lehen urteetara mugatzen (2014). Veltmanek ikertu zuenez, gutxiengoan dagoen komunitateetan gertatu ohi diren ordezkapen-prozesuak bizitzaren zikloari eta, beraz, adinari lotuta gauzatu ohi dira (1983a: 20-23). Quebeceko eta Estatu Batuetako komunitate ez-anglofonoak aztertuta, Veltmanek ikusi zuen haurren jarduna bat zetorrela hasieran etxean jaso zuten lehen hizkuntzarekin, baina haurra munduratu ahala (auzoan eta eskolan lehenik, lan munduan ondoren) gero eta gehiago jotzen duela hiztunak bere

---

<sup>111</sup> Eztabaidagai da hizkuntza-egoeran hedabideek egunerokotasunean zenbateko eragina eta garrantzia izan duten. Honela adierazten du Vilak katalanen komunitatean gaztelaniazko telebistaren eragina (Vila, 2012: 19):

Si abans de la televisió els catalanoparlants només podien accedir a un coneixement parcial del castellà, basat sobretot en l'escola, la literatura i els contactes més o menys ocasionals amb parlants d'aquesta llengua, després de la irrupció de la televisió, els catalanoparlants no és que comptin amb un membre de família castellanoparlant a la sala d'estar a casa seva: de fet, el que tenen a casa és l'univers conegut doblat al castellà, la qual cosa els dona un accés inimaginable a tota la gamma de varietats i registres d'aquest idioma, i això fa que puguin familiaritzar-se amb total comoditat i de manera insensible tant amb el registre formal dels jutges com amb l'argot de la marginalitat, el llenguatge de la intimitat sexual o els discursos parlamentaris. I això es nota no sols en el domini del castellà de les generacions actuals, infinitament millor del que havia estat mai en la història, i en l'impacte d'aquesta llengua en tots els registres, fins i tot els més privats, damunt del català.

<sup>112</sup> Hona hemen *hizkuntza ugaltzea* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren* arabera (UZEI, 2010: 39):

- Gaztelaniaz: reproducció de la llengua.
- Frantsesez: reproduction de la langue.
- Ingeleseaz: language reproduction.

inguruneko “hizkuntza nagusira”. Testuinguru horretan, bizitzan egin ahal diren ibilbide jakinek ondorio argiak izango dituzte hiztunaren erabilera-ohituretan (eta baita haren hizkuntza-gaitasunean ere). Transmisioa, hortaz, ez du ziurtatzen lehen urteetan etxean haurrekin egiten den erabilerak. Honela ekartzen du gurera gogoeta-ildo hori Mikel Zalbidek (2016: 34):

Etxeko transmisioa mesede handia da ahuldutako hiztun-elkarteetan: osasun onekoetan baino funtsezkoago ere bai, hortik kanpora lagungarri meharra baitu belaunez belauneko jarraipen-bideak. Altxor preziatua izanik ere, etxeko transmisio hori ez da, ahuldutako hiztun-elkarteetan, belaunez belauneko jarraipenaren (bbj) berme: lagungarri handia eta funtsezko abiaburua da sarri, baina ez da jarraipen hori segurtatzeko lain.

Transmisio arrakastatsua gako erabilera izanik, haurraren bizitzan familiaz beste eragile sozializatzaile batzuek ere (kaleak, lagun-giroak, eskolak...) indarrez eragingo dute transmisioan (Zalbide, 2016: 33):

Etxeaz gainera auzo-giroak eta kaleak, lagunarteak, eskolak, kirolak eta aisialdiak, lan-esparruak eta, oro har, sozializatzeko edo gizarteko kide bihurtzeko prozesuan parte hartzen duten eragileek erabakitzen dute bere osoan, ez etxeko lehen urteetako mintzajardunak soilik, belaunez belauneko jarraipena edota mintzaldaketa gertatuko den. Maiz suertatzen da ahuldutako hiztun-taldeetan, etxean hizkuntza propioan egiten ikasi arren etxetik kanpora beste hizkuntza bat nagusi izatea eta neska-mutilek, adinean aurrera egin ahala, etxean ikasitako ama-hizkuntzatik beste horretara jauzi egitea: bai helduekin jarduterakoan eta bai, une batetik aurrera, beraien artean.

Azpimarratzekoa da hizkuntza ahuldua sozialki ahul dagoen eremuetan, etxeko lehen urteetako erabilera ez dela nahikoa izango belaunaldiarteko transmisioa ziurtatzeko, ezta etxeko erabilera horri hizkuntza gutxituan eskolatzea gehitzen badiogu ere (Zalbide, 2016: 34):

Seme-alabak hizkuntza horretan (“D ereduan”) eskolatzea ere ez da aski, gurea bezala ahuldutako hiztun-elkarteetan, ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio-jarraipena segurtatzeko. Are gutxiago etxetik erdaldun diren haurrak adin batetik aurrera, eguneroko jardun arruntean, euskal hiztun bihurtzeko.

### **3.6.3. Erabilera ezinbestekoa da transmisioa gerta dadin. Baina transmisioa erabilera baino zerbait gehiago ere bada**

Praktikan, erabilera molde bat da nagusiki transmisioa: hizkuntza entzun eta erabili egin behar da ikasteko. Txepetxek dioen bezala, erabilerarik gabe guztiz ezinezkoa baita transmisioa (1991: 55):

Para orientar la percepción lingüística hacia una lengua concreta el niño necesita estar expuesto a un uso lingüístico suficiente, las lenguas compiten entre sí en el uso y sólo aquella o aquellas que alcanzan la proporción suficiente de uso social son interiorizadas como nativa(s) por él.

Baina transmisioa hizkuntza ikastea ahalbidetzen duen erabilera maila ezinbesteko hori baino zerbait gehiago ere bada. Transmisio-prozesuan hizkuntzekiko jarrerak eta

erabilera-arauak ere barneratzen baititu haurrak. Berdin gertatzen da transmisioa (eta hizkuntza-ugaltzea) eteten denean ere: fenomeno konplexua da, bertan txirikordatzen baitira gaitasunarekin, ideologiek, hizkuntzaren beraren egiturarekin eta hizkuntza-erabilerekin zerikusia duten alderdiak (Ruiz et al., 2001: 244). Iñaki Martínez de Lunak azaltzen duen bezala (2016b: 34):

Familia bitartez jasotako hizkuntzaren transmisioa, lehenengo sozializazioaren atala den aldetik, hizkuntza ikaste hutsa baino askoz gehiago izan ohi da (...) Alderdi kognitiboko hizkuntza-gaitasuna ez ezik, osagai identitarioak zein afektiboak ere helarazten zaizkie sozializatuak izaten ari diren hurrei; hala nola balioak, ideologia, sentimenduak, emozioak eta abar. Horrezaz gain, ematen zaizkie familia barruko zein -familiaren bitartez eskuratutako- kanpoko harreman-sareak. Hau da, euskarazko hitzun-komunitate bateko izaera zein sentimendua. Beraz, hizkuntzari lotuta doazkion gizatalde baten kultura eta beste hainbat osagai transmititzen zaizkie. Egile batzuen ustez, hizkuntza bitartez helarazitako munduaren ikuspegi propioa ere bai.

#### **3.6.4. Hizkuntza-sozializazioaren ikuspegia**

Arreta nagusiki gurasoengandik seme-alabenganako geroratzean jarri izan duen hizkuntza-transmisioaren ideiarekin aurrean, gaia ikuspegi zabalago batetik landu izan da hizkuntzaren sozializazioaren ikerketa arlotik, Paula Kasaresek bere tesian azaltzen digun bezala (2014). Ikuspegi horretatik, eragile sozializatzaileen ugaritasuna eta askotarikotasuna azpimarratzen da. Eta, horretaz gain, eraginaren norabidearen aldeakartasuna ere zalantzan jartzen da; hots, heldu-haur norabide bakarraren ordez, haurren rol aktiboa azpimarratzen da, horrek dituen ondorioekin (Kasares, 2014: 51):

Hizkuntza sozializazioaren izaera elkarreragileak gainditu egiten du hizkuntza transmisioaren ideia, hau da, goitik beheko eta noranzko bakarreko (gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik hurrengana) prozesua izatearena. Ikusmolde honetan, haurren hizkuntza sozializazioa noranzko bakarreko prozesutako ikusi beharrean, familiaren elkarrekintzen sare dinamikotako ikustea erabilgarriagoa da. Izan ere, gurasoek haurren hizkuntza jarduerak eta jarrerak eratu dituzte, baina familiaren "hizkuntza ekologian" haurrak eragile dira objektu baino gehiago.

#### **3.6.5. Familia barruko hizkuntza-sozializazioaren azterketa demolinguistikatik**

Zentsu eta inkesta soziolinguistikoetan toki aipagarria izan dute hizkuntzaren transmisioarekin lotutako alderdiek, bereziki gurasoengandik seme-alabetara egiten denak. Zehazki, eragiketa horien galdetegiak eta emaitzen txostenak aztertuta, argi ikusten da lehen hizkuntza (H1) edo ama-hizkuntza demolinguistikari gehien aztertu izan den aldagaietako bat dela. Aldagai horren definizio operatiboa ez dator guztiz bat herrialde eta eragiketa guztietan. Oro har, dena den, esan daiteke aldagai horrek zera jasotzen duela: hitzuntak zein hizkuntzatan ikasi zuen hitz egiten, edo etxean lehen urtetan zein hizkuntzatan hitz egiten zuen. Informazio hori jasotzeko galderak ohikoak dira han eta hemengo zentsu eta Inkesta Soziolinguistikoetan, eta galdera horien emaitzak zabal aurkeztu ohi dira emaitzen txostenetan. Horrela egiten da, besteak beste, Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoan eta Hegoaldeko zentsu eta Mapa

Soziolinguistikoetan, aurrerago ikusiko dugun bezala. Kanpoko adibide batzuk aipatzearen, lehen hizkuntzari buruzko datu eguneratuak aurkitu ditugu Quebecen eta Kanadan (Statistique Canada, 2018), Katalunian (De Rosselló, 2018: 83; Generalitat de Catalunya, 2019: 12; Flors-Mas, Sorolla, Pradilla eta Vila, 2021), Balear uharteetan (Defior, 2018: 59) eta Galizian (IGE-Instituto Galego de Estadística-, 2019c). Liebersonek azaltzen duen bezala, lehen hizkuntzarena aldagai garrantzitsua da demolinguistikan (aldagai estrukturala ere esan izan zaio), hizkuntza bateko hiztun taldearen bilakaera aztertzerakoan oso kontuan hartu beharrekoa (1980: 19).

Hiztun multzo baten lehen hizkuntzari buruzko datuak bere horretan aztertzeaz gain, ustiatze interesgarriak egiten dira hiztunen H1 eta euren gurasoen profil soziolinguistikoa (hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza) aintzat hartuta. Tankera horretako ustiatzeek guraso/sem-alaba transmisio-fenomenoetan sakontzeko modua ematen dute. Ikuspegi horretan txertatzen da, zeharo, Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoak transmisioaren gaia lantzeko hartu duen bidea, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Horrekin batera, Inkesta Soziolinguistikoetan, familia-sareko erabilera-ohituretan sakondu izan da familiako transmisioaren gaia aztertzeko, batez ere inkestatuak bere gurasoekin erabiltzen duen/zuen hizkuntza eta bere seme-alabekin darabilena alderatuz. Hainbatetan, aitona-amonekiko erabilerari ere erreparatzen zaio azterketa berean. Oro har, demolinguistikan ontzat ematen da hiztunaren errealitatea bere gurasoenarekin alderatzea jarraipena edo ordezkapena gertatzen ari den aztertzeko (Lieberson, 1980: 16-17). Ikuspegi hori lantzen da, besteak beste, Katalunia, Balear uharte eta Galiziako Inkesta Soziolinguistikoaren emaitza-txostenetan (González et al., 2008; Gomila, 2018; Torres, 2018; Generalitat de Catalunya, 2019;).

Familia bidezko transmisioa aztertzeko orduan, aipatutakoez gain, hainbat adierazle sintetiko ere landu izan dituzte ikerlariak. Katalunian, esaterako, transmisioa lantzeko hainbat indize interesgarri landu dituzte, guraso eta seme-alabekiko erabilera-datuetan oinarrituta: *Índex de transmissió lingüística* (ITI) delakoa<sup>113</sup>, Joaquim Torresek proposatua; *Índex de Canvi Lingüístic* (ICL), Miquel Strubellek proposatua; eta *Vila indizea* (Strubell, 2009; Torres, 2009; Pradilla eta Sorolla, 2015: 17-18; Torres, 2018). Torres indizean oinarrituta, Galiziarako moldaketa interesgarriak egin zituzten, bestalde, Loredok eta Monteagudok (2017: 103-104) eta Galiziako egoera Herrialde Katalanekin alderatu (2017: 111-112). Wickströmek (2005), bestalde, eredu matematiko bat proposatuko du bi hizkuntza dauden egoeretan bikotekideen profilen arabera transmisioaren fenomenoaz aztertzeko.

### **3.6.6. Gainerako eragile sozializatzaileen eraginaren azterketa demolinguistikan: eskola eta komunitatea**

Bai lehen hizkuntzak eta bai hiztunek euren gurasoekiko eta euren seme-alabekiko dituzten erabilera-ohituren azterketak familia barruko transmisioaren adierazle garrantzitsuak eta esanguratsuak dira. Alde horretatik nahiko osatua azaltzen zaigu demolinguistikaren panorama. Eta egia da, zeharka bada ere, etxeko ohiturak, hein

---

<sup>113</sup> Honela definitzen da indize hori (Torres, 2009):  $ITIC = (\% \text{ d'ús prioritari de català amb els fills} - \% \text{ d'ús prioritari de català amb els progenitors}) / 100$ .

batean, zerikusia duela hizkuntzak etxetik kanpo duen tokiarekin, Kanadako frantses komunitateaz ari dela Castonguayk adierazten duen bezala (2005b: 16):

En autant que les phénomènes de persistance et de substitution linguistiques dans l'intimité du foyer sont tributaires de l'utilité et du statut d'une langue à l'extérieur de la maison (éducation, travail, consommation, loisirs), l'indice du français dans la sphère privée nous renseigne également sur sa vitalité dans le domaine public.

Alabaina, familia-giroko erabilerari buruzko aldagaiak ez dira hizkuntza-sozializazioaren fenomeno osoaren adierazle hizkuntza ahulduetan, adierazle partzial baizik. Lehenago aipatu ditugu Kasares, Veltman eta Zalbideren gogoetak, eta horiek zeharo baldintzatu beharko lukete demolinguistikatik hizkuntza-sozializazioari buruz egin beharreko hurbilpena. Hasteko, H1 eta guraso/semi-alaben arteko erabilera ohituraz gain, beste errealitate batzuk ere aintzat hartzeko eskatuko liguke horrek: komunitateko hizkuntza, eskolako hizkuntza, eta abar. Eta ondoren eragile horien interakzioa aztertu beharko litzateke. Tankera horretako hurbilpen eta aipamen gutxi aurkitu dugu, hala ere, kontsultatu dugun literatura demolinguistikoan, eskolaren eraginaren salbuespenarekin. Hizkuntza gutxituaren aldeko eskola-ereduak indarrean jarri izan diren lurraldeetan ohikoak dira eskola eta hizkuntza elkarrekin lantzen dituzten ikerketa demolinguistikoak, nahiz eta askotan ez diren aurkezten transmisioaren edo sozializazioaren izenpean.

Teorikoen arabera, eskolak bezainbesteko eragina edo are handiagoa du komunitateak eta kale-giroak, baina hori dezente gutxiago ikertu da. Eta eragile guztien arteko interakzioaren inguruko ikerketa demolinguistikorik ere ez dugu aurkitu.

### **3.7. HIZKUNTZA-BILAKAERA**

#### **3.7.1. Hizkuntzen ezagutza eta erabilera-ohiturak aldatu egin daitezke bizitzan zehar**

Hiztun batek zenbateraino ezagutzen dituen hizkuntzak eta hiztun horrek hizkuntza bat edo bestea zein neurritan erabiltzen duen, datu aldakorrak izan daitezke bizitzako une batzuetan eta besteetan. Aldakortasun hori ikertzea funtsezkoa da ordezkatze- eta indarberritze-prozesuak aztertzeke orduan.

Komunitate batean denboran zehar erabilera-ohituretan gertatu diren aldaketetara hurbilpen bat egiteko modu bat izan ohi da une jakin batean erabilera-ohiturak hiztunen adinaren arabera aztertzea, zaharrenen ohiturak iraganarekin lotuz eta gazteenen erabilera orainaldiarekin eta etorkizunarekin. Erreferentzia klasiko bat aipatuz, Ipar Amerikako hainbat hiztun-komunitate gutxitutako dinamika aztertuta, Veltmanek ondorioztatu zuen bizitzaren zikloari lotutako hainbat aldaketa esanguratsu gertatzen direla hiztunen bizitzan. Orokorrean, nerabezaroan neurri handi batean jatorrizko hizkuntzaren erabilera asko apaltzen zen, lan-munduan txertatzearekin batera are gehiago... Adin batetik aurrera, berriz, egonkortu egiten zen hizkuntza gutxituaren erabilera (Veltman, 1983a: 21). Ildo beretik, nahiko ugariak dira gazte eta nerabeen hizkuntza-ohituren aldaketak ikergai dituzten lanak (Pujolar, González eta Martínez, 2011; Altuna, 2015; Vila, Ubalde, Bretxa eta Comajoan, 2018 Martínez de Luna eta Suberbiola, 2020).

### 3.7.2. Hizkuntza-bilakaeraren azterketa demolinguistikatik

Gauzak horrela, adinarena funtsezko aldagai askea da ikerketa demolinguistikoan. Oso kontuz ibili beharra dago, ordea, adinkako datuek belaunaldien artean erakusten dituzten ezberdintasunak zuzenean ordezkapen- edo indarberritze-prozesu gisa interpretatzerakoan. Demolinguistikako autoreek adinaren arabera aldeak aztertzerakoan zuhurtziaz jokatzeko eskatzen digute, eta nabarmentzen dute tentuz aztertu behar dela adinaren arabera ikus daitezkeen aldeak aldaketa historiko baten ondorio edo bizitza-zikloaren ondorio izan ote daitezkeen (Lieberson, 1980: 13).

De Vriesek dioenez, ikertutako hiztunen hizkuntza-portaera bizitzako zenbait unetan zuzenean jasoko duten luzetarako ikerketak lirakeke (*panel studies*) hizkuntza-ordezkapena aztertzeko bitartekorik egokienak (De Vries, 1987: 31). Galesen, adibidez, zentsuen luzetarako azterketen bidez, galesera *ahaztu* dutenak eta *ikasi* dutenak aztertu izan dira 10 urtekako epean. Azterketa horren arabera, gaitasunaren bilakaera-prozesuak ez dira ezohikoak, eta hiztunen multzo aipagarriari eragiten diete (Jones, 2012: 63).

Between the 1971 Census and the 1981 Census, 12.8% of those who said in 1971 that they spoke Welsh were 'lost' in the sense that they said in 1981 that they did not speak Welsh. The corresponding percentage between 1981 and 1991 was 13.8% and between 1991 and 2001 it was 16.6%. Thus, according to this measure, attrition was more common in 2001.

Galerarik handienak, hortaz, 1991-2001 azken hamarraldi horretan gertatu ziren, nahiz eta txosten berean esaten zaigunez, gehiago izan omen ziren irabazitako hiztunak (hizkuntza ikasi zutenak) galdu zutenak baino 65 urtetik beherako adin-tarte guztietan.

Horrelako iturriak oso urriak dira, ordea, eta gabezia hori inkestetan bizitzako hainbat garaitako erabileraz galdetuta estal daiteke modu onargarrian, De Vriesen beraren arabera (1992: 218). Horrelako informazioa ere ez da, egia esan, oso ugaria. Eskozian, adibidez, haurtzaroan eta nerabezaroan euren gurasoekiko izandako erabilerari buruz galdetu izan zaie 15 urteko nerabeei inkesta bidez (Ó Giollagáin et al., 2020: 168). Euskal Herrira etorrita, Gasteizko Olabide ikastolako ikasle ohien artean egindako ikerketan euren hizkuntza-bilakaera aztertu zen; hauxe emaitza: "gehienek errazago hitz egiten dute gaztelaniaz euskaraz baino, eta gutxiengo handi batek (%12k) euskaraz jarduteko gaitasunaren zati bat galdu du eta, gaur egun, elebidun hartzailea da" (Aizpurua, 2006: 139). Espazioak, garaiak eta bizitzakoaldiak alderatzen dira ikerketa horretan. Nolanahi ere, aldakortasun horren garrantziaren berri ematen digute datu horiek<sup>114</sup>.

### 3.7.3. Hizkuntza-bilakaera: haur txikiak ginen garaitik gaur egun arteko bilakaera

Guk aztertu ditugun zentsu eta Inkesta Soziolinguistikoen galdera sortetan ia ez dugu aurkitu, datu-bilketa egiten den uneaz gain, elkarrizketatuen bizitzako beste garai batzuetako ezagutza eta erabilerari buruzko galderarik. Salbuespen aipagarri batekin:

---

<sup>114</sup> Ikuspegi longitudinala edo luzetarakoa lantzen duen beste ikerlan interesgarri bat Katalunian aurkitu dugu, bertako nerabeen hizkuntza-ohituren aldaketari buruz egindakoa (Vila et al., 2018).

ikerketa demolinguistiko askotan hiztunei euren lehen hizkuntzari buruz galdetzen zaie. Eta lehen haurtzaroko ezagutza eta erabilera inkesta egin den unekoekin alderatzea izaten da, oro har, *hizkuntza-bilakaera* izenburupean aztertu ohi den alderdia.

*Soziolinguistika Hiztegiaren arabera, Hizkuntza-bilakaera*<sup>115</sup> esaten zaio “hiztunak, lehen hizkuntzatik hasita, gerora ikasi edo erabiltzen dituen hizkuntzen arabera izan duen bilakaerari” (UZEI, 2010: 39). Definizio horren barruan, bi adiera posible biltzen dira: batetik, haur txiki garaian ikasitako hizkuntza(k) alderatu egin ditzakegu inkestari erantzuteko unean daki(zki)gun hizkuntzekin. Bestetik, haur txikitako erabilera *gaur egungoarekin* alderatu dezakegu.

Aurrerago 5.6. puntuan ikusiko dugun bezala, euskal demolinguistikak bi adiera horietan lehenari heldu dio eta lehen hizkuntza egun dakizkigun hizkuntzekin alderatzearen bidez landu izan du hizkuntza-bilakaeraren gaia orain arte. Adiera horretan txerta dezakegu gurean zentsuetako datuekin landu izan den *BILA hizkuntza-bilakaeraren indizea*. Eta ikuspegi horretan koka ditzakegu, halaber, 3 urte baino lehen etxean hitz egiten zen hizkuntza egungo euskarazko gaitasunarekin alderatuta ISLetan lantzen diren *euskararen irabaziak eta galerak*. Euskal Herrian ez ezik, Galesen ere lan egin izan da lehen hizkuntzaren eta ezagutzaren alderaketarekin (Jones, 2012: 63).

Nazioartean, ordea, badirudi arruntagoa izan dela goiko definizioako bigarren adierari heldu eta bi unetako erabileraren alderaketaren bidez lantzea hizkuntza-bilakaeraren gaia. Zehazki, bizitzako lehen urteetako erabilera-ohiturak –horixe jasotzen baitu lehen hizkuntzak– inkesta egin den uneko erabilera-ohiturekin alderatuta. Katalunian<sup>116</sup>, adibidez, hiztunen lehen hizkuntza eta egungo erabilera uztartuz, *grups sociolingüístics* edo *grups d’ús lingüístic* deituriko hiztunen tipologia lantzen dituzte, T.3. taulan ikus daitekeen bezala (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 31; Vila eta Sorolla, 2018: 166). Hots, lehen hizkuntza eta erabilera orokorraren maila, *índex d’ús de català parlat-IUP10* delakoaren bidez neurtua, uztartzen dira hizkuntza-bilakaerari buruzko adierazle sintetiko horretan. Katalanaren erakarpen-indarra aztertzeko, bestalde, lehen hizkuntza identifikazio-hizkuntzarekin alderatu izan dute. Horrela, bi aldagai horien alderaketan oinarritu izan dute *fenomen de látracció lingüística del català* delakoa Kataluniako ISLen azterketetan<sup>117</sup>.

---

<sup>115</sup> Hona hemen *hizkuntza-transmisio* terminoaren ordaina, *Soziolinguistika Hiztegiaren arabera* (UZEI, 2010: 41):

- Gaztelaniaz: es transmisión lingüística.
- Frantsesez: transmission linguistique.
- Ingelesez: linguistic transmission.

<sup>116</sup> Kataluniako 2008ko inkesta soziolinguistikoan ere landu zuten uneko erabilera zein zen hiztunen lehen hizkuntzaren arabera, eta hortik abiatuta, hizkuntzaren jarraipenari eta ordezkapenari buruzko irakurketak egin zituzten (Sorolla eta Vila, 2011: 106-109).

<sup>117</sup> Gai hori lantzeko, halaber, H1 eta identifikazio-hizkuntza uztartzen dituen honako sailkapen hau lantzen dute (de Rosselló, 2018: 87):

- Mantenen el català
- Mantenen el castellà
- Mantenen el català i el castellà



**T.3. TAULA: “GRUPS D’ÚS LINGÜÍSTIC” DELAKOAK NOLA OSATZEN DIREN KATALUNIAKO INKESTA SOZIOLOGISTIKOAN.**

**Taula 7.3.** Classificació bàsica dels grups d’ús lingüístic segons la llengua inicial i l’ús en deu àmbits

	Llengua inicial			
	Català	Català i castellà igual	Castellà	Altres llengües o combinacions
Mitjana d’ús en deu àmbits	Sempre (1)			
	Molt o bastant (0,67-0,99)	Usa predominantment el català i té origen lingüístic català	Usa predominantment el català i té origen lingüístic no català	
	Intermedi (0,33-0,66)	Alterna l’ús del català i el castellà		
	Poc o molt poc (0,01-0,32)	Usa predominantment el castellà i té origen lingüístic català	Usa predominantment el castellà i té origen lingüístic castellà	Usa predominantment altres llengües i el castellà, i té origen lingüístic al·loglot
Mai (0)				

*Iturria: Les llengües en els usos interpersonal i en els àmbits de consum i serveis (Vila eta Sorolla, 2018: 166).*

Galizian ere aztertu izan da lehen hizkuntzaren eta inkesta egin izan den uneko erabileraren arteko alderaketa (González et al., 2008: 42). Galesen ere alderatu izan dute lehen hizkuntza eta egungo etxeko erabilera: txikitan etxean Galesera jaso zutenen zati handi batek ez du gaur egun hizkuntza hori erabiltzen etxean: “Fewer than half of those who have learnt to speak Welsh at home, whether fluent or not fluent, always or almost always use Welsh at home” (Jones, 2015: 68).

Europako testuingurutik kanpo, Hegoafrikan ere aztertu izan da lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren arteko harremana, eta horretan oinarrituta egin izan da hizkuntza-ordezkapenaren azterketa (Deumert, 2010). Jarraipen- eta ordezkapen-prozesuen azterketa hizkuntza-bilakaeran oinarritzeko orduan, ezinbesteko erreferentzia dira Kanada eta Quebec.

### **3.7.4. Hizkuntza-bilakaera, jarraipen- eta ordezkapen-prozesuen adierazle gisa**

Kanadan eta Quebec-en, izan ere, tradizio handia dago, dinamika demolinguistikoa deskribatzeko orduan, zentsuko datuetan oinarrituta lehen hizkuntza *egungo* hizkuntzen ezagutzarekin eta etxeko erabilerarekin batera aztertuz, ingurune bakoitzean hizkuntzak duen bizi-indarra neurtzeko (Marmen eta Corbeil, 1999; Castonguay, 2005a; Marmen, 2005; Perrot, 2018; Castonguay, 2019). Bi garaietako erabileren arteko alderaketa zehazki (lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren artekoa) funtsezkoa da hizkuntza-jarraipena eta -ordezkapena aztertzeko Quebec eta

- Mantenen altres llengües
- Adopten el català (sol o compartit)
- Adopten el castellà des del català (sol o compartit)
- Adopten el castellà des d’altres llengües (sol o compartit)
- Adopten altres llengües (soles o compartides)
- Altres situacions

Kanadako tradizio soziolinguistikoan (Lavoie, Paez eta Office québécois de la langue française, 2019: 10):

L'étude des phénomènes de persistance et de substitution linguistiques se fait habituellement par la comparaison de la langue maternelle des individus à la ou aux langues que parlent ces derniers à la maison. Ainsi, les personnes qui ne parlent plus leur langue maternelle à la maison ont effectué une substitution linguistique, alors que celles qui continuent de la parler se trouvent dans une situation de persistance. La persistance est considérée comme complète lorsque la langue maternelle est la seule langue parlée à la maison, alors qu'elle est dite partielle lorsque d'autres langues sont parlées à la maison en plus de la langue maternelle.

Berez, esan beharra dago alderaketa horrek ematen digun informazioa mugatua dela. Hiztunen bizitzako bi une besterik ez da alderatzen, eta hizkuntza-aldaketa edo transferentzia gertatu den kasuetan ez dakigu ez noiz eta ez zergatik gertatu den aldaketa hori (Termote, 2019). Informazio hori mugatua izanda ere, askotan eskura dugun bakarra da, eta demolinguistikako ikertzaileek bitarteko tekniko-metodologikoak zorrotz egin dituzte informazio horri ahalik eta etekinik handiena ateratzeko (Lachapelle eta Henripin, 1980: 121). Bereziki interesgarriak iruditu zaizkigu hizkuntzen bizi-indarraren adierazleekin Quebecen eta Kanadan hizkuntzen egoerari buruz Castonguayk beste hainbat ikertzaileekin elkarlanean egindako azterketak (1974; 1982; 1987; 2002; 2005a; 2005b; 2019; 2020; 2021; 2022). Zentsuko datuetan oinarrituta, besteak beste honako adierazle hauek landu izan dituzte Quebecen:

- **Hizkuntzen jarraitutasuna eta erakarpena** (*persistence et attraction linguistiques*) hizkuntza bakoitzean etxeko erabileraren datuei lehen hizkuntzari buruzkoak kenduta kalkulatzen dira<sup>118</sup> (Castonguay, 2005a: 8).
- **Asimilazio-tasa garbia** (*Taux net d'assimilation*) lehen hizkuntza jakin bat duten hiztunen multzoan, etxeko erabileran hizkuntza hori nagusiki erabiltzen ez dutenek osatzen duten ehunekoa da (Castonguay eta Marion, 1974: 19).
- **Erakarpen-tasa garbia** (*Taux net d'attraction*): euren lehen hizkuntza izan gabe etxean X hizkuntza erabiltzen dutenek etxeko hizkuntza X dutenekiko osatzen duten ehunekoa (Castonguay eta Marion, 1974: 20-21).
- **Hizkuntza bakoitzaren bizi-indarraren indizea (edo jarraitutasunaren indizea)**: etxeko erabilera lehen hizkuntzarekiko zatituta kalkulatzen da; 1,00k jarraitutasuna adieraziko luke, 1,00tik gorako kopuruak bizi-indar handia erakutsiko luke eta 1,00tik beherakoak bizi-indar txikia (Castonguay, 2005a: 11). Formula bera aplikatuta, **hizkuntza-jarraipenaren tasa** (*Taux de continuité linguistique, TCL*) gisa ere izendatu izan da indize hori (Floch et al., 2018: 39). Horrela definitzen du Castonguay berak beste artikulu batean (Castonguay, 2005b: 15):

---

<sup>118</sup> Logika berdinari erantzuten dion formula aurkitu dugu Katalunian ere, lehen hizkuntza eta identifikazio-hizkuntza harremanetan jarrita (IDESCAT -Institut d'Estadística de Catalunya., 2009a: 71):

*Índex d'atracció del català = [% català com a llengua d'identificació + (% català i castellà com a llengua d'identificació / 2)] – [% català com a llengua inicial + (% català i castellà com a llengua inicial / 2)]*

La vitalité d'une langue en contact avec d'autres est fonction de sa force d'attraction auprès des locuteurs natifs des autres langues ainsi que de la persistance linguistique de ses propres locuteurs natifs. (...) Il suffit à cette fin de diviser la population parlant le plus souvent le français à la maison par celle ayant le français comme langue maternelle.

Etxeko erabilerarekin ez ezik, beste eremu batzuetakoekin ere harremanetan jarriko dute Quebec eta Kanadan lehen hizkuntza. Horrela, **hizkuntza-jarraipenaren tasa lantokian erabilitako hizkuntzaren arabera** kalkulatu dute (*Taux de continuité linguistique selon la langue parlée au travail*) hizkuntza bat lantokian darabiltenen kopuruak hizkuntza hori lehen hizkuntzatzat duten hiztunen artean zatituta (Floch et al., 2018: 68).

- **Hizkuntza-ordezkapena** aztertzeko, lehen hizkuntza eta etxean erabiltzen den hizkuntza bat ez datozen hiztunen kopuruak landuta, **ordezkapen garbia** kalkulatu daiteke hizkuntza-pare bakoitzerako (Castonguay, 2005a: 15; Sabourin eta Bélanger, 2015: 772). Honela kalkulatu dute zehazki: "Adoption de l'anglais comme langue d'usage par des francophones, moins adoption du français comme langue d'usage par des anglophones. Une valeur négative indique une francisation nette de la population de langue maternelle anglaise" (Castonguay, 2005a: 15). Antzeko lanketa egin izan da lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza gurutzatuta, hizkuntza-transferentzien azterketaren bidez, transferentzia erabatekoak eta partzialak kontuan hartuta eta hizkuntza bakoitzarentzat azken emaitzak kalkulatu (CLF-Conseil de la Langue Française, 1992: 8).

Horrela landutako datuen irakurketa zuzena egin ohi dute (Sabourin eta Bélanger, 2015: 775):

Une substitution linguistique est définie comme étant le fait de parler le plus souvent à la maison une langue différente de sa langue maternelle. La persistance linguistique représente la proportion d'une cohorte n'ayant pas effectué de substitution linguistique.

Tradizio horretan, hizkuntzek gizartean duten indarraren berri emango digute jarraipen- edo ordezkapen-prozesuek (Sabourin eta Bélanger, 2015: 772):

Pour se comprendre mutuellement, les individus de langues différentes doivent adopter une langue commune de communication: c'est alors généralement la langue la plus utile ou la plus prestigieuse qui l'emporte, soit la langue la plus répandue dans la population ou la langue des institutions et du commerce.

Katalanek ere hizkuntza-bilakaera aztertzeko kanadarren norabide berean doazen hainbat koefiziente erabiltzen dituzte, lehen hizkuntza eta ohiko hizkuntza (*llengua habitual*) harremanetan jarriz (Vila, 2009c: 45):

- Erakarpen-koefizientearekin (*coeficient d'atracció*), erakarritako hiztunak erakarri ahal ziren guztiekiko osatzen duten pisua kalkulatu dute.

- Euste-koefizientearekin (*coeficient de manteniment*), hizkuntza bat lehen hizkuntza izan dutenen artean, erabileran hizkuntza horri eusten diotenen proportzioa kalkulatzeko dute.
- Galera-koefizientearekin (*coeficient de pèrdua*), hizkuntza bat lehen hizkuntza izan dutenen artean, beste hizkuntza erabiltzen dutenen proportzioa kalkulatzeko dute.

Terminologiari dagokionez, Castonguayk dio hizkuntza-bilakaeraz hitz egitea baino zuzenagoa eta egokiagoa dela zuzenean asimilazioaz hitz egitea (1994: 88). *Asimilazio*, *transferentzia* eta *ordezkapen* terminoekin batera, zuzenean *ingelestea* (*anglicisation*) eta *frantsesetea* (*francisation*) hitzak ere erabiliko ditu bere azterketetan. Guk gure lan honetan *hizkuntza-bilakaera* eta *ordezkapen* terminoak hobetsiko ditugu. Ordezkapenaren zentzuaren arabera, halaber, *euskalduntzea* eta *erdalduntzea* terminoak ere erabiliko ditugu.

## 4. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA; EUSKAL HERRIKO ERAGIKETA DEMOLINGUISTIKO NAGUSIAK

Atal honetan, euskal soziolinguistikaren ikuspegi orokor labur bat ematen ahaleginduko gara lehenik. Bigarrenik, Euskal Herriko eragiketa demolinguistiko nagusiak aurkeztuko ditugu: Hegoaldeko Zentsuak (HZ), Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak (HEKN), Inkesta Soziolinguistikoa (ISL) eta haur eta nerabeen erabilerari buruzko eragiketak. Ondoren, bosgarren kapituluan, eragiketa horietan lehenago zehaztu ditugun ardatzak nola lantzen diren aztertuko dugu: nola lantzen den hizkuntza-gaitasuna, erabilera, hizkuntza-sozializazioa, eta abar. Eta seigarrenean, azkenik, egungo euskal demolinguistikaren sintesi-ikuspegia ematen saiatuko gara, eta aurrera begirako hainbat erronka nagusi zehazten.

### 4.1. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA

#### 4.1.1. Ibilbidea

Historia luzea du gurean hizkuntzen egoera sozialari buruzko gogoetak, Mikel Zalbidek azaltzen duenez (2010b: 30). Haren hitzetan, lehenagoko beste hainbat saio gutxietsi gabe, hiru epe lirategi oso kontuan hartzekoak gogoeta soziolinguistikoaren historia landu nahi izanez gero. Lehenik, XIX. mende bukaera<sup>119</sup>; garai horretakoak dira, besteak beste, Hiriart-Urruti, Azkue eta Arana-Goiri. Bigarrenik, 1916-1936 epea (Kirikiño, Eleizalde, Urkixo, Altube, Lizardi, Aitzol, eta abar). Hirugarrenik, XX. mendeko 60ko hamarkada: Parisko Euskal Mundu Biltzarra, Euskaltzaindiaren babespean Arantzazun egindako Euskaltzaleen Biltzarra...

Hortik aurrera, berrikuntza aipagarriak etorri ziren 1970eko hamarkadarekin batera. Hainbat autorek (Hernández, 2010b: 324; Zalbide, 2010b: 31; Juaristi, 2015: 97) aitzindaritza aitortzen diote Sánchez Carrión *Txepetxen El estado actual del vascuence en Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo* lanari (Sánchez Carrión, 1972)<sup>120</sup>. Lehen aldiz informazio kontrastatuaren gainean eraikitzea, Nafarroako 145 herritako informazioa batuz, era sistematikoan landu izatea eta ekarpen teoriko baliotsua egitea aitortzen zaizkio lan horri, zeinak nazioarteko

---

<sup>119</sup> XIX. mende bukaeratik XX. mendearen lehen erdia arteko euskaldunen kopuruen zenbaketak begiratzeko, ikus Intxausti (1990) eta Erize (1997: 253-269)

<sup>120</sup> Garai bertsukoak dira Pedro Irizarrek 1970. urtean herriz herri, bertako parrokoiei galdetuta egin zuen euskal hiztunen zenbaketa, *Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico* aldizkarian argitaratua (1973). Hurbilketa interesgarria izanda ere, erabili zuen metodologiak berme zientifikorik gabe uzten du lan hori, Ruiz Olabuénagaren arabera (1984: 14).

soziolinguistikazko ikerlanen tradizioa ekarri zuen gurera. Lan horretan azaldu zen, bestalde, lehenengo aldiz, gure soziolinguistikak bere egin duen oinarritzko egituratze-markoa, hizkuntzaren egoera soziala aztertzeko hiru zutabe kontzeptualen gainean eraikia: erabilera, gaitasunak eta jarrerak (Zalbide, 2010b: 31). Ez zen hori izan Txepetxek euskal soziolinguistikari egindako ekarpen bakarra. Ondoren etorri ziren lanen artean bereziki azpimarratzekoa da *Un futuro para nuestro pasado* (1991). Lan mardula da, eta eragin handia izan zuen garaiko soziolinguistikan eta euskalgintzan. Zarragak dioenez, Txepetx “izan zen soziolinguistika egituratu berriaren hausnarketak Euskal Herrira ekarri eta euskararen errealitatera egokitu zituena” (2010: 44).

Francisco Franco diktadorea hil ondoren Hego Euskal Herriari eragiten dion trantsizio-prozesuan, plazaren erdira irten zen euskara biziberritzeko beharra. Testuinguru horretan lantzen den soziolinguistikaren motibazio euskaltzale militantea agerikoa da; mugimendu euskaltzaleak eztabaidak objektibatzeko eta egoera ezagutzeko balioko duten informazio eta datuak beharko ditu, ordura arteko gehienak baino prozedura tekniko sistematikoago eta homologatuagoekin lortuak, ahalik eta bermerik zientifikoena izan dezaten (Urla, 1993; Zalbide, 2010b; Juaristi, 2015). Garai eta giro hartan, hainbat lan garrantzitsu argitaratu ziren, hala nola *Euskararen Liburu Zuria* (Euskaltzaindia, 1978) eta *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian* (Euskaltzaindia, 1979). Aipatzekoa da argitalpen horren oinarrian Euskaltzaindiak bultzatu eta SIADECOk egindako ikerketa dugula, eta ikerlan hori jo dezakegula Euskal Herri osoan egindako lehen inkesta soziolinguistikotzat (Juaristi, 2015: 98), nahiz eta 1975. urtean (Irigaray eta Larrañaga, 1996: 25) egindako landa-lana lurraldearen zati batean soilik egin izan eta nahiz eta oso neurri txikiko laginean oinarrituta egon (Ruiz Olabuénaga, 1984: 14).

Zalbidek dioenez, “gerora garapen zabala izan duten azterketa soziolinguistiko askoren ernamuin gertatu ziren lan haiek” (2010b: 39). Aitzindaritza zeregin horretan, azpimarratzekoa da, Txepetxekin elkarlanean askotan, SIADECO elkarteak orokorrean eta Iñaki Larrañaga soziologoak bereziki izan zuten funtsezko zeregina (Hernández, 2010b; Zalbide, 2010b; Zarraga, 2010: 44; Juaristi, 2015).

Jada EAeko autonomia-estatutua onartuta eta instituzionalizatzeko-prozesu berria abian jarrita etorriko zen arestian aipatutakoa baino lagin dezente handiagoz Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 1982. urtean EAEn egindako Inkesta Soziolinguistikoa; inkesta horren emaitzak, 1981eko erroldako datuekin batera, *Euskararen borroka. Oinarritzko inkesta bat: ezagutza, erabilera, jarrerak* liburuan argitaratu ziren (Ruiz Olabuénaga eta Marañón, 1983).

Demolinguistikaren ikuspegitik horiek iruditu zaizkigu garai hartako lanik garrantzitsuenak. Ikerketa gehiago ere egin eta argitaratu ziren, jakina. Soziolinguistika orokorrean hartuta, Zarragak (2010: 45) garrantzi berezia aitortzen dio *Iruñean sortua* izeneko taldeak Getxon hizkuntza minorizatuen soziologiari buruz antolatu zuen biltzarrari, eta ondoren argitaratu zen *Hizkuntza minorizatuen soziologia* liburuari (Ruiz Olabuénaga eta Ozamiz, 1986); hor, “hurrengo urteetako euskalgintzaren norabidea markatu zen” (Zarraga, 2010: 46). Euskal soziolinguistikara hurbildu diren askorentzat, halaber, garrantzitsua izan zen garai horretan Karmele Rotaetxek argitaratu zuen *Sociolingüística* liburua (1990). Urte horretan bertan argitaratu zen, bestalde, *Bat* soziolinguistika aldizkariaren lehen zenbakia.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, bestalde, euskal demolinguistikarentzat garrantzi berezia zuen urratsa egin zen, eta lehen aldiz hizkuntza-gaitasunari buruzko galderak txertatu ziren EAeko 1981eko erroldan<sup>121</sup>. Horrekin, orain arte etenik izan ez duen hizkuntza-egoerari buruzko zentsuzko datu-bilketaren lehen oinarriak jarri ziren. 1981eko datu horien azterketarekin *Atlas lingüístico vasco* argitaratu zen (Ruiz Olabuénaga, 1984), hein handi batean aurrekoaren eta ondorengoaren zubi egin zuen lan garrantzitsua. Hortik aurrera EAeko zentsuek hizkuntzari buruzko datuak biltzen jarraitu dute sistematikoki bost urtean behin; hizkuntza-gaitasunaz gain lehen hizkuntzari buruzko galdera ere txertatu zen 1986ko erroldan eta etxeko erabilerari buruzkoa 1991ko zentsuan. Nafarroa Garaiko zentsuetan ere txertatuko dira hizkuntza-gaiei buruzko galderak: hizkuntza-gaitasunari buruzkoak 1986an eta lehen hizkuntzari eta etxeko erabilerari buruzkoak 1991n.

Laurogeiko hamarkadaren bukaeran eta 90ekoaren hasieran, euskal demolinguistikako beste bi eragiketa nagusiak jarri ziren abian. 1989. urtean Euskal Kultur Batzordeak (EKBk) Euskal Herriko *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa* (HEKN) egin zuen lehen aldiz, eta hortik aurrera 4-5 urtetik behin berri izan da eragiketa demolinguistikoko hori EKB-ren beraren, SEI elkartearen eta Soziolinguistika Klusterraren eskutik. Eusko Jaurlaritzak, berriz, 1991n egin zuen lehen aldiz Euskal Herri osoko *Inkesta Soziolinguistikoa* (ISL). Hortik aurrera, bost urtetik behin berri izan da gure egoera soziolinguistikoa sakon ezagutzeko ezinbestekoa den eragiketa garrantzitsu hori ere. Hiru eragiketa demolinguistikoko nagusi horiek abian jarri izan dituzten erakunde eta elkarteek (EUSTATEk eta NASTATEk, zentsuak; EKBk, SEIk eta Soziolinguistika Klusterrak, erabileraren kale-neurketak; Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Inkesta Soziolinguistikoa) eragiketa horien emaitzak argitaratu izan dituzte, T.6., T.7., T.8. eta T.10. tauletan zehazten ditugun argitalpenetan.

Hiru iturri demolinguistikoko horien ustiatzeetan oinarrituko da gure tesia. Ez dira izan, hala ere, gurean landu diren ikerketa demolinguistikoko aipagarri bakarrak; aurrerago aipatuko ditugu beste hainbat.

#### **4.1.2. Euskal soziolinguistika gaur; hainbat zertzelada**

Itzul gaitezen, eragiketa demolinguistikoez haratago, euskal soziolinguistikaren osotasunezko ikuspegira eta saia gaitezen hainbat ezaugarri funtsezko zerrendatzen. Hasteko, esan beharra dago, oro har, gure soziolinguistika osagai "sozialari" lotuagoa egon izan dela eta dagoela gaur egun hizkuntzari baino, estatusari gehiago corpusari baino (Atkinson, Bengoechea eta de Oliveira, 2010: 342; Martínez de Luna et al., 2013: 27).

XXI. mendeko euskal soziolinguistikak, jakina, ez du era isolatuan lan egiten. Dena den, nazioartean, ingelesez argitaratzen diren soziolinguistikako argitalpenetan, batez ere, toki gutxi eman izan zaie euskal soziolinguistei (Atkinson et al., 2010: 342), eta

---

<sup>121</sup> Euskal Herriko demolinguistikaren historian badago aurrekari urrun isolatu aipagarri bat: euskarazko ahozko gaitasunari buruzko galdera bat txertatu zuen lehen aldiz Bilboko Udalak 1920ko erroldan, bertako zinegotzi abertzaleen eskariz. Galdera dikotomiko bat txertatu zen bertan, eta bere garaian argitaratu ziren datuen arabera, Bilboko herritarren %19k zekiten euskaraz hitz egiten garai hartan (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 95; Aizpuru eta Zarraga, 2011).

nazioartearekin harreman ahula izan du euskal soziolinguistikak, komeni baino ahulagoa (Martínez de Luna, 2015: 247).

Beste ezaugarri bereizgarri bat ere badu gure soziolinguistikak, aurrerago sakonago ikusiko dugun bezala: garapen sendoa izan du demolinguistikaren alorrean. Estatistika bidez hizkuntza-fenomenoak neurtzeko grina hori ez da berri-berria gurean: 1936ko gerra aurreko abertzale eta euskaltzaleen artean jada nabaria zen, eta joera horrek indartsu jarraitu zuen trantsizio garaian, mugimendu euskaltzaleak bultzatuta (Urla, 1993). Horrela, kuantifikazioa bilatzeko eta estatistikak sortzeko joera hori mugimendu euskaltzale garaikidearen ezaugarritzat jo izan da (Urla eta Burdick, 2018: 76):

One of the distinctive and enduring features of the Basque case is that data gathering comes not only from government offices, but also from a plethora of public and private entities, municipalities, and privately contracted language consultancies that undertake surveys as a part of implementing Basque language promotion efforts.

Ondorioz, estatistikek leku bereziki handia omen dute gurean (Urla eta Burdick, 2018: 83):

In the twenty-first century, language normalization in the Basque Autonomous Community is awash with numbers. In addition to the census, the quinquennial Sociolinguistic Survey, and the street survey that cover broad territories, many municipalities and provincial governments collect statistical data on language at a smaller scale for purposes of language planning. The social status and “life” of Basque is told in numbers, in percentages of speakers, enrollments in schooling tracks, categories of competencies, and longitudinal demographic trends. Quantification is an integral part not only of planning, but of virtually any public event, press conference, or meeting to discuss the social status of Basque.

Testuinguru horretan, 90eko hamarkada hasieran hiru eragiketa nagusiak (zentsuak, HEKN, ISL) abian jarri zirenetik zer-nolako bidea egin den ikusita, esan daiteke hizkuntza gutxitu gutxik duela gaur egun eskura horrelako bitarteko multzo aberatsa demolinguistika arloko ikerketan. Gainerakoan, demolinguistikaz haratago, ikuspegia soziolinguistika osora zabalduz, 90eko hamarkadatik aurrera ikerketa-gaiak eta ikuspegi metodologikoak ugaritzen joan dira euskal soziolinguistikan. Ordura arte paradigma positibistara lerratzen ziren lan guztiak, baina garai horretan paradigma hermeneutikoaren sarrera gertatuko da euskal soziolinguistikan, eta metodo kualitatiboan oinarritutako ikerketak lantzen hasiko dira; aurrerago, paradigma kritikotik ere abiatuko dira ikerlanak<sup>122</sup> (Hernández, 2010b; Juaristi, 2015).

Zer-nolako gaiak landu izan ditu euskal soziolinguistikak? Galdera horri erantzunez, orain arte landu diren gaien azterketa egin zuen Juaristik 2013n, eta honako hamazazpi ikerlerro hauek zerrendatu zituen (62-63):

1. Hizkuntza-gaitasuna
2. Hizkuntza-erabilera

---

<sup>122</sup> Teknika kualitatiboak erabiliz aitzindari izan ziren bi lan aipatzen ditu Juaristik (2015: 104): *Giro Urbanoko gazteak eta Euskara* liburua (Lezeta eta San Martín, 1991) eta *Etorkizuna Aurreikusten: Euskal Autonomi Elkarteko gaztetxoaren egoera soziolinguistikoa* txostena (Martínez de Luna, 1995).



3. Hizkuntzen kale-erabilera
4. Gazteak eta hizkuntzak
5. Etxe barneko hizkuntzen transmisioa
6. Hezkuntza-sistema eta hizkuntzak
7. Herri-erakundeak eta hizkuntzak
8. Komunikabide tradizionalak eta hizkuntzak
9. Lan-mundu pribatua eta hizkuntzak
10. Hizkuntza paisaia
11. Soziolinguistika historikoa
12. Hizkuntzekiko jarrerak, motibazioak eta aurreiritziak
13. Hizkuntza politika eta hizkuntza-plangintza
14. Hizkuntza-ukipena
15. Hizkuntza-ekologia
16. Etorrinak eta hizkuntzak
17. Metodologia eta teknikak

Juaristiren arabera, beharrian eta testuinguruaren arabera ikerlerro batzuk sortzen, indartzen edo ahultzen joan izan dira. Hala ere, ikerlerro guztiek ez dute garapen bera izan (2013: 63):

Hizkuntza-aldakortasunari loturiko ikerketek (gaitasuna, erabilera, gazteak eta hizkuntzak, etxeko transmisioa, hezkuntza-sistema eta hizkuntzak, herri-erakundeak eta hizkuntzak, komunikabideak eta hizkuntzak, eta lan-mundu pribatua eta hizkuntzak) eta jarrera eta aurreiritziei loturikoek beste ikerlerroak baino jarraipen handiagoa izan dute.

Guri bereziki interesatzen zaigun gai bat ere aipatzen du Juaristik: euskal soziolinguistikan orokorrean “oso gutxi landu da metodologiaren eta tekniken arloa” (2013: 62). Horren harira, *Bat* aldizkariako argitalpen batzordeak, hainbat gogoeta interesgarri plazaratu zituen 2007-2013 bitarteko 175 ikerketa aztertu ondoren. Horien artean bereziki aipagarriak iruditzen zaizkigu honako hauek: euskal soziolinguistikak dimentsio teorikoa jorratzeko duen joera urria, eta helburu praktikoekin egindako ikerketa aplikatuek duten pisu handia (Martínez de Luna et al., 2013: 30). Laburtuz, bada, hizkuntza-aldakortasunari eta alderdi subjektiboari lotutako ikerketa enpiriko ugari egin izan da gurean, horietako asko aplikatuak, eta horren aldean gogoeta teoriko-metodologiko-teknikoa ez da horrenbeste landu.

Ikerketa zehatzez eta ikerketa-lerro aski sendotuz gain, aipagarriak dira, halaber, euskal soziolinguistikan dihardugunontzat tresna izugarri baliagarriak diren *Soziolinguistika Eskuliburua* (Zarraga et al., 2010), *Soziolinguistika Hiztegia* (UZEI, 2010) eta, 1990. urtean sortu zenetik 2022ko abendura bitarteko 123 zenbakitan mila artikulutik gora<sup>123</sup> argitaratu dituen *Bat soziolinguistika aldizkaria*.

---

<sup>123</sup> Guztira 1.066 artikulua publikatu ditu *Bat soziolinguistika aldizkariak* bere lehenengo 123 zenbaki horietan, aldizkariaren koordinatzaile Belen Urangak gure eskariari erantzunez emandako datuaren arabera.

Eragile ugari hartzen dute parte euskal soziolinguistikaren garapenean. Esanguratsuenetako batzuk aipatzearen, administrazioen artean, funtsezko zeregina betetzen duen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaz gain, Nafarroako Euskarabidea, eta EAE zein Nafarroako estatistika-erakundeak aipatu behar dira (EUSTAT eta NASTAT), besteak beste. Horretaz gain, Euskaltzaindia bera eta Soziolinguistika Klusterra ere eragile garrantzitsuak dira egungo ekoizpen soziolinguistikoa ulertzeko.

Unibertsitate-alorrari dagokionez, berariaz edo zeharka soziolinguistikarekin zerikusia duten ikertaldeen eta ikertzaile partikular ugari euren ikerketa- eta hausnarketa-lana landu dute azken hamarkadotan Euskal Herriko unibertsitateetan. Horrekin loturik, azken urteotan soziolinguistika-gaiak aztertzen dituzten hainbat tesi defendatu izan dira<sup>124</sup>, hala nola, Paula Kasaresen *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belauneko belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*, hizkuntza-sozializazioaren gaietarako ezinbesteko erreferentzia bihurtu zaiguna (2014), Naiara Berasategiren *Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta Euskal-kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak* (2014), Miren Artetxeren *Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak* (2020), Txerra Rodrigezek euskara elkartei buruz egin duena, *30 urte mihigintzan. Euskara elkarteek euskararen biziberritzean izan duten eragina: 1987-2017* (2020) eta Beñat Garaïoren *Euskara eleaniztasunean irakasten duten eskolak aztergai. D ereduko bi eskolaren indarguneak identifikatzen* (2022).

Tesiez gain, ikerketak eta hausnarketak biltzen dituzten ehunka liburu, artikulua eta txosten argitaratu izan dira azken urteotan. Agortzaileak izateko inolako asmorik gabe<sup>125</sup>, aipa ditzagun horien arteko gutxi batzuk, lanak egiten duen ekarpenagatik edo izan duten eragin eta ohiartzunagatik esanguratsuak iruditu zaizkigunak: Mikel Zalbideren "Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka" (2011), *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa* (Zalbide, Joly eta Gardner, 2015), "Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera: Aurrera begirako erronkak" (2016), "Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak" (2019), "Hiztun-elkartea, azal eta mami" (2020); Ane Ortegak eta Estibaliz Amorrortuk beste batzuekin batera egindako *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* (Amorrortu, Ortega, Idiazabal Gorrotxategi eta Barreña, 2009) eta *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak* (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri eta Urla, 2016); Iñaki Martínez de Lunaren "Euskarak duen "Framing" berri baten premia asetzeko proposamena" (2013) eta beste batzuekin batera argitaratutako *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa: EGOD egitasmoa* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016); Patxi Baztarrikaren *Babeli gorazarre: bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra* saiakera (2009); Jon Sarasuaren *Hiztunpolisa: euskaltasunaren*

---

<sup>124</sup> Lehenago ere euskal soziolinguistikan arrasto sakona utzi duten hainbat tesi argitaratu izan dira, hala nola, Txepetxen *Un futuro para nuestro pasado* (1991) eta Erizeren *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza* (1997).

<sup>125</sup> Puntu hau lantzen hasi garenean, gure asmoa izan da azken hamarkadetan ikerketa- eta gogoeta-lan soziolinguistiko aipagarriak egin izan dituzten autoreen zerrenda zehatz samarra osatzea. Horretan hasi gara eta azkar iritsi gara 40 laguneko zerrendara. Zerrenda osatzeko lana inoiz ez bukatzeko arriskuz eta egile aipagarriren bat kanpo uzteko beldurrez, uko egin diogu zerrenda hori osatzeari.

*norabideaz apunteak* (2013); Topalabea taldearen *Berrikasi eta berrikusi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako* (Amonarriz, Mendizabal eta Topalabeako gainerakoak, 2016); Garikoitz Goikoetxearen *Euskara irabazteko bidean* (2016); Joxe Manuel Odriozolaren *Nora goaz euskalduntasun honekin?* (2017); Patxi Juaristiren “Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak euskal soziolinguistikan” (2018); Xabier Erizeren *Euskararen inguruko adostasun sozial berrietarako azterketa soziolinguistikoa Nafarroan* (2018); Kike Amonarrizen *Euskararen bidegurutzetik* (2019b); Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen *Trikua esnatu da* (2019); Eguzki Urteagaren *La nouvelle politique linguistique au Pays Basque* (2019); Jone Miren Hernández eta Jaime Altunaren “Gazteak eta euskararen erabilera: egin gabeko galderak” (2020); aurreko biek Maialen Iñarrarekin batera idatzitako “Babesguneak: euskal hiztun gazteak aktibatzeak aukera” artikulua; (2021) Beñat Muguruza eta Irantzu Epeldek argitaratutako *Gazte eleaniztunak: mintzalari eta mintzagai* liburua (2022). Argitalpenen lagin txiki honek balio dezake egungo euskal soziolinguistikaren gaiek, metodologiek eta erregistroek zer-nolako aniztasuna duten irudikatzeke.

#### **4.1.3. Adostasunaren eta gatazkaren paradigmak euskal soziolinguistikan**

2. kapituluan aurkeztu dugu bi paradigma nagusi daudela gizarte-zientzietan bezala soziolinguistikan ere: adostasunaren paradigma eta gatazkarena. Paradigma-banaketa hori antzematen al da euskal soziolinguistikan? Juaristiren arabera, “euskal soziolinguistikaren baitan hizkuntza ukipena aztertzen duten lan gehienek, gehiago edo gutxiago, bi paradigmetatik edaten dute” (2018: 308). Bi ikuspegiak bereiztea eta gurean ikuspegi bakoitzari atxiki izan zaizkion edukiak zehaztea, ordea, argigarria gerta dakiguke.

Adostasunaren paradigmaren eraginpean ari diren lanetan, hainbat ezaugarri eta ideia antzematen dira. Hona hemen labur-labur horietako hainbat (Juaristi, 2018: 308-309):

- Eleaniztasuna ezaugarri aberasgarria da gure gizartean.
- Euskara ez ezik, gaztelania eta frantsesa ere Euskal Herriko hizkuntzak dira.
- Euskaldun-erdaldunen arteko harmonia eta oreka bilatzeak garrantzi berezia du.
- Elkarrekiko errespetuzko diskurtso etikoak hedatu eta bultzatu behar dira.
- Euskara herritar guztien ondarea da eta eztabaida politiko-ideologikotik at uztea komeni da, abertzaletasunarekin gehiegi lotu gabe.
- Berreskuratzea apurka-apurka egin behar da, adostasunean oinarrituta, gehiegizko presioak saihestuz.

Gatazkaren paradigmaren jarraitzaileen lanetan, berriz, honako ezaugarri eta ideia hauek antzematen dira (Juaristi, 2018: 313-314):

- Euskara da bertako hizkuntza bakarra eta gaztelania-frantsesa hizkuntza arrotz menderatzaile inposatuak dira.
- Euskarak hizkuntza hegemonikoa izatea lortu behar du, bestela hil egingo baita.

- Hizkuntza-gatazkak eta gaiaren inguruko eztabaida politiko-ideologikoez jarraitu egingo dute, hizkuntzaren auzia politikoa delako eta esparru politikoan borrokatu beharra dago, menderakuntza-egoera gainditzeko.
- Aurrera egiteko, presioak eta zigorrak ezinbestekoak dira.
- Euskararen berreskuratzea astiroegi doa, normalizazioa azkartu beharra dago.

Juaristik egindako azterketaren arabera, gatazkaren ikuspegia nagusi zen euskal soziolinguistikaren 70eko hamarkadan eta indarrean jarraitu zuen hurrengo hamarkadetan, harik eta 2000ko hamarkadaren hasieran adostasunaren teoria gurean pisua hartzen hasi zen arte. Hortik aurrera, adostasunaren ikuspegia indartzen joan da eta gatazkarena ahultzen. Gaur egun, lanik gehienak adostasunaren paradigman koka daitezke (Juaristi, 2018: 314-320).

#### **4.1.4. Hainbat bilakaera-joera euskal soziolinguistikaren**

Jarduera soziolinguistikaren ikuspegi teorikoan, gatazkaren paradigmaren nagusitasunetik adostasunaren nagusitasunera igaro gara dio Juaristik, ikusi berri dugun bezala. Ez da hori, ordea, azken hamarkadotan euskal soziolinguistikaren bilakaeran gertatu den aldaketa adierazgarri bakarra. Aldaketetako batzuk labur aipatuz, lehenik, metodologia-ikuspegietan gertatu dena aipatuko dugu: lehenago ere esan dugun bezala, metodologia kuantitatiboen erabateko nagusitasunetik, metodologia-konbinazio ugariagoetara pasatu gara. Horrek areagotu egiten ditu sakontzeko aukerak, ez bairik gabe.

Beste aldaketa aipagarri bat maila teknikoari dagokio: ezagutza teknikoan eta zehaztasunean irabazi eta soziolinguistika-lanetan diharduten teknikarien prestaera profesionalak hobera egin du (Zalbide, 2010b: 40). Euskaingintzako beste hainbat esparrutan bezala, aktibismotik profesionalizatzeko jauzia egin da euskal soziolinguistikaren ere. Eta, oro har, kalitate zientifikoan ere gora egin dute ikerketek (Juaristi, 2015: 110).

Bukatzeko, aipa dezagun aurrera begira itxaropenari ateak irekitzen dizkion beste aldaketa-joera esanguratsu bat: garai trumoitzen atzean utzita, euskal soziolinguistikaren diharduten elkarte, erakunde eta profesionalen harreman-giroak hobera egin du (Zalbide, 2010b: 42). Horrekin batera, elkarlanean ere aurrera egin da nabarmen<sup>126</sup> (Martínez de Luna, 2015: 246).

## **4.2. ERAGIKETA DEMOLINGUISTIKO NAGUSIAK EUSKAL HERRIAN**

### **4.2.1. Euskal demolinguistika garaikidearen lau adarrak**

Euskal Herrian hizkuntzen egoera zertan den aztertzeko ehunka eragiketa egin izan dira azken 40 urteotan, eta baita lehenago ere, aurreko puntuan ikusi dugun bezala.

---

<sup>126</sup> Soziolinguistikaren alorrean aipatu dugun elkarlanerako joera hori testuinguru zabalago batean gertatu da: euskararen alde lanean diharduten erakunde publiko eta gizarte-eragileen arteko harremanetan eta elkarlanean izan den hobekuntzan (Apodaka et al., 2022).

Demolinguistikaren alorrean gurean egin izan den guztia aztertzea gure helburuetatik kanpo egonik, egoera eta bilakaera soziolinguistikoa aztertzeke orduan premiazkoenak izan daitezkeen iturrien bila abiatuko gara, hizkuntzak gizartean duen tokiari buruz funtsezko informazioa biltzen duten hedadura zabaleko berariazko eragiketa egonkorren bila. Horretarako, honako irizpide hauek erabiliko ditugu:

- Euskal Herri osoa aintzat hartzen duten eragiketak edo, gutxienez, bertako lur-eremu zabala aintzat hartzen duten eragiketak hartuko ditugu aintzat. Ez ditugu aintzat hartuko, hortaz, udalerrri, eskualde edo herrialde mailan landu izan diren ikerketa demolinguistiko ugariak.
- Egonkorak denboran: aldizkakotasun jakin bati eutsi dioten ikerketa-ildoak hartuko ditugu aintzat. Ez ditugu aintzat hartuko behin edo aldizkakotasun jakinik gabe egin izan diren ikerketa demolinguistiko puntualak.

Lau dira irizpide horiek bete eta zuzenean hizkuntza-gaiei buruzko informazioa biltzen duten eragiketak: Hegoaldeko Zentsuak, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoak eta *Arrue/Izaskun Arrue* proiektuak<sup>127</sup>. Lau eragiketa horiek hartuko ditugu euskal demolinguistikaren zuhaitzaren adar nagusitzat. Eragiketa horiek noiz sortu diren eta datu-bilketak noiz egin izan diren azaldu dugu I.6. irudian. Bertan ikus daitezkeen bezala, azken lau hamarkadak aintzat hartuta, honako mugarri nagusi hauek aipa daitezke denboran:

- 1981ean hasi zen euskal demolinguistika garaikidearen ibilbidea<sup>128</sup>, urte horretako EAEko erroldan hizkuntza-gaitasunari buruzko lau galdera txertatzearekin batera. Hortxe abiatu zen euskal demolinguistika garaikidearen lehenengo adarra. Hortik aurrera, bost urtetik behin izango da adar horretako datu bilketa EAEn (Nafarroako zentsuetako bilakaera ez da hain lineala, T.5. taulan ikus daitezkeen bezala).
- 1989-1991 tartea funtsezko mugarria da euskal demolinguistikan, hiru gertaera garrantzitsu hauengatik:
  - 1989an HEKN egiten da lehenengo aldiz. Bigarren adarra sortu zen beraz, Euskal Herri osoko informazioa bilduko zuen lehen eragiketa demolinguistiko iraunkorra. Hortik aurrera, hasieran lau urtetik behin egin zen eragiketa, harik eta 2001. urtetik aurrera bost urtez behingoa bihurtu zen (zentsuen eta ISLen aldizkakotasun berdinarekin egiten da).

---

<sup>127</sup> Eragiketa horiek euskal demolinguistikaren atal nagusitzat jotzearen ideia hau ez da berria. Bere garaian EUSTATEko zentsu eta errolden arduradunak "eusko soziolinguistikaren liburutegi empiriko edo estatistikoaren hiru zutabe" aipatzen zituen 2002ko artikuluko batean (Marcos, : 138):

Hainbat izango liriteke haren geletako alde noblean onartzeko irizpideak: kontzeptualizazio eta metodologia agerikoa eta argia, aldian behingo bilketa, eta gutxienezko biztanle- eta espazio-eremua. (...)

Hiru eragiketa hauek dira: biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (BIETZ); inkesta soziolinguistikoa (ISL), Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egina; eta EKB-SEI taldeak euskararen kaleko erabilerari buruz egindako azterketa.


<sup>128</sup> Honela azaltzen du gertaera horren garrantzia Jesus R. Marcosek (2002: 137):

Administrazio autonomoa garatzearekin eta Soziolinguistika zientzia gisa haztearekin berarekin batera, joan den mendeko 80ko hamarkadan jaio ziren, euskararen gizarte-gertaeraren inguruan, kontzeptuzko funtsaz eta oinarri empirikoaz hornitutako jakintza-corpus bat eratzeke lehenengo saiakera serioak.

- 1991n, zentsuen adarrean aldaketa aipagarriak izan ziren: Hego Euskal Herri osoko zentsuetan lehenengo aldiz, hizkuntza-gaitasunari buruzko galderak ez ezik, lehen hizkuntzari buruzkoak eta etxeko erabilerari buruzkoak ere txertatuko dira (lurrez eta galdera kopuruz 1981-1991 tartean izan zen emendatzea 4.2.2. puntuan azalduko dugu zehatz).
- Urte berean, 1991n, ordutik aurrera euskal demolinguistikaren ezinbesteko adar izango zen Inkesta Soziolinguistikoa jarri zen abian. Gaitegi aldetik gainerako eragiketak baino askoz zabalagoa den eta Euskal Herria bere osotasunean hartzen duen eragiketa funtsezko hori bost urtetik behin egin izan da ordutik hona.
- Hurrengo mugarrira 20 urte geroago finkatuko dugu, 2011n. *Arrue* egitasmoa 2003. urtetik ari zen haur eta nerabeen erabilera-ohiturak ikertzen, eta 2011n urrats erabakigarria egingo du: EAEko ikastetxe guztietan egingo du LH4ko haur eta DBH2ko nerabeen hizkuntza-ohiturei buruzko ikerketa, ebaluazio-diagnostikoaren datu-bilketarekin batean. Horrela, bi urtez behingo zentsu-izaera duen eragiketa estatistikoari hasiera eman zitzaion. Laugarren adar horretan, urrats garrantzitsua egin zen 2019. urtean, eta metodologia eta irizpide bertsuak erabilia, Nafarroa Garaiko ikasleei buruzko informazioa bildu zen, *Izaskun Arrue* egitasmoaren eskutik.

Ondorengo puntuetan, eragiketaz eragiketa arituko gara, eta tartean, eragiketa-egileek argitaratu izan dituzten emaitza-txosten nagusiak aurkeztuko ditugu. Aurrez, argitu dezagun eragiketa horiek oro har oso kontsultatuak eta aipatuak izan ohi direla gurean. Demolinguistika-datuak osagarri ohikoak dira euskararen egoerari buruzko jardun zientifikoan, sozialean eta politikoan. Ehunka artikuluk erabili izan dituzte eragiketa horietako datuak euskararen egoera zertan den azaltzeko. Artikulu, liburu eta txosten batzuetan, zeharkako iturri nagusi gisa erabili izan dira, eta informazio estatistiko horretan oinarrituta, berriazko azterketa-lanak argitaratu izan dira. Esanguratsuek iruditu zaizkigun hainbat aipatzearen, euskal demolinguistikak ekoitzi dituen datuetatik abiatuta bere sintesi propioa egiten dute, adibidez, Txepetxek *Márgenes de encuentro, Bilbao y el euskera: aplicación sociolingüística de la territorialidad* lanaren lehenengo atalean (1999) eta Kike Amonarrizek *Euskararen bidegurutzetik* lanean (2019b). Ipar Euskal Herriko azterketa interesgarria egiten du, halaber, Miren Artetxek bere tesian *ISLn eta HEKN-n oinarrituta* (2020). Zentsuetako datuetan oinarrituta, bestalde, Miquel Grosek lan hauek argitaratu ditu: *Recuperación del euskera en Navarra: un estudio sociolingüístico sobre la evolución del euskera en el último cuarto del siglo XX* (2007), *El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca: una apuesta por la diversidad lingüística* (2009) eta "Reversing Language Shift Hegoaldean" (2010).

**I.6. IRUDIA: HEDADURA ZABALEKO ERAGIKETA DEMOLINGUISTIKO EGONKORRAK EUSKAL HERRIAN (1981-2021)**



Iturria: egileak landua.

Oharra (\*): 2006. eta 2016. urteetan ez zen biztanleriaren estatistikarik egin Nafarroan. Zentsuen alorrean egin diren eragiketak eta txertatu izan diren galderak zehatz ikusteko, jo T.4 eta T.5. tauletara.

Gai multzo jakin batzuen inguruko berariazko lanketak ere ez dira gutxi gurean. Sorta labur bat aipatzearen, Soziolinguitika Klusterrak sustatuta eta tartean euskal demolinguitikaren datuak ustiatuta eta interpretatuta, lan bana argitaratu zuten hiru soziolinguitak 2016 urtean: Iñaki Martinez de Lunak “Euskararen transmisioa eta gaitasuna eta aurrera begirako erronkak” artikulua (2016b), Xabier Erizek “Euskal herritarren portaera linguitikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak” artikulua (2016) eta Mikel Zalbidetik “Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak” artikulua (2016). Atzeritik ere egin izan da gure egoerari buruzko irakurketarik euskal demolinguitikaren datuetan oinarrituta; tankera horretako lanen artean aurkitu ditugun berrienak Kadlec-enak dira (2020a; 2020b).

## 4.2.2. Lehenengo adarra: Hego Euskal Herriko Zentsuak-HZ (1981-2021)

1.3. puntuan ikusi dugun bezala, administrazioek egiten dituzten biztanleria zentsuen bidez, euren lurraldean bizi diren herritar guztien hainbat ezaugarri demografiko, ekonomiko, kultural eta sozial zehatz biltzen eta zenbatzen dituzte. Ezaugarri horien artean hizkuntza-ezaugarriak bildu izan dituzte Hegoaldeko Zentsuek (HZ) azken 40 urteotan, T.5. taulan ikus daitekeen bezala.

Zentsuak, berez, hamar urtez behin egin izan dira Espainiako Estatuan. Azkenak 1981., 1991., 2001., 2011. eta 2021. urteetakoak ditugu. Tarteko urteetan, berriz, errolda berritzearekin batera, prozedura eta emaitza aldetik zentsuekin parekagarriak diren “biztanleriaren estatistikak” egin izan dituzte EUSTATEk (1986, 1996, 2006 eta 2016an) eta NASTATEk (1986 eta 1996an). Irakurketa erraztearren, txosten honetan *zentsu* terminoa erabiliko dugu eragiketa estatistiko horietaz guztiez aritzeko<sup>129</sup>. Zentsuak egitearen ardura EUSTATi dagokio EAEn eta NASTATi Nafarroan; bi kasuetan, Espainiako Estatistika Institutuarekin (INE) koordinatuta egiten dute lan.

Ipar Euskal Herriko zentsuak Frantziako Estatistika Institutuak (INSEE) egiten ditu. Zentsuetan ez du inoiz txertatu euskararen egoerari buruzko galderarik<sup>130</sup>. Horregatik euskal demolingistikaren adar honek lurralde-hutsune argia du: ez dugu zentsu bidezko informaziorik Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hiztunei buruz. Hegoaldera mugatuko da, hortaz, adar honen estaldura.

**T.4. TAULA: HEGO EUSKAL HERRIAN EGIN IZAN DIREN ZENTSU ETA BIZTANLERIAREN ESTATISTIKAK, ADMINISTRAZIO-EREMUAREN ARABERA, 1981-2021**

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
<b>Eragiketa mota (Z=zentsua; BE=biztanleriaren estatistika; hutsik=eragiketarik ez)</b>									
EAE	Z	BE	Z	BE	Z	BE	Z	BE	Z
Nafarroa G.	Z	BE	Z	BE	Z		Z		Z

[Iturria](#): egileak landua.

[Oharra](#): 1981ko zentsua Hegoalde osoan egin zen, taula honetan ageri den bezala; euskararen ezagutzari buruzko galderak, ordea, EAEn soilik txertatu ziren (T.5. taulan zehaztasunak).

<sup>129</sup> Irizpide bera darabil, adibidez, EUSTATEk bere web orrian.

<sup>130</sup> Zentsuetan ez ezik, gainerako eragiketetan ere ez du INSEEk euskararen egoera ikertzeko ohitura handirik. Guk dakigula, salbuespen bakarra dago, 1999ko erroldaren barruan hizkuntzen inguruko galderak txertatu zituztenekoa *Enquête 1999 étude de l'histoire familiale* delakoan; bertan frantsesa ez beste hizkuntzei buruzko hainbat datu eskuratu zen. Eragiketa horren testuingurua eta Ipar Euskal Herrian nola gauzatu zen azaltzen digu Erramun Baxoek “Hizkuntz inkesta Frantziako erroldan” artikuluan (1999). Akitanian dagozkion emaitzak eta eragiketari buruzko metodozko xehetasunak eskuragarri daude sarean (Cassan, Hérán eta Toulemon, 2000; Deguillaume eta Amrane, 2002).



#### 4.2.2.1. Hegoaldeko zentsuetan txertatu izan diren galderen ikuspegi orokorra; galderen formulazioen bilakaera eta alderagarritasuna

Euskararen egoera sozialari buruzko hainbat galdera txertatu izan dira Hego Euskal Herrian egindako zentsu eta biztanleria-estatistiketan. Zehazki, T.5. taulan ikus daitekeen bezala:

- Ezagutzari buruzko lau galdera labor egin izan dira (ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gaitasunari buruzkoak), 1981etik hasita Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta 1986tik aurrera Nafarroa Garaian.
- Ama-hizkuntza edo lehen-hizkuntzari buruzko galdera 1986 urtean txertatu zen lehen aldiz EAE n, eta bost urte geroago Nafarroa Garaian.
- Etxean erabiltzen den hizkuntzari buruzko galdera 1991ko zentsuan txertatu zen lehen aldiz Hegoaldeko lau herrialdeetako zentsuetan.

**T.5. TAULA: HEGO EUSKAL HERRIKO ZENTSUEK EUSKARAREN INGURUAN TXERTATU IZAN DITUZTEN GALDERAK, URTEZ URTE ETA ADMINISTRAZIO-EREMUKA, 1981-2021**

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
<b>Euskararen ezagutza (ulertu, hitz egin, irakurri, idatzi)</b>									
EAE	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Nafarroa G.		X	X	X	X		X		X
<b>Lehen hizkuntza (edo ama-hizkuntza)</b>									
EAE		X	X	X	X	X	X	X	X
Nafarroa G.			X		X		X		X
<b>Etxeko erabilera</b>									
EAE			X	X	X	X	X	X	X
Nafarroa G.			X		X		X		X

[Iturria:](#) egileak landua.

1980 hamarkadatik gaur arteko denbora-serieak osatzeko moduko informazio xehea dugu, hortaz, aipatu ditugun gaien inguruan. Edizioz edizio erabilitako galdesortak, I. eranskinean bildu ditugu. Urtez urte eta eremu eremu (EAE batetik, Nafarroa Garaia bestetik) galdera horiek nola egin izan diren aztertuta ikusi dugu galderen formulazioak ez datozela beti bat, eta egon izan direla alde txiki batzuk: batzuetan galderak laburrago egin izan dira, beste batzuetan azalpen luzeagoekin; galdesortan izan duten tokia ere ez da beti berbera izan... Dena den, alde horiek ez dira handiak. Orokorrean, formulazio berriek hobetu egin dituzte aurrekoak, gero eta ulergarriago eta errazago bihurtu dituzte galderak, baina edukietan aldaketa esanguratsurik txertatu gabe. Kontsultatu ditugun estatistika erakundeetako arduradun teknikoek diote aldaketa horiek ez dutela eragin aipagarririk izan herritarren erantzunetan.

Galderak egiteko moduari dagokionez, hortaz, bateragarria da esku artean dugun seriea. Ez baitirudi galderak egiteko moduetan ageri diren alde txiki horiek emaitzetan alboratze nabarmenik eragingo zutenik. Beraz, galderen enuntziatuei dagokienez, serie homogeneo eta alderagarri gisa landu daitezke datuok.

#### 4.2.2.2. Metodologia-aldaketa adierazgarria 2011tik aurrerako zentsuetan

Tradizionalki, zentsuetan herrialde bateko biztanle guzti-guztiei buruzko informazioa eskuratzen zen banaka-banaka, familia bakoitzari idatzizko galdetegia eginez, etxean bizi diren pertsona guztien ezaugarriei buruz galdetuta. Horrela izan da Hegoaldean eta Espainiako Estatuan ere 2011ko zentsua arte: inkesta autoaplikatu bat helarazi izan da etxebizitza guztietara. Urte horretan, ordea, errotik aldatu zen prozedura, bai EAEn eta baita Nafarroa Garaian ere: batetik, EAEn biztanleriaren %10ek osatzen zuten lagin oso zabalari inkesta demografiko bat egin zitzaion, “Encuesta de Características Esenciales de la Población y las Viviendas” izenekoa (INE-Subdirección General de Estadísticas Sociodemográficas, 2020); bestetik, EUSTATEk aldagai aske gisa hizkuntzari buruzko informazioa bildu izan duen beste inkesta batzuetako informazioa ere baliatu zen; azkenik, aurrekoen gain, administrazioak bere esku dituen hainbat erregistro administratibotako informazioa erabili zen EAEn herritar bakoitzaren zentsuko datuak eguneratzeko<sup>131</sup>. Euskarari buruzko galderen erantzunak esleitzeko, honako erregistro hauek darabiltza, besteak beste: hizkuntzen inguruko titulazioei buruzko erregistroak, ikasleen hezkuntza maileri buruzkoak, helduen euskalduntze-alfabetatzeari buruzkoak, herritarren administrazioarekiko harreman-hizkuntzari buruzkoak, eta abar. Inkesta handia eta erregistroetako informazioa, bi iturri horiek uztartuz kalkulatu dira zentsu berriari emaitzak. Erregistroetan oinarrituta zer nolako lanketa zehatza egin izan duten eta inkesta zabalaren emaitzekin nola uztartu duten, ordea, ez du argitaratu EUSTATEk. Nafarroa Garaian prozedura xumeagoa erabili zuten 2011n: lagin oso zabal bati egin zitzaion inkesta (n=85.567), eta ondoren emaitzak bertako biztanleria osora estrapolatu zituzten.

2021eko zentsuak ere prozedura horri jarraituz egin dira (INE-Subdirección General de Estadísticas Sociodemográficas, 2019). Zentsuko arduradun teknikoek ziurtatzen dute 2011n txertatu zituzten metodozko aldaketa adierazgarriek ez dutela hausten ordura arteko denbora-seriea. Hots, prozedura berriaren bidez lortzen diren emaitzak eta “betiko moduan” eginda lortzen zirenak oso antzekoak direla. Guk egin ditugun azterketetan ez dugu aurkitu ikuspegi horren aurkako zantzurik.

#### 4.2.2.3. Argitalpenak

EUSTATEk garai batean hainbat liburukiz osatutako liburu multzoetan argitaratzen zituen zentsuen emaitzak. Egun, web bidez kontsultatu daitezke 1981etik aurrerako hizkuntzari buruzko galderen emaitzak (EUSTAT, 2021a). EUSTATEk berak argitaratzen dituen datuez gain, Mapa Soziolinguistikoa deritzon eragiketa egiten du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, EUSTATEN zentsuetako datuak oinarri hartuta, ustiapenerako irizpide eta prozedura propioak landuta. T.6. taulan jaso ditugu orain arte argitaratu diren Mapa Soziolinguistikoko guztien

---

<sup>131</sup> “Mistotzat” jotzen du EUSTATEk berak 2011ko zentsua egiteko erabili zuen metodologia, datuen jatorriari jarraiki (EUSTAT, 2021b):

Eustateko Biztanleen Erregistroa oinarritzat hartuta, laginetako informazioa eta administrazio iturri ezberdinak konbinatzen baitira. Azken emaitzak lortzen dira administrazio-jatorriko informazioa, estatistikoa, sartuz, baita galdeketa berezi bat ere (EINaren Biztanleen Zentsua). Zentsu hori osatu zen Biztanleen inkesta baten bidez, bizilagunen %10 inguru hartzen zuen lagina erabiltzen zuena; eta horren banaketa gauzatu da udalerrietako biztanleen kopurua kontuan hartuz. Zehazki, zentsua zehatza izango da 200 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan eta ia zehatza 500 biztanle baino gutxiagokoetan (%70eko laginaren zatikia).

erreferentziak. Zerrenda horretan kokatu dugu, halaber, mapa horien aurrekaritzat har dezakegun lehenengo zentsuko emaitzak aurkeztu zituen Atlasa, Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egina.

**T.6. TAULA: EAE-N 1981-2016 BITARTEAN EGIN DITUZTEN ZENTSUETAKO GALDERA LINGUISTIKOEN EMAITZAK BILTZEN DITUZTEN ATLAS ETA MAPA SOZIOLINGUISTIKOAK**

<b>Urtea</b>	<b>Argitalpen nagusia:</b>
<b>1981</b>	<i>Atlas lingüístico Vasco (Ruiz Olabuénaga, 1984).</i>
<b>1986</b>	<i>Soziolingüistikazko mapa. 1986. urteko erroldaren arabera Euskal Autonomi Elkarteko azterketa demolingüistikoa (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989).</i>
<b>1991</b>	<i>II. Soziolingüistikazko mapa (Kultura Saila, 1997).</i> <i>II. Soziolingüistikazko mapa (2. alea) (EUSTAT eta Kultura Saila, 1998).</i>
<b>1996</b>	<i>II. Soziolingüistikazko mapa (3. alea) (EUSTAT eta Kultura Saila, 1999).</i>
<b>2001</b>	<i>III. Mapa Soziolingüistikoa, 2001 (Kultura Saila, 2005).</i>
<b>2006</b>	<i>IV. Mapa Soziolingüistikoa, 2006 (Kultura Saila, 2009).</i>
<b>2011</b>	<i>V. Mapa Soziolingüistikoa, 2011 (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014).</i>
<b>2016</b>	<i>VI. Mapa Soziolingüistikoa, 2016 (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020).</i>

[Iturria](#): egileak landua.

Nafarroako zentsuetako emaitzen argitalpenak ez du irizpide eta aldizkakotasun argirik izan azken hamarkadotan. Gaur egun emaitza orokor batzuk NASTATen webgunean daude (NASTAT, 2021b). Horretaz gain, T.7. taulan bildu ditugu Nafarroako zentsuko informazioa ustiatuz Nafarroako Gobernuak edo bertako erakunderen batek argitaratu izan dituzten argitalpenak.

Nafarroako zein EAeko zentsuetako hainbat emaitza, bestalde, Euskararen Adierazle Sistemaren webgunean ere ikus daitezke (Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2021).

**T.7. TAULA: NAFARROAN 1986-2011 BITARTEAN EGIN DITUZTEN ZENTSUETAKO GALDERA LINGUISTIKOEN EMAITZAK BILTZEN DITUZTEN ARGITALPENAK**

<b>1986</b>	<i>Distribución de la población navarra según el nivel de euskara: (padrones municipales de habitantes al 1-4-86) (Gobierno de Navarra-Departamento de Economía y Hacienda., 1988).</i>
<b>1991</b>	<i>Euskara Nafarroan: 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolinguistikoak (Zabaleta eta Dirección General de Política Lingüística., 1995).</i>  <i>Nafarroako mapa soziolinguistikoa, 1991: biztanleria euskaldunaren dinamika eta bilakaera (Zabaleta, 1997).</i>
<b>1996</b>	<i>Nafarroako populazioaren estatistika, 1996 Populazioaren banaketa euskararen ezagutzari buruz (Instituto de Estadística de Navarra., 1999).</i>
<b>2011</b>	<i>Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa, 2011 (Nafarroako Gobernu, d.g.).</i>

[Iturria](#): egileak landua.

### **4.2.3. Bigarren adarra: Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketak (1989-2021)**

Ziurrenik euskal demolinguistikaren eragiketa bereziena dugu HEKN, ez delako oinarritzen demolinguistikaren metodologiarik ohikoenean, inkestan alegia. HEKNk kaleko espazio irekietan gertatzen diren elkarrizketetan hizkuntza bakoitzak zer-nolako proportzio betetzen duen aztertzen du, eta nazioarteko demolinguistikaren ere adi begiratzen zaio eragiketa *ezberdin* horri. Eragiketaren zuzendari Olatz Altunaren hitzetan (2002: 31):

Kale Neurketan jasotako datuek zera adierazten dute; neurketa egin den tokian eta unean (egunean eta orduan) zenbat lagun ari den euskaraz (edo erdaraz) hitz egiten. Hau da, zenbat hitz egiten den euskaraz une eta leku horretan.

Informazioa behaketa bidez jasotzen da, eta hori da eragiketa horren berezitasun nagusia. Horretarako, Iñaki Larrañagak eta SIADECOK bere garaian asmatutako metodologian oinarritzen da HEKN. Behaketak eta inkesten bidez jasotako datuen arteko ezberdintasuna honela azaldu zuen Larrañaga berak Gipuzkoan SIADECOK egindako neurketaren emaitzak aurkezterakoan (1985: 368):

Lan hau nolabait berria eta orain arte egindakoen ezberdina dela esan beharra dago. (...) Gaiaren aldetik aztertu nahi dena euskararen erabilpen erreala edo efektiboa delako. Orain arteko lanetan (biztanleen zentsua, inkestak, etab.-etan), jendearen erantzunak jasotzen dira, jendeak esandakoa, alegia. Oraingo hontan, berriz, jendearen jokaera edo konportamendu errealak jaso nahi dira. Jendeak esaten duena ez baizik jendeak egiten duena.

Zehazki, behaketa sistematiko ez parte-hartzailatzat jo dezakegu HEKN-k darabilen teknika. Euskal Herri osoan Euskal Kulturaren Batzarreak (EKBk) egin zuen lehen aldiz, 1989. urtean. Ordutik hona, zortzi datu-bilketa egin dira guztira: EKBk berak bultzatuta egin ziren 1989, 1993 eta 1997koak, SEI elkartearen eskutik egin zen 2001ekoa, eta Soziolinguistika Klusterraren gidaritzapean egin dira azkeneko laurak, 2006, 2011, 2016 eta 2021ekoak.

Honela laburbil dezakegu HEKN-ren lan-prozedura, eragiketari buruzko dokumentazio teknikoari jaramon eginez (Altuna, 2002b, 2007; Yurramendi eta Altuna, 2009; Altuna eta Basurto, 2012, 2013; Altuna eta Urla, 2013; Altuna et al., 2022): talde teknikoak aurrez finkatu dituen ibilbideen arabera zabaltzen dira behatzaileak kaleetan eta plazetan, ikusmena eta entzumena fintzen dituzte, eta pazientziaz jasotzen dituzte taldeka dauden edo doazen pertsonen ezaugarriak eta zein hizkuntzatan ari diren. Zehazki, talde bakoitzeko parte-hartzaile bakoitzaren sexua eta adin-taldea jasoko dute. Horrekin batera, esan bezala, talde horretan zein hizkuntza darabilten jasoko dute, eta mintzatzen ari den pertsonak darabilen hizkuntza esleituko zaie taldeko kide guztiei. Taldea hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen ari bada, zein hizkuntza nagusitzen den jasotzen da. Informazio hori guztia jasoko du behatzaileak aldeztatik aurretik prestatutako orrietan edo *smartphonerako* aplikazioan. Behatu dituzten subjektuekin ez dira harremanetan jarriko eta ez diete ezer ere galdetuko. Informazio-bilketa ikertzaileek aldeztatik aurretik zehatz finkatutako udalerrri, ibilbide, egun eta ordu-tarte jakinetan egiten da. Orain arte egin izan diren HEKNetan milaka hiztun askori buruzko informazioa eskuratu izan da era sistematiko horretan. Metodologiaren atalean zehatzago ikusiko dugun bezala, 1989-2018 bitartean 907 neurketa egin dira eta 2.573.142 hiztunen portaerak behatu, *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018* fitxategian jasotako informazioaren arabera (ikus laginen kopuruak T.89. taulan). 2021eko VIII. eta oraingoz azken edizioan, bestalde, 603.497 solaskide behatu ziren 145 udalerrri eta 215.396 elkarrizketatan (Altuna et al., 2022: 14).

Informazio-bilketarako espazio eta denborak (egun eta ordu-tarteak) aldeztatik aurretik diseinatu dituzten ikerketa-taldeak, jaso beharreko informazioaren adierazgarritasuna bilatuz. Ondoren, landa-lanean lurraldeka bildutako datuak haztatu egiten dira unibertsoaren proportzioetara ekarrita. Horretaz gain, eta Euskal Herriko, herrialdeetako eta eskualdeetako datuak sortzeari begira, kale-erabileran maila jakin bat esleitzen zaie zuzenean neurtu ez diren udalerriei. Horretarako, udalerrri guztien kokapen geografikoa eta bertako zentsuko datuetatik hartutako ezagutza-tipologia aintzat hartuta, hainbat udalerrri-tipologia edo estratu definitzen dira. Eta neurtu ez diren udalerriei euren estratuan neurtutako udalerrien batez besteko erabilera-datua esleitzen zaie<sup>132</sup>. Azkenik, zuzenean behatutako udalerrien datuak eta neurtu gabekoen datu esleituak haztatu egiten dira udalerrri bakoitzak duen hiztun kopuruaren arabera, eta horrela kalkulatu dira eskualde, herrialde, administrazio-eremu eta Euskal Herri mailako datu orokorrak. HEKN-n, oro har, lurralde mailakoaz gain, ez da bestelako haztaketarik egiten, sexuaren edo adinaren araberrazko adibidez. Horrek ondorioak ditu eragiketa honek eskaintzen dituen datuen eta beste iturrietako arteko alderagarritasunean, metodologia-ataleko 10.4. puntuan azalduko dugun bezala.

---

<sup>132</sup> Horretarako, aintzat hartzen da neurtu ez diren udalerrri horiek sexuaren eta adinaren arabera zer-nolako osaera duten.

**T.8. TAULA: EUSKAL HERRIAN 1989-2016 BITARTEAN EGIN DITUZTEN HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE NEURKETA OROKORREN EMAITZEN ARGITALPEN NAGUSIAK**

<b>Urtea- Erakundea</b>	<b>'Bat' aldizkariaren zein zenbakitan argitaratu diren</b>	<b>Emaizten aurkezpen-artikulu nagusia</b>
<b>1989-EKB</b>	<i>Bat 3-4</i>	"Euskararen kale-erabilpenaren neurketa 10.000 biztanletik gorako herrietan" (EKBko Idazkaritza Teknikoa, 1991)
<b>1993-EKB</b>	<i>Bat 13-14</i>	"Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian: EKBren neurketaren emaitzak" (Iñigo, 1994)
<b>1997-EKB</b>	<i>Bat 28</i>	"Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian" (Altuna, 1998)
<b>2001-SEI</b>	<i>Bat 43</i>	"Erabileraren IV Kale Neurketa. Emaizten azterketa" (Altuna, 2002)
<b>2006-SLK</b>	<i>Bat 64</i>	"Euskal Herriko kale erabileraren neurketa: Ikerketaren nondik norakoak" (Altuna, 2007)  "2006ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa: aurreikuspenak eta emaitzak" (Amonarriz, 2007)
<b>2011-SLK</b>	<i>Bat 84</i>	"Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaizta nagusiak" (Altuna et al., 2012)
<b>2016-SLK</b>	<i>Bat 106</i>	<i>Hizkuntza erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016</i> (Soziolinguistika Klusterra, 2017)
<b>2021-SLK</b>		<i>Hizkuntzen erabileraren kale neurketa, Euskal Herria 2021. Emaizten laburpen txostena</i> (Altuna et al., 2022)

[Iturria: egileak landua.](#)

Esan beharrik ez dago, bestalde, eragiketa honek ez dituela neurtzen kalez kanpo gerta daitezkeen beste hizkuntza-erabilerak. Ez du jasotzen, bestalde, behatu dituen solaskideen arteko harremanaren izaeraren berri (senideak diren, lagunak, lankideak...). Horiek horrela, errealitatearen alderdi jakin bat besterik ez du biltzen HEKN-k. Horretan, euskal demolinguistikako gainerako adar nagusiak baino iturri mugatuagoa da. Baina gainerako eragiketen aldean, badu berezitasun bat informazioa biltzeko erabiltzen den metodologiaren ondorioz: datu behatuak dira, ez datu aitortuak. Subjektuek egiten dutena jasotzen du HEKN-k eta ez subjektuek egiten dutela esaten dutena. Alde horretatik, euskal demolinguistikan baliozkotasunik handiena duen eragiketa dela esan dezakegu, baliozkotasuna "irudikatzen saiatzen den egoeraz egiazki irudikatzen duen maila gisa" definituta (Etxeberria, 2011: 25). Baliozkotasunak, izan ere, "neurketarako erabiltzen den tresnaren eta neurtu nahi den kontzeptu edo dimentsioaren arteko loturarekin zerikusia du" (Juaristi, 2003: 61). Eta ikergaia hizkuntzen erabilera denean, behaketak erabilera bere horretan jasotzen duenez, baliozkotasun handia duela esan dezakegu, inkestan oinarritutako datu-bilketek baino handiagoa.

Dena den, pentsatzekoa da lurralde bateko biztanleriak kalean egiten duen *benetako* erabilera ere ez dela %100ean bat etorriko behatutakoarekin. Izan ere, alde batetik, behaketa-unean aztertu den eremuan dauden baina berez bertan bizi ez diren hiztunen gaia aipatu behar da; hiztun horien portaerak ere zenbatu egingo baititu HEKN-k, eta distortsio bat sortuko du nahitaez. Bestetik, ez dakigu kalean ibiltzeko ohitura guztiz homogeneoa ote den gizartean, eta zehazki ez dakigu euskaldunek erdaldunek baino joera handiagoa edo txikiagoa duten horretarako; eta ez dakigu, aldeak egotekotan, zein norabidetan eta zein neurritakoak izango diren. Etorkizuneko ikerketek argitu beharko lituzkete alderdi horiek. Bitartean, printzipioz ontzat joko dugu behatutako datuak ez direla asko urrunduko *benetakoetatik*; ez, behintzat, inkesta bidez jasotako datuak bezainbeste.

HEKN-ren emaitzak *Bat soziolinguistika aldizkarian* argitaratu izan dira nagusiki. T.8. taulan, edizio bakoitzeko emaitza nagusiak zein artikulutan edo argitalpenetan plazaratu diren aurkeztu dugu. Urte askotan, artikulua nagusi hori ez ezik, artikulua gehigarriak ere argitaratu izan dira *Bat* aldizkarian ikerketaren emaitzen alderdi jakinekin, hala nola herrialdekako irakurketa eginez, adinkakoa, generoaren araberakoa, eta abar.

#### **4.2.4. Hirugarren adarra: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa (1991-2021)**

Hirugarren adarra Inkesta Soziolinguistikoa dugu. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatuta, 1991. urtetik aurrera bost urtetik behin egin izan da Euskal Herri osoan. Euskal Herriko gainerako eremuetako erakundeek ere lankidetzan parte hartu izan dute inkestaren hainbat ediziotan. Ipar Euskal Herriko parte-hartzea izan da 1996tik aurrerako inkesta guztietan: Euskal Kultur Erakundearen eskutik 1996ko inkestan, Hizkuntza Kontseiluaren bidez 2001ekoan, eta Euskararen Erakunde Publikoarekin 2006-2021 bitartekoetan. Nafarroako Gobernuak, berriz, 1996ko, 2016ko eta 2021eko inkestetan parte hartu izan du.

Inkesta Soziolinguistikoa luze eta zabal galdetzen zaio 16 urtetik gorako herritarren lagin adierazgarri bati hizkuntzen egoera soziala gurean zertan den jakiteko funtsezkoak diren hainbat eta hainbat gairen inguruan: lehen hizkuntza, hizkuntza-gaitasuna, inguruko harreman-sarea osatzen duten lagunak euskaldunak ote diren edo ez, hizkuntza bat edo beste erabiltzeko ohitura mintzakide eta espazio jakin batzuetan, hizkuntzei buruzko iritzi eta jarrerak... Aztertzen dituen gaien ugaritasuna dela eta, hauxe da euskal demolinguistikako eragiketen artean ikuspegi osoena eskain dezakeena eta aldagaien arteko harremana aztertu nahi denean iturririk aberatsena.

T.9. taulan ikus daitekeen bezala, lagin handiak erabili izan ditu ISLk edizio guztietan; ondorioz, akats-tarte txikiak ditugu eta informazioak adierazgarritasun handia du. Lagin handi horiek modua ematen dute behar adinako azpilaginak edukitzeko lurralde-eremu nagusi, adin-talde eta aldagai askeetarako. Lagina osatzerakoan, elkarrizketatuen artean euskaldunen alorrari proportzionalki egokituko litzaiokeen baino pisu handiagoa ematen zaio ISLn; hartara, azpilagin handiagoak eduki ahal izateko euskaldunen errealitatea aztertzerakoan. Ondoren, jakina, emaitza orokorrak aurkezteko orduan datuak haztatu egiten dira unibertsoan sail bakoitzak duen pisu errearen arabera.

**T.9. TAULA: INKESTA SOZIOINGUISTIKOEN UNIBERTSOAK, LAGINAK ETA AKATS-TARTEAK, ADMINISTRAZIO-EREMU ETA HERRIALDEKA, 1991-2016.**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>UNIBERTSOAK (16 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA):</b>						
<b>EUSKAL HERRIA</b>	2.371.078	2.428.095	2.497.016	2.589.629	2.648.997	2.647.422
Euskal Autonomia Erkidegoa	1.741.470	1.778.490	1.806.690	1.850.456	1.873.498	1.864.380
<i>Araba</i>	221.653	233.999	247.850	260.967	272.064	273.086
<i>Bizkaia</i>	958.690	971.867	979.040	994.926	999.228	986.155
<i>Gipuzkoa</i>	561.127	572.624	579.800	594.563	602.206	605.139
Nafarroako Foru Komunitatea	420.712	437.213	468.746	508.961	537.139	533.602
Iparr Euskal Herria	208.897	212.392	221.580	230.212	238.360	249.441
<i>Lapurdi</i>	170.875	180.695	189.602	197.396	205.778	216.764
<i>Nafarroa Beherea-Zuberoa</i>	38.021	31.697	31.978	32.816	32.582	32.676
<b>LAGINAK:</b>						
<b>EUSKAL HERRIA</b>	5.011	6.359	6.821	7.185	7.927	8.218
Euskal Autonomia Erkidegoa	2.821	3.495	3.600	3.599	4.200	4.200
<i>Araba</i>	227	778	760	749	819	820
<i>Bizkaia</i>	1.354	1.398	1.496	1.510	1.744	1.770
<i>Gipuzkoa</i>	1.240	1.319	1.344	1.340	1.637	1.610
Nafarroako Foru Komunitatea	1.273	1.464	1.504	1.587	1.727	2.018
Iparr Euskal Herria	917	1.400	1.717	1.999	2.000	2.000
<i>Lapurdi</i>	593	900	1.176	1.500	1.500	1.500
<i>Nafarroa Beherea-Zuberoa</i>	324	500	541	499	500	500
<b>AKATS TARTEAK p=q=%50 denerako eta %95,5eko konfidantza-mailan (erabateko ausazko laginketari egozgarriak):</b>						
<b>EUSKAL HERRIA</b>	1,4	1,3	1,2	1,2	1,1	1,1
Euskal Autonomia Erkidegoa	1,9	1,7	1,7	1,7	1,5	1,5
<i>Araba</i>	6,6	3,6	3,6	3,6	3,5	3,5
<i>Bizkaia</i>	2,7	2,7	2,6	2,6	2,4	2,4
<i>Gipuzkoa</i>	2,8	2,8	2,7	2,7	2,5	2,5
Nafarroako Foru Komunitatea	2,8	2,6	2,6	2,5	2,4	2,2
Iparr Euskal Herria	3,3	2,7	2,4	2,2	2,2	2,2
<i>Lapurdi</i>	4,1	3,3	2,9	2,6	2,6	2,6
<i>Nafarroa Beherea-Zuberoa</i>	5,5	4,4	4,3	4,4	4,4	4,4

Iturria: egileak landua, *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza fitxategiko informazioan oinarrituta.

Oharra: akats-tarte horiek laginketa-prozedurak guztiz ausazkoak izan balira bezala kalkulatu dira. Badakigu, laginketa egiterakoan, laginketa ez dela guztiz proportzionala izan lurralde-eremuak eta elkarrizketatuen hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta. Horregatik, taula honetako akats-tarteak ez datoz beti bat ISLko hainbat argitalpenetan argitaratu direnekin: akats-tarteak hemen baino apur bat handiagoak dira gehienetan. Hala ere, aldea, gehienez ere, hamarreko gutxi batzuetakoa da.

Informazioa biltzeko erabili den teknikari dagokionez, aldaketa adierazgarri bat izan da inkestaren ibilbidean. Lehenengo hiru inkestak (1991-2001 bitartekoak) etxeetan aurrez aurre egindako elkarrizketen bidez egin ziren. 2006. urtetik aurrera, berriz, telefono bidez egin izan dira inkestak. Telefonozko eredura pasatzeak galdetegia eta jasotako aldagai multzoa laburtzea ekarri zuen halaberharrez. Dena den, eragiketaren arduradun teknikoek diote informazioa biltzeko teknikan egindako aldaketa horrek ez duela eraginik izan emaitzetan eta, hortaz, inkesta guztiek osatzen duten denbora-



seriea guztiz homogeneoa dela. Datuak aztertutakoan guk ez dugu aurkitu ikuspegi hori auzitan jar dezakeen aztarnarik.

Lehen sei inkestetako emaitzak beste hainbeste liburutan argitaratu izan dituzte, T.10. taulan ikus daitekeen bezala. 2021eko inkestaren emaitzak ez dira oraindik argitaratu.

**T.10. TAULA: EUSKAL HERRIAN 1991-2016 BITARTEAN EGIN DITUZTEN INKESTA SOZIOLOGIKOEN EMAITZEN ARGITALPENAK**

<b>Urtea</b>	<b>Argitalpena:</b>
1991	<i>Euskararen Jarraipena</i> (Aizpurua, 1995).
1996	<i>Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskararen Jarraipena II</i> (Eusko Jauriaritza et al., 1997).
2001	<i>Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III</i> (Eusko Jauriaritza, 2003).
2006	<i>IV. Inkesta Soziolinguistikoa. 2006: Euskal Autonomia Erkidegoa, Iparraldea, Nafarroa, Euskal Herria</i> (Eusko Jauriaritza, 2008).
2011	<i>V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011</i> (Eusko Jauriaritza, 2013).
2016	<i>VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016</i> (Eusko Jauriaritza, 2019).

[Iturria](#): egileak landua.

#### **4.2.5. Laugarren adarra: haur eta nerabeen erabilerari buruzko zentsu-izaerako eragiketak (*Arrue* eta *Izaskun Arrue* egitasmoak) 2011-2021**

Gainerako adarrak baino berriagoa da laugarrena. EAEko haur eta nerabeen hizkuntza-errealitatean sakontzeko *Arrue* proiektua Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak eta Soziolinguistika Klusterrak jarri zuten abian, 2003an, eta hurrengo urteetan gaiaren inguruko hainbat lan egin zituzten. 2011. urteko *Arruen*, ISEI-IVEIrekin elkarlanean, ordura arteko ikerketa-ildoan birdimentsionatuko zuen funtsezko aldaketa gertatu zen. Ordura arte lagin baten bidez jasotzen zen informazioa; urte horretan, bi ikasmaitako ikasle guztiei egin zitzaion inkesta, eta horrekin zentsu-izaera lortu zuen eragiketak. Edizio horretan, zehazki, Ebaluazio Diagnostikoarekin batera, ikasleei egiten zaien galdera-sortan hizkuntzari buruzko galdera multzo bat txertatu zen. Hortik aurrera, bi urtez behin EAEko ikastetxe publiko eta itunpeko guztietako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiei buruzko informazioa eskuratzen duen zentsu erako eragiketara gisa finkatu da *Arrue* proiektua<sup>133</sup>.

<sup>133</sup> Zentsu-izaera hori bertan jasotako aldagai askori dagokie, ez ordea guzti-guztietan: "Ebaluazio Diagnostikoa proban ikasleei egiten zaien galderen kopurua arindu nahian, 2015ean lehen aldiz egin zen

Nafarroari dagokionez, *Izaskun Arrue* proiektuaren barruan, 2019ko otsailean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamenduaren Ebaluazio Diagnostikoaren bidez, lehen aldiz jaso dira Nafarroako LH4ko eta DBH2ko A eta D ereduetako ikasle guztien eskola-giroko hizkuntza-portaerei buruzko datuak (G ereduan ari diren ikasleen datuak, guztien erdiak inguru, ez dituzte jaso). Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren enkarguz Soziolinguistika Klusterrak aztertu ditu horrela bildutako datuak. Datu horiek alderagarriak dira EAEko *Arrue*koekin. Ikusteko dago zenbateko maiztasunez egingo den eragiketa hori.

Esan dezagun, azkenik, antzeko eragiketarik ez dela egin izan Ipar Euskal Herrian. Horregatik, euskal demolinguistikaren adar honek lurralde-hutsune hori izango du oraingoz, eta Hegoaldera mugatuko du, hortaz, estaldura.

Laugarren adar honek euskal demolinguistikak zuen hutsune nabarmen bat betetzen du Hegoalderako: haur eta nerabeei buruzko informazio demolinguistikoa eskuratzea, zentsuko aldagaiez haratago.

T.11. taulan orain arteko *Arrue* ikerketen emaitzen argitalpen nagusiak txertatu ditugu; *Izaskun Arrue* egitasmoko emaitzen txostenik ez da oraindik argitaratu; ikerketa horren hainbat emaitza EASen daude eskuragai (Eusko Jaurlaritza-Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2022).

**T.11. TAULA: EAE-N 2011-2019 BITARTEAN EGIN DITUZTEN ARRUE IKERKETEN EMAITZEN ARGITALPEN NAGUSIAK**

<b>2011</b>	<i>Ikasleak hiztun: 2011ko Arrue proiektua. Ikerketaren emaitza, adituen iritzi-azalpenak</i> (Martínez de Luna et al., 2013)
<b>2013</b>	<i>Arrue ikerketa: EAEko haur eta nerabeen euskararen erabilera eskola giroan, 2013</i> (Martínez de Luna et al., 2015) [Argitaratu gabea]
<b>2015</b>	<i>EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2015). Arrue proiektua; txosten exekutiboa</i> (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2018)
<b>2017</b>	<i>EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola giroan, 2011-2017. Txosten exekutiboa</i> (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2020a)
<b>2019</b>	Argitaratu gabea.

[Iturria](#): egileak landua.

---

moduan, 2017an ere, azterketa honetan baliatu diren aldagai aske batzuei buruzko informazioa ez da inkesta bete duten ikasle guztien galdetegietatik jaso, ikasleen heren batek osaturiko laginaren bitartez baizik. Lagin hori modu erabat adierazgarrian hautatu da, ikasgela bakoitzean ausaz ikasleen heren bat hautatuz. Modu horretan unibertso osoaren azterketarako erabat baliagarria den lagina lortu da, bai kopuruz eta bai ikastetxe eta ikasgela guztien errealitatea jasotze aldetik” (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2019: 60).

#### **4.2.6. Azterketa demolinguistikorako baliagarriak diren beste hainbat eragiketa**

Aipatu ditugun lau adar nagusietatik kanpo, egin izan dira eta egiten dira gurean demolinguistikaren ikuspegitik garrantzitsuak diren beste hainbat ikerketa. Ez da gure helburua, jakina, egin diren ikerketa demolinguistiko guztien zerrenda xehea egitea. Hala ere, ezinbestean aipatu beharra dugu Nafarroako Gobernuak 1993., 2003., 2008., 2013. eta 2018. urteetan egin zituen inkesta soziolinguistikoak. Inkesta horietan erabilitako galdera eta sailkapenetan erabateko jarraikortasunik ez dagoen arren, datu jakingarriak aurki ditzakegu ikerketa-lan horietan (Vilches eta Cosin, 1995; Gobierno de Navarra, 2004; Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua, 2009; Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua, 2014). Tankera horretako azken lana 2018koa da. *Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkestan* oinarrituta, inkesta soziolinguistiko batean ohikoak diren aldagaiei buruzko informazioa argitaratu dute *Nafarroako datu soziolinguistikoak 2018* lanean (Nafarroako Gobernuak-Euskarabidea, 2020). Bertan, denbora-serieak eraikitzen dira, Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoan Nafarroari buruz biltzen diren datuekin alderaketak eginez.

Badira gurean, bestalde, demolinguistikarako interesgarriak diren beste hainbat iturri estatistiko ere. EAEkoetara mugatuz, honako hauek aipa ditzakegu: inkesta demografikoa, eskola-jardueraren estatistikak, Unibertsitate estatistika, HABEren datuak, lan merkatuaren zentsua, eta abar. Eragiketa horietako gehienek hainbat datu eskuragarri daude *Euskararen Adierazle Sistemari* (Eusko Jaurlaritza-Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2022). Administrazioak sortzen dituen estatistikez gain, aipagarria da, bestalde, CIES etxeak EAEn eta Nafarroan 1984. urtetik aurrera etenik gabe hedabideen kontsumoari buruz urtero bi olatutan egiten duen *Audiencia General de Medios-Komunikabideetako Entzulegoaren Ikerketa*, non euskarazko hedabideen kontsumoaren berri jaso dezakegun.

#### **4.2.7. Lau adarren alderaketa; iturri bakoitzaren indarguneak eta mugak**

Euskal demolinguistikaren lau adar nagusiak aurkeztu ondoren, osotasunezko ikuspegiaren bila, saia gaitezen eragiketa horietako bakoitzaren indargune eta muga nagusiak zehazten.

## Hegoaldeko Zentsuak (HZ):

<b>Indargune nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hegoaldeko hiztun guztiak hartzen ditu aintzat (haurrak barne).</li><li>• Denbora-serie luzea dugu dagoeneko. Horrek aukera eskaintzen du bilakaerak sendo aztertzen hasteko.</li><li>• Zentsu erako eragiketa izanik, lurraldeko desagregazioa erabatekoa izateko aukera ematen du. Horrela, gainerako eragiketa gehienek ez bezala, udalerrri mailako informazioa lantzeko aukera uzten du Hegoaldeko udalerrri guztietarako. Eta baita, printzipioz, udalerriz azpiko informazioa lantzeko aukera ere.</li><li>• Aurrekoaren harira, zentsuan jasotzen diren aldagai linguistikoen eta gainerako aldagai demografiko, sozial, ekonomiko, eta abarren arteko gurutzaketa mugagabeak egiteko aukera ematen du.</li></ul>	<b>Mugak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ez du ematen Euskal Herri osorako informaziorik; Hegoaldera mugatzen da.</li><li>• Inkestan oinarritzen denez, alboratze posibleak egon daitezke jasotzen diren erantzunen eta errealtatearen artean. Kasu honetan, gainera, arrisku hori bereziki handia da, pertsona bakarra izaten baita etxeke pertsona guztien ezaugarriei buruzko informatzailea.</li></ul>
--	---

## Hizkuntzen Erabilerearen Kale Neurketa (HEKN):

<b>Indargune nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskal Herri osoa hartzen du aintzat.</li><li>• Hiztun guztiak hartzen ditu aintzat (haurrak barne).</li><li>• Denbora-serie luzea dugu dagoeneko. Horrek aukera eskaintzen du bilakaerak sendo aztertzen hasteko.</li><li>• Inkestetan oinarritzen diren ikerketetan ez bezala, HEKN-ren ikerketa-teknikak (behaketak) portaera erreala jasotzeko aukera ematen du. Horrela, subjektuen hautematearen galbahetik pasatu gabeko datuak eskuratzen dizkigu HEKNk. Horregatik, euskal demolinguistikako adarren artean baliozkotasunik handiena duen eragiketa dela esan dezakegu.</li><li>• Laginaren neurri izugarri handiak ere (gizarte-zientzietan ezohikoa da horren lagin handia izatea) sendotasuna ematen die emaitzei. Eta zentsuen eta <i>Arrue</i> egitasmoen mailara iritsi gabe, lurraldekako xehetasunetan aukera handiak eskain ditzake.</li></ul>	<b>Mugak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Mugatua da eragiketa honen ikergaia: kalean egiten den hizkuntzen erabilera bakarrik jasotzen du, eta aldagai gutxi batzuen arabera aldakortasuna aztertzeko aukera ematen du.</li><li>• Euskal Herriko neurketan, udalerrri gehienetarako ez da eskuratzen erabilera-datu adierazgarria.</li></ul>
---	---

## Inkesta Soziolinguistikoa (ISL):

<b>Indargune nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskal Herri osoa hartzen du aintzat.</li><li>• Denbora-serie luzea dugu dagoeneko. Horrek aukera eskaintzen du bilakaerak sendo aztertzen hasteko.</li><li>• ISLk jasotzen dituen gaitegi zabalak aukera ematen digu soziolinguistikan eta demolinguistikan lantzen diren alderdi eta prozesu gehienengatik datuak jasotzeko. Alde horretatik, lau eragiketaren artean osoena da, zalantzarik gabe.</li><li>• Ondorioz, alderdi horien inguruko datuak emateaz gain, soziolinguistikan ohikoak diren aldagai nagusi horien arteko harremana ere sakon aztertzeko aukera uzten du, beste eragiketek ez bezala.</li></ul>	<b>Mugak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Ez du haurren inguruko informaziorik biltzen. Azterketa-unibertsoa 16 urteko gorako hiztunetara mugatzen da.</li><li>• Inkestan oinarritzen denez, alboratze posibleak egon daitezke jasotzen diren erantzunen eta errealitatearen artean.</li><li>• Laginean oinarritzen den eragiketa izanik, ez daiteke lortu lurraldeko desagregazio maila handiko daturik (gehienetan akats-tarteak handiegiak eta onartezinak izango liratekeelako). Arrazoi beragatik, aldagaien arteko gurutzaketa anizkoitzek ere mugatuak izan behar dute.</li></ul>
---	--

## Arrue eta Izaskun Arrue proiektuak:

<b>Indargune nagusiak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Hegoaldeko haurrei buruzko informazio zabala eskaintzen digu, zentsuak eskaintzen duena baino zabalagoa.</li><li>• Galdetegietan jasotzen den gaitegi zabala izanik (zentsuetakoa baino askoz zabalagoa, ez ISLkoa bezain zabala), soziolinguistikan eta demolinguistikan lantzen diren alderdi eta prozesu askoren inguruko datuak lortzeko aukera eskaintzen du eragiketa honek.</li><li>• Zentsu erako eragiketa izanik, teoriarik lurraldeko desagregazioa erabatekoa izateko aukera eskain dezake, baita ikastetxe eta ikasgela mailaraino ere.</li><li>• Aurrekoaren harira, galdera-sortan jasotzen diren aldagai linguistikoaren eta gainerako aldagai demografiko, sozioekonomiko, eta abarren arteko gurutzaketa mugagabeak egiteko aukera ematen du.</li></ul>	<b>Mugak:</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Bi ikasturteko haurrak besterik ez ditu aintzat hartzen (LH4 eta DBH2koak)</li><li>• Ez du Euskal Herri osorako informaziorik eskaintzen; kasurik onenean Hegoaldera mugatzen da (Nafarroan kanpo gelditzen dira G ereduko ikasleak).</li><li>• Oraindik ez dago denbora-serie luzerik.</li><li>• Inkestan oinarritzen denez, alboratze posibleak egon daitezke jasotzen diren erantzunen eta errealitatearen artean.</li><li>• Aldagai aske batzuei buruzko informazioa ikasleen heren batek osaturiko laginaren bitartez jasotzen da.</li></ul>
--	---

Eragiketa edo adar bakoitzaren indarguneak eta mugak argi edukita, aztertu nahi den gaia, eremua, aldia, eta abar aintzat hartu eta iturrien artean aukeraketa eta konbinazioa egokia gauzatzea izango da estrategiarik egokiena. Eragiketa bakoitzaren metodologia dela eta, ordea, beti ez da erraza izango iturri askotako informazioa elkarren osagarri egitea. Aurrerago, lau adarretatik hiruren osagarritasun eta alderagarritasun hori lantzeko bitartekoak landuko ditugu tesi honetan.

Izan ere, lau adarretatik bat, *Arrue-Izaskun Arrue* proiektua, albo batera utziko dugu gure lanketan eta gainerako hiru iturrien lanketara mugatuko gara. Atal metodologiko eta enpirikoan, hortaz, ez dugu landuko laugarren adar hori; ondorio enpirikoen 22. kapituluari, ordea, euskararen egoera deskribatzen saiatuko garenean, behin baino gehiagotan joko dugu ikerketa-ildo baliotsu horren emaitzetara. Haur eta nerabeei buruzko eragiketa horien eta beste iturrien arteko osagarritasunean sakontzea eta horretarako bitartekoak lantzea aurrera begirako zeregin interesgarria da euskal demolinguistikarentzat.

Oraingoz, T.12. taulan, guk landuko ditugun hiru adarren metodologia alderatuko dugu, orain arte eman dugun informazioa laburtuz eta osatuz. Metodologia-atalean, taula hau hartuko dugu abiapuntu iturrien arteko alderagarritasunean aurreratzeko homogeneizaziorako hainbat irizpide orokor zehaztuta.

T.12. **TAULA: HEGOALDEKO ZENTSUEN, HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETEN ETA INKESTA SOZIOINGUISTIKOAREN ALDERAKETA METODOLOGIAREN IKUSPEGITIK.**

	<b>Hegoaldeko Zentsuak eta biztanleria-estatistikak (HZ)</b>	<b>Hizkuntzen Erabilera Kale-Neurketak (HEKN)</b>	<b>EHko Inkesta Soziolinguistikoak (ISL)</b>
<b>Erakunde-arduraduna</b>	EUSTAT eta NASTAT	Soziolinguistika Klusterra (lehenago EKB eta SEI)	Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza-Politikarako Sailburuordetza
<b>Ikerketa-teknika</b>	Inkesta unibertso osoari.	Behaketa sistematiko ez-partehartzailea.	Inkesta lagin erakusgarri bati. Elkarriketa prozedura: etxez etxeko a 1991n, 1996an eta 2001ean; telefono bidezkoa 2006an 2011n eta 2016an.
<b>Ikergaiak (labur, zehatzago metodologia atalean)</b>	Hiru gai: hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera	Gai bakarra: behaketa-unean hiztunek darabilten hizkuntza	Hizkuntzarekin lotutako gaitegi zabala lantzen da ISL: Hizkuntza-gaitasuna, erabilera egoera eta mintzakide ugariarekin, harreman sareen ezaugarri soziolinguistikoak, iritziak, lehen hizkuntza, eta abar.
<b>Eragiketako aldagaiak uztartuz azterketak egiteko aukera</b>	Ertaina	Mugatu	Oso handia
<b>Denbora-seriea</b>	1981etik aurrera EAEn, eta 1986tik aurrera Nafarroan, bost urtez behin (2006. eta 2016. urteetan Nafarroan ez).	1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016	1991. urtetik aurrera, bost urtez behin
<b>Unibertsoa (I): lurralde-eremuari dagokionez</b>	EAE eta Nafarroa	Euskal Herria	Euskal Herria
<b>Unibertsoa (II): adin-tarteari dagokionez</b>	Hiztun guztiak (2 urtetik gorako herritarrek) edo 5 urtetik gorakoak (EAEko Mapa SL-etan)	Hiztun guztiak (2 urtetik gorako herritarrek)	16 urtetik gorako herritarrek
<b>Metodologia - Lagin osoaren neurria eta akats-tarteak</b>	Teorian, herritar guztiengana iristeko helburuz egiten dira zentsuak, eta, praktikan, herritar multzo oso handietara iristen dira. Zentsuen prozedura klasikoa (etxe guztietara jo informazio bila) erabili a egin ziren 1981., 1986., 1991., 1996. eta 2001. urteetakoak. Metodologia, ordea, sakon aldatu da 2006kotik aurrerakoetan. Horietan, erregistroen ustiatzean, inkesta zabal batean eta kalkuluen lanketan oinarritzen dira emaitzak. Unibertsoa eta lagina bat datozenez, zentsuko datuek ez dute, printzipioz, akats-tarte estatistikorik.	Lagin ikaragarri handia (2016 urtean, 144 udalerritan 187.635 elkarriketa eta 515.260 hiztun behatu ziren). Akats-tartea (2016): $\pm 0,3$ koa %95,0ko konfiantza-mailarako eta $p=q=50$ denerako.	Lagin handi bati egin izan zaio inkesta. Euskaldunen azpi-lagina proportzio nalki ego kituko litzatekeen baino handiagoa da. Ondoren, emaitzak haztatu egiten dira. 2016. urteko ISLren lagina: 8.200 inkesta; akats-tartea: $\pm 1,4$ koa %95,5eko konfiantza-mailarako eta $p=q=50$ denerako.
<b>Laginaren barne-osaketa (unibertsoarekiko proportzionala edo ez)</b>	Unibertsoarekin bat dator, guztiz orekatua, beraz, sexu-adinaren arabera.	Kalean gehiago ibiltzen diren herritarrek pisu handiagoa dute laginean. Zehazki, haur eta gazteak biztanleriaren barnean duten baino pisu handiagoarekin azaldu ohi zaizkigu HEKN-ko laginetan.	Orekatua da sexuaren eta adinaren arabera, unibertsoarekin bat dator
<b>Datuen balizko alboratze subjektiboz</b>	Erantzun aitortuak jasotzen dira (inkesta batean subjektuek emandako erantzunetan oinarrituta). Portaera edo ezaugarri objektibagarrien eta emandako erantzunen artean aldea ego tea aurreikusi daiteke. Ikertu den errealitatearen eta jasotako datuen arteko isuria (alboratzea) zenbatekoa den ez dakigu zehatz-mehatz.	Behaketan oinarritzen den datu-bilketa izanik, ez du subjektuen hautemate okerrak edo " itxura eman nahiak " eragindako alboratzerik. Balio handiko datuak dira beraz.	Erantzun aitortuak jasotzen dira (inkesta batean subjektuek emandako erantzunetan oinarrituta). Portaera edo ezaugarri objektibagarrien eta emandako erantzunen artean aldea ego tea aurreikusi daiteke. Ikertu den errealitatearen eta jasotako datuen arteko isuria (alboratzea) zenbatekoa den ez dakigu zehatz-mehatz.

Iturria: egileak landua.





## 5. SEI ARDATZEN LANKETA EUSKAL DEMOLINGUISTIKAN

Jarraian, hizkuntzen jarraipena/ordezkapena/indarberritzea aztertzeko demolinguistikatik landu ohi diren sei ardatz nagusiak hartu, eta euskal demolinguistikatik nola landu izan diren ikusiko dugu. Arreta berezia jarriko dugu eragiketa bakoitzean ardatz bakoitza lantzeko erabili izan diren galderak aurkezten, eta baita azken 3-4 hamarkadotan gurean landu diren adierazle sintetiko erabilienak zehazten.

Ardatzez ardatz hasi baino lehen, T.13. taulan ardatz bakoitzari buruzko informazioa zer-nolako eragiketa edo adarretan aurki dezakegun zehaztuko dugu.

T.13. TAULA: SEI ARDATZI BURUZKO INFORMAZIO DEMOLINGUISTIKOA ZENTSUETAN, HEKN-n ETA ISL-n

	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

[Iturria: egileak landua.](#)

### 5.1. HIZKUNTZA-GAITASUNAREN LANKETA EUSKAL DEMOLINGUISTIKAN

#### 5.1.1. Hizkuntza-gaitasuna Hegoaldeko Zentsuetan

##### 5.1.1.1. Zentsuetako euskarazko gaitasunari buruzko galderak

I.7. irudian 2011ko zentsuan euskararen ezagutza mailari buruz egindako galdera multzoa ikus daiteke. Aurreko zentsuetako galdera sortei erreparatuta, 4.2.2. puntuari aipatzen genuen bezala, aldaketa handirik gabe egin dira galdera horiek zentsuz

zentsu bai Nafarroa Garaian eta baita EAEn ere (ikus jatorrizko galdera sorta guztiak I. eranskinean).

**I.7. IRUDIA: EUSKARAREN EZAGUTZARI BURUZKO GALDERAK ZENTSUETAN, 2011KO ADIBIDEA.**

**3 Zein da hark duen euskararen ezagutza-maila?**

*Galdera bakoitzean markatu aukera bakarra*

Ulertzen du?:	<input type="checkbox"/> Ezer ez	<input type="checkbox"/> Nekez	<input type="checkbox"/> Ondo
Hitz egiten du?:	<input type="checkbox"/> Ezer ez	<input type="checkbox"/> Nekez	<input type="checkbox"/> Ondo
Irakurtzen du?:	<input type="checkbox"/> Ezer ez	<input type="checkbox"/> Nekez	<input type="checkbox"/> Ondo
Idazten du?:	<input type="checkbox"/> Ezer ez	<input type="checkbox"/> Nekez	<input type="checkbox"/> Ondo

Iturria: INE, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak* (galdetegi osoa ikusteko jo I. eranskinera).

Irudian ikus daitekeen bezala, euskarari buruzko oinarritzko lau gaitasunei buruz galdetzen da, ez ordea EAEn eta Nafarroa Garaian ofiziala den gaztelaniazko gaitasunei buruz. Ez da ikertzen, halaber, Inkesta Soziolinguistikokoan egiten den bezala, hiztunen gaitasun erlatiboa, hots, euskaraz edo gaztelaniaz zein hizkuntzetan moldatzen diren hiztunak errazago.

Euskarazko gaitasunari dagokionez, oinarritzko lau trebetasunei buruz galdetu izan da Hegoaldeko zentsuetan joan den mendeko 80ko hamarkadatik aurrera: euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko duten gaitasunari buruz. Trebetasun bakoitzean hiru erantzun-aukera, eskaini zitzaizkien elkarrizketatuei euren gaitasuna deskribatzeko, eta ez bi: *ezer ez*, *nekez* eta *ondo*. Erantzun-aukera horiek berak (*bai/ez* dikotomia gaindituz beraz) erabili izan dira orduz geroztik Hego Euskal Herrian egin izan diren zentsu- eta biztanleria-estatistiketan.

Lau galdera horien emaitzak bere horretan argitaratu ziren EAEn 80ko hamarkadaren hasieran (Ruiz Olabuénaga eta Marañón, 1983; Ruiz Olabuénaga, 1984), eta baita geroago ere Nafarroan (ikus, adibidez, T.14. taula 2011ko zentsuko datuekin). Baina 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera nagusiki adierazle sintetiko baten bidez aurkezten dira gaitasunari buruzko emaitzak, orain ikusiko dugun bezala.

# T.14. TAULA: EUSKARAZ ULERTZEKO, HITZ EGITEKO, IRAKURTZEKO ETA IDAZTEKO GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. NAFARROA, 2011 (2 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)



Población de 2 ó más años, residente en viviendas familiares, clasificada por edad, según conocimiento y uso del euskera

Table with columns for age groups (DE 2 A 4 AÑOS to DE 100 MÁS AÑOS) and rows for linguistic typology, first language, and skills (understanding, speaking, reading, writing). Includes a TOTAL row at the bottom.

Iturria: 2011ko zentsuak (NASTAT, 2021b)

## 5.1.1.2. Euskarazko gaitasunari buruzko adierazle sintetikoak zentsuetan eta mapa soziolinguistikoetan

1981eko zentsuko datuekin, lau trebetasunetan hiztunek nolako gaitasuna duten aintzat hartuta, hizkuntza-gaitasunari buruzko sailkapen sintetikoak landu ziren: oinarrizko zortzi kategoriatan landu ziren eta ondoren honako lau multzo hauetan laburtu: euskaldunak, ia-euskaldunak, euskaldun pasiboak eta erdaldunak (Marañon, 1985: 465). Hortik aurrera, zentsuetako oinarrizko lau trebetasunei buruzko galderei 2 urtetik gorako hiztunek emandako erantzunetan oinarrituta, "Euskara-maila orokorra" adierazle sintetikoak landu izan dute EUSTATEk eta NASTATEk. Honela definitzen du EUSTATEk hitzez hitz adierazle sintetiko horren osaketa<sup>134</sup> (EUSTAT, 2021b):

Aldagai hau lortzeko, Biztanleria Zentsuko oinarrizko lau adierazleei euskararen ezagutzaren gaineko tipologia bat ezarri zaie ("ezer ez", "zailtasunak ditu", "ondo"): ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, idazten duzu?.

Zazpi maila daude:

- Alfabetatuta dauden euskaldunak: euskara ondo ulertzen, hitz egiten, irakurtzen eta idazten duten pertsonak.
- Neurri batean alfabetatuta dauden euskaldunak: euskara ondo ulertzen eta hitz egiten duten pertsonak, baina hizkuntza horretan zailtasunez irakurri eta idazten dutenak.


<sup>134</sup> Sailkapen horri eta erabilgaitako terminologiari buruzko iruzkin kritikoak argitaratu zituen Xabier Isasik "Hiztun erroldak, labelak eta euskaldunak" artikuluan (1994).

- Alfabetatu gabe dauden euskaldunak: euskara ondo ulertzen eta hitz egiten duten pertsonak, baina hizkuntza horretan irakurtzen eta idazten ez dakitenak.
- Alfabetatuta dauden ia-euskaldunak: euskara ondo edo zailtasunekin ulertzen duten, zailtasunez hitz egiten duten eta hizkuntza horretan ondo edo zailtasunekin irakurri eta idazten duten pertsonak.
- Alfabetatu gabe dauden ia-euskaldunak: euskara ondo edo zailtasunekin ulertzen duten, zailtasunez hitz egiten duten eta hizkuntza horretan irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsonak.
- Ia-euskaldun pasiboak: euskara ondo edo zailtasunekin ulertzen duten eta hizkuntza horretan ezer esaten ez duten pertsonak.
- Erdaldunak: euskara ulertzen eta hitz egiten ez duten pertsonak.

Adierazle sintetiko horretako 7 aukerak multzokatuta, honako 3 kategoria hauetan laburtu izan dute EUSTAT eta NASTATEk euskara-maila orokorra: euskaldunak, ia-euskaldunak eta erdaldunak. Argitu beharra dago, “ia-euskaldunak” multzoaren izendapenaren esanahiak adieraz lezakeenaren kontra, multzo horretako hiztun guztiak ez daudela “euskaldun izatetik gertu”. Multzo horretan sartzen baitira, adibidez, euskaraz nekez hitz egiten eta ulertzen duten hiztunak, eta baita euskara nekez ulertu eta hitz egiteko gai ez direnak ere.

Aurrekoaren adierazle sintetiko oso antzekoa lantzen dute EAeko eta Nafarroako mapa soziolinguistikoetan “hizkuntza-gaitasuna” izendapenarekin (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989; Kultura Saila, 1997; EUSTAT eta Kultura Saila, 1998; EUSTAT eta Kultura Saila, 1999; Kultura Saila, 2005; Kultura Saila, 2009; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020; Nafarroako Gobernua, d.g.). Mapa Soziolinguistikoetan unibertsoa 5 urtetik gorako hiztunetara mugatzen dute; G.1. grafikoan, EAeko azken Mapa Soziolinguistikoan adierazle horren emaitzak aurkezteko ageri den grafikoa erakusten dugu. Funtsean, EUSTATen eta NASTATen sailkapen bera lantzen dute mapetan, baina aldaketa batekin: “ia-euskaldun pasiboen” multzoa “erdaldunekin” batzen dute, “ia euskaldunekin” beharrean, Nafarroako Mapa Soziolinguistikoan multzoen definizioan ikus daitekeen bezala (T.15. taulan). Informazio hori bera aurreragoko T.40. taulan ere ikus daiteke.

G.1. GRAFIKOA: ZENTSUETAKO "HIZKUNTZA-GAITASUNA" ADIERAZLE SINTETIKOAREN EMAITZAK VI. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAN. EAE, 2016 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)



Iturria: VI. Mapa Soziolinguistikoa, 2016 (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 33)

T.15. TAULA: KATEGORIEN LANKETA NAFARROAKO 2011KO MAPA SOZIOLINGUISTIKOAN

"EUSKARA MAILA", "HIZKUNTZA TIPOLOGIA" ETA "HIZKUNTZA GAITASUNA" ALDAGAIAK SORTZEKO TAULA					
ULERTZEN DU	HITZ EGITEN DU	IRAKURTZEN DU	IDAZTEN DU	HIZKUNTZA TIPOLOGIA	HIZKUNTZA GAITASUNA
Ezer ez	-	-	-	Erdalduna	Erdalduna
Zailtasunez	Ezer ez	-	-	Ia-euskaldun hartzailea	Erdalduna
Zailtasunez	Zailtasunez	Ezer ez	-	Ia-euskaldun ez-alfabetatua	Elebidun hartzailea
Zailtasunez	Zailtasunez	-	Ezer ez	Ia-euskaldun ez-alfabetatua	Elebidun hartzailea
Zailtasunez	Zailtasunez	Zailtasunez	Zailtasunez	Ia-euskaldun alfabetatua	Elebidun hartzailea
Zailtasunez	Zailtasunez	Zailtasunez	Ongi	Ia-euskaldun alfabetatua	Elebidun hartzailea
Zailtasunez	Zailtasunez	Ongi	Zailtasunez	Ia-euskaldun alfabetatua	Elebidun hartzailea
Zailtasunez	Zailtasunez	Ongi	Ongi	Ia-euskaldun alfabetatua	Elebidun hartzailea
Ongi	Ezer ez	-	-	Ia-euskaldun hartzailea	Elebidun hartzailea
Ongi	Zailtasunez	Ezer ez	-	Ia-euskaldun ez-alfabetatua	Elebidun hartzailea
Ongi	Zailtasunez	-	Ezer ez	Ia-euskaldun ez-alfabetatua	Elebidun hartzailea
Ongi	Zailtasunez	Zailtasunez	Zailtasunez	Ia-euskaldun alfabetatua	Elebidun hartzailea
Ongi	Zailtasunez	Zailtasunez	Ongi	Ia-euskaldun alfabetatua	Elebidun hartzailea
Ongi	Zailtasunez	Ongi	Zailtasunez	Ia-euskaldun alfabetatua	Elebidun hartzailea
Ongi	Zailtasunez	Ongi	Ongi	Ia-euskaldun alfabetatua	Elebidun hartzailea
Ongi	Ongi	Ezer ez	Ezer ez	Euskaldun ez-alfabetatua	Elebiduna
Ongi	Ongi	Ongi	Ongi	Euskaldun alfabetatua	Elebiduna
Ongi	Ongi	Gainerako konbinazioak		Euskaldun erdi-alfabetatua	Elebiduna

Iturria: Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa 2011 (Nafarroako Gobernu, d.g.: 5).

Horretaz gain, izendapenean ere aldaketak egon dira: hasieratik bereizi izan dira EUSTATen eta NASTATen izendapenak batetik eta EAEko Mapa Soziolinguistikoarenak bestetik. EUSTATEk eta NASTATEk arestian aipatutako izendegi bera erabili izan dute: euskaldunak, ia-euskaldunak, erdaldunak. EAEko Atlas eta Mapa Soziolinguistikoetan erabili izan diren izendapenak dezente aldatu izan dira denboran; T.16. taulan aurkezten ditugu. Nafarroako 2011ko Mapa Soziolinguistikoa, azkenik, honako hiru kategoria hauek landu ziren: elebiduna, elebidun hartzailea, erdalduna (Nafarroako Gobernu, d.g.: 5).

T.16. **TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNARI BURUZKO IZENDAPENAK EAEko ATLAS ETA EAEko MAPA SOZIOLOGISTIKOETAN (1981-2016)**

	Euskaldunak	Tarteko kategoria	Erdaldunak	Argitalpena
1981	Euskaldun activo	Euskaldun [ondo ulertzen duten guztiak]	Erdaldun	<i>Atlas lingüístico Vasco</i> (Ruiz Olabuénaga, 1984 17, 59).
	Euskaldun	Cuasi euskaldun (Q euskaldun)	Erdaldun	
1986	Euskaldunak	la euskaldunak	Erdaldunak	<i>Soziolingüistikazko mapa. 1986. urteko erroldaren arabera Euskal Autonomi Elkarteko azterketa demolingüistikoa</i> (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989).
1991	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	<i>II. Soziolingüistikazko mapa</i> (Kultura Saila, 1997).
1996	Euskaldunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	<i>II. Soziolingüistikazko mapa (3. alea)</i> (EUSTAT eta Kultura Saila, 1999).
2001	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	<i>III. Mapa Soziolingüistikoa, 2001</i> (Kultura Saila, 2005).
2006	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	<i>IV. Mapa Soziolingüistikoa, 2006</i> (Kultura Saila, 2009).
2011	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak	<i>V. Mapa Soziolingüistikoa, 2011</i> (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014).
2016	Euskaldunak	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak	<i>VI. Mapa Soziolingüistikoa, 2016</i> (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020).

[Iturria](#): egileak landua.

Argitu dezagun, Mapa Soziolingüistikoetan *elebidun hartzailea* terminoa erabiltzen denean, bere adiera ez datorrela zorrotz bat gaiaren inguruan kontsultatu ditugun hiztegi, eskuliburu eta bibliografia teknikoarekin (Baetens, 1989: 35-38; Boix eta Vila, 1998: 211; Ruiz et al., 2001: Moreno, 2009: 211; 54; Coyos, 2010: 142; UZEI, 2010: 58). Kontsultatu ditugun testu horietan aho batez onartzen da elebidun hartzailea edo pasiboa, bigarren hizkuntzan hitz egiteko gai ez izan arren, hizkuntza hori ulertzen duen hiztuna dela. Hara, adibidez, nola definitzen den *elebidun hartzaile* terminoa *Soziolingüistika Hiztegia*n: “Euskaraz nekez hitz egin edo hitz egin ez arren, ondo ulertu edo irakurtzen duen pertsona” (UZEI, 2010: 58).

Mapa Soziolingüistikoko sailkapenean, ordea, elebidun hartzaile gisa agertzen zaizkigu euskara nekez ulertzen eta nekez hitz egiten duten hiztunak ere, euskaraz hitz egiten jakin gabe euskaraz ulertzen duten hiztunekin batera, hots, aztertutako teoriaren

arabera izendapen hori egokitzen zaien hiztunekin batera. Horrela, zabalagoa da Mapa soziolinguistikoetako *elebidun hartzaileen* multzoa teoriaren ikuspegitik eraikiko litzatekeena baino, euskaraz ondo ulertzen ez duten hiztunen zati bat ere elebidun hartzailetzat jotzen baita.

Nolanahi ere, jatorrizko informazioa euskararen ezagutzara mugatzen denez, zentsuetan oinarrituta sortu diren adierazle sintetiko guztiak dira asimetrikoak. Alde horretatik, gure errealitatea oso bestelakoa da nazioartean hizkuntza-zentsuetan erreferente nagusi den Kanadarekin alderatuta. Bertan, bi hizkuntzei tratamendu bera ematen zaie zentsuetan, eta sortzen diren kategoriak simetrikoak izan ohi dira.

## 5.1.2. Hizkuntza-gaitasuna ISLn

### 5.1.2.1. Hizkuntza gaitasunaren berri emango diguten jatorrizko galderak

Hegoaldeko zentsuetan ez bezala, euskararen eta gaztelaniaren/frantsesaren ezagutzari buruz galdetu zen 1991., 1996. eta 2001. urteko Inkesta Soziolinguistikoetan; hortik aurrera, euskarazko gaitasunari buruz soilik galdetu izan da (Aizpurua, 1995; Eusko Jaurlaritzaren et al., 1997; Eusko Jaurlaritzaren, 2003; Eusko Jaurlaritzaren, 2008; Eusko Jaurlaritzaren, 2013; Eusko Jaurlaritzaren, 2019).

1991. eta 2016. urte bitarteko ISL guztietan euskarazko hizkuntza-gaitasunari buruzko hainbat galdera egin izan dira; I.8. irudian aurkezten ditugu. Zentsuetan bezala, lau oinarritzko trebetasunei buruz galdetu izan da beti: ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko duten gaitasunari buruz. Erantzun-aukerei dagokienez, ISL ez da ikuspegi dikotomikora lerratu eta 1991. urtetik aurrera bost urtetik behin egindako inkesta guztietan, bost erantzun-aukera eskaini izan zaizkie inkestan parte hartu dutenei trebetasun bakoitzari buruz galdetu zaienean: *Ongi*, *Nahiko ongi*, *Zertxobait*, *Hitz batzuk* eta *Ezer ez*.

#### I.8. IRUDIA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNARI ETA GAITASUN ERLATIBOARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOINGUISTIKOAN, EAE, 2016

03.G ZEIN DA ZURE EUSKARA MAILA?	Ulertu Entiende	Hitz egin Habla	Ira- kurri Lee	Idatzi Escribe		P.03 ¿CUÁL ES SU NIVEL DE CONOCIMIENTO DE EUSKERA?	
- ULERTZEN DUZU ONGI, NAHIKO ONGI?	Ongi	1	1	1	1	Bien	- ¿ENTIENDE BIEN, BASTANTE BIEN, ALGO, SÓLO PALABRAS, NADA?
- HITZ EGITEN DUZU ONGI, NAHIKO ONGI?	Nahiko ongi	2	2	2	2	Bastante bien	- ¿HABLA BIEN, BASTANTE BIEN, ALGO, SÓLO PALABRAS, NADA?
- IRAKURTZEN DUZU ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT, HITZ BATZUK, EZER EZ?	Zertxobait	3	3	3	3	Algo	- ¿LEE BIEN, BASTANTE BIEN...?
- IDAZTEN DUZU ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT, HITZ BATZUK, EZER EZ?	Hitz batzuk	4	4	4	4	Sólo palabras	- ¿ESCRIBE BIEN, BASTANTE BIEN...?
	Ezer ez	5	5	5	5	Nada	
	Ed/Ee	6	6	6	6	Ns/Nc	

Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galdetegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).

Horietaz gain, 1991., 1996. eta 2001. urteetan, baina ez hortik aurrera, erdarazko gaitasunari buruzko galderak (gaztelaniazko gaitasunari buruzkoak Hegoaldean eta frantsesezkoari buruzkoak Iparraldean) egin zitzaizkien elkarrizketatuei (ikus I.9. irudia).

**1.9. IRUDIA: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLOGISTIKOAN, EAE, 2001**

10.G. ZENBATERAINO DAKIZU GAZTELANIAZ?						
	ezer ez	hitz batzuk	zertxo-bait	nahikoa ongi	ongi	
1/ ULERTU .....	1	2	3	4	5	(39)
2/ HITZ EGIN .....	1	2	3	4	5	(40)
3/ IRAKURRI.....	1	2	3	4	5	(41)
4/ IDATZI .....	1	2	3	4	5	(42)

Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galdetegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).

Elkarrizketatu elebidunei<sup>135</sup>, azkenik, gaitasun erlatiboaz, hots, euskaraz ala erdaraz, zein hizkuntzatan egiten zuten errazago galdetu izan zaie 1991-2016ko ISLetan, I.10. irudian azaltzen den galderarekin.

Euskal eta erdal gaitasunari buruzko galderekin eta gaitasun erlatiboari buruzkoarekin, gaitasunak berez duen *continuum* izaerara hurbiltzen lagundu ahal digun oinarritzko informazio aberatsa eta baliagarria eskura dugu ISLn, metodologia-atalean ikusiko dugun bezala.

**1.10. IRUDIA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNARI ETA GAITASUN ERLATIBOARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLOGISTIKOAN, EAE, 2016**

(Euskaldunentzat bakarrik) 04.G ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ERRAZAGO?	Euskaraz	1	En euskera	(Sólo para los/as euskaldunes) P.04 ¿EN QUÉ LENGUA HABLA CON MÁS FACILIDAD?
	Bietan berdin	2	En ambas igual	
	Erdaraz	3	En castellano u otra	
	Ed/Ee	4	Ns/Nc	

Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galdetegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).

Horietaz gain, beste galdera batzuk ere egin izan dira ISLn hizkuntza-gaitasunaren gai zabalarekin zerikusia dutenak. Inguruko hizkuntza-gaitasunari buruz galdetu izan dute urte guztietan. Horrela, gurasoen, bikotekidearen, seme-alaben hizkuntza-gaitasunaz galdetu zaie elkarrizketatuei, aurrerago ikusiko dugun bezala. Bestalde, inkesta batzuetan gaitasunarekin lotutako beste hainbat alderdi ere aztertu izan da: euskaldunek euskara batuan eta euskalkian duten gaitasuna, beste hizkuntzen ezagutza... baina guk ez ditugu alderdi horiek landuko.

**5.1.2.2. Hizkuntza-gaitasunari buruzko adierazle sintetikoak ISLn**


ISLko teknikariek, jatorritzko aldagai horietan oinarrituta, hainbat aldagai sortu izan dute birkodetzeen bidez. Zehazki, ISLren emaitza-txostenetan, gaitasunaren inguruko bi adierazle sintetiko aurkitu ditugu. Lehenengo bi inkesta soziolinguistikoetan (1991 eta 1996koetan), sei kategoriatako adierazle sintetikoa aurkeztu zen, Euskal Herriko 16

<sup>135</sup> Berez, 2006tik aurrera elkarrizketatu euskaldun guztiei egin zaie galdera hori, euskaraz “ongi” edo “nahiko ongi” hitz egiten dutela adierazi dutenei.




urtetik gorako hiztunak honako sei kategoria hauetan sailkatuz, G.2. grafikoan ikus daitekeen bezala: euskaldun elebakarrak, euskal elebidunak, elebidun orekatuak, erdal elebidunak, elebidun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak (Aizpurua, 1995: 58). Sailkapen horrek antza zuen nazioartean erreferentzialtasun handia duen Kanadako sailkapenarekin (Commissariat aux Langues Officielles, 2020). Kanadako sailkapenean bi hizkuntza ofizialen gaitasuna hartzen da aintzat, eta banaketa simetrikotasun-irizpidera hurbiltzen da, honako multzoetan banatuz hiztunak: ingelesa bakarrik dakitenak, frantsesa bakarrik dakitenak, bi hizkuntzak dakizkitenak eta ez ingelesa eta ez frantsesa ez dakitenak.

**G.2. GRAFIKOA: INKESTA SOZIOLINGUISTIKOKO "HIZKUNTZA-GAITASUNA" ADIERAZLE SINTETIKOAREN EMAITZAK. EUSKAL HERRIA, 1991 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**




Iturria: *Euskararen Jarraipena* (Aizpurua, 1995: 58)

**G.3. GRAFIKOA: INKESTA SOZIOLINGUISTIKOKO “HIZKUNTZA-GAITASUNA” ADIERAZLE SINTETIKOAREN EMAITZAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2019: 15).

**G.4. GRAFIKOA: GAITASUN ERLATIBOARI BURUZKO GALDERAREN EMAITZAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK)**



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2019: 23).

Bigarren sailkapena 2001eko Inkesta Soziolinguistikoan ikusi genuen lehen aldiz, aurreko sailkapeneko lau lehenengo kategoriak multzo bakarrean bilduta<sup>136</sup>. Multzo horri “elebidunak” edo “euskaldunak” izendapena jarri izan zaio ISLn (ikus T.17. taula). Gainerako bi multzoak, izendegi aldaketak gorabehera, “elebidun hartzaileek” eta “erdaldun elebatarrek” osatuko dituzte. Hiru kategoriatako hizkuntza-gaitasunari buruzko adierazle hori nagusitu da orduetik aurrera ISLn (ikus G.3. grafikoa). Horrekin batera, euskaldunen arteko gaitasun-mailaketa ere landu izan da, baina ez hizkuntza-gaitasunaren adierazlearen barruan, “gaitasun erlatiboa” deituriko aldagai bereziaren bidez baizik (ikus G.4. grafikoa).

<sup>136</sup> Sailkapen horrekin ISLk argitaratu ohi duen sektore-diagramak errealtatea desitxura dezakeen ilusio optikoa sortzen duela aipatu izan du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak (2017).

Bi eredu landu izan dira, hortaz, ISLn hizkuntza-gaitasunaren gaia lantzeko, 1991-1996 urteetan lehenengoa, 2001-2006tik aurrera bigarrena. Bi ereduak bateragarriak diren arren, alde aipagarriak daude batetik bestera. Laburtuz, hiru ezberdintasun nabarmen daude bi ereduaren artean:

- Lehenengo ereduaren euskarazko eta gaztelaniazko/frantsesezko gaitasunak hartzen ziren gaitzat; bigarrenean euskarazkoa besterik ez.
- Hizkuntza-gaitasunaren gaia adierazle bakarrean lantzetik, bitan lantzera pasatu da, gaitasun erlatiboari buruzko emaitzak hizkuntza-gaitasunarenetik bereizita.
- Berariaz hizkuntza-gaitasuna aztertzen duen adierazleak 6 kategoriatan bereizten ditu hiztunak lehenengo ereduaren; 3tan bigarrenean.

Esan bezala, ISLren ibilbide osoan, gaitasunaren arabera hiztun multzoen izendapen-aldaketak ere ugariak izan dira. Multzo horien eraketa eta izendapenen bilakaera bildu dugu T.17. taulan.

**T.17. TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAK; KATEGORIAK ETA IZENDAPENAK. ISL (1991-2016)**

	Zein hizkuntzetako gaitasunari buruz galdetu zen inkestan?	Zein hizkuntzetako gaitasuna hartu zen aintzat hizkuntza-gaitasunari buruzko adierazlea sortzeko orduan?	Kategoriak eta izendapenak				Iturria
			Euskaldun elebakarrak	Elebidunak (*)	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	
1991	Euskara eta gaztelania/frantsesa	Euskara eta gaztelania/frantsesa	Euskaldun elebakarrak	Elebidunak (*)	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	Euskararen Jarraipena (Aizpurua Telleria, 1995: 56-57)
1996			Euskaldun elebakarrak	Elebidunak (*)	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996. Euskararen Jarraipena II (Eusko Jaurlaritza et al., 1997: 18)
2001			Elebidunak (*)	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 2001. Euskararen Jarraipena III (Eusko Jaurlaritza, 2003: 47)	
2006	Euskarari buruzkoa soilik	Euskarari buruzkoa soilik	Elebidunak (*)	Elebidun hartzaileak	Erdaldun elebakarrak	IV. Inkesta Soziolinguistikoa. 2006: Euskal Autonomia Erkidegoa, Iparraldea, Nafarroa, Euskal Herria. (Eusko Jaurlaritza, 2008: 17)	
2011			Elebidunak (*)	Elebidun hartzaileak	Erdaldunak	V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011 (Eusko Jaurlaritza, 2013: 15)	
2016			Euskaldunak (*)	Euskaldun hartzaileak	Erdaldunak	VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2019: 15)	

Iturria: egileak landua.

Oharra (\*): elebidunen multzoa hiru alorretan banatu izan da ISL guztietan, gaitasun erlatiboaren arabera. Honako izendapen hauekin: *euskal elebidunak*, *elebidun orekatuak* eta *erdal elebidunak*.

Argitu dezagun, azkenik, Inkesta Soziolinguistikoetan *elebidun hartzailea* terminoa erabili izan denean, bere adiera ez datorrela zorrotz bat gaiaren inguruan kontsultatu ditugun hiztegi, eskuliburu eta bibliografia teknikoarekin (Baetens, 1989: 35-38; Boix eta Vila, 1998: 211; Ruiz, Sanz eta Solé, 2001: 54; Coyos, 2010: 142; UZEI, 2010: 58; Moreno, 2009: 211). Kontsultatu ditugun testu horietan guztietan adierazten da elebidun hartzailea edo pasiboa, bigarren hizkuntzan hitz egiteko gai ez izan arren, hizkuntza hori zailtasunik gabe ulertzen duen hiztuna dela. Inkesta Soziolinguistikoko sailkapenean, ordea, *elebidun hartzaile* gisa sailkatzen dira euskara *zertxobait* ulertzen eta hitz egiten duten hiztunak ere, berez elebidun hartzailetzat joko genituzkeenekin batera, hots, euskaraz *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten jakin gabe euskaraz *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzen duten hiztunekin batera. Horrela, zabalagoa da Inkesta Soziolinguistikoetako *elebidun hartzaileen* multzoa teoriaren ikuspegitik eraikiko litzatekeena baino, euskaraz *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzen ez duten hiztunen zati bat ere elebidun hartzailetzat jotzen baita.

## 5.2. ERABILERAREN LANKETA EUSKAL DEMOLINGUISTIKAN

### 5.2.1. Etxeko erabilera zentsuetan

T.5. taulan ikusi dugun bezala, etxeko erabilerari buruz galdetu izan da Hegoaldeko zentsuetan 1991. urteaz geroztik.

#### 5.2.1.1. Etxeko erabilerari buruzko galderak zentsuetan

I.11. irudian 2011ko zentsuan etxeko erabilerari buruz egin zen galdera ageri da. Aurreko zentsuetako galdera sortei erreparatuta, aldaketa handirik gabe egin izan da galdera hori zentsuz zentsu bai Nafarroa Garaian eta baita EAEn ere (ikus jatorrizko galdera sortak I. eranskinean).

#### I.11. IRUDIA: ETXEKO HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERA ZENTSUETAN, 2011KO ADIBIDEA.

**Zein hizkuntza erabiltzen du gehien etxean?**


Markatu aukera bat bakarrik

Euskara    Gaztelania    Biak    Beste bat

Iurria: INE, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak* (galdetegi osoa ikusteko jo I. eranskinera).

Lau erantzun-aukera eskaintzen zaizkie elkarrizketatuei (erantzun-aukera horiek bat datoz lehen hizkuntzari buruzko galderan ageri direnekin). Ikus daitekeenez, aukera horiek lau kategoriatan laburbiltzen dituzte egon litezkeen konbinazio posible guztiak. Aldagai horretan, euskara/erdara *continuum*eko mutur biak azaltzen zaizkigu egoki ordezkaturata erantzun-aukeretan. Aldagai nominal bat da berez, eta nahi izanez gero, “gaztelania” eta “beste bat” aukerak batuz, hiru kategoriako aldagai ordinal bihurtu daiteke. Bai EUSTATen eta bai NASTATen argitalpenetan eta baita Mapa Soziolinguistikoetan ere, aldagai horren emaitzak bere horretan argitaratzen dira, G.5. grafikoak azaltzen duen bezala.

G.5. GRAFIKOA: ZENTSUETAKO “ETXEKO ERABILERA” GALDERAREN EMAITZAK VI. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAN. EAE, 2016 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)



Iturria: VI. Mapa Soziolinguistikoa, 2016 (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 79)

### 5.2.1.2. Etxeko erabilerari buruzko adierazle sintetikoak zentsuetan


II. Mapa Soziolinguistikoa *etxeko hizkuntzaren erabileraren tipologia* adierazle sintetikoa landu zen (Kultura Saila, 1997: 69). Hortik aurrerakoetan ez da tipologia hori erabili izan.

### 5.2.2. Kaleko erabilera behatua HEKN-n

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketetan, elkarrizketak neurtzen dituzte, erabilitako hizkuntzaren arabera, eta baita elkarrizketa horietan parte hartzen ari diren pertsonak ere. Berez, HEKN-k bigarren datu horrekin egiten du nagusiki lan. Horrela, adibidez, 2016ko neurketan euskararen erabilera %12,6koa izan zela adierazten denean, zorrotz hartuta honako hau esaten da: kalean neurtu diren taldeetan dauden hiztun guztiak zenbatu, eta euskaraz ari direnak neurtutako hiztun guztien %12,6 izan ziren. Emaiza horiek bere horretan aurkeztu izan dituzte HEKN-n (ikus G.6. grafikoa).

Bere ibilbidean, hizkuntzen kategorizazioan aldaketa txiki batzuk egin izan dira HEKN-n, euskara ez beste hizkuntzak jasotzeko moduei eragiten dietenak; euskararen erabileraren seriea, ordea, guztiz homogenea da.

2. irudia: **Hizkuntzen kale-erabilera.**  
**Euskal Herria, 2016. (%)**



*Iturria: Hizkuntza Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016 (Soziolinguistika Klusterra, 2017: 5)*

### 5.2.3. Erabilerak ISLn

#### 5.2.3.1. Erabilera xeheari buruzko jatorrizko galderak

Informazio ugaria eta aberatsa bildu izan du ISLk 1991. eta 2016. urte bitarteko inkestetan, hiztunen erabilera-ohiturei buruz. T.18. taulan, rol-harreman eta espazio jakin batzuei buruzko erabilera-ohiturak urtez urte ISLn jaso ote diren zehazten dugu. Ikusten denez, rol-harreman eta espazio ugari buruzko informazio xehea jaso izan da ISLn. Informazio multzo horri "erabilera xehea" deituko diogu txosten honetan.

Gai horien jatorrizko galderak I.12. eta I.13. irudietan aurkeztu ditugu. Zehatzago esanda, 2016an EAEn gai horien inguruan egin ziren galdera sortako galderak (eta erantzun-aukerak) ekarri ditugu. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko 2016ko galdera sortek informazio berbera jasotzen dute, nahiz eta formulazio aldetik moldaketak egon. Era berean, 1991-2016 bitarteko inkesta guztiak aintzat hartuta ere, formulazioan aldaketa txiki batzuk egon dira hainbat galderatan (galdera-sorta guztiak III. eranskinean ikus daitezke). Dena den, ISLren arduradun teknikoek irizpideen arabera, galdera-erantzun horien guztien alderagarritasuna urtez urte bermatuta dago guk landuko ditugun aldagai guztietan.

Errepara diezaiegun orain erabilerari buruzko galderen erantzun-aukerei. Erabilerari buruzko galdera guztien erantzun-aukerek molde berbera dute (sare sozialei buruzko galderaren salbuespenarekin) eta honako zazpi erantzun-aukera hauek eskaintzen zaizkie elkarrizketatuei, rol-harremanei edo espazio jakin batean egin ohi duten erabilerari buruz galdetzen zaienean:

- *Beti euskaraz*

- *Euskaraz gaztelaniaz*<sup>137</sup> *baino gehiago*
- *Euskaraz gaztelaniaz beste*
- *Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago*
- *Beti gaztelaniaz*
  - *Ez dagokio*
  - *Ez daki / erantzunik ez.*

Erabilerari buruzko galdera horiek bost erantzun-aukera nagusi dituzte. Proposatzen den banaketa erabat simetrikoa da eta erantzun-aukerek ondo jasotzen dituzte egon daitezkeen jokabideak. Aldagai ordinalak dira eta galdera guztietan erantzun-aukeretarako molde berdina erabiltzeak aukera ematen du euren artean alderatzeko. Hori bai, erantzun-aukeretan elkarrizketatuari ez zaio eskaintzen euskara eta gaztelania/frantsesa ez diren hizkuntzen erabilera jasotzeko aukerarik.

Sare sozialetan hitz egiten dituzten hizkuntzen galderan, berriz, zuzenean galdetu zaie elkarrizketatuei hizkuntza bakoitza zein neurritan erabiltzen duten, ehunekotan adieraz dezatela eskatuz. Euskararen, gaztelaniaren/frantsesaren eta ingelesaren erabilera-ehunekoaz galdetzen zaie zehazki. Kasu horretan, hortaz, aldagai kuantitatiboa izango dugu.

**T.18. TAULA: INKESTA SOZIOINGUISTIKOAN ERABILERARI BURUZ BILDU IZAN DIREN ALDAGAIK URTEZ URTE, 1991-2016**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Erabilera amarekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera aitarekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera bikotekidearekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera neba-arrebekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera seme-alabekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera etxean elkarrekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera lagunekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera lankideekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera auzokoekin	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai
Erabilera saltzaileekin	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera bankuan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera osasun-zerbitzuetan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera udal-zerbitzuetan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera administrazio publikoan	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai
Erabilera sare sozialetan	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai

**Iturria:** egileak landua, HPSko dokumentazio teknikoan oinarrituta.

**Oharra:** taula honetan daude HPSk gure esku jarri duen fitxategian biltzen diren erabilerari buruzko aldagai guztiak. Haserako ISLetan beste harreman batzuei buruz ere galdetu izan zen (aitona-amonekiko erabileraz, adibidez) baina harreman horien kasuan ezin da serie historikorik eraiki, azken urteotako ISLetan ez baita horiei buruz galdetu; gure lanketatik at utziko ditugu horiek.

<sup>137</sup> *Frantsesez, Ipar Euskal Herrian.*

**I.12. IRUDIA: ETXEKO ETA FAMILIAKO KIDEEKIKO ERABILERARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOINGUISTIKOAN, EAE, 2016**

14.G NOLA HITZ EGITEN DUZUE ETXEAN ZUEN ARTEAN DENOK ELKARREKIN ZAUDETENEAN?		P.14 CUANDO ESTÁN TODOS EN CASA, ¿CÓMO HABLAN ENTRE USTEDES?	
Ez dagokio (bakarrik bizi da)	0	No procede (vive solo/a)	
Beti euskaraz	1	Siempre en euskera	
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	2	Más en euskera que en castellano	
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	3	Tanto en euskera como en castellano	
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	4	Más en castellano que en euskera	
Beti gaztelaniaz	5	Siempre en castellano	
Ed/Ee	6	Ns/Nc	

(Euskaldun eta ia-euskaldunentzat bakarrik)		P.15 AHORA LE VOY A PREGUNTAR EN QUÉ LENGUA HABLA UD. CON LOS DIFERENTES MIEMBROS DE SU FAMILIA. CASO DE QUE NO TENGA ALGUNO DE ELLOS O HAYA FALLECIDO RESPONDA "NO PROCEDE".	
15.G ORAIN ZURE FAMILIAKOEKIN ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZUN GALDETUKO DIZUT. BATEN BAT EZ BALDIN BADUZU EDO HILDA BADAGO, "EZ DAGOKIO" ERANTZUN. ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU ZURE EGUNEROKO BIZIMODUAN ZURE SENARRAREKIN / EMAZTEAREKIN / BIKOTEKIDEAREKIN?		¿EN QUÉ LENGUA HABLA NORMALMENTE EN SU VIDA DIARIA CON SU MARIDO / MUJER / PAREJA?	
SEME-ALABEKIN?		¿CON SUS HIJOS E HIJAS?	
AMAREKIN?		¿CON SU MADRE?	
AITAREKIN?		¿CON SU PADRE?	
NEBA-ARREBEKIN?		¿CON SUS HERMANOS Y HERMANAS?	

	Senarra/ Emaztea Marido/Mujer	Seme- alabak Hijos/as	Ama Madre	Aita Padre	Neba- arrebak Hermanos/as	
Ez dagokio (ez dauka)	0	0	0	0	0	No procede (no tiene)
Beti euskaraz	1	1	1	1	1	Siempre en euskera
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	2	2	2	2	2	Más en euskera que en castellano
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	3	3	3	3	3	Tanto en euskera como en castellano
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	4	4	4	4	4	Más en castellano que en euskera
Beti gaztelaniaz	5	5	5	5	5	Siempre en castellano
Ed/Ee	6	6	6	6	6	Ns/Nc

Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galdetegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).



**I.13. IRUDIA: FAMILIA-GIROTIK KANPOKO ERABILERARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLOGISTIKOAN, EAE, 2016**

<p>(Erabilera galderak euskaldun eta ia-euskaldunentzat bakarrik)</p> <p>16.G FAMILIA GIROTIK KANPO, ZURE GERTUKO LAGUNETATIK, ZENBATEK DAKITE EUSKARAZ HITZ EGITEN? <b>ETA ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU BERAIEKIN?</b></p> <p>HARREMAN GEHIEN DUZUN AUZOKOETATIK, ZENBATEK DAKITE EUSKARAZ HITZ EGITEN? <b>ETA ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU BERAIEKIN?</b></p> <p>ETXETIK KANPO LAN EGITEN DUZU? ZURE LANKIDEETATIK, ZENBATEK DAKITE EUSKARAZ HITZ EGITEN? <b>ETA ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU BERAIEKIN?</b></p> <p>OHIKO EROSKETAK (OGIA, ESNEA, FRUTA, EGUNKARIA...) EGITEN DITUZUN DENDETAKO SALTZAILEETATIK, ZENBATEK DAKITE EUSKARAZ? <b>ETA ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU BERAIEKIN?</b></p> <p>ETA ZURE OHIKO BANKUKO EDO AURREZKI-KUTXAKO LANGILEETATIK? <b>ETA ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU BERAIEKIN?</b></p> <p>ETA ZURE OSASUN-ZERBITZUKO EDO ANBULATORIOKO LANGILEETATIK? <b>ETA ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU BERAIEKIN?</b></p> <p>ETA ERABILTZEN DITUZUN UDAL ZERBITZUETAKO LANGILEETATIK? (UDALETXEA, GIZARTE ZERBITZUAK, KIROL INSTALAZIOAK, KULTUR ETXEA...) <b>ETA ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU BERAIEKIN?</b></p> <p>ETA ERABILTZEN DITUZUN DIPUTAZIO ETA EUSKO JAURLARITZAKO ZERBITZUETAKO LANGILEETATIK (GIZARTE ZERBITZUAK, OGASUNA, HEZKUNTZA, ETXEBIZITZA...)? <b>ETA ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZU BERAIEKIN?</b></p>	<p>(Las preguntas de uso sólo para euskaldunes y cuasi-euskaldunes)</p> <p>P.16 FUERA DEL ÁMBITO FAMILIAR, ¿CUÁNTOS SABEN EUSKERA ENTRE LOS AMIGOS Y AMIGAS CON LOS QUE TIENE MAYOR RELACIÓN? <b>¿Y EN QUÉ LENGUA HABLA UD. CON ELLOS Y ELLAS?</b></p> <p>¿CUÁNTOS SABEN EUSKERA ENTRE LOS VECINOS Y VECINAS CON LOS QUE TIENE MAYOR RELACIÓN? <b>¿Y EN QUÉ LENGUA HABLA UD. CON ELLOS Y ELLAS?</b></p> <p>¿TRABAJA UD. FUERA DE CASA? ¿CUÁNTOS SABEN EUSKERA ENTRE SUS COMPAÑEROS Y COMPAÑERAS DE TRABAJO CON LOS QUE TRATA A DIARIO? <b>¿Y EN QUÉ LENGUA HABLA UD. CON ELLOS Y ELLAS?</b></p> <p>¿CUÁNTOS SABEN EUSKERA ENTRE LOS DEPENDIENTES Y DEPENDIENTAS DE LAS TIENDAS DEL BARRIO EN LAS QUE REALIZA HABITUALMENTE LA COMPRA (PAN, LECHE, FRUTA, PERIÓDICO...)? <b>¿Y EN QUÉ LENGUA HABLA UD. CON ELLOS Y ELLAS?</b></p> <p>¿Y ENTRE EL PERSONAL DE LA SUCURSAL DEL BANCO O CAJA DE AHORROS CON LA QUE TRABAJA? <b>¿Y EN QUÉ LENGUA HABLA CON ELLOS Y ELLAS?</b></p> <p>¿Y ENTRE EL PERSONAL DE LOS SERVICIOS SANITARIOS O AMBULATORIO A LOS QUE ACUDE? <b>¿Y EN QUÉ LENGUA HABLA CON ELLOS Y ELLAS?</b></p> <p>¿Y ENTRE EL PERSONAL DE LOS SERVICIOS MUNICIPALES QUE UTILIZA (AYUNTAMIENTO, SERVICIOS SOCIALES, INSTALACIONES DEPORTIVAS, CASA DE CULTURA...)? <b>¿Y EN QUÉ LENGUA HABLA CON ELLOS Y ELLAS?</b></p> <p>¿Y ENTRE EL PERSONAL DE LOS SERVICIOS DE LA DIPUTACIÓN O DEL GOBIERNO VASCO QUE UTILIZA (SERVICIOS SOCIALES, HACIENDA, EDUCACIÓN, VIVIENDA...)? <b>¿Y EN QUÉ LENGUA HABLA CON ELLOS Y ELLAS?</b></p>																																																																																								
<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>Lagunak Amigos</th> <th>Auzokoak Vecinos</th> <th>Lana Trabajo</th> <th>Dendak Tiendas</th> <th>Bankua Banco</th> <th>Anbulat. Ambulat.</th> <th>Udal zerb. S. mun.</th> <th>Diput./E.J. Diput./G.V.</th> <th></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Ez dagokio (ez dauka edo ez doa)</td> <td>0</td> <td>0</td> <td>0</td> <td>0</td> <td>0</td> <td>0</td> <td>0</td> <td>0</td> <td>No procede (no tiene o no va)</td> </tr> <tr> <td>Beti euskaraz</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>Siempre en euskera</td> </tr> <tr> <td>Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>Más en euskera que en castellano</td> </tr> <tr> <td>Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>Tanto en euskera como en castellano</td> </tr> <tr> <td>Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>Más en castellano que en euskera</td> </tr> <tr> <td>Beti gaztelaniaz</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>Siempre en castellano</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td>6</td> <td>6</td> <td>6</td> <td>6</td> <td>6</td> <td>6</td> <td>6</td> <td>6</td> <td>Ns/Nc</td> </tr> </tbody> </table>											Lagunak Amigos	Auzokoak Vecinos	Lana Trabajo	Dendak Tiendas	Bankua Banco	Anbulat. Ambulat.	Udal zerb. S. mun.	Diput./E.J. Diput./G.V.		Ez dagokio (ez dauka edo ez doa)	0	0	0	0	0	0	0	0	No procede (no tiene o no va)	Beti euskaraz	1	1	1	1	1	1	1	1	Siempre en euskera	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	2	2	2	2	2	2	2	2	Más en euskera que en castellano	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	3	3	3	3	3	3	3	3	Tanto en euskera como en castellano	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	4	4	4	4	4	4	4	4	Más en castellano que en euskera	Beti gaztelaniaz	5	5	5	5	5	5	5	5	Siempre en castellano	Ed/Ee	6	6	6	6	6	6	6	6	Ns/Nc
	Lagunak Amigos	Auzokoak Vecinos	Lana Trabajo	Dendak Tiendas	Bankua Banco	Anbulat. Ambulat.	Udal zerb. S. mun.	Diput./E.J. Diput./G.V.																																																																																	
Ez dagokio (ez dauka edo ez doa)	0	0	0	0	0	0	0	0	No procede (no tiene o no va)																																																																																
Beti euskaraz	1	1	1	1	1	1	1	1	Siempre en euskera																																																																																
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	2	2	2	2	2	2	2	2	Más en euskera que en castellano																																																																																
Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste	3	3	3	3	3	3	3	3	Tanto en euskera como en castellano																																																																																
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	4	4	4	4	4	4	4	4	Más en castellano que en euskera																																																																																
Beti gaztelaniaz	5	5	5	5	5	5	5	5	Siempre en castellano																																																																																
Ed/Ee	6	6	6	6	6	6	6	6	Ns/Nc																																																																																

<p>17.G ERABILTZEN AL DUZU INTERNETEN WHATSAPP, FACEBOOK EDO TWITTER BEZALAKO SARE SOZIALIK? ZENBAT ALDIZ?</p>	<p>Egunero 1</p> <p>Astean bitan edo hirutan 2</p> <p>Asteburuetan 3</p> <p>Noizean behin 4</p> <p>Inoiz ez 5</p> <p>Ed/Ee 6</p>	<p>A diario</p> <p>Dos o tres días a la semana</p> <p>Los fines de semana</p> <p>De vez en cuando</p> <p>No, nunca</p> <p>Ns/Nc</p>	<p>P.17 ¿UTILIZA USTED EN INTERNET REDES SOCIALES COMO WHATSAPP, FACEBOOK O TWITTER? ¿CON QUÉ FRECUENCIA?</p>						
<p>ZEIN HIZKUNTZA ERABILTZEN DUZU SARE SOZIALETAN? EUSKARA, GAZTELANIA SOILIK, INGELESA ERE BAI? (Hizkuntza bakarra erabiliz gero → %100 eta gainerako biak %0) (Bat baino gehiago erabiliz gero)</p> <p>GUTXI GORABEHERA, EHUNEKO ZENBATEAN ERABILTZEN DUZU HIZKUNTZA BAKOITZA? (Lagundu erantzuten)</p>		<p>¿QUÉ IDIOMA SUELE UTILIZAR EN LAS REDES SOCIALES? ¿EUSKERA, SÓLO CASTELLANO, TAMBIÉN INGLÉS? (Si utiliza sólo uno → 100% y los otros dos el 0%) (Si utiliza más de uno)</p> <p>APROXIMADAMENTE, ¿EN QUÉ PORCENTAJE UTILIZA CADA UNO DE ELLOS? (Ayudar en la respuesta)</p>							
<p>Euskara% % Euskera</p> <table border="1" style="margin: auto;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table>					<p>Gaztelania% % Castellano</p> <table border="1" style="margin: auto;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table>				
<p>Ingelesa/Beste bat% % Inglés/Otro</p> <table border="1" style="margin: auto;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> <td style="width: 20px; height: 20px;"></td> </tr> </table>									

Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galdetegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).



**T.19. TAULA: ELKARRIZKETATUEN ERABILERARI BURUZKO INFORMAZIOA ISL-N. GALDERA SORTAREN AZTERKETA.**

EUSKARAREN ERABILERA ELKARRIZKETATUAREN HARREMAN-SAREKO HONAKO ROL-HARREMAN EDO ESPAZIO HAUETAN	ERANTZUN-AUKERAK	ALDAGAI MOTA
<p>Erabilera honako pertsona hauekin edo honako inguru hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Amarekin</li> <li>• Aitarekin</li> <li>• Bikotearekin</li> <li>• Neba-arrebekin</li> <li>• Seme-alabekin</li> <li>• Etxean etxeakoak elkarrekin daudenean</li> <li>• Lagunekin</li> <li>• Lankideekin</li> <li>• Auzokoekin</li> <li>• Saltzaileekin</li> <li>• Bankuan</li> <li>• Osasun-zerbitzuetan</li> <li>• Udal-zerbitzuetan</li> <li>• Administrazio publikoan</li> </ul>	<p>Eskainitako erantzun-aukerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Beti euskaraz</li> <li>○ Euskaraz erdaraz baino gehiago</li> <li>○ Euskaraz erdaraz beste</li> <li>○ Euskaraz erdaraz baino gutxiago</li> <li>○ Beti erdaraz</li> <li>○ Ez dagokio</li> <li>○ Ez daki / erantzunik ez.</li> </ul>	<p>Galdera hauek guztiek aldagai ORDINALAK emango dizkigute.</p>
<p>Erabilera sare sozialetan (gutxienez noizean behin erabiltzen dutenek)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz (%)</li> <li>• Gaztelaniaz (%)</li> <li>• Ingeleseaz (%)</li> </ul>	<p>Galdera honek aldagaia KUANTITATIBOA emango digu.</p>

[Iturria:](#) egileak landua.

Rol-harremani edo espazio jakinei buruz xehe jasotako erabilera-ohiturei buruzko emaitzen laburpena argitaratu izan dute ISLetan. G.7. grafikoan, adibidez, 2016ko ISLren emaitzen txostenean argitaratu zen informazioa ageri da. Galderei emandako erantzunak birkodetu eta “*Beti euskaraz*”, “*Euskaraz erdaraz baino gehiago*” eta “*Euskaraz erdaraz beste*” erantzunak eman dituzten elkarrizketatuak batu eta multzo horien batura dira, zehazki, grafiko horietan erakusten diren ehunekoak.

G.7. GRAFIKOA: ERABILERARI BURUZKO GALDERA XEHEEN EMAITZAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritz, 2019: 55-57).

Oharra: argitalpen horretan lagunekin eta sare sozialetan egiten den erabileraren datuak ere eskaintzen dira (ez grafikoetan, horregatik ez ditugu ekarri).

### 5.2.3.2. Erabilerari buruzko adierazle sintetikoa: ISLko erabileraren tipologia eta "erabilera trinkoa"

Erabilera xeheari buruzko informazioaz baliatuta, erabilerari buruzko adierazle sintetikoa lantzen da ISLko argitalpenetan; horrela, zenbait ingurutan egiten den erabileraren laburpen bat lortzen dute adierazle bakarrean. "Euskararen erabileraren tipologia" du izena adierazle sintetiko horrek, eta horixe da 2001etik aurrerako ISLren argitalpenetan erabileraz aritzerakoan gehien erabiltzen den adierazlea (ikus G.8. grafikoa).

G.8. GRAFIKOA: ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN EMAITZAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2019: 48).

Aipatu dugu lehenago ere, erabilera xehe guztiei pisu berbera ematen dien katalanen ereduaren aurrean, praktikan euskal ISLko adierazleak haztatu egiten dituela erabilerari buruzko jatorrizko itemak. Arrazoi horregatik, gure iritziz, askoz interesgarriagoa da euskal eredia katalanena baino. Lehenago esan bezala, ez dugu beste adibiderik aurkitu nazioarteko demolinguistikan gai garrantzitsu eta labainkor honetan proposamen praktiko eta egingarri bat landu duena erabilera xeheetatik abiatuta erabilera orokorraren adierazle bat sortzeko.

Nola osatzen da ISLko *erabileraren tipologia*? Labur azalduta, I.14. irudian ikus daitekeen bezala, honako hiru alor hauetako erabilerak hartzen dira aintzat maila berean: etxeko erabilera, lagunartekoa eta eremu formalekoa. Azken horren barruan, bestalde, dendetan, bankuetan, osasun-zerbitzuetan eta udal-zerbitzuetan egiten den erabilera laburtzen da. Konplexua da adierazle horren eraketa, eta merezi du lasai azaltzea. Jarraian azalduko dugu adierazle hori nola eraiki den. Hasteko, adierazle berrian parte hartuko duten hiru alorretan egiten den lanketa azalduko dugu; ondoren, hiru alorren konbinazioa.

**I.14. IRUDIA: "EUSKARAREN ERABILERAREN TIPOLOGIA" ADIERAZLE SINTETIKOA NOLA OSATZEN DEN.**



Iturria: *Euskararen erabilera eta erabileraren eragiten duten faktore nagusiak* (Aizpurua, 2018b: 32)

**Etxeko erabileraren lanketa adierazle sintetikoari begira.** Etxean norbaitekin bizi diren elkarrizketatuei, euren etxean bizi direnek elkarrekin daudenean erabiltzen duten hizkuntza esleitzen zaie. Etxeko erabileraren erantzun-aukerak honako bost hauek dira ISLn (hasierako zenbakiak erantzunaren zenbakizko kodea adierazten du):

1. Beti euskaraz
2. Euskaraz erdaraz baino gehiago
3. Euskaraz erdaraz beste
4. Erdaraz euskaraz baino gehiago
5. Beti erdaraz

Etxean bakarrik bizi diren elkarrizketatuei, familiako kideekin duten erabilera-ohitura esleitzen zaie, adierazle berriari begira. Horretarako, bakarrik bizi diren elkarrizketatu bakoitzak dituen familia-harremanetako erabilera-ohituren batez bestekoa kalkulatu da, honako harreman hauek aintzat hartuz: bikotekidea, seme-alabak, aita, ama eta anai-arrebak. Batez besteko hori goiko kode horietatik abiatuta kalkulatu da, eta zenbaki osoa ematen ez duenean, biribildu egiten da, hartara bost balio horietara egokitzeko.

**Lagunarteko erabilera.** Lagunekin erabiltzen den hizkuntzari buruzko informazioa zuzenean dagokion aldagaitik hartzen da. Aldagai horrek aurrekoaren bost erantzun-aukera berberak ditu.

**Eremu formaleko erabileren lanketa adierazle sintetikoari begira.** Abiapuntuan, aurreko bi aldagaien erantzun-aukera eta kodetze bera duten lau aldagai ditugu: erabilera dendetan, erabilera bankuan, erabilera anbulatorioan eta erabilera udal-zerbitzuetan.

Lau aldagai horietatik abiatuta, hainbat kalkulu egiten dira:

- Lehenik, denda eta bankuko balio erabilgarrien batez bestekoa eginda, arlo pribatuko erabilera kalkulaten da.
- Ondoren, prozedura bera erabilia, arlo publikoko erabilera kalkulaten da, anbulatorioko eta udal-zerbitzuetako erabileraren batez bestekoa eginda.
- Azkenik, erabilera publikoaren eta pribatuaren balio erabilgarrien batez bestekoarekin, “eremu formaletako erabilera” kalkulaten da. Batez besteko horrek zenbaki osoa ematen ez duenean biribildu egiten da kopuru hori, eta bost kategorien sailkapenera ekartzen.

**Hiru erabilerak bateratzea eta tipologia eratzea.** Azaldu dugun bezala, tarteko hiru adierazle kalkulaten dira. Hirurek sailkapen bera daukate, eta bost kategorietako aldagai ordinalak dira. Hiru adierazle horiek hartu eta hiru erabilerei pisu bera ematen zaie “Erabileraren tipologia” adierazle sintetikoa sortzeko orduan<sup>138</sup>. Hiru erabilera horiek aintzat hartuta, bost kategoriatako sailkapenera iristen dira.

Zehazki, HPSren dokumentazio teknikoa aztertuta, ikusi dugu hiru eremu horietako erabilera mailen artean dauden konbinazio posibleak bost kategorietan sailkatzen dituztela, T.20. taulan ikus daitekeen bezala-

---

<sup>138</sup> Mikel Zalbidek ikuspegi teoriko batetik auzitan jarri izan du adierazle honetan hiru erabilera-multzo horiei pisu bera ematea. Haren ustez, belaunez belauneko jarraipenean hurbileko eremuak dira funtsezkoak, eta ez da egokia espazio formaletako erabilerari hainbesteko pisua ematea (2016: 28):

Ama-hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio naturalari dagokionez, jardungune eta rol-harreman guztiak ez dira garrantzi bereko: askoz garrantzitsuago dira hitzunen eguneroko jardun informal-espontaneoak, ez aldian behingo konexio formalizatua biltzen dutenak. Kontuan izan behar luke garrantzi-hierarkia nabarmen hori, ahal delarik, erabilera globalaren berri eman nahi duen edozein indize sintetikorik.

**T.20. TAULA: HIRU EREMUETAN (ETXEAN, LAGUNARTEAN ETA ALOR FORMALEAN) HIZTUNEK DITUZTEN ERABILERA-MAILAK NOLA SAILKATZEN DIREN “EUSKARAREN ERABILERA-TIPOLOGIAN”.**

1 eremuko erabilera	2 eremuko erabilera	3 eremuko erabilera	Erabilera tipologia (sailkapena)
Beti euskaraz	Beti euskaraz	Beti euskaraz	
Beti euskaraz	Beti euskaraz	Gehiago euskaraz	
Beti euskaraz	Gehiago euskaraz	Gehiago euskaraz	
Beti euskaraz	Beti euskaraz	Bietara berdin	<b>Euskaraz erdaraz baino gehiago</b>
Gehiago euskaraz	Gehiago euskaraz	Gehiago euskaraz	
Beti euskaraz	Gehiago euskaraz	Bietara berdin	
Gehiago euskaraz	Gehiago euskaraz	Bietara berdin	
Beti euskaraz	Bietara berdin	Bietara berdin	
Beti euskaraz	Beti euskaraz	Gehiago erdaraz	
Beti euskaraz	Gehiago euskaraz	Gehiago erdaraz	
Beti euskaraz	Beti euskaraz	Beti erdaraz	
Gehiago euskaraz	Bietara berdin	Bietara berdin	
Gehiago euskaraz	Gehiago euskaraz	Gehiago erdaraz	
Beti euskaraz	Bietara berdin	Gehiago erdaraz	
Beti euskaraz	Gehiago euskaraz	Beti erdaraz	<b>Euskaraz erdaraz beste</b>
Bietara berdin	Bietara berdin	Bietara berdin	
Gehiago euskaraz	Bietara berdin	Gehiago erdaraz	
Gehiago euskaraz	Gehiago euskaraz	Beti erdaraz	
Beti euskaraz	Gehiago erdaraz	Gehiago erdaraz	
Beti euskaraz	Bietara berdin	Beti erdaraz	
Bietara berdin	Bietara berdin	Gehiago erdaraz	
Gehiago euskaraz	Bietara berdin	Beti erdaraz	
Gehiago euskaraz	Gehiago erdaraz	Gehiago erdaraz	
Beti euskaraz	Gehiago erdaraz	Beti erdaraz	
Bietara berdin	Gehiago erdaraz	Gehiago erdaraz	
Bietara berdin	Bietara berdin	Beti erdaraz	
Gehiago euskaraz	Gehiago erdaraz	Beti erdaraz	
Beti euskaraz	Beti erdaraz	Beti erdaraz	<b>Euskaraz erdaraz baino gutxiago</b>
Gehiago erdaraz	Gehiago erdaraz	Gehiago erdaraz	
Bietara berdin	Gehiago erdaraz	Beti erdaraz	
Gehiago euskaraz	Beti erdaraz	Beti erdaraz	
Gehiago erdaraz	Gehiago erdaraz	Beti erdaraz	
Bietara berdin	Beti erdaraz	Beti erdaraz	
Gehiago erdaraz	Beti erdaraz	Beti erdaraz	<b>Oso gutxi euskaraz</b>
Beti erdaraz	Beti erdaraz	Beti erdaraz	<b>Beti erdaraz</b>


Iturria: egileak landua, HPSko dokumentazio teknikoan oinarrituta.

Horrela, bada, hainbat erabilera xehetan oinarrituta, erabilera xeheak haztatuz sortzen da adierazle berria. Sortzen den adierazle sintetikoa aldagai ordinal bat da. Adierazle horretan, bost kategoriatan banatzen dira hiztunak. Kategoriatan multzo horren eraketa asimetrikoa da: euskararen erabilera handieneko kategoriak euskararen erabilera txikieneko hiru kategorien espazio logikoa betetzen du. Bestela esanda, “euskaraz erdaraz baino gehiago” kategorian biltzen dira simetriari eutsiz gero sortuko liritekeen honako hiru multzo hauetako hiztunak: “Beti euskaraz”, “oso gutxi erdaraz” eta “euskaraz erdaraz baino gehiago” egiten dutenak.

Bestalde, esan behar da adierazle horren bost kategoriak ez datozela bat erabilerari buruzko adierazle xeheen bost kategoriekin (horiek bai simetrikoak). Horrek zaildu egiten du erabilera xeheari buruzko datuak adierazle sintetiko horren datuekin alderatzea.

Azkenik, ISLko txostenetan, adierazle sintetiko horren emaitzak are gehiago laburbiltzen dira “erabilera trinkoa” kontzeptuarekin. Erabilera trinkoa esaten diote euskararen erabilera tipologian “euskaraz erdaraz baino gehiago” edo “euskara erdara beste” erabiltzen duten hiztunen baturari. Erabilera aldagaien arabera aztertzerakoan, edo bilakaerak aztertzerakoan, askotan erabiltzen da ISL-n *erabilera trinkoaren* kontzeptua (ikus adibidez G.9. grafikoa).

**G.9. GRAFIKOA: ERABILERA TRINKOA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTEK GORAKO HIZTUNAK)**



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2019: 51).

Aipa dezagun, azkenik, ISLko argitalpenetan ohikoa dela hiztun guztien erabilera mailarekin lan egitea nagusiki. Gutxiago landu izan dira “euskaldunen erabilerari” buruzko datuak. Eta ez dugu aurkitu “euskaldunek euskaldunekin duten erabilerari” buruzko daturik.



## 5.3. JARREREN LANKETA ISL-N

### 5.3.1. Euskararekiko jarreraren berri emango diguten jatorrizko galderak ISLn

Elkarrizketatuen iritzi eta jarrerak biltzeko galdera ugari txertatu izan da Inkesta Soziolinguistikoetan. I.15. irudian aurkeztu ditugu EAEn 2016an landu zirenak. Ikus daitekeen bezala, herritarren alderdi subjektiboetan arakatzeko item ugari dugu eskura.

#### I.15. IRUDIA: IRITZI ETA JARREREI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOINGUISTIKOAN, EAE, 2016

18.G NOLAKOA DA EUSKARAREKIKO DUZUN INTERESA?	<table> <tr><td>Oso handia</td><td>1</td><td>Mucho</td></tr> <tr><td>Nahiko handia</td><td>2</td><td>Bastante</td></tr> <tr><td>Zertxobait</td><td>3</td><td>Algo</td></tr> <tr><td>Txikia</td><td>4</td><td>Poco</td></tr> <tr><td>Bat ere ez</td><td>5</td><td>Nada</td></tr> <tr><td>Ed/Ee</td><td>6</td><td>Ns/Nc</td></tr> </table>	Oso handia	1	Mucho	Nahiko handia	2	Bastante	Zertxobait	3	Algo	Txikia	4	Poco	Bat ere ez	5	Nada	Ed/Ee	6	Ns/Nc	P.18 ¿CUÁL ES SU GRADO DE INTERÉS POR EL EUSKERA?																														
Oso handia	1	Mucho																																																
Nahiko handia	2	Bastante																																																
Zertxobait	3	Algo																																																
Txikia	4	Poco																																																
Bat ere ez	5	Nada																																																
Ed/Ee	6	Ns/Nc																																																
19.G SEME-ALABARIK BADUZU EDO IZANGO BAZENU ESKOLAN, ZEIN HIZKUNTZATAN NAHIKO ZENUKE HAIEK IKASTEAK?	<table> <tr><td>Euskaraz, gaztelania ikasgai duela</td><td>1</td><td>En euskera, con castellano como asignatura</td></tr> <tr><td>Euskaraz eta gaztelaniaz</td><td>2</td><td>En euskera y castellano</td></tr> <tr><td>Gaztelaniaz, euskara ikasgai duela</td><td>3</td><td>En castellano, con euskera como asignatura</td></tr> <tr><td>Gaztelania hutsean</td><td>4</td><td>Sólo en castellano</td></tr> <tr><td>Ed/Ee</td><td>5</td><td>Ns/Nc</td></tr> </table>	Euskaraz, gaztelania ikasgai duela	1	En euskera, con castellano como asignatura	Euskaraz eta gaztelaniaz	2	En euskera y castellano	Gaztelaniaz, euskara ikasgai duela	3	En castellano, con euskera como asignatura	Gaztelania hutsean	4	Sólo en castellano	Ed/Ee	5	Ns/Nc	P.19 SI TIENE O TUVIERA HIJOS O HIJAS EN LA ESCUELA, ¿EN QUÉ LENGUA LE GUSTARÍA QUE ESTUDIARAN?																																	
Euskaraz, gaztelania ikasgai duela	1	En euskera, con castellano como asignatura																																																
Euskaraz eta gaztelaniaz	2	En euskera y castellano																																																
Gaztelaniaz, euskara ikasgai duela	3	En castellano, con euskera como asignatura																																																
Gaztelania hutsean	4	Sólo en castellano																																																
Ed/Ee	5	Ns/Nc																																																
<p>20.G ONDORENGO ESALDIOKIN ZER ZAUDE: GUZTIZ KONFORME, NAHIKO KONFORME, EZ ALDE EZ KONTRA, NAHIKO KONTRA ALA GUZTIZ KONTRA?</p> <p>GUZTIZ BERTAKOA IZATEKO EUSKARAZ HITZ EGITEN JAKIN BEHAR DA.</p> <p>HOBE DA JENDEAK INGELESA IKASTEAK EUSKARA IKASTEAK BAINO.</p> <p>ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN SARTZEKO BEHARREZKOA IZAN BEHARKO LITZATEKE EUSKARA JAKITEAK.</p> <p>EZINBESTEAK DA HAUR GUZTIEK EUSKARA IKASTEAK.</p> <p>EUSKAL HERRIAN IKUSI ETA ENTZUTEN DIREN TELEBISTA ETA IRRATIEK ASKOZ PROGRAMA GEHIAGO IZAN BEHARKO LITUZKETE EUSKARAZ.</p> <p>EUSKARA GALTZEKO ARRISKUAN DAGO.</p>	<table> <thead> <tr> <th>Guztiz konforme</th> <th>Nahiko konforme</th> <th>Ez alde ez kontra</th> <th>Nahiko kontra</th> <th>Guztiz kontra</th> <th>Ed/Ee</th> </tr> <tr> <th>Total acuerdo</th> <th>Parcial acuerdo</th> <th>Ni acuerdo Ni desac.</th> <th>Parcial desacuer.</th> <th>Total desacuer.</th> <th>Ns/Nc</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1</td> <td>2</td> <td>3</td> <td>4</td> <td>5</td> <td>6</td> </tr> <tr> <td>1</td> <td>2</td> <td>3</td> <td>4</td> <td>5</td> <td>6</td> </tr> <tr> <td>1</td> <td>2</td> <td>3</td> <td>4</td> <td>5</td> <td>6</td> </tr> <tr> <td>1</td> <td>2</td> <td>3</td> <td>4</td> <td>5</td> <td>6</td> </tr> <tr> <td>1</td> <td>2</td> <td>3</td> <td>4</td> <td>5</td> <td>6</td> </tr> <tr> <td>1</td> <td>2</td> <td>3</td> <td>4</td> <td>5</td> <td>6</td> </tr> </tbody> </table>	Guztiz konforme	Nahiko konforme	Ez alde ez kontra	Nahiko kontra	Guztiz kontra	Ed/Ee	Total acuerdo	Parcial acuerdo	Ni acuerdo Ni desac.	Parcial desacuer.	Total desacuer.	Ns/Nc	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4	5	6	<p>P.20 ¿DÍGAME SI ESTÁ DE ACUERDO, TOTAL O PARCIAL, NI DE ACUERDO NI EN DESACUERDO, O EN DESACUERDO, TOTAL O PARCIAL, CON LAS SIGUIENTES FRASES:</p> <p>PARA SER VASCO/A DE VERDAD HAY QUE SABER HABLAR EUSKERA.</p> <p>ES MEJOR QUE LA GENTE ESTUDIE INGLÉS EN LUGAR DE ESTUDIAR EUSKERA.</p> <p>PARA ENTRAR EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEBERÍA SER NECESARIO SABER EUSKERA.</p> <p>ES IMPRESCINDIBLE QUE TODOS LOS NIÑOS Y NIÑAS APRENDAN EUSKERA.</p> <p>TODAS LAS RADIOS Y TELEVISIONES QUE SE RECIBEN EN EL PAÍS VASCO DEBERÍAN TENER BASTANTES MÁS PROGRAMAS EN EUSKERA.</p> <p>EL EUSKERA ESTÁ EN PELIGRO DE DESAPARECER.</p>
Guztiz konforme	Nahiko konforme	Ez alde ez kontra	Nahiko kontra	Guztiz kontra	Ed/Ee																																													
Total acuerdo	Parcial acuerdo	Ni acuerdo Ni desac.	Parcial desacuer.	Total desacuer.	Ns/Nc																																													
1	2	3	4	5	6																																													
1	2	3	4	5	6																																													
1	2	3	4	5	6																																													
1	2	3	4	5	6																																													
1	2	3	4	5	6																																													
1	2	3	4	5	6																																													

21.G ETA ESALDI HAUEKIN?	Gutziz konforme Total acuerdo	Nahiko konforme Parcial acuerdo	Ez alde ez kontra Ni acuerdo Ni desac.	Nahiko kontra Parcial desacuer.	Gutziz kontra Total desacuer.	Ed/Ee Ns/Nc	P.21 Y ¿CON CADA UNA DE LAS SIGUIENTES?
EUSKAL HERRIAN EUSKARA BEHARREZKO DA JENDEAREKIN KOMUNIKATZEKO.	1	2	3	4	5	6	EL EUSKERA ES UNA LENGUA NECESARIA PARA COMUNICARSE CON LOS DEMÁS EN EL PAÍS VASCO.
EUSKAL HERRIAN EUSKARAK EZ DU SEKULA IZANGO GAZTELANIAK DUEN GARRANTZIA.	1	2	3	4	5	6	EN EL PAÍS VASCO, EL EUSKERA NUNCA VA A TENER LA IMPORTANCIA DEL CASTELLANO.
NAHIAGO DUT EUSKARAZ EGITEN DUTEN DENDA ETA SALTOKIETARA JOATEA	1	2	3	4	5	6	PREFIERO IR A LAS TIENDAS Y ESTABLECIMIENTOS QUE ATIENDEN EN EUSKERA
<b>OROHAR, HURBILAGOKOAK SENTITZEN DITUT EUSKALDUNAK</b>	1	2	3	4	5	6	<b>EN GENERAL, ME SIENTO MÁS PRÓXIMO A LOS EUSKALDUNES</b>
EUSKALDUNOK EZEZAGUN BATI HITZ EGITEN DIOGUNEAN, EUSKARAZ EGIN BEHARKO GENIOKE BETI LEHEN HITZA	1	2	3	4	5	6	LOS EUSKALDUNES, CUANDO SE DIRIGEN (NOS DIRIGIMOS) A UN DESCONOCIDO, DEBERÍAN (DEBERÍAMOS) DECIR LA PRIMERA PALABRA SIEMPRE EN EUSKERA
EUSKALDUNOK EUSKARAZ EGIN BEHARKO GENUKE BETI, NAHIZ ETA GUREKIN BATERA DAUDEN BATZUEK EZ JAKIN	1	2	3	4	5	6	LOS EUSKALDUNES DEBERÍAN (DEBERÍAMOS) HABLAR SIEMPRE EN EUSKERA, AUNQUE ALGUNO DE LOS PRESENTES NO LO SEPA


22.G ZURE USTEZ, ETORKIZUNEAN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGIN BEHARKO LITZATEKE EUSKAL HERRIAN?	Euskaraz bakarrik Euskaraz eta gaztelaniaz Gaztelaniaz bakarrik Ed/Ee	1 2 3 4	Sólo en euskera En euskera y en castellano Sólo en castellano Ns/Nc	P.22 EN SU OPINIÓN, EN EL FUTURO, ¿EN QUÉ LENGUA SE DEBERÍA HABLAR EN EL PAÍS VASCO?
23.G (Euskaldunentzat bakarrik) ZU ZEU INOIZ DISKRIMINATUTA SENTITU ZARA EUSKARA ERABILTZEKO AUKERARIK IZAN EZ DUZULAKO?  (Erdaldun eta ia-euskaldunentzat bakarrik) ZU ZEU INOIZ DISKRIMINATUTA SENTITU ZARA EUSKARA EZ JAKITEAGATIK?	Bai, askotan Bai, noizean behin Ez, inoiz ere ez Ed/ee	1 2 3 4	Sí, muchas veces Sí, alguna vez No, nunca Ns/nc	P.23 (Para los/as euskaldunes) ¿SE HA SENTIDO ALGUNA VEZ DISCRIMINADO/A POR NO TENER LA OPORTUNIDAD DE HABLAR EN EUSKERA?  (Para quasi-euskaldunes y erdaldunes) ¿SE HA SENTIDO ALGUNA VEZ DISCRIMINADO/A POR NO SABER HABLAR EUSKERA?
24.G OROKORREAN, NOLA BALORATZEN DUZU EUSKARARI BURUZ EUSKO JAURLARITZA EGITEN ARI DEN LANA, EGOKIA ALA DESEGOKIA DA?  ZERGATIK IRUDITZEN ZAIZU EGOKIA / DESEGOKIA?	Egokia Desegokia Berdin zait Ed/ee asko egin delako ez dagoelako gehiagoren beharrik gutxi egin delako gehiegi egin delako Ed/Ee	1 2 3 4 1 2 3 4 5	Adecuada Inadecuada Le da igual Ns/Nc porque se ha hecho mucho porque no hay que hacer más porque se ha hecho poco porque se ha ido demasiado lejos Ns/Nc	P.24 EN GENERAL, ¿CONSIDERA QUE LA LABOR QUE ESTÁ REALIZANDO EL GOBIERNO VASCO EN RELACIÓN CON EL EUSKERA ES ADECUADA O INADECUADA?  ¿POR QUÉ LE PARECE ADECUADA / INADECUADA?

25.G EUSKALDUNA SENTITZEN ZARA?	Gutziz Nahikoa Zertxobait Gutxi Bat ere ez Ed/Ee	1 2 3 4 5 6	Muy Bastante Algo Poco Nada Ns/Nc	P.25 ¿SE CONSIDERA UD. VASCO/A?
---------------------------------	---	----------------------------	--	---------------------------------

Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galdetegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).

Item horietako batzuen emaitzak ISLren 2016ko emaitzen txostenean aurki ditzakegu. Horietako batzuk G.10 grafikoan ageri dira; hor erantzunak laburtuta aurkezten zaizkigu, bi multzotan: guztiz eta nahiko konforme daudenak batetik, eta guztiz edo nahiko kontra daudenak bestetik. Beste galdera batzuen emaitzak ere aurkezten zaizkigu txostenean, batzuetan grafikoan laguntzaz eta beste batzuetan txostenaren testuan: euskarari buruz duten interesari buruzkoak, seme-alabak eskolatzeko erduei buruzkoak, eta abar.

**G.10. GRAFIKOA: HAINBAT ESALDIREKIKO IRITZIAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2019: 67).

### 5.3.2. “Euskara sustatzeari buruzko jarrera” adierazle sintetikoa

Inkesta Soziolinguistikoaren argitalpenetan, elkarrizketatuen iritzi eta jarrerak laburbiltzeko, *Euskara sustatzeari buruzko jarrera* izeneko adierazle sintetikoa erabiltzen dute. Hartara, euskararen aldekoak/aurkakoak/tartekoak zenbat diren laburbiltzen dute. Hona hemen, hitzez hitz, 2016ko inkestaren emaitza-txostenean adierazlearen eraikuntzari buruz esaten zaiguna (Eusko Jaurlaritza, 2019: 63):

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra inkestatuek adierazi duten iritziaren arabera, tipologia bat eratu da.

Honako hauek dira tipologia osatzeko erabili diren baieztapenak:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da.
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (ados ez daudenak dira euskara sustatzearen aldekoak).
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea.
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz.

Lau esaldi horien inguruko iritzia emateko, honako erantzun-aukerak eskaini izan zaizkie inkestan elkarrizketatu direnei (hasierako zenbakiak erantzunaren zenbakizko kodea adierazten du):

1. Guztiz konforme
2. Nahiko konforme
3. Ez alde ez kontra
4. Nahiko kontra
5. Guztiz kontra
6. Ez daki/erantzunik ez

Hortik abiatuta, itemak homogeneizatu egiten dira. Horretarako, “Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino” itemaren balioak zentzuz trukatu dira, gainerako itemen logikarekin bat eginez. Horretaz gain, item guztietan “Ez daki / erantzunik ez” kasuak bildu egiten dituzte “ez alde ez kontra”-koen multzora.


Ondoren, horrela landutako lau itemen batez bestekoa ateratzen da. Eta horrela multzokatzen dira elkarrizketatuen batez besteko balio horiek:

- 1etik 1,4ra > Jarrera oso aldekoa
- 1,5etik 2,4ra > Aldekoa
- 2,5etik 3,5era > Ez alde ez aurka
- 3,6etik 4,5era > Aurkakoa
- 4,6tik 5era > Oso aurkakoa

Azkenik, emaitzak txostenean argitaratzeko orduan, “oso aldekoak” eta “aldekoak” batuta eta “oso aurkakoak” eta “aurkakoak” ere batuta aurkezten dira.

Laburtuz, bada, jatorrizko lau itemetan emandako erantzunen arabera, elkarrizketatuak hiru multzo nagusitan multzokatzen dituzte: euskara sustatzearen alde daudenak, aurka daudenak eta ez alde eta ez aurka daudenak (ikus G.11. grafikoa). Adierazle sintetiko hori oinarritzat hartu eta herritarren artean sailez sail dauden aldeak erakusten zaizkigu ISLko txostenetan: herrialdearen, sexuaren eta adinaren arabera, besteak beste. Horretaz gain, 1991-2016 bitarteko bilakaera-datuak ere aurki ditzakegu argitalpenean.

**G.11. GRAFIKOA: EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN EMAITZAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritz, 2019: 63).

## 5.4. TESTUINGURU DEMOLINGUISTIKOAREN LANKETA EH- N

### 5.4.1. Hitzunen dentsitatea, zentsuetan oinarrituta: gune soziolinguistikoak


Nazioartean bezala, euskal demolinguistikan ere ohikoa da hitzunen dentsitatea lurraldean zertan den aztertzea. Euskal Herrian, ordea, eta oinarri nagusi gisa zentsuak erabili izan direnez, egoera asko aldatzen da eremu administratiboan arabera. Ipar Euskal Herrian egiten diren Frantziako zentsuek ez dituzte jasotzen hizkuntza kontuak, eta ez dago udal mailako lurralde-desagregazioa eskaintzen duen euskararen inguruko datu demolinguistikorik. Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, tradizio handia dago, 1981eko zentsutik aurrera, nazioartean aztertu ditugun eremu gehienetan baino handiagoa, udalerrika edo eskualdeka euskaldunek hitzun guztiekiko osatzen duten ehunekoaren araberrako taula eta mapekin lan egitekoa (Ruiz Olabuénaga, 1984; Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989; Kultura Saila, 1997; EUSTAT eta Kultura Saila, 1998; EUSTAT eta Kultura Saila, 1999; Kultura Saila, 2005; Kultura Saila, 2009; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020); Nafarroan ere argitaratu izan dira tankera horretako lanak hainbat urtetako zentsuen hizkuntza-datuekin (Gobierno de Navarra-Departamento de Economía y Hacienda., 1988; Nafarroako Gobernua, d.g.; Zabaleta eta Dirección General de Política Lingüística., 1995; Zabaleta, 1997; Instituto de Estadística de Navarra., 1999). Ikuspegi horrekin liburu bana argitaratu du Gros i Lladósek EAerako eta Nafarroarako (Gros, 2007, 2009). Beste artikulu batean Hegoalde osoko ikuspegia eskaintzen du (Gros, 2010).

Euskaldunek hitzun guztiekiko han eta hemen duten pisua erakusten diguten mapa eta taulak ez ezik, euskaldunen dentsitatea ere aldagai aske gisa erruz erabili izan da gurean hitzunen portaerak azaltzeko. Horrela, tradizio handia dago gurean euskaraz dakitenek hitzun guztiekiko duten dentsitate mailaren araberrako gune soziolinguistikoak lantzeko eta hitzunen testuinguru demolinguistikoaren erakusle den aldagai aske gisa erabiltzeko. Horrela egin izan da azken 2-3 hamarkadotan, bai Inkesta Soziolinguistikoan (Aizpurua, 1995; Eusko Jaurlaritza, 2008; Eusko Jaurlaritza, 2013; Eusko Jaurlaritza, 2019), eta baita HEKN-n ere (EKBko Idazkaritza Teknikoa, 1991; Iñigo, 1994; Altuna, 1998; Altuna, 2002a; Amonarriz, 2007; Altuna et al., 2012; Soziolinguistika Klusterra, 2017). Oro har, alde nabarmenak antzematen dira hitzunen ezaugarri, portaera eta iritzietan, hitzunak bizi diren eremu edo gune soziolinguistiko horien arabera aztertuta datuak. Euskal Herrian egindako ikerketa ugari ere bat datoz ondorio horretan. Inkesta Soziolinguistikoetan behin baino gehiagotan aztertu da euskaldunen dentsitate mailak erabilerarekin duen lotura (Aizpurua, 1995: 122; Eusko Jaurlaritza, 2013: 117; Eusko Jaurlaritza, 2019: 127). Jon Aizpuruak azaltzen duen bezala, euskaldunek udalerrian duten pisua da, gaitasun erlatiboarekin eta norbere harreman-sarearen euskalduntasunarekin batera, hitzun euskaldunen euskararen erabilera hobekien azaltzen duten hiru aldagaietako bat (2018b). Olatz Altunaren arabera ere, harreman estua dago udalerrietan dagoen euskaldunen dentsitatearen eta kale-erabileraren artean, nahiz eta harreman hori ez den guztiz lineala (2018). Demolinguistikaren berezko ikerketa-eremua gaituta ere, argi dago hitzunen

bizilekuko dentsitateak zerikusia duela herritarren hainbat portaera azaltzerakoan<sup>139</sup>. Adibide bat jarriko dugu: Gipuzkoako nerabeen ikus-entzunezkoen kontsumoa eskualdeka aztertu zuen ikerketa batek, eta argi utzi zuen kontsumo horretan euskarak duen tokiak zerikusi zuzena duela nerabeak bizi diren eskualdeen euskalduntasun mailarekin (Fernández de Arroyabe, Eguskiza eta Miguel, 2019).

---

<sup>139</sup> Ikuspegi horrekin ez dator guztiz bat Txepetx. Oro har, *Un futuro para nuestro pasado* (1991) obra mardulean berriaz eta sakon lantzen ditu guk ardatz gisa izendatu ditugun gainerako gai multzoak. Horrela, aipatzen dituen hiru faktore nagusiak (motibazioa, ezagutza eta erabilera) bat datoz bete-betean hiru ardatzekin eta transmisioari ere garrantzi berezia ematen dio. Hizkuntza-bilakaeraren gaia ere aintzat hartzen du, aurrerago ikusiko dugun bezala. Testuinguru demolinguistikoarekin lotutako alderdiei, ordea, ez die garrantzi handirik ematen. Are gehiago, *Márgenes de encuentro, Bilbao y el euskera: aplicación sociolingüística de la territorialidad* lanean, erabilera- eta gaitasun-datuak alderatzerakoan, Txepetxek dio udalerrietako euskaldunen dentsitatea ez dela alderdi funtsezkoa udalerrien arteko erabilera-mailetan ikusten diren aldeak azaltzeko orduan: “el desnivel existente no guarda relación alguna con la superioridad o inferioridad numérica de los euskaldunes dentro del conjunto municipal” (1999:114). Haren ordez, udalerrietako erabilera ezberdinak ulertzeko giltza motibazioari loturiko alderdietan bilatu beharko litzateke. Horri lotuta, euskaldun-jendearen kohesio- eta konpaktazio-mailak funtsezkoak lirateke erabilera azaltzeko (eta handitzeko) orduan.



Iturria: VI. Mapa Soziolinguistikoa, 2016 (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 40)

Esan daiteke, hortaz, euskal soziolinguistikaren kezken eta garapenaren barruan toki ohargarria bete izan duela lurraldean euskaldunek izan duten pisuaren gaiak. Landu diren multzokatzeek bi ezaugarri komun izan dituzte: agregaziorako unitate gisa udalerria erabiltzea eta agregaziorako irizpide gisa hizkuntza-gaitasuna erabiltzea, euskaraz hitz egiteko gai direnek hiztun guztiekiko osatzen duten ehunekoa zehazki. Konstanteak izan diren bi irizpide orokor horien ganean, ordea, udalerrien multzokatze-irizpide kuantitatiboak asko aldatu dira iturri eta dataren arabera. Gune soziolinguistiko horien definizio operatiboa egiterakoan, eta udalerriak bertan bizi diren euskaldunen proportzioaren arabera multzokatzerakoan, ez dugu irizpide-batasunik

aurkitu euskal demolinguistikan. Orain arteko eragiketa nagusietan hainbat irizpide erabili izan dira:

- 1981eko *Atlas Lingüístico Vasco* lanean honela zehazten ziren multzoak, euskaldunen dentsitatearen arabera: <%20, %20-%40, %40-%60, %60-%80 eta >%80 (Ruiz Olabuénaga, 1984: 34)
- 1986ko Mapa Soziolinguistikoan honela zehazten ziren multzoak, euskaldunen dentsitatearen arabera: <%5, %5-%24, %25-%49, %50-%75 eta >%75 (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 26)
- 1991ko datuak lantzen dituen Mapa Soziolinguistikoan, honela zehazten ziren multzoak, euskaldunen dentsitatearen arabera: <%10, %10-%29,9, %30-%59,9, %60-%79,9 eta >%80 (Kultura Saila, 1997: 45)
- 1996ko datuak lantzen dituen Mapa Soziolinguistikoan, honela zehazten ziren multzoak, euskaldunen dentsitatearen arabera: <%25, %25-%44, %45-%59, %60-%80 eta >%80 (EUSTAT eta Kultura Saila, 1999: 51)
- 1991ko Inkesta Soziolinguistikoan eta 2001eko mapa soziolinguistikoan, honela zehazten ziren multzoak, euskaldunen dentsitatearen arabera: <%20, %20-%44, %45-%79 eta >%80 (Aizpurua, 1995; Kultura Saila, 2005: 34)
- 2006-2011-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetan (Eusko Jaurlaritza, 2008: 44; Eusko Jaurlaritza, 2013: 103; Eusko Jaurlaritza, 2019: 114) eta Mapa Soziolinguistikoetan (Kultura Saila, 2009: 48; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014: 36; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 40) honela definitu izan dira multzoak: <%20, %20-%50, %50-%80 eta >%80
- HEKN-n honela definitu zituzten multzoak 1987an, 1993an eta 1997an: <%10, %10-%25, %25-%50, %50-%75, %75-%90 eta >%90 (EKBko Idazkaritza Teknikoa, 1991: 32; Iñigo, 1994: 58; Altuna, 1998: 27)
- HEKN-n honela definitu izan dira multzoak, 2001, 2006, 2016 eta 2021ean: <%25, %25-%50, %50-%75 eta >%75 (Altuna, 2002a: 41; Amonarriz, 2007: 44; Altuna et al., 2012: 41; Soziolinguistika Klusterra, 2017: 7; Altuna et al., 2022: 22)
- 2011ko Nafarroako Mapa Soziolinguistikoan honela definitu zituzten multzoak: <%10, %10-%19, %20-%49, %50-%79 eta >%80 (Nafarroako Gobernua, d.g.: 26)

Udalerrriak euskaldunen dentsitatearen arabera multzokatzeko, hortaz, irizpide ugari erabili izan da gurean, eta eragiketaren, lurraldearen eta urtearen arabera asko aldatu izan dira irizpide horiek. Dena den, HEKN-k irizpide egonkor bat erabili izan du 2001etik aurrera. 2006az geroztik ere, ISLk eta Mapa Soziolinguistikoak irizpide finko batekin egin izan dute lan. Bi irizpide horiek, ordea, ez datoz bat euren artean. Eta ez datoz bat, halaber, Nafarroan erabili izan denarekin.



Euskaldunen dentsitatearen araberako gune soziolinguistikoen lanketaz haratago, irizpide gisa, hizkuntza-gaitasunaz gain, hiztunen adina eta lehen hizkuntza ere kontuan hartuz, udalerrien sailkapenerako lanketa interesgarria egin zen EAEn 1986ko errolda-datuekin (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 93). Eraitza gisa, uneko egoera ez ezik, azken hamarkadetako bilakaera demolinguistikoa ere islatzen zuten sei udalerrri-eredu finkatu zituzten: udalerrri erdaldunduak, udalerrri euskaldunenak, berreskurapen biziko udalerrriak, berreskurapen moteleko udalerrriak, galera galgatuko udalerrriak eta galera etengabeko udalerrriak. 1991tik aurrerako Mapa Soziolinguistikoetan ez dugu tankera horretako lanketarik aurkitu.

#### **5.4.2. Nagusitasuna lurraldean, erabilera-dentsitatea eta arnaguneak (zentsuetan eta HEKN-n oinarrituta)**

3.5.2. puntuan aipatu dugu Mikel Zalbideren “Arnaguneak. Etorkizuneko erronkak” artikulua mardula (2019a), gaiaren inguruan ezinbesteko erreferentzia dena Euskal Herrian<sup>140</sup>. Lan mamitsu horretatik abiatuta, arnaguneak zenbakitara ekartzeko lehen ahalegin bat landu genuen “Hego Euskal Herriko arnaguneak zenbatzen: Arnaguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena” artikuluan (Lurrebaso, 2019). Bertan esandakoak hona ekartzen hasita, eta Zalbideren *arnagune* kontzeptu teoriko konplexua demolinguistikatik enpirikoki neurgarri egiteko ahaleginean, honako funtsezko ezaugarri hauek definituko lukete zer den eta zer ez den arnagunea:

1. Unitate geoterritorialak dira arnaguneak (auzoak, herriak, eskualdeak...).
2. Euskaraz dakiten hiztunen kontzentrazio handia dago horietan.
3. Euskararen erabilera handia da eguneroko “mintzajardun” arruntean (euskararen aldeko nagusitasun-moldaera).
4. Nagusitasun hori ez da eztabaidatzen eta gizarte-arau bizia da: “Hemen euskaraz egiten da”; erdaraz egitea da lekuz kanpo dagoena.
5. Belaunaldiz belaunaldiko euskararen jarraipena bermatuta dago<sup>141</sup>.

Goiko bost ezaugarriok banan-banan aztertuta eta sinplifikatzera jota, errealitate konplexuak sinplifikatzea ezinbesteko urratsa baita hizkuntzarekin zerikusia duten

---

<sup>140</sup> Lehenago ere egina zen gurean hegemonia edo nagusitasun-guneei buruzko gogoetarik. Adibidez (Sarasua, 2011: 135):

Hizkuntza batek ez baldin badu hegemonia-gunerik edo dentsitate-gunerik —eta esaldi honetan ez naiz ari derrigor hegemonia-gune nazional bati buruz hitz egiten, nazio batean nagusi izateaz—, hizkuntza horrek ez du ekoizten, ez hiztun osorik eta ez belaunaldi askotan jarraitzeko aukerarik. Eta ziur asko momentu honetan bizirik dauden hizkuntzak bizirik daude hegemonia-guneak eduki dituztelako, orain dela oso gutxi arte

<sup>141</sup> Beste ezaugarri batzuk ere aipatzen ditu Zalbidek orain gutxi arteko edo egungo arnaguneak deskribatzerakoan: udalerrri txikiak dira gehienak, Gipuzkoan daude nagusiki, garraibide nagusietatik urruti daude, euskal kultura tradizionala aski bizirik dago... Horiek guztiak, eta aipatzen dituen beste hainbat, ordea, une historiko jakin batean arnaguneak arnagune izaten jarraitu izana azaltzen duten aldagaiak dira kasu batzuetan, eta arnaguneak deskribatzen laguntzen diguten argazki osagarriak beste batzuetan. Baina eremu bat arnagune den/ez den definitzeko garaian, ez ditzakegu hartu aldagai erabakigarri gisa. Aitzitik, Zalbideren testua ondo ulertu badugu behintzat, goian zerrendatu ditugun bost alderdi horiek osatzen dute arnagune izatearen muina.

errealitate sozialak demolinguistikatik enpirikoki neurtu ahal izateko, zerrendako azken lau ezaugarrien muina erabilera dela ikus dezakegu (gainerako lau alderdiak ere nolabait ordezkatzan dituen). Beraz, honako definizio operatibo hau eman genuen ontzat arnaguneen errealitatea neurgarri egiteko bidean: “Eguneroko egoera hurbiletan euskararen ahozko erabilera nagusi<sup>142</sup> den gune geoterritorialak dira arnaguneak” (Lurrebaso, 2019: 117-118). Eta irizpide hori zenbakitara ekarrita, euskararen erabilera-mailak %60ko langa gainditzen zuten udalerriak jotzen genituen arnagunetzat, etxeko eta kaleko erabilerak aintzat hartuta.

Erabilera-nagusitasuna aztertzeke orduan, dena den, eskema dikotomikoan baino gehiago ikuspegi jarraituago batean kokatzea komeniko da. Dikotomiak ez baititu ondo deskribatuko, beste askotan bezala, auzi honetan dauden egoera askotarikoak eta nagusitasun mailak<sup>143</sup>. Horrela, lurraldeak arnagune/ez- arnagune bi multzo huts gisa sailkatu beharrean, interesgarriagoa izango da nagusitasun mailak ezartzea, eta nagusitasun maila jakin batetik gorako eremuak arnagune esatea. Errealitate sozialean continuum luzea egon baitaiteke hizkuntza gutxitua batere erabiltzen ez den guneetatik hizkuntza hori besterik erabiltzen ez den lurraldeetara; hizkuntza horrek batere nagusitasunik ez duen lurralde-eremuetatik, sozialki nagusi den lurraldeetara<sup>144</sup>.

Pentsatzekoa da, nagusitasun-maila ezberdineko testuinguru batzuetan eta besteetan, errealitate, prozesu eta dinamika soziolinguistikoko bereziak aurkituko ditugula, Fishman eta Zalbideren teoriak beteko badira bederen. Ez dugu aurkitu, ordea, horren inguruko lan enpirikorik.

Zehaztu dezagun, puntu hau bukatzeko, gaia aztertu ahal izateko euskal demolinguistikan izan dezakegun lehengaia. Guk landu ditugun euskal demolinguistikako hiru eragiketek informazio baliotsua jaso izan dute euskal lurraldean erabilera-dentsitatea aztertu ahal izateko:

- Hegoaldeko zentsuetan etxeko erabilerari buruzko informazioa jaso izan da 1991. urtetik aurrera. Datu horiek lurraldearen arabera aztertuta, udalerrika, eskualdeka edo herrialdeka adibidez, lurralde-eremu bakoitzeko etxeetan euskarak duen nagusitasun mailaren berri eman ahal digute. Datu horietako asko eskuragarri daude EUSTATen eta NASTATen argitalpen eta webguneetan.
- HEKNri dagokionez, Hegoaldeko lau herrialdeetako erabilera-datuak sistematikoki eskaini izan dira; Ipar Euskal Herria unitate gisa landu izan da, herrialdekako datuak landu gabe. Horretaz gain, eskualdekako datuak argitaratu izan dituzte, 1993, 1997 eta 2001eko emaitzen txostenetan (Iñigo, 1994: 56; Altuna, 1998: 26; Altuna, 2002a: 47), M.2. mapan ikus daitekeen bezala. Horrekin batean, hainbat udalerritako datuak ere (Hegoaldeko

---

<sup>142</sup> Nagusitasunaz ari garenean, ez gara ari, jakina, nagusitasun juridiko edo politikoaz, komunikazio-hizkuntza arrunt eta bizi gisa hizkuntzak espazioan duen nagusitasunaz baizik. Nagusitasun hori eguneroko hurbileko erabileran gauzatzen da, Fishman eta Zalbideren ikuspegitik: etxean, lagunartean, auzo-bizitzan, kalean...

<sup>143</sup> Arnaguneen barruan ere, euskararen nagusitasuna indartsuagoa edo ahulagoa izan daitekeela aintzat hartuta, arnagune beteak eta erasanak bereizten ditu Zalbidek (2019a:21).

<sup>144</sup> Horixe da, hain justu, Euskal Herriko kasua, aurrerago ikusiko dugun bezala.

hiriburuetakoak tartean) fidagarriak izan daitezke, lagin aski handietan oinarritu baitira.

- ISLren kasuan, azkenik, laginen neurriek eta akats-tarteek eraginda, ezingo dira datuak eskualdeka edo udalerrira irakurri (Hegoaldeko hiriburuen salbuespenarekin); bai, ordea, herrialde mailan<sup>145</sup>.

M.2. MAPA: EUSKARAREN KALEKO ERABILERA ESKUALDEKA, 2001 (%)



*Iturria: Erabileraren IV Kale Neurketa. Emaizten azterketa (Altuna, 2002a: 47)*

#### 5.4.3. Norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea eta horren eragina erabileran euskal demolinguistikan (ISLn oinarrituta)

Aipatu dugu harreman-sareak aztertzea lan-eremu emankorra dela hizkuntza gutxituen egoeraren azterketan. Ez dira asko, ordea, euskararen egoera aztertzeko berriaz gizarte-sareen jakintza-eremutik egindako ahaleginak, Jone Miren Hernándezek azaltzen duenez (2010: 317). Metodologia horrekin egindako lan bakan horien artean ditugu kuadrilla bat eta udaletxe bat oinarri hartuta egindakoak (Martínez de Luna, Jausoro, Berrio-Otxoa eta Idirin, 1998; Jausoro, Martínez de Luna, Idirin eta Berrio-Otxoa, 1999), taldeetako hizkuntza-erabilera aztertzeko sortutako mintzagramaren teknika (Isasi eta Erriondo, 2009) eta Getxoko Udalaren twitter kontuaren azterketa (Apodaka eta Morales, 2017). Hainbat adituren ustez, etorkizunean potentzialitate

<sup>145</sup> Zuberoako eta Nafarroa Behereko salbuespenarekin (horiek biak batuta aztertu izan dira ISL gehienetan).

handiak dituen ikerketa-ildoak da horako hori, *big dataren* eskutik (Apodaka eta Morales, 2017; Sorolla et al., 2017).

Demolinguistikaren esparrura etorrira, zentsuetan sistematikoki bildu izan da hiztunaren etxean bizi diren gainerako pertsonen oinarrizko profil soziolinguistikoa (hots, euskaraz ba ote dakiten, euren lehen hizkuntza zein izan zen eta etxean zein hizkuntza erabili ohi duten). Ondoren, ordea, gai hau ez da sistematikoki landu Mapa Soziolinguistikoetan; bai hizkuntza-sozializazioa edo transmisioa lantzeko egindako azterketa espezifikokoetan. Horrela, 2001eko zentsua ustiatuz landutako *Euskararen belauneko belauneko transmisioa EAEn* ikerlanean, familietako euskaldun-dentsitateari buruzko datuak eskaini ziren (Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, 2008: 36). Eta baita familien tipologia bat ere, gurasoen hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza kontuan hartuta (aurrerago aipatuko dugu sailkapen hori, hizkuntza-sozializazioaren puntuan).

Hiztunen inguruko sareei buruzko informazio dezente gehiago bildu izan da ISLren bidez, jarraian ikusiko dugun bezala.

#### 5.4.3.1. Harreman-sareen euskalduntasunaren berri emango diguten jatorrizko galderak ISLn

Informazio ugari bildu izan dute Euskal Herrian egindako Inkesta Soziolinguistikoek 1991ko lehenengo inkesta soziolinguistikoan “norberaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea” deitu izan den horretaz (Aizpurua, 1995: 121). Horrela, inkestaren ekitaldi guztietan informazio zehatza bildu izan da parte-hartzaileen ohiko harreman-sareko hiztunak euskaldunak ziren edo ez argitzeko: haien guraso, bikotekide, anai-arreba, seme-alaba, lankide, lagun eta abarren artean zein eta zenbat ziren euskaldunak xehe jaso izan da eragiketa horietan. Hainbatetan, gertuko horiei buruzko beste zenbait datu adierazgarri ere jaso izan da, haien lehen hizkuntza zein den adibidez.

ISLk 1991. eta 2016. urte bitarteko inkestetan hiztunen harreman-sarearen euskalduntasunari buruz txertatu izan diren galderak biltzen ditugu T.21. taulan<sup>146</sup>.

---

<sup>146</sup> Zerrenda horretan daude HPSk gure esku jarritako fitxategian erabilerari buruz biltzen diren aldagai guztiak. Hasierako ISLetan beste harreman batzuei buruz ere galdetu izan zen (aitona-amonen inguruan, adibidez), baina harreman horietan ezin da serie historikorik eraiki, azken urteotako ISLetan ez baita horiei buruz galdetu; gure lanketatik at utziko ditugu horiek.

**T.21. TAULA: INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAN ELKARRIZKETATUEN HARREMAN-SAREKO KIDEEK EUSKARAZ BADAQITEN EDO EZ DAKITEN JAKITEKO TXERTATU IZAN DIREN GALDERAK, 1991-2016**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Amak euskaraz ba ote dakien	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera administrazio publikoan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Bokotekideak euskaraz ba ote dakien	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Neba-arreben artean zenbatak dakiten euskaraz	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Seme-alaben artean zenbatak dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Etxekoan artean zenbatak dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Lagunen artean zenbatak dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Lankideen artean zenbatak dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Auzokoen artean zenbatak dakiten euskaraz	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai
Ohiko dendetako saltzaileen artean zenbatak dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohiko bankuan zenbatak dakiten euskaraz	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohiko ambulatorioan zenbatak dakiten euskaraz	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohiko udal-zerbitzuetan zenbatak dakiten euskaraz	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohiko administrazio publikoan zenbatak dakiten euskaraz	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai

Iturria: egileak landua, HPSko dokumentazio teknikoan oinarrituta.

Gai horien jatorrizko galderak I.16. eta I.17. irudietan aurkeztu ditugu. Zehatzago esanda, gai horien inguruan 2016an EAEn egin zuten galdera sorta eta erantzun-aukerak ekarri ditugu. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko 2016ko galdera sortek informazio berbera jasotzen dute, nahiz eta formulazio aldetik moldaketa txiki batzuk egon. Era berean, 1991-2016 bitarteko inkesta guztiak aintzat hartuta ere, formulazioan aldaketa txiki batzuk egon dira hainbat galderatan (galdera sorta guztiak III. eranskinean ikus daitezke). Dena den, ISLren arduradun teknikoaren irizpideen arabera, galdera-erantzun horien guztien alderagarritasuna bermatuta dago urtez urte.

**I.16. IRUDIA: ETXEO ETA FAMILIAKO KIDEEN HIZKUNTZA-PROFILARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOLOGUISTIKOAN, EAE, 2016**

<p>06.G ZURE AMAK BADAKI/BAZEKIEN EUSKARAZ HITZ EGITEN? ETA ZURE AITAK?</p> <p>ZEIN IZAN ZEN ZURE AMAREN LEHEN HIZKUNTZA? ETA AITARENA?</p>	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>Amak Madre</th> <th>Aitak Padre</th> <th></th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Ongi</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>Bien</td> </tr> <tr> <td>Nahiko ongi</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>Bastante bien</td> </tr> <tr> <td>Zertxobait</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>Algo</td> </tr> <tr> <td>Hitz batzuk</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>Sólo palabras</td> </tr> <tr> <td>Ezer ez</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>Nada</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td>6</td> <td>6</td> <td>Ns/Nc</td> </tr> <tr> <td colspan="4"> </td> </tr> <tr> <td>Euskara</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>Euskera</td> </tr> <tr> <td>Euskara eta gaztelania</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>Euskera y castellano</td> </tr> <tr> <td>Gaztelania</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>Castellano</td> </tr> <tr> <td>Beste bat</td> <td>4</td> <td>4</td> <td>Otra</td> </tr> <tr> <td colspan="4">_____ <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> _____</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td>5</td> <td>5</td> <td>Ns/Nc</td> </tr> </tbody> </table>		Amak Madre	Aitak Padre		Ongi	1	1	Bien	Nahiko ongi	2	2	Bastante bien	Zertxobait	3	3	Algo	Hitz batzuk	4	4	Sólo palabras	Ezer ez	5	5	Nada	Ed/Ee	6	6	Ns/Nc					Euskara	1	1	Euskera	Euskara eta gaztelania	2	2	Euskera y castellano	Gaztelania	3	3	Castellano	Beste bat	4	4	Otra	_____ <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> _____				Ed/Ee	5	5	Ns/Nc	<p>P.06 ¿SU MADRE SABE O SABÍA HABLAR EUSKERA? ¿Y SU PADRE?</p> <p>¿CUÁL FUE LA PRIMERA LENGUA O LENGUA MATERNA DE SU MADRE? ¿Y LA DE SU PADRE?</p>				
	Amak Madre	Aitak Padre																																																												
Ongi	1	1	Bien																																																											
Nahiko ongi	2	2	Bastante bien																																																											
Zertxobait	3	3	Algo																																																											
Hitz batzuk	4	4	Sólo palabras																																																											
Ezer ez	5	5	Nada																																																											
Ed/Ee	6	6	Ns/Nc																																																											
Euskara	1	1	Euskera																																																											
Euskara eta gaztelania	2	2	Euskera y castellano																																																											
Gaztelania	3	3	Castellano																																																											
Beste bat	4	4	Otra																																																											
_____ <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> _____																																																														
Ed/Ee	5	5	Ns/Nc																																																											
<p>07.G ZURE AMA BIZI DA? ETA AITA?</p>	<table border="1"> <tbody> <tr> <td>Bizi da</td> <td>1</td> <td>1</td> <td>Vive</td> </tr> <tr> <td>Hilda dago</td> <td>2</td> <td>2</td> <td>Falleció</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td>3</td> <td>3</td> <td>Ns/Nc</td> </tr> </tbody> </table>	Bizi da	1	1	Vive	Hilda dago	2	2	Falleció	Ed/Ee	3	3	Ns/Nc	<p>P.07 EN LA ACTUALIDAD, ¿VIVE SU MADRE? ¿Y SU PADRE?</p>																																																
Bizi da	1	1	Vive																																																											
Hilda dago	2	2	Falleció																																																											
Ed/Ee	3	3	Ns/Nc																																																											
<p>08.G BA AL DUZU NEBARREBARIK? ZENBAT? (Inkestatua sartu gabe) ETA, ZENBATEK DAKITE EUSKARAZ HITZ EGITEN?</p>	<table border="1"> <tbody> <tr> <td><input type="text"/></td> <td><input type="text"/></td> </tr> <tr> <td><input type="text"/></td> <td><input type="text"/></td> </tr> </tbody> </table>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<p>P.08 ¿TIENE UD. HERMANOS O HERMANAS? ¿CUÁNTOS EN TOTAL? (Sin incluirse él o ella) ¿Y CUÁNTOS SABEN HABLAR EUSKERA?</p>																																																								
<input type="text"/>	<input type="text"/>																																																													
<input type="text"/>	<input type="text"/>																																																													
<p>09.G GAUR EGUN, EZKONDUTA, EZKONDU GABE, BIKOTEKIDEAREKIN BIZITZEN, DIBORTZIATUTA, BANANDUTA ALA ALARGUN ZAUDE? (Ezkongabea bada, galdetu) BADUZU BIKOTEKIDERIK? (Ezkongabea eta bikotekiderik gabea bada, joan 10. galderara)</p> <p>ZURE BIKOTEKIDEAK EUSKARAZ HITZ EGITEN DU ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT...? (Alargunen kasuan: HITZ EGITEN ZUEN?)</p> <p>ZEIN IZAN ZEN BERE LEHEN HIZKUNTZA?</p>	<table border="1"> <tbody> <tr> <td>Ezkongabea bikotekiderik gabe</td> <td>1</td> <td>Soltero/a, sin pareja estable</td> </tr> <tr> <td>Ezkongabea bikotekidearekin</td> <td>2</td> <td>Soltero/a, con pareja estable</td> </tr> <tr> <td>Ezkonduta, parejan bizi</td> <td>3</td> <td>Casado/a, viviendo en pareja</td> </tr> <tr> <td>Dibortziatua, banandua</td> <td>4</td> <td>Divorciado/a, separado/a</td> </tr> <tr> <td>Alarguna</td> <td>5</td> <td>Viudo/a</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td>6</td> <td>Ns/Nc</td> </tr> <tr> <td colspan="3"> </td> </tr> <tr> <td>Ongi</td> <td>1</td> <td>Bien</td> </tr> <tr> <td>Nahiko ongi</td> <td>2</td> <td>Bastante bien</td> </tr> <tr> <td>Zertxobait</td> <td>3</td> <td>Algo</td> </tr> <tr> <td>Hitz batzuk</td> <td>4</td> <td>Sólo palabras</td> </tr> <tr> <td>Ezer ez</td> <td>5</td> <td>Nada</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td>6</td> <td>Ns/Nc</td> </tr> <tr> <td colspan="3"> </td> </tr> <tr> <td>Euskara</td> <td>1</td> <td>Euskera</td> </tr> <tr> <td>Euskara eta gaztelania</td> <td>2</td> <td>Euskera y castellano</td> </tr> <tr> <td>Gaztelania</td> <td>3</td> <td>Castellano</td> </tr> <tr> <td>Beste bat</td> <td>4</td> <td>Otra</td> </tr> <tr> <td colspan="3">_____ <input type="text"/> <input type="text"/> _____</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td>5</td> <td>Ns/Nc</td> </tr> </tbody> </table>	Ezkongabea bikotekiderik gabe	1	Soltero/a, sin pareja estable	Ezkongabea bikotekidearekin	2	Soltero/a, con pareja estable	Ezkonduta, parejan bizi	3	Casado/a, viviendo en pareja	Dibortziatua, banandua	4	Divorciado/a, separado/a	Alarguna	5	Viudo/a	Ed/Ee	6	Ns/Nc				Ongi	1	Bien	Nahiko ongi	2	Bastante bien	Zertxobait	3	Algo	Hitz batzuk	4	Sólo palabras	Ezer ez	5	Nada	Ed/Ee	6	Ns/Nc				Euskara	1	Euskera	Euskara eta gaztelania	2	Euskera y castellano	Gaztelania	3	Castellano	Beste bat	4	Otra	_____ <input type="text"/> <input type="text"/> _____			Ed/Ee	5	Ns/Nc	<p>P.09 ¿ACTUALMENTE ESTÁ UD. SOLTERO/A, CASADO/A O VIVIENDO EN PAREJA, DIVORCIADO/A O SEPARADO/A, VIUDO/A? (Si es soltero/a preguntar si...) ¿TIENE PAREJA ESTABLE? (Si es soltero sin pareja estable pasar a P.10)</p> <p>¿SU PAREJA HABLA EUSKERA BIEN, BASTANTE BIEN, ALGO...? (En el caso de viudos/as: ¿HABLABA?)</p> <p>¿CUÁL FUE SU PRIMERA LENGUA O LENGUA MATERNA?</p>
Ezkongabea bikotekiderik gabe	1	Soltero/a, sin pareja estable																																																												
Ezkongabea bikotekidearekin	2	Soltero/a, con pareja estable																																																												
Ezkonduta, parejan bizi	3	Casado/a, viviendo en pareja																																																												
Dibortziatua, banandua	4	Divorciado/a, separado/a																																																												
Alarguna	5	Viudo/a																																																												
Ed/Ee	6	Ns/Nc																																																												
Ongi	1	Bien																																																												
Nahiko ongi	2	Bastante bien																																																												
Zertxobait	3	Algo																																																												
Hitz batzuk	4	Sólo palabras																																																												
Ezer ez	5	Nada																																																												
Ed/Ee	6	Ns/Nc																																																												
Euskara	1	Euskera																																																												
Euskara eta gaztelania	2	Euskera y castellano																																																												
Gaztelania	3	Castellano																																																												
Beste bat	4	Otra																																																												
_____ <input type="text"/> <input type="text"/> _____																																																														
Ed/Ee	5	Ns/Nc																																																												

<p>10.G BA AL DUZU SEME-ALABARIK? ZENBAT? (Ez badu seme-alabarik, joan 12. galderara)</p> <p>HORIETAKOREN BATEK 3 URTE BAINO GUTXIAGO DU? ZENBATEK?</p> <p>ZENBATEK DAKITE EUSKARAZ HITZ EGITEN? (Eta 3 urte baino gutxiagokoren bat izanez gero) ...3 URTE BAINO GUTXIAGOKOAK IZAN EZIK?</p> <p>11.G SEME-ALABETATIK, ZENBATEK DUTE 3 ETA 15 URTE BITARTEAN? (3 eta 15 urte bitarteko seme-alabarik ez badu, joan 12. galderara)</p> <p>NAGUSIENETIK TXIKIENERA, ZEIN ADIN DUTE? (4 seme-alaba baino gehiago badira, 4 gazteenei buruz galdetu)</p> <p><i>Bakoitzari buruz:</i></p> <p>ZEIN IZAN DA BERE LEHEN HIZKUNTZA?</p> <p>(Euskara edo euskara eta gaztelania esaten baldin badu, eta inkestatuak eta bere bikotekideak ez badute euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten)</p> <p>NOLA LITEKE LEHEN HIZKUNTZA EUSKARA (EDO EUSKARA ETA GAZTELANIA) IZATEA, ETA ZUK ETA ZURE BIKOTEKIDEAK EUSKARAZ EGITEN EZ JAKITEA? (Idatzi arrazoiak)</p> <p>EUSKARAZ HITZ EGITEN DU ONGI, NAHIKO ONGI, ZERTXOBAIT...?</p>	<table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> </tr> <tr> <td></td> <td style="text-align: center;">↓</td> <td></td> <td style="text-align: center;">↓</td> <td></td> <td style="text-align: center;">↓</td> <td></td> <td style="text-align: center;">↓</td> <td></td> <td style="text-align: center;">↓</td> </tr> <tr> <td>Euskara</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td>Euskara</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> </tr> <tr> <td>Euskara eta gaztelania</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td>Euskara y castellano</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> </tr> <tr> <td>Gaztelania</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td>Castellano</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> </tr> <tr> <td>Beste bat</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td>Otra</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> </tr> <tr> <td></td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td></td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td style="text-align: center;">□ □</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td>Ns/Nc</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> </tr> <tr> <td></td> <td colspan="9" style="text-align: center;">_____</td> </tr> <tr> <td></td> <td colspan="9" style="text-align: center;">_____</td> </tr> <tr> <td></td> <td colspan="9" style="text-align: center;">_____ □ □</td> </tr> <tr> <td>Ongi</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td>Bien</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td style="text-align: center;">1</td> </tr> <tr> <td>Nahiko ongi</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td>Bastante bien</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> <td style="text-align: center;">2</td> </tr> <tr> <td>Zertxobait</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td>Algo</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> <td style="text-align: center;">3</td> </tr> <tr> <td>Hitz batzuk</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td>Sólo palabras</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> <td style="text-align: center;">4</td> </tr> <tr> <td>Ezer ez</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td>Nada</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> <td style="text-align: center;">5</td> </tr> <tr> <td>Ed/Ee</td> <td style="text-align: center;">6</td> <td style="text-align: center;">6</td> <td style="text-align: center;">6</td> <td style="text-align: center;">6</td> <td>Ns/Nc</td> <td style="text-align: center;">6</td> <td style="text-align: center;">6</td> <td style="text-align: center;">6</td> <td style="text-align: center;">6</td> </tr> </table>		□ □		□ □		□ □		□ □		□ □		↓		↓		↓		↓		↓	Euskara	1	1	1	1	Euskara	1	1	1	1	Euskara eta gaztelania	2	2	2	2	Euskara y castellano	2	2	2	2	Gaztelania	3	3	3	3	Castellano	3	3	3	3	Beste bat	4	4	4	4	Otra	4	4	4	4		□ □	□ □	□ □	□ □		□ □	□ □	□ □	□ □	Ed/Ee	5	5	5	5	Ns/Nc	5	5	5	5		_____										_____										_____ □ □									Ongi	1	1	1	1	Bien	1	1	1	1	Nahiko ongi	2	2	2	2	Bastante bien	2	2	2	2	Zertxobait	3	3	3	3	Algo	3	3	3	3	Hitz batzuk	4	4	4	4	Sólo palabras	4	4	4	4	Ezer ez	5	5	5	5	Nada	5	5	5	5	Ed/Ee	6	6	6	6	Ns/Nc	6	6	6	6	<p>P.10 ¿TIENE UD. HIJOS O HIJAS? ¿CUÁNTOS? (Si no tiene hijos/as pasar a P.12)</p> <p>¿ALGUNO TIENE MENOS DE 3 AÑOS? ¿CUÁNTOS?</p> <p>¿CUÁNTOS SABEN HABLAR EUSKERA? (Y si hay menores de 3 años) ...SIN CONTAR A LOS MENORES DE 3 AÑOS?</p> <p>P.11 DE SUS HIJOS E HIJAS, ¿CUÁNTOS TIENEN ENTRE 3 Y 15 AÑOS? (Si no tiene hijos/as entre 3 y 15 años pasar a P.12)</p> <p>¿QUÉ EDADES TIENEN, DE MAYOR A MENOR? (Si tienen más de 4 hijos/as preguntar por los/as 4 menores)</p> <p><i>Para cada uno/a de ellos/as:</i></p> <p>¿CUÁL HA SIDO O ES SU PRIMERA LENGUA O LENGUA MATERNA?</p> <p>(Si dicen euskera o euskara y castellano y el encuestado/a y su actual pareja no saben euskera bien o bastante bien)</p> <p>¿CÓMO ES QUE TIENE(N) LENGUA MATERNA EUSKERA (O EUSKERA Y CASTELLANO), SI UD. Y SU PAREJA NO HABLAN EUSKERA? (Escribir la razón)</p> <p>¿HABLA EUSKERA BIEN, BASTANTE BIEN...?</p>
	□ □		□ □		□ □		□ □		□ □																																																																																																																																																																			
	↓		↓		↓		↓		↓																																																																																																																																																																			
Euskara	1	1	1	1	Euskara	1	1	1	1																																																																																																																																																																			
Euskara eta gaztelania	2	2	2	2	Euskara y castellano	2	2	2	2																																																																																																																																																																			
Gaztelania	3	3	3	3	Castellano	3	3	3	3																																																																																																																																																																			
Beste bat	4	4	4	4	Otra	4	4	4	4																																																																																																																																																																			
	□ □	□ □	□ □	□ □		□ □	□ □	□ □	□ □																																																																																																																																																																			
Ed/Ee	5	5	5	5	Ns/Nc	5	5	5	5																																																																																																																																																																			
	_____																																																																																																																																																																											
	_____																																																																																																																																																																											
	_____ □ □																																																																																																																																																																											
Ongi	1	1	1	1	Bien	1	1	1	1																																																																																																																																																																			
Nahiko ongi	2	2	2	2	Bastante bien	2	2	2	2																																																																																																																																																																			
Zertxobait	3	3	3	3	Algo	3	3	3	3																																																																																																																																																																			
Hitz batzuk	4	4	4	4	Sólo palabras	4	4	4	4																																																																																																																																																																			
Ezer ez	5	5	5	5	Nada	5	5	5	5																																																																																																																																																																			
Ed/Ee	6	6	6	6	Ns/Nc	6	6	6	6																																																																																																																																																																			

<p>12.G ZU ZEU BARNE, ZENBAT PERTSONA BIZI ZARETE ETXEAN (3 URTE BAINO GUTXIAGOKOAK SARTU GABE)?</p> <p>NORTZUK BIZI DIRA ZUREKIN ETXEAN?</p> <p>13.G ZU ZEU BARNE, ZENBATEK DAKIZUE EUSKARAZ HITZ EGITEN ETXEAN (3 URTE BAINO GUTXIAGOKOAK SARTU GABE)?</p>	<table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> <td style="width: 10%;"></td> <td style="width: 10%; text-align: center;">□ □</td> </tr> <tr> <td>Elkarrizketatua</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td>Entrevistado/a</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td>Entrevistado/a</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td>Entrevistado/a</td> <td style="text-align: center;">1</td> <td>Entrevistado/a</td> <td style="text-align: center;">1</td> </tr> <tr> <td>Senarra / emaztea / bikotekidea</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Marido / mujer / pareja</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Marido / mujer / pareja</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Marido / mujer / pareja</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Marido / mujer / pareja</td> <td style="text-align: center;">□</td> </tr> <tr> <td>Seme-alabak</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Hijos/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Hijos/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Hijos/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Hijos/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> </tr> <tr> <td>Aita eta/ala ama</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Padre y/o madre</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Padre y/o madre</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Padre y/o madre</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Padre y/o madre</td> <td style="text-align: center;">□</td> </tr> <tr> <td>Neba-arrebak</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Hermanos/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Hermanos/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Hermanos/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Hermanos/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> </tr> <tr> <td>Besteak</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Otros/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Otros/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Otros/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> <td>Otros/as</td> <td style="text-align: center;">□</td> </tr> <tr> <td></td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td></td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td></td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td></td> <td style="text-align: center;">□ □</td> <td></td> <td style="text-align: center;">□ □</td> </tr> </table>		□ □		□ □		□ □		□ □		□ □	Elkarrizketatua	1	Entrevistado/a	1	Entrevistado/a	1	Entrevistado/a	1	Entrevistado/a	1	Senarra / emaztea / bikotekidea	□	Marido / mujer / pareja	□	Marido / mujer / pareja	□	Marido / mujer / pareja	□	Marido / mujer / pareja	□	Seme-alabak	□	Hijos/as	□	Hijos/as	□	Hijos/as	□	Hijos/as	□	Aita eta/ala ama	□	Padre y/o madre	□	Padre y/o madre	□	Padre y/o madre	□	Padre y/o madre	□	Neba-arrebak	□	Hermanos/as	□	Hermanos/as	□	Hermanos/as	□	Hermanos/as	□	Besteak	□	Otros/as	□	Otros/as	□	Otros/as	□	Otros/as	□		□ □		□ □		□ □		□ □		□ □	<p>P.12 INCLUYÉNDOSE UD., ¿CUÁNTAS PERSONAS VIVEN EN CASA (SIN CONTAR A LOS MENORES DE 3 AÑOS)?</p> <p>EN CONCRETO ¿QUIÉNES VIVEN CON UD. EN CASA?</p> <p>P.13 INCLUYÉNDOSE UD., ¿CUÁNTAS PERSONAS SABEN HABLAR EUSKERA EN CASA (SIN CONTAR A LOS MENORES DE 3 AÑOS)?</p>
	□ □		□ □		□ □		□ □		□ □																																																																									
Elkarrizketatua	1	Entrevistado/a	1	Entrevistado/a	1	Entrevistado/a	1	Entrevistado/a	1																																																																									
Senarra / emaztea / bikotekidea	□	Marido / mujer / pareja	□	Marido / mujer / pareja	□	Marido / mujer / pareja	□	Marido / mujer / pareja	□																																																																									
Seme-alabak	□	Hijos/as	□	Hijos/as	□	Hijos/as	□	Hijos/as	□																																																																									
Aita eta/ala ama	□	Padre y/o madre	□	Padre y/o madre	□	Padre y/o madre	□	Padre y/o madre	□																																																																									
Neba-arrebak	□	Hermanos/as	□	Hermanos/as	□	Hermanos/as	□	Hermanos/as	□																																																																									
Besteak	□	Otros/as	□	Otros/as	□	Otros/as	□	Otros/as	□																																																																									
	□ □		□ □		□ □		□ □		□ □																																																																									

Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galdetegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).

**I.17. IRUDIA: FAMILIA-GIROTIK KANPOKO HARREMAN-SAREAREN HIZKUNTZA-PROFILARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOINGUISTIKOAN, EAE, 2016**

	Lagunak Amigos	Auzokoak Vecinos	Lana Trabajo	Dendak Tiendas	Bankua Banco	Ambulat. Ambulat.	Udal zerb. S. mun.	Diput./Ej. Diput./G.V.	
<b>Ez dagokio</b> (ez dauka edo ez doa)	0	0	0	0	0	0	0	0	No procede (no tiene o no va)
<b>Denek edo ia denek</b>	1	1	1	1	1	1	1	1	Todos/as o casi todos/as
<b>Erdiek baino gehiagok</b>	2	2	2	2	2	2	2	2	Más de la mitad
<b>Erdiek</b>	3	3	3	3	3	3	3	3	La mitad
<b>Erdiek baino gutxiagok</b>	4	4	4	4	4	4	4	4	Menos de la mitad
<b>Inork ez edo ia inork ez</b>	5	5	5	5	5	5	5	5	Nadie o casi nadie
<b>Ed/Ee</b>	6	6	6	6	6	6	6	6	Ns/Nc

Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galdetegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).



Laburtuz, bada, elkarrizketatuen harreman-sarearen hedadurari eta sare horietako kideen euskalduntasunari buruz informazio ugari biltzen da ISLn. Funtsezko bi datu hauek jartzen ditu eskura:

- Batetik, elkarrizketatuari galdetzen zaio balizko harreman-sareko osagai bakoitza baduen edo ez duen. Adibidez, amarik baduen edo ez, aitarik baduen edo ez, lagunik baduen edo ez, lankiderik baduen edo ez, eta abar.
- Bestetik, rol-harreman horiek badituztenekin, balizko mintzaideek euskaraz badakiten edo ez jasotzen da. Galdera egiteko era ez da berbera kasu guztietan, aldatu egiten da. T.22. taulan erakusten dugu 2016ko EAEko ikerketan nola jaso zen elkarrizketatuen inguruko zenbait pertsonaren gaitasunaren berri:
  - Bakarkako hainbat harremanetarako, pertsona horiek (aitak, amak, bikotekideak eta 3-15 urteko seme-alabak) euskaraz hitz egiteko duten gaitasuna jasotzen da bost erantzun-aukerako aldagai ordinal baten bidez.
  - Anai-arreben, seme-alaba guztien eta etxekideekin, multzo horietako bakoitzerako, zenbat pertsona diren eta horietatik euskaraz zenbatek dakiten jasotzen da.
  - Familiaz kanpoko espazio eta harremanetarako, multzo bakoitzean euskaraz dakitenak zenbat diren jasotzen da aldagai ordinal baten bidez.

Horiek, bada, elkarrizketatuen harreman-sarearen hizkuntza-profilari buruz ISLn egin izan diren galderak. Galdera horien emaitzak ez dira bere horretan argitaratu izan ISLko emaitza-txostenetan. ISLko argitalpenetan ez dugu aurkitu, halaber, hiztunen harreman-sareen euskalduntasunari buruzko informazioa laburbiltzen duen adierazle sintetikorik.

**T.22. TAULA: ELKARRIZKETATUEN HARREMAN-SAREAREN EUSKALDUNTASUNARI BURUZKO INFORMAZIOA ISL-N. GALDERA-SORTAREN AZTERKETA (2016, EAE).**

NORI BURUZKO INFORMAZIOA	ERANTZUN-AUKERAK	ALDAGAI MOTA
<p>Informazio xehea jasotzen da honako kasu hauetan<sup>147</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarrizketatuaren ama (6. galdera)</li> <li>• Aita (6. galdera)</li> <li>• Bikotekidea (9. galdera)</li> <li>• 3-15 urteko seme-alabak banaka-banaka (11. galdera)</li> </ul>	<p>Eskainitako erantzun-aukerak (senide horiek euskaraz hitz egiten ba ote dakiten galdetuta):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Ongi</li> <li>○ Nahiko ongi</li> <li>○ Zertxobait</li> <li>○ Hitz batzuk</li> <li>○ Ezer ez</li> <li>○ ED/EE</li> </ul>	Ordinala
<p>Euskaraz badakiten edo ez (era dikotomikoan) galdetzen da honako kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Anai-arrebak (8. galdera)</li> <li>• Seme-alaba guztiak (10. galdera)</li> <li>• Etxean bizi diren guztiak (2 urtetik gorakoak; 12. eta 13. galderak)</li> </ul>	<p>Eskainitako erantzun-aukerak multzo bakoitzerako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Zenbat diren eta horietatik zenbatek dakiten euskaraz (kopuru zehatzak)</li> </ul>	Kuantitatiboa
<p>“Taldekoen” artean zenbatek dakiten euskaraz galdetzen da honako kasu hauetan (galdera sortako 16. galdera):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ohiko lagunak</li> <li>• Harreman gehien duzun auzokoak</li> <li>• Lankideak</li> <li>• Harreman gehien duzun ikaskideak</li> <li>• Ohiko erosketak egiten dituzun dendetako saltzaileak</li> <li>• Ohiko banku edo aurrezki-kutxako langileak</li> <li>• Osasun-zerbitzuko edo anbulatorioko langileak</li> <li>• Gehien erabiltzen dituzun udal-zerbitzuetako langileak</li> <li>• Erabiltzen dituzun Diputazio eta Eusko Jaurlaritzako zerbitzuetako langileak</li> </ul>	<p>Eskainitako erantzun-aukerak (“talde” horietako bakoitzak euskaraz ba ote dakien galdetuta):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Denek edo ia denek (dakite euskaraz)</li> <li>○ Erdiek baino gehiagok</li> <li>○ Erdiek</li> <li>○ Erdiek baino gutxiagok</li> <li>○ Inork edo ia inork ez</li> <li>○ ED/EE</li> </ul>	Ordinala

[Iturria: egileak landua.](#)

<sup>147</sup> Elkarrizketatuaren amaren, aitaren, bikotekidearen eta 3-15 urteko seme-alaben lehen hizkuntzari buruz ere galdetzen zaie.

#### 5.4.3.2. Harreman-sareen eta erabileraren arteko loturaren azterketa euskal demolinguistikan

Hiztunen harreman-sarearen euskalduntasunak hizkuntzaren erabilerarekin harreman estua duela argi frogatu da azken 20-30 urteotako ikerketa demolinguistikoetan. Euskal Herriko 1991ko Inkesta Soziolinguistikoaren datuekin azterketa egin zen erabileran eragiten duten faktore nagusiak aurkitzeko, eta erregresio eta korrelazio anizkoitzek azaldu zuten hiztunaren harreman-sareko euskaldunen dentsitateak ematen zuela erabilerarekiko korrelazio handiena aztertu ziren aldagai ugariren artean (Aizpurua, 1995: 121). Hogeita bost urte geroago ere, funtsezko faktorea izaten jarraitzen du harreman-sareko euskalduntasunak erabilera azaltzeko. Euskaraz hitz egiteko erraztasunarekin batera, horixe baita erabilera azaltzeko faktore nagusia 2016an ere, aldagaien arteko korrelazio-analisan oinarrituta ondorioztatu daitekeenez (Aizpurua, 2018a; Aizpurua, 2018b).

Ondorio bertsuetara iritsi izan dira zentsuko datuetan oinarrituta etxeko erabilera aztertu izan denean. 1991ko zentsuko datuetan familia-osaketaren eta erabileraren arteko harremana aztertuta, hauxe ondorioa: “EAEko lurralde eta eskualde guztietan, erabakiorra da familiakide euskaldunen dentsitatea etxeko hizkuntzari dagokionean” (Kultura Saila, 1997: 67). Are gehiago, 2001eko zentsuko datuen azterketan oinarrituta esaten zaigunez, “euskara izan dadin ohiko hizkuntza etxean, behar-beharrezkoa da etxeko guztiek jakin dezaten euskaraz hitz egiten. Nahikoa da familiako kide bakar batek euskaraz ez jakitea erabilerak oso behera egiteko.” (Kultura Saila, 2005: 72)

Horrela, bada, hiztunen harreman-sarearen osaketa funtsezko alderdia da hizkuntzaren erabilera lagundu edo oztopatu dezakeen heinean.

### **5.5. HIZKUNTZA-SOZIALIZAZIOAREN LANKETA EUSKAL DEMOLINGUISTIKAN**

Hizkuntza-sozializazioaren gaiak toki esanguratsua izan du 1991tik ondorengo ISL eta Mapa Soziolinguistiko gehienetan: *Hizkuntzaren transmisioa* izenburupean azken ISLetan eta *Lehen hizkuntza* izenburupean azken Mapa Soziolinguistikoetan. Horretaz gain, gaia berariaz modu sakonagoan landu izan duten ikerketak egin izan dira gurean, hala nola, SIADECOK 1986an egindako *Hizkuntzaren transmisio faktoreei buruzko ikerketa* eta 1994n SIADECOK eta HPINek *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa lanak* (biak ala biak hemen aipatuak: SIADECO, 2021). Bestalde, 2001eko zentsuko datuak familia-tipologiaren arabera sakon ustiatuz transmisioaren gaia aztertu zuen *Euskararen belaunetako transmisioa EAEn* (Eusko Jaurlaritzakultura Saila, 2008) lana aipatu nahi dugu. Demolinguistika hutsezko hurbilpenez haratago, gurean ezinbesteko bihurtu den Paula Kasaresen tesi mardulaz gain, *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunetako jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan* (Kasares, 2014), *Familia bidezko Hizkuntza transmisioari buruzko ikerketa* ere (SIADECO, 2021) ezinbesteko erreferentzia dugu. Azken lan horretan ikuspegi demolinguistikoa lantzen da, ISL eta zentsuko datuen ustiaketan oinarrituta gehienbat, baina teknika kualitatiboen bidez eskuratutako informazioarekin osatzen eta aberasten da ikuspegia.

Euskal demolinguistikan gaia nola landu izan den begiratuko dugu jarraian. Aurreratu dezagun batez ere lehen hizkuntzaren azterketan oinarritu izan dela lanketa hori. Ohiko gainerako aldagaiak ez bezala, hiztunen bizitzan aldaezina den aldagaia dugu lehen hizkuntza (H1) eta egiturazko aldagaitzat hartzen da demolinguistikan. Egungo errealitatean, aldagai aske garrantzitsua da hiztunen egungo hizkuntza-gaitasuna, gaitasun erlatiboa, erabilera eta hizkuntzekiko jarrerak azaltzeko orduan (SIADeco, 2021).

Euskal Herrian egindako zentsu eta inkesta soziolinguistikoetan ere toki aipagarria izan du lehen hizkuntzaren aldagaiak: 1991tik aurrerako ISL eta Mapa Soziolinguistiko guztietan landu izan da gaia (Aizpurua, 1995; Eusko Jaurlaritzaren et al., 1997; Kultura Saila, 1997; EUSTAT eta Kultura Saila, 1998; EUSTAT eta Kultura Saila, 1999; Eusko Jaurlaritzaren, 2003; Kultura Saila, 2005; Eusko Jaurlaritzaren, 2008; Kultura Saila, 2009; Eusko Jaurlaritzaren, 2013; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014; Eusko Jaurlaritzaren, 2019; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020). Ikus dezagun.

### 5.5.1. Lehen hizkuntza Hegoaldeko Zentsuetan

I.18. irudian 2011ko zentsuan lehen hizkuntzari buruz egin zuten galdera ikus daiteke. Aurreko zentsuetako galdera sortei erreparatuta, aldaketa handirik gabe egin izan da galdera hori zentsuz zentsu bai Nafarroa Garaian eta baita EAEn ere (ikus jatorrizko galdera sorta guztiak I. eranskinean). Zentsu eta biztanleria-estatistiketan 1986-1996 bitartean “Ama-hizkuntza” gisa izendatu zen galdera hori, eta 2001tik aurrera “Lehen hizkuntza” gisa. Eduki bera jaso izan du, hala ere, aldi osoan.

I.18. IRUDIA: LEHEN HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERA ZENTSUETAN, 2011KO ADIBIDEA

**Zein hizkuntza erabili zuen lehen aldiz (hiru urte bete arte)?**

*Markatu aukera bat bakarrik*

Euskara    Gaztelania    Biak    Beste bat


Iturria: INE, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak* (galdetegi osoa ikusteko jo I. eranskineran).

Galderak eskaintzen dituen lau erantzun-aukerek egoki laburbiltzen dituzte egon daitezkeen aukera teoriko nagusiak. Kasu honetan, gainera, hizkuntza-gaitasunari buruzko galderetan ez bezala, euskara/erdara *continuum*eko mutur posible biak azaltzen zaizkigu egoki ordezkaturik galdera-erantzun multzo honetan. Aldagai nominala dugu berez, baina “gaztelania” eta “beste bat” aukerak multzo bakarrean bilduz gero, lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisua hiru kategoriatan biltzen duen aldagai ordinala eratzeko aukera eskaintzen du. Eskaintzen diren erantzun-aukera horiek etxeko erabilerarako eskaintzen diren berberak dira (horrek asko errazten ditu bi aldagai horien arteko balizko alderaketak).

G.12. grafikoan azken Mapa Soziolinguistikoan aldagaiaren emaitzak nola aurkeztu zituzten ageri da. Gainerakoan, Mapa Soziolinguistikoan lehen hizkuntza mendeko aldagai gisa hartu eta aldagai aske ugariaren arabera nola ematen den aztertze informazio ugaria eskaintzen da. Horrela, lehen hizkuntzari buruzko datuak (azken

datuak eta bilakaera-datuak) eskaintzen dira hainbat aldagairen arabera: herrialdearen, eskualdearen, adinaren, sexuaren, gune soziolinguistikoaren eta aldagai horien arteko hainbat konbinazioen arabera.

G.12. GRAFIKOA: ZENTSUETAKO “LEHEN HIZKUNTZA” GALDERAREN EMAITZAK VI. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAN. EAE, 2016 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)



Iturria: VI. Mapa Soziolinguistikoa, 2016 (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 53)


Mapa Soziolinguistikoek gain, zentsuko datuetatik abiatuta, bi gurasoekin bizi ziren 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza zein izan zen aztertu zuten, gurasoen hizkuntza-profila aintzat hartuta, *Euskararen belaunetz belauneko transmisioa EAEn (Eusko Jaurlaritzak-Kultura Saila, 2008)* lanean. Jarraian dator, hitzez hitz, nola eratu zituzten familien tipologiak (Eusko Jaurlaritzak-Kultura Saila, 2008: 15):

Bikoteen tipologia bat ezarri dugu BILA indizean oinarrituta, lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren aldagaiak konbinatuz, eta emaitza sei talde desberdin izan dira:

- D mota: bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz eta bien lehen hizkuntza euskara da gutxienez.
- B mota indartua (B+): bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina batek bakarrik du lehen hizkuntza euskara.
- B mota: bi gurasoek ondo egiten dute euskaraz, baina euren lehen hizkuntza gaztelania da [edo euskara ez den beste bat].
- A mota indartua (A+): guraso batek ondo egiten du euskaraz eta lehen hizkuntza euskara du. Besteak ez du ondo egiten euskaraz, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.
- A mota: guraso batek ondo egiten du euskaraz eta gaztelania du lehen hizkuntza. Besteak ez du ondo egiten euskaraz, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.
- X mota: bi gurasoetatik batek ere ez du ondo egiten euskaraz, bere lehen hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

G.13. grafikoan, argitalpen horretan bertan, seme-alaben lehen hizkuntza nola aldatzen zen ikus daiteke familia-tipologia horien arabera.

**G.13. GRAFIKOA: GURASOEN TIPOLOGIAREN ARABERAKO TRANSMISIOA. EAE, 2001 (BI GURASOEKIN BIZI DIREN 2-29 URTEKO HIZTUNAK)**



Iturria: *Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn* (Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, 2008: 57)

## 5.5.2. Hizkuntza-transmisioa ISLn

### 5.5.2.1. Hizkuntza-sozializazioaren berri emango diguten jatorrizko galderak ISLn

I.19. irudian, elkarrizketatuen, euren gurasoen eta euren 3-15 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntzaren berri jasotzeko ISLn zer-nolako galderak txertatzen diren aurkeztu dugu. Horiek dira, I.16. irudian elkarrizketatuen, gurasoen eta seme-alaben euskarazko gaitasunari buruz ikusten genituen galderekin batera, ISLn hizkuntza-transmisioa lantzeko erabiliko izan diren jatorrizko galdera nagusiak.

Horietaz gain, eta nazioarteko demolingüistikan gaia lantzeko bestelako bide batzuk ere erabili izan direla ikusita, aipa dezagun gai hau aztertzeko orduan agian baliagarriak izan daitezkeela erabileraren puntuari elkarrizketatuek euren gurasoekiko eta seme-alabekiko dituzten erabileraren puntuari jasotzen dituzten galderak ere (I.12. irudian aurkitu daitezke horiek).

**I.19. IRUDIA: ELKARRIZKETATUEN, EUREN GURASOEN ETA EUREN SEME-ALABEN LEHEN HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERAK INKESTA SOZIOINGUISTIKOAN, EAE, 2016**

05.G ZEIN IZAN DA ZURE LEHEN HIZKUNTZA EDO AMA HIZKUNTZA?	Euskara	1	Euskera	P.05 ¿CUÁL FUE SU PRIMERA LENGUA O LENGUA MATERNA?
	Euskara eta gaztelania	2	Euskera y castellano	
	Gaztelania	3	Castellano	
	Beste bat	4	Otra	
	_____	<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Ed/Ee	5	Ns/Nc		

06.G ZURE AMAK BADAHI/BAZEKIEN EUSKARAZ HITZ EGITEN? ETA ZURE AITAK?		Amak Madre	Aitak Padre		P.06 ¿SU MADRE SABE O SABÍA HABLAR EUSKERA? ¿Y SU PADRE?		
	Ongi	1	1	Bien			
	Nahiko ongi	2	2	Bastante bien			
	Zertxobait	3	3	Algo			
	Hitz batzuk	4	4	Sólo palabras			
	Ezer ez	5	5	Nada			
	Ed/Ee	6	6	Ns/Nc			
	ZEIN IZAN ZEN ZURE AMAREN LEHEN HIZKUNTZA? ETA AITARENA?	Euskara	1	1		Euskera	¿CUÁL FUE LA PRIMERA LENGUA O LENGUA MATERNA DE SU MADRE? ¿Y LA DE SU PADRE?
		Euskara eta gaztelania	2	2		Euskera y castellano	
		Gaztelania	3	3		Castellano	
Beste bat		4	4	Otra			
_____		<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	_____		
Ed/Ee	5	5	Ns/Nc				

11.G SEME-ALABETATIK, ZENBATEK DUTE 3 ETA 15 URTE BITARTEAN? (3 eta 15 urte bitarteko seme-alabarik ez badu, joan 12. galderara)		<input type="text"/>				P.11 DE SUS HIJOS E HIJAS, ¿CUÁNTOS TIENEN ENTRE 3 Y 15 AÑOS? (Si no tiene hijos/as entre 3 y 15 años pasar a P.12)		
	NAGUSIENETIK TXIKIENERA, ZEIN ADIN DUTE? (4 seme-alaba baino gehiago badira, 4 gazteenei buruz galdetu)		<input type="text"/>					
	Bakoitzari buruz:		<input type="text"/>					
	ZEIN IZAN DA BERE LEHEN HIZKUNTZA?	Euskara	1	1	1		1	Euskera
		Euskara eta gaztelania	2	2	2		2	Euskera y castellano
		Gaztelania	3	3	3		3	Castellano
		Beste bat	4	4	4		4	Otra
			<input type="text"/>				¿QUÉ EDADES TIENEN, DE MAYOR A MENOR? (Si tienen más de 4 hijos/as preguntar por los/as 4 menores)	
			<input type="text"/>					
			<input type="text"/>					
		<input type="text"/>				Para cada uno/a de ellos/as:		
		<input type="text"/>				¿CUÁL HA SIDO O ES SU PRIMERA LENGUA O LENGUA MATERNA?		


Iturria: HPS, *Inkesta Soziolinguistikoa* (galde-tegi osoa ikusteko, jo III. eranskinera).

**5.5.2.2. Lehen hizkuntzaren bidez, transmisioaren lanketa ISLn oinarrituta**

1991 eta 2016 bitarteko Inkesta Soziolinguistikoen emaitzen txostenetan transmisioaren gaia lehen hizkuntzaren bueltan aztertu izan da nagusiki. Ikus dezagun:

- Lehen hizkuntzaren aldagaia batetik aldagai ugarirekin gurutzatuta aztertzen da ISLko emaitzen txostenetan: herrialdearekin, sexuarekin, adinarekin... Azken datua ez ezik, bilakaera-datuak ere aurkeztu ohi dituzte.
- Bigarrenik, elkarrizketatuen lehen hizkuntza aztertzen da, elkarrizketatuen jatorrizko familiaren osaketa aintzat hartuta. Zehazki, gurasoen artean biak euskaldunak diren edo bietako bat bakarrik den bereizita (ikus G.16. grafikoa).
- Hirugarrenik, elkarrizketatuen 3-15 urteko seme-alaben lehen hizkuntza aztertzen da, elkarrizketatuen gurasoen artean biak euskaldunak biak edo bietako bat bakarrik den bereizita eta guraso euskaldunen lehen hizkuntza ere kontuan izanda (ikus G.17. grafikoa). ISLko datuetan oinarrituta, azterketa bertsua egin da *Familia bidezko Hizkuntza transmisioari buruzko ikerketa* lanean (SIADeco, 2021), guraso moten arabera sailkapena erabilia (ikus T.23 taula). Alde esanguratsu bat badago bi lan horien artean: 2001eko zentsuarekin egindako lanketan 2-29 urteko hiztunak hartzen ziren aintzat eta 2016ko ISLrekin egindakoan 3-15 urtekoak. Azterketarako erabili ziren familia motak, ordea, bat datoz.
- Laugarrenik, irabazi-galeren gaia, guk 5.6. puntuan aurkeztuko duguna, transmisioaren atalean aurkeztu ohi dute ISLn. Bertan, elkarrizketatuen H1 eta egungo euskarazko gaitasuna uztartu ohi dira, puntu horretan ikusiko dugun bezala.
- Bosgarrenik, esan dezagun transmisioaren atalean ez direla lantzen elkarrizketatuek gurasoekin eta seme-alabekin egiten duten erabileraren datuak. Datu horiek erabileran atalean aztertu ohi dira ISLn, ez hizkuntza-transmisioaren atalean.


G.14. GRAFIKOA: LEHEN HIZKUNTZARI BURUZKO GALDERAREN EMAITZAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2019: 29).




G.15. GRAFIKOA: EUSKALDUNAK, LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK)





Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritz, 2019: 36).

G.16. GRAFIKOA: ELKARRIZKETATUEN ADINAREN ETA GURASOEN HIZKUNTZA-PROFILAREN ARABERAKO TRANSMISIOA ISL-KO TXOSTENEAN. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritz, 2019: 41-42).

**G.17. GRAFIKOA: ELKARRIZKETATUEN 3-15 URTEKO SEME-ALABEN LEHEN HIZKUNTZA, GURASOEN HIZKUNTZA-PROFILAREN ARABERA ISL-KO TXOSTENEAN. EUSKAL HERRIA, 2016 (3-15 URTEKO HIZTUNAK)**



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 (Eusko Jaurlaritza, 2019: 44-46).

**T.23. TAULA: ELKARRIZKETATUEN 3-15 URTEKO SEME-ALABEN LEHEN HIZKUNTZA, FAMILIA-TIPOLOGIAREN ARABERA. EAE, 2016 (3-15 URTEKO HIZTUNAK)**

11. taula: Lehen seme-alabaren lehen hizkuntza, familia tipologiaren arabera (2016, %)

	Tipologia						Guztira
	D	B+	B	A+	A	X	
Euskara	93,6	70,7	46,6	5,5	1,0		21,6
Euskara eta gaztelania	6,4	24,3	36,4	82,5	47,9	0,2	21,3
Gaztelania		5,0	17,0	11,9	50,4	96,0	55,2
Beste bat					0,7	3,8	1,9
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Siadecok landua

Iturria: Familia bidezko Hizkuntza transmisioari buruzko ikerketa (SIADeco, 2021: 46).

## 5.6. HIZKUNTZA-BILAKAERAREN AZTERKETA ZENTSUKO ETA ISL-KO DATUETAN OINARRITUTA

Datuek horretarako aukera eman dutenetik (1986. urtetik zentsuetan eta 1991tik ISLn) landu izan du euskal demolinguistikak hizkuntza-bilakaeraren gaia.

1986ko EAEko lehenengo Mapa Soziolinguistikoetan hainbat indize landu zituzten lehen hizkuntza eta ezagutza harremanetan jarrita. Errolda horretan bildu ziren lehen aldiz lehen hizkuntzari buruzko datuak, baina oraindik ez zen etxeko erabilerari buruzko galderarik txertatu (hori 1991. urtekoan egingo zuten lehenengo aldiz). Horrela, bada, lehen hizkuntza eta euskarazko gaitasuna uztartuta landu zuten hizkuntza-bilakaeraren gaia. Honako indize hauek landu zituzten besteak beste:

- *KENK* indizea, euskaldunen kopuruari lehen hizkuntza euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) izan zutenak kenduta (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 133).
- Bestalde, *gal-indarra* eta *eutsi-indarra* kalkulatu zituzten lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan zituen hiztun multzoarentzat (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 139). Idatzizko gaitasuna ere aintzat hartuta, *gara-indarra* kalkulatu zuten (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 153).
- Azkenik, lehen hizkuntza euskara ez beste hizkuntzak izan dituztenentzat *ahozko erakar-indar aktiboaren indizea* eta *idatzizko erakar-indar aktiboaren indizea* kalkulatu zituzten (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 157).

1991ko zentsutik aurrera, eta baita urte horretako ISLtik aurrera ere, etxeko hizkuntzari buruzko informazioa ere biltzen da, eta horren berri ematen da Mapa Soziolinguistikoetan eta ISLko argitalpenetan. Ez da, ordea, hizkuntza-bilakaeraren gaia aztertzen lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren arteko harremanean arakatuz, nazioarteko demolinguistikan ohikoa den bezala. Horrela, hainbat mapa soziolinguistikotan, euskaldunek etxean egiten duten erabilera aztertzen da, euren lehen hizkuntzaren arabera. Ez da, ordea, hiztun guztien ikuspeirik eskaintzen eta ez da hizkuntza-bilakaeraren gaiarekin lotzen (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014: 87; Kultura Saila, 2009: 83; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 97).

Horren ordez, lehen hizkuntzaren eta euskarazko gaitasunaren arteko harremana lantzeari eman izan zaio lehentasuna EAEn. Ildo horretatik, *Hizkuntza-bilakaeraren tipologia edo indizea (BILA)* eta *euskararen irabazi-galeren azterketa* garatuko dira.

### 5.6.1. Hizkuntza-bilakaeraren tipologia edo indizea (BILA), zentsuko datuetan oinarrituz

*Hizkuntza-bilakaeraren tipologia* EAEko 1991ko Mapa Soziolinguistikoan aurkezten da lehen aldiz, eta bertan zentsua egin zenean hiztunek duten euskarazko gaitasuna –ez erdarazkoa– eta lehen hizkuntza jartzen dira harremanetan (Kultura Saila, 1997: 55). Adierazle hori beti agertuko da 1991tik aurrerako EAEko Mapa Soziolinguistiko


guztietan, *hizkuntza-bilakaeraren indizea* izendapen berrituarekin 2001etik aurrera. Nola eratzen da zehazki BILA indizea? Honela definitzen zen sailkapen hori 2001eko mapa soziolinguistikoan (Kultura Saila, 2005: 81):

Biztanleriaren hizkuntza-bilakaera zer-nolakoa izan den aztertzeko ama-hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna gurutzatzean oinarritutako tipologia (HPS). Gurutzatze horretatik eratorritako kategoriak 15 badira ere, azterketa egiteko 7tan bildu dira:

- Euskaldun zaharrak: Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.
- Jatorrizko elebidunak: Ama-hizkuntza euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.
- Partzialki erdaldunduak: Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.
- Guztiz erdaldunduak: Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan eta euskaraz ez hitz egin, ezta «ondo» ulertu ez irakurri ere egiten ez duten pertsonak.
- Euskaldun berriak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «ondo» ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.
- Partzialki euskaldun berriak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz «nekez» hitz egin edo, hitz egiten ez badute ere, «ondo» ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.
- Erdaldun zaharrak: Ama-hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ez hitz egin, ezta «ondo» ulertu ez irakurri ere egiten ez duten pertsonak.


Oro har, BILA indizea hizkuntza-transmisioaren gaiarekin harremanetan aztertuko da (Kultura Saila, 1997: 55; EUSTAT eta Kultura Saila, 1999: 35; Kultura Saila, 2005: 45; Kultura Saila, 2009: 68; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014: 60; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 70). Sailkapen hori hiztun multzo osoari aplikatuko zaio 1991-2006 bitarteko mapetan; euskaldunen multzoari soilik 2011-2016koetan (ikusi G.18. eta G.19. grafikoak).

G.18. GRAFIKOA: BILA INDIZEAREN EMAITZAK IV. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAN. EAE, 2006 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)



Iturria: IV. Mapa Soziolinguistikoa, 2006 (Kultura Saila, 2009: 69)

G.19. GRAFIKOA: BILA INDIZEAREN EMAITZAK VI. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAN. EAE, 2016 (5 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK)



Iturria: VI. Mapa Soziolinguistikoa, 2016 (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 70)

### 5.6.2. Hizkuntza-bilakaeraren azterketa ISLn: euskararen irabaziak eta galerak


2006ko Inkesta Soziolinguistikoa ere landu zen BILA adierazlea (Eusko Jaurlaritz, 2008: 37). Ez gainerako ISLetan. Horren ordez, BILA indizearekin bateragarri den eta oinarri bertsuak dituen irabazi-galeren lanketa egin izan da ISLetan. Horrela, 1991en egindako lehenengo ISLn, lehen hizkuntzaren eta inkesta egin zeneko hizkuntza-gaitasunaren arteko harremana aztertzen da (Aizpurua, 1995: 80). Kasu horretan, lehen une batean, euskarazko eta gaztelania-frantsesezko gaitasunak kontuan hartzen badira ere, ondoren *euskararen galera-irabaziak* lantzen dira (Aizpurua, 1995: 84). Eta ez dira galera-irabazi horiek gaztelania-frantsesen galera-irabaziekin alderatzen. Inkesta Soziolinguistikoa guztietan ikuspegi horretatik begiratu izan zaio irabazi-galeren gaiari, gaia landu gabe gelditu zen 2001. urteko argitalpenaren salbuespenarekin (Aizpurua, 1995: 84; Eusko Jaurlaritz et al., 1997: 22; Eusko Jaurlaritz, 2008: 37; Eusko Jaurlaritz, 2013: 37; Eusko Jaurlaritz, 2019: 111).

Zehazki, honela landu izan dute ISLn irabazi-galeren gaia: hiztunak bi multzotan banatzen dira, euren lehen hizkuntzaren arabera. Batetik, lehen hizkuntza gisa euskara izan dutenak (euskara soilik edo gaztelania-frantsesarekin batera) eta bestetik lehen hizkuntza euskara izan ez dutenak. Bi multzo horietako bakoitzean berariazko lanketa egingo da. Horrela:

- Lehen hizkuntza euskara izan dutenen artean, gaur egun euskaraz hitz egiten ondo ez dakitenak euskararen galera gisa zenbatuko dira (*galera oso* izendatuko dira euskara ulertu ere egiten ez dutenak eta *galera partzial* gisa euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren, oraindik ulertzen dutenak).
- Eta lehen hizkuntza erdara izan dutenen artean gaur egun euskaraz dakitenak irabazi gisa zenbatuko dira: *irabazi oso* gisa euskaraz ondo hitz egiteko gai direnak eta *irabazi partzial*<sup>148</sup> gisa euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren, ondo ulertzen dutenak.

Ondoren kopuru horiek alderatu egingo dira (kopuru absolutuetan edo/eta biztanleria osoarekiko osatzen duten ehunekoetan). Ondoko G.20. irudian, irabazi-galerak adinka erakusten dituen ISLko grafiko bat jarri dugu.

**G.20. GRAFIKOA: EUSKARAREN IRABAZIAK ETA GALERAK VI. MAPA SOZIOLINGUISTIKOAN. EAE, 2016 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**



[Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016 \(Eusko Jaurlaritz, 2019: 11u\)](#)

Zentsuetako datuekin egiten den BILA indizearen lanketa eta ISLetako galera-irabaziena ikuspegi koherente batetik eginak daude. Horrela, funtsean, irabaziak euskaldun berriek eta partzialki euskaldun berriek osatzen dituzte; galerak, berriz, guztiz edo partzialki erdaldunduek.

<sup>148</sup> Hasierako lau ISLetan ez ziren irabazi partzialak aipatzen, bai ordea 2011 eta 2016koetan.

## 6. EUSKAL DEMOLINGUISTIKA GAUR: SINTESI-AHALEGIN LABUR BAT

### 6.1. EUSKAL ONDARE DEMOLINGUISTIKOA: ZABALA, SENDOA, ABERATSA

Azken 3-4 hamarkadetan landu den euskal demolinguistikak, nazioarteko ereduekin alderatuta, hainbat indargune azpimarragarri ditu. Lehenik eta behin, aipatu beharra dago **gaitegi zabala aztertzen duen eragiketa multzo aberatsa** dugula gurean. Hasteko, nazioarteko demolinguistikan nagusi diren bi eragiketa moldeak, zentsuek eta inkesta soziolinguistikoek, garapen sakona izan dute gurean. Eragiketa zaharrenetik hasita, Hegoaldeko Zentsuetan hiru gairi buruzko galderak txertatzen dira hizkuntza-egoeraz: hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza. Aldea da munduko eta Europako zentsu ia guztiekiko. Espainiako Estatuko hainbat nazioekin alderatuta, adibidez, Galizia eta Herrialde Katalanetako zentsuetan hizkuntzaren ezagutzari buruz besterik ez da galdetzen. Gurean, horretaz ez ezik, lehen hizkuntzaz eta etxeko erabileraz ere galdetzen da. Horrek izugarri aberasten ditu zentsuko datuen ustiatze-aukerak, Kanada eta Quebeceko ereduak ondo erakusten digun bezala. Inkesta Soziolinguistikoan ere, demolinguistikan ohikoak diren aldagai adierazgarrienen inguruko informazio zabal eta xehea eskuratzeko bitarteko aski du Euskal Herriko ISLk. Gaitegi zabala lantzen da, nazioarteko teoria soziolinguistikoan ordezkapen/berreskurapen prozesuei buruzko jakintzan ondo errotuta dauden itemen bidez. Hainbat gairi buruz, hizkuntza-gaitasunari buruz edo hiztunen inguruko harreman-sareari buruz, adibidez, gure inkestak informazio oso aberatsa eskuratu izan du, aztertu ditugun gainerako eremueta inkestek baino nabarmen aberatsagoa.

Demolinguistikan ohikoenak diren zentsu eta inkesta soziolinguistikoek gain, gainera, beste bi eragiketa garrantzitsu ere baditugu gurean: nazioartean erreferente bihurtu den behaketa-metodoaren bidez, erabileraren kale-neurketak landu ditugu batetik. Inkesta bidezko eragiketa guztiek duten muga bat gainditzen du eragiketa horrek (elkarrizketatuen subjektibotasunean oinarrituta egotea), eta baliozkotasun handiko informazioa eskuratzen du. Horretaz gain, azken urteotan, haur eta nerabeen egoeraren berri zabala ematen diguten zentsu-eragiketak ere ari dira lantzen Hegoaldean *Arrue* eta *Izaskun Arrue* proiektuen bidez. Esan beharrik ez dago haur eta nerabeen alorrak garrantzi berezia duela hizkuntza indartu nahi duen komunitatearentzat. Ikaragarrizko azterketa-aukerak eskain ditzake azken adar horrek ere. Hemendik aurrera, ordea, ez ditugu haur eta nerabeen inguruko ikerketa horiek aipatuko, gure azterketa beste hiru iturrietara mugatu delako. Guztiarekin, bada, eragiketa demolinguistikoaren multzo oso aipagarria dugu Euskal Herrian.

Bigarren ezaugarri azpimarragarri bat **lurralde-estaldurarena** dugu. Euskal Herriko lurralde guztietan lantzen dira ISL eta HEKN<sup>149</sup>. Horrek Euskal Herriko eremu geografiko guztietako errealitateak alderatzeko aukera bikaina eskaintzen digu. Ez da garrantzi gutxiko auzia bi estatutan eta hainbat administrazio-eremutan zatiturik dagoen herriarentzat. Eta ez da hori administrazio-eremuetan zatituta dauden gainerako nazio eta hizkuntza-komunitate guztien egoera. Urrutira joan gabe, ez dute Inkesta Soziolinguistikoko bateraturik Herrialde Katalanetan. Katalan hizkuntza erabiltzen den hiru lurralde populatuena soilik kontuan hartuta, Valentziako Erkidegoan beren inkesta egiten dute, Balear uharteetan berea eta Katalunian berea, eta iturri horien alderagarritasuna ez da beti erraza, gehienbat Valentziako inkestak Katalunia eta Balear uharteetakoekin alderatu nahi ditugunean<sup>150</sup>. Alde horretatik, beraz, pozik egoteko modukoa da gure egoera: eskura ditugun iturrietako bik, ISLk eta EHKNk, Euskal Herri osoko datuak eskaintzen dizkigute.

Zentsuak, berriz, Hegoaldeko lau herrialdeetan lantzen dira; ez, tamalez, Ipar Euskal Herriko hiruretan. Hegoaldeko zentsuei dagokienez, hori bai, galdera berberak egin izan dira Nafarroan eta EAEn. Erabat alderagarriak dira, hortaz, lau herrialdeetako datuak. Argitaratzeko orduan, dena den, eremu administratibo bakoitzak bereizita egiten du bere lana: EUSTATEk eta NASTATEk bakoitzak bere eremuko datuak argitaratzen ditu, eta baita EAEko eta Nafarroako Mapa Soziolinguistikoko ere. Badira Hegoalde guztiko datuak era homogenoan eskaintzen dituzten iturriak: bere garaian EDBk egin zuen lanketa hori (Altuna eta Lurrebaso, 2004; Soziolinguistika Klusterra, d.g.), eta gaur egun Euskararen Adierazle Sistemaren aurki daitezke Hegoaldeko lau herrialdeetako zentsuetako datuak (Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2021).

Lurralde-estalduraren gaia laburtuz, beraz, Euskal Herri osoa estaltzen dute ISL eta HEKNk, eta Hegoaldea zentsuek.

Esan beharra dago, gainera, eragiketa horiek guztiak aski **egonkortu-kontsolidatutzat** jo ditzakegula eta dagoeneko urte-segida luze samar bati buruzko informazioa bildu izan dutela. Egia da gurean ez dugula, tamalez, beste herrialde batzuetan duten epe luzeko tradiziozko zentsuetan: Eskozian, Galesen, Irlandan, Quebecen edo Kanadan, adibidez, guk baino askoz lehenagoetik dituzte hizkuntza-gaiei buruzko zentsuko datuak, eta mende osoko ikuspegia osatu dezakete gai batzuetan. Gurean zentsuko lehenengo datuak, 1920. urteko Bilboko Udalaren eroldaren salbuespenarekin (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 95; Aizpuru eta Zarraga, 2011), 1981ekoak ditugu EAerako eta 1986koak Nafarroarako. Nolanahi ere, bide ohargarria egin du dagoeneko euskal demolinguistikak: zentsu-datuak ditugu joan den mendeko 80ko hamarkadatik, kaleko erabilerari buruzkoak 1989tik eta Inkesta Soziolinguistikokoak 1991tik. Datuek, hortaz, azken 3-4 hamarkadetako ikuspegia eskaintzen digute: 40 urteko ibilbidea zentsuetan, eta 30 urte ingurukoa ISL eta HEKN-

---

<sup>149</sup> Salbuespen dira Arabako Trebiñu eta Argantzoren udalerrak (administratiboki Gaztela eta Leonekoak) eta Villaverde Turtzioz bizkaitarra (administratiboki Kantabriakoa). Dena den, hiru horiek udalerrak ez oso populatuak izanik, hutsune horrek ez du eragin aipagarririk ISL eta HEKNren emaitza nagusietan.

<sup>150</sup> Egoera are okerragoa da gure azterketan Herrialde Katalanetako gainerako lurraldeen errealitateak ere aintzat hartu nahi baditugu: Andorrako Printzerria, Sartaldeko Zerrenda, El Carxe eskualdea, Ipar Katalunia eta L'Alguer.



n. Eragiketa horien egileek aldizkakotasuna zorrotz bete izan dute, hutsik egin gabe, eta urtez urte landuriko edizioetan koherentzia eta jarraitutasuna dira nagusi. Hots, ez da gertatu eragiketa horien edizio batetik bestera denbora-serie homogeneousak eraikitzea galaraziko digun metodologia-aldaketarik edo aztergai ditugun alderdi nagusietan galderen formulazio-aldaketa erabatekorik.

Orain arte azaldutako guztiaren ondorio, **ondare demolinguistiko zabala, sendoa eta aberatsa** dugu gaur egun Euskal Herrian. Eragiketa estatistiko horiek jasotzen dituzten datuekin milioika erregistrotako datu-banku erraldoia dugu gurean, azken hamarkadetako hiztunen portaerek, ezaugarriek eta iritziek zer-nolako egoera eta bilakaera duten zehatz azaltzen diguna. Hiztun-komunitate gutxi izango dute neurri honetako altxorra<sup>151</sup>. Euskararen berreskurapenaren aldeko borrokan azken mende erdian ondo egin diren alderdien artean dago, zalantzarik gabe, ekoizpen demolinguistikoarena.

## 6.2. LAU ERRONKA: TEORIAN SAKONTZEA, METODOLOGIA LANTZEA, NAZIOARTEKOTZEAN AURRERATZEA, UNIBERTSITATEAREN INPLIKAZIOA AREAGOTZEA

Euskal demolinguistikaren sendotasunak eta egonkortuta dauden eragiketen bidez eskuratu den datu-masa izugarriak garapen- eta ustiatze-aukera handiak eskaintzen dizkigu aurrera begira. Horietako aukera batzuk landuko ditugu tesi honen atal metodologiko eta enpirikoan. Aipa ditzagun lehenago, euskal demolinguistikaren hobekuntza-aukerak aztertuta, gure iritziz landu beharko liratekeen, eta euren artean harremanean dauden, oinarriko lau erronka: gogoeta teorikoan sakontzea, lanketa metodologikoa indartzea, nazioartearekiko alderaketa-bidean aurreratzea eta zeregin horietan guztietan unibertsitateen inplikazioa areagotzea.

**Teorizazioan sakontzea.** Lehenik eta behin, funtsezko erronkatzat dugu gure ekoizpen demolinguistiko teorikoki ondo sustraitzeko ahaleginean aurreratzea. Gure demolinguistikak enpirikoki izan duen garapen izugarri indartsuaren aurrean, deigarria egiten da zein toki gutxi eskaini izan zaion elaborazio eta gogoeta teorikoari. Euskal eragiketa demolinguistikoaren emaitzak argitaratu ohi dituzten txostenak irakurrita, adibidez, urriak dira teoria soziolinguistikoaren aipamenak eta teoriarekin berriaz egiten diren loturak, beste herrialde batzuetan antzeko argitalpenetan egiten direnak baino nabarmen urriagoak. Horretaz gain, ekoizpen demolinguistiko horren analisia egiten duten artikulak ez oso ugarien artean ere ez da ohikoa teoria soziolinguistikoarekin uztartzea. Salbuespen azpimarragarriak dira Mikel Zalbidere lanak, non ahalegin berezia egiten den Euskal Herrian egindako ikerketa enpirikoen emaitzak nazioarteko teoria soziolinguistikoan kokatzeko eta harremanetan jartzeko. Hortxe kokatuko dugu, bada, lehen erronka: euskal demolinguistikaren ekoizpen

---

<sup>151</sup> Ez gara ideia hori azaltzen dugun lehenengoak. Honela mintzatzen zen duela 20 urte Jesus R. Marcos, EUSTATEko zentsuen eta errolden arduraduna (2002: 140):

Ondorio gisa, esan dezagun azken 20 urte honetan ia beste inon ez bezalako aberastasuna duen datu-bankua eratu dela, askotarikoak baina osagarriak —eta, kasu askotan, egiaztagarriak— diren iturriak erabiliz. Iturriek eurek, haietatik eratorritako literaturak, eta antolatzaile edo parte-hartzaile lanetan aritu garen eztabaidagune eta biltzarrek, garbi erakusten dute eusko soziolinguistika adin nagusira heldua dela.

aberatsari oinarri teoriko egokia eraikitzea eta demolinguistikaren alor enpirikoaren ondorioak teoria-mailan formulatzea. Horretarako, ezinbestekoa da akademiaren inplikazioa eta ekarpena (laugarren erronka gisa aipatuko duguna).

**Garapen metodologikoa.** Bigarren erronka arlo metodologikoari dagokio. Horren barruan bi alderdi aipatuko ditugu: azalpen metodologiko zehatz-zabal-sakonetan aurreratzeko premia batetik; eta eztabaida eta garapen metodologikoa lantzeko beharra bestetik. Lehenengoarekin hasita, hango eta hemengo eragiketa demolinguistikoen emaitzen argitalpenetako metodozko azalpenei erreparatuta, ondorioa honako hau da: oro har, beste lurraldeetako txostenetan baino toki urriagoa eskaintzen zaie Euskal Herriko demolinguistikaren argitalpenetan azalpen metodologikoei; eta gurean sortzen diren azalpenen sakontasuna eta zehaztasuna ere ez da, oro har, beste eremuetan irakurri ohi direnen parekoa. Horrela, nazioarteko demolinguistikan nahiko arruntak diren ohiturak ere ez dira gurean beti zorrotz betetzen, eta metodozko hautuak askotan ez zaizkio zehatz azaltzen irakurleari. Bi adibide aipatuko ditugu: HEKN zein ISLko laginketa- eta haztatze-prozeduretan hartu diren erabakiak gehienetan ez dira emaitzen txostenetan zehatz azaldu izan; bestalde, hainbat kasutan jatorrizko aldagaietatik abiatuta landu diren birkodetzeak eta sortu diren adierazle sintetikoaren osaketa-prozedurak ez dira zehatz-mehatz argitaratu izan gurean. Tankera horretako alderdi metodologikoak zehatz azaltzea ezinbestekoa da irakurleak informazioaren izaera zorrotz ulertu dezan; ezinbesteko baldintza da, bestalde, gurean gogoeta, eztabaida eta hobekuntza metodologikoa errial dadin.

Arlo metodologikoa utzi gabe, hona aipatu nahi dugun bigarren alderdia: ez dira asko gurean metodozko eztabaida eta hobekuntza metodologikoa landu izan duten lanak. Patxi Juaristik euskal soziolinguistikaz orokorrean dioen bezala, gurean “oso gutxi landu da metodologiaren eta tekniken arloa” (2013: 62). Alor horren barruan, bereziki aipagarria iruditzen zaigu euskal demolinguistikako eragiketen arteko osagarritasuna eta alderagarritasuna lantzeari begira egiteko dagoen lana. Izan ere, aztergai ditugun hiru iturriei erreparatuta, esan daiteke euren ikergai orokorra funtsean berbera izanda ere<sup>152</sup>, askotan elkarrekin harreman handirik gabeko iturri gisa landu izan direla. Horrek euskal demolinguistikako eragiketetan berez dagoen potentzialitate guztia behar bezala ez profitatzea dakar, gure ustez. Hiru iturriak ez daude elkarren artean guztiz isolatuak; badago iturrien arteko oinarritzko harreman bat. Zehazki, zentsuetako informazioa erabiltzen dute bai ISLk eta bai HEKNk euren eragiketen laginak eta haztatze-eragiketak egiteko; eta baita gune soziolinguistikoen lurralde-definizioa erabakitzeko ere. Iturriak elkar uztartzeko eta elkar indartzeko adibide on bat da. Baina hortik aurrera, Euskal Herriko errealitate demolinguistikoa aztertzeke garaian, ez da ohikoa iturriarteko ikuspegi batetik lan egitea<sup>153</sup>. Ildo berean, esan dezakegu benetan urriak direla hiru iturrien integrazio-saioak eta eragiketen arteko alde metodologikoak argitzeko eta zubiak eraikitzeke ahaleginak (salbuespen gisa aipa ditzakegu honakoak:

---

<sup>152</sup> Hiru eragiketak “hizkuntzen egoera soziala Euskal Herrian” gai orokorraren barruan koka ditzakegu.

<sup>153</sup> Badira hainbat iturritako datuak elkarrekin aurkezten dituzten bilduma-izaerako argitalpen batzuk. Hor dugu, adibidez, *Euskararen Adierazle Sistemaren urtekaria* (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019). Mapa Soziolinguistikokoetan, bestalde, zentsuko datuez gain, irakaskuntzaren estatistikari eta helduen euskalduntzeari buruzkoak ere aurkezten dira (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020). Tankera horretako argitalpenetan, iturri batetik eta bestetik ekarritako informazioa bata bestearen aldamenean jartzen da.

Ruiz Olabuénaga eta Maraión, 1983; Iurrebaso, 2012b; Zalbide, 2016; Iurrebaso, 2017; Sorolla, Altuna eta Larrea, 2019). Gabezia horrek dezente ahultzen ditu, gure ustez, euskal demolinguistikak berez dituen potentzialitate handiak. Adibide baten bidez hobeto ulertuko da esaten ari garena: hizkuntzen erabilerari buruzko datu jakingarriak ekoizten eta argitaratzen dituzte aipatu ditugun hiru iturriek. Baina gaur egun erabilera-datu horiek lantzen eta argitaratzen diren bezala, ez dira zuzenean alderagarriak zentsuko, ISLko eta HEKNko datuak, hainbat arrazoi tarteko: eragiketen adin-unibertsoa edo lurralde-unibertsoa bat ez datozelako, informazioa eskaintzeko erabiltzen diren eskalak bat ez datozelako, laginen ezaugarriengatik, eta abar. Informazioa, gaur egun lantzen den bezala, ez da zuzenean alderagarria. Horrek izugarri zailtzen dio ikertzaileari, arduradun politikoari, euskalgintzako eragileari edo herritar xeheari aztergaiaren osotasunezko ikuspegi bat lantzea (euskararen erabilerarena kasu honetan). Elkarrekin bat egiten ez duten puzzleko piezak dira gaur egun hiru iturri horietako datuak. Funtsezko erronka da, gure ustez, elkarrekin ezkontzeko moduko piezak ekoiztea hiru iturri horietatik abiatuta<sup>154</sup>, horrela puzzlea egoki osatzeko eta, pieza guztiak kontuan hartuta, osotasunezko ikuspegi ahalik eta aberatsena izateko.

**Nazioartekotzea.** Aipatu nahi dugun hirugarren erronka nazioartekotzearena da. Pentsatzekoa da teorizatorako joera urriak eta metodologia alorraren lanketa apalak, bi alderdi horiek, aldebiko zerikusia izango dutela gure soziolinguistikak nazioartekoarekin duen harreman urriarekin (Atkinson et al., 2010: 342; Martínez de Luna, 2015: 247). Horregatik, erronka handia da, teorian ondo sustraitua, euskal demolinguistikak azaltzen duen errealitate soziala nazioarteko beste komunitate batzuetakoekin alderatzeko zubi metodologikoak eraikitzea. Horretarako, ziurrenik, oinarri teorikoa aintzat hartuta, gaur egun sortu gabe dauden bitarteko metodologikoak sortu beharko dira, hango eta hemengo datuak erkagarri eta alderagarri bihurtzeko. Egin behar hori ez dagokio soilik euskal demolinguistikari, hizkuntza gutxituen nazioarteko demolinguistika osoari baizik. Horren barruan, euskal demolinguistikak ahalegin berezia egin beharko luke batetik nazioartean erabiltzen diren adierazle eta indizeak gurera egokitzeko eta gurean probatzeko, eta bestetik, gurean sortzen diren sailkapen eta adierazle sintetikoak nazioartean alderagarriak izateko moduan eraiki eta zehatz azaltzeko. Uste dugu zentsuetan eta ISLetan ditugun galderek aukera interesgarriak eskaintzen dituztela nazioarteko alderaketarako; landu beharreko eremu interesgarria da hori ere, zalantzarik gabe.

**Unibertsitatearen inplikazioa areagotzea.** Hobetzeko eta garatzeko aukerekin amaitzeko, unibertsitatearen inplikazioa areagotu beharra aipatuko dugu. Izan ere, gaur egun deigarria egiten da, gure egoera nazioartekoarekin alderatuz, unibertsitateak zein ekarpen urria egin dion gurean demolinguistikari eta zein ahula den eragiketa horien egileen eta unibertsitate alorraren arteko elkarlana. Katalunian, Quebecen edo Galesen, adibidez, ohikoa da eragiketa demolinguistikoen diseinuan, ustiatzean eta azterketan unibertsitateko ikerketa-talde eta irakasleek parte-hartze zuzena eta aipagarria izatea. Gurean askoz ahulagoa izan da orain arte unibertsitatearen inplikazioa. Unibertsitateko hainbat irakaslek egin izan dituzte egoeraren irakurketak

---

<sup>154</sup> Hiru iturri aipatzen ditugu, tesian landuko ditugun HZ, HEKN eta ISLri aipamen eginez. Dena den, planteamendu hori euskal demolinguistikako adarrak aurkeztu ditugunean laugarren adar gisa aurkeztu ditugun *Arrue* eta *Izaskun Arrue* eragiketei ere aplikagarria da, inolako zalantzarik gabe.

bertako ekoizpen demolinguistikoan oinarrituta eta nola edo hala parte hartu izan dute euskal eragiketa demolinguistikoan lanketan<sup>155</sup>. Hala eta guztiz, unibertsitateen parte-hartzea, oro har, aipatu ditugun herrialdeetan baino nabarmen txikiagoa da gurean, hobekuntza metodologikoak proposatzeko orduan, analisiak egiteko orduan eta emaitzen txostenak osatzeko orduan bereziki. Guk berriaz aztertu ez dugun arren, zerkusia izango du horrek guztiak ziurrenik egungo unibertsitateek soziolinguistika alorreko prestakuntzan jokatzen duen paper apalarekin. Azken urteotan aldaketa positibo argiak gertatu diren arren (hor dugu, besteak beste, *Euskararen jabekuntza, kudeaketa eta hizkuntza-praktikak XXI. mendean* masterra), unibertsitateek alor horretan egindako ekarpenaren azken hamarkadetako balantzea ez da oso biribila, Iñaki Martínez de Lunaren hitzetan (2016a: 60-61):

Euskal Herriko irakaskuntzan ere ez dagoela erantzun egokirik lan-merkatutik zein gizartetik egiten diren eskaerentzat. (...) Euskal Herriko ingurune akademikoetan mota horietako irakaskuntzarik ezin da aurkitu. Gradu ikasketetan ia anekdotikoa da soziolinguistika ikasgaia -euskal filologiako hautazko gisa, adibidez-. Gainerako graduetan ezta hurrik eman ere, eta graduondokoetan dauden apurrak egokiak baina kopurutan ia anekdota hutsa. Lekutan dago euskal unibertsitate-sistema *erantzukizun soziala* asebetetzetik kezka horien inguruan.

Euskal demolinguistikaren bilakaeran unibertsitateak izandako inplikazio ahul horrek zerkusi zuzena izango du, ziur aski, lehenago aipatu ditugun hiru erronkekin: unibertsitate-mundua euskal demolinguistikan gehiago inplikatu ez izanak izango zuen ondorioz euskal demolinguistikaren teorizazio mailan, garapen metodologikoan eta nazioartekotzean. Etorkizunari begira, bestalde, euskal unibertsitateek zeregin garrantzitsua eduki dezakete aurreko hiru erronkei aurre egiten laguntzen.

### 6.3. BALANTZE BAT AURRERA BEGIRA

Esandako guztiak esanda, bide oparo eta aberatsa egin du azken 3-4 hamarkadetan euskal demolinguistikak. Soziolinguistikak nazioartean jarraipena/ordezkapena/indarberritzea aztertzeke landu dituen kontzeptu gehienengatik inguruan argi egiteko moduko informazio baliagarri masa handia metatu du euskal demolinguistikak. Hori izugarritzeko ondarea da Euskal Herrian hizkuntzen egoera soziala zertan den ezagutzeko, eta benetan ugariak eta aberatsak dira ondare horrek eskaintzen dituen garapen-aukerak. Aukera horietan sakontzeko, oso komenigarria litzateke aipatu ditugun lau erronkei aurre egitea: teorizazio mailan aurreratzea, garapen metodologikoan sakontzea, nazioartekotzean urratsak egitea eta unibertsitatearen inplikazioa indartzea. Bide horretan ekarpen bat izan nahi du tesi honek. Hurrengo kapituluaren garapen-aukera horietako batzuk helburu gisa formulatuko ditugu; eta ondoren, atal metodologikoan eta enpirikoan, helburu horiek gauzatzen saiatuko gara, hizkuntza gutxituen egoera neurtzeko metodozko tresnak (adierazleak) zehaztuz eta eraikiz.

---

<sup>155</sup> HEKNko batzorde zientifikoan parte hartzen dute hainbat unibertsitateko irakasleek; guk dakigula, ez da horrelako parte-hartzerik zentsuetan eta ISLn.

# IKERKETA- GALDERAK ETA HELBURUAK



# 7. IKERKETA-GALDERAK ETA HELBURUAK

## 7.1. IKERKETA-GALDERA OROKORRAK

Gure tesiaren atal nagusiak hemen formulatuko ditugun ikerketa-galdera orokorren erantzuna bilatzen ahaleginduko dira. Zehazki, lau galdera orokor formulatuko ditugu: izaera teorikoa duten bi, izaera metodologikoa duen bat eta enpirikoa bestea. Galdera guztiek, jakina, orokortasun bat osatzen dute: atal metodologikoari dagokion galdera atal teorikoko bi galderei emango zaien erantzunetatik abiatuko da; eta atal enpirikoari dagokion galdera atal metodologikoaren emaitzetan oinarrituko da. Galdera orokorren jarraitutasun hori 1.20. irudian irudikatzen da. Plantea ditzagun, oraingoz, galdera orokor horiek. Hemendik aurrerako puntuetan zehaztuko ditugu gehiago lau galdera horiek, helburu eta galdera zehatzen bidez.

### **GALDERA TEORIKO OROKORRAK:**


- *Zer-nolako gai multzoei edo ardatzei erreparatu behar zaie hizkuntza gutxitu batek lurralde batean duen egoera soziala jarraipen/ordezkapen/indarberritze parametroetan ezagutzeko?*
- *Zer-nolako tresnen bidez (aldagai, adierazle, indize edo dena delako) gauzatu izan da ardatz horien inguruko informazio-bilketa hizkuntza gutxituei buruzko demolinguistikatik orokorrean eta euskal demolinguistikako eragiketa nagusietatik bereziki?*

### **GALDERA METODOLOGIKO OROKORRA:**

- *Zer-nolako tresna metodologiko (adierazle) berriak sortu daitezke Hegoaldeko Zentsuetatik, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketetatik eta Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta atal teorikoan finkatutako ardatzen inguruko informazio demolinguistikoko adierazgarria eta baliagarria modu ahalik eta koherente-egituratu-alderagarrienean eskuratzeko?*

### **GALDERA ENPIRIKO OROKORRA:**

- *Atal metodologikoan eraiki diren adierazle berrien emaitzen lehen irakurketa orokor bat eginda, zer esan dezakegu euskararen egungo egoera sozialari eta azken hiru hamarkadetako bilakaerari buruz?*



Iturria: egileak landua.

Oharra: irudi honetan, hiru galdera orokorrak oso laburtuta aurkezten ditugu. Testuan ageri dira galderak osorik.

## 7.2. TEORIA-MAILAKO HELBURU ZEHATZAK

Zazpi helburu zehatzen bidez bilatuko dugu teoria-mailako bi ikerketa-galdera orokorreari erantzutea. Hauek dira **bi ikerketa-galdera orokorrak** eta horietako bakoitzean landuko ditugun **helburu zehatzak**:

**Zer-nolako gai multzoei edo ardatzei erreparatu behar zaie hizkuntza gutxitu batek lurralde batean duen egoera soziala jarraipen/ordezkapen/indarberritze parametroetan ezagutzeko?**

- Demolinguistikaren diziplina soziolinguistikaren jakintza-eremu orokorrean kokatzea.
- Fishmanek eta minorizazioaren soziolinguistikak nolako azalpena ematen dieten jakitea hizkuntza gutxitu batek denbora aldi jakin batean izan ditzakeen jarraipen/ordezkapen/indarberritze prozesuei.
- Hizkuntza gutxitu batek jarraipen/ordezkapen/indarberritze parametroetan bizi duen egoera azaltzeko eta izan duen bilakaera zehazteko gai multzo edo ardatz nagusiak zein diren zehaztea.
- Ardatz horiei buruz soziolinguistikak eta demolinguistikak egiten duten kokapen teorikora oinarritzko hurbilpen bat egitea.



**Zer-nolako tresnen bidez (aldagai, adierazle, indize edo dena delako) gauzatu izan da ardatz horien inguruko informazio-bilketa hizkuntza gutxituei buruzko demolinguistikatik orokorrean eta euskal demolinguistikako eragiketa nagusietatik bereziki?**

- Gai multzo edo ardatz horiek aztertzeke, hizkuntza gutxituen nazioarteko demolinguistikatik erabili izan diren bitarteko metodologikoen oinarritzko ikuspegi orokor bat eskuratzea: nolako galderak erabili izan dituzten, nolako aldagaiak, adierazleak, indizeak eta azterketa-prozedurak.
- Euskal demolinguistikako eragiketa nagusiak deskribatzea.
- Euskal demolinguistikan gai multzo edo ardatz horiek lantzeko nolako bitarteko metodologikoak erabili izan diren jakitea: nolako galderak, aldagaiak, adierazleak, indizeak eta azterketa-prozedurak.

Helburu horiei erantzunez landu dugu atal teorikoa. Atal teorikoan eskuratu dugun ezagutzan oinarrituko gara metodologia-mailako helburuak finkatzeko.

Horretan hasi aurretik, argitu dezagun gure helburuetan ez dela sartzen aztertuko ditugun eragiketen laginketa-, haztatze- eta esleitze-prozedurak xehe aztertzea. Eskuratu dugun dokumentazio teknikoan gai horiei buruz azaldutakoak irakurri ditugu, eragiketa horiek nola eraiki diren ahalik eta hobekiena ezagutzeko. Hortik aurrera, ordea, ez da lan honen helburua xehetasun tekniko horietan sakontzea edo horien inguruko ebaluaketa bat egitea.

### 7.3. METODOLOGIA-MAILAKO HELBURUAK

Alor metodologikoak garrantzi berezia du guretzat. Tesiaren izenburuan irakurtzen den bezala, tesiaren xedea hizkuntza gutxituen jarraipena-ordezkapena-indarberritzea neurtzeko Euskal Herrira egokituko diren bitarteko metodologikoak (adierazleak) sortzea da. Atal teorikoan, jarraipena-ordezkapena-indarberritzea aztertzeke demolinguistikatik begiratu beharreko sei gai multzo edo ardatz nagusi hauek zehaztu ditugu: hizkuntza-gaitasuna, erabilera(k), motibazio-jarrerak, testuinguru demolinguistikoa, hizkuntza-sozializazioa eta hizkuntza-bilakaera. Eta atal teorikoan ikusi dugu, bestetik, ardatz horien inguruko informazioa eskuratzeko zer-nolako eragiketa nagusiak ditugun eskura euskal demolinguistikan: Hegoaldeko Zentsuak (HZ), Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak (HEKN) eta Inkesta Soziolinguistikoa (ISL)<sup>156</sup>. Atal teorikoaren oinarri horren gainean, honela formulatu dugu gure **galdera metodologiko orokorra**:

---

<sup>156</sup> Eragiketa demolinguistikoko nagusien artean sartu ditugu, halaber, *Arrue* eta *Izaskun Arrue* proiektuak. Baina horien lanketa gure lan-eremutik kanpo utzi dugu.

**Zer-nolako tresna metodologiko (adierazle) berriak sortu daitezke Hegoaldeko Zentsuetatik, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketetatik eta Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta atal teorikoan finkatu diren ardatzen inguruko informazio demolinguistiko adierazgarria eta baliagarria modu ahalik eta koherente-egituratu-alderagarrienean eskuratzeko?**

Hemendik aurrerako puntuetan, ardatza eta iturria aintzat hartuta, zehaztu egingo dugu zer-nolako lana egin behar den adierazleak sortzeko. Lehenago, aipatu dezagun, lan hori egiterakoan, eta galdera orokorrean planteatzen den bezala “era koherente-egituratu-alderagarrienean” gauzatzeko, hainbat irizpide orokorrekin lan egingo dugula ardatz eta iturri guztietan. Irizpide horiek metodologia-ataleko 8. kapituluaren zehaztutako ditugu, eta oso kontuan izango ditugu, halaber, orain aipatutako ditugun helburu zehatzak gauzatzeko orduan.

Jarraian, iturritz iturri (edo adarrez adar, lehenago aipatutako izendegiari eutsiz) planteatutako ditugun **helburu zehatzak** idatziko ditugu.

### **7.3.1. Hegoaldeko zentsuei dagozkien helburu zehatzak**

- ❖ *Zentsuetan euskarazko ahozko gaitasunari buruz jasotzen den informaziotik abiatuta, adierazle berri bat sortzea, euskaraz ondo hitz egiten ez dakiten hiztunen euskarazko maila ahalik eta era xeheenean erakutsiz.*
- ❖ *Zentsuetatik sortutako dugun adierazle horrek gaitasunari buruzko gainerako sailkapenekiko zer-nolako alderagarritasuna duen aztertzea eta dokumentatua uztea, honako adierazle hauek gutxienez aintzat hartuz: ISLn oinarritutakoa, EUSTAT eta NASTATEk erabili ohi dutena eta Mapa Soziolinguistikoetakoa.*
- ❖ *Lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisua tasa baten bidez kalkulatzeko moduko adierazlea sortzea, tasa esleituen irizpidea erabilia.*
- ❖ *Etxeko erabileran euskarak izan duen pisua tasa baten bidez kalkulatzeko moduko adierazlea sortzea, tasa esleituen irizpidea erabilia.*
- ❖ *Erabilerazko hizkuntza-bilakaera aztertzeko behar den adierazle multzoa sortzea, lehen hizkuntzatik eta etxeko erabileratik abiatuta, Kanadako eta Quebeceko demolinguistikaren tradizioari jarraituta.*
- ❖ *H1 eta EEren informazioan oinarrituta, hizkuntzen egoera orokorrari buruzko honako adierazle hauek sortzea: hizkuntzen jarraitutasun eta erakarpenaren balantzea batetik, eta hizkuntzen bizi-indarrari buruzkoa bestetik.*
- ❖ *Etxebizitza berean bizi diren pertsonen ezaugarrietatik abiatuta, adierazleak sortzea ezaugarri soziolinguistikoen arabera familia multzoak definitzeko, eta ezaugarri horiek etxebizitza bakoitzeko hiztun guztiei esleitzeko.*
- ❖ *Zentsuetan dauden galdera linguistikoetatik abiatuta, udalerriak euskalduntasun-mailaren arabera sailkatzeko adierazleak sortzea.*

- ❖ *Zentsuetan galdetzen diren hiru gaiak (euskararen ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera) bakoitza zertarako izan daitekeen egoki erabakitzeko gogoeta teoriko-metodologikoa egitea, udalerrikako euskararen nagusitasun-maila hobeto zein adierazlek ordezkia dezakeen zehazten ahaleginduz.*
- ❖ *Lehen hizkuntzaren aldagaiarekin zentsuetan bildutako informazioan oinarrituta, Hego Euskal Herrian haur txikien/txikiekiko euskararen erabileraren azken mendeko bilakaera aztertzeke bitarteko metodologikoa lantzea.*
- ❖ *Adierazle bat sortzea honako informazio hau bilduko duena: Hegoaldeko udalerrietan azken mendeko bosturteko bakoitzean jaiotako hiztunen euskararen batez besteko erabilera euren bizitzako lehen 3 urteetan, ehuneko baten bidez adierazita.*
- ❖ *Aurreko adierazlean oinarrituta, adierazle berriak sortzea, lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua aintzat hartuta, bosturteko bakoitzerako udalerririk multzokatuz udalerrietan euskarak izan duen nagusitasunaren ikuspegitik; hartara, azken mendean testuinguru demolingüistiko ezberdinen bilakaera aztertzeke bidea irekiko litzateke.*
- ❖ *Zentsuetan dugun gizabanako bakoitzari aurreko adierazleetan dagozkion balioak esleitzea, jaiotza-leku eta urtearen arabera hiztun bakoitzari bere lehen urteetako testuinguru demolingüistikoari buruzko datua atxikiz.*

### **7.3.2. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketei dagozkien helburu zehatzak**

- ❖ *Zentsu eta ISLetako erabilera-datuekin alderagarria izango den kale-erabilerari buruzko adierazlea sortzea. Horretarako, HEKNko datuetan oinarrituta, ISL eta zentsuen urteetara egokituko den eta adinaren arabera haztatuko den adierazlea sortu beharko da.*
- ❖ *“Euskararen kale-erabilera haztatua” adierazlean oinarrituta, hiztunak bizi diren udalerriko kale-erabileran euskarak duen pisuaren arabera adierazle berriak sortzea, urte bakoitzerako udalerririk multzokatuz udalerrietako euskararen nagusitasunaren ikuspegitik*
- ❖ *“Denbora osoko hiztunak” kalkulatzeko kaleko erabileraren adierazle sintetikorako (kopuru absolutuetara iritsiz).*
- ❖ *“Jardunaren osaera” kalkulatzeko kaleko erabileraren adierazle sintetikorako.*

### **7.3.3. Inkesta Soziolingüistikoari dagozkien helburu zehatzak**

- ❖ *Hiztunek bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez) duten gaitasuna kontuan hartuko duen adierazle ordinal simetriko bat sortzea, teoriaren arabera hizkuntza-gaitasunak duen “continuum” izaerara hurbilduta.*
- ❖ *Hainbat rol-harreman eta espaziotako erabileran euskarak duen pisua tasa baten bidez erakutsiko duen adierazle sorta sortzea.*

- ❖ *Hainbat rol-harreman eta espaziotarako, hiztun euskaldunen harreman-sarearen osaera aztertzeko bitarteko metodologikoak lantzea, rol-harreman eta espazio horietako bakoitzean mintzakideen artean euskaldunek duten pisua tasa baten bidez erakutsiko duen adierazle sorta sortuz.*
- ❖ *Mintzakide euskaldunak dituztenean hiztun euskaldunek zer-nolako erabilera egiten duten aztertzeko bitarteko metodologikoak sortzea eta lantzea. Horretarako, erabilera aztertzeko sortu ditugun adierazle bakunen parekoak sortzea “mintzakideak ere euskaldunak diren” kasuak soilik aintzat hartuz.*
- ❖ *Erabileraren adierazle bakunetan oinarrituta, teorikoki adierazgarriak eta metodologikoki egingarriak diren adierazle sintetikoak sortzea. Zehazki, erabileraren honako adierazle sintetiko hauek sortzea: Familiako erabilera, Harreman informaletako erabilera, Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabilera eta Aurrez aurreko harremanetako erabilera orokorra.*
- ❖ *Harreman-sareen euskalduntasunari buruzko adierazle bakunetan oinarrituta, teorikoki adierazgarriak eta metodologikoki egingarriak diren adierazle sintetikoak sortzea. Zehazki, harreman-sareen euskalduntasunari buruzko honako adierazle sintetiko hauek sortzea: Familiako harreman-sarearen euskalduntasuna, Harreman informaletako harreman-sarearen euskalduntasuna, Merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasuna eta Aurrez aurreko harreman-sare orokorraren euskalduntasuna.*
- ❖ *Mintzakideek euskaldunak dituzten kasuetan hiztun euskaldunek egiten duten erabileraren ikuspegi orokorra emango diguten bitarteko metodologikoak sortzea eta lantzea. Horretarako, erabilera aztertzeko sortu ditugun adierazle sintetikoen parekoak sortzea “mintzakideak ere euskaldunak diren” kasuak soilik aintzat hartuz.*
- ❖ *Hiztunen multzokatze orokor bat lantzea, aurrez aurreko harremanetan euskara-erdaren erabilera aintzat hartuta.*
- ❖ *“Denbora osoko hiztunak” kalkulatzeko aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikorako (kopuru absolutuetara iritsiz).*
- ❖ *“Jardunaren osaera” kalkulatzeko aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikorako.*
- ❖ *Bitarteko metodologikoak lantzea komunitate batean bertako hiztunen hizkuntza-gaitasunaren araberako osaeratik eta harreman-sareen egituraketatik abiatuta, hizkuntza bat eta bestea erabiltzeko nahitaezkotasuna eta aukera zenbatekoa den kalkulatzeko, eta horrekin batera euskara-erdaren gutxieneko eta gehienezko erabilera posibleen erreferentziak sortzea.*
- ❖ *Erabilera baloratzeko erreferentzia gisa, nahitaezkotasun eta aukeren egituraz gain, hiztun elebidunen erraztasuna ere (zein hizkuntzatan aritzen diren errazago) aintzat hartuko duen erreferentzia-puntua finkatzea.*

- ❖ *Hiztunen hizkuntza-gaitasuna eta erabilitako hizkuntza kontuan hartuta, erabileraren balizko motibazioetara zeharkako hurbilpena egiteko adierazlea sortzea, bereizketa eginda hiztunentzat eroso den jardunaren eta jardun ez-erosoaren artean*
- ❖ *Euskal Herriko hiztunek gurasoekin eta seme-alabekin dituzten erabilera-ohiturak harremanetan jarriko dituzten indizeak definitzea eta kalkulatzeko (nazioarteko alderagarritasuna bilatuz, katalanen ereduari jarraituta)*
- ❖ *Lehen hizkuntza eta gaur egungo hizkuntza-gaitasuna alderatuz eta bi hizkuntzetan izandako irabazi-galera prozesu guztiak aintzat hartuz, hizkuntza-bilakaera aztertzeke bitarteko metodologikoak sortzea.*

## 7.4. IKERKETA-GALDERA ENPIRIKO ZEHATZAK

Atal metodologikoan aipatu ditugun helburuak betetzeko, hainbat adierazle eraikiko dugu, jatorrizko iturrietatik abiatuta sei ardatz nagusiei buruzko informazioa eskainiko digutenak. Atal metodologikoan bertan, adierazle horiek nola sortzen ditugun azalduko dugu zehatz, eta adierazle berrien datu-taulak aurkeztuko ditugu. Atal enpirikoan, berriz, adierazle horien emaitzak irakurtzera joko dugu. Irakurketa horretan, honako **galdera orokor** hau izango dugu gidari:

*Atal metodologikoan eraiki diren adierazle berrien emaitzen lehen irakurketa orokor bat eginda, zer esan dezakegu euskararen egungo egoera sozialari eta azken hiru hamarkadetako bilakaerari buruz?*

Galdera orokor hori hainbat galdera zehatzen bidez landuko dugu. Zalantza izan dugu galdera orokor hori nola landu erabakitzerakoan, galdera zehatzen bidez edo ikerketa-hipotesien bidez (Tello, 2011). Landuko ditugun gaien ugaritasunak<sup>157</sup> eta gure ikerketaren oinarritzko diseinuak<sup>158</sup> eraginda, galderen bidea hartzea erabaki dugu. Uste dugu horrela hobeto antolatu ahal izango dugula gure ikerketa-prozesua eta emaitzen azalpenen irabazi egingo dugula argitasunean. Galdera zehatz horiek gidatuta, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoko orokorraren ikuspegi sintetiko berriturako elementu adierazgarriak eskaintzen ahaleginduko gara atal enpirikoan. Zerrendatu ditzagun ikerketaren atal enpirikoan gidari izango ditugun galdera zehatzak, gaika sailkatuz eta atal enpirikoan landuko ditugun hurrenkeran.

### AZKEN 115 URTEETAKO BILAKAERA (13. KAPITULUAN LANDUKO DITUGU):

<sup>157</sup> Galderak/hipotesiak zein bide hartu erabaki bitartean, hainbat frogak egin ditugu, eta gure ikerketaren alor enpirikorako hipotesiak ibiliz gero, hipotesi kopuru izugarri handia erabili beharko genukeela ikusi dugu. Ikerketa gauzatzeko galderak erabilia, berriz, galdera kopuru mugatuago baten bidez ikerketa zuzentzea lortu dugu.

<sup>158</sup> Gure ikerketa ez da lehen mailako datu-bilketa baten bidez gauzatzen. Hots, guk ez dugu ikerketa-helburu batzuei begira hutsetik abiatutako ikerketa enpiriko bat diseinatu, inkesta bat esaterako, bere lagin, galdera-sorta, landa-lan eta abarrekin. Horrela jokatu izan bagenu, hipotesiek zentzu beteak lukete: guk definitutako jakintza-beharren arabera finkatuko eta sortuko genituzke informazioa biltzeko tresnak, eta aldagaien artean neurtu nahiko genituzkeen harremanak hipotesien bidez formulatzea litzateke egokiena. Gure kasuan, ordea, zeharkako iturrietan oinarritutako gure ikerketarako, egokiagoa iruditu zaigu ikerketa-galderen bidez zuzentzea gure ikerketaren atal enpirikoa.

- ✓ *Zer-nolako bilakaera izan du XX. mendean haur txikiekiko erabilerak?*
- ✓ *Nola aldatu dira arnasmuneak eta, oro har, nagusitasun-eremuak XX. mendean?*

#### **HIZKUNTZA-GAITASUNA (14. KAPITULUA):**

- ✓ *Zer-nolakoa da Euskal Herriko hiztunen osaera euskara-erdaren hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta?*
- ✓ *Zein izan da ahozko hizkuntza-gaitasunaren azken urteotako bilakaera, gaitasun hori "continuum" izaerako fenomeno gisa aztertuta?*
- ✓ *Zein da hizkuntza-gaitasunaren araberako osaera adina aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolako bilakaera izan da azken 25 urteotan hiztunen hizkuntza-gaitasunean, euren adinari erreparatuta?*

#### **ERABILERA (15. KAPITULUA):**

- ✓ *Zenbat erabiltzen dira euskara-erdarak gaur egungo Euskal Herrian?*
- ✓ *Zehazki, zenbatekoa da hiztun euskaldunen erabilera?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da azken hamarkadetako bilakaera?*
- ✓ *Zer-nolako aldeak daude erabileran rol-harremanak eta espazioak aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolako bilakaera-joerak antzematen dira alderdi horietan?*
- ✓ *Nola uztartzen dira euskaldunak eta erdaldunak harreman-sareetan?*
- ✓ *Nolakoa da hiztun euskaldunen harreman-sareen osaera, haien ohiko mintzakideek euskara badakiten edo ez dakiten kontuan hartuta?*
- ✓ *Nola aldatzen da mintzakideen osaera hori rol-harremanak eta espazioak aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da azken hamarkadotako bilakaera?*
- ✓ *Zein hizkuntzatan aritzen dira hiztun euskaldunak euren mintzakidea(k) ere euskaldunak direnean?*
- ✓ *Nola aldatzen da euskaldunekiko erabilera hori rol-harremanak eta espazioak aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da azken hamarkadetako bilakaera?*
- ✓ *Zer-nolakoa da hiztunen erabilera euren adina kontuan hartuta?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da azken hamarkadetako bilakaera?*

- ✓ *Nork (nolako ezaugarriak dituzten hiztunek) ekoizten du gaur egungo euskara, hiztunen herrialdea, nagusitasun-eremua, lehen hizkuntza eta egungo hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da bilakaera?*

#### **HIZKUNTZA-GAITASUNA ETA ERABILERA (16. KAPITULUA):**

- ✓ *Zer-nolakoa izan daiteke euskal hiztun-komunitatearen neurria eta zer-nolako gaztelaniarena/frantsesarena, hiztunen hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta?*
- ✓ *Eta hizkuntzen erabilerak aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolakoa da hizkuntza-gaitasunaren arabera osaera, hizkuntzen erabilera-maila kontuan hartuta?*
- ✓ *Eta zenbatekoa da erabilera hiztunen hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta?*
- ✓ *Hizkuntza-gaitasuna eta erabilera aintzat hartuta, asko edo gutxi erabiltzen da euskara? Zer dago “gainetik” eta zer “azpitik”?*

#### **JARRERAK ETA MOTIBAZIOAK (17. KAPITULUA):**

- ✓ *Euskararen inguruan zer-nolako iritziak eta jarrerak adierazten dituzte hiztunek horri buruz galdetzen zaienean?*
- ✓ *Zer esan dezakegu demolinguistikatik, indukzioaren bidea erabilia, hiztunen gaitasuna eta erabilera-maila aintzat hartuta, euren jarrera eta motibazioen inguruan?*
- ✓ *Zer-nolakoa da egun jardunaren osaera motibazio-alderdiak aintzat hartuta, hots, jardunaren zenbateko zatia dator bat hiztunen erosotasun-irizpideekin eta zenbateko zatia zor zaie bestelako motibazioei?*
- ✓ *Azken 25 urteotako bilakaeran antzematen al da joerarik?*

#### **TESTUINGURU DEMOLINGUISTIKOA (18. KAPITULUA):**

- ✓ *Zertan bereizten dira soziolinguistikoki nagusitasun-eremu batzuk eta besteak?*
- ✓ *Nola banatzen dira gaur egungo Hego Euskal Herriko hiztunak nagusitasun-eremuetan?*
- ✓ *Zein dira eta zenbateko pisu demografikoa dute euskararen arnaguneek?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da nagusitasun-eremuen bilakaera? Zer-nolako ingurune mota ari da indartzen eta ahultzen azken 25 urteotan: euskararen erabilera handiko eremuak, erdara nagusi denekoak edo tartekoak?*
- ✓ *Zer-nolakoa da euskara-erdaren nagusitasuna lurraldeka aztertuta, hots, herrialdeetan, eskualdeetan eta udalerrietan?*

- ✓ *Zer-nolako bilakaera izan du euskara-erdaren nagusitasunak lurraldeka aztertuta, hots, zer-nolako bilakaera-joerak antzematen dira herrialdeetan, eskualdeetan eta udalerrietan?*
- ✓ *Euskaldunek euren eguneroko bizitzan duten harreman sarean zenbatekoa da mintzakide euskaldunen pisua?*

#### **SOZIALIZAZIOA (19. KAPITULUA):**

- ✓ *Haur txikiekiko lehen urteetako sozializazio-prozesuek zer egiten dute gaur egun, euskara indartzearen edo ahultzearen alde?*
- ✓ *Zer-nolako bilakaera-joera antzematen da azken urteotan?*
- ✓ *Zer esan dezakegu seme-alabekiko erabilera ohiturak gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera aztertuta? Gertatu al da bilakaera aipagarrikerik alderdi horretan?*
- ✓ *Hiztunek euren gurasoekiko eta euren seme-alabekiko dituzten erabilera-ohiturak alderatuta, zer-nolako ondorioak atera ditzakegu euskararen transmisio-prozesuen inguruan belaunaldiarteko ikuspegiz?*
- ✓ *Ba al dugu nazioarteko erreferentziarik transmisioaren alorrean euskararen egoera kokatzeko? Zer diote?*

#### **HIZKUNTZA-BILAKAERA (20. KAPITULUA):**

- ✓ *Nola aldatu da hiztunen hizkuntza-gaitasuna jaio eta lehen urteetan zutenetik gaur egun dutenera? Zehazki, zer-nolakoa izan da bilakaera hori multzoka, jatorrizko euskaldunak, jatorrizko erdaldunak eta jatorrizko elebidunak bereizita?*
- ✓ *Aldaketarik gertatu al da alderdi horretan azken hamarkadetan?*
- ✓ *Nola aldatu dira hiztunen erabilera-ohiturak jaio eta lehen urteetatik gaur egunera? Zehazki, zer-nolakoa izan da bilakaera hori multzoka, jatorrizko euskaldunak, jatorrizko erdaldunak eta jatorrizko elebidunak bereizita?*
- ✓ *Gertatu al da aldaketarik alderdi horretan azken hamarkadetan?*
- ✓ *Hiztunen lehen hizkuntza eta egungo etxeko erabilera aintzat hartuta, zer esan dezakegu egun Euskal Herrian gaztelaniak/frantsesak eta euskarak duten bizi-indarrari buruz?*
- ✓ *Euskararen bizi-indarra nola baloratu daiteke beste hizkuntza-komunitate gutxitu batzuen bizi-indarraren ondoan?*
- ✓ *Zein da osotasunezko ikuspegia hizkuntza-bilakaera eta belaunaldiarteko transmisioa aintzat hartuta? Posible al da bi dinamika horiek aldi berean gertatzea: hau da, transmisioan euskara indartzen aritzea eta hizkuntza-bilakaeran ahultzen aritzea? Nola ezkontzen dira bi dinamika horiek?*



- ✓ *Bi dinamiketatik zein da nagusia? Zein da bi dinamikak aintzat hartuta euskararentzat gelditzen den saldoa?*



# METODOLOGIA- ATA LA



## 8. METODOLOGIA: ZEHARKAKO ITURRIETATIK ABIATUTA, EGOERA DEMOLINGUISTIKOAREN BERRI EMANGO DIGUTEN ADIERAZLE ESANGURATSUAK SORTZEA. LANEAN GIDARI IZANGO DITUGUN HAINBAT IRIZPIDE

### 8.1. METODOLOGIA KUANTITATIBOA, ZEHARKAKO ITURRIEN USTIAKETA, ADIERAZLE BAKUN ETA SINTETIKOEN LANKETAREN BIDEZ

Puntu honekin hasten dugu lan honen atal metodologikoa. Tesi honek eduki metodologiko agerikoa du, izenburua irakurrita antzematen den bezala. Atalaren hasieran, gogora dezagun tesi honekin zein **galdera metodologiko orokorri** erantzun nahi diogun:

*Zer-nolako tresna metodologiko (adierazle) berriak sortu daitezke Hegoaldeko Zentsuetatik, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketetatik eta Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta atal teorikoan finkatu diren ardatzen inguruko informazio demolinguistiko adierazgarria eta baliagarria modu ahalik eta koherente-egituratu-alderagarrienean eskuratzeko?*

Honela laburbil dezakegu lan honetarako gure egin dugun hautu metodologiko orokorra eta landu dugun lan-prozesua:

1. **Paradigma positibistaren baitako metodologia kuantitatiboen** eremuan kokatzen da guztiz gure tesia, **demolinguistikaren esparruan** zehatzago (Sorolla, 2012).
2. **Zeharkako iturrien lanketaren bidez** gauzatuko dugu gure lana (García, 2018). Horrela, guk geuk lehen mailako ikerketa enpiriko bat diseinatu eta landu ordez, jada eginda dauden ikerketetara joko dugu. Zehazki, honako iturri hauek

aztertuko eta landuko ditugu sakon (xehetasunak iturri bakoitza landuko dugun kapituluetan azalduko ditugu):

- 1981 eta 2011 bitarteko EAE eta Nafarroa Garaiko zentsuak.
  - 1989 eta 2018 bitarteko Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak.
  - 1991 eta 2016 bitarteko Euskal Herri osoko Inkesta Soziolinguistikoak.
3. Eragiketa horiek egin dituzten **erakundeetara jo**, eta iturri horietako informazioa eskuratu dugu: **emaitzen txostenak, galdetegiak, literatura tekniko-metodologikoa eta mikrodatuen fitxategiak**. Mikrodatuen fitxategiek garrantzi berezia izan dute gure lanketan; horiek sistematizatzeak, homogeneizatzeak eta lantzeak berebiziko garrantzia izan du tesi honetan eta horrek hartu du gure egitekoaren zati handi bat.
  4. Informazio hori guztia aztertu eta aurreko kapituluak aipatu ditugun **helburu metodologiko zehatzak gauzatzen saiatu gara** orain hasten dugun atal metodologiko honetan. Kapituluak kapitulu eta puntuz puntu atal metodologikoa landu ahala aipatuko dugu kasu bakoitzean zer-nolako helburuak ari garen lantzen.
  5. Horrela, helburu zehatz horietarako, zeharkako iturriek eskaintzen zizkiguten aukerak aztertu ditugu eta, atal teorikoan azaldukoekin ahalik eta koherenteena izanik, egoera eta bilakaera demolinguistikoa deskribatzeko baliagarriak izango zaizkigun **adierazleak sortu ditugu** (Mondragón, 2002). Guztira, 137 adierazle sortu ditugu: 61 zentsuetatik sortu ditugu, 5 HEKNtik eta 71 ISLtik. Adierazleak sortzerakoan, zabaltasuna eta sintesia uztartzen saiatu gara; horretarako, **adierazle bakunak eta sintetikoak** landu ditugu. Alde batetik, ikuspegi ahalik eta xeheena eskuratzeko modua emango diguten adierazle bakunak lantzen ahalegindu gara. Horretaz gain, ahalegin berezia egin dugu teorikoki ondo oinarrituta egongo diren eta fenomenoaren ikuspegi sintetikoa eman ahalko diguten adierazle sintetikoak sortzen (Domínguez et al., 2011).
  6. Adierazleak sortzeko lan horretan, **era koherente eta egituratuan** lan egiten saiatu gara, iturrien eta adierazleen arteko **alderagarritasunean arreta** berezia ipinita (berehala zehaztuko dugu zer-nolako irizpideak erabili ditugun asmo horretan).
  7. Ahalegin berezia egin dugu landu ditugun tresna metodologikoak zehatz **dokumentatuta** uzten. Horren emaitza dira metodologia-atal aski zabal honetako orrialdeak eta bertako azalpen, sailkapen, taula, irudi, formula, eta abarrak.
  8. Adierazleak sortu ondoren, **hainbat oinarritzko ikerketa-galdera** formulatu ditugu, 7.4. puntuan aurkeztu ditugun horiek, eta horiei **erantzuten** ahaleginduko gara **atal enpirikoan**.

9. Prozesu osoan zehar izan ditugun zalantzak argitzeko, eragiketa estatistiko horien **arduradun teknikoak elkarrizketatu** ditugu. Harreman ugari eduki dugu haiekin lan prozesuko hainbat unetan, aurrez aurre, telefonoz zein posta elektronikoz bidez. Azpimarratzekoa da arduradun horiek guztiek emandako laguntza eta lan honi egin dioten ekarpen kualifikatua. Zehazki, honako teknikari hauek elkarrizketatu ditugu:
- a. Jon Aizpurua Espin (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlanetako arduraduna eta Inkesta Soziolinguistikoko zuzendaria).
  - b. Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterreko teknikaria eta HEKNko zuzendaria).
  - c. Nerea Linaza (EUSTATEko Estatistika Soziodemografikoetako Estatistika Arloko Arduraduna).
  - d. Elena Goni Rementería (EUSTATEko Estatistika Soziodemografikoen arloko arduraduna).
  - e. Ana Maria Miranda Ligüerzana (EUSTATEko Estadistika Soziodemografikoetako Arlo-Arduraduna).
  - f. Marina Sagaseta López (NASTATEko koordinazio eta hedapen estatistikoaren alorreko burua).

## **8.2. HIRU ITURRIEN ARTEKO ALDERAGARRITASUNA LANTZEA, FUNTSEZKO IRIZPIDE**

Teoria-atalean azaldu dugu, euskal demolinguistikak azken hamarraldietan osatu duen datu-ondare zabal, sendo eta aberatsaren ustiaketan aurreratzeko, erronka nagusi bat metodologia lantzea dela. Eta horren barruan, bereziki garrantzitsutzat jo dugu euskal demolinguistikako eragiketen arteko osagarritasuna eta alderagarritasuna lantzea. Lan honetan, ahal den neurrian, erabiliko ditugun hiru iturri demolinguistikoen alderagarritasuna ahalbidetzea izango da gure lana gidatuko duen funtsezko irizpideetako bat. Horrela, gai zehatz baten inguruan iturri horietako bik edo hirurek informazioa eskaintzen digutenean, informazio hori bateragarri eta alderagarri egiteko aukerak aztertuko ditugu, eta aukerak ikusten ditugunetan, alderagarritasun hori bermatzeko prozedurak finkatuko ditugu.

Teoria-ataleko T.12. taulan, guk landuko ditugun hiru iturrien metodologia alorreko alderaketa orokorra egiten genuen, eragiketa bakoitzaren hainbat funtsezko ezaugarri tekniko laburbilduta. Orain, taula hura bera abiapuntu hartuta, iturrien arteko alderagarritasunean aurreratzeko zer-nolako zailtasunak dauden zehaztu eta homogeneousaziorako hainbat irizpide orokor emango ditugu T.24. taulan. Taula honetako lehen 3 zutabeak bat datoz T.12. taularekin. Horretaz gain, taulako azken aurreko zutabeak, iturriak alderatzeko arazorik egon ote daitekeen zehazten dugu puntuz puntu. Azkenik, metodologia aldetik dauden ezberdintasun adierazgarri horiek

nola landu eta horrela datu alderagarrietara nola iritsi aurreratzen dugu labor azken zutabeen. Metodologiaren atal honetan, hemen laburtuta aipatzen diren irizpideak aplikatzen saiatuko gara iturriz iturri eta adierazle adierazle.

**T.24. TAULA: HEGOALDEKO ZENTSUEN, HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETEN ETA INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN ALDERAKETA METODOLOGIAREN IKUSPEGITIK; ALDERAGARRITASUNAREN BILA.**

	Hegoaldeko Zentsuak eta biztanleria-estatistikak (HZ)	Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak (HEKN)	EHko Inkesta Soziolinguistikoak (ISL)	Alderagarritasunerako arazorik? Zertan?	Alderagarritasuna nola bilatu
<b>Erakunde-arduraduna</b>	EUSTAT eta NASTAT	Soziolinguistika Klusterra (lehenago EKB eta SEI)	Eusko Jaurilaritzaren Hizkuntza-Politikarako Saiburuordetza		
<b>Ikerketa-teknika</b>	Inkesta unibertso osoari.	Behaketa sistematiko ez-partehartzailea.	Inkesta lagin erakusgarri bati. Elkarriketa prozedura: etxex etxeko a 1991n, 1996an eta 2007an; telefono bidezkoa 2006an 2011n eta 2016an.		
<b>Ikergaiak (labor, zehatzago metodologia atalean)</b>	Hiru gai: hizkuntza-gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera	Gai bakarra: behaketa-unean hiztunek darabilten hizkuntza	Hizkuntzarekin lotutako gaitegi zabala lantzen da ISLn: Hizkuntza-gaitasuna, erabilera egoera eta mintzakide ugariekin, harreman sareen ezaugarri soziolinguistikoak, iritziak, lehen hizkuntza, eta abar.		
<b>Eragiketako aldagaiak uztartuz azterketak egiteko aukera</b>	Ertaina	Mugatuak	Oso handia		
<b>Denbora-seriea</b>	1987etik aurrera EAEan, eta 1986tik aurrera Nafarroan, bost urtez behin (2006. eta 2016. urteetan Nafarroan ez).	1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016	1991 urtetik aurrera, bost urtez behin	2007etik aurrera hiru eragiketen landa-lanen urteak bat dato. HEKN eragiketen hiru lehenengo urteak (1989, 1993, 1997), ordea, ez dato zuztiz bat zentsu eta ISLekin	HEKNko emaitzak oinarri hartuta, 1991ko datua aterako dugu (1989 eta 1993ko emaitzen batez bestekoarekin), eta 1997ko datua 1996koa balitz bezala erabiliko dugu. Horrela, data alderagarriak izango ditugu 3 iturrietarako.
<b>Unibertsoa (I): lurralde-eremuari dagokionez</b>	EAE eta Nafarroa	Euskal Herria	Euskal Herria	Zentsuaren lurralde-eremua ezberdina da beste bi iturrietikiko	ISL eta HEKNrako Hegoalde mailako datuak kalkulatu, zentsuko ekin alderatu behar direnerako.
<b>Unibertsoa (II): adin-tarteari dagokionez</b>	Hiztun guztiak (2 urtetik gorako herritarrak) edo 5 urtetik gorakoak (EAEko Mapa SL-etan)	Hiztun guztiak (2 urtetik gorako herritarrak)	16 urtetik gorako herritarrak	ISLak aztertutako adin-tartea ezberdina da beste bi iturrietikiko	Zentsu eta HEKNko datuak birkalkulatu, haurrak kanpo utzita (ISLko ekin alderatu nahi direnerako)
<b>Metodologia - Lagin osoaren neurria eta akats-tarteak</b>	Teorian, herritar guztiengana iristeko helburuz egiten dira zentsuak, eta, praktikan, herritar multzo oso handietara iristen dira. Zentsuen prozedura klasikoak (etxe guztiak informazio bila) erabiltzea egin ziren 1981, 1986, 1991, 1996. eta 2001 urteetakoak. Metodologia, ordea, sakon aldatu da 2006koetik aurrerakoetan. Horietan, erregistroen ustiatzean, inkesta zabal batean eta kalkuluen lanketan oinarritzen dira emaitzak. Unibertsoa eta lagina bat datozenez, zentsuko datuek ez dute, printzipioz, akats-tarte estatistikorik.	Lagin ikeragarri handia (2016 urtean, 144 udalerritan 187.635 elkarrizketa eta 515.260 hiztun behatu ziren). Akats-tartea (2016): ±%0,3koa %95,0ko konfiantza-mailarako eta p=q=%50 denerako.	Lagin handi bati egin izan zaio inkesta. Euskaldunen azpi-lagina proportzionalki egokitu litzatekeen baino handiagoa da. Ondoren, emaitzak hartatu egiten dira. 2016. urteko ISLren lagina: 8.200 inkesta; akats-tartea: ±%14eko a %95,5eko konfiantza-mailarako eta p=q=%50 denerako.	ISLk lurralde-eremu handietarako informazio eskainiko digu soilik (Administrazio-eremuak eta herrialdeak). Beste muturrean, zentsuak lurralde-eremu txikienetarako desagregazioa eskainiko digu (udalerrietaraino gure kasuan). HEKN tarteko bidean geldituko da, eskualde eta udalerri handienei buruzko informazio baliagarria eskaini ahal digu.	"Arazo" hau ezin da konpondu. Iturri bakoitzarekin zein desagregazioa iritsi erabakitzeak aintzat hartu beharko da errealitate hau, besterik gabe.
<b>Laginaren barne-osaketa (unibertsoarekiko proportzionala edo ez)</b>	Unibertsoarekin bat dator, guztiz orekatua, beraz, sexu-adinaren arabera.	Kalean gehiago ibiltzen diren herritarrek pisu handiagoa dute laginean. Zehazki, haur eta gazteak biztanleriaren barnean duten baino pisu handiagoarekin azaldu ohi zaizkigu HEKN-ko laginetan.	Orekatua da sexuaren eta adinaren arabera, unibertsoarekin bat dator	Zentsu eta ISLko laginen osaketa unibertsoarekiko orekatua da sexuari eta adinari dagokionean. HEKNk jasotzen duena, ez.	HEKNko emaitzan hartuta, multzoa kontuan hartuta
<b>Datuen balizko alboratze subjektiboa</b>	Erantzun aitortuak jasotzen dira (inkesta batean subjektuek emandako erantzunetan oinarrituta). Portaera edo ezaugarri objektibagarrien eta emandako erantzunen artean aldea egotea aurreikusi daiteke. Ikertu den errealitatearen eta jasotako datuen arteko isuria (alboratzea) zenbatekoa den ez dakigu zehatz-mehatz.	Behaketa oinarritzen den datu-bilketa izanik, ez du subjektuen hautemate okerrik edo "itxura eman nahiak" eragindako alboratzerik. Balio handiko datuak dira beraz.	Erantzun aitortuak jasotzen dira (inkesta batean subjektuek emandako erantzunetan oinarrituta). Portaera edo ezaugarri objektibagarrien eta emandako erantzunen artean aldea egotea aurreikusi daiteke. Ikertu den errealitatearen eta jasotako datuen arteko isuria (alboratzea) zenbatekoa den ez dakigu zehatz-mehatz.	Datu aitortuak ditugu zentsu eta ISLn; datu behatuak HEKNn.	Interpretazioan, datu aitortuak eta datu behatuak alderatzerakoan goan izan beharko dugu

Iturria: egileak landua.

### 8.3. BESTE HAINBAT IRIZPIDE OROKOR

Metodologiako helburu orokorrean aipatu dugu adierazleak sortzerakoan era "koherente-egituratu-alderagarrian" aritzen saiatuko ginela. Horren harira, hona hemen adierazle guztiak sortzerakoan aintzat hartzen ahaleginduko garen zenbait irizpide:



- Sortuko ditugun adierazleek, jatorrizko iturriek ahalbidetzen duten heinean, **bi hizkuntzak aintzat** hartuko dituzte (euskara batetik eta gaztelania/frantsesa bestetik).
- Demolinguistikak aztergai duen errealitatea konplexua da eta berez neurtu nahi izaten ditugun aldagaiak gehien-gehienetan dikotomikoak baino gehiago *continuum* eran hedatzen diren **errealitate jarraituak** izan ohi direla aintzat hartuta<sup>159</sup>, horren arabera tresna metodologikoak (adierazleak gure kasuan) sortzen saiatuko gara, jatorrizko iturriek ahalbidetzen duten heinean. Irizpide orokor gisa, adierazleek **hizkuntza baten edo bestearen nagusitasuna** islatu beharko dute, aztertzen dugun gaia edo ardatza edozein delarik ere. Horretarako:
  - Ahal denean, neurtu diren errealitateak **zenbakizko 0-100 eskala kuantitatiboetara** ekartzeko ahalegina egingo dugu, jatorrizko aldagai ordinalen birkodetzeen bidez. Horrek asko erraztuko du iturrien eta gaien inguruko adierazleak alderatzea. Kuantitatibo bihurtzeko ariketa hori egiten ahaleginduko gara, besteak beste, erabilera, harreman-sareen euskalduntasuna eta lehen hizkuntza neurtzen duten adierazleetan. Jatorriz Hegoaldeko Zentsu zein Inkesta Soziolinguistikoetako aldagai ordinaletatik abiatuta aldagai kuantitatiboak eraikitzeke, **tasa esleituen prozedura** erabiliko dugu (hurrengo puntuan azalpenak).
  - Eskala kuantitatiboen bidez osatu ezin diren adierazleen kasuan, bi muturrak argi definituta dituzten **aldagai ordinal simetrikoak** eraikitzen ahaleginduko gara. Horrela egingo dugu, adibidez, ISLko hizkuntza-gaitasunarekin.
  - 0 eta 100 bitarteko eskala kuantitatiboan ditugun adierazleak multzokatuko ditugunean, irizpide bera erabiltzen saiatuko gara aztertu diren errealitate guztietarako, berdin hiztunak, familiak zein udalerriak sailkatzeko. Multzokatze-irizpide horiek 8.4.3. puntuan azalduko ditugu.
- Denborari eta espazioari buruzko irizpideak.
  - Ahal den neurrian, denbora-serie luzeak islatzen dituzten adierazleak hobetsiko ditugu. Horrek eskatuko digu, adierazle sintetikoak eraikitzeke adierazle bakunak aukeratzekoan, urte-segida luzeari buruzko informazioa ematen duten aldagaiak lehenestea.

---

<sup>159</sup> Atal teorikoan gabezia gisa aipatu dugu ikerketa soziolinguistikoak gehiegitan ikuspegi dikotomikora lerratu izana. Hori adierazten zigun Kasaresek (2011: 202). Ildo berean, Jone Miren Hernándezek errealitate askotarikoaren eta errealitate hori irakurtzeko erabili izan ditugun kategoria zurrunen artean dagoen aldean jartzen du arreta (2010a: 604):

Gure ikuspegia, beste gauza batzuen artean, ezagutza-erabilera-motibazioa eskemarengatik oso baldintzatuta dagoela uste dut, eta sekuentzia horrek irudi oso estatikoa ematen digula pentsatzen dut. Errealitateak dikotomiak zalantzan jartzen ditu: ezagutu edo ez ezagutu, erabili edo ez erabili; motibazioa izan edo ez izan. Errealitatean dibertsitatea nagusi dela iruditzen zait.

- Lurraldeari dagokionez, adierazleak eraikitzerakoan, lurralde-eremu ahalik eta zabalenerako adierazleak sortzen saiatuko gara. Euskal Herri mailako adierazleak sortu ezin badira, Hegoaldekoak lehenetsiko ditugu. Edonola ere, iturri bakoitzak ahalbidetzen duen neurriko segregazio-maila onartuko duten adierazleak eraikiko ditugu.
- Ahal den kasuetan, sortzen diren adierazle berriak **nazioartean** erabiltzen diren beste batzuekin **alderagarriak** izatea bilatuko dugu. Eta ahaleginak egingo ditugu munduan erabiltzen diren hainbat adierazle, indize eta tasa gurerara egokitzen.

## 8.4. ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLEETARAKO HAINBAT IRIZPIDE ETA PROZEDURA OROKOR

Aztertu ditugun hiru iturrietan lantzen dira erabilerari buruzko datuak. Hiru iturri horien emaitzak elkarren artean alderatzeko, honako irizpide eta bitarteko orokor hauek jarriko ditugu abian sortuko ditugun adierazleetan.

### 8.4.1. Tasa esleituetarako irizpidea

Aurreko puntuan adierazi bezala, neurtu diren errealitateak **zenbakizko 0-100 eskala kuantitatiboetara** ekartzeko ahalegina egingo dugu sortuko ditugun adierazle askorekin. Horrela, 100etik tasetara (ehunekoetara) ekarri nahiko ditugu berez eskala ordinaletan galdetu diren hainbat informazio, erabilerari buruzkoak gehienbat.

Tasa esleituen bidez, eskala ordinal batean emandako erantzun-aukera bakoitzari balio kuantitatibo bat esleituko diogu, ehuneko bat zehazki, eta jatorriz ordinala zen aldagaia kuantitatibo bihurtuko dugu. Zer-nolako balio kuantitatiboa esleitu erantzun-aukera bakoitzari? Guk distantziakidetasunaren oinarritzko printzipioa erabiliko dugu, eta honako balio hauek esleituko, jatorrizko eskalen posizio-kopuruaren arabera:

- Erdiko kategoriako **5 posizioko eskalak** kodetzean, honako balio hauek esleituko ditugu (ISLko etxeko erabileran euskarak duen pisua kalkulatzeko, adibidez).
  - Beti euskaraz > %100 euskaraz
  - Euskaraz erdaraz baino gehiago > %75 euskaraz
  - Euskaraz erdaraz beste > %50 euskaraz
  - Euskaraz erdaraz baino gutxiago > %25 euskaraz
  - Beti erdaraz > %0 euskaraz
    - “Ez dagokio” edo “Ez daki / erantzunik ez” aukerak balio galdu gisa kodetuko ditugu eta gure azterketatik kanpo gelditu dira.

- Erdiko kategoriako **3 posizioko eskalak** kodetzean, honako balio hauek esleituko ditugu (lehen hizkuntzan euskarak duen pisua kalkulatzeko, adibidez).
  - Euskara > %100 euskaraz
  - Euskara eta gaztelania > %50 euskaraz
  - Gaztelania > %0 euskaraz
  - Beste hizkuntza bat > %0 euskaraz
    - “Ez dagokio” edo “Ez daki / erantzunik ez” aukerak balio galdu gisa kodetuko ditugu eta gure azterketatik kanpo gelditu dira.

Aitor dezagun balio horiek esleitzea eta ez beste batzuk erabaki arbitrarioa dela; eta, adibidez, bost posiziotako eskalarako 100-75-50-25-0 balioak esleitu ditugun bezala, 100-80-50-20-0 balioak esleitzea ere zilegi izan zitekeela. Eta aitor dezagun, halaber, guk egindako eragiketak eraginen bat izan dezakeela emaitzetan. Nolanahi ere, irizpide argi eta ulergarria delako hautatu dugu esleipen-balio multzo hori, eta esan bezala, sistematikoki aplikatuko dugu txosten honetako adierazleetan.

Balio horiek esleituta, ondoren kalkuluak nola egin ditugun ikusteko, adibide gisa, T.25. taulan etxeko erabilera-tasaren kalkulua egin dugu ISLko 2011ko datuekin. Bertan ikus daitekeen bezala, esleitu diren ehuneko horietan oinarrituta, hiztun guztien (edo hiztun multzoen) batez besteko erabilera-tasa kalkulatu dugu.

**T.25. TAULA: ERABILERA-TASA ESLEITUEN KALKULUAREN ADIBIDEA, ETXEKO ERABILERAN OINARRITUTA, EUSKAL HERRIA, 2011**

	ISL emaitzak (%)	Euskarazko erabilera (ehunekoetan), emandako erantzunaren arabera esleitua	
	(A)	(B)	=A*B
<b>Nola hitz egiten duzue etxean zuen artean denok elkarrekin zaudetenean?</b>			
Beti euskaraz	8,7	%100,0	8,7
Euskaraz erdaraz baino gehiago	2,3	%75,0	1,7
Euskaraz erdaraz beste	3,2	%50,0	1,6
Euskaraz erdaraz baino gutxiago	5,8	%25,0	1,4
Beti erdaraz	80,1	%0,0	0,0
<b>Etxeko erabilera aitortuaren tasa esleitua (%)</b>			<b>%13,5</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Etxeko erabilera-tasa esleitua** da kalkulu horien emaitza, eta zera esan nahiko luke: inkestan jasotako erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (alboratzerik ez balego), zenbat euskara erabiltzen den (ehunekoetan adierazita). Adibide horretan, kopuru horrek zera adieraziko digu: inkestako erantzunen arabera, %13,5koa da euskararen erabilera Euskal Herriko etxeetan (etxean denak elkarrekin daudenean).

Horrela kalkulatu diren tasak oso erabilgarriak izango zaizkigu eragiketa berdineko adierazle ezberdinak euren artean alderatzeko; bestalde, ezinbestekoak izango dira iturri ezberdinetan eskala edo prozedura ezberdinak erabiliz sortu diren adierazleen arteko alderaketak egiteko.

Tasa esleitetan bi errore-maila aurreikus ditzakegu: batetik, inkesta bidez jasotako informazio demolinguistiko guztiari egokitzen zaiona; horri buruz arituko gara 8.6. puntuan. Horretaz gain, gehienbat muturreko balioei eragingo liekeen *esleipen-errorea* dei genezakeena aipatuko dugu. Aurreko adibidearekin labur azalduta: hizkuntza-gaitasunean Euskal Herriko hiztunen banaketa zein den jakinda, pentsatzekoa da “beti erdaraz” erantzun dutenen erabilera-maila erreala esleitu dugun %0 horretatik gertuago egongo dela “beti euskaraz” erantzun dutenen erabilera %100etik egongo dena baino. Zergatik diogu hori? Badakigulako “beti erdaraz” erantzun dutenen artean, azpimultzo nagusia erdaldun elebarrak osatzen dutela, eta azpimultzo nagusi horrek euskararik batere erabiliko ez duenez, “beti erdaraz” erantzun dutenen multzoa ez dela %0ko baliotik oso urruti ibiliko. Bien bitartean, “beti euskaraz” erantzun dutenen azpimultzo nagusia elebiduna izanik, pentsatzekoa da hiztun horietako batzuegan erdararen erabilerak pisuren bat izango duela egoera batzuetan, eta beste muturrekoen kasuan baino gehiago aldentuko dela esleitu diegun muturreko baliotik (%100etik kasu honetan). Ezinezkoa zaigu gaur-gaurkoz alboratze horren neurria irudikatzea; nolana ere, pentsa daiteke alboratze hori egongo dela, eta euskaren pisua apur bat puztuta azalduko zaigula tasa esleitetan bidez kalkulatu diren adierazleetan.

#### **8.4.2. Denbora osoko hiztunen eta jardunaren osaeraren kalkuluak**

Katalanek euren *Enquesta d'usos lingüistics-en mesura de parlants de català a temps complet-PTC* delakoa kalkulatzan dute (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 30), inkestari erantzun diotenen katalanarentzat aitortzen duten erabileratik abiatuta. Kalkulu horren parekidea kalkulatu dugu euskararen erabilera-datueterako ere. Kalkulu hori *Denbora osoko hiztunak* izendatu dugu eta zera adieraziko du: zenbat “euskaldun huts” (harreman mota bat euskara hutsean bizi duten hiztunak) izango genituzkeen, hiztun errealek euskara zein proportziotan erabili ohi duten kontuan izanda eta hiztun bakoitzari darabilen euskararen araberako pisua emanaz. Horretarako, 0ko balioa emango diogu euskara batere erabiltzen ez duen hiztunari, 1eko balioa euskara hutsean bizi denari, eta tartean dagokion balioa tarteko erabilera daukatentari; tarteko balio horientzat, tasa esleitetan erabilitako irizpide berak erabiliko ditugu.

Prozedura hori erabiliko dugu erabilerari buruzko eta lehen hizkuntzari buruzko aldagaieetatik hainbat adierazle berri sortzeko.

Denbora osoko hiztunen kalkulutik abiatuta, *jardunaren osaera* ere aztertu ahal izango dugu. Zer neurtu nahi du *jardunaren osaera*? “euskara errearen”, “erabiltzen den euskararen”, “benetan ahoratzen den euskararen” osaera zein den, euskara hori ekoizten duten hiztunen ezaugarri demografiko, sozial edo soziolinguistikoak aintzat hartuta. Operatiboki, denbora osoko hiztunen kopuru absolutuak ehunekoetara ekarrita kalkulatu dugu.

### 8.4.3. Erabilera-tasak (eta beste batzuk) multzokatzeko irizpidea(k)

Hiztunak edo hiztun multzoak euren erabileraren arabera sailkatu behar diren adierazle guztietarako, bi multzokatze molde erabiliko ditugu nagusiki:

Hamar multzoko sailkapena erabiliko dugu batetik, erabilera-mailak honako multzo hauetan sailkatuz:

- %10 baino gutxiago
- %10-19,9
- %20-29,9
- %30-39,9
- %40-49,9
- %50-59,9
- %60-69,9
- %70-79,9
- %80-89,9
- %90-100

Sailkapen honek ikuspegi aski xehea eskainiko digu hiztunak edo hiztun multzoak aztertu den adierazlean nola banatzen diren aztertzeko. Bestetik, hamar multzoko sailkapen horretatik abiatuta, bost multzoko sailkapena sortu dugu, bere garaian 1981eko *Atlas lingüístico vasco* lanean udalerrriak sailkatzeko egiten zen banaketarekin bat eginez (Ruiz Olabuénaga, 1984: 34), hiztunak eta hiztun multzoak honako kopuru hauen arabera multzokatuz:

- %0-19,9
- %20-39,9
- %40-59,9
- %60-79,9
- %80-100

EAEko 1981eko zentsuko datuekin landutako lan hartan, ezagutza-dentsitatearen arabera sortu ziren multzo horiek. Multzokatze-irizpide hori bera erabiliko dugu ezagutzarako ez ezik, baita kaleko zein etxeko erabilerarako ere (HEKN eta HZ hurrenez hurren) eta baita H1en euskarak duen pisua aztertzeko ere. Udalerrriak multzokatzeko erabili izan diren aukera ugarien artean (teoria-ataleko 5.4.1. puntuan aipatu genituen) bereziki egokia iruditzen zaigu honako multzokatze hau hainbat arrazoiengatik: multzoek estaltzen duten ibiltarte teorikoa parekidea delako bost kategorietan (20 puntukoa hain justu multzo bakoitzean), banaketa guztiz simetrikoa delako eta, bakoitia izanik, neurtzen den aldagaiko erdi-inguruko balioak biltzen dituen kategoria bat gelditzen delako erdian. Uste dugu sailkapen hori baliagarria dela, gainera, demolinguistikan ehunekoen bidez kuantifikatzen diren fenomeno ugarietarako, eta horrek erraztu egiten du fenomeno batzuk eta besteak elkarrekin alderatzea.

Hori izango da gure irizpide nagusia. Hainbat kasutan, ordea, muturreko portaerak identifikatu nahi ditugunean bereziki, beste multzokatze batzuk ere ontzat eman ditugu. Hala nola, HZ-108 adierazlean zentsuko datuekin familiako euskararen batez besteko erabilera kalkulatzekoan (kasu horretan, %0a eta %100a kategoria gisa hartuko ditugu), edo ISL-501 eta ISL-502 adierazleetan. Nolanahi ere, adierazle bakoitzean azalduko dugu zer-nolako multzokatzea erabiliko dugun.

## **8.5. LURRALDE-IRIZPIDEAK**

### **8.5.1. Oinarrizko lurraldekatzea eta izendegia**

Lan honetan Euskal Herri mailako azterketak egingo ditu nagusiki. Hala ere atal metodologikoko eta enpirikoko hainbat puntutan Euskal Herria osatzen duten errealitate administratibo-historiko ezberdinen arabera datuak ere landuko ditugu: Iparraldea eta Hegoaldea, Euskal Autonomi Erkidegoa (EAE), hegoaldeko lau herrialdeak, eskualdeak eta udalerriak. Horien sailkapen-irizpideak *Euskal Herria datuen talaiatik 2006* lanetik hartu ditugu nagusiki (Elizagarate eta Lurrebaso, 2006). Bestelako irizpideak erabiliko ditugunean, azalduko ditugu testuan edota taula edo grafikoetako oharretan.

Erabiliko ditugun toki-izenak, Euskaltzaindiatik hartu ditugu.

### **8.5.2. Beste hainbat lurraldekatze, irizpide demolinguistikoetan oinarrituta (aurrerapena)**

Lurraldearen banaketa administratibo-historiko nagusiaz gain, zeinetan euskal lurraldea administrazio-eremu, herrialde eta eskualdeetan banatzen baita, irizpide demolinguistikoaren gainean eraikitako beste hainbat lurraldekatze ere erabili izan dira euskal soziolinguistikan. Erabiliena, zalantzarik gabe, 5.4.1. puntuan aipatu dugun eremu soziolinguistikoena dugu, udalerriak bertako ezagutza-dentsitatearen arabera sailkatzen dituen. Ez da bakarria izan ordea. Horretaz gain, aipatzeko modukoa da Siadecok *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian* lanean, irizpide historikoetan oinarrituta, abiapuntu gisa landu zuen lurraldekatzea, non Euskal Herriko udalerriak hiru eremutan sailkatzen ziren (Euskaltzaindia, 1979: 15): “1) area edo zona ez euskalduna, euskara galdu deneko zona; 2) area edo zona euskalduna, gorde deneko zona; 3) ukipen-zona edo area, bien artean aurkitzen dena”. Ikerketa horren egileek adierazi zuten sailkapen hori jada zaharkitua eta gauditua zegoela azken hamarraldietako aldaketengatik, bai ingurune erdaldunetako hainbat hiztunen euskalduntzeagatik eta baita eremu euskaldunean euskarak jasan duen higaduragatik ere, eta sailkapen berrien beharra dagoela adierazi zuten.

80ko hamarkadaren amaieran, EAEko 1986ko errolda-datuekin gerora jarraipenik izan ez zuen beste lurraldekatze bat landu zen, irizpide gisa udalerriko hiztunen hizkuntza-gaitasuna, adina eta lehen hizkuntza ere kontuan hartuta (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 93). Sailkapen horrek, uneko egoera ez ezik, azken hamarkadetako bilakaera demolinguistikoa ere islatzen zuen, honako sei udalerrimota hauen bidez: udalerrri erdaldunduak, udalerrri euskaldunenak, berreskurapen biziko udalerrriak, berreskurapen moteleko udalerrriak, galera galgatuko udalerrriak eta galera

etengabeko udalerriak. Esan bezala, guk dakigula behintzat, sailkapen horrek ez du segidarik izan euskal demolinguistikan.

Interesgarria iruditzen zaigu, halaber, ISLko erabilera-datuak lantzeko garaian, Zalbidek (2016: 30) irizpide historiko-administratiboak eta soziolinguistikoak uztartuz landu zuen lurraldekatzea, non 9 eremutan sailkatzen zuen Euskal Herria: EAEko herrialdeak (*Araba, Bizkaia, Gipuzkoa*), Nafarroa Garaiko zonifikazio linguistikoaren 3 zonaldeak (*euskal eremua, bietarikoa eta erdalduna*) eta Ipar Euskal Herriko hiru zonalde (*Baiona-Angelu-Miarritze herri elkargoa, Lapurdiko barnealdea eta Nafarroa Beherea-Zuberoa*). Interesgarria da, halaber, gaiaren inguruan, banaketa administratiboak eta eremu soziolinguistikoak uztartuz Olatz Altunak egin zuen proposamena (2016: 197).

Gure lan honetan ere, hainbat lurraldekatze sortuko ditugu Hegoalderako, udalerrien ezaugarri demolinguistikoak aintzat hartuta:

- HZ-202: Hitzuna bizi den udalerrian euskaldunek duten pisuaren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)
- HZ-203: Hitzuna bizi den udalerrian euskaldunek duten pisua B (5 multzotan), gune soziolinguistikoak
- HZ-205: Hitzuna bizi den udalerriko hitzunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisuaren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)
- HZ-206: Hitzuna bizi den udalerriko hitzunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua B (5 multzotan)
- HZ-208: Udalerriko etxeko erabilerearen arabera multzokatze xehea (10 multzotan)
- HZ-209: Etxeko erabilerearen arabera nagusitasun-eremuak (5 multzotan)
- HZ-213: Hegoaldeko udalerriak, euskarak XX. mende hasieran izan zezakeen bizi-indarraren arabera bi multzotan bereizita
- HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabilerearen arabera multzokatze xehea
- HEKN-003: Euskararen kaleko erabilerearen arabera nagusitasun-eremuak

Lurraldekatze-aukera horiek aurkezteaz gain, 9.8.2.4. puntuan gogoeta egingo dugu sailkapen horien artean udalerrien euskalduntasuna/erdalduntasuna egokien zeinek azaltzen duen eztabaidatzeko.

Sailkapen horietaz gain, azkenik, Hegoaldean bizi diren hitzunen jatorria sailkatzeko beste multzokatze bat ere sortu dugu, "*HZ-210: Hitzunen jaiotza-garaian/udalerrian jaio ziren haurren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua (%)*" adierazlearen lanketan

erabili duguna. Honako multzo nagusi hauetan bildu ditugu hiztunak, jaio izan ziren munduko tokiaren arabera:

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa
- Nafarroa Garaia
- Katalana darabilten lurraldeak (Kataluniako, Valentziako edo Balear uharteetako autonomi erkidegoak).
- Galiziera darabilten lurraldeak (Galiziako Autonomia Erkidegoa).
- Espainiako gainerako lurraldeak
- Frantzia (Ipar Euskal Herria barne)
- Gaztelania darabilten beste estatuak
- Munduko gainerako estatuak

## **8.6. INFORMAZIOA INTERPRETATZERAKOAN OSO KONTUAN HARTU BEHARREKO IRIZPIDEA: DATU AITORTUEN BALIOZKOTASUNARI BURUZ**

### **8.6.1. Datu demolinguistikoen fidagarritasuna eta baliozkotasuna**

Gizarte-zientzietan egiten diren neurketa guztietan bezala, demolinguistikan egiten direnetan ere funtsezko bi ezaugarri hartu behar dira aintzat: fidagarritasuna eta baliozkotasuna. Juan Etxeberriak dioen bezala, “esango dugu neurketa bat fidagarria dela, neurtzen den bakoitzean emaitza bera edo oso antzekoa ematen duenean. (...) Baliozkotasuna berriz, irudikatzen saiatzen den egoeraz egiazki irudikatzen duen maila gisa defini dezakegu” (2011: 25). Fidagarritasunak, beraz, neurketaren bidez jaso diren balioen konstantziarekin du zerikusia; baliozkotasunak, berriz, benetan ikertzaileak neurtu nahi duena neurtzea lortzen ote duen esango digu.

Zer esan dezakegu datu demolinguistikoen fidagarritasunaz eta baliozkotasunaz? De Vriesek (2006) dio datu demolinguistikoak fidagarritasun eta baliozkotasun perfektutik urrun gelditzen direla<sup>160</sup>. Alabaina, Kanadako zentsuetako datu demolinguistikoen

---

<sup>160</sup> Azken hamarkadetan, zentsuen bidez jasotako datuen kalitatea ikuspegi metodologikotik aztertu izan da han eta hemen; askoz urriagoa da inkesta soziolinguistikoen datuei buruzko hausnarketa (Ó Riagáin, 2018: 102). Hala eta guztiz, metodologiaren ikuspegitik zentsuei buruz aipatzen diren gehienak (jarraian laburtuko ditugun horiek) baliagarriak dira inkestetarako ere. Zehazki, zentsuak historikoki izan du berezitasun bat, galdetegi autoaplikatuen bidez egin izan dela, berezi egiten duena eta bere errore-maila



fidagarritasun eta baliozkotasunari buruz ari delarik (lan handia egin dute hizkuntzei buruzko datuen kalitatea berriaz aztertzeke), onargarria dela dio. Kanadaz kanpo, literatura gutxi dago gaiaren inguruan, eta hori aztertuta ere ondorio beretara iristen da De Vries: Katalunia, Hegoafrika eta Ameriketako Estatu Batuetako zentsuetako datuen fidagarritasuna eta baliozkotasuna orokorrean onargarria dela ondorioztatzen du (2006: 617):

In defense of these data, it should be noted that the few studies aimed at validating such self-response data have, overall, shown that validity tends to be satisfactory (on the condition that the social situation is conducive to unbiased responding) and that reliability likewise is within the acceptable range.

Ondorio bertsuetara iristen da Ó Riagáin Irlandako datuen fidagarritasunaz ari dela (2018); zalantza handiagoak adierazten ditu datuen baliozkotasunaz, hots, benetan neurtu nahi denaren eta neurtzen denaren arteko harremanaz. Baliozkotasuna auzitan jarritz aurkitu dugun adibiderik argiena Herrialde Katalanetako 2001eko zentsuak dira. Izan ere, urte horretan Katalunian, Valentzian eta Balear uharteetan egin zituzten zentsuetan, hizkuntza-gaitasunari buruzko galderen emaitzek baliozkotasunean gabezia nabaria zutela ondorioztatu zuten gaia sakon aztertu zuen ikerlari multzo batek (Vila, 2005a).

Ez da garrantzi gutxiko gaia guretzat, demolinguistika osoak egin dezakeen ekarpena jartzen baitu auzitan arazo horrek. Izan ere, jasotzen diren datuak ez badira *benetan* gertatzen denaren isla egokia, zertarako bildu datuak? Eta horregatik ezinbesteko zeregina da demolinguistikarentzat erantzun aitortuen bidez zer-nolako alboratzeak sortzen diren jakitea eta ahal den neurrian minimizatzea (Vila, 2009c: 42):

La distorsió que introdueixen els procediments demoscòpics en les dades de coneixements i d'usos constitueix un torpede en la línia de flotació d'una disciplina, la demolingüística, que avui encara malda per constituir-se com a camp de recerca sòlid. Si la recerca demolingüística vol guanyar-se el crèdit tant de la comunitat científica com del públic en general, cal que s'autoimposi com a prioritat de reduir al màxim els biaixos que es deriven del fet de treballar amb dades declarades.

Gure lan hau ere hein oso handian erantzun aitortuetan oinarritzen diren demolinguistikazko eragiketa estatistikoekin eraiki behar dugunez, ezinbestekoa da geure buruari galdetzea ea zenbateko balioa duten eragiketa horiek eskaintzen dituzten datuek: zein neurritan dira zentsu eta inkestekin jasotako datu aitortuak aztertu nahi diren portaera eta ezaugarri errealen isla leial? Zenbateko alboratzea izan dezakegu horrela jasotako datu aitortuetan *benetan* neurtu nahi ditugun ezaugarri eta portaerekiko? Zein norabidetan espero dezakegu izatea alboratze hori? Galdera horien erantzunetara hurbiltzen saiatuko gara hurrengo orrietan.

### 8.6.2. Erantzun aitortuen eta “benetan” gertatzen denaren arteko aldea. Zergatik gertatzen dira alboratzeak eta zer-nolako norabideetan?

Aztertu dugun literaturan aho batez onartzen da datu aitortuen eta *errealen* arteko alde hori. Hainbat arrazoiri zor zaio gertaera hori, ez da kausa bakarraren ondorio. Adibidez, norbaiti bere hizkuntza-gaitasuna zehazteko eskatzen zaionean, pertsona guztiok ez dugu galbahe berdina erabiltzen geure burua ebaluatzerakoan, eta batentzat hizkuntza batean maila “ona” dena bestearentzat ez da hain ona izango (De Rosselló eta Fabà, 2017: 17). Eta gauza bera gertatu ohi da hizkuntza bat zenbat erabiltzen duten galdetzen zaienean: hiztunak askotan ez dira jabetzen zein den *benetako* euren erabilera-maila, eta euren portaera *erreal*a baino gehiago, horren inguruan duten ikuspegia adieraziko dute euren erantzunean. Azken batean, gaiari zorrotz begiratzen badiogu, uste baino lausoagoa da inkesten bidez jasoko ditugun egitateen eta iritzien arteko muga; planteamendua muturrera eramanez, inkesta bidez elkarrizketatuek erantzuten duten guztia “hautematetzat” jo beharko genuke (Vila eta Sorolla, 2009: 79):

Contrariament al que podria suposarse, la distinció entre ideologies i usos no sempre és evident, molt especialment quan tractem amb dades declarades (...). Hom pot argumentar amb forp raó que totes les dades declarades -sobre coneixements, sobre usos i sobre ideologies- són stricto sensu creences o, si es prefereix, representacions que es fan els parlants sobre els seus usos i els seus coneixements.

Inkesta eta zentsuetan gertatzen diren alboratze horiek ulertzeko, desiragarritasun soziala funtsezko alderdia izango da (Fasold, 1996: 186):

Como se da tanta libertad para responder, es fácil encontrarse con que las personas digan que hablan aquellas lenguas que está bien considerado saber, aun cuando su conocimiento de éstas sea muy escaso.

Alboratze horren zentzua hizkuntzek herritarren artean duten balorazio eta onarpenaren araberakoa izango da eta, beraz, alboratzearen zentzua eta intentsitatea aldakorra izango da, testuinguruaren arabera (Dell’Aquila eta Iannàccaro, 2019: 530):

Such phenomena can be labelled psycho-logical errors caused by some form of bias on the part of the respondent: typical outcomes of this type of error include overestimation of the diffusion of more prestigious languages (because respondents, either consciously or unconsciously, may feel obliged to claim knowledge of an official or a national language), and underestimation of the role of minority languages or varieties whose social status is low. Ideological biases should also be taken into consideration.

Pasartean aipatzen den aurkako norabidean, hurrengo puntuetan ikusiko dugu, herritarrek hizkuntza gutxituarekiko atxikimendu handia duten lurraldeetan, Katalunian edo Euskal Herrian adibidez, alboratze horrek hizkuntza gutxituaren “alde” egiten duela; ondorioz, hizkuntza gutxituaren benetako ezagutza eta erabilera handitzeko joera izan dezakete elkarrizketatuek inkestetan. Desoreka hori, jakina, hizkuntza gutxituak prestigio edo atxikimendu handia duen komunitateetan gertatuko da, ez gainerakoetan.

### 8.6.3. Alboratzea ez da homogenoa

Ikusi dugu alboratzearen norabidea aldatu egingo dela aztergai dugun lurraldeko herritarrek hizkuntza gutxituarekiko duten atxikimenduaren arabera. Horretaz gain, arrazoi gehiago ere badaude alboratzea homogeneoa izan ez dadin; hiru alderdi aipatuko ditugu.

#### 8.6.3.1. Informazioa biltzeko prozeduraren eragina

Esan dezagun, lehenik, informazioa biltzeko prozedurak ere zerikusia izan dezakeela alboratzearen intentsitatean. Oro har, errore-maila handiagoa izango da elkarrizketatuak erantzunak norberak idatziz ematen dituenean, elkarrizketatzaile bati erantzunez ematen dizkionean baino (Dell'Aquila eta Iannàccaro, 2019: 529).

An epistemological question that has often been debated is how realistic the data collected through self-administered questionnaires are – a bias with regard to censuses, polls, and surveys. As may be expected, ideological statements are more likely to emerge than objective descriptions. On the one hand, the researcher cannot verify the truth of the answers; on the other, the respondents may not be able (or even willing) to describe their linguistic behavior in an objective manner.

Datuen baliozkotasunari eta fidagarritasunari buruzko zalantzak (De Vries, 2005: 1111) areagotu egiten dira, bestalde, informazioa hiztunak berak eman beharrean gertuko norbaitek ematen duenean, *proxy* deituriko prozedura erabilia, inkesta soziolinguistikoetan eta zentsuetan askotan gertatzen den bezala (Ó Riagáin, 2018: 26, 69). Eragiketa horietan, izan ere, ohikoa da inkestatuari, bere ezaugarri eta portaerei buruz ez ezik, ingurukoenengatik ere galdetzea. Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoetan eta Hegoaldeko Zentsuetan, adibidez, inguruko hainbat pertsonaren ezagutzaz eta erabilera-ohiturez (eta baita euren lehen hizkuntzaz ere) galdetzen zaie. Ondorioz, besteak beste, inkesta eta zentsu horietan milaka eta milaka guraso erdaldun elebakarrek baloratu izan dute euren seme-alabek zer-nolako gaitasuna duten euskaraz, eurek euskaraz batere gaitasunik ez duten arren. Horrek informazioaren balioaz sortzen dituen zalantzak gordin adierazi zituzten 1986ko Mapa Soziolinguistikoan:

Jakina denez, familiako batek edo batzuk etxekoei buruz emandako erantzunez hornitzen da Erroldako informazioa; hori era egokia izan daiteke zenbait datu soziobiografiko eskuratzeko, baina bakoitzaren hizkuntza gaitasuna zehazteko desegokia izan liteke (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 253).

Zenbatekoa izan daiteke informazioa biltzeko sistema horrek eragindako alboratzea, gehienbat helduek haur eta gazteen gaitasunaz erantzuterakoan? Gurean ez dugu aurkitu ikerketarik non alderatu egiten diren informazioa modu horretan eskuratuta lortu diren emaitzak eta zuzenean protagonistei galdetuta lortzen direnak (baliagarria izango litzateke ustezko alboratze hori zenbatekoa den ikusteko); aurrerago egingo dugu zeharkako hurbilketa partzial bat EAEko zentsuko datuak eta gaitasun-froga objektiboak alderatuz. Paragrafo honetako galderari zuzen erantzuteko moduko informazioa aurkitu dugu beste testuinguru batean. Galesen frogatu dute *proxy* sistemaren bidez guraso edo zaintzaleek 16-24 urte bitarteko gazteei buruz emandako

erantzunek modu ohargarrian *puzten* dituztela<sup>161</sup> norbanako gazte horiek zuzenean emango lituzketen erantzunak (Welsh Government -Statistics for Wales-, 2019: 4):

The difference between 'proxy' responses and 'actual' responses is at its greatest for the youngest adult respondents (i.e. those aged 16-24), suggesting that fellow household members may overestimate other household members' ability in Welsh.

#### 8.6.3.2. Alboratzea aldakorra izan daiteke lurralde-eremuen eta hiztun multzoen arabera

Aipa dezagun, bigarrenik, alboratzeak ez duela zertan homogenoa izan gizarteko eremu eta alor guztietan. Aztertu dugun literaturak dioenez, alboratze horrek indar handiagoa izan dezake hizkuntza gutxitua ahulago dagoen eremu geografikoetan, gaitasunari buruz Ipar Irlandan egin zituzten galderekin Ó Riagáinek azaldu bezala (2018: 40) eta Kanadan Fasoldek aipatu bezala (1996: 187). Hots, norbere ezagutzamailla gehiago *puzteko* joera handiagoa dute X hizkuntza ahul dagoen lurralde-eremuetako inkestak hizkuntza hori indartsuago dagoenetan bizi direnek baino, eta hizkuntza horretako hiztun trebatuekin harreman handirik ez dutenek harreman estua dutenek baino (Fasold, 1996: 186; Sánchez Carrión, 1999: 342). Erabileraz ari bagara, berriz, alboratze hori handiagoa izan daiteke bi hizkuntzak erabiltzen dituztela erantzuten dutenen artean hizkuntza bakararra darabiltela diotenen artean baino (De Rosselló eta Ginebra, 2014).

#### 8.6.3.3. Alboratze handiagoa gaitasunari buruzko galderetan erabilerari buruzkoetan baino

Aztertu dugun literatura teknikoan zehazten denez, inkesta demolinguistikoetan, alboratzea oso txikia izan ohi da identifikazio-galderetan (hala nola, adina, sexua, ikasketak...); handiagoa izan ohi da hizkuntzen erabilerari buruzko galderetan eta are handiagoa hizkuntza-gaitasunari buruzkoetan. Hurrengo puntuetan gaitasunari eta erabilerari buruzko galderen alboratzean sakontzen saiatuko gara.

Inkestetan emandako erantzunen eta "errealitatearen" arteko aldea erabileraren alorrean da bereziki alderagarria, behaketa bidez eskuratu diren datuak aitortuekin alderatu ditzakegulako. Hizkuntza-gaitasunean ere landu daiteke gaia, gehienbat inkesta eta zentsuen datuak froga objektiboen emaitzekin alderatuta. Beste hainbat aldagaitan, lehen hizkuntzan adibidez, ezinezkoa da guztiz "errealitatea" nolako izan zen adieraziko diguten datu behaturik eskuratzea (De Rosselló eta Fabà, 2017: 20).

### **8.6.4. Hizkuntza-gaitasun aitortuaren datuen alboratzeaz**

EAEEn 1981. urtean lehen aldiz erroldan euskararen ezagutzari buruzko galderak egin zirenean, herritarren alor batek, euskara jakin ez arren, euskalduntzat azaldu omen

---

<sup>161</sup> Aipatzen ari garen Galeseko argitalpenean grafiko bidez erakusten dira zenbat diren gales hiztunak gazteen erantzunaren arabera batetik eta *proxy* sistemarekin jasotako erantzunen arabera bestetik. Grafikoan ez dira kopuru zehatzak erakusten; hala ere, grafikoan argi ikusten da aldeak adierazgarriak direla gazteen artean: 16-19 urteko gazteen artean %41 inguru lirateke gales hiztunak, gazteen euren erantzunen arabera, eta %52 inguru euren guraso eta arduradunen erantzunen arabera. 20-24 urteko gazteen artean kopuru horiek %22 eta %33 ingurukoak izango lirateke hurrenez hurren. Gainerako adin-taldeetan ez da alde handirik aurkitzen elkarriketatuen erantzunen eta *proxy* motako erantzunen artean.

zuen bere burua, hizkuntza horrekiko zuten atxikimendu politiko-kulturala adierazteko. Alboratze hori ukaezina da, datu haien lehen azterketa zuzendu zuen Ruiz Olabuénaga soziologoaren iritziz, eragin mugatua duen arren (1984: 15-16):

Parece suficientemente comprobado que, los diferentes sondeos de opinión llevados a cabo sobre este mismo tema, arrojan una cierta dosis de 'sobre estima' correspondiente al deseo de una determinada parte de la población de demostrar su identificación político-cultural por medio de la afirmación del conocimiento del euskera.

El conocimiento del euskera coincide en estos sectores de la población con un juicio valorativo altamente positivo, por lo que muchas personas se atribuyen el conocimiento del mismo solamente por atribuirse este valor cultural social.

En nuestra opinión, es claro que este factor distorsionante se ha dado y puede apreciarse en los datos provenientes del Padrón municipal, pero es igualmente claro que el error, por muy cierto y consistente que demuestre serlo, no traspasa ciertos límites de error que, uno podría aventurar, no superan, en general, el margen de error de un 5% más o menos.

EUSTATen lehen urteetako zentsuen ondoren egin ziren balidazio azterketek, bestalde, azaldu zuten herritarren %20 inguru gaizki sailkatuta azaltzen zela eragiketa horietan hizkuntza-gaitasunaren aldagaiari dagokionez; euskaraz benetan zekitena baino gehiago edo gutxiago balekitez bezala sailkatu zituztela alegia (Marcos, 2002: 139).

Gaitasun erlatiboaz galdetzen denean ere, badirudi alboratze argi bat dagoela, bi hizkuntzetan erraztasun bera dutela diotenen erdiko kategoriaren alde, hain zuzen. Izan ere, adituek esaten dute bi hizkuntzetan benetan maila bertsua izatea oso arraroa dela (Baetens, 1989: 24; Sánchez Carrión, 1991: 161; Moreno, 2009: 211; Grosjean, 2018: 8), hots, nagusitasunik gabeko hiztunen kopurua hutsaren hurrengo dela, baina inkestetan hiztun elebidunen kopuru ohargarriek erantzuten du horixe dela euren egoera. Hori gertatzen da, adibidez, bai Euskal Herrian eta baita Galesen ere: euskal ISLko elkarrizketatu euskaldunen %29,5ek eta Galeseko ISLko elkarrizketatu galesdunen %26k diote erraztasun berdinez moldatzen direla bi hizkuntzetan (Jones, 2015: 49; Eusko Jaurlaritzak, 2019: 23).

Azken ohar bat hizkuntza-gaitasun aitortuen datuek gaitasun "errealarekiko" izan dezaketen alboratzeaz. Atal teorikoan azaldu dugun bezala, berez, hiztunen hizkuntza-gaitasuna neurtzeko tresnarik egokienak proba objektiboak izango lirateke. Aipatu dugu, halaber, ez dela arrunta ezaugarri horietako probak demolinguistikak berezkoak dituen lagin handiei egitea. Alabaina, 2006an EAEn Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen lagin adierazgarri baten hizkuntza-maila neurtu zen proba baten bidez<sup>162</sup>, Iñaki Martínez de Lunak azaltzen duen bezala (2016b: 46),

2006. urtean, euskara maila neurtzeko proba egin zuen ISEI-IVEIk EAeko ikastegietan, horren diseinurako *Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoak* finkatutako irizpideei jarraituz.

---

<sup>162</sup> Ikasturte bat lehenago, 2004-2005 ikasturtean, EAeko B eta D ereduak DBH4ko ikasleen hizkuntza-maila nertu zen, B2 maila zehazki. Emaizten arabera, mintzamen proba ere kontuan hartuta, B ereduakoen %32,6k eta D ereduakoen %68,0k gaitasun zuten ahozko proba (Egaña, Iriondo eta Olaziregi, 2005: 35).

Horretan, komunikaziorako ohikoak diren lau trebetasunak ebaluatu ziren: irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamina. Probaren xedea hau zen: Lehen Hezkuntzako 6. kurtsoko ikasleen artean, zenbatek duten maila nahikoa euskaraz erreferentziako B1 mailara iristeko.

Gaitasun horiei erreparatu, guk hemen konbentzio hau eraiki dugu: hizkuntza-egiaztatze maila horrekin adin horretako ikasleak euskalduntzat ematea. Beraz, proba gainditu dutenak euskalduntzat hartu ditugu.

Proba horren emaitzen arabera, EAEko LH-6ko ikasleen %48,7k gainditu zuten (Egaña et al., 2007: 25). Beraz, irizpide objektibagarrietan oinarritzen den proba horren arabera, eta Iñaki Martínez de Lunaren irizpidea ontzat emanez, maila horretako ikasleen ia erdiak jo ahalko genituzke euskalduntzat 2006. urtean. LH-6ko ikasleek 11-12 urte izan ohi dituztela aintzat hartuta, zer zioten garai bereko zentsuek adin horretako hiztunen hizkuntza-gaitasunaz?. Urte horretako biztanleria-estatistikak, 10-14 urteko EAEko 80.352 herritarren artean, 61.592 zenbatzen zituen euskaldun gisa (EUSTAT, d.g.c), %76,7a beraz. Bi iturrien araberrako zenbaketen alderaketak agerian uzten du aipatzen ari garen alboratzea: proba objektiboaren arabera, euskaldunak %48,7 ziren, eta zentsuetan, berriz, %76,7raino igotzen dira. Bi kopuru horiek harremanetan jarriz, irizpide objektiboekin neurtutakoak baino %28,0 euskaldun gehiago azaltzen zaizkigu, hortaz, zentsuetan (+%57,4ko aldea termino erlatiboetan).

Esandakoak esanda, gure azken hamarraldiotako testuinguruan gaitasun aitortuak balizko gaitasun "objektiboa" hanpatu egiten duela ondorioztatu dezakegu. Ezinezkoa da, ordea, gaur egun alboratze horren neurria garai, lurralde eta hiztun multzo guztietarako zehatz finkatzea.

#### **8.6.5. Erabilera aitortuaren datuen alboratzeaz**

Veltmanek -Estatu Batuetako errealtatetik abiatuta (1983a: 6)- eta Sorolla eta Vilak -Kataluniakoan oinarrituta (2011: 107)- diote hizkuntza gutxituko erabilera handiagoa aitortzen dela inkestetan benetan egiten dena baino. Hori nabarmenagoa den arren erabilerari buruzko galdera orokorretan, horietan ez ezik, galdera xeheetan ere gertatuko da nolabaiteko alboratzea: "l'estudi dels usos per àmbits i interlocutors també suggereix que els catalanoparlants sobreestimen el seu ús real del català." (Institut d'Estadística de Catalunya., 2009: 107)

Ondorio bertsuetara iritsi gara Euskal Herrian Inkesta Soziolinguistikoa erabilerari buruz eskuratu diren erantzun aitortuak eta kale-neurketen erabilera behatuarekin lortu direnak alderatuta (Iurrebaso, 2012b, 2017). Bi datu multzoak alderatuta, alboratze adierazgarri bat dago, behaketa-teknikak erabilia jasotzen den baino gehiago erabiltzen dutela erantzuten baitute hainbat hiztunek horri buruz galdetzen zaienean. Kopuruetara ekarrita: Euskal Herri osoko 2011ko datuak oinarri hartuta, %11,5ekoa zen 15 urtetik gorako hiztunen euskararen kale-erabilera haztatua eta %14,8koa inkesta Soziolinguistikoa inkestatuek egoera informal nagusietan (familiarekin eta lagunekin daudenean) adierazi zuren batez besteko erabilera. Kopuru horiek proportzioetara ekarrita, eta behaketan oinarritzen diren neurketak erabilera errealekiko desbideratze txikia izango duela iritzita, eta behatu den erabilera errealekin berdinduta, zera esan dezakegu: Euskal Herriko hiztunek egoera informaletan batez beste *benetan* erabili ohi zuten baino %29 inguru gehiago

zerabiltela erantzun zuten 2011ko inkestan gaiari buruz galdetu zitzaizenean. Datuak alderantziz irakurrita, esan dezakegu euskara egoera informaletan benetan inkestek batez beste adierazten zuten baino %23 inguru gutxiago erabili zela 2011ko urtean. Ondorio bertsuetara iritsi izan dira Kataluniako eskoletan behaketa eta inkesta erabiliz egindako hainbat ikerketa<sup>163</sup>.

Alboratze hori argi onartuta, ideia horri beste honako hau erantsi behar zaio: lurralde-eremu eta hiztun multzoen arabeko datuak aztertuta, inkestetako erabilerari buruzko erantzunak ez direla ausaz ematen. Aitzitik, lotura estua dago hiztunak behatuta neurtzen den erabileraren eta inkestan galdetzen zaienean erantzuten dutenaren artean. Gure ustez, Euskal Herria toki bereziki egokia izan daiteke, HEKNko eta ISLko datuen alderaketaren bidez, erabilera-datu aitortuen alboratzearen gaia sakon aztertzeko, adinak, sexuak, testuinguru demolinguistikoak alboratze horretan nola eragin dezakeen eta alboratze horretan zer-nolako bilakaera izan den ikertzeko.

#### **8.6.6. Zuhurtzia eta sakontze metodologikoaren premia**

Orain arte esandakoak laburtuz, lehenik eta behin onartu beharra dago, eta demolinguistikari lan egiterakoan beti aintzat hartu, datu aitortuek alboratzea dakartela. Zehazki, hizkuntza gutxitua ezagutzea edo erabiltzea balio positibotzat jotzen den gizarateetan (gurean esaterako), pentsatzekoa da inkesta eta zentsuetako erantzunek hizkuntza gutxituaren benetako ezagutza eta erabilera handitzeko joera izango dutela. Alboratze hori, gainera, ez da erregularra eta aldatu egin daiteke ikergaiaren, informazioa biltzeko erabili diren tresnen eta hiztun multzoen arabera.

Hala eta guztiz, aztertu dugun literatura guztiak onartzen du alboratze horrek ez duela deuseztatzen datu aitortuen balioa. Izan ere, errealitatea eta inkestetako erantzunak guztiz bat ez etorri arren, harreman estua dago erantzunen eta neurtu nahi den errealitatearen artean. Harremana ez da perfektua, inondik inora, baina bai sendoa, eta Irlandako hizkuntza-gaitasunari buruzko zentsuetako datuei buruz Ó Riagáin-ek dioen bezala, datu demolinguistikoak hurbilpen onargarriak dira aztertu nahi ditugun errealitateari begiratzeko: “Census language data, while not perfect, are judged to provide reasonably valid estimates of language proficiency in the target populations” (2018: 11).

Demolinguistikaren datu aitortuen baliozkotasunari buruzko gogoeta honek guztiak honako hiru ondorio praktikoa hauetara garamatza:

- Datu aitortuak kritikoki eta zuhurtzia bereziz irakurri beharko ditugu beti, eta datuak interpretatzerakoan alboratze honen eragina kontuan izaten ahalegindu, balizko errore-iturri hori gure azterketetan esplizitu eginez.
- Arreta berezia jarri beharko da demolinguistikaren bitarteko teknikoetan, zentsu eta inkesten galdetegietan bereziki, akats hori ahalik eta txikiena izan dadin. Izan ere, argi dago galderak eta erantzun-aukerak idazterakoan egindako

---

<sup>163</sup> Ikus, adibidez, lan hauek: “Els factors explicatius dels usos lingüístics informals entre l'alumnat català: llengua inicial, xarxes socials, competència i llengua vehicular d'ensenyament” (Galindo eta Vila, 2009) eta “Tries lingüístiques: vuit anys després. L'evolució dels usos lingüístics des de P3 fins a 6è de primària” (De Rosselló eta Ginebra, 2014).

aldaketek, txikiak izanda ere, ondorioak dituztela inkestatuen erantzunetan eta eragiketa estatistiko horien emaitza gisa lortuko diren datuetan<sup>164</sup> (Ó Riagáin, 2018: 104). Alboratze ahalik eta txikiena eragingo duten galderak eta galdetegiak lantzen ahalegindu beharko dugu, hortaz.

- Komenigarria da erantzun aitortuetan oinarritzen ez diren ikerketa-tekniken bidez egindako ikerketa demolinguistikoak indartzea eta lantzea, hala nola, froga objektiboetan, behaketa sistematikoetan edo erregistroen ustiaketan oinarrituak. Batetik, ikerketa horiek erantzun aitortuen morrontzatik ihes egiteko aukera ematen digutelako; eta bestetik, teknika horien bidez lortzen diren datuen eta datu aitortuen arteko aldeak aztertuta, alboratzearen neurri eta dinamikaz gehiago jakiteko bidea ireki dezakegulako.

---

<sup>164</sup> Demolinguistikari buruzko literatura teknikoan, gizarte-zientzietako ikerketa-metodologian galdetegietan galdera-erantzunak egiteko modurik egokienei buruzko ohikoak diren hainbat eztabaida aurkitu dugu, soziolinguistikaren eremura egokituta: galdera dikotomikoei kritika, neurketa-eskalen inguruko gogoetak edo galdera-bateriei buruzko zalantzak (Ó Riagáin, 2018: 37, 39, 53).



## 9. HEGOALDEKO ZENTSUEN LANKETA

Kapitulu honetan eta hurrengo bietan, metodologiako galdera orokorrari erantzuten ahaleginduko gara. Kapitulu honetan, zentsuei arloari erantzungo diogu eta hurrengo bietan HEKN eta ISLri. Gogora dezagun galdera hori:

*Zer-nolako tresna metodologiko (adierazle) berriak sortu daitezke Hegoaldeko Zentsuetatik, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketetatik eta Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta atal teorikoan finkatutako ardatzen inguruko informazio demolinguistiko adierazgarria eta baliagarria modu ahalik eta koherente-egituratu-alderagarrienean eskuratzeko?*

### 9.1. ABIAPUNTUA ZEHAZTEN: AZTERKETARAKO UNIBERTSOA, LANDUKO DITUGUN ZENTSUAK, BALIATUKO DITUGUN ZENTSUETAKO GALDERAK

Zentsuetan oinarrituta sortuko ditugun adierazle berriak aurkezten hasi aurretik, zentsuen bidez zer-nolako unibertsoa landuko dugun zehaztuko dugu, eta zehaztu egingo ditugu, halaber, zein urtetako zentsuak erabiliko ditugun gure ustiaketarako.

#### 9.1.1. Unibertsoaren definizioa

Gure azterketa Hegoaldean erroldatuta dauden 2 urtetik gorako biztanleriara mugatuko da. Salbuespen batzuk ere izango diren arren, pertsona multzo horrek osatuko du, oro har, zentsuen bidez sortuko ditugun adierazleen unibertsoa. Ikus dezagun zehatzago.

##### 9.1.1.1. Lurralde-definizioa: Hegoaldea

Atal teorikoaren 4.2.2.1. puntuan ikusten genuen bezala, informazio soziolinguistikoa 1981. urtetik bildu izan da EAEko zentsuetan eta 1986tik aurrera Nafarroa Garaikoetan. Azaldu dugun bezala, Ipar Euskal Herrian INSEEk egin izan dituen zentsuetan ez da gai horiei buruzko informaziorik bildu. Ondorioz, zentsuetatik eskuratzen den informazioarekin landu ditugun adierazleek Hegoaldea izango dute lurralde-unibertso. Argitu dezagun, bestalde, egungo antolaketa administratiboak hala aginduta, eremu horretatik kanpo geldituko zaizkigula honako hiru udalerrri hauek: Trebiñu eta Argantzón arabarrak eta Villaverde Turtzioz bizkaitarra. Lehenbiziko bi

udalerrietan Gaztela eta Leongoa izaten da zentsua eta hirugarrenean Kantabriakoa, eta ez batean eta ez bestean txertatzen dute hizkuntzari buruzko galderarik.

### 9.1.1.2. Biztanleria erroldatua: zuzenbidezko biztanleria eta biztanleria egoiliarra

Landuko ditugun zentsu guztietan biztanleria erroldatua hartuko dugu aintzat. Aztertu dugun epealdi osoan, biztanleria sailkatzeko eta izendatzeko irizpideetan aldaketak izan dira, eta argitu beharra dago zer-nolako unibertsoa hartuko dugun guk azterketarako.

1981-2001 bitarteko zentsuetan bi alderdi hartzen ziren aintzat: batetik, biztanleria non zegoen erroldatuta, eta bestetik, zentsuak hartzen zuen erreferentzia-egun eta orduan biztanle horiek non zeuden. Bi alderdi horiek kontuan hartuta, hiru multzotan sailkatzen ziren herritarrak: zentsuaren erreferentzia-datan bertan zegoen biztanleria (*población presente*), une horretan erroldatuta zegoen tokian ez zegoen biztanleria (*población ausente*) eta toki jakin batean erroldatuta ez egon arren erreferentzia-datan bertan zegoen biztanleria (*población transeunte*). Eta multzo horien arteko baturen bidez “gertatzeko biztanleria” eta “zuzenbidezko biztanleria” kalkulatu ziren, T.26. taulako irizpideei jarraituta. Guk zuzenbidezko biztanleriari dagozkion datuak landuko ditugu 2001. urte arteko zentsuetan.

2001etik aurrera, berriz, banaketa hori desagertu egin zen eta “biztanleria egoiliarra” (*“población residente”*) aztertu izan da zentsuetan. Multzo hori ordura arteko “zuzenbidezko biztanleriaren” parekoa da.

**T.26. TAULA: ZUZENBIDEZKO BIZTANLERIA ETA GERTATZEZKO BIZTANLERIA 2001 ARTEKO ZENTSUETAN.**

	Bertan zeudenak ( <i>presente</i> )	Kanpoan zeudenak ( <i>ausente</i> )	Kanpokoak bertan ( <i>transeunte</i> )
<b>Zuzenbidezko biztanleria</b>	<b>X</b>	<b>X</b>	
<b>Gertatzeko biztanleria</b>	<b>X</b>		<b>X</b>

[Iturria: egileak landua.](#)

Horiek horrela, zentsua egin zen une bakoitzean Hegoaldean erroldatuta zegoen biztanleriak osatuko du gure ikerketa-unibertsoa, zuzenbidezko biztanleriak hasierako zentsuetan eta biztanleria egoiliarrak 2001etik aurrerakoetan.

### 9.1.1.3. Familia-etxebizitzak eta establezimendu kolektiboak

Zentsuak egin izan direnean, familia-etxebizitzak eta establezimendu kolektiboak bereizi izan dira. Hemen EUSTATen definizioak hitzez hitz (d.g.b):

Hau da famili etxebizitza: eraikin bateko edo egitura aldetik horretatik bereizita dagoen gun e bateko gelak edo gela multzoa eta horien bulegoak. Eraiki, berreraiki, eraldatu edo egokitu den moduagatik familia bat edo batzuk bertan bizitzeko da. Eta erreferentziako egunean ez da beste helburu batzuetarako erabiltzen.

Esparruaren zati bat beste erabilera batzuetarako izan daiteke (medikuaren kontsulta, ile-apaindegia, jostundegia, etab.). Dena den, hasieran etxebizitza moduan eraiki diren baina zentsua egin den egunean beste erabilera batzuetarako bakarrik erabili diren esparruak ez dira zentsuan sartzen (bulego, tailer, biltegi eta abar bihurtu diren etxebizitzak).

Famili etxebizitzak Etxebizitzen Zentsuan daude sartuta, zentsua egin den egunean bizilagunen bat zuten kontuan hartu gabe.

Famili etxebizitzak honela sailkatzen dira: nagusiak, bigarren mailakoak, hutsik daudenak eta beste etxebizitza batzuk.

- Nagusiak: pertsona baten edo batzuen ohiko bizileku moduan erabiltzen da urte osoan edo urte gehienez.
- Bigarrenak: soilik urtearen aldi batean erabiltzen dira, aldizka edo noizbehinka, eta ez da pertsona baten edo batzuen ohiko bizilekua. Beraz, oporretan, udan, asteburuetan, aldi baterako lanak egitean edo bestelakoetan erabiltzen den landetxea, hondartzako etxea edo hiriren bateko etxea izan daiteke.
- Okupatu gabeak: ez daude hondatuta eta ez dira sartzen arestian aipatutako egoeretan, hala ere, hutsik egon ohi dira.
- Bestelako familia etxebizitzak: aurreko hiru motetako batean ere sartu ezin diren etxebizitzak dira. Kasu honetan, ez dira inoren ohiko bizilekuak (bizileku nagusiak) eta bigarren mailako etxebizitzak ere ez dira; pertsona ezberdinei alokatzen zaizkie denbora laburrerako, eta ia beti dute bizilagunen bat.

Establezimendu kolektiboa: familian bizi ez diren pertsonak bizitzeko da. Pertsona horiek aginte edo araubide komuna dute edo helburu eta interes pertsonal berberak lotzen dituzte. Zentsua egiten den unean, gainera, gutxienez pertsona horietariko baten ohiko etxebizitza nagusia da establezimendua.

Zentsuetan establezimendu kolektibotzat jotzen dira hotelak, pertsona adinduen erresidentziak, egonaldi luzeko ospitaleak, kuartelak, komentuak edo presondegiak (INE, 2013).

Familia-etxebizitzetan eta establezimendu kolektiboetan bizi diren pertsonen ez zaizkie beti galdera berdinak egin izan zentsuetan. EAEko zentsuetan, herritar guztiei galdetu izan zaie euren hizkuntza-ezaugarri buruz. Nafarroako zentsuetan, berriz, ez zaie beti galdetu izan hizkuntza-ezaugarri buruz ekipamendu kolektiboetan bizi diren herritarrei. Zehazki, Nafarroan euskararen ezagutzari buruzko galderak herritar guztiei egin zitzaizkien 1986ko erroldan. 1991tik aurrera, ordea, hizkuntzari buruzko galderak familia-etxebizitzetako egoiliarrei egin izan zaizkie, ez kolektiboetakoiei.

Horiek horrela, datuak lantzerakoan honako irizpide hauekin jardungo gara:

- Hiztun guztiak hartuko ditugu aintzat EAEn.
- Familia-etxebizitzetakoak hartuko ditugu aintzat Nafarroan.
- Familiei lotutako gaietan, familia-etxebizitzetara mugatuko dugu gure azterketa Hegoalde osoan.

Argitu dezagun, hala ere, aztertutako epealdian gutxi direla familia-etxebizitzetatik kanpo bizi izan diren herritarrak; 1981eko %0,8 eta 2011ko %0,5 arteko kopuruetan dabilta, T.27. taulan azaltzen den bezala.

**T.27. TAULA: BIZTANLERIA FAMILIA-ETXEBIZITZETAN ETA ESTABLEZIMENDU KOLEKTIBOETAN, HEGO EUSKAL HERRIA, 1981-2011**

	1981	1991	2001	2011
Etxebizitza familiarretan	2.630.725	2.598.800	2.614.685	2.799.574
(%)	99,2	99,3	99,4	99,5
Establezimendu kolektiboetan	20.358	17.499	15.932	15.415
(%)	0,8	0,7	0,6	0,5
	2.651.083	2.616.299	2.630.617	2.814.989

[Iturria: egileak landua.](#)

#### 9.1.1.4. Adinaren araberako definizioa

Zentsuen lanketarako unibertsoa 2 urtetik gorako herritarrek (hiztunek) osatuko dute. Izan ere, 0 eta 1 urteetako haurren inguruko zentsuetako informazio linguistikoa hutsunez eta kontraesanez bete behar da ageri ohi zaigunez, azterketa-unibertsoa 2 urtetik gorakoetara mugatzea erabaki dugu. Irizpide hori, ez salbuespenik gabe<sup>165</sup>, baina nahiko orokorra izan da gure inguruko estatistika demolinguistikoetan: horrela egin izan dute EUSTATEk eta NASTATEk, eta irizpide bera erabiltzen dute erabileraren kaleneurketetan ere. Hori izango da gure irizpide orokorra, nahiz eta hainbatetan salbuespen batzuk egingo ditugun:

- Familien neurria finkatzeko, familiako kide guztiak hartuko ditugu kontuan (0-1 urtekoak barne).
- Erabilerazko hizkuntza-bilakaera aztertzeko, 5 urtetik gorako hiztunek osatuko dute unibertsoa.
- Familien profila lantzeko, 5 urtetik gorakoen hizkuntza-gaitasuna hartuko dugu aintzat familia tipologiak finkatzeko.
- Familien lanketarekin jarraituta, familiako kide guztiak euskaldunak direnean, etxeko pertsona helduen artean euskaldun zaharrek duten pisua hartuko dugu aintzat. Horretarako, 30 urtetik gorako hiztunak hartuko ditugu aintzat (eta etxean horrelakorik ez bada, 18 urtetik gorakoak).

Nolanahi ere, adierazleak osatzerakoan argituko dugu kasu bakoitzean zer-nolako adin-unibertsoa darabilgun.

Azken ohar bat EAEko 1981eko zentsuko adinari buruz: landuko ditugun zentsuetan, zentsua egin zen unean (erreferentziatzeko egunean) hiztunek zuten adina jasotzen du adinaren aldagaiak, eta urte osotan adierazten da. Hori horrela da urte eta eremu

<sup>165</sup> Mapa soziolinguistikoetan beste irizpide batzuk nagusitu izan dira: 1986ko EAEko mapan hiru urtez gorako biztanleria aztertu zuten, eta bost urtetik gorakoak 1991tik aurrera; irizpide bera erabili zuen Nafarroan Euskarabideak 2011. urtean ere.

guztietarako, 1981eko EAeko zentsurako izan ezik. Izan ere, urtez urteko adinaren aldagaia ez zegoen EUSTATEk 1981eko zentsuaren informazioarekin gure esku jarri zuen fitxategian. Hutsune hori betetzeko, herritarren jaiotza-urtetik abiatuta kalkulatu dugu adina. Zehazki, jaiotza-urte bakoitzeko kide guztiei, zentsua egin zen unean (1981eko martxoaren 1a zen erreferentzia-data) jaiotza-urte horretako kide gehienek izango zuten adina esleitu diegu. Horrek eragindako alboratze txikiak ez du inolako garrantzirik lantzen ari garen gairako (batez beste, berez zuten adina baino 0,2 urte gutxiago esleitu diegu 1981eko EAeko herritarrei).

## **9.1.2. Landuko ditugun zentsuen aukeraketa**

### 9.1.2.1. Serie homogenoa osatzen ote dute zentsuek eta biztanleriaren estatistiken datuek? EAeko datuen azterketa

Errealitate demolinguistikoaren bilakaera aztertzeko, landuko ditugun datuen homogenotasuna nahitaezko baldintza dugu. Horrela, seriea homogeneoa bada, datuetan aldakortasunak zuzenean erantzungo dio neurtzen den errealitatean izan den aldakortasunari. Datuen aldakortasunean beste faktore batzuek (neurketarekin lotuak, adibidez) eragiten badute, seriea ez da homogeneoa izango. Atal teorikoan azaldu dugun bezala, ez dirudi zentsuetako galdera eta erantzunen formulazioan izan diren aldaketa txikiek homogenotasunaren printzipioa hautsi dutenik; eta zentsuko informazioa biltzeko prozeduretan izan diren aldaketa sakonek ere ez dirudi eragin sistematiko aipagarririk izan dutenik emaitzetan. Bi alderdi horien inguruan ikuspegi argia adierazi digute eragiketa horien arduradun teknikoek; gure azterketak ez du ezeztatzen ikuspegi hori. Printzipioz, bada, badirudi serie homogeneo eta guztiz alderagarri gisa landu ditzakegula zentsuetako bost urtetik behingo datuak.

Datu-serieak aztertuta, ordea, zalantzak piztu zaizkigu batetik zentsuek eta bestetik biztanleriaren estatistikek osatzen duten seriea guztiz homogenoa ote den EAerako. Horregatik, gaiaren lehen azterketa bat egin dugu. Horretarako, lehen urrats gisa EAeko zentsuetako hizkuntza-aldagaien emaitzak T.28., T.29. eta T.30. tauletan bildu ditugu, herrialdeka eta urtez urte.

T.28. TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, HERRIALDEKA. EAE, 1981-2021

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.
<b>EAE</b>									
<b>Guztira</b>	<b>2.081.461</b>	<b>2.089.995</b>	<b>2.068.927</b>	<b>2.062.525</b>	<b>2.033.247</b>	<b>2.072.541</b>	<b>2.119.586</b>	<b>2.122.895</b>	<b>2.163.121</b>
-Euskaldunak	448.156	513.804	543.617	636.816	656.980	774.894	789.439	895.942	936.812
-la-euskaldunak	300.885	364.162	410.536	406.810	470.124	458.939	541.562	391.897	412.996
-Erdaldunak	1.332.420	1.212.029	1.114.774	1.018.899	906.143	838.708	788.585	835.056	813.313
<b>Araba</b>									
<b>Guztira</b>	<b>249.792</b>	<b>261.228</b>	<b>267.557</b>	<b>277.011</b>	<b>279.460</b>	<b>297.569</b>	<b>311.624</b>	<b>314.744</b>	<b>325.197</b>
-Euskaldunak	9.693	17.422	22.995	40.479	45.312	74.593	74.383	89.823	100.874
-la-euskaldunak	23.797	43.999	53.581	54.366	68.907	67.092	81.299	61.930	67.179
-Erdaldunak	216.302	199.807	190.981	182.166	165.241	155.884	155.942	162.991	157.144
<b>Bizkaia</b>									
<b>Guztira</b>	<b>1.155.778</b>	<b>1.153.989</b>	<b>1.136.358</b>	<b>1.121.600</b>	<b>1.097.288</b>	<b>1.108.209</b>	<b>1.123.190</b>	<b>1.113.955</b>	<b>1.129.192</b>
-Euskaldunak	171.684	201.689	215.219	266.107	273.872	347.302	350.380	407.859	428.360
-la-euskaldunak	154.722	205.744	233.264	233.227	272.034	255.238	304.356	219.598	222.341
-Erdaldunak	829.372	746.556	687.875	622.266	551.382	505.669	468.454	486.498	478.491
<b>Gipuzkoa</b>									
<b>Guztira</b>	<b>675.891</b>	<b>674.778</b>	<b>665.012</b>	<b>663.914</b>	<b>656.499</b>	<b>666.763</b>	<b>684.772</b>	<b>694.196</b>	<b>708.732</b>
-Euskaldunak	266.779	294.693	305.403	330.230	337.796	352.999	364.676	398.260	407.578
-la-euskaldunak	122.366	114.419	123.691	119.217	129.183	136.609	155.907	110.369	123.476
-Erdaldunak	286.746	265.666	235.918	214.467	189.520	177.155	164.189	185.567	177.678
	<b>1981</b>	<b>1986</b>	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>2011</b>	<b>2016</b>	<b>2021</b>
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
<b>EAE</b>									
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
-Euskaldunak	21,5	24,6	26,3	30,9	32,3	37,4	37,2	42,2	43,3
-la-euskaldunak	14,5	17,4	19,8	19,7	23,1	22,1	25,6	18,5	19,1
-Erdaldunak	64,0	58,0	53,9	49,4	44,6	40,5	37,2	39,3	37,6
<b>Araba</b>									
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
-Euskaldunak	3,9	6,7	8,6	14,6	16,2	25,1	23,9	28,5	31,0
-la-euskaldunak	9,5	16,8	20,0	19,6	24,7	22,5	26,1	19,7	20,7
-Erdaldunak	86,6	76,5	71,4	65,8	59,1	52,4	50,0	51,8	48,3
<b>Bizkaia</b>									
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
-Euskaldunak	14,9	17,5	18,9	23,7	25,0	31,3	31,2	36,6	37,9
-la-euskaldunak	13,4	17,8	20,5	20,8	24,8	23,0	27,1	19,7	19,7
-Erdaldunak	71,8	64,7	60,5	55,5	50,2	45,6	41,7	43,7	42,4
<b>Gipuzkoa</b>									
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
-Euskaldunak	39,5	43,7	45,9	49,7	51,5	52,9	53,3	57,4	57,5
-la-euskaldunak	18,1	17,0	18,6	18,0	19,7	20,5	22,8	15,9	17,4
-Erdaldunak	42,4	39,4	35,5	32,3	28,9	26,6	24,0	26,7	25,1

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2021a)].

T.29. TAULA: LEHEN HIZKUNTZA, HERRIALDEKA. EAE, 1991-2021

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.
<b>EAE</b>							
<b>Guztira</b>	<b>2.104.041</b>	<b>2.098.055</b>	<b>2.082.587</b>	<b>2.129.339</b>	<b>2.179.815</b>	<b>2.176.577</b>	<b>2.193.199</b>
Euskara	431.806	425.524	415.623	413.452	408.561	400.438	390.973
Gaztelania	1565.853	1554.312	1543.259	1561.220	1572.038	1543.358	1534.029
Biak	75.325	84.182	87.012	99.084	117.073	137.311	153.795
Beste bat	31.057	34.037	36.693	55.583	82.143	95.470	114.402
<b>Araba</b>							
<b>Guztira</b>	<b>272.447</b>	<b>281.821</b>	<b>286.387</b>	<b>305.822</b>	<b>321.254</b>	<b>323.889</b>	<b>330.189</b>
Euskara	8.038	8.983	10.295	12.349	13.318	13.736	14.194
Gaztelania	257.243	263.347	263.902	274.009	280.468	276.650	276.444
Biak	4.321	6.086	6.661	8.660	11.446	14.897	17.122
Beste bat	2.845	3.405	5.529	10.804	16.022	18.606	22.429
<b>Bizkaia</b>							
<b>Guztira</b>	<b>1.155.106</b>	<b>1.140.026</b>	<b>1.122.637</b>	<b>1.136.852</b>	<b>1.153.351</b>	<b>1.140.569</b>	<b>1.144.123</b>
Euskara	159.961	155.229	150.416	149.551	146.946	141.611	137.851
Gaztelania	943.054	926.850	912.830	912.742	910.665	889.170	879.475
Biak	33.558	37.824	39.586	45.349	53.871	64.200	72.473
Beste bat	18.533	20.123	19.805	29.210	41.869	45.588	54.324
<b>Gipuzkoa</b>							
<b>Guztira</b>	<b>676.488</b>	<b>676.208</b>	<b>673.563</b>	<b>686.665</b>	<b>705.210</b>	<b>712.119</b>	<b>718.887</b>
Euskara	263.807	261.312	254.912	251.552	248.297	245.091	238.928
Gaztelania	365.556	364.115	366.527	374.469	380.905	377.538	378.110
Biak	37.446	40.272	40.765	45.075	51.756	58.214	64.200
Beste bat	9.679	10.509	11.359	15.569	24.252	31.276	37.649
	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>2011</b>	<b>2016</b>	<b>2021</b>
	%	%	%	%	%	%	%
<b>EAE</b>							
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	20,5	20,3	20,0	19,4	18,7	18,4	17,8
Gaztelania	74,4	74,1	74,1	73,3	72,1	70,9	69,9
Biak	3,6	4,0	4,2	4,7	5,4	6,3	7,0
Beste bat	1,5	1,6	1,8	2,6	3,8	4,4	5,2
<b>Araba</b>							
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	3,0	3,2	3,6	4,0	4,1	4,2	4,3
Gaztelania	94,4	93,4	92,1	89,6	87,3	85,4	83,7
Biak	1,6	2,2	2,3	2,8	3,6	4,6	5,2
Beste bat	1,0	1,2	1,9	3,5	5,0	5,7	6,8
<b>Bizkaia</b>							
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	13,8	13,6	13,4	13,2	12,7	12,4	12,0
Gaztelania	81,6	81,3	81,3	80,3	79,0	78,0	76,9
Biak	2,9	3,3	3,5	4,0	4,7	5,6	6,3
Beste bat	1,6	1,8	1,8	2,6	3,6	4,0	4,7
<b>Gipuzkoa</b>							
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	39,0	38,6	37,8	36,6	35,2	34,4	33,2
Gaztelania	54,0	53,8	54,4	54,5	54,0	53,0	52,6
Biak	5,5	6,0	6,1	6,6	7,3	8,2	8,9
Beste bat	1,4	1,6	1,7	2,3	3,4	4,4	5,2

[Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2021a)].

T.30. TAULA: ETXEKO HIZKUNTZA, HERRIALDEKA. EAE, 1991-2021


	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.
<b>EAE</b>							
<b>Guztira</b>	<b>2.104.041</b>	<b>2.098.055</b>	<b>2.082.587</b>	<b>2.129.339</b>	<b>2.179.815</b>	<b>2.176.577</b>	<b>2.193.199</b>
Euskara	290.329	286.092	284.084	277.277	298.622	307.636	288.382
Gaztelania	1.633.265	1.622.178	1.608.666	1.647.395	1.671.538	1.583.472	1.568.981
Biak	169.654	178.663	175.157	181.571	163.378	222.498	261.260
Beste bat	10.793	11.122	14.680	23.096	46.277	62.971	74.576
<b>Araba</b>							
<b>Guztira</b>	<b>272.447</b>	<b>281.821</b>	<b>286.387</b>	<b>305.822</b>	<b>321.254</b>	<b>323.889</b>	<b>330.189</b>
Euskara	3.616	4.295	5.504	6.886	10.044	9.168	9.507
Gaztelania	260.182	266.544	268.003	283.011	288.759	279.071	279.192
Biak	7.525	9.605	10.095	11.729	12.762	21.478	24.801
Beste bat	1.124	1.377	2.785	4.196	9.689	14.172	16.689
<b>Bizkaia</b>							
<b>Guztira</b>	<b>1.155.106</b>	<b>1.140.026</b>	<b>1.122.637</b>	<b>1.136.852</b>	<b>1.153.351</b>	<b>1.140.569</b>	<b>1.144.123</b>
Euskara	102.402	98.165	96.415	97.292	105.080	102.791	97.113
Gaztelania	976.683	960.168	947.816	955.692	955.323	910.127	896.395
Biak	69.818	75.403	70.882	71.356	70.304	100.369	117.378
Beste bat	6.203	6.290	7.524	12.512	22.644	27.282	33.237
<b>Gipuzkoa</b>							
<b>Guztira</b>	<b>676.488</b>	<b>676.208</b>	<b>673.563</b>	<b>686.665</b>	<b>705.210</b>	<b>712.119</b>	<b>718.887</b>
Euskara	184.311	183.632	182.165	173.099	183.498	195.677	181.762
Gaztelania	396.400	395.466	392.847	408.692	427.456	394.274	393.394
Biak	92.311	93.655	94.180	98.486	80.312	100.651	119.081
Beste bat	3.466	3.455	4.371	6.388	13.944	21.517	24.650
	<b>1991</b>	<b>1996</b>	<b>2001</b>	<b>2006</b>	<b>2011</b>	<b>2016</b>	<b>2021</b>
	%	%	%	%	%	%	%
<b>EAE</b>							
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	13,8	13,6	13,6	13,0	13,7	14,1	13,1
Gaztelania	77,6	77,3	77,2	77,4	76,7	72,8	71,5
Biak	8,1	8,5	8,4	8,5	7,5	10,2	11,9
Beste bat	0,5	0,5	0,7	1,1	2,1	2,9	3,4
<b>Araba</b>							
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	1,3	1,5	1,9	2,3	3,1	2,8	2,9
Gaztelania	95,5	94,6	93,6	92,5	89,9	86,2	84,6
Biak	2,8	3,4	3,5	3,8	4,0	6,6	7,5
Beste bat	0,4	0,5	1,0	1,4	3,0	4,4	5,1
<b>Bizkaia</b>							
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	8,9	8,6	8,6	8,6	9,1	9,0	8,5
Gaztelania	84,6	84,2	84,4	84,1	82,8	79,8	78,3
Biak	6,0	6,6	6,3	6,3	6,1	8,8	10,3
Beste bat	0,5	0,6	0,7	1,1	2,0	2,4	2,9
<b>Gipuzkoa</b>							
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Euskara	27,2	27,2	27,0	25,2	26,0	27,5	25,3
Gaztelania	58,6	58,5	58,3	59,5	60,6	55,4	54,7
Biak	13,6	13,9	14,0	14,3	11,4	14,1	16,6
Beste bat	0,5	0,5	0,6	0,9	2,0	3,0	3,4

[Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2021a)].



Azterketa sakonetan sartu gabe, agerikoa da hizkuntza-gaitasunari buruzko datuei erreparatua, datuek nolabaiteko ziklo-efektua erakusten dutela: 1en bukatzen diren urteak bost urte lehenagoko datuekin alderatuta, igoera apalak (edo jaitsierak ere bai zenbaitetan) islatzen dituzte datuek, eta 6an bukatzen diren urteetan igoera handiak. EAEko datu orokorrak hartu eta euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen duten ehunekoak islatuz, G.21. grafikoa sortu dugu. Bertan ikus daitekeenez, euskaldunen %aren bilakaerak eskailera moduko koska txikiak erakusten ditu sistematikoki, bost urtez behingo joera-aldaketa nabarmenarekin. Beste modu batera esanda: bi seriearen aurrean gaudela dirudi, 1ean bukatzen diren eta 6an bukatzen diren urteetako datuak hartuta.

**G.21. GRAFIKOA: EUSKALDUNEK HIZTUN GUZTIEKIKO OSATZEN DUTEN EHUNEKOA. EAE, 1981-2021 (%)**



Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* (EUSTAT, 2021a)].

Grafiko horiek agerian uzten dute EAEko hizkuntza-gaitasunari buruzko datuen ziklikotasuna.

Joera hori, gainera, are esanguratsuagoa izan daiteke hainbat lurralde-eremutan. Adibide ikusgarri bakar bat baliatuz, esku artean ditugun EUSTATEN datuen arabera, Araban euskaldunak 45.312 izatetik 74.593 izatera pasatu ziren 2001-2006 bosturtekoan (+%64,6ko hazkundea bost urtean); eta hurrengo bosturtekoan, berriz, 2006-2011n, euskaldunen kopurua ez zen ia aldatu (74.593tik 74.383ra besterik ez, -%0,3ko bilakaera), eta 2011-2016 bosturtekoan berriro ere indartsu egin zuen gora (74.383etik 89.823ra, +%20,8ko hazkundea). Esan beharrik ez dago ez errealitatean eta ezta beste iturri demolinguistikoetan ere, ez dagoela inolako zantzurik bi bosturteko horietan hain bilakaera ezberdina izan zenik pentsatzeko.

T.29. eta T.30. taulak azaletik aztertuta, ez dugu ziklikotasun-zantzu argirik aurkitu lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren bilakaera-datuetan, azken aldagai horretan

deigarria egin zaigun arren 2011-2016 bitarterako datuek erakusten duten aldaketa. Edonola ere, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak ikusita, pentsatzekoa da hizkuntzari buruzko galderen kalkulu eta inputazio-prozesuetan irizpide ezberdinak erabili izan direla 1en bukatzen diren urteetan eta 6n bukatzen direnetan.

Esandakoak esanda, argi dago esku artean dugun seriea ez dela guztiz homogenoa. Bi seriarekin lan egiteak gehiegi handituko lituzke lan honen neurria, eta, horregatik, bietako bat aukeratuko dugu datuen gaineko gure lanketa egiteko. Zein aukeratu, 1ean bukatzen diren zentsuen seriea edo 6an bukatzen diren biztanleria-estatistikena? Hegoalde osoko lurralde-estaldura ziurtatze aldera, 1ean bukatzen diren urteen seriea lantzea erabaki dugu ikerlan honetan, urte horietan Nafarroako informazioa ere izango dugulako (ikus atal teorikoaren T.5. taula). Salbuespen batekin: 1981. urtean Nafarroa Garaiko zentsuetan euskararen ezagutzari buruzko galderarik ez zen txertatu; 1986ko datuak hartuko ditugu eta EAeko 1981ekoekin batera landu.

#### 9.1.2.2. Landuko ditugun zentsuak eta datu-baseak

Esandakoak aintzat hartuta, berariaz zentsuetako datuak lantzerakoan, hots, zentsuetako informazioan oinarritzen diren adierazleak sortuko ditugunean, erabiliko ditugun iturriak eta landuko ditugun galderak T.31. taulan adierazten dira "X" baten bidez. Laburtuz, honako iturri hauek erabiliko ditugu:

- EAeko 1981eko zentsua (EUSTAT) eta Nafarroa Garaiko 1986ko Biztanleriaren estatistika (NASTAT).
- Hegoaldeko 1991ko zentsuak (EUSTAT eta NASTAT).
- Hegoaldeko 2001eko zentsuak (EUSTAT eta NASTAT).
- Hegoaldeko 2011ko zentsuak (EUSTAT eta NASTAT).

Horrela, bada, zentsuekin egingo dugun lanketa NASTATEk eta EUSTATEk ustiatzeko aukera eman diguten zortzi datu-fitxategiren lanketaren bidez gauzatuko dugu: EAeko 1981, 1991, 2001 eta 2011ko zentsuetakoak eta Nafarroako 1986, 1991, 2001 eta 2011koak. Gainerako eragiketak (EAeko 1986-1996-2006-2016ko estatistiken datuak eta Nafarroako 1996koa) ez ditugu aintzat hartuko berariaz zentsu-datuekin lan egiteko orduan.

T.31. **TAULA: USTIATUKO DITUGUN ETA USTIATUKO EZ DITUGUN ZENTSUAKE, ADMINISTRAZIO-EREMUKA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1981-2021<sup>166</sup>**

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
<b>Euskararen ezagutza (ulertu, hitz egin, irakurri, idatzi)</b>									
EAE	X	O	X	O	X	O	X	O	-
Nafarroa G.		X	X	O	X		X		-
<b>Lehen hizkuntza (edo ama-hizkuntza)</b>									
EAE		O	X	O	X	O	X	O	-
Nafarroa G.			X		X		X		-
<b>Etxeke erabilera</b>									
EAE			X	O	X	O	X	O	-
Nafarroa G.			X		X		X		-
<b>Esanahiak:</b>									
	X	Ustiatuko dugu		O	Ez dugu ustiatuko		-	Oraindik ez dago prest	

[Iturria](#): egileak landua.

[Oharra](#): EAEko 2021eko zentsuaren emaitzak argitaratu dira, Nafarroa Garaikoak ez. Ondorioz, ez dugu sistematikoki 2021eko zentsua landu. Hala ere, EAEko datu batzuk txertatuko ditugu ondorioen atalean.

Berariaz ez ezik, ordea, ikerlan honetan zentsuetako datuak gainerako eragiketen informazio osagarri gisa ere erabiliko dugu. Horrela, HEKN eta ISLko hainbat adierazle osatzeko, zentsuetako informazioa ere erabiliko dugu. Kasu horietan, urte guztietako datuetara joko dugu. Zehazki:

- HEKNren lanketan erregresioa lantzeko, zentsuez gain, EAEko 1996, 2006 eta 2016ko biztanleria-estatistikak eta Nafarroako 1996koa ere kontuan hartuko ditugu (azalpenak 10.2.3. puntuan).
- ISLren lanketa egiterakoan, aldagai aske gisa erabiliko dugu hiztunak bizi diren udalerrian hizkuntzak duen nagusitasuna, bertako etxeetan euskararen erabilera duen pisua aintzat hartuta. T.32. taulan azaltzen dugu zer-nolako iturri zehatza erabili dugun udalerrri bakoitzeko informazioa lantzeko eremu eta urte bakoitzerako.

<sup>166</sup> Lan hau bukatzen ari garela argitaratu ditu EUSTATEk 2021eko zentsuan euskarari buruz bildu dituzten emaitzak (zehazki, 2022ko urriaren 27an). Guk ez dugu landuko eragiketa horretako mikrodatuen fitxategia lan honetan, eta, hortaz, ez ditugu adierazleak metodologia-atal honetan sistematikoki berrituko. Ondorioen atalean, hala ere, datu eguneratu batzuk eskainiko ditugu 2021eko emaitzak aintzat hartuta.

**T.32. TAULA: ISL-N NAGUSITASUN-EREMUAK SORTZEKO ERABILIKO DITUGUN ZENTSUETAKO DATUEN JATORRIA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016**

	<b>EAE</b>	<b>Nafarroa Garaia</b>
<b>1991</b>	Dagokion zentsutik zuzenean	Dagokion zentsutik zuzenean
<b>1996</b>	Dagokion zentsutik zuzenean	Udalerri bakoitzean, aurreko eta ondorengo zentsuek ematen dituzten balioen batez bestekoa (1991 eta 2001eko erabileren %arena)
<b>2001</b>	Dagokion zentsutik zuzenean	Dagokion zentsutik zuzenean
<b>2006</b>	Udalerri bakoitzean, aurreko eta ondorengo zentsuek ematen dituzten balioen batez bestekoa (2001 eta 2011ko erabileren %arena)	Udalerri bakoitzean, aurreko eta ondorengo zentsuek ematen dituzten balioen batez bestekoa (2001 eta 2011ko erabileren %arena)
<b>2011</b>	Dagokion zentsutik zuzenean	Dagokion zentsutik zuzenean
<b>2016</b>	Udalerri bakoitzari aurreko zentsuko (2011) erabilera esleitura	Udalerri bakoitzari aurreko zentsuko (2011) erabilera esleitura

[Iturria: egileak landua.](#)

## **9.2. ZENTSUETATIK SORTUKO DITUGUN ADIERAZLEEN IKUSPEGI OROKORRA**

Ondorengo orrietan, zentsuan oinarrituta sortu ditugun 61 adierazleak aurkeztuko ditugu banan-banan. Guztien ikuspegi orokorra eskaintzen dugu T.33. taulan. Adierazle guztien kodeak eta izenburuak ikus daitezke bertan. Kodeei dagokienez, zentsuetatik eratorritako adierazle guztiak “HZ” hizkiekin hasiko dira (Hegoaldeko Zentsuetatik ateratako adierazleak direla erakusteko). Ondoren, zenbaki batek osatuko du kodea. Hiru adierazle mota landu ditugu, oinarrian duten informazioaren unitatea aintzat hartuta, eta bakoitzak bere kode-ibiltarrea izango du:

- Gizabanakoen ezaugarrietan oinarritzen diren adierazleek HZ-001 eta HZ-038 bitarteko kodeak hartuko dituzte. Gizabanako bakoitzari buruz zentsuan jaso diren hizkuntza-aldagaien arabera informazioa landuz sortuko ditugu adierazle horiek.
- Familien ezaugarrietan oinarritzen diren adierazleek HZ-101 eta HZ-110 bitarteko kodeak hartuko dituzte. Bigarren adierazle multzo horretan, etxebizitza bakoitzean bizi diren pertsonen ezaugarrien arabera adierazleak sortu ditugu.
- Hitzunak bizi diren edo jaio izan diren udalerrien ezaugarrietan oinarritzen diren adierazleek HZ-201 eta HZ-213 bitarteko kodeak hartuko dituzte. Hirugarren adierazle multzo horretan, udalerri bakoitzean bizi diren hitzunen ezaugarrien arabera adierazleak sortu ditugu.

Familiari buruzko eta udalerriei buruzko adierazleak, bestalde, gizabanako guztiei esleituko dizkiegu, hitun bakoitzari bera bizi deneko familiaren eta udalerraren ezaugarriak atxikita.

Has gaitezen, bada, adierazleak aurkezten.

T.33. TAULA: HEGOALDEKO ZENTSUETATIK SORTU DITUGUN ADIERAZLEEN ZERRENDA.

INFORMAZIO-UNITATEA	ARDATZA	ADIERAZLEAREN KODEA ETA IZENBURUA	ADIERAZLEARI BURUZKO AZALPENAK (Metodologia ataleko zein puntutan)
Gizabanakoen ezaugarrietan oinarritutako adierazleak	1-Hizkuntza-Gaitasuna	HZ-001: Euskarazko ahozko gaitasuna (HG)	9.3
		HZ-002: Euskarazko ahozko gaitasun laburtua	9.3
		HZ-003: Euskaldunen dentsitatea (HG%)	9.3
	5-Hizkuntza-sozializazioa	HZ-004: Lehen Hizkuntza (H1)	9.4
		HZ-005: Euskararen Pisua Lehen Hizkuntzan (H1%)	9.4
	2-Erabilera(k)	HZ-006: Etxeko erabilera (EE)	9.5
		HZ-007: Euskararen pisua etxeko erabileran (EE%)	9.5
	1-HG eta 5 Hizkuntza-sozializazioa	HZ-008: Gaitasuna, euskaldunak H1aren arabera bereizita	9.6
	6-Hizkuntza-bilakaera	HZ-009: Erabileraazko hizkuntza-bilakaera xehea	9.6.3.2
		HZ-010: Jardunaren hizkuntza-bilakaera	9.6.3.3
		HZ-011: Euskara eta gaztelaniaren arteko irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia	9.6.3.4
		HZ-012: Euskara eta beste hizkuntzen arteko irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia	9.6.3.4
		HZ-013: Gaztelaniaren eta beste hizkuntzen arteko irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia	9.6.3.4
		HZ-014: Euskararen irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia	9.6.3.5
		HZ-015: Gaztelaniaren irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia	9.6.3.5
		HZ-016: Beste hizkuntzen multzoaren irabazi-galerak eta ordezkapen saldo	9.6.3.5
		HZ-017: Euskararen euste-indarra H1 euskara izan dutenen artean (%)	9.6.3.6
		HZ-018: Euskararen euste-indarra H1 euskara eta gaztelania izan dituztenen artean (%)	9.6.3.6
		HZ-019: Euskararen euste-indar orokorra (%)	9.6.3.6
		HZ-020: Gaztelaniaren euste-indarra H1 gaztelania izan dutenen artean (%)	9.6.3.6
		HZ-021: Gaztelaniaren euste-indarra H1 euskara eta gaztelania izan dituztenen artean (%)	9.6.3.6
		HZ-022: Gaztelaniaren euste-indar orokorra (%)	9.6.3.6
		HZ-023: Beste hizkuntzen euste-indarra H1 beste hizkuntzak izan dituztenen artean (%)	9.6.3.6
		HZ-024: Euskararen erakarpen-indarra H1 gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)	9.6.3.7
		HZ-025: Euskararen erakarpen-indarra H1 euskara eta gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)	9.6.3.7
		HZ-026: Euskararen erakarpen-indarra H1 beste hizkuntzaren bat izan duten hiztunen multzoan (%)	9.6.3.7
		HZ-027: Euskararen erakarpen-indar orokorra (%)	9.6.3.7
		HZ-028: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 euskara izan duten hiztunen multzoan (%)	9.6.3.7
		HZ-029: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 euskara eta gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)	9.6.3.7
		HZ-030: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 beste hizkuntza bat izan duten hiztunen multzoan (%)	9.6.3.7
		HZ-031: Gaztelaniaren erakarpen-indar orokorra (%).	9.6.3.7
		HZ-032: Beste hizkuntzen erakarpen-indarra H1 euskara edo gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)	9.6.3.7
		HZ-033: Euskararen jarraitutasun eta erakarpenaren balantzea	9.6.3.8
		HZ-034: Gaztelaniaren jarraitutasun eta erakarpenaren balantzea	9.6.3.8
		HZ-035: Beste hizkuntzen jarraitutasun eta erakarpenaren balantzea	9.6.3.8
		HZ-036: Euskararen bizi-indarraren indizea	9.6.3.9
		HZ-037: Gaztelaniaren bizi-indarraren indizea	9.6.3.9
		HZ-038: Beste hizkuntzen bizi-indarraren indizea	9.6.3.9

INFORMAZIO-UNITATEA	ARDATZA	ADIERAZLEAREN KODEA ETA IZENBURUA	ADIERAZLEARI BURUZKO AZALPENAK (Metodologia ataleko zein puntutan)
Familien ezaugarrietan oinarritutako adierazleak	4-Testuinguru demolingüistikoa	HZ-101: Etxeen osaera, euskaraz dakitenek duten pisuaren arabera (%)	9.7.2
		HZ-102: Etxeen osaera, euskaraz dakitenek duten pisuaren arabera (multzotan)	9.7.2
		HZ-103: Etxe eskaldunetako helduen artean eskaldun zaharren dentsitatea (%)	9.7.3
		HZ-104: Etxe eskaldunetako helduen artean eskaldun zaharren dentsitatea, multzotan	9.7.3
		HZ-105: Etxeen osaera, etxeko en hizkuntza-gaitasuna eta helduen lehen hizkuntza aintzat hartuta	9.7.4
		HZ-106: Etxekoek etxean batez-beste erabiltzen duten euskara (%)	9.7.5
		HZ-107: Etxekoek etxean batez-beste erabiltzen duten euskara (5 multzo orekatuta)	9.7.5
		HZ-108: Etxekoek etxean batez-beste erabiltzen duten euskara (muturreko egoerak aztertzea ahalbidezen diguten 5 multzotan)	9.7.5
		HZ-109: Etxeko helduen artean, heldu horiek jaio ziren garai/udalerrian haur txikiak erabileran euskarak izan zuen batez-beste pisua (%)	9.7.6
		HZ-110: Etxeko helduen artean, heldu horiek jaio ziren garai/udalerrian haur txikiak erabileran euskarak izan zuen pisua (multzotan)	9.7.6
		Udalerrien ezaugarrietan oinarritutako adierazleak	4-Testuinguru demolingüistikoa
HZ-202: Hitzuna bizi den udalerrian eskaldunek duten pisuaren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)	9.8.2.1		
HZ-203: Hitzuna bizi den udalerrian eskaldunek duten pisua B (5 multzotan), gune soziolingüistikoak	9.8.2.1		
HZ-204: Hitzuna bizi den udalerriko hitzunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua (%)	9.8.2.2		
HZ-205: Hitzuna bizi den udalerriko hitzunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisuaren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)	9.8.2.2		
HZ-206: Hitzuna bizi den udalerriko hitzunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua B (5 multzotan)	9.8.2.2		
HZ-207: Hitzuna bizi den udalerriko etxeko erabileran euskarak duen pisua (%)	9.8.2.3		
HZ-208: Udalerriko etxeko erabileraren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)	9.8.2.3		
HZ-209: Etxeko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak (5 multzotan)	9.8.2.3		
HZ-210: Hitzunen jaiotza-garaian/udalerrian jaio ziren haurren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua (%)	9.8.3		
HZ-211: Hitzunen jaiotza-garaian/udalerrian jaio ziren haurren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisuaren arabera multzokatze xehea	9.8.3		
HZ-212: Hitzunen jaiotza-garaiko/udalerriko haurren lehen hizkuntzaren arabera nagusitasun-eremuak (bosturtekoa)	9.8.3		
HZ-213: Hegoaldeko udalerriak, euskarak XX. mende hasieran izan zezakeen bizindarraren arabera bi multzotan bereizita	9.8.4		

[Iturria](#): egileak landua.

### 9.3. HIZKUNTZA-GAITASUNARI BURUZKOAK

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabiler(a)(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguitikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

#### 9.3.1. Gaitasunari buruz zentsuek ematen duten informazioaren mugak eta gure lanketaren helburuak

Atal teorikoaren 5.1.1.1. puntuan azaldu bezala, zentsuetan euskarazko lau trebetasuni buruz galdetzen da lau galdera laburren bidez, eta hitzunek euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko duten gaitasunari buruzko informazioa biltzen da. Aitzitik, ez dute galdetzen gaztelaniazko edo beste ezein hizkuntzatako gaitasunaz eta ez dute galdetzen gaitasun erlatiboaz ere (hots, euskaraz edo erdaraz zein hizkuntzatan moldatzen diren errazago). Horrek ondorio zuzenak izango ditu zentsuetan oinarrituta hizkuntza-gaitasunari buruz sortu ahal izango ditugun adierazleetan eta adierazle horietan hitzunik sailkatzeko eraiki ahal izango ditugun multzoetan. Labur esanda, jatorrizko lehengaia hori izanik, zentsuetako datuek errealitatea ezagutzeko aukera mugatuagoak eskainiko dizkigute, nabarmen, Inkesta Soziolinguitikoko datuek baino. Izan ere, zentsuetako jatorrizko datuek euskaraz ondo ez dakiten hiztunen azpimultzo adierazgarriak eratzeko modua emango digute; ez digute aukerarik emango, ordea, euskaraz badakiten hiztunen artean gaitasunaren araberako inolako mailakatzerik egiteko (hori ISL bidez soilik egin ahal izango dugu).

Horrela, bada, hizkuntza-gaitasunaren araberako hiztunen banaketa zein den jakin nahi bada, ISLtik sortzen den “ISL-001: Ahozko hizkuntza-gaitasuna” adierazlea aberatsagoa eta zehatzagoa izango da zentsuetatik abiatuta sortuko ditugun adierazleak baino. Alabaina, zentsua ISLk bete ez ditzakeen bi alderdiren inguruko informazioa eskuratzeko iturri bakarra izango da: Hegoaldeko 16 urtetik beherako hiztunen euskararen ezagutzaren berri izateko batetik, eta ezagutza-datuak lurralde-eremuka xehe lortzeko bestetik (eskualdeka edo udalerrika, adibidez). Horiek horrela, bi helburu metodologiko hauek jarri dizkiogu geure buruari gaitasunaren gaia zentsuetatik lantzeko orduan:



- ❖ *Zentsuetan euskarazko ahozko gaitasunari buruz jasotzen den informaziotik abiatuta, adierazle berri bat sortzea, euskaraz ondo hitz egiten ez dakiten hiztunen euskarazko maila ahalik eta era xeheenean erakutsiz.*
- ❖ *Zentsuetatik sortuko dugun adierazle horrek gaitasunari buruzko gainerako sailkapenekiko zer-nolako alderagarritasuna duen aztertzea eta dokumentatua uztea, honako adierazle hauek gutxienez aintzat hartuz: ISLn oinarritutakoa, EUSTAT eta NASTATEk erabili ohi dutena eta Mapa Soziolinguistikoetakoa.*

### 9.3.2. 'Euskarazko ahozko gaitasuna' adierazlearen oinarritzko definizioa

5.1.1.1. puntuan aurkeztu dugun bezala, bi galderaren bidez jasotzen da zentsuetan euskarazko ahozko gaitasunaren berri, ulertzeko eta hitz egiteko gaitasunari buruz galdetuta hain zuzen<sup>167</sup>. Galdera bakoitzak hiru erantzun-aukera eskaintzen dituenez, bederatzi konbinazio posible daude bi galderari emandako erantzunetan (ikus T.34. taula).

T.34. **TAULA: EUSKARA ULERTZEKO ETA HITZ EGITEKO GAITASUNAREN ERANTZUN-AUKEREN GURUTZAKETA. HEGOALDEKO ZENTSUAUK.**

		ULERTU		
		Ongi	Nekez	Ezer ez
HITZ EGIN	Ongi	Ulertu ongi; hitz egin ongi	Ulertu nekez; hitz egin ongi	Ulertu ezer ez; hitz egin ongi
	Nekez	Ulertu ongi; hitz egin nekez	Ulertu nekez; hitz egin nekez	Ulertu ezer ez; hitz egin nekez
	Ezer ez	Ulertu ongi; hitz egin ezer ez	Ulertu nekez; hitz egin ezer ez	Ulertu ezer ez; hitz egin ezer ez

*Iturria:* egileak landua.

Hortik abiatuta, zentzua duten (hizkuntza-gaitasunaren egoera erreal bati erantzuten dioten) bost sailak hartu ditugu oinarritzat (T.34. taulan urdinez margotu ditugun horiek) **HZ-001: Euskarazko ahozko gaitasuna (HG)** adierazlea sortzeko, eta bost sail horiek euskarazko gaitasun handienetik txikienerako hurrenkeran jarri ditugu eta honela izendatu:

- Euskara ongi ulertzen dute eta ongi hitz egiten dute > **Euskaldunak.**
- Euskara ongi ulertzen dute, nekez hitz egin > **Erdaldun hartzaileak.**

<sup>167</sup> Irakurtzeko eta idazteko gaitasunaren berri ere zehatz jaso izan da zentsuetan. Guk ez dugu landuko informazio hori lan honetan.

- Euskara nekez ulertzen dute, nekez hitz egin > **Erdaldun elebakarrak I (euskaraz nekez ulertzen dute eta nekez hitz egin)**<sup>168</sup>.
- Euskara nekez ulertzen dute, hitz egin ezer ez > **Erdaldun elebakarrak II (euskara nekez ulertzen dute, ez dute ezer hitz egiten).**
- Euskara ez dute ezer ulertzen eta ezta hitz egiten ere > **Erdaldun elebakarrak III (ez dute ezer ulertzen).**

### 9.3.3. Sailkapen osoaren bila

Landu ditugun zentsuen datu-baseetako erregistro ia guztiak bost kategorian horietan biltzen dira, hiztun guztien %99 baino gehiago azertu diren zentsu guztietarako (ikus T.35. taula). Baina hiztunen sailkapen osoa bilatuz, mikrodatuetan aurkitu ditugun gainerako sailak aurrekoetara bildu ditugu, T.36. taulan azaltzen diren irizpideekin. Irizpide horietan oinarrituta, T.37. taulan, azkenik, bi galderari emandako erantzun posible guztiak gure bost kategorian horietara nola bildu ditugun erakusten dugu.

---

<sup>168</sup> Zalantzak izan ditugu multzo honen izendapenarekin. Literatura espezializatuan “*bilingue incipiente*” deitu izan denarekin zerikusia izan lezake (Boix eta Vila, 1998: 222), baina gure multzoko hiztunek ez dute nahitaez zertan bat egin terminoak duen norabide-zentzuarekin (berez multzo horretan egon daitezke bai hizkuntza ikasten ari direnak baina baita ahazten ari direnak ere).

T.35. TAULA: EUSKARA ULERTZEKO ETA HITZ EGITEKO GAITASUNEAN ZENTSUETAN AGERI DIREN KONBINAZIOEN AZTERKETA. EAE ETA NAFARROAKO HIZTUNAK, 1981-2011

	1981 (*)	1991	2001	2011
<b>EAE</b>				
Ulertu ongi; Hitz egin ongi	447.776	543.617	656.980	788.437
Ulertu ongi; Hitz egin nekez	30.587	54.119	90.781	108.268
Ulertu nekez; Hitz egin nekez	213.726	282.767	290.495	301.799
Ulertu nekez; Hitz egin ezer ez	52.829	68.927	89.463	136.855
Ulertu ezer ez; Hitz egin ezer ez	1.325.655	1.116.608	912.246	782.747
<i>Ulertu ongi; Hitz egin ezer ez</i>	3.252	5.542	7.662	9.794
<i>Ulertu nekez; Hitz egin ongi</i>	723	-	-	5
<i>Ulertu ezer ez; Hitz egin nekez</i>	1.900	-	-	9.358
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.076.448</b>	<b>2.071.580</b>	<b>2.047.627</b>	<b>2.137.263</b>
<b>Nafarroa Garaia</b>				
Ulertu ongi; Hitz egin ongi	50.874	52.023	65.119	85.860
Ulertu ongi; Hitz egin nekez	3.569	3.766	5.199	10.452
Ulertu nekez; Hitz egin nekez	16.144	16.896	40.089	55.804
Ulertu nekez; Hitz egin ezer ez	5.329	6.927	2.018	22.653
Ulertu ezer ez; Hitz egin ezer ez	422.156	420.431	424.564	435.756
<i>Ulertu ongi; Hitz egin ezer ez</i>	738	2.987	-	-
<i>Ulertu nekez; Hitz egin ongi</i>	-	-	-	-
<i>Ulertu ezer ez; Hitz egin nekez</i>	-	-	-	-
<b>GUZTIAK</b>	<b>498.810</b>	<b>503.030</b>	<b>536.989</b>	<b>610.525</b>
<b>Hego Euskal Herria</b>				
Ulertu ongi; Hitz egin ongi	498.650	595.640	722.099	874.297
Ulertu ongi; Hitz egin nekez	34.156	57.885	95.980	118.720
Ulertu nekez; Hitz egin nekez	229.870	299.663	330.584	357.603
Ulertu nekez; Hitz egin ezer ez	58.158	75.854	91.481	159.508
Ulertu ezer ez; Hitz egin ezer ez	1.747.811	1.537.039	1.336.810	1.218.503
<i>Ulertu ongi; Hitz egin ezer ez</i>	3.990	8.529	7.662	9.794
<i>Ulertu nekez; Hitz egin ongi</i>	723	-	-	5
<i>Ulertu ezer ez; Hitz egin nekez</i>	1.900	-	-	9.358
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.575.258</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.788</b>
<b>Kategoria arraro edo ezinezkoen batura</b>				
EAE	5.875	5.542	7.662	19.157
Nafarroa Garaia	738	2.987	-	-
Hego Euskal Herria	6.613	8.529	7.662	19.157
<b>Kategoria arraro edo ezinezkoek kasu guztiekiko osatzen duten ehunekoa (%)</b>				
EAE	0,3	0,3	0,4	0,9
Nafarroa Garaia	0,1	0,6	0,0	0,0
Hego Euskal Herria	0,3	0,3	0,3	0,7

[Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

T.36. **TAULA: SAIL ARRAROAK EDO ZALANTZAGARRIAK ZEIN MULTZOTARA BILDUKO DITUGUN ARGUDIATZEA**

ERANTZUNAK		Zein sailera bilduko dugun	Sail horretara biltzeko argudiatzea
ULERTU	HITZ EGIN		
Ongi	Ezer ez	Erdaldun elebakarrak I	Bi erantzun horiek eman dituzten hiztunek, ziur aski ez dute hain ongi ulertuko edo ez dute hain gutxi hitz egingo, talderen batetik hurbil egotekotan "nekez ulertu-nekez hitz egin" taldetik egon daitezkeela pentsa daiteke. Horregatik erdaldun elebakarren I. multzora bildu ditugu.
Nekez	Ongi	Erdaldun hartzaileak	Berez, logikaz existitzen ez den taldea dugu. Nonbaitetik hurbil izatekotan, ongi ulertu eta nekez hitz egiten dutenetatik egon daitezkeela pentsa daiteke, horietara bildu ditugu.
Ezer ez	Nekez	Erdaldun elebakarrak II	Berez, logikaz existitzen ez den taldea dugu. Nonbaitetik hurbil izatekotan, ulertu nekez eta hitz egin bat ere egiten ez dutenetatik egon daitezkeela pentsa daitekeenez, horietara bildu ditugu.

Iturria: egileak landua.

T.37. **TAULA: EUSKARA ULERTZEKO ETA HITZ EGITEKO DUTEN GAITASUNAZ EMANDAKO ERANTZUNETAN AURKITU DITUGUN KONBINAZIOAK ETA HORIEK NOLA BILDU DITUGUN 'AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA' ADIERAZLE BERRIAN**

		ULERTU		
		Ongi	Nekez	Ezer ez
HITZ EGIN	Ongi	<u>Euskaldunak</u>	<i>Erdaldun hartzaileak</i>	
	Nekez	<u>Erdaldun hartzaileak</u>	<u>Erdaldun elebakarrak I</u>	<i>Erdaldun elebakarrak II</i>
	Ezer ez	<i>Erdaldun elebakarrak I</i>	<u>Erdaldun elebakarrak II</u>	<u>Erdaldun elebakarrak III</u>

Iturria: egileak landua.

### 9.3.4. Bi adierazle osagarri gaitasunaz

Ahozko gaitasunaren sailkapen horrekin arituko gara zentsuko datuak lantzerakoan. Sailkapen horretatik abiatuta, **HZ-002: Euskarazko ahozko gaitasun laburtua** adierazlea sortu dugu, aurreko kategoriak honako hiru multzo nagusi hauetara bilduta:

- **Euskaldunak**
- **Erdaldun hartzaileak**
- **Erdaldun elebakarrak** (elebakarren I, II eta III multzoen batura)

Adierazle horretatik abiatuta, bestalde, eremu batean euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen duten ehunekoa islatuz, **HZ-003: Euskaldunen dentsitatea (HG%)** adierazlea sortu dugun, honako formula hau aplikatuta:

$$\text{Euskaldunen dentsitatea}(\%) = \frac{100 * \text{Euskaldunak}}{\text{Hiztunak}}$$

Zentsuetatik hizkuntza-gaitasunari buruz landu ditugun adierazleek 1981-2011 tarterako Hegoaldean hartzen dituzten balioak T.38. taulan aurkezten dira.

**T.38. TAULA: EUSKARAZKO AHOZKO GAITASUNA. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1991-2011**

	1981 (*)	1991	2001	2011	1981 (*)	1991	2001	2011
	(kop)	(kop)	(kop)	(kop)	(%)	(%)	(%)	(%)
<b>HZ-001 Euskarazko ahozko gaitasuna (HG)</b>								
Euskaldunak	498.650	595.640	722.099	874.297	19,4	23,1	27,9	31,8
Erdaldun hartzaileak	34.879	57.885	95.980	118.725	1,4	2,2	3,7	4,3
Erdaldun elebakarrak I (euskaraz nekez hitz egiten dute)	233.860	308.192	338.246	367.397	9,1	12,0	13,1	13,4
Erdaldun elebakarrak II (euskara nekez ulertzen dute)	60.058	75.854	91.481	168.866	2,3	2,9	3,5	6,1
Erdaldun elebakarrak III (ez dute euskararik ulertzen)	1.747.811	1.537.039	1.336.810	1.218.503	67,9	59,7	51,7	44,3
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.575.258</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.788</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-002 Euskarazko ahozko gaitasun laburtua (HG3)</b>								
Euskaldunak	498.650	595.640	722.099	874.297	19,4	23,1	27,9	31,8
Erdaldun hartzaileak	34.879	57.885	95.980	118.725	1,4	2,2	3,7	4,3
Erdaldun elebakarrak	2.041.729	1.921.085	1.766.537	1.754.766	79,3	74,6	68,3	63,9
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.575.258</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.788</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-003 Euskaldunen dentsitatea (HG%)</b>					19,4	23,1	27,9	31,8

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitzategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 9.3.5. Hizkuntza-gaitasunari buruzko sailkapenen alderaketa

Argitu dezagun, lehenbizi, zentsuetatik abiatuta sortu dugun *HZ-001: euskarazko ahozko gaitasuna* adierazlea ez datorrela guztiz bat ISLn oinarrituta eraiki eta 11.2. puntuan aurkeztuko dugun *ISL-001: Ahozko hizkuntza-gaitasuna* adierazlearekin, nahiz eta bi sailkapenak alderagarriak izan, T.39. taulako alderaketan ikus daitekeen bezala<sup>169</sup>. Bien arteko alde nagusia honako hau da: ISLko sailkapena osoagoa eta aberatsagoa da, zalantzarik gabe, zentsuetatik sortu duguna baino. Zentsuetan oinarritutako sailkapenak hiztunen alor erdaldunagoak xehetasun handiz aztertzeo aukera eskaintzen digun arren, mugatua eta kamutsa da euskaldunen barruko hizkuntza-gaitasunean dauden aldeak aztertu nahi ditugunerako.

<sup>169</sup> Zentsuetako eta ISLko jatorrizko galdera-erantzunak era ezberdinean formulatuta daudenez, egiten dugun alderaketa ez da perfektua. Dena den, gutxi gorabeherako parekidetasuna erakusten digu adierazleen kategorietan.

**T.39. TAULA: AHOZKO GAITASUNERAKO SORTU DITUGUN ADIERAZLEAK ISL-N ETA ZENTSUETAN. KATEGORIEN ALDERAGARRITASUNA.**

ISL-001: Ahozko hizkuntza-gaitasuna	HZ-001: Euskarazko ahozko gaitasuna	HZ-002: Euskarazko ahozko gaitasun laburtua
Euskaldun elebakarrak	Euskaldunak (euskara ongi ulertzen eta hitz egiten dute)	Euskaldunak
Euskaldun hartzaileak		
Euskal elebidunak		
Nagusitasunik gabeko elebidunak		
Erdal elebidunak		
Erdaldun hartzaileak	Erdaldun hartzaileak (euskara ongi ulertzen dute, eta nekez hitz egin)	Erdaldun hartzaileak
Erdaldun elebakarrak	Erdaldun elebakarrak I (nekez ulertzen dute eta nekez hitz egin)	Erdaldun elebakarrak
	Erdaldun elebakarrak II (nekez ulertzen dute, hitz egin bat ere ez)	
	Erdaldunak elebakarrak III (ez dute ezer ere ulertzen)	

[Iturria](#): egileak landua.

Argitu dezagun, bestalde, gure sailkapen hauetako kategoriak bateragarriak direla EUSTATEk eta NASTATEk landu dituzten sailkapenekin batetik, eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eta Euskarabideak Mapa Soziolinguistikoetan erabilitakoekin bestetik (Kultura Saila, 1997; EUSTAT eta Kultura Saila, 1998; EUSTAT eta Kultura Saila, 1999; Kultura Saila, 2005; Kultura Saila, 2009; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020)<sup>[10]</sup>. T.40. taulan ikus daitekeen bezala, hiru sailkapenak bat datoz hiztunak sailkatzeko erabili diren kategoria kopuruan: hiru multzotara jotzen dute aipatu sailkapenek. Bat datoz hirurak, halaber, euskaldunen multzoa zehazterakoan: kasu guztietan, euskaraz ondo hitz egiteko (eta ulertzeko) gai diren hiztunak jotzen dira euskalduntzat. Aldeak daude, ordea, beste bi multzoen definizioan:

- Guk landu dugun HZ-001 adierazlean, elebidun hartzaileen multzoa finkatzerakoan, zorrotz heldu diogu teoriaren mailan gaiaren inguruan esaten denari (Baetens, 1989: 35-38; Boix eta Vila, 1998: 211; Ruiz et al., 2001: 54; Moreno, 2009: 211; Coyos, 2010: 142; UZEI, 2010: 58). Hiztegi soziolinguistikoak ondo laburtzen du ikuspegi teorikoak hiztun multzo horri ematen dion esanahia: “Euskaraz nekez hitz egin edo hitz egin ez arren, ondo ulertu edo irakurtzen duen pertsona” (UZEI, 2010: 58). Guk adiera estandar hori eman diogu terminoari eta euskaraz ongi ulertzen dutenak izendatu ditugu elebidun hartzaile, eta euskara ondo ulertzen ez duten hiztun guztiak erdaldun elebakar gisa sailkatu ditugu. Hori bai, elebakarren artean hiru azpimultzo eraiki ditugu, elebidun hartzaile izatera iristen ez diren hiztun horien euskararen ezagutza-mailaren arabera.

- Mapa Soziolinguistikoetan, elebidun hartzaileen izendapenaren azpian biltzen dituzte, euskara ongi ulertzen duten hitzunez gain, baita “nekez” ulertzen dutenak ere, baldin eta “nekez” hitz egiteko gai baldin badira.
- EUSTAT eta NASTATEk, azkenik, darabiltzate irizpiderik malguenak, eta “ia-euskaldunen” multzora biltzen dituzte, elebidun hartzaileak ez ezik, baita nekez hitz egiten eta ulertzen duten hitzunak eta nekez ulertzen dutenak ere.

Horrek guztiak, jakina, pisuzko ondorioak ditu emaitzetan. Hegoaldeko 2 urtetik gorako 2011ko datuak aztertuta, adibidez:

- “Erdaldun hartzaileak” 118.725 dira HZ-001 adierazlearen arabera.
- “Elebidun hartzaileak” 486.122 dira Mapa Soziolinguistikoko irizpideen arabera.
- “Ia-euskaldunak” 654.988 dira.

Tarteko multzoari ez ezik, erdaldunen multzoari ere eragingo dio multzoen eraketak. Erdaldunak 1.754.766 izango dira HZ-001 adierazlearen arabera, 1.387.369 Mapa Soziolinguistikoetako irizpidearen arabera eta 1.218.503 EUSTAT eta NASTATen arabera.

**T.40. TAULA: ZENTSUETATIK AHOZKO GAITASUNERAKO SORTZEN DIREN ADIERAZLEAK: GUK LANDUAK, ERAKUNDE ESTATISTIKOENA ETA MAPA SOZIOLINGUISTIKOETAKOA. KATEGORIEN ALDERAGARRITASUNA.**

HZ-001: Euskarazko ahozko gaitasuna	HZ-002: Euskarazko ahozko gaitasun laburtua	Hizkuntza-gaitasuna (HPS: Mapa soziolinguistikoa 2011, zentsuetan oinarrituta)	Euskara-maila orokorra (EUSTAT)
Euskaldunak (euskara ongi ulertzen eta hitz egiten dute)	Euskaldunak	Elebidunak	Euskaldunak
Erdaldun hartzaileak (euskara ongi ulertzen dute, eta nekez hitz egin)	Erdaldun hartzaileak	Elebidun hartzaileak	Ia-euskaldunak
Erdaldun elebakarrak I (nekez ulertzen dute eta nekez hitz egin)	Erdaldun elebakarrak		
Erdaldun elebakarrak II (nekez ulertzen dute, hitz egin bat ere ez)		Erdaldunak	Erdaldunak
Erdaldunak elebakarrak III (ez dute ezer ere ulertzen)			

Iturria: egileak landua (EUSTAT, d.g.a; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014: 19).

## 9.4. LEHEN HIZKUNTZAREN INGURUKOAK

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguitikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

5.5.1. puntuak aurkeztu dugun galderaren bidez, hiztunak haur zirenean (0 eta 3 urte bitartean) zein hizkuntza erabili zuten jaso izan dute Hegoaldeko zentsuek (1986tik aurrera EAEn eta 1991tik aurrera Nafarroa Garaian), “ama hizkuntza” izendapenez lehenik eta “lehen hizkuntza” izendatuta ondoren. Aldagai horrek, era berean, zeharka bada ere, haurrari bere inguru hurbileko pertsonak zein hizkuntzatan hitz egiten zioten ere adierazten du (familiako eta etxeke kideek nagusiki, baina ez bakarrik).

Aldagai hori bere horretan erabiliko dugu hainbatetan **HZ-004: Lehen Hizkuntza (H1)** izendapenarekin. Hortik abiatuta, bestalde, honako metodologia-helburu hau landuko dugu orain:

- ***Lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisua tasa baten bidez kalkulatzeko moduko adierazlea sortzea, tasa esleituen irizpidea erabilita.***

Lehen hizkuntzaren aldagaitik abiatuta, beraz, **HZ-005: Euskararen Pisua Lehen Hizkuntzan (H1%)** adierazle kuantitatiboa sortu dugu. Hitztunek 0-3 urte zituzten garaian jardun arruntean euskarak zenbateko pisua izan zuen adieraziko digu adierazle horrek (ehunekotan). Adierazle kuantitatibo hori sortzeko, honako balio hauek atxikiko dizkiogu galdera honi emandako erantzun posibleei, tasa esleituen logikari jarraituta: “*Zein hizkuntza erabili zuen lehen aldiz (hiru urte bete arte)?*”:

- *Euskara* > %100
- *Biak* > %50
- *Gaztelania* > %0
- *Beste bat* > %0

Hiztun multzoen lehen hizkuntza zenbaki bakarrean adierazteko (udalerrri bateko hiztunena edo adin tarte bateko hiztunena, adibidez), multzo horretako gizabanakoek aurreko adierazlean hartzen dituzten balioen batez bestekoak erabiliko ditugu. Datu hori bera lortuko genuke, bestalde, lehen hizkuntzaren jatorrizko aldagaiaren maiztasunetara jo eta kategoria bakoitzak osatzen duen ehunekoak aintzat hartu eta honako formula hau aplikatuta:



$$\text{Euskararen pisua lehen hizkuntzan \%} = \text{Euskara\%} + 0,5 * \text{Biak\%}$$

Zentsuetatik lehen hizkuntzari buruz landu diren adierazleek 1991-2011 tarterako Hegoaldean hartzen dituzten balioak T.41. taulan aurkezten dira.

T.41. TAULA: LEHEN HIZKUNTZA. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1991-2011

	1991 (kop)	2001 (kop)	2011 (kop)	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)
<b>HZ-004 Lehen hizkuntza (H1)</b>						
Euskara	464.172	445.136	436.655	18,0	17,2	15,9
Euskara eta gaztelania	82.011	94.024	136.149	3,2	3,6	5,0
Gaztelania	1.993.748	1.998.205	2.051.872	77,4	77,3	74,7
Beste hizkuntza bat	34.679	47.251	118.468	1,3	1,8	4,3
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.788</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-005-Euskararen Pisua Lehen Hizkuntzan (H1%)</b>				19,6	19,0	18,4

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

## 9.5. ETXEKO ERABILERAREN INGURUKOAK

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabiler(a)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

Erabilerarena da landuko ditugun hiru iturriek elkarrekin aztertzen duten gai bakarra, Hegoaldeko Zentsuak, HEKNk eta ISLk alegia. Hegoaldeko Zentsuetan, hiztunek etxean erabiltzen duten hizkuntzaren berri jaso izan dute 1991. urtetik aurrera, 5.2.1.1. puntuan aurkeztu dugun galderaren bidez. Aldagai hori bere horretan erabiliko dugu, **HZ-006: Etxeko erabileraren (EE)** izendapenarekin. Hortik abiatuta, honako metodologia-helburu hau landuko dugu orain:

❖ ***Etxeko erabileraren euskarak izan duen pisua tasa baten bidez kalkulatzeko moduko adierazlea sortzea, tasa esleitzen irizpidea erabilia.***

Horretarako, aurreko aldagaitik abiatuta, **HZ-007: Euskararen pisua etxeko erabileraren (EE%)** adierazle kuantitatiboa sortu dugu. Zeregin horretan, honako balio

hauek atxikiko dizkiogu galdera honi emandako erantzun posibleei tasa esleituen logikari jarraituta: “Zein hizkuntza erabiltzen du gehien etxean?”:

- *Euskara* > %100
- *Biak* > %50
- *Gaztelania* > %0
- *Beste bat* > %0

Hiztun multzoen etxeko erabilera zenbaki bakarrean adierazteko (udalerrri bateko hiztunena edo adin tarte bateko hiztunena, adibidez), multzo horretako gizabanakoek aurreko adierazlean hartzen dituzten balioen batez bestekoak erabiliko ditugu. Datu hori bera lortuko genuke, bestalde, etxeko erabileraren jatorrizko aldagaiaren maiztasunetara jo eta kategoria bakoitzak osatzen duen ehunekoak aintzat hartu eta honako formula hau aplikatuta:

$$\text{Euskararen pisua etxeko erabileran (\%)} = \text{Euskara\%} + 0,5 * \text{Biak\%}$$

Zentsuetatik etxeko erabilerari buruz landu diren adierazleek 1991-2011 tarterako Hegoaldean hartzen dituzten balioak T.42. taulan aurkezten dira.

**T.42. TAULA: ETXEKO ERABILERA. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1991-2011**

	1991 (kop)	2001 (kop)	2011 (kop)	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)
<b>HZ-006: Etxeko erabilera (EE)</b>						
Euskara	314.442	310.849	320.766	12,2	12,0	11,7
Euskara eta gaztelania	183.935	191.586	188.294	7,1	7,4	6,9
Gaztelania	2.064.142	2.059.412	2.162.135	80,2	79,7	78,8
Beste hizkuntza bat	12.091	22.769	71.839	0,5	0,9	2,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.743.034</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-007: Euskararen pisua etxeko erabileran (EE%)</b>				15,8	15,7	15,1

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

## 9.6. HIZKUNTZA-BILAKAERAREN AZTERKETA ZENTSUKO DATUETAN OINARRITUTA

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

### 9.6.1. Hizkuntza-bilakaeraren azterketaren helburuak

Atal teorikoan ikusi dugun bezala, bi adiera posible biltzen dira hizkuntza-bilakaeraz hitz egiterakoan: batetik, haur txiki garaian ikasitako hizkuntza(k) *egungo* unean daki(zki)gun hizkuntzekin alderatu ditzakegu. Bestetik, haur txikitako erabilera gaur egungoarekin alderatu dezakegu.

Atal teorikoan ikusi dugu, halaber, Euskal Herriko demolinguistikak hiztunen lehen hizkuntza eta ezagutza alderatuz landu izan duela hizkuntza-bilakaera. Aitzitik, gurean ez da landu hizkuntza-bilakaeraren gaia bi garaitako erabilera alderatuz<sup>170</sup> (haur txiki garaiko erabilera eta *egungoa* alderatuz, alegia). Horiek horrela, erabilerazko hizkuntza-bilakaera zentsuen bidez aztertzea helburu garrantzitsua izango da guretzat. Honela formulatu ditugu gaiari buruzko helburu metodologiko zehatzak 7.3. puntuan:

- ❖ *Erabilerazko hizkuntza-bilakaera aztertzeko behar den adierazle multzoa sortzea, lehen hizkuntzatik eta etxeko erabileratik abiatuta, Kanadako eta Quebeceko demolinguistikaren tradizioari jarraituta.*
- ❖ *H1 eta EEren informazioan oinarrituta, hizkuntzen egoera orokorrari buruzko honako adierazle hauek sortzea: hizkuntzen jarraitutasun eta erakarpenaren balantzea batetik, eta hizkuntzen bizi-indarrari buruzkoa bestetik.*

Helburu horietara gure ahalegina bideratu aurretik, bi hitz egingo ditugu zentsuetan oinarritutako gaitasunezko hizkuntza-bilakaerari buruz.

### 9.6.2. Gaitasunezko hizkuntza-bilakaera

Atal teorikoan azaldu bezala, lehen hizkuntza eta hizkuntza-gaitasuna, bi aldagai horiek kontuan hartuta, landu izan dute EAEko mapa soziolinguistikoetan *BILA*

<sup>170</sup> Berez, hiztunen lehen hizkuntza eta etxeko erabilera harremanetan jartzen dituzten ustiaketa bakan batzuk ere argitaratu izan dira, euskal demolinguistikan. Azken mapa soziolinguistikoan adibidez, euskaldunen etxeko erabilera-datuak ikus ditzakegu, hiztunen lehen hizkuntzaren arabera (Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 98). Datu horiek ez dira, ordea, hizkuntza-bilakaeraren ikuspegitik lantzen eta aztertzen.

*hizkuntza-bilakaeraren indizea* (Kultura Saila, 1997: 55; EUSTAT eta Kultura Saila, 1999: 35; Kultura Saila, 2005: 45; Kultura Saila, 2009: 68; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014: 60; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 70). Bi aldagai horiek uztartuta, BILAK honako multzo hauetan banatzen ditu hiztunak (xehetasun gehiagorako, jo atal teorikoko 5.6.1. puntura):

- Euskaldun zaharrak
- Jatorrizko elebidunak
- Partzialki erdaldunduak
- Guztiz erdaldunduak
- Euskaldun berriak
- Partzialki euskaldun berriak
- Erdaldun zaharrak

Lehenago ere aipatu dugu zer-nolako mugak dituen zentsuetako hizkuntza-gaitasunak. Horren ondorio, gaitasunezko hizkuntza-bilakaerari buruzko adierazle honek hizkuntza-bilakaera posibleen alor bat bakarrik (euskarari dagokiona) erakutsiko digu, ez erdarari dagokiona. Horretarako informazio baliagarriagoa ematen digu ISLk. Hortaz, gaitasunezko hizkuntza-bilakaerari buruzko adierazle askoz zorrotzagoa izango da ISLko datuen bidez 11.8. puntuan landuko duguna.

Dena den, zentsuko lehen hizkuntzaren datua eta hizkuntza-gaitasunarena gurutzatuta sortzen diren multzoen ikuspegia ere baliagarria gerta daiteke. Guk, zehazki, etxeko kideen ezaugarriak aztertze orduan erabiliko dugu aurrerago aldagai hau, ez hizkuntza-bilakaera aztertze. Horretarako, **HZ-008: Gaitasuna, euskaldunak H1en arabera bereizita** izeneko honako bost kategoria hauek dituen adierazlea landu dugu:

- **Euskaldun zaharrak.** Egun euskaldunak izan eta lehen hizkuntza gisa euskara izan zuten hiztunak.
- **Jatorrizko elebidunak.** Egun euskaldunak izan eta lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania izan zituzten hiztunak.
- **Euskaldun berriak.** Egun euskaldunak diren hiztunak, lehen hizkuntza euskara izan ez zutenak.
- **Erdaldun hartzailleak.**
- **Erdaldunak.**

Adierazle berri hau oinarrian BILA indizearen kategorien multzokatze bat da, T.43. taulan ikus daitekeen bezala; adierazle honek 1991-2011 bitartean Hegoaldean hartu izan dituen balioak T.44. taulan ikus daitezke.

**T.43. TAULA: BILA INDIZEAREN ETA 'GAITASUNA, EUSKALDUNAK H1en ARABERA BEREIZITA' ADIERAZLEAREN ALDERAKETA**

BILA indizea	Gaitasuna, euskaldunak H1aren arabera bereizita
Euskaldun zaharrak	Euskaldun zaharrak
Jatorrizko elebidunak	Jatorrizko elebidunak
Euskaldun berriak	Euskaldun berriak
Partzialki euskaldun berriak	Erdaldun hartzaileak
Partzialki erdaldunduak	
Gutziz erdaldunduak	Erdaldunak
Erdaldun zaharrak	

Iturria: egileak landua.

**T.44. TAULA: GAITASUNA, EUSKALDUNAK H1en ARABERA BEREIZITA. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1991-2011**

	1991 (kop)	2001 (kop)	2011 (kop)	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)
<b>HZ-008: Gaitasuna, euskaldunak H1aren arabera bereizita</b>						
Euskaldun zaharrak	420.959	409.144	395.603	16,4	15,8	14,4
Jatorrizko elebidunak	51.090	70.410	106.228	2,0	2,7	3,9
Euskaldun berriak	123.591	242.545	371.686	4,8	9,4	13,5
Erdaldun hartzaileak	366.077	434.226	485.462	14,2	16,8	17,7
Erdaldunak	1.612.893	1.428.291	1.384.165	62,6	55,3	50,4
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.743.144</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>99,8</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 9.6.3. Erabilerazko hizkuntza-bilakaera

Atal teorikoan azaldu dugu erabilerazko hizkuntza-bilakaera lantzeko hainbat eredu dagoela nazioartean eta aipatu dugu Euskal Herrian oraindik ez dela ikerketa-ildo hau landu. Bide horri ekiteko, euskal demolinguistikan Hegoaldeko Zentsuek eta Inkesta Soziolinguistikoak, bi iturriek ematen dute erabilerazko hizkuntza-bilakaera aztertzeko aukera.

Bi iturri horien artean, gure lanketa Hegoaldeko zentsuetan oinarrituta egitea erabaki dugu. Adierazle berriak sortzeko orduan, zentsuen iturria aukeratu dugu, gehienbat eskura dugun nazioarteko eredu nagusiak, Quebec eta Kanadakoak, zentsuan oinarritzen dituelako hizkuntza-bilakaerari buruzko azterketak. Horrekin batera, interesgarria iruditu zaigu adierazle horiek zentsuetatik eraikitzea, horrela hizkuntza-bilakaeraren fenomenoaren lurralde-maila xeheenean aztertu ahal izateko aukera irekitzeko, baita eskualde edo udalerri-mailan ere.

### 9.6.3.1. Hiztunen bi erabilera-datu zentsuetan

Gaitasunezko bilakaera baino sendoagoa da Hegoaldeko Zentsuetan erabilerazko hizkuntza-bilakaera aztertzeo dagoen lehengaia. Izan ere, egoera posible guztiak ondo laburtzen dituzten bi aldagai ditugu oinarrian, biak, gainera, erantzun-aukera berberak dituztenak. Hauek dira, zehazki, erabilerazko hizkuntza-bilakaera aztertzeo zentsuetan ditugun bi erabilera-datuak:

- Haur txikia zenean (0-3 urte bitartean), hiztunak erabiltzen zuen hizkuntza. “Lehen hizkuntza” izendatu ohi den aldagai horrek lehen haurtzaroko hizkuntza-erabileraren berri ematen digu zuzen-zuzenean. Zehazki, honako galdera honi emandako erantzunak dira lehen hizkuntza gisa jasotzen ditugunak: “*Zein hizkuntza erabili zuen lehen aldiz (hiru urte bete arte)?*”:
- “Etxeko hizkuntza” aldagaiarekin, zentsua egin den unean hiztunak etxean erabiltzen duen hizkuntza jasotzen da.

Zenbateraino dira alderagarriak pertsonaren bi unetako erabileraren berri ematen diguten bi aldagai horiek? Galderen edukiari zorrotz begiratuta, bigarren galderak zehatz finkatzen du nongo erabileraz galdetzen duen, etxeko erabileraz alegia. Lehen hizkuntzari buruzko galderan, aldiz, ez da zuzenean galdetzen 0-3 urte bitarteko etxeko erabilerari buruz. Adin horretako haur txikien jarduna aztertzerakoan, aintzat hartu behar da azken hamarkadotan gero eta arruntagoa dela etxetik kanpoko beste eremu sozializatzaile batzuek ere pisua hartzea haur txikien bizitzako geroz eta alor gehiagotan (Kasares, 2014). Hala ere, pentsa daiteke 1991 eta 2011 bitarteko zentsuetan aztertu ditugun hiztun gehienentzat, oro har, etxea izan dela 0-3 urte bitarteko ume-garaietan erabilera-gune nagusia, azken urteotan jaio diren umeen artean etxekoa beste eremu batzuetakoekin osatu bada ere.

Horrela, bada, zentsu hertsian bi galderetako edukia %100ean bat ez datorren arren, ez da zentzugabekeria bizitzako bi une horietako erabilera horiek alderatzea (ume txiki garaiko erabilera orokorra eta zentsua egin zen uneko etxeko erabilera). Azpimarra dezagun, gainera, horixe dela 1991-2011 bitarteko zentsuek hiztunen erabilera longitudinalki aztertzeo eskaintzen diguten aukera bakarra.

Jarraian aurkeztuko ditugun adierazleak sortzeo, zentsuetako lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza uztartuz Quebec eta Kanadan dagoen azterketa-tradizioa hartu dugu eredutzat (Castonguay, 2005a; Marmen, 2005; Sabourin eta Bélanger, 2015; Perrot, 2018; Castonguay, 2019; Lavoie et al., 2019), betiere han erabili izan dituzten irizpide nagusiak hemengo zentsuen galdera-erantzun aukerei egokituz. Gai honetan, ezinbesteko erreferentzia dira euskaldunontzat Kanada eta Quebec, guk bezala eta munduko gainerako herrialde gehienetan ez bezala, han lehen hizkuntzari eta etxeko erabilerari buruzko informazioa eskuratzen dutelako zentsuetan. Eta bi aldagai horiek harremanetan jarriz, hizkuntza-bilakaeraren gaia aspalditik eta sakon landu izan dutelako.

Atal teorikoan aipatu dugun bezala, tradizio horrek mintzaldatzeari edo ordezkapenari buruzko ondorioak ateratzen ditu bi aldagai horietatik abiatuta (Duchene eta Humbert, 2018: 6):

With these two questions, it would technically become possible to measure language shift, with the mother tongue (the first language learned and still understood) functioning as a point of departure and the home language as a point of arrival, measuring current language use at home.

Ondorengo adierazleekin, tradizio horretatik edaten saiatuko gara. Adierazleak aurkezten hasi aurretik, aipa dezagun, azkenik, puntu honetako adierazleak 5 urtetik gorako hiztunei aplikatuko dizkiegula (2-4 urte bitartekoen artean informazio kontraesankor ugari dagoelako).

### 9.6.3.2. Erabilerazko hizkuntza-bilakaera xehearen adierazlea

Lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren aldagaiak uztartuta, lehen haurtzarotik zentsua egin den unera arte hurbileko erabileran (etxeko erabileran nagusiki) gertatu izan diren aldaketak aztertu ahal izango ditugu. Zehatz begiratuta, T.45. taulan ikus daitekeen bezala, bi galdera horiei emandako erantzunek hamasei konbinazio posible ematen dizkigute. Konbinazio horietako bakoitzak ibilbide partikular bat deskribatzen du hizkuntza-bilakaerari dagokionez.

**T.45. TAULA: HIZTUNEN 0-3 URTE BITARTEKO ERABILERA (LEHEN HIZKUNTZA) ETA EGUNGO ETXEKO ERABILERA ALDAGAIEN GURUTZAKETA; 'ERABILERAZKO HIZKUNTZA-BILAKAERA XEHEA' ADIERAZLEA SORTZEN**

		Lehen hizkuntza (erabilera 0-3 urtetan)			
		Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat
<b>Ettxeko erabilera gaur (zentsua egin den garaian)</b>	Euskara	(A)	(B)	(C)	(D)
	Euskara eta gaztelania	(E)	(F)	(G)	(H)
	Gaztelania	(I)	(J)	(K)	(L)
	Beste hizkuntza bat	(M)	(N)	(O)	(P)

[Iturria](#): egileak landua.

Taula horretan biltzen diren 16 ibilbideekin, **HZ-009: Erabilerazko hizkuntza-bilakaera xehea** adierazlea sortu dugu. Hona hemen, adierazle horren arabera, zernolako 16 multzoetan banatzen diren hiztunak:

- A. H1, euskara; EE, euskara
- B. H1, euskara eta gaztelania; EE, euskara
- C. H1, gaztelania; EE, euskara
- D. H1, beste hizkuntza bat; EE, euskara
- E. H1, euskara; EE, euskara eta gaztelania
- F. H1, euskara eta gaztelania; EE, euskara eta gaztelania

- G. H1, gaztelania; EE, euskara eta gaztelania
- H. H1, beste hizkuntza bat; EE, euskara eta gaztelania
- I. H1, euskara; EE, gaztelania
- J. H1, euskara eta gaztelania; EE, gaztelania
- K. H1, gaztelania; EE, gaztelania
- L. H1, beste hizkuntza bat; EE, gaztelania
- M. H1, euskara; EE, beste hizkuntza bat
- N. H1, euskara eta gaztelania; EE, beste hizkuntza bat
- O. H1, gaztelania; EE, beste hizkuntza bat
- P. H1, beste hizkuntza bat; EE, beste hizkuntza bat

Adierazle honen hamasei kategoria xehe horien arteko eragiketak izango dira ondoren aipatuko ditugun adierazleen sorburu.

#### 9.6.3.3. Jardunaren hizkuntza-bilakaera

Hizkien bidez izendatu ditugun T.45. taulako 16 laukitxo horiek Hegoaldeko hiztunen jaio eta zentsua egin zen bitarteko bizialdian hizkuntzetan izan den jarraipenaren eta ordezkapenaren berri ematen digute zuzenean. Hamasei kategoria horietako bakoitzak hiztun jakinen ibilbide posibleak zehazten ditu, betiere oinarritzko aldagaien kategorizazioetara ekarrita; errealitatean, jakina, ibilbideak 16 horiek baino askoz ugariagoak izango dira.

Hamasei multzoen lehengai horretatik, jarraipen- eta ordezkapen-prozesuei buruzko informazio adierazgarri eta xehea eskuratzeko, badugu ebatzi beharreko arazo bat. Hamasei kategoria horietako batzuek pertsonen ibilbide sinpleak erakusten dizkigute (T.46. taulan urdin argiz margotu ditugu horiek). Ibilbide sinple horietan, erabateko jarraipena edo erabateko ordezkapena gertatzen da H1 eta EEren artean; bai H1en eta bai EEn hizkuntza bakarra aipatzen deneko egoerak dira. Adibidez, A letradun ibilbideko hiztunek euskara izan zuten lehen hizkuntza eta gaur egun ere etxean euskaraz aritzen dira: jarraipen osoko ibilbide bat da, sinplea alde horretatik. Beste adibide bat, ordezkapena adieraziko duen ibilbide sinple batena, C hizkiarekin izendatu duguna da: haur txikia zela gaztelaniaz egiten zuten eta orain, berriz, euskaraz; erabateko ordezkapena adieraziko du, beraz, ibilbide sinple horrek.

Beste multzo batzuek, ordea, ibilbide konplexuagoak erakusten dizkigute (urdin ilunez margotu ditugu T.46. taulan): H1en, EEn edo bietan, bi hizkuntza azaltzen zaizkigun kasuak dira. Adibidez, E multzoan ikusten dugun ibilbideko hiztunek txikitik H1 euskara izan zuten, baina gaur egun etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituzte. Zer adierazten du ibilbide horrek, euskararen jarraipena edo ordezkapena? Bietatik dago ibilbide horretan, badago jarraipenetik baina jarraipen hori ez da betea, ordezkapena ere badago eta.



**T.46. TAULA: 'ERABILERAZKO HIZKUNTZA-BILAKAERA XEHEA' ADIERAZLEKO MULTZOAK NOLA ESLEITU DITUGUN 'JARDUNAREN HIZKUNTZA-BILAKAERA' ADIERAZLEA SORTZEKO GARAIAN (%).**

	J1 Euskarak eutsitakoa (H1 euskara zutenetik, egun EE-n erabiltzen dena)	J2. Gaztelaniak eutsitakoa (H1 gaztelania zutenetik, egun EE-n erabiltzen dena)	J3. Beste hizkuntzek eutsitakoa (H1 beste hizkuntzak zituzenetatik, egun EE-n erabiltzen dutena)	J4. Euskarak irabazitako a I (gaztelaniatik) / =gaztelaniak euskararen alde galdutakoa	J5. Euskarak irabazitako a II (beste hizkuntzetatik) / = beste hizkuntzek euskararen alde galdutakoa	J6. Euskarak galdutako a I (gaztelaniara) / =gaztelaniak euskaratik irabazitakoa	J7. Euskarak galdutako a II (beste hizkuntzetara) / = beste hizkuntzek euskaratik irabazitakoa	J8. Gaztelaniak beste hizkuntzetatik irabazitakoa / = beste hizkuntzek gaztelaniaren alde galdutakoa	J9. Gaztelaniak beste hizkuntzetara galdutakoa / = Beste hizkuntzek gaztelaniatik irabazitakoa
A. H1 euskara; EE, euskara	100								
B. H1 euskara eta gaztelania; EE, euskara	50			50					
C. H1 gaztelania; EE, euskara				100					
D. H1 beste hizkuntza bat; EE, euskara					100				
E. H1 euskara; EE, euskara eta gaztelania	50					50			
F. H1 euskara eta gaztelania; EE, euskara eta gaztelania	50	50							
G. H1 gaztelania; EE, euskara eta gaztelania		50		50					
H. H1 beste hizkuntza bat; EE, euskara eta gaztelania					50			50	
I. H1 euskara; EE, gaztelania						100			
J. H1 euskara eta gaztelania; EE, gaztelania		50				50			
K. H1 gaztelania; EE, gaztelania		100							
L. H1 beste hizkuntza bat; EE, gaztelania								100	
M. H1 euskara; EE, beste hizkuntza bat							100		
N. H1 euskara eta gaztelania; EE, beste hizkuntza bat							50		50
O. H1 gaztelania; EE, beste hizkuntza bat									100
P. H1 beste hizkuntza bat; EE, beste hizkuntza bat			100						

Iturria: egileak landua.

Horiek horrela, hizkuntza-bilakaeran gertatu diren aldaketa-prozesuak aztertzeko, ibilbide sinpleak eta konplexuak hartu beharko ditugu aintzat. Zehazki, jarri dugun adibide konplexuaren kasuan, adierazleak sortzeko orduan, hiztun horren jardunaren %50a “euskararen jarraipenari” atxikiko diogu eta beste %50a euskaratik gaztelaniarako ordezkapenari. Horregatik behar dugu jarduna aztertuko duen adierazle bat, pertsonen jardunaren barneko mugimendua ere aztertuko duena.

Horretarako, jatorrizko hamasei multzoetako hiztunen jarduna jarraipen/ordezkapen irizpideen arabera esleitzen dugu **HZ-010: Jardunaren hizkuntza-bilakaera** adierazlean; ‘Erabilera-azko hizkuntza-bilakaera xehea’ adierazleak dituen 16 kategorietako bakoitza honako 9 multzo hauetako batera osorik esleituta edo bi multzotara erdibana banatuta sortu dugu adierazle berri hori (esleipen-irizpideak T.46. taulan aurkeztu ditugu):

- J.1.Euskarak eutsitakoa (H1 euskara zutenetik, egun EE-n erabiltzen dena). Bertan bildu ditugu A taldearen jardun osoa eta B, E eta F taldeen jardunaren erdia.
- J.2.Gaztelaniak eutsitakoa (H1 gaztelania zutenetik, egun EE-n erabiltzen dena). Bertan bildu ditugu K taldearen jardun osoa eta F, G eta J taldeen jardunaren erdia.
- J.3.Beste hizkuntzek eutsitakoa (H1 beste hizkuntzak zituztenetatik, egun EE-n erabiltzen dutena). Bertan bildu ditugu P taldearen jardun osoa.
- J.4.Euskarak irabazia I (gaztelaniatik) [= gaztelaniak euskararen alde galdutakoa]<sup>171</sup>. Bertan bildu ditugu I taldearen jardun osoa eta E eta J taldeen jardunaren erdia.
- J.5.Euskarak irabazia II (beste hizkuntzetatik) [= beste hizkuntzek euskararen alde galdutakoa]. Bertan bildu ditugu M taldearen jardun osoa eta N taldearen jardunaren erdia.
- J.6.Euskarak galdua I (gaztelaniara) [= gaztelaniak euskaratik irabazia]. Bertan bildu ditugu C taldearen jardun osoa eta B eta G taldeen jardunaren erdia.
- J.7.Euskarak galdua II (beste hizkuntzetara) [= beste hizkuntzek euskaratik irabazia]. Bertan bildu ditugu D taldearen jardun osoa eta H taldearen jardunaren erdia.
- J.8.Gaztelaniak beste hizkuntzetatik irabazia [= beste hizkuntzek gaztelaniaren alde galdua]. Bertan bildu ditugu O taldearen jardun osoa eta N taldearen jardunaren erdia.
- J.9.Gaztelaniak beste hizkuntzetara galdua [= Beste hizkuntzek gaztelaniatik irabazia]. Bertan bildu ditugu L taldearen jardun osoa eta H taldearen jardunaren erdia.

---

<sup>171</sup> Puntu honetan eta hurrengoetan, aipatzen diren bi izendapenek egoki deskribatzen dute multzo bakoitzak hizkuntza-bilakaeran bizi izan duen prozesua. Lehenengo izendapena egokiagoa izango da azterketa euskararen ikuspegitik egin nahi badugu, eta bigarrena gaztelaniarenetik egin nahi badugu. Baina, azken batean, errealitate bera deskribatzen ari gara, batek irabazten duena besteak galtzen baitu, eta alderantziz.

**T.47. TAULA: HIZKUNTZA-BILAKAERARI BURUZKO ADIERAZLEAK. HEGOALDEA, 1991-2011 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**

	1991 (kop)	2001 (kop)	2011 (kop)	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)
<b>HZ-004: Lehen hizkuntza</b>						
Euskara	453.111	431.810	421.198	18,1	17,1	15,8
Euskara eta gaztelania	76.674	85.748	124.610	3,1	3,4	4,7
Gaztelania	1.942.358	1.955.721	1.997.738	77,5	77,6	75,1
Beste hizkuntza bat	34.271	46.424	115.251	1,4	1,8	4,3
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.506.414</b>	<b>2.519.703</b>	<b>2.658.798</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Lehen hizkuntzan hizkuntza bakoitzak izan zuen pisuaren estimazioa (haztatuta, Denbora Osoko Hiztunen -DOH- kalkulua absolututan)</b>						
Euskarak	491.448	474.684	483.503	19,6	18,8	18,2
Gaztelaniak	1.980.695	1.998.595	2.060.044	79,0	79,3	77,5
Beste hizkuntzek	34.271	46.424	115.251	1,4	1,8	4,3
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.506.414</b>	<b>2.519.703</b>	<b>2.658.798</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-006: Erako erabilera</b>						
Euskara	305.515	300.922	305.400	12,2	11,9	11,5
Euskara eta gaztelania	177.210	183.525	179.373	7,1	7,3	6,7
Gaztelania	2.011.929	2.013.110	2.104.678	80,3	79,9	79,2
Beste hizkuntza bat	11.760	22.146	69.155	0,5	0,9	2,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.506.414</b>	<b>2.519.703</b>	<b>2.658.606</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Erako erabileran hizkuntza bakoitzak duen pisuaren estimazioa (haztatuta, DOH kalkulua absolututan)</b>						
Euskarak	394.120	392.685	395.087	15,7	15,6	14,9
Gaztelaniak	2.100.534	2.104.873	2.194.365	83,8	83,5	82,5
Beste hizkuntzek	11.760	22.146	69.155	0,5	0,9	2,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.506.414</b>	<b>2.519.703</b>	<b>2.658.606</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-009: Erabilera hizkuntza-bilakaera xehea</b>						
A H1, euskara; EE gaur, euskara	295.141	285.059	260.123	11,8	11,3	9,8
E H1, euskara; EE gaur, euskara eta gaztelania	98.807	87.412	73.332	3,9	3,5	2,8
I H1, euskara; EE gaur, gaztelania	58.952	59.171	86.747	2,4	2,3	3,3
M H1, euskara; EE gaur, beste hizkuntza bat	211	168	763	0,0	0,0	0,0
B H1, euskara eta gaztelania; EE gaur, euskara	4.507	5.058	16.999	0,2	0,2	0,6
F H1, euskara eta gaztelania; EE gaur, euskara eta gaztelania	41.695	48.673	47.772	1,7	1,9	1,8
J H1, euskara eta gaztelania; EE gaur, gaztelania	30.377	31.962	59.312	1,2	1,3	2,2
N H1, euskara eta gaztelania; EE gaur, beste hizkuntza bat	95	55	394	0,0	0,0	0,0
C H1, gaztelania; EE gaur, euskara	5.715	10.614	27.166	0,2	0,4	1,0
G H1, gaztelania; EE gaur, euskara eta gaztelania	36.182	46.867	56.146	1,4	1,9	2,1
K H1, gaztelania; EE gaur, gaztelania	1.898.893	1.895.789	1.904.849	75,8	75,2	71,7
O H1, gaztelania; EE gaur, beste hizkuntza bat	1.568	2.451	7.505	0,1	0,1	0,3
D H1, beste hizkuntza bat; EE gaur, euskara	152	191	952	0,0	0,0	0,0
H H1, beste hizkuntza bat; EE gaur, euskara eta gaztelania	526	573	1.966	0,0	0,0	0,1
L H1, beste hizkuntza bat; EE gaur, gaztelania	23.707	26.188	51.413	0,9	1,0	1,9
P H1, beste hizkuntza bat; EE gaur, beste hizkuntza bat	9.886	19.472	60.297	0,4	0,8	2,3
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.506.414</b>	<b>2.519.703</b>	<b>2.655.736</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Jarraipena (H1=EE) eta ordezkapena (H1 &gt; EE)</b>						
Jarraipena	2.245.615	2.248.993	2.273.041	89,6	89,3	85,6
Ordezkapena	260.799	270.710	382.695	10,4	10,7	14,4
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.506.414</b>	<b>2.519.703</b>	<b>2.655.736</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-010: Jardunaren hizkuntza-bilakaera (DOH kalkulua absolututan)</b>						
J1. Euskarak eutsitakoa (H1 euskara zutenetik, egun EE-n erabiltzen dena)	366.721	354.995	329.328	14,6	14,1	12,4
J2. Gaztelaniak eutsitakoa (H1 gaztelania zutenetik, egun EE-n erabiltzen dena)	1.954.867	1.960.456	1.986.965	78,0	77,8	74,8
J3. Beste hizkuntzek eutsitakoa (H1 beste hizkuntzak zituztenetik, egun EE-n erabiltzen dutena)	9.955	19.505	59.952	0,4	0,8	2,3
J4. Euskarak irabazitakoa I (gaztelaniatik) / =gaztelaniak euskararen alde galdutakoa	26.136	36.568	63.950	1,0	1,5	2,4
J5. Euskarak irabazitakoa II (beste hizkuntzetatik) / = beste hizkuntzek euskararen alde galdutakoa	418	477	1.938	0,0	0,0	0,1
J6. Euskarak galdutakoa I (gaztelaniara) / =gaztelaniak euskaratik irabazitakoa	122.539	118.598	152.829	4,9	4,7	5,8
J7. Euskarak galdutakoa II (beste hizkuntzetara) / = beste hizkuntzek euskaratik irabazitakoa	258	195	963	0,0	0,0	0,0
J8. Gaztelaniak beste hizkuntzetatik irabazitakoa / = beste hizkuntzek gaztelaniaren alde galdutakoa	23.894	26.435	52.183	1,0	1,0	2,0
J9. Gaztelaniak beste hizkuntzetara galdutakoa / = Beste hizkuntzek gaztelaniatik irabazitakoa	1.626	2.474	7.627	0,1	0,1	0,3

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: Denbora Osoko Hiztunen kalkulua nola egiten den ikusteko, jo 8.4.2. puntura.

#### 9.6.3.4. Hizkuntzen arteko aldebiko irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbiak

‘Jardunaren hizkuntza-bilakaera’ adierazleko informazioan oinarrituta, bi hizkuntzen arteko mintzaldatze edo ordezkapenaren<sup>172</sup> azterketan sakondu dezakegu. Lehen urrats gisa, hizkuntzen arteko aldebiko irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia kalkulatu ditzakegu. Zehazki, hiru hizkuntza-pareetako fluxuak aztertu ditzakegu Hegoaldeko zentsuetako informazioan oinarrituta:

- Euskara eta gaztelania
- Euskara eta beste hizkuntzak
- Gaztelania eta beste hizkuntzak

Bi hitz egingo ditugu bai H1en eta bai EEn erantzun-aukera gisa eskaintzen den “beste hizkuntzak” kategoriar buruz eta eskaintzen dituen ustiaketa-aukerari buruz. Batetik, argitu behar da multzo horretan euskara eta gaztelania ez beste hizkuntza guztiak sartzen direla multzo bakar gisa, kasu bakoitzean zein hizkuntzari buruz ari garen zehaztu gabe. Beraz, hizkuntza horiek guztiak multzo bakar gisa hartuta ustiatzea beste aukerarik ez dugu izango. Bestetik, Hegoaldeko zentsuetako H1 eta EEn buruzko galderen erantzun-aukeretan “beste hizkuntzak” multzoari ez zaio ematen euskarari eta gaztelaniari ematen zaien tratamendu bera, kasu horretan ez baita bi hizkuntza batera erabiltzen direla erantzuteko aukerarik eskaintzen. Horren ondorioz, eta adibide batez baliatuta, etxean aldi berean gaztelania eta euskara ez den beste hizkuntza bat erabiltzen duten hiztunek zentsuari erantzuterakoan “gaztelania” edo “beste hizkuntza bat”, bietako bat aukeratu beharko dute, tarteko aukerarik gabe. Horiek horrela, hizkuntza-bilakaeraren gaia lantzerakoan, alderagarriak izango dira guztiz euskarari eta gaztelaniari buruzko adierazle eta datuak; ez ordea “beste hizkuntzak” sailari buruzkoak. Ohar hau kontuan hartu beharko da beste hizkuntzei buruzko adierazle eta datuak irakurtzerakoan eta euskarari/gaztelaniari buruzkoekin alderatzerakoan.

Horiek argituta, has gaitzen euskararen eta gaztelaniaren arteko mintzaldatze- edo ordezkapen-prozesuen azterketarako adierazlea aurkezten. ‘Erabilerazko hizkuntza-bilakaera xehea’ adierazlean oinarrituta, honela kalkulatu dugu **HZ-011: Euskararen eta gaztelaniaren arteko irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia:**

---

<sup>172</sup> Quebec eta Kanadako tradizioan *shift* terminoa darabilte ingelesez eta *substitution* frantsesez nagusiki lehen hizkuntza ez den beste bat erabiltzen dutenen fenomenoaren izendatzeko. Horretaz gain, *transference* terminoa ere ikusi izan dugu fenomeno bera izendatzeko (CLF-Conseil de la Langue Française, 1992: 8).

- Euskararen erabateko irabaziak gaztelaniarekiko, EEIG [=gaztelaniaren erabateko galerak euskararekiko]. 'Erabilerazko hizkuntza-bilakaera xehea' adierazleko C laukitxo.
- Euskararen irabazi partzialak gaztelaniarekiko, EIPG [=gaztelaniaren galera partzialak euskararekiko]. B eta G laukitxoen batura.
- Euskararen erabateko galerak gaztelaniarekiko, EEGG [=gaztelaniaren erabateko irabaziak euskararekiko]. I laukitxo.
- Euskararen galera partzialak gaztelaniarekiko, EGPG [=gaztelaniaren irabazi partzialak euskararekiko]. E eta J laukitxoen batura.

Azkenik, irabaziak eta galerak batuta (irabaziei ikur positiboa eta galerei negatiboa emanda, eta mugimenduak erabatekoak edo partzialak diren, horren arabera haztatuta) **euskararen eta gaztelaniaren arteko ordezkapen-saldo garbia (EGOSG)** kalkulatu dugu, formula honen bidez:

$$EGOSG = EEIG + \left(\frac{EIPG}{2}\right) - EEGG - \left(\frac{EGPG}{2}\right) = C + \left(\frac{B + G}{2}\right) - I - \left(\frac{E + J}{2}\right)$$

*EGOSG = Euskara eta gaztelaniaren arteko ordezkapen – saldo garbia*

*EEIG = Euskararen erabateko irabaziak gaztelaniarekiko = C*

*EIPG = Euskararen Irabazi Partzialak Gaztelaniarekiko = B + G*

*EEGG = Euskararen Erabateko Galerak Gaztelaniarekiko = I*

*EGPG = Euskararen Galera Partzialak Gaztelaniarekiko = E + J*

Honela kalkulatu dugu **HZ-012: Euskararen eta beste hizkuntzen arteko irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia:**

- Euskararen erabateko irabaziak beste hizkuntzekiko, EEIBH [=beste hizkuntzen erabateko galerak euskararekiko]. 'Erabilerazko hizkuntza-bilakaera xehea' adierazleko D laukitxo.
- Euskararen irabazi partzialak beste hizkuntzekiko, EIPBH [=beste hizkuntzen galera partzialak euskararekiko]. H laukitxo.
- Euskararen erabateko galerak beste hizkuntzekiko, EEGBH [=beste hizkuntzen erabateko irabaziak euskararekiko]. M laukitxo.
- Euskararen galera partzialak beste hizkuntzekiko, EGPBH [=beste hizkuntzen irabazi partzialak euskararekiko]. N laukitxo.

Azkenik, irabaziak eta galerak batuta (irabaziei ikur positiboa eta galerei negatiboa emanda, eta mugimenduak erabatekoak edo partzialak diren, horren arabera

haztatuta) **euskararen eta beste hizkuntzen arteko ordezkapen-saldo garbia (EBHOSG)** kalkulatu dugu, formula honen bidez:

$$EBHOSG = EEIBH + \left(\frac{EIPBH}{2}\right) - EEGBH - \left(\frac{EGPBH}{2}\right) = D + \left(\frac{H}{2}\right) - M - \left(\frac{N}{2}\right)$$

*EBHOSG = Euskara eta beste hizkuntzen arteko ordezkapen – saldo garbia*

*EEIBH = Euskararen Erabateko Irabaziak Beste Hizkuntzekiko = D*

*EIPBH = Euskararen Irabazi Partzialak Beste Hizkuntzekiko = H*

*EEGBH = Euskararen Erabateko Galerak Beste Hizkuntzekiko = M*

*EGPBH = Euskararen Galera Partzialak Beste Hizkuntzekiko = N*

Azken adierazle horren logika berbera erabilia sortu dugu **HZ-013: Gaztelaniaren eta beste hizkuntzen arteko irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia** (azalpenak ez ditugu berrituko).

#### 9.6.3.5. Hizkuntza bakoitzaren irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbi orokorra

Hizkuntzen arteko aldebiko ikuspegitik haratago, jarraipen- eta ordezkapen-mugimendu guztiak aintzat hartuta, zenbat *irabazi* edo *galdu* du hizkuntza bakoitzak hizkuntza-bilakaeran? Galdera horri erantzunez, hiru adierazle sortuko ditugu:

- Euskararen irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia
- Gaztelaniaren irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia
- Beste hizkuntzen irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia

Jarraian, **HZ-014: Euskararen irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia** adierazlea nola sortu dugun azalduko dugu zehatz. ‘Erabilerazko hizkuntza-bilakaera xehea’ adierazlearen kategorietatik abiatuta, eta hiztunen bizialdiko erabilera-bilakaerak euskararen ikuspegitik aztertuta, hasierako gurutzaketaren hamasei laukitxoak bost multzotara bildu ditugu. T.48. taulan jatorrizko hamasei laukitxoak koloreztatu ditugu, erabileraren “euskalduntzea” edo “erdalduntzea”, zer adierazten duten. Honela multzokatzen dira hasierako hamasei konbinazioak adierazle berri honen bost kategoriatan:

- **Erabateko irabazia euskararentzat** (kolore horia, C eta D laukitxoak): haurtzaroko lehen urteetan gaztelania edo beste hizkuntza bat erabiltzetik gaur egun etxean euskaraz (bakarrik edo nagusiki) bizitzera igaro diren hiztunak.
- **Irabazi partziala euskararentzat** (kolore hori berdexka). Honako ibilbide hauetakoren bat izan duten hiztunak bildu ditugu sail horretan:
  - Lehen haurtzaroan bi hizkuntzak erabiltzetik gaur egun etxean euskaraz (nagusiki edo bakarrik) bizitzera pasatu diren hiztunak (B laukitxoak).

- Lehen hizkuntza gaztelania izan eta gaur egun etxean bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) berdintsu erabiltzen dituztenak (G).
- Lehen hizkuntza beste bat izan, eta gaur egun etxean euskara eta gaztelania berdintsu erabiltzen dituztenak (H).
- **Aldaketarik eza adierazten duten ibilbideak** (kolore grisa). Sail honetan bildu ditugu euskararentzat irabazirik eta galerarik adierazten ez duten ibilbideak izan dituzten hiztunak:
  - Lehen hizkuntza euskara izan eta gaur egun etxean euskara (bakarrik edo nagusiki) darabilten hiztunak (A laukitxo).
  - Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania biak izan eta gaur egun ere etxean biak maila bertsuan erabiltzen dituzten hiztunak (F).
  - Lehen hizkuntza gaztelania izan eta gaur egun etxean gaztelania (bakarrik edo nagusiki) darabilten hiztunak (K).
  - Lehen hizkuntza beste bat izan eta gaur egun ere etxean beste hizkuntza bat darabilten hiztunak (P).
  - Lehen hizkuntza gaztelania izan eta gaur egun etxean beste hizkuntza bat darabilten hiztunak (O).
  - Lehen hizkuntza beste bat izan eta gaur egun etxean gaztelania (bakarrik edo nagusiki) darabilten hiztunak (L).
- **Galera partziala euskararentzat** (kolore berde iluna taulan). Honako ibilbide hauetakoren bat izan duten hiztunak bildu ditugu sail horretan:
  - Lehen hizkuntza euskara izan eta gaur egun etxean bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) berdintsu erabiltzen dituztenak (E laukitxo).
  - Lehen haurtzaroan bi hizkuntzak erabiltzetik gaur egun etxean gaztelaniaz (nagusiki edo bakarrik) bizitzera pasatu diren hiztunak (J).
  - Lehen haurtzaroan bi hizkuntzak erabiltzetik gaur egun etxean euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean bizitzera pasatu diren hiztunak (N).
- **Erabateko galera euskararentzat** (kolore urdina taulan, I eta M laukitxoak): haurtzaroko lehen urteetan euskara erabiltzetik gaur egun etxean gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean bizitzera igaro diren hiztunak.

T.48. TAULA: HIZTUNEN 0-3 URTE BITARTEKO ERABILERA (LEHEN HIZKUNTZA) ETA EGUNGO ETXEKO ERABILERA ALDAGAIEN GURUTZAKETA, ETA LAUKITXOEN BATUKETA. "EUSKARAREN IRABAZI-GALERAK" ADIERAZLEA SORTZEN

		Lehen hizkuntza (erabilera 0-3 urtetan)			
		Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat
<b>Etxeko erabilera gaur (zentsua egin den garaian)</b>	Euskara	= (A)	+ (B)	++ (C)	++ (D)
	Euskara eta gaztelania	- (E)	= (F)	+ (G)	+ (H)
	Gaztelania	-- (I)	- (J)	= (K)	= (L)
	Beste hizkuntza bat	-- (M)	- (N)	= (O)	= (P)

Iturria: egileak landua.

Azkenik, irabaziak eta galerak batuta (irabaziei ikur positiboa eta galerei negatiboa emanda, eta mugimenduak erabatekoak edo partzialak diren, horren arabera haztatuta) **euskararen ordezkapen-saldo garbia** kalkulatu dugu, formula hauen bidez:

$$\text{Euskararen ordezkapen - saldo garbia} = EI + \left(\frac{IP}{2}\right) - EG - \left(\frac{GP}{2}\right)$$

$$EI \text{ (Erabateko irabaziak)} = C + D$$

$$IP \text{ (Irabazi partzialak)} = B + G + H$$

$$EG \text{ (Erabateko galerak)} = I + M$$

$$GP \text{ (Galera partzialak)} = E + J + N$$

Euskararentzat erabili dugun logika berbera erabilia sortu dugu **HZ-015: Gaztelaniaren irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia** adierazlea ere. Azalpen guztiak ez ditugu berrituko. Azal dezagun, hori bai, logika berbera erabilia, honako kategoria hauekin osatuko dela aldagai hau:

- Erabateko irabaziak gaztelaniarentzat: I eta L laukitxoetako hiztunak.
- Irabazi partzialak gaztelaniarentzat: E, J eta H laukitxoetako hiztunak.
- Aldaketarik eza adierazten duten ibilbideak: A, D, F, K, M eta P laukitxoetako hiztunak.
- Galera partziala gaztelaniarentzat: G, B eta N laukitxoetako hiztunak.
- Erabateko galera gaztelaniarentzat: C eta O laukitxoetako hiztunak.

Eta horretaz gain, honela kalkulatu dugu **gaztelaniaren ordezkapen-saldo garbia**:



$$\text{Gaztelaniaren ordezkapen} - \text{saldo garbia} = EI + \left(\frac{IP}{2}\right) - EG - \left(\frac{GP}{2}\right)$$

$$EI \text{ (Erabateko irabaziak)} = I + L$$

$$IP \text{ (Irabazi partzialak)} = E + J + H$$

$$EG \text{ (Erabateko galerak)} = C + O$$

$$GP \text{ (Galera partzialak)} = G + B + N$$

**HZ-016: Beste hizkuntzen multzoaren irabazi-galerak eta ordezkapen-saldo garbia** laukitxoak honela multzokatuz osatu ditugu:

- Erabateko irabaziak beste hizkuntzentzat: M, N eta O laukitxoetako hiztunak.
- Irabazi partzialak beste hizkuntzentzat: erantzun-aukerak direla eta, ezin da multzo hau osatu zentsuko datuekin.
- Aldaketarik eza adierazten duten ibilbideak: A, B, C, E, F, G, I, J, K eta P laukitxoetako hiztunak.
- Galera partziala beste hizkuntzentzat: erantzun-aukerak direla eta, ezin da multzo hau osatu zentsuko datuekin.
- Erabateko galera beste hizkuntzentzat: D, H eta L laukitxoetako hiztunak.

Horretaz gain, honela kalkulatu dugu **beste hizkuntzen ordezkapen-saldo garbia**:

$$\text{Beste hizkuntzen ordezkapen} - \text{saldo garbia} = EI + EG$$

$$EI \text{ (Erabateko irabaziak)} = M + N + O$$

$$EG \text{ (Erabateko galerak)} = D + H + L$$

Hiru hizkuntzen ordezkapen-saldo garbien emaitzak bat etorriko dira aurrerago aurkeztuko dugun "jarraitutasun eta erakarpenaren balantzeekin".

**T.49. TAULA: ERABILERAZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAN OINARRITUTA, HIZKUNTZEN ARTEKO ORDEZKAPEN-PROZESUEN INGURUKO HAINBAT ADIERAZLE. HEGOALDEA, 1991-2011 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
	(kop)	(kop)	(kop)	(%)	(%)	(%)
<b><u>Ordezkapen-prozesuak hizkuntza-paraetarako</u></b>						
<b>HZ-011: Euskara eta gaztelaniaren arteko irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia</b>						
Erabateko irabazia euskararentzat [=Erabateko galera gaztelaniarentzat]	5.715	10.614	27.166	0,2	0,4	1,0
Irabazi partziala euskararentzat [=Galera partziala gaztelaniarentzat]	40.689	51.925	73.145	1,6	2,1	2,8
Galera partziala euskararentzat [=Irabazi partziala gaztelaniarentzat]	129.184	119.374	132.644	5,2	4,7	5,0
Erabateko galera euskararentzat [=Erabateko irabazia gaztelaniarentzat ]	58.952	59.171	86.747	2,4	2,3	3,3
<i>Ordezkapen-fluxuen batura:</i>	<i>234.540</i>	<i>241.084</i>	<i>319.702</i>			
<b>ORDEZKAPEN-SALDO GARBIA</b>	<b>-97.485</b>	<b>-82.282</b>	<b>-89.331</b>	<b>-3,9</b>	<b>-3,3</b>	<b>-3,4</b>
<b>HZ-012: Euskara eta beste hizkuntzen arteko irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia</b>						
Erabateko irabazia euskararentzat [=Erabateko galera beste hizkuntzentzat]	152	191	952	0,0	0,0	0,0
Irabazi partziala euskararentzat [=Galera partziala beste hizkuntzentzat]	526	573	1.966	0,0	0,0	0,1
Galera partziala euskararentzat [=Irabazi partziala beste hizkuntzentzat]	95	55	394	0,0	0,0	0,0
Erabateko galera euskararentzat [=Erabateko irabazia beste hizkuntzentzat ]	211	168	763	0,0	0,0	0,0
<i>Ordezkapen-fluxuen batura:</i>	<i>984</i>	<i>987</i>	<i>4.075</i>			
<b>ORDEZKAPEN-SALDO GARBIA</b>	<b>157</b>	<b>282</b>	<b>975</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>
<b>HZ-013: Gaztelaniaren eta beste hizkuntzen arteko irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia</b>						
Erabateko irabazia gaztelaniarentzat [=Erabateko galera beste hizkuntzentzat]	23.707	26.188	51.413	0,9	1,0	1,9
Irabazi partziala gaztelaniarentzat [=Galera partziala beste hizkuntzentzat]	526	573	1.966	0,0	0,0	0,1
Galera partziala gaztelaniarentzat [=Irabazi partziala beste hizkuntzentzat]	95	55	394	0,0	0,0	0,0
Erabateko galera gaztelaniarentzat [=Erabateko irabazia beste hizkuntzentzat ]	1.568	2.451	7.505	0,1	0,1	0,3
<i>Ordezkapen-fluxuen batura:</i>	<i>25.896</i>	<i>29.267</i>	<i>61.278</i>			
<b>ORDEZKAPEN-SALDO GARBIA</b>	<b>22.355</b>	<b>23.996</b>	<b>44.694</b>	<b>0,9</b>	<b>1,0</b>	<b>1,7</b>
<b><u>Hizkuntza bakoitzaren ordezkapen garbia gainerako hizkuntzekiko</u></b>						
<b>HZ-014: Euskararen irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia</b>						
Erabateko irabazia	5.867	10.805	28.118	0,2	0,4	1,1
Irabazi partziala	41.215	52.498	75.111	1,6	2,1	2,8
Galera partziala	129.279	119.429	133.038	5,2	4,7	5,0
Erabateko galera	59.163	59.339	87.510	2,4	2,4	3,3
<i>Ordezkapen-fluxuen batura:</i>	<i>235.524</i>	<i>242.071</i>	<i>323.777</i>			
<b>ORDEZKAPEN-SALDO GARBIA (edo "euskararen jarraikortasun eta erakarpenaren balantzea")</b>	<b>-97.328</b>	<b>-82.000</b>	<b>-88.356</b>	<b>-3,9</b>	<b>-3,3</b>	<b>-3,3</b>
<b>HZ-015: Gaztelaniaren irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia</b>						
Erabateko irabazia	82.659	85.359	138.160	3,3	3,4	5,2
Irabazi partziala	129.710	119.947	134.610	5,2	4,8	5,1
Galera partziala	40.784	51.980	73.539	1,6	2,1	2,8
Erabateko galera	7.283	13.065	34.671	0,3	0,5	1,3
<i>Ordezkapen-fluxuen batura:</i>	<i>260.436</i>	<i>270.351</i>	<i>380.980</i>			
<b>ORDEZKAPEN-SALDO GARBIA (edo "gaztelaniaren jarraikortasun eta erakarpenaren balantzea")</b>	<b>119.839</b>	<b>106.278</b>	<b>134.025</b>	<b>4,8</b>	<b>4,2</b>	<b>5,0</b>
<b>HZ-016: Beste hizkuntzen multzoaren irabazi-galerak eta ordezkapen saldo garbia</b>						
Erabateko irabazia	1.874	2.619	8.268	0,1	0,1	0,3
Irabazi partziala						
Galera partziala						
Erabateko galera	24.385	26.379	52.365	1,0	1,0	2,0
<i>Ordezkapen-fluxuen batura:</i>	<i>26.259</i>	<i>28.998</i>	<i>60.633</i>			
<b>ORDEZKAPEN-SALDO GARBIA (edo "beste hizkuntzen jarraikortasun eta erakarpenaren balantzea")</b>	<b>-22.511</b>	<b>-23.760</b>	<b>-44.097</b>	<b>-0,9</b>	<b>-0,9</b>	<b>-1,7</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: hizkuntzen ordezkapen-saldo garbian (“hizkuntza bakoitzaren jarraitutasun eta erakarpenaren balantzea” ere deiturikoan) alde txikiak daude taula honetako eta T.49. taulako datuen artean. Alde horien arrazioia honako hau da: taula hartako datuak H1 eta EE bi aldagaietako edozeinetan balio galduak dituzten erregistroak aintzat hartu gabe kalkulatu dira; hemengo taulan, berriz, aintzat hartu dira gutxienez bi aldagaietako batean informazio baliagarria duten erregistroak. Esan bezala, hala ere, oso alde txikiak daude bi taulaketako balioen artean.

### 9.6.3.6. Euskararen, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen euste-indarraren adierazleak

Orain arte aurkeztu ditugun adierazleak hiztun multzo osoa hartzen dute erreferentzia gisa; horien bidez, adierazle horiekin neurtzen diren jarraipen- eta ordezkapen-prozesuek gizarte osoarekiko duten pisua aztertu daiteke. Puntu honetan, berriz, kalkulu erlatiboak egiten hasiko gera. Horrela, euste-indarrarekin, kalkulatu egingo dugu etxeko erabileran lehen hizkuntzari zenbatek eutsi dioten lehen hizkuntza hori izan zutenen artean<sup>173</sup>. Eta hurrengo puntuan, hizkuntza jakin bat lehen hizkuntza izan ez dutenen artean, etxeko erabileran hizkuntza horretara zenbat erakarri diren kalkulatu da.

#### **HZ-017: Euskararen euste-indarra H1 euskara izan dutenen artean (%)**

Adierazle honek honako galdera honi erantzungo dio: euren bizitzaren hasieran euskaraz (bakarrik edo nagusiki) aritzen ziren hiztunek zenbateraino erabiltzen dute gaur egun (zentsua egin den unean) euskara etxean? H1 euskara izan dutenen etxeko erabileraren batez bestekoa aterako dugu, euskaraz ari direnei 100eko balioa emanez, bietan ari direnei 50ekoa eta gainerakoei 0koa. Hona hemen formula, T.45. taulako laukitxoak aintzat hartuta:

$$= 100 * \frac{\left(A + \left(\frac{E}{2}\right)\right)}{(A + E + I + M)}$$

#### **HZ-018: Euskararen euste-indarra H1 euskara eta gaztelania izan dituztenen artean (%)**

Jatorrizko elebidunen artean (hots, lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania, biak izan zituzten hiztunek), zenbatek erabiltzen dute gaur egun euskara etxean (izan

---

<sup>173</sup> Katalunian antzeko indizea darabilte, hizkuntza bat lehen hizkuntza izan dutenen artean erabileran horri eusten dioten proportzioarekin euste-koefizientea kalkulatu (*coeficient de manteniment*) (Vila, 2009: 45). Logika hori bera da guk euste-indarrarekin landuko duguna.

euskara bakarrik edo izan, jatorrian bezala, euskara eta gaztelania biak batera)? Azaldu ditugun esleitze-irizpide horiek berak ibilita, formula honekin kalkulatu dugu multzo horretan euskarak duen euste-indarra:

$$= 100 * \frac{(B + F)}{(B + F + J + N)}$$

Aurreko kalkuluen logika berari jarraituta ebatziko dugu **HZ-020: Gaztelaniaren euste-indarra H1 gaztelania izan dutenen artean (%)**. Hemen formula:

$$= 100 * \frac{(K + (\frac{G}{2}))}{(C + G + K + O)}$$

**HZ-021: Gaztelaniaren euste-indarra H1 euskara eta gaztelania izan dituztenen artean (%)**, formula honekin kalkulatu dugu:

$$= 100 * \frac{(J + F)}{(B + F + J + N)}$$

**HZ-023: Beste hizkuntzen euste-indarra H1 beste hizkuntza batzuk izan dituztenen artean (%)** formula honekin kalkulatu dugu:

$$= 100 * \frac{P}{(D + H + L + P)}$$

Lehenago ere esan dugun bezala, zentsuetan H1 eta EE buruzko galderak egiteko moduagatik (eskainitako erantzun-aukerengatik zehazki) gainerako hizkuntzen euste-indarraren adierazlea ez da zuzenean alderagarria euskararen eta gaztelaniaren euste-indarren adierazleekin.

**HZ-019: Euskararen euste-indar orokorra (%)** adierazleak honako galdera honi erantzungo dio: euren bizitzaren hasieran euskaraz aritzen ziren hiztunetatik zenbatek egiten dute *gaur egun* (zentsua egin den unean) etxean euskaraz? Zehatzago esanda, zenbat dira lehen hiru urteetan euskara (bakarrik edo gaztelaniarekin batera) lehen hizkuntza izan zutenen artean, gaur egun ere etxean euskaraz aritzen direnak H1en zein EEn duten erabilera-mailarekin haztatuta (hots, H1 euskara zutenei eta eusten diotenei %100eko balioa emanez eta H1 euskara izan eta gaur egun bietan aritzen direnei edo H1 bi hizkuntzak izan eta gaur egun euskara erabiltzen jarraitzen dutenei %50eko balioa emanez)? Galdera horri erantzungo dion adierazlea honako formula

honekin kalkulatu dugu (formulako hizkiek T.45. taulako laukitxoei egiten diete aipamena):

$$Euskararen euste - indarra (\%) = \frac{100 * \left( A + \left( \frac{B + F + E}{2} \right) \right)}{A + E + I + M + \left( \frac{B + F + J + N}{2} \right)}$$

**HZ-022: Gaztelaniaren euste-indar orokorra (%)** adierazleak honako galdera honi erantzungo dio: euren bizitzaren hasieran gaztelaniaz aritzen ziren hiztunetatik zenbatek egiten dute gaur egun (zentsua egin den unean) etxean gaztelaniaz? Zehatzago esanda, zenbat dira lehen hiru urteetan gaztelania (bakarrik edo euskararekin batera) lehen hizkuntza izan zutenen artean, gaur egun ere etxean gaztelaniaz aritzen direnak H1en zein EEn duten erabilera-mailarekin haztatuta (hots, H1 gaztelania zutenei eta eusten diotenei %100eko balioa emanez eta H1 gaztelania izan eta gaur egun bietan aritzen direnei edo H1 bi hizkuntzak izan eta gaur egun gaztelania erabiltzen jarraitzen dutenei %50eko balioa emanez)? Galdera horri erantzungo dion adierazlea honako formula honekin kalkulatu dugu (formulako hizkiek T.45. taulako laukitxoei egiten diete aipamena):

$$Gaztelaniaren euste - indarra(\%) = \frac{100 * \left( K + \left( \frac{F + G + J}{2} \right) \right)}{C + G + K + O + \left( \frac{B + F + J + N}{2} \right)}$$

**T.50. TAULA. HIZKUNTZEN EUSTE-INDARRAREN- ETA ERAKARPEN-INDARRAREN TASAK. HEGOALDEA, 1991-2011 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**

	1991	2001	2011
	(%)	(%)	(%)
<b>Euste-indarra</b>			
HZ-017: Euskararen euste-indarra H1 euskara izan dutenen artean (%)	76,2	76,1	70,6
HZ-018: Euskararen euste-indarra H1 euskara eta gaztelania izan dituztenen artean (%)	60,3	62,7	52,0
<b>HZ-019: Euskararen euste-indar orokorra (%)</b>	<b>74,9</b>	<b>74,9</b>	<b>68,2</b>
<b>Euste-indarra</b>			
HZ-020: Gaztelaniaren euste-indarra H1 gaztelania izan dutenen artean (%)	98,7	98,1	96,9
HZ-021: Gaztelaniaren euste-indarra H1 euskara eta gaztelania izan dituztenen artean (%)	94,0	94,0	86,0
<b>HZ-022: Gaztelaniaren euste-indar orokorra (%)</b>	<b>98,6</b>	<b>98,0</b>	<b>96,5</b>
HZ-023: Beste hizkuntzen euste-indarra H1 beste hizkuntzak izan dituztenen artean (%)	29,1	42,0	52,6
<b>Erakarpen-indarra</b>			
HZ-024: Euskararen erakarpen-indarra H1 gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)	1,2	1,7	2,8
HZ-025: Euskararen erakarpen-indarra H1 euskara eta gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)	5,9	5,9	13,7
HZ-026: Euskararen erakarpen-indarra H1 beste hizkuntzaren bat izan duten hiztunen multzoan (%)	1,2	1,0	1,7
<b>HZ-027: Euskararen erakarpen-indar orokorra (%)</b>	<b>1,3</b>	<b>1,8</b>	<b>3,0</b>
<b>Erakarpen-indarra</b>			
HZ-028: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 euskara izan duten hiztunen multzoan (%)	23,8	23,8	29,3
HZ-029: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 euskara eta gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)	39,6	37,2	47,6
HZ-030: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 beste hizkuntza bat izan duten hiztunen multzoan (%)	69,7	57,0	45,7
<b>HZ-031: Gaztelaniaren erakarpen-indar orokorra (%)</b>	<b>28,0</b>	<b>27,9</b>	<b>34,3</b>
HZ-032: Beste hizkuntzen erakarpen-indarra H1 euskara edo gaztelaina izan duten hiztunen multzoan (%)	0,1	0,1	0,3

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 9.6.3.7. Euskararen, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen erakarpen- indarraren adierazleak

Orain hizkuntzen erakarpen-indarra<sup>174</sup> aztertzeko adierazleak aurkeztuko ditugu. Erakarpen-indarrak zera adieraziko du: hizkuntza jakin bat lehen hizkuntza izan ez dutenek zenbateraino erabiltzen duten etxean hizkuntza jakin hori<sup>175</sup>. Aurkez ditzagun formulak:

**HZ-024: Euskararen erakarpen-indarra H1 gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)**. Adierazle honek zera adieraziko du: H1 gaztelania izan zutenetik zenbatek egiten duten gaur egun euskaraz etxean (erabilera-mailaren arabera haztatuta). Formula honekin kalkulatu dugu:

$$= 100 * \frac{\left( C + \left( \frac{G}{2} \right) \right)}{(C + G + K + O)}$$

**HZ-025: Euskararen erakarpen-indarra H1 euskara eta gaztelania izan dituzten hiztunen multzoan (%)**. Adierazle honek zera adieraziko du: H1 euskara eta gaztelania izan zituztenetik zenbatek egiten duten gaur egun euskaraz soilik edo nagusiki etxean, ehunekotan adierazita. Formula honekin kalkulatu dugu:

$$= 100 * \frac{B}{(B + F + J + N)}$$

**HZ-026: Euskararen erakarpen-indarra H1 beste hizkuntzaren bat izan duten hiztunen multzoan (%)**. Adierazle honek zera adieraziko du: H1 gaztelania eta euskara ez den beste hizkuntzaren bat izan zutenetik zenbatek egiten duten gaur egun euskaraz etxean (erabilera-mailaren arabera haztatuta). Formula honekin kalkulatu dugu:

$$= 100 * \frac{\left( D + \left( \frac{H}{2} \right) \right)}{(D + H + L + P)}$$

**HZ-028: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 euskara izan duten hiztunen multzoan (%)**. Adierazle honek zera adieraziko du: H1 euskara izan zutenetik zenbatek egiten duten gaur egun gaztelaniaz etxean (erabilera-mailaren arabera haztatuta). Formula honekin kalkulatu dugu:

---

<sup>174</sup> Hedapen-indarra ere dei geniezaiokeen adierazle honi.

<sup>175</sup> Katalanek ere lehen hizkuntza katalana izan ez eta katalanaren erabilera erakarritako hiztunak erakarri ahal ziren guztiekiko osatzen duten proportzioarekin erakarpen-koefizientea kalkulatzeko dute (coeficient d'atracció) (Vila, 2009: 45). Logika hori bera da guk erakarpen-indarrarekin landuko duguna.

$$= 100 * \frac{\left(I + \left(\frac{E}{2}\right)\right)}{(A + E + I + M)}$$

**HZ-029: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 euskara eta gaztelania izan dituzten hiztunen multzoan (%)**. Adierazle honek zera adieraziko du: H1 euskara eta gaztelania izan zituztenetatik zenbatek egiten duten gaur egun gaztelaniaz soilik edo nagusiki etxean, ehunekotan adierazita. Formula honekin kalkulatu dugu:

$$= 100 * \frac{J}{(B + F + J + N)}$$

**HZ-030: Gaztelaniaren erakarpen-indarra H1 beste hizkuntza bat izan duten hiztunen multzoan (%)**. Adierazle honek zera adieraziko du: H1 gaztelania eta euskara ez den beste hizkuntzaren bat izan zutenetatik zenbatek egiten duten gaur egun gaztelaniaz etxean (erabilera-mailaren arabera haztatuta). Formula honekin kalkulatu dugu:

$$= 100 * \frac{\left(L + \left(\frac{H}{2}\right)\right)}{(D + H + L + P)}$$

**HZ-032: Beste hizkuntzen erakarpen-indarra H1 euskara edo gaztelania izan duten hiztunen multzoan (%)**. Adierazle honek zera adieraziko du: H1 gaztelania edo euskara izan zituzten hiztun guztien artean zenbatek egiten duten gaur egun beste hizkuntzetan etxean. Formula honekin kalkulatu dugu:

$$= 100 * \frac{(M + N + O)}{(A + B + C + E + F + G + I + J + K + M + N + O)}$$

**HZ-027: Euskararen erakarpen-indar orokorra (%)** adierazleak honako galdera honi erantzungo dio: euren bizitzaren hasieran euskaraz bizi ez ziren hiztunetatik zenbat bizi dira gaur egun (zentsua egin den garaian) euskaraz? Zehatzago esanda: zenbat dira lehen hiru urteetan euskara hizkuntza nagusi edo bakartzat izan ez zutenen artean, gaur egungo etxeko erabileran euskarari lehen haurtzaroan baino toki handiagoa ematen diotenak, haztatuta (egindako aldaketaren neurriaren arabera) eta ehunekoetan adierazita? Galdera horri erantzungo dion adierazlea honako formula



honekin kalkulatu dugu (formulako hizkiek T.45. taulako laukitxoei egiten diete aipamena):-

$$= 100 * \frac{\left( (C + D) + \left( \frac{B + G + H}{2} \right) \right)}{\left( C + D + G + H + K + L + O + P + \left( \frac{B + F + J + N}{2} \right) \right)}$$

**HZ-031: Gaztelaniaren erakarpen-ingar orokorra (%)**. Euren bizitzaren hasieran gaztelaniaz bizi ez ziren hiztunetatik zenbat erakarri ditu gaztelaniak? Zehatzago esanda: zenbat dira lehen hiru urteetan gaztelania hizkuntza nagusi edo bakartzat izan ez zutenen artean, gaur egungo etxeko erabileran gaztelaniari lehen haurtzaroan baino toki handiagoa ematen diotenak, haztatuta (egindako aldaketaren neurriaren arabera) eta ehunekoetan adierazita? Adierazle hau honako formula honekin kalkulatu dugu (formulako hizkiek T.45. taulako laukitxoei egiten diete aipamena):

$$= 100 * \frac{\left( (I + L) + \left( \frac{E + J + H}{2} \right) \right)}{A + D + E + H + I + L + M + P + \left( \frac{B + F + J + N}{2} \right)}$$

#### 9.6.3.8. Hizkuntzen jarraitutasunaren eta erakarpenaren balantzerako adierazleak

Lehen hizkuntza eta etxeko erabilera harremanetan jarrita, Kanada eta Quebeceko *Bilan de la persistance et attraction linguistiques* adierazlea ereduizat hartuz (Castonguay, 2005a: 8), hiru adierazle sortuko ditugu, bana hizkuntza (edo hizkuntza-komunitate) bakoitzerako<sup>176</sup>.

**HZ-033: Euskararen jarraitutasunaren eta erakarpenaren balantzea** adierazlea sortzeko, etxeko hizkuntza euskara dutenen kopuruari lehen hizkuntza euskara izan zutenen kopurua kenduko diogu. Horretarako, jatorrizko bi aldagaien kasuan, “euskara eta gaztelania” kategorian daudenak ere zenbatuko ditugu, baina haztatuta (8.4.2. puntuan azaldu dugun denbora osoko hiztunen logika erabilita). Hona hemen adierazle honetarako formula:

<sup>176</sup> Lan honetan aurkezten ditugun fenomenoek, berez, hiztun-komunitateei eragiten diete, azalpena erraztearren, gehienetan hizkuntzei eragingo baliete bezala hitz egiten dugun arren.

$$EE_{euskara} + \left( EE \frac{biak}{2} \right) - H1_{euskara} - \left( H1 \frac{biak}{2} \right)$$

*EE euskara* = Etxeko hizkuntza euskara (nagusiki edo bakarrik)

*EE biak* = Etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania

*H1 euskara* = Lehen hizkuntza euskara (nagusiki edo bakarrik)

*H1 biak* = Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania

Irizpide berberak erabilia kalkulatu dugu **HZ-034: Gaztelaniaren jarraitutasunaren eta erakarpenaren balantzea**. Hemen formula:

$$EE_{gaztelania} + \left( EE \frac{biak}{2} \right) - H1_{gaztelania} - \left( H1 \frac{biak}{2} \right)$$

*EE Gaztelania* = Etxeko hizkuntza gaztelania (nagusiki edo bakarrik)

*EE biak* = Etxeko hizkuntza euskara eta gaztelania

*H1 Gaztelania* = Lehen hizkuntza gaztelania (nagusiki edo bakarrik)

*H1 biak* = Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania

Azkenik, formula honen bidez kalkulatu dugu **HZ-035: Beste hizkuntzen jarraitutasunaren eta erakarpenaren balantzea**:

$$EE_{beste hizkuntzak} - H1_{beste hizkuntzak}$$

*EE beste hizkuntzak* = Etxeko hizkuntza beste hizkuntza batzuk (nagusiki edo bakarrik)

*H1 beste hizkuntzak* = Lehen hizkuntza beste hizkuntza batzuk (nagusiki edo bakarrik)

Hiru adierazle horien emaitzak bat etorriko dira hizkuntza bakoitzaren irabazi-galeren azterketan kalkulatu ditugun ordezkapen-saldo garbiekin (garrantzirik gabeko alde txikiak daude bi kalkuletan T.51. taulako oharrean azaltzen den bezala).

T.51. TAULA: HIZKUNTZEN JARRAITUTASUNAREN ETA ERAKARPENAREN BALANTZEA ETA BIZI-INDARRAREN INDIZEA. HEGOALDEA, 1991-2011 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
	(kop)	(kop)	(kop)	(%)	(%)	(%)
<b>Lehen hizkuntzan hizkuntza bakoitzak izan zuen pisuaren estimazioa (haztatuta, Denbora Osoko Hiztunen -DOH- kalkulua absolututan)</b>						
Euskarak	491.448	474.684	483.503	19,6	18,8	18,2
Gaztelaniak	1.980.695	1.998.595	2.060.044	79,0	79,3	77,5
Beste hizkuntzek	34.271	46.424	115.251	1,4	1,8	4,3
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.506.414</b>	<b>2.519.703</b>	<b>2.658.798</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Etzeko erabileran hizkuntza bakoitzak duen pisuaren estimazioa (haztatuta, DOH kalkulua absolututan)</b>						
Euskarak	394.120	392.685	395.087	15,7	15,6	14,9
Gaztelaniak	2.100.534	2.104.873	2.194.365	83,8	83,5	82,5
Beste hizkuntzek	11.760	22.146	69.155	0,5	0,9	2,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.506.414</b>	<b>2.519.703</b>	<b>2.658.606</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-033, 034, 035: Ordezkapen-saldo garbiak; edo "Hizkuntza bakoitzaren jarraitutasun eta erakarpenaren balantzea" (EE-H1)</b>						
HZ-033: Euskara	-97.328	-82.000	-88.417	-3,9	-3,3	-3,3
HZ-034: Gaztelania	119.839	106.278	134.321	4,8	4,2	5,1
HZ-035: Beste hizkuntzak	-22.511	-24.278	-46.096	-0,9	-1,0	-1,7
<b>HZ-036, 037, 038: Hizkuntza bakoitzaren bizindarraren indizea (EE/H1)</b>						
HZ-036: Euskara	0,802	0,827	0,817			
HZ-037: Gaztelania	1,061	1,053	1,065			
HZ-038: Beste hizkuntzak	0,343	0,477	0,600			

**Iturria:** egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**Oharra:** hizkuntzen ordezkapen-saldo garbian ("hizkuntza bakoitzaren jarraitutasun eta erakarpenaren balantzea" ere deiturikoa) alde txikiak daude taula honetako eta T.49. taulako datuen artean. Alde horien arrazoiak honako hau da: taula hartako datuak H1 eta EE bi aldagaietako edozeinetan balio galduak dituzten erregistroak aintzat hartu gabe kalkulatu dira; hemengo taulan, berriz, aintzat hartu dira gutxienez bi aldagaietako batean informazio baliagarria duten erregistroak. Esan bezala, hala ere, oso alde txikiak daude bi tauletako balioen artean.

### 9.6.3.9. Hizkuntzen bizi-indarraren indizea

Etzeko erabilera eta lehen hizkuntza aintzat hartuta, hizkuntzen (berez, hizkuntza-komunitateen) bizi-indarraren indizeak kalkulatuko ditugu. Indize hori ere Kanada eta Quebecen erabili ohi den *Indice de vitalité linguistique* (Castonguay, 2005a: 11) delakoaren ereduari jarraituta sortuko dugu<sup>177</sup>. Kasu honetan, hizkuntza bat etxean darabiltenak lehen hizkuntzatzat izan dutenekin zatiuta kalkulatu da indizea.

Quebec eta Kanadako interpretazio-irizpideei jarraituta, emaitzak interpretatzeko orduan, 1,00ek jarraitutasuna adieraziko du, 1,00 baino kopuru handiagoak bizi-indar handia erakutsiko du eta 1,00etik beherakoak bizi-indar txikia (Castonguay, 2005a: 11).

Hona hemen formulak (emaitzak T.51. taulan daude ikusgai).

<sup>177</sup> Indize honek izen bat baino gehiago jaso izan ditu, hala nola *Indice de continuité linguistique par langue maternelle* (CLF-Conseil de la Langue Française, 1992) eta *Taux de continuité linguistique, TCL* (Floch, Durand eta Abou-Rjeili, 2018: 39).

**HZ-036: Euskararen bizi-indarraren indizea** honela kalkulatu dugu: etxeko erabileran euskarak duen pisua lehen hizkuntzan euskarak duen pisuarekin zatituta. Hemen formula:

$$\text{Euskararen bizindarraren indizea} = \frac{\text{EE euskaraz \%}}{\text{H1 euskaraz \%}}$$

*EE euskaraz %* = Euskararen pisua etxeko erabileran (%)

*H1 euskaraz %* = Euskararen pisua lehen hizkuntzan (%)

Hemen **HZ-037: Gaztelaniaren bizi-indarraren indizea** kalkulatzeko formula:

$$\text{Gaztelaniaren bizindarraren indizea} = \frac{\text{EE gaztelaniaz \%}}{\text{H1 gaztelaniaz \%}}$$

*EE Gaztelaniaz %* = Gaztelaniaren pisua etxeko erabileran (%)

*H1 Gaztelaniaz %* = Gaztelaniaren pisua lehen hizkuntzan (%)

Eta hemen, azkenik, **HZ-038: Beste hizkuntza batzuen bizi-indarraren indizea** kalkulatzeko formula:

$$\text{Beste hizkuntzen bizindarraren indizea} = \frac{\text{EE beste hizkuntzetan \%}}{\text{H1 beste hizkuntzetan \%}}$$

*EE beste hizkuntza batzuetan %* = Beste hizkuntza batzuen pisua etxeko erabileran (%)

*H1 beste hizkuntza batzuetan %* = Beste hizkuntza batzuen pisua lehen hizkuntzan (%)

## 9.7. FAMILIEN EZAUGARRIETAN OINARRITZEN DIREN ADIERAZLEAK (ETXEKO TESTUINGURU SOZIOINGUISTIKOAREN ADIERAZLEAK)

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabiler(a)k	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguitikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

### 9.7.1. Hitzunen familia-testuinguru soziolinguitikokoaren azterketarantz

Atal teorikoan testuinguru demolinguitikoa aritu garenean azaldu dugun bezala, hitzunen harreman-sarearen nolokotasunak zerikusi handia du hizkuntza gutxituen

erabilerarekin. Gure kasuan, euskara erabiltzeko aukera ere norbere harreman-sare horren ezaugarrien araberakoa da aurrez aurreko harremanetan (ezin euskaraz aritu hizkuntza neurri bateraino ez dakienarekin).

Horiek horrela, testuinguru demolinguistikoaren alderdi mikroenari, hiztunengandik hurbilekoenari helduko diogu puntu honetan, eta hiztunaren hurbileko sarearen barruan garrantzi berezia duen familiari buruzkoa landuko dugu. Teoria soziolinguistikoak funtsezkotzat jotzen duen sozializazio-prozesuaren agertoki nagusietako bat dugu familia, nagusia ez bada. Eta zentsuek aukera eskaintzen dutenez hiztunak era isolatuan ez ezik familiak ere lantzeko, horretaz baliatuko gara orriotan, honako helburu metodologiko honen bila:

❖ *Etxebizitza berean bizi diren pertsonen ezaugarrietatik abiatuta, adierazleak sortzea ezaugarri soziolinguistikoaren arabera familia multzoak definitzeko, eta ezaugarri horiek etxebizitza bakoitzeko hiztun guztiei esleitzeko.*

Berez gai konplexua da familia-egiturak eta horien bilakaera aztertzea. Gure gizarteetan azken hamarkadetan alor horretan gertatu diren eraldaketa handien isla ikus dezakegu zentsuetan gaiaren inguruan landu izan diren multzokatze ez oso finkoetan. Estatistika ofizialak gero eta irizpide malgu eta zabalagoak erabili izan ditu azken hamarkadetan familia zer den definitzeko. Horrela, zentsuko definizioen arabera (EUSTAT, 2021b):

Familia pertsona multzo bat da; oro har, pertsona horiek ahaidetasun-harremana izaten dute euren artean, odolezkoa edo ezkontzaren ondoriozkoa (gradua gorabehera), eta elkarrekin bizi dira etxebizitza berean. Etxebizitzan lo egiten duten mirabeak eta familia erregimenean dauden ostalariak ere familia barruan sartzen dira. Halaber, bakarrik eta pertsona bakarreko familia gisa bizi diren pertsonak ere sartzen dira definizio honetan.

Praktikan, etxebizitza berean bizi den pertsona multzoak osatuko du guretzat, operatiboki, familia. Gu ikuspegi horretatik abiatuko gara, eta azpikapitulu honetan, familia-etxebizitzetan bizi diren herritar guztiek osatuko dute gure azterketa-unibertsoa, bakarrik bizi direnek barne. Gure azalpenetan “etxeak” eta “familia” sinonimo gisa erabiliko ditugu.

Ohar garrantzitsu bat egin beharrea gaude familien ezaugarriari buruzko adierazleak aurkezten hasi aurretik: azpikapitulu honetako tauletan 1981-1991-2001eko datuak aurkeztuko ditugu, ez ordea 2011koak. Izan ere, 2011ko zentsutik aurrera EUSTATEk erabili izan dituen inputazio-irizpideak direla medio<sup>178</sup>, adierazle horiek urte horri buruz ematen duten informazioa EZ da fidagarria. Ondorioz, 2011ko mikrodaturetatik landu ditugun datuak ez ditugu erakutsiko tauletan. Horrekin batera, adierazle horien datuak EZ ditugu atal enpirikoan aztertuko. Hala ere, hutsune horrek ez du adierazleen definizio-lana baliogabetzen; adierazleak berez egokiak direla deritzogu (eta 1981-2001 bitarteko emaitzak fidagarriak). Etorkizunean zentsuak eraikitze erabiltzen diren prozedurek eta inputazio-irizpideek modurik emango balute, adierazle horiek

<sup>178</sup> Inputazio-irizpide horien artean ez dira aintzat hartu familiakideen ezaugarriak.

zentsu berri horietako datuekin eguneratu ahal izango lirateke, eta datu berri horiek aldaragarriak izango lirateke 1981-1991-2001ekoekin.

### 9.7.2. Etxekoen osaera, euskaldunen dentsitatearen arabera

Etxe bakoitzean bizi direnen hizkuntza-ezaugarriak aintzat hartuta, hainbat adierazle sortuko dugu. Horietako lehena **HZ-101: Etxeen osaera, euskaraz dakitenek duten pisuaren arabera (%)** adierazlea dugu. Etxe bakoitzerako, 5 urte edo gehiagoko hiztunak hartu eta euskaldunek guztiekiko osatzen duten tasa kalkulatu dugu, formula honen arabera:

$$\text{Euskaldunak etxean \%} = 100 * \text{Euskaldunak etxean/hiztunak etxean}$$

Tasa horrek 0 eta 100 bitarteko balioa hartuko du etxe guztietarako, eta %ak zera adieraziko du: etxeko 5 urtetik gorako hiztunen artean zenbatekoa den euskaldunen %a. Argitu dezagun adierazle honetarako erdaldun hartzaileak (euskara ulertu bai baina hitz egiteko gai ez direnak) erdaldunekin bilduko ditugula.

Aurreko aldagai kuantitatibotik abiatuta, **HZ-102: Etxeen osaera, euskaraz dakitenek duten pisuaren arabera (multzotan)** adierazlea sortuko dugu. Honako multzo hauetan bilduko ditugu familiak, euren osaeran euskaldunek duten pisuaren arabera:

- Guztiak euskaldunak (%100)
- Euskaldunak erdiak baino gehiago (%50,1-%99,9)
- Euskaldunak erdiak (%50)
- Euskaldunak erdiak baino gutxiago (%0,1-%49,9)
- Euskaldunik ez (%0)

Kasu honetan, aldagai kuantitatiboak birkodetzeko erabili ohi dugun irizpidearen orde<sup>179</sup>, honako hau erabili dugu, gehienbat bi muturrak, %0a eta %100a, argi edukitzea komeni zitzaigulako. Birkodetze horren emaitzak T.52. taulan aurkezten ditugu.

---

<sup>179</sup> Multzoen arteko mugak kopuru hauetan jarri ditugu ehunekoetan oinarritzen diren adierazleen birkodetze gehienetan: 0-20-40-60-80-100.

**T.52. TAULA: HIZTUNAK, BIZI DIREN ETXEAN EUSKALDUNEK OSATZEN DUTEN %AREN ARABERA. HEGOALDEA, 1981-2011 (HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK)**

	1981	1991	2001	2011	1981	1991	2001	2011
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	(%)	(%)	(%)	(%)
<b>Hiztun guztiak:</b>								
Guztiak euskaldunak (%100)	341.384	360.861	378.882		13,4	14,1	14,7	
Euskaldunak erdiak baino gehiago (%50,1-%99,9)	102.205	145.019	190.368		4,0	5,7	7,4	
Euskaldunak erdiak (%50)	68.119	117.484	223.738		2,7	4,6	8,7	
Euskaldunak erdiak baino gutxiago (%0,1-%49,9)	184.196	256.012	340.870		7,2	10,0	13,3	
Euskaldunik ez (%0)	1.859.554	1.677.742	1.435.089		72,8	65,6	55,9	
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.555.458</b>	<b>2.557.118</b>	<b>2.568.947</b>	<b>2.732.351</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Euskaldunak:</b>								
Guztiak euskaldunak (%100)	338.672	357.654	372.941		68,6	60,6	52,0	
Euskaldunak erdiak baino gehiago (%50,1-%99,9)	73.670	103.059	132.714		14,9	17,5	18,5	
Euskaldunak erdiak (%50)	33.722	58.329	110.512		6,8	9,9	15,4	
Euskaldunak erdiak baino gutxiago (%0,1-%49,9)	46.437	69.413	97.566		9,4	11,8	13,6	
Euskaldunik ez (%0)	1.239	1.941	2.877		0,3	0,3	0,4	
<b>GUZTIAK</b>	<b>493.740</b>	<b>590.396</b>	<b>716.610</b>	<b>871.081</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharrak: ez dugu 2011. urterako daturik aurkeztu, urte horretako zentsuan EUSTATEk erabilitako inputazio-irizpideak direla medio, adierazle horiek urte horri buruz ematen duten informazioa EZ delako fidagarria. Euskaldunik gabeko (%0) etxeetan azaltzen zaizkigun hiztun euskaldunak dira, beraien etxean 5 urtetik gorako euskaldunik ez egon arren, zentsua egiterakoan “euskalduntzat” sailkatu diren 2-4 urteko haurrak. Bestalde, “guztiak euskaldunak” multzoan, hiztun guztien artean hiztun gehiago azaltzen dira euskaldunen artean baino; aldea euskaldunetz inguratuta bizi diren baina oraindik euskaraz ondo ez dakiten (eta, beraz, euskaldun gisa zenbatzen ez diren) 5 urte arteko haurrek osatzen dute.

### 9.7.3. Etxe euskaldunetako helduen artean euskaldun zaharren dentsitatea

Bost urtetik gorako hiztun guztiak euskaldunak dituzten etxeetan, hiztun helduen artean euskaldun zaharrek zenbateko ehunekoa osatzen duten kalkulaturik, **HZ-103: Etxe euskaldunetako helduen artean euskaldun zaharren dentsitatea (%)** adierazlea sortu dugu, honako formula hau aplikaturik:

$$\text{Euskaldun zaharrak \%} = 100 * (\text{Euskaldun zaharrak etxean} + 0,5 * \text{jatorrizko elebidunak etxean}) / \text{Euskaldunak etxean}$$

Tasa horrek 0 eta 100 bitarteko balioa hartuko du etxe euskaldun guztietarako, eta %ak zera adieraziko du: etxeeko helduen artean “euskaldun zaharrek” duten pisua %etan adierazita (euskaldun zaharrei pisu osoa eta jatorrizko elebidunei pisu erdia emanda).

Zehaztu dezagun, adierazle hau eraikitzeko, 30 urtetik gorakoak hartu ditugula aintzat, irizpide horrekin etxeeko gurasoak eta hortik gorakoak belaunaldiak bildu nahirik. Etxeren batean 30 urteko edo gehiagoko hiztun bakarra ere ez denean, 18tik gorakoak hartu ditugu kontuan.

Aurreko aldagai kuantitatibotik abiatuta, **HZ-104: Etxe euskaldunetako helduen artean euskaldun zaharren dentsitatea, multzotan** adierazlea sortuko dugu. Honako multzo hauek bilduko ditugu familia euskaldunak, bertako helduen artean “euskaldun zaharrek” duten pisuaren arabera:

- Etxeko helduen artean guztiak euskaldun zaharrak
- Etxeko helduen artean euskaldun zaharrak eta berriak
- Etxeko helduen artean guztiak euskaldun berriak

**T.53. TAULA: GUZTIAK EUSKALDUNAK DIREN ETXEETAN BIZI DIREN HIZTUNAK, ETXEKO HELDUEN ARTEAN EUSKALDUN ZAHARRAK ETA BERRIAK ZENBAT DIREN AINTZAT HARTUTA. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1991-2011**

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
	Kop.	Kop.	Kop.	(%)	(%)	(%)
Helduen artean guztiak euskaldun zaharrak	320.018	294.496		88,7	77,8	
Helduen artean euskaldun zaharrak eta berriak	29.552	52.374		8,2	13,8	
Helduen artean guztiak euskaldun berriak	11.216	31.573		3,1	8,3	
<b>GUZTIAK (denak euskaldunak etxean)</b>	<b>360.786</b>	<b>378.443</b>		<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: ez dugu 2011. urterako daturik aurkeztu, urte horretako zentsuan EUSTATEk erabilitako inputazio-irizpideak direla medio, adierazle horiek urte horri buruz ematen duten informazioa EZ delako fidagarria.

#### 9.7.4. Etxekoen osaera, hizkuntza-gaitasuna eta helduen lehen hizkuntza aintzat hartuta

Etxeen oinarriko profil soziolinguistikoa osatzeko, jada aurkeztu ditugun bi aldagaiak uzartu eta **HZ-105: Etxeen osaera, etxekoen hizkuntza-gaitasuna eta helduen lehen hizkuntza aintzat hartuta** adierazlea sortuko dugu. Honako kategoria hauek izango ditu adierazle berriak:

- Guztiak euskaldunak (%100) eta helduen artean guztiak euskaldun zaharrak
- Guztiak euskaldunak (%100) eta helduen artean euskaldun zaharrak eta berriak
- Guztiak euskaldunak (%100) eta helduen artean guztiak euskaldun berriak
- Euskaldunak erdiak baino gehiago (%51-%99)
- Euskaldunak erdiak (%50)
- Euskaldunak erdiak baino gutxiago (%1-%49)
- Euskaldunik ez (%0)



**T.54. TAULA: HIZTUNAK, BIZI DIREN ETXEAN EUSKALDUNEK OSATZEN DUTEN %AREN ARABERA, ETA GUZTIAK EUSKALDUNAK DIREN ETXEETAN, HELDUEN ARTEAN EUSKALDUN ZAHARRAK ETA BERRIAK ZENBAT DIREN AINTZAT HARTUTA. HEGOALDEA, 1981-2011 (HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK)**

	1981	1991	2001	2011	1981	1991	2001	2011
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	(%)	(%)	(%)	(%)
<b>Hiztun guztiak:</b>								
Guztiak euskaldunak...	341.384	360.786	378.443		13,4	14,1	14,7	
...eta helduen artean guztiak euskaldun zaharrak		320.018	294.496			12,5	11,5	
...eta helduen artean euskaldun zaharrak eta berriak		29.552	52.374			1,2	2,0	
...eta helduen artean guztiak euskaldun berriak		11.216	31.573			0,4	1,2	
Euskaldunak erdiak baino gehiago (%51-%99)	102.205	145.019	190.368		4,0	5,7	7,4	
Euskaldunak erdiak (%50)	68.119	117.484	223.738		2,7	4,6	8,7	
Euskaldunak erdiak baino gutxiago (%1-%49)	184.196	256.012	340.870		7,2	10,0	13,3	
Euskaldunik ez (%0)	1.859.554	1.677.742	1.435.089		72,8	65,6	55,9	
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.555.458</b>	<b>2.557.043</b>	<b>2.568.508</b>	<b>2.731.889</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Euskaldunak:</b>								
Guztiak euskaldunak...	338.672	357.580	372.503		68,6	60,6	52,0	
...eta helduen artean guztiak euskaldun zaharrak		317.449	290.695			53,8	40,6	
...eta helduen artean euskaldun zaharrak eta berriak		29.157	51.048			4,9	7,1	
...eta helduen artean guztiak euskaldun berriak		10.974	30.760			1,9	4,3	
Euskaldunak erdiak baino gehiago (%51-%99)	73.670	103.059	132.714		14,9	17,5	18,5	
Euskaldunak erdiak (%50)	33.722	58.329	110.512		6,8	9,9	15,4	
Euskaldunak erdiak baino gutxiago (%1-%49)	46.437	69.413	97.566		9,4	11,8	13,6	
Euskaldunik ez (%0)	1.239	1.941	2.877		0,3	0,3	0,4	
<b>GUZTIAK</b>	<b>493.740</b>	<b>590.322</b>	<b>716.172</b>	<b>870.622</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: ez dugu 2011. urterako daturik aurkeztu, urte horretako zentsuan EUSTATEk erabilitako inputazio-irizpideak direla medio, adierazle horiek urte horri buruz ematen duten informazioa EZ delako fidagarria.

### 9.7.5. Etxekoen euskararen batez besteko erabilera

Zentsuetan etxeko kide bakoitzak etxean egiten duen erabilerari buruzko informazioa jasotzen da. Adierazle horrekin, etxeko hiztun guztien erabileran euskarak duen pisuaren batez bestekoa aterako dugu: **HZ-106: Etxekoek etxean batez beste erabiltzen duten euskara (%)**.

Adierazle hori kalkulatzeko orduan, 2 urtetik gorako erabilera hartu dugu kontuan. Ondoren, adierazleak hartzen duen balioa etxekide guztiei esleitu diegu.

Adierazle horretatik abiatuta, beste bi adierazle sortu ditugu, hemen azaltzen diren multzokatzeak eginda:

#### **HZ-107: Etxekoek etxean batez beste erabiltzen duten euskara (5 multzo orekatutan)**

- %80-%100
- %60-%79,9
- %40-%59,9
- %20-%39,9
- %0-%19,9

**HZ-108: Etxekoek etxean batez beste erabiltzen duten euskara (muturreko egoerak aztertzea ahalbidetzen diguten 5 multzotan)**

- Dena euskaraz (%100)
- %60-%99,9
- %40-%59,9
- %1-%39,9
- Euskararik ez (%0)

Bi adierazleon emaitzak T.55. eta T.56. tauletan ikus daitezke.

**T.55. TAULA: HIZTUNAK, ETXEKOEK ETXEAN BATEZ BESTE ERABILTZEN DUTEN EUSKARAREN ARABERA (5 MULTZO OREKATUTAN). HEGOALDEA, 1991-2011 (HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK)**

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
	Kop.	Kop.	Kop.	(%)	(%)	(%)
<b>Hiztun guztiak:</b>						
Euskaraz %80-%100	299.233	283.001		11,7	11,0	
%60-%79,9	26.005	41.876		1,0	1,6	
%40-%59,9	124.081	118.946		4,9	4,6	
%20-%39,9	79.650	96.576		3,1	3,8	
%0-%19,9	2.028.173	2.028.548		79,3	79,0	
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.557.142</b>	<b>2.568.947</b>	<b>2.731.093</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Euskaldunak:</b>						
Euskaraz %80-%100	292.781	275.431		49,6	38,4	
%60-%79,9	19.662	33.191		3,3	4,6	
%40-%59,9	95.200	90.803		16,1	12,7	
%20-%39,9	40.941	53.811		6,9	7,5	
%0-%19,9	141.815	263.374		24,0	36,8	
<b>GUZTIAK</b>	<b>590.399</b>	<b>716.610</b>	<b>870.875</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: ez dugu 2011. urterako daturik aurkeztu, urte horretako zentsuan EUSTATEk erabilitako inputazio-irizpideak direla medio, adierazle horiek urte horri buruz ematen duten informazioa EZ delako fidagarria.

**T.56. TAULA: HIZTUNAK, ETXEKOEK ETXEAN BATEZ BESTE ERABILTZEN DUTEN EUSKARAREN ARABERA (MUTURREKO EGOERAK AZTERTZEKO MODUA EMATEN DIGUTEN 5 MULTZOTAN), HEGOALDEA, 1991-2011 (HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK)**

	1991 Kop.	2001 Kop.	2011 Kop.	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)	1981-2001 aldea	Bilakaera 1981-2001 (%)
<b>Hiztun guztiak:</b>								
Dena euskaraz (%100)	277.797	258.466		10,9	10,1		-0,8	-7,4
%60-%99,9	47.441	66.411		1,9	2,6		0,7	39,3
%40-%59,9	124.081	118.946		4,9	4,6		-0,2	-4,6
%1-%39,9	107.155	156.279		4,2	6,1		1,9	45,2
Euskararik ez (%0)	2.000.668	1.968.845		78,2	76,6		-1,6	-2,0
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.557.142</b>	<b>2.568.947</b>	<b>2.731.094</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>		
<b>Euskaldunak:</b>								
Dena euskaraz (%100)	275.627	255.098		46,7	35,6		-11,1	-23,7
%60-%99,9	36.816	53.524		6,2	7,5		1,2	19,8
%40-%59,9	95.200	90.803		16,1	12,7		-3,5	-21,4
%1-%39,9	49.065	74.511		8,3	10,4		2,1	25,1
Euskararik ez (%0)	133.691	242.674		22,6	33,9		11,2	49,5
<b>GUZTIAK</b>	<b>590.399</b>	<b>716.610</b>	<b>870.876</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>		

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: ez dugu 2011. urterako daturik aurkeztu, urte horretako zentsuan EUSTATEk erabilitako inputazio-irizpideak direla medio, adierazle horiek urte horri buruz ematen duten informazioa EZ delako fidagarria.

### 9.7.6. Etxeko helduen jatorrizko nagusitasun-eremuaren euskalduntasunari buruzkoak

9.8.3. puntuan, hiztunen jaiotza-garaia eta jaioterriaren arabera 'HZ-210: *Hiztunen jaiotza-garaian/udalerrian jaiotzen zirenen haurren lehen hizkuntzan euskaraz izan zuen pisua (%)*' adierazlea sortuko dugu. Horretan oinarrituta, etxeko helduen osaera aztertuko dugu, honako adierazle berri hauen bidez:

**HZ-109: Etxeko helduen artean, heldu horiek jaiotzen zirenen garaian/udalerrian haur txikiekiko erabileran euskaraz izan zuen batez besteko pisua (%)**

**HZ-110: Etxeko helduen artean, heldu horiek jaiotzen zirenen garaian/udalerrian haur txikiekiko erabileran euskaraz izan zuen pisua (multzotan).** Aldagai hori aurrekoan oinarrituko da, eta honela multzokatuko ditugu balioak:

- %80-%100
- %60-%79,9
- %40-%59,9
- %20-%39,9
- %0-%19,9. Eta multzo honen barruan, bi azpimultzo:
  - %2-%19,9
  - %0-%1,9

Adierazle horiek eraikitzeko, 30 urtetik gorako hiztunak hartu ditugu aintzat (eta 18tik gorakoak etxe horretan 30 urtetik gorakorik ez badago). Adierazle honen emaitza diren multzoei “jatorrizko nagusitasun-eremuak” ere esango diegu.

**T.57. TAULA: HIZTUNAK, EUREN ETXeko HELDUEN JAIOTZA-GARAIAN-UDALERRIAN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAREN BATEZ BESTEKOAREN ARABERA. HEGOALDEA, 1991-2011 (HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK)**

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
	Kop.	Kop.	Kop.	(%)	(%)	(%)
<b>Hiztun guztiak:</b>						
Euskararen erabilera %80-%100	244.784	184.997		9,6	7,2	
%60-%79,9	115.114	125.355		4,5	4,9	
%40-%59,9	170.177	176.590		6,7	6,9	
%20-%39,9	217.479	256.147		8,5	10,0	
Euskararen erabilera %0-%19,9	1.808.213	1.822.856		70,8	71,0	
%2-%19,9	663.354	832.154		26,0	32,4	
%0-%1,9	1.144.859	990.702		44,8	38,6	
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.555.767</b>	<b>2.565.945</b>	<b>2.727.944</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	
<b>Euskaldunak:</b>						
Euskararen erabilera %80-%100	226.685	173.251		38,4	24,2	
%60-%79,9	87.583	100.885		14,8	14,1	
%40-%59,9	90.522	108.023		15,3	15,1	
%20-%39,9	65.740	99.604		11,1	13,9	
Euskararen erabilera %0-%19,9	119.614	233.933		20,3	32,7	
%2-%19,9	67.066	140.057		11,4	19,6	
%0-%1,9	52.548	93.876		8,9	13,1	
<b>GUZTIAK</b>	<b>590.144</b>	<b>715.696</b>	<b>869.687</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: ez dugu 2011. urterako daturik aurkeztu, urte horretako zentsuan EUSTATEk erabilitako inputazio-irizpideak direla medio, adierazle horiek urte horri buruz ematen duten informazioa EZ delako fidagarria.

## 9.8. GIZABANAKOAK BIZI DIREN (EDO JAIO IZAN ZIREN) UDALERRIETAKO EUSKARAREN ERABILERAN OINARRITZEN DIREN ADIERAZLEAK

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolingüistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

## 9.8.1. Helburuak, iturriak, azterketa-unitatea

### 9.8.1.1. Zergatik eta zertarako landu informazio demolinguistikoa maila lokalean

Atal teorikoan hizkuntza gutxituen egoera soziala definitzerakoan, ardatzetako bat "testuinguru demolinguistikoa" izendatu dugu. Ikusi dugun bezala, hizkuntza horren hitunek lurraldean duten dentsitatea alderdi garrantzitsua da hizkuntza horren egoera zehazterakoan. Ezagutzaren dentsitatea ez ezik, ordea, erabilera-dentsitatearen garrantzia ere azpimarratu dugu, dentsitate horren eskutik joan ohi baita, ezagutzaren eskutik baino gehiago, hizkuntza baten eta bestearen nagusitasun soziala. Azken alderdi horrekin estuki loturik, arnaguneen garrantziaz ere aritu gara. Horiek horrela, alderdi hauei guztiei arreta jartzea nahitaezkoa da hizkuntza gutxitu baten egoera zertan den aztertu nahi denean.

Demolinguistikatik gai horiek guztiak lantzeko, ezinbestean, maila lokalean hizkuntzak bizi duen egoerari buruzko informazio xehea behar da. Laster azalduko dugun bezala, Hego Euskal Herrian badago nahiko datu informazio-behar hori asetzeko.

Hurrengo orriotan, euskarak lurraldeetan duen nagusitasuna finkatzeko adierazleak sortuko ditugu. Zertarako? Batetik, testuinguru demolinguistikoen arabera Euskal Herriak zer-nolako osaera duen aztertzeko. Eta, bestetik, bizi diren testuinguru demolinguistikoen arabera hitzunik multzokatuta, ezaugarri eta prozesu soziolinguistikoen azterketa egiterakoan, aldagai aske gisa erabiltzeko. Zehazki, honako bi helburu zehatz hauek planteatu ditugu hitzunik bizi diren udalerrien zentsuetako hizkuntza-informazioarekin egingo dugun lanketarako:

- ❖ *Zentsuetan dauden galdera linguistikoetatik abiatuta, udalerririk euskalduntasun-mailaren arabera sailkatzeko adierazleak sortzea.*
- ❖ *Zentsuetan galdetzen diren hiru gaiak (euskararen ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera) bakoitza zertarako izan daitekeen egoki erabakitzeko gogoeta teoriko-metodologikoa egitea, udalerririk euskararen nagusitasun-maila hobeto zein adierazlek ordezkari dezakeen zehazten ahaleginduz.*

### 9.8.1.2. Maila lokalean euskararen egoeraren berri eman diezaguketen iturri estatistikoak

Zein da ingurune lokal batzuen eta besteen euskalduntasunaz eskura dugun informazio estatistikoa? Unibertso osoari buruzko informazioa biltzen duten iturriek edo lagin oso handietan oinarritzen direnek bakarrik eskaini ahal izango digute maila lokaleko informazio baliagarria. Euskararen egoera soziala ezagutzeko ezinbesteko iturria den Inkesta Soziolinguistikoa, laginen neurriak direla eta, ez dezake eskaini udalerririk edo eskualdekerako informaziorik. Aitzitik, baditugu bi iturri nagusi Euskal Herrian maila lokaleko azterketak egiteko informazioa eskaintzen digutenak:

- Biztanleria-zentsuak ditugu Hegoaldean (ez da euskarari buruzko daturik jasotzen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan INSEEk egiten dituen zentsuetan). Bertan, hitzunen euskarazko ezagutzari buruz, lehen hizkuntzari

buruz eta etxeko erabileraz galdetu izan da. Ondorioz, zentsuei esker, datu demolinguistiko xeheak ditugu Hegoaldeko udalerrri, eskualde eta herrialde guztietarako.

- Kale-erabileraren neurketen datuak ere baditugu Euskal Herri osoko hainbat udalerritan. HEKN zentsu-erako eragiketa ez den arren, darabiltzan lagin-neurri oso handiek aukera eskaintzen dute herrialdez azpiko informazio adierazgarria ustiatzeko. Arazo praktiko garrantzitsu bat dugu, ordea, kale-neurketen informazioarekin: neurketa bakoitzean, herri batzuk bakarrik neurtzen dira (ez herri guztiak) eta neurtzen diren herrien zerrenda aldatu egiten da urtetik urtera. Horiek horrela, operatiboki, kale-neurketen informaziotik abiatuta, lurraldean euskarak duen indarraren ikuspegi orokorra eskaintzeko bide bakarra dugu: neurtu ez diren udalerriei kale-erabileraren balio bat esleitzea. Ahalegin horretan saiatuko gara aurrerago, HEKNren kapituluan, erregresio-teknikak erabiliz.

Bi iturri horietaz gain, eskola-giroan EAEko eta Nafarroa Garaiko haurren euskararen erabilera sakon aztertzen duten *Arrue* eta *Izaskun Arrue* ikerketak ere baliagarriak izan daitezke helburu horretarako. Zentsu-erako izaera duten eragiketa horiek orain arteko emaitza-txostenetan udalerrikako datuak argitaratu ez dituzten arren, ikerketaren diseinua kontuan hartuta (lagin osoari egiten zaion inkesta), badu potentzialitatea udalerrri-mailako informazio baliagarria eskaintzeko Hegoaldeko udalerrri askotarako (udalerrian bertan ikastetxea dutenetarako). Guk, ordea, ez ditugu *Arrue* eta *Izaskun Arrue* ikerketen datuak erabiliko, eta beste bi iturriekin (zentsuak eta HEKN) lan egingo dugu. Atal honetan, aldagaietan ugariena den eta desagregazio-mailan informazio xeheena eskaintzen diguten Hegoaldeko Zentsuak landuko ditugu.

#### 9.8.1.3. Maila lokala: udalerrriak eta udalerriz azpiko unitateak

Lurraldean euskarak hainbat aldagairen arabera duen pisua aztertzeko sortuko ditugun adierazleetan udalerrria izango da gure azterketa-unitatea. Badakigu aukera metodologiko honek akatsa ere berarekin dakarrela, hainbat kasutan udalerrria oso zabala eta heterogenoa baita errealitate soziolinguistikoari buruz ari garenean; ez baita gauza bera, Donostiako udalerrriaren adibidea hartuta, Igeldoko edo Añorgako egoera soziolinguistikoa eta Altza edo Bidebietakoa. Agerikoa da auzo horietako hiztun guztiei udalerriko datu orokor bera esleituta, Donostiako datua alegia, hurbilpen orokorregia eta nabarmen hobetzeko modukoa egiten ari garela hiztunen testuinguru lokala deskribatzerakoan.

Berez, egokiena, udalerrri handietan gutxienez, udalerriz azpiko unitateekin lan egitea izango litzateke. Asmo hori egingarria da berez, denbora-serieak sortzeko hainbatetan konponbide zaileko arazoak sortuko liratekeen arren. Baina, berez, zentsuekin eta kale-neurketekin berariazko lanketa bat eginda, udalerriz beherako unitateetarako (auzo, herri, kontzeju edo bestelako entitateak) informazioa landu ahalko litzateke. Bide hori hartzeak, baina, lan honetan jarri ditugun helburuak gaintitzen ditu. Udalerrri-mailan landuko ditugu, hortaz, testuinguru demolinguistikoari buruzko adierazleak; aurrera begirako hobekuntza-aukera aipagarria da udalerriz azpiko informazioa ustiatzea, zalantzarik gabe.

### 9.8.2. Hiztuna bizi den udalerriko ezaugarri demolinguistikoetan oinarritzen diren adierazleak

Hiru datu multzo ditugu eskura zentsuetan Hegoaldeko hiztunak bizi diren inguru lokala ezaugarritzeko balio diezaguketenak:

- Udalerriko hiztunen hizkuntza-gaitasuna (HG)
- Udalerriko hiztunen lehen hizkuntza (H1)
- Udalerriko hiztunen etxeko erabilera (EE)

Ondorengo puntuetan, hiru gai horien inguruko adierazleak aurkeztuko ditugu. Aurreratu dezagun hiru datu multzoak direla garrantzitsuak eta kontuan hartzekoak udalerrri baten errealitatea zertan den azaltzeko. Adierazleak aurkezteaz gain, saiakera berezia egingo dugu adierazle horietako bakoitzak eskaintzen dituen aukeren eta dituen mugen inguruko gogoeta egiteko ere. Eta, bereziki, adierazle bakoitzak udalerrri-mailan euskarak izan dezakeen nagusitasun orokorra ordezkatzeko izan dezakeen egokitasunaz hausnartzeko<sup>180</sup>.

#### 9.8.2.1. Hiztuna bizi den udalerriko hiztunen hizkuntza-gaitasunari buruzko adierazleak; gune soziolinguistikoak

Lehenik eta behin, zentsuak ematen dizkigun kopuru absolutuetatik abiatuta, udalerrri bakoitzak duen gaitasunezko dentsitatea kalkulatuko dugu **HZ-201: Hiztuna bizi den udalerrian euskaldunek duten pisua (%)** adierazlean, honako formula honen bidez:

$$Euskaldunen\ pisua(\%) = \frac{100 * Euskaldunak}{hiztun\ guztiak}$$

Formula horrek balio bat (ehuneko bat) emango digu urte eta udalerrri bakoitzerako. Hortik aurrera, bi multzokatze landuko ditugu: multzokatze xehe bat (**HZ-202: Hiztuna bizi den udalerrian euskaldunek duten pisuaren araberako multzokatze xehea (10 multzotan)**), udalerrriak hamar multzotan sailkatuz, eta multzokatze orokorrago bat, hamar multzo horiek bostera ekarriz: **HZ-203: Hiztuna bizi den udalerrian euskaldunek duten pisua B (5 multzotan), gune soziolinguistikoak.**

---

<sup>180</sup> Sinonimotzat erabiliko ditugu udalerrien euskalduntasun-/erdalduntasun-maila eta hizkuntzen nagusitasun-maila.

**T.58. TAULA: UDALERRIETAN EUSKALDUNEK DUTEN PISUAN OINARRITUTA LANDU DITUGUN UDALERRIEN MULTZOKATZEAK: MULTZOKATZE XEHEA ETA GUNE SOZIOINGUISTIKOAK.**

<b>Euskaldunen pisuaren araberako multzokatze xehea (HZ-202)</b>	<b>Gune soziolinguistikoak (HZ-203)</b>
Euskaldunak %90-100	
Euskaldunak %80-89,9	Euskaldunak %80-100
Euskaldunak %70-79,9	
Euskaldunak %60-69,9	Euskaldunak %60-79,9
Euskaldunak %50-59,9	
Euskaldunak %40-49,9	Euskaldunak %40-59,9
Euskaldunak %30-39,9	
Euskaldunak %20-29,9	Euskaldunak %20-39,9
Euskaldunak %10-19,9	
Euskaldunak %10 baino gutxiago	Euskaldunak %0-19,9

[Iturria](#): egileak landua.

Adierazle horiek bat datoz eremu edo gune soziolinguistikoen eraikuntza-irizpideekin. Atal teorikoan azaldu bezala, gune soziolinguistikoekin, udalerriz udalerriz hitzunen artean euskaraz dakitenek osatzen duten ehunekoaren arabera (euskaldunen dentsitatearen arabera), udalerrriak guneetan multzokatzen dira, gune erdaldunenetarik euskaldunenetara hainbat taldetan multzokatuz. Horixe bera egin dugu guk adierazle hauekin. Ikuspegi hau zabal landu izan da gurean egiten diren eragiketa demolinguistiko nagusietan. Horrela, euskaldunek hitzun guztien artean duten pisuaren arabera eraikitako “gune soziolinguistikoa” aldagai aske gisa erabili izan da Inkesta Soziolinguistikoan, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketan, Mapa Soziolinguistikoan eta *Arruen*, besteak beste. Ikerketa horietan guztietan, aldagai indartsu gisa azaldu zaigu beti gune soziolinguistikoa hitzunen portaera, jarrera eta iritziak azaltzerakoan.

Atal teorikoan aipatu dugun bezala, gune soziolinguistikoak definitzerakoan, multzokatze-eredu ugari erabili izan dira euskal demolinguistikan. Guk bi multzokatze landuko ditugu. Hasteko, iruditzen zaigu dentsitate-mailaren arabera gurean dauden errealitateen ikuspegi aski xehea eskaintzen digula hamar multzoetako sailkapenak. Hortik abiatuta, bost multzoko sailkapena sortu dugu, orain arte erabili diren sailkapen-irizpide guztien artean 1981eko *Atlas lingüístico vascoko* multzokatze-irizpidea hobetsita (Ruiz Olabuénaga, 1984: 34), udalerrriak honela multzokatuz euskaldunen dentsitatearen arabera: %0-19,9, %20-39,9, %40-59,9, %60-79,9 eta %80-100. 8.4.3. puntuan azaldu ditugu aukera horren alde egiteko arrazoiak. Banaketarako irizpide horiek erabiliko ditugu, adierazle honetan ez ezik, baita udalerriei buruzko ezaugarriak aintzat hartzen dituzten testuinguru demolinguistikoari buruzko gainerakoetan ere.

Dakigun bezala, zentsuetako hizkuntza-gaitasunean oinarritzen diren adierazle hauek gune soziolinguistikotan sailkatzen dituzte udalerrriak. Sailkapen hori, oro har, udalerrien “euskalduntasuna/erdalduntasuna” laburbiltzeko erabili izan da. Hainbat arrazoi teoriko eta metodologiko tarteko, zalantzak ditugu udalerrien “euskalduntasuna” ordezkatzeko adierazle egokienak zentsuetako hizkuntza-gaitasunean oinarritzen diren hauek izan ote daitezkeen. Aurreraxeago, lehen hizkuntzan eta etxeko erabileran



oinarrizten diren udalerrrikako adierazleak aurkeztu ondoren, berariaz arituko gara gaiaren inguruan.

**T.59. TAULA: HIZTUNAK, BIZI DIREN UDALERRIAN EUSKALDUNEK DUTEN PISUAREN ARABERA: MULTZOKATZE XEHEA ETA GUNE SOZIOLOGIKOAK. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1981-2011**

	1981 (*) (kop)	1991 (kop)	2001 (kop)	2011 (kop)	1981 (*) (%)	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)
<b>HZ-202: Hitzuna bizi den udalerrian euskaldunek duten pisuaren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)</b>								
Euskaldunak %90-100	38.475	42.148	29.472	8.788	1,5	1,6	1,1	0,3
Euskaldunak %80-89,9	54.941	59.376	80.875	56.233	2,1	2,3	3,1	2,0
Euskaldunak %70-79,9	90.721	101.232	120.672	131.437	3,5	3,9	4,7	4,8
Euskaldunak %60-69,9	81.340	82.888	112.294	140.489	3,2	3,2	4,3	5,1
Euskaldunak %50-59,9	95.476	123.609	176.998	234.320	3,7	4,8	6,8	8,5
Euskaldunak %40-49,9	61.406	149.462	67.155	247.898	2,4	5,8	2,6	9,0
Euskaldunak %30-39,9	178.757	61.674	356.873	220.212	6,9	2,4	13,8	8,0
Euskaldunak %20-29,9	246.176	333.843	122.329	919.278	9,6	13,0	4,7	33,5
Euskaldunak %10-19,9	174.361	255.999	993.334	581.797	6,8	9,9	38,4	21,2
Euskaldunak %10 baino gutxiago	1.553.605	1.364.379	524.614	207.335	60,3	53,0	20,3	7,5
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.575.258</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.787</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-203: Hitzuna bizi den udalerrian euskaldunek duten pisua B (5 multzotan), gune soziolinguistikoak</b>								
Euskaldunak %80-100	93.416	101.524	110.347	65.022	3,6	3,9	4,3	2,4
Euskaldunak %60-79,9	172.061	184.120	232.966	271.925	6,7	7,2	9,0	9,9
Euskaldunak %40-59,9	156.882	273.071	244.153	482.219	6,1	10,6	9,4	17,5
Euskaldunak %20-39,9	424.933	395.517	479.202	1.139.490	16,5	15,4	18,5	41,5
Euskaldunak %20 baino gutxiago	1.727.966	1.620.378	1.517.948	789.132	67,1	62,9	58,7	28,7
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.575.258</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.788</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATek (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 9.8.2.2. Hitzuna bizi den udalerriko hiztunen lehen hizkuntzari buruzko adierazleak

8.4.1. puntu azaldu dugun irizpideari jarraituta, formula honen bidez kalkulatu dugu **HZ-204: Hitzuna bizi den udalerriko hiztunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua (%)** adierazlea:

$$Euskararen pisua lehen hizkuntzan(\%) = Euskaraz \% + (0,5 * Bietara \%)$$

Formula horrek balio bat (ehuneko bat) emango digu urte eta udalerriko bakoitzerako. Hortik aurrera, bi multzokatze landuko ditugu: multzokatze xehe bat (**HZ-205: Hitzuna bizi den udalerriko hiztunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisuaren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)**), udalerriko hamar multzotan sailkatuz, eta multzokatze orokorrako bat, hamar multzo horiek bostera ekarri: **HZ-206: Hitzuna**

**bizi den udalerriko hiztunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua B (5 multzotan).**

**T.60. TAULA: UDALERRIETAKO HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAN OINARRITUTA LANDU DITUGUN UDALERRIEN MULTZOKATZEAK: MULTZOKATZE XEHEA ETA 5 MULTZOKO LABURPENA.**

<b>Euskarak H1en izandako pisuaren araberako multzokatze xehea (HZ-205)</b>	<b>5 multzoko laburpena (HZ-206)</b>
Euskarak %90-100	
Euskarak %80-89,9	Euskarak %80-100
Euskarak %70-79,9	
Euskarak %60-69,9	Euskarak %60-79,9
Euskarak %50-59,9	
Euskarak %40-49,9	Euskarak %40-59,9
Euskarak %30-39,9	
Euskarak %20-29,9	Euskarak %20-39,9
Euskarak %10-19,9	
Euskarak %10 baino gutxiago	Euskarak %0-19,9

[Iturria: egileak landua.](#)

Euren bizitzako lehen urteetan euskara ikasi eta erabili zuten hiztunek udalerrri bakoitzeko hiztun guztiekiko duten pisuaren berri emango digute zuzenean adierazle horiek. Alderdi garrantzitsua da udalerrrien argazki demolinguistikoa osatzeko. Hegoaldeari buruzko datuak T.61. taulan ikus daitezke.

Alabaina, H1en oinarrizten diren adierazle horiek ez dira egokienak izango udalerrietan zentsua egin den unean euskarak duen nagusitasuna ordezkatzeko. Izan ere, udalerrri bateko hiztunen lehen hizkuntzak berez ez digu zentsua egin den uneko egoeraren berri ematen, iraganeko urteetako egoeren berri baizik (hiztunak jaio eta lehenengo urteetako egoeraren berri zehazki).

Une jakin bateko euskararen nagusitasuna neurtzeko ez, baina H1en oinarrizten diren aldagai horiek abiapuntu egokiak izan daitezke hiztunen jaiotza-datarekin batera ustiatuta, hiztun multzoen eta lurraldeen azken 100 urteotako ikuspegi historikora hurbilpen bat egiteko. Geroxeago, 9.8.3. puntuan helduko diogu aukera horri.

T.61. TAULA: HIZTUNAK, BIZI DIREN UDALERRIKO HIZTUNENGAN EUSKARAK LEHEN HIZKUNTZAN IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA: MULTZOKATZE XEHEA ETA BOST MULTZOKOA. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1991-2011

	1991 (kop)	2001 (kop)	2011 (kop)	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)
<b>HZ-205 Hitzuna bizi den udalerriko hiztunen lehen hizkuntza euskarak izan zuen pisuaren arabera (10 multzotan)</b>						
Euskarak %90-100	35.469	22.498	2.291	1,4	0,9	0,1
Euskarak %80-89,9	58.052	55.105	19.153	2,3	2,1	0,7
Euskarak %70-79,9	95.533	83.087	73.752	3,7	3,2	2,7
Euskarak %60-69,9	90.875	86.930	88.157	3,5	3,4	3,2
Euskarak %50-59,9	87.169	86.810	129.685	3,4	3,4	4,7
Euskarak %40-49,9	169.653	186.158	124.320	6,6	7,2	4,5
Euskarak %30-39,9	60.886	55.798	173.906	2,4	2,2	6,3
Euskarak %20-29,9	299.859	297.590	307.718	11,6	11,5	11,2
Euskarak %10-19,9	143.958	127.712	140.941	5,6	4,9	5,1
Euskarak %10 baino gutxiago	1.533.156	1.582.928	1.687.864	59,5	61,2	61,4
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.787</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-206 Hitzuna bizi den udalerriko hiztunen lehen hizkuntza euskarak izan zuen pisua B (5 multzotan)</b>						
Euskarak %80-100	93.521	77.603	21.444	3,6	3,0	0,8
Euskarak %60-79,9	186.408	170.017	161.909	7,2	6,6	5,9
Euskarak %40-59,9	256.822	272.968	254.005	10,0	10,6	9,2
Euskarak %20-39,9	360.745	353.388	481.624	14,0	13,7	17,5
Euskarak %20 baino gutxiago	1.677.114	1.710.640	1.828.805	65,1	66,2	66,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.787</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitzategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 9.8.2.3. Hitzuna bizi den udalerriko etxeko erabilerari buruzko adierazleak; nagusitasun-eremuak

8.4.1. puntu azaldu dugun irizpideari jarraituta, formula honen bidez kalkulatu dugu **HZ-207: Hitzuna bizi den udalerriko etxeko erabileraren euskarak duen pisua (%)** adierazlea:

$$\text{Euskararen pisua etxeko erabileraren (\%)} = \text{Euskaraz \%} + (0,5 * \text{Bietara \%})$$

Formula horrek balio bat (ehuneko bat) emango digu urte eta udalerriko bakoitzerako. Hortik aurrera, T.62. taulan erakusten ditugun bi multzokatze landuko ditugu: multzokatze xehe bat, udalerriko hamar multzotan sailkatuz, eta multzokatze orokorrago bat, hamar multzo horiek bostera ekarriz. Multzokatze xehea **HZ-208: Udalerriko etxeko erabileraren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)**

izendatuko dugu eta multzokatze orokorrago horri **HZ-209: Etxeko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak (5 multzotan)** deituko diogu.

**T.62. TAULA: UDALERRIETAKO ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAN OINARRITUTA LANDU DITUGUN UDALERRIEN MULTZOKATZEAK: MULTZOKATZE XEHEA ETA NAGUSITASUN-EREMUAK.**

<b>Etxeko erabileraren arabera multzokatze xehea (HZ-208)</b>	<b>Nagusitasun-eremuak (HZ-209)</b>
Euskaraz %90-100	Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrak (etxeko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)
Euskaraz %80-89,9	
Euskaraz %70-79,9	Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrak (etxeko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa):
Euskaraz %60-69,9	
Euskaraz %50-59,9	Nagusitasun argirik gabeko udalerrak (etxeko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)
Euskaraz %40-49,9	
Euskaraz %30-39,9	Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrak (etxeko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)
Euskaraz %20-29,9	
Euskaraz %10-19,9	Erdararen nagusitasuna handia den udalerrak (etxeko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)
Euskaraz %10 baino gutxiago	

Iturria: egileak landua.

Adierazle hori, bestalde, arnasguneak neurtzeko erabiliko dugu, T.62. taulako nagusitasun-eremuen izendapenean ikus daitekeen bezala. Atal teorikoan aritu gara arnasguneez, eta Zalbideren (2019a) irizpideetan oinarrituta, arnasguneen kontzeptua operatibizatzeko proposamena aurkeztu dugu (lurrebaso, 2019). Proposamen horren arabera, biztanleria-zentsuen arabera euskararen etxeko erabilera %60tik gorakoa den udalerrak jotzen dira arnasgunetzat. Horien barruan, arnasgune betetzat jotzen dira etxeko erabilera %80tik gorakoa duten udalerrak eta arnasgune erasantzat etxeko erabilera %60-%80 bitartean duten udalerrak.

Bi adierazle horiek Hegoaldean 1991-2011n hartzen dituzten balioak T.63. taulan ikus daitezke. Adierazle horiek garrantzi berezikoak izan daitezkeela iritzita (hurrengo puntuan eztabaidatuko dugu horren inguruan), taula gehiago ere erantsi ditugu ondorengo orrietan administrazio-eremu eta herrialdekako informazio xeheagoarekin.

**T.63. TAULA: HIZTUNAK, BIZI DIREN UDALERRIKO ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA: MULTZOKATZE XEHEA ETA NAGUSITASUN-GUNEA. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1991-2011**

	1991	2001	2011	1991	2001	2011
	Kop.	Kop.	Kop.	%	%	%
<b>HZ-207: Hiztuna bizi den udalerriko etxe erabileran euskarak duen batez besteko pisua (%)</b>						
Euskararen batez besteko erabilera (%)				15,8	15,7	15,1
<b>HZ-208: Udalerriko etxe erabileraren arabera multzokatze xehea (10 multzotan)</b>						
Etxe euskararen erabilera %90-100	25.681	16.594	738	10	0,6	0,0
%80-89,9	46.112	43.070	7.905	18	17	0,3
%70-79,9	48.190	49.610	45.442	19	19	1,7
%60-69,9	65.618	75.397	60.909	2,5	2,9	2,2
%50-59,9	97.478	84.734	89.050	3,8	3,3	3,2
%40-49,9	104.570	80.383	115.411	4,1	3,1	4,2
%30-39,9	137.116	163.822	167.086	5,3	6,3	6,1
%20-29,9	84.260	92.244	140.133	3,3	3,6	5,1
%10-19,9	344.477	350.135	392.074	13,4	13,5	14,3
%10 baino gutxiago	1621108	1628.627	1729.043	63,0	63,0	62,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.791</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-209: Etxe erabileraren arabera nagusitasun-eremuak (5 multzotan)</b>						
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (etxe erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	71.793	59.664	8.642	2,8	2,3	0,3
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (etxe erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	113.808	125.007	106.350	4,4	4,8	3,9
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (etxe erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	202.048	165.117	204.461	7,8	6,4	7,4
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (etxe erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	221.376	256.066	307.219	8,6	9,9	11,2
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (etxe erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	1.965.585	1.978.762	2.121.116	76,3	76,6	77,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.788</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

T.64. TAULA: UDALERRIAK, ETXEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2011 (KOPURU ABSOLUTUAK, EHUNeko BERTIKALAK ETA EHUNeko HORIZONTALAK)

	Kopuruak						Ehuneko bertikalak						Ehuneko horizontalak					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa G.	Hegoaldea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Naf. G.	egoald.	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Naf. G.	egoald.
Etxeko euskararen erabilera %90-100	-	-	1	1	1	2	-	-	1,1	0,4	0,4	<b>0,4</b>	-	-	50,0	50,0	50,0	<b>100,0</b>
%80-89,9	-	4	10	14	8	22	-	3,6	11,4	5,6	2,9	<b>4,2</b>	-	18,2	45,5	63,6	36,4	<b>100,0</b>
%70-79,9	-	13	22	35	8	43	-	11,6	25,0	13,9	2,9	<b>8,2</b>	-	30,2	51,2	81,4	18,6	<b>100,0</b>
%60-69,9	1	11	11	23	6	29	2,0	9,8	12,5	9,2	2,2	<b>5,5</b>	3,4	37,9	37,9	79,3	20,7	<b>100,0</b>
%50-59,9	-	13	12	25	8	33	-	11,6	13,6	10,0	2,9	<b>6,3</b>	-	39,4	36,4	75,8	24,2	<b>100,0</b>
%40-49,9	-	7	10	17	2	19	-	6,3	11,4	6,8	0,7	<b>3,6</b>	-	36,8	52,6	89,5	10,5	<b>100,0</b>
%30-39,9	-	14	14	28	6	34	-	12,5	15,9	11,2	2,2	<b>6,5</b>	-	41,2	41,2	82,4	17,6	<b>100,0</b>
%20-29,9	-	11	3	14	2	16	-	9,8	3,4	5,6	0,7	<b>3,1</b>	-	68,8	18,8	87,5	12,5	<b>100,0</b>
%10-19,9	2	10	5	17	23	40	3,9	8,9	5,7	6,8	8,5	<b>7,6</b>	5,0	25,0	12,5	42,5	57,5	<b>100,0</b>
%10 baino gutxiago	48	29	-	77	208	285	94,1	25,9	-	30,7	76,5	<b>54,5</b>	16,8	10,2	-	27,0	73,0	<b>100,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>112</b>	<b>88</b>	<b>251</b>	<b>272</b>	<b>523</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>9,8</b>	<b>21,4</b>	<b>16,8</b>	<b>48,0</b>	<b>52,0</b>	<b>100,0</b>
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (etxe erabilera euskararen pisua %80tik gorakoa)	-	4	11	15	9	24	-	3,6	12,5	6,0	3,3	<b>4,6</b>	-	16,7	45,8	62,5	37,5	<b>100,0</b>
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (etxe erabilera euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	1	24	33	58	14	72	2,0	21,4	37,5	23,1	5,1	<b>13,8</b>	1,4	33,3	45,8	80,6	19,4	<b>100,0</b>
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (etxe erabilera euskararen pisua %40-%60koa)	-	20	22	42	10	52	-	17,9	25,0	16,7	3,7	<b>9,9</b>	-	38,5	42,3	80,8	19,2	<b>100,0</b>
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (etxe erabilera euskararen pisua %20-%40 artekoa)	-	25	17	42	8	50	-	22,3	19,3	16,7	2,9	<b>9,6</b>	-	50,0	34,0	84,0	16,0	<b>100,0</b>
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (etxe erabilera euskararen pisua %20tik beherakoa)	50	39	5	94	231	325	98,0	34,8	5,7	37,5	84,9	<b>62,1</b>	15,4	12,0	1,5	28,9	71,1	<b>100,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>112</b>	<b>88</b>	<b>251</b>	<b>272</b>	<b>523</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>9,8</b>	<b>21,4</b>	<b>16,8</b>	<b>48,0</b>	<b>52,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**T.65. TAULA: HIZTUNAK, ETXeko ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2011 (KOPURU ABSOLUTUAK, EHUNeko BERTIKALAK ETA EHUNeko HORIZONTALAK)**

	Kopuruak						Ehuneko bertikalak						Ehuneko horizontalak					
	Araba:	Bizkaia:	Gipuzkoa:	EAE:	Nafarroa G.:	Hegoaldea:	Araba:	Bizkaia:	Gipuzkoa:	EAE:	Naf. G.:	Hegoald.:	Araba:	Bizkaia:	Gipuzkoa:	EAE:	Naf. G.:	Hegoald.:
Etxeo euskararen erabilera %90-100	-	-	109	109	629	738	-	-	0,0	0,0	0,1	0,0	-	-	14,8	14,8	85,2	100,0
%80-89,9	-	1.692	3.152	4.844	3.061	7.905	-	0,1	0,5	0,2	0,5	0,3	-	21,4	39,9	61,3	38,7	100,0
%70-79,9	-	5.202	34.122	39.324	6.118	45.442	-	0,5	4,9	1,8	1,0	1,7	-	11,4	75,1	86,5	13,5	100,0
%60-69,9	1.500	28.508	25.107	55.115	5.794	60.909	0,5	2,5	3,6	2,6	0,9	2,2	2,5	46,8	41,2	90,5	9,5	100,0
%50-59,9	-	27.444	49.483	76.927	12.123	89.050	-	2,4	7,2	3,6	2,0	3,2	-	30,8	55,6	86,4	13,6	100,0
%40-49,9	-	25.138	86.791	111.929	3.482	115.411	-	2,2	12,6	5,2	0,6	4,2	-	21,8	75,2	97,0	3,0	100,0
%30-39,9	-	30.666	131.144	161.810	5.276	167.086	-	2,7	19,0	7,6	0,9	6,1	-	18,4	78,5	96,8	3,2	100,0
%20-29,9	-	87.516	50.995	138.511	1.622	140.133	-	7,7	7,4	6,5	0,3	5,1	-	62,5	36,4	98,8	1,2	100,0
%10-19,9	3.580	74.305	309.896	387.781	4.293	392.074	1,1	6,6	44,9	18,1	0,7	14,3	0,9	19,0	79,0	98,9	1,1	100,0
%10 baino gutxiago	309.344	851.569	-	1.160.913	568.130	1.729.043	98,4	75,2	-	54,3	93,1	62,9	17,9	49,3	-	67,1	32,9	100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.144.424</b>	<b>1.132.040</b>	<b>690.799</b>	<b>2.137.263</b>	<b>610.528</b>	<b>2.747.791</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>11,4</b>	<b>41,2</b>	<b>25,1</b>	<b>77,8</b>	<b>22,2</b>	<b>100,0</b>
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerririk (etxeo erabilera euskararen pisua %80tik gorakoa)	-	1.692	3.261	4.953	3.689	8.642	-	0,1	0,5	0,2	0,6	0,3	-	19,6	37,7	57,3	42,7	100,0
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerririk (etxeo erabilera euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	1.500	33.710	59.229	94.439	11.911	106.350	0,5	3,0	8,6	4,4	2,0	3,9	1,4	31,7	55,7	88,8	11,2	100,0
Nagusitasun argirik gabeko udalerririk (etxeo erabilera euskararen pisua %40-%60koa)	-	52.582	136.274	188.856	15.605	204.461	-	4,6	19,7	8,8	2,6	7,4	-	25,7	66,7	92,4	7,6	100,0
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerririk (etxeo erabilera euskararen pisua %20-%40 artekoa)	-	118.182	182.139	300.321	6.898	307.219	-	10,4	26,4	14,1	1,1	11,2	-	38,5	59,3	97,8	2,2	100,0
Erdararen nagusitasuna handia den udalerririk (etxeo erabilera euskararen pisua %20tik beherakoa)	312.924	925.874	309.896	1.548.694	572.422	2.121.116	99,5	81,8	44,9	72,5	93,8	77,2	14,8	43,7	14,6	73,0	27,0	100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.144.424</b>	<b>1.132.040</b>	<b>690.799</b>	<b>2.137.263</b>	<b>610.525</b>	<b>2.747.788</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>11,4</b>	<b>41,2</b>	<b>25,1</b>	<b>77,8</b>	<b>22,2</b>	<b>100,0</b>

[Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**T.66. TAULA: EUSKALDUNAK, ETXeko ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2011 (KOPURU ABSOLUTUAK, EHUNeko BERTIKALAK ETA EHUNeko HORIZONTALAK)**

	Kopuruak						Ehuneko bertikalak						Ehuneko horizontalak					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa G.	Hegoaldea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Naf. G.	legoald.	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Naf. G.	legoald.
Ettxeko euskararen erabilera %90-100	-	-	103	103	607	<b>710</b>	-	-	0,0	0,0	0,7	<b>0,1</b>	-	-	14,5	14,5	85,5	<b>100,0</b>
%80-89,9	-	1.542	2.869	4.411	2.843	<b>7.254</b>	-	0,4	0,8	0,6	3,3	<b>0,8</b>	-	21,3	39,6	60,8	39,2	<b>100,0</b>
%70-79,9	-	4.458	28.360	32.818	5.441	<b>38.259</b>	-	1,3	7,8	4,2	6,3	<b>4,4</b>	-	11,7	74,1	85,8	14,2	<b>100,0</b>
%60-69,9	1.235	22.468	19.247	42.950	4.587	<b>47.537</b>	1,7	6,4	5,3	5,4	5,3	<b>5,4</b>	2,6	47,3	40,5	90,4	9,6	<b>100,0</b>
%50-59,9	-	19.710	36.180	55.890	9.083	<b>64.973</b>	-	5,6	9,9	7,1	10,6	<b>7,4</b>	-	30,3	55,7	86,0	14,0	<b>100,0</b>
%40-49,9	-	16.671	57.636	74.307	2.260	<b>76.567</b>	-	4,8	15,8	9,4	2,6	<b>8,8</b>	-	21,8	75,3	97,0	3,0	<b>100,0</b>
H1 adierazlearen izaera berezi horrek ateak irekitzen dizkio euskararen azken mendeko historia soziala aztertzeke orduan baliagarriak izan daitezkeen datu estatistikoak eraikitzeari. Izan ere, lehen hizkuntzarekin batera, zentsuan herritarren jaiotza-urtea eta jaiotza-lekua ere jasotzen denez, hiru aldagai horiek aintzat hartuta, urteetan atzera egin eta eremu geografikoen urtekako *filma* berreraikitzeke aukera irekitzen zaigu, 0-3 urteko haurrek/haurrekin erabili izan den hizkuntzari buruzko serie historiko luzea osatzeko aukera, zehatzago esanda<sup>184</sup>. Bide horretan aurreratzeko, propio landu dugu metodologia bat, ondorengo orriotan deskribatuko duguna. Lehenago, gogora ditzagun gai honetan geure buruari jarri dizkiogun helburu zehatzak:

- ❖ *Lehen hizkuntzaren aldagaiarekin zentsuetan bildutako informazioan oinarrituta, Hego Euskal Herrian haur txikien/txikiekiko euskararen erabileraren azken mendeko bilakaera aztertzeke bitarteko metodologikoak lantzea.*
- ❖ *Adierazle bat sortzea honako informazio hau bilduko duena: Hegoaldeko udalerrietan azken mendeko bosturteko bakoitzean jaiotako hitzunen euskararen batez besteko erabilera euren bizitzako lehen 3 urteetan, ehuneko baten bidez adierazita.*
- ❖ *Aurreko adierazlean oinarrituta, adierazle berriak sortzea, lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua aintzat hartuta, bosturteko bakoitzerako udalerriak multzokatuz udalerrietan euskarak izan duen nagusitasunaren ikuspegitik; hartara, azken mendean testuinguru demolinguistiko ezberdinen bilakaera aztertzeke bidea irekiko litzateke.*

<sup>183</sup> Gogora dezagun, lehen hizkuntzari buruzko galderan, galdera honi erantzuten diotela zehazki herritarrek zentsuan: “Zein hizkuntza erabili zuen lehen aldiz (hiru urte bete arte)?”:

<sup>184</sup> Bertako haurrek bizitzako lehen urteetan erabiltzen zuten hizkuntzarena ez da, jakina, atzera begira sortu nahiko genukeen serie bakarra. Baina hauxe da zentsuetatik abiatuta sendo samar eraiki ahal izan dugun bakarra.

❖ *Zentsuetan dugun gizabanako bakoitzari aurreko adierazleetan dagozkion balioak esleitzea, jaiotza-leku eta urtearen arabera hiztun bakoitzari bere lehen urteetako testuinguru demolinguistikoari buruzko datua atxikiz.*

Aurrerago azalduko dugun bezala, bide horretan aurreratu ahala, haur txikiekiko erabileran azken mendean izan den bilakaerara lehen hurbilpen kuantitatibo bat egiteko aukera irekiko dugu. Datu horiek ez dira alboratzerik gabeak izango, aurrerago azalduko dugun bezala, eta zuhurtzia handiz irakurri beharko dira. Horregatik, euskararen historia sozialera egiten den hurbilpen estatistiko partzial eta mugatua izango da, bistan da, datu horietan oinarrituta eraiki ahal izango duguna, baina iturri estatistiko ofizial baten bermearen gainean eraikia. Hobetzen joan beharreko lan ildo baten lehen urrats gisa planteatzen dugu honako metodologiazko ekarpen hau.

### 9.8.3.2. Lan-prozesua: zentsuetako mikrodatuen lanketaren bidez, garai/udalerrri bakoitzean 3 urte arteko haurrekiko euskararen erabileraren ehunekoa kalkulatzeko eta hiztunei esleitzea

#### *9.8.3.2.1. Lanketaren ikuspegi orokorra, pausoz pauso*

Aurreko puntuan zehaztu ditugun helburuetara iristeko, honako pauso hauek eman ditugu:

- Informazio-iturri estatistiko egokienak aukeratzea eta, EUSTAT eta NASTATEko datu-baseetatik jaiotza-udalerrri eta jaiotza-urte bakoitzerako datu xeheak eskuratzea, azterketarako lagina osatuz.
- Hegoaldeko datu-matrizea sortzea, aurrekoetatik abiatuta.
- Bosturteko bakoitzean jaiotakoen lagin metatuak sortzea.
- Bosturteko eta udalerrri bakoitzerako euskarak lehen hizkuntzan edo haurren/haurrekiko erabileran izan zuen pisua kalkulatzeko (%etan).
- Lagin txikiak dituzten udalerrientzat/garaiarentzat neurri zuzentzaileak lantzea.
- Gizabanako bakoitzari bera jaiotzen zen garai eta udalerriko lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisuaren datua esleitzea.
- Pisu horren araberrako multzoak sortzea.
- Landutako denbora-seriea, berez 2006 urteraino iristen dena, 2011-2016rako osatzea kalkulatu baten bidez.

#### *9.8.3.2.2. Iturri egokienak aukeratzea eta azterketarako laginak osatzea*

Berez, esku artean ditugun 1991, 2001 eta 2011ko zentsuetan aurkitu dezakegu hiztunen lehen hizkuntzari buruzko informazioa. Pertsona asko, ordea, bikoiztuta edo hirukoiztuta aterako dira hiru zentsu horietan. Zein iturritatik hartu pertsona bakoitzari buruzko informazioa? Iturriak aukeratzeko garaian, honako irizpide hau erabiliko dugu:

jaioturte bakoitzerako ahalik eta laginik handiena eta osoena emango digun iturrira joko dugu. Horretarako, oro har, udalerrri eta urte bakoitzean jaiotza-urtetik hurbilen dugun zentsura joko dugu. Ondorengo T.75. taulan erakusten dugu zehazki jaioturte bakoitzerako erabiliko dugun iturria.

**T.75. TAULA: HEGOALDEAN LEHEN HIZKUNTZA UDALERRIKA ETA URTEKA LANTZEKO LAGINAK ESKURATZEKO, URTE BAKOITZERAKO ERABILIKO DUGUN ZENTSU-ITURRI ZEHATZAK, HERRITARRAK JAIKO ETA BIZI IZAN DIREN ADMINISTRAZIO-EREMUAREN ETA JAIOTZA-URTEAREN ARABERA.**

	Bizi-tokia			
	EAE		Nafarroa Garaia	
	Jaiotokia		Jaiotokia	
Jaiotze-urtea:	EAE	Nafarroa G.	EAE	Nafarroa G.
<b>1988 edo lehenago:</b>	EUSTAT: 1991ko zentsua	EUSTAT: 2001eko zentsua	NASTAT: 1991ko zentsua	
<b>1989-1998</b>	EUSTAT: 2001eko zentsua		NASTAT: 2001eko zentsua	
<b>1999</b>	EUSTAT: 2011ko zentsua			
<b>2000-2008</b>			NASTAT: 2011ko zentsua	

[Iturria: egileak landua.](#)

Hegoalde osoan lehen hizkuntzari buruzko informazioa bildu zen zentsurik zaharrena 1991. urtean egin zen. Hara joko dugu lehenik, eta bertatik ekarriko herriz herri XIX. mende bukaeratik 1988. urtera bitartean urtez urte jaioko ziren hiztunen lehen hizkuntzari buruzko datuak. Arau horri salbuespen bat egin beharrea gaude: Nafarroan jaioko eta 1991. urtean EAEn bizi ziren herritarren jaiotza-leku xehearen (jaiotza-udalerrien) berri ez da ageri EUSTATen 1991ko zentsuko fitxategian. Hutsune hori 2001eko zentsuko informazioarekin osatuko dugu.

Hortik aurrera, 1989-1998 tartean urtez urte jaiotako lehen hizkuntzaren berri 2001eko zentsutik jaso dugu, eta 1999-2008 bitartekoena 2011kotik. Salbuespen bakarra: Nafarroa Garaiko kasuan, 2011ko zentsua lagin batean oinarritzen zenez, eta hain informazio xehea lantzerakoan udalerrri askotarako adierazgarritasun-arazoak izango zirela aurreikusiz, 1999an jaiotako datuak ere 2001eko zentsutik hartu ditugu.

Horrela, XIX. mende bukaeratik 2008. urtea bitarte Hego Euskal Herriko udalerrietan jaioko ziren 2.343.293 hiztunei buruzko bikoizketarik gabeko lagin zabala<sup>185</sup> osatu dugu, eta informazio horrekin datu-matrize bat eratu. T.76. taulan lagin erraldoi horretako jaiotza-herrialdearen arabera banaketa azaltzen da. Hegoaldean jaiotako hiztun horietarako guztietarako baditugu gure ustiatetaren oinarri izango diren hiru datu:

<sup>185</sup> Zentsuetatik abiatzen gara, eta zentsuek une jakin batean lurralde batean erroldatuta dauden herritar guztien informazioa biltzen duen arren, pausu honetan osatu duguna lagina dela diogu, eta ez unibertso osoa, azken mendean Hegoaldean jaiotako hiztun guztiak ez ditugulako gure datu-matrizean, horien arteko parte bat baizik. Izan ere, gure laginean ez ditugu Hegoaldean jaioko baina bizitzera kanpora joandako herritarrak eta ezta Hegoaldean azken mendean jaioko baina zentsua egin baino lehen hildakoak ere. Honetaz, eta honek berarekin ekar dezakeen alboratzeaz arituko gara aurrerago.

jaiotza-urtea, jaiotza-udalerria eta haur txikia zen garaian (0-3 urte bitartean) zein izan zuen lehen hizkuntza.

**T.76. TAULA: XIX. MENDE BUKAERATIK 2008. URTERA HEGOALDEKO UDALERRIETAN JAIOTAKO HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZA URTEZ URTE AZTERTZEKO EUSTAT-EK ETA NASTAT-EK 1991-2001-2011KO URTEETAN EGIN ZITUZTEN ZENTSUETATIK EKARRITA LORTU (ETA ERABILIKO) DUGUN LAGIN OSOA, JAIOTZA-HERRIALDEAREN ARABERA.**

Araban	215.260
Bizkaian	970.636
Gipuzkoan	622.363
Nafarroa Garaian	535.034
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.343.293</b>


[Iturria](#): egileak landua.

### 9.8.3.2.3. Eskuratu ditugun datu xeheak Hegoaldeko ikuspegiz bateratzea udalerrri guztietarako

Iturri horietatik jasotako datuekin, hortaz, jaiotza-urte bakoitzean Hegoaldeko udalerrri bakoitzean jaio ziren hiztunen lagin bat osatu dugu, horietako bakoitzaren lehen hizkuntzaren datuarekin. Iturrietatik lortu dugun datu multzo handi hori (EUSTATen eta NASTATen 1991, 2001 eta 2011ko zentsuetatik) datu-base bakarrean bateratu eta ustiatzeko moduan prestatu dugu.

Hurrengo urratsean, EUSTAT eta NASTATen datuak homogeneouski landu ditugu, eta Hegoaldeko datuak sortu ditugu udalerrri eta jaiotza-urte bakoitzerako. Horrela, udalerrri eta jaiotze bakoitzerako, lehen hizkuntzari buruzko datu multzo bakarra sortu dugu. Adibide batez azal dezagun: 1950. urtean Legazpin jaio ziren hiztunen lehen hizkuntzari buruzko datuak ditugu EAEko 1991ko EUSTATen zentsuetan: zentsua egin zen garaian Legazpin bertan eta EAEko beste edozein udalerritan bizitzen jarraitzen zuten 72 hiztunei buruzko datuak daude bertan. Baina Legazpin jaio ziren hiztunei buruzko datuak baditugu, halaber, Nafarroa Garaiko NASTATen zentsuko datuetan: Legazpin 1950ean jaio eta 1991. urtean Nafarroan bizi ziren 5 hiztunak ditugu hor. Bi datu multzo horiek batuta, Legazpin 1950. urtean jaio eta 1991. urtean (zentsua egin zen unean) Hegoaldeko edozein udalerritan bizi ziren 77 hiztunen lagina osatu dugu, l.22. irudian ikusten den bezala.

### l.22. IRUDIA: URTEKA UDALERRI BATEAN JAIOTAKOEN LANKETA, EAEn ETA NAFARROA GARAIAZ BIZI DIRENEKIN, HEGOALDEKO LAGINA OSATZERAINO (1950. URTERAKO LEGAZPIKO LAGINAREN ADIBIDEA)





[Iturria: egileak landua.](#)

Legazpin 1950. urtean jaio zirenen adibidearekin bezala, lanketa bera egin dugu Hegoaldeko udalerrri eta urte guzti-guztietarako.

Argitu dezagun, zentsu bakoitzean, zentsua egin den uneko udalerrien mugen arabera jaso izan dela jaiotza-udalerriri buruzko informazioa. Hau da, adibidez, pertsona bat 1960. urtean Lasarte-Oria jaio bazen, eta nahiz eta 1960. urtean oraindik Lasarte-Oria udalerrri izan ez, udalerrri horretan jaiotako gisa azalduko zaigu 1991ko zentsuan, urte horretan Lasarte-Oria jada udalerrria baitzen. Aitzitik, 1991. urtean oraindik udalerrri ez zirenentzat (Berriozar, esaterako) ez dugu daturik izango 1991ko zentsuetan (bai 2001 eta 2011koetan). Kasu horietan, eta beste aukerarik ezean, oraindik udalerrri izaera eskuratu gabeko herrietan jaiotakoei desanexioa gertatu baino lehenagoko udalerrriaren datua esleitu diegu (Antsoingoa, adibidez, 1988. urtea baino lehen Berriozarren jaio zirenei). T.77. taulan ikus daitekeen bezala, udalerrri gutxi batzuk daude egoera horretan, Nafarroakoak gehienak. Horien artean, gainera, Lekunberri eta Larraunen salbuespenarekin, jatorrizko udalerrriaren eta udalerrri berriaren errealitate soziolinguistikoak nahiko antzekoak zirela esan dezakegu.

**T.77. TAULA: HEGO EUSKAL HERRIAN 1991 ETA 2011 BITARTEAN DESANEXIONATU ZIREN UDALERRIAK**

Desanexionatuak	Nondik	Desanexioa gauzatzen deneko zentsu-urtea
<b><u>Gipuzkoan:</u></b>		
Gaztelu	Leaburu	2001
<b><u>Nafarroa Garaian:</u></b>		
Berriobeiti (Berrioplano)	Antsoain	2001
Berriozar	Antsoain	2001
Irurtzun	Arakil	2001
Beriain	Galar	2001
Orkoien	Olza	2001
Zizur Nagusia	Zizur	2001
Lekunberri	Larraun	2001
<b><u>Bizkaian:</u></b>		
Zierbena	Abanto	2001
Arratzu	Gernika-Lumo	2001
Ziortza-Bolibar	Markina-Xemein	2011

[Iturria: Egileak landua \(Azagra et al., 2006\).](#)

#### 9.8.3.2.4. Bost urtekako lagin metatuak sortzea

Hurrengo pausoa, lantzen ari garen datu-basean bost urtekako lagin metatuak sortu ditugu udalerrri bakoitzean jaiotakoentzat. Horrela egin dugu, askotan txikiegiak ziren laginen neurriak handitzeko. Udalerrri eta bosturteko bakoitzeko lagina osatzeko egin dugun ibilbide osoa, aurreko puntuko pausoa eta oraingoa, I.23. irudian erakusten dugu, Legazpiko adibidearekin jarraituta.

**1.23. IRUDIA: BOSTURTEKOEN LANKETA, JATORRIZKO DATU XEHETATIK, LAGINA OSATZERAINO (1949-1953 BOSTURTERAKO LEGAZPIKO LAGINAREN ADIBIDEA)**

1949an Legazpin jaio eta 1991n EAEn bizi direnek osatzen duten lagina (EUSTATen 1991ko zentsutik)	1949an Legazpin jaio eta 1991n Hegoaldean bizi direnen lagina (EUSTAT eta NASTATen 1991ko zentsuetatik)	<b>1949-1953 bosturtekoan Legazpin jaio eta 1991n Hegoaldean bizi direnen lagina (EUSTAT eta NASTATen 1991ko zentsuetatik)</b>
1949an Legazpin jaio eta 1991n Nafarroan bizi direnek osatzen duten lagina (NASTATen 1991ko zentsutik)		
1950ean Legazpin jaio eta 1991n EAEn bizi direnek osatzen duten lagina (EUSTATen 1991ko zentsutik)	1950ean Legazpin jaio eta 1991n Hegoaldean bizi direnen lagina (EUSTAT eta NASTATen 1991ko zentsuetatik)	
1950ean Legazpin jaio eta 1991n Nafarroan bizi direnek osatzen duten lagina (NASTATen 1991ko zentsutik)		
1951n Legazpin jaio eta 1991n EAEn bizi direnek osatzen duten lagina (EUSTATen 1991ko zentsutik)	1951n Legazpin jaio eta 1991n Hegoaldean bizi direnen lagina (EUSTAT eta NASTATen 1991ko zentsuetatik)	
1951n Legazpin jaio eta 1991n Nafarroan bizi direnek osatzen duten lagina (NASTATen 1991ko zentsutik)		
1952an Legazpin jaio eta 1991n EAEn bizi direnek osatzen duten lagina (EUSTATen 1991ko zentsutik)	1952an Legazpin jaio eta 1991n Hegoaldean bizi direnen lagina (EUSTAT eta NASTATen 1991ko zentsuetatik)	
1952an Legazpin jaio eta 1991n Nafarroan bizi direnek osatzen duten lagina (NASTATen 1991ko zentsutik)		
1953an Legazpin jaio eta 1991n EAEn bizi direnek osatzen duten lagina (EUSTATen 1991ko zentsutik)	1953an Legazpin jaio eta 1991n Hegoaldean bizi direnen lagina (EUSTAT eta NASTATen 1991ko zentsuetatik)	
1953an Legazpin jaio eta 1991n Nafarroan bizi direnek osatzen duten lagina (NASTATen 1991ko zentsutik)		

Iturria: egileak landua.

Hori eginda, udalerrri/bosturteko bakoitzerako azpilaginen neurriak nabarmen handitzea lortu dugu. Adibidez (ikus T.78. taula), 1991ko zentsuetako EUSTATen eta NASTATen fitxategietan urte horretan Hegoaldeko edozein udalerritan bizi ziren 88 pertsona azaltzen zaizkigu 1949. urtean Legazpin jaiotako, 77 1950ean, 81 1951n, 94 1952an eta 70 1953an. Horiek guztiak batuta, Legazpin 1949-1953 bitartean jaiotako 410 pertsonak osatzen duten lagina dugu eskura, euren lehen hizkuntza aztertu ahal izateko eta horren bidez garai hartako Legazpin 0-3 urteko haurren/haurrekiko erabilera-ohituraren datuak landu ahal izateko.

**T.78. TAULA: 1991-KO ZENTSUETAKO EUSTAT ETA NASTAT-EN FITXATEGIETAN, UDALERRI ETA BOSTURTEKO BATEAN JAIOTAKO PERTSONAK, LEHEN HIZKUNTZAREN ETA JAIOTZA-URTEAREN ARABERA (ADIBIDEA, LEGAZPI 1949-1953 BOSTURTEKOA)**

	1949	1950	1951	1952	1953	1949-1953
Euskara	65	51	52	65	43	<b>276</b>
Euskara eta gaztelania	3	6	2	1	4	<b>16</b>
Erdara	20	20	27	28	23	<b>118</b>
<b>GUZTIAK</b>	<b>88</b>	<b>77</b>	<b>81</b>	<b>94</b>	<b>70</b>	<b>410</b>

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

#### 9.8.3.2.5. Bosturteko eta udalerrri bakoitzeko laginerako, euskarak haur txikiekiko etxeko erabileran izan zuen pisua kalkulatzeko

Bosturteko eta udalerrri bakoitzerako, haur txikiekiko erabileran euskarak zer-nolako pisua duen adieraziko duen tasa kalkulatzeko izan da hurrengo lana, honako formula hau aplikatuta (8.4.1. puntuan aurkeztu dugun formula bera da):

$$\text{Euskararen pisua } 0 - 3 \text{ urteko haurren erabileran} = \text{Euskara \%} + (0,5 * \text{Bietara\%})$$

Aurreko adibidearekin jarraituta, Legazpin 1949-1953 bitartean jaio ziren 410 pertsona azaltzen zaizkigu 1991ko zentsuko EUSTATen eta NASTATen fitxategietan. Horien artean 276k euskara izan zuten lehen hizkuntza eta 16k euskara eta gaztelania biak izan zituzten lehen hizkuntza. Formula aplikatuta, %73,7koa da emaitza, eta ehuneko horrek adieraziko liguke Legazpin 1951 inguruan jaio ziren haurren artean, zehazki 1949 eta 1953 urteen artean, haur txikiaren eta haur txikiaren erabileran euskarak zenbateko pisua izan zuen.

#### 9.8.3.2.6. Hainbat azpilaginen neurriari buruzko kezka eta zuzentze-irizpideak udalerrri txikiago eta data zaharragoetarako: hiru bosturtekoren batez besteko haztatua

Legazpirako eta 1951. urterako bezala, Hego Euskal Herriko udalerrri guztietarako eta bosturteko bakoitzerako lehen hizkuntza gisa euskarak izan duen pisuaren (edo haur txikien/txikiekiko erabileraren) tasa guztiak kalkulatu ditugu.

Argitu dezagun udalerrri eta bosturteko bakoitzerako dugun kasu kopurua asko aldatzen dela udalerrri batetik bestera, eta baita bosturteko batetik bestera ere. Are gehiago, laginen neurriak ez ezik, unibertsoen neurriak ere aldakorrak dira, garaia eta udalerrria aintzat hartuta. Berriazko lan bat eginda, urte/udalerrri bakoitzean jaiotako haurren kopuruak eskuratuta (edo kalkulata), posible litzateke bosturteko bakoitzeko udalerrrikako unibertsoen eta laginen datuetatik akats-tarteak kalkulatzeko, eta akats-tarteen arabera datu horiek modu batean edo bestean lantzea. Aurrera begirako hobekuntza-aukeren artean kontuan hartzeko bidea dugu horri, datuak udalerrri-mailan xehe aurkeztu nahi badira gehienbat.

Lanketa hori egin bitartean, laginen neurri zalantzazkoenak izan ditzaketen urteetarako/udalerrietarako hainbat neurri zuzentzaile orokor ezarriko dugu, laginen

neurri txikiegiek eragin dezaketen gehiegizko akatsak eta hortik sor daitezkeen alboratzeak saihesteko, hein batean behintzat. Ikuspegi orokor batetik, T.79. eta T.80. tauletako datuek argi erakusten dute adierazgarritasun-arazo handiagoak izango ditugula zenbat eta udalerrri txikiagoa izan (zenbat eta pertsona gutxiago jaio udalerrri batean, zehatz esanda). Eta adierazgarritasun-arazoak handiagoak izango direla, halaber, aspaldiko bosturtekoei dagozkien datuetan; hilkortasunak eraginda, garai batetik atzera, lagin gero eta txikiagoak izango baititugu erreferentzia-urteetan atzera egin ahala.

**T.79. TAULA: HEGO EUSKAL HERRIAN JAIOTAKO HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZARI BURUZ NASTAT-EN ETA EUSTAT-EN MIKRODATUEN FITXATEGIETAN AURKITU DITUGUN ERREGISTRO BALIAGARRIEN KOPURUAK, UDALERRIETAKO ERREGISTRO KOPURUEN ARABERA**

<b>Udalerrriak, bertan jaiotakoen erregistro-kopuruaren arabera</b>	<b>Udalerrri kopurua</b>	<b>Erregistroak (batura)</b>	<b>Erregistroak udalerriko batezbeste</b>	<b>Erregistroak bosturteko batezbeste</b>
100.000 erregistro baino gehiago	5	1.176.375	235.274,9	11.763,7
10.000-100.000 erregistro	28	473.997	16.928,5	846,4
2.000-10.000 erregistro	109	425.678	3.905,3	195,3
1.000-2.000 erregistro	110	151.304	1.375,5	68,8
1.000 erregistro baino gutxiago	271	115.939	427,8	21,4
<b>GUZTIAK</b>	<b>523</b>	<b>2.343.293</b>	<b>4.480,5</b>	<b>224,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**T.80. TAULA: HEGO EUSKAL HERRIAN JAIOTAKO HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZARI BURUZ NASTAT-EN ETA EUSTAT-EN MIKRODATUEN FITXATEGIETAN AURKITU DITUGUN ERREGISTRO BALIAGARRIEN KOPURUAK, JAIOTZA-BOSTURTEKOEN ARABERA**

	Erregistroak bosturteka	Udalergi eta bosturteko bakoitzerako batez- bestekoa (523 udalergi)
1896 (1898 baino lehen jaiotako)(*)	2.188	4,2
1901 (1899-1903n jaiotako)(*)	8.679	16,6
1906 (1904-1908n jaiotako)	22.151	42,4
1911 (1909-1913n jaiotako)	39.011	74,6
1916 (1914-1918n jaiotako)	51.318	98,1
1921 (1919-1923n jaiotako)	70.761	135,3
1926 (1924-1928n jaiotako)	86.876	166,1
1931 (1929-1933n jaiotako)	92.901	177,6
1936 (1934-1938n jaiotako)	80.055	153,1
1941 (1939-1943n jaiotako)	78.320	149,8
1946 (1944-1948n jaiotako)	101.807	194,7
1951 (1949-1953n jaiotako)	107.674	205,9
1956 (1954-1958n jaiotako)	133.593	255,4
1961 (1959-1963n jaiotako)	165.578	316,6
1966 (1964-1968n jaiotako)	192.023	367,2
1971 (1969-1973n jaiotako)	202.349	386,9
1976 (1974-1978n jaiotako)	203.620	389,3
1981 (1979-1983n jaiotako)	153.782	294,0
1986 (1984-1988n jaiotako)	115.302	220,5
1991 (1989-1993n jaiotako)	98.310	188,0
1996 (1994-1998n jaiotako)	97.975	187,3
2001 (1999-2003n jaiotako)	110.944	212,1
2006 (2004-2008n jaiotako)	128.076	244,9
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.343.293</b>	<b>4.480,5</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra (\*): Taula honetako lehen bi bosturtekoetarako dugun lagin neurri txikiak kontuan hartuta, ez dugu bi bosturteko horien daturik aurkeztuko lan honetan.

Horiek horrela, udalergi eta bosturteko bakoitzerako aztergai ditugun azpilaginak aztertuta, hona lehen erabaki bat: gure denbora-serieko bi lehenengo bosturtekoetako datuak (1896 eta 1901eko bosturtekoetako dagozkienak) ez ditugu erakutsiko, urte horietan udalerrikako laginen neurriak txikiak baitira ia udalergi guztietarako. Gure azterketan, hortaz, 1906-2006 bitarteko bosturtekoak aurkeztuko ditugu (horretarako, 1904 eta 2008 bitartean jaiotako datuak ustiatuko ditugu).

Hortik aurrera, eta adierazgarritasun-arazo nagusiak modu sistematiko batean arintzeko, datuak T.81. taulan laburbiltzen dugun moduan lantzea erabaki dugu:

- Udalerrian jaiotako kopuru handienak dituzten udalerrietan (100.000 kasu baino gehiago), bosturteko bakoitzeko tasak ontzat emango ditugu bere horretan, bosturteko guztietarako, bestelako moldaketarik gabe.

- Udalerrian jaiotakoen kopuru txikiak dituzten udalerrietan (2.000 kasu baino gutxiago), kasu bakoitzean aztergai dugun bosturtekoaren tasa ezartzeko, aurreko bosturtekoaren eta ondorengo bosturtekoaren arteko batez besteko haztatua hobetsiko dugu urte horren tasa “zuzendu” gisa. Haztatua diogu, batez bestekoa ateratzerakoan pisu bikoitza emango diogulako erdian dagoen bosturtekoari, honako formula hau aplikatuta:

$$Tasa\ zuzendua = ((aurreko\ bosturteko\ tasa + (bosturteko\ tasa * 2) + hurrengo\ bosturteko\ tasa))/4$$

- Tarteko udalerrietarako (bertan jaiotakoen kasuak 2.000-100.000 direnetarako), denboran oinarrituta, lanketa ezberdina egingo dugu:
  - 1921 arteko bosturtekoetarako, hiru bosturtekoen batez besteko haztatuaren tasa hobetsiko dugu (tasa zuzenduaren aurreko formula bera aplikatuta).
  - 1926tik aurrerakoetarako, bosturteko bosturteko tasa hartuko dugu zuzenean.

**T.81. TAULA: LEHEN HIZKUNTZA UDALERRIKA ETA ERREFERENTZIA-URTEKA LANTZEKO GARAIA ERABILIKO DITUGUN PROZEDURA METODOLOGIKOEN LABURPENA, JAIOTZA-URTEA ETA UDALERRIETAN AURKITU DUGUN KASU KOPURUA KONTUAN HARTUTA**

Udallerriak, bertan jaiotakoen laginare kasu kopuruaren arabera	Jaiotze-urteak (5 urteko multzoak)	
	1906 eta 1921 bitarteko bosturtekoak	1926 eta 2006 bitarteko bosturtekoak
> 100.000 kasu	Bosturtekoko datua zuzenean	
2.000-100.000 kasu		
< 2.000 kasu	Hiru bosturtekoen tasen batez-besteko haztatua	

[Iturria](#): egileak landua.

Irizpide horiekin, bosturteko bakoitzerako lehen hizkuntzaren tasa bat hobetsi dugu Hego Euskal Herriko udalerrri bakoitzerako<sup>186</sup>. Guztira, gure lagina osatzen duten 2.343.293 hiztunen kasuan, bosturteko beraren datua zuzenean aplikatu dugu kasurik

<sup>186</sup> Eragiketa hori eginda ere, hainbat udalerrri/bosturteko daturik gabe gelditu zaizkigu (udalerrri horietan bosturteko horretan jaiotzen zen hiztunak ez delako ageri iturriztat hartu ditugun zentsuetan). Kasu horietan, kalkulu bereziak egin ditugu udalerrri/bosturteko bakoitzari bere datua esleitzera iritsi arte ekuazioan sartzen genituen bosturteko kopurua handituz. Neurri horiek oso udalerrri txikiak soilik hartu ditugu, udalerrri/bosturteko guzti-guztiei tasa bat esleitu ahal izateko.

gehienetan (2.022.241 kasutan, lagin osoaren %86,3tan); hiru bosturtekoetako tasen batez besteko haztatua, berriz, 321.052 kasutan aplikatu dugu (%13,7).

#### *9.8.3.2.7. Hitzun bakoitzari bera jaio zen garai eta udalerriko lehen hizkuntzaren datua esleitzea*

Lanketa honetako hurrengo urratsean, lantzen ari garen zentsuetako gizabanako guztiei bere lehen haurtzaro garaian (0-3 urte zituenean) bere jaiolekuan 0-3 urteko haurrekiko erabileran euskarak zuen pisuaren datua esleitu diegu. Logikak zera eskatuko luke: Euskal Herrian jaiotako hitzunei euren jaioterriko eta jaiotza-bosturteko datua esleitzea eta Euskal Herritik kanpo jaiotakoei 0ko balioa esleitzea, euren lehen urteetako testuinguru demolinguistiko lokalean euskararen pisua hutsa izango zela pentsatuz. Bide hori, ordea, ezin dugu jarraitu Ipar Euskal Herrian jaiotako hitzuentzat; ez zentsua egin zen garaian Lapurdin, Nafarroa Beherean edo Zuberoan bizi ziren hitzuentzat (INSEEk ez baitu horri buruzko informaziorik biltzen), baina ezta Iparraldean jaio eta Hegoaldean bizi direnentzat ere, orain azalduko dugun arazoarengatik.

#### *9.8.3.2.8. Arazoa: Iparraldean jaiotakoei buruzko informazio-hutsunea EUSTAT eta NASTATen zentsuetan*

EUSTAT eta NASTATen datuek ez dituzte bereizten zentsua egin izan den garaian EAEn edo Nafarroa Garaian bizi diren baina estatu frantziarrean jaio ziren herritarrak euren jaiotza-leku zehatzaren arabera. Hots, bereizi gabe jasotzen dituzte Lapurdin, Nafarroa Beherean edo Zuberoan jaiotako herritarrak eta Frantziako gainerako lurraldeetan jaio zirenak. Zehaztasun falta hori tamalgarria da gure ikerketahelburuetarako, Frantziako Estatuan jaiotakoen artean, euskarari dagokionez jatorri arras ezberdinetan sortu eta haziko baitziren Ipar Euskal Herrian jaiotakoak (bertako eskualde euskaldunenetan jaiotakoak bereziki) eta Euskal Herritik kanpo jaiotakoak.

Gaira hurbilpen zeharkako eta mugatu bat egin dezakegu T.82. taulako eta G.22. grafikoko informazioa irakurrita. Bertan Hegoaldean bizi diren hitzunen jaioterrria eta lehen hizkuntza jartzen dira harremanetan. Espero zitekeen bezala, Hegoaldeko lau herrialdeetan jaiotakoen artean du euskarak pisurik handiena, hori bai, ezberdintasun handiak dauden herrialdeen artean. Horrela, eta 2011ko zentsuko datuei erreparatuta: lehen hizkuntza gisa euskara izan zutenak %45,1 ziren Gipuzkoan jaiotakoen artean, %17,3 Bizkaian jaiotakoen artean, %7,6 Nafarroa Garaian jaiotakoen artean eta %4,4 Arabakoan jaiotakoen artean. Espainiako gainerako lurraldeetan edo munduko gainerako estatuetan jaiotakoen artean, oso apalak dira lehen hizkuntza gisa euskara (edo euskara eta gaztelania) izan zituztenen ehunekoak<sup>187</sup>. Salbuespen garrantzitsu eta adierazgarri bat erakusten dute, ordea, datuek: Frantziako Estatuan jaiotakoen artean lehen hizkuntza euskara izan zuten hitzunen %9,0k eta beste %2,3 batek euskara eta gaztelania izan omen zituzten lehen hizkuntza.

---

<sup>187</sup> Pentsatzekoa da Euskal Herritik kanpo jaio eta lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izan zuten hitzunenak (16.000 hitzun baino gehiago 2011ko zentsuen arabera) munduan zehar hedatutako euskal jatorrizko familien seme-alabak izango zirela nagusiki, gero Euskal Herrira bizitzera etorriak.


**T.82. TAULA: HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZA, JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2011**

Jaiotze-tokia	Lehen hizkuntza	1991	2001	2011	1991	2001	2011
		(Kop.)	(Kop.)	(Kop.)	(%)	(%)	(%)
Araba	Euskara	5.481	6.434	8.156	3,2	3,6	4,4
	Euskara eta gaztelania	2.959	4.914	8.743	1,7	2,8	4,7
	Gaztelania	161.383	164.767	167.777	94,9	93,4	90,5
	Beste hizkuntza bat	185	271	791	0,1	0,2	0,4
	GUZTIAK	170.008	176.386	185.467	100,0	100,0	100,0
Bizkaia	Euskara	157.949	147.466	141.313	19,7	18,3	17,3
	Euskara eta gaztelania	31.812	36.881	49.676	4,0	4,6	6,1
	Gaztelania	609.624	621.142	621.974	76,1	77,0	76,3
	Beste hizkuntza bat	1.361	1.131	2.165	0,2	0,1	0,3
	GUZTIAK	800.746	806.620	815.128	100,0	100,0	100,0
Gipuzkoa	Euskara	252.431	245.758	242.044	49,8	47,1	45,1
	Euskara eta gaztelania	35.670	38.820	49.663	7,0	7,4	9,3
	Gaztelania	217.944	235.779	242.652	43,0	45,2	45,3
	Beste hizkuntza bat	1.292	1.060	1.760	0,3	0,2	0,3
	GUZTIAK	507.337	521.417	536.119	100,0	100,0	100,0
Nafarroa Garaia	Euskara	42.068	39.134	34.676	9,6	8,9	7,6
	Euskara eta gaztelania	9.323	10.543	21.155	2,1	2,4	4,6
	Gaztelania	386.575	390.382	400.042	88,1	88,6	87,2
	Beste hizkuntza bat	640	533	3.069	0,1	0,1	0,7
	GUZTIAK	438.606	440.592	458.942	100,0	100,0	100,0
<b>Espainiako estatuko enparauak:</b>							
Katalanera darabilten lurraldeak	Euskara	267	394	459	1,9	2,5	2,3
	Euskara eta gaztelania	151	207	358	1,1	1,3	1,8
	Gaztelania	11.715	13.044	16.448	84,3	83,9	80,7
	Beste hizkuntza bat	1.759	1.905	3.112	12,7	12,3	15,3
	GUZTIAK	13.892	15.550	20.377	100,0	100,0	100,0
Galiziera darabilten lurraldeak	Euskara	374	287	239	0,6	0,5	0,5
	Euskara eta gaztelania	189	256	310	0,3	0,4	0,6
	Gaztelania	46.104	41.619	35.004	70,1	71,5	70,2
	Beste hizkuntza bat	19.139	16.044	14.338	29,1	27,6	28,7
	GUZTIAK	65.806	58.206	49.891	100,0	100,0	100,0
Espainiako gainerako lurraldeak	Euskara	3.539	3.000	2.660	0,6	0,6	0,6
	Euskara eta gaztelania	1.296	1.532	2.541	0,2	0,3	0,6
	Gaztelania	540.844	483.103	417.153	99,0	98,8	98,0
	Beste hizkuntza bat	868	1.177	3.098	0,2	0,2	0,7
	GUZTIAK	546.547	488.812	425.452	100,0	100,0	100,0
Frantziako estatua (Ipar Euskal Herria barne)	Euskara	785	683	744	11,1	9,5	9,0
	Euskara eta gaztelania	189	172	186	2,7	2,4	2,3
	Gaztelania	4.694	4.524	4.980	66,4	62,8	60,3
	Beste hizkuntza bat	1.404	1.822	2.351	19,9	25,3	28,5
	GUZTIAK	7.072	7.201	8.261	100,0	100,0	100,0
Gaztelania darabilten munduko beste estatuak	Euskara	109	850	2.708	3,4	2,5	2,4
	Euskara eta gaztelania	38	351	1.577	1,2	1,0	1,4
	Gaztelania	2.872	30.090	92.372	90,6	88,5	80,2
	Beste hizkuntza bat	150	2.705	18.464	4,7	8,0	16,0
	GUZTIAK	3.169	33.996	115.121	100,0	100,0	100,0
Munduko gainerako estatuak	Euskara	1.169	1.130	3.655	5,5	3,2	2,8
	Euskara eta gaztelania	384	348	1.941	1,8	1,0	1,5
	Gaztelania	11.993	13.755	53.468	56,0	38,4	41,6
	Beste hizkuntza bat	7.881	20.603	69.320	36,8	57,5	54,0
	GUZTIAK	21.427	35.836	128.384	100,0	100,0	100,0
<b>GUZTIAK</b>	Euskara	464.172	445.136	436.654	18,0	17,2	15,9
	Euskara eta gaztelania	82.011	94.024	136.150	3,2	3,6	5,0
	Gaztelania	1.993.748	1.998.205	2.051.870	77,4	77,3	74,8
	Beste hizkuntza bat	34.679	47.251	118.468	1,3	1,8	4,3
	GUZTIAK	2.574.610	2.584.616	2.743.142	100,0	100,0	100,0

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]



G.22. **GRAFIKOA: HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZA, JAIOTZA-LEKUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011 (LEHEN HIZKUNTZA EUSKARA DUTENEK OSATZEN DUTEN %A)**



Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Pentsa daiteke, beraz, Frantziako Estatuan jaio eta Hegoaldean bizi diren 8.000 herritar horien artean multzo handi bat (euskara edo euskara eta gaztelania lehen hizkuntza izan zutenen %11,3 horrek adierazten duena baino handiagoa ziurrenik) Iparraldean jaioa izango dela. Dena den, iturrien muga dela eta, ezin dugu kopuru hori zehaztu. Eta Frantziako Estatuan jaiotakoaren artean ezin bereizi zenbat diren Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan sortuak.

**9.8.3.2.9. Jaiotza-lekuaren arabera inguruneko lehen hizkuntza esleitzeko prozedurak eta balioak**

Aurreko puntuan aipatutakoak kontuan hartuta, T.83. taulan aurkezten den bezala, jaiotza-lekuari eta -garaiari esleitzen diogun euskalduntasun-mailaren adierazlean, balio galdu gisa landuko ditugu Frantzian jaiotako herritarrak. Bertan ikusten den bezala, Hegoaldean jaiotakoei euren jaiotza-lekuko eta -garaiko balioa esleitzeko diegu eta munduko gainerako lurraldeetan jaiotakoei Oko balioa emango diegu.

**T.83. TAULA: JAIOTZA-LEKUA KONTUAN HARTUTA, HIZTUNEI JAIOTZA-LEKU ETA -URTEAREN ARABERA BALIO BAT ESLEITZEKO ERABILIKO DUGUN IRIZPIDEA.**

Lurralde-eremua	Lurralde eremu bakoitzari esleituko diogun balioa
Hego Euskal Herria	Jaio izan zen udalerrri eta garaian haur txikiekiko erabileran euskarak zuen pisua (aldakorra udalerrri eta garaia arabera)
Espainiako enparauak	0
Ipar Euskal Herria eta Frantziako enparauak	Balio galdua (azterketatik at)
Munduko enparauak	0

[Iturria: egileak landua.](#)

### 9.8.3.3. 2011., 2016. eta 2021. urteetarako balioak kalkulatzeko Hegoalderako

Egiten ari garen lanketan 1991, 2001 eta 2011ko zentsuak ustiatu ditugu. Ondorioz, 2011ko zentsua da erabili dugun berriena, eta bosturteko tarteak hartuz, belaunaldi gazteenaren lehen hizkuntzari buruzko datuak 2004-2008 urtean jaiotakoei buruzkoak dira. Ondorioz, gure seriea 2006. urtean bukatuko da, 2004-2008n jaio zirenen datuekin. Hortik aurrera jaiotako datuak, berez, 2021eko zentsuko datuekin eguneratu ahalko dira, EAEko gain Nafarroa Garaiko zentsuetakoak ere argitaratzen direnean. Horrela, orain arteko prozedura bera erabilita, 2009-2018 urteetan jaio ziren hiztunen errealitatea erantsi ahalko diogu lantzen ari garen denbora-serieari, 2006ko datuaren atzetik 2011koa eta 2016koa gehituta (eta 2021erako behin-behineko beste kalkulu bat eginda).

Gaur-gaurkoz, hortaz, 2006ko bosturtekoan jaiotakoekin bukatzen da, berez, landuko ditugun adierazleen denbora-estaldura. Hor etengo ditugu hurrengo puntuan aurkeztuko ditugun HZ-210, HZ-211 eta HZ-212 adierazleak. Atal enpirikoaren hasieran, baina, azken mendean Hegoaldean jaiotako haurren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisuaren bilakaera luzea aztertu nahi izango dugu. Eta azterketa horretarako, behin-behinekoak badira ere, datu berriagoak erantsi nahi dizkiogu serieari. 2006tik aurrerako datu-hutsune hori nola edo hala eta behin-behinean osatze aldera, EUSTATen 2006, 2011, 2016 eta 2021eko zentsuetako datuetan oinarritzen den kalkulu bat landu dugu Hegoaldeko datu orokorretarako. Zehazki, hiru data horietako EAEko zentsuetan, 5-9 urte bitarteko hiztunen lehen hizkuntzari buruzko datuak hartu ditugu, eta euskarak izan duen pisua ehunekoetan kalkulatu: T.84. taulan ikus daitekeen bezala, euskararen pisua %30,1ekoa zen 5-9 urte artekoen lehen hizkuntzan 2006. urtean, %28,4koa 2011n, %27,8koa 2016an eta 30,4koa 2021ean (EUSTAT, d.g.c).

EAEri buruzko hiru ehuneko horiek eta gure aldagaiak 2006. urtean (berez 2004-2008 bosturtekoan) Hegoaldean jaiotakoentzat ematen zuen datua (%26,2) hiruko

erregelaren bidez harremanetan jarrita kalkulatu ditugu serie nagusiari erantsi dizkiogun 2011, 2016 eta 2021erako datuak (%24,8, %24,2 eta %26,5 hurrenez hurren). Esan bezala, lehen hizkuntzan euskarak izan duen bilakaera luzearen kalkulu hori Hegoaldeko datu orokorretarako bakarrik landu dugu, eta behin-behineko izaera du: Nafarroa Garaiko zentsu berriak argitaratu ahala, datu horiek ordezkatu egin beharko dira, serie homogenoa eratze aldera.

**T.84. TAULA: 5-9 URTE BITARTEKOEN LEHEN HIZKUNTZA. EAE, 2006-2021**

	2006 (kop.)	2011 (kop.)	2016 (kop.)	2021 (kop.)	2006 (%)	2011 (%)	2016 (%)	2021 (%)
Euskara	19.481	21.475	22.221	21.560	23,3	21,6	20,9	21,0
Gaztelania	50.842	61.597	66.138	56.962	60,9	62,1	62,1	55,6
Biak	11.198	13.503	14.699	19.154	13,4	13,6	13,8	18,7
Beste bat	1.936	2.682	3.489	4.773	2,3	2,7	3,3	4,7
<b>GUZTIAK</b>	<b>83.457</b>	<b>99.257</b>	<b>106.547</b>	<b>102.449</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Euskararen pisua H1en (%)</b>					<b>30,1</b>	<b>28,4</b>	<b>27,8</b>	<b>30,4</b>

*Iturria:* egileak landua (EUSTAT, d.g.c).

#### 9.8.3.4. Azaldu dugun prozesuaren emaitza diren adierazleak

Pausoz pauso azaldu dugun lanketaren emaitza **HZ-210: Hitzunen jaiotza-garaian/udalerrian jaio ziren haurren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua (%)** adierazlean bildu dugu. Adierazle horrek balio bat (ehuneko bat) hartuko du bosturteko eta udalerrri bakoitzerako. Hitzunen kasuan, hitzun bakoitzak bera jaio zeneko tokiari/garaia dagokion balioa hartuko du.

Hortik aurrera, T.85. taulan erakusten ditugun bi multzokatzeak landuko ditugu bosturteko bakoitzerako: multzokatze xehe bat (**HZ-211: Hitzunen jaiotza-garaian/udalerrian jaio ziren haurren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisuaren arabera multzokatze xehea**), udalerrriak hamar multzotan sailkatuz, eta multzokatze orokorrago bat, hamar multzo horiek bostera ekarrita. Multzokatze orokorrago horri **HZ-212: Hitzunen jaiotza-garaiko/udalerriko haurren lehen hizkuntzaren arabera nagusitasun-eremuak (bosturtekoka)** deituko diogu.

**T.85. TAULA: HIZTUNEN JAIOTZA-LEKUKO/-GARAICO HAURREN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAN OINARRITUTA LANDU DITUGUN UDALERRIEN MULTZOKATZEAK: MULTZOKATZE XEHEA ETA NAGUSITASUN-EREMUAK.**

<b>Multzokatze xehea (HZ-211)</b>	<b>Nagusitasun-eremuak (HZ-212)</b>
Euskaraz %90-100	Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (haurren H1en euskararen pisua %80tik gorakoa)
Euskaraz %80-89,9	
Euskaraz %70-79,9	Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (haurren H1en euskararen pisua %60-%80 bitartekoa):
Euskaraz %60-69,9	
Euskaraz %50-59,9	Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (haurren H1en euskararen pisua %40-%60koa)
Euskaraz %40-49,9	
Euskaraz %30-39,9	Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (haurren H1en euskararen pisua %20-%40 artekoa)
Euskaraz %20-29,9	
Euskaraz %10-19,9	Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (haurren H1en euskararen pisua %20tik beherakoa)
Euskaraz %10 baino gutxiago	

Iturria: egileak landua.

Informazio hori oso baliagarria gerta dakiguke hiru ikuspegitatik:

*Hiztunen jaiotza-garaian/udalerrian jaio ziren haurren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua (%) adierazlea, esan bezala, zentsuko erregistro guztiei esleitu diegu. Adierazle berri bat dugu hortaz; ez da garrantzirik gabekoa ikuspegi demolingüistikotik. Zentsuetako galderetatik zuzenean sortzen direnei eta horietan oinarrituta sortzen diren gainerakoei (hizkuntza-bilakaerari buruzkoak, egungo testuinguru demolingüistikoari buruzkoak, familia-osaerari buruzkoak...) gehituta, adierazle horrek gero eta ikuspegi zehatzagoa eskaini ahal digu hizkuntzek Hegoaldean duten egoeraz eta bilakaera sozialaz, eta ugaritu egingo lirarteke azterketarako aukerak.*

Bestetik, euskarak haur txikiekiko elkarrizketetan zuen pisuaren arabera, udalerrien tipologiak eraiki ditugu aipatutako beste bi adierazleekin. Horiekin, hurbilpen kuantitatibo bat landu ahal izango dugu XX. mendeko Hegoaldeko testuinguru demolingüistikoaren bilakaerara. Eta horrela, besteak beste, hurbilpena egin ahal izango dugu arnasguneen bilakaeraren azken mendeko historiara.

Azkenik, garai bakoitzean lurralde-eremuak (herrialdeak, eskualdeak eta udalerrriak) denboraren lerroan ezaugarritzeko oinarria eskainiko digu. Ereku bakoitzean lehen hizkuntzaren azken mendeko bilakaerara lehen hurbilpen kuantitatibo bat egiteko aukera irekiko digu horrek. Hurbilpen partziala, bistan da, baina iturri estatistiko ofizial baten bermea izango duena.

Adierazle horiek kontuan hartu beharreko hainbat muga dituzte, jarraian aipatuko dugun bezala.

**T.86. TAULA: HEGO EUSKAL HERRIAN JAIO TAKO HAURREN BANAKETA, JAIO ZIREN UDALERRI ETA GARAIAN EUSKARAK LEHEN HIZKUNTZAN IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA, 1906-2006**

<b>HZ-211: Hitzunen jaiotza-garaian/udalerrian jaiotzen ziren haurren lehen hizkuntzan euskarak izan zuten pisuaren arabera multzokatze xehea</b>											
	Euskaraz %90-100	Euskaraz %80-89,9	Euskaraz %70-79,9	Euskaraz %60-69,9	Euskaraz %50-59,9	Euskaraz %40-49,9	Euskaraz %30-39,9	Euskaraz %20-29,9	Euskaraz %10-19,9	Euskaraz %10 baino gutxiago	GUZTIAK
1906 (1904-1908an jaiotak)	21,8	11,2	3,2	1,3	6,6	1,0	1,8	0,8	10,3	41,9	100,0
1911 (1909-1913an jaiotak)	22,7	9,1	3,1	2,0	2,4	5,2	1,0	1,5	10,6	42,4	100,0
1916 (1914-1918an jaiotak)	22,8	9,0	2,1	3,0	0,9	6,7	0,6	2,1	10,5	42,3	100,0
1921 (1919-1923an jaiotak)	21,1	8,5	2,2	2,9	1,1	2,8	5,1	2,6	10,7	43,1	100,0
1926 (1924-1928an jaiotak)	18,9	9,6	2,1	3,5	1,1	1,4	7,1	2,2	1,7	52,3	100,0
1931 (1929-1933an jaiotak)	17,6	9,3	3,1	2,7	1,4	2,0	7,0	1,0	2,9	52,9	100,0
1936 (1934-1938an jaiotak)	17,9	9,4	2,8	4,2	0,3	1,7	7,1	1,4	13,5	41,8	100,0
1941 (1939-1943an jaiotak)	14,8	7,7	5,1	2,7	2,3	0,0	3,1	7,3	2,2	54,8	100,0
1946 (1944-1948an jaiotak)	13,7	7,2	4,8	3,1	3,2	0,1	2,3	8,8	2,0	54,7	100,0
1951 (1949-1953an jaiotak)	10,9	6,0	6,2	2,8	3,8	1,2	0,7	10,9	1,4	56,0	100,0
1956 (1954-1958an jaiotak)	5,4	7,1	3,3	2,9	2,9	5,6	0,1	11,9	0,5	60,3	100,0
1961 (1959-1963an jaiotak)	2,1	6,0	3,3	3,0	4,2	4,6	1,8	12,3	1,2	61,7	100,0
1966 (1964-1968an jaiotak)	0,9	3,2	4,5	2,4	3,6	3,5	3,6	14,5	0,6	63,2	100,0
1971 (1969-1973an jaiotak)	1,1	1,9	4,3	2,6	3,2	2,8	1,0	17,2	0,8	65,1	100,0
1976 (1974-1978an jaiotak)	1,0	2,3	3,3	3,7	3,6	2,5	2,2	3,1	12,5	65,8	100,0
1981 (1979-1983an jaiotak)	1,1	2,5	3,6	4,4	2,2	3,2	4,1	12,6	1,8	64,6	100,0
1986 (1984-1988an jaiotak)	1,2	2,3	3,4	4,9	1,6	3,7	4,0	12,0	2,6	64,2	100,0
1991 (1989-1993an jaiotak)	1,4	3,0	3,7	2,0	4,2	2,0	15,7	0,9	34,4	32,7	100,0
1996 (1994-1998an jaiotak)	1,4	4,2	5,3	2,7	5,1	2,8	12,5	4,1	38,1	23,8	100,0
2001 (1999-2003an jaiotak)	0,3	2,4	3,5	6,2	4,9	4,3	11,6	5,0	37,8	23,9	100,0
2006 (2004-2008an jaiotak)	0,2	0,6	2,4	5,7	6,0	3,9	14,8	5,5	39,7	21,2	100,0

<b>HZ-212: Hitzunen jaiotza-garaiko/udalerriko haurren lehen hizkuntzaren arabera nagusitasun-eremuak (bosturtekoa)</b>						
	Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerririk (haurren H <sup>1</sup> en euskararen pisua %80tik gorakoa)	Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerririk (haurren H <sup>1</sup> en euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	Nagusitasun argirik gabeko udalerririk (haurren H <sup>1</sup> en euskararen pisua %40-%60koa)	Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerririk (haurren H <sup>1</sup> en euskararen pisua %20-%40 artekoa)	Erdararen nagusitasuna handia den udalerririk (haurren H <sup>1</sup> en euskararen pisua %20tik beherakoa)	GUZTIAK
1906 (1904-1908an jaiotak)	33,0	4,5	7,7	2,6	52,2	100,0
1911 (1909-1913an jaiotak)	31,8	5,1	7,6	2,5	53,0	100,0
1916 (1914-1918an jaiotak)	31,7	5,1	7,6	2,8	52,8	100,0
1921 (1919-1923an jaiotak)	29,6	5,0	3,9	7,7	53,8	100,0
1926 (1924-1928an jaiotak)	28,6	5,6	2,5	9,3	54,0	100,0
1931 (1929-1933an jaiotak)	27,0	5,8	3,4	8,0	55,8	100,0
1936 (1934-1938an jaiotak)	27,3	7,0	2,0	8,4	55,3	100,0
1941 (1939-1943an jaiotak)	22,5	7,8	2,3	10,4	57,0	100,0
1946 (1944-1948an jaiotak)	20,9	7,9	3,3	11,2	56,7	100,0
1951 (1949-1953an jaiotak)	16,9	8,9	5,0	11,7	57,4	100,0
1956 (1954-1958an jaiotak)	12,5	6,2	8,5	12,0	60,8	100,0
1961 (1959-1963an jaiotak)	8,0	6,2	8,7	14,1	62,9	100,0
1966 (1964-1968an jaiotak)	4,1	6,9	7,2	18,1	63,8	100,0
1971 (1969-1973an jaiotak)	3,1	6,9	5,9	18,2	65,9	100,0
1976 (1974-1978an jaiotak)	3,3	6,9	6,1	5,3	78,3	100,0
1981 (1979-1983an jaiotak)	3,5	8,0	5,4	16,7	66,4	100,0
1986 (1984-1988an jaiotak)	3,6	8,2	5,3	16,0	66,8	100,0
1991 (1989-1993an jaiotak)	4,4	5,7	6,2	16,6	67,1	100,0
1996 (1994-1998an jaiotak)	5,7	7,9	7,9	16,6	61,9	100,0
2001 (1999-2003an jaiotak)	2,7	9,8	9,2	16,6	61,7	100,0
2006 (2004-2008an jaiotak)	0,8	8,1	9,9	20,3	60,8	100,0

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 9.8.3.5. Jaiotza-lekuko/-garaiko lehen hizkuntzan oinarritzen diren adierazleen mugak eta hobetzeko/sakontzeko bideak

#### *9.8.3.5.1. Unibertsoak eta laginak*

Atal honetan gure datu-iturria zentsuak izan diren arren, eta zentsuek, definizioz, une jakin batean lurralde batean bizi diren pertsona guztien informazioa biltzen duten arren, aztergai jakin honetarako badakigu ez ditugula unibertso kasu guztiak landu; lehenago ere aipatu dugu hori. Zorrotz esanda, eta lehenago jarri dugun adibideari helduta, 1949-1953 bitartean Legazpin jaio ziren haur guztien artean, 1991. urtean bizirik zeuden eta une horretan Hego Euskal Herrian bizitzen jarraitzen zuten herritarrek osatu dute gure lagina. Laginetik kanpo gelditu zaizkigu, halaber, urte horietan Legazpin jaio baina 1991. urterako hilda zeuden herritarrak edo Hego Euskal Herrikan kanpora bizitzera joandakoak. Horrela, bada, Legazpin urte horietan jaio ziren guztiek osatzen duten unibertso osoaren lagin bat izan dugu, ez unibertso osoa, eta lagin horren lehen hizkuntzari buruzko erantzunak izan ditugu azterketarako oinarri.

Zenbateraino izango da lagin hori (1949-1953 bitartean Legazpin jaio eta 1991n Hegoaldean bizi ziren herritarrak) unibertso osoaren (urte horietan Legazpin jaio ziren herritar guzti-guztien) adierazgarri? Lagin bat unibertsoaren argazki egokia izan dadin, oinarritzko bi baldintza bete behar dira (Rodríguez, 1991; Juaristi, 2003): batetik, neurritz egokia den lagina beharko dugu, eta, bestetik, laginean alboratzerik izan ez dadin, zoriaren bidez edo bestelako laginketa-prozedura egokiren baten bidez eskuratutako laginak beharko ditugu. Ikus dezagun zenbateraino bete ditzaketen bi baldintza horiek adierazle horien oinarriko sortu ditugun laginek.

#### *9.8.3.5.2. Neurriaren auzia*

Neurriari dagokionez, badakigu zentsua egin baino urte gutxi lehenago jaio zirenentzat unibertso osotik gertu dagoen informazioa eskuratuko dugula. Adibidez, 1986an jaio zirenei buruz 1991ko zentsuko datuekin arituko garenean, pentsa daiteke ia unibertso osoa izango dugula gure laginean, gutxi izango baitziren oro har 1986-1991 bitartean hildako haurrak edo Hegoaldetik kanpora joandakoak. Baina urteetan atzera egin ahala, proportzioan lagin hori gero eta txikiagoa izango da unibertsoarekiko, hildakoak eta Hegoaldetik kanpo joandakoak gehiago izango direlako. Adierazgarritasun-arazo hori, jakina, areagotu egingo da udalerritik txikiagoetan. Arazo-iturri horrentzat neurri zuzentzaileak landu ditugu. Adierazi dugu, halaber, aurrera begira, bosturteko/udalerririk bakoitzaren unibertsoen kopuruak finkatuta, berariazko lanketa zehatza egitea komeni dela akats-tarteetan oinarrituta.

#### *9.8.3.5.3. Alboratzerik izango ote zen hiztunen H1en arabera euren hilkortasunean eta kanpora joateko joeran?*

Lagin on bat izateko bigarren baldintza dela eta: lehen hizkuntzari dagokionez, egon ote liteke alboratzeren bat, hots, alde aipagarriak izango ote dira gure laginaren eta unibertsoaren artean, edo, aitzitik, unibertsoko kasu guztiak maila orekatuan ordezkatu ote ditu gure laginak? Guri dagokigunez, bigarren aukera horrek esan nahiko luke hilkortasun- eta emigrazio-joeretan ez zela alde handirik izango hiztunen lehen hizkuntzaren arabera multzoen artean. Hots, maila bertsuan hil izan direla XX. mendean H1 euskara izan duten hiztunak eta gaztelania izan dutenak, eta maila bertsuan emigratu izan dutela Hego Euskal Herrikan kanpora batzuek eta besteek. Hori horrela ote da? Aitor dezagun, tamalez, ez dugula oinarri enpirikorik galdera horri zehatz erantzuteko, Hego Euskal Herrian hilkortasuna eta migrazio-mugimenduak aztertzen dituzten eragiketa estatistikoetan ez baitira hizkuntzarekin lotutako aldagaiak jasotzen. Horiek horrela, jarraian azalduko duguna ez da izango gaiari buruzko berriazko datuetan oinarritzen den azterketa zehatza, azken mendeko prozesu demografiko nagusiak aintzat hartuta egiten dugun behin-behineko gogoeta baizik.

Alboratze aipagarriren bat egongo ote da gure laginean lehen hizkuntzaren arabera hilkortasunak eraginda? Ezetz uste dugu. Pentsatzen baitugu ez dagoela lehen hizkuntzaren arabera multzoetan hilkortasun bereizgarririk.

Ez daiteke gauza bera pentsatu Euskal Herrian jaio eta kanpora joatearen fenomenoak lehen hizkuntza batekoen eta bestekoaren artean izango zuen eraginari buruz. Gai konplexua da, eta kanpora joate horretan gertatu diren joerak ez dute zertan beti berberak izan aztertzen ari garen denbora-aldi osoan edota lurraldearen zonalde guztietan. Hala eta guztiz ere, azken mendeko bilakaera demografiko orokorrean oinarrituta, pentsatzekoa da, oro har, gehiago emigratuko zutela Euskal Herrikan kanpora lehenago ere kanpotik etorritakoek bizitza osoan bertan bizi izandakoek baino; eta, ondorioz, gehiago joko zutela Euskal Herrikan kanpora familia erdaldunetan jaiotako hiztunek euskaldunetan jaiotakoek baino. Joera horren eragina gehiago nabaritu da, jakina, migrazio-mugimendu handiagoak izan diren garaietan. Zehazki, aski dokumentatua dago 60ko hamarkada inguruan Hego Euskal Herria lanera etorritako ehunka mila etorkinen multzo handi batek "itzulera mugimenduak" izan zituela hurrengo hamarraldietan (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994; Recaño, 2004; Elizagarate eta Lurrebaso, 2006). Etorkin haiek ez gutxi gurean bizi bitartean izandako seme-alabak eurekin eramango zituztenez, pentsatzekoa da gurean 60-70-80 hamarkadetan jaiotakoaren artean lehen hizkuntza gaztelania izango zuten hiztunek gehiago joko zutela kanpora lehen hizkuntza euskara izan zutenek baino, eta horregatik, hamarkada horietan lehen hizkuntza gaztelania izan zuten hiztunak zegoen neurritik behera egongo direla landu ditugun laginetan eta aurkezten ari garen adierazleak datuetan.

#### *9.8.3.5.4. Alboratzeak zehazteko eta zuzentzeko prozedurak asmatu beharraz, aurrera begira*

Ezinezkoa zaigu gaur-gaurkoz fenomeno horren eragina zehatz neurtzea eta gure datuak horren arabera zuzentzeko bitartekoak finkatzea. Teorikoki, landu ahal izango litzateke, udalerrri bakoitzari eragin dioten migrazio-fluxuei buruzko datuak eskuratuta

edota udalerrri bakoitzean urtez urte jatorriaren arabera biztanleriaren datuak eskuratuta edo esleituta. Zentsu historikoek, baina, ez dute udalerrri-mailako informazio xeherik eskaintzen gaiaren inguruan, eta ez da erraza, hortaz, aipatzen ari garen fenomenoak zehatz kuantifikatzea. Aurrera begira, XX. mendeko bilakaera hobeto ezagutu nahi izanez gero, beharrezkoa litzateke alderdi horiek aintzat hartuko lituzkeen eredu konplexuagoren bat lantzea, eta horren bidez aurkeztu ditugun adierazle horiek fintzea eta kopuruak birkalkulatzea.

Aipa dezagun, azkenik, zentsu berriak argitaratzen direnean, hemen azaldu ditugun prozedura berak erabilia datuak berritzen badira, udalerrri txikientzat azken bosturtekorako guk landu ditugun hainbat datu aldatu egingo direla. Hori gertatuko zaigu, zehazki, udalerrri/bosturteko bakoitzaren tasak kalkulatzekoan, hiru bosturtekoen batez besteko haztatuaren prozedura erabili dugun kasuetan. Pentsatzekoa da, hala ere, aldaketa horiek eragin oso txikia izango dutela Hegoalde edo herrialde-mailako datu orokorrak kalkulatzekoan.

Muga horiek guztiak tarteko, eta muga horiek eragindako balizko alboratzeak orekatzeko bitartekoak asmatu bitartean, tentuz erabiltzeko adierazle multzoa izango da honako hau, gehienbat migrazio-prozesu handiak izan dituzten garai/zonaldeei buruz hitz egingo dugunean.

#### *9.8.3.5.5. Zenbateraino erabil daiteke garai eta eremu batean haur txikien lehen hizkuntzaren datua garai/eremu horretan hizkuntzek duten nagusitasunaz aritzeko*

Azken zalantza teoriko-metodologiko bat. HZ-211 eta HZ-212 adierazleekin, udalerriz udalerrri garai bakoitzean jaiotako haurren H1en informazioan oinarrituta, nagusitasun-eremuak sortu ditugu, XX. mendean horiek zer-nolako bilakaera izan duten aztertzeko. Zilegi al da horrela jokatzeko? Beste atal batzuetan, zentsua egin den uneko etxeko erabileran edo kale-neurketetan jasotako erabileran oinarritu ditugu nagusitasuna neurtzeko adierazleak. Bateragarriak al dira horrela sortutako adierazleak eta orain garai bakoitzeko haur txikien H1en oinarrituta sortu ditugun horiek?

Esan beharrik ez dago kontzeptualki ez direla gauza bera lehen hizkuntza eta etxeko erabilera. Ebidentzia enpirikoak ere argi frogatzen du bi aldagai horiek ez dutela zertan bat etorri: gaur egungo Hegoaldean, adibidez, pisu handiagoa du euskarak haur txikiekiko elkarrizketetan etxeko erabilera orokorrean baino (%24,8 eta %14,9 hurrenez hurren, 2011ko zentsuko datuen arabera, atal enpirikoan ikusiko dugun bezala). Duela hamarkada batzuk, pentsa daiteke alderantziz gertatuko zela: batez beste gehiago egingo zela euskaraz, adibidez, bikotekidearekin hurrekin baino, euskaldunen zati batek euren seme-alabak erdaraz haztea erabaki zuelako. Atal enpirikoan arituko gara horretaz. Denboran ez ezik, garai berean ere aldatu egin daiteke bi aldagai horien arteko harremana lurraldetik lurraldera. Gaur egun, adibidez, gune euskaldunenetan oso gertu daude etxeko erabileran euskarak duen pisua eta haur txikiekiko erabileran duena; ingurune erdaldunduagoetan, bi aldagai horien arteko koxka handiagoa da.

Laburtuz, bada, toki/garai bateko EEren eta haur txikien H1en aldagaiek etxeko hizkuntza-erabileran koka ditzakegun bi fenomeno neurtzen dituzte, eta ez dute zertan bat etorri. Horretaz gain, bi aldagaien arteko harremana ez da sistematikoa eta aldatu



egiten da bai denboran eta bai espazioan. Argi utzi beharra zegoen bi aldagai horien arteko bereizketa hori. Hala eta guztiz ere, bi aldagaiok autonomia argia duten arren, pentsa daiteke nahiko eskutik joan izan direla azken mende honetako Euskal Herrian<sup>188</sup>: joera orokor gisa toki/eremu jakin batean aldagai horietako batean euskara indartsu egon denean bestean ere antzera egongo zela, eta alderantziz. Horrela, bada, nahiz eta H1en oinarrituta eraikiko ditugun nagusitasun-eremuak EEn oinarritzen den seriearekin homogeneousak ez izan, familia-giroan gertatzen den nagusitasunaren epe luzeko bilakaera aztertzeke adierazle egokiak izan daitezke haurren H1ean oinarritzen diren hauek ere.

Etxeko erabilerak eta haur txikien lehen hizkuntzak, beraz, biek ala biek, etxe-giroko euskararen nagusitasunaren inguruko informazio zuzena ematen digute. Beste kontu bat da etxe-giroko erabilera zenbateraino den euskararen erabilera orokorraren adierazle egokia. Pentsatzekoa da, teoriari jaramon eginda, dezenteko harremana izango dela etxe-giroko erabilera horien eta auzoan, lagun-giroan, kalean eta oro har hurbileko harreman informaletan egiten denaren artean. Orokorrean, teoriak galzorian dagoen hizkuntzaren azken gotorleku gisa aurkeztu izan du etxea; beraz, testuinguru informal horietan pentsa daiteke etxe-giroko datuek esaten dutena baino zer edo zer apalagoa izango zela gehienetan euskararen erabilera. Eta hori horrela izango zen, bereziki, XX. mendearen erdialdeko hamarkadetan bezala, Frankismoak hizkuntza gutxituarekiko baztertze- eta zapalkuntza-politika publikoak indarrean jarri zituen garaian. Pentsatzekoa da, hortaz, garai horietan bereziki, gure kopuruek adierazten duten baino erabilera apalagoa izango zuela euskarak etxetik kanpo hurbileko testuinguruetan.

Horretaz gain, badakigu XX. mendearen azken bizpahiru hamarkadak arte, etxeko erabilerak eta haur txikien lehen hizkuntzak adierazten zutena baino nabarmen txikiagoa zela euskararen erabilera eremu formalagoetan (lan munduan, hezkuntzan, administrazioan, hedabideetan...). Horrela, bada, lehen hizkuntzan oinarrituta sortu ditugun denbora-serieak etxe-giroko erabileraren adierazle nahiko leialak izan daitezke, ez hainbeste hurbileko harreman guztiena, eta are gutxiago testuinguru formaletan euskarak zuen erabilerarena. Iruzkina hauek kontuan hartu beharko dira adierazle horien datuak irakurtzerakoan.

#### **9.8.4. Azken mendeko bilakaera luzea aztertzeke Hegoaldeko lurraldearen multzokatzea**

Gure helburuetako bat da, zentsuetako lehen hizkuntzari buruz belaunaldiz belaunaldiko datuak aztertuta, hurbilpen partzial bat egitea hizkuntzaren egoera sozialak azken mendean izan duen bilakaera historikora. Bilakaera hori lurralde-eremu arrunten arabera aztertu ahal izango da batetik (administrazio-eremu, herrialde...)<sup>189</sup>.

Bestetik, oinarritzko ustiaketa bat egiteko, berariazko lurraldekatze batean, XX. mende hasierako egoera aintzat hartuta, bi multzotan banatu ditugu Hegoaldeko udalerriak:

---

<sup>188</sup> Lehenagoko daturik ez dugun arren, 1991-2016 tarterako aldagaien arteko korrelazio-indize handiek hori ematen digute aditzera (ikus 9.8.2.4.3. puntua).

<sup>189</sup> Datuak prest daude horretarako, nahiz eta guk lan honetan ez dugun bide hori askorik jorratuko.


- XX. mende hasieran euskarak bizi-indar minimo bat zuen eremua. Bertan bildu ditugu zentsuetako datuen arabera 1904-1908 bitartean jaiotakoen artean euskarak lehen hizkuntzan %20tik gorako pisua izan zuen udalerriak.
- XX. mende hasieran euskarak toki txikia edo eskasa zuen Hego Euskal Herriko eremua. Bertan bildu ditugu zentsuetako datuen arabera 1904-1908 bitartean jaiotakoen artean euskarak lehen hizkuntzan %20tik beherako pisua edo txikiagoa izan zuen udalerriak.

Lurraldekatze hori **HZ-213: Hegoaldeko udalerriak, euskarak XX. mende hasieran izan zezakeen bizi-indarraren arabera bi multzotan bereizita** adierazlean jaso dugu.

Udalerri bakoitzerako kalkulu hori egiteko prozedura zein izan den zehatz azaldu dugu lehenago. Kalkulu horiek eginda, M.3. mapan erakusten dugu Hegoaldeko udalerriak bi multzo horietan nola sailkatzen diren. Aitor dezagun %20ko muga hori arbitrarioki ezarri dugula, eta izan zitekeela %10ekoa edo %30ekoa ere, adibidez. %20ko langak, jar zitekeen beste edozein bezain zilegia izateaz gain, badu abantaila bat: nahi izanda, nagusitasun-eremuen ikuspegiarekin bateragarria dela. Izan ere, bigarren multzoa bat dator bete-betean erdararen nagusitasuna handia zuten udalerriekin. Eta lehenengoa, gainerako lau nagusitasun-eremuen multzoarekin.

M.3. mapari begiratuta, antzekotasun argia eta ezberdintasun batzuk ere antzematen dira 70eko hamarkada bukaeran Euskaltzaindiak eremu euskaldun gisa izendatu zuenarekin, euskara gorde izan den zonaldearekin (Euskaltzaindia, 1979: 15). Aurrera begira, euskararen XX. mendeko bilakaeran sakontzeko, interesgarria litzateke bi mapak sakonkiago alderatzea.

M.3. MAPA: HEGOALDEKO UDALERRIAK, EUSKARAK XX. MENDE HASIERAN IZAN ZEZAKEEN BIZI-INDARRAREN ARABERA BI MULTZOTAN BEREIZITA (1904-1908 URTEETAN JAIOTAKOEN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA EGINDAKO BEREIZKETA; MUGA %20AN JARRITA)



Iturria: egileak landua. Maparen irudia datu tailerrak sortu du ([www.datutailerra.net](http://www.datutailerra.net)).

Oharra: Desanexioen ondorioz sortutako udalerriei euren jatorrizko udalerraren balioak esleitu dizkiegu. Bestalde, mapa hau erakusterakoan, eta irudiaren jarraitutasuna bilatuz, margoz aldatu ditugu, eta inguruko udalerrien kolorea eman, %20aren muga oso gertu izan edo lagin oso txikiak zituzten honako udalerrri nafar hauei: Xabier, Erroibar, Otsagabia, Orreaga, Abaurrepea, Itzaltzu eta Arike. Aldaketa horiek mapari eragin diote, ez datuen lanketari.



# 10. HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETEN LANKETA

## 10.1. HELBURUAK, SORTUKO DITUGUN ADIERAZLEAK ETA JARRAITUKO DUGUN PROZEDURA

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

### 10.1.1. Kale-erabilerako datuen alderagarritasuna helburu

Atal teorikoko 4.2.3. puntuan, euskal demolinguistikaren bigarren adar nagusi gisa aurkeztu dugu HEKN eta bertan azaldu dugu zein diren eragiketa horren ezaugarri nagusiak eta ibilbidea. Ez ditugu han esandakoak errepikatuko. Gogora dezagun, hori bai, euskararen erabilera aztertzerakoan, baliozkotasun handiena duen eragiketa dela HEKN. Izan ere, gainerako eragiketa guztiak hiztunen erantzunetan oinarritzen dira, baina HEKN zuzenean behatutako portaeretatik abiatzen da. Horixe da, ziurrenik, HEKNren indargune nagusia. Eta, alde horretatik, ordezkazinezko ekarpena egiten dio euskal demolinguistikari.

Euskal Herriko eragiketa demolinguistikoek osatzen duten (edo osa dezaketen) sistemaren ikuspegitik, ordea, alderagarritasun zaila du HEKNk gainerako eragiketekin. Izan ere, ISLk eta Hegoaldeko zentsuek batetik eta HEKNk bestetik eskaintzen dizkiguten erabilera-datuak ez dira zuzenean alderagarriak. Eragiketen arteko alderagarritasun-arazoei konponbideak ematen saiatzea da tesi honen xedeetako bat, helburu metodologiko orokorrean jasota gelditu den bezala. Eta hortik zuzenean sortzen da HEKNren lanketarako geure buruari jarri diogun honako helburu zehatz hau:

❖ *Zentsu eta ISLetako erabilera-datuekin alderagarria izango den kale-erabilerari buruzko adierazlea sortzea. Horretarako, HEKNko datuetan oinarrituta, ISL eta zentsuen urteetara egokituko den eta adinaren arabera haztatuko den adierazlea sortu beharko da.*

Horretarako, homogeneizatzeko lan bat egin beharra dago datu batzuk eta besteak alderatzeko. Datuak alderagarri egiteko, bi dira HEKNren emaitzen gainean nagusiki egin beharreko moldaketak, aipatu ditugun helburu zehatzean jasotzen den bezala:

- HEKNren datuak bildu izan diren urteen eta ISLren zein Hegoaldeko zentsuen urteen bateragarritasuna lantzea.
- ISL eta zentsuko datuekin alderagarri egiteko, HEKNren datuak adina aintzat hartuta haztatzea (auzi mamitsu honen azalpen sakonagoa emango dugu 10.4. puntuan).

Bi moldaketa horietaz gain, hainbat kasutan HEKN-n ikertu den unibertsoa egokitu egin beharko da: Hegoaldera mugatu beharko dira HEKNren emaitzak Hegoaldeko zentsuekin alderatu nahi ditugunean, eta 15 urtetik gorako hiztunetara mugatu beharko dira emaitzak ISLkoekin alderatu nahi ditugunean.

### 10.1.2. HEKNtik sortuko ditugun adierazleak

HEKNko datuak baliatuta sortuko ditugun bost adierazleak T.87. taulan aurkeztu ditugu. Has gaitezen horiek nola sortu ditugun azaltzen.

**T.87. TAULA: HEKN-TIK SORTU DITUGUN ADIERAZLEEN ZERRENDA.**

ARDATZA	ADIERAZLEAREN KODEA ETA IZENBURUA	ADIERAZLEARI BURUZKO AZALPENAK (Metodologia ataleko zein puntutan)
2-Erabilera(k)	HEKN-001: <i>Euskararen kale-erabilera haztatua (%)</i>	10.
4-Testuinguru demolingüistikoa	HEKN-002: <i>Udalerriko euskararen kaleko erabileraren araberako multzokatze xehea</i>	10.7
	HEKN-003: <i>Euskararen kaleko erabileraren araberako nagusitasun-eremuak</i>	10.7
2-Erabilera(k)	HEKN-004: <i>Denbora osoko euskarazko hiztunak kalean</i>	10.8
	HEKN-005: <i>Kaleko jardunaren osaera</i>	10.8

[Iturria](#): egileak landua.

### 10.1.3. Sortuko dugun adierazle nagusia: euskararen kale-erabilera haztatua

**HEKN-001: Euskararen kale-erabilera haztatua (%)** adierazlean, hain juxtu, urteen bateragarritasuna landu eta laginak unibertsoarekiko dituen desorekak zuzenduko ditugu, HEKNko emaitzak adinaren arabera haztatuz. Zer esanahi izango du adierazle berri horrek? Zein izango da aldea HEKNk argitaratu ohi dituen emaitzen eta adierazle horrek emango dituen datuen artean? HEKNk argitaratu izan dituen emaitzek “kalean dabilen jendeak egiten duen hizkuntza-erabilera” jasotzen eta erakusten digute; *Euskararen kale-erabilera haztatua* adierazle berriak, berriz, “jendeak kalean egiten duen batez besteko erabilera” adieraziko du. Bestela esanda, adierazle horrek erakutsiko du zein izango litzatekeen hizkuntzen kaleko erabilera, baldin eta adin multzo ezberdinetako hiztunak kalean maila berean ibiliko balira.

Sortuko dugun *Euskararen kale-erabilera haztatua* adierazlea moldaketa horien emaitza izango da, eta alderagarria ISL eta zentsuetako erabilera-datuekin.

Hori izango da HEKN-n sortuko dugun adierazle berri nagusia. Adierazle horretatik abiatuta, bestalde, sortuko ditugu aurreko puntuan aipatu ditugun gainerako laurak.

#### **10.1.4. “Euskararen kale-erabilera haztatua” adierazlea sortzeko jarraituko dugun prozedura labor azalduta**

*HEKN-001: Euskararen kale-erabilera haztatua (%)* adierazlea sortzeko, hainbat eragiketa eta moldaketa egingo ditugu, hurrengo orrialdeetan aurkeztuko dugun bezala. Aurreratu dezagun orain zein den egingo ditugun lanketa horien ikuspegi orokorra:

- Ustiaketarako datu-iturria finkatuko dugu.
- Gainerako iturriekin alderagarria izango dela ziurtatze aldera, kale-neurketak bosturteko multzoetan bilduko ditugu, eta bosturteko horren erdiko urtea bat etorraraziko dugu ISLren eta Hegoaldeko zentsuen urteekin. Horrela, bosturteko horren barruko neurketa guztien emaitzak bosturteko horren erdiko urtearekin izendatuko ditugu, eta bat etorriko dira zentsuen eta ISLren datekin: 1991, 1996, 2001, 2006, 2011 eta 2016.
- Adinaren arabera datuak haztatuko ditugu. Ezberdin jokatuko dugu Ipar eta Hego Euskal Herrian. Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako emaitzetarako, Iparralde osoko emaitzak birkalkulatu egingo ditugu, datuak adinaren arabera haztatuz<sup>190</sup>. Hegoaldeko emaitzetarako, bosturteko guztien udalerrikako emaitza orokorrak birkalkulatuko ditugu, hiztunak adinaren arabera haztatuz.
- Hegoaldearen kasuan, zentsu-urte bakoitzerako neurketa egin izan den udalerrien kale-erabilera haztatuaren datuak azalduko dituen erregresio-eredua landuko dugu, zentsuetan jasotako udalerrien ezaugarrietatik abiatuta. Ondoren, neurketarik egin ez den udalerrri-urteen kale-erabilerearen kalkulu bat landuko dugu erregresio-eredu horretan oinarrituta.
- Eskualde, herrialde eta Hego EHrako kaleko erabilerearen datuak sortuko ditugu, neurtutako udalerrien datuei batuz neurtu gabekoei erregresioak esleitzen dizkien balioak. Azkenik, Hegoaldeko eta Iparraldeko datuak batuta, Euskal Herriko datuak sortuko ditugu.

Puntu horiek banan-banan landuko ditugu ondorengo orriotan. Horretaz gain, azkenik, eta *Euskararen kale-erabilera haztatua* adierazlean oinarrituta, *HEKN-002*, *HEKN-003*, *HEKN-004* eta *HEKN-005* adierazleak ere landuko ditugu (kapitulu honen azkeneko puntuetan).

---

<sup>190</sup> Ipar Euskal Herrian bide laburragoa hartuko dugu, tamalez ez baitugu erregresioaren atala lantzeko moduko lehengairik (udalerrrikako datu demolinguistikorik zentsuan).

## 10.2. ERABILIKO DITUGUN INFORMAZIO-ITURRIAK

### 10.2.1. Iturri nagusia: kaleko erabileraren neurketen datu-basea, Soziolinguistika Klusterrarena

Informazio-iturri nagusia SLK-k gure esku jarritako kale-neurketen datu basea izango da. *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018* izeneko datu-basean, Euskal Herrian 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011 eta 2016ko neurketa nagusietan herriz herri behaketa bidez jaso diren datuak ez ezik, udalerrimailan metodologia bera erabilia egin diren bestelako neurketen datuak ere biltzen dira. Urte bakoitzean herrialdez herrialde neurtu diren udalerrien kopuruak eta behatu diren hiztunen kopuruak T.88. eta T.89. tauletan aurkezten ditugu. Ikus daitekeen bezala, 1989-2018 tartean Euskal Herri osoan egindako 907 neurketetan<sup>191</sup> behatu ziren 2.573.142 hiztunen portaerak daude jasota.

Taula horietan, urte bakoitzean herrialdez herrialde zenbat udalerrri eta zenbat hiztun neurtu diren (lagina) adierazten da. Argitu dezagun, ordea, gainerako urteetan ez bezala, 1989ko laginen neurriak ez direla zehatzak, guk kalkulatuak baizik. Izan ere, lehen neurketa nagusi hartan udalerrri bakoitzean zehatz neurtu zen laginari buruzko daturik ez du biltzen SLKren datu-baseak; informazio hori bilatu egin dugu neurketa haren emaitzekin argitaratu zen artikuluan ere, baina ez dugu aurkitu (EKBko Idazkaritza Teknikoa, 1991).

Hutsune hori hainbat kalkulu eginez konpondu dugu, betiere jatorrizko ikerketan aipatzen diren ezaugarri teknikoetan oinarrituta. 1989ko neurketaren txosten teknikoan esaten zaigunez (EKBko Idazkaritza Teknikoa, 1991: 22), neurketa nagusi hartan 329.860 hiztun behatu ziren guztira Euskal Herriko 10.000 biztanletik gorako 47 udalerritan. Esaten zaigu, halaber, laginen udalerririkako banaketa biztanleen pisuaren arabera izan zela, eta udalerrri bakoitzaren barruan ere adin multzoen arabera hiztunen osaera bat etorri zela, oro har, hiztunen adinkako osaera orokorrarekin. Hori guztia aintzat hartuta, 1989. urtean 47 udalerrri horietako hiztunak (1.977.625 guztira<sup>192</sup>) eta udalerrri horietan behatutako hiztunak (329.860) harremanetan jarrita, kalkulatu egin dugu behatu ziren hiztunen proportzioa zenbatekoa zen hiztun guztiekiko: %16,6796koa. Azkenik, ehuneko hori 1989. urtean neurketak izan zituzten udalerriei eta udalerrri bakoitzeko adin multzoei aplikatu diegu, eta horrela T.89. taulan 1989. urterako azaltzen diren laginen neurriak kalkulatu ditugu<sup>193</sup>.

---

<sup>191</sup> Neurketa esaten dio Soziolinguistika Klusterrak udalerrri batean behaketa bidez urte jakin batean egindako landa-lanari, normalean egun eta ordu-tarte batean baino gehiagotan eta askotan ibilbide bat baino gehiagorekin landu izaten denari.

<sup>192</sup> Kopuru hori Hegoaldeko 1991ko zentsuetara eta Iparraldeko 1989koetara joz kalkulatu dugu; guk informazio hori EDBtik hartu dugu (Soziolinguistika Klusterra, d.g.).

<sup>193</sup> Esan dezagun, baita ere, 1989ko datuek barne-inkoherentzia (oso) txiki bat daukatela. Guk landuko ditugun datuetan ez datoz guztiz bat erabilera orokorra eta adinka ditugun erabilera-tasak, eta unibertsoen neurriekin haztatuz gero lortuko genukeena. Aldea oso txikia da, hamarren batzuetakoa, eta horren arrazoia, honako hau: guk darabiltzagun unibertso-neurriak (1991ko zentsutik hartuak) eta bere garaian EKBk erabiliak (1986ko biztanleriaren estatistiketatik hartuak) ez datozela guztiz bat. Bi aukera genituen: inkoherentzia horri eutsi edo EKBk argitaratutako ehuneko orokorrak "berregin" adinkakoetatik abiatuta. Bere garaian argitaratu ziren ehunekoei eustea erabaki dugu.



**T.88. TAULA: HIZKUNTZAREN ERABILERAREN KALE-NEURKETETAN, URTEZ URTE NEURTU DIREN UDALERRIAK, HERRIALDEAREN ARABERA (1989-2018).**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa Garaia	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	<b>EUSKAL HERRIA</b>
1989	2	17	19	5	3			<b>46</b>
1993	5	38	34	24	7	2	2	<b>112</b>
1997	6	37	36	33	30	5	1	<b>148</b>
2000			1					<b>1</b>
2001	9	41	41	30	31	4	3	<b>159</b>
2002		1	3					<b>4</b>
2003	1		6					<b>7</b>
2004			5					<b>5</b>
2005			4					<b>4</b>
2006	4	27	25	21	7	2	2	<b>88</b>
2007			1					<b>1</b>
2008	1	2	3					<b>6</b>
2009		1	3					<b>4</b>
2010			1					<b>1</b>
2011	4	32	27	21	7	4	3	<b>98</b>
2012			2					<b>2</b>
2013		4	2					<b>6</b>
2014		2	7					<b>9</b>
2015			4	1				<b>5</b>
2016	16	33	31	31	7	11	4	<b>133</b>
2017		17	43	4				<b>64</b>
2018		2	2					<b>4</b>
<b>ALDI OSOA</b>	<b>48</b>	<b>254</b>	<b>300</b>	<b>170</b>	<b>92</b>	<b>28</b>	<b>15</b>	<b>907</b>

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**T.89. TAULA: HIZKUNTZAREN ERABILERAREN KALE-NEURKETETAKO LAGINAK. HEKN-N URTEZ URTE BEHATU IZAN DIREN ELKARRIZKETAN PARTE HARTZEN ZUTEN HIZTUNAK, HERRIALDEAREN ARABERA (1989-2018).**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa Garaia	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	<b>EUSKAL HERRIA</b>
1989	37.109	152.152	86.642	40.498	10.641			<b>327.040</b>
1993	27.698	125.238	83.909	30.233	7.732	215	310	<b>275.335</b>
1997	25.772	99.550	75.637	40.281	12.774	733	161	<b>254.908</b>
2000			2.883					<b>2.883</b>
2001	21.953	95.774	100.472	32.365	8.090	786	388	<b>259.828</b>
2002		567	9.109					<b>9.676</b>
2003	1.183		17.795					<b>18.978</b>
2004			11.960					<b>11.960</b>
2005			11.672					<b>11.672</b>
2006	24.482	83.558	81.461	36.010	6.018	648	308	<b>232.485</b>
2007			1.043					<b>1.043</b>
2008	897	4.595	5.985					<b>11.477</b>
2009		1.741	15.203					<b>16.944</b>
2010			2.741					<b>2.741</b>
2011	38.669	164.019	127.824	58.383	18.280	2.446	1.865	<b>411.486</b>
2012			13.805					<b>13.805</b>
2013		17.357	15.334					<b>32.691</b>
2014		5.899	31.716					<b>37.615</b>
2015			22.065	3.974				<b>26.039</b>
2016	46.035	146.128	184.980	64.530	19.002	9.351	3.004	<b>473.030</b>
2017		29.310	80.404	5.992				<b>115.706</b>
2018		13.213	12.587					<b>25.800</b>
<b>ALDI OSOA</b>	<b>223.798</b>	<b>939.101</b>	<b>995.227</b>	<b>312.266</b>	<b>82.537</b>	<b>14.179</b>	<b>6.036</b>	<b>2.573.142</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharrak: gure laginak ez datoz guztiz bat HEKNren Euskal Herri mailako neurketa nagusien emaitza-txostenetan argitaratu direnekin. Izan ere, HEKN nagusiko behaketez gain, Soziolinguistika Klusterrak sistematizatuta dituen beste hainbat ere biltzen dira datu-base horretan. Horiek guztiak hartu ditugu guk aintzat. Bestalde, 1989. urteko neurketen laginen neurriak kalkulatu egin ditugu, EKBk bere garaian azaldu zituen irizpideak aintzat hartuta.

Hori izango da, beraz, gure oinarrizko lehengaia HEKNren lanketa egiteko. Datu-base nagusi horri, hala ere, jarraian aipatuko ditugun moldaketa txikiak egin dizkiogu, neurketa gutxi batzuk kenduz eta beste batzuk erantsiz.

#### 10.2.1.1. Gure ustiaketatik at utziko ditugun hiru neurketa

Aipatu tauletako neurketa guzti-guztietako informazioa baliatuko dugu gure ustiaketarako, honako udalerrri eta urte hauen salbuespenekin:

- 1989. urtean Zumarraga-Urretxun neurketa bakarra egin zuen EKBk eta udalerrrikako datuak bereizi gabe eskaini zituen. Gero ikusiko dugun bezala, Hegoaldeko udalerrrien kasuan, udalerrri-mailako lanketa egingo dugunez, Zumarraga eta Urretxuko 1989ko datuak ez ditugu aintzat hartuko gure ustiaketan.
- Beste bi udalerrietan egin ziren bi neurketatan, behaketa ez ziren jaso adin-talde guztiei buruzko datuak. Hori dela eta, udalerrri/urte horietan ezingo dugu kalkulatu adinaren arabera haztaturiko daturik. Hori gertatu zen, zehazki,

Sukarrietan 1997ko neurketan eta Gamiz-Fikan 2001. urtekoan. Datu horiek ere gure azterketatik at utzi ditugu.

#### 10.2.1.2. Ustiaketara bilduko ditugun hamabi neurketak

Datu-basean agertzen ziren 1989ko neurketei beste hamabi udalerritakoak erantsi dizkiegu. Horrela, SLK-k gure esku jarri duen datu-basean jasotzen diren neurketez gain, 1989. urtean 10.000 biztanle baino gutxiagoko Hego Euskal Herriko hainbat udalerritan EKBk berak egindako beste hainbat ere hartu ditugu kontuan. Bere garaian Euskal Herri osoko erabilera-tasa kalkulatzeko, EKBk ez zituen udalerrri horietako emaitzak baliatu. Baina emaitzak argitaratu zituzten (EKBko Idazkaritza Teknikoa, 1991) eta guk elkartu egin ditugu SLK-k gure esku utzi duen datu-basekoekin. Zehazki, hauek dira 1989an neurtu zituzten udalerrri horiek, 10.000 biztanle baino gutxiagokoak: Agurain, Anoeta, Belauntza, Irura, Lezo, Mutriku, Oiartzun, Villabona, Elantxobe, Otxandio, Zaratamo eta Loiu.<sup>194</sup>

Guztira, bada, moldaketa horiek eginda, azken hiru hamarraldietan Euskal Herriko udalerrietan egin diren ehunka neurketetan behatu dituzten 2.577.886 hiztunen hizkuntza-portaerari buruzko datuek osatuko dute gure lehengaia (ikus garai eta herrialdekako banaketa 10.3. puntuko T.92. taulan).

#### **10.2.2. Neurketa horietan jasotako informaziotik guk baliatuko ditugun aldagaiak**

Atal teorikoko 4.2.3. puntuan azaldu dugun bezala, HEKNren metodologia behaketan oinarritzen da. Ikertutako herritarrei ezer ere galdetu gabe, behatzaileak mintzataldeko hiztunen ezaugarriak (adina eta sexua) behatu eta elkarrizketako hizkuntza entzunda, horiek idatzi egiten ditu. I.24. irudian, azken-aurreko neurketa nagusian (2016) landa-lanean informazioa jasotzeko erabili zen euskarria erakusten da, eta II. eranskinean ikus daitezke urtez urte erabili izan dituztenak.

---

<sup>194</sup> Ipar Euskal Herrian ere 10.000 biztanlez azpiko hiru udalerrri neurtu zituzten (Atharratze, Maule eta Donapaleu); horiek, ordea, ez ditugu aintzat hartuko, aurrerago ikusiko dugunez, udalerrri-mailako gure lanketa Hegoaldera mugatuko delako.

I.24. IRUDIA: HEKN-N INFORMAZIOA JASOTZEKO ERABILI DEN FITXA. EUSKAL HERRIA, 2016

**HIZKUNTZA  
ERABILERAREN  
KALE NEURKETA**

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA  
T: 943 592 556  
kaleneurketak@soziolingvistika.eus

HERRIA: \_\_\_\_\_

IBILBIDEA: \_\_\_\_\_

EGUNA: \_\_\_\_\_ ORDUA: \_\_\_\_\_

NEURTZAILEAK: \_\_\_\_\_

	EUSKARA	GAZTELEERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa     Gizonezkoa

Iturria: Soziolingvistika Klusterra (ikus II. eranskina).

Horrela bildutako informaziotik, honako zortzi aldagai hauek baliatuko ditugu gure lanketarako:

- 2-14 urteko hiztun behatuak
- 15-24 urteko hiztun behatuak
- 25-64 urteko hiztun behatuak
- 65 urtetik gorako hiztun behatuak
- 2-14 urteko hiztunak, euskarazko elkarrizketetan behatuak
- 15-24 urteko hiztunak, euskarazko elkarrizketetan behatuak

- 25-64 urteko hiztunak, euskarazko elkarrizketetan behatuak
- 65 urtetik gorako hiztunak, euskarazko elkarrizketetan behatuak

### **10.2.3. Informazio-iturri osagarria (haztatzeko eta erregresioa lantzeko erabiliko duguna): biztanleria-zentsuak**

Erabilera haztatua kalkulatzekoan, udalerrri bakoitzean adin multzo bakoitzak zernolako pisua duen jakiteko, eta Hegoalderako erregresioa lantzeko orduan udalerrrien ezaugarrien berri izateko, biztanleria-zentsuetara jo dugu. Zehazki:

- EUSTATen 1991, 2001 eta 2011ko biztanleria zentsuetara eta 1996, 2006 eta 2016ko biztanleriaren estatistiketara jo dugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerrietarako.
- Nafarroa Garairako udalerrien datuak Nafarroako Estatistika Institututik (NASTAT) eskuratu ditugu. Nafarroan zentsu-izaerako eragiketarik egin ez den urteetarako, edo egin izan denean aldagairen batzuei buruzko informaziorik bildu izan ez den kasuetarako, hutsune horiek nola osatu ditugun, T.90. taulan zehazten dugu.
- Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoarako, biztanleriaren adinkako osaerari buruzko datuak INSEEren zentsuetakoak dira. Guk EDBtik (Soziolinguistika Klusterra, d.g.) eta Gaindegia (2019) hartu ditugu.

**T.90. TAULA: NAFARROA GARAICO UDALERRIETARAKO ERABILI DITUGUN ITURRIAK ETA EGIN DITUGUN ERAGIKETAK.**

	Hiztunen adinkako osaketa (kop.)	Hizkuntza-gaitasuna (%)	Lehen hizkuntza (%)	Etxeko erabilera (%)
<b>1991</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>
<b>1996</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>	1991 eta 2001 ehunekoen batezbestekoak (1)	1991 eta 2001 ehunekoen batezbestekoak (1)
<b>2001</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>
<b>2006 (2)</b>	2001 eta 2011ko balioen batezbestekoak	2001 eta 2011 ehunekoen batezbestekoak	2001 eta 2011 ehunekoen batezbestekoak	2001 eta 2011 ehunekoen batezbestekoak
<b>2011</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>	<b>NASTAT</b>
<b>2016 (3)</b>	2011ko datu berak	2011ko ehuneko berak	2011ko ehuneko berak	2011ko ehuneko berak

Iturria: egileak landua.

Oharrak:

(1) 1996ko Nafarroako biztanleriaren estatistikan ez zen galdetu lehen hizkuntzari eta etxeko erabilerari buruz. Hutsune hori betetzeko, 1991 eta 2001eko ehunekoen batez bestekoak esleitu dizkiegu Nafarroa Garaiko udalerriri guztiei 1996rako, 1991-1996 tartean desanexioek eraginda sortutako udalerriei izan ezik (Berriobeiti, Berriozar, Irurtzun, Beriain, Orkoi, Zizur Nagusia eta Lekunberri). Horietan, 2001eko ehunekoak esleitu diegu zuzenean 1996. urterako. Irizpide bera erabili dugu Larraun udalerrirako ere, hari ere desanexioak eragin baitzion tarte horretan.

(2) 2006. urtean ez zen biztanleriaren estatistikarik egin Nafarroa Garaian. Urte horretarako, 2001 eta 2011ko balioen batez bestekoak esleitu dizkiegu udalerriri guztiei.

(3) 2016. urtean ez zen biztanleriaren estatistikarik egin Nafarroa Garaian, eta 2011ko balio berak esleitu dizkiegu udalerriri guztiei.

### 10.3. URTEEN MULTZOKATZEA BOSTURTEKOZ BOSTURTEKO

Kale-neurketetako datuak ISL eta Hegoaldeko zentsuetakoekin alderatu ahal izateko, kale-neurketak bildu egin ditugu bosturtekoz bosturteko, neurketa bakoitza zentsu-urte hurbilenaren multzora bilduz, T.91. taulan zehazten diren irizpideen arabera. Hemendik aurrera, lan honetan, bosturteko bakoitza bosturteko horren erdian gelditzen den urtearen bidez izendatuko dugu (zentsu-urteekin bat datozen horiekin). Datuak lantzerakoan, adibidez, 1991ko kale-erabileraz ariko garenean, 1989 eta 1993 urte bitartean egindako kale-neurketen emaitza metatuz arituko gara.

T.91. TAULA: KALE-NEURKETEN MULTZOKATZEA BOSTURTEKOETAN (ZENTSUEN ETA ISL-REN URTEEKIN BAT EGITEKO)

Neurketen urteak	Multzokatzea
<b>1989 *</b>	
1990	
1991	<b>1991</b>
1992	
<b>1993 *</b>	
1994	
1995	
1996	<b>1996</b>
<b>1997 *</b>	
1998	
1999	
2000	
<b>2001 *</b>	<b>2001</b>
2002	
2003	
2004	
2005	
<b>2006 *</b>	<b>2006</b>
2007	
2008	
2009	
2010	
<b>2011 *</b>	<b>2011</b>
2012	
2013	
2014	
2015	
<b>2016 *</b>	<b>2016</b>
2017	
2018	

Iturria: egileak landua.

Oharra (\*): Euskal Herriko neurketa nagusiak egin izan diren urteak.

Bosturteko baten barruan udalerrri batean bi neurketa edo gehiago egin izan direnean, honela kalkulatu ditugu bosturtekorako datu metatuak adin multzo bakoitzerako:

- Lehenik, bosturteko horretan euskarazko elkarrizketetan behatu diren hiztunen batura eta neurtu diren hiztun guztien batura kalkulatu ditugu, kopuru absolutuetan.
- Ondoren, euskaraz ari zirenak behatutako guztien artean zatituta, bosturtekorako erabilera-tasa kalkulatu dugu.

T.92. taulan erakusten dugu, urteak multzokatuta, urte eta herrialde bakoitzean zenbait neurketek osatzen duten gure azterketa-oinarria eta kasu bakoitzean lagina zenbat hiztun behatuk osatzen duten.

T.92. TAULA: LANDUKO DITUGUN NEURKETAK ETA LAGINAK HERRIALDEKA, URTEAK MULTZOKATUTA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	GUZTIRA
<b>Neurketak zenbat udalerritan egin diren</b>							
Araba	5	6	9	4	4	16	44
Bizkaia	38	37	42	28	35	48	228
Gipuzkoa	34	36	42	31	30	76	249
Nafarroa Garaia	23	33	30	21	21	35	163
Lapurdi	7	30	31	7	7	7	89
Nafarroa Beherea	2	5	4	2	4	11	28
Zuberoa	2	1	3	2	3	4	15
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>111</b>	<b>148</b>	<b>161</b>	<b>95</b>	<b>104</b>	<b>197</b>	<b>816</b>
<b>Laginak (behatutako elkarrizketetan zeuden hiztunak)</b>							
Araba	65.403	25.772	23.136	25.379	38.669	46.035	224.394
Bizkaia	278.210	99.550	96.341	88.153	183.117	194.550	939.921
Gipuzkoa	174.860	75.637	130.259	112.121	174.907	331.752	999.536
Nafarroa Garaia	69.749	40.281	32.365	36.010	58.383	74.496	311.284
Lapurdi	18.373	12.774	8.090	6.018	18.280	19.002	82.537
Nafarroa Beherea	215	733	786	648	2.446	9.351	14.179
Zuberoa	310	161	388	308	1.865	3.004	6.036
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>607.119</b>	<b>254.908</b>	<b>291.365</b>	<b>268.637</b>	<b>477.667</b>	<b>678.190</b>	<b>2.577.886</b>

[Iturria:](#) egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

## 10.4. ADINAREN ARABERAKO HAZTAKETA. ZERGATIK ETA NOLA

### 10.4.1. HEKNren emaitzak ez dira zuzenean alderagarriak ISL eta Hegoaldeko zentsuetakoekin, laginen osaera dela eta

ISLko datuak zein Hegoaldeko zentsuetakoak batetik eta HEKNkoak bestetik alderagarriak ez izatearen arrazoi nagusia hauxe da: ikerketa batzuetan eta besteetan desberdin osatzen dituztela laginak:

- Zentsuek unibertso osoa aztertzen dute eta ISLk lagin adierazgarri bat elkarrizketatzen du. Bi ikerketa horien emaitzen lurralde-osaera, adin-osaera eta sexu-osaera bat datoz unibertsoak duen banaketarekin. Hots, lurralde batekoak eta besteak, emakumezkoak eta gizonezkoak, adin-talde batekoak eta besteak... multzo horietako bakoitzak dagokion pisua dauka emaitzetan, unibertsoko proportzioei men eginda.
- HEKNko emaitzak, berriz, orekatuak dira lurralde-osaerari dagokionez; ez, ordea, sexu-adinei dagokienez. Izan ere, HEKNk kalean dagoen hiztuna



behatzen eta neurtzen du, eta emaitzak horren arabera kalkulatu dira, lurraldeaz kanpo bestelako haztatze-eragiketarik egin gabe<sup>195</sup>. Euskararen erabilera-tasa horrela kalkulatu da HEKN-n udalerrri jakin baterako: euskarazko elkarrizketetan parte hartzen ari ziren hiztunak zatitu egiten dira neurtu diren hiztun guztien artean. Neurtu den udalerrri bakoitzerako, behatu diren elkarrizketen datuak baliatzen dira zuzenean, inolako haztatze-irizpiderik aplikatu gabe. Ondorioz, kalean leku handiagoa hartzen duten gizarteko alorrek pisu handiagoa dute HEKNren emaitzetan kalean gutxiago ibiltzen direnek baino. Hori horrela izanik, HEKNk ematen dituen erabilera-datuak “kalean egiten den hizkuntza-erabileraren” edo “kalean entzuten diren hizkuntzen” adierazle leialak dira. Ez dira, ordea, zuzenean alderagarriak euren barne-osaeran unibertsoarekiko orekatuak diren gainerako eragiketen emaitzekin (ISL eta zentsuetakoekin, zehazki).

#### 10.4.2. HEKN-n laginen osaera, adinaren arabera

Zenbateraino da garrantzitsua HEKNren laginaren desbideratze hori unibertso osoarekiko? Galdera horri erantzun nahirik, T.93. taula eraiki dugu Hego Euskal Herriko<sup>196</sup> adinkako datuekin<sup>197</sup>. Ikus daitekeen bezala, neurtutako hiztunen adinkako osaeraren eta unibertsoaren adinkako osaeraren artean alde adierazgarriak daude. Adibidez, 2016ko datuei begiratzen badiegu, 2-14 urteko haurrak hegoaldeko hiztun guztien %12,9 besterik ez ziren; HEKNko laginean, berriz, %25,1era iristen ziren, berez unibertsoan dagokien pisua bikoiztuz. Orokorrean, taulan ikus daitekeen bezala, kalean gehiago ibiltzen dira hiztun gazteak eta, batez ere, eta alde handiarekin, haurrak. Helduek eta zaharrek, berriz, proportzionalki duten pisua baino txikiagoa dute HEKNko laginetan.

---

<sup>195</sup> Siadecok landu zuen lehen behaketa nagusiak (Gipuzkoan egin zenak) haztatu egin zituen emaitzak baita adin-taldeen arabera ere (Larrañaga, 1985: 372): “*Bidezkoak diren bi mailatako ponderazio edo pisu egokitzeak egin behar izan ditugu. Udalerrri bakoitzeko jendetzaren arabera bailara edo eskualde mailakoa bat eta adintaldeen egituraren arabera bestea*”. Bestalde, 1989ko lehen neurketa nagusian ere behatu beharreko hiztunen adinkako banaketa orekatua ziurtatu zuen EKBko batzorde antolatzaileak (EKBko Idazkaritza Teknikoa, 1991: 22). Hortik aurrerako neurketetan, ordea, adina ez zen kontrolatu lagina osatzerakoan, eta emaitzak aurkezterakoan ere ez zen adinaren arabera haztatzerik egin.

<sup>196</sup> Adinari buruzko azterketa hori Hego Euskal Herrira mugatu dugu, ondoren erregresioarekin egingo dugun lanketa ere eremu horretan landuko dugulako.

<sup>197</sup> Kalean behatzen diren hiztunen sexukako osaera ere ez da guztiz orekatua. Gizonezko baino emakume gehiago behatu izan ditu HEKNk kalean: neurketa guztietan behatu direnen artean, hiztunen %54,6 ziren emakumezkoak sexuari buruzko informazioa ematen dutenetan. Gure haztatze-ariketarako ez dugu, ordea, hiztunen sexua aintzat hartuko. Batetik, hizkuntzen erabilerari dagokionez, sexuen arteko aldeak ez direlako adinaren arabera bezain handiak. Bestetik, *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018* datu-basean, adinari buruzko informazioan ez bezala, sexuaren arabera informazioan hutsuneak daudelako, eta horrek operatiboki asko zailtzen duelako sexuan oinarritutako haztatze-lanketa sistematikoki egitea.

T.93. **TAULA: HIZTUNAK, HEKN-REN LAGINAK ETA BIEN ARTEKO HARREMANAREN HAINBAT ADIERAZLE. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>Unibertsoa (hiztunak, zentsuen arabera, kopuru absolutuak)</b>						
Haurrak (2-14)	408.243	315.098	278.723	295.797	338.052	354.469
Gazteak (15-24)	440.059	417.421	344.273	280.417	249.198	244.288
Helduak (25-64)	1.387.054	1.438.294	1.500.949	1.594.829	1.633.445	1.585.330
Zaharrak (65 edo +)	336.601	403.610	454.072	484.788	520.700	560.617
GUZTIAK	2.571.957	2.574.423	2.578.017	2.655.831	2.741.395	2.744.704
<b>Unibertsoren osaketa (ehunekoak, %)</b>						
Haurrak (2-14)	15,9	12,2	10,8	11,1	12,3	12,9
Gazteak (15-24)	17,1	16,2	13,4	10,6	9,1	8,9
Helduak (25-64)	53,9	55,9	58,2	60,1	59,6	57,8
Zaharrak (65 edo +)	13,1	15,7	17,6	18,3	19,0	20,4
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Lagina (HEKN bidez behatutako hiztunak, kopuru absolutuak)</b>						
Haurrak (2-14)	107.496	50.623	64.526	64.037	107.806	162.146
Gazteak (15-24)	114.484	47.301	41.592	28.077	44.727	60.978
Helduak (25-64)	294.102	107.948	135.426	126.789	223.299	315.283
Zaharrak (65 edo +)	72.139	35.368	40.307	42.760	79.244	108.426
GUZTIAK	588.222	241.240	282.101	261.663	455.076	646.833
<b>Laginaren osaketa (ehunekoak, %)</b>						
Haurrak (2-14)	18,3	21,0	22,9	24,5	23,7	25,1
Gazteak (15-24)	19,5	19,6	14,7	10,7	9,8	9,4
Helduak (25-64)	50,0	44,7	48,0	48,5	49,1	48,7
Zaharrak (65 edo +)	12,3	14,7	14,3	16,3	17,4	16,8
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Neurtutako subjektuak erroldatutako 100 biztanleko</b>						
Haurrak (2-14)	26,3	16,1	23,2	21,6	31,9	45,7
Gazteak (15-24)	26,0	11,3	12,1	10,0	17,9	25,0
Helduak (25-64)	21,2	7,5	9,0	8,0	13,7	19,9
Zaharrak (65 edo +)	21,4	8,8	8,9	8,8	15,2	19,3
GUZTIAK	22,9	9,4	10,9	9,9	16,6	23,6
<b>Adin-multzoen kalean egoteko ohitura (batezbestekoa=100)</b>						
Haurrak (2-14)	115,1	171,4	211,6	219,7	192,1	194,1
Gazteak (15-24)	113,8	120,9	110,4	101,6	108,1	105,9
Helduak (25-64)	92,7	80,1	82,5	80,7	82,4	84,4
Zaharrak (65 edo +)	93,7	93,5	81,1	89,5	91,7	82,1
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

*Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]*

### 10.4.3. Haztatzea nola

Kale-neurketetan, behatzen diren hiztun guztien erabilera orokorra ez ezik, adinkako erabilera-datuak ere jasotzen dira. Adin-tartekako erabilera-datu horiek izango dira gure abiapuntu nagusia. Horietaz gain, zentsuen arabera adin-multzo bakoitzak hiztun guztiekiko osatzen duen ehunekoa kontuan hartuta sortu dugu *Euskararen kale-erabilera haztatua* adierazlea Ipar Euskal Herrirako eta neurketak egin izan diren Hegoaldeko udalerrri eta erreferentzia-urte bakoitzerako. Hona hemen, zehazki, hiztun guztien erabilera-tasa haztatua ebazteko erabili dugun formula.

$$KEH = \frac{100 * \left( \left( \frac{U_{euska}}{U_{guzt}} \right) * U_{hiztun} \right) + \left( \left( \frac{G_{euska}}{G_{guzt}} \right) * G_{hiztun} \right) + \left( \left( \frac{H_{euska}}{H_{guzt}} \right) * H_{hiztun} \right) + \left( \left( \frac{A_{euska}}{A_{guzt}} \right) * A_{hiztun} \right)}{Hiztunak}$$

KEH=euskararen kale-erabilera haztatua (%etan adierazita)

Ueusk=kale-neurketan euskarazko elkarrizketetan behatu diren haurrak (Umeak, 2-14 urtekoak).

Uguzt= kale-neurketan guztira behatu diren haurrak (Umeak, 2-14 urtekoak).

Uhiztun=urte eta udalerrri horretako 2-14 urte bitarteko haur kopurua, zentsuen arabera.

Geusk=kale-neurketan euskarazko elkarrizketetan behatu diren gazteak (15-24 urtekoak).

Gguzt= kale-neurketan guztira behatu diren gazteak (15-24 urtekoak).

Ghiztun=urte eta udalerrri horretako 15-24 urte bitarteko gazte kopurua, zentsuen arabera.

Heusk=kale-neurketan euskarazko elkarrizketetan behatu diren helduak (25-64 urtekoak).

Hguzt= kale-neurketan guztira behatu diren helduak (25-64 urtekoak).

Hhiztun=urte eta udalerrri horretan 25-64 urte bitarteko hiztun kopurua, zentsuen arabera.

Aeusk=kale-neurketan euskarazko elkarrizketetan behatu diren adinekoak (65 urtetik gorakoak).

Aguzt= kale-neurketan guztira behatu diren adinekoak (65 urtetik gorakoak).

Ahiztun=urte eta udalerrri horretako 65 urtetik gorako adinekoen kopurua, zentsuen arabera.

Hiztunak= udalerrriko hiztun guztiak.

## 10.5. ERREGRESIOA, NEURKETARIK EGIN IZAN EZ DEN URTE ETA UDALERRIEI KALE-ERABILERAREN BALIO BAT ESLEITZEKO ANTZEKO EZAUGARRIAK DITUZTEN UDALERRIEN ARABERA

### 10.5.1. Zergatik erregresioa eta zergatik Hegoaldean

Lehenago ikusi dugunez, kale-neurketak udalerrri ugaritan egin izan dira 1989tik hona, ez guztietan ordea. Horrek zailtasun bat dakar. Izan ere, zer-nolako balioa eman neurtu gabeko udalerrietako erabilerrari udalerriz gaindiko eremuetarako erabilera-datuak kalkulatzeko garaian? Hutsune hori udalerrien tipologiak edo estratuak landuta ebatzi ohi du HEKNk: euren kokapen geografikoaren eta udalerrietan euskaldunek osatzen duten ehunekoaren araberrako eremu soziolinguistikoak aintzat hartuta, neurtu

diren udalerrietako batez besteko erabileraren balioa esleitu izan zaie neurtu gabeko estratu bereko udalerriei.

Kontuan hartuta euskararen kale-erabilerarekin zerikusia izan dezaketen aldagai gehiago ere badaudela Hegoaldeko zentsuetan, ahalegin bat egingo dugu aldagai horiek guztiak aintzat hartuko dituen esleitze-prozedura bat lantzeko. Erregresio-tekniketara joko dugu horretarako. Erregresioaren zeregin nagusi bat aurreikuspenak edo iragarpenak egitea izanik (Etxeberria, 2011: 154), neurtu diren udalerrietan kale-erabileraren aldakortasuna beste aldagai horien aldakortasunaren arabera azalduko dugu erregresio anizkoitza erabilita. Ondoren, neurtu gabeko udalerriei erabilera balio bat esleitu diegu beren ezaugarrien arabera, behatu diren herriekin lotu den erregresio-ekuazioan oinarrituta.

Aurrera egin aurretik, argitu dezagun gure ahalegina Hegoaldera mugatuko dugula. Tamalez, Ipar Euskal Herrian egiten diren zentsuetan ez da biltzen hizkuntza-gaiei buruzko informaziorik. Ez dago, hortaz, Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoan neurtu gabeko udalerrien erabilera beste aldagai batzuen arabera kalkulatzeko balio diezagukeen lehengairik. Hegoaldearen kasuan, orain argituko dugu zenbat udalerriren emaitzak esleitu ditugun erregresio-tekniketan oinarrituta.

#### **10.5.2. Neurketa-datuak zenbat udalerriri buruz ditugun eta zenbat diren daturik gabek, erregresioan oinarrituta esleitu beharrekoak, urtez urte**

T.94. taulan argitzen da urte bakoitzerako zer-nolako udalerrri eta biztanle multzoentzat ditugun HEKNk egindako neurketen datuak eta zeinetarako ez dugun horrelakorik. Bigarren udalerrri multzo horiei aplikatu beharko diegu lehen multzokoetan oinarrituta lotu dugun erregresio-ekuazioa.

Taula horretan ikus daitekeenez, neurketen lurralde-estaldura handia izan da bosturteko guztietan. Udalerrri gutxien 2006. urtean neurtu zen (84) eta gehien 2016an (174); bi muturrak hartuta, udalerrri guztien %16,2tik %33,3ra neurtu izan dira. Udalerrri horien artean daude, gainera, populatuenetako gehienak. Ondorioz, neurtu diren udalerrri horietan pilatzen da Hego Euskal Herriko biztanleriaren zati handiena. Eta hori neurraldi guztietan gertatu da; horrela, biztanleria-estaldura %69,9-%85,4 bitartekoa izan da (txikiena 2006. urtean eta handiena 2001. urtean).

Horrela, bada, neurraldi guztietan baditugu datuak Hego Euskal Herriko biztanleen bi herenak baino gehiago bizi diren udalerrietarako. Horiek horrela, erregresioan oinarritzen diren kalkuluak biztanleria osoaren multzo txiki bati bakarrik aplikatuko dizkiogu; urtez urte aldatzen da kopuru hori (neurtu gabeko hiztunak %15,1 ziren 2001ean eta %30,1 2006an, horiek dira bi muturrak).

**T.94. TAULA: HEGO EUSKAL HERRIKO UDALERRIAK (ETA UDALERRI HORIETAN BIZI DIREN HIZTUNAK), URTEZ URTE: NEURKETARIK BERTAN EGIN OTE ZEN EDO ERREGRESIOAN OINARRITUTAKO BALIO BAT ESLEITU DIEGUN**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>Udalerriak</b>	512	522	522	523	523	523
<b>Hiztunak</b>	2.599.969	2.574.423	2.578.017	2.655.831	2.741.395	2.744.704
<b>ERABILERAREN KALE-NEURKETA IZAN ZUTEN UDALERRIAK ETA BERTAN BIZI ZIREN HIZTUNAK</b>						
<b>Neurtutako udalerriak (kop.)</b>	100	111	122	84	90	174
<b>Neurtutako udalerriak udalerriguztiekiko (%)</b>	19,5	21,3	23,4	16,1	17,2	33,3
<b>Neurtutako udalerrietan bizi diren hiztunak (kop.)</b>	2.206.964	2.176.059	2.200.538	1.855.477	1.980.303	2.130.654
<b>Neurtutako udalerrietan bizi diren hiztunak, hiztun guztiekiko (%)</b>	<b>84,9</b>	<b>84,5</b>	<b>85,4</b>	<b>69,9</b>	<b>72,2</b>	<b>77,6</b>
<b>ERABILERAREN KALE-NEURKETA IZAN EZ ZUTEN UDALERRIAK (EUREN EMAITZAK ERREGRESIO BIDEZ ESLEITUKO DITUGUNAK)</b>						
<b>Neurtu gabeko udalerriak (kop.)</b>	412	411	400	439	433	349
<b>Neurtu gabeko udalerriak udalerriguztiekiko (%)</b>	80,5	78,7	76,6	83,9	82,8	66,7
<b>Neurtu gabeko udalerrietan bizi diren hiztunak (kop.)</b>	393.005	398.364	377.479	800.354	761.092	614.050
<b>Neurtu gabeko udalerrietan bizi diren hiztunak, hiztun guztiekiko (%)</b>	<b>15,1</b>	<b>15,5</b>	<b>14,6</b>	<b>30,1</b>	<b>27,8</b>	<b>22,4</b>

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

### 10.5.3. Erregresio anizkoitza

Erregresio-teknikaren bidez, aldagaien arteko harremana aztertu ohi dugu; zehatzago esanda, aldagai baten aldakortasuna azaltzen saiatzen gara beste aldagai baten edo batzuen aldakortasunaren arabera. Erregresioan, “mendeko aldagaia da aztertu nahi dugun aldagaia. Hori aztertzeko, beste aldagai bat edo batzuk erabiliko ditugu: aldagai askeak” (Etxeberria, 2011: 155). Gure kasuan, udalerrian kaleko erabileran euskarak duen pisua izango da mendeko aldagaia, azaldu nahi duguna, eta aldagai askeak, berriz, izango dira udalerriri horri buruz zentsuetatik jasoko ditugun hainbat ezaugarri adierazgarri (aurrerago zehaztuko ditugu). Mendeko aldagaiaren aldakortasuna aurreikusteko aldagai aske bat baino gehiago erabiliko dugunez, erregresio anizkoitza erabiliko dugu.

Landuko ditugun datuek aldagaien izaerari eta euren arteko harremanei buruz erregresioa aplikatu ahal izateko bete behar diren suposizioak betetzen dituztela ziurtatuta (Etxeberria, 1999), erabaki dugu erregresioa kalkulatzeko udalerririkako datuak udalerriri bakoitzaren hiztun kopuruaren arabera urtez urte haztatuta. Etxeberriaren

aholkuei jarraituta (1999: 112), honako urrats hauek egingo ditugu erregresioa egiteko orduan:

- Lehenik, ikuspegi teoriko batetik kaleko erabilera aurreikusteko garrantzitsuak izan daitezkeen aldagai askeak aukeratuko ditugu zentsuetatik.
- Ondoren, mendeko aldagaiaren eta aldagai askeen arteko binakako harremana aztertuko dugu korrelazioen bidez eta puntu-diagramen bidez. Horretan oinarrituta, behin betiko erregresio-prozeduran zein aldagai txertatu erabakiko dugu.
- Hortik abiatuta, bosturteko bakoitzerako erregresio-ekuazioa ebatziko dugu.
- Azkenik, bosturteko bakoitzeko erregresio-ereduaren azalpen-gaitasuna aztertuko dugu.

#### 10.5.3.1. Erregresio-eredurako zentsuetatik aukeratu ditugun aldagaiak

Gure erregresio-eredua sortzeko, mendeko aldagaia udalerrri bakoitzeko *Euskararen kale-erabilera haztatua* izango da (%etan adierazita). Euskararen kale-erabilerak udalerriz udalerrri duen aldakortasuna azaldu dezaketelakoan, zentsuetan ditugun aldagai guztiak aztertu ditugu eta horien artean, honako aldagai demolinguistiko, demografiko eta lurraldeari buruzko hauek aukeratu ditugu:

Aldagai demolinguistikoak:

- Hizkuntza-gaitasuna: udalerrian euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen duten %a (HZ-003 adierazlea).
- Lehen hizkuntzan euskarak duen pisua, ehunekoetan adierazita (HZ-005 adierazlea).
- Etxeko erabileran euskarak duen pisua, ehunekoetan adierazita (HZ-007 adierazlea).

Aldagai demografikoak:

- Haurrak: udalerrian 2 eta 14 urte bitarteko haurrek hiztun guztiekiko osatzen duten %a.
- Gazteak: udalerrian 15 eta 24 urte bitarteko gazteek hiztun guztiekiko osatzen duten %a.
- Helduak: udalerrian 25 eta 64 urte bitarteko helduek hiztun guztiekiko osatzen duten %a.
- Adinekoak: udalerrian 65 urtetik gorakoek hiztun guztiekiko osatzen duten %a.

Lurralde-aldagaiak (0 eta 1 balioekin dikotomizatuta):

- Araba (udalerrria Arabakoa den edo ez)
- Bizkaia (udalerrria Bizkaikoa den edo ez)
- Gipuzkoa (udalerrria Gipuzkoakoa den edo ez)
- Nafarroa Garaia (Udalerrria Nafarroa Garaikoa den edo ez; era berean, udalerrria EAEkoa den edo ez)

Ikus daitekeenez, mendeko aldagaia (kale-erabilera, ehunekoetan adierazita) kuantitatiboa da eta kuantitatiboak dira aldagai aske gehienak ere, lurraldeari lotutako aldagaiak izan ezik (horiek 0 eta 1 balioekin kodetu ditugu).

#### 10.5.3.2. Aldagaien arteko harreman linealaren azterketa, Pearsonen R korrelazio-koefizientearen bidez

1989-2018 urteetan udalerrietan euskararentzat neurtu zen kale-erabileraren eta aurreko zerrendako aldagaien artean dagoen harreman lineala aztertu dugu, Pearsonen R koefizientearen bidez, datuak udalerrien hiztun kopuruaren arabera haztatuta. Emaitzak T.95. taulan aurkeztu ditugu; horiek aztertuta, bi ondorio garrantzitsutara iristen gara:

Batetik, ikus dezakegu euskararen kale-erabilera modu adierazgarrian aldatzen dela aztertutako aldagai guztiekin. Aldagai horiek kale-erabilerarekin duten korrelazio-koefizientea handiagoa edo txikiagoa da kasu bakoitzean, ondoren ikusiko dugun bezala. Baina kasu guztietan, zentsuko aldagai horiek guztiek kale-erabilerarekin duten korrelazioa adierazgarria da, kasu guztietan esangura %0,01 baino txikiagoa baita. Hori dela eta, gure eredurako aldagai horiek guztiak aintzat hartzea hobetsiko dugu printzipioz.

Hori horrela izanda ere, argi ikusten da eredian txertatu ditugun aldagai aske guztien artean, hiru aldagai demolinguistikoek dutela harremanik handiena kale-erabilerarekin: kale-erabilerak 0,957ko korrelazio-koefizientea du etxeko erabilerarekin, 0,937koa lehen hizkuntzarekin eta 0,890ekoa hizkuntza-gaitasunarekin. Korrelazio-koefiziente izugarri handiak dira, batere ohikoak ez gizarte-gaiak aztertzen ditugunean. Era berean, 3 aldagai horiek oso korrelazio handia daukate euren artean ere. Gainerako aldagai ia guztiek korrelazio oso txikia erakusten dute kale-erabilerarekin. Salbuespen bakarra Gipuzkoaren aldagaia dugu, 0,506ko korrelazio-koefizientearekin.

**T.95. TAULA: ERREGRESIO-EREDUAN TXERTATUKO DITUGUN ALDAGAIEN ARTEKO KORRELAZIO LINEALA, PEARSONEN R KOEFIZIENTEAREN ARABERA. HEGOALDEKO UDALERRIAK 1989-2018**

	Kale- erabilera haztatua (%)	Hizkuntza- gaitasuna (%)	Lehen hizkuntza (%)	Etzeko erabilera (%)	2-14 (%)	15-24 (%)	25-64 (%)	65+ (%)	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa G.
Kale-erabilera haztatua (%)	1	.890**	.937**	.957**	.096**	-.110**	-.017**	.052**	-.187**	-.200**	.505**	-.183**
Hizkuntza- gaitasuna (%)	.890**	1	.955**	.947**	-.015**	-.196**	.130**	.080**	-.152**	-.073**	.567**	-.398**
Lehen hizkuntza (%)	.937**	.955**	1	.991**	.076**	-.014**	-.031**	-.012**	-.216**	-.142**	.554**	-.252**
Etzeko erabilera (%)	.957**	.947**	.991**	1	.081**	-.030**	-.034**	.001**	-.199**	-.147**	.519**	-.223**
2-14 (%)	.096**	-.015**	.076**	.081**	1	.338**	-.255**	-.683**	.033**	-.207**	.026**	.197**
15-24 (%)	-.110**	-.196**	-.014**	-.030**	.338**	1	-.528**	-.652**	.019**	-.017**	-.002**	.008**
25-64 (%)	-.017**	.130**	-.031**	-.034**	-.255**	-.528**	1	-.105**	.133**	.098**	-.012**	-.207**
65+ (%)	.052**	.080**	-.012**	.001**	-.683**	-.652**	-.105**	1	-.125**	.067**	-.006**	.021**
Araba	-.187**	-.152**	-.216**	-.199**	.033**	.019**	.133**	-.125**	1	-.301**	-.205**	-.183**
Bizkaia	-.200**	-.073**	-.142**	-.147**	-.207**	-.017**	.098**	.067**	-.301**	1	-.499**	-.445**
Gipuzkoa	.505**	.567**	.554**	.519**	.026**	-.002**	-.012**	-.006**	-.205**	-.499**	1	-.304**
Nafarroa G.	-.183**	-.398**	-.252**	-.223**	.197**	.008**	-.207**	.021**	-.183**	-.445**	-.304**	1

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilerearen neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharra (\*\*): Korrelazioa esanguratsua da aztertutako bikote guztietan, 0,01ko mailan (aldebikoa).

Aldagai askeek mendekoarekin duten korrelazioa bosturtekoz bosturteko aztertuta, harreman hori nahiko egonkorra izan dela ondorioztatu daiteke (ikus T.96. taula). Hobeki esan, kale-erabilerearekiko harreman lineal nahiko egonkorra dute aldagai guztiek, bi salbuespenekin: haurren pisuak gero eta korrelazio positibo handiagoa du euskararen kale-erabilerearekin, eta adinduen pisua, berriz, korrelazio positiboa izatetik negatiboa izatera pasa da aztertu dugun epealdian. Gainontzean, ez da aldaketa handirik sumatzen aztertu dugun epealdian.



**T.96. TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA HAZTATUAREN ETA ERREGRESIO-EREDUAN TXERTATUKO DITUGUN ZENTSUETAKO ALDAGAIEN ARTEKO KORRELAZIO LINEALA, PEARSONEN R KOEFIZIENTEAREN ARABERA, BOSTURTEKA**

	Kale-erabilera haztatua (%)					
	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Hizkuntza-gaitasuna (%)	.918**	.924**	.942**	.906**	.901**	.876**
Lehen hizkuntza (%)	.916**	.935**	.959**	.955**	.947**	.954**
Etxeko erabilera (%)	.950**	.962**	.969**	.969**	.969**	.968**
2-14 (%)	.014**	.080**	.170**	.134**	.324**	.427**
15-24 (%)	-.153**	-.127**	-.063**	-.177**	-.052**	-.033**
25-64 (%)	-.036**	-.047**	-.120**	-.022**	-.121**	-.257**
65+ (%)	.095**	.045**	.004**	.002*	-.079**	-.098**
Araba	-.162**	-.175**	-.202**	-.197**	-.200**	-.206**
Bizkaia	-.203**	-.234**	-.187**	-.153**	-.173**	-.216**
Gipuzkoa	.460**	.521**	.508**	.515**	.517**	.518**
Nafarroa G.	-.154**	-.173**	-.195**	-.225**	-.213**	-.170**




Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilerearen neurketen datu-basea, 1989-2018.*]




Oharra (\*\*): Korrelazioa esanguratsua da aztertutako bikote guztietan, 0,01ko mailan (aldebikoa).

### 10.5.3.3. Kale-erabilerearen eta aldagai demolinguistikoen arteko harremanaren azterketa puntu-diagramen bidez

Ikusi dugunez, hiru aldagai demolinguistikoek dute harremanik estuena kale-erabilerearekin. Hiru aldagai horiek urtez urte kale-erabilerearekin izan duten harremana zehatzago aztertzea komeni da, puntu-diagramen bidez (Etxeberria, 1999: 50). Horretarako sortu ditugu G.23., G.24 eta G.25. grafikoak. Grafiko bakoitzean, urte baterako, aldagai-pare jakin batean Hegoaldeko udalerriak nola kokatzen diren irudikatzen da (kale-neurketa egin zen udalerriak grafikoko puntuak izango dira). Grafiko horiek aldagaien arteko harremana ikertzeko erabiliko ditugu, gure mendeko aldagaia (kale-erabilera haztatua) gainerako hiru aldagai demolinguistikoen arabera nola aldatzen den urtez urte aztertzeko zehazki.




**G.23. GRAFIKOA: KALE-ERABILERAREN HARREMANA HIZKUNTZA-GAITASUNAREKIN. HEGOALDEKO UDALERRIAK, 1991-2016**








Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilaren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]




**G.24. GRAFIKOA: KALE-ERABILERAREN HARREMANA LEHEN HIZKUNTZAREKIN. HEGOALDEKO UDALERRIAK, 1991-2016**








[Iturria: egileak landua.](#) [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilera neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

G.25. GRAFIKOA: KALE-ERABILERAREN HARREMANA ETXKO ERABILERAREKIN. HEGOALDEKO UDALERRIAK, 1991-2016





[Iturria:](#) egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilerearen neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

G.23., G.24 eta G.25. grafikoetan argi berresten da hiru aldagai horien eta gure mendeko aldagaiaren arteko harremana oso estua dela. Hori bagenekien lehenago ere, korrelazio-koefizienteei begiratuta. Puntu-diagramek lehenago ez genekien informazioa eransten digute ordea: kale-erabilerak aldagai horiekin duen harremana guztiz lineala izatetik baino gertuago dagoela harreman lerromakurretik, hizkuntza-gaitasunaren kasuan bereziki<sup>198</sup>. Horixe bera adierazten digute, bestalde, urte eta aldagai-bikote guztietarako kalkulatu ditugun  $r^2$  koefizienteek ere. Hori dela eta, gure erregresio-funtzioan, hiru aldagai demolinguistikoak bere horretan sartu beharrean, beren berredurak sartuko ditugu, erregresio-funtzio hobea eta aurreikuste-gaitasun handiagoa lortzeko (Etxeberria, 1999: 93).

#### 10.5.3.4. Erregresio-ereduan txertatuko ditugun aldagai askeak

Argi dago, hortaz, zentsuetako hiru aldagai demolinguistikoak sartu behar ditugula erregresio-ereduan (euren berredurak, zehatzago). Hiru aldagai horiekin batera lurraldeari eta adin-osaerari buruzko gainerakoak ere sartuko ditugu funtzioan. Egia da gainerako zortzi aldagai horiek aldakortasunaren azalpenari egiten dioten ekarpena txikia izango dela, baina egin ditugun probek erakutsi digute aurreikuspen apur bat hobea egingo dugula aldagai horiek ere txertatuta aldagai horiek kanpo utzita baino.

Azkenean, bada, honako aldagai hauek sartuko ditugu erregresio-ereduan, kale-erabileraren aldakortasuna azal dezaten:

Aldagai demolinguistikoak:

- Hizkuntza-gaitasunaren berredura: udalerrian euskaldunek hiztun guztiekiko osatzen duten %aren berredura
- Lehen hizkuntzan euskarak duen pisuaren (%aren) berredura
- Etxeko erabileran euskarak duen pisuaren (%aren) berredura

Aldagai demografikoak:

- Haurrak: udalerrian 2 eta 14 urte bitarteko haurrek hiztun guztiekiko osatzen duten %a.
- Gazteak: udalerrian 15 eta 24 urte bitarteko gazteek hiztun guztiekiko osatzen duten %a.

---

<sup>198</sup> Horretaz gain, bestelako informazio interesgarria ere ikus daiteke grafiko horietan. Normala den bezala, desbideraketa handiagoak ikusten ditugu udalerrri txikietan handietan baino. Desbideraketa handiagoak ditugu, halaber, udalerrri euskaldunagoetan erdaldunagoetan baino. Horrek guztiak ikerketarako aukera interesgarriak irekitzen ditu, "espero zitekeenaren" gaineratik eta azpitik gelditzen diren udalerrien alderaketaren bidez. Guztiarekin, aldagai horien arteko harreman teorikoan sakontzeko aukera eskaintzen dute datuek. Desbideraketan analisia, bestalde, interesgarria izan daiteke ikuspegi metodologikotik ere, informazio-bilketan gertatu ahal izan diren alboratzeak edo akatsak ikertzeko eta zuzentzeko balio dezaketen heinean. Gu, ordea, ez gara horrelako azterketetan hasiko, eta lantzen ari garen erregresio-ereduaren helburura mugatuko gara: kale-neurketarik egin izan ez den udalerrietarako aurreikuspen ahalik eta egokiena egiteko erregresio-ekuazioa bilatzea.



- Helduak: udalerrian 25 eta 64 urte bitarteko helduek hiztun guztiekiko osatzen duten %a.
- Adinekoak: udalerrian 65 urtetik gorakoek hiztun guztiekiko osatzen duten %a.

Lurralde-aldagaiak (0 eta 1 balioekin dikotomizatuta):

- Araba (udalerria Arabakoa den edo ez)
- Bizkaia (udalerria Bizkaikoa den edo ez)
- Gipuzkoa (udalerria Gipuzkoakoa den edo ez)
- Nafarroa Garaia (Udalerria Nafarroa Garaikoa den edo ez; era berean, udalerria EAEkoa den edo ez)

#### **10.5.4. Bosturteko bakoitzerako erregresio-ekuazioak**

Orain arte aurkeztu ditugun korrelazio-koefizientei eta puntu-diagramei begiratuta, denboran zehar aldagaien arteko harremanetan aldaketak gertatu direla ikusten dugu. Hori aintzat hartuta, eta aurreikuspen egokiago bat egiteko helburuz, erregresio-ekuazio bana ebatziko dugu urte bakoitzerako. Erregresio-ekuazio horietan bosturteko bosturteko aldagai bakoitzari atxikitzen zaizkion koefizienteak T.97. eta T.98. tauletan aurkezten dira. Ekuazio horiek udalerrietako zentsuko emaitzei aplikatuta kalkulatu da kaleko erabilera neurketarik egin ez den udalerrietan (kalkulu horiek egingo dira batetik hiztun guztiei begira eta bestetik 15 urtetik gorako hiztunei begira).

**T.97. TAULA: BOSTURTEKO BAKOITZAREN ERREGRESIO-EREDUAREN KOEFIZIENTEAK, HIZTUN GUZTIEN KALE-ERABILERA AURREIKUSTEKO**

Eredua	Estandarizatu gabeko koefizienteak		Tipifikatutako koefizienteak			
	B	Desbider. Estand.		Beta	t	Sig.
1991 (Konstantea)	10,762		,180		59,634	,000
Etxeko erabileraren berredura	,013		,000	1,076	1084,526	,000
Gipuzkoa	3,189		,011	,097	296,451	,000
Lehen hizkuntzaren berredura	-,013		,000	-1,331	-520,188	,000
Hizkuntza gaitasunaren berredura	,010		,000	1,181	451,649	,000
Bizkaia	,439		,008	,015	54,126	,000
15-24 (%)	-,134		,002	-,013	-61,269	,000
65+ (%)	,052		,001	,009	41,650	,000
Nafarroa G.	-,757		,011	-,018	-66,188	,000
25-64 (%)	-,133		,003	-,012	-45,997	,000
1996 (Konstantea)	8,197		,097		84,314	,000
Hizkuntza gaitasunaren berredura	,013		,000	1,384	712,169	,000
Etxeko erabileraren berredura	,011		,000	,891	910,576	,000
Lehen hizkuntzaren berredura	-,014		,000	-1,329	-549,866	,000
Gipuzkoa	2,927		,008	,083	361,875	,000
15-24 (%)	-,413		,003	-,039	-160,665	,000
Nafarroa G.	1,346		,009	,030	112,453	,000
2-14 (%)	-,087		,003	-,009	-28,036	,000
Araaba	,332		,009	,007	38,630	,000
65+ (%)	,008		,002	,001	3,865	,000
2001 (Konstantea)	7,095		,105		67,693	,000
Hizkuntza gaitasunaren berredura	,009		,000	1,004	671,999	,000
Etxeko erabileraren berredura	,004		,000	,325	279,677	,000
Lehen hizkuntzaren berredura	-,004		,000	-,366	-171,739	,000
Araaba	-,105		,013	-,021	-86,485	,000
15-24 (%)	-,389		,003	-,027	-127,386	,000
2-14 (%)	,408		,002	,037	175,552	,000
Nafarroa G.	-,111		,014	-,025	-80,565	,000
Bizkaia	,397		,009	,012	42,928	,000
25-64 (%)	-,075		,002	-,007	-36,950	,000
2006 (Konstantea)	-5,840		,102		-57,097	,000
Lehen hizkuntzaren berredura	-,004		,000	-,335	-132,417	,000
Gipuzkoa	3,279		,020	,090	164,825	,000
Etxeko erabileraren berredura	,012		,000	,793	523,558	,000
Hizkuntza gaitasunaren berredura	,005		,000	,490	305,978	,000
15-24 (%)	,601		,004	,035	115,798	,000
Araaba	-1,092		,017	-,023	-65,410	,000
2-14 (%)	-,121		,003	-,011	-44,125	,000
25-64 (%)	,037		,002	,004	18,178	,000
Bizkaia	-,272		,016	-,008	-16,924	,000
2011 (Konstantea)	16,580		,121		136,867	,000
Lehen hizkuntzaren berredura	-,016		,000	-1,134	-521,814	,000
Gipuzkoa	1,391		,012	,037	113,436	,000
Etxeko erabileraren berredura	,020		,000	1,141	980,451	,000
Hizkuntza gaitasunaren berredura	,011		,000	,978	690,886	,000
Nafarroa G.	2,065		,014	,046	152,305	,000
25-64 (%)	-,362		,002	-,036	-166,069	,000
Bizkaia	-,881		,009	-,025	-101,567	,000
15-24 (%)	,235		,004	,013	65,278	,000
2-14 (%)	,057		,003	,005	20,268	,000
2016 (Konstantea)	-4,511		,109		-41,276	,000
Lehen hizkuntzaren berredura	,001		,000	,061	31,453	,000
Gipuzkoa	-1,182		,021	-,028	-57,257	,000
2-14 (%)	,302		,004	,027	82,239	,000
Etxeko erabileraren berredura	,008		,000	,512	427,007	,000
Hizkuntza gaitasunaren berredura	,004		,000	,401	341,254	,000
Bizkaia	-3,852		,016	-,095	-241,680	,000
Araaba	-1,903		,014	-,033	-133,594	,000
15-24 (%)	,181		,004	,009	44,204	,000
65+ (%)	,059		,002	,010	26,712	,000

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**T.98. TAULA: BOSTURTEKO BAKOITZAREN ERREGRESIO-EREDUAREN KOEFIZIENTEAK, 15 URTETIK GORAKO HIZTUNEN KALE-ERABILERA AURREIKUSTEKO**

Eredua		Estandarizatu gabeko koefizienteak		Tipifikatutako koefizienteak		t	Sig.
		Desbider.		Beta			
		B	Estand.				
1991	(Konstantea)	24,322	,166			146,655	,000
	Hizkuntza gaitasunaren berredura	,008	,000	,989		372,922	,000
	Lehen hizkuntzaren berredura	-,012	,000	-1,276		-49,1848	,000
	Etxeko erabileraren berredura	,014	,000	1,220		121,848	,000
	2-14 (%)	-,071	,001	-,010		-59,128	,000
	15-24 (%)	-,164	,002	-,016		-93,129	,000
	25-64 (%)	-,333	,003	-,031		-120,886	,000
	Araba	-,641	,008	-,014		-81,780	,000
	Gipuzkoa	1,753	,008	,056		227,593	,000
	Nafarroa G.	-2,005	,010	-,050		-198,008	,000
1996	(Konstantea)	9,915	,112			88,518	,000
	Hizkuntza gaitasunaren berredura	,011	,000	1,278		633,675	,000
	Lehen hizkuntzaren berredura	-,014	,000	-1,320		-525,922	,000
	Etxeko erabileraren berredura	,012	,000	,989		974,192	,000
	2-14 (%)	-,079	,002	-,008		-42,632	,000
	15-24 (%)	-,399	,002	-,039		-231,370	,000
	25-64 (%)	-,033	,002	-,003		-16,440	,000
	Araba	,230	,009	,005		27,042	,000
	Gipuzkoa	2,455	,008	,073		306,141	,000
	Nafarroa G.	1,011	,009	,024		107,900	,000
2001	(Konstantea)	5,948	,105			56,833	,000
	Hizkuntza gaitasunaren berredura	,009	,000	,955		610,657	,000
	Lehen hizkuntzaren berredura	-,004	,000	-,340		-152,407	,000
	Etxeko erabileraren berredura	,004	,000	,357		293,151	,000
	2-14 (%)	,300	,002	,028		127,947	,000
	15-24 (%)	-,279	,003	-,020		-90,579	,000
	25-64 (%)	-,061	,002	-,006		-29,624	,000
	Araba	-1,203	,009	-,024		-128,930	,000
	Gipuzkoa	-,756	,009	-,022		-80,887	,000
	Nafarroa G.	-1,082	,010	-,025		-106,777	,000
2006	(Konstantea)	-,889	,111			-8,032	,000
	Hizkuntza gaitasunaren berredura	,004	,000	,381		229,415	,000
	Lehen hizkuntzaren berredura	-,004	,000	-,332		-126,836	,000
	Etxeko erabileraren berredura	,014	,000	,905		577,704	,000
	2-14 (%)	-,217	,004	-,021		-52,884	,000
	15-24 (%)	,592	,005	,036		119,804	,000
	65+ (%)	-,081	,002	-,016		-39,574	,000
	Araba	-,811	,008	-,018		-95,826	,000
	Gipuzkoa	2,859	,009	,081		331,913	,000
	Nafarroa G.	-,161	,016	-,004		-10,068	,000
2011	(Konstantea)	-16,163	,109			-148,789	,000
	Hizkuntza gaitasunaren berredura	,010	,000	,945		646,481	,000
	Lehen hizkuntzaren berredura	-,016	,000	-1,238		-550,916	,000
	Etxeko erabileraren berredura	,022	,000	1,287		1070,141	,000
	2-14 (%)	,240	,004	,022		56,262	,000
	15-24 (%)	,513	,004	,029		126,259	,000
	65+ (%)	,292	,002	,052		136,042	,000
	Araba	,823	,009	,017		96,362	,000
	Gipuzkoa	1,672	,008	,047		204,442	,000
	Nafarroa G.	3,023	,013	,071		231,534	,000
2016	(Konstantea)	-4,963	,118			-42,130	,000
	Hizkuntza gaitasunaren berredura	,003	,000	,293		246,509	,000
	Lehen hizkuntzaren berredura	,001	,000	,096		48,852	,000
	Etxeko erabileraren berredura	,009	,000	,587		483,770	,000
	2-14 (%)	,226	,002	,021		104,019	,000
	15-24 (%)	,130	,003	,007		37,693	,000
	25-64 (%)	,001	,002	,000		,557	,578
	Araba	1,640	,010	,030		169,764	,000
	Gipuzkoa	2,085	,010	,051		216,556	,000
	Nafarroa G.	2,941	,015	,060		190,700	,000

[Iturria:](#) egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

### 10.5.5. Bosturteko bakoitzeko erregresio-ereduaren azalpen-gaitasuna

Zein da landutako erregresio-ekuazioen azalpen-gaitasuna? Ereduan txertatu ditugun zentsuetako aldagai independenteek ondo aurreikusten al dute euskararen kale-erabilera? T.99. taulan ikus daitekeenez, urte bakoitzerako landu ditugun ereduak kale-erabilera aldagarritasunaren ehuneko oso handiak azaltzen dituzte: %94,4 eta %96,0 bitartean aztertu ditugun urte guzti-guztietan hiztun guztietarako<sup>199</sup>, determinazio koefizienteak (R karratu zuzenduak) adierazten digun bezala. Bestela esanda, oso txikia da gure ereduak azaltzen ez duten kale-erabilera aldakortasuna. R karratuetan kopuru hain handiak agertzea ez da ohikoa gizarte-zientzietako azterketetan. Gure helburuari dagokionez, pentsa daiteke kale-neurketarik egin izan ez den udalerrien kale-erabilera aurreikusteko ekuazio oso egokiak direla erregresio-eredu horietan landu ditugunak.

**T.99. TAULA: BOSTURTEKO BAKOITZAREN ERREGRESIO-EREDUAREN AZALPEN-GAITASUNAREN LABURPENA (I): HIZTUN GUZTIEN KALE-ERABILERA AURREIKUSTEKO**

	R	R karratua	R karratu zuzendua	Estimazioaren desbideratze estandarra
1991	,974	,949	,949	3,33
1996	,974	,948	,948	3,60
2001	,971	,944	,944	3,87
2006	,980	,960	,960	3,25
2011	,979	,959	,959	3,44
2016	,979	,959	,959	3,98

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilera neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**T.100. TAULA: BOSTURTEKO BAKOITZAREN ERREGRESIO-EREDUAREN AZALPEN-GAITASUNAREN LABURPENA (II): 15 URTETIK GORAKO HIZTUNEN KALE-ERABILERA AURREIKUSTEKO**

	R	R karratua	R karratu zuzendua	Estimazioaren desbideratze estandarra
1991	,973	,947	,947	3,22
1996	,972	,944	,944	3,57
2001	,969	,938	,938	3,90
2006	,979	,957	,957	3,22
2011	,978	,956	,956	3,39
2016	,979	,958	,958	3,85

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilera neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

<sup>199</sup> 15 urtetik gorako hiztunen kale-erabilera aurreikusteko ereduaren  $r^2$  zuzenduak ere oso handiak dira: %93,8 eta %95,8 bitartekoak hain justu (ikus T.100. taula).

## 10.6. URTE BAKOITZERAKO UDALERRI BAKOITZARI DAGOKION BALIOA ERABAKITZEA ETA, HORTIK ABIATUTA, UDALERRIZ GAINDIKO EREMU ETA HABITATEN KALE-ERABILERAREN DATUAK KALKULATZEA

Erregresioaren lanketa amaituta, Hego Euskal Herriko udalerrri guztietarako eta aztergai ditugun urteetarako emaitzak finkatuko ditugu, bi prozeduraz baliatuta:

- Neurketa egin izan den udalerriri/urteari, neurketaren emaitza haztatua egokituko diogu zuzenean.
- Neurketarik egin ez zen udalerrietan, erregresio-ereduak udalerriri ematen dion balioa esleituko diogu udalerrri eta urte bakoitzari, erregresio-ereduak ezinezko balioak ematen dituen izan ezik: erregresio-formulak kale-erabilerarako Otik beherako balioak eman dituzten udalerririk Ora ekarri ditugu eta 100dik gorakoak 100era. Ezinezko balioak zuzentzeko irizpide hori aspalditik erabili izan da demolinguistikan (Lieberson, 1966: 266).

Hegoaldeko udalerrien datu horietatik abiatuta, eta udalerrri bakoitzaren hiztun kopuruaren arabera haztatuta, sortuko ditugu eskualdeen eta herrialdeen datuak. Ondoren, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako erabilera-datuak hiztun kopuruaren arabera haztatuta sortuko ditugu EAeri buruzkoak. Eta Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko erabilera-datuak hiztun kopuruaren arabera haztatuta, Hegoaldeari buruzkoak.


Ipar Euskal Herriari dagokionez, kale-erabilera haztatuaren datua kalkulatu dugu urte bakoitzerako, adinkako erabilera-datuetatik eta adin-talde bakoitzaren pisu demografikotik abiatuta (10.4.3. puntuan azaldutako formula aplikatuta).

Azkenik, Hegoaldeko datuak eta Iparraldeko kale-erabilera haztatuaren datuak eta eremu bakoitzaren pisua aintzat hartuta sortuko dugu Euskal Herriari buruzko kale-erabileraren datua.

Adierazle honi **HEKN-001: Euskararen kale-erabilera haztatua (%)** izena eman diogu. Ondorengo G.26. grafikoan, HEKNren jatorrizko balioak (haztatu gabe) eta adierazle berri horrek hartzen dituenak erakusten ditugu. Ikus daitekeen bezala, bi adierazleen balioak bat datoz hein handi batean, baina ez bete-betean. Erabilera haztatua haztatu gabekoaren azpitik azaltzen zaigu neurraldi guztietan. Hori logikoa da, erabilera handiena egiten duten sektoreak (gazteak eta, batez ere, haurrak) kalean gehiago dabiltzalako. Bi adierazleen arteko aldea, ordea, ez da konstantea, aldatu egin da edizioz edizio.

Nolanahi ere, lehenago aipatu bezala, erabilera haztatuaren adierazle horiek alderagarriak izango dira ISLko eta zentsuetako erabilera-datuekin. T.101. taulan, adierazleak Euskal Herriko administrazio-eremuetan eta Hegoaldeko herrialdeetan hartzen dituen balioak erakusten ditugu.

**G.26. GRAFIKOA: HEKN-REN KALE-ERABILERARI BURUZKO DATUAK ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA HAZTATUAREN EMAITZAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (EUSKARAZKO ELKARRIZKETETAN PARTE HARTZEN ARI ZIREN HIZTUNEN %-A)**



Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: haztatutako datuetarako, *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018*; (\*) haztatu gabekoetarako (Soziolinguistika Klusterra, 2017)]

Oharrak. Haztatu gabeko datuetan, jatorrizko iturri horretatik, urteak moldatu egin ditugu: 1991ko datua berez 1989ko eta 1993ko datuen batez bestekoa da; 1996an jarri dugu 1997ko neurketa nagusiaren datua. Bi datu-serie horien arteko alde nagusia da datu batzuk adinaren arabera daudela eta besteak haztatu gabe. Horretaz gain, haztatu gabeko datuek Euskal Herri mailako neurketa nagusiak dituzte oinarrian; haztatuetan, HEKN nagusiko behaketez gain, Soziolinguistika Klusterrak sistematizatuta dituen beste hainbat ere biltzen dira, lehenago aipatu bezala.

T.101. TAULA: EUSKARAREN KALE- ERABILERA HAZTATUA, ADMINISTRAZIO-EREMU ETA HERRIALDEKA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>ERABILERA % (HIZTUN GUZTIAK, HAURRAK BARNE)</b>						
<b>EUSKAL HERRIA</b>	11,0	12,5	13,0	12,7	12,3	12,3
Hego EH	11,5	12,8	13,5	13,3	13,0	13,0
Ipar EH	6,7	8,9	7,7	6,4	6,0	5,4
<b>Hegoaldeko administrazio-eremuak eta herrialdeak:</b>						
EAE	12,9	14,4	15,5	15,4	15,2	14,9
Araba	2,8	3,5	3,2	4,2	3,6	4,4
Bizkaia	8,5	9,1	11,0	10,2	9,2	8,5
Gipuzkoa	24,4	27,9	28,3	29,1	30,2	29,7
Nafarroa Garaia (NFK)	5,7	6,5	6,0	5,9	5,5	6,6
<b>ERABILERA % (15 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)</b>						
<b>EUSKAL HERRIA</b>	10,2	11,7	12,1	11,7	11,2	11,1
Hego EH	10,6	12,0	12,6	12,4	11,9	11,9
Ipar EH	6,9	9,3	7,9	6,4	5,5	4,6
<b>Hegoaldeko administrazio-eremuak eta herrialdeak:</b>						
EAE	11,9	13,4	14,4	14,2	13,9	13,5
Araba	2,5	3,2	3,0	3,9	3,3	3,9
Bizkaia	8,1	8,6	10,2	9,5	8,5	7,8
Gipuzkoa	22,2	25,8	26,4	26,8	27,6	27,0
Nafarroa Garaia (NFK)	5,1	6,2	5,7	5,6	5,2	6,3

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

## 10.7. KALEKO ERABILERA-DENTSITATEAREN ADIERAZLEAK HEGO EUSKAL HERRIRAKO

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguitikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

Orain arteko lanketarekin, euskararen kaleko erabileraren datu bat (ehuneko bat) izango dugu udalerrri eta urte bakoitzerako. Horrek bide ematen digu Hegoaldeko testuinguru demolinguitikoei buruzko informazioa landu ahal izateko, HEKNrekin geure buruari jarri diogun bigarren helburu zehatzari heltzeko:

❖ **“Euskararen kale-erabilera haztatua” adierazlean oinarrituta, hiztunak bizi diren udalerriko kale-erabileran euskarak duen pisuaren arabera adierazle berriak sortzea, urte bakoitzerako udalerrriak multzokatuz udalerrietako euskararen nagusitasunaren ikuspegitik**

Aurreko adierazlean hartzen duten balioaren arabera udalerriak multzokatuz, T.102. taulan erakusten ditugun bi multzokatzeak landuko ditugu: multzokatze xehe bat (**HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren arabeko multzokatze xehea**), udalerriak hamar multzotan sailkatuz, eta multzokatze orokorrago bat, hamar multzo horiek bostera ekarriz. Multzokatze orokorrago horri **HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabeko nagusitasun-eremuak** esango diogu. Bi adierazle horiek Hegoalderako sortuko ditugu, kapitulu honetan azaldutako arrazoiengatik, ezin baitira, oraingoz, Iparraldeko udalerrri guztietarako datuak esleitu.

Adierazle hori, bestalde, arnasmuneak neurtzeko erabiliko dugu, T.102. taulako nagusitasun-eremuen izendapenean ikus daitekeen bezala. Atal teorikoan aritu gara arnasmuneez, eta Zalbideren (2019a) irizpideetan oinarrituta arnasmuneeen kontzeptuaren operatibizatzea egiteko proposamena aurkeztu dugu (Iurrebaso 2019). Proposamen horren arabera, etxeko erabilera %60tik gorakoa den udalerriak jotzen dira arnasmunetzat. Horien barruan, arnasmune betetzat jotzen dira erabilera hori %80tik gorakoa duten udalerriak eta arnasmune erasantzat erabilera %60-%80 bitartekoa duten udalerriak. Irizpide horiek berak erabiliko ditugu, halaber, aurkezten ari garen adierazle honetan, udalerriak kale-erabileraren arabera sailkatzeko orduan.

**T.102. TAULA: UDALERRIETAKO KALEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAN OINARRITUTA LANDU DITUGUN UDALERRIEN MULTZOKATZEAK: MULTZOKATZE XEHEA ETA NAGUSITASUN-EREMUAK.**

<b>Kaleko erabileraren arabeko multzokatze xehea (HEKN-002)</b>	<b>Nagusitasun-eremuak (HEKN-003)</b>
Euskaraz %90-100	Arnasmune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)
Euskaraz %80-89,9	
Euskaraz %70-79,9	Arnasmune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)
Euskaraz %60-69,9	
Euskaraz %50-59,9	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (euskararen kaleko erabilera %40-%60koa)
Euskaraz %40-49,9	
Euskaraz %30-39,9	Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)
Euskaraz %20-29,9	
Euskaraz %10-19,9	Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)
Euskaraz %10 baino gutxiago	

[Iturria: egileak landua.](#)

T.103. taulan, bi adierazle horiek Hegoalderako hartu izan dituzten balioak aurkezten ditugu. Eta T.104.-T.112. bitarteko tauletan informazio hori bera eta udalerrien banaketari buruzkoa ere aurkezten da Hegoalderako, EAErako eta lau herrialdeetarako.



**T.103. TAULA: HIZTUNAK, BIZI DIREN UDALERRIKO KALEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA: MULTZOKATZE XEHEA ETA NAGUSITASUN-EREMUAK. HEGOALDEKO HIZTUNAK, 1991-2016**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991	1996	2001	2006	2011	2016
	(kop)	(kop)	(kop)	(kop)	(kop)	(kop)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
<b>HEKN-001: Euskararen kale-erabilera haztatua (%)</b>												
Norbera bizi den udalerrian euskaraz (batez bestekoa, %)							11,5	12,8	13,5	13,3	13,0	13,0
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren arabera multzokatze xehea</b>												
Euskaraz %90-100	21.747	14.374	4.585	11.596	33.467	10.285	0,8	0,6	0,2	0,4	1,2	0,4
Euskaraz %80-89,9	18.972	19.135	26.668	24.816	42.388	34.416	0,7	0,7	1,0	0,9	1,5	1,3
Euskaraz %70-79,9	59.054	56.123	53.659	35.539	14.133	42.491	2,3	2,2	2,1	1,3	0,5	1,5
Euskaraz %60-69,9	16.364	39.305	21.944	53.607	31.178	41.377	0,6	1,5	0,9	2,0	1,1	1,5
Euskaraz %50-59,9	37.932	70.928	61.327	53.822	53.801	65.732	1,5	2,8	2,4	2,0	2,0	2,4
Euskaraz %40-49,9	44.132	53.705	96.963	81.855	112.813	96.401	1,7	2,1	3,8	3,1	4,1	3,5
Euskaraz %30-39,9	111.791	109.937	191.477	131.015	123.281	94.181	4,3	4,3	7,4	4,9	4,5	3,4
Euskaraz %20-29,9	146.145	123.222	79.535	122.909	108.884	148.010	5,7	4,8	3,1	4,6	4,0	5,4
Euskaraz %10-19,9	168.279	341.206	356.923	388.302	391.444	383.909	6,5	13,3	13,8	14,6	14,3	14,0
Euskaraz %10 baino gutxiago	1.947.541	1.746.488	1.684.936	1.752.372	1.830.006	1.827.902	75,7	67,8	65,4	66,0	66,8	66,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.571.957</b>	<b>2.574.423</b>	<b>2.578.017</b>	<b>2.655.833</b>	<b>2.741.395</b>	<b>2.744.704</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak</b>												
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	40.719	33.509	31.253	36.411	75.855	44.701	1,6	1,3	1,2	1,4	2,8	1,6
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	75.418	95.428	75.603	89.146	45.311	83.868	2,9	3,7	2,9	3,4	1,7	3,1
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	82.064	124.633	158.290	135.677	166.614	162.133	3,2	4,8	6,1	5,1	6,1	5,9
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	257.936	233.159	271.012	253.924	232.165	242.191	10,0	9,1	10,5	9,6	8,5	8,8
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	2.115.820	2.087.694	2.041.859	2.140.674	2.221.450	2.211.811	82,3	81,1	79,2	80,6	81,0	80,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.571.957</b>	<b>2.574.423</b>	<b>2.578.017</b>	<b>2.655.832</b>	<b>2.741.395</b>	<b>2.744.704</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**T.104. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2016 (KOPURU ABSOLUTUAK)**

	Udalerriak						Hiztun guztiak					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa G.	Hegoaldea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa G.	Hegoaldea
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren arabeko multzokatze xehea</b>												
Kaleko euskararen erabilera %90-100		3	10	13	8	21		1479	6.160	7.639	2.646	10.285
%80-89,9		10	16	26	5	31		5.595	24.409	30.004	4.412	34.416
%70-79,9		8	15	23	6	29		23.639	14.784	38.423	4.068	42.491
%60-69,9	1	6	8	15	3	18	1.494	3.905	35.377	40.776	601	41.377
%50-59,9		10	9	19	5	24		9.099	42.308	51.407	14.325	65.732
%40-49,9		8	5	13	6	19		25.161	65.454	90.615	5.786	96.401
%30-39,9		7	9	16	1	17		30.265	63.526	93.791	390	94.181
%20-29,9	1	12	9	22	7	29	1.453	42.580	98.009	142.042	5.968	148.010
%10-19,9	5	8	6	19	6	25	10.802	63.597	285.854	360.253	23.656	383.909
%10 baino gutxiago	44	40	1	85	225	310	300.995	908.635	58.315	1267.945	559.957	1.827.902
<b>GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>112</b>	<b>88</b>	<b>251</b>	<b>272</b>	<b>523</b>	<b>314.744</b>	<b>1.113.955</b>	<b>694.196</b>	<b>2.122.895</b>	<b>621.809</b>	<b>2.744.704</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabeko nagusitasun-eremuak</b>												
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)		13	26	39	13	52		7.074	30.569	37.643	7.058	44.701
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	1	14	23	38	9	47	1.494	27.544	50.161	79.199	4.669	83.868
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)		18	14	32	11	43		34.260	107.762	142.022	20.111	162.133
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	1	19	18	38	8	46	1.453	72.845	161.535	235.833	6.358	242.191
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	49	48	7	104	231	335	311.797	972.232	344.169	1.628.198	583.613	2.211.811
<b>GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>112</b>	<b>88</b>	<b>251</b>	<b>272</b>	<b>523</b>	<b>314.744</b>	<b>1.113.955</b>	<b>694.196</b>	<b>2.122.895</b>	<b>621.809</b>	<b>2.744.704</b>

[Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]

**T.105. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2016 (EHUNEKO BERTIKALAK)**

	Udalerrriak						Hiztun guztiak					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa G.	Hegoaldea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa G.	Hegoaldea
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren arabera multzokatze xehea</b>												
Kaleko euskararen erabilera %90-100	-	2,7	11,4	5,2	2,9	<b>4,0</b>	-	0,1	0,9	0,4	0,4	<b>0,4</b>
%80-89,9	-	8,9	18,2	10,4	1,8	<b>5,9</b>	-	0,5	3,5	1,4	0,7	<b>1,3</b>
%70-79,9	-	7,1	17,0	9,2	2,2	<b>5,5</b>	-	2,1	2,1	1,8	0,7	<b>1,5</b>
%60-69,9	2,0	5,4	9,1	6,0	1,1	<b>3,4</b>	0,5	0,4	5,1	1,9	0,1	<b>1,5</b>
%50-59,9	-	8,9	10,2	7,6	1,8	<b>4,6</b>	-	0,8	6,1	2,4	2,3	<b>2,4</b>
%40-49,9	-	7,1	5,7	5,2	2,2	<b>3,6</b>	-	2,3	9,4	4,3	0,9	<b>3,5</b>
%30-39,9	-	6,3	10,2	6,4	0,4	<b>3,3</b>	-	2,7	9,2	4,4	0,1	<b>3,4</b>
%20-29,9	2,0	10,7	10,2	8,8	2,6	<b>5,5</b>	0,5	3,8	14,1	6,7	1,0	<b>5,4</b>
%10-19,9	9,8	7,1	6,8	7,6	2,2	<b>4,8</b>	3,4	5,7	41,2	17,0	3,8	<b>14,0</b>
%10 baino gutxiago	86,3	35,7	1,1	33,9	82,7	<b>59,3</b>	95,6	81,6	8,4	59,7	90,1	<b>66,6</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak</b>												
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %80tik gorakoa)	-	11,6	29,5	15,5	4,8	<b>9,9</b>	-	0,6	4,4	1,8	1,1	<b>1,6</b>
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	2,0	12,5	26,1	15,1	3,3	<b>9,0</b>	0,5	2,5	7,2	3,7	0,8	<b>3,1</b>
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %40-%60koa)	-	16,1	15,9	12,7	4,0	<b>8,2</b>	-	3,1	15,5	6,7	3,2	<b>5,9</b>
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20-%40 artekoa)	2,0	17,0	20,5	15,1	2,9	<b>8,8</b>	0,5	6,5	23,3	11,1	1,0	<b>8,8</b>
Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20tik beherakoa)	96,1	42,9	8,0	41,4	84,9	<b>64,1</b>	99,1	87,3	49,6	76,7	93,9	<b>80,6</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]

T.106. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2016 (EHUNEKO HORIZONTALAK)

	Udalerrriak						Hiztun guztiak					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa G.	Hegoaldea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa G.	Hegoaldea
<b>HEKN-002: Udalerrriko euskararen kaleko erabileraren arabeko multzokatze xehea</b>												
Kaleko euskararen erabilera %90-100	-	14,3	47,6	61,9	38,1	100,0	-	14,4	59,9	74,3	25,7	100,0
%80-89,9	-	32,3	51,6	83,9	16,1	100,0	-	16,3	70,9	87,2	12,8	100,0
%70-79,9	-	27,6	51,7	79,3	20,7	100,0	-	55,6	34,8	90,4	9,6	100,0
%60-69,9	5,6	33,3	44,4	83,3	16,7	100,0	3,6	9,4	85,5	98,5	1,5	100,0
%50-59,9	-	41,7	37,5	79,2	20,8	100,0	-	13,8	64,4	78,2	21,8	100,0
%40-49,9	-	42,1	26,3	68,4	31,6	100,0	-	26,1	67,9	94,0	6,0	100,0
%30-39,9	-	41,2	52,9	94,1	5,9	100,0	-	32,1	67,5	99,6	0,4	100,0
%20-29,9	3,4	41,4	31,0	75,9	24,1	100,0	1,0	28,8	66,2	96,0	4,0	100,0
%10-19,9	20,0	32,0	24,0	76,0	24,0	100,0	2,8	16,6	74,5	93,8	6,2	100,0
%10 baino gutxiago	14,2	12,9	0,3	27,4	72,6	100,0	16,5	49,7	3,2	69,4	30,6	100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,8</b>	<b>21,4</b>	<b>16,8</b>	<b>48,0</b>	<b>52,0</b>	<b>100,0</b>	<b>11,5</b>	<b>40,6</b>	<b>25,3</b>	<b>77,3</b>	<b>22,7</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabeko nagusitasun-eremuak</b>												
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	-	25,0	50,0	75,0	25,0	100,0	-	15,8	68,4	84,2	15,8	100,0
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	2,1	29,8	48,9	80,9	19,1	100,0	1,8	32,8	59,8	94,4	5,6	100,0
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	-	41,9	32,6	74,4	25,6	100,0	-	21,1	66,5	87,6	12,4	100,0
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	2,2	41,3	39,1	82,6	17,4	100,0	0,6	30,1	66,7	97,4	2,6	100,0
Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	14,6	14,3	2,1	31,0	69,0	100,0	14,1	44,0	15,6	73,6	26,4	100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,8</b>	<b>21,4</b>	<b>16,8</b>	<b>48,0</b>	<b>52,0</b>	<b>100,0</b>	<b>11,5</b>	<b>40,6</b>	<b>25,3</b>	<b>77,3</b>	<b>22,7</b>	<b>100,0</b>

[Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]

T.107. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, 1991-2016

	Udalerrriak						Hiztun guztiak						Hiztun guztiak (%)					
	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 %	1996 %	2001 %	2006 %	2011 %	2016 %
<b>HEKN-002: Udalerrriko euskararen kaleko erabileraren arabera multzokatze xehea</b>																		
Kaleko euskararen erabilera %90-100	46	40	14	25	52	21	21747	14.374	4.585	11596	33.467	10.285	0,8	0,6	0,2	0,4	12	0,4
%80-89,9	20	23	34	23	18	31	18.972	19.135	26.668	24.816	42.388	34.416	0,7	0,7	1,0	0,9	1,5	1,3
%70-79,9	24	25	37	28	16	29	59.054	56.123	53.659	35.539	14.133	42.491	2,3	2,2	2,1	1,3	0,5	1,5
%60-69,9	14	18	17	25	15	18	16.364	39.305	21.944	53.607	31.178	41.377	0,6	1,5	0,9	2,0	1,1	1,5
%50-59,9	15	22	25	20	21	24	37.932	70.928	61.327	53.822	53.801	65.732	1,5	2,8	2,4	2,0	2,0	2,4
%40-49,9	11	14	17	20	18	19	44.132	53.705	96.963	81.855	12.813	96.401	1,7	2,1	3,8	3,1	4,1	3,5
%30-39,9	24	22	27	23	21	17	111.791	109.937	191.477	131.015	123.281	94.181	4,3	4,3	7,4	4,9	4,5	3,4
%20-29,9	21	17	15	22	26	29	146.145	123.222	79.535	122.909	108.884	148.010	5,7	4,8	3,1	4,6	4,0	5,4
%10-19,9	22	29	31	22	28	25	168.279	341.206	356.923	388.302	391.444	383.909	6,5	13,3	13,8	14,6	14,3	14,0
%10 baino gutxiago	315	312	305	315	308	310	1947.541	1746.488	1684.936	1752.372	1830.006	1827.902	75,7	67,8	65,4	66,0	66,8	66,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>512</b>	<b>522</b>	<b>522</b>	<b>523</b>	<b>523</b>	<b>523</b>	<b>2.571.957</b>	<b>2.574.423</b>	<b>2.578.017</b>	<b>2.655.833</b>	<b>2.741.395</b>	<b>2.744.704</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak</b>																		
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %80tik gorakoa)	66	63	48	48	70	52	40.719	33.509	31.253	36.411	75.855	44.701	1,6	1,3	1,2	1,4	2,8	1,6
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	38	43	54	53	31	47	75.418	95.428	75.603	89.146	45.311	83.868	2,9	3,7	2,9	3,4	1,7	3,1
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %40-%60koa)	26	36	42	40	39	43	82.064	124.633	158.290	135.677	166.614	162.133	3,2	4,8	6,1	5,1	6,1	5,9
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20-%40 artekoa)	45	39	42	45	47	46	257.936	233.159	271.012	253.924	232.165	242.191	10,0	9,1	10,5	9,6	8,5	8,8
Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20tik beherakoa)	337	341	336	337	336	335	2.115.820	2.087.694	2.041.859	2.140.674	2.221.450	2.211.811	82,3	81,1	79,2	80,6	81,0	80,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>512</b>	<b>522</b>	<b>522</b>	<b>523</b>	<b>523</b>	<b>523</b>	<b>2.571.957</b>	<b>2.574.423</b>	<b>2.578.017</b>	<b>2.655.832</b>	<b>2.741.395</b>	<b>2.744.704</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

[Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]

T.108. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. EAE, 1991-2016

	Udalerriak						Hiztun guztiak						Hiztun guztiak (%)					
	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 %	1996 %	2001 %	2006 %	2011 %	2016 %
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren araberako multzokatze xehea</b>																		
Kaleko euskararen erabilera %90-100	37	33	11	11	38	13	17.928	11.876	3.457	3.925	28.101	7.639	0,9	0,6	0,2	0,2	1,3	0,4
%80-89,9	16	19	24	20	16	26	14.492	16.740	22.391	23.299	38.532	30.004	0,7	0,8	1,1	1,1	1,8	1,4
%70-79,9	20	16	30	23	12	23	57.602	50.612	48.790	32.979	12.081	38.423	2,8	2,5	2,4	1,6	0,6	1,8
%60-69,9	9	13	14	22	14	15	14.602	35.721	20.071	49.792	31.061	40.776	0,7	1,7	1,0	2,4	1,5	1,9
%50-59,9	12	17	19	17	15	19	34.312	64.787	56.379	51.765	45.661	51.407	1,7	3,1	2,8	2,5	2,2	2,4
%40-49,9	9	11	13	16	16	13	42.569	44.686	83.174	77.662	112.363	90.615	2,1	2,2	4,1	3,7	5,3	4,3
%30-39,9	15	19	25	21	16	16	93.835	104.826	189.698	19.969	112.186	93.791	4,5	5,1	9,3	5,8	5,3	4,4
%20-29,9	19	15	12	18	21	22	144.450	121.989	77.257	19.868	102.775	142.042	7,0	5,9	3,8	5,8	4,8	6,7
%10-19,9	19	21	24	16	18	19	167.768	337.901	354.433	382.878	389.455	360.253	8,1	16,4	17,4	18,5	18,4	17,0
%10 baino gutxiago	91	86	78	87	85	85	1.481.369	1.273.387	1.177.597	1.210.404	1.247.371	1.267.945	71,6	61,7	57,9	58,4	58,8	59,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>247</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>251</b>	<b>251</b>	<b>251</b>	<b>2.068.927</b>	<b>2.062.525</b>	<b>2.033.247</b>	<b>2.072.541</b>	<b>2.119.586</b>	<b>2.122.895</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren araberako nagusitasun-eremuak</b>																		
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %80tik gorakoa)	53	52	35	31	54	39	32.420	28.616	25.848	27.224	66.633	37.643	1,6	1,4	1,3	1,3	3,1	1,8
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	29	29	44	45	26	38	72.204	86.333	68.861	82.771	43.142	79.199	3,5	4,2	3,4	4,0	2,0	3,7
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %40-%60koa)	21	28	32	33	31	32	76.881	109.473	139.553	129.427	158.024	142.022	3,7	5,3	6,9	6,2	7,5	6,7
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20-%40 artekoa)	34	34	37	39	37	38	238.285	226.815	266.955	239.837	214.961	235.833	11,5	11,0	13,1	11,6	10,1	11,1
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20tik beherakoa)	110	107	102	103	103	104	1.649.137	1.611.288	1.532.030	1.593.282	1.636.826	1.628.198	79,7	78,1	75,3	76,9	77,2	76,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>247</b>	<b>250</b>	<b>250</b>	<b>251</b>	<b>251</b>	<b>251</b>	<b>2.068.927</b>	<b>2.062.525</b>	<b>2.033.247</b>	<b>2.072.541</b>	<b>2.119.586</b>	<b>2.122.895</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]

T.109. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. ARABA, 1991-2016

	Udalerrriak						Hiztun guztiak						Hiztun guztiak (%)					
	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 %	1996 %	2001 %	2006 %	2011 %	2016 %
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren araberako multzokatze xehea</b>																		
Kaleko euskararen erabilera %90-100													-	-	-	-	-	-
%80-89,9													-	-	-	-	-	-
%70-79,9													-	-	-	-	-	-
%60-69,9		1			1	1		1315			1488	1494	-	0,5	-	-	0,5	0,5
%50-59,9	1		1				1287		1421				0,5	-	0,5	-	-	-
%40-49,9				1					1482				-	-	-	0,5	-	-
%30-39,9													-	-	-	-	-	-
%20-29,9						1					1453		-	-	-	-	-	0,5
%10-19,9		2	2		1	5		1422	1465		137	10.802	-	0,5	0,5	-	0,1	3,4
%10 baino gutxiago	50	48	48	50	49	44	266.270	274.274	276.574	296.087	309.949	300.995	99,5	99,0	99,0	99,5	99,5	95,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>267.557</b>	<b>277.011</b>	<b>279.460</b>	<b>297.569</b>	<b>311.624</b>	<b>314.744</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren araberako nagusitasun-eremuak</b>																		
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %80tik gorakoa)													-	-	-	-	-	-
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)		1			1	1		1.315			1.488	1.494	-	0,5	-	-	0,5	0,5
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %40-%60koa)	1		1	1			1.287		1.421	1.482			0,5	-	0,5	0,5	-	-
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20-%40 artekoa)						1						1.453	-	-	-	-	-	0,5
Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20tik beherakoa)	50	50	50	50	50	49	266.270	275.696	278.039	296.087	310.136	311.797	99,5	99,5	99,5	99,5	99,5	99,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>51</b>	<b>267.557</b>	<b>277.011</b>	<b>279.460</b>	<b>297.569</b>	<b>311.624</b>	<b>314.744</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]

T.110. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. BIZKAIA, 1991-2016

	Udalerriak						Hiztun guztiak						Hiztun guztiak (%)					
	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 %	1996 %	2001 %	2006 %	2011 %	2016 %
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren arabera multzokatze xehea</b>																		
Kaleko euskararen erabilera %90-100	12	11	4	3	12	3	4.588	4.044	1516	1.168	13.497	1479	0,4	0,4	0,1	0,1	12	0,1
%80-89,9	10	10	8	5	7	10	7.564	6.518	14.187	2.225	5.440	5.595	0,7	0,6	13	0,2	0,5	0,5
%70-79,9	10	7	14	10	3	8	22.106	20.252	16.971	13.824	2.236	23.639	19	18	15	12	0,2	2,1
%60-69,9	4	4	7	10	8	6	6.907	7.358	3.542	15.222	15.386	3.905	0,6	0,7	0,3	1,4	1,4	0,4
%50-59,9	2	6	8	9	8	10	1.460	8.145	24.119	22.593	8.631	9.099	0,1	0,7	2,2	2,0	0,8	0,8
%40-49,9	6	6	6	9	6	8	25.884	21.248	21.353	25.434	24.379	25.161	2,3	1,9	1,9	2,3	2,2	2,3
%30-39,9	8	9	14	8	7	7	38.412	23.963	61.043	18.820	21.198	30.265	3,4	2,1	5,6	1,7	1,9	2,7
%20-29,9	8	9	7	11	15	12	18.522	41.013	37.713	42.045	54.195	42.580	1,6	3,7	3,4	3,8	4,8	3,8
%10-19,9	12	14	14	11	11	8	75.657	100.694	70.905	111.027	98.903	63.597	6,7	9,0	6,5	10,0	8,8	5,7
%10 baino gutxiago	37	35	29	36	35	40	935.258	888.365	845.939	855.851	879.325	908.635	82,3	79,2	77,1	77,2	78,3	81,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>109</b>	<b>111</b>	<b>111</b>	<b>112</b>	<b>112</b>	<b>112</b>	<b>1.136.358</b>	<b>1.121.600</b>	<b>1.097.288</b>	<b>1.108.209</b>	<b>1.123.190</b>	<b>1.113.955</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak</b>																		
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %80tik gorakoa)	22	21	12	8	19	13	12.152	10.562	15.703	3.393	18.937	7.074	1,1	0,9	1,4	0,3	1,7	0,6
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	14	11	21	20	11	14	29.013	27.610	20.513	29.046	17.622	27.544	2,6	2,5	1,9	2,6	1,6	2,5
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %40-%60koa)	8	12	14	18	14	18	27.344	29.393	45.472	48.027	33.010	34.260	2,4	2,6	4,1	4,3	2,9	3,1
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20-%40 artekoa)	16	18	21	19	22	19	56.934	64.976	98.756	60.865	75.393	72.845	5,0	5,8	9,0	5,5	6,7	6,5
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20tik beherakoa)	49	49	43	47	46	48	1.010.915	989.059	916.844	966.878	978.228	972.232	89,0	88,2	83,6	87,2	87,1	87,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>109</b>	<b>111</b>	<b>111</b>	<b>112</b>	<b>112</b>	<b>112</b>	<b>1.136.358</b>	<b>1.121.600</b>	<b>1.097.288</b>	<b>1.108.209</b>	<b>1.123.190</b>	<b>1.113.955</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]



T.111. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. GIPUZKOA, 1991-2016

	Udalerrriak						Hiztun guztiak						Hiztun guztiak (%)					
	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 %	1996 %	2001 %	2006 %	2011 %	2016 %
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren araberako multzokatze xehea</b>																		
Kaleko euskararen erabilera %90-100	25	22	7	8	26	10	13.340	7.832	1941	2.757	14.604	6.160	2,0	12	0,3	0,4	2,1	0,9
%80-89,9	6	9	16	15	9	16	6.928	10.222	8.204	21074	33.092	24.409	10	15	12	3,2	4,8	3,5
%70-79,9	10	9	16	13	9	15	35.496	30.360	31819	19.155	9.845	14.784	5,3	4,6	4,8	2,9	1,4	2,1
%60-69,9	5	8	7	12	5	8	7.695	27.048	16.529	34.570	14.187	35.377	12	4,1	2,5	5,2	2,1	5,1
%50-59,9	9	11	10	8	7	9	31.565	56.642	30.839	29.172	37.030	42.308	4,7	8,5	4,7	4,4	5,4	6,1
%40-49,9	3	5	7	6	10	5	16.685	23.438	61821	50.746	87.984	65.454	2,5	3,5	9,4	7,6	12,8	9,4
%30-39,9	7	10	11	13	9	9	55.423	80.863	128.655	101.149	90.988	63.526	8,3	12,2	19,6	15,2	13,3	9,2
%20-29,9	11	6	5	7	6	9	125.928	80.976	39.544	77.823	48.580	98.009	18,9	12,2	6,0	11,7	7,1	14,1
%10-19,9	7	5	8	5	6	6	92.111	235.785	282.063	271.851	290.365	285.854	13,9	35,5	43,0	40,8	42,4	41,2
%10 baino gutxiago	4	3	1	1	1	1	279.841	110.748	55.084	58.466	58.097	58.315	42,1	16,7	8,4	8,8	8,5	8,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>87</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>665.012</b>	<b>663.914</b>	<b>656.499</b>	<b>666.763</b>	<b>684.772</b>	<b>694.196</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren araberako nagusitasun-eremuak</b>																		
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	31	31	23	23	35	26	20.268	18.054	10.145	23.831	47.696	30.569	3,0	2,7	1,5	3,6	7,0	4,4
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	15	17	23	25	14	23	43.191	57.408	48.348	53.725	24.032	50.161	6,5	8,6	7,4	8,1	3,5	7,2
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	12	16	17	14	17	14	48.250	80.080	92.660	79.918	125.014	107.762	7,3	12,1	14,1	12,0	18,3	15,5
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	18	16	16	20	15	18	181.351	161.839	168.199	178.972	139.568	161.535	27,3	24,4	25,6	26,8	20,4	23,3
Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	11	8	9	6	7	7	371.952	346.533	337.147	330.317	348.462	344.169	55,9	52,2	51,4	49,5	50,9	49,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>87</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>88</b>	<b>665.012</b>	<b>663.914</b>	<b>656.499</b>	<b>666.763</b>	<b>684.772</b>	<b>694.196</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]

T.112. TAULA: UDALERRIAK ETA HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEEN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. NAFARROA GARAIA, 1991-2016

	Udalerriak						Hiztun guztiak						Hiztun guztiak (%)					
	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 %	1996 %	2001 %	2006 %	2011 %	2016 %
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren arabeko multzokatze xehea</b>																		
Kaleko euskararen erabilera %90-100	9	7	3	14	14	8	3.819	2.498	1.128	7.671	5.366	2.646	0,8	0,5	0,2	13	0,9	0,4
%80-89,9	4	4	10	3	2	5	4.480	2.395	4.277	1517	3.856	4.412	0,9	0,5	0,8	0,3	0,6	0,7
%70-79,9	4	9	7	5	4	6	1.452	5.511	4.869	2.560	2.052	4.068	0,3	1,1	0,9	0,4	0,3	0,7
%60-69,9	5	5	3	3	1	3	1.762	3.584	1.873	3.815	117	601	0,4	0,7	0,3	0,7	0,0	0,1
%50-59,9	3	5	6	3	6	5	3.620	6.141	4.948	2.057	8.140	14.325	0,7	1,2	0,9	0,4	1,3	2,3
%40-49,9	2	3	4	4	2	6	1.563	9.019	13.789	4.193	450	5.786	0,3	1,8	2,5	0,7	0,1	0,9
%30-39,9	9	3	2	2	5	1	17.956	5.111	1.779	11.046	11.095	390	3,6	1,0	0,3	1,9	1,8	0,1
%20-29,9	2	2	3	4	5	7	1.695	1.233	2.278	3.041	6.109	5.968	0,3	0,2	0,4	0,5	1,0	1,0
%10-19,9	3	8	7	6	10	6	511	3.305	2.490	5.424	1.989	23.656	0,1	0,6	0,5	0,9	0,3	3,8
%10 baino gutxiago	224	226	227	228	223	225	466.172	473.101	507.339	541.968	582.635	559.957	92,7	92,4	93,1	92,9	93,7	90,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>265</b>	<b>272</b>	<b>272</b>	<b>272</b>	<b>272</b>	<b>272</b>	<b>503.030</b>	<b>511.898</b>	<b>544.770</b>	<b>583.292</b>	<b>621.809</b>	<b>621.809</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabeko nagusitasun-eremuak</b>																		
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %80tik gorakoa)	13	11	13	17	16	13	8.299	4.893	5.405	9.187	9.222	7.058	1,6	1,0	1,0	1,6	1,5	1,1
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	9	14	10	8	5	9	3.214	9.095	6.742	6.375	2.169	4.669	0,6	1,8	1,2	1,1	0,3	0,8
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %40-%60koa)	5	8	10	7	8	11	5.183	15.160	18.737	6.250	8.590	20.111	1,0	3,0	3,4	1,1	1,4	3,2
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20-%40 artekoa)	11	5	5	6	10	8	19.651	6.344	4.057	14.087	17.204	6.358	3,9	1,2	0,7	2,4	2,8	1,0
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileraren euskararen pisua %20tik beherakoa)	227	234	234	234	233	231	466.683	476.406	509.829	547.392	584.624	583.613	92,8	93,1	93,6	93,8	94,0	93,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>265</b>	<b>272</b>	<b>272</b>	<b>272</b>	<b>272</b>	<b>272</b>	<b>503.030</b>	<b>511.898</b>	<b>544.770</b>	<b>583.291</b>	<b>621.809</b>	<b>621.809</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.]

## 10.8. KALEKO ERABILERAN, DENBORA OSOKO HIZTUNEN KALKULUA EGITEA ETA ERABILTZEN DEN EUSKARAREN OSAERA AZTERTZEA

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

Puntu honetan, honako bi helburu zehatz hauei helduko diegu:

- ❖ “Denbora osoko hiztunak” kalkulatzea kaleko erabileraren adierazle sintetikorako (kopuru absolutuetara iritsiz).
- ❖ “Jardunaren osaera” kalkulatzea kaleko erabileraren adierazle sintetikorako.

8.4.2. puntuari aipatu dugun bezala, katalanek euren *Enquesta d'usos lingüistics* delakoan kalkulatu duten *mesura de parlants de català a temps complet-PTC* adierazlearen (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 30) parekidea kalkulatu dugu euskaldunentzat “Denbora osoko hiztunak” prozeduraren bidez. Bide horretan HEKNtik abiatuta landu dugun adierazlea honela izendatu dugu, **HEKN-004: Denbora osoko euskarazko hiztunak kalean** eta zera adieraziko du: zenbat “euskaldun huts” (euskara hutsean bizi diren hiztunak) izango genituzkeen, euskara kalean zenbateko proportzioan erabili ohi den kontuan izanda. Operatiboki, adierazle hau kaleko erabileraren HEKN-001 adierazle sintetikoarekin eta lurralde-eremu bakoitzean bizi diren hiztunei buruzko zentsuetako datuekin kalkulatu dugu administrazio-eremukako eta herrialdekako datuetarako<sup>200</sup>. Erabileraren araberako udalerrien multzokatze xehearen araberako eta nagusitasun-eremukako kalkuluetarako, berriz, HEKN-002 eta HEKN-003 adierazleak baliatu ditugu, zentsuetako hiztunei buruzko datuez gain.

Denbora osoko hiztunen kalkulutik abiatuta, jardunaren osaera ere aztertu ahal izango dugu, **HEKN-005: kaleko jardunaren osaera** adierazlearen bitartez. Zer neurtuko du adierazle horrek? “Euskara errealaren”, “erabiltzen den euskararen”, “benetan ahoratzen den euskararen” osaera nolakoa den, euskara hori ekoizten duten hiztunen ezaugarri demografiko, sozial edo soziolinguistikoak aintzat hartuta. Gure kasuan, oraingoz, administrazio-eremukako, herrialdekako, erabileraren araberako udalerrien multzokatze xehearen araberako eta nagusitasun-eremukako datuak landu ditugu.

<sup>200</sup> Zehazki, zentsuetako datuak 10.2.3. puntuari zehaztutako iturrietatik hartu ditugu.

Operatiboki, denbora osoko hiltunen kopuru absolutuak ehunekoetara ekarrita kalkulatu ditugu adierazle honen balioak.

Bi adierazle horien emaitzak, T.113. taulan ikus daitezke.





# 11. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOAREN LANKETA

Atal metodologikoaren azken kapitulu honetan, aurreko bietan bezala, metodologiako galdera orokorrari erantzuten ahaleginduko gara, ISLri dagokienez. Gogora dezagun galdera hori:

*Zer-nolako tresna metodologiko (adierazle) berriak sortu daitezke Hegoaldeko Zentsuetatik, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketetatik eta Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta atal teorikoan finkatutako ardatzen inguruko informazio demolinguistiko adierazgarria eta baliagarria modu ahalik eta koherente-egituratualderagarrienean eskuratzeko?*

## 11.1. LANDUKO DUGUN DATU-BASEA; LANDUKO DITUGUN ADIERAZLE GUZTIEN IKUSPEGI OROKORRA

### 11.1.1. ISLtik gure lanketarako oinarrizko lehengaia: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Inkesta Soziolinguistikoaren aurkezpen orokorra eta dagozkion xehetasun metodologikoak atal teorikoaren 4.2.4. puntuan azaldu ditugu. Ez ditugu orain errepikatuko.

Zehaztu dezagun hauxe ezer baino lehen: ISLn bildu den informaziotik aldagai berriak osatzeko erabili dugun oinarrizko lehengaia, *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza* izan dela. Datu-base hori gure eskariari erantzunez jarri zuen gure esku Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Tesi honen lanketarako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak propio sortu zuen mikrodatuen fitxategi horrek 1991. eta 2016. urte bitarteko ISLko galdera ugariren datuak biltzen ditu, eta baita unibertsoko parametroekin bat egiteko beharrezko diren haztatze-koefizienteak ere. Atal teorikoaren T.9. taulan ikus daitekeen bezala, guztira 41.521 erregistrok osatzen dute datu-basea.

### 11.1.2. ISLtik sortuko ditugun adierazle guztien ikuspegi orokorra

Datu-base horretako informazioan oinarrituta, 71 adierazle landu ditugu. Adierazle horiek T.114. eta T.115. tauletan aurkeztu ditugu. T.114. taulan aurkezten dira

erabilera, harreman-sarearen euskalduntasuna eta euskaldunekiko erabilera aztertzeko sortu ditugun 43 adierazle bakunak eta 12 adierazle sintetikoak. Adierazle horiek guztiek HSE multzoa osatzen dute (Harreman-sareak eta Erabilera). 11.3. puntuari zabal arituko gara adierazle multzo koherente horri buruz. T.115. taulan, berriz, multzo horretatik kanpo sortu ditugun gainerako 16 adierazleak aurkezten ditugu.

Ondorengo orriotan, adierazle horiek guztiak banan-banan azalduko ditugu.

**T.114. TAULA: ISL-TIK SORTU DITUGUN ADIERAZLEEN ZERRENDA (I): HSE ADIERAZLE MULTZOKO ADIERAZLEAK.**

		ARDATZAK ETA ADIERAZLEAK		
		2-Erabilera(k) [azalpenak 11.3.3 puntuari]	4-Testuinguru demolinguistikoa: harreman-sarearen euskalduntasuna [azalpenak 11.3.4 puntuari]	2-Erabilera(k): euskaldunekiko erabilera [azalpenak 11.3.5 puntuari]
Adierazle bakunak		ISL-101: Euskararen erabilera-tasa amarekin (%)	ISL-201: Amen euskalduntasun-tasa (%)	ISL-301: Erabilera amarekin, ama euskalduna denean (%)
		ISL-102: Euskararen erabilera-tasa aitarekin (%)	ISL-202: Aiten euskalduntasun-tasa (%)	ISL-302: Erabilera aitarekin, aita euskalduna denean (%)
		ISL-103: Euskararen erabilera-tasa bikotekidearekin (%)	ISL-203: Bikotekideen euskalduntasun-tasa (%)	ISL-303: Erabilera bikotekidearekin, bikotekidea euskalduna denean (%)
		ISL-104: Euskararen erabilera-tasa neba-arrebekin (%)	ISL-204: Neba-arreben euskalduntasun-tasa (%)	ISL-304: Erabilera neba-arrebekin, guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-105: Euskararen erabilera-tasa seme-alabekin (%)	ISL-205: Seme-alaben euskalduntasun-tasa (%)	ISL-305: Erabilera seme-alabekin, guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-106: Euskararen erabilera-tasa etxean elkarrekin (%)	ISL-206: Etxeko euskalduntasun-tasa (%)	ISL-306: Erabilera etxean, etxeko guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-107: Euskararen erabilera-tasa lagunekin (%)	ISL-207: Lagunen euskalduntasun-tasa (%)	ISL-307: Erabilera lagunekin, guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-108: Euskararen erabilera-tasa lankideekin (%)	ISL-208: Lankideen euskalduntasun-tasa (%)	ISL-308: Erabilera lankideekin, guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-109: Euskararen erabilera-tasa saltzaileekin (%)	ISL-209: Saltzaileen euskalduntasun-tasa (%)	ISL-309: Erabilera ohiko saltzaileekin, guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-110: Euskararen erabilera-tasa bankuan (%)	ISL-210: Bankuko teknikarien euskalduntasun-tasa (%)	ISL-310: Erabilera bankuan, bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-111: Euskararen erabilera-tasa osasun-zerbitzuetan (%)	ISL-211: Osasun-zerbitzuetako teknikarien euskalduntasun-tasa (%)	ISL-311: Erabilera osasun-zerbitzuetan, bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-112: Euskararen erabilera-tasa udal-zerbitzuetan (%)	ISL-212: Udal-zerbitzuetako teknikarien euskalduntasun-tasa (%)	ISL-312: Erabilera udal-zerbitzuetan, bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-113: Euskararen erabilera-tasa auzokoein (%)	ISL-213: Auzokoen euskalduntasun-tasa (%)	ISL-313: Erabilera auzokoein, guztiak euskaldunak direnean (%)
		ISL-114: Euskararen erabilera-tasa administrazio publikoan (%)	ISL-214: Administrazio publikoko teknikarien euskalduntasun-tasa (%)	ISL-314: Erabilera administrazio publikoan, bertako langile guztiak euskaldunak direnean
		ISL-115: Euskararen erabilera-tasa sare sozialetan (%)		
Adierazle sintetikoak (*)	Familia [azalpenak 11.4.2 puntuari]	ISL-401: Familiako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %).	ISL-411: Familiako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoa, %).	ISL-421: Euskaldunekiko erabilera-tasa familiako harremanetan (adierazle sintetikoa, %).
	Harreman informalak [azalpenak 11.4.3 puntuari]	ISL-402: Harreman informaletako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %).	ISL-412: Harreman informaletako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoa, %).	ISL-422: Euskaldunekiko erabilera-tasa harreman informaletan (adierazle sintetikoa, %).
	Merkataritza eta zerbitzu publikoak (Harreman formalek hurbilpen partziala) [azalpenak 11.4.4 puntuari]	ISL-403: Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %)	ISL-413: Merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoa, %)	ISL-423: Euskaldunekiko erabilera-tasa merkataritzan eta zerbitzu publikoetan (adierazle sintetikoa, %).
	Aurrez aurreko harremanak [azalpenak 11.4.5 puntuari]	ISL-404: Aurrez aurreko harremanetako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %).	ISL-414: Aurrez aurreko harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoa, %)	ISL-424: Euskaldunekiko erabilera-tasa aurrez aurreko harremanetan (adierazle sintetikoa, %).

[Iturria:](#) egileak landua.

(\*) Oharra: aipatzen diren adierazle sintetikoak bi modutan kalkulatu daitezke, 11.4.6. puntuari azaltzen den bezala.



**T.115. TAULA: ISL-TIK SORTU DITUGUN ADIERAZLEEN ZERRENDA (II): HSE ADIERAZLE MULTZOTIK KANPOKO ADIERAZLEAK.**

ARDATZA	ADIERAZLEAREN KODEA ETA IZENBURUA	ADIERAZLEARI BURUZKO AZALPENAK (Metodologia ataleko zein puntutan)
1-Hizkuntza-Gaitasuna	<i>ISL-001: Ahozko hizkuntza-gaitasuna</i>	11.2
	<i>ISL-002: Hizkuntza-gaitasunaren araberako multzo metatuak</i>	11.2.8
1-Hizkuntza-Gaitasuna eta 2-Erabilera(k)	<i>ISL-501: Bi hizkuntzetako hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren araberako tipologia</i>	11.5.1
2-Erabilera(k)	<i>ISL-502: Bi hizkuntzetako erabileraren araberako tipologia</i>	11.5.1
	<i>ISL-503: Denbora osoko euskarazko hiztunak aurrez aurreko harremanetan</i>	11.5.2
	<i>ISL-504: Aurrez aurreko harremanetako jardunaren osaera</i>	11.5.2
	<i>ISL-505: Euskararen gehienezko erabilera posiblearen erreferentzia</i>	11.5.3
	<i>ISL-506: Euskararen gutxienezko erabilera posiblearen erreferentzia</i>	11.5.3
	<i>ISL-507: euskara-erdaren erabilerarako nahitaezkotasun eta aukera-erreferentzien ikuspegi osoa</i>	11.5.3
	<i>ISL-508: Erabilera erosoaren erreferentzia</i>	11.5.3
3-Motibazioak eta jarrerak	<i>ISL_601: Euskara darabilten ekoizleen motibaziara hurbilpena, euren hizkuntza-gaitasunetik abiatuta</i>	11.6
5-Hizkuntza-sozializazioa	<i>ISL-701: Belaunaldiarteko transmisioaren indizea (BATI) .</i>	11.7
	<i>ISL-702: Hizkuntza-aldaketaren indizea (HAI)</i>	11.7
	<i>ISL-703: Vila indizea</i>	11.7
6-Hizkuntza-bilakaera	<i>ISL-801: Gaitasunezko hizkuntza-bilakaeraren adierazle sintetiko xehea</i>	11.8
	<i>ISL-802: Gaitasunezko hizkuntza-bilakaeraren adierazle sintetiko laburtua</i>	11.8

[Iturria: egileak landua.](#)

## 11.2. AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ADIERAZLE SINTETIKOA (ETA HORTIK SORTZEN DIREN MULTZO METATUAK)

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguitikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

### 11.2.1. Helburua: bi hizkuntzak aintzat hartuko dituen eta *continuum* izaera jasoko duen adierazlea sortzea

Jarraian hizkuntzen jarraipena/ordezkapena/indarberritzea aztertzeko atal teorikoan zehaztu ditugun sei ardatzen artean lehenengoa, hizkuntza-gaitasunari dagokiona, lantzerako joko dugu ISLn dauden datuetatik, honako helburu zehatz honen bila:

❖ *Hiztunek bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez) duten gaitasuna kontuan hartuko duen adierazle ordinal simetrikotik bat sortzea, teoriaren arabera hizkuntza-gaitasunak duen “continuum” izaerara hurbilduta.*

Gogora dezagun, labur, zer-nolako gogoeta dagoen helburu horren oinarrian. Atal teorikoan aipatu ditugunak aintzat hartuta, defini dezagun hizkuntza-gaitasuna egoki jasotzeko adierazle batek zer-nolako ezaugarriak bete beharko dituen:

- Gizarte elebidunetan hizkuntza-gaitasuna neurtzeko, beharrezkoa izango da bi hizkuntzetako gaitasuna kontuan hartzea. Ez da nahikoa izango hizkuntza batean zenbateko gaitasuna duten jakitea.
- Komeni da adierazleak ahalik eta ongiena jaso dezala hizkuntza-gaitasunak berez duen *continuum* izaera. Horregatik, kategoria gutxiko adierazlea (dikotomikoa, trikotomikoa...) baino egokiagoa izango da banaketa simetrikotikoa izango duen kategoria askokoa.

Horiek horrela, aldagai dikotomikotik batetik urruti, adierazleak duen *continuum* izaera islatuko duen adierazle bat komeniko da hiztunen gaitasunaren argazki egokia egiteko: mutur batean X hizkuntzako hiztun elebakarrak azalduko zaizkigu, beste muturrean Y hizkuntzako elebakarrak, eta erdian, nagusitasun-mailaren arabera multzokatuta azalduko zaizkigu gainerako hiztunak.

Aipatu berri ditugun bi ezaugarriak izango dituen eta erabilera-datuekin alderagarria izango den aldagairik sor al daiteke Euskal Herrian egin izan diren eragiketako demolinguitikotatik abiatuta? HEKN-n ez da hizkuntza-gaitasunari buruzko informaziorik biltzen. Zentsuetan euskarazko gaitasunari buruzko informazioa soilik

biltzen da, eta ez da, hortaz, iturri baliagarria goiko helburuak lortzeko. Inkesta Soziolinguistikoan, ordea, badago nahiko informazio tankera horretako adierazle bat sortzeko.

Adierazle hori ez da hutsetik sortua; Inkesta Soziolinguistikoan bertan eta Euskararen Adierazle Sisteman landu dituzten multzokatzeetatik abiatu gara. Horrela, 1991. urteko Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzekin argitaratu zen *Euskararen Jarraipena* liburuan egiten den hizkuntza-gaitasunaren sailkapena da adierazle hori sortzeko lehen abiapuntua (Aizpurua, 1995: 56-58). Liburu hartako sailkapenetik abiatuta<sup>201</sup>, honako bi moldaketa txiki hauek egin ziren EASerako lanketan: batetik “euskaldun elebakarren” multzoa bitan banatu zen, eta “euskaldun elebakarrak” eta “euskaldun hartzaileak” bereizi. Bestetik, beste bi kategoriaren izenak moldatu ziren: “erdaldunak” “erdaldun elebakar” izendatu eta “elebidun hartzaileak” “erdaldun hartzaile”. Moldaketa horiek eginda, *ahozko hizkuntza-gaitasun aitortu erlatibo orokorra (Ahozko hizkuntza-gaitasuna* laburrago adierazita) adierazlea finkatu zen *Euskararen Adierazle Sistema* proiektuan (Iurrebaso, 2013). Oinarri hartatik abiatuta sortuko dugu hizkuntza-gaitasunari buruzko adierazlea, baina kontzeptu teorikoekiko hurbiltasuna bilatuz, elebidun hartzaileen eta erdaldun elebakarren multzoen definizioa aldatuz eta terminologia-moldaketa batzuk eginda.

Azal dezagun zehatz adierazlea nola eraikiko dugun.

### **11.2.2. Nondik edango dugun adierazlea sortzeko: jatorrizko galderak**

***ISL-001: Ahozko hizkuntza-gaitasuna*** adierazlea sortzeko, ISLn hizkuntza-gaitasunari buruz egin izan diren bost galdera hauei elkarrizketatuek emandako erantzunak hartuko ditugu aintzat (galdera eta erantzun-aukera zehatzak atal teorikoaren 5.1.2.1. puntuan aurkeztu ditugu):

- Euskara ulertzeko gaitasuna (ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez). Galdera hori 1991-2016 bitarteko ISL guztietan egin izan da.
- Euskaraz hitz egiteko gaitasuna (ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez). Galdera hori 1991-2016 bitarteko ISL guztietan egin izan da.
- Gaztelania/frantsesa ulertzeko gaitasuna (ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez). Galdera hori 1991-2001 bitarteko ISLetan egin izan zen, ez ordea 2006-2016 bitartekoetan.
- Gaztelaniaz/frantsesez hitz egiteko gaitasuna (ongi, nahiko ongi, zertxobait, hitz batzuk, ezer ez). Galdera hori 1991-2001 bitarteko ISLetan egin izan zen, ez ordea 2006-2016 bitartekoetan.

---

<sup>201</sup> Lehenengo Inkesta Soziolinguistiko hartako sailkapenari ekarpen kritikoa egin zion Xabier Isasik, eta sei kategoriatako aldagaia ez baina zazpi kategoriatako sailkapen simetrikoa proposatu zuen (1997).

- Hitzun elebidunek hitz egiteko garaian erraztasun handiagoa zein hizkuntzatan duten, euskaraz, gaztelaniaz/frantsesez edo bietan berdin moldatzen diren. Galdera hori 1991-2016 bitarteko ISL guztietan egin izan da.

### 11.2.3. Birkodetze-lanak adierazle sintetikoa eraikitzeko

Honako urrats hauek egingo ditugu jatorrizko galderetatik aldagai sintetiko hau sortzeko (ikus I.25. irudia):

- Lehenik, gaztelania/frantsesa ulertzeko eta hitz egiteko duten gaitasuna aintzat hartuta, hitzunak hiru multzotan sailkatuko ditugu:
  - Gaztelaniazko/frantsesezko hitzun ekoizleak edo aktiboak (ulertu zein hitz egiteko *ongi* edo *nahiko ongi* moldatzen direnak).
  - Gaztelaniazko/frantsesezko hitzun hartzaile edo pasiboak: *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiteko gai ez diren arren, *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzen dutenak.
  - Gaztelaniaz/frantsesez ez dakitenak (*nahiko ongi* ulertzera iristen ez direnak).
- Bigarrenik, euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko duten gaitasuna aintzat hartuta, hitzunak honako hiru multzo hauetan sailkatuko ditugu:
  - Euskarazko hitzun ekoizleak edo aktiboak (euskaldunak: ulertu zein hitz egiteko *ongi* edo *nahiko ongi* moldatzen direnak).
  - Euskarazko hitzun hartzaile edo pasiboak: *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiteko gai ez diren arren, *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzen dutenak.
  - Euskaraz ez dakitenak (*nahiko ongi* ulertzera iristen ez direnak).
- Aurreko bi sailkapenak uztartuz, bi hizkuntzetako gaitasuna aintzat hartzen duen aldagaia sortuko dugu, hitzunak honako sei multzo hauetan sailkatuz:
  - **Euskaldun elebakarrak:** euskarazko ekoizleak dira; gaztelaniaz/frantsesez ez dira iristen hartzailearen gaitasunera. Bestela esanda: euskaraz *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten dute, gaztelaniaz/frantsesez ez dira iristen *nahiko ongi* ulertzera.
  - **Euskaldun hartzaileak:** euskarazko ekoizleak dira; gaztelaniaz/frantsesez hartzaileak. Bestela esanda: euskaraz *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten dute, eta gaztelania/frantsesa *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzen dute (baina ez dute *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten).
  - **Elebidunak:** ekoizleak dira bai euskaraz eta baita gaztelaniaz/frantsesez ere: euskara eta gaztelania/frantsesa *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten dituzte.

- **Erdaldun hartzaileak:** gaztelaniazko/frantsesezko ekoizleak dira; euskaraz hartzaileak. Bestela esanda: gaztelania/frantsesez *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten dute, eta euskara *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzen dute (baina ez dute *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten).
  - **Erdaldun elebakarrak:** gaztelaniazko/frantsesezko ekoizleak dira; euskaraz ez dira iristen hartzailearen gaitasunera. Bestela esanda: gaztelaniaz/frantsesez *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiten dute, ez dira iristen euskara *nahiko ongi* ulertzerara.
  - **Gainerako egoerak.** Ez dira gai ez euskara eta ez gaztelania/frantsesa *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiteko.
- Azkenik, elebidunak zein hizkuntzatan hitz egiten duten errazago kontuan hartuta, hiru multzotan sailkatuko ditugu:
    - Euskal nagusitasuneko elebidunak edo **euskal elebidunak** (euskaraz errazago hitz egiten dutenak erdaraz baino).
    - **Nagusitasunik gabeko elebidunak** (bi hizkuntzetan aritzeko erraztasun bera dutela erantzun dutenak).
    - Erdal nagusitasuneko elebidunak edo **erdal elebidunak** (erdaraz errazago aritzen direnak euskaraz baino).

**I.25. IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA ADIERAZLE SINTETIKOA ERAIKITZEKO PROZESUAREN AZALPENA, LAU URRATSETAN**

**1. Urratsa: hiztunen gaztelaniazko/frantsesezko hizkuntza-gaitasuna tarteko aldagaia sortzea, ulertzeko eta hitz egiteko gaitasunean oinarrituta**

		Gaztelania/frantsesez ulertzen du...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
<b>Gaztelania/frantsesez hitz egiten du...</b>	Ongi	Gaztel./Frants.ezko ekoizlea (hitz egiten badaki)	*	*	*	
	Nahiko ongi		*	*	*	
	Zertxobait	Gaztel./Frants.ezko hartzailea (ulertzen du)		*	*	
	Hitz batzuk				*	
	Ezer ez		*	*	<b>Gainerako hiztunak</b>	

(\*) Errealitatean kategoria hauek ez dira gertagarriak.

**2. Urratsa: hiztunen euskarazko hizkuntza-gaitasuna tarteko aldagaia sortzea, ulertzeko eta hitz egiteko gaitasunean oinarrituta**


		Euskaraz ulertzen du...				
		Ongi	Nahiko ongi	Zertxobait	Hitz batzuk	Ezer ez
<b>Euskaraz hitz egiten du...</b>	Ongi	Euskarazko ekoizlea (hitz egiten badaki)	*	*	*	
	Nahiko ongi		*	*	*	
	Zertxobait	Euskarazko hartzailea (ulertzen du)		*	*	
	Hitz batzuk				*	
	Ezer ez		*	*	<b>Gainerako hiztunak</b>	

(\*) Errealitatean kategoria hauek ez dira gertagarriak.

**3. urratsa: euskarazko eta erdarazko hizkuntza-gaitasunak uztartuz, bi hizkuntzetako hizkuntza-gaitasuna aintzat hartzen duen aldagaia sortzea**

		Euskarazko gaitasuna		
		Ez du nahiko ongi ulertzen	Hartzailea (ulertzen du)	Ekoizlea (hitz egiten daki)
<b>Erdarazko gaitasuna</b>	Ekoizlea (hitz egiten daki)	Erdaldun elebakarrak	Erdaldun hartzaileak	Elebidunak
	Hartzailea (ulertzen du)	Ginerako egoerak		Euskaldun hartzaileak
	Ez du nahiko ongi ulertzen			Euskaldun elebakarrak

**4. urratsa: elebidunen artean hizkuntza batean eta bestean duten erraztasunaren arabera, hiru multzo sortzea**



Iturria: egileak landua.

#### 11.2.4. Adierazle sintetiko berriaren kategoriak eta elebidun hartzaileen inguruko oharra

Jatorrizko bost galdera horiei emandako erantzunen arabera, eta I.25. irudian adierazten den logikari jarraituta, honako zortzi multzo hauetan sailkatu ditugu hiztunak:

<b>Erdaldun elebakarrak</b>	Gaztelaniaz/frantsesez <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> hitz egiten dakite, baina ez euskaraz. Zehazki, ez dira gai euskaraz <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> hitz egiteko, ezta <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> ulertzeko ere.
<b>Erdaldun hartzaileak</b>	Gaztelaniaz/frantsesez <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> hitz egiten dakite, baina ez euskaraz. Hala ere, euskara ulertzeko gai dira: <i>ongi/nahiko ongi</i> ulertzen dute.
<b>Erdal elebidunak</b>	Bi hizkuntzetan <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> eginda ere, gaztelaniaz/frantsesez errazago hitz egiten dute euskaraz baino.
<b>Nagusitasunik gabeko elebidunak</b>	Bi hizkuntzetan <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> egiten dute, euskaraz eta erdaraz, eta errazago zein hizkuntzatan aritzen diren galdetzen zaienean, bietan berdin aritzen direla erantzuten dute.
<b>Euskal elebidunak</b>	Bi hizkuntzetan <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> eginda ere, euskaraz errazago hitz egiten dute erdaraz baino.
<b>Euskaldun hartzaileak</b>	Euskaraz <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> hitz egiten dakite, baina ez gaztelaniaz/frantsesez. Hala ere, gaztelania/frantsesa ulertzeko gai dira: <i>ongi/nahiko ongi</i> ulertzen dute.
<b>Euskaldun elebakarrak</b>	Euskaraz <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> hitz egiten dakite, baina ez erdaraz. Zehazki, ez dira gai gaztelaniaz/frantsesez <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> hitz egiteko, ezta <i>ongi</i> edo <i>nahiko ongi</i> ulertzeko ere.
<b>Gainerako egoerak</b>	Ez euskara eta ez gaztelania/frantsesa <i>nahiko ongi</i> hitz egiteko gai ez diren hiztunak. Gehienetan beste hizkuntza batzuetako hiztunak izango dira hauek.

Horrela eraikitako zortzi multzo horien definizioa bat dator kontsultatu dugun bibliografia teknikoan elebitasun moten inguruan erabiltzen diren izendapen eta irizpide nagusiekin (atal teorikoko 3.2.2. puntuan aipatu ditugun horietaz ari gara).

#### 11.2.5. 2006tik aurrerako hutsune partziala informazioaren xehetasunean

Aurkeztu berri dugun multzokatze-irizpidea aurrera eramateko oztopo praktikoa garrantzitsu bat dugu ordea: 2006-2016 bitarterako ez dugu gaztelaniaren/frantsesaren gaitasunari buruzko informaziorik. Izan ere, atal teorikoaren 5.1.2. puntuan ikusi dugun bezala, Inkesta Soziolinguistikoak erdal gaitasunari buruzko informazioa biltzeari utzi zion 2006an. Ondorioz, aurkeztu berri dugun adierazle sintetikoan honako bi hutsune garrantzitsu hauek izango ditugu 2006-2016 aldirako:

1. Alde batetik, xehetasun-hutsunea izango dugu “euskal nagusitasuneko” hiztunen artean. Horrela, ezingo dugu bereizi euskaldun elebakar, euskaldun hartzaile eta euskal elebidunen artean, guztiak multzo berean azaltzen

baitzaizkigu 2006-2016ko datuetan. Horiek horrela, datu xeheagoak behar izan ditzakegunean, hutsune hori osatze aldera, eskura dugun datu xehatu berriena hartuko dugu aintzat (2001ekoa), eta euskal nagusitasuna duten hiztunen arteko barne-osaera 2001-2016 epean egonkor mantendu dela pentsatuz kalkulatu dugu “euskal nagusitasunezko” hiztunen osaera, eta hiru kategoria horietan banatuko.

2. Bigarrenik, guztiz ezinezkoa gertatuko zaigu “gainerako egoerak” saila kuantifikatzea 2006tik aurrera, eta euskaraz zein erdaraz ongi ez dakiten hiztunak erdaldun elebakarrek edo erdaldun hartzaileekin nahasita azalduko zaizkigu 2006tik aurrerako datuetan. Zenbaterainokoa izan daiteke horrek eragindako distortsioa? Ez euskaraz eta ez gaztelania/frantsesez “nahikoa ongi” hitz egiteko gai ez diren hiztunak gutxi ziren ISLko elkarrizketatuen artean 1991-2001 urteetan: elkarrizketatu guztien %0,5 ziren 1991n, %0,0 1996an eta %0,1 2001ean. Hortik aurrera, migrazio-fluxuak asko handitu zirela jakinda (Ikuspegi, 2021) eta, migratzaileen jatorriari erreparatuta, etorkinen zati handi batek etorri berritan gaztelania/frantsesa jakingo ez zuela kontuan izanda, ziurrenik ez euskara eta ez erdara ongi ez zekitenen kopurua igo egingo zen hurrengo urteetan. Dena den, esan bezala, ISLn 2006tik aurrera gaztelaniaren/frantsesaren ezagutzari buruzko daturik bildu ez denez, ezinezkoa zaigu multzo hori kuantifikatzea 2006-2016 aldirako. Eta hiztun horiek “erdaldun elebakarren” edo “erdaldun hartzaileen” multzoetan bilduta azalduko zaizkigu. Guri dagokigunez, operatiboki, “gainerako egoerak” kategoria ez dugu aintzat hartuko eta zazpi kategoriako aldagaiarekin egingo dugu lan.

T.116. taulan adierazle honek hartzen dituen balioak ageri dira.



T.116. **TAULA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. EUSKAL HERRIA 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**

	1991 <i>Kop.</i>	1996 <i>Kop.</i>	2001 <i>Kop.</i>	2006 <i>Kop.</i>	2011 <i>Kop.</i>	2016 <i>Kop.</i>
Euskaldun elebakarrak	16.443	7.256	4.987			
Euskaldun hartzaileak	7.098	5.813	5.121	204.652	190.250	195.631
Euskal elebidunak	159.099	169.821	167.862			
Nagusitasunik gabeko elebidunak	146.192	184.828	177.009	201.814	218.771	221.754
Erdal elebidunak	199.688	223.705	278.956	259.284	305.115	334.142
Erdaldun hartzaileak	95.206	206.645	151.430	148.984	168.321	205.487
Erdaldun elebakarrak	1.734.723	1.630.028	1.709.298	1.774.895	1.766.541	1.690.409
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.358.449</b>	<b>2.428.096</b>	<b>2.494.663</b>	<b>2.589.629</b>	<b>2.648.998</b>	<b>2.647.423</b>
	%	%	%	%	%	%
Euskaldun elebakarrak	0,7	0,3	0,2			
Euskaldun hartzaileak	0,3	0,2	0,2	7,9	7,2	7,4
Euskal elebidunak	6,7	7,0	6,7			
Nagusitasunik gabeko elebidunak	6,2	7,6	7,1	7,8	8,3	8,4
Erdal elebidunak	8,5	9,2	11,2	10,0	11,5	12,6
Erdaldun hartzaileak	4,0	8,5	6,1	5,8	6,4	7,8
Erdaldun elebakarrak	73,6	67,1	68,5	68,5	66,7	63,9
<b>GUZTIAK</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 11.2.6. Ikuspegi teorikoarekin uztartzea; hainbat termino eta sailkapenekiko baliokidetasuna


Zer neurtuko dugu zehazki adierazle honen bidez? Hiztunen ahozko hizkuntza-gaitasun aitortu erlatibo orokorra neurtu dugu (euskara eta gaztelania/frantsesa aintzat hartuta). Azal dezagun:

- Ahozko gaitasuna neurtuko dugu, ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna aintzat hartuta (eta ez irakurtzekoa ezta idaztekoa ere).
- Aitortua diogu, Inkesta Soziolinguistikoan elkarrizketatzailearen galdera itxiei erantzunez elkarrizketatuak berak adierazten duen jakite-mailan oinarrituko baikara. Beraz, inkesta guztietan bezala, elkarrizketatuen hautematean eta erantzunetan oinarrituko gara eta ez kanpoko neurketa objektibatu batean.
- Erlatiboa diogu, euskarazko eta gaztelaniazko/frantseseko gaitasunaren arteko alderaketa izango delako ikergaia, hizkuntza bat ala biak dakizkien, eta, biak jakitekotan, zer hizkuntzatan moldatzen den hobeto.

- Orokorra diogu, ahozko gaitasunaz orokorrean arituko garelako adierazle honetan (ez egoera jakin batean, edo aldaera, erregistro, gai edo dena delakoan hizkuntza batean eta bestean aritzeko gaitasunaz, orokorrean baizik).

Adierazle hau sortzerakoan, bi ezaugarriren bila abiatu gara: bi hizkuntza-pareak aintzat hartzea batetik, eta hizkuntza bakoitzean hiztunek izan dezaketean gaitasuna aintzat hartzea bestetik (ikuspegi dikotomikoak gaindituz). I.26. irudian, bi dimentsioko eremu bat marrazten dugu, bi ezaugarri horiek islatuz. Ardatz horizontalak euskararen ezagutza irudikatuko luke, ardatz bertikalak gaztelaniarena/frantsesarena. Espazio bidimentsional horretan hiztunak kokatuko lirateke euren euskarazko zein gaztelaniazko/frantsesezko ezagutzak aintzat hartuta. Hiztun horiek guztiak, azkenik, hainbat multzotan sailkatuko genituzke, adierazle sintetiko honetako kategorien arabera (kategoria bakoitza kolore batez irudikatu dugu irudian).

I.26. IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA ADIERAZLEAREN KATEGORIEN KOKAPEN LOGIKOA EUSKARA-ERDAREN EZAGUTZA BI DIMENTSIOKO EREMU BATEAN IRUDIKATUTA




[Iturria](#): egileak landua.

Irudi horretako multzoen artean “gainerako egoerak” kategoria azterketatik at utzita, gelditzen zaigun zazpi kategoriako sailkapena ondo irudikatu daiteke dimentsio bakarreko ardatz batean. I.27. irudian ikus daitekeen bezala, jartzen genuen helburua betetzen da: bi hizkuntzak aintzat hartzen dituen eta *continuum* izaera irudikatzen duen sailkapena eraiki dugu, mutur batean erdaldun elebakarrak eta bestean euskaldun elebakarrak ditugula. Bi mutur horien erdian, hizkuntza-gaitasunak berez duen

*continuum* izaera jasotzen du adierazle honek, eta euskal/erdal gaitasunak aintzat hartuta sailkatzen ditu hiztunak.


**I.27. IRUDIA: HIZKUNTZA-GAITASUNA ADIERAZLEA DIMENTSIO BAKARRERA EKARRITA**



[Iturria](#): egileak landua.

Ondoko I.28. irudian, berriz, oinarrizko 7 kategoriak bilduz egin ahal diren hainbat multzokatze irudikatzen dira, teoria-ataleko 3.2.2. puntuan kontsultatu dugun literatura teorikotik ekarritako hainbat terminorekin bat etorriz.

**1.28. IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN SAILKAPEN XEHEAREN ETA SOZIOLINGUISTIKAN ARRUNTAK DIREN HAINBAT TERMINOREN ARTEKO BALIOKIDETASUNA.**



Iturria: egileak landua.

Adierazle honen eta Hegoaldeko Zentsuetan oinarrituta sortu ditugun adierazleen arteko alderagarritasuna zentsuen lanketaren kapituluko T.39. taulan aurkeztu genuen.

Ondorengo T.117. taulan, berriz, aurkeztu berri dugun aldagaiaren eta ISLn erabili izan diren aldagaien arteko alderaketa aurkezten da.

**T.117. TAULA: ISL-TIK AHOZKO GAITASUNARI BURUZ SORTZEN DIREN ADIERAZLEAK: GUK LANDUAK ETA ISL-RENAK. KATEGORIEN ALDERAGARRITASUNA.**

ISL-001: Ahozko hizkuntza-gaitasuna	Elebitasun mota (ISL-1991)	Hizkuntza-gaitasuna (ISL-2016)	Gaitasun erlatiboa (ISL-2016)
Euskaldun elebakarrak	Euskaldun elebakarrak	Euskaldunak	Euskal elebidunak
Euskaldun hartzaileak			
Euskal elebidunak	Euskal elebidunak	Euskaldun hartzaileak (*)	Erdal elebidunak
Nagusitasunik gabeko elebidunak	Elebidun orekatuak		
Erdal elebidunak	Erdal elebidunak		
Erdaldun hartzaileak	Elebidun hartzaileak (*)	Erdaldun elebakarrak	
Erdaldun elebakarrak	Erdaldun elebakarrak		

Iturria: egileak landua (Aizpurua, 1995: 58; Eusko Jaurlaritz, 2019: 15, 23).

Oharra (\*): ISLn elebidun hartzailetzat sailkatu izan dituzte, euskaraz hitz egiten jakin gabe *nahiko ongi* ulertzen duten hiztun ez diren gain, baita *zertxobait* ulertzen eta hitz egiteko gai direla erantzun dutenak ere.

Ikus daitekeen bezala, gure adierazle berriak antz handia du 1991ko ISLren argitalpenean aurkeztu zen *Elebitasun mota* adierazlearekin. Terminologia arloko ezberdintasunez gain, bi puntutan bereizten dira bi sailkapenok:

- Batetik, 1991ko ISLn euskaraz besterik hitz egiten ez zekiten hiztunen artean ez zen bereizten *elebakarren* eta *hartzaileen* artean (denak biltzen ziren *euskaldun elebakar* izendapenaren barruan). Guk bereizketa egin dugu, sailkapenaren simetrikotasuna bermatzeko aldera eta terminologia ahalik eta zehatzena sortzeko aldera.
- Bestetik, guk definitu dugun adierazlea eta ISLkoak ez datoz bat *elebidun hartzaileen* definizioan. Gure adierazlean, teoria-atalean hizkuntza-gaitasunaren inguruko hiztun multzoen definizioak ikusi ditugunean aipatu dugun irizpidea aplikatu dugu (Baetens, 1989: 35-38; Boix eta Vila, 1998: 211; Ruiz et al., 2001: 54; Moreno, 2009: 211; Coyos, 2010: 142; UZEI, 2010: 58) eta *hartzailetzat* jo ditugu hizkuntza batean hitz egiten *ongi* edo *nahiko ongi* jakin ez arren, *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzen dutenak, eta ez beste inor. Euskal Herriko ISLren tradizioan, ordea, irizpide malguagoak erabilia, hizkuntza *zertxobait* ulertzen dutenak ere gehitzen zaizkie hartzaileen multzoari, era berean *zertxobait* hitz egiteko gai ere baldin badira. Esan dezagun, kalkuluak modu batean edo bestean egin, nabarmen aldatzen dela elebidun hartzaileen multzoaren neurria. Teoriarekin koherenteagoa den irizpidea hartuta, Euskal Herrian euskaraz *nahiko ongi* hitz egiten jakin ez baina *nahiko ongi* edo *ongi* ulertzen duten elebidun hartzaileak 205.487 izango lirateke 2016. urtean 16 urtetik gorako hiztunen artean. ISLk tradizioz erabili izan duen irizpide malguagoa erabilia, berriz, kopuru hori bikoiztu baino gehiago egiten da, eta

434.370ra igotzen. Maila berean aldatuko da, jakina, erdaldun elebakarren multzoa.

### **11.2.7. Xehetasun-mailari buruzko gogoeta (garapen-aukerak)**

Baten bati irudituko zaio zazpi/zortzi multzoko sailkapen hau oso xehea dela, xeheegia aukeran, multzo gutxiagorekin nahikoa genukeela hizkuntza-gaitasunaren egoera eta bilakaera egoki aztertzeke. Azal dezagun gure ikuspegia: zazpi/zortzi multzo horiek kualitatiboki oso ezberdinak dira elkarrekin alderatuta, eta bakoitzak bere izaera argia eta bereizia du. Zehazki, erabilerarako zoru-oinarri kualitatiboki ezberdina osatzen du zazpi kategoria horietako bakoitzak.

Are gehiago, zorrotz begiratuta, ezin ukatu zazpi multzo horiek beren baitan oso zabalak direla. Zazpi kategoria horietako edozein hartu, eta erraz irudikatuko dugu bere barruan *continuum* txiki bat dugula. Har dezagun, adibidez, erdal elebidunen multzoa (elebidunak izan eta erdaraz errazago egiten dutenak euskaraz baino) eta irudika ditzagun multzo hori definituko luketen bi muturrak:

- Alde batean, multzo horretako mutur erdaldunenean, “erdaldun hartzaileen” multzotik gertu aurkituko ditugu erdararen aldeko desoreka oso handia duten hiztunak, erdaraz edozer adierazteko oso ondo eta euskaraz aritzeko justu samar moldatuko direnak, euskaraz “nahiko ongi” hitz egiten jakin arren.
- Multzo beraren beste muturrean, aldiz, “nagusitasunik gabeko elebidunen” multzotik gertu aurkituko ditugu euskaraz zein erdaraz bietan ongi moldatuko diren hiztunak, nahiz eta erdaraz pixka bat errazago aritzeko gai izan euskaraz baino.

Esan beharrik ez dago multzo beraren bi mutur horiek egoera ezberdinak aurkezten dizkigutela, eta hizkuntza-gaitasunaren ezberdintasun horrek zerikusia izango duela, besteak beste, hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko izango duten erosotasunean eta baita erabilera-mailan ere. Erdal elebidunen adibidearekin egin bezala, sailkapeneko edozein multzotarako defini genezake barne-zabaltasun handi hori. Etorkizunari begira, horregatik, interesgarria izan daiteke zazpi kategoriako sailkapena are gehiago xehatzeko aukerak ere aztertzea.

### **11.2.8. Hizkuntza-gaitasunaren araberako multzo metatuak: hizkuntzen erabilgarritasuna, ezinbestekotasuna eta erosotasuna ikertzeko bitartekoak**

Ahozko hizkuntza-gaitasunaren adierazle sintetikoaren zazpi kategoriak multzokatuta, hainbat multzo metatu sortuko ditugu bi hizkuntza-pareetarako **ISL-002: Hizkuntza-gaitasunaren araberako multzo metatuak** adierazlean. T.118. taulan aurkezten ditugu sortuko ditugun multzo metatuak eta I.29. eta I.30. irudietan irudikatzen dugu multzo bakoitzaren osaera. Irudietan ikus daitekeen bezala, multzo metatu horiek ahozko hizkuntza-gaitasunaren multzoen batura hutsetik sortzen dira. Multzo metatu horietako bakoitza galdera bati emandako erantzun gisa ere uler daiteke. T.118. taulan ikus daitekeen bezala, multzo metatu horien artean ezberdintasunak daude bakoitzak eman ahal digun informazioaren izaerari erreparatuta:

- Multzo batzuek toki eta garai jakin batean hizkuntzen **erabilgarritasun-mailaren** berri emango digute: zenbateraino da hizkuntza bat tresna baliagarria toki/garai horretako hiztunekin komunikatzeko?
- Beste batzuek hizkuntzen **ezinbestekotasun-mailaren** berri emango digute: zenbateraino da ezinbesteko hizkuntza bat toki/garai horretako hiztunekin komunikatu ahal izateko?
- Beste multzo batzuek, azkenik, hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko orduan egon daitekeen **erosotasunaren bulkadaren** berri emango digute: zenbateraino da hizkuntza bat toki/garai jakin batean bertako hiztunentzat komunikaziorako tresnarik errazena?

Adierazle honetako multzoek galdera horiei partzialki erantzuten lagunduko digute, lurralde/garai batean hiztunek dituzten gaitasun-ezaugarrien ikuspegitik, betiere beste alderdi garrantzitsu batzuei jaramonik egin gabe<sup>202</sup>. Adierazle hau, zehazki, 12 multzok osatuko dute, 6 multzok hizkuntza bakoitzeko, taulako azken bi zutabeetan ikus daitekeen bezala. Multzo horiek guztiak 16 urtetik gorako hiztun guztiekiko ehunekoetan adieraziko dira.

---

<sup>202</sup> Galdera horiei lurralde/garai batean bizi diren hiztunen gaitasunean oinarrituta eman ahal zaien erantzuna ez da, jakina, galdera horiei erantzunak bilatzeko ikuspegi bakarra. Adibidez, hizkuntzen derrigortasun-mailaz ari garenean, marko juridikoak hizkuntza baten eta bestearen derrigortasuna nola planteatzen duen ere aztertu beharko litzateke, edo lanpostuetan hizkuntza baten eta bestearen derrigortasuna nola planteatzen den praktikan. Edo hizkuntza baten erabilgarritasunaz ari garela, lurraldeko hiztunen gaitasunaz gain, kontuan hartzeko alderdiak lirateke lurralde horretan diharduten erakunde, enpresa, komunikabide eta abarren eskaintza nolako den ikustea ere hizkuntza batean eta bestean. Adierazle honek ez digu gainerako testuinguru zabal horren berri emango, jakina. Gu lantzen ari garen iturrietatik kanpo bilatu beharko litzateke tankera horretako informazioa sistematizatzen hasteko eta adierazle bihurtzeko. Lan honen helburuetatik kanpo gelditzen da jardun interesgarri hori.

**T.118. TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERAKO MULTZO METATUAK. ZER ADIERAZTEN DUTEN, ZEIN GALDERARI ERANTZUNEZ SORTZEN DIREN ETA MULTZO METATUEN AURKEZPENA EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN/FRANTSSESAREN IKUSPEGITIK**

Zeren berri emango diguten multzoek	Galderak	HIZKUNTZA-GAITASUNAREN MULTZO METATUAK	EUSKARAREN IKUSPEGITIK	GAZTELANIAREN/FRANTSSESAREN IKUSPEGITIK
Hizkuntzen erabilgarritasun-maila	Zenbat hiztunek ulertzen dute hizkuntza jakin bat?	Hizkuntza ulertzen dutenak	Euskara ulertzen dutenak.	Erdara ulertzen dutenak.
	Zenbat hiztun dira gai hizkuntza batean hitz egiteko?	Hizkuntza horretan hitz egiteko gai direnak	Euskaraz hitz egiteko gai direnak.	Erdaraz hitz egiteko gai direnak.
Erosotasunaren bulkada	Zenbat dira hizkuntza batean gutxienez bestean bezain erraz moldatzen diren hiztunak?	Hizkuntza horretan bestean bezain erraz (edo errazago) hitz egiten dutenak	Euskaraz errazago egiten dutenak erdaraz baino.	Erdaraz errazago egiten dutenak euskaraz baino.
	Zenbat dira hizkuntza batean bestean baino errazago moldatzen diren hiztunak?	Hizkuntza horretan bestean baino errazago hitz egiten dutenak	Euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago hitz egiten dutenak.	Erdaraz euskaraz bezain erraz edo errazago hitz egiten dutenak.
Hizkuntzen ezinbestekotasun-maila	Zenbat dira hizkuntza horretan soilik hitz egiteko gai direnak?	Hizkuntza horretan soilik hitz egiteko gai direnak	Euskaraz hitz egiten jakinda, erdaraz hitz egiteko gai ez direnak (nahiz eta erdara ulertu).	Erdaraz hitz egiten jakinda, euskaraz hitz egiteko gai ez direnak (nahiz eta euskara ulertu).
	Zenbat dira hizkuntza hori besterik ulertzen ez dutenak?	Hizkuntza hori soilik ulertzen dutenak	Euskaraz badakite, erdara ez dute ulertzen.	Erdaraz badakite, euskara ez dute ulertzen.

[Iturria:](#) egileak landua.

Multzo horiek guztiak gaitasunaren eta erabileraren artean egon daitezkeen harremana aztertzeko eratu ditugu. Komeniko da, ahal dela, multzo bakoitzaren emaitzak “beste” hizkuntzako bere multzo bikiarekin alderatuta irakurtzea. Adierazle honetako multzoek 1991-2016 tarterako eta 16 urtetik gorako Euskal Herriko hiztun guztientzako hartu izan dituzten balioak T.119. taulan aurkezten dira.



T.119. TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERAKO MULTZO METATUAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)


		1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>Hizkuntza ulertzen dutenak</b>							
Euskara	Kop.	623.726	798.068	785.365	814.734	882.457	957.014
	%	<b>26,4</b>	<b>32,9</b>	<b>31,5</b>	<b>31,5</b>	<b>33,3</b>	<b>36,1</b>
Gaztelania/Frantsesa	Kop.	2.342.006	2.420.840	2.489.676	(*)	(*)	(*)
	%	<b>99,3</b>	<b>99,7</b>	<b>99,8</b>	<b>(*)</b>	<b>(*)</b>	<b>(*)</b>
<b>Hizkuntza horretan hitz egiteko gai direnak</b>							
Euskara	Kop.	528.520	591.423	633.935	665.750	714.136	751.527
	%	<b>22,4</b>	<b>24,4</b>	<b>25,4</b>	<b>25,7</b>	<b>27,0</b>	<b>28,4</b>
Gaztelania/Frantsesa	Kop.	2.334.908	2.415.027	2.484.555	(*)	(*)	(*)
	%	<b>99,0</b>	<b>99,5</b>	<b>99,6</b>	<b>(*)</b>	<b>(*)</b>	<b>(*)</b>
<b>Hizkuntza horretan bestean bezain erraz (edo errazago) hitz egiten dutenak</b>							
Euskara	Kop.	328.832	367.718	354.979	406.466	409.021	417.385
	%	<b>13,9</b>	<b>15,1</b>	<b>14,2</b>	<b>15,7</b>	<b>15,4</b>	<b>15,8</b>
Gaztelania/Frantsesa	Kop.	2.175.809	2.245.206	2.316.693	2.384.977	2.458.748	2.451.792
	%	<b>92,3</b>	<b>92,5</b>	<b>92,9</b>	<b>92,1</b>	<b>92,8</b>	<b>92,6</b>
<b>Hizkuntza horretan bestean baino errazago hitz egiten dutenak</b>							
Euskara	Kop.	182.640	182.890	177.970	204.652	190.250	195.631
	%	<b>7,7</b>	<b>7,5</b>	<b>7,1</b>	<b>7,9</b>	<b>7,2</b>	<b>7,4</b>
Gaztelania/Frantsesa	Kop.	2.029.617	2.060.378	2.139.684	2.183.163	2.239.977	2.230.038
	%	<b>86,1</b>	<b>84,9</b>	<b>85,8</b>	<b>84,3</b>	<b>84,6</b>	<b>84,2</b>
<b>Hizkuntza horretan soilik hitz egiteko gai direnak</b>							
Euskara	Kop.	23.541	13.069	10.108	(*)	(*)	(*)
	%	<b>1,0</b>	<b>0,5</b>	<b>0,4</b>	<b>(*)</b>	<b>(*)</b>	<b>(*)</b>
Gaztelania/Frantsesa	Kop.	1.829.929	1.836.673	1.860.728	1.923.879	1.934.862	1.895.896
	%	<b>77,6</b>	<b>75,6</b>	<b>74,6</b>	<b>74,3</b>	<b>73,0</b>	<b>71,6</b>
<b>Hizkuntza hori soilik ulertzen dutenak</b>							
Euskara	Kop.	16.443	7.256	4.987	(*)	(*)	(*)
	%	<b>0,7</b>	<b>0,3</b>	<b>0,2</b>	<b>(*)</b>	<b>(*)</b>	<b>(*)</b>
Gaztelania/Frantsesa	Kop.	1.734.723	1.630.028	1.709.298	1.774.895	1.766.541	1.690.409
	%	<b>73,6</b>	<b>67,1</b>	<b>68,5</b>	<b>68,5</b>	<b>66,7</b>	<b>63,9</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


Oharra (\*): ez dugu informaziorik urte horietan multzo metatu horiek zehatz zenbatzeko.

**1.29. IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERAKO MULTZO METATUAK, EUSKARAREN IKUSPEGITIK**


**EUSKARA  
ULERTZEN DUTE:**




**EUSKARAZ  
HITZ EGITEN DAKITE:**




**EUSKARAZ ERDARAZ BEZAIN  
ERRAZ GUTXIENEZ:**




**ERDARAZ BAINO ERRAZAGO  
EUSKARAZ:**



**EUSKARAZ BAKARRIK HITZ  
EGITEKO GAI DIRA:**




**EUSKARA BESTERIK EZ DUTE  
ULERTZEN:**




Iturria: egileak landua.

**I.30. IRUDIA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERAKO MULTZO METATUAK, GAZTELANIAREN/FRANTSESAREN IKUSPEGITIK**


**GAZTELANIA/FRANTSESA (ERDARA)  
ULERTZEN DUTE:**




**ERDARAZ  
HITZ EGITEN DAKITE:**




**ERDARAZ EUSKARAZ BEZAIN  
ERRAZ GUTXIENEZ:**




**EUSKARAZ BAINO ERRAZAGO  
ERDARAZ:**



**ERDARAZ BAKARRIK HITZ  
EGITEKO GAI DIRA:**



**ERDARA BESTERIK EZ DUTE  
ULERTZEN:**



Iturria: egileak landua.

### 11.3. EUSKARAREN ERABILERA, EUSKALDUNEN HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERA AZTERTZEKO ADIERAZLE BAKUNAK

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolingüistikoak	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

#### 11.3.1. Helburuak eta HSE multzoaren aurkezpena (Harreman-sareak eta Erabilera)

Atal teorikoan ikusi dugun bezala, Inkesta Soziolingüistikoak informazio xehe ugari biltzen du hiztunen harreman-sare hurbilean euskaldunek duten pisuari buruz eta rol-harreman eta espazio bakoitzean hiztunek dituzten erabilera-ohiturei buruz. Informazio multzo zabal horretatik abiatuta, gaiaren inguruko adierazle bakunak sortuko ditugu orain hasi dugun 11.3. puntu honetan eta adierazle sintetikoak hurrengo 11.4. puntuan. Puntu honetan, zehazki, hiru helburu zehatzen bila abiatuko gara. Aurkez ditzagun banan-banan:

❖ *Hainbat rol-harreman eta espaziotako erabileran euskarak duen pisua tasa baten bidez erakutsiko duen adierazle sorta sortzea.*

Erabileraren adierazle bakunak izango dira rol-harreman eta espazio bakoitzerako sortuko ditugun horiek, dagokion harreman edo espazioan edozein gizatalderen batez besteko euskararen erabilera adieraziko dutenak ehuneko baten bidez. Helburu zehatz hau betetzeko sortu ditugu ISL-101 eta ISL-115 bitarteko hamabost adierazle bakunak.

❖ *Hainbat rol-harreman eta espaziotarako, hiztun euskaldunen harreman-sarearen osaera aztertze bitarteko metodologikoak lantzea, rol-harreman eta espazio horietako bakoitzean mintzakideen artean euskaldunek duten pisua tasa baten bidez erakutsiko duen adierazle sorta sortuz.*

Harreman-sareen euskalduntasunari buruzko adierazle bakunak izango dira, tasa baten bidez ikergai den rol-harreman edo espazioan mintzakide euskaldunen batez besteko pisua zenbatekoa den adieraziko duena ehunekoetan. Helburu zehatz hori betetzeko sortu ditugu ISL-201 eta ISL-214 bitarteko hamalau adierazle bakunak.

❖ *Mintzakide euskaldunak dituztenean hiztun euskaldunek zer-nolako erabilera egiten duten aztertzeko bitarteko metodologikoak sortzea eta lantzea. Horretarako, erabilera aztertzeko sortu ditugun adierazle bakunen parekoak sortzea “mintzakideak ere euskaldunak diren” kasuak soilik aintzat hartuz.*

Helburu zehatz hori betetzeko sortu ditugu ISL-301 eta ISL-314 bitarteko hamalau adierazle bakunak.

Hiru helburu zehatz horiek ardatz ezberdinei dagozkie. Hala ere, hiru errealitate horien arteko alderagarritasuna bilatze aldera, era bateratuan landuko ditugu ondorengo orriotan erabilerari, harreman-sarearen euskalduntasunari eta euskaldunekiko erabilerari buruzko adierazleak. Zorionez, horretarako aukera eskaintzen du oinarrian dugun lehengaiak: ISLko galdetegiei erreparatuta, argi ikusten da eskema argi eta koherente bat dagoela harreman-sareen euskalduntasunari eta erabilerari buruzko galdera multzoetan. Ezaugarri hori ISLren indargune bat da, ezbairik gabe, eta ikerketa-aukerei atea irekitzen dizkie, erraztu egiten du-eta 8. kapituluaren aipatzen genituen irizpideak betetzea. Horrela, gainerako iturrietatik sortu ditugun adierazleen eta ondorengo orriotan landuko ditugun adierazle bakun eta sintetikoaren artean alderagarritasuna bilatzea funtsezko irizpidea izango da guretzat; horretarako, tasa esleituen prozedura zabal erabiliko dugu, gero ikusiko dugun bezala.

Horrela, adierazle berriak sortzerakoan, ahal dela, azpisistema-izaera horri eta koherentzia horri eusten ahaleginduko gara. Horregatik landu ditugu multzoan eta koherentzia baten barruan HSE (Harreman-sareak eta Erabilera) akronimoaren barruan bildu ditugun hiru gai horiek: Harreman-sareen euskalduntasuna, erabilera eta mintzakide euskaldunekiko erabilera<sup>203</sup>.

Adierazleen eraikitze-prozesua azaltzen hasi aurretik, argitu dezagun puntu honetan sortuko ditugun HSE adierazleak euskaldunentzat bakarrik sortuko ditugula, jatorrizko datu-baseko informazioak ez duelako aukerarik ematen landuko ditugun rol-harreman eta espazio guztietarako denbora-serie osoa kalkulatzeko hiztun guztietarako. Amaieran, hala ere, euskaldunen emaitzetatik abiatuta, erabilera orokorraren kalkulu bat landuko dugu.

### **11.3.2. ISLtik edanez HSErako sortu ditugun adierazleak eraikitze prozesua: jatorrizko aldagaietatik adierazle bakunetara eta horietatik adierazle sintetikoetara**

Ondoren ageri den irudiaren bidez irudikatuko dugu hiztun euskaldunen euskararen erabilera, harreman-sarearen euskalduntasuna eta euskaldunekiko erabilera aztertzeko ISLko jatorrizko aldagaietatik adierazle sintetikoetara egingo dugun ibilbidea. Laburtuz:

---

<sup>203</sup> Azpisistema integratuaren izaera hori ISLtik sortzen diren adierazle guztiak aurkezten genituen T.114. taulan ikus daiteke.

- Lehen urrats batean, hiru gai horietako bakoitzerako, rol-harreman edo espazio bakoitzari dagokion adierazle bakunak sortuko ditugu, 5.2.3.1. puntuari aurkeztu ditugun jatorrizko aldagaietatik abiatuta.
- Bigarren urrats batean, berriz, hainbat adierazle bakun uztartuz, adierazle sintetikoak definituko ditugu ikertzen ditugun gaien inguruan.

Ondorengo orrialdeetan lehenengo urratsa landuko dugu, adierazle bakunak sortzea, eta 11.4. puntuari, berriz, bigarrena, adierazle sintetikoak eraikitzea.

**I.31. IRUDIA: EUSKARAREN ERABILERA, EUSKALDUNEN HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERA AZTERTZEA ISL<sub>n</sub> OINARRITUTA, JATORRIZKO ALDAGAIETATIK ADIERAZLE SINTETIKOETARA**



Iturria: egileak landua.

Lehenengo urratsean sortuko ditugun adierazle bakunen bidez, aldagai bakoitzari emandako erantzunak zenbaki bakar batean laburbilduko ditugu (tasa batean, ehuneko batean zehazki). Zertarako sortu ditugu tasa horiek? Lehenik eta behin, datuen ugaritasun izugarria laburtzeko, eta horrela, egoeraren eta bilakaeren sintesi-irakurketa errazteko. Horretaz gain, tasa esleituak kalkulatzeko da ISLren emaitzak beste iturri batzuetakoekin alderagarri egiteko aukeratu dugun prozedura (zehazki, zentsukoekin eta HEKNkoekin). Azkenik, tasa esleitu horiek ezinbesteko lehengaia izango dira adierazle sintetikoak sortzeko.

Bigarren urratsean, hainbat adierazle bakun uztartuta, adierazle sintetikoak sortuko ditugu. Zertarako? ISL-n xehe-xehe jaso den informaziotik abiatuta teoriaren ikuspegitik adierazgarriak izan daitezkeen eta errealitatea laburbilduko duten adierazle orokor gutxi batzuetara iristeko.


Irizpide orokorrak aurkeztuta, ikus dezagun zehatz nola sortu ditugun adierazle bakunak lehenik eta sintetikoak aurrerago.

### 11.3.3. Erabilerari buruzko adierazle bakunak sortzen

#### 11.3.3.1. Jatorrizko aldagaietatik adierazle bakunetara; zer-nolako adierazle bakunak sortu ditugun

Atal teorikoaren 5.2.3.1. puntuan aurkeztu dugu zer-nolako aldagaiak ditugun ISLn erabilerari buruz; eta azaldu dugu, halaber, zer-nolako galderak dauden aldagai horien jatorrian. Aldagai horietatik abiatuta, I.32. irudian aurkezten den prozesuaren lehenengo urratsa adierazle bakunak sortzea da: erabilerari buruzko aldagai xehe bakoitzerako adierazle bakun bat.

I.32. IRUDIA: EUSKARAREN ERABILERA AZTERTZEA ISL-n OINARRITUTA, JATORRIZKO ALDAGAIETATIK ADIERAZLE BAKUNETARA



Iturria: egileak landua.

Zehazki, honako adierazle bakun hauek sortuko ditugu:

- **ISL-101: Euskararen erabilera-tasa amarekin (%)**
- **ISL-102: Euskararen erabilera-tasa aitarekin (%)**
- **ISL-103: Euskararen erabilera-tasa bikotekidearekin (%)**
- **ISL-104: Euskararen erabilera-tasa neba-arrebekin (%)**
- **ISL-105: Euskararen erabilera-tasa seme-alabekin (%)**
- **ISL-106: Euskararen erabilera-tasa etxean elkarrekin (%)**
- **ISL-107: Euskararen erabilera-tasa lagunekin (%)**
- **ISL-108: Euskararen erabilera-tasa lankideekin (%)**
- **ISL-109: Euskararen erabilera-tasa saltzaileekin (%)**
- **ISL-110: Euskararen erabilera-tasa bankuan (%)**
- **ISL-111: Euskararen erabilera-tasa osasun-zerbitzuetan (%)**
- **ISL-112: Euskararen erabilera-tasa udal-zerbitzuetan (%)**
- **ISL-113: Euskararen erabilera-tasa auzokoekin (%)**
- **ISL-114: Euskararen erabilera-tasa administrazio publikoan (%)**
- **ISL-115: Euskararen erabilera-tasa sare sozialetan (%)**

Horretarako, I.33. irudian aurkezten den bezala, ISLn rol-harreman eta espazio bakoitzeko erabilera-ohiturei buruz ditugun aldagaietatik abiatuta, beste hainbeste

adierazle bakun sortuko ditugu. Adierazle bakun bakoitzak dagokion rol-harreman edo espazio bakoitzeko erabilera laburtuko du % baten bidez.

**I.33. IRUDIA: ERABILERA AZTERTZEKO JATORRIZKO ALDAGAIK ETA HORIETATIK SORTU DITUGUN ADIERAZLE BAKUNAK**



Iturria: egileak landua.

### 11.3.3.2. Jatorrizko aldagaiaren erantzunei zenbakizko balioak esleitzea

T.120. taulan, jatorrizko aldagaietako erantzun-aukerak ikus daitezke eta horietako bakoitzari adierazle bakun berria sortzeko esleitu diogun zenbakizko balioa, tasa esleituaren prozedurari jarraituta. Taulan ageri denez, erabilerari buruzko galdera xehe guztien erantzun-aukerek molde berbera dute, sare sozialei buruzko galderaren salbuespenarekin. Bertan erakusten da zer-nolako esleitze-irizpideak erabili diren.



**T.120. TAULA: ERABILERARI BURUZKO INFORMAZIOA NOLA BILDU DEN ISL-N ETA HORREN LANKETA NOLA EGIN DEN ERABILERA-TASA ESLEITUETARA IRISTEKO**

Itemak	Neurtzen den rol-harreman edo espazio bakoitzen erabiltzen den hizkuntzari buruzko informazioa ISLn nola jaso izan den	Erabileraren adierazle bakunetarako esleitze-irizpideak
<p>Erabilera amarekin</p> <p>Erabilera aitarekin</p> <p>Erabilera bikotekidearekin</p> <p>Erabilera etxeokoen (denak elkarrekin daudenean)</p> <p>Erabilera neba-arrebekin</p> <p>Erabilera seme-alabekin</p> <p>Erabilera lagunekin</p> <p>Erabilera lankideekin</p> <p>Erabilera saltzaileekin</p> <p>Erabilera bankuko langileekin</p> <p>Erabilera osasun-zerbitzuetako langileekin</p> <p>Erabilera udal-zerbitzuetako langileekin</p> <p>Erabilera auzokoekin</p> <p>Erabilera Administrazio publikoko langileekin</p>	<p>ISLn, honako erantzun-aukera hauek eskaini izan zaizkie elkarrizketatuei pertsona edo ingurune batean egin ohi duten erabilerari buruz galdetu zaienean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="radio"/> Beti euskaraz</li> <li><input type="radio"/> Euskaraz erdaraz baino gehiago</li> <li><input type="radio"/> Euskaraz erdaraz beste</li> <li><input type="radio"/> Euskaraz erdaraz baino gutxiago</li> <li><input type="radio"/> Beti erdaraz</li> <li><input type="radio"/> Ez dagokio</li> <li><input type="radio"/> Ez daki / erantzunik ez</li> </ul>	<p>Erantzun-aukera bakoitzari ehuneko bat esleituko diogu, irizpide logiko-matematikoari jarraituz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li><input type="radio"/> Beti euskaraz: %100 euskaraz</li> <li><input type="radio"/> Euskaraz erdaraz baino gehiago: %75 euskaraz</li> <li><input type="radio"/> Euskaraz erdaraz beste: %50 euskaraz</li> <li><input type="radio"/> Euskaraz erdaraz baino gutxiago: %25 euskaraz</li> <li><input type="radio"/> Beti erdaraz: %0 euskaraz</li> </ul> <p>Galdera horietako bakoitzean "ez dagokio" edo "Ez daki / erantzunik ez" aukerak balio galdu gisa kodetu ditugu eta gure azterketatik kanpo gelditu dira.</p>
<p>Erabilera sare sozialetan</p>	<p>Kasu honetan, zuzenean galdetu zaie elkarrizketatuei hizkuntza bakoitza (euskara, gaztelania/frantsesa eta ingelesa) zein neurritan erabiltzen duten, eta ehunekoetan adieraz dezatela eskatu zaie.</p>	<p>Elkarrizketatuen erantzunetan zuzenean oinarrituta kalkulatu dugu sare sozialetako euskararen erabilera-tasa, inongo baliorik esleitu beharrik gabe. Horrela kalkulatu dugun erabilera-tasa zuzenean alderagarria izango da gainerako aldagaietarako tasa esleituetan oinarrituta sortu ditugunekin.</p>

[Iturria](#): egileak landua.

### 11.3.3.3. Prozesuaren emaitza: erabilera-tasa esleituak

Horiek horrela, rol-harreman edo espazio horietako bakoitzari buruzko erantzunak hartu, eta esleitze-irizpide horiek aplikatuta, aldagai bakoitza laburtuko duen tasa bat kalkulatu dugu. Zehatzago: inkestatu euskaldun bakoitzak emandako erantzunari dagokion balioa esleitu ondoren, balio esleitu horietan oinarrituta eta elkarrizketatu guztiak kontuan hartuta, euskararen erabilera-tasa zenbatekoa litzatekeen kalkulatu dugu, balio guztien batez bestekoaren bidez. Prozedura horri jarraituta sortu ditugu

erabilera-tasak rol-harreman eta espazio bakoitzerako urtez urte. Zera adierazten du zehazki rol-harreman bati edo espazio bati dagokion **erabilera-tasa esleituak**: inkestan jasotako erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (alboratzerik ez balego), zenbat euskara erabiltzen den rol-harreman edo espazio horretan ehunekoetan adierazita.

Zehazki, T.121. taulan aurkeztu dugu, ISLn landu izan den rol-harreman eta espazio bakoitzerako, zein urtetako datuak lortu ahal izan ditugun (betiere, jatorrizko iturriak aginduta); 1991-2016 bitarteko emaitzak, bestalde, T.122. taulan aurkezten ditugu.

**T.121. TAULA: ROL-HARREMAN ETA ESPAZIO BAKOITZARI DAGOKION ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE BAKUNAK ZEIN URTETARAKO KALKULATU DITUGUN 1991-2016**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Euskararen erabilera-tasa amarekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa aitarekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa bikotekidearekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa neba-arrebekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa seme-alabekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa etxean elkarrekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa lagunekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa lankideekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa auzokoekin (%)	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa saltzaileekin (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa bankuan (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa osasun-zerbitzuetan (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa udal-zerbitzuetan (%)	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa administrazio publikoan (%)	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai
Euskararen erabilera-tasa sare sozialetan (%)	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai

[Iturria](#): egileak landua.

T.122. **TAULA: EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Amarekin (%)	64,6	59,0	45,3	50,5	41,8	37,8
Aitarekin (%)	61,2	54,7	42,6	47,5	38,5	36,1
Bikotekidearekin (%)	56,5	55,5	46,7	51,9	46,2	47,6
Neba-arrebekin (%)	64,2	64,3	55,5	59,9	57,3	54,8
Seme-alabekin (%)	66,9	73,6	68,9	74,8	75,6	73,1
Etxean (%)	61,3	56,2	46,9	51,3	46,7	47,6
Lagunekin (%)	55,9	58,6	52,6	56,6	56,1	53,6
Lankideekin (%)	49,6	53,0	48,2	56,5	56,6	55,2
Auzokoekin (%)				49,7	48,8	45,6
Saltzaileekin (%)	50,7	51,7	48,5	50,9	50,8	50,8
Bankukoekin (%)	49,8	56,7	57,2	57,5	54,2	52,5
Osasun zerbitzukoekin (%)	28,0	37,6	39,9	45,1	49,8	50,9
Udal zerbitzuetakoekin (%)	53,9	61,0	62,6	61,3	63,0	65,8
Administrazio Publikoekin (%)					56,1	57,8
Sare sozialetan (%)					34,7	35,3


Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 11.3.4. Hiztun euskaldunen hurbileko harreman-sarean euskaldunek duten pisuari buruzko adierazle bakunak sortzen

#### 11.3.4.1. Jatorrizko aldagaietatik adierazle bakunetara; zer-nolako adierazle bakunak sortu ditugun

Atal teorikoaren 5.2.3.1. puntuan aurkeztu dugu ISLn zer-nolako aldagaiak ditugun pertsonen harreman-sareei eta euren euskalduntasunari buruz; eta azaldu dugu, halaber, zer-nolako galderak dauden aldagai horien jatorrian. Aldagai horietatik abiatuta, I.34. irudian aurkezten den prozesuaren lehenengo urratsa adierazle bakunak sortzea da: sarearen euskalduntasunari buruzko aldagai xehe bakoitzerako adierazle bakun bat.

I.34. IRUDIA: HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA AZTERTZEA ISLn OINARRITUTA, JATORRIZKO ALDAGAIETATIK ADIERAZLE BAKUNETARA



Iturria: egileak landua.

Zehazki, honako adierazle bakun hauek sortuko ditugu:

- **ISL-201: Amen euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-202: Aiten euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-203: Bikotekideen euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-204: Neba-arreben euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-205: Seme-alaben euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-206: Etxekoen euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-207: Lagunen euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-208: Lankideen euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-209: Saltzaileen euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-210: Bankuko teknikarien euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-211: Osasun-zerbitzuetako teknikarien euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-212: Udal-zerbitzuetako teknikarien euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-213: Auzokoen euskalduntasun-tasa (%)**
- **ISL-214: Administrazio publikoko teknikarien euskalduntasun-tasa (%)**

Horrela, I.35. irudian aurkezten den bezala, ISLn rol-harreman bakoitzaren osaeraz (euskaraz dakiten edo ez aintzat hartuta) egiten den galderatik abiatuta, beste hainbeste adierazle bakun sortu ditugu. Adierazle bakun bakoitzak dagokion rol-harreman edo espazio bakoitzean euskaraz dakitenek zenbateko pisua duten laburtzen du % baten bidez.

**I.35. IRUDIA: HARREMAN-SAREAK AZTERTZEKO JATORRIZKO ALDAGAIK ETA HORIETATIK SORTU DITUGUN ADIERAZLE BAKUNAK**

Ama (bizirik badago) euskalduna ote den	Amen euskalduntasun-tasa (%)
Aita (bizirik badago) euskalduna ote den	Aiten euskalduntasun-tasa (%)
Bikotekidea (baldin badu, bizirik) euskalduna ote den	Bikotekideen euskalduntasun-tasa (%)
(Bizirik) dituen neba-arrebak eta horietatik zenbat diren euskaldunak	Neba-arreben euskalduntasun-tasa (%)
(Bizirik) dituen seme-alabak eta horietatik zenbat diren euskaldunak	Seme-alaben euskalduntasun-tasa (%)
Zenbat lagunekin bizi den etxean eta horietatik zenbat diren euskaldunak	Etxekoan euskalduntasun-tasa (%)
Lagunen artean zenbat diren euskaldunak	Lagunen euskalduntasun-tasa (%)
Lankideen artean zenbat diren euskaldunak	Lankideen euskalduntasun-tasa (%)
Auzokoen artean zenbat diren euskaldunak	Auzokoen euskalduntasun-tasa (%)
Saltzaileen artean zenbat diren euskaldunak	Saltzaileen euskalduntasun-tasa (%)
Joan ohi den bankuan zenbat diren euskaldunak	Bankuko teknikarien euskalduntasun-tasa (%)
Joan ohi den osasun-zerbitzuetan zenbat diren euskaldunak	Osasun-zerbitzuetako teknikarien euskalduntasun-tasa (%)
Joan ohi den udal-zerbitzuetan zenbat diren euskaldunak	Udal-zerbitzuetako teknikarien euskalduntasun-tasa (%)
Joan ohi den administrazio publikoko bulegoetan zenbat diren euskaldunak	Administrazio-publikoko teknikarien euskalduntasun-tasa (%)

Iturria: egileak landua.

#### 11.3.4.2. Jatorrizko aldagaiaren erantzunei zenbakizko balioak esleitzea

T.123. taulan, jatorrizko aldagaietako erantzun-aukerak ikus daitezke eta horietako bakoitzari adierazle bakun berria sortzeko esleitu diogun zenbakizko balioa. Taulan ageri denez, elkarrizketatuen harreman-sarea osatzen duten pertsonak euskaraz ba ote dakiten jasotzen duten galdera ugari egiten da ISLn. Galderek neurtzen duten errealitateari eta errealitate hori jasotzeko egiten den galdera moldeari erreparatu, hiru item multzo ditugu. Horietako bakoitzean erantzun-aukera bakoitzari zenbakizko balio bat esleitzeko erabili ditugun irizpideak taula horretako azken zutabeen aurkezten ditugu.

**T.123. TAULA: HARREMAN-SAREARI BURUZKO INFORMAZIOA NOLA BILDU DEN ISL-N ETA HORREN LANKETA NOLA EGIN DEN HARREMAN-SAREAREN EUSKALDUNTASUN-TASA ESLEITUETARA IRISTEKO**

Itemak	Neurtzen den rol-harremanaren edo egoeraren berezko ezaugarriak eta ISLn zer-nolako galderekin jasotzen den gaiari buruzko informazioa	Sarearen euskalduentasunaren adierazle bakunerako esleitze-irizpideak
<p>Ama (bizirik badago) euskalduna ote den</p> <p>Aita (bizirik badago) euskalduna ote den</p> <p>Bikotekidea (baldin badu, bizirik) euskalduna ote den</p>	<p>Norbanakoak dira oro har<sup>204</sup>. ISLn zehatz jasotzen da horietako bakoitzak euskaraz ba ote dakien, honako erantzun-aukera hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ongi</li> <li>• Nahiko ongi</li> <li>• Zertxobait</li> <li>• Hitz batzuk</li> <li>• Ezer ez</li> <li>• Ez dagokio</li> <li>• Ez daki/erantzunik ez</li> </ul>	<p>Erantzun-aukerak bi multzotan bildu ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ama (adibidez) euskalduna bada (euskaraz ongi edo nahiko ongi dakiela esan badu elkarrizketatuak), %100eko balioa esleituko diogu</li> <li>• Euskalduna ez bada %0koa.</li> </ul> <p>Galdera horietako bakoitzean "ez dagokio" edo "Ez daki / erantzunik ez" aukerak balio galdu gisa kodetu ditugu eta gure azterketatik kanpo gelditu dira.</p>
<p>Zenbat neba-arrena dituen (bizirik) eta horietatik zenbat diren euskaldunak</p> <p>Zenbat seme-alaba dituen (bizirik) eta horietatik zenbat diren euskaldunak</p> <p>Zenbat lagunekin bizi den etxean eta horietatik zenbat diren euskaldunak</p>	<p>Neurri aldakorra duten multzo horiei buruzko informazioa zenbaki zehatzen bidez jaso izan da ISLn. Adibidez, hitzun batek zenbat neba-arreba dituen eta horietatik zenbaterak dakiten euskaraz.</p>	<p>Kasu horretan, euskalduentasuna neurtzeko, multzo bakoitzean euskaldunek guztiekiko osatzen duten ehunekoa kalkulatu dugu. Adibidez, hitzun batek hiru neba-arreba baditu eta horietatik bi baldin badira euskaldunak, bere neba-arreben artean euskaldunen ehunekoa zenbat den kalkulatu dugu<sup>205</sup>: 2/3=%66,6.</p>
<p>Lagunen artean zenbat diren euskaldunak</p> <p>Lankideen artean zenbat diren euskaldunak</p> <p>Saltzaileen artean zenbat diren euskaldunak</p> <p>Joan ohi den bankuan zenbat diren euskaldunak</p> <p>Joan ohi den osasun-zerbitzuetan zenbat diren euskaldunak</p> <p>Joan ohi den udal-zerbitzuetan zenbat diren euskaldunak</p> <p>Auzokoan artean zenbat diren euskaldunak</p> <p>Joan ohi den administrazio publikoko bulegoetan zenbat diren</p>	<p>Kasu horietan, multzo bakoitzaren neurria aldakorra da hitzunik hitzunerara eta ISLn ez da informazio zehatzik jasotzen elkarrizketatu bakoitzaren kasuan zenbat kidek osatzen dituzten talde horiek eta horietatik zenbat diren euskaldunak. ISLn, honako bost erantzun-aukera hauetan biltzen dira talde horien osararen egon daitezkeen aukera guztiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Denek edo ia denek (dakite euskaraz)</li> <li>○ Erdiek baino gehiagok</li> <li>○ Erdiek</li> <li>○ Erdiek baino gutxiagok</li> <li>○ Inork edo ia inork ez</li> <li>○ Ez dagokio</li> <li>○ Ez daki / erantzunik ez</li> </ul>	<p>Erantzun-aukera bakoitzari ehuneko bat esleituko diogu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Denek edo ia denek (dakite euskaraz): %100</li> <li>○ Erdiek baino gehiagok: %75</li> <li>○ Erdiek: %50</li> <li>○ Erdiek baino gutxiagok: %25</li> <li>○ Inork edo ia inork ez: %0</li> </ul> <p>Galdera horietako bakoitzean "ez dagokio" edo "Ez daki / erantzunik ez" aukerak balio galdu gisa kodetu ditugu eta gure azterketatik kanpo gelditu dira.</p>

[Iturria: egileak landua.](#)

<sup>204</sup> Bi ama dituzten, bi aita dituzten edo bikotekide bat baino gehiago duten pertsonen errealitatea ez da berariaz jaso izan ISLn.

<sup>205</sup> Etxean bizi diren kideen kasuan horrela egin dugu urte guztietarako, 1991rako izan ezik. Izan ere, urte horretako galdera-sortan etxean zenbat kide bizi ziren galdetu zen, baina ez horietatik euskaldunak zenbat ziren. Horren ordean, bost multzotan sailkatuta ageri dira ISLren *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. *Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza* datu-basean 1991ko elkarrizketatuak, euren etxean euskaldunak zenbat diren kontuan hartuta: denek edo ia denek (dakite euskaraz), erdiek baino gehiagok, erdiek, erdiek baino gutxiagok eta inork edo ia inork ez. Horien artean etxean bakarrik bizi direnak kanpo utzi eta gainerakoei logikaren arabera ehunekoak esleitu dizkiegu, taula honetan bertan multzokako taldeetarako aurkezten den irizpideari jarraituta. Horrela lortutako datuak nahiko homogenoak dira gainerako urteetakoekin, ez guztiz ordea. Izan ere, 1991ko datuetan etxeko euskaldunen artean norbera (elkarrizketatua) ere kontatzen da, 1996tik aurrerakoetan, berriz, ez.

Bestalde, 1991-2001 bitarteko inkestetan seme-alabak sei baino gehiago zirenetan, 3 seme-alaba gazteenen eta 3 zaharreneen informazioa eskuratzen zen. Horien gainean kalkulatu ditugu datuak urte horietarako.

### 11.3.4.3. Prozesuaren emaitza: harreman-sarearen euskalduntasunari buruzko tasa esleituak

Horiek horrela, rol-harreman edo espazio horietako bakoitzari buruzko erantzunak hartu eta, esleitze-irizpide horiek aplikatuta, aldagai bakoitza laburtuko duen tasa bat kalkulatu dugu. Zehatzago: inkestatu bakoitzak emandako erantzunari dagokion balioa esleitu ondoren, balio esleitu horietan oinarrituta eta elkarrizketatu euskaldun guztiak kontuan hartuta, euren harreman-sarean euskaldunen pisua zenbatekoa den kalkulatu dugu, balio guztien batez bestekoen bidez. Zera adieraziko du zehazki rol-harreman batean edo espazio batean euskaldunen duten pisuari buruzko tasa esleituak: inkestan jaso diren erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (alboratzerik ez balego), elkarrizketatu euskaldunen inguruneko pertsona eta espazio jakin horietan zenbat euskaldun dagoen, ehunekoetan adierazita.

Zehazki, T.124. taulan aurkeztu dugu ISLn landu izan diren rol-harreman eta espazio bakoitzerako zein urtetako datuak lortu ahal izan ditugun (betiere, jatorrizko iturriak aginduta). Adierazle bakun horien guztien emaitzak, bestalde, T.125. taulan ikus daitezke.

**T.124. TAULA: ROL-HARREMAN ETA ESPAZIO BAKOITZAREN EUSKALDUNTASUNARI BURUZKO ADIERAZLE BAKUNAK ZEIN URTETARAKO KALKULATU DITUGUN, 1991-2016**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Amak euskaraz ba ote dakien	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Erabilera administrazio publikoan	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Bokotekideak euskaraz ba ote dakien	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Neba-arreben artean zenbatek dakiten euskaraz	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Seme-alaben artean zenbatek dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Etxekoen artean zenbatek dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Lagunen artean zenbatek dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Lankideen artean zenbatek dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Auzokoen artean zenbatek dakiten euskaraz	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai
Ohiko dendetako saltzaileen artean zenbatek dakiten euskaraz	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohiko bankuan zenbatek dakiten euskaraz	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohiko anbulatorioan zenbatek dakiten euskaraz	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohiko udal-zerbitzuetan zenbatek dakiten euskaraz	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Ohiko administrazio publikoan zenbatek dakiten euskaraz	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai

[Iturria: egileak landua.](#)

Harreman-sareen euskalduntasuna neurtzea garrantzitsua da, besteak beste, ondoren solaskide bakoitzarekin egiten den erabilera baloratzeko. Begi bistakoa da hiztunaren harreman-sarearen euskalduntasunak baldintzatu egingo duela hiztun horrek euskara erabiltzeko duen aukera. Nekez erabili ahal izango du euskara inguruan euskaldunik ez duenak. Sarearen euskalduntasunaren eta erabileraren arteko harremana, ordea, ezberdina da bakarkako harremanetan edo taldekakoetan. Horrela, bakarkako rol-harremanetan bat etorriko dira, oro har, mintzakidearen euskalduntasuna eta euskara

erabiltzeko aukera<sup>206</sup>. Adibidez, ama euskalduna bada, berarekin euskaraz aritzeko aukera izango dugu, eta euskalduna ez bada, ez dugu izango.

Multzokako harremanetan (lagunak, lankideak, eta abar) irakurketa zailagoa da. Oro har, sarearen euskalduntasuna eta erabiltzeko aukera bat etorriko dira muturreko kasuetan, hots, multzo horretako kide guztiak euskaldunak direnean (hor erabiltzeko aukera betea izango dugu) edo kideen artean euskaldunak ez dagoenean (hor ez dugu erabiltzeko aukerarik izango). Tarteko kasuetan, ordea, lagunak erdiak euskaldun elebidunak direnean eta beste erdiak erdaldun hutsak, adibidez, ez da hain erraza erabiltzeko aukera hori zehaztea. Konbinaketa-aukerak eta kasuistika oso zabala litzateke errealitatean, eta egun ditugun baliabide demolinguistikoekin (ditugun galdera-erantzun jakinekin), ez dugu aurkitu gaia gutxieneko zorrotasun batekin aztertze modua. Edonola ere, argi izan behar dugu, Txillardegiren eredu matematikoak erakutsi bezala (Álvarez Enparantza, 1984), erabiltzeko aukera hori dezente txikiagoa izango dela talde horretan euskaldun elebidunek duten pisua baino.

Horiek horrela, harreman-sarearen euskalduntasunari buruzko adierazle bakun batzuk (pertsonek bakarrik buruzko informazioa ematen diguten horiek) euskara erabiltzeko aukeraren adierazle zuzenak izango dira, eta beste batzuk (informazioa taldeka bildu izan denean) ez hainbeste. Ohar hau kontuan hartu beharko da datuak irakurtzean.

**T.125. TAULA: HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN EUSKALDUNEN PISUA. EUSKAL HERRIKO 16 URTEK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (EUSKALDUNEN BATEZ BESTEKO PISUA, %)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Ama euskalduna ote den (%)	81,2	72,4	59,3	61,4	52,4	50,8
Aita euskalduna ote den (%)	76,1	64,9	52,5	56,7	46,9	45,4
Bikotea euskalduna ote den (%)	72,8	71,6	64,7	67,0	65,7	67,5
Neba-arreben artean zenbat euskaldun (%)		90,4	87,3	87,8	85,9	86,0
Seme-alaben artean zenbat euskaldun (%)	78,4	89,0	88,8	91,7	93,8	92,8
Exekoen artean euskaldunak -norbera kontatu gabe- (%)	85,3	78,2	67,8	71,8	68,7	69,5
Lagunen artean zenbat euskaldun (%)	72,0	72,5	70,7	70,6	74,8	75,9
Lankideen artean zenbat euskaldun (%)	61,0	62,5	59,7	61,8	67,3	66,8
Auzokoen artean zenbat euskaldun (%)				56,0	57,1	56,5
Saltzaileen artean zenbat euskaldun (%)	58,6	57,3	55,4	54,7	59,9	58,5
Bankukoen artean zenbat euskaldun (%)		63,9	67,9	64,2	69,6	66,5
Osasun zerbitzuetako artean zenbat euskaldun (%)		42,7	49,8	52,6	66,4	67,7
Udal zerbitzuetako artean zenbat euskaldun (%)		71,0	75,7	69,3	79,9	81,4
Administrazio publikoko artean zenbat euskaldun (%)					71,9	75,5

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

<sup>206</sup> Binakako harremanetan egoerak sinplifikatu egin ditugu, mintzakideen artean euskaraz hitz egiteko gai ez diren hiztunak erdalduntzat joz, horietako gutxi batzuk euskara ulertzeko gai diren arren.




### 11.3.5. Euskaldunekiko erabilerari buruzko adierazle bakunak sortzen

Azpiatal honen hasieran, hirugarren helburu zehatz gisa aipatu dugu “mintzakideak ere euskaldunak diren harremanetako” erabilera kalkulatzeko. Operatiboki horrela definituko dugu erabilera hori: mintzakidea ere euskalduna den harremanetan euskaldunek egiten duten euskararen erabilera, %etan adierazita.

#### 11.3.5.1. Jatorrizko aldagaietatik adierazle bakunetara; zer-nolako adierazle bakunak sortu ditugun

Atal teorikoaren 5.4.3.1. eta 5.2.3.1. puntuetan aurkeztu dugu ISLn zer-nolako aldagaiak ditugun sarearen euskalduntasunari buruz eta erabilerari buruz; eta azaldu dugu, halaber, zer-nolako galderak dauden aldagai horien jatorrian. Aldagai horietatik abiatuta, I.36. irudian aurkezten den prozesuaren lehenengo urratsa adierazle bakunak sortzea da: rol-harreman edo espazio bakoitzari dagozkion bi aldagai uztartuta (mintzakidearen euskalduntasunari eta berarekiko erabilerari buruzko aldagaiak), adierazle bakun berri bat.

*I.36. IRUDIA: EUSKALDUNEK EUSKALDUNEKIN EGITEN DUTEN ERABILERA AZTERTZEA ISL-N OINARRITUTA, JATORRIZKO ALDAGAIETATIK ADIERAZLE BAKUNETARA*



Iturria: egileak landua.

Zehazki, honako adierazle bakun hauek sortuko ditugu:

- **ISL-301: Erabilera amarekin, ama euskalduna denean (%)**
- **ISL-302: Erabilera aitarekin, aita euskalduna denean (%)**
- **ISL-303: Erabilera bikotekidearekin, bikotekidea euskalduna denean (%)**
- **ISL-304: Erabilera neba-arrebekin, guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-305: Erabilera seme-alabekin, guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-306: Erabilera etxean, etxeko guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-307: Erabilera lagunekin, guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-308: Erabilera lankideekin, guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-309: Erabilera ohiko saltzaileekin, guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-310: Erabilera bankuan, bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-311: Erabilera osasun-zerbitzuetan, bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)**

- **ISL-312: Erabilera udal-zerbitzuetan, bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-313: Erabilera auzokoekin, guztiak euskaldunak direnean (%)**
- **ISL-314: Erabilera administrazio publikoan, bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)**

Horrela, I.37. irudian aurkezten den bezala, ISLn rol-harreman eta espazio bakoitzeko mintzakideen euskalduntasunari buruz eta haiekiko erabilera-ohiturei buruz ditugun aldagai-pare bakoitzetik abiatuta, beste hainbeste adierazle bakun sortuko dugu. Adierazle bakun bakoitzak dagokion rol-harreman edo espazio bakoitzeko erabilera laburtuko du % baten bidez, baina mintzakideak euskaldunak diren kasuetara mugatuta.

**I.37. IRUDIA: EUSKALDUNEKIN EGITEN DEN ERABILERAREN AZTERKETAN, JATORRIZKO ALDAGAIK ETA HORIETATIK SORTUTAKO ADIERAZLE BAKUNAK**

Bi aldagai: 1. Ama euskalduna ote den. 2 Erabilera amarekin	Erabilera amarekin ama euskalduna denean (%)
Bi aldagai: 1. Aita euskalduna ote den. 2 Erabilera aitarekin	Erabilera aitarekin aita euskalduna denean (%)
Bi aldagai: 1. Bikotekidea euskalduna ote den. 2 Erabilera bikotekidearekin	Erabilera bikotekidearekin bikotekidea euskalduna denean (%)
Bi aldagai: 1. Neba-arreben artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera neba-arrebekin	Erabilera neba-arrebekin guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Seme-alaben artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera seme-alabekin	Erabilera seme-alabekin guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Etxean bizi direnen artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera etxean guztiak elkarrekin daudenean	Erabilera etxean etxeko guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Lagunen artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera lagunekin	Erabilera lagunekin guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Lankideen artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera lankideekin	Erabilera lankideekin guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Auzokoekin artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera auzokoekin	Erabilera auzokoekin guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Ohiko saltzaileen artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera ohiko saltzaileekin	Erabilera ohiko saltzaileekin guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Bankuko langileen artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera bankuan	Erabilera bankuan bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Osasun zerbitzuetako langileen artean zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera osasun-zerbitzuetan	Erabilera osasun-zerbitzuetan bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Udal-zerbitzuetan zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera udal-zerbitzuetan	Erabilera udal-zerbitzuetan bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)
Bi aldagai: 1. Adm. publikoko bulegoetan zenbat diren euskaldunak 2. Erabilera administrazioarekin	Erabilera administrazio publikoan bertako langile guztiak euskaldunak direnean (%)

Iturria: egileak landua.

#### 11.3.5.2. Adierazle berrietarako aintzat hartuko ditugun harreman multzoak zehaztea eta erabilerari buruzko jatorrizko aldagaiaren erantzunei zenbakizko balioak esleitzea

Kasu honetan rol-harreman edo espazio bakoitzeko bi aldagaietatik adierazle bakarra atera dugu. Bi urratsetan egin dugu lanketa. Lehenik, aztertu beharreko harremanen multzoa finkatu dugu. Horrela, ISLn elkarrizketatutako euskaldunak hartu ditugu, eta rol-harreman edo egoera bakoitzean, euskaldun horiekin euskara erabiltzeko aukera argia den kasuak bakarrik aztertu ditugu: mintzakidea euskalduna den kasuak binakako harremanetan (amarekin, aitarekin, bikotekidearekin); taldeetan, berriz (seme-alabak, lagunak, lankideak...), taldekide guztiak (edo ia guztiak) euskaldunak dituzten kasuak soilik hartu ditugu aintzat.

Bigarrenik, mintzakidea(k) euskaldunak diren harreman horiek hartu eta eurekiko erabilera-tasa kalkulatu dugu. T.126. taulan ageri denez, erabilerari buruzko galdera xehe guztien erantzun-aukerek molde berbera dute; guztiei esleitze-irizpide bera aplikatu diegu hortaz.

**T.126. TAULA: HARREMAN-SAREARI BURUZKO ETA ERABILERARI BURUZKO INFORMAZIOA NOLA BILDU DEN ISL-N ETA HORREN LANKETA NOLA EGIN DEN EUSKALDUNEKIKO ERABILERA-TASA ESLEITUETARA IRISTEKO**

[Aztertuko den harreman multzoa]	Erabilerari buruzko itemak	Neurtzen den rol-harreman edo egoera bakoitzean erabiltzen den hizkuntzari buruzko informazioa ISLn nola jaso izan den	Erabileraren adierazle bakunerako esleitze-irizpideak
[Ama euskalduna duten euskaldunak]	Erabilera amarekin	ISLn, honako erantzun-aukera hauek eskaini izan zaizkie elkarrizketatuei pertsona edo ingurune batean egin ohi duten erabilerari buruz galdetu zaienean:  <input type="radio"/> Beti euskaraz  <input type="radio"/> Euskaraz erdaraz baino gehiago  <input type="radio"/> Euskaraz erdaraz beste  <input type="radio"/> Euskaraz erdaraz baino gutxiago  <input type="radio"/> Beti erdaraz  <input type="radio"/> Ez dagokio  <input type="radio"/> Ez daki / erantzunik ez	Erantzun-aukera bakoitzari ehuneko bat esleitu dio, irizpide logiko-matematikoa irarrituz:  <input type="radio"/> Beti euskaraz: %100 euskaraz  <input type="radio"/> Euskaraz erdaraz baino gehiago: %75 euskaraz  <input type="radio"/> Euskaraz erdaraz beste: %50 euskaraz  <input type="radio"/> Euskaraz erdaraz baino gutxiago: %25 euskaraz  <input type="radio"/> Beti erdaraz: %0 euskaraz  Galdera horietako bakoitzean "ez dagokio" edo "Ez daki / erantzunik ez" aukerak balio galdu gisa kodetu ditugu eta gure azterketatik kanpo gelditu dira.
[Aita euskalduna duten euskaldunak]	Erabilera aitarekin		
[Bikotekidea euskalduna duten euskaldunak]	Erabilera bikotekidearekin		
[Etxeko kide guztiak euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera etxean (denak elkarrekin daudenean)		
[Neba-arreba guztiak euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera neba-arrebekin		
[Seme-alaba guztiak euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera seme-alabekin		
[Lagun guztiak (edo ia) euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera lagunekin		
[Lankide guztiak (edo ia) euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera lankideekin		
[Saltzaile guztiak (edo ia) euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera saltzaileekin		
[Bankuko langile guztiak (edo ia) euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera bankukoekin		
[Osasun-zerbitzuetako langile guztiak (edo ia) euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera osasun-zerbitzuetan		
[Udal-zerbitzuetako langile guztiak (edo ia) euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera udal-zerbitzuetan		
[Auzoko guztiak (edo ia) euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera auzokoekin		
[Administrazio publikoko langile guztiak (edo ia) euskaldunak dituzten euskaldunak]	Erabilera administrazio publikoan		

[Iturria: egileak landua.](#)

### 11.3.5.3. Prozesuaren emaitza: mintzakide euskaldunekiko erabilera-tasa esleituak

Horiek horrela, rol-harreman edo espazio horietako bakoitzean mintzakide euskaldunak soilik hartuta, eurekiko erabilerari buruzko erantzunak hartu eta esleitze-irizpide horiek aplikatuta, aldagai bakoitza laburtuko duen tasa bat kalkulatu dugu.

Zehatzago: inkestatu bakoitzak emandako erantzunari dagokion balioa esleitu ondoren, balio esleitu horietan oinarrituta, mintzakide euskaldunak dituzten euskaldunen artean euskararen erabilera-tasa zenbatekoa den kalkulatu dugu, balio guztien batez bestekoen bidez. Prozedura horri jarraituta sortu ditugu erabilera-tasak rol-harreman eta espazio bakoitzerako urtez urte. Zera adierazten du zehazki rol-harreman bati edo espazio bati dagokion **euskaldunekiko erabilera-tasa esleituak**: inkestan jaso diren erantzunak errealitatearen isla zuzen-zuzena izango balira (alboratzerik ez balego), zenbat euskara erabiltzen den rol-harreman edo espazio horretan mintzakideak euskaldunak direnean, ehunekoetan adierazita.

Zehazki, T.124. taulan aurkeztu dugu ISLn landu izan diren rol-harreman eta espazioetarako zein urtetako datuak lortu ahal izan ditugun adierazle multzo honetarako (betiere, jatorrizko iturriak aginduta). Emaizak, bestalde, T.127. taulan ikus daitezke.

Tasa horiekin, laburtu egiten dugu datuen ugaritasun izugarria, eta egoeraren eta bilakaeren sintesi-irakurketa erraztu. Bestalde, tasa horietan oinarrituko gara aurrerago euskaldunekiko erabilerari buruzko adierazle sintetikoak sortzeko. Datuok interpretatzerakoan, ez da ahaztu behar multzokako datuetan (lagunen arteko erabileran edo lankideekikoan esaterako) kide guztiak euskaldunak diren egoerak soilik hartu ditugula aintzat eta horrek alboratze bat ekar dezakeela emaitzetan.

**T.127. TAULA: EUSKARAREN ERABILERA, MINTZAKIDEAK EUSKALDUNAK DIRENEAN, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Amarekin (%)	79,3	81,2	75,9	81,4	79,2	73,1
Aitarekin (%)	79,9	83,5	80,4	83,0	81,5	77,7
Bikotekidearekin (%)	76,3	76,5	70,5	75,6	69,4	68,9
Neba-arrebekin (%)		72,0	65,3	69,7	67,8	64,8
Seme-alabekin (%)	84,5	83,1	78,9	81,5	80,8	78,9
Etxean (%)	79,9	77,2	76,5	79,9	76,0	75,3
Lagunekin (%)	80,7	81,6	77,3	79,5	74,8	69,3
Lankideekin (%)	84,9	84,6	86,3	92,6	86,8	84,2
Auzokoekin (%)				92,1	87,7	85,0
Saltzaileekin (%)	88,9	89,2	91,4	95,8	86,6	89,7
Bankukoekin (%)		89,0	88,6	91,6	81,6	83,7
Osasun zerbitzukoekin (%)		80,8	83,1	88,0	77,7	80,9
Udal zerbitzuetakoekin (%)		86,2	87,1	91,1	82,7	84,9
Administrazio Publikoekin (%)					79,7	80,1

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

## 11.4. EUSKARAREN ERABILERA, EUSKALDUNEN HARREMAN-SAREAREN EUSKALDUNTASUNA ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERA (HSE) AZTERTZEKO ADIERAZLE SINTETIKOAK

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

### 11.4.1. HSE adierazle sintetikoak: zertarako, zein eta zer-nolako irizpideen arabera eraikiko ditugun

#### 11.4.1.1. Adierazle bakunak eta sintetikoak

Aurreko puntuan, ISLn rol-harreman eta espazio ugaritako harreman-sareari eta erabilerari buruzko informazio xehatu aberatsa landuta, adierazle bakunak nola sortu ditugun aurkeztu dugu. Informazio hori guztia zehatz aztertzea ezinbesteko zeregina dugu errealitate soziolinguistikoan sakontzeko, ez dutelako zertan berdinak izan, adibidez, bikotekidearekin ditugun hizkuntza ohiturak eta seme-alabekin ditugunak, auzoko dendariarekin eta lagun taldearekin ditugunak, eta abar. Rol-harreman eta espazio bakoitzeko errealitatearen irakurketa, gainera, aldatu egingo da irakurketa horri zer-nolako kokapen teorikoa ematen diogun. Horregatik, desiragarritzat eta ordezkazentzat jotzen dugu adierazle bakun multzo zabal hori era xehean aurkeztea eta irakurtzea.

Horretaz gain, ordea, sintesi-ikuspegia lantze aldera eta gertatu ahal izan diren joera nagusiak hobeto atzemateko, informazio zabal hori adierazle sintetiko gutxi batzuetan laburbiltzea ere oso komenigarria da, datu multzo handiegietan ez galtzeko eta irakurketa orokorrak egiten laguntzeko. Horretarako sortzen ditugu adierazle sintetikoak. Adierazle sintetikoek, beraz, ez dituzte ordezkutzen adierazle bakunak, osatu egiten dituzte. Eta irakurketarik aberatsena, adierazle bakunak eta sintetikoak guztiak batera irakurrita egin ahal izango dena dugu.

#### 11.4.1.2. Helburuak eta sortuko ditugun adierazle sintetikoak

Adierazle sintetikoak lantzerakoan, hiru helburu zehatz hauen bila abiatuko gara:

- ❖ *Erabileraren adierazle bakunetan oinarrituta, teorikoki adierazgarriak eta metodologikoki egingarriak diren adierazle sintetikoak sortzea. Zehazki, erabileraren honako adierazle sintetiko hauek sortzea: Familiako erabilera, Harreman informaletako erabilera, Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabilera eta Aurrez aurreko harremanetako erabilera orokorra.*
- ❖ *Harreman-sareen euskalduntasunari buruzko adierazle bakunetan oinarrituta, teorikoki adierazgarriak eta metodologikoki egingarriak diren adierazle sintetikoak sortzea. Zehazki, harreman-sareen euskalduntasunari buruzko honako adierazle sintetiko hauek sortzea: Familiako harreman-sarearen euskalduntasuna, Harreman informaletako harreman-sarearen euskalduntasuna, Merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasuna eta Aurrez aurreko harreman-sare orokorraren euskalduntasuna.*
- ❖ *Mintzakideek euskaldunak dituzten kasuetan hiztun euskaldunek egiten duten erabileraren ikuspegi orokorra emango diguten bitarteko metodologikoak sortzea eta lantzea. Horretarako, erabilera aztertzeo sortu ditugun adierazle sintetikoen parekoak sortzea “mintzakideak ere euskaldunak diren” kasuak soilik aintzat hartuz.*

Helburu horien bila, bi irizpide nagusi erabili ditugu ISLk eskaintzen digun informazio aberatsetik zer-nolako adierazle sintetikoak sortu erabakitzerakoan:

- Batetik, delako adierazle sintetikoak ikuspegi teorikotik adierazgarriak izan daitezkeen alor edo harreman motei buruzko errealitatea laburbiltzeko balio beharko du.
- Bestetik, jatorrizko aldagaiek teorikoki adierazi nahi dugun alorraren berri era onargarri samarrean ematen digutenean soilik sortuko dugu adierazle sintetikoa. ISLn horretarako lehengai aski ez dagoen alorretarako (lan-mundurako, aisialdirako edo hedabideen kontsumorako, adibidez), ez dugu adierazle sintetikorik sortuko.

Bi irizpide horietan oinarritu eta ISLko datuek eskaintzen dituzten aukerak aztertuta, T.128. taulan aurkezten diren adierazle sintetikoak sortu ditugu HSEko hiru gaietan.

Adierazle horiek banan-banan azaldu aurretik, aipa dezagun zer-nolako **irizpideak eta eraikuntza-prozedura orokorrak** erabili ditugun adierazle horiek guztiak eraikitzeo orduan.

T.128. TAULA: HSE ALORREAN SORTU DITUGUN ADIERAZLE SINTETIKOAK

	Euskararen erabilera	Harreman-sarearen euskalduntasuna	Euskaldunekiko erabilera
Familia	<u><i>ISL-401: Familiako erabilera-tasa (adierazle sintetikoak, %).</i></u>	<u><i>ISL-411: Familiako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoak, %).</i></u>	<u><i>ISL-421: Euskaldunekiko erabilera-tasa familiako harremanetan (adierazle sintetikoak, %).</i></u>
Harreman informalak	<u><i>ISL-402: Harreman informaletako erabilera-tasa (adierazle sintetikoak, %).</i></u>	<u><i>ISL-412: Harreman informaletako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoak, %).</i></u>	<u><i>ISL-422: Euskaldunekiko erabilera-tasa harreman informaletan (adierazle sintetikoak, %).</i></u>
Merkataritza eta zerbitzu publikoak (Harreman formaletara hurbilpen partziala)	<u><i>ISL-403: Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabilera-tasa (adierazle sintetikoak, %)</i></u> (harreman formaletako erabileraren zeharkako adierazlea).	<u><i>ISL-413: Merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoak, %)</i></u> (harreman-sare formalaren euskalduntasunari buruzko zeharkako adierazlea).	<u><i>ISL-423: Euskaldunekiko erabilera-tasa merkataritzan eta zerbitzu publikoetan (adierazle sintetikoak, %).</i></u>
Aurrez aurreko harremanak	<u><i>ISL-404: Aurrez aurreko harremanetako erabilera-tasa (adierazle sintetikoak, %).</i></u>	<u><i>ISL-414: Aurrez aurreko harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoak, %).</i></u>	<u><i>ISL-424: Euskaldunekiko erabilera-tasa aurrez aurreko harremanetan (adierazle sintetikoak, %).</i></u>

Iturria: egileak landua.

Oharra: taula honetako laukitxo bakoitzean adierazle bat definitzen den arren, berez, bi adierazle egongo dira, A motako bat eta B motako beste bat, kalkuluak nola egiten diren, 11.4.6. puntuan azalduko dugun bezala.

### 11.4.1.3. Adierazle multzoaren koherentzia eta alderagarritasuna

Harreman-sarearen euskalduntasunari buruz, erabilerari buruz eta euskaldunekiko erabilerari buruz (HSE alorrean, beraz) Inkesta Soziolinguistikoko elkarrizketatu euskaldunentzat sortuko ditugu T.128. taulako adierazle sintetikoak. Horiek sortzeko orduan funtsezko irizpidea izan dugu adierazle multzo osoaren koherentzia eta ahalik eta alderagarritasunik zabalena bilatzea:

- Garrantzitsua da adierazle sintetikoen emaitzak zuzenean alderagarriak izatea adierazle bakunekin. Horretarako, adierazle guztiak eskala berean eraikiko ditugu. Kasu guztietan %etan adieraziko da adierazle bakoitzaren emaitza. Horrek alderagarri egingo ditu adierazle sintetiko eta bakunak.
- Bestalde, maila orokorragoan, HEKN eta zentsuetako emaitzekin ere alderagarriak izango dira adierazle horiek.
- Horretaz gain, garrantzitsua da harreman-sareari buruzko errealitatea erabilerarekin eta euskaldunekiko erabilerarekin alderatu ahal izatea. Horretarako, **haztatze-irizpide berak** erabiliko ditugu erabilerari buruzko adierazle sintetikoak, harreman-sarearen euskalduntasunari buruzkoak eta euskaldunekiko erabilerari buruzkoak eraikitzerakoan.




Horiek horrela, HSEko adierazle bakun eta sintetiko guztiek sistema koherente bat osatuko dute.

#### 11.4.1.4. HSE adierazle sintetikoak eraikitze prozedura

Adierazle sintetikoak adierazle bakunen konbinaketaren bidez edo adierazle bakunen eta beste adierazle sintetiko batzuen konbinaketaren bidez sortuko ditugu beti, I.38. irudian irudikatzen den bezala.

*1.38. IRUDIA: HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNAREN, EUSKARAREN ERABILERA OROKORRAREN ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERAREN AZTERKETA ISL-N OINARRITUTA, ADIERAZLE BAKUNETATIK ADIERAZLE SINTETIKOETARA*



Iturria: egileak landua.

Aurrera egin aurretik, argitu dezagun, HSE adierazle sintetikoari buruzko azalpenak egiteko eta taula eta grafikoak lantzeko, erabileraren adierazle sintetikoak hartuko ditugula adibidetzat, azalpena erraztearren. Argi dezagun, baina, azalpen horiek berdin-berdin balio dutela bai harreman-sareen euskalduntasunari buruzko adierazleentzako zein euskaldunekiko erabilerari buruzkoentzako.

#### 11.4.1.5. HSE adierazle sintetikoak osatzeko eta haztatzeko irizpideak

T.128. taulan aurkeztu ditugu HSEn sortu ditugun adierazle sintetikoak. Adierazle sintetiko horietako bakoitza definitzerakoan, bi auzi nagusi argitu behar izan ditugu nahitaez: adierazle bakoitzaren osaera eta haztatze-irizpideak.

Lehenik, hortaz, adierazle sintetiko bakoitzaren **osaeran** zer-nolako adierazle bakunak erabiliko ditugun eta zer-nolakoak ez erabaki dugu. Adibidez, harreman informaletako erabileraren adierazle sintetikoa sortzerakoan, zer-nolako adierazle bakunak uztartuko ditugu? Neba-arrebekikoa? Bikotekidearekikoa? Lagunekikoa? Lankideekikoa? Auzokoekikoa...? Horiek guztiak? Zein bai eta zein ez? Galdera horiei erantzuterakoan eta adierazle sintetikoak nola osatu erabakitzerakoan, beti bat etorriko ez diren bi irizpide hartu ditugu kontuan. Irizpide nagusia baliozkotasuna izan dugu: sintetikoan

sartuko dugun rol-harreman edo espazioa pertinentea eta argia izatea adierazle sintetikoak adierazi nahi duen errealitate zabalagoarekiko. Horretaz gain, irizpide osagarri gisa, ugaritasunarena erabili dugu. Horrela, ISLk ahalbidetzen duen neurrian, jatorrizko aldagaien ugaritasuna hobetsi dugu. Bi irizpide nagusi horietaz gain, adierazle sintetikoa osatuko duten adierazle bakunek aztertu dugun denbora-serie (ia) osorako datuak eskaini beharko dituzte. Horrela, 1991-2016 aldi osorako edo gutxienez 1996-2016 aldirako datuak izango dituzten adierazle bakunak hobetsiko ditugu, eta baztertu egingo ditugu denbora-tarte mugatuagorako informazioa duten adierazle bakunak.

Osaerarekin batera, **haztatze-irizpideak** ere erabaki behar dira, hots, osagai gisa aukeratuko dugun jatorrizko aldagai bakoitzari zenbateko pisua emango diogun sortzen ari garen adierazle sintetiko berrian. Adibidez, familiako erabilerari orokorra kalkulatzeko, zenbateko pisua emango diogu bikotekidearekiko jardunari eta zenbatekoa gurasoekikoari? Pisu bera emango al diegu bateko eta besteko erabilerari, edo rol-harreman batzuei garrantzi handiagoa emango diegu besteei baino? Zenbateko pisua bakoitzari? Galdera horiei erantzuteko bide erraz bat izan zitekeen ISLn erabilerari xeheari buruz ditugun adierazle guztiei pisu bera ematea<sup>207</sup>. Ezbaian jartzeko modukoa da, ordea, logika hori. Adibide xume batekin adierazita: egunero etxean ditugun harremanen hizkuntzari eta oso noizbehinka izaten dugun bankuetako interakzio laburren hizkuntzari pisu bera ematea ez dirudi, zinez, irtenbide egokia denik aurrez aurreko harremanetako erabilerari buruzko adierazle orokor sendo antzeko bat sortu nahi badugu behintzat.

Horrela, bada, gai korapilatsua dela jakinda ere, rol-harreman eta espazio bakoitzari *dagokion* pisua ematearen bidea hartuko dugu guk. Bide hori hartuta, lehengo galderak datozkigu berriro, honela laburbil ditzakegunak: zeren arabera erabaki osagai bakoitzari eman beharreko garrantzia? Zer-nolako irizpideak erabili osagai bakoitzaren pisua erabakitzeko? Irizpide hori finkatzeko bide sendoena eta, berez, egokiena oinarri teorikoa litzateke. Teoriaren alorra haztatze-irizpide gisa erabiltzeak, ordea, bi arazo ditu:

Batetik, egungo soziolinguistikaren eta demolinguistikaren garapen-mailarekin, ez dago unibertsaliki onartutako paradigmarik, ez dago kontsentsua eragiten duen oinarri teoriko bateraturik. Horrela, adibidez, eta marko teorikoan azaldu ditugun bi ikuspegiak berriro hona ekarrita, ezberdina litzateke oinarri teoriko gisa Fishman-Zalbideren ikuspegia hartzea edo “minorizazioaren soziolinguistikan” oinarritzea. Lehengo ikuspegiaren oinarrituz gero erabilerari buruzko adierazle sintetiko orokor bat sortzeko, familiako erabilerari, auzokoari, lagunartekoari eta bestelako hurbileko harremanei eman beharko genieke erabateko lehentasuna. Minorizazioaren soziolinguistikaren ikuspegiaren oinarrituz gero, berriz, *goi mailako* funtzioetan egiten den erabilerak (irakaskuntzan, administrazioan, hedabideetan, enpresa-munduan...) garrantzi handiagoa hartuko luke sortu beharreko balizko adierazle sintetiko orokor horretan.

---

<sup>207</sup> Modu horretan eraikitzen dute Katalunian ahozko erabileraren indizea, *índex d'ús de català parlat-IUP10* delakoa (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 30).

Hori horrela izanik, saiatu gara *tarteko* adierazle sintetikoak sortzen, ikuspegi teoriko horietarako baliagarriak izan daitezkeenak. Zehazki, “erabilera informalarren” adierazle sintetikoan Fishmanen ikuspegitik funtsezkoak izan daitezkeen hurbileko erabilerak uztartu ditugu. Nolanahi ere, maila orokorreko adierazleak sortu nahi ditugunean batik bat, ez dirudi lan egingarria denik gaur egun teoria ikuspegitik kontsentsua eragingo duten haztatze-irizpideak erabakitzea. Guk, behintzat, ez dugu horretarako biderik asmatu.

Adierazle sintetiko berrietan jatorrizko aldagaien haztatzea teorian oinarritzeak badakar, gainera, bigarren arazo bat ere: ikuspegi teorikoak landu dituzten autoreek ez dituzte normalean kopuruetara ekartzen euren ikuspegiak. Eta, ondorioz, autore horien interpretazioa eta euren esanak zenbakitara ekartzea adierazle-egilearen esku geldituko da, horrek ekar dezakeen akats erantsiarekin.

Teorian oinarritzearen bidea oraingoz labainkorra eta zaila izanik, adierazle sintetikoetarako jatorrizko aldagaien **haztatze-irizpide nagusi gisa denbora** hartzea izan daiteke beste bide bat<sup>208</sup>. Teoriarekin erabateko loturarik izan gabe ere, hautu sendoa, ulergarria eta zentzuz betea izan daiteke adierazle sintetikoak osatzeko osagai bakoitzari rol-harreman bakoitzarekin edo espazio bakoitzean igarotzen dugun denboraren araberrako pisua ematea. Oinarrizko irizpide horretara hurbiltzen ahalegindu gara gure proposamena lantzeko. Hots, hiztunek zenbat denbora igaro ohi duten rol-harreman edo egoera batzuetan eta besteetan, pertsona batekin eta bestearekin, jatorrizko aldagaiei horren araberrako pisua ematen saiatu gara adierazle sintetiko berrietan.

Denboraren banaketa irizpide nagusizat hartuta lan egitea ere ez da bide erraza. Aitzitik, proposatzen dugun bide honek **muga argiak eta zailtasun handiak** ditu, emaitzak irakurtzerakoan ahaztu ezingo ditugunak. Muga nagusia honako hau: beste alderdi askotan bezala, honetan ere badakigu hiztunen kasuistika izugarria dela, eta norbere denboraren banaketa (zertan eta norekin ematen dugun denbora gutako bakoitzak) aldatu egiten dela hiztunetik hiztunera, asko aldatu ere. Adibidez, hiztun batzuek familia-giroan igarotzen dute euren denboraren zati handi bat, beste batzuk ia ez dira egoten familian; familia barruko denborak aztertuta ere, pertsona batzuen familiako jardunaren zati nagusi bat bikotekidearekin gertatuko da, beste batzuen kasuan gurasoekin, eta abar. Askotariko errealitate hori aintzat hartzea eta hiztun bakoitzaren erabilera orokorra horren araberrako kalkulatzeko litzateke, berez, euskararen erabilera zehatz neurtzeko biderik zorrotzena. Baina ISLtik abiatuta guztiz ezinezkoa da jakitea laginetako hiztun bakoitza zenbateko maiztasunez elkartzen den familiako kide bakoitzarekin eta zeinekin hitz egiten duen gehiago eta zeinekin gutxiago.

Horregatik, besterik ezean, batez beste hiztunek orokorrean batzuekin eta besteekin dituzten harremanetan igarotzen duten denboran pentsatu beharko dugu haztatze-

---

<sup>208</sup> Denboraren irizpidearen garrantzia Mikel Zalbidetik aipatzen du erabileraren adierazle sintetiko batek nolakoa beharko lukeen argudiatzean (2016: 28). Paula Kasaresek ere denboraren aldagaiaren garrantzia aipatzen du funtsezkotzat zein alor jo beharko liratekeen erabakitzeko orduan (2011: 204):

Hiztunek bertze hiztunekiko hizkuntza maizen eta harremanik estuenetan erabiltzen duten esparruak dira euskararen erabilera ahalbidetu, erraztu eta gizarte-araua bilakatzeko premiarik handiena dutenak.

irizpideak finkatzeko garaian, eta elkarrizketatu guztiei denbora-proporzio berak aplikatu, horrek berekin dakarren akats ukaezina halabeharrez onartuta.

Bide horri ekiterakoan, zailtasun erantsi handi batekin egiten dugu topo. Hitzunen batez besteko ohituretan oinarrituta adierazle sintetiko bakoitzaren haztatze-irizpideak erabakitzea lan erraza izango zen, baldin eta hitzunek espazio eta harreman bakoitzean ematen duten denboraren banaketaren berri zehatz emango ligukeen iturririk izango bagenu. Horrela, demagun (adibide asmatua da), hitzunek amarekin hizketan asteen batez beste 40 minutu pasatzen badituzte eta bikotekidearekin, berriz, 2 ordu (120 minutu), bikotekideari amaren pisu hirukoitza emango genioke adierazle sintetiko berrian, irizpide argi horretan oinarrituta. Aztertu ditugun denboren aurrekontuen inkestetan (INE, 2011; EUSTAT, 2019), ordea, ez da guk beharko genukeen informazio xehe hori eskaintzen. Eta guk dakigula, gaur egun ez dago informazio hori eskaintzen duen bestelako iturri orokor sistematikorik<sup>209</sup>.

Hori dela eta, nagusiki gure sen onean oinarritu beharko dugu oraingoz haztatze-koefizienteak erabakitzeke. Koefiziente komunak erabiliko ditugu aztertu ditugun urte guztietarako, badakigun arren hitzunen denboraren erabilera soziala aldatu egin dela aztertu dugun epealdian. Aldaketa horiek kontuan hartzeak, ordea, izugarri konplikatu luke berez nahiko konplexua den lankeeta hau (aurrera begira landu daitezkeen alderdien zerrendarako gorde daiteke hori ere).

Laburtuz, bada, adierazle sintetikoak osatzerakoan, osagaien haztaketa denboran oinarritzen saiatuko gara, horretarako zentzua erabiltzen saiatuz eta garai guztietako elkarrizketatu guztiei denbora-banaketa estandar bat esleituz. Oraingoz, hortaz, nahi baino orokorragoak eta ez-objektibagarriak diren irizpideetan oinarritu beharko dugu HSE adierazle sintetikoak eraikitzeke prozesua. Horrek halabeharrez dakar sortuko ditugun adierazleetan akatsa izango dela onartzea. Horregatik guztiagatik, adierazle horiek sortzeko erabiliko dugun haztatzea (hobetzeko moduko) lehen hurbilpen gisa planteatzen dugu, adierazle horiek eraikitzeke irizpideei buruz azkeneko hitza emateko inolako asmorik gabe.

#### 11.4.1.6. Jatorrizko aldagaietan hutsuneak dauden urteetan zer egingo dugun adierazle sintetikoari begira

Adierazle sintetiko batzuetarako badugu serie osoa; hau da, 1991-2016 aldi osorako ditugu dagozkien jatorrizko aldagaiak eta adierazle bakunak. Beste adierazle sintetiko batzuetan, 1991. urtean hutsunea dugu: badugu erabilerari buruzko adierazle bakuna, baina ez sarearen euskalduntasunari buruzkoa. T.121. eta T.124. tauletan ikus daitezkeen bezala<sup>210</sup>, honako adierazle bakun hauetan dugu informazio-hutsunea 1991. urterako:

---

<sup>209</sup> Gaiaren inguruko hurbilpen interesgarria egiten du Eneko Oiartzabalek "Zenbat denbora bizi gara euskaraz?" artikuluan (2017).

<sup>210</sup> Testuan aipatuko ditugun adierazle bakunetan ez ezik, hutsuneak ditugu auzoei buruzko adierazle bakunetan ere 1991., 1996. eta 2001. urteetarako, eta administrazio publikoari buruzkoetan 1991, 1996, 2001 eta 2006rako (erabilerari buruzko adierazle bakuna eta harreman-sareari buruzkoa, biak falta dira). Hutsune horiek, hala ere, ez diete eragiten adierazle sintetikoari, definitu ditugun eran aldagai bakun horiek ez baitira aldagai sintetikoaren osagai.

- Neba-arreben arteko euskaldunaren %a (familiako bi adierazle sintetikori eragiten die hutsune horrek: familiaren harreman-sarearen euskalduntasunari eta familiako euskaldunekiko erabilerari).
- Joan ohi diren bankuko langile euskaldunen %a (merkataritza eta zerbitzu publikoetako bi adierazle sintetikori eragiten die hutsune horrek: merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasunari eta alor horretako euskaldunekiko erabilerari).
- Joan ohi diren osasun-zerbitzuetako langile euskaldunen %a (merkataritza eta zerbitzu publikoetako bi adierazle sintetikori eragiten die hutsune horrek: merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasunari eta alor horretako euskaldunekiko erabilerari).
- Joan ohi diren udal-zerbitzuetako langile euskaldunen %a (merkataritza eta zerbitzu publikoetako bi adierazle sintetikori eragiten die hutsune horrek: merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasunari eta alor horretako euskaldunekiko erabilerari).

Horiek horrela, informazioa aurkezteko garaian honako irizpide hauek erabiliko ditugu. Batetik, adierazle bakunak aurkezterakoan, berez dagoen informazioa aurkeztuko dugu, ez gehiago. Adibidez, neba-arreben erabilerari buruzko adierazle bakuna 1991. urtetik landuko dugu, baina neba-arreben sarearen euskalduntasunari buruzkoa eta neba-arreba euskaldunekiko erabilerari buruzkoa, 1996tik aurrera.

Bestetik, familiari buruzko eta merkataritza-zerbitzu publikoari buruzko adierazle sintetikoak aurkezterakoan seriea 1991n hastea bilatu dugu, eta datuetan dauden hutsuneak osatzen ahalegindu gara. Zehazki, familiako harreman-sarearen euskalduntasunaren eta euskaldunekiko erabileraren adierazle sintetikoak sortzeko, inkesta hurbilenetik (1996tik) hartu dugu zegokion informazioa, eta 1991n neba-arrebaren bat zeukaten elkarriketatu euskaldun guztiei balio finko bat esleitu diegu neba-arreben euskalduntasunari buruzko aldagaian, 1996ko batez bestekoa. Horrekin serie osoa lortu ahal izango dugu familiari buruzko adierazle sintetiko guztietan, alboratze handirik gabe.

Antzeko prozeduraren bat ibili nahi izan dugu merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasunaren eta euskaldunekiko erabileraren adierazle sintetikoetan. Kasu horretan, ordea, adierazle sintetikoaren osagai diren lau adierazle bakunetatik informazio-hutsunea hirutan izanik, balizko eragiketa baten errore-maila handiegia izango litzatekeela iritzita, ez dugu horrelako eragiketarik egin. Beraz, merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasunaren eta euskaldunekiko erabileraren adierazle sintetikoak 1996tik aurrera sortu ditugu.

#### 11.4.1.7. Euskaldunekiko erabilerari buruzko adierazle sintetikoen alboratzeaz

Euskaldunekiko erabilera aztertuko duten adierazle sintetikoak sortzeko, hiltunen egoera hauek hartu ditugu aintzat: bakarkako harremanetan (amarekin, aitarekin, bikotekidearekin, eta abar) mintzakidea euskalduna duten egoerak, eta taldekako

egoeretan, berriz (lankideen artean, lagunen artean, etxean denak elkarrekin daudenean...), taldeko kide guztiak euskaldunak diren egoerak. Hori dela eta, adierazle bakunen puntuazio genioen bezala, euskaldunen dentsitate handiko egoerak gain-ordezkatuak egon daitezkeela pentsa daiteke. Eta ondorioz, alboratuak egon daitezke emaitzak, eta euskaldunekiko erabilera-tasak berez izango diren baino handiagoak ager daitezke. Aurrera begira, garrantzitsua izan daiteke alboratze-faktore hori saihesteko bitartekoak bilatzea. Bitartean, ohar hau aintzat hartu beharko da datuak irakurtzerakoan.

#### **11.4.2. Familiari buruzko adierazle sintetikoaren osaera eta HSEren haztatze-irizpideak (erabileraren adibidearekin azalduta)**

Oharra: azalpen hauek honako hiru adierazle hauetarako balio dute (azalpenak erabilerari buruzko adierazlea soilik aipatuz egingo ditugun arren):

- **ISL-401: Familiako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %)**
- **ISL-411: Familiako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoa, %)**
- **ISL-421: Euskaldunekiko erabilera-tasa familiako harremanetan (adierazle sintetikoa, %)**

**ISL-401: Familiako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %) adierazlearen osaera (zer-nolako adierazle bakunekin eta zeharka zer-nolako jatorrizko aldagaiekin elikatuko den).** Honako hauek dira ISLn familiako erabilerari buruz jarraitutasunez (1991tik 2016ra etenik gabe<sup>211</sup>) txertatu izan diren galderetan oinarrituta sortu ditugun adierazle bakunak:

- *ISL-101: Euskararen erabilera-tasa amarekin (%)*
- *ISL-102: Euskararen erabilera-tasa aitarekin (%)*
- *ISL-103: Euskararen erabilera-tasa bikotekidearekin (%)*
- *ISL-104: Euskararen erabilera-tasa neba-arrebekin (%)*
- *ISL-105: Euskararen erabilera-tasa seme-alabekin (%)*
- *ISL-106: Euskararen erabilera-tasa etxean elkarrekin (%)*

Adierazle bakun horiek guztiak hartuko ditugu aintzat familiako erabileraren adierazle sintetikoa sortzeko.

**Haztatze-irizpideak (adierazle sintetikoan zenbateko pisua emango zaion adierazle bakun bakoitzari).** Familiako HSE adierazle sintetikoak sortzeko, jarraian azaltzen diren irizpideak erabiliko ditugu haztatze-eragiketa egiteko (ikus T.129. taula eta I.39. irudia). Ikus daitekeen bezala, aztertu ditugun rol-harreman guztiak dituzten kideentzat, hiztunak hiru multzo nagusi hauetan egiten duen erabilera-tasaren batez bestekoa izango da familiako erabilera (adierazle sintetiko berria):

---

<sup>211</sup> Salbuespen bakarra: 1991. urterako ez dugu neba-arreben euskalduntasunari eta euskaldunekiko erabilerari buruzko adierazle bakunik. Bi adierazle sintetikoak osatzeko garaian, dagozkien adierazle bakunen 1996ko balio bera erabiliko dugu 1991rako.

- Etxeko erabilera (etxean bizi diren kide guztiak elkarrekin daudenean erabiltzen duten hizkuntza)
- Familiako rol-harreman horizontaletako erabilera (bikotekidearekin eta neba-arrebekin)
- Familiako rol-harreman bertikaletako erabilera (gurasoekin eta seme-alabekin)

Era berean, harreman horizontaletan, bikotekidearekiko harremanari anai-arrebekikoak duen pisuaren bikoitza emango diogu, eta harreman bertikaletan, seme-alabekikoari ere bi aldiz handiagoa gurasoekikoari baino. Gurasoen kasuan, pisu bera eman diegu amarekiko erabilerari eta aitarekikoari.


Irizpide horiek guztiak kontuan hartuta, rol-harreman guztiak dituzten hiltunen **familiako erabilera-tasa** adierazle sintetikoa T.129. taulako azken zutabeko ehunekoen arabera kalkulatu dugu, jatorrizko adierazle bakunak haztatze-koefiziente horien arabera biderkatuz eta guztien batura eginda.

**T.129. TAULA: 'FAMILIAKO ERABILERA' ADIERAZLE SINTETIKOA SORTZEKO ERABILI DITUGUN HAZTATZE-IRIZPIDEAK**

	Hiru multzo	Multzoen barruko banaketa	Proporzioa guztiarekiko	Berdin	Ehunekotara ekarrita (%)
<b>Etxean bizi direnak elkarrekin daudenean</b>	1/3		1/3	6/18	33,33
<b>Famili-harreman horizontalak</b>	1/3				
Bikotea		2/3	2/9	4/18	22,22
Anai-arrebak		1/3	1/9	2/18	11,11
<b>Famili-harreman bertikalak</b>	1/3				
Seme-alabak		2/3	2/9	4/18	22,22
Gurasoak		1/3			
Ama			1/18	1/18	5,56
Aita			1/18	1/18	5,56

Iturria: egileak landua.

I.39. IRUDIA: 'FAMILIAKO ERABILERA' ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA



Iturria: egileak landua.

Hona hemen hiztun bakoitzaren familiako erabilerearen adierazle sintetiko kalkulatzeko formula:

$$FSintetiko = \left(\frac{6}{18} * Etxekoa\right) + \left(\frac{4}{18} * Bikotekidea\right) + \left(\frac{2}{18} * Neba-arrebak\right) + \left(\frac{4}{18} * Seme-alabak\right) + \left(\frac{1}{18} * Ama\right) + \left(\frac{1}{18} * Aita\right)$$

*FSintetiko* = Familiako erabilera (%)

*Etxekoa* = Etxekoekin erabilera, denak elkarrekin daudenean (%)

*Bikotekidea* = Bikotekidearekin erabilera (%)

*Neba-arrebak* = Neba-arrebekin erabilera (%)

*Seme-alabak* = Seme-alabekin erabilera (%)

*Ama* = Amarekin erabilera (%)

*Aita* = Aitarekin erabilera (%)

**Adierazle sintetiko honen mugak (datuak interpretatzerakoan kontuan izan beharko ditugunak).** Adierazle sintetiko honetatik kanpo gelditzen dira familiako harreman ugari: aitona-amonekikoak, osaba-izebekikoak, lehengusu-lehengusinekikoak, koinatu-koinatekikoak, eta abar. Horregatik, guk sortu dugun familiaren adierazle sintetiko "gertuko familiari" buruzkoa dela argi izan beharko dugu datuak irakurtzerakoan<sup>212</sup>.

<sup>212</sup> Zalantzarik gabe, familiako alor zabalagoak ere aintzat hartuko bagenitu, muturreko balioak gutxitu egingo lirateke emaitzetan: familia guztiz euskalduna edo guztiz erdalduna dutenen kopuruak, familiarekin beti euskaraz edo beti erdaraz aritzen direnen kopuruak, eta abar.



T.130. taulan ikus daitezke familiari buruzko adierazle bakun zein sintetikoak datuak.

**T.130. TAULA: FAMILIAKO HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA, ERABILERA ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTEK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera %
<b><u>Harreman-Sareen euskalduntasuna (%):</u></b>								
Etxekoen artean - norbera kontatu gabe-	85,3	78,2	67,8	71,8	68,7	69,5	-15,8	-18,6
Bikotekidea euskalduna ote den	72,8	71,6	64,7	67,0	65,7	67,5	-5,3	-7,2
Neba- arriben artean	90,4	90,4	87,3	87,8	85,9	86,0	-4,4	-4,9
Ama euskalduna ote den	81,2	72,4	59,3	61,4	52,4	50,8	-30,3	-37,4
Aita euskalduna ote den	76,1	64,9	52,5	56,7	46,9	45,4	-30,7	-40,3
Seme- alaben artean	78,4	89,0	88,8	91,7	93,8	92,8	14,3	18,3
<b>Familian (ISL- 411; B sintetikoa)</b>	<b>80,8</b>	<b>79,4</b>	<b>72,6</b>	<b>75,5</b>	<b>73,4</b>	<b>73,7</b>	<b>-7,1</b>	<b>-8,8</b>
<b><u>Erabilera (%):</u></b>								
Etxekoekin	61,3	56,2	46,9	51,3	46,7	47,6	-13,8	-22,4
Bikotekidearekin	56,5	55,5	46,7	51,9	46,2	47,6	-9,0	-15,9
Neba- arrebekin	64,2	64,3	55,5	59,9	57,3	54,8	-9,5	-14,8
Amarekin	64,6	59,0	45,3	50,5	41,8	37,8	-26,7	-41,4
Aitarekin	61,2	54,7	42,6	47,5	38,5	36,1	-25,1	-41,0
Seme- alabekin	66,9	73,6	68,9	74,8	75,6	73,1	6,2	9,3
<b>Familian (ISL- 401; B sintetikoa)</b>	<b>62,0</b>	<b>60,9</b>	<b>52,4</b>	<b>57,4</b>	<b>53,5</b>	<b>52,9</b>	<b>-9,1</b>	<b>-14,7</b>
<b><u>Euskaldunekiko erabilera (%):</u></b>								
Etxekoekin	79,9	77,2	76,5	79,9	76,0	75,3	-4,6	-5,8
Bikotekidearekin	76,3	76,5	70,5	75,6	69,4	68,9	-7,4	-9,7
Neba- arrebekin	72,0	72,0	65,3	69,7	67,8	64,8	-7,3	-10,1
Amarekin	79,3	81,2	75,9	81,4	79,2	73,1	-6,2	-7,8
Aitarekin	79,9	83,5	80,4	83,0	81,5	77,7	-2,2	-2,7
Seme- alabekin	84,5	83,1	78,9	81,5	80,8	78,9	-5,6	-6,6
<b>Familian (ISL- 421; B sintetikoa)</b>	<b>79,2</b>	<b>78,3</b>	<b>74,7</b>	<b>78,4</b>	<b>75,2</b>	<b>73,5</b>	<b>-5,7</b>	<b>-7,2</b>
Euskaldunak (kop.)	528.521	591.423	633.935	665.750	714.135	751.527		

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: 1991ko datuetan etxeko euskaldunen artean norbera (elkarrizketatua) ere kontatzen da, 1996tik aurrerakoetan, berriz, ez.

### 11.4.3. Harreman informaletako adierazle sintetikoen osaera eta haztatze-irizpideak (erabileraren adibidea)

Oharra: azalpen hauek honako hiru adierazle hauetarako balio dute (azalpenak erabilerari buruzko adierazlea soilik aipatuz egingo ditugun arren):

- **ISL-402: Harreman informaletako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %)**
- **ISL-412: Harreman informaletako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoa, %)**
- **ISL-422: Euskaldunekiko erabilera-tasa harreman informaletan (adierazle sintetikoa, %)**

**ISL-402: Harreman informaletako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %)** adierazlearen osaerarekin hasi aurretik, hona hainbat ohar adierazlearen izendapenaren eta edukiaren inguruan. Berez, informaltasunaren ezaugarria, harreman bati baino gehiago, jarduera bati, testuinguru bati, egoera jakin bati edo elkarrizketa zehatz bati lotu ahal zaio, *estilo* bati Zalbideren hitzetan (2016: 35). Pertsona edo pertsona multzo berarekin egoera formalagoak edo informagoak bizi ditzakegu une eta testuinguru ezberdinetan. ISLn, ordea, ez da galdetzen egoera eta elkarrizketa zehaztutako erabilera-ohiturei buruz, pertsona edo pertsona multzo jakin batekin (bikotekidearekin, lagunekin, lankideekin...) egiten den erabilerari buruz baizik.

Horiek horrela, zorrotz jokatuta, ISLtik abiatuta ezin dugu hitz egin erabilera informalarri buruz edo egoera-testuinguru informaletako erabilerari buruz, ez baitugu horri buruzko informazio zuzenik. Hurbilpen bat egin dezakegu, ordea, tankera horretako egoeretako erabilerara, ISLn badira-eta galderak rol-harreman eta espazio jakinetako erabilerari buruz. Horixe egingo dugu, hain zuzen, adierazle honekin. Izan ere, ISLn hainbat harremanetako erabileraz galdetzen da, eta harreman horietako batzuetan pentsa daiteke nagusiki egoera, jarduera eta elkarrizketa molde informalak nagusituko direla. Harreman bakoitzari ustez lotzen zaion informaltasunaren gainean eraikiko dugu, hortaz, gure adierazlea. Zorroztasunaren alde, hala ere, argi izan dezagun “harreman informaletako erabileraz” arituko garenean nagusiki egoera eta elkarrizketa informalak sorraraziko dituzten harreman multzoez ariko garela berez. Adierazlearen edukiari jaramon eginez, “nagusiki testuinguru eta egoera informaletan egin ohi diren harremanetako erabilera” izendatu genezake adierazle hau. Baina, laburtasunaren alde, “harreman informaletako erabilera” esango diogu, eta landuko ditugun harremanei, “harreman informalak”.

**Adierazle sintetikoaren osaera (zer-nolako adierazleekin eta zeharka zer-nolako jatorrizko aldagaiekin elikatuko den).** ISLn oinarrituta landu ditugun honako adierazle hauek eman ahal digute informazio baliagarria harreman informaletako erabilerara hurbilpen bat egiteko:

- *ISL-401: Familiako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %), 1991-2016 (Familia)*
- *ISL-107: Euskararen erabilera-tasa lagunekin (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (Lagunak)*

- *ISL-108: Euskararen erabilera-tasa lankideekin (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (Lankideak)*
- *ISL-113: Euskararen erabilera-tasa auzokoekin (%) adierazle bakuna, 2006-2016 (Auzoko)*
- *ISL-115: Euskararen erabilera-tasa sare sozialetan (%) adierazle bakuna, 2011-2016 (Sareak)*

Goiko zerrendatik, multzo informalean sartu ditzakegu, zalantza handirik gabe, familiako erabilerari buruzko adierazleak eta lagunekin egiten dena. Horretaz gain, erabilera informalaren barruan sar ditzakegu, oro har, auzokideekin ditugun harremanak eta baita ere, hein batean bederen, lankideekin ditugunak eta sare sozialetako jarduera. Auzokideekiko harremanari buruzko informazioa, ordea, 2006tik aurrera bakarrik dugu (lehenago ez zen horri buruz galdetu ISLn) eta sare sozialei buruzkoa 2011tik aurrera. Horregatik, ez ditugu bi adierazle bakun horiek kontuan hartuko harreman informalean adierazle sintetikorako, oztopatu egingo ligukete-eta bilakaera luzeetarako serie homogenoak sortzea.

Lankideei dagokienez, haiekin zein hizkuntzatan aritzen den galdetzen zaio inkestuari ISLn, lankideekiko harreman hori egoera formal batean (lan-bilera batean adibidez) edo egoera informal batean (hamaiketako egiteko orduan, adibidez) gertatzen den bereizi gabe. ISLk lankideekiko erabilerari buruz jasotzen duen datuan, hortaz, egoera formalak eta informalak batera biltzen dira. Ondorioz, ezin esan “erabilera lankideekin” izeneko aldagaia bete-betean egoera informaletako adierazle denik. Horregatik, lankideekiko hizkuntzaren datua ere ez dugu erabiliko egoera informaletako erabilera aztertzea helburu duen adierazle sintetiko honen osagai gisa.


Horrela, bada, familiako erabilera-tasa sintetikoa (aurreko puntuan azaldu dugun hori bera) eta lagunekiko erabilera-tasaren adierazle bakuna uztartuz sortuko dugu harreman informaletako erabileraren adierazle sintetikoa.

**Haztatze-irizpideak (adierazle sintetikoan zenbateko pisua emango zaion jatorrizko adierazle bakoitzari).** Zenbateko pisua eman familiari eta lagunei adierazle sintetiko berria sortzeko garaian? Ederki dakigu hainbat hiztunen kasuan familiak askoz pisu handiagoa duela bere bizitzan lagunek baino, eta, aldiz, badirela lagunekin harreman estuagoa eta sarriagoa duten hiztunak ere familiarekin baino. Oro har, hala ere, uste dugu jendeak denbora gehiago egiten duela familiako kideekin lagunekin baino<sup>213</sup>. Horiek horrela, familiako harremanei bi aldiz pisu handiagoa eman diegu lagunarteko harremanei baino, I.40. irudian ikus daitekeen bezala:

---

<sup>213</sup> Familiarekin edo lagunekin, denbora gehiago norekin igarotzen dugun argitzeko datu zuzenik ez dugu aurkitu denboren inkestetan (INE, 2011; EUSTAT, 2019). Etorkizunean gaiari buruzko datu zehatzagoak argitaratuko balira, litekeena da haztatze-irizpide hori egokitu beharra izatea. Ohar honek adierazle sintetiko guztietarako balio du.

I.40. IRUDIA: EGOERA INFORMALETAKO ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA



Iturria: egileak landua.

Hona hemen, hiztun bakoitzak inguru informaletan egiten duen erabileraren adierazle sintetikoa kalkulatzeko formula:

$$\square \quad I_{\text{Sintetikoa}} = \left(\frac{2}{3} * \text{Familia}\right) + \left(\frac{1}{3} * \text{Lagunak}\right)$$

*I Sintetikoa* = egoera informaletako erabilera (%)

*Familia* = Familiako erabilera -F adierazle sintetikoa- (%)

*Lagunak* = Lagunekin erabilera (%)

**Adierazle sintetiko honen mugak (datuak interpretatzerakoan kontuan izan beharko ditugunak).** Familiako erabileraren adierazle sintetikoak zituen hutsunez gain, aipatu beharra dago familiaz eta lagunez gain hiztunek izaten dituzten gainerako harreman informalei buruzko informaziorik ez dela biltzen adierazle sintetiko honetan. Adierazle honetatik kanpo gelditu dira, horrela, lankideekiko harreman informalak, auzokideekikoak, norberak parte hartzen duen elkarteetako gainerako kideekikoak, sare sozialetakoak, eta abar. Argitu dezagun, halaber, egoera/elkarrizketa informaletako erabilera ez ezik, senide eta lagunekin eduki ditzakegun egoera formalagoei dagokiena eta egoera intimoetako ere adierazle honen barruan sartuko direla.

T.131. taulan ikus daitezke harreman informalei buruzko adierazle bakun eta sintetikoaren datuak.

T.131. **TAULA: ALOR INFORMALEKO HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA, ERABILERA ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera %
<b><u>Harreman- Sareen euskalduntasuna (%):</u></b>								
Familian (ISL- 411; B sintetikoa)	80,8	79,4	72,6	75,5	73,4	73,7	- 7,1	- 8,8
Lagunen artean	72,0	72,5	70,7	70,6	74,8	75,9	3,9	5,4
Auzokoen artean				56,0	57,1	56,5		
<b>Harreman- sare informaletan (ISL- 412; B sintetikoa)</b>	<b>77,9</b>	<b>77,1</b>	<b>72,0</b>	<b>73,9</b>	<b>73,9</b>	<b>74,4</b>	<b>- 3,5</b>	<b>- 4,4</b>
<b><u>Erabilera (%):</u></b>								
Familian (ISL- 401; B sintetikoa)	62,0	60,9	52,4	57,4	53,5	52,9	- 9,1	- 14,7
Lagunekin	55,9	58,6	52,6	56,6	56,1	53,6	- 2,3	- 4,1
Auzokoekin				49,7	48,8	45,6		
Euskaldunen erabilera sare sozialetan (%)					34,7	35,3		
<b>Harreman informalekin (ISL- 402; B sintetikoa)</b>	<b>60,0</b>	<b>60,1</b>	<b>52,4</b>	<b>57,1</b>	<b>54,3</b>	<b>53,1</b>	<b>- 6,9</b>	<b>- 11,4</b>
<b><u>Euskaldunekiko erabilera (%):</u></b>								
Familian (ISL- 421; B sintetikoa)	79,2	78,3	74,7	78,4	75,2	73,5	- 5,7	- 7,2
Lagunekin	80,7	81,6	77,3	79,5	74,8	69,3	- 11,4	- 14,1
Auzokoekin				92,1	87,7	85,0		
<b>Harreman informalekin (ISL- 422; B sintetikoa)</b>	<b>79,7</b>	<b>79,4</b>	<b>75,5</b>	<b>78,8</b>	<b>75,0</b>	<b>72,1</b>	<b>- 7,6</b>	<b>- 9,5</b>
Euskaldunak (kop.)	528.521	591.423	633.935	665.750	714.135	751.527		

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

#### 11.4.4. Egoera formaletako erabileraren erakusle, merkataritzako eta zerbitzu publikoetako adierazle sintetikoen osaera eta haztatze-irizpideak (erabileraren adibidea)

Oharra: azalpen hauek honako hiru adierazle hauetarako balio dute (azalpenak erabilerari buruzko adierazlea soilik aipatuz egingo ditugun arren):

- **ISL-403: Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %) (harreman formaletako erabileraren zeharkako adierazlea)**
- **ISL-413: Merkataritza eta zerbitzu publikoetako harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoa, %) (harreman-sare formalaren euskalduntasunari buruzko zeharkako adierazlea)**

- **ISL-423: Euskaldunekiko erabilera-tasa merkataritzan eta zerbitzu publikoetan (adierazle sintetikoak, %)**

**ISL-403: Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabilera-tasa** adierazle sintetikoaren osaera ikusten has gaituzen (zer-nolako adierazle bakunekin eta zeharka zer-nolako jatorrizko aldagaiekin elikatuko den). Egoera formalekin<sup>214</sup> zerikusia duten sei adierazle bakun landu ditugu ISLtik abiatuta (parentesi artean jarri dugu formulazioan aldagai horri guk emango diogun izen laburtua):

- *ISL-108: Euskararen erabilera-tasa lankideekin (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (Lankideak)*
- *ISL-109: Euskararen erabilera-tasa saltzaileekin<sup>215</sup> (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (Saltzaile)*
- *ISL-110: Euskararen erabilera-tasa bankuan (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (Banku)*
- *ISL-111: Euskararen erabilera-tasa osasun-zerbitzuetan (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (OsasunZ)*
- *ISL-112: Euskararen erabilera-tasa udal-zerbitzuetan<sup>216</sup> (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (UdalZ)*
- *ISL-114: Euskararen erabilera-tasa administrazio publikoan<sup>217</sup> (%) adierazle bakuna, 2011-2016 (Admin)*

Zalantzarik gabe, goiko adierazle bakun horien artean, garrantzi berezia du lankideekiko harremanak, hiltunen zati handi batek lanean pasatzen dugun denboragatik (INE, 2011; EUSTAT, 2019). Lankideekiko harreman guztiak, ordea, ez daitezke “harreman formal” gisa izendatu. Lankideekiko harremanak egoera batzuetan formalak izango dira (lan-bilerak batean, adibidez) eta beste batzuetan informalak (kafea hartzeko garaian, adibidez). Horiek horrela, egoera formaletako erabilera laburbilduko duen adierazle bat sortzea izanik gure helburua, lankideekiko harremanari buruzko informazioa ez dugu bilduko adierazle honetara. Hori dela eta, praktikan, merkataritzarekin eta zerbitzu publikoekin zerikusia duten adierazleez bakarrik baliatuko gara.

Merkataritza eta zerbitzu publikoen laburpen-ikuspegia lantzeko, zehazki, goiko zerrendako lau adierazle uztartuko ditugu: ohiko saltzaileei buruzkoa, bankuari buruzkoa, osasun-zerbitzuei buruzkoa eta udal-zerbitzuei buruzkoa. Azken adierazlea, aldiz, Administrazio Publikoekiko erabilerari buruzkoa, ez dugu kontuan hartuko, ISLn horri buruzko informazioa 2011n hasi baitzen biltzen, eta adierazle bakun hori

---

<sup>214</sup> Aurreko puntuan egoera eta harreman informalei buruz esandakoek ere berdin-berdin balio dute egoera eta harreman formaletarako. Ez ditugu berriz errepikatuko.

<sup>215</sup> Ohiko erosketak (ogia, esnea, fruta, egunkaria...) egiten dituzten dendetako saltzaileekin.


<sup>216</sup> Udal-zerbitzuetako langileekin: udaletxea, gizarte-zerbitzuak, kirol-instalazioak, kultur etxea...

<sup>217</sup> Administrazio Publikoetako langileekin: diputazio eta Jaurlaritzakoekin EAEn, Nafarroako Gobernuarekin Nafarroa Garaian, eta CAF, CPAM eta zergetako langileekin Ipar Euskal Herrian.

adierazle sintetiko berrira biltzeak homogenotasun-arazoak sortuko lizkiguke seriea osatzeko.

**Haztatze-irizpideak (adierazle sintetikoan zenbateko pisua emango zaion jatorrizko aldagai bakoitzari, ikus I.41. irudia).** Aukeratu ditugun lau aldagaien barruan, adierazle sintetikoari dagokion pisuaren erdia eman diegu eguneroko saltzaileei, horiek gainerako hirurak baino nabarmen aruntagoak eta egunerokoagoak baitira herritar gehienentzat. Gainerako hirurek batuta hartuko dute adierazle berriaren beste erdia, hirurei pisu berbera emanda.

**I.41. IRUDIA: MERKATARITZAKO ETA ZERBITZU PUBLIKOETAKO ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA**



Iturria: egileak landua.

**Hona hemen hiztun bakoitzak merkataritza alorrean eta zerbitzu publikoetan egiten duen erabileraren adierazle sintetikoa kalkulatzeko formula:**

$$MZPSintetikoa = \left(\frac{1}{2} * Saltzaile\right) + \left(\frac{1}{6} * Banku\right) + \left(\frac{1}{6} * OsasunZ\right) + \left(\frac{1}{6} * UdalZ\right).$$

*MZP Sintetikoa* = Merkataritzako eta zerbitzu publikoetako erabilera (%)

*Saltzaile* = Saltzaileekin erabilera (%)

*Banku* = Bankuetakoekin erabilera (%)

*OsasunZ* = Osasun-zerbitzuetakoekin erabilera (%)

*UdalZ* = Udal-zerbitzuetakoekin erabilera (%)

**Adierazle sintetiko honen mugak (datuak interpretatzerakoan kontuan izan beharko ditugunak).**

Adierazle sintetiko berri honek, hein batean, alor formaletako erabileraren berri emango digu. Baina argi izan behar dugu adierazle honek ez dituela ondo ordezkutzen

harreman formal guztiak, ezta harreman formal nagusiak ere. Bereziki aipagarria da adierazle honetan ez direla bilduko hitzunik euren lantokian (eta euren ikastetxeetan ikasleen kasuan) dituzten harreman formalak. Izan ere, lehenago aipatu bezala, ISLn jasotzen den informazioak lankideekiko harremanak bere osotasunean jasotzen ditu, harreman eta une formalagoak eta informalagoak bereizi gabe.

Horretaz gain, adierazle honek ez du biltzen saltoki handiagoetan egiten diren harremanei buruzko informaziorik, ezta udalez gaineko administrazioekin egiten direnei buruzkorik ere.

T.132. taulan ikus daitezke harreman formalei buruzko adierazleen datuak.



T.132. TAULA: ALOR FORMALEKO HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA, ERABILERA ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991- 2016 aldea	Bilakaera %
<b><u>Harreman- Sareen euskalduntasuna (%):</u></b>								
Saltzaileen artean	58,6	57,3	55,4	54,7	59,9	58,5	0,0	0,0
Bankukoen artean		63,9	67,9	64,2	69,6	66,5	2,7	4,2
Osasun zerbitzuko artean		42,7	49,8	52,6	66,4	67,7	24,9	58,3
Udal zerbitzuetako artean		71,0	75,7	69,3	79,9	81,4	10,4	14,7
Lankideen artean	61,0	62,5	59,7	61,8	67,3	66,8	5,9	9,6
Administrazio Publiko artean					71,9	75,5		
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (ISL- 413; B sintetikoa)</b>		<b>58,2</b>	<b>59,9</b>	<b>58,4</b>	<b>65,9</b>	<b>65,2</b>	<b>7,0</b>	<b>12,0</b>
<b><u>Erabilera (%):</u></b>								
Saltzaileekin	50,7	51,7	48,5	50,9	50,8	50,8	0,1	0,3
Bankukoekin	49,8	56,7	57,2	57,5	54,2	52,5	2,7	5,5
Osasun zerbitzukoekin	28,0	37,6	39,9	45,1	49,8	50,9	22,9	81,6
Udal zerbitzuetakoekin	53,9	61,0	62,6	61,3	63,0	65,8	11,9	22,0
Lankideekin	49,6	53,0	48,2	56,5	56,6	55,2	5,6	11,3
Administrazio Publikoekin					56,1	57,8		
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (ISL- 403; B sintetikoa)</b>	<b>47,3</b>	<b>51,8</b>	<b>50,8</b>	<b>52,8</b>	<b>53,2</b>	<b>53,6</b>	<b>6,3</b>	<b>13,4</b>
<b><u>Euskaldunekiko erabilera (%):</u></b>								
Saltzaileekin	88,9	89,2	91,4	95,8	86,6	89,7	0,8	0,9
Bankukoekin		89,0	88,6	91,6	81,6	83,7	-5,3	-5,9
Osasun zerbitzukoekin		80,8	83,1	88,0	77,7	80,9	0,1	0,2
Udal zerbitzuetakoekin		86,2	87,1	91,1	82,7	84,9	-1,3	-1,5
Lankideekin	84,9	84,6	86,3	92,6	86,8	84,2	-0,6	-0,7
Administrazio Publikoekin					79,7	80,1		
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (ISL- 423; B sintetikoa)</b>		<b>87,3</b>	<b>88,9</b>	<b>93,0</b>	<b>83,6</b>	<b>86,4</b>	<b>-0,8</b>	<b>-0,9</b>
Euskaldunak (kop.)	528.521	591.423	633.935	665.750	714.135	751.527		

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

#### 11.4.5. Aurrez aurreko harremanen adierazle sintetikoaren osaera eta haztatze-irizpideak (erabileraren adibidea)

Oharra: azalpen hauek honako hiru adierazle hauetarako balio dute (azalpenak erabilerari buruzko adierazlea soilik aipatuz egingo ditugun arren):

- **ISL-404: Aurrez aurreko harremanetako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %)**
- **ISL-414: Aurrez aurreko harreman-sarearen euskalduntasun-tasa (adierazle sintetikoa, %)**
- **ISL-424: Euskaldunekiko erabilera-tasa aurrez aurreko harremanetan (adierazle sintetikoa, %)**

**ISL-404: Aurrez aurreko harremanetako erabilera-tasa** adierazle sintetikoaren osaera (zer-nolako adierazleekin eta zeharka zer-nolako jatorrizko aldagaiekin elikatuko den). ISLtik sortu ditugun adierazle bakun eta sintetiko ia denek aurrez aurreko harremanen berri ematen digute, hala nola:

- *ISL-401: Familiako erabilera-tasa (adierazle sintetikoa, %), 1991-2016 (Familia)*
- *ISL-403: Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabilera-tasa adierazle sintetikoa 1991-2016 (MZP)*
- *ISL-107: Euskararen erabilera-tasa lagunekin (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (Lagunak)*
- *ISL-108: Euskararen erabilera-tasa lankideekin (%) adierazle bakuna, 1991-2016 (Lankideak)*
- *ISL-113: Euskararen erabilera-tasa auzokoekin (%) adierazle bakuna, 2006-2016 (Auzoko)*
- *ISL-114: Euskararen erabilera-tasa administrazio publikoan<sup>218</sup> (%) adierazle bakuna, 2011-2016 (Admin)*

Aurrez aurreko harremanen adierazle sintetikoa elikatzeko, honako hauek hartuko ditugu kontuan: familiari buruzkoak, lagunei buruzkoak, lankideei buruzkoak eta merkataritza eta zerbitzu publikoei buruzkoak. Beste bi aldagaiak, berriz (auzokideekiko erabilera eta udalez goragoko administrazio publikoarekikoa), ez ditugu kontuan hartuko, ISLko lehen inkestetan galdetu ez zenez, galarazi egingo ligukeen denbora-serie homogeneoa egitea.


**Haztatze-irizpideak (adierazle sintetikoan zenbateko pisua emango zaion jatorrizko aldagai bakoitzari).** Erabiliko ditugun haztatze-irizpideak I.42. irudian (modu laburtuan) eta I.43. irudian (modu xehean) azaltzen dira. Lau eremu nagusi hartu ditugu kontuan: familia, lagunartea, lankideak eta merkataritza-zerbitzu publikoak. Harreman informaletako erabileraren adierazle sintetikoarekin koherentzian, familiako erabilerari lagunartekoaren pisu bikoitza emango diogu (%40koa familiakoari

---

<sup>218</sup> Administrazio publikoetako langileekin: diputazio eta Jaurlaritzakoekin EAEn, Nafarroako Gobernuarekin Nafarroa Garaian, eta CAF, CPAM eta zergetako langileekin Ipar Euskal Herrian.


eta %20koa lagunekikoari). Lankideekiko harremani ere pisu handia eman diegu (%30koa), oro har lanean ari den jendeak denboraren zati handi bat lanean pasatzen duelako eta lan-jardun askotan (ez guztietan) hitzezko jarduerak pisu handia duelako. Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabilerari, azkenik, hiltunen bizitzan gainerako eremuek baino pisu dezente txikiagoa dutela iritzita, %10eko pisua eman diogu.

**I.42. IRUDIA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA (LABURTUA)**



Iturria: egileak landua.

I.43. IRUDIA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERARI BURUZKO ADIERAZLE SINTETIKOAREN OSAERA (XEHEA)



Iturria: egileak landua.

**Hona hemen hiztun bakoitzak aurrez aurre izaten dituen harremanetan egiten duen erabileraren adierazle sintetikoa kalkulatzeko formula:**

$$AAH \text{ Sintetikoa} = \left(\frac{4}{10} * Familia\right) + \left(\frac{2}{10} * Lagunak\right) + \left(\frac{3}{10} * Lankideak\right) + \left(\frac{1}{10} * MZP\right)$$

***AAH Sintetikoa* = Aurrez aurreko harremanetan erabilera (%)**

*Familia* = Familiako erabilera -adierazle sintetikoa- (%)

*Lagunak* = Lagunekin erabilera (%)

*Lankideak* = Lankideekin erabilera (%)

*MZP* = Merkataritzako eta zerbitzu publikoetako erabilera -adierazle sintetikoa- (%)

**Adierazle sintetiko honen mugak (datuak interpretatzerakoan kontuan izan beharko ditugunak).** Familiako erabileraren eta MZP erabileraren adierazle sintetikoek zituzten hutsunez gain, aldagai honetan ez da txertatzen auzokideekiko harremanari buruzko aldagaia (horrek denbora-serie luzea egitea galaraziko luke). Horretaz gain, bada aipatzeko moduko beste hutsune esanguratsu bat ere: ikasleek ikastetxean egiten duten jarduna (bai ikasgelan eta baita ikasgelatik kanpo ere). Hala ere, uste dugu adierazle hau ondo hornitua dagoela, eta nahiko sendoa dela aurrez aurreko harremanen berri emateko.

Hauxe da, gainera, guk landuko ditugun adierazle sintetikoen arteko "orokorra". ISLtik abiatuta, gehien hurbiltzen dena balizko euskararen erabilera orokorra zenbatekoa izan daitekeen laburtzera. Ez dezagun ahaztu, ordea, badela "orokortasun" horretatik urruntzen gaituen hainbat hutsune. Adierazle honetan EZ dira sartzen garrantzitsuak diren zenbait eremu, hala nola irakaskuntza-mailako erabilera edo hedabideen kontsumoa, kultur kontsumoa, Internet eta sare sozialetako erabilera eta aisialdiko gainerako jardueretako erabilera. ISLko informazioaz gain, beste iturri batzuetako informazioa ere erabilita, etorkizunerako aztergai interesgarria izan daiteke adierazle sintetiko orokorrako bat sortzeko aukerak aztertzea. Lan honen mugak gainditzen ditu ordea.

Argi utzi dezagun, bestalde, aplikatu ditugun haztatze-irizpideak, hots, adierazle sintetiko berrian jatorrizko eremu bakoitzari eman diogun pisua, eztabaidagarria izan daitekeela. Behin-behineko irizpide gisa proposatzen ditugu, errealitate sozialari buruzko informazio gehiago eskuratu ahala hobetzen eta zehazten joatea komeniko dena. Guk hauxe egin nahi izan dugu: erabileraren adierazle ahalik eta orokorra sortu ISLtik abiatuta, eta sortze-prozesu horretan osagai bakoitzari pisu ezberdina emateko bidea urratzea, Katalunian eta Euskal Herrian erabili izan diren adierazleen bidean sakonduz, baina haztatze-irizpide uniformeak gaindituz. Atal teorikoan aurkeztu dugun bezala, katalanek IUP indizean hamar eremutako erabilera uztartzen dute, eremu guzti-guztiei pisu bera emanez (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 30). Horrela, pisu bera hartzen dute, adibidez, lagunetik edo bikotekidearekiko erabilerak batetik, eta bankuetan edo medikutan egiten denak bestetik, agerikoa den arren hiztunek askoz denbora gehiago igarotzen dutela lehenengo bi eremuetan beste bietan baino. Euskararen erabileraren tipologiak ere hiru osagai hartzen ditu (etxeko erabilera, lagunetik edo eremu formalekoa) eta hirurei pisu bera ematen die (Eusko Jaurilaritza, 2019: 48-49). Jatorrizko aldagaiak hautatzean egiten duen aukeragatik,

adierazle hori gehiago hurbiltzen da denbora-irizpide orekatu batera katalanena baino, nahiz eta, Zalbidek dioen bezala, “eremu formalak” irizpide horren arabera legokiokeen baino toki handiagoa izan ISLko “erabileraren tipologia” eta horrek emaitza orokorrean eragin (2016: 28). Zalbidek berak dio erronka handia dela eremu bakoitzari denboraren arabera pisu jakina emanez erabilera orokorraren isla izan daitekeen *indize sintetikoa* sortzea. Indize hori sortzeko behin-behineko ekarpenak izan nahi du adierazle honek. Gure ekarpenak lan-prozedura bat eta irizpide batzuk finkatu nahi ditu gehienbat; proposatu ditugun koefiziente zehatzak zalantzazkoak eta hobetzeko modukoak dira inolako ezbairik gabe. Espero dezagun, kontraste teorikoak eta garapen metodologikoak bultzatuta, adierazle honen definizioa, koefizienteei dagokienean gehienbat, denborarekin finduz eta hobetuz joango dela.

T.133. taulan ikus daitezke aurrez aurreko harremani buruzko adierazleen datuak.

**T.133. TAULA: AURREZ AURREKO HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA, ERABILERA ETA EUSKALDUNEKIKO ERABILERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTEK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera %
<b><u>Harreman- Sareen euskalduntasuna (%):</u></b>								
Familiako sarean euskaldunen pisua (ISL- 411; B sintetikoa)	80,8	79,4	72,6	75,5	73,4	73,7	- 7,1	- 8,8
Lagunen artean	72,0	67,0	65,6	66,5	68,7	71,2	- 0,9	- 1,2
Lankideen artean	61,0	62,5	59,7	61,8	67,3	66,8	5,9	9,6
Merkataritzan eta zerbitzu publikotan (ISL- 413; B sintetikoa)	58,2	58,2	59,9	58,4	65,9	65,2	7,0	12,0
<b>Aurrez aurreko harreman- sare orokorrean (ISL- 414; B sintetikoa)</b>	<b>70,8</b>	<b>69,7</b>	<b>66,0</b>	<b>67,9</b>	<b>69,9</b>	<b>70,3</b>	<b>- 0,6</b>	<b>- 0,8</b>
<b><u>Erabilera (%):</u></b>								
Familian (ISL- 401; B sintetikoa)	62,0	60,9	52,4	57,4	53,5	52,9	- 9,1	- 14,7
Lagunekin	55,9	58,6	52,6	56,6	56,1	53,6	- 2,3	- 4,1
Lankideekin	49,6	53,0	48,2	56,5	56,6	55,2	5,6	11,3
Merkataritzan eta zerbitzu publikotan (ISL- 403; B sintetikoa)	47,3	51,8	50,8	52,8	53,2	53,6	6,3	13,4
<b>Aurrez aurreko harreman- sare orokorrean (ISL- 404; B sintetikoa)</b>	<b>55,6</b>	<b>57,2</b>	<b>51,0</b>	<b>56,5</b>	<b>54,9</b>	<b>53,8</b>	<b>- 1,8</b>	<b>- 3,2</b>
<b><u>Euskaldunekiko erabilera (%):</u></b>								
Familian (ISL- 421; B sintetikoa)	79,2	78,3	74,7	78,4	75,2	73,5	- 5,7	- 7,2
Lagunekin	80,7	81,6	77,3	79,5	74,8	69,3	- 11,4	- 14,1
Lankideekin	84,9	84,6	86,3	92,6	86,8	84,2	- 0,6	- 0,7
Merkataritzan eta zerbitzu publikotan (ISL- 423; B sintetikoa)	87,3	87,3	88,9	93,0	83,6	86,4	- 0,8	- 0,9
<b>Aurrez aurreko harreman- sare orokorrean (ISL- 424; B sintetikoa)</b>	<b>82,0</b>	<b>81,8</b>	<b>80,1</b>	<b>84,4</b>	<b>79,4</b>	<b>77,2</b>	<b>- 4,8</b>	<b>- 5,9</b>
Euskaldunak (kop.)	528.521	591.423	633.935	665.750	714.135	751.527		

[Iturria:](#) egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 11.4.6. Azalpen bat: gizabanako-mailako adierazle sintetikoak (A motako sintetikoak) eta komunitate-mailakoak (B motakoak)

Honaino adierazle sintetikoak sortzeko erabili ditugun koefizienteen aurkezpena. Argitu dezagun, hala ere, aurreko orrietan aurkeztu ditugun adierazle sintetikoak sortzeko garaian bi modu daudela gutxienez datuekin lan egiteko: elkarrizketatu guztiei pisu bera emanda edo kasu bakoitzean hiztunek duten harreman-sarearen neurriaren edo aztergai diren espazioetara joateko duten ohituraren arabera pisua emanda. T.134. taulan aurkezten ditugu, adibide gisa, bi logika horiekin familiako adierazle sintetikoetarako sortuko liratekeen adierazleak.

**T.134. TAULA: A ETA B MOTAKO ADIERAZLEAK IRUDIKATUZ, FAMILIAKO ADIERAZLEEN ADIBIDEA ERABILITA: NORBANAKOEN ADIERAZLEAK ETA KOMUNITATEARENAK**

Ikergaia	A motako adierazleak (hiztunen emaitzen batez bestekoa): gizabanako mailakoak	B motako adierazleak (hiztunen sareen hedadura aintzat hartuta): komunitate-adierazleak
Familia-sarearen euskalduntasuna	Norbanakoek familia-sareen euskalduntasunaren batez bestekoa	Komunitateko familia-sareen euskalduntasunaren adierazlea
Erabilera familian	Norbanakoek familia-erabileraren batez bestekoa	Komunitateko familia-erabileraren adierazlea
Euskaldunekiko erabilera familian	Norbanakoek familian euskaldunekiko egiten duten erabileraren batez bestekoa.	Komunitateko familietako euskaldunekin egiten den erabileraren adierazlea

Iturria: egileak landua.

Azalpenean aurrera egiteko eta zertaz ari garen ulertzeko, hona hemen asmatutako adibide xume bat: bi pertsona hartuko ditugu, Ainhoa eta Ramon, eta bakoitzak familian zer-nolako erabilera egiten duen aztertuko dugu. Ainhoak familia-sare zabala du: bizirik ditu gurasoak eta hiru neba-arreba, eta etxean senarrarekin eta bi seme-alabekin bizi da. Ainhoak familian egiten duen erabileraren adierazle sintetikoak kalkulatu, hona hemen emaitza: %25ean erabiltzen du euskara. Ramon, berriz, bakarrik bizi da eta bizirik duen senide bakarra arreba bat da. Harekin euskaraz egiten du beti. Beraz, gaur egun familia alorreko Ramonen erabilera %100ekoa izango da.

Bi hiztun horien datuetan oinarrituta, eta bien familiako erabilera sintetikoki aztertu nahi izanez gero, bi aukera ditugu:

- A aukera: bi hiztunen portaerari pisu bera ematea. Kalkuluak horrela eginda, bi hiztun horiek osatzen duten multzoaren batez besteko erabilera %62,5ekoa izango da (Ainhoaren %25aren eta Ramonen %100aren arteko batez bestekoa).
- B aukera: Ainhoak familia-harreman sare handiagoa duenez, haren errealitateak Ramonenak baino pisu handiagoa behar du komunitatearen familia-erabilera aztertzean, eta haren portaerari pisu handiagoa emango diogu Ramonenari baino, eta HSErako darabiltzagun haztatze-irizpideak aplikatuko

ditugu horretarako. Kalkuluak B ikuspegi honetatik eginda, bi pertsona horien familiako erabilera globala %32,5ekoa izango da<sup>219</sup>.

Ikusten den bezala, oso bestelako emaitzak lortu ditugu prozedura bat edo bestea erabili. Jarri dugun adibidea nahiko muturrekoa izanda ere, ISLko datuekin egin ditugun proben arabera, batzuetan alde adierazgarriekin baina orokorrean nahiko eskutik joan dira bi adierazle multzoen emaitzak. Azken batean:

- A motako adierazle sintetikoetan hiztun guztiei pisu bera ematen zaie. Ondorioz, adierazle sintetikoa osatuko duten osagaietarako erabaki diren haztatze-koefiziente teorikoei ezin zaie enpirikoki eutsi. Hiztun euskaldunek rol-harreman guztiak maila berean ez dituztenez, koefiziente enpirikoak aldatu egiten dira teorikoekiko (ikus hurrengo puntua). Praktikan, A motako adierazle sintetikoetan, hiztunak dituen harremanetan oinarritzen dira adierazleak. Horrela, adierazle sintetiko bat eraikitzerakoan, aztertu diren rol-harreman guztietatik bat edo gehiago ez dituzten hiztunentzat<sup>220</sup>, kontuan hartuko da hiztun horrek inkesta egin den unean zer-nolako rol-harremanak dituen eta zer-nolakoak ez, eta dituen harremanetan oinarrituta egingo dira kalkuluak. Horrela, erabilera aztertzen ari bagara, adibidez, rol-harreman horietako asko edo gutxi dituen neurtu beharrean, adierazle berriak hiztun bakoitzak dituen rol-harreman horietan euskarak zenbateko tokia duen neurtuko du ehunekoetan, 0 eta 100 bitarteko balioetan<sup>221</sup>.
- B motakoetan haztatze-koefizienteak finkoak dira, eta hiztunen pisua aldatu egiten da adierazlez adierazle. Horrela, oro har, harreman-sare zabalagoa duten elkarrizketatuak pisu handiagoarekin azalduko zaizkigu sare murriztagoa dutenak baino. Praktikan, adierazle bakunen emaitza orokorren arteko eragiketen bidez gauzatu ditugu B motako adierazle sintetikoak.

Laburtuz, bada, A motakoetan hiztun guztiek pisu bera dute, baina koefizienteak aldatu egiten dira; B motakoetan koefizienteak finkoak dira, baina pertsonen pisua aldatu egiten da.

Bi adierazle moten arteko aldeak ISLko datuekin aztertu ditugu. Hona bi ondorio: alde horiek handiagoak dira familiako eta lantokiko adierazle bakunek parte hartzen duten adierazle sintetikoetan. Bestalde, ezberdintasun handiagoak aurkituko ditugu “euskaldunekiko erabilera” lantzen duten adierazleetan gainerakoetan baino.

Edonola ere, zein adierazle dira “hobeak”, A motakoak edo B motakoak? Nola interpretatu batzuk eta besteak? Zertarako erabili adierazle batzuk eta besteak?

---

<sup>219</sup> Darabiltzagun haztatze-irizpideei kasu eginda, Ainhoaren familia-sareak 100eko hedadura luke eta Ramonenak 11,11koa. Horrela, biek batuta egiten duten erabilera honela kalkulatu genuke:  $100 \cdot (25 + 11,11) / (100 + 11,11) = \%32,5$

<sup>220</sup> Adibidez, familiako erabileraren adierazle sintetikoa kalkulatu ari garela, elkarrizketatu batzuek ez dute anai-arrebarik, batzuek ama hilda dute, batzuk bakarrik bizi dira...

<sup>221</sup> Euskaldunekiko erabilerari buruzko adierazle sintetikoaren kasuan, sare “guztiz euskaldunaren” neurria kalkulatu dugu pertsona bakoitzerako. Eta horren barruan euskarazko erabilera zenbatekoa den adieraziko da %etan.



Datuak A aukeran azaldu dugun logikarekin landuz gero, norbanakoen egoera eta portaeren batez bestekoetan oinarritzen diren adierazleak izango ditugu. Horrela, aztergaiaren helburua hiztunak euren egoera edo portaeren arabera sailkatzea baldin bada, A motako adierazleak beharko ditugu. Lan honetan A motako adierazleak erabiliko ditugu harreman-sareen euskalduntasunaren arabera eta erabileraren arabera hitzunen tipologiak eratzeko orduan.

Gizartean hizkuntzen egoera soziala aztertzerakoan, berriz, komunitatearen egoeraren edo portaeraren berri emango diguten B motako adierazleak egokiagoak izango dira A motakoak baino. Era berean, adierazle bakunekin alderatzeko ere (adibidez, familiako erabilera orokorra eta amarekin egiten dena alderatzeko, neba-arrebekin egiten dena, eta abar) B motako adierazleak egokiagoak izango dira. Horregatik, lan honetan zenbait eremutako eta garai ugariatako errealitateak alderatu nahi ditugunean, B motako adierazleak erabiliko ditugu. Era berean, adierazle sintetiko baten osagaia beste adierazle sintetiko bat denean (alor informalearen eta AAH adierazlearen kasuetan), B motako adierazleekin lan egingo dugu.

Nolanahi ere, adierazle sintetiko bakoitzaren aldamenearan parentesi artean argituko dugu A edo B motako adierazlea den.

#### 11.4.6.1. A motako adierazle sintetikoaren osaera eta haztatze-irizpideak: koefiziente teorikoak eta enpirikoak urtez urte

T.135. eta T.136. taulatan, lehenik “koefiziente teorikoak” zutabeen B motako adierazle sintetikoak osatzerakoan aipatu ditugun haztatze-irizpideak laburtzen dira. A motako adierazleetan ere, koefiziente teorikoak bat datoz enpirikoekin, baina osagai guztiak dituzten hiztunetan bakarrik. Familiako kasuan, adibidez, koefiziente horiek esango digute zenbateko pisua duen familiako kide bakoitzarekiko harremanak adierazle sintetiko berrian, etxean bakarrik bizi ez eta ama, aita, bikotekidea, seme-alabak, neba-arrebak bizirik dituzten hiztunen artean.

Badakigu, ordea, hiztun askok harreman horietako bat edo gehiago falta dituela, adibidez gaur egun bikotekidea bizirik ez dutelako (edo ama, edo neba-arrebak...), edo hainbat espaziotara (bankura, udal-zerbitzuetara...) joateko ohiturarik ez duelako. T.135. taulan, bigarren zutabe multzoan “estaldura-tasa” adierazten da. Kopuru horrek adierazten du urte bakoitzean zenbat lagunek duten baliozko balioa erabilerari buruz dagokion galderan (baliozko baliorik ez dute izango harreman jakin hori ez dutenek edo espazio jakin horretara joaten ez direnek). Adibidez, 1991. urtean ama bizirik zuten eta erantzun baliagarria eman zuten inkestatuak %62,0 izan ziren (horrek esan nahi du %38,0k ama ez zutela bizirik). T.136. taulako estaldura-tasak, berriz, zera adierazten du: hiztun euskaldun guztiekiko (ama bizirik edo hilda izan) zenbatek daukaten ama euskalduna bizirik. 1991. Urtean, adibidez, %50,3 ziren ama euskalduna izan eta bizirik zutenak, elkarrizketatu euskaldun guztien artean.

Azkenik, taula horietako azken zutabe multzoan A motako sintetikoek hartu dituzten “koefizienteen pisu enpirikoak” adierazten dira: koefiziente teorikoak eta estaldura-tasak kontuan hartuta, urte bakoitzean, harreman edo espazio bakoitzak adierazle sintetiko berria osatzean enpirikoki zenbateko pisua izan duen adierazten du. Horrek esan nahi du, adibidez, amarekiko harremanak familiako erabileraren adierazlean

teorikoki %5,6ko pisua bazuen ere, enpirikoki 1991. urtean %4,8koa izan zela pisu hori (ikus T.135. taula). Zergatik jaitsi da amarekiko erabileraren pisua A motako adierazle sintetikoan koefiziente teorikotik enpirikora? Elkarrizketatuen zati handi batek (%38,0) ama bizirik ez zutenez, euren familiako erabileran amarekiko elkarrizketak ez zuelako eraginik izan. Eta horregatik, batez besteko emaitza orokorretan, teorikoki zegokion pisua baino apur bat txikiagoa izan zuelako enpirikoki amarekiko erabilerak.

Taula hauek kontuan hartu beharko dira A motako adierazle sintetikoan datuak interpretatzerakoan. Begiratu orokor bat emanda, ikusiko dugu oro har ez dagoela alde handirik koefiziente teorikoen eta enpirikoen artean “harreman-sarearen” eta “erabilera orokorraren” adierazle sintetikoan osaeran. Salbuespen adierazgarriak dira familiaren adierazlea, batetik, non “etxean denak elkarrekin” eta “neba-arrebekin” adierazle bakunek teorikoki zegokien baino pisu handiagoa duten enpirikoki, eta gainerako adierazle bakunek pisu txikiagoa. Bestetik, aurrez aurreko erabileraren adierazlean, koefiziente teorikoak adierazten zuena baino pisu dezente txikiagoa du lankideekiko erabilerak (hori horrela da elkarrizketatuen zati aipagarri batek ez duelako etxetik kanpo lanik egiten).

Bestalde, “Euskaldunekiko erabileraren” A adierazle sintetikoan sorreran, bat ez etortzeak ugariagoak eta handiagoak dira “harreman-sareari” eta “erabilerari” buruzkoetan baino.

Urterik urteko emaitzak ikusita, koefiziente enpirikoak nahiko egonkorak dira oro har denboran. Fidagarritasun txikiagoa erakusten dute horretan ere “euskaldunekiko erabilerari” buruzkoek.

Alderdi horiek guztiak, esan bezala, kontuan hartu beharko dira A motako adierazle sintetikoan datuak irakurtzerakoan.

T.135. **TAULA: ADIERAZLE SINTETIKOAK SORTZEKO HAZTATZE-KOEFIZIENTE TEORIKOAK ETA ENPIRIKOAK, ERABILERA OROKORRA ETA HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA LANTZEN DUTEN A MOTAKO ADIERAZLE SINTETIKOETAN**

	Haztatze-koefiziente teorikoa	Estandura-tasa (zenbatek duten harreman hori edo espazio horretara joateko ohitura %tan)						Haztatze-koefiziente enpirikoak					
		1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>Familiako erabilerari buruzko adierazle sintetikoak.</b>													
Etxean bizi direnak elkarrekin daudenean	33,3	94,5	94,5	90,6	91,9	90,2	90,5	43,5	43,6	43,7	42,5	43,0	44,2
Bikotekidearekin	22,2	55,4	53,5	50,0	55,2	54,8	47,5	17,0	16,5	16,1	17,0	17,4	15,5
Neba-arrebeekin	11,1	88,3	94,1	91,9	90,5	87,2	87,8	13,6	14,5	14,8	13,9	13,8	14,3
Seme-alabekin	22,2	55,4	53,3	49,3	49,9	49,9	48,5	17,0	16,4	15,9	15,4	15,9	15,8
Amarekin	5,6	62,0	64,3	65,0	76,9	68,3	67,9	4,8	4,9	5,2	5,9	5,4	5,5
Aitarekin	5,6	53,3	54,5	54,2	69,0	56,5	57,1	4,1	4,2	4,4	5,3	4,5	4,7
	100,0							100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Harreman informaletako erabileraren adierazle sintetikoak.</b>													
Familiako erabilera (aurreko adierazle sintetikoa bera)	66,7	99,3	99,5	99,8	99,8	99,4	100,0	67,9	66,6	66,7	66,6	66,5	66,7
Erabilera lagunekin	33,3	94,1	99,6	99,4	100,0	100,0	100,0	32,1	33,4	33,3	33,4	33,5	33,3
	100,0							100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabileraren adierazle sintetikoak.</b>													
Gertuko saltokietan (ogia, egunkaria, esnea... erosterakoan)	50,0	83,5	92,7	90,0	99,7	98,8	98,6	45,5	50,4	49,8	50,1	50,9	51,5
Banketxean	16,7	100,0	92,6	95,2	99,1	93,3	90,4	18,2	16,8	17,5	16,6	16,0	15,7
Udal zerbitzuetan	16,7	100,0	88,3	81,6	99,2	94,1	92,1	18,2	16,0	15,0	16,6	16,2	16,0
Osasun zerbitzuetan	16,7	100,0	92,7	95,6	99,7	98,0	96,4	18,2	16,8	17,6	16,7	16,8	16,8
	100,0							100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Aurrez aurreko erabileraren adierazle sintetikoak.</b>													
Familiako erabilera (aurreko adierazle sintetikoa bera)	40,0	99,3	99,5	99,8	99,8	99,4	100,0	49,5	48,9	47,7	47,0	46,1	46,5
Erabilera lagunekin	20,0	94,1	99,6	99,4	100,0	100,0	100,0	23,5	24,5	23,8	23,6	23,2	23,2
Erabilera lantokian	30,0	38,9	39,2	46,3	49,9	54,8	54,0	14,6	14,4	16,6	17,6	19,1	18,8
Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erab. (aurreko adierazle sintetikoa)	10,0	99,6	99,6	99,4	99,9	100,0	98,8	12,4	12,2	11,9	11,8	11,6	11,5
	100,0							100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

T.136. **TAULA: ADIERAZLE SINTETIKOAK SORTZEKO HAZTATZE-KOEFIZIENTE TEORIKOAK ETA ENPIRIKOAK, EUSKALDUNEKIKO ERABILERA LANTZEN DUTEN A MOTAKO ADIERAZLE SINTETIKOETAN**

	Haztatze-koefiziente teorikoa	Estandura-tasa (zenbatek duten harreman hori edo espazio hori euskalduna, guztiekiko %tan)						Haztatze-koefiziente enpirikoak					
		1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>Familiako erabilerari buruzko adierazle sintetikoak.</b>													
Etxean bizi direnak elkarrekin daudenean	33,3	64,0	59,4	48,1	53,2	50,6	51,1	40,3	38,3	35,7	36,2	36,2	37,4
Bikotekidearekin	22,2	40,3	38,3	32,3	37,0	36,0	32,0	16,9	16,5	16,0	16,8	17,2	15,6
Neba-arrebeekin	11,1	76,9	78,0	77,3	74,6	72,0	73,5	16,1	16,8	19,1	16,9	17,2	17,9
Seme-alabekin	22,2	40,8	45,7	42,2	44,7	46,1	44,5	17,1	19,7	20,9	20,3	22,0	21,7
Amarekin	5,6	50,3	46,5	38,5	47,2	35,8	34,5	5,3	5,0	4,8	5,4	4,3	4,2
Aitarekin	5,6	40,5	35,4	28,5	39,2	26,5	25,9	4,3	3,8	3,5	4,4	3,2	3,2
	100,0							100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Harreman informaletako erabileraren adierazle sintetikoak.</b>													
Familiako erabilera (aurreko adierazle sintetikoa bera)	66,7	86,3	92,9	90,7	90,9	89,9	91,3	79,3	79,2	80,0	80,0	77,5	77,2
Erabilera lagunekin	33,3	45,2	48,9	45,2	45,3	52,3	53,8	20,7	20,8	20,0	20,0	22,5	22,8
	100,0							100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erabileraren adierazle sintetikoak.</b>													
Gertuko saltokietan (ogia, egunkaria, esnea... erosterakoan)	50,0		34,2	27,7	28,4	37,2	27,5		49,7	43,4	43,1	42,9	39,1
Banketxean	16,7		40,6	44,1	39,8	46,9	37,1		19,6	23,0	20,1	18,0	17,6
Udal zerbitzuetan	16,7		45,2	44,4	46,5	58,7	54,4		21,9	23,2	23,5	22,6	25,8
Osasun zerbitzuetan	16,7		18,3	19,9	26,2	43,0	37,1		8,8	10,4	13,3	16,5	17,6
	100,0								100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Aurrez aurreko erabileraren adierazle sintetikoak.</b>													
Familiako erabilera (aurreko adierazle sintetikoa bera)	40,0	86,3	92,9	90,7	90,9	89,9	91,3	67,6	64,4	65,0	64,4	59,3	60,3
Erabilera lagunekin	20,0	45,2	48,9	45,2	45,3	52,3	53,8	17,7	16,9	16,2	16,1	17,2	17,7
Erabilera lantokian	30,0	13,8	16,2	15,4	18,8	24,7	23,9	8,1	8,4	8,3	10,0	12,2	11,8
Merkataritza eta zerbitzu publikoetako erab. (aurreko adierazle sintetikoa)	10,0	34,0	59,6	58,5	54,1	68,0	61,6	6,7	10,3	10,5	9,6	11,2	10,2
	100,0							100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

#### 11.4.6.2. Hiztun guztien erabilerari buruzko kalkulua

Aipatu dugu orain arteko HSE adierazleetan hiztun euskaldunak soilik hartzen genituela aintzat. Horren arrazoa hauxe da: jatorrizko *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. *Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza* datu-baseko kodetze-sistemak ez duelako beti aukerarik eskaintzen aldagai guztien inguruko serie erabat homogenoak lortzeko euskaldunak ez diren hiztunen erabilera-datueterako. Orain arte aipatutakoekin, hortaz, ez dugu hiztun guztiak (euskaldun zein erdaldun) aintzat hartzen dituen erabilera-daturik. Hutsune hori betetzeko, euskaldunen erabileran oinarrituta kalkulatu ditugu hamasei urtetik gorako hiztun guztien erabilerak, gainerako hiztunek euskararik batere erabiliko ez luketela pentsatuta<sup>222</sup>. Horretarako, urte urte rol-harreman bakoitzean euskaldunek osatzen duten ehunekoa kontuan hartuta, horien erabilera hiztun guztien erabilerarekiko zenbat izango litzatekeen kalkulatu dugu hiruko erregela erabilita. Adibidez, 1991. urtean, euskaldunek bikotekidearekin batez beste %56,5 erabiltzen zuten euskara. Urte horretan (ISLko datuen arabera betiere), bikotekidea zuten hiztun guztien artean euskaldunak %21,0 izanik, bikotekidea zuten hiztun guztiek bikotekidearekin euskara zenbateraino erabiltzen zuten kalkulatu dugu honela:  $=56,5 \cdot 21,0 / 100 = 11,9$ . Emaiza hori honela irakurri behar da: hiztun guztien artean batez beste %11,9koa izan zen bikotekideekiko erabilera 1991. urtean (euskaldunen erabilera estrapolatuz eta ez-euskaldunek batere euskararik erabili ez zutela pentsatuz). Hiztun guztietarako kalkulatu ditugun erabilera-datuak T.137. taulan aurkezten ditugu.

---

<sup>222</sup> Horrekin akats-maila txiki bat onartzen ari gara hiztun guztien datuak kalkulatzekoan: elebidun hartzaileen artean badira, eta baita erdaldun elebakarren artean ere, maila apalean gehienetan, euskara ere erabiltzen dutela adierazten duten hiztunak. Hiztun horien euskararen erabilera ez da gure datu orokorretan sartuko. Akats horren neurria txikia da aztertu ditugun kasu gehienetan. Salbuespen aipagarri bat seme-alabekiko erabilera da: erdaldun hartzaileek euskara gainerako eremuetan baino gehiago erabiltzen dute oro har seme-alabekiko harremanean. Azterketa interesgarria egin daiteke gaiaren inguruan; gure helburuetatik kanpo gelditzen da ordea.

T.137. TAULA: EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA %ETAN ADIERAZITA, HAINBAT ROL-HARREMAN, ESPAZIO ETA EREMUTAN: ADIERAZLE BAKUNAK ETA SINTETIKOAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUN GUZTIEN KALKULUA\*)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera %
<b>AURREZ AURREKO HARREMANETAN (%)</b>								
Familian (B sintetikoa)	13,8	14,8	13,3	14,7	14,4	15,0	1,2	8,6
Lagunekin	12,2	14,4	13,4	14,6	15,1	15,2	3,0	25,0
Lankideekin	10,8	13,2	11,9	14,7	16,5	17,0	6,2	57,9
Merkataritzan eta zerbitzu publikotan (B sintetikoa)	10,5	12,6	12,9	13,6	14,3	15,2	4,7	44,4
<b>Aurrez aurreko harreman-sare orokorrean (B sintetikoa)</b>	<b>12,4</b>	<b>13,9</b>	<b>12,9</b>	<b>14,5</b>	<b>14,8</b>	<b>15,3</b>	<b>2,9</b>	<b>23,2</b>
<b>FAMILIAN (%)</b>								
Etxekoekin	13,6	13,7	12,1	13,5	13,0	14,0	,4	3,0
Bikotekidearekin	11,9	12,7	9,9	11,5	10,7	10,7	-1,2	-9,8
Neba-arrebekin	16,2	16,2	14,1	15,5	15,3	15,3	-,8	-5,2
Amarekin	14,4	14,4	11,5	13,0	11,3	10,7	-3,7	-25,4
Aitarekin	13,6	13,3	10,8	12,2	10,4	10,2	-3,4	-24,9
Seme-alabekin	14,1	16,7	14,4	15,8	16,5	16,3	2,2	15,5
<b>Familian (B sintetikoa)</b>	<b>13,8</b>	<b>14,8</b>	<b>13,3</b>	<b>14,7</b>	<b>14,4</b>	<b>15,0</b>	<b>1,2</b>	<b>8,6</b>
<b>HARREMAN INFORMALETAN (%)</b>								
Familian (B sintetikoa)	13,8	14,8	13,3	14,7	14,4	15,0	1,2	8,6
Lagunekin	12,2	14,4	13,4	14,6	15,1	15,2	3,0	25,0
<i>Auzokoekin</i>				12,8	13,2	12,9		
<i>Euskaldunen erabilera sare sozialetan (%)</i>					11,0	11,5		
<b>Harreman informalekin (B sintetikoa)</b>	<b>13,4</b>	<b>14,6</b>	<b>13,3</b>	<b>14,7</b>	<b>14,7</b>	<b>15,1</b>	<b>1,7</b>	<b>12,8</b>
<b>HARREMAN FORMALETAN (%)</b>								
Saltzaileekin	10,5	13,1	11,8	13,1	13,8	14,5	4,0	38,3
Bankukoekin	12,9	14,7	14,4	14,8	14,4	14,5	1,6	12,3
Osasun zerbitzukoekin	7,2	9,7	10,2	11,6	13,5	14,3	7,1	98,5
Udal zerbitzuetakoekin	14,1	16,0	15,3	16,2	17,4	18,8	4,7	33,1
<i>Lankideekin</i>	10,8	13,2	11,9	14,7	16,5	17,0	6,2	57,9
<i>Administrazio Publikoekin</i>					14,2	14,5		
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (B sintetikoa)</b>	<b>10,5</b>	<b>12,6</b>	<b>12,9</b>	<b>13,6</b>	<b>14,3</b>	<b>15,2</b>	<b>4,7</b>	<b>44,4</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

## 11.5. ERABILERARI ETA HARREMAN-SAREEI BURUZKO BESTE ADIERAZLE SINTETIKO BATZUK

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

### 11.5.1. Bi hizkuntzetako hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren araberako tipologia

Atal teorikoan ikusi dugunez, hiztun-komunitatearen mugak zehazteko orduan, hizkuntza jakin baten ezagutza edo erabilera izan dira gehien erabili izan diren irizpideak; denborarekin, gainera, badirudi gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola erabileraren irizpideari (Boix eta Vila, 1998; Mollà, 2002; Moreno, 2009; Coyos, 2010; Joly eta Uranga, 2010; Vila, 2012). Gizabanako mailan ere, ikusi dugu Grosejenek (2015; 2018) hiztun elebiduna egunerokoan erabiltzen dituen hizkuntzen arabera definitzen duela, ez hainbeste ezagutzen dituen hizkuntzen arabera.

Horiek horrela, honako helburu zehatz honi helduko diogu orain:

❖ *Hiztunen multzokatze orokor bat lantzea, aurrez aurreko harremanetan euskara-erdaren erabilera aintzat hartuta.*

Multzokatze orokor hori **ISL-501: Bi hizkuntzetako hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren araberako tipologia** adierazlean gauzatuko dugu. Bertan, esan bezala, hiztun guztiak multzokatuko ditugu sailkatze-irizpide nagusitzat erabilera hartuta.

Adierazle hori sortzerakoan, praktikan, bi muturretan bi hizkuntzak erabiltzeko gai ez diren hiztunak jarriko ditugu, pentsatuz horiek *euren* hizkuntza besterik ez dutela erabiliko. Horrela, mutur batean euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai ez diren hiztunak bilduko ditugu; erdaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai ez direnak beste muturrean<sup>223</sup>. Muturreko bi multzo horiek 11.2. puntuan aurkeztutako *ISL-001: ahozko hizkuntza-gaitasuna* adierazlearen arabera sortu ditugu. Bi mutur horien tartean, gaitasunez elebidun diren hiztunak izango ditugu: euskaraz zein erdaraz *ongi* edo *nahiko ongi* hitz egiteko gai direla aitortu dutenak. Hiztun elebidun horiek aurrez aurreko harremanetan euskara erabiltzeko joeraren arabera sailkatuko ditugu, 11.4.5. puntuan azaldu dugun A motako *ISL-404: Aurrez aurreko harremanetako erabilera-tasa* adierazle sintetikoa kontuan hartuta. Jatorrizko bi adierazle horiek uztartuta, honako kategoria hauek osatuko dute, zehazki, adierazle sintetiko berri hau:

<sup>223</sup> ISLko datuen arabera, erdaldun elebakar eta hartzaileek ia ez dute euskararik erabiltzen, ezta erdararik ere euskaldun elebakar eta hartzaileek.

- Euskaldun elebaker eta hartzaileak
- Euskaraz bizi diren elebidunak (>%90,0 euskaraz)
- Nagusiki euskara darabilten elebidunak (%60,0-%89,9 euskaraz)
- Bi hizkuntzak maila bertsuan darabiltzaten elebidunak (%40,0-%59,9)
- Nagusiki erdara darabilten elebidunak (%10,0%39,9 euskaraz)
- Erdaraz bizi diren elebidunak (<%10 euskaraz)
- Erdaldun elebaker eta hartzaileak

2006. urtetik aurrerako ISLetan erdarazko gaitasunari buruz galdetu ez denez, urte horretatik aurrera lehenengo bi kategoriak elkartuta azalduko zaizkigu.

Adierazle horretatik abiatuta, eta muturreko kategoriak elkartuz, **ISL-502: Bi hizkuntzetako erabileraren arabeko tipologia** adierazlea sortu dugu. Zehazki, lehen kategoria bigarrenera bilduko dugu eta azkenekoa azken-aurrekora; hartara, erabilera soilik aipatuko duen adierazlea eskuratuko dugu, honako bost kategoria hauekin:

- Euskaraz bizi diren hiztunak (>%90,0 euskaraz)
- Nagusiki euskara darabilten elebidunak (%60,0-%89,9 euskaraz)
- Bi hizkuntzak maila bertsuan darabiltzaten elebidunak (%40,0-%59,9)
- Nagusiki erdara darabilten elebidunak (%10,0%39,9 euskaraz)
- Erdaraz bizi diren hiztunak (<%10 euskaraz)

Bi adierazle horien emaitzak T.138. taulan ikus daitezke.



T.138. **TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ETA ERABILERAREN ARABERAKO TIPOLOGIAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b><i>ISL-501: Bi hizkuntzetako hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arabeko tipologia</i></b>						
Euskaldun elebakar eta hartzaileak	23.541	13.069	10.108	132.931	135.085	129.288
Euskaraz bizi diren elebidunak (>%90,0 euskaraz)	94.213	123.788	103.290			
Nagusiki euskara darabilten elebidunak (%60,0-%89,9 euskaraz)	134.579	154.296	148.425	183.095	191.003	197.649
Bi hizkuntzak maila bertsuan darabilten elebidunak (%40,0-%59,9)	98.930	99.427	108.837	119.914	126.136	129.628
Nagusiki erdara darabilten elebidunak (%10,0%39,9 euskaraz)	133.441	146.688	183.474	166.037	184.275	205.218
Erdaraz bizi diren elebidunak (<%10 euskaraz)	43.816	54.154	79.798	63.773	77.637	89.743
Erdaldun elebakar eta hartzaileak	1.829.929	1.836.672	1.860.727	1.923.879	1.934.862	1.895.895
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.358.449</b>	<b>2.428.094</b>	<b>2.494.659</b>	<b>2.589.629</b>	<b>2.648.998</b>	<b>2.647.421</b>
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldun elebakar eta hartzaileak	1,0	0,5	0,4	5,1	5,1	4,9
Euskaraz bizi diren elebidunak (>%90,0 euskaraz)	4,0	5,1	4,1			
Nagusiki euskara darabilten elebidunak (%60,0-%89,9 euskaraz)	5,7	6,4	5,9	7,1	7,2	7,5
Bi hizkuntzak maila bertsuan darabilten elebidunak (%40,0-%59,9)	4,2	4,1	4,4	4,6	4,8	4,9
Nagusiki erdara darabilten elebidunak (%10,0%39,9 euskaraz)	5,7	6,0	7,4	6,4	7,0	7,8
Erdaraz bizi diren elebidunak (<%10 euskaraz)	1,9	2,2	3,2	2,5	2,9	3,4
Erdaldun elebakar eta hartzaileak	77,6	75,6	74,6	74,3	73,0	71,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b><i>ISL-502: Bi hizkuntzetako erabileraren arabeko tipologia</i></b>						
Euskaraz bizi diren hiztunak (>%90,0 euskaraz)	117.754	136.857	113.398	132.931	135.085	129.288
Nagusiki euskara darabilten elebidunak (%60,0-%89,9 euskaraz)	134.579	154.296	148.425	183.095	191.003	197.649
Bi hizkuntzak maila bertsuan darabilten elebidunak (%40,0-%59,9)	98.930	99.427	108.837	119.914	126.136	129.628
Nagusiki erdara darabilten elebidunak (%10,0%39,9 euskaraz)	133.441	146.688	183.474	166.037	184.275	205.218
Erdaraz bizi diren hiztunak (<%10 euskaraz)	1.873.745	1.890.826	1.940.525	1.987.652	2.012.499	1.985.638
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.358.449</b>	<b>2.428.094</b>	<b>2.494.659</b>	<b>2.589.629</b>	<b>2.648.998</b>	<b>2.647.421</b>
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaraz bizi diren hiztunak (>%90,0 euskaraz)	5,0	5,6	4,5	5,1	5,1	4,9
Nagusiki euskara darabilten elebidunak (%60,0-%89,9 euskaraz)	5,7	6,4	5,9	7,1	7,2	7,5
Bi hizkuntzak maila bertsuan darabilten elebidunak (%40,0-%59,9)	4,2	4,1	4,4	4,6	4,8	4,9
Nagusiki erdara darabilten elebidunak (%10,0%39,9 euskaraz)	5,7	6,0	7,4	6,4	7,0	7,8
Erdaraz bizi diren hiztunak (<%10 euskaraz)	79,4	77,9	77,8	76,8	76,0	75,0
<b>GUZTIAK</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

[Iturria:](#) egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 11.5.2. Aurrez aurreko erabileran, denbora osoko hiztunen kalkulua egitea eta erabiltzen den euskararen osaera aztertzea

Puntu honetan, honako bi helburu zehatz hauei helduko diegu:

- ❖ “Denbora osoko hiztunak” kalkulatzeko aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikorako (kopuru absolutuetara iritsiz).
- ❖ “Jardunaren osaera” kalkulatzeko aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikorako.

8.4.2. puntuari aipatu dugun bezala, katalanek euren *Enquesta d'usos lingüístics* delakoan kalkulatu duten *mesura de parlants de català a temps complet-PTC* adierazlearen (Direcció General de Política Lingüística, 2015: 30) parekidea kalkulatu dugu euskaldunentzat “Denbora osoko hiztunak” prozeduraren bidez. Bide horretan landu dugun adierazlea honela izendatu dugu, **ISL-503: Denbora osoko euskarazko hiztunak aurrez aurreko harremanetan** eta zera adieraziko du: zenbat “euskaldun huts” (euskara hutsean bizi diren hiztunak) izango genituzkeen, euskaldunek euskara zenbateko proportzioetan erabili ohi duten kontuan izanda eta hiztun bakoitzari darabilen euskararen arabera pisua emanda. Horretarako, 0ko balioa emango diegu euskara batere erabiltzen ez duen hiztun euskaldunari, 1eko balioa euskara hutsean bizi denari, eta tartean dagokion balioa tarteko erabilera daukanari.

Operatiboki, adierazle hau aurrez aurreko harremanetako erabileraren ISL-404 adierazle sintetikoaren<sup>224</sup> eta hiztunen hizkuntza-gaitasuna (euskaldunak diren edo ez, kasu honetan) aintzat hartuta kalkulatu dugu.<sup>225</sup>

Denbora osoko hiztunen kalkulutik abiatuta, jardunaren osaera ere aztertu ahal izango dugu, **ISL-504: Aurrez aurreko harremanetako jardunaren osaera** adierazlearen bitartez. Zer neurtuko du adierazle horrek? “Euskara errealaren”, “erabiltzen den euskararen”, “benetan ahoratzen den euskararen” osaera nolakoa den, euskara hori ekoizten duten hiztunen ezaugarri demografiko, sozial edo soziolinguistikoak aintzat hartuta. Operatiboki, denbora osoko hiztunen kopuru absolutuak ehunekoetara ekarrita kalkulatu dugu.

Bi adierazle horien emaitzak, T.139. taulan ikus daitezke, oinarritzko beste hainbat aldagai askeren arabera landuta.

---

<sup>224</sup> A motako adierazle sintetikoaren erabiliko dugu honetarako, hots, elkarriketatutako guztiei pisu bera ematen zaien adierazlea.

<sup>225</sup> Erdaldun hartzailak erabiltzen duten euskara ez da kontuan hartu adierazle honetarako.



Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: Ipar Euskal Herriari buruzko seriea 1996. urtean hasten dugu taula honetan eta txosten honetan aurkeztuko ditugun gainerakoetan, 1991ko inkestan lurralde horretan alboratze aipagarriak egon zirela pentsatzeko zantzuak daudelako, ISLren arduradun teknikoen arabera.

### **11.5.3. Erabilera baloratzeko erreferentziak, harreman-sareen osaeran eta hiztunen hizkuntza-gaitasunean oinarrituta**

Puntu honetan, honako helburu zehatz hauei helduko diegu:

- ❖ *Bitarteko metodologikoak lantzea komunitate batean bertako hiztunen hizkuntza-gaitasunaren araberako osaeratik eta harreman-sareen egituraketatik abiatuta, hizkuntza bat eta bestea erabiltzeko nahitaezkotasuna eta aukera zenbatekoa den kalkulatzeko, eta horrekin batera euskara-erdaren gutxieneko eta gehienezko erabilera posibleen erreferentziak sortzea.*
- ❖ *Erabilera baloratzeko erreferentzia gisa, nahitaezkotasun eta aukeren egituraz gain, hiztun elebidunen erraztasuna ere (zein hizkuntzatan aritzen diren errazago) aitzat hartuko duen erreferentzia-puntua finkatzea.*

#### 11.5.3.1. Hizkuntzen erabileraren nahitaezkotasun-egiturara hurbiltzea, hiztunen hizkuntza-gaitasunetik abiatuta; euskara-erdaren erabilera posiblearen ibiltarteak; gehienezko eta gutxieneko erabilera posibleak

##### *11.5.3.1.1. Hiru hiztun mota, lau komunikazio-egoera posible, erabilera posiblearen gutxieneko eta gehienezko erreferentziak*

Atal teorikoan esan dugu hizkuntza-gaitasunak ezartzen duela erabilerarako zorua. Eta horren barnean, lehenik, esaten genuen komunitate batean hiztunen hizkuntza-gaitasunaren araberako osaerak eta antolaketak zeharo baldintzatzen duela hizkuntza bat eta bestea erabiltzeko dauden aukerak.

Hizkuntza-gaitasunaren arabera hiztunak multzokatzeko, zazpi kategoriako ISL-001 adierazle sintetikoa landu dugu. Sinplifikatzaera joz, hiru multzo nagusitan banatuko ditugu hiztunak: Y hizkuntzako hiztun elebakarrak, X hizkuntzako hiztun elebakarrak eta bi hizkuntzetan hitz egiten dakiten elebidunak. ISLn gaiari buruzko informazioa nola jasotzen den jakinda, honela operatibizatu ditugu hiru hiztun multzo horiek.

- Y hizkuntzako hiztun elebakarrak. Bertan bilduko ditugu erdaldun elebakarrak eta hartzaileak<sup>226</sup>.

<sup>226</sup> Ikuspegi teorikotik eztabaidagarriak dira aipatutako bi irizpide nagusiak, hiztunak hiru multzotan sailkatzea batetik, eta bestetik, hiru multzoak zehazterakoan elebidun hartzaileak elebidunekin beharrean

- X hizkuntzako hiztun elebakarrak. Aurreko irizpide bera aplikatuta, bertan bilduko ditugu euskaldun elebakarrak eta hartzaileak.
- Hiztun elebidunak (X eta Y hizkuntzan hitz egiten dakitenak). Bertan bilduko ditugu euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez, bietan ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai diren hiztunak.

Hiru hiztun mota horiek elkarrekin aurrez aurreko harremanetan jartzen direnean, lau egoera posible gertatzen dira, hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko sortzen diren aukeren arabera, Txillardegik argitu zuen bezala (Álvarez Enparantza, 1984) eta T.140. taulan ikus daitekeen bezala.

- Komunikazioa nahitaez Y hizkuntzan (gaztelaniaz/frantsesez) gauzatu beharreko egoerak, Y hizkuntzaren hiztun elebakarrak euren artean edo elebidunekin harremanetan daudenean.
- Komunikazioa nahitaez X hizkuntzan (euskaraz) gauzatu beharreko egoerak, X hizkuntzaren hiztun elebakarrak euren artean edo elebidunekin harremanetan daudenean.
- Komunikazioa X edo Y hizkuntzatan (euskaraz edo erdaraz) gauzatu daitezkeen egoerak, hiztun elebidunak euren artean daudenean.
- Laugarrenik, inkomunikazio egoerak ditugu,<sup>227</sup> X hizkuntzako hiztun elebakarrak eta Y hizkuntzako elebakarrak interakzio berean elkartzen direnean.

**T.140. TAULA: MINTZAKIDEEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERAKO EGOERAK (KONBINAKETAK) ETA EGOERA BAKOITZEAN ERABILI AHAL IZANGO DEN HIZKUNTZA.**

	Elebakarrak X hizkuntzan (euskaraz)	Elebidunak	Elebakarrak Y hizkuntzan (gaztelania/frantsesean)
Elebakarrak X hizkuntzan (euskaraz)	Nahitaez X hizkuntzan (euskaraz)	Nahitaez X hizkuntzan (euskaraz)	<i>Inkomunikazio-egoerak</i>
Elebidunak	Nahitaez X hizkuntzan (euskaraz)	X edo Y aukeran	Nahitaez Y hizkuntzan (gaztelaniaz/frantsesez)
Elebakarrak Y hizkuntzan (gaztelania/frantsesa)	<i>Inkomunikazio-egoerak</i>	Nahitaez Y hizkuntzan (gaztelaniaz/frantsesez)	Nahitaez Y hizkuntzan (gaztelaniaz/frantsesez)

Iturria: egileak landua.

hiztun elebakarrekin biltzea. Balegoke aukera, adibidez, hiztun hartzaileak elebidunen multzoan biltzekoa. Alabaina, ISLn elkarriketatu direnen eta euren harreman-sareko hiztunen hizkuntza-gaitasuna jasotzeko erabiltzen diren galderek guztiz baldintzatu dituzte gure hautu metodologiko horiek, sareko hiztunen gaitasuna “euskaraz badaki/ez daki” sailkapenaren bidez jasotzen baita orokorrean.

<sup>227</sup> Inkomunikazio-mailak era batekoak edo bestekoak izango dira hiztunen ezagutzaren arabera. Izan ere, elebark gisa sailkatu ditugun horietako batzuek “beste hizkuntzan” komunikazio bat gauzatzeko adina gaitasun izango dute hainbatetan.

Elkarrekintzetan gertatzen diren egoera guztiak lau egoera mota horietan sailkatu eta kopuruetara ekarriko bagenu, kopuru horietatik abiatuta, honako erreferentzia hauek ere kalkulatu ahalko genituzke:

- Y hizkuntzaren (gaztelaniaren/frantsesaren) gutxienerako erabilera posiblea: nahitaez Y hizkuntzan gauzatu beharreko harremanek harreman guztiekiko osatzen duten tartea.
- Y hizkuntzaren (gaztelaniaren/frantsesaren) gehieneko erabilera posiblea: bi kopuru horien batura izango da:
  - nahitaez Y hizkuntzan gauzatu beharreko harremanak.
  - Y edo X hizkuntzan gauzatu daitezkeen harremanak.
- X hizkuntzaren (euskararen) gutxienerako erabilera posiblea: nahitaez X hizkuntzan gauzatu beharreko harremanek harreman guztiekiko osatzen duten tartea.
- X hizkuntzaren (euskararen) gehieneko erabilera posiblea: bi kopuru horien batura izango da:
  - nahitaez X hizkuntzan gauzatu beharreko harremanak.
  - Y edo X hizkuntzan gauzatu daitezkeen harremanak.

#### 11.5.3.1.2. *Euskaldunen sarearen osaerari buruzko kalkuluetatik abiatuta, erabilera-aukerak aztertzeako adierazleak sortzen*

Has gaitezen, ISLn oinarrituta, aipatu berri ditugun gehieneko eta gutxienerako erreferentziak zenbakitara ekartzeko bidea bilatzen. Lehenik, **ISL-505: euskararen gehieneko erabilera posiblearen erreferentzia** kalkulatu dugu. Erreferentzia horrek hauxe adierazi nahiko luke: hiztunek bizi dituzten egoeren artean, euskara erabiltzea posible den egoerek zenbateko pisua duten; eta behin kopuru hori % baten bidez kalkulatu, eta 100etik kenketa eginez, aurrez aurreko harremanetan erdara nahitaez erabili beharreko egoerek zenbateko pisua duten ere kalkulatu genuke.

Sortzen ari garen erreferentzia horrek, noski, zerikusi zuzena izango du euskaldunek duten harreman-sare osoaren barnean mintzakide euskaldunek eta erdaldunek duten pisuarekin, baina ez da bete-betean horren baliokidea izango. Izan ere, kontuan hartu behar da gurean nahiko orokorra den erabilera-araua (UZEI, 2010: 33), zeinaren arabera nagusiki euskaldun elebidunez osatutako talde batean hiztun erdaldun bat egotea nahikoa izaten den taldeko elkarrizketa-hizkuntza erdara izateko. Arau hori kontuan hartuta, lantzen ari garen adierazlea sortzerakoan, irizpiderik egokiena litzateke hiztun euskaldun bakoitzeko bereiztea haren eguneroko egoeretan zenbateko pisua duten interakzioko kide guztiak euskaldunak diren egoerek eta zenbateko pisua gainerako egoerek. Lehenengo egoeren pisuak adieraziko luke zein den euskara erabiltzeko duen gehieneko aukera, eta bigarren motako egoeren pisuak adieraziko luke zein den hiztun horrek nahitaez erdara erabili beharra duen egoerek duten pisua.

Operatiboki, ordea, arazo bat dugu kalkulu horiek zorrotz egiteko. 5.4.3.1. puntuan ikusi bezala, ISLn zehatz jasotzen da elkarrizketatuaren ama, aita eta bikotekidea euskaldunak diren edo ez. Gainerako rol-harreman eta egoeretan, ordea, multzo osoari buruzko erantzuna eskatzen zaie elkarrizketatuei. Horrela, adibidez, ISLko elkarrizketatuei gertuko lagunen artean euskaraz hitz egiten zenbatek dakiten galdetzen zaienean, honako bost erantzun-aukera haiek eskaintzen zaizkie: “denek edo ia denek”, “erdiak baino gehiagok”, “erdiak”, “erdiak baino gutxiagok” eta “inork ez edo ia inork ez”. Eta ISLn ez da informazio gehiago jasotzen lagunetik harreman-ohiturei buruz. Ez zenbat diren zehazki gertuko lagun horiek, ez zer-nolako ohiturak dituen lagunekin egoteko moduan: adibidez, lagun horiekin bakarka elkartzeko den, talde txikietan elkartzeko den edo bere gertuko lagun talde osoarekin elkartzeko ohitura duen. ISLn informaziorik ez dugun alderdi horiek, jakina, zuzenean eragiten diote aztertzen ari garen gaiari. Adibide batekin azalduko dugu zergatik. Demagun hiztun elebidun batek gertuko 2 lagun dituela: horietako bat euskalduna (elebiduna) da, eta bestea erdaldun elebakarra. Lagunekiko harremana haiekin bakarka egonez gauzatuko balu, batzuetan lagun euskaldunarekin eta besteetan lagun erdaldunarekin, baina inoiz ez biekin batera, orduan hiztun horrek lagunekin euskaraz egiteko izango lukeen aukera %50ekoa litzateke: lagun batekin euskaraz egin ahal izango luke eta bestearekin ez. Harremana, ordea, beti talde mailakoa balitz, eta gure hiztuna bere bi lagun horiekin beti taldean elkartuko balitz, euskara erabiltzeko aukera erreala %0koa izango litzateke (tartean erdalduna egonda euskara ez erabiltzeko dagoen arau sozialari jarraituta). Egoera errealak oso ugariak eta aldakorak izango dira eta muturreko bi egoera horien artekoak izango dira gehienetan: batzuetan talde osoarekin elkartuko da hiztuna, besteetan bakarka, eta abar. Kontua da, ISLn sareei buruz biltzen den informazioak EZ duela horrelako xehetasunetan sartzeko aukerarik eskaintzen. Ez lagun kasuan, ezta informazioa talde biltzen den gainerako multzoetan ere: lankideekiko harremanean, etxean elkarrekin bizi direnekikoan, eta abar.

Horiek horrela, gaur egun ez daiteke zorrotz kalkulatu hiztunaren sareak zenbateko aukera eskaintzen duen euskara erabiltzeko. Hobeki esan, zorrotz kalkulatu daiteke banakako mintzakideen kasurako (aita, ama eta bikotekidearekin), baina ez multzoan Galdetzen diren harremanetarako (lagunak, lankideak, eta abar).

Alabaina, gaiarekin zerikusi estua duten bi kalkulu adierazgarri eta osagarri egiteko aukera eskaintzen digu ISLko informazioak:

- Batetik, multzo bakoitzean (gertuko lagunen artean, adibidez) euskaldunek zenbateko batez bestekoa osatzen duten kalkulatu dezakegu tasa esleituen bidez. Kalkulu hori erreferentzia egokia izango da, hiztun euskaldunak bere lagunekin bakarka elkartzeko ohitura badu, haiekin euskaraz aritzeko izango duen aukera neurtzeko. Multzoetan irizpide horren arabera kalkulatu eginda (lagunak, lankideak, udal-zerbitzuetakoak...) kalkulatu dugu taulan “aurrez aurreko harreman-sarean euskaldunen pisua %tan” izendatzen den datua<sup>228</sup>. Kopuru hori bat dator ISL-414 adierazlearen batez besteko balioarekin. Nolabait esateko, gehienezko erabilera posiblearen goiko muga hipotetikoa marraztuko

---

<sup>228</sup> Azaltzen ari garen kopuru guztiek rol-harremanen eta espazioen harreman-sareen osaera uztartzen dute. Horien arteko haztatze-irizpideak, jakina, HSE adierazleetan erabilitako berberak dira kasu guztietan.

du datu horrek (%71,5eko balioa hartzen du erreferentzia horrek 2016rako ISLko datuen arabera).

- Bestetik, hitzunaren harreman-sareko multzo bakoitza hartu (gertuko lagunak, lankideak, eta abar) eta aukera dugu multzo bakoitzeko harremana beti multzokide guztiak batera garatuko litzatekeen egoera hipotetikoaren arabera lantzeko. Hitzunaren harreman-sarean multzo guztiz euskaldunek<sup>229</sup> zenbateko zatia osatzen duten kalkulatu beharko genuke. Horrela kalkulatzeko den kopuruak erakutsiko digu zenbatekoa litzatekeen euskaraz aritzeko aukera, baldin eta multzoetako mintzakideekin harremana beti denak elkartuta gertatuko balitz, eta tartean erdaldunak daudenean horrek euskaraz aritzeko aukera ezeztatuko balu. Kalkulu hori “harreman-sare osoaren barnean, multzo guztiz euskaldunen pisua %tan” izendatu dugu, eta gehienezko erabileraren beheko muga hipotetikoa marraztuko du (%54,3ko balioa hartzen du erreferentzia horrek 2016rako ISLko datuen arabera).

Bi kopuru horien arteko puntu ezezagun batean egongo da euskararen gehienezko erabilera posiblea. Erreferentzia bakar adierazgarri bat eskuratzeko, azkenik, aurreko bi datuen batez bestekoa kalkulatu dugu<sup>230</sup> eta “Euskararen gehienezko erabilera posiblearen erreferentzia” izendatu dugu. Taulan ikus daitekeen bezala, %62,9an kokatzen da egungo sareen osaera aintzat hartuta euskaldunen euskararen gehienezko erabilera posiblea. Erreferentzia horrek erakusten du euskaldun guztiek ahal duten guztietan euskara erabiliko balute, zenbatekoa izango litzatekeen euren batez besteko erabilera-tasa. Bestela esanda, ez da posible kopuru horrek adierazten duena baino gehiago erabiltzea euskara euskaldunen gaur egungo sareen osaera aintzat hartuta<sup>231</sup>. T.141. taulan aurkezten dira erreferentzia horien datuak urtez urte. Bertan azaltzen dira, halaber, euskaldunen datuetan oinarrituta eta euskaldunek hitzun guztiekiko osatzen duten ehunekoa ere aintzat hartuta, hitzun guztietarako euskararen gehienezko erabilera posiblea. Taulako kopuru horiek guztiek “euskararen gehienezko erabilera” erakusten dute. Kopuru horiek 100i kenduta, jakina, “nahitaez erdaraz egin beharreko erabilera” kalkulatu daiteke.

---

<sup>229</sup> Multzo guztiz euskaldunak edo ia guztiz euskaldunak, zehatzago esanda. Izan ere, multzokako mintzakideetatik euskaraz zenbatek dakiten galdetzen zaienean, ISLko “denek edo ia denek” kategoria hartuko dugu aintzat.

<sup>230</sup> Honako hau ere aurrera begira metodologia aldetik doitzen eta fintzen joan beharreko alderdien artean dugu.

<sup>231</sup> Erreferentzia horrek, esan bezala, nolabaiteko gehienezko muga bat ezartzen du. Egia da muga hori handiagoa litzatekeela hitzun euskaldunek euskaldunekin ez ezik erdaldun hartzaileekin ere euskara erabiliko balute. Tamalez, gaur egun ISLn biltzen den informazioarekin ezinezkoa da euskaldunen harreman-sareetako erdaldun hartzaileen pisua zenbatekoa den kalkulatzeko. Zalantzarik gabe, igo egingo luke “gehienezko erabileraren” erreferentzia hori.



T.141. TAULA: EUSKARA ERABILTZeko GEHIENEZKO ETA GUTXIENeko AUKERA POSIBLEEN KALKULUA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (HIZTUN EUSKALDUNENTZAT ETA HIZTUN GUZTIENTZAT)

	Euskaldunei dagozkien kalkuluak						Aurreko kopuruetan oinarrituta, hiztun guztiei dagozkien kalkuluak					
	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b><u>Euskararen gehienezko erabilera posiblearen erreferentzia lantzen</u></b>												
Aurrez aurreko harreman-sarean euskaldunen pisua %etan (ISL-414 A motako adierazle sintetikoa)	72,2	68,0	69,1	71,2	71,5		17,6	17,3	17,8	19,2	20,3	
Harreman-sare osoaren barnean, multzo guztiz euskaldunen pisua %etan	55,5	49,4	51,1	55,1	54,3		13,5	12,6	13,1	14,9	15,4	
<b>Euskararen gehienezko erabilera posiblearen erreferentzia</b> (aurreko bien batez bestekoa, ISL-505 adierazlea)	63,9	58,7	60,1	63,2	62,9		15,6	14,9	15,4	17,0	17,9	
<b><u>Euskararen gutxieneko erabilera posiblearen erreferentzia lantzen</u></b>												
Euskaldun elebakar eta hartzaileen pisua euskaldun guztiekiko (%) (ISL-001 adierazlea)	4,5	2,2	1,6	1,7	1,5	1,5						
Hiztun elebidunen pisua euskaldun guztiekiko (%) (ISL-001 adierazlea)	95,5	97,8	98,4	98,3	98,5	98,5						
Euskaldunen arteko binakako ausazko harremanetan, bi elebidun elkartzeko aukera (%)	91,3	95,6	96,8	96,5	97,0	97,1						
<b>Euskararen gutxieneko erabilera posiblearen erreferentzia</b> (euskaldunen arteko binakako ausazko harremanetan, gutxienez euskaldun elebakar edo hartzaile bat elkartzeko aukera, ISL-506 adierazlea)	8,7	4,4	3,2	3,5	3,0	2,9	2,0	1,1	0,8	0,9	0,8	0,8
<b><u>Euskara-erdaren erabilerarako nahitaezkotasun- eta aukera-erreferentzien ikuspegi osoa (ISL-507 adierazlea)</u></b>												
Euskararen gutxieneko erabilera posible (ISL-506)	8,7	4,4	3,2	3,5	3,0	2,9	2,0	1,1	0,8	0,9	0,8	0,8
Euskararen gehienezko erabilera posiblea (ISL-505)	63,9	58,7	60,1	63,2	62,9		15,6	14,9	15,4	17,0	17,9	
Gaztelaniaren/frantsesaren gutxieneko erabilera posiblea (= 100 - ISL-505)	36,1	41,3	39,9	36,8	37,1		84,4	85,1	84,6	83,0	82,1	
Gaztelaniaren/frantsesaren gehienezko erabilera posiblea (= 100 - ISL-506)	91,3	95,6	96,8	96,5	97,0	97,1	98,0	98,9	99,2	99,1	99,2	99,2
<b>Jardunaren osaera:</b>												
Nahitaez euskaraz (ISL-506)	8,7	4,4	3,2	3,5	3,0	2,9	2,0	1,1	0,8	0,9	0,8	0,8
Euskaraz edo erdaraz, aukeran (= ISL-505 - ISL-506)	59,5	55,5	56,6	60,2	60,0		14,5	14,1	14,6	16,2	17,0	
Nahitaez erdaraz (= 100 - ISL-505)	36,1	41,3	39,9	36,8	37,1		84,4	85,1	84,6	83,0	82,1	
JARDUNA GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: gehienezko erabilerearen erreferentzia ezin izan dugu kalkulatu 1991. urterako, jatorrizko aldagaietan zegoen informazio-hutsuneak eraginda. "Euskararen gehienezko erabilerearen" kopuruak 100i kenduta, "nahitaez erdaraz egin beharreko erabilera" kalkulatu daiteke; "euskararen gutxieneko erabilerearen" kopurua 100i kenduta, bestalde, "erdaraz egiteko gehienezko aukera" kalkulatu daiteke.

Gehienezko erabilera posiblearen erreferentzia azalduta, goazen orain euskararen gutxieneko erabilera zenbatekoa izan daitekeen zehaztera, **ISL-506: Euskararen gutxieneko erabilera posiblearen erreferentzia** adierazlearen bidez. Adierazle horrekin, lehenik, euskaldunen artean nahitaez euskaraz egin beharreko egoerak zenbat izan daitezkeen kalkulatu nahi dugu. Berez, gehienezko erabilerearen adierazlearen logika berbera erabilita, teorikoki, posible litzateke kalkulatzeko zenbatekoa litzatekeen euskararen erabilera baldin eta erdaraz dakiten hiztun guztiguztiek (euskaldun elebidunek barne) ahal duten aukera guztietan erdara erabiliko balute. Horrela, euskaraz egingo luketen bakarrak, euskaldun elebakarrak eta hartzaileak izango lirateke edo hiztun elebidunak, bestela, aurreko horiekin ari direnean. ISLk eskaintzen duen informazioarekin, ordea, guztiz ezinezkoa da gaur egun kopuru hori ISL-505 adierazlean erabilitako prozedura bera erabilita kalkulatzeko. Izan ere, ISLko elkarrizketatuei ez zaie galdetzen euren harreman-sareko kideek gaztelaniaz/frantsesez badakiten edo ez dakiten; horretaz gain, 2006tik aurrera ez dugu elkarrizketatuen erdarazko gaitasunaren berri. Horiek horrela, beharrezko lehengairik ezean, beste bide bat hartu beharko dugu euskararen gutxieneko erabilera posiblea kalkulatzeko.

Guztiz behin-behineko izaerarekin, eta gutxi gorabeherako hurbilpen gisa, hipotesi hau landu dugu euskararen gutxieneko erabilera kalkulatzeko. Lehenik, kontuan hartuko dugu hiztun euskaldunen barruan, ISL-001 adierazlean landu ditugun kalkuluen arabera, zenbat diren euskal elebakar eta hartzaileak eta ontzat emango dugu hiztun horiek hiztun euskaldunekin dutela soilik harremana eta haiekin beti euskaraz arituko direla. Bestalde, kalkulatu dugu zein den hiztun euskaldunek euren arteko binakako harreman posibleen multzoan gutxienez euskaldun elebakar edo hartzaile bat solaskide gisa egokitze aukera. Eta kopuru hori interpretatu dugu gutxieneko erreferentzia gisa. Hiztun guztiekiko kalkulak, azkenik, euskaldunen proportzioa aintzat hartuta egingo ditugu.

Badakigu euskararen gutxieneko erabilera posiblearen adierazle hori ez dugula oso irizpide sendoetan oinarritu. Zalantzarik dira erabilitako irizpideak, alderdi ugariatik: gutxienekoa biko harremanen bidez beharrean hirukoen bidez kalkulatu izan bagenu, adibidez, euskararen gutxieneko erabilera posiblearen kopuru horiek gora egingo lukete nabarmen; era berean, ordea, euskaldun elebakar eta hartzaile gisa sailkatuta dauden hainbat hiztunek gaztelaniaz/frantsesez izan dezaketen benetako gaitasuna eta taldeetan erdaldunekin ere harremanik izango dutela aintzat hartuta, horrek gutxieneko kopuru horiek are gehiago jaiste ekarriko zukeen... Kalkuluen oinarrian dauden irizpide ahul horiek kontuan hartu beharko ditugu adierazle hauen emaitzak irakurtzerakoan.

Azkenik, euskararen gutxieneko erabileraren kopurua 100i kenduta, “erdaraz egiteko gehienezko aukera” kalkulatu dugu.

Aurreko bi adierazleetatik abiatuta, azkenik, **ISL-507: euskara-erdaren erabilerarako nahitaezkotasun eta aukera-erreferentzien ikuspegi osoa** adierazlea kalkulatu dugu T.141. taulan bertan azaltzen diren eragiketen bidez.

#### 11.5.3.2. Erabilera erosoaren erreferentzia: elebidunek, hizkuntza aukeratzetik dagoen harremanetan, errazen erabiltzen duten hizkuntza erabilia egongo litzatekeen erabilera

Dagoen hizkuntza-gaitasunerako euskara asko edo gutxi erabiltzen den baloratzeko, nahitaezkotasun eta aukeren egitura landu dugu aurreko puntuan. Hizkuntza-gaitasunaren zoruak erabileran nola eragiten duen aztertzeko orduan, ordea, hiztun elebidunen gaitasuna ere kontuan hartu beharreko alderdia da. Aski frogatua baitago hiztun elebidunek hizkuntza bat edo beste aukeratzeko orduan funtsezko irizpidea dela gaitasun erlatiboarena: errazago erabiltzen dugun hizkuntzara jotzeko joera dugu hiztunek, horretarako aukera dagoenean (Aizpurua, 2018a). Erosotasunaren bulkadak garrantzia duela gure portaeran, alegia. Hitztunak erosotasun horrek soilik eraginda arituko balira, sistematikoki euren errazen zaien hizkuntzan egitea bilatuko lukete guztiek: euskaraz errazago egiten dutenek euskaraz eta erdaraz errazago egiten dutenek erdaraz.

Ikuspegi hori barneratu nahi dugu orain lantzen ari garen adierazlean. Betiere, erosotasunak eragindako hautua nahitaezkotasun eta aukeren egitura baten barruan txertatu beharko da. Ikus dezagun. Aurreko puntuan aurkeztu ditugun gutxieneko eta gehienezko erreferentziak, nolabait esateko, muturreko erreferentziazat har ditzakegu. Biak ala biak erreferentzia *exijenteak* dira: gehienezko erabilera posiblearen erreferentziak elebidun guztiei elebidunekin beti euskaraz aritzeko *eskatzen* die eta gutxieneko erabilera posiblearen erreferentziak egoera horietan guztietan beti erdaraz aritzeko. Horien aldean, exigentzia guztietatik urrun, hiztunen erosotasunean oinarrituko den erreferentzia sortu nahi dugu **ISL-508: Erabilera erosoaren erreferentzia** adierazlearekin. Zehazki, honako galdera honi erantzunio dio erabilera erosoaren erreferentziak: betiere sareen osakerak uzten duten erabilera posiblearen barruan, zenbatekoa izango litzateke euskararen erabilera, baldin eta hiztun elebidunek hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko irizpide bakarra euren erosotasuna izango balitz? Hau da, hizkuntza-hautua erosotasun-irizpide hutsean oinarritu eta bi hizkuntzak erabiltzeko aukera dagoenetan, euskaraz errazago moldatzen diren hiztunek euskarara joko balute beti eta erdaraz errazago moldatzen direnek erdarara joko balute beti<sup>232</sup>.

Kalkulu hori egiteko, lehenik, hiztun euskaldunak euskal eta erdal nagusitasuna duten hiztunen artean sailkatu ditugu, eta nagusitasunik adierazi ez duten elkarrizketatuak,

---

<sup>232</sup> Gai honen lanketa sakonago batek mintzakideen gaitasun erlatiboa ere aintzat hartzea eramango gintuzke. Ez du horretarako aukerarik uzten, ordea, ISLko informazioak. Horregatik, lantzen ari garen hipotesian, gaitasun erlatibo ezberdineko hiztun elebidunak elkartzen direnean, bakoitzak errazen zaien hizkuntzari eutsiko dio, eta elkarrizketa asimetrikoak sortuko dira.

proportzionalki, bi multzo horietan banatu. Ondoren, euskal nagusitasunezko hiztunak hartu eta euren harreman-sarea aintzat hartuta, euskaraz egiteko zenbateko aukera duten ikertu dugu. Gehienezko erabileraren erreferentzia bezala, bi kalkulu egin ditugu orain ere, eta orduan azaldutako logika bera erabiliz kalkuluetarako:

- Euskal nagusitasunezko hiztunek mintzakide euskaldunekin dituzten harremanen pisua %etan, hiztun guztien harreman guztiekiko (ISL-414 A motako adierazle sintetiko).
- Euskal nagusitasunezko hiztunek multzo guztiz euskaldunekin dituzten harremanen pisua %etan, hiztun guztien harreman guztiekiko.

Bi kopuru horiek kalkulatu, zentzu hertsian esango genuke erabilera erosoaren erreferentzia bi kopuru horien arteko puntu ezezagun batean kokatuko dela. Erabilera erosoaren erreferentzia sinplifikatzeko, baina, aurreko bien batez bestekoa kalkulatu dugu eta “erabilera erosoaren erreferentzia” izendatuko. Euskaldunen kalkuluak egin ondoren, eta horietan oinarrituta, hiztun guztiekikoak landu ditugu. Emaizak T.142. taulan aurkezten ditugu.

Azkenik, euskararen erabilera erosoaren kopurua 100i kenduta, “erdarazko erabilera eroso” kalkulatu dezakegu.

**T.142. TAULA: ERABILERA EROSOAREN ERREFERENTZIA (ISL-508 ADIERAZLEA). EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (HIZTUN EUSKALDUNENTZAT ETA HIZTUN GUZTIENTZAT)**

	Euskaldunetarako kalkuluak						Aurreko kopuruetan oinarrituta, hiztun guztietarako kalkuluak					
	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Euskal nagusitasunezko hiztunek mintzakide euskaldunekin dituzten harremanen pisua %etan harreman guztiekiko (ISL-414 A motako adierazle sintetiko)	35,4	37,7	32,1	36,2	32,7	31,4	7,9	9,2	8,2	9,3	8,8	8,9
Euskal nagusitasunezko hiztunek multzo guztiz euskaldunekin dituzten harremanen pisua %etan harreman guztiekiko	29,9	32,0	26,4	29,8	27,8	26,5	6,7	7,8	6,7	7,7	7,5	7,5
<b>Erabilera erosoaren erreferentzia</b> (aurreko bien batez bestekoa, ISL-508 adierazlea)	32,6	34,9	29,3	33,0	30,2	28,9	7,3	8,5	7,4	8,5	8,2	8,2

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: “Euskararen erabilera eroso”ren kopuruak 100i kenduta, “erdararen erabilera eroso” kalkulatu daiteke.

### 11.5.3.3. Landutako erreferentzien mugak; datuak zuhurtzia handiz irakurri beharraz

Puntu hau amaitzeko, azpimarra dezagun erabilera baloratzeko sortu ditugun erreferentzia horiek behin-behinekoak direla. Erabilera gaitasunaren arabera aztertze erreferentzia baliagarriak eraikitze bidea egiten hastea izan da gure nahia. Asmo horretan, metodologia garatze aldera egindako lehen urrats gisa ulertu behar dira aurkeztu berri ditugun adierazleak. Ondorioz, zuhurtzia handiz irakurri behar dira adierazle horien emaitzak. Gutxi gorabeherako erreferentzia gisa hartu behar dira, inolaz ere ez aztergai diren erreferentzien kuantifikazio zehatz gisa. Eta betiere, adierazle horien mugak argi izan behar ditugu datuak irakurtzerakoan.

Gogora dezagun zein diren adierazle on muga nagusiak: hasteko, ezin dugu ahaztu honako adierazleak beste puntu batzuetan lehenago sortu ditugun adierazleen gainean eraikitako adierazleak direla. Horrela, sorburuko adierazleek izan zitzaketen muga eta akatsak metatuz joango ziren adierazle berri hauetan ere.

Horretaz gain, emaitzak irakurrita, euskararen gehienezko erabilaren erreferentziaren kopuruak motz gelditu ote diren pentsatzeko zantzuak ditugu. Hots, pentsatzekoa da gehienezko erreferentziaren mugak gure kopuruek adierazten dutena baino goraxeago ez ote diren egongo benetan. Eta ez bakarrik halabeharrez gure kalkuluetatik kanpo utzi behar izan dugun elebidun hartzaileen errealitatea kontuan hartuta gehienezko erabilera posible horrek gora egingo lukeelako. Horretaz gain, beste arrazoi bat izan daiteke gehienezko erabilera posiblearen erreferentzia bi kopururen batez bestekoarekin kalkulatu dugula, eta agian, gehienezko kopuru erreala gertuago izango dela goiko mugatik beheko mugatik baino. Nolanahi ere, aurrera begira, batez besteko hori baino modu doituago bat bilatzea komeniko da gehienezko erabilaren erreferentzia kalkulatzeko. Azkenik, ezin dugu ahaztu, adierazle horiek erabilarako finkatzen dituzten erreferentzia-puntuak eta erabilera aitortuaren datua alderatzerakoan, alboratzearen eragina ere egongo dela, 8.6. puntuari aipatu dugun bezala. Zehazki, pentsa daiteke erabilera aitortuak ematen digun datuaren azpitik egongo dela *benetako* erabilera. Hala ere, alboratzeak beste alderdiei ere eragingo ziela pentsa daitekeenez, ezin gaiari buruzko irizpide argirik erabaki.

Edozein modutan, kasu honetan bereziki, zehazki irakurri beharko ditugu puntu honetan aurkeztu ditugun adierazleen emaitzak.

## 11.6. EUSKARA ERABILTZEKO MOTIBAZIOETARA/JARRERETARA ZEHARKAKO HURBILPEN BAT, JARDUNAREN OSAERA EROSOA/EZ- EROSOA AZTERTUTA

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

Atal teorikoan ikusi dugunez, elkarrizketatuen iritzi eta jarreretan oinarrituta, 'Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera' adierazle sintetikoa landu izan dute ISL inkestaren egileek (Eusko Jaurlaritza, 2019: 29).

Puntu honetan beste bide bat jorratzen ahaleginduko gara. Hitzun elebidunek hizkuntza bat edo beste erabiltzeko izan dezaketen motibazioetara hurbilpena egiten saiatuko gara, baina eurek aitortu dituzten iritzietatik abiatu beharrean, eurek aitortu duten gaitasunetik eta erabileratik abiatuta induzituko ditugu euren motibazioak. Zehazki, honako helburu hau lantzen saiatuko gara:

❖ *Hitzunen hizkuntza-gaitasuna eta erabilitako hizkuntza kontuan hartuta, erabileraren balizko motibazioetara zeharkako hurbilpena egiteko adierazlea sortzea, bereizketa eginda hitzuentzat eroso den jardunaren eta jardun ez-erosoaren artean*

Helburu hori lantzeko, **ISL-601: euskara darabilten ekoizleen motibaziora hurbilpena, euren hizkuntza-gaitasunetik abiatuta** adierazlea sortu dugu. Horretarako, honako urrats hauek egin ditugu, ondoko T.143. taulan ikus daitekeen bezala:

- Lehenik, aurrez aurreko harremanetan (ISL-404 adierazlea) hitzun euskaldunek egiten duten euskararen erabileratik abiatuta, denbora osoko hitzunen kalkulua egin dugu, hitzun euskaldunen gaitasun erlatiboa aintzat hartuta (zein hizkuntzatan moldatzen diren errazago, euskaraz edo erdaraz).
- Bigarren urrats batean, nagusitasunik adierazi ez duten hitzunak (euskaraz eta erdaraz erraztasun berarekin aritzen direla esan digutenak) proportzionalki esleitu ditugu nagusitasunezko bi multzoetara.
- Azkenik, aurreko kopuruen ehunekoak kalkulatu ditugu urte bakoitzerako, eta euskal nagusitasuna duten hitzunek erabiltzen duten euskara “eroso ekoiztiko euskaratzat” jo dugu, eta erdal nagusitasunezko hitzunek erabilitako euskara, berriz, “erosotasuna EZ den motiboek eraginda ekoiztiko euskaratzat”.

Nola interpretatu adierazle honen emaitzak? Adierazle honek hurbilpen bat izan nahi du ekoizten den, hitz egiten den euskara ahoratzeko hitzunek duten motibaziora, eta bereizi egiten ditu euskaraz errazago aritzen diren hitzunen jarduna batetik eta erdaraz errazago aritzen direnena bestetik. Pentsatzekoa da euskara erabiltzeko bestelako arrazoi edo motiboak ere izango dituztela lehenbiziko horiek, baina euren hautu linguistikoa bat etorriko da euren komunikazio-jardueran erosotasuna eta eraginkortasuna bilatze aldera izan dezaketen bulkadarekin. Eta pentsatzekoa da bigarrenek, erosoan zaien hizkuntza EZ bestea aukeratzen duten horiek, horretarako euskararen aldeko motibazio positibo indartsuren bat izango dutela.

Hurbilpen nabarmen mugatua izango da, motibazioen mundura zeharkako hurbilpen xume bat egiteko modua emango diguna. Adierazle horren muga artean, aipatu beharra dago, gainera, jatorrizko datuei buruzko honako hau: aurrez aurreko harremanetan mintzakideak beti bi edo gehiago izaten badira ere, guk ditugun datuetan mintzakide horietako baten hizkuntza-gaitasuna soilik ezagutzen dugula. Hau da, ISL bidez, badakigu zein den inkesta bete duen hitzunaren gaitasuna (errazago zein hizkuntzatan aritzen den, euskaraz edo erdaraz); ez dakigu, ordea, zein den aldi bakoitzeko bere mintzakideen gaitasuna, ISLk ez duelako jasotzen. Hori muga handia da adierazle honetarako, elebidunek osatzen dituzten taldeetako hizkuntza-hautua ez baitu inkesta egin duenak soilik erabakiko, bere mintzakideekin batera baizik.

**T.143. TAULA: EUSKALDUNEN ERABILERA, DENBORA OSOKO HIZTUNEN KALKULUA ETA MOTIBAZIOETARAKO HURBILPENA (EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNA AINTZAT HARTUTA). EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
<b>Euskararen batez-besteko erabilera aurrez aurreko harremanetan (%a multzo bakoitzean)</b>						
Euskal nagusitasunezko hiztunak	85,3	85,9	84,7	84,8	85,0	84,5
Nagusitasunik gabeko elebidunak	54,9	59,4	55,0	59,3	63,5	62,8
Erdal elebidunak	31,8	31,3	26,7	29,3	27,6	26,8
<b>GUZTIAK (EUSKALDUNAK)</b>	<b>56,7</b>	<b>57,0</b>	<b>50,9</b>	<b>55,5</b>	<b>53,9</b>	<b>52,5</b>
<b>Denbora osoko hiztunak AAHetan</b>						
Euskal nagusitasunezko hiztunak	155.780	157.178	150.746	173.527	161.703	165.321
Nagusitasunik gabeko elebidunak	80.217	109.823	97.268	119.733	138.889	139.270
Erdal elebidunak	63.567	70.010	74.610	76.097	84.211	89.618
<b>GUZTIAK (DOH EUSKALDUNAK)</b>	<b>299.564</b>	<b>337.011</b>	<b>322.625</b>	<b>369.357</b>	<b>384.803</b>	<b>394.210</b>
<b>Berdin, nagusitasunik gabeko elebidunak beste bi multzoetara proportzionalki esleituz</b>						
Euskal nagusitasunezko hiztunak +	212.750	233.158	215.812	256.759	253.031	255.634
Erdal elebidunak +	86.814	103.853	106.813	112.598	131.772	138.576
<b>GUZTIAK (DOH EUSKALDUNAK)</b>	<b>299.564</b>	<b>337.011</b>	<b>322.625</b>	<b>369.357</b>	<b>384.803</b>	<b>394.210</b>
<b>ISL 601: erabiltzen den euskararen ekoizleen motibazioa hurbilpena, euren hizkuntza-gaitasunetik abiatuta (%)</b>						
Eroso ekoiztutako euskara (%)	71,0	69,2	66,9	69,5	65,8	64,8
Erosotasuna EZ den motiboek eraginda ekoiztutako euskara (%)	29,0	30,8	33,1	30,5	34,2	35,2
<b>BATURA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

## 11.7. BELAUNALDIARTEKO TRANSMISIOAREN INDIZEAK, GURASOEKIKO ETA SEME-ALABEKIKO ERABILERA-OHITURETAN OINARRITUTA

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguitikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozialazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

Hiztun belaunaldi ezberdinen lehen hizkuntzak alderatzea izan ohi da familiako transmisioa aztertzeko ikerketa-ildo nagusia. Euskararen kasuan, ISLetako argitalpenetan (Aizpurua, 1995; Eusko Jaurlaritza et al., 1997; Eusko Jaurlaritza, 2003; Eusko Jaurlaritza, 2008; Eusko Jaurlaritza, 2013; Eusko Jaurlaritza, 2019) eta transmisioari buruz berariaz egindako beste hainbatetan (Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, 2008; SIADECO, 2021) funtsezko ustiaketak eskaintzen dira lehen hizkuntzaren aldagaia landuz eta gurasoen profilaren arabera seme-alabei lehen urteetan transmititzen dieten hizkuntza aztertuz (bikotean euskaldunak zenbat diren ikusita eta guraso euskaldunen artean euren lehen hizkuntza ere aintzat hartuta). Lehen hizkuntza oinarritzat hartzen duen azterbidea da, beraz, transmisio-gaietarako azterbide nagusia. Ez bakarria ordea.

Hiztunek euren gurasoekin darabilten hizkuntza euren seme-alabekin darabiltenarekin alderatuz, adierazle interesgarriak landu izan dituzte Kataluniako demolinguistikan. Lehenago ere aipatu ditugu Torresen (2009: 24) *Índex de transmissió Intergeneracional lingüística* (ITI), Strubellen (2009: 34) *Índex de Canvi Lingüístic* (ICL) eta *Vila indizea*. Indize horien eraikuntzari eta interpretazioari buruzko azalpen argigarriak egin dituzte, bestalde, Pradilla eta Sorollak (2015: 17-18). Gure helburua Euskal Herrirako antzeko adierazleak sortzea izango da:

❖ *Euskal Herriko hiztunek gurasoekin eta seme-alabekin dituzten erabilera-ohiturak harremanetan jarriko dituzten indizeak definitzea eta kalkulatzeko (nazioarteko alderagarritasuna bilatuz, katalanen ereduari jarraituta)*

Horrela bada, katalanek belaunaldiarteko transmisioa neurtzeko asmatu dituzten hiru indize horiek Euskal Herriko ISLn oinarrituta eraikitzen ahaleginduko gara, ahal den heinean katalanen lan-prozedurei jarraituta, baina beharrezko egokitzapenak eginez:

- Seme-alabekiko erabilera-ohituraz zuzenean galdetzen da ISLn. Seme-alabak dituzten elkarrizketatuak hiru multzotan banatuko ditugu, eta multzo bakoitzak osatzen duen ehunekoak kalkulatu: seme-alabekin nagusiki edo soilik euskaraz jarduten direnak batetik, seme-alabekin nagusiki edo soilik erdaraz jarduten direnak bestetik, eta gainerakoak azkenik.
- Gurasoekin duten erabilera-ohituraren aldagaia amarekiko eta aitarekiko erabilera-ohituren erantzunetan oinarrituta eraikiko dugu. Kasu honetan ere hiru multzotara iritsiko gara, eta dagozkien ehunekoak kalkulatu ditugu: gurasoekin nagusiki/soilik euskaraz dihardutenak lehenik, nagusiki/soilik erdaraz dihardutenak bigarrenik, eta gainerakoak azkenik. Hiru multzo horietara iristeko, honela jokatu dugu elkarrizketatuek guraso bat edo biak bizirik dituzten aintzat hartuta:
  - Guraso bat soilik bizirik duten elkarrizketatuekin, guraso horrekiko harreman-hizkuntza hartuko dugu aintzat, besterik gabe.
  - Bi gurasoak bizirik dituzten hiztunekin, honela iritsiko gara hiru multzo horietara: bai aitarekin eta bai amarekin nagusiki edo soilik euskaraz aritzen direnak lehenengo multzoan sartuko ditugu; biekin nagusiki edo soilik erdaraz aritzen direnak bigarren multzoan sartuko ditugu, eta gainerako konbinazioak azken multzoan.
- Gure azterketa 2011. eta 2016. urteetarako egingo dugu<sup>233</sup>.
- Indize horiek bi modutan landuko ditugu: ISLko elkarrizketatu guztien erantzunak aintzat hartuz batetik. Eta, bestetik, Loredok eta Monteagudok (2017: 103) landu zuten egokitzapena gure eginez, azterketa seme-alabak

<sup>233</sup> Ustiatzen ari garen *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. izeneko datu-basean ez dira 1991-2006 urteetako elkarrizketatu guztien datuak behar bezain xehe jasotzen adierazle horiek sortzeko behar diren aldagaietan. Hori dela eta, ezinezkoa da esku artean dugun ustiaketa egoki gauzatzea 1991-2006 urteetarako.



dituzten eta era berean gutxienez aita edo ama bizirik duten hiztunetara mugatuta.

Abiapuntua hori izanik, aurkez ditzagun katalanen ereduari jarraituta sortuko ditugun hiru indizeak, gurera egokituta:

**ISL-701: Belaunaldiarteko transmisioaren indizea (BATI)**. Torresen (2009: 24) *Índex de transmissió Intergeneracional lingüística* (ITI) oinarri hartuta, honako formula honen bidez kalkulatu dugu euskararako eta erdararako:

$$\square \text{BATI}_{eusk} = \frac{(\text{Seme-alabekin euskara \%} - \text{Gurasoekin euskara \%})}{100}$$

$\square$  **BATI<sub>eusk</sub>** = Euskararen belaunaldi-arteko transmisioaren indizea

*Seme-alabekin euskara %* = Seme-alabekin nagusiki edo soilik euskaraz hitz egiten dutenen %a

*Gurasoekin euskara %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik euskaraz hitz egiten dutenen %a

$$\square \text{BATI}_{erd} = \frac{(\text{Seme-alabekin erdara \%} - \text{Gurasoekin erdara \%})}{100}$$

$\square$  **BATI<sub>erd</sub>** = Erdararen belaunaldi-arteko transmisioaren indizea

*Seme-alabekin erdara %* = Seme-alabekin nagusiki edo soilik erdaraz hitz egiten dutenen %a

*Gurasoekin erdara %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik erdaraz hitz egiten dutenen %a

BATI indizeak har ditzakeen balioak -1 eta 1 artean ibiliko dira; baina oso zaila da mutur horietara iristea, belaunaldi bakarrean erabateko hizkuntza-aldaketa gertatu dela esan nahiko luke eta. Indize honek hartzen duen balioa gizarte osoan gertatu den aldaketaren neurriaren adierazle gisa ulertu behar da. Hizkuntza gutxituaren pisu erlatiboa txikia den hiztun komunitateetarako (gu egoera horretan gaude), zaila da indize honek balio handiak hartzea; ez du erakusten aldaketaren balizko garrantzi erlatiboa. Baina, esan bezala, gizartean gertatu den aldaketaren neurria irudikatzeke balio digu.

**ISL-702: Hizkuntza-aldaketaren indizea (HAI)**, Strubellen (2009: 34) *Índex de Canvi Lingüístic (ICL)* delakoan oinarritzen da, BATI sortzeko erabili ditugun osagai berak erabilia, baina oraingoan indize erlatibo bat eraikiz. Bi formula zehaztuko ditugu, Pradilla eta Sorollari jarraituta (2015: 17-18): bat, hizkuntza “irabazten” ari denerako (seme-alabekin gurasoekin baino gehiago erabiltzen denean), eta bestea, hizkuntza “galtzen” ari denerako. Gure kasuan, 2011ko eta 2016ko datuekin landuko dugunez eta, ikusiko dugun bezala, urte horretan transmisioaren dinamikan euskara *irabazle* eta erdara *galtzaille* ateratzen denez, lehen formula euskarari egokituko diogu eta bigarrena erdarari:

- $HAI (irabaziak) = \frac{(Seme -alabekin \% - Gurasoekin \%)}{Gurasoekin\ n\ EZ\ \%}$
- **HAI (irabaziak) = Hizkuntza-aldaketaren indizea ("irabazten" ari denerako)**  
*Seme-alabekin %* = Seme-alabekin nagusiki edo soilik euskaraz hitz egiten dutenen %a  
*Gurasoekin %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik euskaraz hitz egiten dutenen %a  
*Gurasoekin EZ %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik euskaraz hitz egiten EZ dutenen %a
- $HAI(galerak) = \frac{(Seme -alabekin \% - Gurasoekin \%)}{Gurasoekin\ BAI\ \%}$
- **HAI (galerak) = Hizkuntza-aldaketaren indizea ("galtzen" ari denerako)**  
*Seme-alabekin %* = Seme-alabekin nagusiki edo soilik erdaraz hitz egiten dutenen %a  
*Gurasoekin %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik erdaraz hitz egiten dutenen %a  
*Gurasoekin BAI %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik erdaraz hitz egiten dutenen %a

HAI indizeek ere -1 eta 1 arteko balioak har ditzakete, eta, nolabait esateko, aldatu denak "aldatu zitekeenarekiko" duen neurria erakusten dute (Strubell, 2009: 34). Bere neurria jatorrizko hitzun multzo batengan eragindako aldaketa gisa ulertu behar da 0-1 eskala estandarizatuan. Balio handiak hartzeak ez du esan nahi beti gizarte osoan eragindako aldaketa handia denik, jatorrizko komunitatearekiko erlatiboa da eta. Irabazien kasuan, indizearen neurriak hau erakutsiko du: "aldatzeko dagoen multzoarekiko" zenbateko aldaketa gertatu den. Hau da, gurasoekin euskaraz ari ez direnen artean zenbatek egiten duten euskaraz seme-alabekin. Galera, jakina, proportzioa "galtzen ari den" multzoarekiko kalkulatu da: gurasoekin nagusiki erdaraz hitz egiten dutenen artean zenbatek ez duten hitz egiten nagusiki erdaraz seme-alabekin. Indize hau interesgarria da, aldagarria den multzoaren neurriarekiko aztertzen duelako aldaketa-prozesua.

**ISL-703: Vila indizeak**, azkenik, HAI indizearen logika bera erabiltzen du, baina "irabaziak" dituen multzoaren kasuan, hazten ari den multzo horretan bertan jartzen du erreferentzia. Hots, hazkundearen neurria jatorrizko multzoaren neurriarekin jartzen da harremanetan (gurasoekin hizkuntza gutxituan hitz egiten zutenen multzoarekin). Horrela, galdera honi erantzuten dio: euskaraz egiten dutenen taldea zenbat handitu da hasierako multzotzat gurasoekin nagusiki euskaraz ari zirenak hartuz eta amaierako multzotzat seme-alabekin euskaraz aritzen direnak hartuta? Galerei dagokienez, Vila indizeak gurasoekiko nagusiki hizkuntza bat erabiltzen EZ dutenekiko egiten ditu kalkuluak. Jatorrizko multzo horrekiko, multzoa zenbateraino txikitu den kalkulatu du; zenbat txikitu zitekeen kontuan hartuta, egiaz zenbat txikitu den, alegia. Vila indizeen emaitzak ez dira estandarizatuak, eta -1 baino balio txikiagoak edo +1 baino handiagoak har ditzake. Hona hemen formula (Pradilla eta Sorolla, 2015: 18):

$$\square \text{ VILA (irabaziak) } = \frac{(\text{Seme-alabekin } \% - \text{Gurasoekin } \%)}{\text{Gurasoekin BAI } \%}$$

$$\square \text{ VILA (irabaziak) } = \text{VILA indizea ("irabazten" ari denerako)}$$

*Seme-alabekin %* = Seme-alabekin nagusiki edo soilik euskaraz hitz egiten dutenen %a

*Gurasoekin %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik euskaraz hitz egiten dutenen %a

*Gurasoekin BAI %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik euskaraz hitz egiten dutenen %a

$$\square \text{ VILA(galerak) } = \frac{(\text{Seme-alabekin } \% - \text{Gurasoekin } \%)}{\text{Gurasoekin EZ } \%}$$

$$\square \text{ VILA (galerak) } = \text{VILA indizea ("galtzen" ari denerako)}$$

*Seme-alabekin %* = Seme-alabekin nagusiki edo soilik erdaraz hitz egiten dutenen %a

*Gurasoekin %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik erdaraz hitz egiten dutenen %a

*Gurasoekin EZ %* = Gurasoekin nagusiki edo soilik erdaraz hitz egiten dutenen %a

Indize horiek baliagarriak izan daitezke familiako transmisioaren gaia osatzeko, H1en oinarrituta gurean landu izan den ikerketa-ildo nagusia laguntzeko, eta Euskal Herriaz kanpoko eremuekin alderaketak egiteko. Alde enpirikoan egingo dugu lehen saiakera bat, ildo honek zer eman dezakeen ikusteko.

Argi eduki behar dugu, ordea, indize horiek muga bat ere badutela: zailtasuna izan dezake bizitzan zehar gurasoekiko erabilera-ohiturak aldatu izan dituzten hiztunen errealtatea jasotzeko (ondorio metodologikoetan helduko diogu gaiari).

**T.144. TAULA: GURASOEKIKO ETA SEME-ALABEKIKO ERABILERA-OHITURAK ETA BELAUNALDIARTEKO TRANSMISIOAREN INDIZEAK. EUSKAL HERRIA, ADMINISTRAZIO-EREMUKA, 2016**

	Hiztun guztiak				Seme-alabak eta gutxienez guraso bat bizirik duten hiztunak			
	EH	EAE	NG	IEH	EH	EAE	NG	IEH
Seme-alabekin euskaraz soilik edo nagusiki (%)	15,3	18,9	6,0	7,4	17,2	21,0	8,2	6,9
Seme-alabekin erdaraz soilik edo nagusiki (%)	81,3	77,0	92,0	90,7	78,5	74,0	88,9	90,7
Gurasoekin euskaraz soilik edo nagusiki (%)	10,0	12,1	4,2	6,0	10,0	11,8	4,2	7,5
Gurasoekin erdaraz soilik edo nagusiki (%)	84,2	81,1	93,3	88,6	86,7	84,7	94,3	87,4
<b>Hiztun guztien multzoan eragindako aldaketaren neurriaren adierazleak (ISL-701)</b>								
BATI euskara	0,05	0,07	0,02	0,01	0,07	0,09	0,04	-0,01
BATI erdara	-0,03	-0,04	-0,01	0,02	-0,08	-0,11	-0,05	0,03
<b>Indize erlatiboak hazteko dagoenarekiko (ISL-702)</b>								
HAI euskara	0,06	0,08	0,02	0,01	0,08	0,10	0,04	-0,01
HAI erdara	-0,03	-0,05	-0,01	0,02	-0,09	-0,13	-0,06	0,04
<b>Indize erlatiboak hazten edo ahultzen ari den jatorrizko multzoarekiko (ISL-703)</b>								
Vila euskara	0,53	0,56	0,43	0,24	0,72	0,77	0,94	-0,08
Vila erdara	-0,18	-0,21	-0,19	0,18	-0,62	-0,70	-0,96	0,26

*Iturria:* egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

## 11.8. GAITASUNEZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAREN ADIERAZLEAK

KOKAPENA: LANTZEN ARI GAREN ARDATZA ETA ITURRIA:			
	HZ	HEKN	ISL
1-Hizkuntza-gaitasuna	X		X
2-Erabilera(k)	X	X	X
3-Motibazioak eta jarrerak			X
4-Testuinguru demolinguistikoa	X	X	X
5-Hizkuntza-sozializazioa	X		X
6-Hizkuntza-bilakaera	X		X

Atal teorikoan azaldu dugun bezala, pertsonen bizitzan ezagutza edo erabilera aldetik gertatu izan diren aldaketak aztertzen dira hizkuntza-bilakaerarekin. Bereziki, txikitako garaiak *egungoarekin* (inkesta egin izan den garaiarekin) alderatzen dira. Lehenago sortu ditugu gaiaren inguruko hainbat adierazle Hegoaldeko Zentsuetako informazioan oinarrituta. Orain ISLko datuetatik helduko diogu hizkuntza-bilakaeraren gaiari, eta alderatu egingo dugu txikitan lehenik zein hizkuntza ikasi zuten eta egun zein dakizkiten. Honako helburu hau aipatu genuen gaitasunezko hizkuntza-bilakaerari dagokionez:

❖ *Lehen hizkuntza eta gaur egungo hizkuntza-gaitasuna alderatuz eta bi hizkuntzetan izandako irabazi-galera prozesu guztiak aintzat hartuz, hizkuntza-bilakaera aztertzeko bitarteko metodologikoak sortzea.*

**ISL-801: Gaitasunezko hizkuntza-bilakaeraren adierazle sintetiko xehean**, euskal demolinguistikaren azken hamarkadetako tradizioan sakonduz, hiztunen lehen hizkuntza eta egungo hizkuntza-gaitasuna alderatuko ditugu, hiztunen bizitzaldian gertatu ahal izan diren aldaketak atzeman nahirik. Horretarako, adierazle sintetiko bat sortu dugu hiztunen lehen hizkuntza (H1) eta inkesta egin den uneko hizkuntza-gaitasuna uztartuta.

Adierazle honekin, tresna metodologikoa sortu nahi izan dugu lehen hizkuntzatik inkesta egin den uneko hizkuntza-gaitasunera egon daitezkeen aldeetan arakatzeko, baina honako bi berrikuntza hauekin atal teorikoan aurkeztu ditugun EAEko Mapa Soziolinguistikoetan eta ISLn landu izan den BILA indizearekiko (Kultura Saila, 1997: 55; EUSTAT eta Kultura Saila, 1999: 35; Kultura Saila, 2005: 45; Eusko Jaurlaritza, 2008: 37; Kultura Saila, 2009: 68; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2014: 60; Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020: 70): batetik, euskararekiko prozesuak ez ezik, erdararekikoak ere ikusarazten saiatuko gara. Bestetik, hizkuntza-gaitasunaren fenomenoari zabalago begiratzen saiatuko gara, ISL-001 zazpi kategoriako ahozko hizkuntza-gaitasunaren adierazlean oinarrituta.

Gaitasunezko hizkuntza-bilakaera lantzerakoan, hiztunen bizitzaren bi unetako hizkuntza-gaitasuna alderatu nahi dugu. Adierazlearen osagai den bi aldagaietako batek, ordea, lehen hizkuntzak, ez du berariaz neurtzen haur/txiki garaiko hizkuntza-gaitasuna. Hala ere, adierazle sintetiko berri hau sortzerakoan, ontzat ematen dugu abiapuntu hau: lehen hizkuntza jakin bat izatea haur txikitako garaian gaitasun-maila

jakin bat eskuratu izanari lotzen zaio. Eta abiapuntu horri jarraituta, lehen hizkuntzatik hizkuntza-gaitasuna emantzat jotzen dugu adierazle hau lantzerakoan, honako korrespondentzia logiko hauek ontzat emanda:

**Lehen hizkuntza > Haur txiki garaiko hizkuntza-gaitasuna**

Lehen hizkuntza euskara > Euskaldun elebakarra (beraz, euskal nagusitasunezko hiztuna).

Euskara eta erdara > Elebiduna (nagusitasunik gabekoa).

Erdara > Erdaldun elebakarra (beraz, erdal nagusitasunezko hiztuna)

Lehen hizkuntza eta *oraingo* hizkuntza-gaitasuna gurutzatuta, T.145. taulako sailkapen xehean aurkezten diren gaitasunezko hizkuntza-bilakaeraren hogeita bat kategoria sortzen dira. Hortik abiatuta sortzen da **ISL-802: Gaitasunezko hizkuntza-bilakaeraren adierazle sintetiko laburtua**. Hogeita bat kategoria horiek hamaikara ekarri ditugu, aurreko batzuk multzokatuta, taula horretan bertan ikus daitekeen bezala. Bi adierazle horien emaitzak T.146. eta T.147. taulan ikus daitezke.

T.145. **TAULA: GAITASUNEZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAREN ADIERAZLE SINTETIKOAK, HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZAN ETA HIZKUNTZA-GAITASUNEAN OINARRITUTA. SAILKAPEN XEHEA ETA SAILKAPEN LABURTUA.**

**ISL-801: SAILKAPEN XEHEA:**

		Lehen hizkuntza		
		Euskara	Erdara	Biak
Ahozko hizkuntza-gaitasuna 7 multzotan	Euskaldun elebakarrak	H1 euskara; euskaldun elebakarrak	H1 erdara; euskaldun elebakarrak	H1 biak; euskaldun elebakarrak
	Euskaldun hartzaileak	H1 euskara; euskaldun hartzaileak	H1 erdara; euskaldun hartzaileak	H1 biak; euskaldun hartzaileak
	Euskal elebidunak	H1 euskara; euskal elebidunak	H1 erdara; euskal elebidunak	H1 biak; euskal elebidunak
	Nagustiasunik gabeko elebidunak	H1 euskara; nagustiasunik gabeko elebidunak	H1 erdara; nagustiasunik gabeko elebidunak	H1 biak; nagustiasunik gabeko elebidunak
	Erdal elebidunak	H1 euskara; erdal elebidunak	H1 erdara; erdal elebidunak	H1 biak; erdal elebidunak
	Erdaldun hartzaileak	H1 euskara; erdaldun hartzaileak	H1 erdara; erdaldun hartzaileak	H1 biak; erdaldun hartzaileak
	Erdaldun elebakarrak	H1 euskara; erdaldun elebakarrak	H1 erdara; erdaldun elebakarrak	H1 biak; erdaldun elebakarrak

**ISL-802: SAILKAPEN LABURTUA:**

		Lehen hizkuntza			
		Euskara	Erdara	Biak	
Ahozko hizkuntza-gaitasuna 7 multzotan	Euskaldun elebakarrak	Euskara bakarrik ulertzen duten jatorrizko euskaldunak	Erdarazko nagusitasuna galdu duten jatorrizko erdaldunak	Euskal nagusitasuna duten jatorrizko elebidunak	
	Euskaldun hartzaileak	Euskaraz bakarrik hitz egiten dakiten jatorrizko euskaldunak (erdara ulertzen dute)			
	Euskal elebidunak	Euskarazko nagusitasunari eusten dioten jatorrizko euskaldun elebidunak			
	Nagustiasunik gabeko elebidunak	Euskarazko nagusitasuna galdu duten jatorrizko euskaldunak	Erdarazko nagusitasunari eusten dioten jatorrizko erdaldun elebidunak	Nagustiasunik gabeko jatorrizko elebidunak	
	Erdal elebidunak			Erdal nagusitasuna duten jatorrizko elebidunak	
	Erdaldun hartzaileak				Erdaraz bakarrik hitz egiten dakiten jatorrizko erdaldunak (euskara ulertzen dute)
	Erdaldun elebakarrak				Erdara bakarrik ulertzen duten jatorrizko erdaldunak

Iturria: egileak landua.

Adierazle hau interpretatzerakoan, kontuan hartu behar da adierazle honek bi une jakin besterik ez duela alderatzen, haur txikitako garaia eta egungoa (inkesta egin den unekoa). Ez ditu, hortaz, hiztunen bizitzan hizkuntza-gaitasunean izandako gorabehera guztiak jasotzen, lehen une haren eta azken une honen arteko alderaketa baizik.

T.146. TAULA: GAITASUNEZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAREN ADIERAZLE SINTETIKO XEHEA (ISL-801). EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTEK GORAKO HIZTUNAK).

Lehen hizkuntza / hizkuntza-gaitasuna gaur	1991 Kop.	1996 Kop.	2001 Kop.	2006 Kop.	2011 Kop.	2016 Kop.	1991 %	1996 %	2001 %	2006 %	2011 %	2016 %
H1euskara; euskaldun elebakarrak	16.058	7.256	4.987	187.197	174.803	178.067	3,5	1,5	1,2	43,7	42,9	44,6
H1euskara; euskaldun hartzaileak	7.098	5.813	5.121									
H1euskara; euskal elebidunak	156.125	167.242	155.967									
H1euskara; nagustiasunik gabeko elebidunak	125.291	147.122	122.116	129.557	137.543	138.904	27,1	30,4	28,3	30,3	33,7	34,8
H1euskara; erdal elebidunak	114.736	111.549	93.658	69.395	61.604	60.082	24,8	23,0	21,7	16,2	15,1	15,0
H1euskara; erdaldun hartzaileak	20.644	23.092	19.262	15.313	15.278	8.091	4,5	4,8	4,5	3,6	3,7	2,0
H1euskara; erdaldun elebakarrak	21.941	22.078	30.880	26.805	18.613	14.502	4,8	4,6	7,1	6,3	4,6	3,6
<b>H1 euskara izan zuten GUZTIAK</b>	<b>461.893</b>	<b>484.152</b>	<b>431.991</b>	<b>428.267</b>	<b>407.841</b>	<b>399.646</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
H1erdara; euskaldun elebakarrak	385	-	-	-	-	-	0,0	-	-	-	-	-
H1erdara; euskaldun hartzaileak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
H1erdara; euskal elebidunak	1520	1.127	3.316	2.023	4.234	4.167	0,1	0,1	0,2	0,1	0,2	0,2
H1erdara; nagustiasunik gabeko elebidunak	13.347	22.324	27.880	42.603	41.298	41.947	0,7	1,2	1,4	2,1	2,0	2,0
H1erdara; erdal elebidunak	56.449	82.076	145.413	156.363	204.387	225.992	3,1	4,4	7,5	7,7	9,7	10,7
H1erdara; erdaldun hartzaileak	60.698	167.396	113.342	121.632	141.275	184.608	3,3	9,0	5,9	6,0	6,7	8,8
H1erdara; erdaldun elebakarrak	1.693.638	1.583.989	1.647.132	1.714.653	1.721.143	1.647.816	92,7	85,3	85,0	84,2	81,5	78,3
<b>H1 erdara izan zuten GUZTIAK</b>	<b>1.826.037</b>	<b>1.856.912</b>	<b>1.937.083</b>	<b>2.037.274</b>	<b>2.112.337</b>	<b>2.104.530</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
H1biak; euskaldun elebakarrak	385	-	-	-	-	-	0,5	-	-	-	-	-
H1biak euskaldun hartzaileak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
H1biak; euskal elebidunak	1.455	1.452	8.578	15.432	11.214	13.399	2,1	1,7	6,8	12,4	8,7	9,4
H1biak; nagustiasunik gabeko elebidunak	7.554	15.382	27.012	29.654	39.930	40.903	10,7	17,7	21,5	23,9	31,0	28,6
H1biak; erdal elebidunak	28.503	30.079	39.884	33.527	39.125	48.068	40,2	34,6	31,8	27,0	30,4	33,6
H1biak; erdaldun hartzaileak	13.865	16.156	18.826	12.039	11.768	12.788	19,6	18,6	15,0	9,7	9,1	8,9
H1biak; erdaldun elebakarrak	19.143	23.961	31.285	33.437	26.786	28.090	27,0	27,5	24,9	26,9	20,8	19,6
<b>H1 biak izan zituzten GUZTIAK</b>	<b>70.905</b>	<b>87.030</b>	<b>125.585</b>	<b>124.089</b>	<b>128.823</b>	<b>143.248</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.358.450</b>	<b>2.428.094</b>	<b>2.494.659</b>	<b>2.589.630</b>	<b>2.649.001</b>	<b>2.647.424</b>						

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**T.147. TAULA: GAITASUNEZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAREN ADIERAZLE SINTETIKO LABURTUA (ISL-802). EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTEK GORAKO HIZTUNAK).**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Euskara bakarrik ulertzen duten jatorrizko euskaldunak	16.058	7.256	4.987	187.197	174.803	178.067
Euskaraz bakarrik hitz egiten dakiten jatorrizko euskaldunak (erdara ulertzen dute)	7.098	5.813	5.121			
Euskarazko nagusitsaunari eusten dioten jatorrizko euskaldun elebidunduak	166.125	167.242	155.967			
Euskarazko nagusitasuna galdu duten jatorrizko euskaldunak	282.612	303.841	265.914	241.071	233.037	221.577
<b>Erdara bakarrik ulertzen duten jatorrizko erdaldunak</b>	<b>1693.638</b>	<b>1583.989</b>	<b>1647.132</b>	<b>1714.653</b>	<b>1721.143</b>	<b>1647.816</b>
Erdaraz bakarrik hitz egiten dakiten jatorrizko erdaldunak (euskara ulertzen dute)	60.698	167.396	113.342	121.632	141.275	184.608
Erdarazko nagusitsaunari eusten dioten jatorrizko erdaldun elebidunduak	56.449	82.076	145.413	156.363	204.387	225.992
Erdarazko nagusitasuna galdu duten jatorrizko erdaldunak	15.254	23.450	31.196	44.625	45.532	46.113
<b>Euskal nagusitasuna duten jatorrizko elebidunak</b>	<b>1.455</b>	<b>1.452</b>	<b>8.578</b>	<b>15.432</b>	<b>11.214</b>	<b>13.399</b>
Nagusitasunik gabeko jatorrizko elebidunak	7.554	15.382	27.012	29.654	39.930	40.903
Erdal nagusitasuna duten jatorrizko elebidunak	61512	70.197	89.995	79.002	77.679	88.946
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.358.453</b>	<b>2.428.094</b>	<b>2.494.657</b>	<b>2.589.629</b>	<b>2.649.000</b>	<b>2.647.421</b>
<b>Jatorrizko euskaldunen banaketa hizkuntza-gaitasunaren arabera (%)</b>						
Euskara bakarrik ulertzen duten jatorrizko euskaldunak	3,5	1,5	1,2	43,7	42,9	44,6
Euskaraz bakarrik hitz egiten dakiten jatorrizko euskaldunak (erdara ulertzen dute)	1,5	1,2	1,2			
Euskarazko nagusitsaunari eusten dioten jatorrizko euskaldun elebidunduak	33,8	34,5	36,1			
Euskarazko nagusitasuna galdu duten jatorrizko euskaldunak	61,2	62,8	61,6	56,3	57,1	55,4
<b>GUZTIAK (jatorrizko euskaldunak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Jatorrizko erdaldunen banaketa hizkuntza-gaitasunaren arabera (%)</b>						
Erdara bakarrik ulertzen duten jatorrizko erdaldunak	92,7	85,3	85,0	84,2	81,5	78,3
Erdaraz bakarrik hitz egiten dakiten jatorrizko erdaldunak (euskara ulertzen dute)	3,3	9,0	5,9	6,0	6,7	8,8
Erdarazko nagusitsaunari eusten dioten jatorrizko erdaldun elebidunduak	3,1	4,4	7,5	7,7	9,7	10,7
Erdarazko nagusitasuna galdu duten jatorrizko erdaldunak	0,8	1,3	1,6	2,2	2,2	2,2
<b>GUZTIAK (jatorrizko erdaldunak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>Jatorrizko elebidunen banaketa hizkuntza-gaitasunaren arabera (%)</b>						
Euskal nagusitasuna duten jatorrizko elebidunak	2,1	1,7	6,8	12,4	8,7	9,4
Nagusitasunik gabeko jatorrizko elebidunak	10,7	17,7	21,5	23,9	31,0	28,6
Erdal nagusitasuna duten jatorrizko elebidunak	87,2	80,7	71,7	63,7	60,3	62,1
<b>GUZTIAK (jatorrizko elebidunak)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturria: Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]



# ATAL ENPIRIKOA



## 12. ATAL ENPIRIKOAREN PLANTEAMENDUA ETA MUGAK

Gure tesiaren izenburuak adierazten duen bezala, gure ekarpena maila metodologikoan landu nahi izan dugu batik bat. Horretan jarri ditugu indarririk handienak, egun dauden eragiketa demolinguistikoetan oinarrituta, Euskal Herriko egoera eta bilakaera soziolinguistikoa sakonago eta zehatzago ezagutzeko balio beharko luketen bitarteko metodologikoak lantzen, adierazleak gure kasuan.

Sutan frogatzen da, ordea, eltzea. Eta ezin lan hau amaitutzat jo sortu dugun adierazle multzoa frogatu gabe. Adierazle horiek baliatuko ditugu, bada, tesi honetan erantzun nahi dugun galdera enpiriko orokorrari ahalik eta erantzunik egokiena bilatzeko. Gogora dezagun galdera hori:

✓ *Atal metodologikoan eraiki diren adierazle berrien emaitzen lehen irakurketa orokor bat eginda, zer esan dezakegu euskararen egungo egoera sozialari eta azken hiru hamarkadetako bilakaerari buruz?*

Galdera orokor hori, era berean, hainbat galdera enpiriko zehatzen bidez landu dugu; 7. kapituluko “ikerketa-galdera enpiriko zehatzak” puntuan zehaztu ditugu galdera horiek guztiak. Ez ditugu orain hemen berrituko. Hurrengo kapituluetan, kapituluaren hasieran batzuetan eta azpikapituluaren hasieran beste batzuetan, zehaztuko dugu une bakoitzean zer-nolako galdera enpiriko zehatzen inguruan ari garen ikertzen.

Eduki enpirikoak aurkezten hasi aurretik, aipa ditzagun orain hasten dugun lanketa enpirikoaren mugak. Honako lan hau lehen hurbilpen gisa planteatzen dugu aipatu ditugun galdera enpiriko orokor aski zabal eta zehatzugabe horri erantzuteko. Landu ditugun adierazle gehienak erabilia, Euskal Herri mailako irakurketa orokor bat egitea bilatuko dugu. Badakigu jakin gure errealitate soziolinguistikoa askotarikoa eta konplexua dela, eta alde handiak aurki ditzakegula aldagai ugariaren arabera. Esan beharrik ez dago, horregatik, aztertuko ditugun gai guztietan azterketa orokorra ez ezik, azterketa xeheagoa ere komeniko litzatekeela, administrazio-eremuak, adin multzoak eta belaunaldiak, generoak, klase sozialak, ingurune soziolinguistikoak eta beste aldagai soziodemografiko eta soziolinguistiko ugari aintzat hartuta. Gure lan honetan, ordea, ez ditugu gure adierazleen emaitzak aldagai askeen arabera sistematikoki aztertuko. Kasu batzuetan salbuespenak egingo ditugun arren, horietako aldagai aske batzuk aintzat hartuta, gehienetan Euskal Herri mailako ikuspegi orokorra eskaintzera mugatuko gara. Ez da muga txikia aipatzen ari garen hori. Horri erantsi behar zaio guk landu ditugun adierazleen arteko harremanak sistematikoki eta sakon aztertzea ere beste baterako gelditzen den eginbeharra dela. Eginkizun gelditzen da,

halaber, gure errealitatea nazioarteko hizkuntza gutxituen jokalekuaren parametrotan sistematikoki kokatzea.

Atal enpiriko hau, beraz, lehen hurbilpen gisa hartzea nahiko genuke, aztermolde eta ikuspegi berriak aplikatuta, gure errealitate soziolinguistiko orokorraren behin-behineko ikuspegi orokor berri baterako elementuak eskaintzen saiatuko den ahalegin mugatu gisa. Esan beharrik ez dago, atal enpiriko hau landu ahala, zalantza, jakintza-hutsune eta galdera berriak aterako zaizkigula bidera. Izan bitez bidera aterako zaizkigun galdera berri horiek etorkizunean euskal errealitate soziolinguistikoaren ezagutzan sakontzera bultzatuko gaituzten akuiluak.

#### **Erabiliko ditugun datuen datari buruzko oharra:**

Lan hau bukatzen ari garela, aztertu ditugun eragiketen azken edizioak argitaratzen hasiak dira. Argitu dezagun, hortaz, zein izan diren eragiketa estatistiko bakoitzerako berriaz eta sistematikoki landu ditugun datu eguneratuenak:

- Zentsuetan 2011koa izan da sistematikoki landu dugun datu multzo berriena (9.1.2. puntuan argitzen genuen zergatik). Kasu batzuetan, 2016koak eta 2021ekoak erabili ditugu (datuak aurkezteko unean zehazten dugu datu bakoitza noizkoa den). Izan ere, lan hau bukatzen ari garen egunotan argitaratu ditu EUSTATEk 2021eko zentsuan euskarari buruz landu dituzten aldagaien emaitzak EAerako, 2022ko urriaren 27an zehazki; Nafarroa Garaiko daturik ez da oraindik argitaratu. Horiek horrela, ezinezkoa da oraindik Hegoaldeari buruzko zentsu-informazio guztia sistematikoki lantzea eta eguneratzea. Hala ere, atal enpiriko honetan, eta ondorioen atalean, beharrezkoa iruditu zaigun puntu batzuetan txertatu ditugu EAEko 2021eko datuak ere.
- HEKNren kasuan 2016koak izan dira sistematikoki landu ditugun azken datuak. 2022ko maiatzean argitaratu ziren 2021eko edizioari buruzko datu orokorrak, eta ondoren udalerrrikakoak ari dira argitaratzen. Datu berri horietako batzuk erabiliko ditugu atal enpirikoan eta ondorioen atalean. Dena den, atal metodologikoan HEKNrako sortu ditugun adierazle berriak ez daitezke eguneratu Hegoalde osoko zentsuak argitaratu arte.
- ISLren kasuan 2016koak erabili ditugu. Idazten ari garen unean ez dago berriagorik.

Horiek dira erabili ditugun data-irizpide orokorrak. Taula eta grafikoaren bidez informazioa aurkezterakoan sistematikoki azalduko dugu zein datatukoa den datu bakoitza.

# 13. MENDE BATEKO BILAKAERARA HURBILTzea, HAUR TXIKIEN LEHEN HIZKUNTZAREN AZTERKETAN OINARRITUTA, 1906-2016

## 13.1. HAUR TXIKIEKIKO ERABILERAN MENDE BATEKO IKUSPEGI LUZEAREN BILA

✓ *Zer-nolako bilakaera izan du XX. mendean haur txikiekiko erabilerak?*


### 13.1.1. Hegoaldean jaiotako haurren lehen hizkuntzaren bilakaera, 1906-2021

Atal teorikoan azaldu bezala, haurren sozializazioa eta hizkuntzaren transmisioa funtsezko prozesuak dira hizkuntza gutxituen iraupenerako. Demolinguistikan lehen hizkuntzarena izan da prozesu horren berri jakiteko gehien erabili izan den aldagaia. Gainerako aldagai demolinguistikoetatik ezberdina da lehen hizkuntzarena: batetik, aldagai finkoa izan ohi da hiztunentzat, eta ez aldakorra beste aldagai gehienak bezala. Bestetik, aldagai gehienak sinkronikoak dira, hots, inkesta edo neurketa egiten den garaiko errealitatea jasotzen dute, baina lehen hizkuntza diakronikoa da, eta elkarrizketatuaren lehen urteetako errealitateari buruzko informazioa jasotzen du. Horrek, Hego Euskal Herrian jaio eta bizi diren elkarrizketatuen lehen hizkuntza eta jaiotze urtea aintzat hartuta, aukera eskaintzen digu hizkuntzaren familia-transmisioaren epe luzeko bilakaera-prozesura hurbilpen bat egiteko, 1991, 2001 eta 2011ko zentsuetan oinarrituta. Argitu behar dugu datu hauetan EZ direla azalduko Hego Euskal Herritik kanpo jaiotako herritarrak, baina bai kanpotik etorritakoen seme-alabak. Ondorioz, datu hauek ez dute garbi erakutsiko hizkuntza-komunitatearen bilakaeraren barne-prozesua izango litzatekeena; horrekin batera, zeharka bada ere, migrazio-prozesuaren eragina ere neurtuko dute gure datuek. Bertan jaiotako haur guztien H1 hartuko baita kontuan, euren gurasoen jatorria edozein dela ere.

Ustiaketa honek bere mugak izango ditu, eta aztertu nahi duen errealitatearekiko alboratzeak izan ditzake, metodologia-ataleko 9.8.3.4. puntuan azaldu bezala<sup>234</sup>. Hala eta guztiz, aukera ematen digu Hegoaldean jaiotako hiztunen artean lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisuaren 115 urteko ikupegira behin-behineko hurbilpena egiteko, estatistika ofizialetako datuetan oinarrituta. Lan honetan aurkeztuko ditugun ehundik gora adierazleen artean, hauxe da, gainera, eta hurrengo puntuan nagusitasun-eremuen bilakaerari buruz aurkeztuko duguna ere bai, hain epe luzeko ikuspegiz aritzeko aukera eskainiko digun bakarra.

<sup>234</sup> Berez, puntu horretan, nagusitasun-eremuen epe luzeko bilakaera aztertzeke sortu ditugun HZ-210, HZ-211 eta HZ-212 adierazleen mugei buruz aritu gara, baina hor esaten direnak baliagarriak dira, halaber, aztertzen ari garen gairako.

G.27. GRAFIKOA: HAUR TXIKIEN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN DUEN PISUAREN BILAKAERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1906-2021 (%)



Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, HZ-005 adierazlea erabili da. Ustiaketa honetarako, 9.8.3. puntuan azaldutako irizpideei eta urratsei jarraitu diegu. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharrak: adierazlea eraikitzeke erabili dugun metodologiagatik, aztertu nahi den errealitatearekiko alboratzeak egon daitezke (ikus metodologia-atala). 2011, 2016 eta 2021eko datuak ez dira gainerako urteetako serie berekoak, zentsu berrienen emaitzen gainean landutako behin-behineko kalkulu bat baizik (ikus metodologia-atala 9.8.3.3. puntua).

T.148. **TAULA: HAUR TXIKIEN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN DUEN PISUAREN BILAKAERA, BI LURRALDE-EREMU NAGUSIREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1906-2021 (%)**

	Hego EH-n jaiotako guztiak	XX. mende hasieran euskara bizirik zen ingurunean jaiotako (haur txikiekiko erabileran euskarak %20tik gorako pisua 1906an)	Erdararen nagusitasun handiko guneak (haur txikiekiko erabileran euskarak %20tik beherako pisua 1906an)
1906	41,0	80,4	4,9
1911	39,8	79,0	4,5
1916	39,2	78,0	3,8
1921	36,9	75,1	3,4
1926	36,3	72,7	3,3
1931	35,7	71,6	3,6
1936	36,2	71,9	4,1
1941	33,2	68,5	3,6
1946	32,3	65,9	3,8
1951	30,5	62,6	4,1
1956	25,6	54,7	4,4
1961	22,6	48,8	4,5
1966	19,5	43,2	4,3
1971	17,8	40,9	4,4
1976	18,0	41,4	4,7
1981	19,3	44,8	5,2
1986	20,5	45,7	6,5
1991	24,1	49,8	10,5
1996	27,2	49,7	10,5
2001	26,5	45,1	11,2
2006	26,2	42,8	13,0
2011	24,8		
2016	24,2		
2021	26,5		

Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, HZ-005 adierazlea erabili da. Ustiaketa honetarako, 9.8.3. puntuan azaldutako irizpideei eta urratsei jarraitu diegu. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharrak: adierazlea eraikitzeke erabili dugun metodologiagatik, aztertu nahi den errealitatearekiko alboratzeak egon daitezke (ikus metodologia-atala). 2011, 2016 eta 2021eko datuak ez dira gainerako urteetako serie berekoak, zentsu berrien emaitzen gainean landutako behin-behineko kalkulu bat baizik (ikus metodologia-ataleko 9.8.3.3. puntua).

Ustiaketa horren emaitzak T.148. taulan eta G.27. grafikoan aurkeztu ditugu. Bertan ikus daitekeen bezala, Hego Euskal Herrian jaiotako haurren artean, euren bizitzako lehen 3 urteetan euskarak izan duen pisua sakon aldatu da azken mendean. Landu dugun seriearen muturretara joz, %41,0koa<sup>235</sup> zen 1906.<sup>236</sup> urtean eta %26,5ekoa

<sup>235</sup> Euskarak lehen hizkuntza izan duen pisua honela kalkulatu dugu, atal metodologikoan azaldu dugun bezala: lehen hizkuntza gisa euskara izan zuten hiztunen ehunekoari lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania izan zituztenen erdiak gehituta, tasa esleituen prozedura aplikatuz.

<sup>236</sup> Atal metodologikoan azaldu bezala, berez bosturteko bosturteko datuak dira aurkezten ari garenak. Horrela, 1906ko etiketarekin aipatzen ditugun datuak 1904-1908 bitartean jaiotako hiztunen multzo osoari dagozkie. Eta berdina gainerako urteetan.

2021ean. 115 urte horietan, ordea, joera aldaketa aipagarriak antzematen dira aztergai dugun fenomenoaren bilakaeran:

- Lehen fase luze batean, 65 urteko galera prozesu handi bat gertatzen da 1906 eta 1971 bitartean<sup>237</sup>. Euskarak haur txikien/txikiekiko erabileran zuen pisua izugarri jaisten da aldi horretan, 1906ko %41,0tik 1971ko %17,8ra. Horrela, bada, 65 urte horietan, euskarak zuen pisu osoaren erdia baino dezente gehiago galdu zuen haur txikien/txikiekiko erabileraren alorrean. Beherako aldi orokor horren barruan, hiru azpialdi esanguratsu ditugu:
  - 1906-1921 tartean, intentsitate ertaineko jaitsiera jarraitua antzematen da: hamabost urtean, 1906ko %41,0tik 1921eko %36,9ra jaisten da lehen hizkuntzan euskarak duen pisua.
  - 1921-1936 bitartean ia gelditzeraino moteltzen da euskararen ordezkatzeko-prozesua: %36,9koa zen 1921ean eta %36,2koa hamabost urte geroago. Aipagarria da 1931-1936 tartean parentesi positibo txiki bat erakusten duela 1906-1971 galera aldi luze eta sakonaren barnean.
  - 1936-1971 tartean galera jarraitu eta sakona izan zuen euskarak: haur txikien/txikiekiko erabileran %36,2ko pisua izatetik, %17,8 izatera igaro zen. Pisuaren erdia galdu zuen, beraz, belaunaldi bateko tartea baino zertxobait gehiago irudikatzen duen 35 urteko epean.
- 1971tik 1976rako tartean maila bertsuan azaltzen zaigu euskarak lehen hizkuntzan duen pisua, serie guztiko balio minimoenetan, %18aren inguruan.
- Hortik aurrera, berreskuratze prozesu indartsua erakusten dute datuek hurrengo 20 urteetan, 1976-1996 tartean. Epealdi horretan, 1976ko %18,0tik 1996ko %27,2ra igo zen da euskararen pisua lehen hizkuntzan (+%51,3ko hazkunde erlatiboa bi hamarralditan). Igoera handia izan zen, beraz, eta iraun zuen bitartean, intentsitatez, aurreko galera-prozesuaren indarra ia berdintzera iritsi zen, 1986-1996 tartean bereziki.
- XX. mendearen azken urteetan eten zen aurreko bi hamarkadetako indarberitze-prozesua. Azken faseko datuek, izan ere, nolabaiteko egonkortzea erakusten dute 1996-2021 aldirako: euskararen pisua 1996ko %27,2tik 2021eko %26,5ra pasatu da Hegoaldeko haur txikien/txikiekiko erabileran<sup>238</sup>.


---

<sup>237</sup> Jaitsiera prozesu hori lehenagotik zetorren (Intxausti, 1990; Zalbide, 2004, 2007b); gure datuak, ordea, ez dira atzerago iristen.

<sup>238</sup> 2011., 2016. eta 2021. urteko datuak behin-behinekoak dira, metodologia-atalean azaldu dugun bezala.



**G.28. GRAFIKOA: LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN DUEN PISUA, UDALERRIAK XX. MENDEAREN HASIERAN EUSKARAK ZUEN PISUAREN ARABERA BI MULTZOTAN BANATUTA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1906-2006 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko HZetatik abiatuta. Zehazki, HZ-005 eta HZ-213 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.4. eta 9.8.4. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**Oharra:** adierazlea eraikitzeke erabili dugun metodologiagatik, aztertu nahi den errealitatearekiko alboratzeak egon daitezke (ikus metodologia-atala).

Bilakaera prozesu hori lurralde eta eremu bakoitzean nola gertatu den aztertzea zeregin interesgarria da aurrera begira, bilakaera joerak ez baitatoz guztiz bat lurralde osoan. Oraingoz oinarritzko banaketa bat eginda bilakaera zein izan den erakusten da G.28. grafikoan. Bertan, bi eremu handitan banatzen da Hegoaldea: batetik, aztertutako epealdiaren hasieran euskarak bizi-indar minimo bat zuen lurralde eremua, eta bestetik, gainerako lurralde eremua; bi multzo horiek egiteko orduan, XX. mende hasieran euskarak udalerrri bakoitzean jaiotakoen lehen hizkuntza izandako pisua erabili dugu<sup>239</sup> (metodologia-ataleko M.3. mapan irudikatzen dira bi multzo horiek

<sup>239</sup> Zehazki, XX. mende hasierako egoera aintzat hartuta, bi multzotan banatu ditugu Hegoaldeko udalerrriak: batetik, XX. mende hasieran euskarak bizirik jarraitzen zuen eremua bildu nahirik, bertan bildu

lurraldean). G.28. grafikoan, 1906-2006 bitarteko 100 urteetan bi lurralde-eremu horietan haurren lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisuaren bilakaera erakusten da. Bertan ikus daitekeenez:

XX. mende hasieran euskarak bizi-indar minimo bat zuen lurraldean, %80,4koa zen euskararen pisua bertan jaiotako haurren lehen hizkuntzan 1906. urtean. Bestela esanda, haur txikiekiko erabileran, erabateko nagusitasuna zuen euskarak geografikoki trinkoa eta (ia) etenik gabea zen udalerrri multzo zabal horretan. Aurrerago ikusiko dugun bezala, XX. mende hasieran lur-eremu hori ia bere osotasunean joenezake euskararen arnagunetzat<sup>240</sup>. Hortik aurrera, galera-prozesu etengabea erakusten dute gune euskalduneko urtez urtekako datuek. Galera hori gutxi-asko joera orokorrean zehaztu den epealdi eta erritmoetan gertatzen da, 1971ko %40,9ko minimora iritsi arte. Hegoalde osoko bilakaeraz aritu garenean aipatu dugun 1976-1996ko aldi positiboa ere argi nabari da eremu euskaldunean, baina bilakaera hori ez zen hain garrantzitsua izan termino erlatiboetan: 1906-1971ko galera-fasean galdutakoaren laurdena inguru besterik ez zen berreskuratu euskararen alde. Hogei urteko parentesi positiboaren ondoren, 1996tik aurrera, galera-prozesua berriro jarri zen abian, eta 2006. urteko balioak serieko apalenetakoak dira (ez dugu datu berriagorik).

Eremu erdaldunduan (1906. urterako euskarak lehen hizkuntzan %20tik beherako pisua zuen udalerrri multzoan zehazki), bertako haurren H1en euskarak izan duen pisua oso txikia izan da 1906-1971 urte bitartean, %5,0tik beherakoa beti. Pentsatzekoa da eremu horietan euskaraz hazitako haurren artean izango ditugula, oraingoz zehaztu ezin dugun proportzioetan, batetik, euskara guztiz galdu gabe zegoen udalerritako familia euskaldunetako hainbat seme-alaba; eta bestetik, Euskal Herriko eskualde euskaldunagoetatik etorritako familien seme-alabak. Joan den mendeko 70eko hamarkadatik 2006. urtea bitarte, ordea, etenik gabeko igoera erakusten du euskararen pisuak, joan den mendeko 80ko hamarkadan bereziki; hortik aurrera ere, apalago bada ere, igotzen jarraitu zuen 2006ko %13,0ra iritsi arte. Beraz, zonalde euskaldunean 1996tik aurrera antzeman den geldialdia eta itzulbiratzea ez da antzeman 2006 arteko datuetan eremu erdaldunduko bilakaeran, eta eskura dugun azken datu hori da, 2006. urtekoa, landu dugun denbora-serie osoko altuena.

### **13.1.2. Euskal Herri osoko ikuspegiaren bila; 1916-2001 bilakaera, ISLren arabera**

Orain arte Hegoaldeko zentsuetan oinarrituta aztertu dugu epe luzeko H1en bilakaera. Lanketa hori egiteko, zentsuak dira iturri egokiena, gaiaren inguruko informazioa biltzen duen beste iturria, ISL, laginetan oinarritzen delako eta horrek lurralde mailako ustiaketak egiteko aukera mugatuagoak eskaintzen dituelako. Zentsuetako informazioak, ordea, kanpo uzten du Ipar Euskal Herria. Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako eta Euskal Herri osoko ikuspegiaren bila, zentsuko datuekin erabilitako

---

ditugu, zentsuetako datuen arabera, 1904-1908 bitartean jaiotakoen artean euskarak lehen hizkuntzan %20koa baino pisu handiagoa izan zuten udalerriak. Eta bestetik, XX. mende hasieran euskarak toki txikia edo hutsaren hurrengo zuen Hego Euskal Herriko eremua bildu nahirik, bertan batu ditugu garai horretan jaiotakoen artean euskarak lehen hizkuntzan %20ko pisua edo txikiagoa izan zuten udalerriak.

<sup>240</sup> Zehazki, hurrengo puntuan ikusiko dugun bezala, udalerrri multzo horretan jaiotako haurren %78,5 arnagune izaera zuten udalerrietan jaio ziren 1906. urtean.

irizpide metodologiko berdintsuak erabilia<sup>241</sup>, ISLko datuak landu ditugu. Emaitzak T.149. taulan eta G.29. grafikoan aurkeztu ditugu.

Bertan ikus daitekeen bezala, gainerako euskal lurraldeek baino are ibilbide ikusgarriagoa egin du Iparraldeak. Datu horiek ikusita esan daiteke hizkuntzaren suntsitze-prozesua bereziki larria izan dela bertan. ISLk eskaintzen digun denbora-seriearen barnean, 1916. urtearen inguruan jaiotako hiztunen artean %64,0ko pisua izan zuen euskarak lehen hizkuntzan. Serieko lehen urte horretan Ipar Euskal Herria Hegoaldea baino dezente euskaldunagoa zela erakusten dute, besteak beste, datuek. 1921etik aurrera, ordea, jaitsiera azkarra eta (ia) etenik gabea izan zela erakusten dute Iparraldeko datuek. Jaitsiera-prozesu hori azkartu egin zen, gainera, XX. mendearen bigarren erdialdean. Azken datuaren arabera, 1996. urte inguruan Iparraldean jaiotakoen artean %12,3koa izan zen euren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua. Horiek horrela, zortzi hamarraldiren buruan, euskara lehen hizkuntzan nagusi izatetik oso bigarren mailakoa izatera pasatu da, hasieran zuen pisuaren lau bostenak galduta.

Gainontzean, ISLko datuak bat datoz zentsuetakoek erakusten dituzten joera nagusiekin.

---

<sup>241</sup> Zentsuko datuak hiztunen jaioterria aintzat hartuta eraiki ditugu. ISLk ez digu horretarako aukera ematen, eta hiztunen bizitokia aintzat hartuta egin dugu lan.


**T.149. TAULA: EUSKAL HERRIAN JAIOTAKO HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK BATEZ BESTE IZAN DUEN PISUA, JAIOTZE URTEAREN ETA BIZITOKIAREN ARABERA, 1916-2001 (%EK EREMU ETA URTE-TARTE BAKOITZAREN BARRUAN EUSKARAK LEHEN HIZKUNTZAN BATEZ BESTE IZAN DUEN PISUA ADIERAZTEN DUTE)**

	Nafarroa			EH
	EAE	G.	Ipar EH	
1916 (1911-1920an jaiok)	55,3	14,2	64,0	<b>45,0</b>
1921 (1916-1925ean jaiok)	49,6	13,9	64,3	<b>42,1</b>
1926 (1921-1930n jaiok)	43,4	14,4	61,3	<b>38,9</b>
1931 (1926-1935ean jaiok)	41,5	13,5	60,1	<b>37,6</b>
1936 (1931-1940an jaiok)	42,9	13,4	55,3	<b>37,5</b>
1941 (1936-1945ean jaiok)	42,5	12,9	52,9	<b>36,2</b>
1946 (1941-1950n jaiok)	39,7	11,4	53,2	<b>33,7</b>
1951 (1946-1955ean jaiok)	34,2	10,8	49,2	<b>29,8</b>
1956 (1951-1960an jaiok)	30,0	10,6	43,0	<b>26,7</b>
1961 (1956-1965ean jaiok)	25,8	9,0	38,2	<b>23,0</b>
1966 (1961-1970n jaiok)	20,6	7,5	34,1	<b>18,7</b>
1971 (1966-1975ean jaiok)	19,5	7,7	29,9	<b>17,8</b>
1976 (1971-1980n jaiok)	20,1	8,0	25,0	<b>18,1</b>
1981 (1976-1985ean jaiok)	20,4	7,9	21,0	<b>17,9</b>
1986 (1981-1990n jaiok)	21,9	8,1	17,2	<b>18,7</b>
1991 (1986-1995ean jaiok)	25,9	8,6	13,2	<b>21,4</b>
1996 (1991-2000n jaiok)	29,1	8,2	12,3	<b>22,9</b>
2001 (1996-2005ean jaiok)	28,6	8,5		<b>22,8</b>

Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: jaiotza-hamarkada eta administrazio-eremu bakoitzerako lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisua tasa esleituen prozeduraren bidez kalkulatu dugu. Ustiaketa hori egiteko, ISLk 1991-2016 bitarteko edizio guztietan egindako azterketen datu metatuak erabili ditugu. Datuak hamar urteko multzoetan ustiatu ditugu lagin neurri txikiak saihesteko. 1916 baino lehenagoko daturik ez dugu eskaini, ezta 2001ekorik ere Iparralderako, azpilaginen neurri txiek adierazgarritasun-arazoak sortzen zituztelako. Administrazio-eremuak inkesta egin zen uneko bizitokia jasotzen du, ez hiztunen jaiotza-lekua.

**G.29. GRAFIKOA: EUSKAL HERRIAN JAIOTAKO HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK BATEZ BESTE IZAN DUEN PISUA, JAIOTZE URTEAREN ETA BIZITOKIAREN ARABERA, 1916-2001 (%EK EREMU ETA URTE-TARTE BAKOITZAREN BARRUAN EUSKARAK LEHEN HIZKUNTZAN IZANDAKO PISUA ADIERAZTEN DUTE)**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** jaiotza-hamarkada eta administrazio-eremu bakoitzerako lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisua tasa esleituen prozeduraren bidez kalkulatu dugu. Ustiaketa hori egiteko, ISLk 1991-2016 bitarteko edizio guztietan egindako azterketen datu metatuak erabili ditugu. Datuak hamar urteko multzoetan ustiatu ditugu lagin neurri txikiegiak saihesteko. 1916 baino lehenagoko daturik ez dugu eskaini, ezta 2001ekorik ere Iparralderako, azpilaginen neurri txikiek adierazgarritasun-arazoak sortzen zituztelako. Administrazio-eremuak inkesta egin zen uneko bizitokia jasotzen du, ez hiztunen jaiotza-lekua.

## 13.2. HEGOALDEKO H1EN ARABERA, NAGUSITASUN-EREMUEK IZAN DUTEN BILAKAERA, 1906-2016

✓ *Nola aldatu dira arnasmuneak eta, oro har, nagusitasun-eremuak XX. mendean?*

### 13.2.1. Zentzurik ba al du nagusitasun-eremuen eta arnasmuneen mende bateko bilakaera haurren H1en oinarrituta aztertzeak?

Argitu dezagun hemen aurkeztuko dugun sailkapena ez datorrela guztiz bat etxeko erabileran oinarrituta nagusitasun-eremuez<sup>242</sup> 18. kapituluaz azalduko dugunarekin. Izan ere, haurrei transmititzen zaien Lehen Hizkuntza (H1) eta Etxeko erabilera (EE) elkarrekin loturik azaltzen zaizkigun aldagaiak izanda ere, harremana ez da beti lineala eta, ordezkatzeko edo indarberitze-prozesua zein puntutan dagoen, aldatu egiten da. Oro har, hizkuntza gutxitua atzeraka doan garaian, ordezkatzeko indartsua nagusi den aldietan, hizkuntza gutxituko gurasoen sail handi batek euren hizkuntza ondorengoei

<sup>242</sup> Nagusitasun-eremu esaten diegu udalerrien euskalduntasun-maila aintzat hartuta sortu ditugun udalerrimultzoek, eta bertako hiztunen erabilera-mailaren arabera eraiki ditugu (ikus 9.8.2. puntua).

ez transmititza erabakitzen du. Hori horrela denean, etxeko helduek hizkuntza gutxitua erabil dezakete oraindik euren artean, belaunaldikideekin edo zaharragoekin aritzeko, baina ez seme-alabekin mintzatzeko. Ondorioz, egoera horietan, hizkuntza gutxituak pisu handiagoa izango du etxeko hizkuntzan haur txikien lehen hizkuntzan baino. Pentsatzekoa da hori izango zela Euskal Herriko egoera 1910 edo 1950 inguruan adibidez. Ez dugu, ordea, hori kuantitatiboki egiaztatzeko daturik.

Gure egungo egoera bai zehaztu dezakegu datuen bidez. Eta esan dezakegu aipatu dugun egoeraren bestelakoa adierazten digutela datuek: gehiago da euskarak duen pisua haur txikiekiko erabileran etxeko erabileran baino. 2011ko Hegoaldeko datuak erabilia, adibidez, hauek dira euskarak duen pisua adierazten duten ehunekoak:

- EEn euskarak duen pisua: %14,9
- Hurrekiko erabilera, jaio eta lehen 3 urteetan: %24,8<sup>243</sup>

Egoera hori bera aurkitzen dugu gaiari buruz ditugun zentsu guztietan, 1991tik aurrerako guztietan alegia (EEren gaineratik azaltzea haur txikiekiko H1). Haur txikien H1 eta EE guztiz bat ez etortze horren ondorioz, hemen 1991 eta 2001erako aurkeztu ditugun datuak 18. kapitulukoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu udalerririk nagusitasun-eremura biltzerakoan, multzoen neurria aldatu egingo dela multzokatze hori EEn oinarrituta egin edo hurrekiko H1en oinarrituta egin. Laburtuz: euskararen nagusitasunezko multzoak handiagoak azaltzen zaizkigu irizpide gisa haur txikiekiko erabilera hartuz gero, eta erdarazko nagusitasunezkoak handiagoak multzokatzea EEn oinarrituta eginez gero 1991-2011 tarterako.

Horiek horrela, guztiz bat ez datozen bi serie ditugu: EEn oinarritutakoa 1991-2011 bitarterako eta hurrekiko H1en oinarritutakoa 1906-2016 aldirako. Bien arteko harremana, gainera, ez da lineala, eta pentsatzekoa da garaiaren arabera aldatu egingo zela: ziur aski, aztertu dugun epearen lehen 60-70 urteetan euskararen etxeko erabilera haur txikiekiko erabileraren gaineratik egongo zen, eta XX. mendeko 70eko hamarkadatik aurrera alderantziz gertatuko zen. Edonola ere, bi serie horietako bakoitzak bere aldetik ematen digu euskarak etxe giroan izan duen nagusitasunaren eta horren bilakaeraren berri. Eta ikuspegi luzea lantzeko haurren H1i buruzko informazioa besterik ez dugunez, behin argitzapen metodologiko hauek eginda, horren gainean egingo dugu nagusitasun-eremuen eta arnaguneen mende bateko bilakaeraren azterketa. Pentsatuz haurrei transmititzen zitzairen hizkuntza ere ez zela orokorrean etxeko eta ingurune hurbileko hizkuntzatik hain urruti ibiliko. Hots, daukagun bakarria izateaz gain, baliozko adierazlea dela euskarak familiako eta inguru hurbileko harremanetan izan zezakeen pisuaz aritzeko.

### **13.2.2. Nagusitasun-eremuen eta arnaguneen bilakaera Hegoaldean, azken mendeko ikuspegia**


Zer-nolakoa izan da azken mendean nagusitasun-eremuen bilakaera Hegoaldean, eremu horiek garai bakoitzeko haur txikien H1n oinarrituta eraikiz gero? Galdera horri erantzuteko informazioa T.86. taulako eta G.30. zein G.31. grafikoetako datuetan bilatuko ditugu.

---

<sup>243</sup> Bi kopuru horien artean gelditzen da hiztun guztien H1en euskarak izan zuen pisua: %18,2.

Serie osoaren bi muturrei begiratuta, aldeak agerikoak dira. Haur txikiak erabileran euskara nagusi zen eremuetan jaio ziren 1906an Hegoaldeko haurren %37,5; mende bat geroago, 2006an, laurdenera jaitsia zen kopuru hori, %8,9ra zehazki. Aldeak are handiagoak dira nagusitasunik handiena duten eremuak hartuta: lehen hizkuntzan euskararen pisua %80tik gorakoa zuten udalerrietan jaio ziren Hegoaldean 1906. urtean munduratu ziren haurren herena, %33,0 hain justu. Euskarak hain nagusitasun handia duen udalerriak desagertu egin dira ia guztiz mende batean; 2006. urtean jaiotako haurren %0,8 besterik ez ziren jaio ezaugarri hori betetzen duten udalerrietan. Mende osoko perspektiban, hori da ahuldu den udalerrri mota bakarra. Gainerako kategoria guztiak igo egin dira, erdararen nagusitasuna adierazten duten biak gehienbat.


**G.30. GRAFIKOA: JAIOTAKO HAURREN BANAKETA, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA (NAGUSITASUN-EREMUAK, HAUR TXIKIEN H1-EN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA KALKULATUTA). HEGOALDEA, 1906-2006 (%).**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, ISL-212 adierazlea baliatu da (azalpenak, metodologia-ataleko 9.8.3 puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**Oharrak:** adierazlea eraikitze erabili dugun metodologiagatik, aztertu nahi den errealitatearekiko alboratzeak egon daitezke (ikus metodologia-atala).

**G.31. GRAFIKOA: NAGUSITASUN-EREMUEN BILAKAERA, URTEZ URTE BERTAN JAIOTAKO HAUR KOPURUAREN ARABERA (NAGUSITASUN-EREMUAK, HAUR TXIKIEN H1-EN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA KALKULATUTA). HEGOALDEA, 1906-2006 (%).**




**Iturria:** egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, ISL-212 adierazlea baliatu da (azalpenak, metodologia-ataleko 9.8.3 puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**Oharrak:** adierazlea eraikitzeke erabili dugun metodologiagatik, aztertu nahi den errealitatearekiko alboratzeak egon daitezke (ikus metodologia-atala).

Euskal nagusitasunezko eremuen suntsitze-prozesu horren epekatzea bat dator, orokorrean, haurren H1en bilakaeraren aldiekin: galera prozesu jarraitu eta indartsu bat izan zen 1906tik 1971 ingurura arte; hortik aurrera, euskal nagusitasunezko eremuek gorako joera oso mugatua izan zuten, 1996 ingurura arte, eta hortik aurrera berriz ere beherako joera erakutsi dute. Taula eta grafiko hauek irakurketa dezente egiteko modua ematen dute. Lasaiago ikusiko ditugu hainbat alderdi, grafiko partzial berrien laguntzaz.



**G.32. GRAFIKOA: NAGUSITASUN MULTZO XEHEEN BILAKAERA, JAIOTAKO HAUR KOPURUAREN ARABERA (UDALERRIEN MULTZOKATZEA, BERTAN HAUR TXIKIEN H1-EN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA KALKULATUTA). HEGOALDEA, 1906-2006 (%).**




**Iturria:** egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, ISL-211 adierazlea baliatu da (azalpenak, metodologia-ataleko 9.8.3 puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**Oharrak:** adierazlea eraikitzeke erabili dugun metodologiagatik, aztertu nahi den errealitatearekiko alboratzeak egon daitezke (ikus metodologia-atala).

### 13.2.2.1. Euskararen nagusitasun-eremuen bilakaera, arnasmune bete eta erasanen bilakaera.

Jar diezaiogun orain arreta arnasmuneen bilakaerari. Atal metodologikoan azaldu dugun bezala, erabileran euskara nagusi duten udalerriak hartuko ditugu arnasmunetzat, euskararen pisua %60tik gorakoa den udalerriak zehazki. Kasu honetan, hurrekiko erabileran langa hori gaintzen duten udalerriak joko ditugu arnasmunetzat. Horrela, hurrekiko erabileran euskarak %60tik gorako pisua zuten eremuen bilakaera erakusten dugu G.33. grafikoan. Irudiak argi islatzen du aztertu dugun epealdian beherako joera bortitza izan dela oro har. Euskararen nagusitasuneko eremuak, arnasmuneak, 1906an jaiotza guztien %37,5 biltzetik, 2006an %8,9koa izatera iragar dira. Horren harira, hainbat iruzkin:

**G.33. GRAFIKOA: ARNASGUNEEN BILAKAERA, NAGUSITASUNAREN ARABERA, MULTZOKATZE XEHEAN OINARRITUTA. (UDALERRIEN MULTZOKATZEA, BERTAN HAUR TXIKIEN H1-EN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA KALKULATUTA). HEGOALDEA, 1906-2006 (%AK HEGOALDEAN JAIOTAKO HAUR GUZTIEKIKO DIRA).**



Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, ISL-211 adierazlea baliatu da (azalpenak, metodologia-ataleko 9.8.3 puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharrak: adierazlea eraikitze erabili dugun metodologiagatik, aztertu nahi den errealitatearekiko alboratzeak egon daitezke (ikus metodologia-atala).

Jaitsiera hori nagusitasun handiko gune trinkoenetan gertatu da batez ere, arnasmune beteetan, Mikel Zalbideren terminologiak baliatuz (2019a). Arnasmune beteetan izan da, gainera, galerarik handiena. Horrela, euskararen erabilera ia erabatekoa zuten eremuetan (%90etik gorakoa) jaio ziren 1906. urtean Hegoalde osoan jaiotako bost haurretatik bat baino gehiago (%21,8). Multzo horren neurriak eutsi egin zion 1921. urtea arte. Hortik aurrera multzo horren neurria murriztuz joan zen, eta murrizketa asko areagotu zen 1936tik aurrera, 1951-1966 hamabostaldian batez ere. 1966an, jada, haur jaioberrien %0,9 besterik ez zen jaio tankera horretako udalerrietan. Hurrengo bi hamarkadetan kopuru horren bueltan ibili zen, 1981-1991 bitarteko susperraldi txiki batekin, baina neurri oso txikietan beti. Azkenik, ezaugarri horiekin gelditzen ziren udalerrri gehienak galdu egin ziren 1996-2001 bitartean, eta seriearen azken urtean, ia ez da gelditzen tankera horretako udalerririk Hego Euskal Herri osoan: 2006an jaiotako %0,2 besterik ez zen jaio euskararen pisua H1en %90etik gorakoa zen udalerrietan. Arnasmune beteetan barruan, hurrengo multzoari erreparatuz, haur txikien/txikiekiko erabilera %80-%90 bitartekoa zuten udalerrien multzoari, hor ere galerak handiak izan dira XX. mendean. Orokorrean, euskal nagusitasun handieneko eremuen agortze/suntsitze prozesu bera gertatu da multzo horretan ere. Susperraldi txiki bat ere izan zen 1971-1996 bitarteko bosturtekoan, udalerrri horietan jaiotako pisua %1,9tik %4,2ra igo baitzen. 2001. urtean, ordea, berriro beherako joera nagusitu zen eta 2006. urtean Hegoaldean jaiotako haur guztien %0,6 besterik ez zen jaio bertako haur txikiekiko erabilera euskarak %80-%90 bitarteko pisua zuen udalerrietan. Arnasmune bete guztietan jaiotakoak zenbatuta, 1906an jaiotako guztien %33,0 biltzetik, mende bat geroago %0,8 izatera igaro ziren.

Goazen orain euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrietara, haur txikien/txikiakiko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa denetara, arnagune erasnetara Zalbideren terminologian (2019a). Multzo hori ez da hainbeste aldatu neurritz azken mendean: %5aren inguruko pisua izan zuen XX. mendeko 3 lehenengo hamarkadetan, eta %7-%10 bitartekoa hortik aurrera. Multzo hori sartu-irten askoko multzoa izan da, eta XX. mende hasieran multzo horretan zeuden udalerriak oro har euskararen nagusitasuna galduz joan dira eta, beraz, multzo horretatik atera egin dira urteek aurrera egin ahala. Era berean, ordea, euskararen nagusitasuna ahultzearekin batera arnagune beteen multzoa uzten zuten udalerriak multzo hau handituz joan izan dira. Aipagarria da, bestalde, 1996-2001 urteetan izan zuen susperraldi txikia<sup>244</sup>, nahiz eta badirudien hortik aurrera ez zaiola susperraldi horri eutsi. Mende osoko ikuspegian, 1906ko %4,5etik 2006ko %8,1era igo da arnagune erasanen pisua.

Laburtuz: euskararen nagusitasunezko multzoak, arnaguneak, izugarri ahuldu dira XX. mendean. Arnagune beteak, zehazki, kopuru ohargarria izatetik ia suntsitzera iritsi dira mende bateko epean. Horrekin batera, arnaguneen barne-osaera aldatu egin da: arnagune beteak ia desagertu egin dira eta gelditzen diren eremuak nagusitasun apalagokoak dira.

#### 13.2.2.2. Erdara nagusi den eremuen bilakaera.


Erdara nagusi den eremuetan ere izan da aldaketarik azken mendean. Aldaketa horiek ez dira izan euskarazko nagusitasun-eremuetakoek pairatu dituztenak bezainbestekoak baina hainbat joera argi ikusten dira:

Multzo orokor gisa hartuta, hasieratik jada nagusi ziren erdal nagusitasuneko eremu horien pisua asko handitu da epealdi osoan, 1906ko %54,9tik 2006ko %81,2ra. Hala ere, hazkunde hori 1906-1971 tartean gertatu zen; 1971n jo zuten gailurra erdal nagusitasunezko eremuek: jaiotako haur guztien %84,1 horietan jaio ziren. 1971n hazkunde hori eten egin zen eta egonkor samar egon ziren eremu horiek 1971-1991 bitartean; 1996-2001 jaitsi egin zen horien pisua, baina 2006. urtean berriz egin zuen gora, aipatutako %81,2 horretan kokatzeraino.

---

<sup>244</sup> Metodologia-atalean azaldu dugun bezala, litekeena da 1960-1980 aldirako alboratze bat egotea gure datuetan, eta berez 1970-1980 inguruan arnaguneen pisua kopuru hauek adierazitakoa baino txikiagoa izatea, eta horregatik, 1996 inguruko susperraldia ere datu hauek erakusten dutena baino handixeagoa izatea. Azterketa berriek zehaztu beharko dituzte alderdi horiek.

**G.34. GRAFIKOA: ERDAL NAGUSITASUN-EREMUEN BILAKAERA, NAGUSITASUNAREN ARABERA, MULTZOKATZE XEHEAN OINARRITUTA. (UDALERRIEN MULTZOKATZEA, BERTAN HAUR TXIKIEN H1-EN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUAREN ARABERA KALKULATUTA). HEGOALDEA, 1906-2006 (%AK HEGOALDEAN JAIOTAKO HAUR GUZTIEKIKO DIRA).**



Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, ISL-211 adierazlea baliatu da (azalpenak, metodologia-ataleko 9.8.3 puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharrak: adierazlea eraikitzeko erabili dugun metodologiagatik, aztertu nahi den errealitatearekiko alboratzeak egon daitezke (ikus metodologia-atala).

Gaztelania nagusi den eremu horiek osatzen duten multzoaren barruan ere izan da aldaketa adierazgarri azken mendean. Azterketa xeheagoek baieztatu beharko dute esatera goazena, baina badirudi euskararen pisua %20-30 eta %30-40ekoa duten multzoen hazkundea euskararen nagusitasuna handiagoa zuten udalerriak erdalduntzearen ondorioz gertatu dela, eta ez jatorriz erdaldunagoak ziren udalerriak euskalduntzearen ondorioz. Ezin da gauza bera esan bi multzo jatorriz erdaldunen bilakaeraz. Erdararen nagusitasun handiko udalerrien artean, izan ere, 1986tik aurrera udalerri multzo handi bat %10etik behera egotetik %10-%19,9ra igaro da<sup>245</sup>, eta bigarren multzoaren hazkundeak, gainera, jarraitu egin du hurrengo hiru hamarraldietan ere. Ondorioz, multzo xehe guztien artean %10-%19,9ko bigarren multzo hori da 2006. urtean guztietan handiena, 1986tik aurrera %0-%10 multzoari aurrea hartuta. Datu horiek interpretatuz esan daiteke mende hasieran oso erdaldunak ziren gunetan, erdararen nagusitasun handia kolokan jarri ez bada ere, euskara gaur

<sup>245</sup> Grafikoan eta jatorrizko tauletan, 1986-1991 bitartean aldaketa ikusgarri bat gertatu zela erakusten dute datuek: urte batetik bestera eremu erdaldunenean, euskararen pisua %10era iristen ez zen udalerrien multzoan jaiotakoak %62,2 izatetik %32,7ra jaisten dira kolpetik. Bien bitartean, hurrengo multzokoak, euskararen pisua %10-%20 duten udalerrietan jaiotakoak, %2,6tik %34,4ra igo ziren. Aldaketa itxuraz bortitz horren azalpena xumea da: hainbat udalerri, tartean Laudio, Barakaldo eta Bilbo multzoz aldatu ziren tarte horretan. Bilboko udalerrian jaiotako artean, adibidez, haur txikien lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua %9,9koa izan zen 1986. urtean eta %14,4koa 1991n. Hori dela eta, Bilbon jaiotako haur guztiak, "euskararen pisua <%10" multzoan zenbatuak izatetik "euskararen pisua %10-%20" multzoan zenbatuak izatera pasatu ziren. Tankera horretako azalpenak daude atal honetako grafiko batzuetan ikusten diren koska eta bilakaera deigarrien atzean.

egun indartsuago dagoela etxeetan (haur txikiekiko erabileran zehazki) duela mende bat baino.

Orain bukatzen dugun kapitulu honetan, euskararen egoera soziala aztertzeko orduan epe luzeko hurbilpena egin nahi izan dugu; demolinguistikazko datuetan oinarrituta egin ahal izan dugun datu-serie ahalik eta luzeenarekin, mende osoko ikuspegiarekin alegia. Hemendik aurrerako kapitulu guztietan, demolinguistikako iturriek eskaintzen dituzten aukerak landu, eta 1991-2016 aldira mugatuko ditugu nagusiki gure azterketak. Zehazki, ikuspegi luzez kapitulu honetan landu ditugun bi gaietara itzuliko gara aurrerago: hizkuntzaren transmisioari buruz arituko gara 19. kapituluan eta nagusitasun-eremuen azken urteotako bilakaerari buruz 18.ean.



## 14. HIZKUNTZA-GAITASUNA

Lehen hizkuntzan eta lurraldearen nagusitasun-mailan euskararen egoera sozialak XX. mendean izan duen bilakaerara hurbilpen demolinguistikoa egin ondoren, kapitulu honetan eta hurrengoetan atal teorikoan aipatu ditugun ardatzak enpirikoki aztertzeari ekingo diogu, hizkuntza-gaitasunarekin hasita.

### 14.1. AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, 2016

✓ *Zer-nolakoa da Euskal Herriko hiztunen osaera euskara-erdaren hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta?*

Euskal Herriko 16 urtetik gorako biztanleria aintzat harturik, G.35. grafikoan ikus daitekeen bezala, honela banatzen dira hiztunak ahozko hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta, multzo *erdaldunenetik* hasi eta *euskaldunenerako* hurrenkeran:


- Multzo handiena, alde handiz, erdaldun elebkarrek osatzen dute. Gaztelaniaz/frantsesez jakin eta euskara “nahiko ongi” ulertzeko ere gai ez direnak dira Euskal Herriko 16 urtetik gorako herritarren ia bi heren, %63,9 (1.690.500 lagun 2016 urtean).<sup>246</sup>
- Erdaldun hartzaileak %7,8 dira. Hiztun horiek euskara ulertzen dute baina ez dira “nahiko ongi” mintzatzeko gai (205.500 lagun).
- Erdal elebidunak dira hiztunen %12,6. Hiztun horiek bi hizkuntzetan ongi edo nahiko ongi hitz egiten dute baina errazago egiten dute gaztelaniaz/frantsesez euskaraz baino (334.000 lagun).
- Nagusitasunik gabeko elebidunak %8,4 dira. Bi hizkuntzak dakizkitez eta euren esanetan betiere, erraztasun berdina dute batean zein bestean aritzeko (222.000 lagun).
- Euskal elebidunak %7,0 inguru dira. Bi hizkuntzak dakizkitez eta euskaraz errazago moldatzen dira gaztelaniaz/frantsesez baino (184.500 lagun).<sup>247</sup>

<sup>246</sup> Guk lantzen dugun sailkapeneko erdaldun elebkarren eta erdaldun hartzaileen kopuruak ez datoz guztiz bat ISLk eskaini izan dituenekin, ezta guk lehenago argitaratu izan ditugunekin ere (lurrebaso, 2021). Horren arrazoia honako hau da: orain aurkezten dugun sailkapenean, aurreko horietan ez bezala, bigarren hizkuntza ongi edo nahiko ongi ulertzen dutela dioten hiztunak soilik jo ditugu elebidun hartzailetzat, lehenago erabilitako irizpide malguagoak utzi eta terminoaren eduki teorikora ahalik eta gehiena hurbiltzen saiatzeko (ikus metodologia-ataleko 11.2.6. puntua).

<sup>247</sup> 2016ko ISLren datuekin, berez, ez daiteke zehaztu euskaraz erdaraz baino errazago egiten duten hiztunen artean zenbait diren euskal elebidunak, zenbat euskal hartzaileak eta zenbat euskaldun elebkarrek. Hurbilpen bat egin dugu 2001eko datuetan oinarrituta (ikus G.35. grafikoko oharra).

- Euskal hartzaileak %0,2 inguru dira. Euskaraz bakarrik dira ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai, nahiz eta gaztelania/frantsesa ongi edo nahiko ongi ulertu (5.500 lagun).
- Euskaldun elebakarrak, hutsaren hurrengoa dira gaur egun 16 urtetik gorako herritarren artean, %0,2tik gertu. Euskaraz badakite eta ez dira gai gaztelania/frantsesa ongi edo nahiko ongi ulertzeko ere (5.500 lagun).

**G.35. GRAFIKOA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016\* (%)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-001 adierazlea baliatu da (azalpenak metodologia-ataleko 11.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra (\*): 2016ko Inkesta Soziolinguistikoan ez zen galdetu hiztunen gaztelaniazko/frantsesezko hizkuntza-gaitasunaz, eta 16 urtetik gora egon daitezkeen euskaldun elebakar eta hartzaileak euskal elebidunekin batera azaltzen zaizkigu 2016ko emaitzetan. Gure kalkuletarako, eskura dugun datu xehatu berriena hartu dugu aintzat (2001ekoa), eta euskal nagusitasuna duten hiztunen arteko barne-osaera 2001-2016 epean egonkor mantendu dela pentsatuz kalkulatu dugu "euskal nagusitasuneko" hiztunen osaera, eta hiru kategoria horietan banatu.

Tamalez, ez dugu hurrei buruzko daturik, eta ezin, hortaz, Euskal Herriko hiztun guztiak aintzat hartuta daturik eskaini. Zalantzarik gabe, haurrak ere aintzat hartuko lituzkeen estatistikak apur bat *euskaldundu* egingo luke aurreko grafikoak ematen digun irudia, erdal muturra ahulxeago eta euskal muturra indartsuxeago azalduko lirateke eta.

Gainontzean, datuek egitura ezin argiagoa erakusten dute: mutur erdaldunena oso indartsu azaltzen zaigu, hiztun guztien ia bi heren mutur erdaldunenean azaltzen baitzaizkigu (%63,9 dira erdaldun elebakarrak). Aitzitik, mutur euskaldunena (ia) hutsik azaltzen zaigu: hiztunen %0,2 dira euskaldun elebakarrak. Desoreka hori areagotu egiten da elebidun hartzaileak ere aintzat hartuta: kasu horretan ere askoz gehiago dira euskara ulertu arren hitz egiteko gai ez diren hiztunak, gaztelania/frantsesa ulertu eta hitz egiteko gai ez diren euskaldunak baino (%7,8 eta %0,2 hurrenez hurren).



Horrela, bada, sailkapenaren bi multzo erdaldunen pisu handi horren aurrean, hutsaren hurrengo dira bi multzo euskaldunenetan azaltzen zaizkigun hiztunak.


Tartean, hiztun elebidunak ditugu, bi hizkuntzetan ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai direnak. Horien barruan ere eskailera mailakatu bat ageri da: zenbat eta talde “erdaldunagoa”, orduan eta handiagoa; zenbat eta talde “euskaldunagoa”, orduan eta txikiagoa. Horrela, erdal elebidunak dezente gehiago dira gaur egun euskal elebidunak baino (%12,6 eta %7,0 hurrenez hurren).

Laburtuz, 16 urtetik gorako Euskal Herriko hiztunak euren hizkuntza-gaitasunaren arabera sailkatuta, betiere bi hizkuntzak aintzat hartuta eta zazpi kategoriako aldagai ordinal batean sailkatuta, banaketa oso desorekatua azaltzen zaigu erdal muturraren alde. Erdal aldera nabarmen lerratua dagoen banaketa asimetriko baten aurrean gaude, elebitasun sozialaren egoera orekatuek izan ditzaketen banaketa teoriko posible guztietatik urruti.

Balio-banaketa hori bitxia edo arraroa egin ahal zaigu, datuak multzo horietan irakurtzeko ohiturarik ez dugulako eta hizkuntza-gaitasuna aurkezteko azken urteotan erruz erabili izan den sektore-grafikoarekiko bestelako irudia eskaintzen duelako. Bi datu multzo horien arteko aldeak 11.2.6. puntuan azaltzen genituen.

Sintesi ahalegin batean, zazpi kategorien sailkapena euskal/erdal nagusitasunaren araberrako hiru alor nagusitan multzokatuta azaltzen zaigu G.36. grafikoan. Kategorien simetrikotasuna mantenduta, hori da hizkuntza-gaitasuna laburtuz dikotomiara gehien hurbil daitekeen multzokatzea. Aldagai trikotomiko horrek hiru multzotan banatzen ditu hiztunak: hiztunen %84,6k erdaraz bakarrik dakite edo erdarazko nagusitasuna dute; hiztunen %7,4k euskaraz bakarrik dakite edo euskarazko nagusitasuna dute eta %8,4 nagusitasunik adierazten ez duten elebidunak dira. Kopuru absolutuetan, 195.500 lirateke euskal nagusitasunezko hiztunak, 2.230.000 erdal nagusitasunezkoak eta 222.000 nagusitasunik gabekoak. Bi lehenengo kopuruak harremanetan jarrita, erdal nagusitasunezko 11,4 hiztun daude gaur egungo Euskal Herrian euskarazko nagusitasunezko hiztun bakoitzeko. Kontuan hartu behar da, gainera, bi kopuru horiek berez adierazten duten desoreka hori are handiagoa dela multzo bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartzen baditugu: euskal nagusitasuna duten 195.500 hiztun horien artean gehien-gehienak gai dira erdaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko. Erdal nagusitasuna duten 2.230.000 hiztunen artean gehienak, ordea, ez dira gai euskara ulertzeko eta hitz egiteko. Laburtuz, bada, hizkuntza-gaitasunari erreparatuta, desoreka handia dago bi hizkuntzen artean egungo Euskal Herrian.

G.36. GRAFIKOA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, EUSKAL/ERDAL NAGUSITASUNAREN ARABERAKO MULTZOKATZEA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016\* (%)



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-001 adierazlea baliatu da (azalpenak metodologia-ataleko 11.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra (\*): 2016ko Inkesta Soziolinguistikoan ez zen galdetu hiztunen gaztelaniazko/frantsesezko hizkuntza-gaitasunaz, eta 16 urtetik gora egon daitezkeen euskaldun elebakar eta hartzaileak euskal elebidunekin batera azaltzen zaizkigu 2016ko emaitzetan. Gure kalkuletarako, eskura dugun datu xehatu berriena hartu dugu aintzat (2001ekoa), eta euskal nagusitasuna duten hiztunen arteko barne-osaera 2001-2016 epean egonkor mantendu dela pentsatuz kalkulatu dugu "euskal nagusitasuneko" hiztunen osaera, eta hiru kategoria horietan banatu.

Azken iruzkin bat nagusitasunik adierazi ez duten elebidunei buruz. Esan bezala, hiztunen %8,4k adierazi dute ondo hitz egiten dutela bai euskaraz eta bai gaztelaniaz/frantsesez, eta errazago zein hizkuntzatan egiten duten galdetuta, adierazi dute bietan berdin egiten dutela (222.000 hiztun lirateke multzo horretakoak). Zer esan multzo horren inguruan? Hasteko, atal teorikoan esandakoa gogoratu beharra dugu: hiztun elebidunen inguruko ikerketen arabera, benetan arraroa da hiztun batek bi hizkuntzetan gaitasun berbera izatea (Baetens, 1989, Grosjean, 2018). Askoz ere arruntagoa da hizkuntza batez edo besteaz hobeto edo errazago baliatzea hizkuntza erabiltzen den alor bakoitzean. Normalean gehien erabili izan dugun hizkuntzan izango gara trebeagoak. Gure testuingurua ezagututa, pentsatzekoa da bi hizkuntzetan erraztasun berarekin mintzatzen direla adierazi duten hiztun horiei froga baten bidez euren gaitasuna "objektiboki" neurtuko bagenie, ia denek hizkuntza batean edo bestean erakutsiko luketela nagusitasunen bat eta beraietako askok euskarazko nagusitasuna erakutsiko luketela alor batzuetan eta erdarazkoa beste batzuetan. Hipotesi gisa, pentsa daiteke 222.000 hiztun horietako asko, gazteagoen artean gehienbat, izango liratekeela erregistro eta egoera informaletan erdal nagusitasunera lerratuko liratekeen hiztunak eta egoera formalagoetan euskal nagusitasuna erakutsiko luketenak. Edonola ere, etorkizuneko ikerketa enpirikoek frogatu beharko lukete hipotesi hori zuzena ote den.

## 14.2. AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA EUSKAL HERRIAN, 1991-2016

✓ *Zein izan da ahozko hizkuntza-gaitasunaren azken urteotako bilakaera, gaitasun hori "continuum" izaerako fenomeno gisa aztertuta?*

Zertan aldatu da hizkuntza-gaitasunaren araberrako hiztunen banaketa azken 25 urteotan? Hasteko, esan behar da multzoen osaerak funtsezko egitura bertsua erakusten duela aztertu dugun epealdi osoan (ikus T.150. taula eta G.37. grafikoa): erdal muturra indartsu, euskal muturra ahul eta, tartean, pisu ertainez tarteko hiztun-kategoriak. Oinarrizko egitura horri eutsi zaion arren, aldaketak ere izan dira azken 25 urteotan. Hasteko, muturreko talde erdaldunena eta bi talde euskaldunenak ahuldu egin dira:

- Erdaldun elebarraren pisua jaitsi egin da: 1991ko %73,6tik 2016ko %63,9ra. Hauxe da termino absolutuetan gehien txikitu den taldea: ia 10 puntuko galera 25 urteetan; %13,2ko jaitsiera termino erlatiboetan.
- Euskal muturreko bi multzoek, euskaldun elebarr eta hartzaileek, berez zuten pisu txikia are gehiago txikitu zuten 1991-2001 bitartean (ez dugu datu berriagorik): bi multzo horien batura hiztun guztien %1,0 izatetik %0,4ra jaitsi zen hamar urte horietan (-0,6 puntuko galera; -%58,0ko jaitsiera termino erlatiboetan).


Tarteko lau multzoek jaso dituzte muturreko hirurek galdutako hiztunak. Baina ez dira talde guztiak maila berean handitu. Gehien handitu diren multzoak erdal muturretik hurbilen dauden biak izan dira, erdaldun hartzaileena eta erdal elebidunena hain zuzen ere:

- Erdaldun hartzaileen multzoa da (euskara ondo ulertu baina ondo hitz egiteko gai ez diren hiztunak dira hauek) termino erlatiboetan gehien handitu dena, bere jatorrizko pisua ia bikoiztuta: 1991ko %4,0tik 2016ko %7,8ra igaro da.
- Erdal elebidunen multzoa da termino absolutuetan gehien handitu dena. Erdaraz euskaraz baino errazago egiten duten hiztunen multzo hau 1991n %8,5ekoa zen eta 2016n %12,6koa.

Bi multzo horien ondoren, nagusitasunik gabeko elebidunena da handitu den beste multzoa, baina aurreko bi multzoek baino igoera apalagoarekin: %6,2 ziren 1991n eta %8,4 dira 2016an.

Azkenik, ia aldaketarik gabe azaltzen zaigu epealdi osoan euskal elebidunen multzoa (elebidunak izanik euskaraz errazago egiten duten hiztunak dira): %6,7 ziren 1991n eta %7,0 dira 2016an.

**G.37. GRAFIKOA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 1991 eta 2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-001 adierazlea baliatu da (azalpenak metodologia-ataleko 11.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra (\*): 2016ko Inkesta Soziolinguistikoan ez zen galdetu hiztunen gaztelaniazko/frantsesezko hizkuntza-gaitasunaz, eta 16 urtetik gora egon daitezkeen euskaldun elebakar eta hartzaileak euskal elebidunekin batera azaltzen zaizkigu 2016ko emaitzetan. Gure kalkuletarako, eskura dugun datu xehatu berriena hartu dugu aintzat (2001ekoa), eta euskal nagusitasuna duten hiztunen arteko barne-osaera 2001-2016 epean egonkor mantendu dela pentsatuz kalkulatu dugu "euskal nagusitasuneko" hiztunen osaera, eta hiru kategoria horietan banatu.

Datuen irakurketa eta interpretazioa errazte aldera, hizkuntza-gaitasunaren araberako multzo metatuak sortu ditugu. Datuak horrela landuta (ikus T.150. taula eta G.38. grafikoa), hona hemen bilakaera-joerak:

- Gero eta gehiago dira euskara ulertzen dutenak: %26,4tik %36,1era igo dira 1991-2016 tartean (9,7 puntu gehiago hogeitun urtetan, +%36,7ko hazkunde erlatiboa).
- Gero eta gehiago dira, halaber, euskaraz hitz egiteko gai direnak: %22,4tik %28,4ra igo da multzo hori (6,0 puntu gehiago; +%26,7ko hazkunde erlatiboa). Bilakaera-lerro hau da Euskal Herriko demolinguistikan "hizkuntza-gaitasunaren bilakaeraz" aritzerakoan erabili izan dena.
- Euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago moldatzen direnen multzoa ere handitu egin da apur bat, %13,9tik %15,8ra (1,8 puntu gehiago; +%13,1eko hazkunde erlatiboa).
- Euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen direnak ez dira hazi eta maila bertsuan jarraitzen dute: %7,7 ziren 1991n eta %7,4 dira 2016an (0,4 puntu gutxiago; -%4,6ko hazkunde erlatiboa).
- Erdaraz hitz egiten ongi edo nahiko ongi moldatzen ez diren euskaldunen multzoa jaitsi egin zen 1991-2001 tartean<sup>248</sup> %1,0tik %0,4ra (0,6 puntu gutxiago; -59,4ko hazkunde erlatiboa).

<sup>248</sup> Ez dugu 2001a geroztiko bilakaerari buruzko daturik.

- Erdaraz ongi edo nahiko ongi ulertzen ez duten euskaldunen multzoa jaitsi egin zen 1991-2001 tartean<sup>249</sup> %0,7tik %0,2ra (0,5 puntu gutxiago; -71,3ko hazkunde erlatiboa).

Laburtuz: euskal gaitasuna neurtzeko langa zenbat eta “beherago” jarri, orduan eta gehiago igo dira kopuruak; gaitasun hori neurtzeko zenbat eta irizpide trinkoagoa (zorrotzagoa) erabili, orduan eta gutxiago igo dira eta txikitu ere egin dira hiru multzo trinkoenak. Azken batean, euskaraz zertxobait dakiten hiztunen multzo osoa tipula handi bat bezala irudikatuko bagenu (geruza bakoitzak trinkotasun-maila hori irudikatuko lukeelarik G.75. grafikoan erabilera-datuekin egingo dugunaren antzera), irudi hori erabilita esan genezake, batetik, barruko geruzak ez direla handitu (pixka bat txikitu ere egin direla) eta kanpoko geruzak dezente handitu direla bestetik. Harreman hori, gainera, modu linealean agertzen zaigu, T.150. taulako azken zutabeko datuek erakusten diguten bezala: zenbat eta geruza azalekoagoa, orduan eta gehiago handitu da; zenbat eta geruza barrukoagoa, orduan eta gutxiago. Barruko hiru geruzak ez handitzea (eta apur bat txikitzea) alderdi garrantzitsua izan daiteke erabileraren bilakaera ulertzeko orduan, hiztunek errazago eta erosoago zein hizkuntzatan egiten duten, hori alderdi funtsezkoa baita euren hizkuntza-hautuak azaltzeko orduan. Barruko hiru geruza horiei buruz azken ohar bat: erdaraz baino errazago euskaraz egiten dutenen multzoa aztertuta, badirudi trinkotasuna galdu duela azertu dugun epealdian, hiztunak bizi diren nagusitasun-eremua eta euren lehen hizkuntza aintzat hartuta.

---

<sup>249</sup> Ez dugu 2001a geroztiko bilakaerari buruzko daturik.


**T.150. TAULA: AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA ETA GAITASUNAREN ARABERAKO MULTZO METATUAK. 16 URTEK GORAKO HIZTUNAK, EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera (%)
<b>Kopuru absolutuen kalkulua</b>								
Euskaldun elebakarrak	16.443	7.256	4.987	5.735 (*)	5.331 (*)	5.482 (*)	-10.961	
Euskaldun hartzaileak	7.098	5.813	5.121	5.889 (*)	5.474 (*)	5.629 (*)	-1.469	
Euskal elebidunak	159.099	169.821	167.862	193.029 (*)	179.445 (*)	184.520 (*)	25.421	
Nagusitasunik gabeko elebidunak	146.192	184.828	177.009	201.814	218.771	221.754	75.562	
Erdal elebidunak	199.688	223.705	278.956	259.284	305.115	334.142	134.454	
Erdaldun hartzaileak	95.206	206.645	151.430	148.984	168.321	205.487	110.281	
Erdaldun elebakarrak	1.734.723	1.630.028	1.709.298	1.774.895	1.766.541	1.690.409	-44.314	
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.358.449</b>	<b>2.428.096</b>	<b>2.494.663</b>	<b>2.589.629</b>	<b>2.648.998</b>	<b>2.647.423</b>	288.974	
<b>Ehuneak (%)</b>								
Euskaldun elebakarrak	0,7	0,3	0,2	0,2	0,2	0,2	-0,5	-70,3
Euskaldun hartzaileak	0,3	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	-0,1	-29,3
Euskal elebidunak	6,7	7,0	6,7	7,5	6,8	7,0	0,2	3,3
Nagusitasunik gabeko elebidunak	6,2	7,6	7,1	7,8	8,3	8,4	2,2	35,1
Erdal elebidunak	8,5	9,2	11,2	10,0	11,5	12,6	4,2	49,1
Erdaldun hartzaileak	4,0	8,5	6,1	5,8	6,4	7,8	3,7	92,3
Erdaldun elebakarrak	73,6	67,1	68,5	68,5	66,7	63,9	-9,7	-13,2
<b>GUZTIAK</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	0,0	0,0
<b>Multzo metatuak (euskararen ikuspegitik)</b>								
Euskara ulertzen dutenak	26,4	32,9	31,5	31,5	33,3	36,1	9,7	36,7
Euskaraz hitz egiteko gai direnak	22,4	24,4	25,4	25,7	27,0	28,4	6,0	26,7
Euskaraz erdaraz bezain erraz (edo errazago) hitz egiten dutenak	13,9	15,1	14,2	15,7	15,4	15,8	1,8	13,1
Euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten dutenak	7,7	7,5	7,1	7,9	7,2	7,4	-0,4	-4,6
Euskaraz soilik hitz egiteko gai direnak	1,0	0,5	0,4	(*)	(*)	(*)	-0,6	-59,4
Euskara soilik ulertzen dutenak	0,7	0,3	0,2	(*)	(*)	(*)	-0,5	-71,3
<b>Multzo metatuak (gaztelania/frantsesaren ikuspegitik)</b>								
Gaztelania/frantsesa ulertzen dutenak	99,3	99,7	99,8	(*)	(*)	(*)	0,5	0,5
Gaztelaniaz/frantsesaz hitz egiteko gai direnak	99,0	99,5	99,6	(*)	(*)	(*)	0,6	0,6
Gaztelaniaz/frantsesaz euskaraz bezain erraz (edo errazago) hitz egiten dutenak	92,3	92,5	92,9	92,1	92,8	92,6	0,4	0,4
Gaztelaniaz/frantsesaz euskaraz baino errazago hitz egiten dutenak	86,1	84,9	85,8	84,3	84,6	84,2	-1,8	-2,1
Gaztelaniaz/frantsesaz soilik hitz egiteko gai direnak	77,6	75,6	74,6	74,3	73,0	71,6	-3,0	-3,9
Gaztelania/frantsesa soilik ulertzen dutenak	73,6	67,1	68,5	68,5	66,7	63,9	-5,0	-6,8

**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-002 adierazleak baliatu dira (azalpenak metodologia-ataleko 11.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra (\*):** 2006, 2011 eta 2016ko Inkesta Soziolinguistikoetan ez zen galdetu hiztunen gaztelaniazko/frantsesazko hizkuntza-gaitasunaz. Ondorioz, urte horietan ez daitezke bereizi euskal nagusitasuna duten hiru multzoak: euskaldun elebakarrak, euskaldun hartzaileak eta euskal elebidunak. Gure kalkuluetarako, eskura dugun datu xehatu berriena hartu dugu aintzat (2001ekoa), eta euskal nagusitasuna duten hiztunen arteko barne-osaera 2001-2016 epean egonkor mantendu dela pentsatuz kalkulatu dugu "euskal nagusitasuneko" hiztunen osaera, eta hiru kategoria horietan banatu.

**G.38. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA MULTZO METATUETAN. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-002 adierazlea baliatu da (azalpenak metodologia-ataleko 11.2.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Denboran zehar hizkuntza-gaitasunean izan diren aldaketek ondorioak utzi dituzte hiztunen adin multzo batzuek eta besteek duten gaitasunean, berehala ikusiko dugun bezala.

### 14.3. EUSKARAZKO GAITASUNA ETA ADINA

- ✓ ***Zein da hizkuntza-gaitasunaren araberako osaera adina aintzat hartuta?***
- ✓ ***Zer-nolako bilakaera izan da azken 25 urteotan hiztunen hizkuntza-gaitasunean, euren adinari erreparatuta?***

#### 14.3.1. Euskara zaharren gauza izatetik gazteena izatera pasatu da. Adinaren iraultza

Adina aintzat hartuta gertatu diren aldaketa sakonen lehen irakurketa bat egiteko datuak eskaintzen ditugu G.39. eta G.40. grafikoetan, adin multzo bakoitzean euskaraz egiten dakitenek osatzen duten ehunekoaren datuekin. Grafiko horiek irakurrita, esan genezake iraultza txiki bat gertatu dela azken 40 urteotan Euskal Herriko Hegoaldean (ez horrela Ipar Euskal Herrian) eta indar handiagoz EAEn Nafarroa Garaian baino. Zentsuetan euskararen ezagutzari buruz ditugun daturik zaharrenak (1981ekoak EAerako eta 1986koak Nafarroa Garairako) honela laburbil daitezke: zenbat eta belaunaldi gazteagoa, orduan eta ahulago euskara; zenbat eta zaharragoa, orduan eta indartsuago. Egia da 10 eta 44 urte bitarteko adin-talde guztiek ezagutza-maila bertsua erakusten dutela eta “zenbat eta adin gehiago eta orduan eta euskaldun gehiago” hori gehienbat 40 urtetik gorakoen arteko multzoetan ikusten zela. Ez dago, tamalez, datu zaharragorik gaia aztertzeko; ziur aski, 1950 inguruko datuak egongo balira, adibidez, are argiagoa izango zatekeen aipatzen ari garen joera. Dena den, euskaraz zekitenak zentsuetan lehen aldiz zenbatu zirenean ere (1981ean EAEn eta 1986an Nafarroa


Garaian), honako hau izan zitekeen datu horien laburpena esaldi batean eginda: euskarak gehienbat adin-tarte zaharragoen artean zituen hiztun gehiago proportzioan.

Azken datuek, berriz, 2021eko zentsuan argitaratu berri direnek, guztiz iraulitako argazkia osatzen dute EAErako (ikus G.39. grafikoa): zenbat eta gazteagoa belaunaldia, orduan eta gehiago dira euskaraz dakitenak (zenbat eta zaharrago, orduan eta gutxiago). Nafarroari buruzko 2011ko datuek ere (ez dago berriagorik), modu apalagoan bada ere, joera bera erakusten dute, G.40. grafikoa ikus daitekeen bezala.

Belaunaldiz belaunaldi ahultzen ari den eta joerari eutsiz gero hiltzera doan hizkuntza baten argazki gordina erakusten ziguten 1981-1986ko zentsuetako datuek. 2011-2021koek, berriz, euskara indarberritzeko adinka egon litekeen banaketa posibleen artean onena erakusten digute, indarberritze bidean urratsak egiten ari den hizkuntza batena. Euskaraz jakiteak adinka duen pisua irauli egin da azken 40 urteotan Hegoaldean. Ez da berri txarra bizirik jarraitu nahi duen hiztun-komunitatearentzat.

Zentsuetako datu horiek (1981-1986koak eta 2011-2021koak) azken mendean gure herri eta hirietan gertatu diren hiru joera historiko hauen konbinaketaren emaitza gisa uler daitezke: a) Euskararen atzerakada historiko luzea: euskararen aurkako politika aktiboen eskutik eta erdara gero eta prestigiotsuagoa eta beharrezkoagoa egiten zuten modernizazio-prozesuen eskutik, jatorriz bertakoak ziren hiztunen sail handiek euskara albo batera uztera eta belaunaldi berriei ez transmititzera eraman zituena, gorabeherekin baina XIX. mendetik XX.aren azken laurdenera arte gune urbano gero eta populatuagoetan batik bat sendo zabaldu zena, 13. kapituluaren datuen bidez azaldu dugun joera hori bera. b) 1960ko hamarkadaren inguruan Espainiatik Hego Euskal Herrira etorritako migrazio erdaldun ugaria. Eta c) Garai bertsuan indartu zen mugimendu euskaltzalea eta euskara berreskuratzeko egin zen ahalegin sendoa, gizarte osoa euskalduntzen indarra jarri zuena, baina batez ere belaunaldi berriak. Aurrera begirako lanen artean interesgarria litzateke hiru fenomeno horietako bakoitzaren eragina xeheago aztertzea datuen bidez eta euren arteko uztarketa sakonago aztertzea.


**G.39. GRAFIKOA: EUSKALDUNEK OSATZEN DUTEN EHUNEKOA, ADINAREN ARABERA. 10 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, EAE, 1981-2021 (ADIN-TARTE BAKOITZEKO EUSKALDUNEN %A)**



Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: EAeko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2022)]




**G.40. GRAFIKOA: EUSKALDUNEK OSATZEN DUTEN EHUNEKOAK, ADINAREN ARABERA. 10 URTETIK GORAKO HIZTUNAK. NAFARROA GARAIA, 1986-2011 (ADIN-TARTE BAKOITZEKO EUSKALDUNEN %A)**



Iturria: egileak landua. [Jatorrizko iturriak: Nafarroa Garaiko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (NASTAT, 2021b)]

Iparralderako zentsurik ez dugunez, ISLko datuak irakurri ditugu hango berri jakiteko, eta Hegoaldean 1981-1986an datuek erakusten zuten egitura bertsua erakusten dute 1996ko datuak Iparraldean: zenbat eta zaharrago, orduan eta pisu handiagoa euskarak. Egitura bera, beraz, baina adinkako aldeak Hegoaldean baino are handiagoak direla, G.41. grafikoan ikus daitekeen bezala. Daturik berrienenek, 2016koek, joera horrekiko aldaketa adierazgarria erakusten dute 50 urtetik beherako biztanlerian: horien artean, izan ere, joera aldatu egin da eta zenbakizko aldeak oso handiak ez diren arren, dagoeneko pisu handiagoa dute euskaraz dakitenek 16-24 bitarteko gazteenen artean 35-49ko helduen artean baino. Euskaraz hitz egiteko gai diren hiztunen pisua handitzeko joera hastapenetan delako zantzuak ematen dizkigute Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako datu horiek ere.

**G.41. GRAFIKOA: EUSKALDUNEK OSATZEN DUTEN EHUNEKOAK, ADINAREN ARABERA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, IPAR EUSKAL HERRIA, 1996-2016 (%)**




Iturria: egileak landua, 1996 eta 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa abiatuta. Zehazki, ISL-001 adierazlea baliatu da (azalpenak metodologia-ataleko 11.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa*ren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 14.3.2. Gaitasuna, adinaren arabera, nagusitasun-maila ere aintzat hartuta, 2016an

Zentsuko datuak erabili ditugu adinkako azterketa egiteko orain arte Hegoalderako, bi arrazoirengatik: denboran datu-serie luzeagoa dugulako batetik, eta adin-tarteen lanketa xeheagoa egiteko modua ematen duelako bestetik. Hala ere, metodologia-atalean argitu dugu ISLn oinarritutako hizkuntza-gaitasuna dela iturririk egokiena, gaitasunean hiztunen artean dagoen continuum egoerara askoz gehiago hurbiltzen delako zentsuen informazioa baino. Goazen orain, beraz, ISLko datuetan oinarrituta aztertzeraz gaitasunaren egoera, hiztunen adina aintzat hartuta. Hizkuntza-gaitasunari buruzko ISL-001 adierazlea adinaren arabera xehatuta landu dugu G.42. grafikoan. Bertan, adierazle horrek dituen zazpi kategoriak bostera ekarri ditugu, euskal nagusitasunezko hiztunen multzoan bilduz euskaldun elebakarrak, euskaldun hartzaileak eta euskal elebidunak. Horrela egin dugu, 2016ko ISLko datuekin ezinezkoa delako hiru hiztun mota horiek xehe aztertzea.

Grafiko horretan ikus daitekeenez, ageriko aldeak daude adin talde batzuen eta besteen gaitasunaren araberako osieran. Hegoaldeko zentsuekin ikusten genuen joera orokorra berretsi egiten dute ISLko datuek; “zenbat eta gazteago orduan eta euskaldunago”. Aldeak adierazgarriak dira: euskaraz hitz egiten dakitenak %21,4 dira 65 urtetik gorakoen artean eta %55,4 16-24koen artean. Datuek erakusten dute, gainera, eta hori da grafiko honek eskaintzen digun berrikuntza nagusia, “zenbat eta gazteago orduan eta euskaldunago” joera hori antzematen dela, euskara hitz egiteko gai direnen proportzioetan bezala, baita euskarazko nagusitasuna duten hiztunetan ere 65 urtez azpiko hiztunen adin multzoetarako: euskaraz errazago (edo euskaraz soilik) hitz egiteko gai diren hiztunak %5,3 dira 50-64ko helduen artean eta %13,2, berriz, 16-24ko gazteen artean. Belaunaldi zaharrenean oraindik ere euskal nagusitasunezko hiztunen pisu handiagoa aurkitzen dugu 35-64 urteko helduen artean baino, baina gazteenen azpitik.

G.42. GRAFIKOA: HIZKUNTZA GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)



**Iturria:** egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-001 adierazlea baliatu da (azalpenak metodologia-ataleko 11.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** euskal nagusitasunezko hiztunen multzoan ditugu euskaldun elebakarrak, euskaldun hartzaileak eta euskal elebidunak.

Adin-taldekako datuek, orokorrean, euskaldunago erakusten dizkigute adin-talde gazteagoak zaharragoak baino. Alabaina, gaur egun oraindik ere, adin-tarte guztiguztietan erdal nagusitasunezko hiztunak dira nagusi, baita gazteenen multzoan ere. Horrela, adin-tarte euskaldunenari erreparatzen badiogu (16-24 urtekoari), horien artean %76,0 dira gaztelaniaz/frantsesezko nagusitasuna duten hiztunak, hau da, bi hizkuntza horietako bat bakarrik hitz egiten dakitenak edo euskaraz ere hitz egiten jakin arren erdaraz errazago moldatzen direnak; eta horien parean, %13,2 besterik ez dira euskaraz errazago moldatzen direnak (edo euskaraz bakarrik dakitenak). Gazteen artean ere, beraz, gaitasunaren aldetik desoreka dago erdal gaitasunaren alde, ez nolana hiko gainera. Kopuru horiek berez adierazten duten desorekaren neurri handiaz gain, ezin da ahaztu kualitatiboki ere bi multzoak, erdal eta euskal nagusitasunezko bi multzo horiek, ezberdinak direla: erdal nagusitasuna duten gazteen arteko erdiak baino gehiago euskaraz hitz egiteko ere ez dira gai; euskal nagusitasuna duten gehienak izango dira erdaraz ere hitz egiteko gai (tamalez, ez dugu alderdi hori kopuruz zehazteko datu eguneraturik). Garrantzitsua da alderdi horiek guztiak kontuan izatea, gure gazteen egungo erabilera ulertzeko eta baloratzeko orduan.

Hizkuntzen arteko parekidetasun-egoera batetik oraindik urruti, baina, orokorrean, lehenago ere esan dugu hau, berreskuratze-prozesu bat irudikatzen dute gaitasunari buruzko ISLko adinkako datuek. “Zenbat eta gazteago orduan eta euskaldunago” hori garrantzi handiko datu positibotzat jo behar da ez bairik gabe. Argitu beharra dago, ordea, ezin pentsa daitekeela adinka ikusten diren ezberdintasun horien atzean dagoen faktore bakarra azken hamarkadetako bilakaera positiboa denik. Bilakaera positibo hori gertatu da, horretan ez dago zalantzarik. Horretaz gain, ordea, gaitasunaren eta adinaren egungo harreman hori gerta dadin lagundu duen beste prozesu bat ere egon da, ahaztu ez daitekeena: hiztunen hizkuntza-bilakaera. 20. kapituluan arituko gara horretaz, eta bertan ikusiko dugu adinean gora egin ahala jatorriz euskaldunak ziren hiztunen multzo batek euskarazko gaitasunean atzera egin izan duela, askok eta askok euskaraz zuten nagusitasuna galduz eta batzuek euskaraz hitz egiteko gaitasuna ere bai. Joera horrek ere, esan bezala, badu zerikusirik G.42. grafikoan ikusi dugun adinaren araberrako gaitasunaren banaketan.

### **14.3.3. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera, adinaren arabera**

Bilakaera-datuek berretsi egiten dute 2016ko datuak adinka ikusita egin dugun irakurketa: euskalduntzearen prozesuak zuzenean eragin du egungo adinaren araberrako osaeran. Argi ikusten da hori, adibidez, eta modu nabarmenean, G.43. grafikoan adin-tarte gazteenari erreparatuta: 16-24 urte bitarteko gazteen artean, euskaraz dakien multzoa %22,5etik %55,4ra pasatu da 25 urtean (+32,9 puntu gehiago). Hazkunde hori xeheago aztertuta, ikusten da gehienbat erdal elebidunen multzoan gertatu dela hazkundea (+19,6 puntuko igoera): hiztun mota hori ugaritu da gehien gazteen artean. Baina igoera esanguratsuak izan dituzte nagusitasunik gabeko elebidunek (+4,6 puntu) eta euskal elebidunek ere (+8,8 puntu), oraindik ere, gazteen artean euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen direla diotenenek %13,2ko sail ez oso handi bat osatzen duten arren.

Adin-multzoen ikuspegian sakonduz, esan behar da euskaraz errazago egiten duten euskaldunek gazteen artean duten pisua ez dela iritsi oraindik 1991. urtean zaharrenen multzoan zegoen mailara: 65 urtetik gorakoek %16,3k (eta adin horretako euskaldunen %57,3k) euskaraz errazago egiten zuen erdaraz baino. Maila horretara oraindik iritsi ez


den arren, belaunaldi berrietan gertatzen ari den bilakaera noranzko onean doa (eta etenik gabe azken 20 urteotan) eta %4,4tik %13,2ra igo da azken mende laurden honetan euskaraz errazago egiten dutenen multzoa 16-24 urte arteko gazteen artean. Ez neurri berean, baina eremu administratibo guztietan nabaritu da igoera hori: 1991ko %4,9tik 2016ko %18,1era EAEn; %2,0tik %4,4ra Nafarroa Garaian; eta 1996ko %0,4tik 2016ko %1,7ra Ipar Euskal Herrian).

Grafikoko datu ugariari begiratuz, eta euskaldunen pisuak adin-multzo bakoitzean izandako bilakaeran arreta jarritz, esan dezakegu bilakaera arras desberdinak izan dituztela adin-taldeek:

- Bi talde gazteenetan (16-34 urte bitarteko gazteen artean, beraz) handitu egin da euskaldunen multzoa bere osotasunean, eta handitu egin dira horren barruko azpimultzo guztiak: erdal elebidunak (horiek gehien), euskal elebidunak eta baita nagusitasunik adierazten ez duten elebidunak ere.
- 35-49 urtekoen artean, handitu egin da euskaldunen multzoa orokorrean, eta baita bi azpimultzo ere: erdal elebidunak eta nagusitasunik gabeko elebidunak. Euskal nagusitasunezko hiztunen multzoa, ordea, ez da handitu.
- 50-64 urte bitarteko artean txikitu egin da euskal nagusitasunezko hiztunen multzoa modu argian, eta baita ere, neurri apalagoan, euskaldunen multzoa orokorrean hartuta. Aldiz, apur bat gora egin dute erdal elebidunek eta nagusitasunik gabekoek.
- 65 urtetik gorako artean, azkenik, handitu egin da erdaldunen multzoa eta txikitu euskaldunena, euskal nagusitasunezko hiztunen multzoa gehienbat.

Laburtuz, nabarmen euskaldunagoak dira egungo 35 urtetik beherako gazteak duela 25 urtekoak baino. 35-64 urteko helduei erreparatuta, euskaldun gehixeago ditugu gaur egun duela 25 urte baino, baina horien artean euskal nagusitasuneko hiztunak orain gutxiago dira orduan baino. 65 urtetik gorako artean, azkenik, dezente erdaldunagoak ditugu egun adinekoak duela mende laurden baino. Interesgarria litzateke, aurrera begira, adin-multzoen bilakaeraren azterketa hori belaunaldien bilakaeraren luzekako azterketa batekin osatzea.

**G.43. GRAFIKOA: HIZKUNTZA GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikotatik abiatuta. Zehazki, ISL-001 adierazlea baliatu da (azalpenak metodologia-ataleko 11.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** euskal nagusitasunezko hiztunen multzoan ditugu euskaldun elebakarrak, euskaldun hartzaileak eta euskal elebidunak.

Puntu hau amaitzeko, euskal nagusitasunezko hiztun gazteengan jarriko dugu arreta, euren ezaugarrietan, bizi diren testuinguru demolinguistikoan zehazki. ISLko datuen azterketa xume bat egin dugu 35 urtez azpiko euskal nagusitasunezko hiztunen ezaugarrien berri jasotzeko, eta antzeman dugu ugaritzearekin batera, aldaketa handiak gertatu direla multzo horren barne-osaeran.

Hasteko, esan beharra dago, nagusitasun-eremu guztietan, Hegoaldeko udalerrri euskaldunago eta erdaldunagoetan<sup>250</sup>, pisu handiagoa dutela gaur egun euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutela dioten gazteek, duela 25 urte baino, ISLren arabera betiere. Datu ona da indarberritzearen ikuspegitik hiztun mota horren hazkunde orokortua, hiztun mota hori baita euskarara gehien jo ohi duena. Jakina, hiztun horien pisua asko aldatzen da testuinguruaren arabera: gaur egun gehiago argia dira arnaguneetako gazteen artean (%67,0), pisu handia dute nagusitasunik gabeko eremuetan (%47,5) eta gutxiengoa dira erdara nagusi den udalerrietan. Erdararen nagusitasuna handia den udalerrietan, bertako etxeetan euskararen erabilera %20ra iristen ez den horietan, %3,4koa da hiztun horien pisua 35 urtetik azpiko hiztun guztiekiko (ez da ahaztu behar udalerrri mota horretan bizi direla egun hiztun gehien-gehienak).

Duela 25 urtetik hona, esan dugu nagusitasun-eremu guztietan handitu dela gazteen artean euskal nagusitasunezko hiztunek izan duten pisua, ez guztietan maila berean ordea: gutxien arnaguneetan handitu da eta gehien erdararen nagusitasun handiko udalerrietan. Horrekin batera, hiztun multzo horren barne-osaera aztertuta, jaitsi egin da arnaguneetan bizi direnen pisua: arnagune bete zein erasenetan bizi zirenak %58,8 ziren 1991n, eta %21,8 dira 2016an. Erdara nagusi den udalerrietan bizi direnen pisua, berriz, handitu egin da, eta %21,4tik %47,9ra pasatu da 1991-2016 bitartean; nagusitasunik gabeko eremuetan bizi direnen pisua, azkenik, %19,8tik %30,3ra igo da. Ondorioz, batez beste euskal nagusitasunezko gaztea bizi den ingurunea askoz erdaldunagoa da gaur egun duela 25 urte baino.

Ez dugu ukatuko harritu egin gaituela erdara nagusi den udalerrietan hiztun mota hori azaltzeak. Proporzioan asko ez badira ere, datuak kopuru absolutuetan emanda, 16-34 urteko 30.600 gazte lirake erdaraz baino errazago euskaraz egiten dutenak erdara nagusi den udalerrietan (etxeko erabilera %40tik beherakoa duten horietan); horien artean, erdararen nagusitasuna handia den udalerrietan bizi dira 14.300 (etxeko erabilera %20aren azpitik). Zer-nolakoa ote da gazte horien profila? Izan daiteke hiztun horietako batzuk udalerrri euskaldunagoetan jaiotako eta hazitako gazteak izatea, eta gero inguru erdaldunago horietara joan izatea. Izan daiteke, baita ere, eragile sozializatzaile egokien uztarketa egoki batek tankera horretako hiztunak sortu izana baita ingurune erdaldunetan jaiotako eta hazitako artean ere. Edo izan daiteke gazte horiek euren gaitasunaz duten hautematea ez bat etortzea guztiz benetan duten gaitasunarekin. Aipatutako hiru faktoreetatik zerbait egongo da ziurrenik, eta aipatu gabeko beste batzuek ere eragingo zuten horretan; ezin oraingoz argitasun gehiagorik eskaini gai honi buruz. Edonola ere, adi jarraitu beharko da zer-nolako bilakaera duten erdara nagusi den testuinguruetan bizi eta euskaraz erdaraz baino errazago aritzen direla dioten gazte horiek. Printzipioz, testuinguru hurbilak ez die askorik lagunduko euren euskalduntasunari eusten. Eurak ere, jakina, eta hiztun mota horrek ahal duen gehienetan euskaraz aritzeko berezkoa izan duen ezaugarriari eutsiz gero, aktore eraginkor garrantzitsuak izan daitezke euren testuingurua euskaldunagoa izan dadin.

---

<sup>250</sup> Puntu honetan ez dugu Iparralderako daturik. Nagusitasun-eremuak zer diren azaldu dugu metodologia-ataleko 9.8.2.4. puntuan.

## 15. ERABILERA(K)

Kapitulu honetan, euskara-erdaren erabilerari buruz arituko gara. Lehenik, orokorrean euskara zenbat erabiltzen den eta horretan izan den bilakaeraz dakiguna aurkeztuko dugu. Ondoren, ikuspegi xehea eskainiko dugu, erabilera hori rol-harreman eta espazioetan nola gertatzen den aztertuz. Aurrerago, harreman-sareen osaeraz hitz egingo dugu, eta ondoren euskaldunek euskaldunekiko dituzten erabilera-ohiturak aztertuko ditugu. Azken aurreko puntuan, erabilera eta haren bilakaera adinka aztertuko dugu. Eta erabileraren osaeraren azterketarekin bukatuko dugu kapitulua.

### 15.1. EUSKARAREN ERABILERAREN IKUSPEGI SINTETIKOAREN BILA

- ✓ *Zenbat erabiltzen dira euskara-erdarak gaur egungo Euskal Herrian?*
- ✓ *Zehazki, zenbatekoa da hiztun euskaldunen erabilera?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da azken hamarkadetako bilakaera?*

Atal metodologikoan azaldu dugun bezala, Euskal Herriko ISLn rol-harreman eta espazio askotarikoetan egiten duten erabilerari buruz galdetzen zaie elkarrizketatuei. Eta informazio horretatik abiatuta, adierazle bakunak sortu ditugu lehenik eta sintetikoak ondoren. Emaitzak irakurtzerakoan, ordea, aurkako bidea egingo dugu: adierazle sintetikoetatik hasiko gara, orokortasunezko oinarritzko argazki bat sortu nahian, eta ondoren alorkako ikuspegi xeheagoa eskainiko dugu.

#### 15.1.1. Zenbat euskara erabiltzen da gaur?

Ikuspegi sintetiko horren bila, hona hemen hizkuntzen erabilera 2016. urtean zertan zen azaltzeko hiru datu nagusi, ISLtik sortutakoari HEKN-n oinarritutakoa ere erantsita (ikus G.44. eta G.45. grafikoak):


- Hiztunek kalean egiten duten erabileran, %11,1eko pisua izan zuen euskarak 15 urtetik gorako Euskal Herriko hiztunen artean, HEKN-001 adierazlearen arabera.
- Aurrez aurreko harremanetan, 16 urtetik gorako hiztun guztiak aintzat hartuta, euskaldunak eta erdaldunak, %15,3koa da Euskal Herriko euskararen erabilera aitortua 2016. urtean, ISL-404 adierazlearen arabera.<sup>251</sup>

---

<sup>251</sup> Datu honen eta kale-erabileraren datuaren arteko aldea neurtu diren errealitate ezberdinei zor zaie alde batetik, eta bestetik –eta batez ere– erabilitako metodologia ezberdinari. Metodologia-atalean azaldu bezala, behaketa bidez jasotako datuak baino kopuru handiagoak lortu ohi dira Euskal Herrian inkesta bidezko erabilera-datu aitortuetan.

- Hamasei urtetik gorako hiztun euskaldunak soilik kontuan hartuta, ia erdi eta erdi hitz egiten dute euskaraz eta erdaraz aurrez aurreko harremanetan: batez beste %53,8koa da euskararen erabilera eta %46,2koa gaztelania eta frantsesarena, betiere euren erantzunetan oinarrituta<sup>252</sup>.

**G.44. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN ERABILERA KALEAN ETA AURREZ AURREKO HARREMANETAN. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016 (BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



**Iturria:** egileak landua, 2014-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik eta 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, HEKN-001 eta ISL-404 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturriak: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018*; *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


**Oharrak:** Kaleko erabilerari buruzko datuak 15 urtetik gorako hiztunei dagozkie. Aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikoa B motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

Emaitzak interpretatu eta horietan sakondu aurretik, gogora ditzagun datu horien bi muga nagusi. Batetik, landu ditugun bi iturrietako batek, ISL-k, lantzen duen unibertso-definizioak eraginda, gure argazkitik kanpo utzi dugu haurren errealitatea. Haurrak ere aintzat hartuta, apur bat handiagoa izango litzateke euskararen erabilera. Kale-erabileraren kasuan, zehazki, %11,1eko ehuneko hori %12,3ra igotzen da haurrak ere aintzat hartuta. Bestetik, gogoratu beharra dago, metodologia-atalean azaltzen genuen bezala, aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazleak ez duela erabilera orokorra ordezkatzen. Adierazle horretan EZ baitira sartzen garrantzitsuak diren zenbait eremu, hala nola irakaskuntza arloko erabilera edo hedabideen kontsumoa, ikus-entzunezkoena, kultur kontsumoa, Internet eta sare sozialetako erabilera eta aisialdiko gainerako jardueretako erabilera. Edonola ere, G.44. eta G.45. grafikoetako datuek argi uzten dituzte funtsezko bi alderdi:

<sup>252</sup> Kapitulu honetan aurkeztuko ditugun erabilerari buruzko adierazle sintetikoak B motakoak dira, hots, koefiziente finkoen bidez eraikiak. Esan dezagun, kalkuluak A motako adierazle sintetikoaren erara eginda, hau da, hiztun euskaldunen erabileraren batez bestekoak landuta, emaitza antzekoak lortzen ditugula: A motako adierazle sintetikoaren arabera, %14,9koa da euskararen batez besteko erabilera hiztun guztiak kontuan hartuta eta %52,5ekoa euskaldunen batez besteko erabilera (A eta B motako adierazle sintetikoiei buruzko azalpenak 11.4.6. puntuan irakur daitezke).



G.45. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN ERABILERA AURREZ AURREKO HARREMANETAN. 16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016 (BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-404 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.4. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: adierazle hau B motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

- Hizkuntza minorizatua dela euskara: erdaren parean, oso toki urria du euskarak egungo euskal herritarren ahotan. Kaleko erabilera behatua ia zortzi aldiz handiagoa da gaztelaniaren/frantsesaren erabilera euskararena baino; aurrez aurreko harremanetan 5,5 aldiz handiagoa da erabilera aitortua. Nolanahi ere, hizkuntza-gaitasunean ikusten genuen bezala, hizkuntzen arteko oreka-egoeratik urrun dago egungo erabileraren banaketa.
- Aurrez aurreko harremanetako erabilera aztertzeko landu dugun adierazle sintetikoaren emaitzen arabera, batez besteko egungo hiztun euskalduna maila bertsuan aritzen da euskaraz eta gaztelaniaz/frantsesez, ia erdi eta erdi, %53,8 euskaraz eta %46,2 gaztelaniaz/frantsesez datuak zehatz irakurrita. Dena den, pentsatzekoa da euskararen benetako erabilera kopuru horren azpitik egongo dela, honako bi arrazoi hauengatik. Batetik, 8.6. puntuan datu demolinguistiko aitortuen alboratzeaz esan duguna gogoratu nahi dugu: pentsatzekoa da benetan kopuru horiek baino zer edo zer txikiagoa izango dela *benetako* erabilera. 2011ko datuekin egindako azterketa batean ondorioztatu genuen erabilera behatua erabilera aitortua baino %23 inguru gutxiagokoa izan zitekeela (Iurrebaso, 2012b). “Benetako” erabilera zehazteko asmorik gabe, baina kopuru horretara hurbiltzeko behin-behineko saiakera gisa, desbideraketaren %23ko ehuneko hori oraingo datuei aplikatuta, esango genuke aurrez aurreko harremanetako euskaldunen “benetako” euskararen erabilera %41aren inguruan kokatu daitekeela eta %59 inguruan gaztelaniarena/frantsesarena<sup>253</sup>. Bestetik, ezin dugu ahaztu gure adierazle sintetikoak ez duela kontuan hartzen euskararen erabilera bereziki txikia den hainbat alor, hala nola, sare sozialak, Internet, hedabideen edo ikus-

<sup>253</sup> Zuzenketa hori hiztun guztien aurrez aurreko harremanetako erabilerari aplikatuta, egoera horietako erabilera zuzendua %11-%12aren inguruan kokatuko litzateke, kale-erabileraren kopuruetatik hurbil.


entzunezkoen kontsumoa. Errealitate horiek ere aintzat hartuko bagenu, euskararen erabileraren kopuru hori are gehiago jaitsiko litzateke ezbairik gabe. Horrela, bada, pentsa daiteke egungo euskaldunak batez beste gehiago erabiltzen duela gaztelania/frantsesa euskara baino.

### **15.1.2. Euskararen erabileraren bilakaera, 15-16 urtetik gorako hiztun guztiak aintzat hartuta, 1991-2016**

Erabileraren bilakaera orokorrera hurbiltzeko, hiru datu-serie aurkezten ditugu G.46. grafikoan. Datu-serierik orokorrena hartu dugu landu dugun iturri bakoitzeko: aurrez aurreko harremanetako erabileraren bilakaera ISLtik, kaleko erabilera haztatua HEKNtik eta etxeko erabilera HZtik. Hiru datu-serie horiei begiratuta, bilakaera-joera ezberdinak erakusten dituzte:

- HEKNko datuek, bi aldi erakusten dituzte: igoera-fase bat, 1991-2001 bitartean, eta beherako joera hortik aurrera. 15 urtetik gorako hiztunek kalean egiten duten erabilera 1991ko %10,2tik 2001eko %12,1era pasatu zen eta hortik 2016ko %11,1era. 1991-2016 tarte osoa hartuta, +0,9 puntuko igoera erakusten dute datuek.
- ISLko datuetan oinarrituta sortu dugun aurrez aurreko erabileraren adierazleak goranzko joera argi eta jarraitua erakusten du epealdi osorako, 2001eko salbuespenarekin. Serie osoa hartuta, 1991ko %12,4tik 2016ko %15,3ra igotzen da euskararen batez besteko erabilera aurrez aurreko harremanetan (+%2,9 puntuko igoera). Epealdi horren barruan, EHKNko aldiekin nolabaiteko antzekotasun partzialez, biziagoa da erabileraren hazkunde-erritmoa 1991-2006 tartean 2006-2016 tartean baino (+2,1 puntukoa eta +0,8 puntukoa, hurrenez hurren).
- HZko datuek, azkenik, bi aldi erakusten dituzte, baina aldi horiek ez datoz bat aurreko iturriekin: etxeko erabilera jaitsi egin zen Hegoaldean zentsuen arabera, 1991ko %15,5etik 2011ko %14,2ra, eta ondoren igo egin zen 2016ko %14,9ra. 1991-2016 tarte osoa hartuta, -0,6 puntuko jaitsiera erakusten dute datuek.

**G.46. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO, ETXEKO ETA KALEKO ERABILERA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



**Iturria:** egileak landua, 1989-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik eta 1991-2016 Hegoaldeko Zentsuetatik abiatuta. Zehazki, HEKN-001, ISL-404 eta HZ-006 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 9.5., 10. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturriak: EAEko zentsuko datuetarako EUSTAT (2021); Nafarroa Garaiko zentsuetarako *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018*; *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


**Oharrak:** HZ eta HEKNko datuak 15 urtetik gorako hiztunei dagozkie. Aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikoa B motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

Euskararen erabilera-datu eta joera ezberdinak erakusten dituzte, hortaz, grafiko horretan bildutako hiru adierazleek. Saia gaitzen alde horiei logika bat bilatzen, eragiketa eta adierazle bakoitzaren oinarriko ezaugarrietara joz. Zehazki, honako hiru alderdi hauek ikusiko ditugu emaitzetan izan dezaketen eraginaz hausnartzeko: ikerketen unibertsoak, ezaugarri metodologikoak eta kasu bakoitzean ikergai zehatza zein den. Hasteko, bada, errepara diezaiegun azterketa-unibertsoei:

- Ez dago alde aipagarrikerik aurkeztu ditugun hiru datu-serieen adin-unibertsoan: zentsuek eta HEKNk berez 2 urtetik gorako hiztunen datuak aurkeztu ohi dituzten arren, ustiaketa honetarako 15 urtetik gorakoen datuak soilik landu ditugu, eta adin horretatik beherakoak ustiaketatik kanpo utzi; horrela ISLkoekin (16 urtetik gorakoen datuak) alderagarri bihurtzeko.
- Lurralde-unibertsoari dagokionez, ISLk eta HEKNk Euskal Herri osoko datuak eskaintzen dituzten, HZk Hegoaldekoak besterik ez. Horrek azal dezake, hein batean behintzat, HZko datuen lerroa izatea aztertu dugun aldiaren zatirik handienean goian azaltzen zaiguna (Hegoaldea oro har Iparraldea baino erabilera handiagoa baitago). Alderdi horren eragina hutsean uzteko sortu dugu G.47. grafikoa. Bertan hiru adierazle horien bilakaera-datuak erakusten dira, baina azterketa Hegoaldera mugatuta.
- Unibertsoari buruz, azkenik, esan behar da HEKN-n ikerketa egin den garaian Euskal Herriko kaleetan diharduten hiztun guztiak hartzen direla aintzat, bertan bizi diren edo ez kontuan hartu gabe; zentsuetan eta ISLn, berriz, bertan

erroldatuta dauden hitzunek osatzen dute unibertsoa. Oraingoz kuantifikatzea ezinezkoa da zein neurritan, baina alderdi horrek eragin dezake HEKNren emaitzak beste bi eragiketen azpitik egotea.

**G.47. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO, ETXEKO ETA KALEKO ERABILERA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



**Iturria:** egileak landua, 1989-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik eta 1991-2016 Hegoaldeko Zentsuetatik abiatuta. Zehazki, HEKN-001, ISL-404 eta HZ-006 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 9.5., 10. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturriak: EAEko zentsuko datuetarako EUSTAT (2021); Nafarroa Garaiko zentsuetarako *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018*; *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** HZ eta HEKNko datuak 15 urtetik gorako hitzunei dagozkie. Aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikoa B motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

Alderdi metodologikoei erreparatuta, datuen aldeak interpretatzerakoan, eragiketa bakoitzeko ikerketa-teknika aintzat hartu beharra dago lehenik: behaketa sistematikoa HEKNren kasuan, inkesta autoaplikatua zentsuetan eta aurrez aurreko/telefono bidezko inkesta ISLn. Hori aintzat hartuta, metodologia-atalean azaldu dugun bezala, ulergarria da HEKNko datuen lerroa beste bi lerroen azpitik azaltzea, ohikoa baita datu aitortuak datu behatuen gainetik egotea. Alderdi metodologikoen barruan, aipatu beharra dago, halaber, ISL eta zentsuetako datuen kasuan erabilera esleituaren tasak erabili ditugula alderatzen diren bi adierazleetan. Horrek ere, aurreko zentzu berean, erabilera-mailak gora jotzera bultzatzen dezake, HEKNko datu behatuekin alderatuta.

Azkenik, hiru adierazle horietako bakoitzaren ikergai zehatza zein den, hots, aztertutako erabilera-eremua zein den hartu behar da aintzat. Zentsuetan etxeko erabilerari buruz galdetzen da. Kaleko erabileran, normalean, harreman informalek jasotzen direla pentsa daiteke (gehienetan lagun, senide eta auzokoekin ditugunak). Aurrez aurrekoetan, azkenik, harreman informalez gain bestelakoak ere jasotzen dira: lankideekikoak, merkataritzakoak eta zerbitzu publikoetakoak besteak beste. Eta aurrerago ikusiko dugun bezala, euskararen erabilera gehien alor horietan igo denez,

normala da aurrez aurreko erabileraren adierazle orokorrak kaleko erabilerak eta etxeakoak baino joera positiboagoa erakustea euskararentzat. Horrela, bada, hiru iturrietatik sortu diren adierazle sintetikoen emaitzek erakusten duten joera ezberdin horren azalpenaren zati bat hauxe izan daiteke, datu bakoitzak harreman mota jakin bat aztertzen duela.

Hala ere, orain arte aipatu ditugun alderdiek azaldu lezakete iturri ezberdinetako datuen artean dauden aldean zati bat, baina ez alde guztiak bere osotasunean. Alde horretatik, adierazgarria da etxeako erabilerari buruz zentsuek eta ISLk eskaintzen dituzten datuak alderatzea: HZren arabera, etxeako erabilera-tasa esleituak 1991ko %15,5etik 2016ko %14,9ra jaitsi zen Hegoaldean 15 urtetik gorako hiltunen artean; aldiz, ISLn oinarritutako etxeako erabilerari buruzko tasa esleituak 1991ko %14,1etik 2016ko %15,8ra igo ziren 16 urtetik gorako hiltunen artean. Ikergai eta prozedura ez hain desberdinak erabilia, deigarria egiten da bi iturrien arteko aldea.

Horiek horrela, pentsa daiteke, arestian aipatu ditugun alderdiez gain, guk ezagutzen ez ditugun beste faktoreen batzuk ere egon daitezkeela hiru serie horien arteko ezberdintasunetan eragiten. Aurrera begirako lan garrantzitsua izan daiteke euskal demolinguitikarentzat ezberdintasun horien arrazoi posibleak zorrotz aztertzea. Balizko azterketa horrek arreta berezia jarri beharko lieke, gure aburuz, eragiketa bakoitzean erabili diren laginketa-, haztatze- eta inputazio-irizpideei.

Datuen arteko aldean balizko arrazoi metodologikoak aipatuta, eta berriro datuen edukira joz, zer esan dezakegu ikuspegi sintetiko batetik euskararen erabilerak azken 25 urteotan izan duen bilakaeraz? Iturri guztiek adierazten dute aztertu den epealdian ez dela erabateko lurrikararik gertatu erabileraren alorrean: erabileraren oinarritzko egonkortasun bat erakusten dute hiru iturriek. Hortik aurrera, ISLtik tasa esleituakin sortutako adierazleak eskaintzen digu ikuspegiarik baikorrena (+%2,9 puntuko igoera aurrez aurreko harremanetan) eta HZk ikuspegiarik ezkorrena (-%0,6ko jaitsiera etxeako erabileran). HEKNko datuak erdibidean gelditzen dira (+0,9ko igoera kaleko erabileran)<sup>254</sup>. Iturri ezberdinek erakusten duten joera ez guztiz homogeen eta guztiz argitu gabeko hori begi bistan izan beharko dugu datu xeheak irakurtzerakoan, eta ezingo dugu ahaztu erabilerari buruzko adierazle xehe gehienak iturri gisa daturik baikorrenak ematen dizkigun ISL dutela iturburu.

### **15.1.3. Euskaldunen erabileraren bilakaera aurrez aurreko harremanetan, 1991-2016**


Zer esan ikuspegi sintetiko batetik euskaldunen erabileraren bilakaerari buruz? Kaleneurketan ez da jakiten behatutako hiltunak euskaldunak diren edo ez; ezin, hortaz, iturri horretatik galdera horri erantzun. Zentsuetako datuek etxeako erabilera besterik ez dute jasotzen. Horregatik, ISLko datuetara jo dugu eta aurrez aurreko harremanetako erabilerari buruzko datuak baliatuta sortu dugu G.48. grafikoa. Bertan ikus daitezkeenez, euskaldunen erabilera maila bertsuan azaltzen zaigu aztertutako epealdian, aldaketa handirik gabe. Epealdiko muturrak hartuta, 1991ko %55,6tik 2016ko %53,8ra jaitsi da euskaldunen batez besteko erabilera aurrez aurreko harremanetan. Dena den, seriean ikusten diren gorabeherak eta bi muturren arteko

---

<sup>254</sup> Berez, iturrien arteko aldeak are handiagoak dira azterketa Hegoaldeko datuekin soilik eginda: +3,7 puntuko igoera ematen du ISLk, -0,6ko jaitsiera HZk eta, tartean, +1,3ko igoera HEKNk.

alde txikia aintzat hartuta, esan dezakegu euskaldunen aurrez aurreko jardunean euskarak izan duen pisua nahiko egonkor azaltzen zaigula epealdi osoan, %55aren inguruan, ISLren arabera. Iturri horren arabera, hortaz, badirudi 25 urteotan euskaldunek bi hizkuntzak maila bertsuan erabili izan dituztela. Apur bat gehiago euskara, euren erantzun aitortuei jaramon eginda. Dena den, euskararen emaitzak hanpatzen dituen alboratzeari buruz 8.6. puntuaren esandakoak aintzat hartuta, pentsa daiteke benetan euren aurrez aurreko harremanetan euskal hiztunek erdara apur bat gehiago erabiliko zutela euskara baino.

**G.48. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERA. 16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoa abiatuta. Zehazki, ISL-404 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.4. puntuari). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: adierazle hau B motakoa da (ikus 11.4.6. puntuari).

Grafiko honetako eta hiztun guztiekiko erabilerari buruzko emaitzak bateragarriak al dira? Nola liteke euskaldunen erabilerak aldaketa handirik ez erakustea eta hiztun guztien datuan aurrez aurreko harremanetan euskararen erabilerak gora egitea? Bi errealitate horiek bateragarriak dira, euskaldunen kopurua handitu egin delako 1991-2016 epealdi horretan. Horrela, euskaldunen erabilera maila bertsuan egon bada eta euskaldunen multzoa handitu egin bada, ez da harrizkoa erabilera orokorrak gora egitea.

Orain arte, lehen hurbilpen batean, erabilerari buruzko datu ahalik eta orokorrenak aurkeztu ditugu. Erabilera, ordea, ez da homogenea hizkuntza non eta norekin erabiltzen den kontuan hartuta, jarraian ikusiko dugun bezala.

## 15.2. EUSKARA-ERDAREN ERABILERA, ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOEN ARABERA (IKUSPEGI XEHEA)


- ✓ *Zer-nolako aldeak daude erabileran rol-harremanak eta espazioak aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolako bilakaera-joerak antzematen dira alderdi horietan?*

### 15.2.1. Euskaldunen erabilera rol-harreman eta espazioen arabera

Aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikoarekin ikusi dugunaren bide beretik, ISLn jasotzen diren rol-harreman eta espazio ugaritan ere, euskaraz eta erdaraz aritzen dira egungo hiztun euskaldunak. Errealitate hori, ordea, ez da homogenea eta alde handiak daude alor batzuetan eta besteetan egiten duten erabileran, G.49. grafikoan ikus daitekeen bezala. Rol-harreman eta espazio batzuetako euskaldunen erabileran euskara da nagusi. Inkestaturen erantzunen arabera, euren seme-alabekin erabiltzen dute euskaldunek euskara gehien: batez beste, euren seme-alabekiko jardunean %73,1ean erabiltzen dute euskara. Gainerako alorretan baino erabilera handiagoa azaltzen zaigu, halaber, udal zerbitzuetan (batez beste %65,8 euskaraz), administrazio publikoan (%57,8) eta lankideekiko elkarrizketetan (%55,2). Beste muturrera joz, gaztelania/frantsesa euskara baino gehiago erabiltzen dute hainbat alorretan. Euskara gutxien sare sozialetan (euskararen batez besteko erabilera %35,3koa da) eta gurasoekiko harremanetan erabiltzen da (aitarekiko jardunean %36,1 da euskaraz eta amarekikoan %37,8). Tarteko egoeretan daude gainerako alorrak, G.49. grafikoan ikus daitekeen bezala. Oro har, ñabardura handiegia egin gabe, esan dezakegu alor formaletan eta seme-alabekikoan erabiltzen dela euskara gehien; eta sare sozialetan eta familiako hainbat harremanetan gutxien.

Alde handiak daude, hortaz, alor batzuetan eta besteetan euskal hiztunek egiten duten euskararen erabileran. Zer dela eta alde horiek? Hasteko, esan beharra dago alor bakoitzeko erabilera-mailak zerikusi estua duela alor horretan euskara erabiltzeko dagoen aukerarekin, hots, mintzakideak euskaldunak izan edo ez, lehen mailako faktorea da portaera horiek azaltzeko orduan. Izan ere, 15.3.2. puntuan ikusiko dugun bezala, euskal hiztunen harreman-sareko alor bakoitzean euskaldunek duten pisua aldatu egiten da rol-harreman eta espazio batzuetan eta besteetan. Eta oro har, mintzakideen artean euskaldunek pisu handiagoa duten alorretan, erabilerak gora egiten du, eta pisu hori txikiagoa denetan, behera. Dena den, harreman hori ez da lineala eta “euskaldunekiko erabilera” aztertzerakoan ikusi ahalko dugun bezala, euskaldunek mintzakideak euskaldunak dituztenean ere, joera dute alor batzuetan besteetan baino gehiago/gutxiago erabiltzeko euskara/erdarak.

**G.49. GRAFIKOA: EUSKARA-ERDAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA AITORTUA HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 2016 (%)**



*Iturria:* egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-101 eta ISL-115 bitarteko adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.3. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 15.2.2. Euskaldunen erabileraren bilakaera xehea 1991-2016

T.151. taulan hainbat rol-harreman eta espaziotan batez besteko erabilera nolakoa izan den jasotzen da 1991 eta 2016 bitartean, bost urteko aldikotasunez. Bertan bildu ditugu informazioa dugun rol-harreman eta espazio guztietako 25 urteetako erabilera-datuak, guk geuk sortu ditugun adierazle bakun zein sintetikoen bidez



**T.151. TAULA: EUSKARAREN ERABILERA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera %
<b>AURREZ AURREKO HARREMANAK</b>								
Familian (ISL-401; B sintetikoa)	62,0	60,9	52,4	57,4	53,5	52,9	-9,1	-14,7
Lagunekin	55,9	58,6	52,6	56,6	56,1	53,6	-2,3	-4,1
Lankideekin	49,6	53,0	48,2	56,5	56,6	55,2	5,6	11,3
Merkataritzan eta zerbitzu publikoetan (ISL-403; B sintetikoa)	47,3	51,8	50,8	52,8	53,2	53,6	6,3	13,4
<b>Aurrez aurreko harreman- sare orokorrean (ISL-404; B sintetikoa)</b>	<b>55,6</b>	<b>57,2</b>	<b>51,0</b>	<b>56,5</b>	<b>54,9</b>	<b>53,8</b>	<b>-1,8</b>	<b>-3,2</b>
<b>FAMILIA</b>								
Etxekoekin	61,3	56,2	46,9	51,3	46,7	47,6	-13,8	-22,4
Bikotekidearekin	56,5	55,5	46,7	51,9	46,2	47,6	-9,0	-15,9
Neba- arrebekin	64,2	64,3	55,5	59,9	57,3	54,8	-9,5	-14,8
Amarekin	64,6	59,0	45,3	50,5	41,8	37,8	-26,7	-41,4
Aitarekin	61,2	54,7	42,6	47,5	38,5	36,1	-25,1	-41,0
Seme- alabekin	66,9	73,6	68,9	74,8	75,6	73,1	6,2	9,3
<b>Familian (ISL-401; B sintetikoa)</b>	<b>62,0</b>	<b>60,9</b>	<b>52,4</b>	<b>57,4</b>	<b>53,5</b>	<b>52,9</b>	<b>-9,1</b>	<b>-14,7</b>
<b>HARREMAN INFORMALAK</b>								
Familian (ISL-401; B sintetikoa)	62,0	60,9	52,4	57,4	53,5	52,9	-9,1	-14,7
Lagunekin	55,9	58,6	52,6	56,6	56,1	53,6	-2,3	-4,1
Auzokoeekin				49,7	48,8	45,6		
Euskaldunen erabilera sare sozialetan (%)					34,7	35,3		
<b>Harreman informalekin (ISL-402; B sintetikoa)</b>	<b>60,0</b>	<b>60,1</b>	<b>52,4</b>	<b>57,1</b>	<b>54,3</b>	<b>53,1</b>	<b>-6,9</b>	<b>-11,4</b>
<b>MERKATARITZA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK</b>								
Saltzaileekin	50,7	51,7	48,5	50,9	50,8	50,8	0,1	0,3
Bankukoekin	49,8	56,7	57,2	57,5	54,2	52,5	2,7	5,5
Osasun zerbitzukoekin	28,0	37,6	39,9	45,1	49,8	50,9	22,9	81,6
Udal zerbitzuetakoekin	53,9	61,0	62,6	61,3	63,0	65,8	11,9	22,0
Lankideekin	49,6	53,0	48,2	56,5	56,6	55,2	5,6	11,3
Administrazio Publikoekin					56,1	57,8		
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (ISL-403; B sintetikoa)</b>	<b>47,3</b>	<b>51,8</b>	<b>50,8</b>	<b>52,8</b>	<b>53,2</b>	<b>53,6</b>	<b>6,3</b>	<b>13,4</b>
Euskaldunak (kop.)	528.521	591.423	633.935	665.750	714.135	751.527		

Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoa abiatuta. Zehazki, ISL-101 eta ISL-112 bitarteko adierazleak eta ISL-401 eta ISL-404 bitarteko adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.3. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa*ren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: ISL-401 eta ISL-404 bitarteko adierazle sintetikoak B motakoa dira (ikus 11.4.6. puntua).


Informazio asko dago taula horretan; ez dugu datu horien guztien irakurketa xeherik egingo eta joera orokorrean irakurketa labur bat egitera mugatuko gara orain. Lan horretan laguntzeko, azken aurreko zutabeen 1991 eta 2016 urteetako batez besteko erabilereen balioen arteko aldeak erakusten dira (2016ko batez besteko erabilereen ehunekoari 1991koa kenduz). Balio horietatik abiatuta eraiki dugu G.50. grafikoa, orokorrean 25 urteko epean egon izan diren aldaketa-joerak laburbiltzeko, euskararen erabilera non igo eta non jaitsi den ikusteko. Bertan ikus daitezkeen bezala:

- Euskaldunek batez beste gehiago erabiltzen dute euskara 2016an 25 urte lehenago baino euren seme-alabekiko erabilerean, lankideekikoan eta merkataritzan eta zerbitzu publikoekikoetako espazioetan (osasun-zerbitzuetan, udal-zerbitzuetan, bankuetan eta dendetan).

- Aldiz, 1991n baino euskara gutxiago erabiltzen dute euskaldunek batez beste lagunekin eta familiako hainbat kiderekin: gurasoekin, neba-arrebekin, bikotekidearekin eta etxeoekin.

Horrela, seme-alaben salbuespenarekin, marra argia da euskararen erabilerak gora egin duen eta behera egin duen alorren artean: euskaldunek batez beste 25 urte lehenago baino gehiago egiten dute euskaraz alor formalean aztertu ditugun eremu guzti-guztietan (lan-mundua barne), eta gutxiago aztertu ditugun harreman informal guztietan (seme-alaben salbuespenarekin). Ezberdintasunak handiak dira, eta ezin dira ulertu alor batzuetan eta besteetan euskara erabiltzeko egon den aukeraren aldaketari begiratu gabe. 15.3.2. puntuak, euskaldunen harreman-sarearen euskalduntasunaren bilakaerari buruzko datuak aurkezten dira, eta bertan ikusiko dugu aldaketa adierazgarriak gertatu direla maila horretan.

**G.50. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERAN IZANDAKO ALDEA 1991-2016)**



Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-101 eta ISL-112 bitarteko adierazleak eta ISL-401 eta ISL-404 bitarteko adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.3. puntuak). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


Oharra: ISL-401 eta ISL-404 bitarteko adierazle sintetikoak B motakoa dira (ikus 11.4.6. puntuak).

### 15.2.3. Rol-harreman eta espazioen arabeko erabilera, hiztun guztiak aintzat hartuta

Euskaldunen erabilera-datu xeheak aurkeztu berri ditugu aurreko puntuak, ISLtik ekarrita. Jarraian, Euskal Herriko 16 urtetik gorako hiztun guztiak aintzat hartuta landuko ditugu datuak. Oraingoan, ISLko datuak ez ezik, HEKNkoak eta telebista-kontsumoa aztertzen duen audimetria bidezko datuak ere aintzat hartuko ditugu. Kasu guztietan, hiztun guztien batez besteko erabilera ehunekoaren bidez adieraziko da,

betiere euskaldunak ez diren hiztun guztien erabilera alor guztietan erdara hutsean izaten dela pentsatuz, metodologia-ataleko 11.4.6.2. puntuaz azaldu dugun bezala.

**G.51. GRAFIKOA: EUSKARA-ERDAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTEK GORAKO HIZTUNAK, 2016 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 2014-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik eta telebista-audientziari buruzko Kantarmediaren datuetatik abiatuta (Barlovento, 2017: 23). Zehazki, HEKN-001 eta ISL-101 eta ISL-115 bitarteko adierazleak eta ISL-401 eta ISL-404 bitartekoak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10., 11.3.3. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturriak: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018; Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** Kaleko erabilerari buruzko datuak 15 urtetik gorako hiztunei dagozkie. Aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetiko B motakoa da (ikus 11.4.6. puntuaz).

(\*) Telebistari buruzko datuak zera adierazten du: 4 urtetik gorako EAEko hiztunek telebista ikusten emandako denbora osotik ETB1-i dagokion zatia, eta audimetro bidez Kantarmediak egindako neurketen emaitza da (Barlovento, 2017: 23). Neurketa horretan ez da Hamaika Telebistari edo euskarazko tokiko telebistei buruzko informaziorik eskaintzen. Bai jasotzen da haurrei zuzenduriko ETB3 kanalari buruzko datua (%0,6ko sharea); datu hori ez dugu kontuan hartu goiko grafikoan, gainerako adierazleak 16 urtetik gorako biztanleriari buruzkoak izanik, informazioaren homogeneotasuna bilatzeko.

Datuak horrela irakurrita, argi azaltzen da erdara jaun eta jabe dela aztertu ditugun rol-harreman, espazio eta praktika guztietan. Orokorrean, alorren hurrenkera bat dator

aurreko grafikoan euskaldunen erabilerari buruz azaldutakoarekin. Segida horretan, bi datu berri kokatu ditugu: batetik, kale-erabileraren datua. Datu hori sailkapenaren beheko partean azaltzen zaigu; lehenago azaldu bezala, datu behatu eta aitortuen arteko aldeak azaltzen du nagusiki kokapen hori.

Txertatu dugun beste datu berria telebistaren euskarazko kontsumoarena da. Horixe da, hain justu, eta alde ikusgarriarekin gainera, aztertu ditugun alor guztien artean euskarak pisu txikiena duena: %1,9ko sharea lortu zuen ETB1ek EAEn 2016. urtean. Aztertu ditugun gainerako alor guzti-guztietako erabilera ibiltarte ez oso zabal baten barruan ageri da (%10,2 eta %18,8aren artean hain justu), baina koska handia dago alor guzti horien eta telebista kontsumoari buruzko datuaren artean. Aipa dezagun, gainera, euskarazko telebistaren kontsumoari buruzko datu apal hori ez dela datu isolatua, eta hedabideen eta ikus-entzunezkoen kontsumoari buruz ditugun datu osagarriek pentsarazten dutela joera orokorrago baten aurrean egon gaitzkeela. Horrela, adibidez, Hegoaldeko 11 eta 23 urte bitarteko ikasleen datuei erreparatuta, izugarri txikia da ikus-entzunezko edukien kontsumoan euskarak betetzen duen tokia: %3,1ekoa Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean eta %1,9koa unibertsitatekoen artean. Joera bera dago Youtuben ere: bertan ikusitakoaren artean ere toki izugarri txikia du euskarak %1,3-%1,4koa hain justu (Ikusiker, 2021: 14, 26). EAEko nerabe eta haurren hedabide eta kultur kontsumoari buruzko 2015eko datuak ere zentzu horretan doaz bete-betean: euskarak toki txikia du, lagunarteko erabileran edo etxeko erabileran duena baino askoz ere txikiagoa Interneteko webguneak ikusteko orduan, zineman filmak ikusteko orduan edo musika entzuterakoan (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2018: 32). Adin-talde bereziki euskaldun horretan ikus-entzunezko alorrean eta kultur kontsumoan euskarak duen toki eskas horrek, zeharka bada ere, adierazten du euskaldunek ere erdaraz egiten dutela euren kontsumoaren zati handiena. Gehiago esango dugu: arnaguneetako nerabeek ere, euretako gehienak gaitasun aldetik euskarazko nagusitasun argia duten nerabeak izanik ere, bizitzako gainerako alorretan ez bezala, badirudi hedabideen, ikus-entzunezkoen eta kultur kontsumoaren zati handiena erdaraz egiten dutela (Navascués eta Lurrebaso, 2019; UEMA-Udalerri euskaldunen mankomunitatea-, 2022). Joera sakon eta zabaldua da, hortaz, alor honetan euskarak duen kontsumo-maila apalarena, ISLn aztertu ohi diren gainerako eremu guzti-guztietakoa baino nabarmen txikiago horrena. Honakoa ez da garrantzirik gabeko hutsunea hizkuntzaren indarberritzearen ikuspegitik, hiztunek bizitzaren tarte oso handi bat –gero eta handiagoa– produktu horiek kontsumitzen ematen dutela aintzat hartuta.

Hortik aurrera, deigarria egiten da hainbat alor orokorretako erabilera ordezkatu nahirik sortu ditugun adierazle sintetikoek datu bertsuak eskaintzen dituztela: %15,0an egongo litzateke familiako erabileraren batez bestekoa, %15,1ean alor informalekoa eta %15,2an merkataritza eta zerbitzu publikoen alorrekoa. Horrela, bada, 2016. urtean datuek ez dute erakusten alde handirik aztertu ditugun alor nagusi horien artean. Aldeak handiagoak dira hainbat jardunguneren barruko erabilera-ohituretan. Familiaren alorrean gehienbat, baina baita alor formaleko erabileretan ere. Familiaren kasuan, adibidez, dezenteko aldea dago seme-alabekiko erabileran euskarak duen %16,3ko pisutik aitarekiko erabileran duen %10,2ra. Alde horretan zerikusi zuzena du mintzakideen artean euskaldunek duten lekuak (hiztunen sareetan euskaldunek duten pisuari buruzko informazioa 15.3. puntuan aurkeztuko dugu).

#### 15.2.4. Hiztun guztien erabileraren bilakaera xehea 1991-2016

Erabileraren bilakaera xeheago aztertzeko, jarraian ISLtik eratorritako adierazle multzo bat eta HEKNtik eratorritako beste bat erabiliko ditugu. Horietaz gain, telebistaren kontsumoari buruzkoa datuak ere bildu ditugu T.152. taulan eta G.52. grafikoan. Datuak horrela irakurrita, euskararen erabilera igo egin da aztertu ditugun alor guztietan, honako bi salbuespen garrantzitsu hauekin:

- Familia-giroko hainbat erabileratan behera egin du. Hori gertatu da gurasoekiko, bikotekidearekiko eta neba-arrebekiko erabileretan.
- Behera egin du, halaber, telebista kontsumoan. Alor horretan izan da erlatiboki galerarik handiena. Askoz gutxiago kontsumitu zen euskarazko telebista 2016. urtean 25 urte lehenago baino, jatorrizko ikusleen ia bi herenak galduta. Gurasoekiko erabileraren bilakaeratik kanpo (arrazoi bereziak daude tartean, eta familia ez-euskaldunetako seme-alabak euskalduntzearekin dute zerikusia), ez da antzeko bilakaera negatibo sakonik ikusi aztertu ditugun gainerako alorretan.

Gainerako alorretan, esan bezala, gora egin du euskararen erabilerak. Igoera hori bereziki handia izan da zerbitzu publikoen eta lankideen kasuan. Hain handiak izan gabe ere, igoera ohargarriak ditugu merkataritza alorrean eta lagunekiko zein seme-alabekiko batez besteko erabileran ere. Kale-erabilerak ere igoera apala erakutsi du aztertu dugun epealdian. Orokorrean, bilakaeran izan den hurrenkerak berdin-berdina izan gabe ere, antz handia du euskaldunen erabileran aurkeztu dugunarekin, eta zerikusi argia du sareen osaeran izan diren aldaketekin (berehala aurkeztuko ditugu horiek).


**T.152. TAULA: EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERAREN BILAKAERA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera %
<b>AURREZ AURREKO HARREMANETAN (%)</b>								
Familian (B sintetikoa)	13,8	14,8	13,3	14,7	14,4	15,0	1,2	8,6
Lagunekin	12,2	14,4	13,4	14,6	15,1	15,2	3,0	25,0
Lankideekin	10,8	13,2	11,9	14,7	16,5	17,0	6,2	57,9
Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (B sintetikoa)	10,5	12,6	12,9	13,6	14,3	15,2	4,7	44,4
<b>Aurrez aurreko harreman-sare orokorrean (B sintetikoa)</b>	<b>12,4</b>	<b>13,9</b>	<b>12,9</b>	<b>14,5</b>	<b>14,8</b>	<b>15,3</b>	<b>2,9</b>	<b>23,2</b>
<b>FAMILIAN (%)</b>								
Etxeokekin	13,6	13,7	12,1	13,5	13,0	14,0	,4	3,0
Bikotekidearekin	11,9	12,7	9,9	11,5	10,7	10,7	-1,2	-9,8
Neba-arrebekin	16,2	16,2	14,1	15,5	15,3	15,3	-,8	-5,2
Amarekin	14,4	14,4	11,5	13,0	11,3	10,7	-3,7	-25,4
Aitarekin	13,6	13,3	10,8	12,2	10,4	10,2	-3,4	-24,9
Seme-alabekin	14,1	16,7	14,4	15,8	16,5	16,3	2,2	15,5
<b>Familian (B sintetikoa)</b>	<b>13,8</b>	<b>14,8</b>	<b>13,3</b>	<b>14,7</b>	<b>14,4</b>	<b>15,0</b>	<b>1,2</b>	<b>8,6</b>
<b>HARREMAN INFORMALETAN (%)</b>								
Familian (B sintetikoa)	13,8	14,8	13,3	14,7	14,4	15,0	1,2	8,6
Lagunekin	12,2	14,4	13,4	14,6	15,1	15,2	3,0	25,0
<i>Auzokoekin</i>				12,8	13,2	12,9		
<i>Euskaldunen erabilera sare sozialetan (%)</i>					11,0	11,5		
<b>Harreman informalekin (B sintetikoa)</b>	<b>13,4</b>	<b>14,6</b>	<b>13,3</b>	<b>14,7</b>	<b>14,7</b>	<b>15,1</b>	<b>1,7</b>	<b>12,8</b>
<b>HARREMAN FORMALETAN (%)</b>								
Saltzaileekin	10,5	13,1	11,8	13,1	13,8	14,5	4,0	38,3
Bankukoekin	12,9	14,7	14,4	14,8	14,4	14,5	1,6	12,3
Osasun zerbitzukoekin	7,2	9,7	10,2	11,6	13,5	14,3	7,1	98,5
Udal zerbitzuetakoekin	14,1	16,0	15,3	16,2	17,4	18,8	4,7	33,1
<i>Lankideekin</i>	10,8	13,2	11,9	14,7	16,5	17,0	6,2	57,9
<i>Administrazio Publikoekin</i>					14,2	14,5		
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (B sintetikoa)</b>	<b>10,5</b>	<b>12,6</b>	<b>12,9</b>	<b>13,6</b>	<b>14,3</b>	<b>15,2</b>	<b>4,7</b>	<b>44,4</b>
<b>KALEKO ERABILERA (HEKN +15, BEHATUA, %)</b>	<b>10,2</b>	<b>11,7</b>	<b>12,1</b>	<b>11,7</b>	<b>11,2</b>	<b>11,1</b>	<b>,9</b>	<b>8,9</b>
<b>TELEBISTA IKUSTEN (ETB1 EAEn)</b>	<b>5,5</b>			<b>4,4</b>	<b>2,0</b>	<b>1,9</b>	<b>-3,6</b>	<b>-65,5</b>

Iturria: egileak landua, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik, Inkesta Soziolinguistikotik eta telebista-audientziari buruzko Kantarmedia eta SOFRESen datuetatik abiatuta (SOFRES, 1994: 28; Barlovento, 2017: 23). Zehazki, HEKN-001 eta ISL-101 eta ISL-112 bitarteko adierazleak eta ISL-401 eta ISL-404 bitartekoak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10., 11.3.3. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturriak: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018*; *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: Kaleko erabilerari buruzko datuak 15 urtetik gorako hiztunei dagozkie. ISL-401 eta ISL-404 bitarteko adierazle sintetikoak B motakoa dira (ikus 11.4.6. puntua). Telebistaren kontsumoari buruzko datuak audimetria bidez EAEn jasoak dira 4 urtetik gorako herritarren artean eta ETB1en audientziari (shareari) dagozkio. 1991ko laukitxoan erakusten den datua 1993koa da berez, urte horretan hasi baitziren audimetria bidezko neurketak Espainian; ez dago datu zaharragorik (SOFRES, 1994: 28; Barlovento, 2017: 23).

**G.52. GRAFIKOA: EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERAREN BILAKAERA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA 1991tik 2016ra IZANDAKO ALDEA, %TAN)**



**Iturria:** egileak landua, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik, Inkesta Soziolinguistikotik eta telebista-audientziari buruzko Kantarmedia eta SOFRESen datuetatik abiatuta (Barlovento, 2017: 23; SOFRES, 1994: 28). Zehazki, HEKN-001 eta ISL-101 eta ISL-112 bitarteko adierazleak eta ISL-401 eta ISL-404 bitartekoak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10., 11.3.3. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturriak: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018*; *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** Kaleko erabilerari buruzko datuak 15 urtetik gorako hiztunei dagozkie. ISL-401 eta ISL-404 bitarteko adierazle sintetikoak B motakoa dira (ikus 11.4.6. puntua). Telebistaren kontsumoari buruzko datuak audimetria bidez EAEn jasoak dira 4 urtetik gorako herritarren artean eta ETB1en audientziari (shareari) dagozkio.

### 15.3. EUSKALDUNEN HARREMAN-SAREEN EUSKALDUNTASUNA

- ✓ *Nola uztartzen dira euskaldunak eta erdaldunak harreman-sareetan?*
- ✓ *Nolakoa da hiztun euskaldunen harreman-sareen osaera, haien ohiko mintzakideek euskara badakiten edo ez dakiten kontuan hartuta?*
- ✓ *Nola aldatzen da mintzakideen osaera hori rol-harremanak eta espazioak aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da azken hamarkadotako bilakaera?*

Hiztunek egiten duten euskararen erabilera ulertzeko, nahitaezko osagaia da benetan erabiltzeko duten aukerara hurbilpen bat egitea. Eta aurrez aurreko harremanetan, gai horrek zerikusi zuzena du hiztunaren hurbileko solaskideek euskaraz jakitearekin edo ez jakitearekin. Berez, atal teorikoan eta baita metodologikoan ere gai hau aipatu

dugunean, “testuinguru demolinguistikoaren” osagai gisa aurkeztu dugu. Hori da gai honen berezko kokapena. Atal enpiriko honetan, ordea, aurkezten den informazioa hobeto ulertzeko, eta kontakizunaren hariari hobeto jarraitu ahal izateko, hemen aurkeztuko dugu, erabileraren kapituluaren barruan.

### 15.3.1. Ikuspegi sintetikoa

Zer-nolako pisua dute mintzakide euskaldunek gizabanako euskaldunen harreman sarean? Hots, hiztun euskaldunen ama, aita, seme-alaba, bikotekide, lankide, lagun eta abarrak kontuan hartuta, zenbateko pisua dute guztien artean euskaldunek eta euskaraz hitz egiteko gai ez diren hiztunek? Galdera horri erantzun nahirik, adierazle sintetiko hau sortu dugu: aurrez aurreko harreman-sarearen euskalduntasuna, eta hor atera zaizkigun emaitzak irakurritz, G.53. grafikoan erakusten dugun bezala, hiztun euskaldunon harreman-sarea euskaldunez osatua dago %70,3an eta euskaraz ondo hitz egiteko gai ez diren hiztunez %29,7an<sup>255</sup>.

Aztertzen ari garena ez da garrantzirik gabeko gaia euskararen erabilerari buruzko datuak aztertzeko orduan, kontuan hartzeko baita euskaldunek euskaldunekin soilik egin ahalko dutela euskaraz<sup>256</sup>. Gurean Txillardegik garrantzi berezia eman zion gaiari, eta sareen osaera hori erabilerari begira alderdi erabakigarria izan zitekeela azaldu zuen bere eredu matematikoarekin (Álvarez Enparantza, 1984, 1991, 2001). Bi muturreko egoera teoriko definitzen zituen berak: batetik, egoera isotropikoa izango genuke, euskalduna bere harremanetan hiztun guztiekin guztiz nahasita, euskaldunak eta erdaldunak maila berean, bereizi gabe azalduko litzaigukeen egoera. Beste muturra egoera anisotropikoa litzateke; egoera horretan, euskaldunak euskaldunekin bakarrik egongo lirarteke harremanetan, erdaldun jendearengandik bereizita. Grafikoan aurkeztutako laburpen-datuek esaten digute errealitate enpirikoa erdibidean dagoela, bi egoera teoriko muturreko horietatik aldentuta.

%70,3 euskaldun/%29,7 ez-euskaldun banaketa horrek, jakina, zerikusia du euskaldunek euren eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko izango duten aukera errealarekin, nahiz eta ez duen zuzenean finkatuko. Izan ere, batzuetan bakarkako harremana baina beste batzuetan multzokakoa gertatzen den alorretan, lagunartean adibidez, sarearen osagai euskaldunen kopurua baino txikiagoa izango da euskara erabiltzeko aukera, aldi berean euskaldunak eta euskaraz ez dakiten hiztunak taldean elkartzen direnean erdarara jotzea baita arruntena, horretara bultzatzen duen arau soziala tarteko. Horrela, bada, orain aurkeztu ditugun kopuru horiek ez dute zuzenean islatzen hiztun euskaldunek aurrez aurreko harremanetan euskara erabiltzeko duten aukera; batez besteko aukera hori, oro har, kopuru horiek adierazten dutena baino txikiagoa izango da. Kalkulu doituago bat landuko dugu 16.3.2. puntuan.

---


<sup>255</sup> Adierazle sintetiko hori B motakoa da, hots, komunitateko harreman-sareen euskalduntasuna neurtzeko sortua da, eta koefiziente finkeo bidez eraikia. Esan dezagun, kalkuluak A motako adierazle sintetikoaren erara eginda, hau da, hiztunen sareen euskalduntasunaren batez bestekoak landuta, emaitza antzekoak lortzen ditugula: %71,5ekoa da kasu horretan sare euskaldunaren batez besteko pisua (A eta B motako adierazle sintetikoei buruz azalpenak 11.4.6. puntuan irakur daitezke).

<sup>256</sup> Berez, euskaldunek euskaldun oso izan gabe ere euskara ulertzen duten hiztunekin egin dezakete euskaraz. ISLn norbere sareari buruz egiten diren galderetan, ordea, ez da galdetzen inguruan euskaldunak ez direnak non kokatuko lituzketen ezagutzaren edo ulermenaren arabera. Eta horregatik, sarearen osagaiak euskaldun/ez-euskaldun bi multzoetan sailkatu ditugu. Mugak muga, norbere sarea deskribatzeko orduan, honako hau hurbilpen baliagarria delakoan gaude.



Euskaldunek, batez beste, ingurukoen artean %70,3 dituzte euskaldunak eta %29,7 ez-euskaldunak. Kopuru horiek, jakina, euskaldunen askotariko egoeren batez bestekoek erakusten dizkigute. Sarearen euskalduntasunaren arabera euskaldunen banaketa 18.5. azpikapituluan azalduko dugu. Orain goazen sareen nolakotasuna xeheago aztertzea.

**G.53. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMAN-SAREEN OSAERA, KIDEAK EUSKALDUNAK DIREN EDO EZ AINTZAT HARTUTA. EUSKAL HERRIKO 16 URTEK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 2016 (BATEZ BESTEKO OSAERA, %)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-414 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.4. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: adierazle hau B motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).


### 15.3.2. Ikuspegi xehea

Harreman sarean euskaldunek duten pisua orokorrean zenbatekoa den ikusi ondoren, ikus dezagun nola aldatzen den errealitate hori espazioz espazio eta rol-harremanak aintzat hartuta. Horri buruzko informazioa G.54. grafikoan aurkezten dugu. Bertako datuetan dugun ibiltarte handia da azpimarratzeko moduko lehen ezaugarria: muturretara joz, egungo hiztun euskaldunen ia seme-alaba guztiak dira euskaldunak (%92,8) eta hiztun euskaldunen aiten artean erdira ere ez dira iristen euskaldunak (%45,4). Esanguratsua da gurasoen eta seme-alaben artekoak izatea muturreko bi datuak, eta alde handi horien azalpen-bide nagusi gisa, euskararen indarberitzearen ikuspegitik positiboak diren bi prozesu aipatu behar ditugu: batetik, euskaldunen artean euren seme-alabei euskara transmititzeko erabakitasuna oso hedatua dagoela aipatu behar dugu (horregatik dira, besteak beste, euskaldunen seme-alaben artean hain gutxi euskaraz ez dakitenak). Bestetik, egungo euskaldunen artean guraso asko ez-euskaldunak izatearen arrazoi nagusizat aipatu behar dugu familia-jatorriz euskaldunak ez ziren hiztun askok eskolan edo helduen euskalduntzearen bidez euskara jaso izana; horrek azalduko luke nagusiki egungo euskaldunen zati handi baten gurasoak erdaldunak izatea. Familiako gainerako kideen artean dauden ezberdintasunak ere logika eta prozesu horien barnean uler daitezke nagusiki. Nolanahi ere, aipagarria da familiako rol-harremanen artean euskalduntasun-mailari dagokionez dispersio handia dagoela egun.

Aipagarria iruditzen zaizkigu, halaber, merkataritza eta zerbitzu publikoen alorraren barruko aldeak. Batetik, ikus daiteke alor pribatuan euskaldunen presentzia apalagoa dela alor publikoan baino. Aldeak, hala ere, ez dira kasu guztietan oso handiak: euskaldunak dira euskaldunek eguneroko erosketak egiten dituzten dendetako saltzaileen %58,5 eta eurek jo ohi duten bankuetako langileen %66,5. Maila bertsuan azaltzen zaigu osasun zerbitzuetako langileen arteko euskaldunen kopurua ere (%67,7 euskaldunak). Eta ehunekoak hortik gora dabilta administrazio publikoko langileen artean (%75,5 euskaldunak) eta udal zerbitzuen artean (%81,4).

Puntu honekin bukatzeko, esan dezagun esku artean ditugun datuek hein handi batean azaltzen dituztela G.51. grafikoan erabilera-datuetan ikusten genituen aldeak. Hots, rol-harreman eta espazio batzuetan eta besteetan dagoen erabilera-maila ez daiteke ulertu horietako bakoitzean euskaldunek duten pisua eta hortik sortzen den erabiltzeko aukera aintzat hartu gabe.

**G.54. GRAFIKOA: HIZTUNEN HARREMAN-SAREAN EUSKALDUNEK ETA EZ-EUSKALDUNEK DUTEN PISUA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 2016 (BATEZ BESTEKO OSAERA, %)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-201 eta ISL-214 bitarteko adierazleak eta ISL-414 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.4. eta 11.4. puntuetan, hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: ISL-414 adierazle sintetikoa, B motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

### 15.3.3. Harreman-sareen euskalduntasunaren bilakaera, 1991-2016

Nola aldatu da hiztun euskaldunen harreman-sarean mintzakide euskaldunek eta ez-euskaldunek izan duten pisua? Aurrez aurreko harremanen-sare guztiak aintzat hartuta, ez da alderik antzematen: sare horren %70,8 euskaldunek osatzen zuten 1991. urtean eta kopuru hori %70,3koa izan zen 25 urte geroago, 2016. urtean. Joera orokorra, hortaz, egonkortasunarena dugu. Hala ere, alde adierazgarriak daude rol-harreman eta espazioak xehe aztertuta: alor batzuetan mintzakide euskaldunen kopuruak gora egin du eta beste batzuetan behera. Horren inguruko informazioa bildu dugu T.153. taulan eta G.55. grafikoan.

Bertan ikus daitekeen bezala, hiztun euskaldunen artean mintzakide euskaldunen pisua asko handitu da zerbitzu publikoetan. Igoera bereziki handia izan da osasun-zerbitzuetan (kontuan hartu behar da abiapuntua ere bereziki apala zela alor horretan; aztertu ditugun espazio eta rol-harreman guztietan apalena zen 1991. urtean). Asko handitu da, halaber, seme-alaben artean. Eta maila apalagoan bada ere, lankide eta lagun artean ere handitu egin da mintzakide euskaldunen pisua. Aitzitik, euskaldunen pisua jaitsi egin da seme-alabak ez beste elkarrizketatu euskaldunen senitartekoen artean: gurasoen artean bereziki, baina baita etxekideen, bikotekideen eta neba-arreben artean ere.

Bilakaera-prozesu horien arrazoi batzuk aipatu ditugu lehenago. Zehazki, aipatu dugu seme-alaben artean euskaldunen pisua gora egiteak eta gurasoen artean behera egiteak harreman zuzena duela belaunaldi berrien artean euskara dakitenen kopuruak igo izanarekin. Osasun-zerbitzu eta udal-zerbitzuetako teknikarien eta langileen artean euskaldunen pisuak izandako gorakada, berriz, pentsa daiteke belaunaldi-berritzearen eta langile publikoak euskalduntzeko politiken ondorio izango dela. Lankide eta lagun artean euskaldunen pisuak izandako igoera apalagoak, berriz, ziurrenik zerikusia izango du belaunaldi-berritzearekin.

Aipa dezagun, azkenik, grafiko honetako emaitzak erabilerari buruzko G.52. grafikoko datuekin alderatuta, lotura argia ikusten dela bi fenomeno artean. Ez da harritzekoa, oraingo datu hauek, bere horretan erabilera-aukera adierazten ez badute ere, zerikusi argia baitute horrekin. Oro har, mintzakide euskaldunen pisuak gora egin duen espazio eta rol-harremanetan igo da gehien erabilera, eta alderantziz. Zeharka bada ere, horrek adierazten du, erabiltzeko aukera dagoenean, euskaldun askok profitatu ohi dutela aukera hori, eta euskara erabiltzen dutela.


**T.153. TAULA: HIZTUNEN HARREMAN-SAREAN EUSKALDUNEK ETA EZ-EUSKALDUNEK DUTEN BATEZ BESTEKO PISUAREN BILAKAERA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera %
<b>AURREZ AURREKO HARREMANAK</b>								
Familiako sarean euskaldunen pisua (ISL- 411; B sintetikoa)	80,8	79,4	72,6	75,5	73,4	73,7	- 7,1	- 8,8
Lagunen artean	72,0	67,0	65,6	66,5	68,7	71,2	- 0,9	- 1,2
Lankideen artean	61,0	62,5	59,7	61,8	67,3	66,8	5,9	9,6
Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (ISL- 413; B sintetikoa)	58,2	58,2	59,9	58,4	65,9	65,2	7,0	12,0
<b>Aurrez aurreko harreman- sare orokorrean (ISL- 414; B sintetikoa)</b>	<b>70,8</b>	<b>69,7</b>	<b>66,0</b>	<b>67,9</b>	<b>69,9</b>	<b>70,3</b>	<b>- 0,6</b>	<b>- 0,8</b>
<b>FAMILIA</b>								
Etxekeen artean - norbera kontatu gabe-	85,3	78,2	67,8	71,8	68,7	69,5	- 15,8	- 18,6
Bikotekidea euskalduna ote den	72,8	71,6	64,7	67,0	65,7	67,5	- 5,3	- 7,2
Neba- arreben artean	90,4	90,4	87,3	87,8	85,9	86,0	- 4,4	- 4,9
Ama euskalduna ote den	81,2	72,4	59,3	61,4	52,4	50,8	- 30,3	- 37,4
Aita euskalduna ote den	76,1	64,9	52,5	56,7	46,9	45,4	- 30,7	- 40,3
Seme- alaben artean	78,4	89,0	88,8	91,7	93,8	92,8	14,3	18,3
<b>Familian (ISL- 411; B sintetikoa)</b>	<b>80,8</b>	<b>79,4</b>	<b>72,6</b>	<b>75,5</b>	<b>73,4</b>	<b>73,7</b>	<b>- 7,1</b>	<b>- 8,8</b>
<b>HARREMAN INFORMALAK</b>								
Familian (ISL- 411; B sintetikoa)	80,8	79,4	72,6	75,5	73,4	73,7	- 7,1	- 8,8
Lagunen artean	72,0	72,5	70,7	70,6	74,8	75,9	3,9	5,4
Auzokoen artean				56,0	57,1	56,5		
<b>Harreman- sare informaletan (ISL- 412; B sintetikoa)</b>	<b>77,9</b>	<b>77,1</b>	<b>72,0</b>	<b>73,9</b>	<b>73,9</b>	<b>74,4</b>	<b>- 3,5</b>	<b>- 4,4</b>
<b>MERKATARITZA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK</b>								
Saltzaileen artean	58,6	57,3	55,4	54,7	59,9	58,5	0,0	0,0
Bankukoaren artean		63,9	67,9	64,2	69,6	66,5	2,7	4,2
Osasun zerbitzukoaren artean		42,7	49,8	52,6	66,4	67,7	24,9	58,3
Udal zerbitzuetakoaren artean		71,0	75,7	69,3	79,9	81,4	10,4	14,7
Lankideen artean	61,0	62,5	59,7	61,8	67,3	66,8	5,9	9,6
Administrazio Publikoaren artean					71,9	75,5		
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (ISL- 413; B sintetikoa)</b>		<b>58,2</b>	<b>59,9</b>	<b>58,4</b>	<b>65,9</b>	<b>65,2</b>	<b>7,0</b>	<b>12,0</b>
Euskaldunak (kop.)	528.521	591.423	633.935	665.750	714.135	751.527		

Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-201 eta ISL-214 bitarteko adierazleak eta ISL-411 eta ISL-414 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.4. eta 11.4. puntuetan, hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: hainbat espazioren kasuan, 1991ko laukitxoa hutsik dagoenetan, aldea ez da 1991-2016 tartekoa, 1996-2016 tartekoa baizik. ISL-411 eta ISL-414 adierazle sintetikoak B motakoak dira (ikus 11.4.6. puntua).

**G.55. GRAFIKOA: HIZTUNEN HARREMAN-SAREAN EUSKALDUNEK ETA EZ-EUSKALDUNEK DUTEN BATEZ BESTEKO PISUAREN BILAKAERA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (2016KO BALIOAREN ETA 1991KOAREN ARTEKO ALDEA, %)**



*Iturria:* egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoa abiatuta. Zehazki, ISL-201 eta ISL-214 bitarteko adierazleak eta ISL-411 eta ISL-414 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.4. eta 11.4. puntuetan, hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa*ren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

## 15.4. EUSKALDUNEKIKO ERABILERA

- ✓ *Zein hizkuntzatan aritzen dira hiztun euskaldunak euren mintzakidea(k) ere euskaldunak direnean?*
- ✓ *Nola aldatzen da euskaldunekiko erabilera hori rol-harremanak eta espazioak aintzat hartuta?*
- ✓ *Zer-nolakoa izan da azken hamarkadetako bilakaera?*


### 15.4.1. Ikuspegi sintetikoa

Erabilerari buruz ari garela, alderdi garrantzitsua da euskaldunek euren eguneroko bizitzan beste euskaldun batzuekin daudenean egiten dituzten hizkuntza-hautuak, hots, zein hizkuntzatan mintzatzen diren aztertzea. G.56. grafikoan ikusten dugunez, euren mintzakide guztiak euskaldunak diren egoeretan, euskarara jotzen dute nagusiki hiztun euskaldunek. Zehazki, ISL-424 adierazlearen arabera, hiztun euskaldunek mintzakideak euskaldunak dituzten harremanetan, euren jardunaren %77,2

euskarazkoa da batez beste eta %22,8 erdarazkoa<sup>257</sup>. Horrela, bada, euren jardunaren lautik hiru baino gehiago egiten dute euskaraz horretarako aukera argia dutenean. Ez da kopuru txikia, euskal hiztun gehien-gehienak elebidunak direla kontuan hartuta.

Datu horiek irakurtzerakoan, dena den, kontuan hartu behar da zer-nolako prozedura erabili dugun metodologia-atalean adierazle honen jatorrian dauden adierazle bakunak kalkulatzeko: rol-harreman edo egoera bakoitzean, euskaldun horiekin euskara erabiltzeko aukera argia den kasuak bakarrik aztertu ditugu: mintzakidea euskalduna den kasuak binakako harremanetan (amarekin, aitarekin, bikotekidearekin); taldeetan, berriz (seme-alabak, lagunak, lankideak...), taldekide guztiak (edo ia guztiak) euskaldunak dituzten kasuak soilik hartu ditugu aintzat. Ondorioz, eta ingurune euskaldunenak soilik hartzen direnez kontuan, pentsa daiteke adierazle honen emaitzek hanpatu egiten dutela euskaldunekiko benetako erabilera-maila.

**G.56. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN ERABILERA AURREZ AURREKO HARREMANETAN, MINTZAKIDEAK ERE EUSKALDUNAK DIRENEAN. 16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016 (BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-424 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.4. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: adierazle hau B motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

### 15.4.2. Ikuspegi xehea

Adierazle sintetikoarekin ikusi dugunaren ildo beretik, baina begirada xehea eginda, aztertu ditugun rol-harreman eta espazio guztietan, mintzakide guztiak euskaldunak diren kasuetan, hiztun euskaldunek dezente gehiago erabiltzen dute euskara erdara baino.

Alde adierazgarriak daude, ordea, aztertu ditugun espazio eta rol-harremanetako erabileretan, G.57. grafikoan ikus daitekeen bezala. Dena den, alde horiek aztertu baino lehenago, nabarmentzekoa da datuek erakusten duten ibiltarrea txikiagoa dela

<sup>257</sup> Adierazle sintetiko hori B motakoa da, hots, koefiziente finkoen bidez eraikia. Esan dezagun, kalkuluak A motako adierazle sintetikoaren erara eginda, hau da, hiztun euskaldunek mintzakide euskaldunekin duten erabileraren batez bestekoak landuta, emaitzak aldatu egiten direla: %65,5ekoa da kasu horretan euskararen batez besteko euskaldunekiko erabilera (A eta B motako adierazle sintetikoei buruzko azalpenak 11.4.6. puntuan irakur daitezke).

aztertu ditugun beste errealitateetako baina. Horrela, erabilera orokorrari buruzko datu xeheek edo sareen osaerari buruzkoek ibiltarte nabarmen handiagoak erakusten zituzten oraingo datu hauen aldean. Horrek iradokitzen digu hiztun euskaldunen portaera azaltzen duen faktore orokor bat edo faktore orokor multzo bat egon daitekeela espazioa edo rol-harremana edozein dela ere, hiztunak euskara orokorrean gehiago edo gutxiago erabiltzera bultzatuko dituena.


Ibiltarte hori oso handia ez den arren, alde adierazgarriak daude alorrez alor, eta interpretazio argia egiteko modua ematen dute datuek. Euskara erabiltzea posible den kasuetan, gehiago erabiltzen da euskara gaur egun harreman formal edo ez oso hurbilekoetan gertukoagoetan baino. Sailkapenaren muturrei erreparatzea besterik ez dago ondorio horretara iristeko: euskaldunekiko erabilera batez besteko egoeretan baino handiagoa da, adibidez, hiztunak saltzaileekin (%89,7), auzokoekin (%85,0), udal-zerbitzuetaoekin (%84,9), lankideekin (%84,2) edo bankukoekin (%83,7) mintzatzen direnean. Aitzitik, euskara gutxiago erabiltzen dute hiztunek familia-giroko egoera eta rol-harremanetan eta lagunartean daudenean. Gogora dezagun puntu honetan banakako rol-harremanetan eta taldekakoetan irizpide ezberdina erabili dugula, eta, beraz, dugun informazioa ez da guztiz homogenea banakako eta taldekako harremanak alderatuz gero<sup>258</sup>. Hori izan daiteke, agian, banakako hiru harremanak (aitarekikoa, amarekikoa eta bikotekidearekikoa) sailkapeneko beheko aldean azaltzeko arrazoi bat. Ikerketa sakonagoa mereziko luke gai horrek.

Esandakoez gain, estilo informal eta intimoa garatzea ahalbidetzen duten harremanen multzoan, argi ikusten da familia-giroan ere belaunaldiarteko harreman bertikaletan euskara gehiago erabiltzen dela harreman horizontaletan baino. Horrela, sailkapen osoan mintzakideak ere euskaldunak diren kasuetan, euskararen erabilera apalena testuinguru hauetan gertatuko litzateke: lagunekin (%69,3 batez beste euskaraz), bikotekidearekin (%68,9) eta neba-arrebekin (%64,8).

---

<sup>258</sup> Izan ere, rol-harreman edo egoera bakoitzean, euskaldun horiekin euskara erabiltzeko aukera argia den kasuak bakarrik aztertu ditugu: mintzakidea euskalduna den kasuak banakako harremanetan (amarekin, aitarekin, bikotekidearekin); taldeetan, berriz (seme-alabak, lagunak, lankideak...), taldekide guztiak (edo ia guztiak) euskaldunak dituzten kasuak soilik hartu ditugu aintzat.

**G.57. GRAFIKOA: MINTZAKIDEA EUSKALDUNA DEN KASUETAN EUSKARA-ERDAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA AITORTUA HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-301 eta ISL-314 bitarteko adierazleak eta ISL-424 adierazlea baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.5. eta 11.4. puntuetan, hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: ISL-424 adierazle sintetiko B motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

### 15.4.3. Euskaldunekiko erabileraren bilakaera, 1991-2016

Hiztun euskaldunen aurrez aurreko harreman-sare osoa hartu eta bertan guztiz euskaldunak diren mintzakideak soilik aintzat hartuta euskararen erabilera jaitsi egin da 1991ko %82,0tik 2016ko %77,2ra. Jaitsiera hori, gainera, nahiko orokorra da eta espazio eta rol-harreman ia guztiei eragiten die.

Gaur egungo euskaldunak, hortaz, gutxiago egiten du batez beste euskaraz horretarako aukera duenean 25 urte lehenagokoak baino. Esan bezala, jaitsiera hori aztertu ditugun eremu guztietan gertatu da, G.58. grafikoan ikus daitekeen bezala, saltzaileen eta osasun-zerbitzuen salbuespenarekin. Bi kasu horietan ez da jaitsierarik gertatu euskaldunekiko erabileran. Alabaina, mintzakideak euskaldunak direnetan, euskararen erabilera jaitsi egin da gainerako eremu guzti-guztietan. Horietan, jaitsieraren indarrean aldeak dauden arren, nahiko homogenea izan dela aipatu behar da lehenik. Hori esanda, eta aldeei erreparatuta, ikusten da hurbileko harreman informal horizontaletan jaitsi dela gehien euskararen erabilera. Adibide adierazgarriena lagunena dugu: euskararen batez besteko erabilera 1991ko %80,7tik 2016ko%69,3ra



jaitsi da lagunen artean (lagun guztiak euskaldunak diren kasuak aintzat hartuta). Ondoren, bikotekide eta neba-arreba euskaldunekiko erabileran izan da beherakadarik handiena. Azkenik, apalago bada ere, mintzakide euskaldunekiko erabilerak ere behera egin du familiako gainerako kideekin, bankukoekin, udal-zerbitzuetakoekin eta lankideekin.


**T.154. TAULA: EUSKARAREN ERABILERA EUSKALDUNEKIKO, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera %
<b>AURREZ AURREKO HARREMANAK</b>								
Familian (ISL- 421; B sintetikoa)	79,2	78,3	74,7	78,4	75,2	73,5	-5,7	-7,2
Lagunekin	80,7	81,6	77,3	79,5	74,8	69,3	-11,4	-14,1
Lankideekin	84,9	84,6	86,3	92,6	86,8	84,2	-0,6	-0,7
Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (ISL- 423; B sintetikoa)	87,3	87,3	88,9	93,0	83,6	86,4	-0,8	-0,9
<b>Aurrez aurreko harreman- sare orokorrean (ISL- 424; B sintetikoa)</b>	<b>82,0</b>	<b>81,8</b>	<b>80,1</b>	<b>84,4</b>	<b>79,4</b>	<b>77,2</b>	<b>-4,8</b>	<b>-5,9</b>
<b>FAMILIA</b>								
Etzekoekin	79,9	77,2	76,5	79,9	76,0	75,3	-4,6	-5,8
Bikotekidearekin	76,3	76,5	70,5	75,6	69,4	68,9	-7,4	-9,7
Neba- arrebeekin	72,0	72,0	65,3	69,7	67,8	64,8	-7,3	-10,1
Amarekin	79,3	81,2	75,9	81,4	79,2	73,1	-6,2	-7,8
Aitarekin	79,9	83,5	80,4	83,0	81,5	77,7	-2,2	-2,7
Seme- alabekin	84,5	83,1	78,9	81,5	80,8	78,9	-5,6	-6,6
<b>Familian (ISL- 421; B sintetikoa)</b>	<b>79,2</b>	<b>78,3</b>	<b>74,7</b>	<b>78,4</b>	<b>75,2</b>	<b>73,5</b>	<b>-5,7</b>	<b>-7,2</b>
<b>HARREMAN INFORMALAK</b>								
Familian (ISL- 421; B sintetikoa)	79,2	78,3	74,7	78,4	75,2	73,5	-5,7	-7,2
Lagunekin	80,7	81,6	77,3	79,5	74,8	69,3	-11,4	-14,1
Auzokoekin				92,1	87,7	85,0		
<b>Harreman informalekin (ISL- 422; B sintetikoa)</b>	<b>79,7</b>	<b>79,4</b>	<b>75,5</b>	<b>78,8</b>	<b>75,0</b>	<b>72,1</b>	<b>-7,6</b>	<b>-9,5</b>
<b>MERKATARITZA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK</b>								
Saltzaileekin	88,9	89,2	91,4	95,8	86,6	89,7	0,8	0,9
Bankukoekin		89,0	88,6	91,6	81,6	83,7	-5,3	-5,9
Osasun zerbitzukoekin		80,8	83,1	88,0	77,7	80,9	0,1	0,2
Udal zerbitzuetakoekin		86,2	87,1	91,1	82,7	84,9	-1,3	-1,5
Lankideekin	84,9	84,6	86,3	92,6	86,8	84,2	-0,6	-0,7
Administrazio Publikoekin					79,7	80,1		
<b>Merkataritza eta zerbitzu publikoetan (ISL- 423; B sintetikoa)</b>		<b>87,3</b>	<b>88,9</b>	<b>93,0</b>	<b>83,6</b>	<b>86,4</b>	<b>-0,8</b>	<b>-0,9</b>
Euskaldunak (kop.)	528.521	591.423	633.935	665.750	714.135	751.527		

**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-301 eta ISL-314 bitarteko adierazleak eta ISL-421 eta ISL-424 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.5. eta 11.4. puntuetan, hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** hainbat espazioren kasuan, 1991ko laukitxoa hutsik dagoenetan, aldea ez da 1991-2016 tartekoa, 1996-2016 tartekoa baizik. ISL-421 eta ISL-424 adierazle sintetikoak B motakoak dira (ikus 11.4.6. puntua).

**G.58. GRAFIKOA: EUSKALDUNEKIN EUSKARAREN ERABILERA IZAN DUEN BILAKAERA, HAINBAT ROL-HARREMAN ETA ESPAZIOTAN. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA IZANDAKO ALDEA 1991TIK 2016)**



Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoa abiatuta. Zehazki, ISL-301 eta ISL-314 bitarteko adierazleak eta ISL-421 eta ISL-424 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.3.5. eta 11.4. puntuetan, hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa*ren datu-basea (1991-2016). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

## 15.5. EUSKARAREN ERABILERA ETA ADINA

- ✓ **Zer-nolako da hiztunen erabilera euren adina kontuan hartuta?**
- ✓ **Zer-nolako izan da azken hamarkadetako bilakaera?**


Orain arte erabileraren azterketa, orokorrean, hiztun guztiak (edo hiztun euskaldunak) multzo bakar gisa hartuta egiten duten erabilerara bideratu dugu. Horretaz gain, jakina, erabilera eta horren bilakaera ez da homogenea aldagai aske ugari aintzat hartuz gero. Aldatu egingo da, adibidez, generoaren, klase sozialaren, adinaren, lurraldearen edo dezente luzatu genezakeen aldagai-zerrenda baten arabera. Lan honen helburuetan ez da sartzeko alderdi horiek guztiak arakatzea. Zehazki, erabilera honako bi aldagai aske hauen arabera aztertuko dugu lan honetan: hiztunen adina eta hiztunak bizi diren lurraldea. Erabilera lurraldeka nola aldatzen den, aurrerago aztertuko dugu, 18.4. puntuan, testuinguru demolinguistikoen kapituluan. Azpikapitulu honetan, berriz, adinaren arabera azterketa egingo dugu.

Hiztunen erabilera adinka zertan den erakusteko asmoz, G.59. grafikoa sortu dugu, HEKN eta ISLko datuetan oinarrituta. Bertan, euskararen batez besteko erabilera adinka nola gertatzen den erakusten da, eskura ditugun datu berriekin: kaleko erabileran 2021ean behatu diren datuak erakusten dira ezkerrean eta aurrez aurreko harremanetako erabilera aitortua eskuinean, 2016 urtekoak. Bi iturriek lantzen dituzten

adin-multzoak beti bat ez datozen arren, eta ISLk hurrei buruzko informaziorik jasotzen ez duen arren, bi grafikoek badute oinarrizko antzekotasun bat: bietan belaunaldi gazteenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta zaharrak gutxien, eta tarteko adin-multzoek hurrenkera nahiko ordenatua jarraitzen dute muturreko bi adinen artean. Hots, “zenbat eta gazteago, orduan eta euskararen erabilera handiagoa” logika erakusten dute, oinarrian, datuek. Bi ñabardura: batetik, ISLren kasuan, alde txikiarekin bada ere, apur bat handiagoa da zaharrenen erabilera 50-64 adinekoena baino. Bestetik, HEKNren kasuan, “zenbat eta gazteago, orduan eta euskara gehiago” logikari salbuespen adierazgarria egiten diote gazteen erabilera-datuek: kalean neurtutako elkarrizketetan, euskara gehiago entzun zen 25-44 urtekoen artean 15-24 urte artekoen artean baino. Zehatzago begiratuta, HEKNko datuek erakusten digute adinkideekiko harremanak soilik aintzat hartuta, mailaketa perfektua erakusten dutela datuek, eta kasu horretan euskara gehiago darabiltela 15-24 urteko hiztunek 25-44koek baino, azken horien jarduna erdaldundu egiten baita adinkideekin aritzerakoan (Altuna et al., 2022). Baina, esandakoa, harreman guztiak neurtuta, haurrak entzun ziren gehien euskaraz, 25-44 urteko hiztunak bigarrenik eta 15-24 urteko gazteen erabilera agertu zen hirugarren tokian, aurreko bi multzoen atzetik eta 45-64 urteko helduen eta 65 urtez gorako adinekoen gainetik. Aipatutako bi ñabardura horietan, beraz, ez datoz guztiz bat ISL-404 adierazlearen arabera datuek eta HEKNko azkenek eskaintzen duten irudia.

Grafikoa ikusita, bestalde, agerikoa da oro har ISLren erabilera-datuak goragotik dabilzala HEKNkoak baino. Horretaz aritu gara 15.1.2. puntuan eta ez ditugu hemen berrituko han esandakoak.

**G.59. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA, ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 ETA 2021 (BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



**Iturria:** egileak landua, 2021 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik (Altuna et al., 2022: 25) eta 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Aurrez aurreko erabilerarako zehazki, ISL-404 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.4. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikokoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikoa A motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

Goazen bilakaera-datuekin. Erabilera adinka urtez urte nola gertatu den jasotzen duten datuak bildu ditugu T.155. taulan. Eta G.60. grafikoan, ISL-404 adierazlearen arabera, aurrez aurreko harremanetan euskarak izan duen pisuaren bilakaera nola gertatu den

jasotzen da, erabileran gora egin duten eta behera egin duten adin-taldeen datu-serieak aurkeztuz. Bertan ikus daitekeenez, ISLko datuek euskararen erabileraren igoera jarraitua eta gorabehera handirik gabea ageri dute aztertu ditugun hiru adin-talde gazteenentzat: 15-24 urteko gazteentzat, 25-34 urteko gazteentzat eta 35-49 urteko helduentzat. Hori bai, hiru adin-taldeok 1991ko abiapuntua berdintsua izanik (%10-%11 inguruko erabilera), igoera handiagoa erakusten dute datuek 15-24ko gazteenentzat (%21,6ko erabilera 2016an), igoera apur bat apalagoa 25-34koentzat (%18,9) eta igoera dezente apalagoa 35-49 urtekoentzat (%14,0ko erabilera 2016an). Adin talde zaharragoetan erabilera jaitsi egin dela diote ISLko datuek, jaitsiera apalagoa 50-64koentzat eta dezente handiagoa 65 urtetik gorakoentzat. Laburtuz, ISL-404 adierazleak joera argiak erakusten ditu adinka aurrez aurreko harremanetako erabilerari buruz: zenbat eta adin-talde gazteagoa, orduan eta bilakaera hobea aztertu dugun epealdian; zenbat eta adin talde zaharragoa, orduan eta kaskarragoa.


**T.155. TAULA: EUSKARAREN ERABILERA AURREZ AURREKO HARREMANETAN ETA KALEAN, ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016-2021 (EUSKARAZ, %)**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021	1991-2016 aldea	Bilakaera (%)
<b>Aurrez aurreko harremanetako erabilera aitortua, ISL-404 adierazlea (euskaraz, %)</b>									
16tik 24ra	10,2	13,0	14,9	18,7	19,3	21,6		11,4	112,3
25etik 34ra	10,4	11,1	11,4	15,1	16,7	18,9		8,5	81,6
35etik 49ra	10,8	12,3	11,5	12,3	13,3	14,0		3,3	30,3
50etik 64ra	14,0	14,4	11,7	12,0	12,3	12,7		-1,2	-8,9
65 edo gehiago	19,7	19,2	16,1	16,1	14,7	13,3		-6,4	-32,7
<b>Kaleko erabilera behatua (euskaraz, %)</b>									
Haurrak (2-14 urte)	15,6	17,5	18,5	19,6	19,2	18,3	19,3	2,7	17,3
Gazteak (15-24 urte)	9,3	11,8	13,6	13,3	13,4	12,3	12,5	3,1	33,0
Helduak (25-64 urte)	9,6	11,0	11,1	12,0	11,8	11,5	11,5	2,0	20,4
Adinekoak (65 urtetik gora)	13,3	13,3	12,6	10,5	9,7	8,2	8,1	-5,1	-38,3
<b>Desorekaren neurriaren indizea: AAH erabilera ISL-404 adierazlean, HEKN=100 izanik</b>									
Gazteak (15-24 urte)	110,0	109,8	109,5	140,5	144,3	175,6			
Adinekoak (65 urtetik gora)	148,4	144,6	127,5	153,1	151,1	162,1			

**Iturria:** egileak landua, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik eta Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta (ISL-404 adierazlea). [Jatorrizko iturriak: kaleko erabilerarako HEKNk behatutako emaitzak (Altuna et al., 2022: 23); aurrez aurreko erabilerarako, *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikoa A motakoa da (ikus 11.4.6. puntua). Epekatze homogeen baten bila, HEKNko 1989 eta 1993ko datuen batez bestekoen bidez, guk sortu ditugu 1991ko datuak. 1996rako eskaintzen den datua, bestalde 1997koa da berez (10. Kapituluaz azalpenak).

**G.60. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA AURREZ AURREKO HARREMANETAN, ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, 2016-2021 (BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**




Iturria: egileak landua, Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta (ISL-404 adierazlea baliatu da). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikokoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: aurrez aurreko harremanetako erabilerearen adierazle sintetikoa A motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

Jo dezagun orain kale-erabilerari buruzko datuetara eta ikus dezagun lehenik haurrei buruzko datu-seriea, horrelakorik ez baitzen ISLko datuetan. T.155. taulan eta G.61. grafikoan ikus daitezkeen bezala, euskararen kaleko erabilera indartsu samar handitu zen haurretan, 1991ko %15,6tik 2006ko %19,6ra. Hurrengo hamarkadan jaitsi egin zen, 2016ko %18,3ra, eta 2021. urtean berriro ere gora egin zuen, 2006ko mailaraino. Epealdi osoa aztertuta, %15,6tik %19,3ra igo da kalean behatu diren haurren elkarrizketetan euskarazko elkarrizketek duten pisua. Hori da epealdi osoan hazkunderik argiena izan duen taldea.

Haurrak albo batera utzita, 15 urtetik gorako hiztunei erreparatuta, adinkako bilakaera-joerek bat egiten dute ISLren datuen ikuspegi orokorrarekin: bilakaerarik onena 15-24 urteko gazteen belaunaldiak izan du 1991-2021 urteetan (%9,3tik %12,5era igo da erabilera), eta kaskarrena adinekoek, 65 urtetik gorakoek hain zuzen (%13,3tik %8,1era jaitsi da). Tarteko adin-multzo zabalak, 25-64 urte artekoak, igoera apala izan du, %9,6tik %11,5era, eta aurreko bi multzoen bilakaera-joeren artean kokatzen da. Ikuspegi horretan bat datoz, beraz, bi iturriak. Ez datoz bat igoerak izan dituzten taldeetan igoera hori zenbatekoa izan den zehazteko garaian: nabarmen indartsuago hazi da euskararen aurrez aurreko harremanetako erabilera, ISL-404 adierazlearen arabera, kaleko erabilerearen datuen arabera baino.

**G.61. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA KALEAN, ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, 1991-2021 (BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



Iturria: egileak landua, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik abiatuta (Altuna et al., 2022: 23)

Oharrak: Epekatze homogeen baten bila, HEKNko 1989 eta 1993ko datuen batez bestekoen bidez, guk sortu ditugu 1991ko datuak. 1996rako eskaintzen den datua, bestalde 1997koa da berez.

Bestalde, denboran zehar erabilera nola aldatu den deskribatzerakoan bi iturriak ez datoz bat. ISL-404 adierazlearen bilakaera-datuek bere joera ematen diote adin-talde bakoitzari, hobe edo kaskarragoa, eta joera horretan, badira bosturtekoei lotutako gorabeherak, baina 25 urteen aldi osorako bilakaera lineal samarra erakusten dute datuek, fase edo aldi ezberdin aipagarririk gabe<sup>259</sup>. HEKNko datuetan bestelakoak dira kontuak. 65 urtetik gorako adinekoen taldean beherako joera nahiko jarraitua ageri dute 1996-2016 tartean. Gainerako taldeak hartuta, baina, honako epekatze hau iradokitzen digute kaleko erabileraren bilakaerari buruzko datuek:

- Euskararen kaleko erabileraren igoera-fase argi bat izan da 1991-2006 bitartean. Fase horren barruan, 90eko hamarkada osoan, 1991-2001 tartean, igoera orokortuak gertatu dira, zaharren adin-tartean ez beste guztietan, haurren eta gazteen artean batez ere, baita helduen artean ere, apalago bada ere (+2,4 puntu). Fase horren azken bosturtekoan, 2001-2006 urteetan, igoerak jarraitu egiten du haur eta helduetan, baina gazteen erabilerak utzi egiten dio igotzeari. 1991-2006 aldi osoa kontuan hartuta, 4,0 puntutan igotzen da euskararen erabilera haur eta gazteen artean eta 2,1 puntutan helduen artea.
- 2006 eta 2016 bitartean, atzera egiten du kaleko erabilerak, eta galdu egiten du aurreko hamabostaldian aurreratu zuenaren zati bat. Zehatzago, 2006-2011 bosturtekoan, intentsitate txikiko jaitsiera erakusten dute datuek, hamarren batzuetako jaitsiera haur eta helduetan, eta gazteen artean hori ere ez. 2011-2016 bosturtekoan jaitsiera zer edo zer handiagoa da, izugarria izan gabe ere. 2006-2016 aldi osoa kontuan hartuta, 0,9 puntutan jaitsi zen euskararen erabilera haurren artean, 1,0 puntutan gazteen artean eta 0,5 puntutan helduen


<sup>259</sup> Salbuespen posible gisa gazteen datua genuke: 15-24 urtekoen erabilera erritmo biziagoz igo zen 1991-2006 bitartean 2006-2016 bitartean baino.

artean. Laburtuz, igoera faseko hamabost urteetan irabazitakoaren laurdena inguru galdu zen hamar urte horietan adinekoak ez gainerako adin-tarteetan.

- 2016-2021 bosturtekoan ez dute aldaketa handirik ageri datuek, baina galera-joera eten egin dela dirudi eta goraldi txiki bat dagoela ere bai: helduen artean ez dago inolako aldaketarik, erabilerak bere horretan dirau, gazteen artean 0,2 puntutan igotzen da erabilera eta haurren artean +1,0 puntutan.

Ikuspegi orokorra partekatzen duten arren, alde aipagarriak daude, hortaz, ISLn oinarrituta sortu dugun aurrez aurreko harremanetako erabileraren (%) eta HEKNk adinka kaleko erabilerari buruz eskaintzen dituen datuen artean. Bai epealdi osoan gertatu diren aldaketaren intentsitatean (bilakaera nabarmen hobea aurkezten du ISLtik sortutako adierazleak HEKNko datuen aldean) eta baita epekatzean ere: ISLn 50 urtetik beherako adin-talde gazteenetan etenik gabeko igoera prozesu jarraitua erakusten dute datuek epealdi osoan; HEKNko datuek, berriz, hiru aldi definitzen dituzte ikusi berri dugun bezala. Lehenago ere aritu gara iturri ezberdinetako informazioan oinarrituta egiten diren lanketek ematen duten irudi partzialki kontraesankor horretaz. Honako kasu hau berezia da, alde aipagarriak agertzen direlako, gazteen erabilera-datuekin egindako G.62. grafikoan ikus daitekeen bezala: 2001. urte arte bi iturriek marrazten zituzten bilakaera-joerak bat zetozen bete-betean; hortik aurrera, ordea, aldeak gero eta handiagoak dira.

**G.62. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA AURREZ AURREKO HARREMANETAN ETA KALEAN. EUSKAL HERRIA, 16-24 URTEKO GAZTEAK, 1991-2016 (BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



**Iturria:** egileak landua, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik eta Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta (ISL-404 adierazlea). [Jatorrizko iturriak: kaleko erabilerarako HEKNk behatutako emaitzak (Altuna et al., 2022: 23); aurrez aurreko erabilerarako, *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikokoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikoa A motakoa da (ikus 11.4.6. puntua). HEKNko datuak 15-24 urtetako gazteei dagozkie. Epekatze homogeen baten bila, HEKNko 1989 eta 1993ko datuen batez bestekoen bidez, guk sortu ditugu 1991ko datuak. 1996rako eskaintzen den datua, bestalde 1997koa da berez.

Zer egin du euskararen erabilerak gazteen artean 2001 urtetik aurrera: igo egin da indarrez, ISLk dioen bezala, edo igo beharrean, lehenago mailari eutsi ezinda dago, HEKNko datuek erakusten duten bezala? Ezin erantzun ziurrik aurkitu. Argi bila, gazteen erabileraren berri eman ahal diguten beste iturri batzuetara ere jo dugu.

Hartara, orain arteko bi iturriez gain beste bi ere aintzat hartuta, honako bilakaera-joera hauek erakusten dituzte:

- ISL-404 adierazlearen arabera, 16-24 urteko gazteen aurrez aurreko harremanetan euskararen batez besteko erabilera 1991ko %10,2tik 2016ko %21,6ra igo zen (11,4 puntuko igoera, +%111,8ko igoera erlatiboa). Aldi horren barruan, biziagoa da igoera 1991-2006 tartean 2006-2016 tartean baino.
- HEKNren arabera, 15-24 urtekoen kaleko erabilera 1991ko %9,3tik 2016ko %12,3ra igo zen (3,0 puntuko igoera, +%32,3ko igoera erlatiboa).
- HZen arabera, Hegoaldeko 15-24 urtekoen etxeko erabilera 1991ko %14,1etik 2016ko %18,6ra igo da (4,5 puntuko igoera, +%31,9ko igoera erlatiboa).
- Laugarren iturri baten bila ere jo dugu. *Arrue* ikerketak EAEko 14 urte inguruko nerabeen erabilerak neurtu ditu zentsu-izaera duten ikerketen bidez 2011tik aurrera. Iturri horren arabera, 2011 eta 2017 artean, %21,7tik %21,0ra jaitsi zen euskararen pisua etxeko erabileran, eta %23,7tik %21,8ra jolasgaraian ikaskideekin egiten den erabileran (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2019: 15, 26).

ISLn, HEKN-n, Hegoaldeko Zentsuetan eta *Arruen* ikertu diren urteetan ezberdintasunak daude aztertutako lurraldeetan, erabilera-eremuetan eta adin-taldeetan, eta zuhurtziaz jokatu beharra dago iturri ezberdinen emaitzen alderaketak egiterakoan. Dena den, zentsuek eta *Arruek* eskaintzen dituzten bilakaera-datuek bateragarriagoak dirudite HEKNko erabileraren igoera apalaren ikuspegiarekin eta ez hainbeste ISLko igoera handiagoarekin. Nolanahi ere, horrek ez du guztiz erabakitzen zein izan den gazteen erabilera-joera, baina ezingo da askoz gehiago argitu lehenago ere aipatu dugun eta iturri ezberdinen laginketa, haztatze eta inputazio-irizpideak kontuan hartuko dituen metodologiazko lanketa egin arte gutxienez.

## 15.6. JARDUNAREN OSAERAREN AZTERKETA

✓ *Nork (nolako ezaugarriak dituzten hiztunek) ekoizten du gaur egungo euskara, hiztunen herrialdea, nagusitasun-eremua, lehen hizkuntza eta egungo hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta?*

✓ *Zer-nolakoa izan da bilakaera?*

Erabileraren kapitulua bukatzeko, eta azterketan beste ikuspegi bat irekitzeko asmoz, jardunaren osaera landuko dugu puntu honetan. Metodologia-ataleko 8.4.2. puntuan azaldu den bezala, jardunaren osaerarekin egiten duguna zera da: une jakin batean ekoizten den euskara hartu eta bere osaera aztertu, ekoizleen ezaugarrien arabera. Horrela, eta metodologia-ataleko T.139. taulan irakurrita, adibidez, esan ahalko dugu aurrez aurreko harremanetako euskara emakumeek ekoizten dutela %51,3an eta gizonezkoek %48,7an; edo 35 urtez azpiko hiztunek ekoizten dutela egungo mintzajardunaren %30,5a eta adin horretatik gorakoek gainerako %69,5a. Nolanahi ere, jardueraren osaerak zera adierazten du: egun egiten den euskara, ahoratzen dena, “existitzen” dena, zein ezaugarritako hiztunen bidez ekoizten den.




Euskararen osaera hori aztertuko dugu, lurraldearen, nagusitasun-eremuaren, hiztunen lehen hizkuntzaren eta hiztunen hizkuntza-gaitasunaren arabera. Herrialdearen eta nagusitasun-eremuen arabera HEKN-n oinarrituta aztertuko dugu<sup>260</sup>; lehen hizkuntzaren eta gaitasunaren arabera, ISLn oinarrituta<sup>261</sup>.

### 15.6.1. Herrialdearen arabera jardunaren osaera

Kaleko jardunak herrialdeka gaur egun zer-nolako osaera duen erakusten du G.63. grafikoak. Bertan ikus daitekeen bezala, gaur egun *ekoizten* den euskara guztiaren erdia pasa (%55,6) Gipuzkoan *sortzen* da eta beste zati adierazgarri bat, laurdena pasa (%25,6), Bizkaian. Nafarroa Garaia dagokio *sortzen* den euskararen hamarrena inguru (%11,1), eta toki txikiagoa dute Iparraldeak (%4,0) eta Arabak (%3,7) euskararen eguneroko ekoizpenean<sup>262</sup>.

G.63. GRAFIKOA: KALEKO EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HERRIALDEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%).



Iturria: egileak landua, 2014-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-005 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

<sup>260</sup> Berez, lurraldearekin lotutako bi ikergaietarako, herrialdearen eta nagusitasun-eremuen arabera jardunaren osaera aztertzeko, HEKNra edo HZra jo ahalko genuke. HEKN hobetsi dugu, batetik, Euskal Herri osoko ikuspegia ematen digulako, Iparraldekoa barne. Eta bestetik, 8.6. puntuan esaten genuen bezala, badagoelako demolinguistikan gertatu ohi den alboratze-joera bat, hizkuntza gutxituaren erabilera hanpatzera daramana, eta modu ezberdinduan eragiten diena lurralde ezberdinetako hiztunei lurralde horietan hizkuntzek duten nagusitasun-mailaren arabera. Norbere erabilera hanpatzeko joera hori ez baita erregularra lurraldean hizkuntzak duen nagusitasun-mailari erreparatuta. Aitzitik, gehiago hanpatzen omen dute euren erabilera-maila hizkuntza ahul dagoen lurraldeetan bizi diren hiztunek hizkuntza hori indartsu dagoenetan bizi direnek baino. Horiek horrela, aztergai honek lurraldekako errealitatearekin zerikusi zuzena izanik, baliagarriagoak zaizkigu behaketa bidez jasotako HEKNko datuak galdetegi bidez jasotako zentsuetakoak baino.

<sup>261</sup> Jarduna gauzatzen duten hiztunen lehen hizkuntzaren eta hizkuntza-gaitasunaren arabera, ISLn oinarrituta egingo dugu, eta ez HZn oinarrituta. Hala egingo dugu honako bi arrazoiengatik: HZk ez bezala, ISLk Euskal Herri osoko ikuspegia ziurtatzen digulako batetik eta bestetik, metodologia-atalean azaldu bezala, ISLn askoz ere modu aberatsagoan jasotzen delako HZn baino hizkuntza-gaitasunari buruzko informazioa.

<sup>262</sup> Esan dugu alderdi hau lantzeko HEKNri eman diogula lehenetsua. Aipa dezagun HZko eta ISLko datuak bat datozela orokorrean jardunaren banaketari buruzko datu hauekin, nahiz eta Gipuzkoari eta Nafarroa Garaia HEKNk baino pisu apur bat txikiagoa eman eta Bizkaia apur bat handiagoa.

Oharra: Kaleko erabilerari buruzko datuak 2 urtetik gorako hiltunei dagozkie.

T.156. taulan eta G.64. grafikoan, berriz, bi datu multzo alderatzen dira: hiltunak herrialdeka nola banatzen diren batetik eta euskara herrialdeka nola ekoizten den bestetik. Honela labur dezakegu herrialde bakoitzak hiltun multzo osoari egiten dion ekarpena batetik eta euskararen ekoizpenari (erabiltzeari) egiten diona bestetik:

- 694.196 gipuzkoarrek, hiltun guztien %23,0 izanik, egungo euskararen %55,6 ekoizten dute.
- 1.113.955 bizkaitarrek, hiltun guztien %36,9 izanik, egungo euskararen %25,6 ekoizten dute.
- 621.809 nafarrek, hiltun guztien %20,6 izanik, egungo euskararen %11,1 ekoizten dute.
- 276.765 Iparraldeko hiltunek, Euskal Herriko hiltun guztien %9,2 izanik, egungo euskararen %4,0 ekoizten dute.
- 314.744 arabarrek, hiltun guztien %10,4 izanik, egungo euskararen %3,7 ekoizten dute.


**T.156. TAULA: HILTUNAK, DENBORA OSOKO EUSKARAREN HILTUNAK, ETA KALEKO EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HERRIALDEKA. EUSKAL HERRIA, 2016**

	Pisu Hiltunak demografikoa		Denbora osoko Jardunaren hiltunak osaera		Erabiler- tasak
	Kop	(%)	Kop.	(%)	(%)
Araba	314.744	10,4	13.897	3,7	4,4
Gipuzkoa	694.196	23,0	206.377	55,6	29,7
Nafarroa Garaia	621.809	20,6	41.223	11,1	6,6
Bizkaia	1.113.955	36,9	95.012	25,6	8,5
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa	276.765	9,2	14.954	4,0	5,4
<b>EUSKAL HERRIA</b>	<b>3.021.469</b>	<b>100,0</b>	<b>371.464</b>	<b>100,0</b>	<b>12,3</b>

Iturria: egileak landua, 2014-2018 Hiltuntzen Erabileraren Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-004 eta HEKN-005 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharra: Kaleko erabilerari buruzko datuak 2 urtetik gorako hiltunei dagozkie.

**G.64. GRAFIKOA: HIZTUNEN BANAKETA ETA KALEKO EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HERRIALDEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%).**



Iturria: egileak landua, 2014-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-005 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]


Oharra: Kaleko erabilerari buruzko datuak 2 urtetik gorako hirtunei dagozkie.

Bilakaerei dagokienez, oinarrizko egonkortasun bat erakusten dute datuek. Badaude joera aipagarriak ere, G.65. grafikoan ikus daitekeen bezala: Ipar Euskal Herriak eta Bizkaiak euskararen ekoizpenean zuten zatia txikitu egin da azken 25 urteotan, eta handitu egin da Gipuzkoak, Nafarroa Garaiak eta Arabak ekoiztiko zatia<sup>263</sup>. Jardunaren osaeraren bilakaera-datu horiek irakurtzerakoan kontuan hartu behar da osaera horretan herrialde bakoitzak une bakoitzean jardunaren barruan duen pisua bi aldagaien emaitza konbinatuaren ondorio izango dela: batetik, aldaketak gerta daitezke multzo horren neurriak izan duen gorabeherak eraginda (herrialde horretako hiztun kopurua handitu edo txikitu delako, adibidez), eta bestetik, multzo horretako kideen portaerak ere eragin zuzena izango du, euskara gehiago edo gutxiago erabiltzeak alegia. Ohar hau, jakina, gainerako aldagaien arabera osoa aztertzerakoan ere aintzat hartzea komeniko da.

<sup>263</sup> HEKNko datuez gain HZ eta ISLko datuak ere landuta, hiru iturriek baieztatzen dute Ipar Euskal Herriak euskararen ekoizpenean zuen zatia txikitu egin dela azken 25 urteotan, eta handitu egin dela Nafarroa Garaiak eta, batez ere, Arabak ekoiztiko zatia. Gipuzkoaren eta Bizkaiaren parte-hartzearen bilakaeraz, ordea, ez datoz guztiz bat hiru iturriak. Bizkaiak euskararen ekoizpenean izan duen parte berdintsu mantendu da epealdi osoan, bai HZren arabera etxeko erabileran eta baita ISLren aurrez aurreko harremanetako erabileran; aldiz, HEKNren arabera, jaitsi egin da, aipatu dugun bezala, kaleko erabileran. Gipuzkoaren kasua da, azkenik, kontraesankorra. Horrela, 1991-2016 aldirian, aldaketarik gabe azaltzen zaigu aurrez aurreko harremanetako euskararen ekoizpenean Gipuzkoan ekoiztiko zatia; igo egin da kaleko erabileran gipuzkoarrei dagokien zatia eta jaitsi egin da etxeko erabileran.

Ez gara gai gaur egun Bizkaiaren eta Gipuzkoaren parte-hartzeari eta horren bilakaerari buruz hiru iturriek emandako informazio partzialki kontraesankor hori logika baten arabera azaltzeko. Aurrera begira, herrialdeen kasuan eta baita aurrerago aztertuko ditugun aldagaietan ere, informazio itxuraz kontraesankor horren arrazoien argi bila, batetik, hiru iturriek aztertzen dituzten erabileraren eremuak teorikoki kokatzea eta ikuspegi horretatik datu ezberdin horien ulermenean sakontzea komeniko da. Bestetik, eragiketa demolinguistiko horien laginketan, informazio-bilketan, haztatze-irizpideetan eta analisisan erabili diren prozedura metodologikoetan sakontzea komeniko da, eta ezberdintasunak tankera horretako arrazoiei zor zaizkiela ondorioztatuz gero, neurri homogeneizatzaileak asmatzea.

**G.65. GRAFIKOA: KALEKO ERABILERAN EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HERRIALDEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (2 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, %).**




**Iturria:** egileak landua, 1989-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-005 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**Oharra:** Kaleko erabilerari buruzko datuak 2 urtetik gorako hiztunei dagozkie.

### 15.6.2. Nagusitasun-eremuen arabera jardunaren osaera

Hegoaldeari erreparatuta (gaiaren inguruko daturik ez baitago Iparralderako), zernolako proportzioetan ekoizten da egungo euskara zonalde eta udalerrien euskalduntasunari erreparatuta? Lehen ikuspegi batean, G.66. grafikoko emaitzak aztertuta, esan dezakegu egun ekoizten den euskararen erdia (%50,6) erdara nagusi den udalerrietan ekoizten dela, euskarak erabileran duen pisua %40ra iristen ez den horietan. Laurdena baino gehiago (%27,1) ekoizten da, berriz, arnasmuneetan, euskara nagusi den udalerrietan, hots, euskararen erabilerak %60aren langa gainditzen duen horietan. Gainerako %22,3a nagusitasun argirik gabeko udalerrietan ekoizten da.

**G.66. GRAFIKOA: KALEKO ERABILERAN EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2016 (%).**



**Iturria:** egileak landua, 2014-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-005 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**Oharra:** Kaleko erabilerari buruzko datuak 2 urtetik gorako hiztunei dagozkie.

Azter ditzagun datuak xeheago nagusitasun-eremu guztiak kontuan hartuta eta jardunaren osaerari buruzkoak eremu bakoitzak duen pisu demografikoarekin harremanetan jarrita. T.157. eta T.158. tauletan eta G.67. grafikoan ikus daitekeen bezala:

- Udalerri erdaldunduenetan, euskararen pisua bertako erabileran %20ra iristen ez diren horietan bizi dira Hegoaldeko hiztun gehien-gehienak, bostetik lau, %80,6 zehazki (2.211.811 hiztun kopuru absolutuetan). Bada, udalerri multzo handi horretan ekoizten da gaur egun euskararen ia herena (%31,1). Udalerri horien adibide dira<sup>264</sup> Bilbo eta Donostia, Gasteiz eta Iruñea, Tutereta eta Sestao, Irun, Getxo eta Leioa. Udalerri multzo zabal honen barruan, era berean, bi azpimultzo bereiz ditzakegu:
  - Ingurune erdaldunetan erdaldunenak direnetan (kaleko erabileran euskara %10era iristen ez den udalerrietan) bizi dira Hegoaldeko hiztun guztien bi herenak (1.827.902 hiztun, guztien %66,6). Udalerri multzo horretan egungo euskararen %15,1 ekoizten da. Udalerri horien adibide dira Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Barakaldo, Getxo eta Tutereta.
  - Kaleko erabilera %10-%20 duten udalerrietan bizi diren 383.909 hiztunek, berriz, hiztun guztien %14,0 osatzen dute; udalerri horietan egungo euskararen %16,0 ekoizten da. Udalerri horien adibide dira Donostia, Pasaia, Errenteria, Agurain eta Lizarra.
- Erdara nagusi izanda ere, nagusitasun hain erabatekoa ez den udalerrietan (erabileran euskararen pisua %20-%40 duten horietan) 242.191 hiztun bizi dira, eta Hegoalde osoko hiztunen %8,8a osatzen dute. Udalerri horien adibide dira Legazpi, Mungia, Andoain, Hernani, Arrasate, Elorrio, Ordizia eta Elgoibar. Multzo horretako udalerrietan ekoizten da egun euskararen %19,5.
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrietan (euskara-erdarek bertako kaleetan %40-%60 bitarteko erabilera ageri duten horietan) 162.133 hiztun bizi dira, Hegoaldeko hiztunen %5,9. Ezaugarri horietako udalerrak dira, adibidez, Lesaka, Gernika-Lumo, Tolosa, Zarautz, Usurbil, Baztan, Zumaia eta Oiartzun. Multzo horretako udalerrietan ekoizten da egungo euskararen %22,3.
- Arnasgune erasnetan, euskararen kaleko erabilera %60-%80 tartean kokatzen den herrietan, 83.868 hiztun bizi dira, eta Hegoaldeko hiztunen %3,1 soilik izanda ere, jardun osoaren %16,3 ekoizten dute. Udalerri horien adibide dira Mutriku, Oñati, Azkoitia, Arbizu, Zestoa, Markina-Xemein, Lekeitio eta Ondarroa.
- Arnasgune beteetan, azkenik, udalerri euskaldunenetan (kaleko erabilera %80aren gainetik dutenetan), 44.701 hiztun bizi dira, Hegoaldeko hiztunen %1,6a besterik ez. Hiztun gutxi horiek euskararen egungo jardun osoaren

---

<sup>264</sup> Adibideetarako, udalerriek HEKN-01 adierazlean 2016. urterako hartu dituzten balioak hartu ditugu aintzat.

%10,7 ekoizten dute. Udalerri horien adibide dira Azpeitia<sup>265</sup>, Errezil, Goizueta, Leitza, Muxika, Aulesti eta Ataun.

Datu mamitsuak iruditzen zaizkigu taula horiek erakusten dituztenak<sup>266</sup>. Azken hamarkadotan asko azpimarratu izan da gaur egungo euskaldunak gune urbano erdaldunduetan bizi direla nagusiki. Hori horrela da, euskaraz hitz egiteko gai diren hiztunak non bizi diren kontuan hartuz gero; horixe bera berresten du 18.1.2. puntuan aurkeztuko dugun informazioak. Ikuspegi horren osagarri, ordea, esan beharra dago oraindik ere euskara gehiena ez dela ekoizten ingurune horietako hiztunen ahotan. Goiko datuak laburtze aldera, esan daiteke hiztun guztien bi herenak (%66,6) biltzen dituzten udalerri erdaldunduenetan gaur egungo euskarazko jardun erreala zati txiki bat besterik ez dela sortzen, %15,1a besterik ez. Gainerako udalerri guztietan bizi dira hiztunen beste herena (%33,4), eta horien artean ekoizten da egungo jardunaren zati nagusi-nagusia, %84,9 hain justu. Udalerri horien barruan, arnaguneek egungo jardunaren %27,0 ekoizten dute, nahiz eta Hegoaldeko hiztun guztien %4,7 baino ez diren bizi horietan.

---

<sup>265</sup> Azpeitiaren kasuan, 2016ko zentsuko datuen arabera, etxeko erabilera %73,8koa izan bazen ere, tasa esleituak erabilita, kaleko erabilera %80,3an kokatu zen (kopuru hori gainditu egin da 2021eko neurketan, %86,6ko balioarekin).

<sup>266</sup> HEKNren datuetan oinarrituta aztertzen ari gara nagusitasun-eremuen arabera jardunaren osaera. Aipa dezagun iturri horretan oinarrituta sortu ditugun datuak ez datozela guztiz bat etxeko erabileri buruz zentsuek ematen dituzten datuekin eta aurrez aurreko harremanetako erabileri buruz ISLk ageri dituenekin. Alde nagusia honako hau da: arnaguneetan ekoizten den euskarak pisu handiagoa du HEKNren kale-erabileran eta ez hainbeste HZren etxeko erabileran eta ISLren aurrez aurreko harremanetako erabileran. Alde horrek ez gaitu harritzen, gehienbat, testuinguru demolinguistikoaz arituko garenean ikusiko dugun bezala, arnaguneen multzoa handiagoa baita HEKN-n oinarritutako kalkuluetan HZn oinarritutakoetan baino. Hala eta guztiz, zentsuetako etxeko erabileraren kasuan "euskaraz soilik edo nagusiki" egiten dutenen banaketa ez da HEKNtik abiatuta egindako horren hain ezberdina. Adibidez, 2011ko zentsuko datuen arabera, erdara nagusi den bi nagusitasun-eremuetan bizi dira hiztun aktibo horien erdiak (%49,9); beste erdiak arnaguneetan edo nagusitasun argirik gabeko udalerrietan bizi dira (%50,1).

**T.157. TAULA: HIZTUNAK, DENBORA OSOKO EUSKARAREN HIZTUNAK, ETA EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO UDALERRIEN MULTZOKATZE XEHEAREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2016**

	Hiztunak demografikoa Kop	Pisu (%)	Denbora osoko hiztunak Kop.	Jardunaren osaera (%)	Erabilera-tasak (%)
%10 baino gutxiago	1.827.902	66,6	53.857	15,1	2,9
%10-19,9	383.909	14,0	57.098	16,0	14,9
%20-29,9	148.010	5,4	35.986	10,1	24,3
%30-39,9	94.181	3,4	33.461	9,4	35,5
%40-49,9	96.401	3,5	43.548	12,2	45,2
%50-59,9	65.732	2,4	36.003	10,1	54,8
%60-69,9	41.377	1,5	26.476	7,4	64,0
%70-79,9	42.491	1,5	31.804	8,9	74,8
%80-89,9	34.416	1,3	28.618	8,0	83,2
%90-100	10.285	0,4	9.658	2,7	93,9
HEGO EUSKAL HERRIA	2.744.704	100,0	356.510	100,0	13,0

Iturria: egileak landua, 2014-2018 Hizkuntzen Erabilerearen Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-004 eta HEKN-005 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilerearen neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharra: Kaleko erabilereari buruzko datuak 2 urtetik gorako hiltune dagozkie.


**T.158. TAULA: HIZTUNAK, DENBORA OSOKO EUSKARAREN HIZTUNAK, ETA EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, NAGUSITASUN-EREMUKA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2016**

	Hiztunak demografikoa Kop	Pisu (%)	Denbora osoko hiztunak Kop.	Jardunaren osaera (%)	Erabilera-tasak (%)
Erdararen nagusitasun handiko udalerrriak (euskararen kaleko erabilera %20tik behera)	2.211.811	80,6	110.955	31,1	5,0
Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerrriak (euskararen kaleko erabilera %20-%40 artean)	242.191	8,8	69.448	19,5	28,7
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (euskararen kaleko erabilera %40-%60)	162.133	5,9	79.551	22,3	49,1
Arnasgune erasanak. Euskararen nagusitasun ez erabateko udalerrriak (kaleko erabilera %60-%80 bitartean)	83.868	3,1	58.280	16,3	69,5
Arnasgune beteak. Euskararen nagusitasun handiko udalerrriak (euskararen kaleko erabilera %80tik gora)	44.701	1,6	38.275	10,7	85,6
HEGO EUSKAL HERRIA	2.744.704	100,0	356.510	80,1	13,0

Iturria: egileak landua, 2014-2018 Hizkuntzen Erabilerearen Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-004 eta HEKN-005 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilerearen neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharra: Kaleko erabilereari buruzko datuak 2 urtetik gorako hiltune dagozkie.

**G.67. GRAFIKOA: HIZTUNEN BANAKETA ETA KALEKO EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 2014-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-004 eta HEKN-005 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]


Oharra: Kaleko erabilerari buruzko datuak 2 urtetik gorako hiltunei dagozkie.

Bilakaera-datuei erreparatuz, ez da aldaketa joera indartsurik antzematen azken 25 urteotan nagusitasun-eremu araberako jardunaren osaeran, G.68. grafikoan ikus daitekeen bezala. Egonkortasun orokor horren barnean, bai udalerrri euskaldunenek eta baita erdaldunenek ere, neurri txikian, baina jaitsi egin dute jardunaren osaerari egiten dioten ekarpena; euskarari egiten dioten ekarpena gehien handitu duten herriak tartekoak lirateke, euskara-erdaren erabilerak nahiko parekatuta dituzten horiek. Dena den, ez da aldaketa-joera argi eta indartsurik antzematen<sup>267</sup>.

<sup>267</sup> Bestelako irudia eskaintzen digu HZn eta ISLn oinarrituta egin dezakegun jardunaren osaeraren bilakaeraren azterketak. Bi iturri horien arabera, eta etxeko erabilerari zein aurrez aurreko harremanetakoei erreparatuta, ingurune euskaldunetan ekoizitako euskara pisua galtzen ari da eta erdara nagusi den udalerrietan ekoizitakoak irabazten du pisu hori. Alde horrek bat egiten du testuinguru demolinguistikoen bilakaeran HZk eta HEKNk erakusten diguten ikuspegi ezberdinarekin (aurrerago azalduko dugu). Bestalde, HEKNrekiko alde hori, hein handi batean behintzat, HZ eta ISLk erabilera aitortuarekin lan egitearen ondorio izan daiteke; euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruak gehienbat zonalde erdaldunagoetan handitu direnez, litekeena da zonalde horiek euskarazko jardunari egindako ekarpenaren neurria gero eta hanpatuago azaltzea azken 25 urteotako datuetan. Aldearen behin-behineko azalpen-ildo posibleak dira, hala ere, aipatu ditugunak. Aurrera begira, ikuspegi metodologikotik sakonago aztertu beharko litzateke auzi hori, ondorio sendorik atera ahal izateko.



**G.68. GRAFIKOA: KALEKO ERABILERAN EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (2 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, %).**




Iturria: egileak landua, 1989-2018 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketatik abiatuta. Zehazki, HEKN-005 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 10.8. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharra: Kaleko erabilerari buruzko datuak 2 urtetik gorako hiztunei dagozkie.

### 15.6.3. Hiztunen lehen hizkuntzaren arabera jardunaren osaera

Zer-nolako ekarpena egiten diete gaur egungo euskal hiztunek euskarazko jardunari, euren lehen hizkuntza kontuan hartuta? Galdera horri erantzuteko, ISLra jo dugu eta, G.69. grafikoan ikus daitekeenez, gaur egungo aurrez aurreko harremanetako euskarazko jardunaren bi herenak baino gehiago (%68,5) lehen hizkuntza euskara izan zuten hiztunek ekoitzia da, euskaldun zaharrek alegia. Lehen hizkuntza erdara izan zuten euskaldunek (euskaldun berriek) ekoizten dute egungo jardunaren ia bostena (%19,1). Jatorrizko elebidunek (lehen hizkuntza gisa euskara eta erdara izan zutenek) ekoizten dute gainerako %12,4a. Horixe da ISLn elkarrizketatuek zuzenean emandako erantzunetatik ondorioztatzen dena, lehen hizkuntzaren arabera jardunaren osaera aztertzen hasita. Pentsatzekoa da, alboratzeak hiztun multzo batzuei eta besteei eragiteko duen modu ezberdina tarteko, kopuru horiek adierazten dutena baino zer edo zer handiagoa izango dela euskaldun zaharrek ekoiztiko zatia eta zer edo zer txikiagoa euskaldun berriek ekoiztiko.

**G.69. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERA EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, %).**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-504 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.5.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Edonola ere, eta inkestatuen erantzunei atxikita, T.159. taulan eta G.70. grafikoan ikus daitekeen bezala, proportzioan, noski, ekarpen handiagoa egiten dute lehen hizkuntza euskara izan zuten hiztunek eta txikiagoa lehen hizkuntza gisa euskara izan ez zutenek. Zehazki:


- Lehen hizkuntza euskara izan zuten hiztunak, gaur egun euskaldunen artean erdiak izanda (%50,2), hortik dezente gora joaten da euren ekarpena, eta jardunaren %68,5 ekoizten dute.
- Lehen hizkuntza gisa euskara eta erdara izan zituzten hiztunak, euskaldun guztien %13,6 izanik, %12,4ko ekarpena egiten diote jardunari.
- Lehen hizkuntza erdara izan zuten hiztunak, euskaldunen %36,2 izanik, %19,1eko ekarpena egiten diote euskarazko jardunari.

**T.159. TAULA: EUSKAL HIZTUNAK, AURREZ AURREKO HARREMANETAKO DENBORA OSOKO EUSKARAREN HIZTUNAK, ETA EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016**

	Euskaldunak		Denbora osoko Jardunaren hiztunak osaera		Erabilera-tasak (%)
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	
H1 euskara	377.052	50,2	270.184	68,5	71,7
H1 biak	102.369	13,6	48.863	12,4	47,7
H1 erdara	272.106	36,2	75.162	19,1	27,6
<b>GUZTIAK</b>	<b>751.527</b>	<b>100,0</b>	<b>394.210</b>	<b>100,0</b>	<b>52,5</b>

Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-504 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.5.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


**G.70. GRAFIKOA: EUSKAL HIZTUNEN BANAKETA ETA AURREZ AURREKO HARREMANETAKO EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-504 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.5.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Bilakaera-datuek joera argia erakusten dute kasu honetan: duela 25 urte, euskaldun zaharrek ekoizten zuten ia euskara guztia, %89,8a zehazki. Urtez urte, ordea, geroz eta handiagoa da euskaldun berriek eta jatorrizko elebidunek egiten duten ekarpena. Joera jarraitua eta etenik gabea erakusten dute datuek. Epealdi osoa aintzat hartuta, hirukoiztu egin da euskaldun berriek zein jatorrizko elebidunek euskarari egiten dioten ekarpena. Hala ere, 2016. urtean oraindik, hasieran esan bezala, euskarazko jardunaren zati nagusia euskaldun zaharrek ekoizten dute.

**G.71. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERAN EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, %).**




Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-504 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.5.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

#### 15.6.4. Hizkuntza-gaitasunaren araberako jardunaren osaera

Gaur egungo aurrez aurreko harremanetako euskarazko jardunaren bostetik bi baino gehiago (%41,9) euskal nagusitasunezko hiztunek ekoizten dute, euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutenek edo soilik euskaraz dakitenek. Nagusitasunik gabeko elebidunek, euskaraz eta erdaraz bietan berdintsu moldatzen direla esan dutenek, ekoizten dute mintzajardunaren herena baino gehiago (%35,3). Erdal elebidunek, azkenik, euskaraz jakin arren erdaraz errazago moldatzen direnek, ekoizten dute gainerako %22,7a. Horixe da ISLn elkarriketatuek zuzenean emandako erantzunetatik jardunaren osaerari buruz atera dugun ondorioa. Pentsatzekoa da, alboratzeak hiztun multzo batzuei eta besteei eragiteko duen modu ezberdindua tarteko, kopuru horiek adierazten dutena baino zer edo zer handiagoa izango dela euskal nagusitasunezko hiztunek ekoizten duten zatia eta zer edo zer txikiagoa erdal elebidunek ekoitzia.

**G.72. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERAN EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, %).**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-504 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.5.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Nolanahi ere, eta inkestatuen erantzunei atxikita, datuek erakusten dute gaitasunaren araberako hiztunen multzo bakoitzaren ekarpena ez dela zuzenean proportzionala euren neurriarekiko:


- Euskal nagusitasunezko hiztunak, euskaldunen arteko gutxiengoa izanda (195.632 hiztun, hiztun euskaldun guztien laurdena pasa, %26,0) ekoizten dute zatirik handiena, jardunaren %41,9 hain zuzen ere.
- Nagusitasunik gabeko 221.754 elebidunek ere, hiztun euskaldunen %29,5 izanik, proportzionalki egokituko litzaiekeena baino zati handiagoa ekoizten dute, %35,3.
- Gaur egun multzorik handiena osatzen duten erdal elebidunak, azkenik, euskaldunen artean osatzen duten %44,5ari proportzionalki legokiokiena ekoizpen-mailaren azpitik gelditzen dira, %22,7an hain justu.

T.160. **TAULA: EUSKAL HIZTUNAK, AURREZ AURREKO HARREMANETAKO DENBORA OSOKO EUSKARAREN HIZTUNAK, ETA EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016**

	Euskaldunak		Denbora osoko Jardunaren		Erabilera-tasak (%)
	Kop.	(%)	hiztunak Kop.	osaera (%)	
Euskal nagusitasunezko hiztunak	195.632	26,0	165.321	41,9	84,5
Nagusitasunik gabeko elebidunak	221.754	29,5	139.271	35,3	62,8
Erdal elebidunak	334.141	44,5	89.618	22,7	26,8
<b>GUZTIAK</b>	<b>751.527</b>	<b>100,0</b>	<b>394.210</b>	<b>100,0</b>	<b>52,5</b>

Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-503 eta ISL-504 adierazlea baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.5.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


G.73. **GRAFIKOA: EUSKAL HIZTUNEN BANAKETA ETA AURREZ AURREKO HARREMANETAKO EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZTUNEN HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-504 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.5.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Bilakaerari dagokionez, joera argia antzematen da, joera hori oso indartsua ez bada ere. G.74. grafikoan ikus daitekeen bezala, azken 25 urteotan jaitsi egin da euskal nagusitasunezko hiztunek jardunari egiten dioten ekarpenaren pisua, 1991ko %52,0tik 2016ko %41,9ra. Erdal elebidunen ekarpenaren neurria egonkor azaltzen zaigu epealdi osoan, aldaketa handirik gabe, %21-%23 inguruan; gogoratu dezagun hori dela euskaldunen artean gehien handitu den multzoa; hala eta guztiz, esan bezala, euren multzoa handitu arren, euren ekarpenaren pisuak ez du gora egin. Tarteko multzoak, azkenik, nagusitasunik gabeko elebidunenak, handitu egin du bere ekarpenaren neurria, 1991ko %26,8tik 2016ko %41,9ra.

**G.74. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERAN EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, %).**



Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-504 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.5.2. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

# 16. HIZKUNTZA-GAITASUNA ETA ERABILERA: BI ARDATZAK HARREMANETAN

Aurreko bi kapituluetan, hizkuntza-gaitasunaz eta erabileraz aritu gara hurrenez hurren. Orain hasi dugun honetan, bi ardatz horien inguruan jarraituko dugu, bi ardatzen arteko harremana ikertuz. Kapitulu honetan, hasteko, Euskal Herrian gaur egun dauden euskal eta erdal hiztun-komunitateak kuantifikatzeko hurbilpen-saio bat egingo dugu, hizkuntza-gaitasunean eta erabilera-mailan oinarrituta. Ondoren, hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko aldebiko harremana aztertuko dugu. Eta, azkenik, Euskal Herriko hiztunek duten hizkuntza-gaitasunerako egun dagoen erabilera zer-nolakoa den baloratzen saiatuko gara, hots, euskara asko edo gutxi egiten den.

## 16.1. HIZTUN-KOMUNITATEAK ZENBAKITAN. ZENBAT GARA?

- ✓ *Zer-nolakoa izan daiteke euskal hiztun-komunitatearen neurria eta zer-nolako gaztelaniarena/frantsesarena, hiztunen hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta?*
- ✓ *Eta hizkuntzen erabilerak aintzat hartuta?*

Atal teorikoan azaldu dugunez, hiztun-komunitate baten mugak definitzeko orduan irizpide bateraturik ez dagoen arren, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera izan dira gehien erabili diren irizpideak. Jarraian, T.161. taulan, bi irizpide horiek aintzat hartuta, egungo Euskal Herriko 16 urtetik gorako hiztunen artean euskal eta erdal hiztun-komunitateak zenbakitara ekartzeko ahalegina egiten dugu. Taula hori sortzerakoan kontuan hartu dugu, atal teorikoan azaltzen genuen bezala, gizabanakoak hizkuntza-komunitate bateko baino gehiagoko kide izan daitezkeela batetik, eta komunitate bateko kide izate hori “*kide izan/ez izan*” termino dikotomikoetan baino gehiago, egitura mailakatu batean eta kidetza-maila batean kokatzea komeniko dela bestetik. Horiek horrela, taulan hizkuntza-komunitate bakoitza osatuko luketen kide kopuruaren kalkulua egiten da zenbait maila edo langa ezarrita. Taula horretako datu guztiak ez ditugu irakurriko eta adierazgarriak iruditzen zaizkigun zenbait langa aipatzera mugatuko gara. Hasteko, hizkuntza-gaitasuna hartuko dugu irizpide, eta langa estuago batetik hasita, langa zabalago baterako hurrenkeran joango gara:

- Hizkuntza-komunitatea hizkuntza horretan soilik hitz egiten dakitenek osatuko balute, euskal hiztun komunitatea 11.111 lagun inguruk osatuko lukete eta

gaztelaniaren/frantsesaren komunitatea 1.895.896 lagunek osatuko lukete (erdal komunitateetakoak 170,6 aldiz gehiago euskal komunitatekoak baino).

- Hizkuntza-komunitatea errazen hizkuntza horretan hitz egiten dakitenek osatuko balute, euskal hiztun komunitatea 195.631 lagunek osatuko lukete eta gaztelaniarena/frantsesarena, berriz, 2.230.038k (11,4 aldiz gehiago lirateke erdal komunitateetakoak).
- Hizkuntza-komunitatea hizkuntza horretan hitz egiteko gai diren hiztun guztiek osatuko balute, 751.527 lagunek osatuko lukete euskal hiztun-komunitatea eta 2.636.312 lagunek gaztelaniaren eta frantsesaren komunitateak (3,5 aldiz gehiago).

Irizpide gisa erabilera hartuta, berriz:

- Erabat edo ia erabat hizkuntza horretan bizi direnak hartuko bagenitu aintzat, euren aurrez aurreko jardunaren %90etik gora hizkuntza horretan egiten dutenak zenbatuz, 129.288 lagunek osatuko lukete euskararen hiztun-komunitatea eta 1.985.638 lagunek gaztelaniarena/frantsesarena (15,4 aldiz gehiago).
- Hizkuntza horretan nagusiki bizi direnak hartuko bagenitu aintzat, euren aurrez aurreko jardunaren %60tik gora hizkuntza horretan egiten dutenak zenbatuz, 326.937 lagunek osatuko lukete euskararen hiztun-komunitatea eta 2.190.856 lagunek gaztelaniarena/frantsesarena (6,7 aldiz gehiago).
- Hizkuntza hori gutxieneko maiztasun batez erabiltzen duten hiztunak zenbatuko bagenitu, euren jardunaren %10etik gora hizkuntza horretan egiten dutenak komunitateko kide gisa zenbatuz, 661.783 lirateke euskal hiztun-komunitatea osatuko luketen lagunak eta 2.518.133 erdal komunitatea osatuko luketenak (3,8 aldiz gehiago).

Horrela, beraz, hainbat mugarri aipagarri aintzat hartuta, esan genezake euskal hiztun-komunitateko gaur egungo barren-barreneko geruza ia euskara hutsean bizi diren 130.000 hiztunek osatuko luketela (Euskal Herriko hiztun guztien %4,9). Bigarren geruza batean, eta aurrekoak barnebilduz, nagusiki euskaraz bizi diren 327.000 hiztuneko multzoa izango genuke (hiztun guztien %12,3). Euskararen gutxieneko erabilera bat egiten duten guztiak ere zenbatuta, 662.000 hiztunetara iritsiko ginateke (hiztun guztien laurdena, %25,0). Eta eraztun zabalena hartuko bagenu, hau da, euskara erabili edo ez euskara ulertzen duten hiztun guztiak zenbatuta, 957.000 hiztunetara iritsiko ginateke (hiztun guztien %36,1). Kopuru horiei guztiei, betiere 16 urtetik beherako hiztunak eta Euskal Herritik kanpo bizi direnak erantsi beharko litzaizkieke (ez dugu datu zehatzik hiztun horiek zenbatzeko).



**T.161. TAULA: EUSKAL HERRIKO EGUNGO HIZTUN-KOMUNITATEEN NEURRIEN KALKULUA, 2016 (16 URTEK GORAKO HIZTUNAK).**

	Euskararen hiztun-komunitatea		Gaztealaniaren / frantsesaren hiztun komunitateak		Mota horretako zenbat hiztun erdal komunitatean euskal komunitateko kide bakoitzeko		
	Kop.	% hiztun guztiekiko	Kop.	% hiztun guztiekiko			
<b><u>HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERAKO MULTZOAK</u></b>							
Hizkuntza hori soilik ulertzen dutenak	Euskaldun elebakarrak	5.482	0,2	Erdaldun elebakarrak	1.690.409	63,9	308,36
Hizkuntza horretan soilik dira hitz egiteko gai (nahiz eta "bestea" ulertu)	Euskaldun hartzaileak	5.629	0,2	Erdaldun hartzaileak	205.487	7,8	36,51
Hizkuntza horretan hitz egiten dute errazen (nahiz eta "bestean" hitz egiten jakin)	Euskal elebidunak	184.520	7,0	Erdal elebidunak	334.142	12,6	1,81
Hizkuntza horretan eta bestean erraztasun berarekin jarduten dira	Nagusitasunik gabeko elebidunak	221.754	8,4	Nagusitasunik gabeko elebidunak	221.754	8,4	1,00
Hizkuntza horretan badakite hitz egiten (nahiz eta "bestean" hobeto hitz egin)	Erdal elebidunak	334.142	12,6	Euskal elebidunak	184.520	7,0	0,55
Hizkuntza hori ulertzen dute, nahiz eta hitz egiteko gai izan ez	Erdaldun hartzaileak	205.487	7,8	Euskaldun hartzaileak	5.629	0,2	0,03
<b>HIZTUN GUZTIAK</b>		<b>2.647.421</b>		<b>2.647.421</b>			
<b><u>HIZKUNTZA-GAITASUNEAN OINARRITUTAKO MULTZO METATUAK</u></b>							
Hizkuntza hori soilik ulertzen dutenak		5.482	0,2		1.690.409	63,9	308,36
Hizkuntza horretan soilik hitz egiteko gai direnak		11.111	0,4		1.895.896	71,6	170,63
Hizkuntza horretan bestean baino errazago hitz egiten dutenak		195.631	7,4		2.230.038	84,2	11,40
Hizkuntza horretan bestean bezain erraz (edo errazago) hitz egiten dutenak		417.385	15,8		2.451.792	92,6	5,87
Hizkuntza horretan hitz egiteko gai diren guztiak		751.527	28,4		2.636.312	99,6	3,51
Hizkuntza ulertzen duten guztiak		957.014	36,1		2.641.941	99,8	2,76
<b><u>ERABILERA-MAILAREN ARABERAKO MULTZOAK</u></b>							
Hizkuntza horretan bakarrik dira hitz egiteko gai	Euskaldun elebakar eta hartzaileak	11.111	0,4	Erdaldun elebakar eta hartzaileak	1.895.895	71,6	170,63
Hizkuntza hori darabilte oso nagusiki (>90)	Euskaraz bizi diren elebidunak (>90,0 euskaraz)	118.177	4,5	Erdaraz bizi diren elebidunak (<10 euskaraz)	89.743	3,4	0,76
Hizkuntza hori darabilte nagusiki (%60,0-89,9)	Nagusiki euskara darabilten elebidunak (%60,0-89,9 euskaraz)	197.649	7,5	Nagusiki erdara darabilten elebidunak (%10,0-39,9 euskaraz)	205.218	7,8	1,04
Bi hizkuntzak erabiltzen dituzte maila bertsuan (%40,0-59,9)	Bi hizkuntzak maila bertsuan darabilten elebidunak (%40,0-59,9)	129.628	4,9	Bi hizkuntzak maila bertsuan darabilten elebidunak (%40,0-59,9)	129.628	4,9	1,00
Hizkuntza erabiltzen dute, baina bestea baino gutxiago (%10,0-39,9)	Nagusiki erdara darabilten elebidunak (%10,0-39,9 euskaraz)	205.218	7,8	Nagusiki euskara darabilten elebidunak (%60,0-89,9 euskaraz)	197.649	7,5	0,96
Hizkuntza badakite baina ia ez dute erabiltzen (<10,0)	Erdaraz bizi diren elebidunak (<10 euskaraz)	89.743	3,4	Euskaraz bizi diren elebidunak (>90,0 euskaraz)	118.177	4,5	1,32
<b><u>ERABILERA-MAILAN OINARRITUTAKO MULTZO METATUAK</u></b>							
Hizkuntza horretan bakarrik dira hitz egiteko gai		11.111	0,4		1.895.895	71,6	170,63
Hizkuntza hori darabilte oso nagusiki (>90)		129.288	4,9		1.985.638	75,0	15,36
Hizkuntza hori darabilte nagusiki (>60,0)		326.937	12,3		2.190.856	82,8	6,70
Hizkuntza hori bestea bezainbeste edo gehiago erabiltzen dute (>40,0)		456.565	17,2		2.320.484	87,7	5,08
Hizkuntzaren erabilpen minimo bat egiten dute gutxienez (>10,0)		661.783	25,0		2.518.133	95,1	3,81
Hizkuntza horretan hitz egiteko gai dira		751.526	28,4		2.636.310	99,6	3,51

**OHAR HAUEK AURREKO ORRIALDEKO TAILARI DAGOZKIO:**


Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-501 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.5.1. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: 2016ko Inkesta Soziolinguistikoan ez zen hiztunen gaztelaniazko/frantsesezko hizkuntza-gaitasunaz galdetu eta 16 urtetik gora egon daitezkeen euskaldun elebakar eta hartzaileak euskal elebidunekin batera azaltzen zaizkigu 2016ko emaitzetan. Gure kalkuletarako, eskura dugun datu xehatu berriena hartu dugu aintzat (2001ekoa), eta euskal nagusitasuna duten hiztunen arteko barne-osaera 2001-2016 epean egonkor mantendu dela pentsatuz kalkulatu dugu "euskal nagusitasunezko" hiztunen osaera, eta hiru kategoria horietan banatu.

Bestalde, ISL-501 adierazlearen erabilerari buruzko mailaketak A motako ISL-404 adierazle sintetikotik edaten du (A eta B motako adierazle sintetikoetarako buruz, ikus 11.4.6. puntua).

T.161. taulako erabilerari buruzko datuetan oinarrituta, halaber, G.75. eta G.76. grafikoak sortu ditugu. Bertan irudikatzen da euskal/erdal hiztun-komunitateen egungo neurria eta osaera; irudietako zirkuluen azalerek proportzionalki irudikatzen dute hiztun multzoen neurria. Erabilerari datuekin egin dugun bezala, grafikoa gaitasun-datuetan oinarrituta egin izan bagenu ere, antzeko neurri eta egiturako irudia lortuko genuke. Erabilerari oinarrituta sortu ditugun irudiei begiratuta, bi ondorio orokor atera ditzakegu:




- Batetik, kontuak edozein modutan eginda ere, argi gelditzen da euskal komunitatearen egungo izaera minoritarioa. Handia da bi hiztun multzoen arteko desoreka. Esan beharra dago, gainera, desoreka hori irudi horiek erakusten dutena baino askoz handiagoa dela, egungo testuinguru globalizatuan, Euskal Herriko gaztelaniadun eta frantsesdun hiztun-komunitateak mundu mailako milioika askoko hiztunek osatzen duten komunitate zabalagoen parte diren heinean.
- Bestetik, eta gure azterketa Euskal Herrira mugatuta ere, datuek argi erakusten dute desoreka hori are handiagoa dela zenbat eta hiztun-komunitatearen barrualderago jo, bai hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak erabilia eta baita erabilerari buruzkoak landuta ere. Horrela, bada, hiztun komunitateari ikuspegi gradual batetik begiratu, kanpoaldeko geruza zabalaren baino desoreka handiagoa da barrualdeko geruza trinkoagoetan. Geruza zenbat eta barrukoagoa, orduan eta ahultasun erlatibo handiagoa euskararen hiztun-komunitateak erdal komunitateekiko.



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-501 adierazleak baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.5.1. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: zirkuluen azalerek proportzionalki irudikatzen dute hiztun multzoen neurria. Bestalde, ISL-501 adierazlearen erabilerari buruzko mailaketak A motako ISL-404 adierazle sintetikotik edaten du (A eta B motako adierazle sintetikoei buruz, ikus 11.4.6. puntua).


**G.76. GRAFIKOA: HIZTUN-KOMUNITATEAK EUSKAL HERRIAN, 2016 (16 URTEK GORAKO HIZTUNAK). GERUZAZ GERUZAKO IKUSPEGIA.**




**Nagusiki hizkuntza horretan bizi diren hiztunak**  
(euren jardunaren %60 edo gehiago hizkuntza horretan egiten dutenak)

**ERDAL HIZTUN-KOMUNITATEA**  
(Gaztelania Hegoaldean; frantsesa Iparraldean)

**EUSKAL HIZTUN-KOMUNITATEA**



Hiztunak:  
326.937



Hiztunak:  
2.190.856


**(1a) erabat hizkuntza horretan bizi diren hiztunak**  
(euren jardunaren %90 edo gehiago hizkuntza horretan egiten dutenak)

**ERDAL HIZTUN-KOMUNITATEA**  
(Gaztelania Hegoaldean; frantsesa Iparraldean)

**EUSKAL HIZTUN-KOMUNITATEA**



Hiztunak:  
129.288



Hiztunak:  
1.985.638


**Hizkuntza horretan bakarrik hitz egiteko gai direnak**

**ERDAL HIZTUN-KOMUNITATEA**  
(Gaztelania Hegoaldean; frantsesa Iparraldean)

**EUSKAL HIZTUN-KOMUNITATEA**



Hiztunak:  
11.111



Hiztunak:  
1.895.895

Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-501 adierazleak baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.5.1. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: zirkuluen azalerek proportzionalki irudikatzen dute hiztun multzoen neurria. Bestalde, ISL-501 adierazlearen erabilerrari buruzko mailaketak A motako ISL-404 adierazle sintetikitik edaten du (A eta B motako adierazle sintetikoari buruz, ikus 11.4.6. puntua).

## 16.2. HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ETA ERABILERAREN ARTEKO ALDEBIKO HARREMANAZ

- ✓ *Zer-nolakoa da hizkuntza-gaitasunaren araberrako osaera, hizkuntzen erabilerr-maila kontuan hartuta?*
- ✓ *Eta zenbaterkoa da erabilerr hiztunen hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta?*

Atal teorikoko 3.3.2. puntuan ikusi dugun bezala, hizkuntza-gaitasuna eta erabilerr erreallitate ezberdinak izanda ere, estua eta aldebiakoa da elkarren arteko harremana. Komunitate elebidun baterako hiztunek bi hizkuntzetan duten gaitasunak osatzen du hizkuntza horien erabilerraren zorua: hizkuntza bat eta bestea dakitenen eta ez dakitenen kopuruek nahitaezotasun-egitura bat osatzen dute, hizkuntzen erabilerr posiblearen mugak ezartzen dituen. Eta horretaz gain, hizkuntza batean eta bestean hiztunek duten erosotasunak ere zuzenean baldintzatzen ditu hiztunen hautuak. Hizkuntza-gaitasunaren zorua gainean gauzatzen da, hortaz, erabilerr. Beste norabidean, erabilerr da hizkuntza-gaitasunaren motorra: hizkuntza bat ezin da ikasi erabili gabe, eta zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago landuko dugu hizkuntza horretako gaitasuna, eta gure gaitasuna ahuldu egingo da gutxi erabiltzen badugu (eta ahaztu ere egin dezakegu erabiltzen ez badugu). Horregatik genioen lotura estu-estua dagoela erabilerraren eta gaitasunaren artean. Guk eta ingurukoek hizkuntza batean zenbat eta gaitasun handiagoa izan, orduan eta gehiago erabiliko dugu; zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gaitasun handiagoa izango dugu.

Kokapen horretatik abiatuta, goazen datuen bidez bi aldagai horien arteko harremana azterttera. Sarrera gisa, esan dezagun, euskaldunen ahozko hizkuntza-gaitasunaren (ISL-001) eta aurrez aurreko erabilerraren (ISL-404) 1991-2001 bitarteko datu metatuak hartuta, korrelazio handia ikusten dela bi aldagai horien artean. Zehazki, 0,712ko korrelazioa, Pearsonen koefizientearen erabilerr. Horrek %50,7ko  $r^2$  balioa ematen digu. Behin hori esanda, goazen datuak bi norabideetan azterttera. Lehenik, hiztunek egungo erabilerr-mailaren araberr nolako hizkuntza-gaitasuna duten ikusiko dugu. Ondoren, aurkako norabidean aztertuko dugu bi aldagai horien arteko harremana.


### 16.2.1. Hiztunen hizkuntza-gaitasuna egungo erabilerr-mailaren araberr

Zer-nolako harreman dago une jakin batean hiztunen gaitasun-mailaren eta erabilerraren artean? G.77. grafikoan ikus daitekeen bezala, harremana argia eta

indartsua da: euskaraz bizi diren hiztunen artean (euren aurrez aurreko jardunaren %90etik gora hizkuntza horretan egiten dutenen artean zehazki), hiru laurdenek baino gehiagok hizkuntza hori dute gaitasun-mailan ere nagusi (%76,6), %22,2k diote erraztasun bera dutela euskaraz eta erdaraz aritzeko, eta %1,2k soilik diote erdaraz errazago egiten dutela euskaraz baino. Beste muturrera joz, nagusiki erdaraz bizi diren elebidunen artean (euren aurrez aurreko jardunaren %90etik gora erdaraz egiten duten horien artean), ia guztiak, %98,0, erdal elebidunak dira, erdaraz euskaraz baino errazago egiten dutenak, eta hutsaren hurrengoa dira nagusitasunik gabeko hiztunak edo euskal elebidunak (%1,6 eta %0,5 hurrenez hurren). Horiek dira erabileraren arabera ditugun bi muturretako multzoen datuak. Tarteko erabilera-maila duten hiztunek tarteko banaketa erakusten dute, grafikoan ikus daitekeen bezala.

Harreman estu eta argi horretaz gain, aipagarria gertatzen da, euskararen/erdaren erabilera-maila jakin baterako, gaitasunean ikusten den banaketa erdal aldera alboratuagoa azaltzen zaigula. Adibidez, hiztun elebidunak hartu eta nagusiki euskaraz (%60-%90) ari direnen artean euskal nagusitasuna dutenak %38,8 dira, baina nagusiki erdara darabiltenen artean (erdara %60-%90) erdal nagusitasuna dutenak askoz gehiago dira, %79,4 hain justu. Aurrez aurreko harremanetan euskara-erdaren erabilera parekide samarra dutenen artean ere (%40-%60 artekoa), askoz gehiago dira erdal gaitasuna garatuagoa duten hiztunak euskal gaitasuna nagusi dutenak baino. Orokortuz, erabilera-maila bererako, erdal gaitasuna garatuagoa azaltzen zaigu hiztunen artean euskal gaitasuna baino. Joera horren arrazoieta sakontzen hasteko asmorik gabe, gogorarazi behar da aurrez aurreko harremanetako erabileraren adierazle sintetikoan ez direla erabilera-eremu guztiak biltzen, eta zehazki, ez direla zenbatzen ia erabat erdaraz gauzatzen diren kontsumo alor batzuek (hedabideena, ikus-entzunezkoena eta kulturarena). Horren ondorioz, norbanakoen bizitza osorik hartuta, erdarak pisu handiagoa eta euskarak txikiagoa izango du hiztunen multzo guztietan kopuru horiek adierazten dutena baino. Eta *falta* diren alor horietako erabilera ere aintzat hartuko balitz, pentsatzekoa da erabilera-mailaren eta gaitasun-mailaren arteko harremana are zuzenago ikusiko litzatekeela.

**G.77. GRAFIKOA: HIZTUN EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNA, EUREN ERABILERA-MAILAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK, %)**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-501 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 11.2. eta 11.5.1 puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


**Oharra:** ISL-501 adierazlearen erabilerrari buruzko mailaketak A motako ISL-404 adierazle sintetikoetik edaten du (A eta B motako adierazle sintetikoek buruz, ikus 11.4.6. puntua).

### 16.2.2. Erabilera-maila hiztunen hizkuntza-gaitasunaren arabera

Aurreko G.77. grafikoko informazio bera baina alderantziz landua aurkezten da G.78. grafikoa. Bertan ikus daitekeenez, gaitasunean euskarazko nagusitasuna duten hiztun gehienak euskaraz bizi dira nagusiki; erdal elebidun gehienak, berriz, nagusiki erdaraz. Oraingoan arestian aipatu dugun alboratzea honela azaltzen zaigu: handiagoa da euskal nagusitasuna duten hiztunek euskarari ematen dioten tokia erdal nagusitasuna duten elebidunek erdarari ematen diotena baino. Edo alderantziz esanda: toki gehiago ematen diote euskarari erdal elebidunek euskal nagusitasuna duten hiztunek erdarari ematen diotena baino.



**G.78. GRAFIKOA: HIZTUN EUSKALDUNEN ERABILERA-MAILA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK, %)**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-501 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.5.1. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** ISL-501 adierazlearen erabilerrari buruzko mailaketak A motako ISL-404 adierazle sintetikoetik edaten du (A eta B motako adierazle sintetikoek buruz, ikus 11.4.6. puntua).


Gai bera modu sintetikoagoan batez bestekoen bidez aztertu daiteke, euskaldunak hartu eta euren ahozko hizkuntza-gaitasunaren arabera batez besteko erabilera kalkulatu. G.79. grafikoan ikus daitezkeen bezala:

- Euskaldun hartzaile eta elebakarrak (ia) euskara hutsean bizi dira: %95aren ingurura igotzen da bi multzo horietan euskararen batez besteko erabilera<sup>268</sup>.
- Euskaraz erdaraz baino errazago moldatzen diren hiztunek ere (euskal elebidunek) erabilera-maila handiak dituzte: euren jardunaren %84 inguru egiten dute euskaraz.
- Bi hizkuntzetan berdintsu moldatzen direla dioten elebidunek ere (“nagusitasunik gabeko elebidunek”) erdarara baino gehiago jotzen dute euskarara: %63 ingurukoa da euren euskarazko erabilera-tasa aurrez aurreko harremanetan.

<sup>268</sup> Baten bati deigarria egingo zaio euskaldun elebakarrek jardunaren zati txiki bat erdaraz egiten dutela aitortzea. Nola egingo dute bada erdaraz hizkuntza horretan hitz egiten ez dakitenek? Argitu dezagun demolinguistikari elebakar gisa sailkatzen direla “beste hizkuntzan” ondo hitz egiteko eta ondo ulertzeko gai ez diren hiztunak. Horrela, euskaldun elebakar gisa sailkatu diren hiztunek izan dezakete (horrela izango dute gehienetan) gaztelaniaren/frantsesaren ezagutza bat, nahiz eta euren balorazioaren arabera hizkuntza horietan “nahiko ongi” hitz egiteko gai izan ez. Eta ez da harriztekoa euren jardunaren zati bat hizkuntza horretan egitea.

- Erdal elebidunen jardunean (erdaraz euskaraz baino errazago egiten duten horien artean), azkenik, erdara nagusi azaltzen zaigun arren, euskararen erabilera ohargarria da: euren jardunaren %27 inguru da euskaraz.

**G.79. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA, HIZTUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016(\*); EGOERA GUZTIAK KONTUAN HARTUTA, MINTZAKIDEAK EUSKALDUNAK IZAN EDO EZ (AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERAREN ADIERAZLE SINTETIKOA, ERABILERA-TASAK, %)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-404 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.4.5. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikokoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: erabili dugun ISL-404 adierazle sintetikoa A motakoa da (A eta B motako adierazle sintetikoei buruz, ikus 11.4.6. puntua).

(\*) Euskaldun hartzaile eta euskaldun elebakarren erabilera-datuak 1991-2001 aldiko datu metatuak dira. Kolektibo horiei dagozkien lagin metatuak txikiak dira (136 inkesta euskaldun elebakarrei, 83 inkesta euskaldun hartzaileei), baina baliagarriak dira joera orokorrak ikusteko. Euskal elebidunen datuak, berez, 2016ko euskal nagusitasunezko hiztun guztien erabilera jasotzen du. Izan ere, 2016ko Inkesta Soziolinguistikokoan hiztunen gaztelaniazko/frantsesezko hizkuntza-gaitasunaz galdetu ez zenez, 16 urtetik gora egon daitezkeen euskaldun elebakar eta hartzaileak euskal elebidunekin batera azaltzen zaizkigu 2016ko emaitzetan. Multzo horiek bereizirik jaso ziren azken urtean, 2001ean, %84,1ekoa izan zen euskal elebidunen batez besteko erabilera.

Horiek horrela, datuek argi adierazten dute hizkuntza-gaitasunaren zoruak zerikusi estua duela euskararen erabilerarekin, beste hainbat ikerketak frogatu duten bezala (Aizpurua, 1995: 121; Eusko Jaurlaritza, 2013: 114; Aizpurua, 2018b; Eusko Jaurlaritza, 2019: 62). Lehen begiratu batean, gainera, antzematen da multzoetan euskararen erabilera handia dela oro har, multzo bakoitzak duen gaitasuna aintzat hartuta. Kontuan hartu behar da, gainera, kopuru horiek orokorrak direla, hots, hiztunek euskaldunekin zein erdaldunekin dituzten harreman guztietako erabilera biltzen dutela. Euskaldunekin dituzten harremanak soilik kontuan hartuta, erabilera igo egingo da, berehala ikusiko dugun bezala.

### **16.2.3. Erabilera-maila hizkuntza-gaitasunaren arabera, euskara erabiltzea posible den kasuetan**

Nolakoa da euskararen erabilera hiztun euskaldunen artean, horretarako aukera dutenean, hots, euren mintzakideak ere euskara badakienean? Galdera horri erantzuteko moduko datuak G.80. grafikoan aurkeztu ditugu. Bertan ikus daitezkeen

bezala, egoera horietan<sup>269</sup>, aztertu ditugun hiztun multzo guztien erabilera igo egiten da nabarmen:

- Euskaraz errazago hitz egiten duten hiztunek eta euskaraz bakarrik dakitenek (ia) euskara besterik ez dute erabiltzen egoera horietan: batez beste %93ko erabilera-tasa dute euskal elebidunek eta %99koa euskaldun hartzaile eta elebatarrek.
- Nagusitasunik ez duten elebidunek, hots, euskaraz eta erdaraz berdintsu moldatzen direla dioten horiek, euskaldunetikiko mintza-jardunaren hiru laurden baino gehiago (%78) egiten dute euskaraz.
- Erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen diren elebidunek (erdal elebidunek) euren jardunaren zati handi bat, %40, euskaraz egiten dute, bostetik bi alegia.


Orokorrean, bada, hiztunak euren hizkuntza-gaitasunaren arabera multzokatuta, datu horiek erakusten dute ahal duten kasuetan (hots, mintzalagunak euskaldunak dituztenetan) euskara erabiltzeko joera handia dutela. Multzoz multzo begiratuta, interpretatzeko orduan kasurik argiena “nagusitasunik gabeko elebidunak” multzoarena dugu. Hiztun horiek euskaraz eta erdaraz berdintasun samar moldatzen dira, ezaugarri hori dute; euren autoebaluazioaren arabera, ez dute euskaraz errazago egiten erdaraz baino eta erdaraz ere ez euskaraz baino. Hori horrela izanik, euskaraz eta erdaraz erdi eta erdi egitea litzateke logikoena, euren hizkuntza-hautua erosotasun hutsak erabakiko balu. Grafikoan ikus daitekeenez, euskararen erabilera balizko %50 horren oso gaintetik azaltzen zaigu multzo horretan, %78aren inguruan. Bestela esanda, gaitasunak zuzenean ekarriko lukeen baino dezente gorago azaltzen zaigu multzo horretan euskararen erabilera.

Hizkuntza batean edo bestean nagusitasuna duten hiztun elebidunen portaerak alderatzea ere adierazgarria iruditzen zaigu. Euskal elebidunek errazago zaien hizkuntza (euskara) erabiltzen dute ia erabat (%92,9) eta gutxitan jotzen dute haientzat zailagoa den erdarara (%7,1); hau da, leialtasun handia erakusten dute euskararekiko. Erdal elebidunen artean, ordea, portaera bestelakoa da: bi hizkuntzak erabiltzeko aukera dutenean, horiek ere errazago zaien hizkuntza (gaztelania/frantsesa) erabiltzen dute gehiago (%60,4), baina euskarari (haientzat zailagoa den hizkuntzari) dezente tartea eskaintzen diote (%39,6 egiten dute euskaraz). Hots, euskal elebidunek erdarari eskaintzen dioten tartea baino askoz handiagoa eskaintzen diote erdal elebidunek euskarari.

---

<sup>269</sup> Horretarako, hiztunen egoera hauek hartu ditugu aintzat: bakarkako harremanetan (amarekin, aitarekin, bikotekidearekin, eta abar) mintzakidea euskalduna duten egoerak; taldekako egoeretan (lankideen artean, lagunaren artean, etxean denak elkarrekin daudenean...) taldeko kide guztiak euskaldunak diren egoerak. Hori dela eta, metodologia-atalean azaltzen genuen bezala, alboratuak egon daitezke emaitzak eta euskaldunetikiko erabilera-tasak berez diren baino handiagoak erakutsi. Dena den, bestelako datuek ere erakusten dute aipatzen dugun fenomeno gertatzen dela, hots, euskaraz egiteko joera handia dutela hiztunek, gaitasun erlatiboaren zoruak aginduko lukeena baino handiagoa kasu askotan. Zehazki, aipatzen ari garen alboratzeak eragiten ez dion erabilera bat aztertuta, bikotekideekin egiten dena alegia, ikus daiteke nagusitasunik gabeko elebidunek erdarara baino gehiago jotzen dutela euskarara bikotekide euskalduna dutenean; eta ikusten dugu, halaber, erdal elebidunek gehiago jotzen dutela bikotekide euskaldunarekin euskara erabiltzera euskal nagusitasuneko elebidunek erdarara baino.

**G.80. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA, HIZTUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016(\*); EUSKARA ERABILTZeko AUKERA DAGOEN EGOERAK SOILIK AINTZAT HARTUTA, HOTS, MINTZAKIDEAK ERE EUSKALDUNAK DIRENEAN (AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERAREN ADIERAZLE SINTETIKOA, ERABILERA-TASAK, %)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-424 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.4.5. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharrak: erabili dugun ISL-424 adierazle sintetikoa A motakoa da (A eta B motako adierazle sintetikoei buruz, ikus 11.4.6. puntua).

(\*) Euskaldun hartzaileek eta euskaldun elebakarrek euskaldunekin egiten duten erabileraren datuak 1991-2001 aldiko datu metatuak dira. Kolektibo horiei dagozkien lagin metatuak txikiak dira (135 inkesta euskaldun elebakarrei, 83 inkesta euskaldun hartzaileei), baina baliagarriak dira joera orokorrak ikusteko. Euskal elebidunen datuak, berez, 2016ko euskal nagusitasunezko hiztun guztien erabilera jasotzen du. Izan ere, 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa hiztunen gaztelaniazko/frantsesezko hizkuntza-gaitasunaz galdetu ezenez, 16 urtetik gora egon daitezkeen euskaldun elebarrak eta hartzaileak euskal elebidunekin batera azaltzen zaizkigu 2016ko emaitzetan. Multzo horiek bereizirik jaso ziren azken urtean, 2001ean, %93,4koa izan zen euskal elebidunen batez besteko erabilera euskaldunekin.

Orain artekoak laburtuz, gaitasunaren arabera multzo guztiek euskara erabiltzeko aukera duten kasuetan duten portaera aztertuta, erabilera handia egiten dela ondoriozta dezakegu. Zehatzago esanda: hiztunen hautua erosotasun hutsean oinarrituko balitz horrek ekarriko lukeen erabilera-mailaren gaineratik azaltzen zaigu egun euskararen erabilera. Ideia hori bera zehatzago landuko dugu aurrerago, erabilera baloratzeko erreferentziak aurkeztuko ditugunean. Lehenago, azal ditzagun hizkuntza-gaitasunaren arabera erabilerak zer-nolako bilakaera izan duen azken 25 urteotan.


#### **16.2.4. Erabileraren, harreman-sareen eta euskaldunekiko erabileraren bilakaera, hizkuntza-gaitasunaren arabera multzoetan**

Orain arte datu berrienekin aztertu ditugun alderdi nagusien bilakaera-joerak G.81., G.82. eta G.83. grafikoetan irudikatu ditugu. Horietan ikus daitezkeen bezala, 2016ko datuekin azaldu ditugun hainbat joera orokorrak izan dira aztertu dugun 25 urteko epealdi osoan. Dena den, aldaketak ere gertatu dira hizkuntza-gaitasunaren arabera multzoen errealitatean, hiru grafiko horiek erakusten duten bezala. Azter ditzagun bilakaera-joera horiek multzo multzo:

- Euskal nagusitasunezko hiztunek portaera bertsua izan dute 25 urteetan zehar, aldaketa handirik gabe: euskaldunekiko harremanak (ia) erabat euskaraz egin izan dituzte, eta euren ingurunea nagusiki euskalduna izaki, euskararen erabilera handiari eutsi diote epealdi osoan, %85aren inguruan.
- Nagusitasunik gabeko elebidunek, euskaraz eta erdaraz erraztasun bertsuz aritzen direla diotenek, erabilera handia erakutsi dute euskaldunekin epealdi osoan zehar, goranzko joera batekin. Euren ingurune hurbila ere apur bat euskaldundu denez 25 urteotan, gaur egun euskara gehiago erabiltzen dute aurrez aurreko harremanetan 25 urte lehenago baino: euskararen batez besteko erabilera 1991ko %54,9tik 2016ko %62,8ra igo da hiztun horietan.
- Erdal elebidunek, azkenik, aurkako joera erakusten dute. Hasteko, esan behar da dezente jaitsi dela hiztun horien batez besteko erabilera euskaldunekiko (%54,0tik %39,6ra 25 urtetan). Euren sarean euskaldunek duten pisua igo egin da apur bat, eta ondorioz, ez da hainbeste nabaritzen euren erabilera orokorrean, nahiz eta adierazle horrek ere beherako joera argia erakutsi (%31,8tik %26,8rako 1991tik 2016ra). Garrantzitsua litzateke joera horien arrazoietan sakontzea, batik bat euskaldunen barruan erdal elebidunena azken 25 urteetan gehien handitu den multzoa izan dela kontuan hartuta. Aurreratu ditzagun bilakaera horren hiru arrazoibide posible.
  - Gerta daiteke hiztun horien eta euren mintzakide euskaldunen gaitasuna gaur egun ahulagoa izatea duela 25 urte baino.
  - Hiztun horien multzo nagusia duela 25 urte baino testuinguru demolinguistiko ahulagoetan hazi eta bizi da. Horrek ere izango du zerikusirik aldaketa-joerarekin.
  - Azkenik, baliteke duela 25 urteko hiztunen eta egungoen artean aldeak egotea motibazioan.

Espero dezagun etorkizuneko ikerketek argia ematea deskribatutako bilakaera-joeretan eragin ahal izan duten faktoreak argitzen.


**G.81. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA, HIZTUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. 16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 1991-2016(\*); EGOERA GUZTIAK KONTUAN HARTUTA, MINTZAKIDEAK EUSKALDUNAK IZAN EDO EZ (AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERAREN ADIERAZLE SINTETIKOA, ERABILERA-TASAK, %)**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-404 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.4. puntuetan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** erabili dugun ISL-404 adierazlea A motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).


**G.82. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMAN-SAREEN OSAERA, KIDEAK EUSKALDUNAK DIREN EDO EZ AINTZAT HARTUTA. EUSKAL HERRIKO 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, 1991-2016 (SAREAN EUSKALDUNEK OSATZEN DUTEN BATEZ BESTEKO %A)**



**Iturria:** egileak landua, 1996-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-414 adierazlea baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.4. puntuetan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** erabili dugun ISL-414 adierazlea A motakoa da (ikus 11.4.6. puntua).

**G.83. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA, HIZTUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. 16 URTETIK GORAKO EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 1991-2016(\*); EUSKARA ERABILTZEKO AUKERA DAGOEN EGOERAK SOILIK AINTZAT HARTUTA, HOTS, MINTZAKIDEAK ERE EUSKALDUNAK DIRENEAN (AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERAREN ADIERAZLE SINTETIKOA, ERABILERA-TASAK, %)**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-424 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.4.5. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharrak:** erabili dugun ISL-424 adierazle sintetikoa A motakoa da (A eta B motako adierazle sintetikoetarako buruz, ikus 11.4.6. puntua).

### 16.3. ASKO EDO GUTXI ERABILTZEN OTE DA EUSKARA DAGOEN GAITASUN-MAILARAKO?

✓ **Hizkuntza-gaitasuna eta erabilera aintzat hartuta, asko edo gutxi erabiltzen da euskara? Zer dago “gainetik” eta zer “azpitik”?**

Eskura ditugun datu berrienen arabera, %14,9koa da aurrez aurreko harremanetan euskararen batez besteko erabilera, ISL-404 adierazle sintetikoaren arabera. Euskaldunak bakarrik kontuan hartuta eginez gero kalkulua, euskararen batez besteko erabilera %52,5ekoa izango litzateke<sup>270</sup>. Kopuru horiek handiak edo txikiak al dira? Asko edo gutxi egiten al da euskara, hizkuntza-gaitasunaren zorua nolakoa den kontuan hartuta? Galdera horiei erantzuten saiatuko gara ondorengo orrietan, erabilera berri ematen diguten ehuneko horiek baloratzeko gaitasunari buruzko datuetan sortu ditugun erreferentziei erreparatuta eta erabilera-datuak horiekin alderatuta.

<sup>270</sup> Kapitulu honetan aurkeztuko ditugun erabilera buruzko datuak, A motako adierazle sintetikoaren emaitza dira, hiztunen batez bestekoetan oinarritzen direnak (ez dira, beraz, koefiziente finkoen bidez eraikiak). Esan dezagun, kalkulua B motako adierazle sintetikoaren erara eginda, hau da, koefiziente finkoekin adierazle sintetikoak kalkulatu, emaitza antzekoak lortzen ditugula, aurreko kapituluaren ikusi dugun bezala: %15,3koa da hiztun guztien arteko euskararen batez besteko erabilera eta %53,8koa euskaldunen batez besteko erabilera (A eta B motako adierazle sintetikoetarako buruz azalpenak 11.4.6. puntuan irakur daitezke).

Horretan hasi aurretik, ordea, orain arte gurean gai horren inguruan nagusitu den ikuspegiaren inguruko gogoeta egin nahi dugu.

### 16.3.1. '*Gaitasunean indartsu, erabileran ahul*' ikuspegia

Euskararen egoeraz aritu izan garenean, eta gaitasun-datuak erabilerari buruzkoekin alderatu izan ditugunean, bada gure artean asko hedatu den ikuspegi bat. Ikuspegi horren arabera, euskara gutxi erabiltzen da gaur egungo Euskal Herrian dagoen ezagutza-mailarako. Desoreka hori litzateke gako garrantzitsuetako bat gure egoera soziolinguistikoa laburbiltzerakoan: ikuspegi horrek dioenez, euskara nahiko egoera onean legoke hizkuntza-gaitasunari dagokionez, baina arazoak lituzke erabilerarekin. Azken hamarkadetako bilakaera aztertuta ere, ikuspegi horrek dio asko aurreratu dugula ezagutzan, baina ez hainbeste erabileran; ezagutzan egindako aurrerapenak ez duela ekarri hein bereko aurrerapenik erabileran... Tankera horretako baieztapenak sarri asko entzun eta irakurri izan ditugu gure egoera soziolinguistikoaz egin izan diren jardunaldi, mintegi, hitzaldi, artikulu, liburu, eta abarretan. Eta ez dugu uste oker gabiltzanik esaten badugu, ñabardurak ñabardura, ikuspegi horrekin bat egin izan dutela (egin izan dugula) soziolinguistika alorreko ikertzaile gehienek, eta baita euskalgintzako eragile eta arduradun politiko gehien-gehienek ere. Gure artean hegemonikoa izan den ikuspegi horri "*gaitasunean indartsu, erabileran ahul ikuspegia*" esango diogu. Ikuspegi horren isla argia aurkitzen dugu, adibidez, Euskararen Aholku Batzordearen ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (2012: 11):

Errealitate ezaguna da euskararen erabilera ezagutza baino apalagoa dela. Hala adierazten digute ikerlan soziolinguistiko guztiek: datuetan azaleratzen diren ezberdintasun txikiak gorabehera, azken urteotako joera gardena da. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, eta V. Inkesta soziolinguistikoak emandako datuen arabera, elebidunak %32 dira hamasei urte edo gehiagoko biztanleen artean (1991n baino 8 puntu gehiago). Aldiz, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenek %20 osatzen dute (duela hogeitau urte baino 4 puntu gehiago). Hazkunde erritmo ezberdin horiek areagotu egin dute ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen aldea.

Aipu horretan ikus daitekeen bezala, *gaitasunean indartsu, erabileran ahul* ikuspegiak ikerketa demolinguistikoetako datuetan oinarrituta eraiki izan du bere diskurtsoa; gehienetan inplizituki eta batzuetan esplizituki ontzat emanez euskararen erabileraren tasak bat egin beharko lukeela euskaraz hitz egiteko gai diren hiztunen proportzioarekin. Eta horrela, adibidez, 2016. urtean %28,4 badira euskaraz dakitenak eta batez besteko erabilera %14,9an baldin badago, ondorioztatzen da euskara gutxi erabiltzen dela dagoen ezagutza-mailarako.

Euskaraz hitz egiten dakiten hiztunen ehunekoa, ordea, ez da erreferentzia baliagarria erabilera neurtzeko orduan. Izan ere, euskaraz hitz egiteko gai direnen ehunekoaren mailako erabilera erdiesteko, ezinbestekoa litzateke euskaldunek beti euskaraz egitea. Eta, horretarako, era berean, bi baldintza hauetako bat beharko litzateke nahitaez: euskaldunak erdaldunekin ere euskaraz jardutea edo euskaldunak erdaldunekiko guztiz isolatuta bizitzea, harremanik gabe. Agerikoa da baldintza horiek ez datozela bat inondik inora gure errealitatearekin. Horregatik, euskara dakiteneen ehunekoa ez da erreferentzia baliagarria erabilera neurtzeko orduan.

Hizkuntza bat ezagutzen dutenen %a hizkuntza horren erabilera-mailarekin zuzenean alderatzea zentzu handirik gabeko ariketa dela argi antzematen da, bestalde,



euskararekin ez ezik, ariketa hori bera beste hizkuntzekin eginez gero. Hori erakusteko, ikuspegi horretatik euskararentzat egin izan den alderaketa bera aplikatuko diegu Euskal Herrian erabiltzen diren erdareei (frantsesa Iparraldean, gaztelania Hegoaldean). Horretarako, lehenago erabili ditugun datu-iturri berberetara joko dugu, eta analogiaz euskararentzat egin dugun azterketa errepikatuko dugu erdararentzat ere.

Azterketa molde hori bera aplikatuta, ikus dezagun nola dauden erdarazko gaitasun-erabilerak egungo Euskal Herrian. Hamasei urtetik gorako hiztun ia denek dakite gaztelaniaz/frantsesez hitz egiten: %99,6k zehazki, ISL-001 adierazlearen arabera; hizkuntza horien batez besteko erabilera, berriz, %85,1ekoa da ISL-404 adierazlearen arabera. Horrela, bada, euskararako erabili izan den interpretazio moldea orain erdaretarako aplikatuta, hauxe litzateke ondorioa: erdaren ezagutza-erabilerak alderatuta, erdararen erabilera ezagutzaren azpitik gelditzen da.

Azken batean, *gaitasunean indartsu, erabileran ahul* ikuspegia argudiatzeko egin izan den azterketa moldea euskararen egoerari ez ezik erdararen egoerari ere aplikatuta, bateraezinak diren bi ondoriotara iristen gara: Euskal Herrian euskara gutxi erabiltzen da dagoen ezagutza-mailarako ETA erdara ere gutxi erabiltzen da dagoen ezagutza-mailarako. Badirudi azterbide horretatik ez gabiltzala oso zuzen gure egoera soziolinguistikoa nolakoa den jakin nahi badugu. Horregatik eraiki ditugu atal metodologikoan aurkeztutako ISL-505 eta ISL-508 bitarteko adierazleak. Goazen jarraian adierazle horien emaitzak irakurtzera.

### **16.3.2. Erabileraren balorazioa, euskara-erdaren gutxieneko eta gehienezko erabilera posibleen erreferentzien argitan**


Atal teorikoko 3.3.2. puntuan ikusi dugunez, hizkuntza-gaitasuna erabileraren zoru gisa uler dezakegu. Horren barruan, hiztunen eta euren ohiko harreman-sareko mintzakideen hizkuntza-gaitasunak berekin dakar hizkuntzak erabiltzeko aukera- eta nahitaezkotasun-egitura bat, Txillardegik oinarri matematiko teorikotik azaldu zuen bezala (Álvarez Enparantza, 1984, 1991, 2001). Ideia hori bera datu enpirikoen gainean lantzeko, metodologiaren atalean hainbat adierazle landu ditugu, euskara-erdaren gutxieneko eta gehienezko erabilera posibleen erreferentziak finkatzeko. Irakur ditzagun orain adierazle horien emaitzak.

Gaur egungo Euskal Herriko harreman-sareen osaera eta sare horietako hiztunen hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta, balizko bost harremanetatik<sup>271</sup> lau baino gehiago (%82,1) gaztelaniaz/frantsesez dira nahitaez, bertan parte hartzen duten mintzakideetako batek gutxienez euskaraz ez dakielako. Horien parean, hutsaren hurrengoa lirarteke euskaraz nahitaez diren harremanak (%0,8). Azkenik, mintzakide guztiak elebidunak izanik, euskaraz edo gaztelaniaz/frantsesez izan daitezkeen harremanak %17,0 lirarteke.

---

<sup>271</sup> Balizko harreman horiek, rol-harreman eta espazioei buruzko datu xeheetatik abiatuta, harreman-sareen eta erabileraren (HSE) adierazleetarako erabilitako haztatze-irizpideen arabera kalkulatu dira.

**G.84. GRAFIKOA: EGUNGO HIZTUNEN HARREMAN-SAREEN OSAERAREN ARABERAKO BALIZKO HARREMANEN NAHITAEZKOTASUN ETA AUKEREN EGITURA EUSKARA-ERDARAK ERABILTZEARI BEGIRA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK)**




Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-507 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.5.3. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Aurreko kalkulu berak hiztun euskaldunetara mugatuta eginik, euren jardunaren %37,1 nahitaez izango da gaztelaniaz/frantsesez (mintzakideek euskaraz ez dakitelako), %2,9 izango dira nahitaez euskaraz (mintzakideek erdaraz ez dakitelako) eta %60,0 izango dira hiztunek euskaraz edo erdaraz egin aukeran izango dituzten harremanak.

Grafiko horretan erakutsi ditugun nahitaezkotasun eta aukeren egiturak gutxieneko eta gehienezko erabilera posible batzuk ekarriko ditu euskararentzat eta erdararentzat. Euskararen gutxienekoa, jakina, bat dator erdararen gehienezkoarekin eta alderantziz. G.85. grafikoan gutxieneko eta gehienezko balio horiek erakusten dira Euskal Herrirako, eta egungo batez besteko erabilera aitortua zenbatekoa den ere erakusten da (ISL-404 A motako adierazle sintetikoaren arabera). Datuak euskararen ikuspegitik irakurrita, esan dezakegu euskararen erabilera %0,8ko gutxienekoaren eta %17,9ko gehienezkoaren ibiltartearen barruan mugituko dela Euskal Herriko hiztunen egungo hizkuntza-gaitasuna eta sareen ezaugarriak aintzat hartuta. Ibiltarte horren barruan, erabilera aitortua %14,9an kokatzen da, gehienezko posibletik askoz ere gertuago gutxieneko posibletik baino.

**G.85. GRAFIKOA: EUSKARA-ERDAREN ERABILERA POSIBLEAREN IBILTARTEA (GUTXIENEO ERABILERA POSIBLETIK GEHIENEZKORA) ETA ERABILERA AITORTUA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-505, ISL-506 eta ISL-404 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.5.3. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

G.85. grafikoaren eskuin aldean errealitate hori bera erakusten da, baina azterketa hiztun euskaldunetara egokituta oraingoan. Kasu horretan, euskararen erabilera %2,9aren eta %62,9aren artean egongo da halaberharrez, euskaldunen harreman-sareen egiturak eta bertako mintzakideen hizkuntza-gaitasunak hala baldintzatuta. Ibiltarte horren barruan, maximotik ez oso urruti azaltzen zaigu erabilera aitortua, %52,5ean hain zuzen ere.

Esan dugu, hortaz, euskararen erabilera aitortua gehienezko posibletik gertu dagoela. Argitu dezagun gehienezko erabilera posiblearen erreferentziak galdera honi erantzuten diola: zenbatekoa izango litzateke euskararen erabilera, euskaldunak euskaldunekin elkartzen diren egoera guzti-guztietan euskaraz egingo balute? Horretarako, aintzat hartzen da euskaldunen harreman-sare errealean mintzakideak euskaldunak edo erdaldunak zein neurritan dituzten, eta euskaraz egiteko aukera eskaintzen duten harremanek harreman guztiekiko zenbateko pisu erlatiboa duten kalkulatu da. Erreferentzia horretan irudikatzen den egoeran, eskura bi hizkuntza dituzten elebidun guztiek, sistematikoki eta salbuespenik gabe, egoera guztietan euskara erabiltzeak ekarriko lukeen erabilera erakusten du. Horiek horrela, esan daiteke gehienezko maila hori ezin gaindituko dela, hiztunen hizkuntza-gaitasunean (erdaldunak direnak euskaldunduz) edo hiztunen harreman-sareetan eragin gabe (euskaldunak direnak elkarrengana gehiago saretz).

### 16.3.3. Erabileraren balorazioa, erabilera erosoaren erreferentziaren argitan

Euskara asko edo gutxi erabiltzen den baloratzeko, erabileraren erreferentzia eroso sortu dugu metodologia-atalean, nahitaezkotasunaren eta aukeren ikuspegian oinarrituta eta landuta. Erabilera erosoaren erreferentzian kalkulatu da zenbatekoa

litzatekeen hizkuntzen erabilera elebkarrek beti “euren” hizkuntzan hitz eginda eta elebidunek, berriz, hizkuntza aukeratzetik dagoen harremanetan, errazen hitz egiten dakiten hizkuntza erabilia (euskara euskal elebidunek eta erdara erdal elebidunek). Bestela esanda hiru baldintza hauek beteko balira egongo litzatekeen erabilera irudikatzen du erabilera erosoaren hipotesiak:


- Beti erdaraz arituko dira erdaldun elebkar eta hartzaileak; erdaraz arituko dira, halaber, eurekin harremanetan daudenean, hiztun elebidunak.
- Beti euskaraz arituko dira euskaldun elebkar eta hartzaileak; euskaraz arituko dira, halaber, eurekin harremanetan daudenean, hiztun elebidunak.
- Hiztun elebidunak elkarrekin ari direnean, hiztun bakoitza berari errazen zaion hizkuntzan mintzatuko da: euskal elebiduna beti euskaraz eta erdal elebiduna beti erdaraz.

G.86. grafikoan, 2016. urteko ISLren arabera, erreferentzia hori kalkulatu dugu eta ISLn bertan jasotzen den erabilerarekin alderatu, hiztun guztien multzorako batetik, eta euskaldunen multzorako bestetik. Aldera ditzagun orain erabilera aitortuaren eta erabilera erosoaren erreferentziak:

- Hiztun guztiak aintzat hartuta, ISLn jasotzen den erabilera, elkarrizketatuek aitortu duten erabilera xeheetan oinarrituta kalkulatu dena, erabilera erosoaren erreferentziak ematen duen erabilera baino dezente gorago azaltzen zaigu: %8,2koa da euskararen erabilera erosoaren erreferentzia, eta euskararen erabilera aitortua, berriz, %14,9ra iristen da.
- Euskaldunen artean, jakina, joera bera antzematen da: erabilera erosoaren erreferentziak ematen duena baino dezente gehiago erabiltzen da euskara (%28,9ren ordez %52,5) eta dezente gutxiago gaztelania/frantsesa (%71,1 ordez %47,5).

Azken batean, erabilera erosoaren erreferentziak esaten digu gaitasunak ezartzen duen zorua ahula dela euskararentzat: euskaldunak, gutxi izateaz gain, gehienak hobeto moldatzen baitira erdaraz euskaraz baino. Euren portaera erosotasun hutsak eraginda bideratuko balute, euskaldunek egun baino nabarmen gehiago egingo lukete erdaraz eta egun baino nabarmen gutxiago euskaraz. Irizpide horrek aginduko lukeena baino dezente handiagoa da egungo euskararen erabilera. Laburtuz, bada, hizkuntza-gaitasunak ezartzen duen zorurako, asko erabiltzen da euskara gaur egun.

G.86. GRAFIKOA: ERABILERA EROSOA ETA ERABILERA AITORTUA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTEKIGORAKO HIZTUN GUZTIAK ETA HIZTUN EUSKALDUNAK)




Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-508 eta ISL-404 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.5.3.2. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 16.3.4. Erabileraren balorazioa, sintesi ikuspegia

Orain arte aurkeztu ditugun erreferentzia guztiak biltzen ditugu G.87. grafikoan. Bertako datuak irakurrita, esan dezakegu, hiztun guztiak aintzat hartuta, euskararen erabilera posiblea %0,8ko gutxienekoaren eta %17,9ko gehienekoaren tartean ibiliko dela nahitaez. Horrek zer esan nahi du? Ezinezkoa dela gaur egun, hiztunen artean euskaldunak zenbat diren kontuan hartuta, eta euren harreman-sarean euskaldunek zenbateko lekua duten jakina, kopuru horiek marrazten duten ibiltartetik kanpoko erabilerarik gertatzea. Gaurko baldintzetan, %17,9tik gorako erabilera izateko, euskaraz mintzatzen jarri beharko genituzke euskaraz ez dakiten hiztunak; %0,8tik beherako erabilera gertatzeko, berriz, erdaraz jarri beharko genituzke hizkuntza horretan ez dakitenak.

**G.87. GRAFIKOA: ERABILERA AITORTUA, GUTXIENKO ERABILERAREN, GEHIENEZKOAREN ETA EROSOAREN ERREFERENTZIEN ARGITAN. 16 URTEK GORAKO HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-505, ISL-506, ISL-508 eta ISL-404 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.5.3. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Landu dugun hirugarren erreferentzia erabilera erosoarena dugu: euskararen erabilera %8,2koa izango litzateke hiztunen hizkuntza-hautua erosotasunak soilik eragindakoa balitz, hots, euskaraz errazago egiten dutenek euskaraz egingo balute ahal duten guztietan eta erdaraz errazago egiten dutenek erdaraz, betiere, hiztunen sareen egitura erreala kontuan hartuta.


Horiek horrela, aurrez aurreko harremanetako erabilera aitortua %14,9an kokatzen da Euskal Herrian, erabilera eroso litzatekeenaren gainetik eta gehienezko erabilerearen azpitik. Horrek esan nahi du, lehenik, euskara asko erabiltzen dela ezagutza zenbatekoa den eta harreman-sareak nola egituratuta dauden kontuan hartuta. Horrek esan nahi du, halaber, hiztun guztiak kontuan hartuta, erosotasun-irizpideak aginduko lukeen baino nabarmen gehiago erabiltzen dela euskara. Eta horregatik, hiztunen erosotasuna ez den beste motibazio-bide batzuek indartsu eragiten dutela euskara erabiltzearen alde.

G.87. grafikoaren eskuineko diagraman, datu horiek berak aurkezten dira euskaldunen multzora mugatuta oraingoan. Datuen irakurketa, zenbakiak aldatuta, baina hiztun guztienaren irakurketaren berbera izango litzateke. Ez dugu, hortaz, hemen berrituko.

### 16.3.5. Bilakaera-joerak

Erreferentzia horien bilakaera aztertuta, aipatu beharreko ezaugarri nagusia oinarritzko egonkortasunarena da. Zehazki, nahitaezkotasunaren eta aukeren egituraren, ez da aldaketa handirik nabari 1996-2016 bitartean, G.88. grafikoan ikus daitekeen bezala. Harreman gehien-gehienak nahitaez gaztelaniaz/frantsesez izan dira Euskal herrian azken 20 urteotan, nahiz eta euskaraz edo erdaraz aukeran egon direnak apur bat igo diren, zehazki %14,5etik %17,0ra, euskaldunen kopuruak haztearekin batera. Nahitaez euskaraz izan diren harremanak hutsaren hurrengo izan dira azken 20 urteotan.


**G.88. GRAFIKOA: NAHITAEZKOTASUNAREN ETA AUKEREN EGITURA HARREMANETAN. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK)**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-507 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.5.3. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Erreferentzien bilakaerarekin batera erabilera aitortua txertatzen badugu (ikus G.89. grafikoa), berriro ere oinarrizko egonkortasun bat erakusten digute datuek: azken 25 urteotan erabilera aitortua erabilera erosoaren eta gehienezko erabilera posiblearen artean ibili da epealdi osoan, aldaketa handirik gabe. Hiztun guztien datuak hartuta, erabilera erosoaren erreferentzian ez da ia aldaketarik antzematen aztertu dugun epealdian. Erabilera aitortuak, berriz, apur bat gora egin du.

**G.89. GRAFIKOA: ERABILERA AITORTUA ETA ERABILERARAKO ERREFERENTZIAK (GUTXIENEOA, GEHIENEZKOA ETA EROSOA). EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUN GUZTIAK ETA EUSKALDUNAK, %)**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-505, ISL-506, ISL-508 eta ISL-404 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.5.3. eta 11.4. puntuetan hurrenez hurren). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** kontuan izan ezkerreko eta eskuineko azpigrafikoak eskala ezberdinetan eraiki ditugula.





# 17. JARRERARI ETA MOTIBAZIOEI BURUZ BI HITZ ZEHARKA


- ✓ *Euskararen inguruan zer-nolako iritziak eta jarrerak adierazten dituzte hiztunek horri buruz galdetzen zaienean?*
- ✓ *Zer esan dezakegu demolinguistikatik, indukzioaren bidea erabilia, hiztunen gaitasuna eta erabilera-maila aintzat hartuta, euren jarrera eta motibazioen inguruan?*
- ✓ *Zer-nolakoa da egun jardunaren osaera motibazio-alderdiak aintzat hartuta, hots, jardunaren zenbateko zatia dator bat hiztunen erosotasun-irizpideekin eta zenbateko zatia zor zaie bestelako motibazioei?*
- ✓ *Azken 25 urteotako bilakaeran antzematen al da joerarik?*

## 17.1. EUSKARAREN INGURUKO IRITZIAK

Atal enpirikoaren barruko kapitulu laburrena izango da honako hau. Ez da hizkuntza-jarrerak eta motibazioek garrantzi txikia dutelako, ez horixe. Hortik urruti, funtsezko alderdia dira hizkuntzen ahultze- eta indarberritze-prozesuetan. Teoriaren atalean ikusi dugun bezala, ordea, gure tesiaren kokapen metodologiko nagusitik kanpo gelditzen diren azterketa etnografiko, antropologiko, kualitatiboak dira jarrera eta motibazio mundu horretan sakontzeko bitarteko behinena. Eta gure kokapen metodologikoa alderdi horietan sakontzeko baino egokiagoa da egitateak aztertze eta sailkatze.

Dena den, atal teorikoan aurreratzen genuen bezala, demolinguistikak ere landu izan du gaia, inkestetan iritzi eta jarrerei buruzko informazioa bilduz eta gaiaren inguruko informazio adierazgarria eskuratuz. Gurean, ISLn galdera ugari daude elkarriketatuen iritzi eta hautemateak jasotzera bideratuak (ikus atal teorikoko 5.3.1. puntua). Galdera horietatik jasotako erantzunen lagin gisa, horietako hiruren emaitza laburtuak aurkeztu ditugu G.90. grafikoan. Ikus daitekeen bezala, eta datu zehaztetan eta horien inguruko ñabarduretan sartu gabe, euskararen aldeko iritziak nagusi dira herritarren gehiengo zabal baten artean, eta horixe islatzen dute adibidetzat ekarri ditugun hiru itemek; hots, hedabideetan euskarak izan beharko lukeen tokiaz, haurren euskalduntzeaz eta Administrazioan sartzeko euskara beharrezkoa izateaz galdetu izan zaienean.

**G.90. GRAFIKOA: EUSKARAREN INGURUKO HERRITARREN IRITZIAK: HIRU ESALDIEKIKO ADOSTASUNA-DESADOSTASUNA ETA JARREREN ARABERAKO TIPOLOGIA. EUSKAL HERRIA, 2016**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Hiru galdera horiei eta beste bati emandako erantzunetan oinarrituta (ikus atal teorikoko 5.3.2. puntua) ISLn bertan jarrerari buruz lantzen den adierazle sintetikoaren emaitza nagusia da Euskal Herriko herritarren artean nagusi direla euskara sustatzearen aldeko jarrerak. Horrela, adierazle horren arabera, 16 urtetik gorako hiztunen artean %55,8 dira aldeko jarrera dutenak, %16,0 aurkakoa dutenak eta gainerako %28,2k ez lukete jarrera argirik euskararen alde edo aurka (Eusko, Jaurlaritza, 2019: 63). Bilakaera-joerei erreparatuz, 1991-2016 bitarteko datuek erakusten dute epealdi osoan izan dela nagusi euskararen aldeko jarrera, eta, gainera, indartu egin dela 1991ko %47,5etik 2016ko %55,8ra; euskararen aurkako jarreraren pisua, berriz, %20,9tik %16,0ra jaitsi da. (Eusko, Jaurlaritza, 2019: 64).

Horretaz gain, aipagarria da euskararen aldeko jarrera hori are indartsuago azaltzen zaigula euskaldunen artean: horien artean %85,3 lirateke euskara sustatzearen aldeko jarrera dutenak (Eusko, Jaurlaritza, 2019: 67).

Horixe da, labur-labur adierazita, zuzenean euren iritzia galdetu izan zaizkienean herritarrek eman dituzten erantzunen ikuspegia. Gaiaren inguruko gure ekarpena lantzeko, ordea, iritzien bidean sakondu ordez, indukzioaren bidea hartuko dugu. Ez dugu hizkuntzen auziari buruz elkarrizketatuek esaten dutena gehiago aztertuko; horren ordez, hiztunen portaerak aztertuta saiatuko gara hizkuntzen inguruan dituzten motibazio-jarrei buruzko ondorioren batera iristen. Hots, inkestetan iritziei buruzko galderei eman dizkieten erantzunak aztertu beharrean, hiztunen inguruko egitateetatik

abiatuko gara, euren hizkuntza-gaitasunetik eta erabileratik zehazki. Eta egitate horien argitan saiatuko gara hiztunen jarreraren eta motibazioen munduaz ondorioren bat edo beste ateratzen.

## **17.2. ERABILERA, GAITASUNA ETA JARRERA/MOTIBAZIOA: ZEIN INDARTSUEN, ZEIN AHULEN?**

Aurreko kapituluan aurkeztu ditugun datuen arabera, gaur egungo euskararen erabilera-maila hiztunek duten hizkuntza-gaitasunaren gainetik dago. Ondorio horretara iritsi gara euskaldunen erabilera-datuak eta euren zein euren harreman-sare hurbilaren gaitasun-datuak alderagarritasun irizpideekin landu eta euren artean alderatuta: erosotasunak bultzatuta edukiko luketen erabileraren gainetik erabiltzen dute euskara egungo euskaldunek. Ondorio berera iritsi gara, halaber, hizkuntza-gaitasunaren araberrako hiztun multzoek egiten duten erabilera aztertuta: euskarazko gaitasun handiagoa duten hiztunek, euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago egiten dakitenek, ahal den guztietan euskara erabiltzeko joera argia dute oro har; eta euskaraz hain erraz moldatzen ez diren hiztun elebidunek ere, erraztasun irizpideak soilik kontuan hartuta espero zitekeena baino dezente gehiago darabilte euskara horretarako aukera duten egoeretan.

Hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren ardatzen arteko oinarrizko alderaketa hori izanik, goazen alderdi subjektiboetara buruz horrek zer adieraziko ligukeen ondorioztatzen. Dagoen gaitasun-mailarako erabilera handia izateak zeharkako honako bi ondorio hauetara garamatza:

- Batetik, euskaldun jendea, batez beste, eta joera orokor gisa, leiala da euskararekiko. Ahal dutenetan euskal hiztunek euskara erabiltzeko duten joera handiak hori adierazten digu zuzenean.
- Bestetik, erabilera-maila handi hori zaila da ulertzen euskararen aldeko jarrera eta motibazioek euskal hiztunen artean pisu handia dutela onartu gabe.


Bide induktiboa erabiliz, hortaz, euskararen aldeko motibazio-jarrerak indartsu daudela adierazten digute hiztunen portaerak. Kasu honetan, gainera, indartu egiten da ikuspegi hori, herritarrek (euskaldunek bereziki) inkestetan euskararen alde azaltzen dituzten iritziekin bat datorrelako.

## **17.3. EUSKARAZKO JARDUNAREN AZTERKETA, EROSOTASUNAREN ARABERA; HORREK NOLA ERAGITEN DION JARRERA-MOTIBAZIOEN GAIARI**

Metodologia-atalean aurkeztu dugu, hiztunen hizkuntza-gaitasuna eta erabilera aintzat hartuta, euskararen ekoizpenaren atzean egon daitezkeen motibazioaren berri zeharka emateko asmoz sortu dugun ISL-601 adierazlea. Adierazle horrek, azken batean, jardunaren osaeraren ikuspegiaren barruan, dikotomizatu egiten du hiztunen jarduna, euren gaitasuna eta erabilera aintzat hartuta. Horrela, euskarazko jarduna bi multzotan

sailka dezakegu, jardun hori ekoizten duten hiztunen erosotasun-irizpideekin bat datorren edo ez aintzat hartuta (azalpen metodologikoak, 11.6. puntuan). Emaitzetara joz, G.91. grafikoan ikus daitekeen bezala, jardunaren ia bi herenak (%64,8) euskaraz errazago egiten duten hiztunek ekoitzi zituzten 2016. urtean, eta gainerakoa (%35,2), euskaraz baino erdaraz errazago ariko liritekeen hiztunek.

**G.91. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERAN EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZTUNEN BALIZKO MOTIBAZIOEN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, %).**



Iturria: egileak landua, 2016ko Inkesta Soziolinguistikotik abiatuta. Zehazki, ISL-601 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.6. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


Datu xume horietatik abiatuta, eta motibazioen alorrera hurbildu nahian, hasteko, esan dezakegu erosotasun-irizpideekin bat datorrela ekoitzitako euskararen ia bi heren zati nagusi hori. Pentsa daiteke jardunaren zati nagusi hori, eskura duten hizkuntza-errepertorioaren barruan hizkuntza-hautu errazena eginda, ahalegin berezirik gabe ekoitzi izan dutela hiztunek. Erosotasuna eta hizkuntza-portaera bat datoz kasu horretan. Horrek ez du esan nahi, ordea, ekoizten den zati nagusi horretako hiztunentzat ez dagoenik euskara erabiltzera bultzatzen dituen bestelako motibaziorik. Adierazle horrek ez digu horren berri ematen.

Adierazle horrek bai uzten digu argi, ekoitzitako euskararen bigarren zatia ahoratzen duten hiztunen kasuan, erosotasun-irizpideak ez datozela bat euren hautuarekin: euskaraz sortzen den jardunaren herena baino gehixeago den zati horren sortzaileek errazago egingo lukete erdaraz euskaraz baino. Eta pentsa daiteke, horregatik, hiztun horiei erosotasuna EZ den beste motibo indartsuren batek eragingo diela euskara erabiltzeko; errazago erabiliko luketen erdararen orde euskara aukeratzeko. Ez dugu aurkitu nazioarteko alderaketa-punturik, baina aurrera begirako hipotesi gisa planteatuko genuke, erosotasunarekin bat EZ etorrira ekoizten den euskararen zati hori handia dela, eta neurri horretako zatia ez dela ohikoa izango munduko gainerako hizkuntza gutxitu gehienetan.

Bilakaerari erreparatuta, joera argia erakusten dute G.92. grafikoko datuek: azken 25 urteotan eroso ekoitzi duten jardunaren zatiak (hots, euskara errazago erabiltzen duten hiztunek ekoitziak) pisua galdu du, 1991ko %71,0tik egungo %64,8ra. Aitzitik, gero eta

pisu handiagoa hartu du erosotasuna EZ den motiboek eraginda ekoizten den erabilerak: jardun osoaren %29,0 izatetik %35,2ra igo da 1991tik 2016ra.

**G.92. GRAFIKOA: AURREZ AURREKO HARREMANETAKO ERABILERA EUSKARAZKO JARDUNAREN OSAERA, HIZTUNEN BALIZKO MOTIBAZIOEN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, %).**



Iturria: egileak landua, 1991-2016ko Inkesta Soziolinguistikoetatik abiatuta. Zehazki, ISL-601 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.6. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Horrela, bada, ekoitzi den euskararen zati handiena erosotasun-irizpideekin bat datorren arren, herenetik gorako beste zati ohargarri bat hiztunaren erosotasuna EZ den motiboek eragindakoa izan daiteke. Bestelako motiboek zuzenean eragindako zati hori, gainera, handitu egin da azken 25 urteotan.



## 18. TESTUINGURU

# DEMOLINGUISTIKOA: NAGUSITASUN-EREMUAK ETA ARNASGUNEAK

Atal teorikoan “testuinguru demolinguistiko” izendapenaren azpian bildu ditugu euskara-erdarek lurraldean duten nagusitasun-mailari lotutako alderdiak, arnaguneen gaia barne. Horretaz gain, testuinguru demolinguistikoaren alderdi garrantzitsua da hitzunen harreman-sarearen barruan hitzun euskaldunek zenbateko pisua duten aztertzea. Gai hori, ordea, erabilerarekin batera landu dugu 15.3. puntuan (horrela egin dugu, kapitulu hartako azalpena horrela hobeto ulertzeko helburuz). Horregatik, testuinguru demolinguistikoaren ikuspegi osoagoa izateko, hemen aurkeztuko ditugunez gain, han esandakoak ere kontuan hartzea komeniko da.

### 18.1. HEGO EUSKAL HERRIKO NAGUSITASUN-EREMUAK ETA ARNASGUNEAK GAUR

- ✓ *Zertan bereizten dira soziolinguistikoki nagusitasun-eremu batzuk eta besteak?*
- ✓ *Nola banatzen dira gaur egungo Hego Euskal Herriko hitzunak nagusitasun-eremuetan?*
- ✓ *Zein dira eta zenbateko pisu demografikoa dute euskararen arnaguneek?*

Atal teorikoan azaldu dugu hizkuntza gutxitu baten egoera azertzerakoan alderdi garrantzitsutzat jotzen duela Fishmanek (1991: 58) hizkuntza hori nagusi izango den espazio geoterritorialak izatea, “*breathing space*” direlakoak. Hitzunen kontzentrazio handiko gune horietan, hizkuntza hori izango da nagusi eguneroko jardunean eta, horrekin batera, belaunaldiarteko jarraipena era natural eta betean gertatuko da. Azaldu dugu, halaber, ikuspegi hori landu duela Zalbidek (2019a) Euskal Herrira egokituta, *arnasgune* terminoarekin. Eguneroko jardun arruntean euskara nagusi den ingurune geoterritoriala da arnagunea. Gaur egun *arnasgune* terminoa beste errealitate batzuk izendatzeko ere erabiltzen den arren (Xabier Bengoetxeak (2019: 133) aipatzen duen *inflazioa* dela medio), guk jatorrizko esanahi horri lotuta erabiliko dugu terminoa lan honetan.

Arnaguneen ikuspegi hori demolinguistikatik lantzeko asmoz, eta, beraz, udalerrri batzuen eta besteen euskalduntasun-maila edo udalerrri batzuetan eta besteetan euskara-erdarek duten nagusitasun-maila islatzeko asmoz, adierazle batzuk sortu ditugu, atal metodologikoan xehe azaldu dugun bezala. Berez, han azaltzen genuen,

Euskal Herriko demolinguistikak, udalerrien euskalduntasunaren arabera multzoak egiteko eta errealtate soziolinguistikoa horien arabera aztertzeke, udalerrietan dagoen euskaldunen proportzioa kontuan hartuz jo izan duela tradizioz. Horrela, eremu edo gune soziolinguistikoko udalerrietan dagoen euskaldunen dentsitatearen arabera erabaki izan dira gurean. Atal metodologikoko 9.8.2.4. puntuan azaldu dugun bezala, arrazoi teoriko, metodologiko eta enpirikoak tarteko, inguruneen euskalduntasuna islatzeko aldagai egokiagoak izan daitezke erabilerari buruzkoak ezagutzari buruzkoak baino. Eta horrela, udalerrietako etxeko erabileran eta kaleko erabileran oinarrituta sortu ditugu gure adierazleak, bai multzokatze xehea erakusten duten adierazleak eta baita nagusitasun-eremuei buruzkoak ere. Laburtuz, hortaz, eremu edo gune soziolinguistikoko euskaldun-dentsitatearen arabera sailkatzen dituzte udalerriak, eta nagusitasun-eremuek, berriz, erabilera-mailaren arabera egiten dute sailkapen hori (bi alderdi horien arteko harremanaz xeheago arituko gara aurreraxeago, 18.1.1.7. puntuan). Udalerriak, zehazki, bost nagusitasun-eremutan sailkatzen dira, euskara-erdaren erabilera-maila kontuan hartuta, eta bost nagusitasun-eremuetatik bi, euskara nagusi den bi eremuak, arnaguneei dagozkie, arnagune beteei bata eta arnagune erasanei bestea.

Datuekin hasi aurretik, argitu dezagun, halaber, arnagunea eta UEMAREN irizpideen arabera “udalerrri euskalduna” ez dela gauza bera. Izan ere, UEMAK udalerrri euskalduntzat jotzen ditu euskararen indizean %70eko balioa gaintzen duten udalerrriak. Gogora dezagun udalerrri baten euskararen indizea<sup>272</sup> honela kalkulatu dela, zentsuko datuetan oinarrituta: udalerrri horretan bizi diren hiztunen artean euskaldunek osatzen duten ehunekoaren eta ia-euskaldunek osatzen duten ehunekoaren erdiaren batura eginda. Enpirikoki, gaur egun, gure multzokatzeetako arnagune bete eta erasanez ez ezik, nagusitasunik gabeko udalerrri gehienek ere betetzen dute “udalerrri euskaldun” izateko baldintza hori, eta baita erdal nagusitasun ez erabatekoa duten udalerrri batzuek ere. Horrela bada, arnagune denak dira “udalerrri euskaldun”, baina udalerrri euskaldun asko ez dira arnagune.<sup>273</sup>

Azpikapitulu honetan, lehenik, nagusitasun-eremu horiek eta bertan gertatzen diren dinamikak deskribatuko ditugu labur, ISLko datuetan oinarrituta batik bat. Ondoren, nagusitasun-eremu horiek kuantifikatzen jarriko ditugu ahaleginak, HEKNko eta, batez ere, HZko datuetan oinarrituta. Metodologia-atalean azaltzen genuen bezala, datu-iturrien mugak tarteko, Hegoaldera mugatuko dugu kapitulu honetako azalpena.

### **18.1.1. Nagusitasun-eremuak, errealtate eta dinamika soziolinguistikoko berezien testuinguru eraginkorrak**

#### **18.1.1.1. Euskararen erabilera-maila, erabileraren arabera multzokatze xehearen arabera**

Udalerrien multzo xeheak udalerrian dagoen erabilera-mailaren arabera eraiki ditugunez, batez besteko erabilera nabarmen aldatzen da multzo batetik bestera, G.93.

---


<sup>272</sup> Indize hau bat dator EAEko administrazioan lanpostuen hizkuntza-eskakizuna erabakitzeko erabili ohi den derrigortasun-indizearekin.

<sup>273</sup> Ekibalentzia ez da perfektua, UEMAK darabilen irizpidea hizkuntza-gaitasunean oinarritzen delako, eta nagusitasun-eremuak, berriz, erabilera-datuetan. Bi sailkatze-irizpide horien arteko harremana nolakoa den ikusteko, jo 18.1.1.7. puntura.




eta G.94. grafikoetan ikus daitekeen bezala. Ezin zuen bestela izan. Bi grafiko horietan, harreman lineal argia antzematen da multzoaren euskalduntasunaren eta erabileraren artean, bai kaleko erabileran eta baita etxekean ere. Horretaz gain, deigarria egiten da bi multzo erdaldunenen artean ikusten den koxka: udalerrri multzori erdaldunenean bereziki jaisten da erabilera aurreko multzo euskaldunagoarekin alderatuta. Aipagarria da, halaber, etxeke erabileraren kasuan etxean euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituztela diotenen proportzioa nola aldatzen den ikustea: bi hizkuntzak etxean erabiltzeko ohitura hori, indartsuen, nagusitasun handirik gabeko udalerrietan agertzen zaigu. Erlatiboki, hala ere, zera ikusten dugu: zenbat eta inguru erdaldunagoa, orduan eta pisu handiagoa duela bietan egiten dutenen multzoak euskaraz nagusiki edo soilik egiten dutenekiko.

**G.93. GRAFIKOA: EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA KALEAN, UDALERRIKO KALEKO ERABILERA-MAILAREN MULTZOEN ARABERA. HEGOALDEA, 2016 (%)**



*Iturria:* egileak landua, 2014-2018ko HEKNTik abiatuta. Zehazki, HEKN-001 eta HEKN-002 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10. kapituluari). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**G.94. GRAFIKOA: ETXEAN EUSKARAZ ETA EUSKARAZ ZEIN GAZTELANIAZ EGITEN DUTENAK, UDALERRIKO ETXEKO ERABILERA-MAILAREN MULTZOEN ARABERA. HEGOALDEA, 2011 (%)**




*Iturria:* egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-006 eta HZ-208 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. eta 9.8.2.3. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 18.1.1.2. Hizkuntza-gaitasuna, nagusitasun-eremuen arabera

Hiztunen hizkuntza-gaitasuna ere nabarmen aldatzen da nagusitasun-eremuz eremu eta mutzoz multzo, G.95. eta G.96. grafikoetan ikus daitekeen bezala. G.95. grafikoan zentsuetako informazioa baliatuko dugu eta G.96.n ISLkoa.

Zentsuen arabera, euskaldunen pisua era nabarmenean aldatzen da eremuz eremu: hiztunen %22,3 besterik ez da euskalduna erdararen nagusitasun handiko udalerrietan; kokka handia dago hurrengo multzora aldatutakoan, eta euskaldunak gehiengo dira jada (%54,0) erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrietan, etxeko erabilera %20-%40 tartean dagoen horietan. Hortik aurrera ere igo egiten da euskaldunen proportzioa, arnagune beteen %92,2ko gehienekora iritsi arte. Gainerako kategorietan, joera, noski, aurkakoa da. Erdaldun elebakar erabatekoetan arreta jarrita, euskara nekez ere ulertzen ez duten horietan alegia, gehiengo dira (%52,6) erdararen nagusitasun handiko udalerrietan. Asko jaisten da multzo horren pisua erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrietan, eta %21,9koa da. Hurrengo nagusitasun-eremuetan ere jaitsi egiten da hiztun horien pisua, arnagune beteetako %3,3ra iritsi arte.

**G.95. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ETXKO ERABILERAREN MULTZO XEHEEN ARABERA. HEGOALDEA, 2011**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-001 eta HZ-209 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.3. eta 9.8.2.3. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Orain arte gaitasunari buruz azaldu dugun informazioa zentsuetatik ekarritakoa da. G.96. grafikoan, berriz, gaitasunari buruz ISLk ematen duen informazioa erabiliko dugu. Atal metodologikoan azaldu dugunez, iturri horrek eskaintzen digu hizkuntza-gaitasunaren errealitateari buruzko ikuspegi osatuena. Grafiko horretan ikusten denez,

ezberdina da nagusitasun-eremu batzuetako eta besteetako hiztunen hizkuntza-gaitasunaren araberrako profila:

- Arnasguneetan, euskara nagusi duten hiztunak, hots, euskaraz erdaraz baino errazago egiten duten euskal elebidunak edo euskara besterik ez dakitenak dira nagusi<sup>274</sup>: hiztunen erdia baino gehiago dira (%51,6) arnasmune erasnetan eta are gehiago arnasmune beteetan. Horiekin batera, nagusitasunik adierazi ez duten hiztunek ere pisua dute arnasmuneetan (%23-24 dira). Gutxiago dira erdal elebidunak, erdaldun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak.
- Erabilerran nagusitasun argirik ez duten udalerrietan (etxeke erabilerra %40-%60 bitartean dutenetan), gaitasunaren araberrako hiztun moten askotarikotasuna da ezaugarri nagusi, nahiz eta banaketa “erdal” aldera lerratua azaltzen zaigun. Horrela, erdal nagusitasunezke hiztunak gehiago dira euskal nagusitasunezkeak baino (%43,4 eta %30,8 hurrenez hurren). Erdal nagusitasunezke hiztunen artean, gainera, gehiengo argia dira euskaraz hitz egiten ez dakitenak. Euskal nagusitasunezkeen artean, berriz, (ia) guztiak elebidunak dira. Erabilerra ertaineko udalerrietako gaitasunaren zorua, hortaz, erdal aldera argiki lerratua azaltzen zaigu.
- Erabilerran erdara nagusi den udalerrietan, zentsuko datuekin ikusi dugu erdaldun elebakarrak eta erdaldun hartzaileak direla nagusi, gehienbat erdararen nagusitasun handiko udalerrietan. Horretaz gain, aipagarria da euskal elebidunen pisu urria, euskaraz erdaraz baino errazago egiten duten hiztunena: hiztunen %1,8 baino ez dira erdararen nagusitasun handiko udalerrietan (ez ahaztu udalerra horietan bizi dela Hegoaldeko herritarren multzo handiena, hiztun guztien %77,2 hain justu). Udalerra horietan, halaber, txikia da nagusitasunik gabeko elebidunen multzoa (%4,3) eta berez gutxiengoan dagoen elebidunen multzoaren zati handiena erdal elebidunek osatzen dute, erdaraz errazago egiten duten horiek. Alde adierazgarriak daude udalerra horien eta erdararen nagusitasun ez erabatekoa duten udalerrien artean: azken horietan, izan ere, gutxiengoa izanda ere, hiztunen multzo ohargarri batek euskarazko nagusitasuna du (hiztun guztien %16,3) eta nagusitasunik gabeko elebidunek ere badute bere pisua (%19,8).


Laburtuz, bada, harreman indartsua dago udalerrietako erabilerra-mailaren eta bertako hiztunen hizkuntza-gaitasunaren artean. Beste kapitulu batean aztertu dugu gizabanakoengan zer-nolako harremana dagoen hizkuntza-gaitasunaren eta erabilerraren artean; orduan aipatzen genuen aldebiko harremanaren beste frogara argi

---

<sup>274</sup> 2016ko ISLn erdal gaitasunari buruz galdetu ez zenez, ezinezkoa zaigu euskal nagusitasunezke hiztunen arteko multzoak bereiztea. Hala ere, nahiko agerikoa da horietako gehien-gehienak euskal elebidunak izango direla, eta gutxi batzuk besterik ez euskaldun elebakarrak edo euskaldun hartzaileak. Gaiaren inguruan dugun Euskal Herri mailako inkesta berrienean, 2001ekoan, arnasmuneetako hiztun guztien %1,9 eta %1,7 ziren, hurrenez hurren, euskaldun elebakarrak eta euskaldun hartzaileak (urte horretan euskal elebidunak arnasmuneetako hiztunen %52,3 ziren). Ez dago informazio zehatzik kopuru horiek eguneratzeko. Hala ere, arnasmune izaera duten udalerrietan nerabeen artean egin diren ikerketa bakanez aditzera ematen digute gaur egun ere badirela kategoria horietan zenbatu beharko genituzkeen hiztunak. Ondarroako nerabeen artean egindako inkesta batean, adibidez, galdera-sorta autoaplikatu bidez gaiaren inguruan galdetuta, lagina osatzen zuten 77 nerabeen %6,5ek erantzun zuten zailtasunak zituztela erdara ondo ulertzeko eta %26,0k zioten ez zutela hizkuntza horretan ondo hitz egiten (Navascués eta Lurrebaso, 2019: 607).

bat ematen digute datu hauek, makro mailako testuinguruen datuez baliatuta oraingoan. Harreman hori are indartsuagoa izango litzateke, ziurrenik, hiztunen jaiolekua eta bizilekua ere aintzat hartuta aztertuko bagenu. Aurrera begira, ikergai interesgarria litzateke jakitea, adibidez, arnaguneetako hiztun erdaldunetatik zenbat diren bertan jaiok eta zenbat kanpotik etorritakoak; erdara nagusi den udalerrietan ere, interesgarria izango litzateke ikertzea bertan bizi diren euskal nagusitasuneko hiztunetatik zenbat diren han jaiok eta zenbat zonalde euskaldunagoetatik etorriak.

**G.96. GRAFIKOA: HIZTUNEN AHOZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, 2016 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta HZ-209 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 9.8.2.3. puntuetan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


**Oharra:** arnagune beteetan azpilaginak neurri txikia du (n=64); zuhurtzia bereziz irakur bitez, hortaz, multzo horri dagozkion datuak.

### 18.1.1.3. Euskararekiko jarrera orokorra, nagusitasun-eremuaren arabera

Ba al dago harremanik hiztunak bizi diren nagusitasun-eremuaren eta euskararekiko jarreraren artean? G.97. grafikoan, nagusitasun-eremu bakoitzean euskararekiko jarreraren arabera hiztunak nola banatzen diren erakusten da. Horretarako, euskararekiko jarrerari buruz ISLn bertan lantzen den adierazle sintetikoaren emaitzak aurkezten dira nagusitasun-eremuka (adierazle horri buruzko azalpenak 5.3.2. puntuan aurki daitezke). Grafiko honetan ikus daitezkeenez, oro har, euskararekiko jarrera hobea da euskara gehiago erabiltzen den nagusitasun-eremuetara jo ahala. Hala eta guztiz, ez dirudi alde handirik dagoenik nagusitasun-eremuetako hiztunen iritzien artean, erdararen nagusitasun handiko udalerrien multzoaren salbuespenarekin. Izan ere,

erdararen nagusitasun handia duten udalerrietan soilik daukate pisu ohargarria euskararen aurkako jarrerak. Gainerako eremuetan gutxi dira euskararen aurkako jarrera dutenak eta ez dira asko, halaber, “ez alde eta ez aurka” sailkatutakoak. Erdararen nagusitasun handiko eremuez kanpo, gainerako nagusitasun-eremuetan bost hiztunetatik lauk edo gehiagok euskararen aldeko jarrera dute, betiere puntu honetan lantzen ari garen ISLko adierazlean oinarrituta.

**G.97. GRAFIKOA: EUSKARAREKIKO JARRERA, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, 2016**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISLko “Euskara sustatzeari buruzko jarrera” adierazle sintetikoak eta HZ-209 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, teoria-ataleko 5.3.2. puntuan eta metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** arnasgune beteetan azpilaginak neurri txikia du (n=64); zuhurtzia bereziz irakur bitez, hortaz, multzo horri dagozkion datuak.

#### 18.1.1.4. Euskararen transmisioa, nagusitasun-eremuen arabera


Hizkuntza batek aurrera jarrai dezan eta indarberritu dadin, gai giltzarria da transmisioa, eta gai horrekin zerikusi zuzena duen aldagai bat landu dugu G.98. grafikoa: lehen hizkuntzarena, haurrek 3 urteak arte hitz egiten duten hizkuntzarena. Bertan, 2011. urtean nagusitasun-eremu batetik bestera Hegoaldeko 5-9 urte bitarteko haurrek lehen hizkuntza gisa zer jaso duten erakusten da. Grafikoa ikusita, eta umetan euskara soilik edo nagusiki euskara jaso izan dutenen kopuruei erreparatuz, agerikoa da nagusitasun-eremuz aldatu ahala errotik aldatzen dela errealitate hori:

- Arnasguneetako haur gehienek euskara izan zuten lehen hizkuntza. Euskara besterik jaso ez zutenak %75,7 izan ziren arnasgune beteetan eta %64,0 arnasgune erasanetan.

- Nagusitasunik argirik gabeko udalerrietan ere (euskararen etxeko erabilera %40-%60 dutenetan), haurren erdiek izan zuten euskara lehen hizkuntza, %49,6k hain justu.
- Erdara nagusi den udalerrietan, azkenik, erdara da haur gehienek jasotzen duten lehen hizkuntza, nahiz eta kopuru ohargarri batek euskara jaso. Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrietako haurren %33,5ek jaso zuten euskara lehen hizkuntza gisa, eta erdararen nagusitasun handiko udalerrietakoen %9,3k.

Orain arteko gainerako aldagaietan bezala, honetan ere, errealitate arras ezberdinak aurkitzen ditugu nagusitasun-eremu batetik bestera.

**G.98. GRAFIKOA: 5-9 URTE BITARTEKO HAURREN LEHEN HIZKUNTZA, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, 2011**



**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-004 eta HZ-209 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.4. eta 9.8.2.3. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

#### 18.1.1.5. Hizkuntza-bilakaera, nagusitasun-eremuen arabera

Aurrerago 20. kapituluan luze eta zabal arituko gara hizkuntza-bilakaeraz, hots, bizitzan zehar gaitasunaren edo erabileraren aldetik hitzunek bizi izan ohi ditugun aldaketaz. Aurreratu dezagun, 20.1.6 eta 20.3.3. puntuetan ikusiko dugun bezala, alde adierazgarriak daudela nagusitasun-eremu batzuetatik besteetara hizkuntza-bilakaerari buruzko alderdietan. Zehazki, haur txikiak zirela hizketan euskaraz hasi zirenen artean gaur egun (inkesta egin den unean) errazen erabiltzen duten hizkuntza gisa euskarari eusten diotenen kopuruak aldatu egiten da nagusitasun-eremutik nagusitasun-eremura. Berdin, txikitan euskaraz jakin ez eta bizitzan zehar euskara ikasi dutenen kopuruak ere zuzenean aldatzen dira nagusitasun-eremutik nagusitasun-eremura.

Esan beharrik ez dago arnaguneetan eusten diotela jatorrizko euskaldunek beste inon baino hobeto euskarazko nagusitasunari, eta hor ikasten dutela jatorrizko erdaldunek beste inon baino neurri handiagoan euskara. Erabilerazko hizkuntza-bilakaerari buruzko datuak ere zentzu berean doaz: arnaguneetako hiztunek beste eremuetakoek baino gehiago eusten diote euskarari etxeko erabileran; eta erdaratik erakarritakoak ere beste inon baino gehiago dira arnaguneetan. Horrela, bada, aipatu dugun kapituluaren xeheago azalduko dugun bezala, nagusitasun-eremuen eta hizkuntza-bilakaera prozesuen arteko harremana argia da.

#### 18.1.1.6. Nagusitasun-eremuak, ekosistema soziolinguistikoak

Nagusitasun-eremuak udalerrietako erabilera-mailaren arabera sortu baditugu ere, argi gelditzen da horrela sortutako multzo batzuek eta besteek errealitate ezberdinak dituztela beste aldagai soziolinguistikoetan ere: hiztunen hizkuntza-gaitasunean eta hizkuntzarekiko jarreretan zehazki. Ez hori bakarrik, bi prozesu soziolinguistiko funtsezkoetan ere, belaunez belauneko transmisioan eta hizkuntza-bilakaeran, dinamika ezberdinak antzematen dira ingurune batzuetan eta besteetan. Horrela, bada, nagusitasun-eremuek nolabaiteko ekosistema soziolinguistiko bereziak osatzen dituzte. Arnagune beteak dira, inolako zalantzarik gabe, euskara garatzeko eta transmititzeko baldintza egokienak eskaintzen dituzten inguruneak: beste inon baino errazagoa da euskaraz hitz egitea, euskal gaitasun sendo bat garatzea, hizkuntza transmititzea eta norbere bizitzan euskararen aldeko hizkuntza-bilakaera bat izatea. Beste muturrean, erdararen nagusitasun handiko nagusitasun-eremuetan, zailagoa da euskara garatzea, horietan izaten diren dinamikek erdararen alde (eta euskararen kontra) askoz ere indartsuago egiten baitute.

Aurrera segi aurretik, gogoratu nahi dugu nagusitasuna erabilera-tasetan oinarrituta sortu dugula, eta berez aldagai kuantitatibo jarraitu bat dena aldagai ordinal diskretu bihurtu dugula. Esan beharrik ez dago aztergai dugun errealitatea, berez, aldagai jarraitu ugariz osatua dagoela. Guk, ikerketa bideratzeko askotan aldagai diskretuak erabiliko ditugun arren, ez da komeni errealitate hori ahaztea. Horrekin batera, esan beharrik ez dago nagusitasun-eremu bakoitzaren barruan ere errealitate ezberdinak bilduko direla, eremu horren barruko udalerrri euskaldunagoen eta erdaldunagoen artean.

#### 18.1.1.7. Argibide gisako bi taula: nagusitasun-eremuen eta eremu soziolinguistikoaren arteko harremana

Teoria-ataleko 5.4.1. puntuan azaldu dugu euskal demolinguistikan tradizioz lurraldea euskalduntasun/erdalduntasun parametroetan sailkatzeko, udalerrri bakoitzean euskaldunek duten dentsitatearen arabera osatutako eremu edo gune soziolinguistikoekin egin izan dela lan. Eta horrekin batera, hainbat arrazoi eman dugu udalerrietan hiztunek egiten duten erabileraren arabera multzoekin (nagusitasun-eremuekin) lan egiten hastearren alde. Lurraldearen bi sailkapen-irizpide horien arteko ezberdintasuna eta bien arteko harremana ikusi ahal izateko eta, behar izanez gero, kontsultatzeko, hemen txertatzen ditugu T.162. eta T.163. taulak.

**T.162. TAULA: NAGUSITASUN-EREMUETAN DAGOEN EUSKALDUNEN DENTSITATEA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2011**

	Udalerrri-multzo horretan guztira bizi diren hiztunak			Euskaldunen dentsitatea % (HZ-201)		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011
<b>Etxeko erabileraren arabera multzokatze xehea (HZ-208)</b>						
Euskaraz %90-100	25.681	16.594	738	95,8	96,3	96,3
Euskaraz %80-89,9	46.112	43.070	7.904	88,8	91,8	91,8
Euskaraz %70-79,9	48.190	49.610	45.442	81,5	84,2	84,2
Euskaraz %60-69,9	65.618	75.397	60.909	77,0	78,0	78,0
Euskaraz %50-59,9	97.478	84.734	89.050	67,4	73,0	73,0
Euskaraz %40-49,9	104.570	80.383	115.411	57,4	66,3	66,3
Euskaraz %30-39,9	137.116	163.822	167.087	48,2	57,2	57,2
Euskaraz %20-29,9	84.260	92.244	140.133	40,2	50,1	50,1
Euskaraz %10-19,9	344.477	350.135	392.074	26,8	38,6	38,6
Euskaraz %10 baino gutxiago	1.621.108	1.628.627	1.729.042	7,6	18,6	18,6
GUZTIAK	2.574.610	2.584.616	2.747.788	23,1	31,8	31,8
<b>Etxeko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak (HZ-209)</b>						
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	71.793	59.664	8.642	91,3	92,2	92,2
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %60-%80koa)	113.808	125.007	106.350	78,9	80,7	80,7
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	202.048	165.117	204.461	62,2	69,2	69,2
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	221.376	256.066	307.219	45,1	54,0	54,0
Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	1.965.585	1.978.762	2.121.116	10,9	22,3	22,3
GUZTIAK	2.574.610	2.584.616	2.747.788	23,1	31,8	31,8

Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, HZ-201, HZ-208 eta HZ-209 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.1. eta 9.8.2.3. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]



T.163. **TAULA: ETXEETAKO ERABILERA EREMU SOZIOINGUISTIKOETAN. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2011**

	Udalerrri-multzo horretan guztira bizi diren hiztunak			Euskararen pisua etxeko erabileran % (HZ-207)		
	1991	2001	2011	1991	2001	2011
<b>Hiztuna bizi den udalerrian euskaldunek duten pisuaren arabera multzokatze xehea (HZ-202)</b>						
Euskaldunak %90-100	42.148	29.472	8.757	90,7	83,9	83,9
Euskaldunak %80-89,9	59.376	80.875	56.198	78,9	72,2	72,2
Euskaldunak %70-79,9	101.232	120.672	131.251	65,0	58,6	58,6
Euskaldunak %60-69,9	82.888	112.294	140.429	54,0	45,5	45,5
Euskaldunak %50-59,9	123.609	176.998	234.288	42,7	32,1	32,1
Euskaldunak %40-49,9	149.462	67.155	247.889	34,3	18,5	18,5
Euskaldunak %30-39,9	61.674	356.873	220.204	23,0	13,7	13,7
Euskaldunak %20-29,9	333.843	122.329	919.126	14,9	5,4	5,4
Euskaldunak %10-19,9	255.999	993.334	579.356	5,3	4,0	4,0
Euskaldunak %10 baino gutxiago	1.364.379	524.614	205.537	2,1	1,2	1,2
GUZTIAK	2.574.610	2.584.616	2.743.035	15,8	15,1	15,1
<b>Gune soziolingüistikoak (HZ-203)</b>						
Euskaldunak %80-100	101.524	110.347	64.955	83,8	73,8	73,8
Euskaldunak %60-79,9	184.120	232.966	271.680	60,0	51,8	51,8
Euskaldunak %40-59,9	273.071	244.153	482.177	38,1	25,1	25,1
Euskaldunak %20-39,9	395.517	479.202	1.139.330	16,2	7,0	7,0
Euskaldunak %20 baino gutxiago	1.620.378	1.517.948	784.892	2,6	3,2	3,2
GUZTIAK	2.574.610	2.584.616	2.743.035	15,8	15,1	15,1

*Iturria:* egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, HZ-202, HZ-203 eta HZ-207 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 9.8.2.1. eta 9.8.2.3. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 18.1.2. Nagusitasun-eremuak (eta arnaguneak) zenbatzen

Puntu honetan, nagusitasun-eremuen egungo neurria nolakoa den zehazten saiatuko gara. Bi modutan zenbatuko ditugu Hegoaldeko nagusitasun-eremuak. Lehenik, Hegoaldeko zentsuetara jo eta udalerrri bakoitzeko hiztunek etxean egiten duten erabileran oinarrituta. Bigarrenik, HEKNra jo eta udalerrietako kaleetan egiten den erabileran oinarrituta.

#### 18.1.2.1. Zenbaketa, 2011ko etxeko erabileran oinarrituta

Eskura dugun zentsu-informazioa baliatuz, T.164. taula eta G.99.-G.100.-G.101. grafikoak sortu ditugu. Bertan ikus daitekeen bezala, 2011. urtean hauxe izango litzateke Hego Euskal Herrian nagusitasun-eremuen egoera<sup>275</sup>. Honela banatzen dira

<sup>275</sup> Metodologia-atalean azaldu dugu zergatik sistematikoki landu dugun azken zentsua 2011koa den eta ez 2016koa. Horrela, bada, zentsuko datuez ari garenean nagusiki 2011ko datuak izango dira landuko ditugun berrienak, nahiz eta alderdi batzuetan 2016koak ere erabiliko ditugun.

Hegoaldeko udalerrriak<sup>276</sup>, bertako etxeetan euskarak duen erabilera-mailaren arabera sailkatuta:

- Hasteko, landu ditugun irizpideen arabera, euskara nagusi den eremuak ditugu, bertako etxeetan euskararen erabilera %60ko langa gainditzen duen udalerrriak, arnasguneak. Hegoaldeko 96 udalerririk betetzen dute ezaugarri hori. Horien artean, 24 izango lirateke arnasgune beteak (etxeko erabilera %80tik gorakoa dutenak), eta gainerako 72ak arnasgune “erasanak” lirateke (erabilera %60-%80 tartean dutenak). Hegoaldea osatzen duten 523 udalerrien<sup>277</sup> zati ohargarri bat, hortaz, %18,4, ia bostetik bat, arnasgunea dugu.
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak, bertako etxeetako erabilera euskararendarak %40-%60 tartean parekatu samar azaltzen zaizkigunak, 52 dira (udalerrien %9,9).
- Azkenik, bertako etxeetan erdara nagusi den udalerrriak ditugu. Bost udalerritatik hiruk baino gehiagok (325 udalerririk, guztien %62,1) erdararen nagusitasun handia erakusten dute: udalerririk horietan etxeetako euskararen erabilera ez da %20ra iristen. Horiei, erdararen nagusitasun erabatekoa ez duten beste 50 udalerririk (%9,6) erantsita (euskararen etxeko erabilera %20-%40 artekoa da horietan), esan dezakegu Hegoaldeko 375 udalerritako etxeetan erdara dela gaur egun nagusi.

---

<sup>276</sup> Lan honetan, lurralde mailako hizkuntzen nagusitasunaren gaia ikerketa-unitate gisa udalerririk hartuta landuko dugu nagusiki (eskualde mailan ere arituko gara aurrerago). Berez, lana dezente zaildu arren, posible litzateke unitate xeheagoetan lantzea gai hau, auzoak eta bestelako udalerririk azpiko eremuak aintzat hartuz. Pentsatzekoa da, bide hori hartuko bagenu, zer edo zer aldatu egingo liratekeela emaitzak. Zehazki, arnasgune izateko adinako euskararen erabilera-maila ez duten herri eta hirietako auzo euskaldunak arnasguneetatik joz gero horretarako irizpideak betetzen dituztenean, ziurrenik hemen aurkeztuko ditugun kopuruak handitu egingo lirateke arnasguneen pisuari dagokionez; eta ziurrenik, bilakaera-datuetan ere egongo litzateke aldaketarik. Dena den, oraingoz ez dago hori zehatz jakiterik, esan bezala, guk udalerririk mailan oinarrituko dugulako gure azterketa.

<sup>277</sup> Hegoaldeko udalerrien multzo horretan, ez ditugu sartu administratiboki EAEkoak ez diren Trebiñu eta Argantzón Arabako udalerririk eta Villaverde Turtzioz Bizkaikoa.

T.164. **TAULA: UDALERRIEN, HIZTUNEN, EUSKALDUNEN ETA ETXEAN SOILIK EDO NAGUSIKI EUSKARAZ MINTZATZEN DIREN EUSKALDUNEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIKO ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011**

	Udalerrriak	Hiztun guztiak	Euskaldunak	Etxeko hizkuntza euskara dutenak	Udalerrriak	Hiztun guztiak	Euskaldunak	Etxeko hizkuntza euskara dutenak
	Kop.	Kop.	Kop.	Kop.	(%)	(%)	(%)	(%)
<b>HZ-208: Udalerriko etxeko erabileraren araberako multzokatze xehea (10 multzotan)</b>								
Etxeko euskararen erabilera %90-100	2	738	710	664	0,4	0,0	0,1	0,2
%80-89,9	22	7.905	7.254	6.322	4,2	0,3	0,8	2,0
%70-79,9	43	45.442	38.259	31.383	8,2	1,7	4,4	9,8
%60-69,9	29	60.909	47.537	36.274	5,5	2,2	5,4	11,3
%50-59,9	33	89.050	64.973	41.091	6,3	3,2	7,4	12,8
%40-49,9	19	115.411	76.567	45.114	3,6	4,2	8,8	14,1
%30-39,9	34	167.086	95.654	45.876	6,5	6,1	10,9	14,3
%20-29,9	16	140.133	70.264	28.062	3,1	5,1	8,0	8,7
%10-19,9	40	392.074	151.321	42.520	7,6	14,3	17,3	13,3
%10 baino gutxiago	285	1.729.043	321.759	43.461	54,5	62,9	36,8	13,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>523</b>	<b>2.747.791</b>	<b>874.298</b>	<b>320.767</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
<b>HZ-209: Etxeko erabileraren araberako nagusitasun-eremuak (5 multzotan)</b>								
Arnasgune beteak. Euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	24	8.642	7.964	6.986	4,6	0,3	0,9	2,2
Arnasgune erasanak. Euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	72	106.350	85.795	67.657	13,8	3,9	9,8	21,1
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	52	204.461	141.540	86.205	9,9	7,4	16,2	26,9
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	50	307.219	165.918	73.937	9,6	11,2	19,0	23,1
Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	325	2.121.116	473.080	85.981	62,1	77,2	54,1	26,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>523</b>	<b>2.747.788</b>	<b>874.297</b>	<b>320.766</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>


Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-208 eta HZ-209 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Udalerrietan dagoen erabilera-maila kontuan hartuta, G.99. grafikoan Hegoaldeko hiztunak hamar multzo horietan nola banatzen diren aurkezten da. Berriro ere, txosten honetako beste alderdi askotan bezala, mutur erdaldunera lerratuta dagoen banaketa erakusten digute datuek: hiztunen ia bi herenak (%62,9) testuinguru demolinguitiko erdaldunenean bizi dira, euskararen etxeko erabilera %10era iristen ez diren udalerrietan, alegia. Hortik aurrera eskailera ia perfektu bat erakusten dute datuek: zenbat eta euskaldunagoa, orduan eta beherago azaltzen zaigu multzoa; zenbat eta koxka erdaldunagoa, orduan eta gorago.

Ikuspegi orokorra zenbaki gutxi batzuen bidez adieraziz, eta T.164. taulan irakur dezakegun bezala, honela banatzen dira hiztunak 2011. urtean bost nagusitasun-eremuetan:

- Arnasguneetan 114.994 hiztun (euskaldun zein erdaldun) bizi ziren 2011. urtean, Hegoaldeko hiztun guztien %4,2. Horrela, bada, Hegoaldeko 25 hiztunetatik bat bizi da arnagunean eta gainerako 24ak ez dira arnagunean bizi. Arnagunean bizi direnen artean, ia denak arnagune “erasanetan” bizi dira. Arnagune beteetan 8.642 hiztun bizi dira, Hegoaldeko hiztun guztien %0,3 besterik ez.
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrietan 204.461 hiztun bizi dira (hiztun guztien %7,4).
- Erdara nagusi den eremuetan bizi dira ia hamar hiztunetatik bederatzia (2.428.336 hiztun, %88,4). Horien barruan, gehien-gehienak erdararen nagusitasuna handia den udalerrietan bizi dira, eta horien barruko multzorik erdaldunenean gehien-gehienak<sup>278</sup>.

**G.99. GRAFIKOA: HIZTUNEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIKO ETXEKO ERABILERA EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-208 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]


Ikusi dugu nolakoa den hiztun guztien banaketa. Nola banatzen dira euskaldunak nagusitasun-eremuetan? G.100. grafikoan ikus daitekeenez, banaketa hori ere erdara

<sup>278</sup> Aipatu dugu 2011 zentsuekin ari garela lanean. Hala ere, labur-labur esan dezagun 2016ko EAEko datuak Nafarroako 2011koekin elkartuta (Nafarroan ez dago 2016ko daturik), egoera 2011ko datuekin deskribatzen denaren antzekoa dela, honako ezberdintasun aipagarri honekin: gainerako nagusitasun-eremuak berdintsu mantenduta, 2016ko datuek pisu txikiagoa ematen diote 2011koekin baino erdararen nagusitasuna handia den udalerriari (bertan biziko liratekeen hiztunak %69,9 izango lirateke, 2011ko %77,2aren ordean). Eta pisu handiagoa ematen die erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriari: %18,3koa, eta 2011n %11,2koa. Esan bezala, gainerako nagusitasun-eremuen pisuan ez dago alde handirik 2011ko eta 2016ko datu horien artean.

nagusi den multzoetara lerratuta azaltzen zaigu, nahiz eta kopuruak apur bat berdinu eta lerratzea pixka bat ahuldu. Euskaldunak, zehazki, honela banatzen dira nagusitasun-eremuei erreparatuta:

- Arnasguneetan bizi dira 93.760 euskaldun (euskaldun guztien %10,7). Horien barruan, gehienak arnagune erasnetan bizi dira.
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrietan bizi dira 141.540 euskaldun (%16,2).
- Erdara nagusi den udalerrietan bizi dira, azkenik, euskaldunen ia hiru laurdenak (%73,1), 638.998 hiztun. Horien barruan, gehienak erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi dira.

**G.100. GRAFIKOA: EUSKALDUNEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIKO ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011**




Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-001 eta HZ-208 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Azkenik, hiztun aktiboenen banaketara hurbildu nahirik, etxean bakarrik edo nagusiki euskaraz aritzen diren hiztunen banaketa erakusten dugu G.101. grafikoan. Bertako irudia nabarmen aldentzen da aurreko bi grafikoen itxuratik. Banaketa askoz ere parekideagoa erakusten du, hiztun aktiboak modu orekatuagoan banatzen dira-eta multzo gehienetan. Horrela, bi multzo euskaldunenak dira (euskaraz %80-%90 eta euskaraz %90-%100) pisurik txikiena dutenak: berez arnagune beteetan hain hiztun gutxi bizi direnez (6.986 besterik ez), eta nahiz eta hiztun horietako gehien-gehienak hiztun aktiboak izan, etxean euskaraz aritzen direnak, ez da harritzekoa etxean aritzen diren hiztun guztien artean hain txikia izatea mutur euskaldunenean bizi direnen proportzioa. Muturreko bi multzo horien salbuespenarekin, bada, gainontzeko multzoak nahiko orekatuak azaltzen zaizkigu neurritz; grafikoan ikus daitekeen bezala, nahiko modu parekatuan sakabanatuta azaltzen zaizkigu multzo horietan guztietan *euskaldun etxean aktiboak*. Zenbakietara joz, honela banatzen dira nagusitasun-eremuetan:

- Arnasguneetan bizi dira 74.634 *euskaldun etxean aktibo* (*euskaldun etxean aktibo* guztien %22,3). Horien barruan, gehienak arnasmune erasnetan bizi dira, gutxi arnasmune beteetan.
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrietan bizi dira 86.205 *euskaldun etxean aktibo* (%26,9).
- Erdara nagusi den udalerrietan bizi dira, azkenik, *euskaldun etxean aktibo*en erdiak (%49,9), 159.919. Horien barruan, nahiko modu parekidean banatzen dira erdararen nagusitasun-mailaren arabera multzoetan.

G.101. GRAFIKOA: ETXEAN SOILIK EDO NAGUSIKI EUSKARAZ MINTZATZEN DIREN EUSKALDUNEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIKO ETXEKO ERABILERA EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011



*Iturria:* egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-006 eta HZ-208 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuak). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 18.1.2.2. Zenbaketa, 2016ko kaleko erabileran oinarrituta

Hegoaldeko Zentsuetan etxeke erabilerari buruz ageri diren emaitzen gainean egindako ustiaketak eman dizkigun datuak dira horiek. Goazen azterketa bera egitera, baina HEKNko kaleko erabilerari buruzko datuetan oinarrituta oraingoan.

T.165. taulan eta G.102. grafikoan ikus daitekeen bezala, 2016. urtean hauxe izango litzateke Hego Euskal Herrian nagusitasun-eremuen egoera, azterketa kaleko erabileran oinarrituta eginez gero:

- Arnasmuneak, bertako kaleetan euskararen erabilerak %60ko langa gaintzen duten udalerriak, 99 dira. Horien artean, 52 izango lirateke arnasmune beteak (kaleko erabilerak %80tik gorakoa dutenak), eta gainerako 47ak arnasmune "erasanak" (erabilerak %60-%80 tartean dutenak).

- Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak, bertako kaleetako erabileran euskarar-  
erdarak %40-%60 ibiltartearen barruan parekatu samar ageri dutenak, 43 dira  
(udalerrien %4,2).
- Azkenik, bertako kaleetan erdara nagusi den udalerrriak ditugu. Udalerrien ia bi  
herenek (335 udalerrri, guztien %64,1) erdararen nagusitasun handia erakusten  
dute: udalerrri horietako kaleetan euskararen erabilera ez da %20ra iristen.  
Horiei erdararen nagusitasun ez erabatekoan koka ditzakegun beste 46 udalerrri  
erantsita (%8,8), esan dezakegu Hegoaldeko 381 udalerritako kaleetan erdara  
dela gaur egun nagusi.

**T.165. TAULA: UDALERRIEN ETA HIZTUNEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIKO KALEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2016**

	Udalerrriak		Hiztun guztiak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
<b>HEKN-002: Udalerrriko euskararen kaleko erabileraren arabera multzokatze xehea</b>				
Kaleko euskararen erabilera %90-100	21	4,0	10.285	0,4
%80-89,9	31	5,9	34.416	1,3
%70-79,9	29	5,5	42.491	1,5
%60-69,9	18	3,4	41.377	1,5
%50-59,9	24	4,6	65.732	2,4
%40-49,9	19	3,6	96.401	3,5
%30-39,9	17	3,3	94.181	3,4
%20-29,9	29	5,5	148.010	5,4
%10-19,9	25	4,8	383.909	14,0
%10 baino gutxiago	310	59,3	1.827.902	66,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>523</b>	<b>100,0</b>	<b>2.744.704</b>	<b>100,0</b>
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak</b>				
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	52	9,9	44.701	1,6
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	47	9,0	83.868	3,1
Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	43	8,2	162.133	5,9
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	46	8,8	242.191	8,8
Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	335	64,1	2.211.811	80,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>523</b>	<b>100,0</b>	<b>2.744.704</b>	<b>100,0</b>


Iturria: egileak landua, 2014-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HEKN-002 eta HEKN-003 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10. kapituluari). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018*.]

Udalerrietan zer-nolako erabilera dagoen kontuan hartuta, Hegoaldeko hiztunak hamar multzo xeheetan nola banatzen diren aurkezten da G.102. grafikoa. Beste behin,

mutur erdaldunera lerratuta ageri da banaketa: hiztunen bi herenak (%66,6) mutur erdalduneneko testuinguru demolinguistikoan bizi dira, euskararen kaleko erabilera %10era iristen ez den udalerrietan, alegia. Hortik aurrera multzoak gero eta txikiagoak dira, testuinguru euskaldunenaren muturrera iritsi arte: euskararen kaleko erabilera %90a gainditzen duten udalerrietan hiztunen %0,4 besterik ez da bizi gaur egun. Testuinguru ibiltarte guztia laburtuz, honela banatzen dira hiztunak 2016. urtean bost nagusitasun-eremuetan:

- Arnasguneetan 128.569 hiztun (euskaldun zein erdaldun) bizi ziren 2016. urtean, Hegoaldeko hiztun guztien %4,7, ia hogei hiztunetik bat. Arnasgunean bizi direnen artean, ia bi heren (83.868) arnasgune “erasanetan” bizi dira; arnasgune beteetan 44.701 hiztun bizi dira, Hegoaldeko hiztun guztien %1,6.
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrietan 162.133 hiztun bizi dira (hiztun guztien %5,9).
- Erdara nagusi den eremuetan bizi dira ia hamar hiztunetik bederatzia (2.454.002 hiztun, %89,4). Horien barruan, gehien-gehienak erdararen nagusitasuna handia den udalerrietan bizi dira, eta horien barruko multzorik erdaldunenean gehienak.

**G.102. GRAFIKOA: HIZTUNEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIKO KALEKO ERABILERA EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2016**



Iturria: egileak landua, 2014-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HEKN-002 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10. kapituluari). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilera neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Gogoan hartu behar da G.102. grafikoak hiztun guztien banaketa erakusten duela. Grafiko horrek erakusten duena baino pisu erlatibo handiagoa izango dute, jakina, euskaldunek, eta zer esanik ez euskararen erabilera handia egiten duten euskaldunek zonalde euskaldunagoetan, eta txikiagoa zonalde erdaldunagoetan. Hori, hala ere, ezin da zenbakietara ekarri HEKNko datuekin. Dena den, horrekin zuzenean lotzen den informazioa eman dugu 10.8. eta 15.6.2. puntuetan jardunaren osaeraz aritu garenean. Bertan aurkeztu ditugun datuetako batzuk gogoraraziz, esan dezakegu arnasguneetan eta nagusitasunik gabeko udalerrietan, multzo horiek denak batera zenbatuta,



Hegoaldeko hiztun guztien multzo txikia (%10,6) bizi den arren, udalerrri mota horietan ekoizten dela gaur egun kalean erabiltzen den euskararen erdia (%49,4). Bien bitartean, erdara nagusi den eremuetan bizi diren hiztunen multzo askoz handiagoek (hiztun guztien %89,4 bizi dira eremu horietan) aurreko horien guztien pareko ekoizpena dute: hiztunen %89,4 horrek ekoizten du jardunaren gainerako erdia (%50,6a zehazki).

### 18.1.2.3. Nagusitasun-eremuak (eta arnasmuneak) Hegoaldean gaur: sintesi-ikuspegi baterantz


Udalerrietako erabileraren arabera multzo xehean eta nagusitasun-eremuen operatibizazioa etxeko erabileran oinarrituta egin (zentsuetatik) edo kale-erabileran oinarrituta egin (kale-neurketatik), lehen begirada batean, ez da alde handirik ikusten eremu batzuen eta besteen egungo neurrian (ikus datu xeheak T.164. eta T.165. tauletan). Bi iturriek oinarrizko egitura bera erakusten digute udalerrien multzoetan eta nagusitasun-eremuetan: zenbat eta eremu erdaldunagoa, orduan eta pisu handiagoa dute gure errealitatean. Datuak laburtuz, hiru sailetan banatu ditzakegu udalerriak eta bertan bizi diren hiztunak:

- Erdararen erabilera nagusi den udalerriak 375 dira azterketa zentsuetan oinarrituta eginda eta 381 kale-erabileran oinarrituta. Udalerrri horietan bizi dira Hegoaldeko hamar hiztunetatik bederatzi (%89-%90 inguru, jatorrizko iturriaren arabera).
- Nagusitasun argirik gabeko udalerriak 52 dira zentsuetako informazioaren arabera eta 43 kaleko erabilerari jaramon eginez. Tarteko kategoria honetan 162.000-204.500 hiztun biziko lirakeke (alde hori dago bi iturrien artean, aipatu tauletan ikus daitekeen bezala).
- Arnasmune izaera dute ia ehun udalerririk (96 udalerririk zentsuetan oinarrituta eta 99k HEKNko datuetatik abiatuta). Horietan 122.000 hiztun inguru biziko lirakeke (Hegoaldeko biztanleriaren %4-%5 inguru).

Ez da harrizkoa datu batzuk eta besteak orokorrean bat etortzea. Etxeko eta kaleko erabileren arteko korrelazioa oso handia baita, metodologia-atalean ikusi ahal izan dugun bezala.

Bada, hala ere, bi iturrien arteko emaitzetan ezberdintasun aipagarri bat: kale-erabilerako datuetan oinarrituta, zer edo zer handiagoa da arnasmuneen multzoa zentsuetan oinarrituta baino. Eta arnasmuneen barruan, askoz gehiago dira "beteen" mailan sar ditzakegunak (50 udalerrri eta 45.000 hiztun inguru) etxeko erabileran oinarrituta baino (24 udalerrri eta 8.421 hiztun). Bestela esanda, zentsuen arabera arnasmune beteak ia agortuta egongo lirakeke, eta kale-neurketen arabera oraindik errealitate oso gutxitu baina bizia izango lirakeke.

**G.103. GRAFIKOA: HIZTUNEN BANAKETA, BIZI DIREN UDALERRIKO KALEKO ETA ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2016 (\*)**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik eta 2016ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HZ-208 eta HEKN-002 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan eta 10. kapituluan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharra (\*): etxe-erabilerari buruzko datuak 2011koak dira

Sintesi-ikuspegi hau bukatzeko, gogora dezagun nagusitasun-eremuen pisu demografikoarekiko ez dela proportzionala ez euskaldunen banaketa eta are gutxiago “euskaldun aktiboek” banaketa edo jardunaren osaera; hots, ekoizten den euskararen banaketa. Hainbat datu eman ditugu horren inguruan lehenago. Laburpen moduan, gogora dezagun erdara nagusi den eremuetan (ia 10 hiztunetatik 9 bizi diren horietan) bezainbeste euskara ekoizten dela arnasguneetan eta nagusitasun argirik gabeko eremuetan (udalerririk horietan 10 hiztunetatik bakarria bizi den arren).

## 18.2. NAGUSITASUN-EREMUEN (ETA ARNASGUNEEN) BILAKAERA HEGOALDEAN

✓ **Zer-nolako izan da nagusitasun-eremuen bilakaera? Zer-nolako ingurune mota ari da indartzen eta ahultzen azken 25 urteotan: euskararen erabilera handiko eremuak, erdara nagusi denekoak edo tartekoak?**

Nagusitasun-eremuen bilakaeraz aritzeko, bi ikuspegi landuko ditugu azpikapitulu honetan. Lehenik, 1991ko erabileraren arabera multzo xeheak hartu eta horietako bakoitzean azken 20-25 urteotan erabilera nola aldatu den aztertuko dugu. Bigarrenik, Hegoaldeko hiztun guztiekiko multzo xehe eta nagusitasun-eremuen pisua nola aldatu den ikertuko dugu.


### **18.2.1. Jatorrizko eremuen bilakaera (1991ko erabilera-mailaren arabera multzo finkoak aztertuta)**

1991ko erabilera hartuta, udalerrien multzoak eraiki ditugu, multzo horiek iraunkor hartuta 1991ko osakeraren arabera. Nola aldatu da multzo horietan erabilera? Galdera horri erantzuteko sortu dugu G.104. grafikoa, kaleko zein etxeko erabilera aintzat hartuta.

Egin dezagun lehen irakurketa azkar bat: kaleko erabilerari erreparatuta, HEKNko datuetan oinarrituta betiere, jaitsi egin da erabilera jatorrian erabilera handiena zuten lau multzoetan, kaleko erabilera %60tik gora zuten udalerrri-tipologietan, arnaguneetan alegia, eta igo egin da gainerako guztietan (ia aldaketarik izan ez duen %40-%50 multzoan izan ezik). Etxeko erabilerari erreparatuta, berriz, Hegoaldeko Zentsuetan oinarrituta, tasa esleituaren bidez sortu dugun HZ-208 adierazlearen informazioaren arabera, eta epealdiaren hasiera eta bukaera alderatuta, jaitsi egin da etxeko erabilera jatorrian %20ko erabilera baino handiagoa zuten multzo guztietan, eta igo egin da 1991n euskararen erabilera %20aren azpikoa zuten bi multzoetan.

Bestela esanda, bi iturriek joera bera ageri dute muturreko multzoen norabidean: igo egin da euskararen erabilera bi multzorik erdaldunenetan; jaitsi egiten da lau multzo euskaldunenetan. Intentsitatean ez datoz bat bi iturriok: HZk mugimendu indartsuagoak deskribatzen ditu; HEKNk mugimendu apalagoak. Baina, esan bezala, norabidean bat datoz bi iturriak muturretako multzoetan. Alabaina, ez datoz bat tarteko multzoetan: HEKNk igoerak ageri ditu tarteko jatorrizko multzoetan, jatorrian euskararen erabilera %20 eta %60 bitartean zutenetan, eta HZk jaitsiera ematen du multzo horietan guztietan.

**G.104. GRAFIKOA: KALEKO ETA ETXEKO ERABILERA EUSKARAK IZAN DUEN BATEZ BESTEKO PISUA, UDALERRIKO ERABILERAREN 1991KO MULTZOKATZE XEHEAREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016**



**Iturria:** egileak landua, 1989-2018ko HEKNtik eta 1991-2016 ko HZtik abiatuta. Zehazki, HEKN-002 eta HZ-208 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10. kapituluaren eta 9.8.2.3. puntuaren). [Jatorrizko iturriak: EAEko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2022), Nafarroa Garaiko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, NASTATEk (Nafarroako Estadística Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistikako Klusterraren erabilera neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**Oharra:** Kaleko erabilera araberako udalerrien multzo xeheak 1991ko kale-erabilera araberakoak dira; etxe-erabilera araberakoak, etxe 1991ko erabilera-mailaren araberakoak. Hori dela eta, multzo batzuk eta besteak ez datoz beti bat.

Ez dira horretan bukatzen bi iturriek ematen dizkiguten irudien arteko ezberdintasunak. Etxeko erabilera bilakaera joera perfektuak erakusten ditu, guztiz linealak 10 multzo xehearen artean: zenbat eta euskaldunago, orduan eta galera handiagoa; zenbat eta erdaldunagoa, orduan eta irabazi erlatibo handiagoa. Horixe zentsuetako datuek erakusten duten joera. HEKNko datuetan, ordea, ez dago horrelako linealtasun argirik: bilakaera okerrera multzo euskaldunenek dute, horretan bat dator iturri hori zentsuekin. Hortik behera, berriz, multzoen emaitzak hobetu egiten dira eta bilakaerarik aldekoenak 1991n kaleko euskararen erabilera %20-%40 bitartean zuten udalerrien multzoek erakusten dituzte; igoera apalagoak dituzte jatorrian erabilera %20aren azpikoa zuten udalerriek. Hurrengo puntuan arituko gara bilakaera-joera ezberdin horiek bateragarriak izan ote daitezkeen aipatzen. Aurreratu dezagun egiantz

handiagoa ikusten diegula HEKNko datuetan oinarritutako bilakaera-joerei HZn oinarritutakoei baino.

Esandakoez gain, iturri bakoitzak bere koxka eta gorabehera bereziak erakusten ditu. Hegoaldeko Zentsuen kasuan, harrigarria da arnaseguneetako<sup>279</sup> erabilera datuek zer-nolako jaitsiera bortitza ageri duten euskararen erabilera 2001. eta 2006 bitartean. Zentsuekin jarraituta, deigarria egiten da, halaber, 2016ko *goraldia* gainerako eremu guztietan. HEKNko datuei erreparatuta, aztertzeko moduko gorabeherak erakusten dituzte datuek hainbat multzotan, hala nola, %20-%30 multzoak 2001. urtean eta %70-100 multzoak 2011n.

## **18.2.2. Nagusitasun-eremuen eta arnaseguneen bilakaera Hegoaldean**

1991ko multzoak hartu eta udalerrri multzo horiek finko utzita, eta horietako bakoitzean izan den bilakaera aztertu ondoren, goazen orain nagusitasun-maila bakoitzeko udalerrrien pisua denboran zehar nola aldatu den ikertzera. Pisu horretan egon ahal izango diren aldaketak udalerrien bilakaera demografikoaren eta bertako hiztunen hizkuntza-ohituren aldaketaren ondorio izango dira. Berriz ere, bi iturri ditugu gai hori lantzeko.

### 18.2.2.1. Nagusitasun-eremuen bilakaera, etxeko erabilera oinarrituta, 1991-2011

Metodologia-atalean azaldu bezala, zentsu-urte bakoitzean udalerrri bakoitzeko etxeetan euskararen erabilera nolakoa izan den aintzat hartuta, hamar multzo sortu ditugu urte bakoitzerako. Horrela, 1991ko datuak hartu, eta urte horretan erabilera %90-%100 bitartekoa zuten udalerriek osatuko dute lehen multzoa, %80-%90 bitartekoa zutenek bigarrena, %70-%80 bitartekoeak hirugarrena, eta abar. Berdin egin dugu 2001. eta 2011. urteetarako ere. Udalerrriak horrela sailkatuta, taldekatze aldakorra izango da urtetik urtera, eta horrela, urtetik urtera udalerrri mota horiek eta multzo horietako bakoitzean bizi diren hiztunek hiztun guztiekiko osatzen duten pisua nola aldatu den aztertu ahal izango dugu. Era horretan, indartzen ari diren eta ahultzen ari diren testuinguruak zehaztu ahal izango ditugu.

Datuak horrela landuta, T.166. taula eta G.105. grafikoa sortu ditugu. Honako bilakaera hau antzematen da 1991ko datuetatik 2011ko datuetara izan den aldaketa aztertuta:

- Arnasegune ziren udalerrriak 132tik 96ra jaitsi dira 1991-2011 bitartean<sup>280</sup>. Horrekin batera, arnaseguneetan bizi ziren hiztunak nabarmen urritu dira, 185.601tik 114.992ra, Hegoaldeko hiztun guztien %7,2 izatetik %4,2 izatera alegia. Arnaseguneen barruan, arnasegune beteek izan dute galerarik handiena: ezaugarri horietako udalerrriak 85etik 24ra jaitsi dira eta bertan bizi ziren hiztunak, 71.793tik 8.642ra, Hegoaldeko hiztun guztien %2,8 izatetik %0,3 izatera. Galera hori muturreneko multzoan gertatu da batik bat. Ondorioz, euskararen erabilera-ingurune euskaldunena agortuz joan da azken bi

<sup>279</sup> Arnasegune izendatzen ditugu kasu honetan 1991. urtean euskararen erabilera %60tik gorakoa zuten udalerrriak (grafikoetako goiko lau lerroak beraz).

<sup>280</sup> Udalerrrien kopuruak metodologia-ataleko T.68. taulatik ekarri ditugu.

hamarkadetan: 1991. urtean, 51 udalerrri zeuden etxean nagusiki euskara erabiltzen zuten herritarrak %90etik gora zituztenak, eta 25.681 hiztun bizi ziren horietan; gaur egun bi udalerrri besterik ez lirateke geldituko bertako etxeetan euskararen erabilera %90etik gorakoa dutenak, eta 738 hiztun besterik ez dira bizi horietan. Horrela, bada, zentsuko datuen arabera, arnasgune izaera duten udalerrriak eta horietan bizi diren hiztunen kopuruak modu ohargarrian jaitsi dira Hegoaldean 1991-2011 tartean, eta 2011. urtean, Hego Euskal Herriko hiztun guztien multzo txiki bat besterik ez dute osatzen. Jaitsiera hori arnasgune beteetan gertatu da batik bat.

- Nagusitasun argirik gabeko udalerrrien multzoa (euskara-erdaren etxeko erabilera %40-%60an daukatenak), apur bat ahulduta ere, egonkor samar azaltzen zaigu 1991-2011 tartean: %7,8 ziren 1991n eta %7,4 dira 2011n.
- Erdararen nagusitasun-eremuak dira, bai nagusitasun handikoak eta batez ere nagusitasun argirik gabekoak, euren pisua handitu duten bakarrak, zentsuko datuen arabera. Guztiak zenbatuta, 1991ko %84,9tik %88,4ra igo da euren pisua, hain zuzen ere. Hala ere, esan beharra dago ingurunerik erdaldunenak, euskararen erabilera %10aren azpitik dutenak, ez direla handitu<sup>281</sup>.

Laburtuz, bada, kalkuluak zentsuetako etxeko erabileran oinarrituz eginda, Hegoaldean indartu egin dira erdara nagusi den udalerrien pisua eta ahuldu egin da nagusitasunik gabekoen edo euskara nagusi dutenen pisua. Galera hori bereziki handia izan da arnasgune beteetan.

---

<sup>281</sup> Are gehiago 9.1.2. puntuan azaldu ditugun arrazoiengatik lanketa honetan txertatu ez ditugun 2016ko EAeko zentsuko datuak aztertuta (eta Nafarroako 2011ko emaitzekin batuta): 2011-2016 tartean jaitsi egin da erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi diren hiztunen pisua, %77,2tik %69,9ra; eta igo egin da erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrien pisua, %11,2tik %18,3ra. Hala ere, erdara nagusi den bi nagusitasun-eremuak batuta, ez da alde handirik 2011ko eta 2016ko datuen artean.

T.166. **TAULA: HIZTUNAK, ETXeko ERABILERAREN ARABERAKO MULTZOKATZE XEHEAREN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, 1991-2011**

	1991 Kop.	2001 Kop.	2011 Kop.	1991 (%)	2001 (%)	2011 (%)	1991-2016 bilakaera Aldea Erlatiboa (%)	
<b>HZ-007: Euskararen etxeko erabilera udalerrian</b>								
Norbera bizi den udalerrian euskaraz (batez bestekoa, %)				15,8	15,7	15,1	-0,7	-4,4
<b>HZ-208: Udalerriko euskararen etxeko erabilerearen arabeko multzokatze xehea</b>								
Etxeko euskararen erabilera %90-100	25.681	16.594	738	10	0,6	0,0	-1,0	-97,3
%80-89,9	46.112	43.070	7.905	18	1,7	0,3	-1,5	-83,9
%70-79,9	48.190	49.610	45.442	19	1,9	1,7	-0,2	-11,6
%60-69,9	65.618	75.397	60.909	2,5	2,9	2,2	-0,3	-13,0
%50-59,9	97.478	84.734	89.050	3,8	3,3	3,2	-0,5	-14,4
%40-49,9	104.570	80.383	115.411	4,1	3,1	4,2	0,1	3,4
%30-39,9	137.116	163.822	167.086	5,3	6,3	6,1	0,8	14,2
%20-29,9	84.260	92.244	140.133	3,3	3,6	5,1	1,8	55,8
%10-19,9	344.477	350.135	392.074	13,4	13,5	14,3	0,9	6,6
%10 baino gutxiago	1621.108	1628.627	1.729.043	63,0	63,0	62,9	0,0	-0,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.791</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>		
<b>HZ-209: Euskararen etxeko erabilerearen arabeko nagusitasun-eremuak</b>								
Arnasgune beteak. Euskararen nagusitasuna handia den udalerririk (etxeko erabilerearen euskararen pisua %80tik gorakoa)	71.793	59.664	8.642	2,8	2,3	0,3	-2,5	-88,7
Arnasgune erasanak. Euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerririk (etxeko erabilerearen euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	113.808	125.007	106.350	4,4	4,8	3,9	-0,6	-12,4
Nagusitasun argirik gabeko udalerririk (etxeko erabilerearen euskararen pisua %40-%60koa)	202.048	165.117	204.461	7,8	6,4	7,4	-0,4	-5,2
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerririk (etxeko erabilerearen euskararen pisua %20-%40 artekoa)	221.376	256.066	307.219	8,6	9,9	11,2	2,6	30,0
Erdararen nagusitasuna handia den udalerririk (etxeko erabilerearen euskararen pisua %20tik beherakoa)	1.965.585	1.978.762	2.121.116	76,3	76,6	77,2	0,8	1,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.574.610</b>	<b>2.584.616</b>	<b>2.747.788</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>		

Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, HZ-007, HZ-208 eta HZ-209 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. eta 9.8.2.3. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

#### 18.2.2.2. Nagusitasun-eremuen bilakaera, kaleko erabilerearen oinarrituta, 1991-2016

Orain arte etxeko erabilerearen datuekin jardun dugu. Goazen gai bera kale-erabilereari buruzkoekin lantzerantz, T.167. taulako informazioa irakurrita. Hego Euskal Herriko udalerririk guztietako kale-erabilere aintzat hartuta (zuzenean neurtu diren udalerrietan neurketen balioak jasota eta neurtu gabekoei erregresioaren bidez balio bat

esleitura)<sup>282</sup>, bilakaera-joera hauek antzematen dira kale-erabileraren arabera multzo xeheetan eta nagusitasun-eremuetan:

- Hitzun guztien %4,5 inguru bizi ziren arnaguneetan 1991, urtean (euskararen kale erabilera %60koa edo handiagoa zen udalerrietan), eta kopuru horrek gutxi-asko aldaketa handirik gabe jarraitzen du 2016an, %4,7an zehazki. Arnagune beteetan kasuan ere ez da alderik 1991-2016 bitartean, epealdiaren hasieran eta amaieran: Hegoaldeko hitzunen %1,6 bizi ziren euskararen kale-erabilera %80koa edo handiagoa zuten udalerrietan. Kale-erabileraren datuen arabera, hortaz, arnaguneen pisuak egonkor dirau, ez da galerarik gertatu (alderantziz, +0,2 puntu igo da arnagune erasanen pisua). Hala ere, arnaguneen datuak multzo xeheetan arabera irakurrita, antzematen da aldaketa-joerarik: multzo euskaldunenak (euskararen kale-erabilera %90etik gorakoa zuenak) bere pisua erdira jaitsi du, %0,8tik %0,4ra. Galera hori, ordea, hurrengo multzoak irabazi du. Horixe bera gertatzen da arnagune erasanen multzoan ere: %70-%80 multzoak galdutakoa %60-%70 multzoak irabazi duela, alegia. Horrela, bada, euskara nagusi den eremuaren neurriak aldaketarik izan ez badu ere, barne-osaeran ahuldu egin dira arnaguneetako multzo euskaldunenak.
- Nagusitasun argirik gabeko eremuen pisua, berriz, igo egin da, 1991ko %3,2tik 2016ko %5,9ra. Hauxe da gehien handitu den nagusitasun-eremua.
- Erdara nagusi duten eremuek, azkenik, pisua galdu dute. Guztiak zenbatuta, euren pisua %92,3tik %89,4ra jaitsi da azken 25 urteotan. Galera orokor horretaz gain, aipatu beharra dago aldaketak izan direla erdara nagusi duten udalerri multzo xeheetan: euskararen kaleko erabilera %10aren azpikoa zuten udalerrien multzo erdaldunenaren pisua dezente jaitsi da, 1991ko %75,7tik 2016ko %66,6ra; horrekin batera, igo egin da erabilera %10-%20 bitartekoa zuten udalerrien pisua.

Horrela, HEKNko datuetan oinarrituta egingo dugun irakurketak dio, multzo euskaldunenak higatuta ageri direla baina eutsi egiten diotela euren neurriari, eta gainerakoetan artean multzo erdaldunenak pisua galdu dutela eta tarteko multzoak irabazi.

### 18.2.2.3. Nagusitasun-eremuen (eta arnaguneen) bilakaera Hegoaldean: sintesi-ikuspegi baterantz

Nagusitasun-eremuek bertan bizi diren hitzunen arabera duten pisuak zer-nolako bilakaera izan duen aztertu dugu bi iturritan oinarrituta, eta bat datoz funtsezko alderdi batean: urte guztietako egitura orokor bera erakusten dute biek. Epealdi osoan, multzoa zenbat eta erdaldunagoa, orduan eta pisu handiagoa du, zenbat eta euskaldunagoa, orduan eta txikiagoa. Bi iturriek, halaber, oinarritzko egonkortasun bat erakusten dute; hots, biek islatzen dute azken 25 urteotan ez dela erabateko lurrikaririk gertatu nagusitasun-eremuetan. Hortik aurrera, ordea, ezberdintasun aipagarriak daude iturri batek eta besteak erakusten duten bilakaeretan:

---

<sup>282</sup> Ikus metodologia-ataleko 10. kapitulua.




T.167. TAULA: HIZTUNAK, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZOKATZE XEHEAREN ETA NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, 1991-2016

	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 bilakaera	
	(kop)	(kop)	(kop)	(kop)	(kop)	(kop)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	Aldea	Erlatiboa (%)
<b>HEKN-001: Euskararen kale-erabilera haztatua (%)</b>														
Norbera bizi den udalerrian euskaraz (batez bestekoa, %)							11,5	12,8	13,5	13,3	13,0	13,0	1,5	13,4
<b>HEKN-002: Udalerriko euskararen kaleko erabileraren arabera multzokatze xehea</b>														
Euskaraz %90-100	21.747	14.374	4.585	11.596	33.467	10.285	0,8	0,6	0,2	0,4	1,2	0,4	-0,5	-55,7
Euskaraz %80-89,9	18.972	19.135	26.668	24.816	42.388	34.416	0,7	0,7	1,0	0,9	1,5	1,3	0,5	70,0
Euskaraz %70-79,9	59.054	56.123	53.659	35.539	14.133	42.491	2,3	2,2	2,1	1,3	0,5	1,5	-0,7	-32,6
Euskaraz %60-69,9	16.364	39.305	21.944	53.607	31.178	41.377	0,6	1,5	0,9	2,0	1,1	1,5	0,9	136,9
Euskaraz %50-59,9	37.932	70.928	61.327	53.822	53.801	65.732	1,5	2,8	2,4	2,0	2,0	2,4	0,9	62,4
Euskaraz %40-49,9	44.132	53.705	96.963	81.855	112.813	96.401	1,7	2,1	3,8	3,1	4,1	3,5	1,8	104,7
Euskaraz %30-39,9	111.791	109.937	191.477	131.015	123.281	94.181	4,3	4,3	7,4	4,9	4,5	3,4	-0,9	-21,1
Euskaraz %20-29,9	146.145	123.222	79.535	122.909	108.884	148.010	5,7	4,8	3,1	4,6	4,0	5,4	-0,3	-5,1
Euskaraz %10-19,9	168.279	341.206	356.923	388.302	391.444	383.909	6,5	13,3	13,8	14,6	14,3	14,0	7,4	113,8
Euskaraz %10 baino gutxiago	1.947.541	1.746.488	1.684.936	1.752.372	1.830.006	1.827.902	75,7	67,8	65,4	66,0	66,8	66,6	-9,1	-12,1
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.571.957</b>	<b>2.574.423</b>	<b>2.578.017</b>	<b>2.655.833</b>	<b>2.741.395</b>	<b>2.744.704</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>		
<b>HEKN-003: Euskararen kaleko erabileraren arabera nagusitasun-eremuak</b>														
Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	40.719	33.509	31.253	36.411	75.855	44.701	1,6	1,3	1,2	1,4	2,8	1,6	0,0	2,9
Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	75.418	95.428	75.603	89.146	45.311	83.868	2,9	3,7	2,9	3,4	1,7	3,1	0,1	4,2
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	82.064	124.633	158.290	135.677	166.614	162.133	3,2	4,8	6,1	5,1	6,1	5,9	2,7	85,1
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	257.936	233.159	271.012	253.924	232.165	242.191	10,0	9,1	10,5	9,6	8,5	8,8	-1,2	-12,0
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (kaleko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	2.115.820	2.087.694	2.041.859	2.140.674	2.221.450	2.211.811	82,3	81,1	79,2	80,6	81,0	80,6	-1,7	-2,0
<b>GUZTIAK</b>	<b>2.571.957</b>	<b>2.574.423</b>	<b>2.578.017</b>	<b>2.655.833</b>	<b>2.741.395</b>	<b>2.744.704</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>0,0</b>	<b>0,0</b>

Iturria: egileak landua, 1989-2018ko HEKNetatik abiatuta. Zehazki, HEKN-001, HEKN-002 eta HEKN-003 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10. kapituluari).  
[Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

- Kale-neurketetako datuen arabera, txikitu egin da erdararen nagusitasunezko bi multzoen pisua, 1991ko %92,3tik 2016ko %89,4ra (-2,9 puntuko galera); HZren arabera, multzo xehe erdaldunena ahuldu egin bada ere, erdararen nagusitasun-eremuak orokorrean handitu egin dira, 1991ko %84,9tik 2011ko %88,4ra (+3,5 puntuko hazkundera).
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrien pisua handitu egin da HEKNren arabera, (%3,2tik, %5,9ra; +2,7 puntu), eta pisu hori apur bat ahuldu egin da HZren arabera (%7,8tik %7,4ra; -0,4 puntu).
- Arnasguneek, azkenik, barne-osaeraren ikuspegitik ahuldu arren, eutsi egiten diote bere pisuari HEKNren arabera (%4,5etik %4,7ra pasatu dira; +0,2). HZren arabera, ordea, txikitu egiten da nabarmen eremu horien pisua, 7,2tik, 4,2ra (-3,0ko galera). Erlatiboki galera handia da eta arnagune beteei eragiten die gehienbat: ia desagertzeraino urritu dira eremu horiek HZren arabera.

**G.105. GRAFIKOA: HIZTUNEN BANAKETA, NAGUSITASUN-EREMUETAN, KALEKO ETA ETXEKO ERABILERAN OINARRITUTA. HEGOALDEA, 1991-2016**



**Iturria:** egileak landua, 1989-2018ko HEKNetatik eta 1991-2011ko HZetatik abiatuta. Zehazki, HEKN-003 eta HZ-209 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10. kapituluaren eta 9.8.2.3. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitzategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Laburtuz, HEKNren arabera, erdal nagusitasunezko guneek galtzen dutena nagusitasunik gabekoek irabazten dute; arnaguneak, berriz, barne-osaeran ahulduta ageri dira baina multzo gisa duten neurriari aldaketa handirik gabe eusten diote. HZren arabera, aldiz, arnaguneek pisua galtzen dute, arnagune beteak bereziki, eta erlatiboki hazten direnak erdal nagusitasunezko eremuak dira. Ikusten dugunez, hortaz, bilakaera ezberdinak erakusten dizkigute bi iturriek nagusitasun-eremuen bilakaerari buruz, kontrajarriak ere bai hainbat alderditan.

Posible al da iturri bakoitzak ematen digun ikuspegi ezberdin horiek bateragarriak izatea? Hots, *benetan*, nagusitasun-eremuak etxeko erabileraren arabera aztertuta euskara gehiago erabiltzen den eremuek atzera egin izana eta kalekoaren arabera aurrera? Eta fenomeno bera baina alderantziz erdara nagusi den eremuetan?

Ikuspegi teoriko batetik, badaude elementuak gune euskaldunenetan kaleko erabilerak etxeko erabilerak baino bilakaera hobea eduki izana azaltzen lagun dezaketenak. Adibidez, oso litekeena da azken hamarkadetan arnaguneetara bizitzera kanpotik etorri diren hiztun erdaldunak edo euskaraz jakinda ere erdararako joera handiagoa dutenak ez hainbeste ibiltzea herriko kaleetan, bertako *betiko* hiztun euskaldun osoen

aldean. Hori horrela balitz, kale-neurketetan ez litzateke antzemango arnaseguneetan bizi diren hiztun horien eragina etxeko erabileran neurtzen duten zentsuetan bezainbeste. Era berean, litekeena da arnaseguneetako hiztunen azpimultzo batek euskararako joera handiagoa izatea kalean etxean baino (etxeko denak euskaldunak ez direlako, edo etxeko hizkuntza-ohitura eta arauak erdarara bultzatzen dutelako, eta kalekoek, berriz, euskarara). Tankera horretako fenomenoek azal ditzakete, hein batean bederen, bi bilakaera-prozesu itxuraz kontrajarri horiek eta bateragarri egin, arnaseguneen bilakaera kontrajarriaren kasurako behintzat. Zailagoa egiten zaigu azaltzea nola litekeen erdara nagusi den eremuetan gune horien pisua handitu izana etxeko erabileraren arabera eta, aldiz, kaleko erabileraren arabera txikitu izana. Akaso, fenomeno horrek zerikusia izan lezake azken 25 urteotan norbere bizitokia ez den herri eta hirietara erosketetara zein aisialdira joateko joera handitu izanarekin. Joera horren ondorioz, gune erdaldunenetan gune euskaldunagoetako hiztunak ere neurtuko ziren gero eta gehiago, eta horrek eragin zezakeen gune horiek "euskaldunago" azaltzea kaleko erabileraren datuetan... Edonola ere, lan honen mugak gainditzen dituen azterketa sakonagoa eskatzen du ustezko bilakaera kontrajarri horri azalpena bilatzeak. Azterketa horri heltzerakoan, alderdi teorikoei ez ezik, alderdi metodologikoei ere arreta berezia jartzea komeniko da, HZ eta HEKNren laginketa-, haztatze- eta esleitze-irizpideetan sakonduz eta alderdi metodologiko-teknikoek bilakaera-joera itxuraz kontrajarri horietan izan dezaketzen zerikusia argituz.

Bien bitartean, HEKNren eta HZren bilakaera-datuen artean zeinek du egiantzik handiena? Gure iritziz, eta azterketa metodologiko hori egin arte, egiantz handiagoa dute gai honetan HEKNtik abiatuta landutako datuek HZtik sortutakoek baino, honako bi arrazoi hauengatik: batetik, ISLn berariaz egin dugun ustiaketa baten emaitzek bilakaera hobea ematen diete erabileran nagusitasun argirik gabeko udalerriei eta erdararen nagusitasuna erabatekoa ez dutenei, erdararen nagusitasun handikoei baino; horretan, beraz, bat datoz ISL eta HEKN, eta HZ da salbuespena. Bestetik, aurreratu dezagun, 20. kapituluan, hizkuntza-bilakaera, hizkuntzen bizi-indarra, hizkuntzen euste-indarra eta erakarpen-indarra nagusitasun eremuka nola aldatzen diren aztertuko dugunean zentsuetako datuen bidez, honako ondorio honetara iritsiko garela: jatorriz euskaldunak ziren hiztunek euskarari eustea eta jatorriz euskaldunak ez zirenak euskarara erakartzea fenomeno gertagarriagoak dira lurralde euskaldunagoetan lurralde erdaldunagoetan baino. Hori horrela izanik, fenomeno horrekin bateragarriagoak dirudite, printzipioz, erabileraren bilakaerari buruz ISLk eta HEKNk erakusten dituzten joerek, HZk berak erakutsitakoak baino. Behin-behinean eta zuhurtziaz, hortaz, eta beharrezkoa den argipen teoriko-metodologikoa egin zain, ISL-HEKNren ikuspegi hori emango dugu ontzat.

Gogora dezagun, behin-behinekoz ontzat emango ditugun HEKNko datuek zer dioten gaiari buruz azken 25 urteotako bilakaeraz: batetik, arnaseguneak ahuldu egin dira, baina euren neurria ez da askorik aldatu; bestetik, erdal nagusitasunezko eremuek, nabarmen populatuenak izaten jarraitzen badute ere, apur bat jaitsi egin dute euren pisua; pisu hori nagusitasunik gabeko udalerriek irabazi dute.

## 18.3. EUSKARA-ERDAREN NAGUSITASUNA LURRALDEAN; EGUNGO EGOERA


✓ *Zer-nolakoa da euskara-erdaren nagusitasuna lurraldeka aztertuta, hots, herrialdeetan, eskualdeetan eta udalerrietan?*

### 18.3.1. Herrialdez herrialde

Orain arte, Hego Euskal Herriko ikuspegi orokorra landu dugu. Hemendik aurrera, lurraldekako ikuspegia eskaintzen saiatuko gara. Herrialde mailakoarekin hasita, metodologia-ataleko T.64.-T.67. eta T.104.-T.106. bitarteko tauletan eta puntu honetan aurkezten ditugun G.106. eta G.111. bitarteko grafikoetan, informazio ugari eskaintzen da gaiari buruz. Ez dugu orain taula eta grafiko horien guztien irakurketa xehea egingo. Aipa ditzagun, ordea, labur-labur garrantzitsuak iruditzen zaizkigun hainbat alderdi.


ZG.106. eta G.107. grafikoetan, Hegoaldeko herrialde bakoitzerako eta EAErako, hiztunak multzo xeheetan nola banatzen diren erakusten da bizi diren udalerrietako erabileraren arabera; azterketa hori kaleko erabileran oinarrituta egiten da G.106. grafikoan, eta etxeko erabileran oinarrituta G.107. grafikoan. Bi grafiko horiek aztertu eta azpimarratzeko modukoa iruditzen zaigun lehen datua honako hau da: Araban, Nafarroa Garaian eta Bizkaian, hiztun gehien-gehienak erdararen nagusitasun handiko multzorik muturrenekoan bizi dira (bizi diren herrian euskararen erabilera ez da iristen %10era). HEKNko datuei erreparatuz, muturreko ingurune horietan bizi dira arabarren %95,6, nafarren %90,1 eta bizkaitarren %81,6. Gipuzkoa da "arau" horri iskin egiten dion herrialde bakarra: muturreko ingurune horretan bizi diren hiztunak %8,4 besterik ez dira eta multzo nagusia hurrengo da, euskararen erabilera %10-%20 bitartean duten udalerriena. Ezaugarri horretako herri-hirietan bizi dira gipuzkoarren %41,2.

**G.106. GRAFIKOA: HIZTUNEN BANAKETA, KALEKO ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEETAN. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2011 (%)**



Iturria: egileak landua, 2014-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HEKN-002 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10. kapituluan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**G.107. GRAFIKOA: HIZTUNEN BANAKETA, ETXeko ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEETAN. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2011 (%)**




Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-208 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitzategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Multzo xeheak kontuan hartuz egin ordez, datuak nagusitasun-eremuka aztertuta, Hegoaldeko lau herrialdeetan erdarak nagusitasun handia duen nagusitasun-eremuetan bizi da jende gehiena, euskararen erabilera %20ra iristen ez denetan, G.108. grafikoan ikus daitekeen bezala: ezaugarri horretako udalerrietan bizi dira gipuzkoarren erdiak (%49,6), bizkaitarren %87,3, nafarren %93,9 eta arabarren %99,1. Gainerako nagusitasun-eremuek pisu askoz txikiagoa dute herrialde guztietan. Horretan ere, alde handiak daude herrialdetik herrialdera. Arnasgune bete zein erasanetan, bi nagusitasun-eremu horiek batuta, bizi dira gipuzkoarren %11,6, bizkaitarren %3,1, nafarren %1,9 eta arabarren %0,5. Hurrengo nagusitasun-eremuan, euskara eta erdara kalean parekatu samar dabilzan udalerrietan bizi dira gipuzkoarren

%15,5, nafarren %3,2 eta bizkaitarren %3,1 (ez dago ezaugarri horietako udalerrri arabarrik gaur egun). Horrela, bada, erdararen nagusitasunik gabeko udalerrietan bizi diren hiztunak, arnasmunean edo nagusitasun argirik gabeko udalerrian, zati ohargarri bat dira Gipuzkoan (hiztunen %27,2 bizi dira ezaugarri horietako udalerrietan), eta nabarmen gutxiago Bizkaian (%6,2), Nafarroa Garaian (%5,1) eta Araban (%0,5). Datu horiek guztiak kaleko erabileraren oinarritutako nagusitasun-eremuei dagozkie. Kalkuluak HZko etxeko erabileraren arabera nagusitasun-eremuekin eginda, kopuruak zer edo zer aldatzen badira ere, argazki orokorra bat dator lerro hauetan azaldu dugunarekin, G.108. grafikoaren eskuinaldean ikus daitekeen bezala.

**G.108. GRAFIKOA: HIZTUNAK HERRIALDEZ HERRIALDE, BIZI DIRENEKO NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2016\* (%)**



**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik eta 2014-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HZ-209 eta HEKN-003 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan eta 10. kapituluan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018*.]

**Oharra (\*):** etxeko erabileraren arabera datuak 2011koak dira


Herrialdeetako hiztun guztiak nagusitasun-eremuetan nola banatzen diren aztertu dugu. Horren ordez, herrialde horietako euskaldunak eta etxean euskaraz egiten duten euskaldunak nola banatzen diren aztertzekeo sortu ditugu G.109. eta G.110. grafikoak, T.66. eta T.67. tauletako informazioan oinarrituta. Luze joko luke taula eta grafiko horietako informazioa xehe irakurtzeak. Gaingiroki esan dezakegu, hiztunen banaketa orokorrarekin alderatuta, handitu egiten dela nagusitasun-eremu euskaldunagoen pisua. Etxean euskaraz mintzo diren hiztunei dagokienez, deigarria egin zaigu Nafarroako kasua: etxean euskaraz egiten duten bost hiztunetatik hiru (%60,0) erdara nagusi ez den udalerrietan bizi dira, arnasmuneetan edo nagusitasun argirik gabeko



udalerrietan. Gipuzkoan ere euskaldun etxean aktibo gehienak arnaguneetan edo nagusitasun argirik gabeko udalerrietan bizi dira (%54,6), eta Bizkaian ere gehiengoa izan gabe, multzo handia osatzen dute erdara nagusi ez den udalerrietan bizi diren euskaldun aktiboek (%43,6). Arabaren kasua bestelakoa da: euskaldun aktibo ia denak erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi dira (%91,5).


Orain arte, herrialde bakoitza nola osatzen den aztertu dugu. G.111. grafikoa sortzeko, berriz, datuak beste noranzkoan antolatu ditugu. Bertako datuak irakurrita, nagusitasun-eremu bakoitzeko hiztunak herrialdeetan nola banatzen diren aztertu dezakegu. Horrela, erdararen nagusitasun handiko eremuetan ez beste guztietan, Gipuzkoaren pisua nabarmentzen da. Arnagune beteetan (euskararen erabilera >%80), arnagune erasnetan (erabilera %60-%80), nagusitasun argirik gabeko udalerrietan (erabilera %40-%60) eta erdararen nagusitasun ez erabateko udalerrietan (%20-%40), nagusitasun-eremu horietan guztietan gipuzkoarrak dira nagusi, erdiak baino gehiago kasu guztietan. Arau horri salbuespena zentsuko datuek jartzen diote arnagune beteetan: iturri horren arabera, nafarrak lirateke arnagune beteetako hiztunen arteko multzo nagusia. Gainerakoan erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den eremu horietan, bizkaitarrek osatzen dute bigarren multzo nagusia eta hirugarrena nafarrek.

**G.109. GRAFIKOA: EUSKALDUNEN BANAKETA, ETXEKO ERABILERAREN - ARABERAKO MULTZO XEHEETAN. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2011 (%)**




**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-001 eta HZ-208 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**G.110. GRAFIKOA: ETXEAN EUSKARAZ HITZ EGITEN DUTEN EUSKALDUNEN BANAKETA, ETXeko ERABILERAREN ARABERAKO MULTZO XEHEETAN. HEGOALDEA, EAE ETA HERRIALDEAK, 2011 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-006 eta HZ-208 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitzategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**G.111. GRAFIKOA: HIZTUNAK NAGUSITASUN-EREMUTAN, BIZI DIREN HERRIALDEAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2016 (%)**




Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik eta 2014-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HZ-209 eta HEKN-003 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan eta 10. kapituluan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharra (\*): etxeko erabileraren araberrako datuak 2011koak dira

### 18.3.2. Eskualdeen ikuspegia: demolinguistika-datuak eta nagusitasun-eremuak

Orain arte, euskara-erdarek espazioan duten pisuaren araberrako nagusitasun-eremuak udalerrri-mailako erabilera aintzat hartuta eraiki ditugu. Ikerketa-unitate gisa udalerrria erabiltzea da lan honetan darabilgun irizpide nagusia. Puntu honetan, ordea, salbuespen gisa, ikerketa-unitate gisa eskualdea erabiliko dugu. T.168. taulan aurkeztu dugu eskualdez eskualde zer-nolako balioak hartzen dituzten hainbat adierazle demolinguistikok. Taula horretan euskaldunen dentsitateari eta hiztunen lehen hizkuntzari buruzko datuak ere biltzen diren arren, erabilerari buruz zentsu eta HEKNtik ekarritako datuak irakurriz landuko dugu gure azterketa. Izan ere, atal teorikoan eta atal metodologikoan ikusi dugu lurralde bateko erabilera-maila izan daitekeela lurralde horretan hizkuntzek izan dezaketen nagusitasun-mailaren adierazle egokiena. Taula horretan erakusten diren erabilera-datuarekin, G.112. grafikoa sortu dugu, eskualdeak etxeko euskararen batez besteko erabileraren araberrako hurrenkeran jarri.

G.112. GRAFIKOA: ETXEKO ETA KALEKO ERABILERA HEGOALDEKO ESKUALDEETAN, 2011 eta 2016 (%)



**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik eta 2014-2018ko HEKNtik abiatuta. HZ-007 eta HEKN-001 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan eta 10. kapituluan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabilaren neurketen datu-basea, 1989-2018*.]

**Oharrak:** HEKNko informazioari dagokionez, eskualde batzuetako datuak erakusten ditugu eta besteetakoak ez. Zehazki, erakusten ditugu gutxienez 1.600eko lagin-neurria izan zuten eskualdeen datuak; hots, behatutako elkarrizketetan kopuru hori gainditzen zuten eskualdeen datuak soilik aurkezten ditugu. Horrek gehienez  $\pm 2,4\%$ koa izango den akatsaren azpitik aritzeko aukera ematen digu eskualde horientzat guztientzat, akats-tarte horren nabarmen azpitik ia eskualde guztietan (akats-tartearen kalkulua honako baldintza hauetarako egin dugu eskualde guztietan: unibertso infiniturako, %95eko konfiantza mailan,  $p=q=0,5$  izanik eta laginketa guztiz ausazkorako kalkulua eginda).

Nagusitasun-eremuak udalerrri-mailan beharrean eskualde-mailan eraikiko bagenu, hauxe litzateke Hegoaldeko eskualdeen banaketa nagusitasun-eremuetan (ikus T.168. taula eta M.4. mapa)<sup>283</sup>:

- Ez dago gaur egun arnagune betearen izaera duen eskualderik Hego Euskal Herrian.
- Arnagune erasana genuke Euskal Herriko eskualde euskaldunena den Lea-Artibai, eta arnaguneak definitzeko erabili izan dugun %60aren mugan egonda ere, multzo horretan koka genezake Urola Kosta ere (%62,4 euskaraz kalean, %59,8 etxean).
- Nagusitasun argirik gabeko eskualde gisa izendatuko genituzke Tolosaldea, arnagunea izateko irizpideetatik ez oso urruti, eta Gernika-Bermeo<sup>284</sup>. Multzo honetan baita ere, baina erdararen nagusitasun ez erabateko langatik gertu ditugu (erabileraren %40aren mugan) Nafarroako Ipar-mendebaldea, Debagoiena eta Goierriko eskualdeak.
- Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den eskualdeak dira Debabarrena, Arratia Nerbioi eta Durangaldea. Multzo horretan kokatu ditugu Plentzia-Mungia eta Donostialdea eskualdeak ere, kaleko erabileran %20ko langaren azpitik gelditu arren, etxeko erabileran muga hori gainditzen dutelako.
- Erdararen nagusitasun handiko eskualde izendatu ditugu gainerako denak, nahiz eta multzo horretan errealitate ezberdinak topatu. Bidasoa Beherea eta, batez ere, Gorbeia Inguruak eskualdeak multzo horretan daude, baina erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den multzoaren langatik gertu. Gainerako eskualde guztietan euskararen erabilera oso apala da, ez da %7ra iristen. Multzo horretan daude Araba eta Nafarroako erdialde eta hegoaldeko eskualde guztiak, eta baita Bizkaiko mendebaldekoak ere (tartean dira Gasteiz, Iruñea eta Bilbo beregan biltzen dituzten eskualdeak). Etxeko erabileraren araberrako goitik beherako hurrenkeran honako eskualde hauek ditugu multzo horretan: Pirinioaldea, Kantauri Arabarra, Bilbo Handia, Arabako Mendialdea, Arabako Lautada, Iruñerria, Enkartzioak, Arabako Errioxa, Estellerria, Arabako Ibarak, Nafarroa Erdialdeko Ekialdea, Erribera garaia eta Tuteralea. Multzo horretan kokatu beharko genuke administratiboki Burgosekoa den Trebiñu eskualde arabarra ere<sup>285</sup>.

Esan beharra dago taula, grafiko eta mapa hauetan erakusten diren eskualdeak “eskualde estatistiko” deitu izan direnak direla, EUSTAT eta NASTATen ohiko eskualdekatzeak oinarri hartzen dituzten lurralde-eremuak (Aztiker, 2002; Elizagarate

---

<sup>283</sup> Saikapen hori egiteko, etxeko erabilera eta kalekoa hartu ditugu aintzat. Eskualde gehienetan, bi irizpideak bat datoz eskualdea nagusitasun-eremu batean edo bestean kokatzeko orduan. Bi irizpideak bat ez datozen kasuetan, euskararen erabilera handiena ematen zuen balioa hartu dugu aintzat eskualdea nagusitasun-eremu batean edo bestean non kokatu erabakitzeke.

<sup>284</sup> Zentsuko datuen arabera, eta darabilgun irizpideari jaramon eginda, arnagune izaera galdu zuen Gernika-Bermeo eskualdeak 2001 eta 2011 bitartean.

<sup>285</sup> Hegoaldeko gainerako eskualdeetarako erabili dugun datu demolinguistikorik ez dugu Trebiñurako. Hala ere, eskualde horretan egindako ikerketa soziolinguistikoetan bildutako erabilera-datuek ez dute zalantzarik uzten Trebiñu ere nagusitasun-eremu horretan sartzekoa dela (Eusko Jaurilaritza, 2012).

eta Iurrebaso, 2006). Eskualdeak beste irizpide batzuekin eraikiz gero, eskualde txikiagoak eraikiz adibidez, hemen eman dugun irudia aldatu egingo litzateke zer edo zer, aurreraxeago Nafarroa Garaiko kasurako *Euskalgeo* eskualdekatzearekin ikusiko dugun bezala.

**T.168. TAULA: EUSKALDUNEN DENTSITATEA ETA EUSKARAREN PISUA LEHEN HIZKUNTZAN, ETXEKO ERABILERAN ETA KALEKOAN; ESKUALDEEN SAILKATZEA NAGUSITASUN-EREMUETAN. HEGOALDEA, EAE, HERRIALDEAK, ETA ESKUALDEAK 2011 eta 2016**

	Hiztunak, 2011 (kopurua)	HZ-003: Euskaldunen dentsitatea, 2011 (%)	HZ-005: Hiztunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua, 2011 (%)	HZ-007: Etxeko erabileran euskarak duen pisua, 2011 (%)	HEKN-001: Kaleko erabileran euskarak duen pisua - haztatua- 2016 (%)	Nagusitasun-eremuak (azterketa-unitatea eskualdea izanik)
<b>HEGOALDEA</b>	<b>2.747.788</b>	<b>31,8</b>	<b>18,4</b>	<b>15,1</b>	<b>13,0</b>	
EAE	2.137.263	36,9	21,4	17,5	14,9	
Araba	314.424	23,5	5,9	5,1	4,4	
Bizkaia	1.132.040	30,9	15,1	12,2	8,5	
Gipuzkoa	690.799	52,8	38,9	31,8	29,7	
Nafarroa G.	610.525	14,1	7,8	6,9	6,6	
Lea-Artibai (B)	25.945	80,0	74,4	69,3	76,5	Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den eskualdeak (erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)
Urola Kosta (G)	71.669	75,3	66,9	59,8	62,4	
Tolosaldea (G)	46.379	70,4	60,7	53,4	55,9	Nagusitasun argirik gabeko eskualdeak (erabileran euskararen pisua %40-%60koa)
Gernika-Bermeo (B)	45.308	71,1	61,5	51,9	44,5	
Ipar-Mendebaldea (NG)	54.320	60,7	50,5	42,8	42,9	
Debagoiena (G)	60.803	62,8	50,8	42,5	39,4	
Goierri (G)	66.112	59,6	46,0	39,8	41,7	
Debabarrena (G)	53.753	58,2	45,9	36,7	29,6	Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den eskualdeak (erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)
Arrati Nerbioi (B)	23.068	54,0	40,0	33,8	19,9	
Durangaldea (B)	95.853	48,6	33,9	25,9	16,4	
Plentzia-Mungia (B)	53.373	48,6	31,2	24,4	16,4	
Donostialdea (G)	317.399	43,8	27,9	20,9	18,3	
Gorbeia Inguruak (A)	8.634	41,9	22,7	19,2		Erdararen nagusitasuna handia den eskualdeak (erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)
Bidasoa Beherea (G)	74.684	40,7	24,1	18,3	11,7	
Pirinioaldea (NG)	14.656	18,7	8,0	6,5		
Kantauri Arabarra (A)	33.916	28,5	6,7	5,8	4,7	
Bilbo Handia (B)	857.082	23,9	7,4	5,7	2,5	
Arabako Mendialdea (A)	3.172	20,5	4,8	5,1		
Arabako Lautada (A)	251.367	22,7	5,3	4,6	3,9	
Iruñerria (NG)	332.774	12,4	4,8	4,4	3,1	
Enkartzioak (B)	31.411	22,9	3,9	4,3		
Arabako Errioxa (A)	11.454	18,0	4,7	3,6		
Estellerrria (NG)	36.313	11,3	3,8	3,5	5,3	
Arabako Ibarrek (A)	5.881	14,4	3,9	3,1		
Naf. Erdialdeko Ekialdea (NG)	31.338	7,8	2,0	2,5		
Erribera garaia (NG)	56.395	2,0	0,9	0,9	2,6	
Tuteraldea (NG)	84.730	1,5	0,7	0,6	2,0	




OHAR HAUEK AURREKO ORRIALDEKO TAULARI DAGOZKIO:

Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik eta 2014-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HZ-003, HZ-005, HZ-007 eta HEKN-001 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.3., 9.4. eta 9.5. puntuetan eta 10. kapituluan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharrak: HEKNko informazioari dagokionez, eskualde batzuetako datuak erakusten ditugu eta besteetakoak ez. Zehazki, erakusten ditugu gutxienez 1.600eko lagin-neurria izan zuten eskualdeen datuak; hots, behatutako elkarrizketetan kopuru hori gainditzen zuten eskualdeen datuak soilik aurkezten ditugu. Horrek gehienez  $\pm 2,4\%$ koa izango den akatsaren azpitik aritzeko aukera ematen digu eskualde horientzat guztientzat, akats-tarte horren nabarmen azpitik ia eskualde guztietan (akats-tartearen kalkulua honako baldintza hauetarako egin dugu eskualde guztietan: unibertso infiniturako, %95eko konfiantza mailan,  $p=q=0,5$  izanik eta laginketa guztiz ausazkorako kalkulua eginda).

M.4. MAPA: ESKUALDE MAILAKO NAGUSITASUN-EREMUAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2011-2016



Iturria: egileak landua, T.168. taulako informazioa erabilita. Maparen irudia datu tailerrak sortu du ([www.datutailerra.net](http://www.datutailerra.net)). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

**T.169. TAULA: EUSKALDUNEN DENTSITATEA ETA EUSKARAREN PISUA LEHEN HIZKUNTZAN ETA ETXEKO ERABILERAN; UDALERRIEN SAILKATZEA NAGUSITASUN-EREMUETAN. 5.000 BIZTANLE EDO GEHIAGOKO UDALERRIAK, HEGOALDEA, 2011**

Udalerrria	Hiztunak, 2011 (kopurua)	HZ-003: Euskaldunen dentsitatea, 2011 (%)	HZ-005: Hitzunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua, 2011 (%)	HZ-007: Etxeko erabileran euskarak duen pisua, 2011 (%)	Nagusitasun-eremuak
Azpeitia (G)	14.177	82,7	77,5	72,5	Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)
Lekeitio (B)	7.281	79,7	74,1	68,4	
Ondarroa (B)	8.656	78,2	72,3	68,1	
Azkoitia (G)	11.356	73,7	65,6	62,0	
Orio (G)	5.239	76,0	67,5	59,6	Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %40-%60koa)
Oñati (G)	10.775	74,1	66,3	55,8	
Deba (G)	5.275	74,3	65,0	55,7	
Baztan (NG)	7.569	75,8	68,3	55,6	
Oiartzun (G)	9.855	73,0	63,4	53,4	
Bermeo (B)	16.674	71,8	62,7	52,3	
Zumaia (G)	9.245	71,0	59,5	51,5	
Usurbil (G)	5.928	69,0	57,8	49,4	
Zarautz (G)	22.123	69,5	59,1	48,2	
Villabona-Amasa (G)	5.642	65,5	53,7	48,1	
Gernika-Lumo (B)	16.217	66,9	55,8	46,9	
Tolosa (G)	17.970	65,8	55,9	45,6	
Bergara (G)	14.458	65,6	54,6	45,2	
Lazkao (G)	5.198	61,3	46,4	43,0	
Aretxabaleta (G)	6.675	62,7	49,1	42,9	
Ordizia (G)	9.319	56,7	44,0	37,4	Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)
Elgoibar (G)	11.035	57,7	45,0	37,0	
Eloirio (B)	7.166	61,0	47,0	37,0	
Hondarribia (G)	16.082	59,6	46,3	36,8	
Urretxu (G)	6.797	56,3	42,1	34,4	
Legazpi (G)	8.432	56,7	40,1	33,6	
Hernani (G)	19.085	56,9	42,6	33,3	
Lezo (G)	5.931	56,3	41,9	32,7	
Beasain (G)	13.433	55,5	39,4	32,3	
Urnieta (G)	6.014	57,5	39,0	32,2	
Arrasate (G)	21.468	54,2	40,0	32,0	
Abadiño (B)	7.197	53,3	37,6	30,0	
Zornotza (B)	17.725	52,3	39,1	29,3	
Mungia (B)	16.363	52,6	38,8	29,2	
Andoain (G)	14.499	52,0	36,1	28,0	
Eibar (G)	26.738	50,8	37,1	26,9	
Durango (B)	28.289	48,4	32,8	24,3	
Zumarraga (G)	9.758	45,4	29,1	22,1	
Lasarte-Oria (G)	17.876	39,6	24,5	17,9	Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)
<b>Donostia (G)</b>	<b>178.816</b>	<b>40,2</b>	<b>23,8</b>	<b>16,9</b>	
Pasaia (G)	15.846	37,9	22,4	16,1	
Errenteria (G)	38.756	37,5	20,9	15,6	
Sopela (B)	11.887	41,4	18,0	15,4	
Gorliz (B)	5.421	39,6	17,9	14,2	
Galdakao (B)	28.590	38,5	21,4	14,1	
<b>Irun (G)</b>	<b>58.602</b>	<b>35,5</b>	<b>18,0</b>	<b>13,2</b>	
Berango (B)	6.782	35,4	16,3	12,1	
Derio (B)	5.794	33,6	17,2	12,1	

	Hiztunak, 2011 (kopurua)	HZ-003: Euskaldunen dentsitatea, 2011 (%)	HZ-005: Hiztunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua, 2011 (%)	HZ-007: Etxeko erabileran euskarak duen pisua, 2011 (%)	Nagusitasun-eremuak
Udalerrria					
Altsasu (NG)	7.240	27,4	12,1	9,1	
Arrigorriaga (B)	12.092	32,8	10,6	8,7	
Ermua (B)	16.001	29,6	12,9	8,3	
<u>Leioa (B)</u>	29.790	29,2	9,9	7,1	
<b>Getxo (B)</b>	<b>78.526</b>	<b>27,4</b>	<b>9,8</b>	<b>7,1</b>	
Atarrabia (NG)	10.064	19,0	6,8	7,0	
<u>Erandio (B)</u>	23.658	24,2	9,2	6,2	
Laudio (A)	18.249	28,4	7,7	6,1	
Berribeiti (NG)	5.123	15,3	7,5	6,0	
Berriozar (NG)	8.845	13,4	5,2	5,9	
Zizur Nagusia (NG)	13.488	18,0	5,5	5,8	
Etxebarri (B)	9.950	26,5	6,1	5,7	
<b>Bilbo (B)</b>	<b>344.804</b>	<b>22,9</b>	<b>7,0</b>	<b>5,3</b>	
Amurrio (A)	9.955	28,6	5,5	5,2	
<u>Basauri (B)</u>	41.342	23,1	6,8	5,1	
Zalla (B)	8.229	24,6	4,1	4,8	
Uharte (NG)	6.101	18,6	7,1	4,8	
Lizarra (NG)	13.377	14,4	4,9	4,8	
<b>Gasteiz (A)</b>	<b>234.913</b>	<b>22,2</b>	<b>5,2</b>	<b>4,5</b>	
<b>Iruñea (NG)</b>	<b>186.937</b>	<b>11,4</b>	<b>4,9</b>	<b>4,5</b>	-aurreko orritik dator- Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (etxeko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)
Muskiz (B)	7.282	24,0	3,8	4,3	
Antsoain (NG)	10.323	15,6	4,0	4,2	
Gueñes (B)	6.300	24,3	4,1	4,2	
Abanto-Zierbena (B)	9.597	24,5	3,8	4,1	
Balmaseda (B)	7.517	22,3	3,4	3,9	
Trapagaran (B)	11.934	22,1	3,2	3,7	
Eguesibar (NG)	15.696	10,9	3,8	3,7	
<u>Portugalete (B)</u>	46.931	19,9	3,5	3,6	
Ortuella (B)	8.272	22,4	3,1	3,5	
<u>Santurtzi (B)</u>	46.128	19,7	3,3	3,5	
<u>Barañain (NG)</u>	20.523	11,8	3,9	3,4	
Burlata (NG)	17.167	13,6	4,7	3,2	
<u>Sestao (B)</u>	28.028	18,5	3,1	3,1	
Tafalla (NG)	10.744	8,8	2,2	2,9	
Aranguren (NG)	7.616	9,8	3,5	2,8	
<b>Barakaldo (B)</b>	<b>97.475</b>	<b>18,2</b>	<b>2,8</b>	<b>2,8</b>	
Noain Elortzibar (NG)	7.173	7,7	2,5	2,5	
Cintruenigo (NG)	7.479	12	10	14	
Azkoien (NG)	5.741	2,0	14	0,9	
<u>Tutera (NG)</u>	33.688	2,6	1,1	0,7	
Corella (NG)	7.633	11	0,4	0,6	
San Adrián (NG)	6.047	0,3	0,2	0,5	

Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-003, HZ-005, eta HZ-007 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.3, 9.4. eta 9.5. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: udalerrien neurriak tipografikoki bereizi ditugu; letra lodiz 50.000 hitzun baino gehiagoko udalerriak, azpimarratuta 20.000-50.000 bitartekoak, hizki arruntez 10.000-20.000 bitartekoak, hizki txikiz 5.000-10.000 bitartekoak.


### 18.3.3. Udalerriko ikuspegia

Itzul gaitzen azterketa-unitate gisa udalerrak erabiltzera. Eta goazen, hain zuzen, udalerrikako hainbat datu erakustera. 5.000 hiztunetik gorako Hegoaldeko udalerriz guztien datu demolinguistikoen bilduma txiki bat aurkezten dugu T.169. taulan. Bertan, udalerrak etxeko erabileran euskarak duen pisuaren arabera hurrenkeran aurkezten dira, eta udalerriz horiek sailkatzen nagusitasun-eremuen arabera. Ondorengo puntuetan, taula horretako erabilerari buruzko datuak aurkeztuko ditugu lasaiago, Hegoaldeko udalerriz populatuenetatik hasita.

#### 18.3.3.1. Hegoaldeko zazpi udalerriz populatuenen ikuspegia (50.000 hiztunetik gora)

Hego Euskal Herriko zazpi udalerriz populatuena hartu, 50.000 hiztun baino gehiago dituztenak, eta zazpiak ere erdararen nagusitasun handiko udalerriz dira. Horien artean daude, jakina, lau hiriburuak. Zazpi udalerriz horietan guztietan euskararen etxeko erabilera ez da %20ra iristen. Udalerriz horien artean Donostia<sup>286</sup> eta Irun gipuzkoarrak dira euskararen etxeko erabilera handiena dutenak, %16,9 eta %13,2 hurrenez hurren. Gainerako udalerrizetan, bi mutur hauen artean dabil erabilera: Barakaldoko %2,7aren eta Getxoko %7,1aren artean. Datuok irakurtzerakoan, ezin da ahaztu udalerriz horien pisu demografikoa zer-nolakoa den: zazpi udalerriz horietan bizi dira bost hiztunetatik bi baino gehiago (1.180.073 hiztun, Hegoaldeko hiztun guztien %42,9).

G.113. GRAFIKOA: 50.000 HIZTUNETIK GORAKO UDALERRIAK, ETXEKO ERABILERAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011 (%)



**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]


**Oharra:** udalerriz izenekin batera, parentesi artean jarri ditugu udalerriz zein herrialdekoa den (herrialdearen lehen letra jarrita) eta udalerriz horretako hiztunen kopurua ere bai, 2011ko zentsuaren arabera.

<sup>286</sup> Datu berriagoen arabera, Donostiak %20ko langa gainditu zuen 2016 eta 2021eko zentsuetan.

### 18.3.3.2. 20.000 hiztunetik gorako 21 udalerrien ikuspegia

Azterketarako langa 20.000 hiztunetan jarritz gero, Hegoaldeko 21 udalerrri populatuenean 1.616.124 hiztun biltzen dituzte, hiztun guztien %58,8. Hogeita bat udalerrri horien erabilera-datuak aztertuta, ez dugu arnagune bakarra ere aurkitzen. Multzo horretako udalerrri euskaldunena, nabarmen, Zarautz da, eta nagusitasun argirik gabeko udalerrrien multzoan sartzen da bete-betean (%48,2koa euskararen pisua etxeko erabileran). Beste hiru udalerrri erdararen nagusitasuna erabateko ez den sailean sailkatzen dira: Arrasate (etxeko euskararen erabilera %32,0), Eibar (%26,9) eta Durango (%24,3). 20.000 hiztunetik gorako 21 udalerrrietako gainerako 17 udalerrriak erdarak nagusitasun handia duen eremukoak dira guztiak.

**G.114. GRAFIKOA: 20.000 HIZTUNETIK GORAKO UDALERRIAK, ETXEKO ERABILERAREN ARABERA, HEGOALDEA, 2011 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**Oharra:** udalerrrien izenekin batera, parentesi artean jarri ditugu udalerrria zein herrialdetakoa den (herrialdearen lehen letra jarrita) eta udalerrri horretako hiztunen kopurua ere bai, 2011ko zentsuaren arabera.

### 18.3.3.3. 10.000 hiztunetik gorako 49 udalerrrien ikuspegia


10.000 hiztunetik gorako 49 udalerrri ditugu Hegoaldean. Bertan bizi dira hiztun guztien ia hiru laurdenak (2.020.716 hiztun, %73,5). Udalerrri horiek nagusitasunaren ikuspegitik aztertuta:

- Ez dago arnasmune bete gisa izenda genezakeen udalerririk (etxeke erabileran euskarak %80ko pisua gainditzen duenik).
- Bi udalerrri arnasmune erasantzat jo ditzakegu: Azpeitia<sup>287</sup> eta Azkoitia (%72,5 eta %62,0ko erabilera hurrenez hurren). Bi horiek dira gaur egungo arnasmunerik populatuena, 14.177 eta 11.356 hiztunekin.
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrriak sei ditugu 10.000 hiztun baino gehiagokoen artean. Hauek dira udalerririk, euskararen etxeke erabilera handienekotik gutxienekora zerrendatuta: Oñati (%55,8), Bermeo (%52,3), Zarautz (%48,2), Gernika-Lumo (%46,9), Tolosa (%45,6) eta Bergara (%45,2).
- Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrien multzoan ditugu beste 10 udalerrri. Bi lehenengoak aurreko multzoaren mugan, Elgoibar (%37,0) eta Hondarribia (%36,8). Horietaz gain, multzo horretan ditugu Hernani (%33,3), Beasain (%32,3), Arrasate (%32,0), Zornotza (%29,3), Mungia (%29,2), Andoain (%28,0), Eibar (%26,9), eta Durango (%24,3).
- Aurreko hiru multzoetan 18 udalerrri zerrendatu ditugu. 10.000 biztanletik gorako gainerako 31 udalerrriak erdararen nagusitasun handiko multzokoak dira. Ez da garrantzirik gabeko datua, oro har, udalerrri populatuena multzo horren barruan kokatzen direla.

---

<sup>287</sup> Etxeko erabilerari buruzko datuekin ari gara lanean. Kaleko erabilera oinarritzat hartu izan bagenu (ez dugu horrela egin, ez dagoelako udalerrri guztiei buruzko informazio erakusgarririk), Azpeitia arnasmune bete izendatuko genuke, gainditu egiten du-eta %80ko langa (%86,6ko erabilera 2021ean)(Soziolinguistika Klusterra, 2022). Zentsuetako etxeke erabileran oinarritutako sailkapena eta kaleko erabileran oinarritutakoa bat ez etortzea udalerrri gehiagotan ere gertatzen da; ez dugu, ordea, horrelako xehetasunik eskainiko, eta etxeke erabileran oinarrituta aurkeztuko dugu udalerrien nagusitasun-eremukako sailkapenari buruzko informazioa.


G.115. GRAFIKOA: 10.000 HIZTUNETIK GORAKO UDALERRIAK, ETXEKO ERABILERAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011 (%)




**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitzategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**Oharra:** udalerrien izenekin batera, parentesi artean jarri ditugu udalerrria zein herrialdetakoa den (herrialdearen lehen letra jarrita) eta udalerrri horretako hiztunen kopurua ere bai, 2011ko zentsuaren arabera.

G.116. GRAFIKOA: 5.000 HIZTUNETIK GORAKO UDALERRIAK, ETXEKO ERABILERAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011 (%)







**Iturria:** egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitzategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**Oharra:** udalerrien izenekin batera, parentesi artean jarri ditugu udalerrria zein herrialdetakoa den (herrialdearen lehen letra jarrita) eta udalerrri horretako hiztunen kopurua ere bai, 2011ko zentsuaren arabera.

#### 18.3.3.4. 5.000 hiztunetik gorako 89 udalerrien ikuspegia


5.000 biztanletik gorako 89 udalerrietan 2.311.989 hiztun bizi dira (Hegoaldeko hiztun guztien %84,1). Horien artean:

- Ez dago arnagune bete gisa izenda genezakeen udalerririk (etxeko erabileran euskarak %80ko pisua gainditzen duenik).
- Lau udalerririk ditugu arnagune erasanen multzoan: Azpeitia (euskararen pisua %72,5ekoa etxeko erabileran), Lekeitio (%68,4), Ondarroa (%68,1) eta Azkoitia (%62,0).
- Nagusitasun argirik gabekoen multzoan, baina arnaguneen langatik gertu ditugu Orio (%59,6), Oñati (%55,8), Deba (%55,7) eta Baztan (%55,6). Horietaz gain, multzo honetakoak dira Oiartzun (%53,4), Bermeo (%52,3), Zumaia (%51,5), Usurbil (%49,4), Zarautz (%48,2), Amasa-Villabona (%48,1), Gernika-Lumo (%46,9), Tolosa (%45,6), Bergara (%45,2), Lazkao (%43,0) eta Aretxabaleta (%42,9). Guztira, 15 udalerririk ditugu nagusitasun argirik gabeko multzo honetan.
- Erdararen nagusitasun ez erabateko udalerririk ditugu beste 18 hauek: Ordizia (%37,4), Elgoibar (%37,0), Elorrio (%37,0), Hondarribia (%36,8), Urretxu (%34,4), Legazpi (%33,6), Hernani (%33,3), Lezo (%32,7), Beasain (%32,3), Urnieta (%32,2), Arrasate (%32,0), Abadiño (%30,0), Zornotza (%29,3), Mungia (%29,2), Andoain (%28,0), Eibar (%26,9), Durango (%24,3) eta Zumarraga (%22,1).
- 5.000 hiztun baino gehiagoko gainerako 52 udalerrietan erdara da nagusi etxeko erabileran (kasu guztietan, euskararen pisua ez da %20ra iristen).

#### 18.3.3.5. Hegoaldeko udalerririk guztien ikuspegia

Udalerririkako ikuspegiarekin amaitzeko, arazo bat dugu, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerririkako informaziorik ezin baita ustiari Nafarroako 2011ko zentsutik. Hori dela eta, Nafarroarako Euskalgeoko eskualdeen arabera landuko ditugu datuak. Informazio horrekin, T.170. eta T.171. taulak eta M.5. mapa sortu ditugu. Bertan ikus daitezkeen bezala, arnagune bete zein erasan guztiak, nagusitasun argirik gabeko udalerririk guztiak eta baita erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerririk guztiak ere, Hegoaldeko ingurune geografiko jakin batean pilatzen dira modu argian, M.5. mapan ikus daitezkeen bezala: Gipuzkoako luze-zabalean, Bizkaiko ekialdean, Nafarroako iparraldean eta Arabako Aramaion. Euskal Herri euskaldunaren muineko eremua dei genezakeen horretatik kanpo ez dago, gaur egun, ez arnagunerik, ez nagusitasun argirik gabeko udalerririk eta ezta erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerririk bat bera ere. Bestela esanda, muineko eremu horretatik kanpoko udalerririk den-denak erdararen nagusitasun handikoak dira (euskararen erabilera %20tik beherakoa dutenak). Esan beharrik ez dago muineko eremu hori bat datorrela euskarak historia luzean belaunez belaun etenik gabe transmititzen jarraitu izan duen lurralde-eremuarekin. Espazio horren barruan, ordea, euskara indartsuago eta ahulago dagoen udalerririk tartekatzen dira, aipatu mapan ikus daitezkeen bezala.

M.5. MAPA: NAGUSITASUN-EREMUAK, ETXeko ERABILERAREN ARABERA (UDALERRIAK EAEn ETA EUSKALGEO-KO ESKUALDEAK NAFARROA GARAIAN). HEGOALDEA, 2011



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-209 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. puntuan). Maparen irudia datu tailerrak sortu du ([www.datutailerra.net](http://www.datutailerra.net)). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Udalerrien inguruko ikuspegiarekin amaitzeko, 5.000 biztanletik beherako udalerrien artean euskalduntasun handia dutenak aipatuko ditugu jarraian, T.170. eta T.171. tauletako informazioa irakurrita.

Aurreko puntuan, 5.000 hiztunetik gorako arnasguneen zerrenda 4 udalerritara mugatu dugu. Hiztun kopuru horretatik behera, baina 1.000 hiztunetik gora, honako udalerririk hauek ditugu EAEn arnasguneen multzoan, handienetik txikienerako hurrenkeran: Mutriku (4.949 hiztun, erabilera %63,9koa), Markina-Xemein (4.802 hiztun, erabilera %64,8koa), Zestoa (3.545 hiztun, erabilera %70,4koa), Getaria (2.599 hiztun, erabilera

%73,5ekoa), Idiazabal (2.233 hiztun, erabilera %73koa), Aia (1.932 hiztun, erabilera %77,2koa), Alegia (1.738 hiztun, erabilera %63,3koa), Ataun (1.630 hiztun, erabilera %77,5ekoa), Aramaio (1.500 hiztun, erabilera %62,8koa), Zegama (1.498 hiztun, erabilera %64,2koa), Zaldibia (1.475 hiztun, erabilera %72,5ekoa), Asteasu (1.450 hiztun, erabilera %68,2koa), Segura (1.435 hiztun, erabilera %68,8koa), Muxika (1.431 hiztun, erabilera %68,8koa), Dima (1.329 hiztun, erabilera %67,6koa), Zeanuri (1.287 hiztun, erabilera %63,8koa), Berriatua (1.224 hiztun, erabilera %69,9koa), Elgeta (1.079 hiztun, erabilera %61,4koa) eta Berastegi (1.017 hiztun, erabilera %77,8koa). Zerrenda horretako udalerri guztiak arnasmune erasanen multzoan sartuko lirateke, etxeko erabilera %60-%80 tartean baitute. Izan ere, ez dago arnasmune bete bakarria 1.000 hiztun baino gehiagokoa EAEn; 500 biztanletik gorako arnasmune beteak hiru hauek dira: Amezketta (931 hiztun, erabilera %84,4koa), Aulesti (657 hiztun, erabilera %84,8koa) eta Errezil (605 hiztun, erabilera %81,6koa).

Nafarroa Garaira etorrira, arnasmune erasanen sailean sartuko genituzke honako eskualde hauek, eta pentsatzekoa da, bertako udalerri gehienak: Aralarko Iparraldea (7.006 hiztun, erabilera %69,6koa) eta Bidasoa Garaia (5.294 hiztun, %61,9ko erabilera)<sup>288</sup>.

1.000-5.000 hiztuneko udalerrietan, honako hauek dira nagusitasun argirik gabeak EAEn: Ibarra (4.138 hiztun, erabilera %46,2koa), Igorre (4.070 hiztun, erabilera %49,3koa), Zizurkil (2.765 hiztun, erabilera %46,6koa), Antzuola (2.112 hiztun, erabilera %58,7koa), Larrabetzu (1.923 hiztun, erabilera %51koa), Mendaro (1.894 hiztun, erabilera %47,5ekoa), Anoeta (1.786 hiztun, erabilera %54,5ekoa), Gatika (1.588 hiztun, erabilera %43,5ekoa), Irura (1.535 hiztun, erabilera %54koa), Legorreta (1.474 hiztun, erabilera %50,2koa), Atxondo (1.397 hiztun, erabilera %43,7koa), Gamiz-Fika (1.325 hiztun, erabilera %50,5ekoa), Ormaiztegi (1.273 hiztun, erabilera %55,3koa), Otxandio (1.247 hiztun, erabilera %47,5ekoa), Mallabia (1.159 hiztun, erabilera %51,5ekoa) eta Zeberio (1.036 hiztun, erabilera %50,6koa).

Nagusitasun argirik gabeko multzoan sartu beharko lirateke, halaber, Nafarroako Bortziriak (8.194 hiztun, erabilera %57,1ekoa) eta Baztanaldea eskualdeak (8.164 hiztun, erabilera %56,6ko), biak ere arnasmuneen langatik gertu<sup>289</sup>.

---

<sup>288</sup> Aralarko Iparraldea eskualdeko udalerriak dira: Araitz, Arano, Areso, Betelu, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberri.

Bidasoa Garaia eskualdeko udalerriak dira: Bertizarana, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Labaien, Oiz, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Urrotz eta Zubieta.

<sup>289</sup> Bortziriak eskualdeko udalerriak dira Arantza, Etxalar, Lesaka, Bera eta Igantzi.

Baztanaldea eskualdekoak dira Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi.

**T.170. TAULA: HIZTUNAK ETA EUSKARAREN PISUA ETXeko ERABILERA; UDALERRIEN SAILKAPENA NAGUSITASUN-EREMUETAN. 5.000 HIZTUN BAINO GUTXIAGOKO UDALERRIAK, EAE, 2011**

Udalerrria	Hiztunak, 2011 (kopurua)	HZ-007: Etxeko erabileran euskarak duen pisua, 2011 (%)	Nagusitasun-eremuak	Udalerrria	Hiztunak, 2011 (kopurua)	HZ-007: Etxeko erabileran euskarak duen pisua, 2011 (%)	Nagusitasun-eremuak	Udalerrria	Hiztunak, 2011 (kopurua)	HZ-007: Etxeko erabileran euskarak duen pisua, 2011 (%)	Nagusitasun-eremuak
Orexa (G)	109	91,7	Arnasgune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	Zeanuri (B)	1.287	63,8	Arnasgune erasanak (jarraipena)	Barrika (B)	1.490	19,7	Erdararen nagusitasuna handia den udalerrriak (etxeko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)
Abaltzisketa (G)	309	89,5		Murueta (B)	284	63,6		Zalduondo (A)	189	17,2	
Baliarrain (G)	121	86,8		Alegia (G)	1.738	63,3		Zaratamo (B)	1.639	15,8	
Albiztur (G)	284	86,1		Aramaio (A)	1.500	62,8		Legutiano (A)	1.672	14,3	
Beizama (G)	138	85,9		Garai (B)	325	62,6		Sondika (B)	4.396	12,7	
Amoroto (B)	397	85,8		Ea (B)	862	62,2		Ugao (B)	3.974	12,6	
Aulesti (B)	657	84,8		Elgeta (G)	1.079	61,4		Pientzia (B)	4.332	10,8	
Amezketeta (G)	931	84,4		Mañaria (B)	500	60,7		Zigoitia (A)	1.719	10,1	
Zerain (G)	254	83,7		Forua (B)	957	59,5		Barrundia (A)	915	9,6	
Ziortza-Bolibar (B)	441	82,5		Antzuola (G)	2.112	58,7		Asparrena (A)	1.676	9,2	
Elduain (G)	224	82,4		Meñaka (B)	716	58,4		Urkabustaiz (A)	1.320	9,0	
Gaintza (G)	121	82,2		Ibarrangelu (B)	628	58,3		Donemiliaga (A)	720	8,0	
Gaztelu (G)	165	82,1		Itsasondo (G)	652	58,0		Leza (A)	224	7,6	
Errezil (G)	605	81,6		Arteaaga-Gaztelu-Elexabetia (B)	745	57,4		Okondo (A)	1.128	7,6	
Gizaburuaga (B)	197	80,5		Arantzazu (B)	345	56,5		Zuia (A)	2.423	7,6	
Orendain (G)	171	79,8	Leintz Gatzaga (G)	262	55,7	Kanpezu (A)	1.110	7,0			
Arratzu (B)	377	79,7	Ormaiztegi (G)	1.273	55,3	Dulantzi (A)	2.900	6,6			
Markin-Etxebarria (B)	724	78,7	Anoeta (G)	1.786	54,5	Arratzu-Ubarrundia (A)	979	6,4			
Nabarniz (B)	225	78,4	Fruiz (B)	506	54,3	Agurain (A)	4.861	6,2			
Alkiza (G)	344	78,1	Irura (G)	1.535	54,0	Iruraitz-Gauna (A)	566	5,8			
Gabria (G)	495	78,0	Arrieta (B)	540	52,3	Bastida (A)	1.483	5,8			
Berastegi (G)	1.017	77,8	Mallabia (B)	1.159	51,5	Villabuena de Alava (A)	329	5,6			
Ataun (G)	1.630	77,5	Gautegiz-Arteaga (B)	890	51,2	Gordexola (B)	1.700	5,5			
Aia (G)	1.932	77,2	Larrabetzu (B)	1.923	51,0	Lapuebla de Labarca (A)	851	5,5			
Aduna (G)	423	76,7	Zeberio (B)	1.036	50,6	Burgu (A)	626	5,3			
Kortezubi (B)	414	76,4	Garniz-Fika (B)	1.325	50,5	Aiara (A)	2.772	5,2			
Alizo (G)	347	75,9	Legorreta (G)	1.474	50,2	Bernedo (A)	579	5,2			
Elantxobe (B)	404	75,4	Igorre (B)	4.070	49,3	Artziniega (A)	1.812	5,1			
Larraul (G)	242	75,2	Mendaro (G)	1.894	47,5	Alonsotegi (B)	2.802	5,1			
Ispaster (B)	685	74,5	Otxandio (B)	1.247	47,5	Kuartango (A)	339	5,0			
Ereño (B)	266	74,1	Izurtza (B)	283	47,3	Arraia-Maeztu (A)	724	4,9			
Lizartza (G)	636	73,7	Zizurkil (G)	2.765	46,6	Artzetales (B)	741	4,8			
Munitibar (B)	430	73,6	Ibarra (G)	4.138	46,2	Zierbena (B)	1.438	4,6			
Getaria (G)	2.599	73,5	Atxondo (B)	1.397	43,7	Urduña (B)	4.108	4,5			
Alzaga (G)	156	73,4	Gatika (B)	1.588	43,5	Sopuerta, Garape (B)	2.520	4,5			
Mendata (B)	381	73,2	Sukarrieta (B)	336	40,3	Galdames (B)	835	4,4			
Idiazabal (G)	2.233	73,0	Arakaldo (B)	118	39,8	Lanestosa (B)	271	4,2			
Morga (B)	402	73,0	Busturia (B)	1.703	39,7	Añana (A)	168	4,2			
Aizarnazabal (G)	710	73,0	Mundaka (B)	1.887	39,5	Urizaharra (A)	290	4,1			
Arama (G)	195	72,8	Olaberria (G)	919	38,8	Samaniego (A)	318	3,9			
Zaldibia (G)	1.475	72,5	Ubide (B)	179	38,0	Gaubea (A)	1.100	3,9			
Ezkio-Itsaso (G)	603	72,5	Eskoriatza (G)	3.974	37,8	Armiñón (A)	198	3,5			
Ajangiz (B)	443	72,3	Astigarraga (G)	4.793	37,5	Oion (A)	3.272	3,3			
Leaburu (G)	379	71,0	Areatza (B)	1.189	37,5	Iruña Oka (A)	3.022	3,3			
Bidania-Goiatz (G)	519	70,6	Soraluze (G)	3.862	37,1	Guardia (Bastari) (A)	1.574	3,3			
Zestoa (G)	3.545	70,4	Bedia (B)	965	36,8	Turtzioz (B)	536	3,3			
Mendexa (B)	451	70,2	Maruri-Jatabe (B)	934	35,9	Berantevilla (A)	467	3,2			
Belautza (G)	294	70,1	Lezama (B)	2.396	35,4	Erriberaiteia (A)	1.403	3,2			
Berriatua (B)	1.224	69,9	Bakio (B)	2.539	32,4	Karrantza (B)	2.762	3,2			
Segura (G)	1.435	68,8	Berriz (B)	4.778	32,2	Erriberagoitia (A)	853	3,1			
Muxika (B)	1.431	68,8	Arrankudiaga (B)	947	31,8	Bilar (A)	349	2,9			
Mutiloa (G)	236	68,4	Orozko (B)	2.494	31,5	Lantziego (A)	688	2,8			
Asteasu (G)	1.450	68,2	Lemoa (B)	3.371	31,1	Moreda (A)	279	2,2			
Dima (B)	1.329	67,6	Laukiz (B)	1.134	29,1	Zanbrana (A)	427	2,1			
Ikaztegieta (G)	452	67,0	Lemoiz (B)	1.053	29,0	Navaridas (A)	231	1,9			
Hernialde (G)	349	65,6	Iurreta (B)	3.752	28,1	Lagran (A)	183	1,9			
Markina-Xemein (B)	4.802	64,8	Zaldibar (B)	2.945	27,5	Eltziego (A)	1.053	1,9			
Zegama (G)	1.498	64,2	Zamudio (B)	3.150	24,9	Mañueta (A)	318	1,7			
Errigoiti (B)	527	64,1	Urduliz (B)	3.545	21,7	Ekora (A)	291	1,7			
Mutriku (G)	4.949	63,9	Loiu (B)	2.363	21,1	Lantaron (A)	926	1,5			
Berrobi (G)	565	63,8				Harana (A)	286	1,2			
						Kripan (A)	194	1,0			

## OHAR HAUEK AURREKO ORRIALDEKO TAULARI DAGOZKIO:

Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: udalerrien izenekin batera, parentesi artean jarri ditugu udalerria zein herrialdetakoa den (herrialdearen lehen letra jarrita).

**T.171. TAULA: EUSKALDUNEN DENTSITATEA ETA EUSKARAREN PISUA LEHEN HIZKUNTZAN ETA ETXeko ERABILERAN; EUSKALGEO ESKUALDEEN SAILKAPENA NAGUSITASUN-EREMUETAN. NAFARROA GARAIA, 2011**

	Hiztunak, 2011 (kopurua)	HZ-003: Euskaldunen dentsitatea, 2011 (%)	HZ-005: Hiztunen lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua, 2011 (%)	HZ-007: Etxeko erabilera euskarak duen pisua, 2011 (%)	
<b>Nafarroa Garaia</b>	<b>610.525</b>	<b>14,1</b>	<b>7,8</b>	<b>6,9</b>	Nagusitasun-eremuak:
Aralarko Iparraldea	7.006	82,8	75,2	69,6	Arnasgune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den eskualdeak (erabilera euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)
Bidasoa Garaia	5.294	81,7	71,3	61,9	
Bortziriak	8.194	75,1	66,9	57,1	Nagusitasun argirik gabeko eskualdeak (erabilera euskararen pisua %40-%60koa)
Baztanaldea	8.164	76,7	69,4	56,6	
Sakana	19.862	41,2	28,3	23,3	Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den eskualdeak (erabilera euskararen pisua %20-%40 artekoa)
Ultzamaldea	5.804	38,6	28,1	20,4	
Auñamendi	4.968	24,3	14,3	9,0	Erdararen nagusitasuna handia den eskualdeak (erabilera euskararen pisua %20tik beherakoa)
Erronkari-Zaraitzu	3.208	17,5	5,8	6,2	
Agoitzaldea	4.522	14,5	4,2	5,0	
Iruñerria	326.982	12,4	4,8	4,5	
Irunberrialdea	1.957	16,0	3,9	4,4	
Estellerriko Ekialdea	30.533	12,3	4,1	4,0	
Zangozerria	7.989	9,7	2,2	2,8	
Garesaldea	5.791	11,4	3,2	2,7	
Tafallaldea	23.349	7,2	1,9	2,3	
Arga-Aragoiko Erribera	30.369	1,8	1,1	1,1	
Estellerriko Mendebaldea	5.780	6,3	2,3	0,8	
Ebro Garaiko Erribera	26.025	2,1	0,7	0,6	
Tuterldea	84.730	1,5	0,7	0,6	

Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

## 18.4. EUSKARA-ERDAREN NAGUSITASUNA: BILAKAERA-JOERAK LURRALDEAN

✓ *Zer-nolako bilakaera izan du euskara-erdaren nagusitasunak lurraldeka aztertuta, hots, zer-nolako bilakaera-joerak antzematen dira herrialdeetan, eskualdeetan eta udalerrietan?*

Hegoaldean bilakaera orokorra zein izan den ikusi dugu 18.2. azpikapituluan, hots, nagusitasun-eremu batzuek eta besteek zer-nolako bilakaera eduki duten. Bilakaera hori herrialdeetan nola gertatu izan den zehatz aztertzeko lehengaia T.70.-T.73. eta T.109.-T.112. tauletan dago. Azpikapitulu honetan, bilakaera lurraldean nola gertatu den ikusten saiatuko gara. Horretan laguntzeko, zentsuetatik hartu ditugun oinarritzko adierazle demolinguitiko batzuen bilakaera-datuak aurkezten ditugu T.172. taulan Hegoaldeko herrialde eta eskualdeetarako. Taula horretan euskaldunen dentsitateari buruzko eta hiztunen lehen hizkuntzari buruzko datuak ere biltzen diren arren, zentsu eta HEKNtik ekarritako erabilerari buruzko datuak irakurriz landuko dugu gure azterketa; lehenago aipatu ditugun arrazoi teoriko-metodologikoak tarteko, erabilera iruditzen zaigulako lurralde-eremuetan hizkuntzek sozialki duten nagusitasuna finkatzeko irizpiderik sendoena.





## OHAR HAUEK AURREKO ORRIALDEKO TAULARI DAGOZKIO:

Iturria: egileak landua, 1991-2016ko HZtik eta 1989-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HZ-003, HZ-005, HZ-007 eta HEKN-001 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9. eta 10. kapituluetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Oharrak: HEKNko informazioari dagokionez, eskualde batzuetako datuak erakusten ditugu eta besteetakoak ez. Zehazki, erakusten ditugu 1991. eta 2016. urteetako bakoitzean gutxienez 1.600eko lagin-neurria izan zuten eskualdeen datuak; hots, behatutako elkarrizketetan kopuru hori gainditzen zuten eskualdeen datuak soilik aurkezten ditugu. Horrek gehienez  $\pm 2,4$ koa izango den akatsaren azpitik aritzeko aukera ematen digu eskualde horientzat guztientzat, akats-tarte horren nabarmen azpitik ia eskualde guztietan (akats-tartearen kalkulua honako baldintza hauetarako egin dugu eskualde guztietan: unibertso infiniturako, %95eko konfiantza mailan,  $p=q=0,5$  izanik eta laginketa guztiz ausazkorako kalkulua eginda). Baldintza hori betetzen zuten eskualdeentzat, halaber, 1.600eko gutxieneko lagin hori duten urteetarako soilik erakutsi ditugu datuak taula honetan. Iruñerriko bilakaerari buruzko datua 1996-2016 epealdiari dagokio. Hego Euskal Herriko zentsuetako datuak sortzeko, Nafarroan 1996ko eta 2006ko datuak bost urte lehenagoko eta bost urte geroagoko datuen bidez bestekoen bidez kalkulatu ditugu.

### **18.4.1. Bilakaera herrialdeetan**

#### **18.4.1.1. Euskararen erabileraren bilakaera herrialdeka**

T.173. taulan herrialdez herrialdeko erabilera datuen bilakaera erakusten da, baina oraingoan, zentsuetako eta HEKNko datuak ez ezik, ISLkoak ere biltzen ditugu taulara. Zehazki, hiru iturritatik ekarritako bost datu-serie aurkezten dira; datu bakoitzak une eta lurralde jakin batean euskararen erabileraren argazki partziala egiten digu. Argazki horiek uztartuz, osotasunezko irudi bat osatzea izango da gure ahalegina. Azal dezagun, ezer baino lehen, zein diren bost datu-serie horiek:

- **Euskararen pisua etxeko erabileran (%)** Hegoaldeko zentsuetatik sortutako HZ-007 adierazlearen emaitzen bidez lantzen dugu. Bertan 2 urtetik gorako hitzunen artean etxean euskaraz soilik edo nagusiki egiten duten hitzunen ehunekoari gehitu egin diogu euskaraz eta gaztelaniaz bi hizkuntzetan aritzen direnen ehunekoaren erdia. Emaitza erabilera-tasa bat da, %etan adierazita. Kasu honetan, metodologia-ataleko 9.1.2. puntuan azaltzen genuen irizpidearen kontra, 1991-2016 bitarteko bosturteko guztietarako landuko ditugu datuak.
- **Etxean euskaraz soilik edo nagusiki aritzen direnak guztiekiko (%)** izenburupeko datu-serieak ere aurreko errealitate bera jasotzen du, baina euskaraz soilik edo nagusiki egiten duten hitzunen bakarrik zenbatuz. Datu multzo hori ere zentsuetatik atera dugu eta 2 urtetik gorako hitzunei dagokie. Datu-serie honek aurrekoak baino kopuru txikiagoak emango ditu, jakina, baina abantaila bat izan dezake aurrekoarekiko. Izan ere, metodologia-atalean datu demolinguistiko aitortuen alboratzeaz aritu garenean ikusi dugu erabilera-maila ertainak adierazten dituzten elkarrizketatuen kasuan alboratze hori handiagoa izan ohi dela, hots, muturreko erabilera-mailak adierazten dituzten hitzunen baino gehiago desitxuratu ohi dituztela euren benetako erabilerak. Horiek horrela, hanpatze sistematiko horren eragina saihesteko, erreferentzia

interesgarria izan daiteke honako datu hau, HEKNko datuekin alderatu nahi dugunean, batik bat.

- **Euskararen kale-erabilera haztatua (%).** Behaketa bidez HEKNk jasotako informaziotik sortu dugun HEKN-001 adierazlea da hau, 2 urtetik gorako hiztunentzat.
- **Aurrez aurreko harremanetako erabilera-tasa (%).** 16 urtetik gorako hiztunentzat rol-harreman eta espazio ugaritako erabilerak laburtuz sortutako ISL-404 adierazle sintetikoa. Hau da ISL-tik erabilerari buruz sortu dugun adierazle orokorrena, familiako, lagun arteko, lan alorreko, zerbitzuetako eta administrazio publikoetako hainbat erabilera-datu uztartuz.
- **Harreman informaletako erabilera-tasa (%).** 16 urtetik gorako hiztunentzat senide eta lagunekiko erabilerak laburtuz sortutako ISL-402 adierazle sintetikoa. Neurtzen duen errealitatea dela eta, aurreko adierazlea baino egokiagoa izan daiteke honako hau HEKN zein HZko datuekin alderatzeko, eta horregatik txertatu dugu taulan.

Taula horretako datuak baliatuz, G.117., G.118. eta G.119. grafikoak sortu ditugu. G.117. grafikoan, zehaztu berri ditugun bost datu-serieak banan-banan hartuta, Hegoaldeko herrialdeetan zer-nolako bilakaera gertatu den erakusten da. Lehen ikuspegi batean, bost datu-serieek antzeko irudia ematen dutela dirudi. Herrialdeen arteko oinarritzko egitura bera erakusten dute bost datu-serieek aztertu dugun epealdi osoan: Gipuzkoako lerroa ginetik azaltzen da nabarmen, eta dezente beherago Bizkaia, beheraxeago Nafarroa eta, azkenik, Nafarroako lerrora gerturatuz, Araba, gorako joera argiarekin.


**T.173. TAULA: EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN, KALEAN, AURREZ AURREKO HARREMANETAN ETA HARREMAN INFORMALETAN, HERRIALDEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016**

							Hego aldeko lau herrialdeetan posizioa (1=bilak. positiboen; 4=bilak. negatiboen)			
	1991	1996	2001	2006	2011	2016	1991-2016 aldea	Bilakaera 1991-2011 (%)	1991-2016 aldea	Bilakaera 1991-2016 (%)
<b>Euskararen pisua etxeko erabileran (%) [+2 urteko hiztunak, HZ-007 adierazlea, tasa esleituak]</b>										
Araba	2,7	3,2	3,7	4,2	5,1	6,1	3,4	126,9	1	1
Bizkaia	11,9	11,9	11,7	11,7	12,2	13,4	1,5	12,8	2	2
Gipuzkoa	34,1	34,1	34,0	32,4	31,7	34,5	0,5	1,4	3	3
Nafarroa Garaia	7,0		7,3		6,9		-0,1	-1,5	4	4
HEGOALDEA	15,7	15,8	15,7	15,3	15,1	16,6	0,8	5,2		
<b>Exean euskaraz soilik edo nagusiki aritzen direnak, guztiekiko (%) [+2 urteko hiztunak, HZ]</b>										
Araba	1,3	1,5	1,9	2,3	3,1	2,8	1,5	113,3	1	1
Bizkaia	8,9	8,6	8,6	8,6	9,1	9,0	0,1	1,7	3	2
Gipuzkoa	27,2	27,2	27,0	25,2	26,0	27,5	0,2	0,9	2	3
Nafarroa Garaia	5,4		5,6		4,6		-0,7	-13,9	4	4
HEGOALDEA	12,2	12,0	12,0	11,5	11,7	12,1	-0,1	-0,9		
<b>Euskararen kale-erabilera haztatua (%) [+2 urteko hiztunak, HEKN-001 adierazlea]</b>										
Araba	2,8	3,5	3,2	4,2	3,6	4,4	1,7	59,9	2	1
Bizkaia	8,5	9,1	11,0	10,2	9,2	8,5	0,0	0,4	4	4
Gipuzkoa	24,4	27,9	28,3	29,1	30,2	29,7	5,3	21,9	1	2
Nafarroa Garaia	5,7	6,5	6,0	5,9	5,5	6,6	1,0	16,9	3	3
Ipar EH		8,9	7,7	6,4	6,0	5,4	-3,5	-39,0		
EUSKAL HERRIA	11,0	12,5	13,0	12,7	12,3	12,3	1,3	11,4		
<b>Aurrez aurreko harremanetako erabilera-tasa (%) [+16 urteko hiztunak, ISL-404 adierazlea]</b>										
Araba	1,7	3,1	3,4	4,3	5,3	6,1	4,4	252,7	2	1
Bizkaia	8,8	10,9	10,3	11,8	11,8	12,4	3,6	40,3	3	2
Gipuzkoa	27,9	30,2	28,2	31,5	32,8	33,1	5,2	18,8	1	3
Nafarroa Garaia	5,7	5,5	5,7	5,6	5,9	6,4	0,6	11,2	4	4
Ipar EH		12,9	10,2	10,7	9,6	8,3	-4,6	-35,4		
EUSKAL HERRIA	12,6	13,9	12,9	14,3	14,5	14,9	2,3	17,9		
<b>Harreman informaletako erabilera-tasa (%) [+16 urteko hiztunak, ISL-402 adierazlea]</b>										
Araba	2,1	3,2	3,5	4,3	5,0	5,6	3,5	164,2	2	1
Bizkaia	9,3	11,2	10,5	11,8	11,5	11,9	2,5	27,3	3	2
Gipuzkoa	28,6	30,7	27,8	31,1	32,1	32,8	4,3	14,9	1	3
Nafarroa Garaia	6,1	5,7	5,9	5,8	6,0	6,3	0,3	4,2	4	4
Ipar EH		14,0	10,9	11,8	10,4	9,1	-4,9	-35,0		
EUSKAL HERRIA	13,2	14,3	13,0	14,3	14,3	14,6	1,4	10,6		
<b>Hegoaldeko herrialde bakoitzak hiru iturrietan duen posizioen batezbestekoa</b>										
Araba									1,7	1,0
Bizkaia									3,0	2,7
Gipuzkoa									1,7	2,7
Nafarroa Garaia									3,7	3,7

**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko HZtik, 1989-2018ko HEKNtik eta 1991-2016 ISLtik abiatuta. Zehazki, HZ-006, HZ-007, HEKN-001, ISL-404 eta ISL-402 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan, 10. kapituluaren eta 11.4. puntuan). [Jatorrizko iturriak: EAEko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2022), Nafarroa Garaiko *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak]

**Oharrak:** Hego Euskal Herriko zentsuetako datuak sortzeko, Nafarroako 1996ko eta 2006ko datuak bost urte lehenagoko eta bost urte geroagoko datuen batez bestekoen bidez kalkulatu ditugu, eta 2016koak, berriz, 2011koak erabili. Ipar Euskal Herriari buruzko bilakaera-datuak 1996-2016 tarteari dagozkie; Nafarroako zentsuei buruzkoak 1991-2011 tarteari. Erabili ditugun ISL-402 eta 404 adierazle sintetikoak A motakoak dira (A eta B motako adierazle sintetikoek buruz, ikus 11.4.6. puntua).

**G.117. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN, KALEAN, AURREZ AURREKO HARREMANETAN ETA HARREMAN INFORMALETAN, HERRIALDEAREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016**



## OHAR HAUEK AURREKO ORRIALDEKO GRAFIKOARI DAGOZKIO:

Iturria: egileak landua, 1991-2016ko HZtik, 1989-2018ko HEKNtik eta 1991-2016 ISLtik abiatuta. Zehazki, HZ-006, HZ-007, HEKN-001, ISL-404 eta ISL-402 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan, 10. kapituluan eta 11.4. puntuan). [Jatorrizko iturriak: EAEko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2022), Nafarroa Garaiko *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak]

Oharrak: Hego Euskal Herriko zentsuetako datuak sortzeko, Nafarroako 1996ko eta 2006ko datuak bost urte lehenagoko eta bost urte geroagoko datuen batez bestekoen bidez kalkulatu ditugu, eta 2016koak, berriz, 2011koak erabili. Ipar Euskal Herriari buruzko bilakaera-datuak 1996-2016 tarteari dagozkie; Nafarroako zentsuei buruzkoak 1991-2011 tarteari. Erabili ditugun ISL-402 eta 404 adierazle sintetikoak A motakoak dira (A eta B motako adierazle sintetikoak buruz, ikus 11.4.6. puntua).

Bestalde, grafiko horretan argi ikusten da datu-serie bakoitzak bere ibiltartea duela, eta horietako batzuk orokorrean “goragotik” dabiltzala eta beste batzuk “beheragotik”. Lehenago ere, 15.1.2. puntuan, aritu gara iturri ezberdinek euskararen erabilera-mailaz eta horren bilakaeraz ematen diguten irudi ez guztiz bateratuaz. Ez ditugu berriz hona ekarriko alde horien arrazoi posibleen inguruan han esandakoak.

Erregularitasun orokor horietaz gain, datuei arretaz begiratuta, herrialde bakoitzean datu-serie bakoitzaren arabera zer-nolako bilakaera izan den azter dezakegu. Azterketa horretan laguntzeko, grafiko horretako datu berberak beste modu batean aurkeztuz, G.118. grafikoa sortu dugu. Grafiko horretan lau azpigrafiko ageri dira, Hegoaldeko herrialde bakoitzeko bat, herrialde bakoitzaren bilakaerari buruz ditugun datuekin. Bertan lantzen ari garen bost adierazleetako bat, ISLko aurrez aurreko harremanei buruzkoa, ez dugu grafikoan txertatu, harreman informaletako erabileraren datu-seriearen lerroarekin gainjartzen zelako. Irakurketa egiterakoan, beraz, aurrez aurreko erabilerari buruzko datuak T.173. taulatik irakurriko ditugu zuzenean. Bestalde, T.173. taulako bilakaerari buruzko informazioarekin, G.119. grafikoa sortu dugu, eta laburbildu egin dugu 1991 eta 2016 bitartean herrialde bakoitzean, datu-serie bakoitzaren arabera izan den bilakaera.

Bi grafiko horiei begiratze hutsarekin erraz antzemango diogu Araban eta Nafarroa Garaian aztertu ditugun datu-serieek irudi nahiko koherentea ematen dutela azken 25 urtetako erabileraren bilakaerari buruz. Ez da gauza bera gertatzen Gipuzkoarako eta Bizkairako. Ikus dezagun lasaiago.

Aztertu ditugun hiru iturriak eta bost datu-serieek argi azaltzen dute euskararen erabilerak Araban bilakaera positiboa izan duela. Bost datu-serie horiek 1991-2016 bitartean izan duten bilakaera erlatiboari erreparatuta, hots, hasieran zegoen erabilera-mailatik epealdi horretan zenbat aurreratu den aztertuta, ondorioa argia da: bilakaera positiboa izan du aztertzen ari garen epealdiaren hasieran abiapuntu eskasa, erabilera-maila oso apala zuen herrialde horrek. Horrela, 1991ko erabilera erreferentziatzen hartuta, %60ko hazkundea izan du euskararen erabilerak kalean, eta are handiagoa izan da etxeko erabileran, zentsuen arabera, eta harreman informaletako zein aurrez aurreko harremanetako erabileran, ISLren arabera, euskararen pisuak izan duen igoera (bikoiztu baino gehiago egin da). Joera positibo argia erakusten dute, hortaz, datu-serie guztiek Arabarako. Apur bat sinplifikatuz, eta erabilera-tasetara itzuliz, aztertu ditugun bost datu-serieetan euskararen erabilera %2-%3 inguruan zegoen Araban 1991. urtean; %4-%6ra igo da 25 urteren buruan. Terminu erlatiboetan Araba

dugu euskararen alde gehien aurreratu duen herrialdea; hiru iturri eta bost datu-serieetako zenbakiak ez dute horretan zalantzarako tarterik uzten. Bilakaera hori puntutan neurtuta ere, hots, 1991ko eta 2016ko erabilera-tasen arteko kenketa eginda, Arabak izan du bilakaera onena zentsuen arabera, eta ISLren eta HEKNren datuen arabera, bigarren bilakaera onena Gipuzkoaren atzetik.

Nafarroako errealtateari buruz ere irudi nahiko koherentea ematen dute landu ditugun datuek: 1991 eta 2016 bitartean ez da askorik aldatu euskararen erabilera. Datu-serie guztiek bilakaera-joera ahulak erakusten dituzte 25 urteotarako Nafarroa Garaian, hazkunde- edo galera-joera esanguratsurik gabe. Horrela, euskararen etxeko erabileraren tasetan jaitsiera oso txikia, hutsaren hurrengo, ageri dute zentsuek Nafarroarako 1991-2011 aldirako; jaitsiera hori, ordea, handiagoa da etxean euskara eta gaztelania biak egiten dituzten hiztunak zenbatu ez, eta euskaraz soilik edo nagusiki egiten dutenak kontuan hartuta. Kasu horretan, 0,7 puntu galtzen ditu euskarak (-%13,9ko galera erlatiboa). Zentsuetako jaitsiera-joera ez oso handi horren aurrean, igoera txikia ematen diote beste bi iturriek euskararen erabilerari, aurrez aurreko eta harreman informalarako ISLk eta kale-erabilerarako HEKNk. Laburtuz, bada, 25 urteotarako oinarrizko egonkortasunaren irudi nahiko koherentea osatzen dute datuek Nafarroa Garairako. Oro har, gainerako herrialdeek datu-serie ia guztietan bilakaera positiboagoa izan dutenez, Nafarroa Garaia azaltzen zaigu beste herrialdeen atzetik azken lekuan, erabileran gutxien aurreratu duen herrialde gisa zentsuko datuetan eta ISLkoetan. Ez, ordea, HEKNkoetan: iturri horren arabera, kaleko erabilerak bilakaera zer edo zer hobea izan baitu Nafarroa Garaian Bizkaian baino.

Bizkaiaren bilakaera-joerak deskribatzerakoan, ez dute irudi bateratu argirik osatzen esku artean ditugun bost datu-serieek. Zentsuen arabera, euskararen etxeko erabilerak gora egin du Bizkaian, 1991ko %11,9tik 2016ko %13,4ra (1,5 puntuko hazkunde, +%12,8ko hazkunde erlatiboa). Igoera are handiagoa ematen dio ISLk euskararen erabilerari harreman informalen alorrean (+2,5 puntukoa, +%27,3ko hazkunde erlatiboa) eta, orokorrean, aurrez aurreko harremanetan (+3,6 puntukoa, +%40,3ko hazkunde erlatiboa). Hiru datu-serie horien arabera, hortaz, argi egin du gora euskararen erabilerak Bizkaian. HEKNk, berriz, kaleko erabileran aldaketarik ez dela gertatu adierazten du 1991-2016 aldirako, nahiz eta, berez, 1991-2001 bitartean igoera izan eta 2001-2016an jaitsiera (abiapuntuko mailaraino etorri da berriz)<sup>290</sup>. Zentsuko datuetara itzulita, baina oraingoan etxean euskaraz soilik edo nagusiki mintzatzen direnen proportzioa zertan den aztertuta, aldaketarik gabe azaltzen zaigu 1991-2016 tartean, kale-erabileraren datuek eskaintzen duten irudiarekin bat. Laburtuz, bada, ISLren bi datu-serieek eta zentsuetako etxeko erabilera esleituaren serieak euskararen erabileraren igoera ematen dute Bizkairako. Aitzitik, eta gorabeherekin izanda ere, epealdiaren bi muturren arteko egonkortasuna islatzen digute bai HEKNko kale-erabileraren datuek eta baita zentsuen arabera etxean euskaraz nagusiki edo soilik aritzen direnen proportzioaren datuek ere. Bi ikuspegi ditugu, hortaz, Bizkaian azken 25 urteotan gertatu denari buruz. Gainerako herrialdeekin alderaketa egiterakoan ere ezin irudi bateratu argirik eskaini Bizkairako. 1991ko eta 2016 bitartean izandako aldea

---

<sup>290</sup> 2021eko kale-neurketen emaitzen arabera, Bizkaian igo egin da kale-erabilera 2016-2021 tartean. Dena den, datu horiek ez dira zuzenean alderagarriak gureekin (gure seriean datuak adinaren arabera haztatuta daude).

puntuen bidez neurtuta, zentsuetako erabilera-tasa esleituen arabera, Arabaren atzetik, Bizkaian egin du gora gehien euskararen etxeko erabilerak. ISLk, berriz, hirugarren tokian uzten du Bizkaiko erabileraren hazkundera, Araba eta Gipuzkoaren atzetik eta Nafarroaren aurretik. HEKNren arabera, azkenik, Bizkaia da Hegoaldeko herrialde guztien artean bilakaera-joera apalena izan duena. Termino erlatiboetan neurtuta, Arabaren atzetik gehien aurreratu duena dugu Bizkaia, HZ eta ISLren arabera; HEKNren arabera berriz, azken tokian azaltzen zaigu.


Gipuzkoari buruzko datuak ere urruti daude irudi bateratu bat eskaintzetik. 2016ko erabilera-tasari 1991koa kenduta, 1991-2016 tartean zenbat aurreratu den kontuan hartuz, ez tarteko gorabeherarik gabe, baina asko aurreratu da Gipuzkoan euskararen erabileran honako hiru datu-serieen arabera: +5,2 puntu ISLren araberako aurrez aurreko harremanetan, +4,3 puntu ISLko harreman informaletako erabileran eta +5,3 puntu HEKNren kaleko erabileran. Epealdi horretan horiek dira azertu ditugun datu guztien artean aldaketa-joera handienak erakusten dituzten datuak. HZren arabera, ordea, epealdi berean ia ez da aldatu euskararen etxeko erabilera, eta 1991ko maila bertsuan dago 2016an. Laburtuz, bada, euskararen erabileraren bilakaera positibo argia gertatu da Gipuzkoan ISLren eta HEKNren arabera, eta egonkor ageri da HZren arabera. Horrekin batera, jakina, aldatu egiten da gainerako herrialdeekiko alderaketan Gipuzkoak betetzen duen tokia: puntuetan izandako bilakaeran, Gipuzkoan aurreratu da beste inon baino gehiago ISL eta HEKNren arabera; zentsuen arabera, ordea, azken aurreko tokia betetzen du Gipuzkoak, Araba eta Bizkaiaren atzetik. Bilakaera erlatiboa aztertuta, Gipuzkoan aurreratu da gehien kale-erabileran Arabaren atzetik, baina Araba eta Bizkaiaren atzetik eta Nafarroaren aurretik azaltzen zaigu ISL eta HZren arabera.

Azken iruzkin bat iturri batzuek eta besteek hainbat kasutan ematen duten bilakaera-joera ezberdinaren inguruan. Alor batzuetako eta besteetako erabilera-datuak euren artean zer-nolako korrelazio handia izan ohi duten jakinda, zaila egiten zaigu pentsatzea erabilera-datuetan herrialdeetan antzeman diren aldeak egiaz ote diren azertu ditugun erabilera-eremuek erabileran izan dituzten bilakaera ezberdinen isla huts. Gu, behintzat, ez gara gai iturrien arteko alde horiek ikuspegi teoriko hutsetik azaltzeko. Lehenago ere esan dugun bezala, metodologiazko lanketa bat komeniko litzateke ulertzen saiatzeko eragiketa bakoitzak erabili dituen laginketa-, haztatze- eta esleitze-prozedurek nola eragin duten iturrien arteko alde horietan. Eginbehar hori, ordea, lan honen helburuetatik kanpo gelditzen da. Bien bitartean, lehenago ere nagusitasun-eremuen bilakaeraz aritu garenean azaldu ditugun argudioengatik, esango dugu sinesgarriagoa egiten zaigula Gipuzkoan gehiago aurreratu izana (HEKN eta ISLko datuek dioten bezala), eta ez Bizkaian gehiago aurreratu izana Gipuzkoan baino (HZk dioten bezala).

Nolanahi ere, hurrengo puntuetan eskualdeko eta udalerrietako bilakaerak aztertzerakoan kontuan hartu beharko ditugu orain aipatu ditugun joerak. Orain arte ikusitakoek zeharka erakusten digute, gainerako iturriekin alderatuta, ISLk erlatiboki bilakaera-datu hobek eman izan dizkiela EAEko lurraldeei Nafarroakoei baino; HEKNk gainerako iturriek baino joera hobea Nafarroari eta joera okerragoa Bizkaiari. Eta HZk gainerako iturriek baino joera hobea eman diola Bizkaiari eta okerragoa Gipuzkoari. Lehenago esan bezala, aurrera begira komeniko da alde horien arrazoi

teoriko eta metodologikotan sakontzea. Bitartean, zuhurtzia bereziz irakurri beharko dira datuok, eta iturri bakarrean oinarritzen diren irakurketak ez baina iturri ugaritakoak hobetsi beharko dira.

**G.118. GRAFIKOA: EUSKARAREN ERABILERA ETXEAN, HARREMAN INFORMALETAN ETA KALEAN, HERRIALDEAREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016**




**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko HZtik, 1989-2018ko HEKNtik eta 1991-2016 ISLtik abiatuta. Zehazki, HZ-006, HZ-007, HEKN-001 eta ISL-402 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan, 10. kapituluaren eta 11.4. puntuan). [Jatorrizko iturriak: EAEko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2022), Nafarroa Garaiko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak azterlanetako mikrodatuaren fitxategiak, NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak]

**Oharrak:** grafikoen Y ardatzeko eskalak aldatuta daude, herrialde bakoitzean ezberdintasunak argiago ikus daitezke. Nafarroako 1996ko eta 2006ko zentsuetako datuak bost urte lehenagoko eta bost urte geragoako datuen batez bestekoen bidez kalkulatu ditugu. Erabili ditugun ISL-402 adierazle sintetikoak A motakoa da (A eta B motako adierazle sintetikoak buruz, ikus 11.4.6. puntua).



**G.119. GRAFIKOA: ETXEKO, KALEKO ETA HARREMAN INFORMALETAKO ERABILERAN EUSKARAREN PISUAK IZAN DUEN BILAKAERA (1991-2016 ARTEKO ALDEA ETA ALDE HORREK ADIERAZTEN DUEN BILAKAERA ERLATIBOA), HERRIALDEAREN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko HZtik, 1989-2018ko HEKNtik eta 1991-2016 ISLtik abiatuta. Zehazki, HZ-006, HZ-007, HEKN-001 eta ISL-402 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan, 10. kapituluaren eta 11.4. puntuan). [Jatorrizko iturriak: EAEko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2022), Nafarroa Garaiko *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak]

**Oharrak:** Nafarroako zentsuei buruzko bilakaera-datuak 1991-2011 tarteari dagozkio. Erabili ditugun ISL-402 adierazle sintetikoak A motakoa da (A eta B motako adierazle sintetikoak buruz, ikus 11.4.6. puntua).

### 18.4.1.2. Arnasguneen pisuaren bilakaera herrialdez herrialde

T.70.-T.73. eta T.109.-T.112. tauletan, udalerrien erabilaren arabera multzo xeheek eta nagusitasun-eremuek herrialdez herrialde zer-nolako bilakaera izan duten ageri da, zentsuen eta HEKNren arabera. Hango datu xeheak batu, eta azken 20-25 urteotan arnasguneek herrialdeka izan duten bilakaera laburtzen ahalegindu gara G.120. grafikoan. Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian arnasguneetan bizi diren hiztunen multzoak herrialdeko hiztun guztiekiko osatzen duen pisuak zer-nolako bilakaera erlatiboa izan duen erakusten da horietan<sup>291</sup>; hots, multzo horren pisua zenbat handitu edo txikitu den hasieran zuen pisuarekiko.

Grafiko horretako datuak irakurrita, lehenagotik ere bagenekien joera bat agertzen zaigu berriro: HZko datuek ikuspegi *ezkorragoa* ematen digute HEKNkoek baino. Fenomeno hori herrialde guztietan gertatzen dela ikusiko dugu, eta ikusiko dugu, halaber, bi iturrien arteko aldeak Gipuzkoako kasuan direla inon baino handiagoak.


<sup>291</sup> Ipar Euskal Herriari buruz ez dugu datu baliagarririk gai hau aztertzeko eta Arabari buruzko informaziorik ez dugu grafiko horretan txertatu, arnasgune gisa sailagarria den udalerririk bakarrik dagoelako, Aramaio.

Bi iturriak, hala ere, bat datoz puntu honetan zehazki aztertu nahi dugun gaian: arnaguneek ez dute bilakaera-joera bera izan hiru herrialdeotan. Arnaguneen pisu demografikoak Gipuzkoan askoz hobeto eutsi dio Nafarroan eta Bizkaian baino; horretan bat datoz HZ zein HEKNko datuak. Herrialdez herrialde ikusita:

- Arnaguneen pisua Nafarroa Garaian jaitsi da gehien. Zentsuen arabera, erdira jaitsi da arnaguneen pisua herrialde horretan (-%53,5eko galera 1991-2011 aldian); HEKNren arabera, galera-prozesua ez da hain sakona izan (-%17,6ko galera 1991-2016 aldian).
- Antzeko datuak ditugu Bizkairako ere: arnaguneen ia erdiak galdu dira zentsuen arabera (-%48,1); zati txikiagoa HEKNren arabera (-%14,2).
- Gipuzkoak bilakaera ezberdina erakusten du aurreko bi herrialdeekiko: zentsuek beste herrialdeetan baino galera-prozesu ahulagoa erakusten dute. Iturri horren arabera, hala ere, 20 urtetan 1991ko pisuaren ia herena galdu dute herrialde horretako arnaguneek (-%31,7ko galera 2011rako). HEKNko datuek bestelako irudia eskaintzen digute, arnaguneen pisu demografikoa 2016an handiagoa baita 1991n baino (+%21,9).

Horrela, bada, badirudi arnaguneen atzerakada-prozesuak Nafarroa Garaia eta Bizkaiari eragin diotela nabarmenago, eta ez hainbeste Gipuzkoari.

**G.120. GRAFIKOA: ARNAGUNEEN PISU DEMOGRAFIKOAREN BILAKAERA, ETXeko ETA KALEKO ERABILERAN OINARRITUTA, HERRIALDEAREN ARABERA. NAFARROA GARAIA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA, 1991-2011/2016 (HASIERAN ZUEN PISUAREKIKO BILAKAERA, %ETAN ADIERAZITA)**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2011ko HZtik eta 1989-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HZ-209 eta HEKN-003 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.8.2.3. eta 10.7. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak; *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

### 18.4.2. Bilakaera eskualdeetan eta udalerrietan

T.172. taulan Hegoaldeko eskualdeetarako oinarritzko adierazle demolinguistiko batzuen bilakaera-datuak aurkeztu ditugu, zentsuetatik eta HEKNtik. Jarraian datu

horiek irakurtzeari ekingo diogu; lehenengo zentsuetako datuak eta ondoren HEKNkoak. Ikusiko dugun bezala, kasu honetan ere bi iturriek ez digute argazki berbera eskainiko.

#### 18.4.2.1. Etxeko erabileraren bilakaera eskualdez eskualde eta udalerrika, zentsuen arabera

G.121. eta G.122. grafikoetan, T.172. taulako etxeko erabileraren ataleko azken aurreko bi zutabeetako informazioa erakusten dugu. G.121. grafikoan, zehazki, 1991-2011<sup>292</sup> tartean etxeko erabileran euskarak izan duen pisuan zer-nolako bilakaera gertatu den jasotzen da (2011ko erabilera-tasari 1991ko erabilera-tasa kenduta). Informazio hori bera erakusten da M.6. mapan. Eta G.122. grafikoan, bilakaera horrek 1991ko erabilera-mailarekiko ageri duen bilakaera erlatiboa erakusten da. M.7. mapan, azkenik, etxeko erabileraren bilakaera udalerrika nola gertatu den erakusten da.


Informazio hori guztia aztertuta, joera nagusi bat antzematen da: eskualde eta udalerrri euskaldunenek galdu dute gehien; erdaldunenek irabazi dute gehien. Oro har, bilakaera positiboagoa erakusten dute datuek abiapuntua zenbat eta erdaldunagoa izan; eta bilakaera negatiboagoa zenbat eta euskaldunagoa izan (ondorio horretara iristen gara bai puntuak aztertuta eta baita bilakaera erlatiboari erreparatuta ere). Ondorioz, arnasguneetan jaitsi da gehien euskararen erabilera eta erdararen nagusitasuna handia zen udalerrietan igo da gehien, ezaugarri horietako eskualde eta udalerrietan irabaziak puntutan oso handiak ez diren arren. Eskualdeetara etorrira, puntuetan izandako galerei arreta jartzen badiegu (grafikoan ikus daitezke datuak), argi ikusten da 1991n erabilera handiena zuten eskualdeak direla, oro har, gehien galdu dutenak. Horrela, erabilera gehien jaitsi den lau eskualdeen artean ditugu bertako etxeetako erabileraren arabera 1991n arnasgune izaera zuten hiru: Gernika-Bermeo, Urola Kosta eta Lea-Artibai. Beste muturrean, etxeko erabileran igoerak izan dituzten eskualde guzti-guztiak jatorrian erabilera oso apalak zituztenak izan dira (eskualde horietan guztietan etxeko erabilera ez zen iristen %5era 1991. urtean). Ikuspegi hori bat dator guztiz 18.2. azpikapituluan nagusitasun-eremuen bilakaerari buruz esandakoarekin.<sup>293</sup>

---

<sup>292</sup> Metodologia-atalean azaldu dugun bezala, guk zuzenean landu dugun azken zentsua 2011koa izan da eta ez 2016koa, eta are gutxiago 2021ekoa. Ondorioz, zentsuko datuez ari garenean, nagusiki 2011ko datuak izango dira landuko ditugun berrienak, nahiz eta alderdi batzuetan 2016koak ere erabiliko ditugun. Horretaz gain, ondorioen atalean 2022ko urriaren 27an EUSTATEk argitaratu berri duen 2021eko zentsua ere hartuko dugu kontuan alderdi orokor batzuetan.


<sup>293</sup> Gogoratu behar da, hala ere, ikuspegi hori ez zela erabat berresten tarteko erabilera-mailak zituzten udalerrientzat HEKNren kale-erabilerari buruzko datuen gainean egindako ustiaketaekin.

**G.121. GRAFIKOA: ETXEKO ERABILERA EUSKARAREN PISUAK IZAN DUEN BILAKAERA, ESKUALDEKA (2011KO ERABILERA %, KEN 1991KO ERABILERA %). HEGOALDEA, 1991-2011**



Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**G.122. GRAFIKOA: ETXEKO ERABILERAN EUSKARAREN PISUAK IZAN DUEN BILAKAERA ERLATIBOA, ESKUALDEKA (1991 ETA 2011 ARTEKO ALDEAK, 1991KO ERABILERA-MAILAREKIKO OSATZEN DUEN %A). HEGOALDEA, 1991-2011**




Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitzategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Hango eta hemengo eskualde euskaldunagoetako bilakaeran arreta jarriz<sup>294</sup>, euskararen etxeko erabileraren atzerakada Bizkaiko eskualdeetan izan da handiena eta Gipuzkoakoetan txikiena, bilakaera erlatiboa islatzen duen G.122. grafikoa ikus daitekeen bezala. Bizkaiko eskualdeei erreparatuta, deigarria egiten da Plentzia-Mungia eskualderako zentsuko datuek zenbateko atzerakada ageri duten: 1991n euskarak zuen pisuaren herena galdu da 20 urtetan, eta etxeko erabileran euskarak zuen pisua %36,2tik %24,4ra jaitsi da. Hori da, nabarmen, Hegoaldeko eskualdeetan atzera gehien egin duena: -%32,6ko galera erlatiboa izan du, Iparraldean gertatu denaren antzekoa. Galera erlatibo handiak izan dituzte, halaber, Arratia-Nerbioi, Gernika-Bermeo eta Durangaldeko eskualdeek (-%20,6, -%18,4 eta -%17,5eko galera

<sup>294</sup> Paragrafo honetan, 1991. urtean euskararen etxeko erabilera %20tik gora zuten Hegoaldeko eskualde guztiak hartu ditugu kontuan.


erlatiboak, hurrenez hurren). Pentsa daiteke eskualde horietako galera handiek zerikusia izango zutela Bilbo Handiaren hurbiltasunarekin. Azterketa zehatzagoek frogatu beharko lukete, eta horregatik, hipotesi gisa planteatuko dugu oraingoz, baina ziurrenik, gune urbano nagusi horrekin eskualde horietako udalerriek dituzten fluxu demografikoek batetik eta eguneroko harreman arruntek bestetik (lana/ikasketak/erosketak/aisia), zerikusi ez txikia izango zuten jaitsiera horietan guztietan. Bizkaiko eskualde euskaldunago gehienetan baino jaitsiera apalagoak neurtu dira Arabako Gorbeia Inguruak eskualdean (-%17,7 galera erlatiboa) eta Nafarroako Ipar-Mendebaldean (-%15,4koa). Galera adierazgarriak gertatu dira Gipuzkoako eskualde euskaldunetan ere, baina gainerako herrialdeetako eskualde euskaldunenetan baino txikiagoak: Goierri, Tolosaldean, Debabarrenan eta Debagoienan %7-%10 bitarteko galera erlatiboak neurtu dira. Gipuzkoako galerarik handienak eskualde euskaldunenean gertatu dira: Urola Kostan -%14,9koa izan da 1991-2011 arteko bilakaera erlatiboa.

M.6. MAPA: ETXeko EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, ESKUALDEKA (2011ko ERABILERA %, KEN 1991ko ERABILERA %). HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2011



Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). Maparen irudia Datu Tailerrak sortu du ([www.datutailerra.net](http://www.datutailerra.net)). [Jatorrizko iturriak: Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

M.7. MAPA: ETXEKO EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, EAE-ko UDALERRIETAN ETA NAFARROA GARAICO EUSKALGEO ESKUALDEETAN (2011KO ERABILERA %, KEN 1991KO ERABILERA %), 1991-2011



Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-007 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.5. puntuan). Maparen irudia Datu Tailerrak sortu du ([www.datutailerra.net](http://www.datutailerra.net)). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: EAEko udalerrien informazioa udalerrri beraiei dagokie; Nafarroa Garaian Euskalgeoko eskualde bakoitzari dagokion informazioa esleitu diogu eskualde horretako udalerrri guztiei.

Azken iruzkin bat eskualde euskaldunagoetan gertatu den bilakaeraz: G.122. grafikoan eta M.6. mapan ikus daitekeen bezala, kostaldeko lau eskualde euskaldunenetan galera handiagoak izan dira barrualdeko eskualde euskaldunenetan baino.

Abiapuntu erdaldunena zuten eskualdeen artean, berriz, euskararen etxeko erabilerak gora egin du, lehenago ere esan dugu hori. Eskualde horien artean, oro har, gehiago aurreratu du euskarak herrialdeko hiriburua bere barruan biltzen ez zuten eskualdeetan, hiriburua barruan zutenetan baino, bilakaera erlatiboa erakusten duen

G.122. grafikoan ikus daitekeen bezala. Horrela, Bilbo Handian baino igoera nabarmen handiagoa izan da Enkartazioetan. Nafarroa Garaian ere, Iruñerrian baino gehiago igo da euskararen etxeko erabilera, termino erlatiboetan betiere, hegoaldeko lau eskualdeetan: Estellerrian, Tuteraldean, Nafarroa Erdialdeko Ekialdea hartzen duen eskualdean eta Erribera Garaian (horixe izan da, hain zuzen, zentsuko datuen arabera betiere, erlatiboki gehien aurreratu den Hego Euskal Herriko eskualdea, kopuruei begiratuta bertan dagoen erabilera-maila oraindik ere gure arteko txikienetakoa den arren). Arabaren kasuan, Gasteiz bere barruan biltzen duen Arabako Lautadan baino gehiago igo da euskararen etxeko erabilera honako eskualde hauetan: Arabako Ibarretan, Arabako Errioxan eta Arabako Mendialdean (azken hori izan da 1991-2011 artean, puntuei erreparatuz, bilakaera positiboena erakutsi duen Hegoaldeko eskualdea, G.121. grafikoan ikus daitekeen bezala). Badira Arabako Lautadarekin zerikusia duten beste bi alderdi aipagarri. Batetik, Iruñea-Bilbo-Gasteiz hiriburuak bere barruan biltzen dituzten hiru eskualdeetan gainerako biek baino bilakaera hobea izan duela Arabako Lautadak; G.121. eta G.122. grafikoetan ikus daiteke hori. Bestetik, aipatzeko modukoa da, eta hein batean azterketa honetan darabilgun eskualdekatzearen mugen adierazgarri da, bilakaera ezberdina antzematen dela Gasteizen bertan eta Arabako Lautada eskualdeko gainerako udalerrietan. Izan ere, Gasteiz hiriburuan izan den bilakaera positiboa baino askoz hobea gertatu da Lautadako gainerako udalerrien multzoan. Gasteizen etxeko erabilera 1991ko %2,3tik 2011ko %4,6ra igo da (+%97,6ko bilakaera erlatiboa), eta Lautadako herrietan, berriz, %1,8tik %6,4ra (+%261,4ko bilakaera erlatiboa).

#### 18.4.2.2. Kaleko erabileraren bilakaera eskualde batzuetan, HEKNren arabera

Gai bera HEKNko datuen bidez aztertuko dugu hemen. Emaitzak azaltzen hasi baino lehen, esan beharra dago eragiketa honen eskualdekako laginen neurriak asko aldatzen direla eskualde batetik bestera, eta eskualde batzuetan ez dagoela nahiko laginik akats-tarte onargarri baten barruan hitz egin ahal izateko. Gure kasuan, T.172. taulako oin-oharrean genioen bezala, gutxienez 1.600 pertsonako lagin behatua duten eskualdeetako datuak erabiliko ditugu. Ondorioz, eskualde batzuk (oro har, populazio txikiena dutenak) ez dira azalduko puntu honetako grafiko eta iruzkinetan.

Lurraldeetako erabileraren berri ematen diguten bi datu multzoak lantzen ari gara hortaz, HZkoak eta HEKNkoak; jarraitu aurretik, gogora dezagun lehenago nagusitasun-eremuen bilakaeraz aritu garenean esandakoa: bi iturrietako datuen metodologiazko lanketa sakonagoaren zain, printzipioz egiantz handiagoa hartzen diegula HEKNko datuei zentsuetakoei baino. Behin hori esanda, oraingo honetan, zentsuetako etxeko erabileraren bilakaerari buruz esandakoetatik abiatuko gara, eta HEKNko informazioak ikuspegi bera berresten duen edo ez argituko dugu. Ikusiko dugun bezala, alderdi batzuetan bat datoz bi iturrietan oinarrituta egin ditzakegun irakurketak, ez ordea guztietan.

Zentsuetako datuak aztertuta, joera nagusi baten bidez laburtzen genituen eskualdekako erabileraren bilakaerari buruzko datuak: 1991n euskaldunagoak ziren eskualdeetan jaitsi da gehien euskararen etxeko erabilera eta erdaldunagoak zirenetan




igo da gehien erabilera hori. HEKNko datuek ez dute ikuspegi hori berresten; kale-erabileraren eskualdekako bilakaera-datuek ez dute horrelako erregulartasun argirik erakusten, gaiaren inguruko G.123. eta G.124. grafikoetan eta M.8. mapan ikus daitekeen bezala. Horrela, bilakaera puntutan neurtuta, arnagune izan gabe batez bestekoa baino dezente euskaldunagoak diren bost eskualdek erakusten dituzte daturik onenak: Gipuzkoako Tolosaldeak, Goierrik, Debarrenak eta Debagoienak eta Nafarroako Ipar Mendebaldeak. Bost eskualde horietan 5 eta 10 puntu bitartean egin du gora euskararen kaleko erabilerak 1991-2016 aldian. Abiapuntuan arnagunearen maila zuten bi eskualdeetan, Lea-Artibain eta Urola Kostan ez da hain bilakaera onik antzematen, baina atzera ere ez du egiten euskararen kaleko erabilerak. Bilakaera okerrenak izan dituzten bi eskualdeak batez bestekoa baino askoz euskaldunagoak diren Gernika-Bermeo eta Plentzia-Mungia izan dira. Jatorrian erdaldunagoak ziren eskualdeak bi mutur horien erdian azaltzen zaizkigu, erabileraren igoera apalekin, galerak erakusten dituen Bilbo Handia salbu.

Bilakaera-joera erlatiboari erreparatuta ere, G.124. grafikoan ikus daitekeen bezala, erabileran gehien igo diren lau eskualdeak Araba eta Nafarroako eskualde jatorriz erdaldunak dira: Arabako Lautada, Tuteralea, Kantauri Arabarra eta Iruñerria. Beste muturrean, Bilbo Handia eskualdeak erakusten du jaitsiera erlatibo handiena kaleko erabileran. Eta bi mutur horien artean, eskualde euskaldunagoak eta erdaldunagoak tartekatzen dira. Horrela, bada, HEKNko datuek ez dute berresten HZk ematen zigan irudi argi hori, zeinaren arabera, ia modu linealean, eskualde euskaldunagoetan euskararen erabilerak atzera egiten duen eta erdaldunagoetan aurrera.

Behin hori esanda, HZik ateratzen genituen gainerako ondorio batzuk berrestera datoz HEKNren datuak ere, orain azalduko dugun bezala. Horrela, zentsuetan ikusten genuen Gipuzkoako eskualde euskaldunagoetan hobeto eutsi zitzaioala erabilerari eta Bizkaikoetan okerrago. Ikuspegi hori berretsi egiten da guztiz HEKNren datuekin. Berretsi ez ezik, indartu ere egiten da, bilakaeretan dauden aldeak handiagoak baitira HEKNko datuetan oinarrituta zentsuetan oinarrituta baino. Deigarria egiten da, bereziki, Urola Kosta arnaguneari izan ezik, Gipuzkoako gainerako eskualde euskaldunagoetan zer-nolako igoera ageri duen erabilerak. Joera hori jaso du HEKNk Tolosaldean eta Goierrian (10 puntuko igoera bi eskualdeotan), Debarrenan eta Debagoienan (5-6 puntuko igoera). Gipuzkoako gainerako eskualde ez hain euskaldunek ere, Donostialdeak eta Bidasoa Behereak, joera positibo argia erakusten dute. Bizkaiko eskualde euskaldunagoen bilakaera, berriz, bestelakoa da: Bizkai mendebaldeko Lea-Artibai eta Durangalea eskualdeetan 2 puntu igo da euskararen erabilera, eta Gernika-Bermeon eta Plentzia-Mungian 2 puntuko galera ageri dute datuek. Nafarroako eskualde euskaldunena, azkenik, Ipar Mendebaldeak, 6 puntuko igoerarekin, Gipuzkoako dinamika positibotik gertuago azaltzen zaigu Bizkaiko bilakaeratik baino.


Eskualde euskaldunagoei buruz ari garela, HEKNko datuek ere berretsi egiten dute HZn oinarritzen genuen beste ondorio bat: oro har, bilakaera hobea izan dute barrualdeko eskualde euskaldunek kostaldekoek baino.

**G.123. GRAFIKOA: KALEKO ERABILERAN EUSKARAREN PISUAK IZAN DUEN BILAKAERA, HAINBAT ESKUALDETAN (2016KO ERABILERA %, KEN 1991KO ERABILERA %). HEGOALDEA, 1991-2016**




Iturria: egileak landua, 1989-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HEKN-001 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10.7. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

G.124. GRAFIKOA: KALEKO ERABILERAN EUSKARAREN PISUAK IZAN DUEN BILAKAERA ERLATIBOA, HAINBAT ESKUALDETAN (1991 ETA 2016 ARTEKO ALDEAK, 1991KO ERABILERA-MAILAREKIKO OSATZEN DUEN %A). HEGOALDEA, 1991-2016



Iturria: egileak landua, 1989-2018ko HEKNtik abiatuta. Zehazki, HEKN-001 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10.7. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabileraren neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

M.8. MAPA: KALEKO EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA, ESKUALDEKA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1991-2016



Iturria: egileak landua, 1989-2018ko HEKNetatik abiatuta. Zehazki, HEKN-001 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 10.7. puntuan). Maparen irudia Datu Tailerrak sortu du ([www.datutailerra.net](http://www.datutailerra.net)). [Jatorrizko iturria: *Soziolinguistika Klusterraren erabilerearen neurketen datu-basea, 1989-2018.*]

Zentsuetako datuekin, eta eskualde jatorriz erdaldunagoez ari ginela, beste ondorio bat zen herrialdeko hiriburua barruan biltzen duen eskualdeek baino bilakaera erlatibo hobia izan dutela herrialdeko gainerako eskualdeek. HEKNko datuek ez dute ikuspegi hori ez berresten ezta ezeztatzen ere. Bizkaiko kasuan, Enkarterri buruzko daturik ez dugunez, ez daukagu Bilbo Handiarentzat erreferentzia-puntu baliagarririk. Arabaren kasuan, HEKNko datuek bilakaera-joera bertsua ematen dute Arabako Lautada eta Kantauri Arabarra eskualdeentzat; puntutan bilakaera bera dute bi eskualde horiek eta termino erlatiboetan Gasteiz barnebiltzen duen Lautadak bilakaera apur bat hobia ageri du Kantauri Arabarrak baino. Nafarroa Garaia kasuan ere ez da alde argirik sumatzen: Iruñerriak joera apur bat okerragoa erakusten du Tuteraleak baino, baina Erribera Garaiak eta Estellerriak baino hobia. Laburtuz, bada, zentsuekin antzematen den joera hori, hiriburua biltzen duen eskualdean euskararen bilakaera ez hain positiboa izatea alegia, ez daiteke baieztatu HEKNko datuekin.

Azkenik, Araban, Bizkaian eta Nafarroa Garaian hiriburua bere barruan biltzen duten eskualdeak elkarren artean alderatuta, eta bilakaera erlatiboei jaramon eginda, bi iturriak, zentsuak eta HEKN, bat datoz: hiru eremu horien arteko bilakaera onena Arabako Lautadan gertatu da eta kaskarra Bilbo Handian. Iruñerriko bilakaera bi eskualde horien artean azaltzen zaigu.

### 18.4.3. Ipar Euskal Herriaz bi hitz

Kapitulu honetan, lurraldean nagusitasun-eremuek eta euskararen erabilerak izan duten bilakaeraz aritzerakoan, Hego Euskal Herrira mugatu dugu azterketa, Iparraldean ez dagoelako udalerrri-mailako informazio demolinguistikoa eskaintzen duen iturririk. Hutsune hori ordezkazina da, tamalez, gaur-gaurkoz. ISLk, ordea, Ipar Euskal Herria hiru zonalde soziolinguistiko handitan sailkatzen du, Baiona-Angelu-Miarritze (BAM), Lapurdiko barnealdea eta Nafarroa Beherea-Zuberoa, eta horrek aukera ematen digu gaira lehen hurbilpen bat egiteko, Hegoaldeko lurraldekako azterketarekin zuzenean alderagarria izango ez bada ere. Iparraldeko hiru eremu horietan harreman informaletako erabileran euskararen pisuak 1996-2016 tartean zer nolako bilakaera izan duen aurkezten da T.174. taulan eta G.125. grafikoan. Bertan ikus daitekeen bezala, hiru eremu horietan guztietan egin du nabarmen behera euskararen erabilerak. Ingurune euskaldunenean, hau da Nafarroa Beherean eta Zuberoan, galdu du gehien euskarak: bilakaera puntutan neurtuta, euskararen pisua %41,1etik %28,0ra jaitsi baita hogeitaz urteren buruan. Terminu erlatibotan, ordea, eremurik erdaldunenean izan da galerarik handiena, Baiona-Angelu-Miarritzen (-%43,5). Dena den, joera nahiko antzekoa da hiru eremuetan. Joera hori, gainera, bat dator orokorrean HEKNko datuek Iparralde osorako eskaintzen digunarekin (ikus T.173. taula).

Bi iruzkin gehiago gaiaren inguruan: esan dugun bezala, datuok zuzenean alderagarriak ez diren arren Hegoaldeko eskualdeetarako landu ditugunekin, gaingiroki esan daiteke Iparraldeko zonaldeetako bilakaera Euskal Herri osoko eskualdeetan ageri den kaskarrenetakoa dela. Nafarroa Beherea-Zuberoa eremuan euskarak izan duen galera Plentzia-Mungia Bizkaiko eskualdeak izan duenaren antzekoa da, eta horixe da Hegoaldeko zentsuen arabera etxeko erabileran euskarak sakonen atzera egin duen eskualdea. BAM eta Lapurdi Barnealdeko galerak ere puntu gehien galdu dutenen artean azalduko litzaizkiguke, eta erlatiboki gehien galdu duten zonaldeen artean kokatuko liriateke.

Bigarren iruzkina: aurreko lerroetako alderaketak 1996ko eta 2016ko erabilera-mailak alderatuz egin ditugu. Bosturteko bosturteko datuei begiratuta, ondorio interesgarri honetara iritsi gaitzke: galerarik handienak joan den mendearen eta oraingoaren mugako urteetan gertatu zirela dirudi, 1996-2001 bitartean ISLren arabera eta 1996-2006 artean HEKNren arabera. Hortik aurrera ere, euskararen pisuak atzera egiten jarraitu du erabileran, baina lehen baino dezente polikiago. Interesgarria litzateke datu horiek lurralde horietako migrazio-fluxuekin batera aztertzea. Izan ere, azken urteotan Ipar Euskal Herrira nagusiki Frantziatik zenbat etorkin iritsi den jakinda (Gaindegia, 2020), pentsa daiteke jatorriz bertakoa den komunitatearen erabilera-maila

egonkortzetik gertu egongo dela. Hori, hala ere, hipotesi gisa planteatzen dugu oraingoz.


**T.174. TAULA: HARREMAN INFORMALETAN EUSKARAREN ERABILERA %ETAN ADIERAZITA, ZONALDEKA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, IPAR EUSKAL HERRIA, 1996-2016**

	1996	2001	2006	2011	2016	1996-2016 aldea	Bilakaera 1996-2016 (%)
BAM	3,3	2,4	3,2	3,3	1,8	-1,4	-43,5
Lapurdi Barnealdea	15,4	12,2	12,8	11,1	10,2	-5,2	-34,0
Nafarroa Beherea / Zuberoa	41,1	32,7	35,0	29,5	28,0	-13,1	-32,0
<b>Ipar Euskal Herria</b>	<b>14,0</b>	<b>10,9</b>	<b>11,8</b>	<b>10,4</b>	<b>9,1</b>	<b>-4,9</b>	<b>-35,0</b>

Iturria: egileak landua, 1996-2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-402 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.4.3. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: erabili dugun ISL-402 adierazle sintetikoa A motakoa da (A eta B motako adierazle sintetikoei buruz, ikus 11.4.6. puntua).

**G.125. GRAFIKOA: HARREMAN INFORMALETAN EUSKARAREN ERABILERA %ETAN ADIERAZITA, ZONALDEKA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, IPAR EUSKAL HERRIA, 1996-2016**



Iturria: egileak landua, 1996-2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-402 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.4.3. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: erabili dugun ISL-402 adierazle sintetikoa A motakoa da (A eta B motako adierazle sintetikoei buruz, ikus 11.4.6. puntua).


## 18.5. HIZTUNEN HURBILEKO HARREMAN-SAREAREN EUSKALDUNTASUNA

✓ *Euskaldunek euren eguneroko bizitzan duten harreman sarean zenbatekoa da mintzakide euskaldunen pisua?*

Orain arte, hiztunen testuinguru demolinguistikoari buruzko kapitulu honetan, ikuspegi makro batetik aritu gara hiztunen bizitzaren testuingurua osatzen duten errealitateez. Ikusi dugun bezala, udalerrri-mailako testuinguru demolinguistiko makro horrek baldintzatuko du hiztuna bizi den ingurune geografikoan bizikide dituen hiztunen hizkuntza-gaitasuna, euskara erabiltzeko izango duen aukera eta erabilera-maila, besteak beste. Orain, azken azpikapitulu honetan, ikuspegi mikroago batetik heldu nahi diogu gaiari.

Hasteko, erabilerari buruzko kapituluaren 15.4.1. puntuari aurkeztu dugun alderdi bati helduko diogu: hiztunen aurrez aurreko harreman-sareko mintzakideetatik zenbaterik dakiten euskaraz eta zenbaterik ez. Alderdi garrantzitsua da, lotura estua duelako hiztunek euskara erabiltzeko duten aukerarekin. Puntu hartan ikusten genuen batez beste hiztun euskaldunen sare hurbila osatzen duten hiztunen %70,3 direla euskaldunak eta gainerako %29,7k ez dakitela euskaraz hitz egiten. Batez bestekoak horiek izanik, maiztasunen banaketa G.126. grafikoan aurkezten dugu. Ikus daitekeen bezala, euskal dentsitate handiko ingurune hurbiletara lerratuta azaltzen zaigu banaketa: euskaldunen bi herenentzat baino gehiagorentzat (%69,7rentzat) %60tik gorakoa da euren ingurune hurbilean euskaraz dakiten hiztunen pisua.

**G.126. GRAFIKOA: EUSKALDUNAK, EUREN AURREZ AURREKO HARREMAN-SAREAN EUSKARAZ DAKITEN HIZTUNEK DUTEN PISUAREN ARABERA. 16 URTETIK GORAKO HIZTUN EUSKALDUNAK, EUSKAL HERRIA, 2016**



**Iturria:** egileak landua, 1996-2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-414 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.4.5. puntuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** erabili dugun ISL-414 adierazle sintetikoa A motakoa da (A eta B motako adierazle sintetikoei buruz, ikus 11.4.6. puntua).

Lehen begiratu batean, eman dezake euskaldunen hurbileko harreman-sarea oso edo nahiko euskalduna dela kasurik gehienetan, eta pentsa daiteke, euskaldunak euskaraz egiteko aukera handia izango duela egunerokoan. Gaia sakonago aztertuta, zalantzan jarri beharra dago ikuspegi hori, honako hiru arrazoi hauengatik:

Lehenik, kalkulu sendoak egin nahi izatekotan, ezin dugu ahaztu, 8.6. puntuari esaten genuen bezala, norbere eta inguruko hizkuntza-gaitasuna hanpatzeko joera dagoela

inkestetan. Beraz, pentsa daiteke alboratze horrek ere eragingo zuela galdera horietan eta, berez, hor azaltzen dena baino txikiagoa izango dela inguruko euskaldunen multzoa.

Bigarrenik, gogoratu beharra dago grafikoan erakutsitako harreman-sarearen osaerak ez duela mekanikoki finkatzen euskaldunek euren egunerokotasunean euskara erabiltzeko izango duten aukera. Izan ere, 16.3. puntuan ikusi dugun bezala, batzuetan bakarkako harremana izaten da baina beste batzuetan multzokakoa, lagunartean edo lankideen artean adibidez, eta horietan euskaldunen kopurua baino txikiagoa izango da euskara erabiltzeko aukera, aldi berean euskaldunak eta euskaraz ez dakiten hiztunak taldean elkartzen direnean erdarara jotzea baita arruntena. Puntu horretan azaltzen genuenez, hurbileko sarean euskaldunak batez beste %70,3 diren arren, euskaraz egiteko batez besteko aukera %62,9aren ingurura jaisten da, egindako kalkuluen arabera.

Hirugarrenik, kontuan hartu behar da honako hauek inguruko harreman-sare hurbilekoari buruzko datuak direla. Eta hor ez direla sartzen hedabideen, ikus-entzunezkoen, Interneten eta kultur kontsumoaren munduak, non ia hutsaren hurrengoa den euskarazko eskaintza, gaztelaniaz/frantsesez/ingelesez egiten denaren aldean.

Aurrera begira, interesgarria litzateke hiru alderdi horiek kontuan hartuta, euskaldunek euren egunerokotasunean euskaraz bizitzeko zenbateko aukera duten kuantifikatzea. Eta zehaztea zenbat diren, nahi izanda ere, nagusiki euskaraz bizitzeko aukera ez duten hiztunak. Pentsatzekoa da puntu horretan erakutsi dugun grafikoak zuzenean iradoki dezakeena baino dezente apalagoa izango direla nagusiki euskaraz bizi ahal diren hiztunen multzoak. Ondorioen atalean behin behineko zenbakizko hurbilpen bat egingo dugu aipatu ditugun hiru arrazoietatik lehenengo biak aintzat hartuta.

Gaiaren inguruko azken ohar bat: hurbileko harreman-sare mikroaren osaerak lotura estua du testuinguru demolinguistiko makro orokorrarekin. Horrela, adibidez, arnagune beteetako euskaldunen %92,4k hurbileko harreman-sare ia erabat euskalduna dute (ingurukoaren artean euskaldunak %80 baino gehiago dituzte). Kopuru hori %84,0ra jaisten da arnagune erasenetako euskaldunen artean, %74,9ra nagusitasun argirik gabeko eremuetan bizi direnen artean, %58,6ra erdararen nagusitasun ez erabateko eremuetakoen artean eta %18,6ra erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi direnen artean.



# 19. HIZKUNTZA-SOZIALIZAZIOA, FAMILIAKO TRANSMISIOA

Atal teorikoaren 3.6. puntuan ikusi dugun bezala, hizkuntzaren une bateko egoera eta etorkizunari begira dituen espektatibak finkatzeko orduan funtsezko alderditzat jotzen da belaunez belauneko transmisioa Fishmanez geroztik (1991). Horrela, familiako transmisioa eta, zabalago hartuta, hizkuntza-sozializazioa funtsezko prozesuak dira hizkuntza-jarraipena gerta dadin eta hiztun-komunitate batek bizirik jarrai dezan. Nazioarteko zein Euskal Herriko demolinguistikan lehen hizkuntzaren aldagaiaren bidez landu izan da nagusiki gai hori. Gu ere lehen hizkuntzaren azterketa laburra egitetik abiatuko gara. Ondoren, gurasoekiko eta seme-alabekiko erabilera ohiturak aztertuko ditugu. Batetik, saiatuko gara seme-alabekiko erabilera-ohiturak gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera aztertzen, eta bestetik, saiatuko gara nazioarteko erreferentzia batzuk bilatzen gurean euskarak transmisio-prozesuetan zer-nolako tokia duen baloratzen laguntzeko.

## 19.1. BELAUNALDI BERRIEN LEHEN HIZKUNTZA

- ✓ *Haur txikiekiko lehen urteetako sozializazio-prozesuek zer egiten dute gaur egun, euskara indartzearen edo ahultzearen alde?*
- ✓ *Zer-nolako bilakaera-joera antzematen da azken urteotan?*

Lan honetako atal enpirikoa hasteko, Euskal Herrian azken mendean jaio diren haurrek euren bizitzako lehen urteetan zein hizkuntza erabili duten eta horretan zer-nolako bilakaera izan den aztertu dugu luze eta zabal. Asko laburtuta, ikusi dugu lehen hizkuntzan euskarak zuen pisua %41,0 ingurukoa izan zitekeela XX. mendearen hasieran Hegoaldean, hortik balio oso apaletara jaitsi zela 1970eko hamarkadan (%18aren ingurura) eta gero gora egin zuela, 1996ko %27,2ra iritsi arte. 1996 eta 2021 bitarteko datuek erakusten dute hortik aurrera ez zela euskararen pisua handitu (%26,5n kokatu zen 2021. urtean, gure kalkuluen arabera).

Lehen hizkuntzaren aldagaia, uneko argazkia egiteko ez ezik, hiztun-komunitateen hazkunde/gutxitze prozesuak aztertzeko ere erabili izan da erruz, belaunaldien arteko aldeetan arakatuta. Izan ere, H1en euskarak duen pisua datu garrantzitsua izanik ere, hori bezain garrantzitsua izan daiteke belaunaldi batetik bestera H1 nola aldatu den begiratzea. G.127. grafikoan bi adin multzo hartu ditugu: haur txikien adin-multzo bat, 5-9 urtekoa zehazki, eta gutxi gorabehera haur horien gurasoen belaunaldia ordezka

dezakeen 35-39 urte bitartekoen multzoa<sup>295</sup>. Multzo horietarako, urtez urte euren lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisua erakusten da ehunekoen bidez EAEn eta Nafarroa Garaian.

Grafiko horri erreparatuta, hiru alderdi azpimarratu nahi ditugu. Lehenik, datuek erakusten dute epealdi osoan, bai EAEn eta baita Nafarroa Garaian ere, nagusiki erdara transmititu izan zaiela etxeetan haurrei.

Bigarrenik, ordea, ikus dezakegu EAEn 1986ko datuaren salbuespenarekin, gainerako urte guztietan, bai EAEn eta baita Nafarroa Garaian ere, handiagoa dela haur txikien lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisuaren %a gurasoen erreferentzia-multzoan izan zuena baino. Garrantzi handiko datua da hori; datu baikorra hizkuntzaren jarraipenaren eta indarberitzearen ikuspegitik. Har ditzagun eskura ditugun datu berrienak: 2021. urtean EAEn 5-9 urte bitarteko haurren multzoan euskarak euren lehen hizkuntzan izan zuen pisua %30,4koa zen; euren gurasoen erreferentzia gisa hartu dugun 35-39 multzoaren lehen hizkuntzan, berriz, %18,1eko pisua besterik ez zuen izan euskarak. Nafarroako 2011ko datuek %10,7ko pisua ematen diote euskarari 5-9 urteko haurren lehen hizkuntzan eta %6,3koa 35-39 multzoari. Horietan oinarrituta, Hegoalde osoko datuak dio 2021an Hegoaldeko<sup>296</sup> 5-9 urteko lehen hizkuntzan %25,7ko pisua izan zuela euskarak, 35-39 urte bitartekoen artean zuena baino dezente handiagoa, %14,8koa zen eta. Horrek esan nahi du belaunaldiarteko ikuspegiz begiratuta, gurasoen belaunaldiak txikitzen jaso zuen euskara baino euskara gehiago jaso duela seme-alaben belaunaldiak. Eta esan nahi du, zeharka bada ere<sup>297</sup>, H1 euskara izan ez zuten gurasoen multzo adierazgarri batek hizkuntza hori darabilela etxean haur txikiak hazteko orduan.

Hirugarrenik, EAEn datuen bilakaerari erreparatuz ikusten da haurren artean lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisua igo egin zela, 1986ko %20,3tik 2006ko %30,1eraino. Hortik aurrera, ordea, jaitsi egin zen euskararen pisua, 2016ko %27,8raino, eta berriro igo, 2021eko %30,4ra. Nafarroa Garaian 2011n lortu ziren serieko daturik onenak.

Bilakaerari buruzko beste joera aipagarri bat, honako hau: gehien igotzen ari dena haurrak bi hizkuntzetan hazteko ohitura da: Hegoaldeko 5-9 urteko haurren artean lehen hizkuntza euskara (bakarrik edo nagusiki) izan dutenen kopuru handiena 2001. urtean izan zen (%19,2); hortik aurrera, kopuru txikiagoetan egon da ezaugarri hori duten haurren multzoa (%17,4koa izan zen 2021ean, gure kalkuluen arabera). Aitzitik,

---


<sup>295</sup> Haurren kasuan 5-9 urtekoak hartzen ditugu, hori baino adin txikiagoko haurren datuetan areagotu egiten delako batzuetan koherentzia handirik gabeko datuak topatzeko arriskua. Gurasoen errealitatearen isla izateko, 35-39 urteko multzoa hartu dugu, haurrena baino 30 urte gehiagoko adin-multzoa alegia. Datu xeheti begiratuta, egiten dugun azterketaren ondorioak ez lirateke askorik aldatuko bosturteko bat gora edo behera hartuz gero gurasoen erreferentzia-multzoa.

<sup>296</sup> Hegoaldeko datuak EAEn 2021eko zentsuetako datuak eta Nafarroa Garaiko 2011koak batuta sortu ditugu. Herrialde horretako 2021eko zentsuko datuak argitaratutakoan, kopuru horiek berriro egin beharko dira.

<sup>297</sup> Zeharka diogu, atal teorikoan ikusi dugun bezala, Hegoaldeko zentsuetan lehen hizkuntzaz galdetzen denean orokorrean galdetzen delako 3 urte arte erabili izan den lehen hizkuntzaz, ez zehazki etxean erabilitakoaz.

lehen hizkuntza gisa euskara eta gaztelania izan dituztenak etengabe igo dira azken 35 urteotan, 1986ko %7,3tik 2021eko %16,3ra.

**G.127. GRAFIKOA: LEHEN HIZKUNTZAN EUSKARAK IZAN ZUEN PISUA (%ETAN ADIERAZITA), 5-9 ETA 35-39 URTEKO HIZTUNENGAN. EAE ETA NAFARROA GARAIA, 1986-2021**



Iturria: egileak landua, 1991-2021eko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-005 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.4. puntuan). [Jatorrizko iturriak: EAEko Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak (EUSTAT, 2022), Nafarroa Garaiko datuak EASetik hartu ditugu (Eusko, Jaurilaritza-Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2022)].

Aurkeztu ditugun datu horiek guztiz koherenteak dira gaiari buruz gurean egin izan diren beste ikerketa demolinguistiko batzuekin. Zentsu eta ISLko datuetan oinarrituta berariaz aztertu izan da transmisioaren gaia. 2016an ISLk gaiaren inguruan EAERako eman zituen datuak irakurrita, argi antzematen da gurasoen gaitasunaren eta lehen hizkuntzaren arabera, nola ez, aldatu egiten dela seme-alabei transmititzen zaien hizkuntza. Horrekin batera, ordea, gurasoek euren jatorrizko H1ean baino euskara gehiago transmititzeko joera ere argi antzematen da datuetan (SIADeco, 2021: 45). Gurasoen belaunaldian parekidetasunetik gertu egon daitekeen bikote-tipologia hartuta ikusten da argien esaten ari garen hau. Horrela, bikotekide batek lehen hizkuntza euskara eta besteak erdara izan duten bikote elebidunen seme-alaba gehienek (%70,7) euskara jaso zuten lehen hizkuntza gisa eta oso gutxi erdara (%5,0); bi hizkuntzak jaso zituzten gainerako %24,3ek. Banaketa hori oso lerratuta dago euskararen aldera, bikote mota horren jatorriaren arabera osaera parekide samarrak pentsaraziko lukeenetik urruti.

Bikoteak jatorriz hain parekideak ez direnetan, euskaldun zaharrez osatutako bikoteek ia erabat euskara transmititzen dute lehen hizkuntza gisa (%93,6k hain justu); euren lehen hizkuntza gaztelania izan zuten bikote elebidunen tipologiak, ordea, ez zien euren jatorrizko hizkuntza hori transmititu nagusiki euren seme-alabei. Alderantziz, euskaldunberriez osatzen diren bikoteen %45,3k euskara transmititu zieten euren seme-alabei, %35,4k bi hizkuntzak eta %19,4k besterik ez gaztelania. Bikotekide bat euskalduna eta bestea erdalduna zituzten bikoteetan ere, jada gaztelaniak pisu

handiagoa hartzen badu ere (ezin bestela izan, bikotekide batek euskara ez dakienean), ohargarria da oraindik seme-alaben hizkuntzan euskarak zenbateko pisua duen. Joera horiek ez dira berri-berriak. Funtsean, joera horiek berak antzematen ziren, 2001eko zentsuko datuetan oinarrituta, 2-29 urte bitarteko seme-alaben lehen hizkuntza, euren gurasoen gaitasuna eta lehen hizkuntzaren arabera aztertu zenean (Eusko, Jaurilaritza-Kultura Saila, 2008: 57).

ISLko eta zentsuetako lehen hizkuntzari buruzko datuek, bada, argi uzten dute azken 2-3 hamarraldietan, hizkuntza-transmisioan gaztelaniak/frantsesak nagusi izaten jarraitzen badute ere, euskara gehiago transmititu izan dela belaunaldi berrietara, gurasoen lehen hizkuntza automatikoki transmitituta lortuko litzatekeena baino. Ez da garrantzi gutxi datua.

## 19.2. GURASOEN ERABILERA SEME-ALABEKIN, EUREN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA

✓ *Zer esan dezakegu seme-alabekiko erabilera ohiturak gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera aztertuta? Gertatu al da bilakaera aipagarriko alderdi horretan?*

15.2. puntuan ikusi dugu euskarak zer-nolako tokia betetzen duen gurasoek euren seme-alabekin egiten duten erabileran: 2016ko datuen arabera, %16,3koa zen euskararen batez besteko pisua guraso guztiak aintzat hartuta, eta %73,1ekoa guraso euskaldunak soilik aintzat hartuta. Ikusi dugu gainerako rol-harreman eta espazio gehienetan baino gehiago jotzen dutela hiztunek euren seme-alabekin euskaraz egitera. Alde hori, aurreko puntuan azalduko datuak bezala, euskal hiztunen zati garrantzitsu baten transmisio-grina handiaren adierazle gisa har dezakegu.


Bide horretan sakondu nahirik, gurasoek euren hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta seme-alabekin egiten duten euskararen batez besteko erabilera aurkezten dugu G.128. grafikoan. Kasu honetan, guraso belaunaldi berrien portaera ezagutzeak duen interesagatik, 50 urte baino gutxiagoko gurasoetara mugatu dugu ustiaketa. Horrela eginda, zehatzago jakingo dugu egungo haur, nerabe eta gazteen gurasoek zer-nolako erabilera-ohiturak dituzten seme-alabekin, guraso horien erabilera-datuak guraso zaharragoen ohiturekin desitxuratu gabe. Irizpide horiekin eraiki dugu G.128. grafikoa. Bertan ikus daitekeen bezala:

- Euskal nagusitasunezko hiztunek (euskaraz errazago egiten dutenek) ia erabat egiten dute euskaraz seme-alabekin. Euskararen batez besteko erabilera %95,4an azaltzen zaigu; hiztun horietan erdararen erabilera guztiz bazterrekoa da euren seme-alabekiko harremanetan (izan haur, nerabe edo gazte).
- Aurreko multzoaren bidetik ere, nagusitasun argirik gabeko hiztun elebidunen artean oso handia da euskararen erabilera; %90,2ko pisua du euskarak batez beste seme-alabekiko erabileran. Gogoratu dezagun zein den hiztun multzo horren ezaugarria: euskaraz eta erdaraz erraztasun maila bertsuarekin aritzen da. Logikaz, hortaz, eta komunikazioaren erosotasun-irizpide hutsei jarraituta,

euskara-erdaren pisua pareko samarra izatea espero zitekeen. Horren ordez, euskal aldera sendo lerratutako praktika topatu dugu. Kopuru horrek islatzen du hiztun multzo horrek borondate argia duela euskara seme-alabei transmititzeko.

- Erdal elebidunek, euskaraz ere hitz egiten jakin arren erdaraz hobeto moldatzen diren horiek, euren seme-alabekin ari direnean batez beste %55,7ko pisua ematen diote euskarari eta %44,3koa erdarari. Batez besteko kopuru horiek, jakina, askotariko hiztunen portaera askotarikoen batez bestekoak dira: erdal elebidunen artean badira euren seme-alabekin euskara hutsez jarduten diren hiztunak, bietara jarduten direnak eta erdara hutsez jarduten direnak ere bai. Nolanahi, multzo bezala hartuta, aipagarriena zera da: hiztun horientzat guztientzat erosotasun-ikuspegi huts batetik errazena eta erosoena euren seme-alabekin erdaraz jardutea izango litzatekeen arren, euren arteko multzo nagusi baten portaera bestelakoa dela, eta euskaraz edo elebitan aritzen direla seme-alabekin. Kasu horretan ere, kopuru horiek islatzen dute hiztun multzo horren zati nagusi batek belaunaldi berriei euskara transmititzeko erabakitasuna duela, eta horretarako egunero-egunero konpromisoak jokatzen dutela hala izan dadin.
- Erdaldun hartzaileen datuak ere aurkezten ditugu grafiko horretan. Euskara ulertu baina ondo edo nahiko ondo hitz egiteko gai ez diren hiztunen zati batek ere euskara erabiltzen du erdararekin batera euren seme-alabekin. Datu horren interpretazioa ere aurreko multzokoaren ildo beretik egin behar da.

**G.128. GRAFIKOA: SEME-ALABEKIKO ERABILERA, GURASOEN HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKARA ONDO ULERTZEN DUTEN 50 URTETIK BEHERAKO GURASOAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (EUSKARAZ BATEZ BESTE, %-A)**



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta ISL-105 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.3.3. puntuetan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


G.129. grafikoan, 50 urtetik beherako gurasoek seme-alabekin egin duten erabileran azken 25 urteotan gertatu den bilakaera erakusten da, berriro ere guraso horien hizkuntza-gaitasuna aintzat hartuta. Azpimarratzeko moduko lehenengo datua bilakaera orokorrarena da: 50 urtetik beherako gurasoek seme-alabekin egin duten

erabileraren euskararen pisua %14,0tik %22,7ra igo da. Igoera handia da, 15.3. puntuaren erabileraren bilakaeraz jardun dugunean ikusi ditugun gainerako erabilera guztietakoa baino handiagoa. Horrekin batera, ordea, esan behar da seme-alabekiko erabileraren igoera aipagarri hori 1991-2006 aldian gertatu zela; 2006-2016 hamarraldian ez baita handitu seme-alabekiko erabileraren euskararen izan duen pisua.

Gainerakoan, emaitzak multzoka aztertuta, honako joera hauek antzematen dira:

- Euskal nagusitasunezko hiztunak euskaraz aritu dira euren seme-alabekin ia erabat, aldaketarik gabe, aztertu dugun epealdi osoan.
- Nagusitasunik gabeko elebidunen multzoan asko igo da euskararen batez besteko erabilera seme-alabekin, 1991ko %73,4tik 2016ko %90,2ra.
- Erdal elebidunen eta erdaldun hartzaileen kasuan, berriz, jaitsi egin da seme-alabekiko erabilera; %61,6tik %55,7ra erdal elebidunen kasuan eta %24,9tik %16,5era erdaldun hartzaileen kasuan. Jaitsiera horiek azken 5-10 urteotan izan dira bereziki indartsuak. Arretaz jarraitu beharreko joera dugu; ezin dugu ahaztu bi hiztun multzo horiek direla azken 25 urteotan gehien handitu direnak. Oraingoan, hipotesi gisa, honako hiru azalpen-bide posible hauek bururatzen zaizkigu, berariazko ikerketek frogatu edo ezeztatu beharko lituzketenak. Batetik, posible da hiztun multzo horien euskarazko gaitasuna ahulagoa izatea gaur egun epealdiaren hasieran baino, eta horrek gero eta zailagoa/pisutsuagoa egitea seme-alabei euskaraz egitea. Bigarrenik, litekeena da hiztun horien sareen osakeran aldaketak gertatu izatea, eta zehazki, euskaldun-erdaldun bikoteak ugaritu izana, eta horrek jaitsarazi izana seme-alabekiko euskararen erabilera. Hirugarrenik, posible da hiztun multzo horien motibazioetan ere aldaketak gertatu izana eta motibazio euskaltzalea duten hiztunen pisu erlatiboa jaitsi izana. Hiru azalpen-bideak bateragarriak dira eta zerikusia izango dute guztiek azken hamarkadetan erdal elebidun eta erdaldun hartzaileen multzoek izan duten hazkundearekin. Berariazko ikerketek argitu beharko dute multzo horietan seme-alabekin egiten den erabileraren izan duen beherako joera zein neurritan azaltzen duten hiru azalpen-bide horiek eta aipatu gabeko besteren batzuek.

**G.129. GRAFIKOA: EUSKARAREN BATEZ BESTEKO PISUA SEME-ALABEKIKO ERABILERAN, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EUSKARA ONDO ULERTZEN DUTEN 50 URTETIK BEHERAKO GURASOAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016**



*Iturria:* egileak landua, 1991-2016ko ISLetatik abiatuta. Zehazki, ISL-105 eta ISL-001 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. eta 11.3. puntuetan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 19.3. FAMILIAKO TRANSMISIOAREN AZTERKETA, GURASO ETA SEME-ALABEKIKO ERABILERAN OINARRITUTA

✓ *Hiztunek euren gurasoekiko eta euren seme-alabekiko dituzten erabilera-ohiturak alderatuta, zer-nolako ondorioak atera ditzakegu euskararen transmisio-prozesuen inguruan belaunaldiarteko ikuspegiz?*

Metodologia-atalean, gurasoekiko eta seme-alabekiko erabilera-ohituretan oinarrituta, belaunaldiarteko transmisioa lantzeko hainbat indize aurkeztu ditugu, Katalunian landu dituztenen eredura eratuak. Indize horietarako kalkuluak bi eratara egin ditugu: hiztun guztiak aintzat hartuta batetik eta hiztunen artean seme-alabak dituzten eta gurasoren bat bizirik dutenak hartuta bestetik. 2016ko emaitzak T.175. taulan aurkezten ditugu, eta horien irakurketa azkar bat egingo dugu orain, seme-alabak eta gutxienez guraso bat bizirik duten hiztunen emaitzetan oinarrituta<sup>298</sup>:

- Abiapuntua argia da: askoz gehiago erabiltzen dute Euskal Herriko hiztunek euskara seme-alabekin gurasoekin baino. Zehazki, %17,2k egiten dute nagusiki euskaraz seme-alabekin, eta gurasoekin, berriz, %10,0k. Erdararen kasuan, aurkakoa gertatzen da: gutxiagok erabiltzen dute nagusiki gaztelania-frantsesa seme-alabekin (%78,5) gurasoekin baino (%86,7).

<sup>298</sup> Kopuru zehatzak aldatu egingo liratekeen arren, irakurketa honen zentzua ez litzateke askorik aldatuko hiztun guztien multzoari buruzko datuetan oinarrituta egingo bagenu. Horregatik, ez dugu irakurketa bikoiztuko.

- Belaunaldiarteko transmisioaren indizeek (BATI indizeek) erakusten digute belaunaldi batean, guraso eta seme-alabekiko erabilerari erreparatuz, aztertu dugun hitzun multzo osoaren %7 bat irabazi duela euskarak eta %8 galdu erdarak<sup>299</sup>. Hori litzateke belaunaldi batean izan den aldaketaren neurria gizarte osoarekiko; aldaketa hori, jakina, euskararen *alderako* eta erdaren *kalterako* izan dela esaten digute indize horiek.
- Hizkuntza-aldaketaren indizeek (HAI indizeek) esaten digute gurasoekin nagusiki euskaraz egiten EZ dutenen %8ak euskaraz egiten dutela nagusiki seme-alabekin; eta galerei erreparatuta, gurasoekin nagusiki erdaraz egiten dutenen artean, %9ak ez duela seme-alabekin nagusiki erdaraz egiten.
- Vila indizeetako lehenak, azkenik, adierazten du gurasoekin baino %72 gehiagok hitz egiten dutela euskaraz seme-alabekin. Hots, gurasoekin euskaraz hitz egiten dutenen multzoa erreferentzia gisa hartuta, %72 gehiago direla seme-alabekin euskaraz hitz egiten dutenak: hazkunde erlatibo handia da euskararentzat belaunaldiarteko bilakaeraren ikuspegitik. Eta galerei erreparatuta, indize horrek esaten digu -%62ko galera izan duela erdarak seme-alabekiko erabileran, gurasoekin nagusiki erdaraz egiten EZ dutenen multzoa erreferentzia gisa hartuta.

**T.175. TAULA: HIZTUNEN ERABILERA-OHITURAK GURASO ETA SEME-ALABEKIKO, ETA HORTIK ERAIKITZEN DIREN BATI, HAI ETA VILA INDIZEAK. EUSKAL HERRIA, ADMINISTRAZIO EREMUEK ARABERA, 2016**

	Hiztun guztiak				Seme-alabak eta gutxienez guraso bat bizirik duten hitzunak			
	EH	EAE	NG	IEH	EH	EAE	NG	IEH
Seme-alabekin euskaraz soilik edo nagusiki (%)	15,3	18,9	6,0	7,4	17,2	21,0	8,2	6,9
Seme-alabekin erdaraz soilik edo nagusiki (%)	81,3	77,0	92,0	90,7	78,5	74,0	88,9	90,7
Gurasoekin euskaraz soilik edo nagusiki (%)	10,0	12,1	4,2	6,0	10,0	11,8	4,2	7,5
Gurasoekin erdaraz soilik edo nagusiki (%)	84,2	81,1	93,3	88,6	86,7	84,7	94,3	87,4
<b>Hiztun guztien multzoan eragindako aldaketaren neurriaren adierazleak (ISL-701)</b>								
BATI euskara	0,05	0,07	0,02	0,01	0,07	0,09	0,04	-0,01
BATI erdara	-0,03	-0,04	-0,01	0,02	-0,08	-0,11	-0,05	0,03
<b>Indize erlatiboak hazteko dagoenarekiko (ISL-702)</b>								
HAI euskara	0,06	0,08	0,02	0,01	0,08	0,10	0,04	-0,01
HAI erdara	-0,03	-0,05	-0,01	0,02	-0,09	-0,13	-0,06	0,04
<b>Indize erlatiboak hazten edo ahultzen ari den jatorrizko multzoarekiko (ISL-703)</b>								
Vila euskara	0,53	0,56	0,43	0,24	0,72	0,77	0,94	-0,08
Vila erdara	-0,18	-0,21	-0,19	0,18	-0,62	-0,70	-0,96	0,26

Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-701, ISL-702 eta ISL-703 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.7. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Datu horiek guztiak kontuan hartuta, gurasoekiko eta seme-alabekiko erabiltzen den hizkuntza alderatzeak, indarberritzeari begira, irudi baikorra uzten digu euskararentzat:

<sup>299</sup> Euskararen irabazien eta erdararen galeren kopuruak ez datoz guztiz bat, tarteko kategoria bat ere badagoelako, nagusitasun argirik gabeko erabilerak biltzen dituena.



euskara aurrera egiten ari da alor horretan. Kapitulu honen hasieratik behin eta berriz ikusi dugun joera positiboa bete-betean baieztatzen dute emaitza hauek ere. Euskararen komunitatearen neurri erlatiboki txikia dela eta, datuek erakusten duten belaunaldiarteko aldaketa positiboak ez du hainbesteko pisurik gizartea orokorrean hartuta: %8 ingurukoa izango litzateke, ikuspegi horretatik, gizarte osoan euskarak belaunaldi batean “irabazitakoa”. Datuak askoz ere ikusgarriagoak dira erreferentzia abiapuntuko taldean jarri eta erlatiboki kalkulatuta: gurasoekin euskaraz egiten dutenen multzoarekiko, %72 da euskararentzat *irabazitakoa*, aurrerapen erlatibo handia, ezbairik gabe. Kopuru hori ere lehenago aipatu dugun transmisio-bulkadaren erakusle argia da.

Emaitza interesgarriak uzten ditu, halaber, lurraldekako azterketak. Hasteko, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko alde adierazgarria aipatu beharra dago. Iparraldean ez dago alde handirik gurasoekiko eta seme-alabekiko erabilera: gurasoekin apur bat gehiago egiten dute, baina ez dago alde handirik<sup>300</sup>. Hegoaldeko hiztunek, berriz, gehiago egiten dute euskaraz seme-alabekin gurasoekin baino. Hegoaldearen barruan, bestalde, BATI eta HAI indizeek EAEn puntuazio hobeak erakusten dituzte euskararentzat Nafarroan baino; eta Vila indizeek, berriz, hobeak Nafarroan. Alde horiek zerikusia dute toki batean eta bestean euskaldunen komunitatearen neurriarekin (erlatiboki handiagoa EAEn, txikiagoa Nafarroa Garaian). Gizarte osoaren neurriarekiko, EAEn gehiago aurreratu da Nafarroan baino; jatorrizko multzotzat gurasoekin euskaraz egiten dutenak harturik, berriz, Nafarroan gehiago aurreratu da EAEn baino. Edonola ere, Hegoaldeko bi eremuotan, belaunaldiarteko ikuspegiak euskararen alde jokatzeko du, aztertzen ari garen datuen arabera bederen.

Hizkuntzak irauteko eta indarberritzeko funtsezkoa den familia-transmisioari buruzko irudi baikorra uzten dute, hortaz, landu ditugun adierazleen emaitzek. Hala ere, zuhurtzia handiz interpretatu behar dira indize horiek. Izan ere, indize horien planteamenduak zentzu bete du guraso eta seme-alabekiko erabilera-ohiturak bizitza osoan finkoak diren hiztun multzoentzat. Gurasoekin beti hizkuntza bera erabili izan badugu eta seme-alabekin ere berdina gertatu bada, katalanengandik ekarri ditugun indize horiek guztiz egokiak dira belaunaldiarteko etxeko transmisioaren gaia fin aztertzeko. Errealitatean, ordea, badakigu gauzak ez direla beti horrela. Aurrerago ikusiko dugun bezala, euskal hiztunen sail batek seme-alaba/guraso harremana euskaraz hasten du seme-alabak jaiotzen eta lehenengo urteetan, eta denborak aurrera egin ahala, euren harremana “erdaldunduz” joaten da. Bizitzan zehar erabilera-ohitura horiek aldatzen dituzten hiztunen errealitatea ez dute egoki jasoko indize horiek. Adibidez, gerta daiteke indize horietan “irabazi” gisa zenbatzen ditugun hainbat kasu (gurasoekin erdaraz eta seme-alabekin euskaraz ari diren hiztunak) berez irabazi argia ez izatea, baldin eta hiztun horrek bere bizitzaren hasieran gurasoekin euskaraz jardun bazuen eta gaur egun, inkesta egin den unean, gurasoekin erdaraz aritzen bada. Indize horiek ez dituzte tankera horretako mugimenduak antzemango, eta “irabazi” gisa aurkeztuko dizkigute berez gurasoekiko erabilera-ohituretan galeratik ere baduten mugimenduak. Horregatik, esan bezala, zuhurtzia handiz interpretatu beharko dira

---

<sup>300</sup> Azalpenak, lehenago esan bezala, seme-alabak eta gutxienez guraso bat bizirik duten hiztun multzoan oinarrituta egiten ari gara. Hiztun guztiak aintzat hartuko bagenu, Iparraldeko datuak aldatu egingo liriteke, multzo horretan gehixeago baitira seme-alabekin euskaraz aritzen direnak gurasoekin aritzen direnak baino, taulako datuetan ikus daitekeen bezala.

indize horien datuak; joera nagusi batzuen adierazle gisa hartu daitezke, ez hainbeste joeren kuantifikazio zehatz eta leial gisa. Zuhurtzia, azterketa sakonagoek aipatu dugun fenomenoak indize horiei nola eragiten dien argitu arte gutxienez.

## 19.4. EUSKAL HERRIKO TRANSMISIO-JOEREN ALDERAKETA GALIZIA ETA HERRIALDE KATALANEKIN

✓ *Ba al dugu nazioarteko erreferentziarik transmisioaren alorrean euskararen egoera kokatzeko? Zer diote?*

Aurreko puntuan aurkeztu ditugun indizeak sortzerakoan genuen helburuetako bat haxe zen: indize horiek nazioartean alderagarriak izatea. Nazioartean alderaketa interesgarriak egin ditzakegu, oraingoz, Galiziarekin eta Herrialde Katalanekin. Helburu horrekin sortu ditugu T.176. eta T.177. taulak. Lehenengoan “seme-alabak eta guraso bat gutxienez bizirik duten hiztunak” kontuan hartuta egin dira kalkuluak eta bigarrenean hiztun guztiak aintzat hartuta. Horien guztien irakurketa azkar bat eginda, koka dezagun Euskal Herriko eta bertako hiru administrazio-eremuetako euskararen transmisioari dagokion errealitatea testuinguru zabalago batean.

**T.176. TAULA: SEME-ALABEKIKO ETA GURASOEKIKO ERABILERA-OHITURAK ETA BATI, HAI ZEIN VILA INDIZEAK. GALIZIA, KATALUNIA ETA EUSKAL HERRIA ADMINISTRAZIO-EREMUKA, 2016-2018. SEME-ALABAK ETA GUTXIENEZ GURASO BAT BIZIRIK DUTEN HIZTUNAK.**

	Nafarroa				Katalunia	Galizia
	EH:	EAE	Garaia	Ipar EH		
	2016:	2016	2016	2016	2018	2016
Seme-alabekin euskaraz* soilik edo nagusiki (%)	17,2	21,0	8,2	6,9	37,4	41,6
Seme-alabekin erdaraz* soilik edo nagusiki (%)	78,5	74,0	88,9	90,7	40,3	56,8
Gurasoekin euskaraz* soilik edo nagusiki (%)	10,0	11,8	4,2	7,5	26,7	54,0
Gurasoekin erdaraz* soilik edo nagusiki (%)	86,7	84,7	94,3	87,4	50,9	41,1
<b>Hiztun guztien multzoan eragindako aldaketaren neurriaren adierazleak (ISL-701)</b>						
BATI euskara (edo dagokion bertako hizkuntza)	0,07	0,09	0,04	-0,01	0,11	-0,12
BATI erdara (beste hizkuntza)	-0,08	-0,11	-0,05	0,03	-0,11	0,16
<b>Indize erlatiboak hazteko dagoenarekiko (ISL-702)</b>						
HAI euskara (edo dagokion bertako hizkuntza)	0,08	0,10	0,04	-0,01	0,15	-0,27
HAI erdara (beste hizkuntza)	-0,09	-0,13	-0,06	0,04	-0,21	0,38
<b>Indize erlatiboak hazten edo ahultzen ari den jatorrizko multzoarekiko (ISL-703)</b>						
Vila euskara (edo dagokion bertako hizkuntza)	0,72	0,77	0,94	-0,08	0,40	-0,23
Vila erdara (beste hizkuntza)	-0,62	-0,70	-0,96	0,26	-0,22	0,27

Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-701, ISL-702 eta ISL-703 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.7. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.] Horretaz gain, Galiziarako Loredo eta Monteagudo (2017) eta Kataluniarako *Enquesta d'usos lingüístics de la població*, EULP, 2018 (Generalitat de Catalunya, 2019). Berez, Kataluniako datu horiek ez dira argitalpen horretan azaltzen; gure berriarazo eskaera bati bide emanez, Kataluniako Generalitateak gure esku jarritakoak dira.

Oharra(\*): Euskaraz jartzen duen tokian, galiziera Galiziarako eta katalana Kataluniarako; erdara jartzen duen tokian, gaztelania Katalunia eta Galiziarako.

**T.177. TAULA: SEME-ALABEKIKO ETA GURASOEEKIKO ERABILERA-OHITURAK ETA BATI, HAI ZEIN VILA INDIZEAK. GALIZIA, KATALUNIA ETA EUSKAL HERRIA ADMINISTRAZIO-EREMUKA, 2013-2016. HIZTUN GUZTIAK.**


	EH 2016	Nafarroa			Galizia 2013	Balear Sartaldeko			Ipar		Andorra 2014
		EAE 2016	Garaia 2016	Ipar EH 2016		Katalunia 2013	Uhartekak 2014	Zerrenda 2014	Alguer 2015	Katalunia 2015	
Seme-alabekin euskaraz* soilik edo nagusiki (%)	15,3	18,9	6,0	7,4		37,3	41,1	54,3	4,5	1,0	41,4
Seme-alabekin erdaraz* soilik edo nagusiki (%)	81,3	77,0	92,0	90,7		47,1	46,1	32,1	85,2	87,3	26,6
Gurasoekin euskaraz* soilik edo nagusiki (%)	10,0	12,1	4,2	6,0		28,4	37,3	52,7	16,6	6,5	28,8
Gurasoekin erdaraz* soilik edo nagusiki (%)	84,2	81,1	93,3	88,6		53,3	45,4	29,4	53,7	66,8	31,9
<b>Hiztun guztien multzoan eragindako aldaketaren neurriaren adierazleak (ISL-701)</b>											
BATI euskara (edo dagokion bertako hizkuntza)	0,05	0,07	0,02	0,01	-0,08	0,09	0,04	0,02	-0,12	-0,06	0,13
BATI erdara (beste hizkuntza)	-0,03	-0,04	-0,01	0,02		-0,06	0,01	0,03	0,32	0,21	-0,05
<b>Indize erlatiboak hazteko dagoenarekiko (ISL-702)</b>											
HAI euskara (edo dagokion bertako hizkuntza)	0,06	0,08	0,02	0,01		0,12	0,06	0,03	-0,15	-0,06	0,18
HAI erdara (beste hizkuntza)	-0,03	-0,05	-0,01	0,02		-0,12	0,02	0,09	0,59	0,31	-0,17
<b>Indize erlatiboak hazten edo ahultzen ari den jatorrizko multzoarekiko (ISL-703)</b>											
Vila euskara (edo dagokion bertako hizkuntza)	0,53	0,56	0,43	0,24		0,31	0,10	0,03	-0,73	-0,85	0,44
Vila erdara (beste hizkuntza)	-0,18	-0,21	-0,19	0,18		-0,13	0,01	0,04	0,68	0,62	-0,08

Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-701, ISL-702 eta ISL-703 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.7. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.] Horretaz gain, Galiziarako Loredo eta Monteagudo (2017) eta Herrialde Katalanetarako, Torres (2019).

Oharrak: Euskal Herrirako, gurasoekiko erabilera guraso bat bizirik duten hiztunak soilik hartzen dira aintzat (euskal ISL ez baita galdetzen hildako gurasoekiko erabilera-ohituraz); Andorraren kasuan, seme-alabekiko eta gurasoekiko ehunekoek "katalanez soilik" kategoriari dagozkio.

(\*) Euskaraz jartzen duen tokian, galiziera Galiziarako eta katalana Herrialde Katalanetarako; erdara jartzen duen tokian, lurralde bakoitzeko "beste hizkuntza nagusia" Herrialde Katalanetarako eta Galiziarako.


**G.130. GRAFIKOA: BELAUNALDIARTEKO TRANSMISIOAREN INDIZEA (BATI) HIZKUNTZA GUTXITUETAN, HIZTUN GUZTIAK AINTZAT HARTUTA. GALIZIA, HERRIALDE KATALANAK ETA EUSKAL HERRIA ADMINISTRAZIO-EREMUKA, (2013-2016).**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-701 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.7. azpikapituluuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.] Horretaz gain, Galiziarako Loredo eta Monteagudo (2017) eta Herrialde Katalanetarako, Torres (2019).

**Oharrak:** Euskal Herrirako, gurasoekiko erabileran guraso bat bizirik duten hiztunak soilik hartzen dira aintzat (euskal ISLn ez baita galdetzen hildako gurasoekiko erabilera-ohituraz); Andorrrarako, seme-alabekiko eta gurasoekiko ehunekoen “katalanez soilik” kategoriari dagozkio.

**G.131. GRAFIKOA: HIZKUNTZA GUTXITUAREN BELAUNALDIARTEKO IRABAZIEN VILA INDIZEA, HIZTUN GUZTIAK AINTZAT HARTUTA. GALIZIA, HERRIALDE KATALANAK ETA EUSKAL HERRIA ADMINISTRAZIO-EREMUKA, (2013-2016).**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-703 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.7. azpikapituluuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.] Horretaz gain, Galiziarako Loredo eta Monteagudo (2017) eta Herrialde Katalanetarako, Torres (2019).

**Oharrak:** Euskal Herrirako, gurasoekiko erabileran guraso bat bizirik duten hiztunak soilik hartzen dira aintzat (euskal ISLn ez baita galdetzen hildako gurasoekiko erabilera-ohituraz); Andorrrarako, seme-alabekiko eta gurasoekiko ehunekoen “katalanez soilik” kategoriari dagozkio.

Galiziarerako alderaketak ez du zalantzarako tarte handirik uzten. Galizieraren erabilera (kasu honetan guraso zein seme-alabekin) euskararena baino askoz handiagoa izan arren, belaunaldiarteko transmisioa atzeraka doa Galizian, T.176. taulan ikus daitekeen bezala. Galiziera seme-alabekin dezente gutxiago erabiltzen denez gurasoekin baino, indizeek balio negatiboak hartzen dituzte. Galizieraren aldean, askoz balio hobek hartzen ditu euskarak bai Euskal Herri osoan eta baita hiru administrazio-eremuetan ere. Galizian galera da nagusi, Euskal Herrian irabazia; seme-alabak eta guraso bat gutxienez bizirik duten multzoen BATI indizeei erreparatuta, aldeak argiak dira: +0,07ko balio positiboa hartzen du Euskal Herrian eta -0,12ko negatiboa Galizian. Kalkuluak hitzun guztiak aintzat hartuta eginda (ikus T.177. taula), alde txikiagoarekin bada ere, Galiziarako baino transmisio-maila hobea erakusten dute datuek Euskal Herrirako (-0,08 eta +0,05eko indizeak hurrenez hurren).

Katalanaren egoera askotarikoa da eta izugarri aldatzen da eremuz eremu. Ipar Katalunia eta L'Alguer dira katalanaren erabilera apalena duten eremuak eta, era berean, horiek dira belaunaldiarteko transmisioan galerarik handienak dituztenak. Beste muturrean Katalunia eta, batez ere, Andorra ditugu, non katalana dezente gehiago erabiltzen den seme-alabekin gurasoekin baino; belaunaldiarteko indizeek balio positibo sendoak hartzen dituzte bertan. BATI indizeen balioen arabera, bi muturreko multzo horien arteko transmisio-mailan legoke euskara Euskal Herriko hiru eremuetan, G.130. grafikoan ikus daitekeen bezala: Katalunia eta Andorraren mailaren azpitik, baina L'Alguer eta Ipar Katalunian baino askoz gorago. Euskal Herriko batez bestekoa Balear uharteen balioetatik dago hurbilen, EAEkoa Kataluniakotik, eta Nafarroa zein Iparraldekoa Sartaldeko Zerrendakotik. Aipatu beharrekoa da, ezagutzari eta erabilerari dagokienez, hizkuntza gutxitua askoz indartsuagoa azaltzen zaigula Herrialde Katalanetako hiru eremu horietan (Katalunia, Balear uharteak eta Sartaldeko Zerrenda) Euskal Herrian eta bertako administrazio-eremuetan baino. Eta hala eta guztiz, belaunaldiarteko bilakaeran izandako aldaketa hitzun multzo osoarengan neurtzen duen BATI indizeetan hiru euskal eremuak ez dabilta katalanezko hiru eremu horietatik urruti. Horrek esan nahi du erlatiboki txikia den euskal hiztun-komunitateak, txikia izanagatik ere, handiagoa den katalanaren komunitateak bezainbesteko aldeko mugimendua eragiten duela belaunaldiarteko transmisioari dagokionez.

HAI indizeen informazioak BATI indizeekin ikusten genuena berrestera garamatza, ñabardura batekin. Logikoa den bezala, HAI indizeek, "handitu zitekeenarekiko zenbat handitu den" kalkulatzeko dutenez, BATI erakusten zizkigun kopuruetatik abiatuta, HAI indizea BATIarekiko gutxiago handitzen da euskara bezala bere lurraldean erlatiboki hizkuntza-komunitate txikiagoak direnetan, Andorrako, Balear uharteetako eta Kataluniako komunitate handiagoetan baino.

BATI indizeak jatorrizko komunitatearekiko erlatiboki islatzen duen aurrerakada-atzerakada hobeto ikusten da Vila indizeak aztertuta (G.131. grafikoan ikus daitezke datuak). Gogoratu dezagun Vila indizeak zer neurtzen duen: gurasoekin hizkuntza gutxituan hitz egiten dutenen multzoa erreferentzia gisa hartuta, zenbat handitu den seme-alabekin hizkuntza horretan aritzen direnen multzoa. Indize horretan, sailkapeneko goiko aldean azaltzen zaizkigu hiru euskal lurraldeak. Lehen lekuan EAE

azaltzen zaigu (seme-alabekin %56 gehiago erabiltzen da euskara gurasoekin baino), Nafarroa ia Andorraren pare eta Kataluniaren aurretik azaltzen zaigu, eta Ipar Euskal Herria Kataluniaren atzetik, baina gainerako eremu guztien aurretik. Bereziki interesgarria da Ipar Euskal Herriko eta Ipar Kataluniako errealitateak alderatzea. Frantziako Estatuaren mendean dauden bi lurralde horietan hizkuntza gutxituak estatus juridiko berbera izanda, eta T.177. taulako datuek erakusten duenez bi lurralde horietan hiztunek euren gurasoekin aritzerakoan hizkuntza gutxituak pisu bertsua izanik, %6,0koa Ipar Euskal Herrian eta %6,5eko Ipar Katalunian, alde ikusgarriak daude seme-alabekiko erabileran: %7,4koa da Iparraldean eta %1,0koa Ipar Katalunian. Transmisio-dinamika ezberdinak daude bi lurralde horietan, galera-prozesu bizia Ipar Katalunian; Iparraldean, berriz, zailtasunik falta ez bada ere, komunitatearen mugen barnean hizkuntzari eusteko joera erakusten dute 2016ko datuek. Joera hori, bestalde, bat dator Frantziako Institut national d'études démographiques-ek (INED) eta INSEEk urte batzuk lehenago argitaratu zituzten datuekin (Deguillaume eta Amrane, 2002; Deprez et al., 2002): euskararen transmisioa urrun azaltzen zen jarraipena ziurtatzetik, baina Frantziako beste hizkuntza gutxituena baino hobea zen (bretoiera, korsikera, katalana, okzitaniera...), eta higadura apalagoa ageri zuen.

Horrela, bada, nazioartean eskura ditugun erreferentziak aintzat hartuta, transmisioaren alorrean hiztun-komunitate sendo gisa azaltzen zaigu euskararena.

## 20. HIZKUNTZA-BILAKAERA ETA HIZKUNTZEN BIZI-INDARRAREN NEURKETA

Atal teorikoan azaldu dugun bezala, hizkuntza-bilakaera esaten diogu hiztunek euren bizitzako lehen urteetatik *gaur egun* arte, inkesta egin izan den unea arte, izan duten bilakaerari, bai gaitasunean eta baita erabileran ere. Horretarako, haur txikiak ziren garaian hiztunek zuten hizkuntza-gaitasuna eta erabilera-maila alderatu egin ohi da zentsua edo inkesta egin den garaiko hizkuntza-gaitasun eta erabilera-mailarekin. Ikusiko dugun bezala, hiztunen bizitzan zentzu horretan gertatzen diren aldaketa-prozesuak ez dira garrantzirik gabeak hizkuntza gutxituen bizi-indarra zehazterakoan eta aurrera begira zer-nolako joera izan dezaketen erakusterakoan (indarberritzekoa edo ahultzekoa). Horren jakitun, gurean hizkuntza-bilakaera zertan den aztertuko dugu orain, gaitasunaren ikuspegitik lehenbizi eta erabilerarenetik ondoren.

### 20.1. GAITASUNEZKO HIZKUNTZA-BILAKAERA

- ✓ *Nola aldatu da hiztunen hizkuntza-gaitasuna jaio eta lehen urteetan zutenetik gaur egun dutenera? Zehazki, zer-nolakoa izan da bilakaera hori multzoka, jatorrizko euskaldunak, jatorrizko erdaldunak eta jatorrizko elebidunak bereizita?*
- ✓ *Aldaketarik gertatu al da alderdi horretan azken hamarkadetan?*

#### 20.1.1. Haur txikitako gaitasuna versus oraingo gaitasuna

Gaitasunezko hizkuntza-bilakaerara hurbilpen azkar bat egiteko, T.178. taulan bi adierazle erkatu ditugu: hiztunek haurrak zirenean ikasi zuten lehenengo hizkuntza zein izan zen batetik eta *egungo* euren hizkuntza-gaitasuna zein den bestetik. Bertan ikus daitekeenez, haur txikiak zirela gaztelania/frantsesa bakarrik jaso zuten hiztunen multzoa baino handiagoa da gaur egun erdal gaitasuna nagusi duten hiztunen multzoa, %79,5ekoa eta %84,2koa hurrenez hurren (+4,7 puntutako hazkundea, bi kopuru horien kenketa eginda). Lehen hizkuntza euskara izan zutenen multzoa eta egun euskal gaitasuna nagusi duten hiztunen multzoa alderatuta, ordea, aurkako joera ikusten dugu: %15,1 dira lehen hizkuntza euskara izan zutenak eta %7,4 egun euskaraz errazago moldatzen diren hiztunak (-7,7 puntuko galera). Bi datu horien alderaketak esaten digu bizitzako lehen urteetan euskara lehen hizkuntza izan zutenen erdiek baino gehiagok bizitzan zehar galdu egin dutela euskarazko nagusitasuna. Tartean dagoen multzoa, azkenik, nagusitasun argirik gabeko hiztunena, handitu egin

da hiztunen bizitzako lehen urteak eta egungo egoera alderatuta (%5,4tik %8,4ra, 3 puntuko igoera).

Laburtuz, bada, gaztelania/frantsesa indartsuago eta euskara ahulago daude elkarrizketatu dituzten hiztunengan inkesta egin den unean haur txikiak zirenean baino. Gaitasunezko hizkuntza-bilakaeraren ikuspegi orokor hori azalduta, goazen datuak xeheago aztertzerara.

**T.178. TAULA: HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZAREN ETA HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ALDERAKETA OROKORRA. EUSKAL HERRIA, 2016(\*)\***

Lehen hizkuntza (%)		Hizkuntza-gaitasuna (%)		Aldea: Hizkuntza gaitasuna - lehen hizkuntza
Euskara	15,1	Euskaldun elebakarrak *	0,2	- 7,7
		Euskaldun hartzaileak *	0,2	
		Euskal elebidunak *	7,0	
		<b>Euskal gaitasuna nagusi duten hiztunak</b>	<b>7,4</b>	
<b>Biak</b>	<b>5,4</b>	<b>Nagusitasunik gabeko elebidunak</b>	<b>8,4</b>	<b>+ 3,0</b>
Gaztelania / Frantsesa	79,5	Erdal elebidunak	12,6	+ 4,7
		Erdaldun hartzaileak	7,8	
		Erdaldun elebakarrak	63,9	
		<b>Erdal gaitasuna nagusi duten hiztunak</b>	<b>84,2</b>	
<b>GUZTIAK</b>	<b>100,0</b>	<b>GUZTIAK</b>	<b>100,0</b>	<b>0,0</b>

*Iturria:* egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-001 eta lehen hizkuntzari buruzko galderari emandako erantzunak baliatu dira (ISL-001 adierazleari buruzko azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.2. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 20.1.2. Bi hiztun multzo, bi errealitate

Gaitasunezko hizkuntza-bilakaerarekin, atal metodologikoan azaldu dugun bezala, hiztunek txiki-txikitan jaso zuten hizkuntza-gaitasunetik gaur egungora dagoen aldea ikertzen da. Abiapuntu hau darabilgu: euren bizitzako lehen urte haietan hitz egiten ikasi zutenean, erdaldun elebakar hasi zutela euren ibilbidea H1 gaztelania/frantsesa izan zuten hiztunek; euskaldun elebakar hasi zutela euren ibilbidea H1 euskara izan zutenean; eta nagusitasunik gabeko elebidun gisa hasi zutela euren ibilbidea H1 bi hizkuntzak izan zituzten hiztunek.

Zer gertatzen da urteek aurrera egin ahala? Gaitasun mailan euren jatorrizko hizkuntzari eusten al diote Euskal Herriko hiztunek edo aldatu egin zaie? Eta lortzen al du hizkuntza-komunitate batek jatorriz *beste* hizkuntzan hazi diren hiztunak erakarri eta *bere* hizkuntza ikastea? Zer-nolakoa da gai horretan jatorrizko euskaldunen eta jatorrizko erdaldunen errealitatea? Metodologia-ataleko T.146. taulako sailkapen xehea erabilia, galdera horiei maila eta ikuspegi ezberdinetatik erantzun ahal zaie. Taula hartatik hainbat datu hautatuko ditugu ondorengo orriotan, grafikoen bidez aurkeztu eta lehen irakurketa oinarrizko bat egiteko.




G.132. grafikoan lehen hizkuntza euskara izan zuten hiztunen (jatorrizko euskaldunen) eta lehen hizkuntza erdara izan zutenen (jatorrizko erdaldunen) gaitasunezko bilakaera erakusten da. Multzo bakoitzerako, haur txikitako gaitasuna erakusten da batetik; horretarako, suposatu dugu multzo bakoitzeko hiztunek hizkuntza hori soilik ulertzen zutela euren bizitzako lehen urteetan. Bestetik, inkesta egin zen unean hiztun horiek aitortu zuten gaitasuna erakusten da. Grafiko horretan 2001. urteko datuak erakusten ditugu, hori izan zelako ISLn erdal gaitasunari buruz galdetu zen azken urtea, eta, beraz, gaitasunezko hizkuntza-bilakaeraren ikuspegi osoa eskain diezagukeen azkena. Lehen begiratu batean antzematen den bezala, jatorrizko bi multzo horien hizkuntza-bilakaeraren prozesuak bata bestearengandik ezberdinak dira; euren arteko aldeak ikusgarriak dira:

- Jatorrizko erdaldun gehienak (%85,0) elebakarren muturrean agertzen zaizkigu, ez dira euren jatorrizko abiapuntutik *mugitu* eta gaur egun euskara *ongi* edo *nahiko ongi* ulertzeko gaitasunik ere ez dute. Bestalde, euren artean *mugitu* diren gutxi horien artean ere, gehienak hurrengo bi posizioetara pasatu dira, haien jatorrizko puntutik askorik mugitu gabe. Oso gutxi dira euren hizkuntza-bilakaeran ibilbide luzeagoa egin duten jatorrizko erdaldunak.
- Jatorrizko euskaldunen errealitatea askoz ere sakabanatuagoa da, eta ia denak *mugitu* dira euren bizialdian; %1,2k bakarrik jarraitzen dute abiapuntuko gaitasun-mailan, hots, euskal elebakartasunean. Ia denak mugitu dira, beraz. Eta mugitu diren horien artean, gainera, ez dira gutxi erdal gaitasunezko nagusitasuna adierazten duten posizioetaraino iritsi direnak. Aurreko multzoan ez bezala, badira izan litekeen eta bilakaerarik muturrekoena eginda euren jatorrizko hizkuntza, euskara, ahaztera iritsi diren hiztunak ere: %11,6k galduta zuten euskaraz hitz egiteko gaitasuna eta %7,1ek baita hizkuntza hori ulertzekoa ere.

Zenbateraino mugitu dira bi multzo horiek beste hizkuntzaren gaitasun-eremuaren norabidean? Kalkulu txiki bat egin daiteke grafikoko hizkuntza-gaitasunaren kategoria batetik hurrengora pasatzea pauso bat balitz bezala zenbatuta. Hauxe emaitza: jatorrizko erdaldunak batez beste 0,3 posizio mugitu dira euskararen eremuaren aldera, ez dira iritsi, beraz, pauso oso bat ematera eta gehienak abiapuntuan bertan daude, erdal elebakartasunean alegia. Jatorrizko euskaldunak, berriz, batez beste 3,1 posiziotan mugitu dira gaztelaniaren/frantsesaren eremuaren aldera. Ondorioz, multzo horren batez besteko egungo posizioa “nagusitasunik gabeko elebidunena” litzateke (“elebidun orekatuak” ISLren terminologian), euskaraz zein erdaraz berdin egiteko gai direla erantzun dutenen multzoan leudeke beraz.

Bi multzo horien hizkuntza-bilakaeraren prozesuak oso ezberdinak dira, hortaz. Hobeto ikusiko dugu hizkuntza bakoitzaren galerak eta irabaziak aztertuta.

G.132. GRAFIKOA: JATORRIZKO EUSKALDUNEN ETA JATORRIZKO ERDALDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNA EUREN BIZITZAKO LEHEN URTEETAN ETA "GAUR EGUN". EUSKAL HERRIA, 2001




Iturria: egileak landua, 2001eko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-801 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 20.1.3. Euskararen eta gaztelaniaren/frantsesaren galerak gaitasunezko hizkuntza-bilakaeran

Hizkuntza-bilakaeraren ikuspegitik galerak lantzeko hainbat datu aurki daitezke T.146. taulan. Datu horien guztien artean, guk orain nagusitasunaren galeran eta jatorrizko hizkuntzan hitz egiteko gaitasunaren galeran jarriko dugu arreta, G.133. grafikoaren laguntzaz. 2016ko datuetara etorrira, erdara lehen hizkuntza duten hiztun ia guztiek eusten diote erdararen nagusitasunari: %97,8rentzat erdarak jarraitzen du izaten “errazen hitz egiten duten hizkuntza”. Euskara lehen hizkuntza izan dutenen artean, ordea, erdiek baino gehiagok galdu egin dute euskararen gaitasunezko nagusitasuna: jatorrizko euskaldunen %44,6 baino ez dira errazago moldatzen euskaraz. Ehunekoei beharrean kopuru absolutuei erreparatuta, jatorriz euskaldunak ziren 221.600 lagunek galdu dute euskarazko nagusitasuna, eta erdararen nagusitasuna galdu duten jatorrizko erdaldunak, berriz, 46.100 izan dira. Gaitasunezko hizkuntza-bilakaeraren saldoa, hortaz, nabarmen negatiboagoa da euskararentzat irizpide horren arabera: -175.500ekoa zehazki. Eta, jakina, galera-irabaziak zenbatuta, nagusitasunezko 175.500 hiztun irabazi dituzte gaztelaniak/frantsesak.

G.133. GRAFIKOA: GAITASUNEZKO HIZKUNTZA-BILAKAERA JATORRIZKO EUSKALDUN ETA JATORRIZKO ERDALDUNENGAN. EUSKAL HERRIA, 2016



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra(\*): erdara hitz egiteko eta ulertzeko gai ez diren jatorrizko euskaldunen datuak guk kalkulatu ditugu, proportzionalki, 2001ekoetan oinarrituta.

Euskarazko nagusitasuna galdu duten jatorrizko euskaldunen barruan, gainera, ehuneko txiki baina adierazgarri bat euskara “ahaztera” iritsi da, T.146. taulako datuetan ikus dezakegun bezala: lehen hizkuntza euskara izan zuten hiztunen %5,7k<sup>301</sup> ez zekiten 2016. urtean euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten (22.600

<sup>301</sup> Ehuneko hori EAEko 1986ko Mapa Soziolinguistikoan definitutako gal-indarra izango litzateke (Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, 1989: 139).

hiztunen galera kopuru absolutuetan). Aitzitik, jatorrizko erdaldunen artean, ISLko elkarrizketatu bakarrak ere ez du ahaztu bere jatorrizko hizkuntza (%0,0)<sup>302</sup>.

Laburtuz, bada, jatorrizko hiztunen bi multzoetan aldeak handiak dira gaitasunezko hizkuntza-bilakaeran izan diren galerei dagokienez: ia ez dago gaitasunezko galerarik erdal jatorria duten hiztunengan; euskal hiztunen kasuan, aitzitik, nagusitasunaren galera-prozesuak handiak dira eta multzo horretako hiztun gehienei eragiten diete. Are gehiago, jatorrizko 18 euskaldunetatik batek muturreko galera izan du eta gaur egun ez da euskaraz hitz egiteko gai.

#### **20.1.4. Euskararen eta gaztelaniaren/frantsesaren irabaziaz gaitasunezko hizkuntza-bilakaeran**


T.146. taulako datuetan irakurtzen jarraituz, galdera honi erantzun nahi diogu orain: zer-nolako proportzioan ikasi dute hizkuntza bat jatorriz beste hizkuntzaren hiztunak zirenek? Zehatzago esanda, jatorriz euskaldunak ziren zenbatek dakite erdaraz hitz egiten eta jatorriz erdaldunak ziren zenbatek dakite euskaraz egiten? ISLko datuen arabera, jatorrizko euskaldun ia denek badakite erdaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiten (%97,7k 2001eko datuaren arabera, ez dago berriagorik). Jatorrizko erdaldunen artean, ordea, zortzitik batek bakarrik daki euskaraz hitz egiten, %12,9k 2016ko datuaren arabera. Kopuru absolutuetan esanda, jatorriz euskaldunak ziren 390.000<sup>303</sup> hiztunek dakite 2016. urtean erdaraz hitz egiten; euskaraz hitz egiten dakiten jatorrizko erdaldunak, berriz, 272.100 dira. Kasu horretan ere, beraz, saldoak euskararen aurkako emaitza ematen du, -118.000koa zehazki. Irabaziei begiratuta ere, beraz, erdaraz askoz ere hiztun gehiago irabazi ditu jatorriz euskaldunak zirenen artean euskaraz jatorriz erdaldunak zirenen artean irabazi dituenak baino.

---

<sup>302</sup> Azken datu hori 2001ekoa da, gaiari buruz galdetu zen azken ISLkoa.

<sup>303</sup> 2016. urteko ISLn ez zen galdetu erdal gaitasunei buruz. 390.000 laguneko kopuru horretara iristeko, gaiari buruz galdetu zen azken ISLn (2001ekoan) erdaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai zirenen hiztunen proportzioa aplikatu diegu 2016ko ISLk zenbatu zituen jatorrizko 399.644 euskaldunei.

**G.134. GRAFIKOA: JATORRIZKO EUSKALDUNEN ETA JATORRIZKO ERDALDUNEN ARTEAN ZENBATEK IKASI DUTEN “BESTE” HIZKUNTZA. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


Oharra (\*): jatorrizko euskaldunek erdaraz duten ezagutzari buruzko datuak 2001. urtekoak dira (ez dago berriagorik).

**20.1.5. Adinaren araberako aldeak**

Aztertu ditugun bi alderdi horietan alde adierazgarriak daude adinaren arabera, G.135. eta G.136. grafikoetan ikus daitekeen bezala. Oro har, erdalduntzea ahulagoa eta euskalduntzea indartsuagoa da belaunaldi gazteagoen artean.

Hala ere, belaunaldi gazteenean ere gaur egun erlatiboki euskarak galera gehiago du erdarak baino, eta erdarak irabazi gehiago euskarak baino.


**G.135. GRAFIKOA: “EGUNGO” GAITASUNEAN JATORRIZKO HIZKUNTZA NAGUSI DUTEN HIZTUNAK, ADINAREN ARABERA. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: jatorrizko euskaldunek erdaraz duten ezagutzari buruzko datuak 2001. urtekoak dira (ez dago berriagorik).

**G.136. GRAFIKOA: "BESTE" HIZKUNTZAN HITZ EGITEKO GAI DIREN HIZTUNAK, ADINAREN ARABERA. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluari). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikokoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**Oharra:** jatorrizko euskaldunak erdaraz duten ezagutzari buruzko datuak 2001. urtekoak dira (ez dago berriagorik).

### 20.1.6. Nagusitasun-eremuen arabera aldeak

Testuinguru demolinguistikokoaren arabera aldeak ere aztertu ahal izan ditugu (Hego Euskal Herrira mugatuko dugu azterketa hori). G.137. eta G.138. grafikoetan ikus daitezkeen bezala, alde adierazgarriak daude udalerrri-motaren arabera.


Joera argia da: zenbat eta ingurune erdaldunagoa, orduan eta handiagoa erdalduntze-dinamika eta ahulagoa euskalduntzea; zenbat eta ingurune euskaldunagoa, orduan eta handiagoa euskalduntze-dinamika eta ahulagoa erdalduntzea. Bi datu bakarrik aipatuko ditugu: txikitik euskara jaso eta gune erdaldunduenetan bizi diren jatorrizko euskaldunen %27,5ek bakarrik eusten diote euskararen nagusitasunari (euskaraz errazago egiten dute erdaraz baino); kopuru hori %70,2ra iristen da arnasguneetan. Azterketa xeheagoen zain, argi gelditzen da hizkuntza-bilakaeraren prozesuak ezberdin gertatzen direla testuinguru demolinguistikoko batzuetan eta besteetan. Nolanahi ere, badirudi euskara nagusi den udalerrietan bizi diren hiztunen artean ere, gaur egun euskarak erlatiboki galera gehiago dituela erdaraz baino, eta erdaraz irabazi gehiago euskaraz baino. Hots, arnasguneetan gehiago dira erlatiboki erdal nagusitasunari eusten dioten jatorrizko erdaldunak euskal nagusitasunari eusten dioten jatorrizko euskaldunak baino. Eta, batez ere, gehiago dira erdara ikasten duten jatorrizko euskaldunak euskara ikasten duten jatorrizko erdaldunak baino.

Nolanahi ere, ideia nagusia lehen aipatutakoa dugu: arnasguneetan, euskara sozialki nagusi den udalerrietan, erdara nagusi den guneetan baino askoz ere ahulagoa da erdalduntzea eta indartsuagoa euskalduntzea. Esan beharra dago, gainera, pentsatzekoa dela errealitatean testuinguru demolinguistikokoaren eta hizkuntza-bilakaerari loturiko prozesuen arteko harreman estua kopuru horiek erakusten dutena baino are handiagoak izango dela, honako bi arrazoi hauengatik: batetik, eremu

batzuetan zein besteetan, bertan bizi diren hiztun guztien datuak landuta sortu ditugu grafikoetako datuak, baita kanpotik etorritakoenak ere. Berez, testuinguruak hizkuntza-bilakaeran izan dezakeen eragina aztertu nahi izanda, bitzta osoa edo denbora luze batean bertan bizi izan direnen errealitatea aztertzea litzateke egokiena. Gure grafikoetan, adibidez, arnaguneen datuetan udalerrri horietara kanpotik etorritako hiztunen errealitatea ere biltzen da, baita duela gutxi etorritakoena ere. Eremu horietan bitzta osoa (edo zati handi bat) bizi izan direnen errealitatea berariaz aztertzea garrantzitsua litzateke ingurune horiek bertako hiztunen hizkuntza-bilakaeran izan dezakeen eraginaren neurria zenbatekoa den zehatzago jakiteko. Zalantzarik ez dago, azterketa horrela eginda, berez testuinguru demolinguintikoaren arabera handiak diren aldeak are handiagoak izango liratekeela.


Bestalde, argitu behar da arnaguneen datuak multzo bakarrean aurkeztu ditugula, azpilaginen neurriek ez zutelako aukerarik ematen arnaguneak bi multzotan bereizteko nagusitasunaren arabera. Pentsatzekoa da, arnaguneen datuak bi multzotan bereizita lantzeko aukerarik bagenu, euskararen erabilera %60-%80an dutenak batetik eta %80tik gorakoa dutenak bestetik, testuinguru euskaldunenetako datuek muturrera joko luketela. Izan ere, ISLk arnaguneetan elkarriketatu dituen gehienak euskarak nagusitasun erabatekoa ez duen udalerrietakoak izanik, arnaguneei buruz aurkeztu ditugun datuak arnagune erasan horien isla dira nagusiki; pentsatzekoa da arnagune beteetan (bertako etxeetan euskararen erabilera %80tik gorako pisua duenetan) arnaguneen datuek erakusten dutena baino indartsuago helduko zaiola euskalduntasunari eta ahulagoa izango dela erdalduntzea.

**G.137. GRAFIKOA: GAITASUNEAN JATORRIZKO HIZKUNTZA NAGUSI DUTEN HIZTUNAK, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluuan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**G.138. GRAFIKOA: “BESTE” HIZKUNTZAN HITZ EGITEKO GAI DIREN HIZTUNAK, NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


Oharra: jatorrizko euskaldunen erdararen ezagutzari buruzko datuak 2001 urtekoak dira (ez dago berriagorik).

### 20.1.7. Jatorrizko elebidunen hizkuntza-bilakaera

Orain arte, lehen hizkuntza euskara eta lehen hizkuntza erdara izan duten hiztunen multzoen gaitasunezko hizkuntza-bilakaera landu dugu. Zer gertatzen da txikitan bi hizkuntzak jaso dituztenekin, hots, jatorrizko elebidunekin? G.139. grafikoan ikus daitekeen bezala, hiztun horietako gehienek (%62,1) erdal nagusitasuna erakusten dute hizkuntza-gaitasunean: erdaraz bakarrik dakite hitz egiten edo erdaraz hobeto egiten dute euskaraz baino. Horien aurrean, hamarretik batek bakarrik (%9,4) erakusten du euskarazko nagusitasuna. Azkenik, laurdenak baino zerbait gehiago (%28,6k) hasierako egoerari eusten diote, eta nagusitasunik gabeko elebidunak dira, hizkuntza batean eta bestean berdintsu moldatzen direnak. Horrela, bada, hizkuntza-bilakaerak erdal aldera mugitzen ditu jatorriz bi hizkuntzetan hazitako hiztunak ere.



**G.139. GRAFIKOA: JATORRIZKO ELEBIDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNEZKO NAGUSITASUNA (ZEIN HIZKUNTZATAN ARITZEN DIREN ERRAZAGO). EUSKAL HERRIA, 2016 (%)**




Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluan). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### **20.1.8. Gaitasunezko hizkuntza-bilakaera, 1991-2016**

Azken argazkia hori izanik, nabari da aldaketa-joerarik 1991tik hona: jatorrizko euskal hiztunen artean hizkuntza-gaitasunean euskararen nagusitasunari eutsi diotenen kopurua apur bat igo da azken 25 urteotan, G.140. grafikoan ikus daitekeen bezala. Jatorrizko erdaldunen artean, berriz, jaitsi egin da apur bat kopuru hori. Hala ere, bi taldeak parean jarrita, aztertu dugun aldi osoan izugarrizko leizea dago bi errealitateen artean: erdarak askoz hobeto eutsi die nagusitasunezko hiztunei euskarak baino 1991-2016 aldi osoan.


Ildo berean doa *beste* hizkuntza ikasten dutenen bilakaera ere (ikus G.141. grafikoa): gero eta gehiago dira euskara dakiten erdal jatorrizko hiztunak. Baina aldi osoan askoz gehiago izan dira erdaraz jakin izan duten jatorrizko euskaldunak, euskaraz jakin izan duten jatorrizko erdaldunak baino.

**G.140. GRAFIKOA: GAITASUNEAN JATORRIZKO HIZKUNTZA NAGUSI DUTEN HIZTUNAK. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 1991-2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluari). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]


**G.141. GRAFIKOA: “BESTE” HIZKUNTZAN HITZ EGITEKO GAI DIREN HIZTUNAK. JATORRIZKO EUSKALDUNAK ETA JATORRIZKO ERDALDUNAK. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%)**



Iturria: egileak landua, 1991-2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluari). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Jatorrizko elebidunen kasuan, G.142. grafikoan ikus daitekeen bezala, aztertu dugun aldi osoan (1991-2016) nabaria da erdarazko nagusitasunera jo izan dutela gehienbat; aldeak, ordea, txikitu egin dira, eta 1991-2011 bitartean handitu egin da euskal nagusitasunera eta nagusitasunik gabeko egoerara jo duten jatorrizko elebidunen multzoa. Badirudi joera hori gelditu egin dela azken urteotan.

**G.142. GRAFIKOA: JATORRIZKO ELEBIDUNEN HIZKUNTZA-GAITASUNEZKO NAGUSITASUNA. EUSKAL HERRIA, 1991-2016 (%)**



**Iturria:** egileak landua, 1991-2016ko ISLtik abiatuta. Zehazki, ISL-802 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 11.8. azpikapituluari). [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

## 20.2. ERABILERAZKO HIZKUNTZA-BILAKAERA HEGOALDEAN

- ✓ *Nola aldatu dira hiztunen erabilera-ohiturak jaino eta lehen urteetatik gaur egunera? Zehazki, zer-nolakoak izan da bilakaera hori multzoka, jatorrizko euskaldunak, jatorrizko erdaldunak eta jatorrizko elebidunak bereizita?*
- ✓ *Gertatu al da aldaketarik alderdi horretan azken hamarkadetan?*

### 20.2.1. Hizkuntza-bilakaera aztertzeke jatorrizko datuak zentsuetatik: H1 eta EE

Gaitasunezko hizkuntza-bilakaeran hiztunen lehen urteetako hizkuntza-gaitasuna *egungo* gaitasunarekin alderatzen genuen bezala, erabilera-zko hizkuntza-bilakaeran hiztunen lehen urteetako erabilera *egungo* erabilerekin alderatuko dugu, etxeko *egungo* erabilerekin zehazki. Hiztunen lehen hizkuntza eta etxeko erabilera era bateratuan ustiatuz hizkuntza-bilakaera aztertzea euskal demolinguistikan ez, baina asko landu izan da nazioarteko demolinguistika-azterketetan, atal teorikoan azaldu dugun bezala.

Atal metodologikoan adierazleak aurkeztu ditugu hizkuntza-bilakaeraren azterketa gurean lantzeko, Hegoaldeko Zentsuetan oinarrituta, eta orain adierazle horien emaitzen lehen irakurketa bat egingo dugu. Hasteko, T.179. taulan aurkezten dugu erabilera-zko hizkuntza-bilakaera aztertzeke erabiliko dugun oinarriko lehengaiak: Hegoaldeko Zentsuetako H1 (lehen hizkuntza) eta EE (etxeko erabilera) aldagaiak, elkarrekin gurutzatuta.

**T.179. TAULA: ETXEKO ERABILERA, LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. HEGOALDEA, 2011 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**

		HZ-004 Lehen hizkuntza (H1)				GUZTIAK
		Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste hizkuntza bat	
HZ-006 Etxeko erabilera (EE)	Euskara	260.123	16.999	27.166	952	305.240
	Euskara eta gaztelania	73.332	47.772	56.146	1.966	179.216
	Gaztelania	86.747	59.312	1.904.849	51.413	2.102.321
	Beste hizkuntza bat	763	394	7.505	60.297	68.959
GUZTIAK		420.965	124.477	1.995.666	114.628	2.655.736
<b>Zutabekako ehunekoak</b>						
HZ-006 Etxeko erabilera (EE)	Euskara	61,8	13,7	1,4	0,8	11,5
	Euskara eta gaztelania	17,4	38,4	2,8	1,7	6,7
	Gaztelania	20,6	47,6	95,4	44,9	79,2
	Beste hizkuntza bat	0,2	0,3	0,4	52,6	2,6
GUZTIAK		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>Errenkadakako ehunekoak (%)</b>						
HZ-006 Etxeko erabilera (EE)	Euskara	85,2	5,6	8,9	0,3	100,0
	Euskara eta gaztelania	40,9	26,7	31,3	1,1	100,0
	Gaztelania	4,1	2,8	90,6	2,4	100,0
	Beste hizkuntza bat	1,1	0,6	10,9	87,4	100,0
GUZTIAK		15,9	4,7	75,1	4,3	100,0
<b>Guztiekiko ehunekoak (%)</b>						
Euskara		9,8	0,6	1,0	0,0	11,5
Euskara eta gaztelania		2,8	1,8	2,1	0,1	6,7
Gaztelania		3,3	2,2	71,7	1,9	79,2
Beste hizkuntza bat		0,0	0,0	0,3	2,3	2,6
GUZTIAK		15,9	4,7	75,1	4,3	100,0

Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-004 eta HZ-006 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.4. eta 9.5. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Aurreko taularen edukiak oinarri hartuta sortu ditugu atal metodologikoan aurkeztu ditugun adierazleak. Datuak aurkezten hasi aurretik, argitu dezagun adierazle horiek muga aipagarri bat dutela: kasu guztietan bizitza-ibilbidearen bi puntu soilik hartzen dira kontuan, eta bi puntu horien arteko aldea aztertzen. Beraz, adierazle horiek ez dituzte islatuko bizitzan zehar hiztunek erabileran izan dituzten bestelako gorabehera edo aldaketak. Dena den, bizitzan zehar hiztunek egindako erabilera-ibilbidera lehen hurbilpen oinarritzko eta mugatua egiteko balioko digute.

Nola lan egin lehen hizkuntzari buruzko eta erabilerari buruzko datuak alderatzerakoan? Zer-nolako irizpide orokorrak erabili datuak interpretatzeko orduan? Teoria-atalean azaldu bezala, ez da berria demolinguistikan, hizkuntza batek erabileran eta lehen hizkuntzan duen pisua alderatuz hizkuntzaren egoerari buruzko ondorioak ateratzea. Lantzen ari garen adierazlearen sorburua Kanada eta Quebecen

dagoen arren, beste lurralde batzuetan ere landu izan da azterketa-ikuspegi bertsua. Kataluniako demolinguistikan, esaterako, lehen hizkuntzaren eta egungo erabileraren artean dagoen aldetik ondorioztatzen da zein den gizartean hizkuntzen arloan dagoen aldaketa-dinamika nagusia. Hizkuntza gutxituaren egungo erabilerak gainditu egiten badu hiztunen lehen hizkuntza izan zuen pisua, hizkuntza horrek jatorriz bereak ez zituen hiztunak bereganatu dituelako da, eta hizkuntzaren indarberritzearen adierazlea litzateke. Aitzitik, erabilera lehen hizkuntzaren mailaren azpitik kokatzeak adieraziko luke hizkuntza gutxitze-prozesuan dagoela, hiztunak galtzen ari delako (Vila eta Sorolla, 2019b: 44-45).

Orain, ikuspegi horren barruan landu ditugun adierazleen lehen irakurketa bat egingo dugu. Hasteko, datu berrienei (2011koei) erreparatuta, erabilerazko hizkuntza-bilakaeraren egungo egoera zertan den aztertzen ahaleginduko gara.


### **20.2.2. Jarraipena eta ordezkapena hizkuntza-bilakaeran**

Lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren artean jarraipena dagoela esango dugu gaur egun txikitzen erabiltzen zen hizkuntza bera (edo hizkuntza multzo bera) erabiltzen denean. Ordezkapenaz hitz egingo dugu hizkuntzaz aldatu izan dugunean. Lehen hurbilpen bat eginda, G.143. grafikoan ikus daitekeen bezala, jarraipenak askoz ere pisu handiagoa du gaur egungo Hegoaldeko hiztunen artean ordezkapenak baino: gaur egun etxean lehen haurtzaroko hizkuntza bera erabiltzen dutela adierazi dute hiztunen %85,6k: kopuru horretan sartzen dira H1 euskara izan eta gaur egun etxean euskaraz mintzo direnak, H1 gaztelania izan eta gaur egun etxean gaztelaniaz mintzo direnak, H1 euskara eta gaztelania izan eta gaur egun ere etxean bietan jarduten direnak, eta H1 beste hizkuntza bat izan eta gaur egun etxean euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean mintzatzen direnak.

Alabaina, euren portaeran aldaketak adierazi dituzte 382.695 hiztunek, zazpi hiztunetik batek, hiztun guztien %14,4k. Zentsua egin den garaian euren lehen haurtzaroko jokabidea aldatu duten hiztun horien artean gehienek (323.777 hiztunek, aldaketak egin dituzten hiztunen %84,6k) euskararen erabilerari eragiten dioten aldaketak adierazi dituzte, ume garaitan baino euskara gehiago edo gutxiago erabiltzen baitute gaur egun. Aurrerago ikusiko dugu lasaiago.

Hiztunen H1i eta EEri buruz zentsuetan ageri den informazioa alderatuta, beraz, jarraipena da nagusi, zazpi hiztunetatik sei lehen haurtzaroko hizkuntza aritzen baitira etxean; horien aurrean, zazpitik bakarrak aldatu du bere hizkuntza-jokabidea.

G.143. **GRAFIKOA: JARRAIPENA ETA ORDEZKAPENA HIZKUNTZA-BILAKAERAN. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (%)**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-009 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.2. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Datuak xeheago aztertzen hasi aurretik, argitu dezagun, hala ere, kopuru horiek adierazten dutena baino askoz gehiago izango zirela hizkuntza-bilakaeran aldaketak egin dituzten hiztunak. Aldaketa guztiak ez dira, ordea gure datuetan jasota geldituko, honako bi arrazoi hauengatik:

- Ez dira jasoko aldaketak, zentsuetako galderen mailaketaren neurrikoak baino txikiagoak izan direnean. Adibidez, hiztun batek H1 gaztelania bakar-bakarrik izan bazuen eta gaur egun etxean nagusiki gaztelaniaz aritzen bada baina euskaraz ere aritzen baldin bada pixka bat, aldaketa hori ez dute zentsuek antzemango: bi kasuetan zentsuetako “nagusiki erdaraz” kategoria aukeratuko bailuke hiztun horrek. Zentsuek ez dituzte, hortaz, zentsuko erantzun-aukerek mugatzen dituzten aldaketa-prozesuak baino prozesu txikiagoak antzemango.
- Bestalde, ezin dugu ahaztu, lehenago ere aipatu dugun bezala, alderaketa horiekin bi une jakinetako aldaketak soilik neurtzen ari garela. Bizitzako lehen urteen eta zentsua egin den unearen artean gertatu ahal izan diren gainerako aldaketa-prozesuak ez dira jasota geldituko gure datuetan.


Nolanahi ere, zentsuetan oinarrituta, aldaketa guztien multzoa ez, baina aldaketa adierazgarrienen neurria eta norabidea era zorrotzean azertu daiteke. Horretan saiatuko gara ondorengo orriotan, propio landu ditugun adierazleen laguntzaz.

### 20.2.3. Hizkuntza-komunitateen euste-indarra Hegoaldean, 2011

Lehen haurtzaroko erabilera moldeari eusten diotenen multzoa xeheago aztertuta, honako lau multzo hauek aurkituko ditugu, G.144. grafikoan ikus daitekeen bezala, handienetik txikienerako hurrenkeran:

- Nagusia, alde handiarekin, gaztelania lehen hizkuntza izan eta egun ere etxean nagusiki edo bakarrik hizkuntza horretan mintzo direnek osatzen dute: 1.904.849 hiztun dira, hiztun guztien %71,7.
- Bigarren talderik handiena lehen hizkuntza euskara izan eta gaur egun ere etxean euskaraz (nagusiki edo bakarrik) mintzo direnek osatzen dute: 260.123 hiztun dira, hiztun guztien %9,8.
- Gutxiago dira lehen hizkuntza euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza bat izan eta gaur egun ere etxean bi hizkuntza horiek ez diren hizkuntzan aritzen diren hiztunak: 60.297 hiztun (%2,3).
- Azken taldea gaur egun etxean bi hizkuntzetan aritzen diren jatorrizko elebidunek osatzen dute (47.772 hiztun, %1,8).

**G.144. GRAFIKOA: JARRAIPENA (EE=H1); EGUNGO ETXEKO ERABILERA LEHEN HIZKUNTZARI EUSTEN DIOTEN HIZTUNAK, HIZKUNTZAREN ARABERA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (%AK HIZTUN GUZTIEKIKO)**




Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-009 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.2. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Oharra: ehunekoen baturak ez du %100 ematen; batura hori bat dator aurreko grafikoan jarraipenaren aukerak hartzen zuen balioarekin (%85,6)

Jarraipenarekin lotuta, hizkuntza edo hizkuntza-komunitate bakoitzaren **euste-indarraren tasak** kalkulatu ditugu H1en arabera jatorrizko multzoen barnean. Metodologia-atalean azaldu bezala, euste-indarraren tasek zera adierazten dute: hizkuntza jakin bat lehen hizkuntza gisa izan duten hiztunen multzoaren barnean gaur egun etxean zenbateraino eusten dioten hizkuntza horren erabilari. Emaitzak G.145. grafikoan bildu ditugu.

**G.145. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN EUSTE-INDARRA, LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (LEHEN HIZKUNTZA MULTZO BAKOITZAREKIKO %AK)**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-017 eta HZ-023 bitarteko adierazleak baliatu dira, biak barne (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.6. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Ikus daitekeen bezala, H1en arabera multzo guztietan nagusi dira EEn lehen haurtzaroko hizkuntzari eusten diotenak. Aldeak, hala ere, handiak dira hizkuntzatik hizkuntzara. Hona lehen datu esanguratsu bat: lehen hizkuntza gaztelania (nagusiki edo bakarrik) izan zutenen artean ia erabatekoa da etxean gaztelaniaren erabileraren batez bestekoa (%96,9koa hain justu). Euskararen euste-indarra apalagoa da, eta lehen hizkuntza gisa euskara izan zutenen artean %70,6an kokatzen da euskararen etxeko batez besteko erabilera.

Beste datu adierazgarri bat: jatorrizko elebidunen artean, hots, txikitan euskara eta erdara biak erabiltzen zituztenen artean, %52,0k eusten diote euskararen erabilerari (jatorrian bezala gaztelaniarekin batera erabiliz edo euskara hutsean arituz) eta %86,0ak gaztelaniaren erabilerari (euskararekin batera edo bakarrik)<sup>304</sup>.

Laburpen gisa, hor ditugu euskararen eta gaztelaniaren euste-tasa orokorrak: %68,2koa euskarak eta %96,5koa gaztelaniak. Gainerako hizkuntzen euste-tasa orokorra aurreko bien azpitik azaltzen zaigu; baina metodologia-atalean azaldu bezala, datu hori ez da zuzenean alderagarria aurrekoekin.

<sup>304</sup> Jatorrizko elebidunen multzoaren batez besteko erabilerari erreparatu, erdararen erabilerak bikoiztu egiten du euskararena: euren etxeko jardunaren %32,8 da euskaraz eta %66,8 gaztelaniaz, Hegoaldeko 2011ko zentsuen arabera betiere.



#### 20.2.4. Hizkuntza-komunitateen erakarpen-indarra Hegoaldean, 2011

Erabilerazko hizkuntza-bilakaeraz hitz egiten hasi garenean esan dugu, H1 eta EE alderatuta, jarraipena dela portaerarik ohikoena, baina ehunka mila hiztunek gaur egun etxean ez dutela erabiltzen txikitan erabiltzen zuten hizkuntza bera, ordezkatu egin dutela euren jatorrizko hizkuntza. Zehazki, euren portaeran aldaketak adierazi dituzte 382.695 hiztunek, zazpi hiztunetik batek, hiztun guztien %14,4k. Hizkuntzaz aldatu diren horiek, noski, jatorriz euren ez zen beste hizkuntza bat erabiltzen dute zentsua egin den unean.

Fenomeno horretan sakontzeko, erakarpen-indarrak arituko gara. Erakarpen-indarra<sup>305</sup> deitu diogu hizkuntza-komunitate bakoitzak jatorriz bereak ez dituen hiztunak erakartzeko izan duen gaitasunari, eta hizkuntza bakoitzerako tasa bat kalkulatu dugu jatorrian guztiz hizkuntza horretan aritzen ez ziren hiztun multzo guztietarako. Emaitzak T.50. taulan eta G.146. grafikoan ikus ditzakegu. Bertan ikus daitekeen bezala, euren H1 gaztelania izan ez zuten hiztunen artean (eta, beraz, hizkuntza horretara erakartzeko aukera zegoen horien artean) %34,3 dira gaztelaniara erakarritakoak. Horixe da gaztelaniaren hedapen- edo erakarpen-indarra, eta honela irakurtzen da: hizkuntza-komunitate horrek erakarri zitzaizkeen hiztun guztiekiko herenak erakarri ditu. Zehatzago, lehen hizkuntza nagusiki edo bakarrik euskara izan zutenen multzoan, %29,3koa izan zen gaztelaniaren erakarpen-indarra, eta are handiagoa lehen hizkuntza gisa beste hizkuntzaren bat izan zutenen artean edo euskara eta gaztelania izan zituztenen artean.

Euskarak jatorriz euskaldunak ez direnengan duen erakarpen-indarra askoz ere ahulagoa da, %3,0koa. Datuak zuzenean alderagarriak ez diren arren, badirudi euskararena baino are ahulagoa dela euskara/gaztelania ez beste hizkuntzen erakarpen-indarra.


Erakarpen-indarraren tasak laburtuz, esan dezakegu gaur egun gaztelaniaren erakarpen-indarra euskararena halako hamaika dela Hegoaldean.

Puntu honetan eta aurrekoan esandakoak laburtuz: gaztelaniak euskarak baino euste-indar eta erakarpen-indar handiagoak ditu gaur egun Hegoaldean, G.147. grafikoan ikus daitekeen bezala. Gaztelaniak jatorrizko hiztunei ia erabat eusten die (%96,5ean eusten die); euskarak, aldiz, galdu egiten ditu jatorrizko hiztun asko eta %68,2ri “bakarrik” eusten die. Bestalde, jatorriz gaztelaniaz aritzen EZ ziren hiztunen %34,3 hiztun erakartzen ditu gaztelaniak; euskarak, berriz, jatorriz euskaraz aritzen EZ ziren hiztunen %3,0a besterik ez du erakartzen.

---


<sup>305</sup> Erakarpen-indarra deitu dugun hori berdin deitu genezakeen “hedapen-indar” edota baita “inposaketa-indar” ere. Izan ere, jatorriz euskaldunak izan eta erabileran gaztelaniara erakarritako hiztunetako askori gertatuko zitzaizkien etxekideak erdaldun elebakarrak izatea eta, komunikazioa gertatzekotan, gaztelaniaz aritu beste aukerarik ez izatea.

**G.146. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN ERAKARPEN-INDARRA, LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (LEHEN HIZKUNTZA MULTZO BAKOITZAREKIKO %AK)**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-024 eta HZ-032 bitarteko adierazleak baliatu dira, biak barne (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.7. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**G.147. GRAFIKOA: EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN EUSTE- ETA ERAKARPEN-INDARRAK. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011 (EUTSI ZITEKEENAREKIKO %AK; ERAKARRI ZITEKEENAREKIKO %AK)**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-019, HZ-022, HZ-027 eta HZ-031 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6. azpikapituluan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 20.2.5. Hizkuntza-komunitateen arteko fluxuak Hegaldean, 2011

T.49. taulan, jatorrizko hizkuntzatik egungo erabilerara egon diren aldaketa-fluxu guztiak zehazten dira, hiztunak zein hizkuntzatatik zein hizkuntzatarara aldatu diren alegia, alde biko ikuspegiz lehenik eta hizkuntza bakoitzaren ikuspegiz ondoren. Hainbat ondorio atera daitezke taula hori irakurrita. Hasteko, esan daiteke fluxurik gehienak, alde handiarekin gainera, euskararen eta gaztelaniaren artekoak direla (319.702 mugimendu guztira), ondoren gaztelania eta beste hizkuntzen artekoak (61.278) eta, azkenik euskara eta beste hizkuntzen artekoak (4.075 mugimendu besterik ez). Bestalde, hizkuntza bakoitzari eragiten dioten fluxuei begiratuta, gehienek gaztelaniari eragiten diote (380.980 mugimendu), bigarrenik euskarari (323.777) eta azkenik beste hizkuntzei (60.633).

Informazio interesgarri asko dago taula horretan. Lehen hurbilpen honetan, euskarekiko fluxuak xeheago aztertzen hasiko gara, G.148. grafikoaren laguntzaz. Euren bizitza-ibilbidean (H1 eta egungo EE artean) euskararekin zerikusia duten aldaketa adierazgarriak egin izan dituzten hiztunak 323.777 dira (hiztun guztien zortziren bat osatzen dute, %12,2a zehazki). Horien artean, lau multzo bereizi daitezke, jatorrizko eta egungo erabilera-ohituretan gertatu diren aldaketei erreparatuta. Bi multzo handienak euren portaera *erdaldundu* duten hiztunek osatzen dituzte (hots, euskara > erdara norabidean aldatu dutenek):

- Batetik, euskararentzat erabateko galera izan diren 87.510 hiztunak ditugu (hiztun guztien %3,3). Horiek euskara izan zuten (soilik edo nagusiki) euren H1, eta gaur egun erdara erabiltzen dute (soilik edo nagusiki) etxean.
- Bestetik, galera partzialen multzoa dugu: H1 euskara izan eta gaur egun etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituztenak, eta H1 gisa bi hizkuntzak izan eta gaur egun etxean euskararik erabiltzen ez dutenak (133.038 hiztun, guztien %5,0).


Gutxi ez izan arren, aurrekoak baino gutxiago dira aurkako norabidean aldaketak egin dituzten hiztunak, hots, euren portaera *euskaldundu* dutenak, eta bi multzo nagusitan bildu daitezke:

- Euskararentzat erabateko irabazia ekarri duten hiztunak: H1 erdara izan eta gaur egun etxean (nagusiki edo bakarrik) euskaraz aritzen direnak 28.118 hiztun dira (hiztun guztien %1,1).
- Bestalde, irabazi partziala ekarri dutenak 75.111 hiztun dira (hiztun guztien %2,8). Multzo horretan bildu ditugu H1 euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta gaur egun etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dituztenak eta H1 gisa bi hizkuntzak izan eta gaur egun etxean euskara besterik erabiltzen ez dutenak.

Aurreko datuak harremanetan jarrita, hauxe esan dezakegu etxeko erabileran euren H1eko erabilera euskara gehiago edo gutxiago erabilia aldatu dutenen artean: bi heren euskara→erdara norabidean mugitu diren hiztunak direla eta herena besterik ez erdara→euskara norabidean mugitu direnak. Hots, erdalduntze-ibilbideak egin dituzten hiztunek bikoiztu egiten dituzte euskalduntze-ibilbideak egin izan dituztenak.

Horrela, bada, hiztunen lehen haurtzaroko praktika eta egun etxean dutena alderatuta, erdalduntzea nabarmen indartsuagoa izan da euskalduntzea baino. Ordezkapen-saldo garbiak adierazten duenez, emaitza -88.356koa da euskararentzat. Bestalde, datuek erakusten digute bi norabideetan gehiago izan direla aldaketa partzialak izan dituzten hiztunak erabateko aldaketak egin dituztenak baino. Esan beharrik ez dago aipatu ditugun euskara/erdara fluxu gehien-gehienak euskararen eta gaztelaniaren artekoak direla (gutxi dira euskarak beste hizkuntzekin izan dituenak); xehetasunetarako, jo T.49. taulara.

**G.148. GRAFIKOA: ERABILERAZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAN EUSKARARI ERAGITEN DIOTEN ORDEZKAPENAK. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011**



*Iturria:* egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-014 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.5. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 20.2.6. Ordezkapen-prozesuen laburpena saldoen bidez

Hizkuntza-bilakaeraren ordezkapen-prozesuen saldoek hizkuntzen arteko joan-etorriko fluxuen laburpena ematen digute. Hizkuntzen arteko saldoak eta hizkuntza bakoitzaren saldo orokor garbia G.149. grafikoan irudikatu ditugu. Ikus daitekeenez, erabileraazko hizkuntza-bilakaeraren fluxu guztiak aintzat hartuta:


- Euskarak saldo negatibo handia du gaztelaniarekiko: irabazitako hiztunak eta galdutakoak, guztiak aintzat hartuta, 89.331 hiztunetako galera izan du euskarak gaztelaniaren mesedetan. Beste hizkuntzekiko, berriz, +975eko saldo positiboa du euskarak. Bi mugimenduak aintzat hartuta, orotara, -88.356ko saldo negatibo garbia geratzen zaio euskarari. Kopuru horrek adierazten du hiztunen H1en eta EEren artean izan diren jarraipen eta ordezkapen-prozesu guztiak aintzat hartuta, batez beste (eta balioak haztatuta) gainerako hiztun

guztiak euren H1i eutsi eta ia 90.000 lagunen kasuan euskara→erdara ordezkapena eman izanaren parekoa gertatu dela hizkuntza-bilakaeran. Kopuru horrek hiztun guztien %3,3a osatzen du. Eta bat dator, jakina, 2011ko etxeko erabileraren ehunekoan euskarak duen pisuaren eta hiztunen lehen hizkuntzan izan zuenaren arteko kenketaren emaitzarekin.

- Gaztelaniak, aldiz, hiztunak irabazi ditu, asko irabazi ere: saldo garbi gisa 89.331 hiztun irabazi ditu euskaratik eta 44.694 beste hizkuntzetatik, 134.025 hiztun gehiago guztira.
- Gainerako hizkuntzek hiztunak galdu dituzte, gaztelaniaren alde gehienbat, baina baita euskararen alde ere (44.694 eta 975 hurrenez hurren). Guztiarekin, -45.669ko saldo negatiboa du multzo horrek.

Horrela kalkulaturako saldoei *“Bilan de la persistance et de l’attraction linguistiques”* esan izan diete Quebecen, eta hizkuntzaren bizi-indarraren lehen adierazle oinarrizko gisa erabiltzen dira (Castonguay, 2005a: 8). Saldo horiek interpretatzeko erabili ohi diren irizpideen arabera, gaztelaniak bizi-indar handia izango luke Hegoaldean eta euskarak eta gainerako hizkuntzek, berriz, bizi-indar ahula. Bizi-indarra aztertzeko, halaber, beste adierazle bat ere erabiltzen dute, aurreraxeago azalduko dugun bezala, guk Hegoaldera egokitu eta aplikatuko duguna.

G.149. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN ARTEKO ERABILERAZKO HIZKUNTZA-BILAKAERAREN SALDO GARBIAK, 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-011 eta HZ-016 bitarteko adierazleak baliatu dira, biak barne (azalpen zehatzak metodologia-ataleko 9.6.3.4. eta 9.6.3.5. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 20.2.7. Erabilerazko hizkuntza-bilakaera 1991-2011 epealdian

Orain arte 2011ko datuekin landu dugu erabilerazko hizkuntza-bilakaeraren gaia. Zernolakoa izan da azken bi hamarkadetako bilakaera? Galdera horri erantzuteko datuak T.49. taulan aurkeztu ditugu. Hona hemen datu horien guztien irakurketa azkar bat:

- Aztertu dugun epealdiko hiru zentsuetan (1991n, 2001ean eta 2011n) erabilerazko hizkuntza-bilakaeran erdalduntzeak beti izan du indar gehiago euskalduntzeak baino, G.150. grafikoa ikus daitekeen bezala. Euskarak gaztelania eta beste hizkuntzekin nolako ordezkapen-saldo garbiak dituen ikusita, 97.328 hiztun oso galduak zituen euskarak 1991n, 82.000 hiztun 2001ean eta 88.356 2011n.
- Era berean, *euskararen jarraitutasunaren eta erakarpenaren balantzeak* aldaketa handirik gabe jarraitu du aztertu dugun epealdian: -%3,9koa izan zen 1991n eta -%3,3koa 2001ean zein 2011n. Hurrengo azpikapituluaz aztertuko dugun euskararen bizi-indarraren indizea ere ez da askorik aldatu: 0,802koa zen 1991n, apur bat hobetu zen 2001ean (0,827) eta erdibidean gelditu zen 2011n (0,817).<sup>306</sup>
- Horrekin lotuta, gaztelaniaren euste- eta erakarpen-tasak euskararen tasen gainetik azaltzen zaizkigu, nabarmen, hiru zentsuetan.

Ikusten den bezala, hizkuntza-bilakaerari buruz aztertu ditugun adierazle guztiak bat datoz 1991-2011 aldiaren gertatutakoa deskribatzerakoan. Esan dezakegu, hortaz, erabilerazko hizkuntza-bilakaerak erdaren alde eta euskararen kontra egitea konstante bat izan dela, egiturazko ezaugarri bat, gutxienez 1991-2011 aldi osoan, eta tartean ikusi diren aldaketak (2001ean pixka bat hobera, 2011n berriz pixka bat atzera) ez dutela norabide argi bat erakusten eta ez direla kuantitatiboki oso handiak izan.

Horretaz gain, aipatu beharra dago 1991-2011 tarteko hizkuntza-bilakaeran jarraitutasuna nagusi izan dela hiru zentsuetan, baina jarraitutasunak 1991n pisu handiagoa izan zuela 2011n baino, T.47. taulan ikus daitekeen bezala. Bestela esanda, gero eta ordezkapen-fluxu gehiago zenbatu dira urteek aurrera egin ahala. Zehazki, 260.799 pertsonak aldatua zuten euren lehen haurtzaroko hizkuntza-erabilera 1991. urtean, kopuru hori 270.710era igo zen 2001. urtean eta 382.695ra 2011. urtean. Deigarria egiten da azken urte horretan gertatu zen fluxuen igoera. Horrek zer esan nahi du? Bai euskarak eta bai erdarek 2011n gehiago "galtzen eta irabazten" dutela 1991n baino, gero eta handiagoa izan dela mugikortasuna, panoramak gero eta aldakorragoa dirudiela, alegia.


Datuak erlatiboki irakurrita, euskararen aldeko fluxuak aurkakoak baino gehiago igo dira aztertu dugun epealdian, G.150. grafikoa ikus daitekeen bezala. Erabateko irabaziak ia boskoiztu egin dira euskararentzat 1991-2011 aldiaren, 5.867 hiztunetatik 28.118etara igoz; irabazi partzialak ere asko handitu dira, ia bikoiztera iritsiz, 1991ko 41.215etatik 2011ko 75.111ra igoz. Epealdi berean euskararen galerak ere ugaritu

---

<sup>306</sup> Argitaratu berri diren 2021eko EAEko zentsuen arabera (EUSTAT, 2022), urte horretako balantzeak negatiboa izaten jarraitzen duen arren, emaitzak hobetu egin dira 2011koen aldean.

egin dira, baina erlatiboki ez irabaziak bezainbeste. Dena den, oraindik galerek irabaziek baino pisu gehiago izanik, igoera erlatibo horiek ez dira askorik nabaritzen saldo garbi orokorrean. Irabaziei dagozkien joera erlatibo horiek hurrengo zentsuetan baieztatuko balira eta galerei buruzko datuak askorik aldatuko ez balira, gaur egun dituenak baino balio hobekak izango lituzke euskarak erabilerazko hizkuntza-bilakaerari buruzko adierazleetan.

**G.150. GRAFIKOA: EUSKARAREKIKO ORDEZKAPEN-FLUXUAK ETA ORDEZKAPEN-SALDO GARBIA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 1991-2011**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-014 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.5. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 20.2.8. Erabilerazko hizkuntza-bilakaera ISLn

Atal metodologikoan azaldu dugun bezala, ez da zentsuena hizkuntza-bilakaerari buruzko informazioa eman ahal digun demolinguistikazko iturri bakarra. ISLn ere galdetzen da bai lehenengo hizkuntzari buruz eta baita etxeko hizkuntzari buruz ere. Kasu horretan, jakina, Euskal Herri osoko informazioa eskuratuko dugu. Beraz, hemen egin ditugun azterketa gehienak bikoiztu egin ahalko genituzke ISLko datuekin. Lan honen mugetatik kanpo geratzen da bikoizketa-lan hori bere osotasunean egitea.

Alabaina, saiakera partzial bat egin dugu ISLko datuekin (emaitzak T.180. taulan aurkeztu ditugu). Aipa ditzagun, labor-labor, gaiaren inguruan egin dugun ustia ketaren bi ondorio garrantzitsu.

Batetik, ISLko emaitzak, gutxi-asko, bat datoz zentsuetakoekin egungo erabilerazko hizkuntza-bilakaeraren joera nagusiak deskribatzerakoan: erabilerazko hizkuntza-bilakaerak euskara ahultzera jotzen du eta gaztelania indartzera. Ildo horretan, esan bezala, ondo ezkontzen dira zentsuetako eta ISLko datuak.

Bestetik, baina, bilakaerak aztertzerakoan, zentsuko datuetan oinarrituta egin dugun irakurketa eta ISLkoetan oinarrituta egingo genukeena ez datoz bat. Zentsuetako datuetan ez da aldaketa-joera argirik sumatzen hizkuntza-bilakaeran 1991-2011 tarterako. ISLko datuek, berriz, bilakaera-joera positiboa erakusten dute

euskararentzat: hizkuntza-bilakaerak erdaren alde egiten jarraitzen badu ere, euskararen jarraitutasun- eta erakarpen-balantzean saldo negatiboa gero eta txikiagoa da azken 25 urteotan. Zehazki, ISLren arabera, 1991ko saldo negatiboa erdira jaitsiko litzateke 2016. urterako. Datuen arteko ezberdintasunik handienak 1991. urteari buruzkoak dira: urte horretan ISLk saldo negatibo askoz handiagoa ematen zuen zentsuak baino. Eta, horrekin batera, bilakaera positiboagoa ematen du ISLk hortik aurrerako urteetarako.<sup>307</sup>

Etxeko erabileran oinarritutako hizkuntza-bilakaeraren norabideaz ikuspegi argiagoa izateko, itxaron egin beharko da 2021eko zentsuek eta ISLk dakartzaten emaitzek zer ematen duten ikusteko. Interesgarria izan daiteke, bestalde, gaiaren inguruko bi iturrien datuak sakonago eta xeheago aztertzea, zentsuetan, ISLn edo bietan egon daitezkeen alboratze posibleak atzemateko eta, ahal den neurrian, zuzentzeko.

**T.180. TAULA: HIZKUNTZA-BILAKAERARI BURUZKO HAINBAT DATUREN ALDERAKETA: HEGOALDEKO ZENTSUAK ETA INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA. HEGOALDEA, 1991-2016**

Iturria eta Unibertsoa		1991	1996	2001	2006	2011	2016
HZ - 5 urtetik gorako hiztunak	H1en euskarak duen pisua (%)	18,1		17,1		15,8	
	EEn euskarak duen pisua (%)	15,7		15,6		14,9	
	Euskararen jarraiko rtasun eta erakarpenaren balantzea (EE%/H1%)	-3,9		-3,3		-3,3	
	Bizindarraren indizea (EE%/H1%)	0,802		0,827		0,817	
ISL- 16 urtetik gorako hiztunak	H1en euskarak duen pisua (%)	19,5	21,0	19,0	18,4	17,4	17,7
	EEn euskarak duen pisua (%)	13,7	15,3	13,7	15,4	13,8	15,1
	Euskararen jarraiko rtasun eta erakarpenaren balantzea (EE%/H1%)	-5,8	-5,8	-5,3	-3,0	-3,6	-2,6
	Bizindarraren indizea (EE%/H1%)	0,702	0,726	0,721	0,837	0,793	0,855

Iturria: egileak landua, 1991-2011ko HZtik eta 1991-2016 ISLtik abiatuta. Zehazki, HZ-005, HZ-008, HZ-033 eta HZ-036 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.3., 9.4., 9.6.3.8. eta 9.6.3.9. puntuetan). ISLko datuak ere adierazle horien logika bera aplikatuta kalkulatu dira. [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodaturen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

<sup>307</sup> Atal teorikoan aipatu dugu nazioarteko demolinguistikan erabilerazko hizkuntza-bilakaera aztertzerakoan ohikoena izaten dela lehen hizkuntza etxeko erabilerarekin alderatzea, eta horregatik gure ekarpena ere eremu horretara bideratu dugu. Posible da, hala ere, beste alor batzuetako erabilerarekin alderatuta kalkulatzea hizkuntza-bilakaera. Azterbide horri ekin nahiko bagenio, horretarako aukera eskaintzen du, jakina, Inkesta Soziolinguistikoak. Gu ez gara orain horretan hasiko; argitu dezagun, hala ere, hizkuntza-bilakaera aztertzeke orduan etxeko erabilerazko ez den beste zenbait alorretako erabilerarekin alderatuz gero lehen hizkuntza, etxeko erabilerazko ISLn ageri den bilakaera positiboa are positiboagoa izango litzatekeela. Hori gertatuko litzateke, bereziki, hizkuntza-bilakaera lankideekiko harremanetan eta merkataritza eta zerbitzu publikoen alorrean hiztunek duten erabilerarekin alderatuta.



### 20.3. HIZKUNTZEN BIZI-INDARRA HEGOALDEAN; EUSKARAREN BIZI-INDARRA BESTE HIZKUNTZA GUTXITU BATZUENAREKIN ALDERATUTA


- ✓ *Hiztunen lehen hizkuntza eta egungo etxeko erabilera aintzat hartuta, zer esan dezakegu egun Euskal Herrian gaztelaniak/frantsesak eta euskarak duten bizi-indarrari buruz?*
- ✓ *Euskararen bizi-indarra nola baloratu daiteke beste hizkuntza-komunitate gutxitu batzuen bizi-indarraren ondoan?*

H1 eta EE harremanetan jarrita, hizkuntzen bizi-indarraren berri ematen digun beste adierazle bat kalkulatu dugu, Quebec eta Kanadako ereduari jarraituta. Atal metodologikoan azaldu bezala, honela kalkulatzen da adierazle hori hizkuntza baterako: gaur egun etxeko erabileran hizkuntza horrek duen pisua lehen hizkuntzan izan zuenarekin zatituta. Adierazle horrek hizkuntzen jarraipen-gaitasunaren eta erakarpen-indarraren berri emango digu globalki. Emaitzak 1,00 ematen duenean, nolabaiteko oreka adieraziko du, hots, hizkuntzak sozialki bere egungo neurrian jarraitzeko joera erakusten duela; 1,00etik gorako balioek hizkuntza-komunitatearen indarra eta hazteko joera adierazten dute, hizkuntza hori hiztunak bereganatzen ari dela; 1,00etik azpiko balioek, azkenik, ahultasuna eta hizkuntza hiztunak galtzeko prozesuan dagoela adierazten dute (Castonguay, 2005a: 11).

#### 20.3.1. Euskararen, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen bizi-indarra Hegoaldean

G.151. grafikoan, adierazle horretan hizkuntzek hartzen dituzten balioak erakusten ditugu Hegoalderako, 2011ko zentsuaren datuetan oinarrituta. Ikus daitekeen bezala, gaztelania da 1,00ko balioa gainditzen duen hizkuntza bakarra, eta, beraz, bizi-indar sendoa erakusten duen bakarra. H1en eta EEren arteko oreka adieraziko lukeen puntu horretatik urruti azaltzen zaigu euskararen bizi-indarraren indizea, 0,817an hain justu. Horrela, bada, G.151. grafikoko kopuruek “hazteko joera” erakutsiko lukete gaztelaniarentzat eta “gutxitzeko joera” euskararentzat (eta zer esanik ez gainerako hizkuntzentzat).

G.151. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN BIZI-INDARRAREN INDIZEA. 5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK, HEGO EUSKAL HERRIA, 2011



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-036, HZ-037 eta HZ-038 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.9. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

### 20.3.2. Euskararen bizi-indarra nazioarteko beste komunitate batzuetakoekin alderatuta

Lehen hizkuntzari eta etxeko erabilerari buruzko galderak demolinguistikan arruntak izanik, nazioarteko erreferentziak bilatu ditugu eta oinarriko kalkulu batzuk egin ditugu ikusteko zer-nolako egoera duten Kanadako probintzietan frantsesak, Galizian galizierak eta Herrialde Katalanetan katalanak<sup>308</sup>. T.181. taulan bildu ditugu lurralde horietarako H1i eta EERI buruzko datu laburtuak eta bizi-indarraren indizeari dagozkionak.

Ikus dezakegunez, hainbat lurralde-eremutan pisu handiagoa du bertako hizkuntzak egungo etxeko erabileran bertako hiztunen bizitzako lehen urteetako erabileran izan zuena baino, eta, ondorioz, lurralde horietako bizi-indarraren indizeak 1,000aren langa gaitutuko du. Egoera horretan leudeke, hango eta hemengo zentsu eta inkesta soziolinguistikoetako datuetan oinarrituta egin ditugun kalkuluen arabera, katalana Andorran, Balear uharteetan, Katalunian eta Sartaldeko Zerrendan eta baita frantsesa Quebecen ere. Toki horietan, hazteko prozesuan egongo litzateke hizkuntza eta hiztunak bereganatuz (toki batzuetan besteetan baino indar handiagoz).

Aitzitik, etxeko erabilera lehen hizkuntza baino baxuago dutela agertzen zaizkigu, 1,000aren langaren azpitik beraz, aztertu ditugun hizkuntza gutxitu horiek gainerako eremuetan. 1,000aren baliotik ez oso urruti azaltzen zaigu galegoa Galizian, 0,966ko balioarekin, eta atzetik frantsesa Kanadako Brunswick Berria probintzian (0,894) eta euskara Hegoaldean (0,817). Tarte handiarekin, bizi-indar oso ahularekin (0,600tik

<sup>308</sup> Galesen, Irlandan eta Valentzian ere bilatu dugu, baina ez dugu aurkitu datu alderagarririk bertako ikerketetan.

beherako balioekin) ageri zaizkigu, azkenik, frantsesa Kanadako gainerako probintzia eta lurraldeetan eta katalana Ipar Katalunian eta L'Alguerren. Azken toki horietan, gutxitze-prozesu bizardan egongo litzateke hizkuntza eta hiztunak erruz galduz (toki batzuetan besteetan baino indar handiagoz).

Horrela, bada, datu horien arabera, aztertu ditugun eremu gehienetan hizkuntza gutxituek duten bizi-indarraren azpitik dago euskararen bizi-indarra. Euskararen indizeari dagokion balioaren azpitik gelditzen diren eremu bakarrak "Kanadako enparauak" ditugu batetik, Quebec eta Brunswick Berria probintziak kenduta gelditzen direnak, non komunitate frankofonoa oso minoritarioa den, lehen hizkuntzan zein etxeko erabileran frantsesak duen pisu txikiak erakusten duen bezala. Eta bestetik, Ipar Katalunia eta L'Alguer, katalanak galera-prozesu sakona bizi duen lurraldeak (Chessa, 2012; Sari, 2012; Generalitat de Catalunya, Institut Franco-català Transfronterer, Universitat de Perpinyà eta Consell Departamental dels Pirineus Orientals, 2016; Ballone, 2017).

Taulako datuei begiratuta, agerikoa da bizi-indarraren indizeak orokorrean harremana duela hizkuntzak duen pisuarekin. Horrela, euskarak baino bizi-indar handiagoa erakutsi duten lurralde guzti-guztietan, gurean baino pisu nabarmen handiagoa du bertako hizkuntzak bai H1en eta baita EEn ere. Aitzitik, euskarak Hegoaldean duen baino bizi-indar ahulagoa duten hiru lurraldeetatik bitan ("Kanadako enparauak" lurralde multzoan eta Ipar Katalunian) hizkuntza gutxituak pisu txikiagoa du bai H1en eta baita EEn Hegoaldean euskarak duenarekin alderatuta. Salbuespena Sardiniako L'Alguer hiria litzateke. Ehunekoei bakarrik begiratuta, aztertu ditugun eremuen artean horixe litzateke, lehen hizkuntzari dagokionez, Hegoaldeko errealitatetik gertuen legokeen lurraldea: hizkuntza gutxitua lehen hizkuntzatzat dutenak %18,2 dira Hegoaldean eta %20,5 L'Alguerren. Bizi-indarraren indizean, baina, askoz balio hobea du euskarak Hegoaldean katalanak L'Alguerren baino, etxeko erabileran bi tokietan galera dagoen arren, galera hori Hegoaldean askoz txikiagoa baita L'Alguerren baino.

**T.181. TAULA: LEHEN HIZKUNTZAN ETA ETXeko ERABILERAN HIZKUNTZA GUTXITUAK DUEN PISUA ETA HIZKUNTZAREN BIZI-INDARRAREN INDIZEA. HEGO EUSKAL HERRIA, GALIZIA, KANADA ETA HERRIALDE KATALANETAKO HAINBAT EREMU 2011-2018**

Lurraldea	Hizkuntza	Urtea	Unibertsoa	H1 (%)	EE (%)	Bizi-indarraren indizea (EE / H1)	Iturria
Andorra	Katalana	2014	15 urtetik gorako hiztunak	33,5	41,9	<b>1,253</b>	Herralde katalanetako hainbat inkesta (Vila eta Sorolla, 2019a: 67; 2019b: 39)
Balear uharteak	Katalana	2014	15 urtetik gorako hiztunak	39,7	42,9	<b>1,079</b>	EULIB 2014 (Melià eta Vanrell, 2018: 64, 79)
Katalunia	Katalana	2018	15 urtetik gorako hiztunak	35,9	37,8	<b>1,054</b>	EULP 2018 (Generalitat de Catalunya, 2019: 13, 32)
Quebec	Frantsesa	2016	Biztanleria guztia	78,0	80,4	<b>1,032</b>	Kanadako zentsuak (Statistique Canada, 2017)
Sartaldeko Zerrenda	Katalana	2014	15 urtetik gorako hiztunak	53,5	54,8	<b>1,024</b>	Herralde katalanetako hainbat inkesta (Vila eta Sorolla, 2019a: 67; 2019b: 39)
Galizia	Galegoa	2018	5 urtetik gorako hiztunak	54,0	52,2	<b>0,966</b>	Enquisa estrutural a fogares (IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2019a; 2019b)
Brunswick Berria	Frantsesa	2016	Biztanleria guztia	31,9	28,5	<b>0,894</b>	Kanadako zentsuak (Statistique Canada, 2017)
<b>Hego EH</b>	<b>Euskara</b>	<b>2011</b>	<b>5 urtetik gorako hiztunak</b>	<b>18,2</b>	<b>14,9</b>	<b>0,817</b>	<b>Hegoaldeko zentsuak (HZ-036 adierazlea)</b>
Ipar Katalunia	Katalana	2015	15 urtetik gorako hiztunak	11,1	6,7	<b>0,599</b>	Herralde katalanetako hainbat inkesta (Vila eta Sorolla, 2019a: 67; 2019b: 39)
Kanadako enparauak (Quebec eta Brunswick B. kenduta)	Frantsesa	2016	Biztanleria guztia	3,0	1,5	<b>0,520</b>	Kanadako zentsuak (Statistique Canada, 2017)
Alguer	Katalana	2015	18 urtetik gorako hiztunak	20,5	10,6	<b>0,515</b>	Herralde katalanetako hainbat inkesta (Vila eta Sorolla, 2019a: 67; 2019b: 39)

Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-036 adierazlea baliatu da (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.9. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.] Horretaz gain, atzerriko datuetarako taulan aipatzen diren iturriak erabili dira.

Oharra. Kasu guztietan, lehen hizkuntzan eta etxeko erabileran hizkuntza batek zenbateko pisua duen kalkulatzeko, tasa esleituaren irizpidea erabili dugu. Galiziaren kasuan, etxeko erabilerari buruzkoa hartu beharrean, erabilera orokorrari buruzkoa hartu da eta jatorrizko galderak zituen lau erantzun-aukerak honela esleitu ditugu: *en galego sempre* (%100), *máis galego ca castelán* (%66), *máis castelán ca galego* (%33), *en castelán sempre* (%0), *outras situacións* (%0).

### 20.3.3. Euskararen erabilerazko hizkuntza-bilakaera eta bizi-indarra, nagusitasun-eremuen arabera

Pentsatzekoa da euskarak hizkuntzen bizi-indarraren indizean hartzen duen balio txikiak zerikusi zuzena izango duela gurean hizkuntzak duen minorizazio-mailarekin. Hots, gurean, hizkuntza gutxituaren komunitateak kuantitatiboki goiko taula horretan bildu ditugun gainerako lurraldeetan baino pisu dezente txikiagoa izatearekin.

Arrazoibide horren alde egiten dute nagusitasun-eremuen araberako datuek ere. T.182. taulan ikus daitekeen bezala, bizi-indar handiagoa du euskarak arnaguneetan (etxeke erabileran euskara nagusi den udalerrietan), erdara nagusi den zonaldeetan baino. Aldeak nabarmenak eta adierazgarriak dira: 0,978ra iristen da arnagune beteetan (euskararen etxeke erabilera %80tik gorakoa duten udalerrietan) eta 0,759ra jaisten da euskararen etxeke erabilera %20ra iristen ez den udalerrietan.

**T.182. TAULA: LEHEN HIZKUNTZAN ETA ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUA ETA BIZI-INDARRAREN INDIZEA, HIZTUNAK BIZI DIREN NAGUSITASUN-EREMUEN ARABERA. HEGOALDEA, 2011 (5 URTETIK GORAKO HIZTUNAK)**

	H1 (%)	EE (%)	Bizindarraren indizea (EE / H1)
Arnagune beteak: euskararen nagusitasuna handia den udalerriak (etxeke erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa)	87,5	85,6	<b>0,978</b>
Arnagune erasanak: euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (etxeke erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa)	74,3	69,7	<b>0,938</b>
Nagusitasun argirik gabeko udalerriak (etxeke erabileran euskararen pisua %40-%60koa)	58,8	50,1	<b>0,851</b>
Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak (etxeke erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa)	39,6	30,8	<b>0,778</b>
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak (etxeke erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa)	8,1	6,2	<b>0,759</b>


Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-004, HZ-006 eta HZ-036 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.4., 9.5. eta 9.6.3.9. puntuetan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Horiek horrela izanda ere, datuak ikusita, bada sortu zaigun galdera bat, oraingoz erantzun ezin duguna: euskarak nagusitasun-maila handia duen udalerrietan ere zergatik ez du euskararen bizi-indarrak 1,000aren langa gaintitzen? Hegoaldeko arnaguneetan euskarak duen bizi-indarra, lantzen ari garen adierazlearen arabera betiere, zergatik da, adibidez, katalanak Katalunian edo Balear uharteetan erakusten duena baino apalagoa? Espero dezagun etorkizuneko azterketek galdera horri erantzuteko elementuak eskaintzea.

Nazioarteko alderaketa albo batera utzi eta nagusitasun-mailaren araberako hizkuntza-bilakaerari helduta, ulergarriak egiten dira bizi-indarrean nagusitasun-eremuen mailan ageri diren aldeak. G.152. eta G.153. grafikoetan argi ikus daitekeen bezala, euskara indartsuago dagoen eremuetan, jatorrizko euskaldunek gehiago eusten diote euskararen etxeke erabilerari eta jatorriz euskaldunak ez direnak ere neurri handiagoan erakartzen ditu euskararen erabilerara; erdara nagusi den zonaldeetan, berriz, neurri apalagoan eusten diote jatorrizko euskaldunak euskararen erabilerari eta euskarak ere erakarpen-indar ahulagoa du jatorriz euskaldunak ez direnengan.


Gaztelaniaren euste- eta erakarpen-indarrak, jakina, aurkako norabidean aldatzen dira.

**G.152. GRAFIKOA: EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN EUSTE-INDARRA, HIZTUNAK BIZI DIREN UDALERRIAN EUSKARAK DUEN NAGUSITASUN-MAILAREN ARABERA (NAGUSITASUN HORI ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERAKO MULTZO XEHEETAN AZTERTUTA), 5 URTEK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-019 eta HZ-022 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.6. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

**G.153. GRAFIKOA: EUSKARAREN ETA GAZTELANIAREN ERAKARPEN-INDARRA, HIZTUNAK BIZI DIREN UDALERRIAN EUSKARAK DUEN NAGUSITASUN-MAILAREN ARABERA (NAGUSITASUN HORI ETXEKO ERABILERAN EUSKARAK DUEN PISUAREN ARABERAKO MULTZO XEHEETAN AZTERTUTA), 5 URTEK GORAKO HIZTUNAK, HEGOALDEA, 2011**



Iturria: egileak landua, 2011ko HZtik abiatuta. Zehazki, HZ-027 eta HZ-031 adierazleak baliatu dira (azalpen zehatzak, metodologia-ataleko 9.6.3.7. puntuan). [Jatorrizko iturriak: *Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak* azterlanetako mikrodatuen fitxategiak, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) eta NASTATEk (Nafarroako Estatistika Erakundea) gure esku jarriak.]

Azter dezagun gai hau lasaiago. Bi grafiko horiek ikusita, lehenik eta behin, argi ikusten da hizkuntza-bilakaeraren prozesuak aldatu egiten direla gertatzen diren testuinguru demolinguistiko lokalaren arabera. Logikoa den bezala, zenbat eta zonalde euskaldunagoa, orduan eta indar handiagoz eusten dio euskarak, orduan eta hiztun gutxiago galtzen du gaztelaniaren alde. Gaztelaniak, jakina, indar handiagoz eusten die bere jatorrizko hiztunei zonalde erdaldunagoetan. Horrekin batera, euskarak indar handiagoz erakartzen ditu jatorriz euskaldun ez ziren hiztunak zonalde euskaldunagoetan, eta gaztelaniak indartsuago erakartzen ditu jatorrizko euskaldunak zenbat eta zonalde erdaldunduagoa izan. Bi grafikoek harreman indartsua eta argia adierazten dute udalerraren euskalduntasunaren eta bertako hizkuntza-bilakaeraren artean.

Zerikusi handirik ez dute, beraz, gure zonalde euskaldunenetan hizkuntza-bilakaeran antzematen den dinamika eta zonalde erdaldundenetan gertatzen denak. Muturretako multzoetako datuak irakurritz:

- Jatorrizko euskaldunek askoz gehiago eusten diote euskararen etxeko erabilerari euskara indartsuago dagoen eremuetan (%98,7k eusten diote multzo euskaldunenengan, etxeko erabilerari %90etik gorakoa duten udalerrietan) euskara ahul dagoenetan baino (%45,9k *bakarririk* eusten diote etxeko erabilerari %10era iristen ez den udalerrietan). Gaztelaniaren euste-indarra, jakina, aurkako hurrenkeran aldatzen da: zonalde euskaldunenetan %55,5koa da euste-indar hori eta %97,8koa zonalde erdaldunenetan.
- Erakarpen-indarra ere modu ohargarrian aldatzen da multzo batzuetatik besteetara: jatorriz euskaldunak ez diren hiztunak askoz ere gehiago etortzen dira euskara erabiltzera zonalde euskaldunenetan bizi direnen artean (%39,3), zonalde erdaldunenetan baino (%1,9). Gaztelaniaren erakarpen-indarra aurkako norabidean aldatzen da: %2,8koa da zonalde euskaldunenetan eta %48,9koa zonalde erdaldunenetan.

Horrek ondorio batera garamatza: udalerriz gaindiko (eta are Euskal Herriz gaindiko) dinamiken garrantzia ukatu gabe, oraindik ere, testuinguru lokalak sakon baldintzatzen ditu hiztunen portaerak. Bestela esanda, errealitate soziolinguistikoak dimentsio lokal sakona du, eta dinamika ezberdinak antzematen dira udalerrietan euskarak duen nagusitasun-mailaren arabera.

Aurreko grafikoetan erreparatuta, badago arreta merezi duen beste alderdi bat. Udalerriz bateko nagusitasun-mailak hiztunen testuinguru osatzen duen heinean, ez da harritzekoa zonalde euskaldunagoen eta erdaldunduagoen artean ikusi dugun aldea. Alabaina, badirudi, antzeko nagusitasuna duten testuinguruak hartuta, gaztelaniak euste- zein erakarpen-indar handiagoak dituela sistematikoki euskarak baino. Hau da, adibidez, euskarak %20-30eko nagusitasuna duen udalerrietan euskarak duen eustetasuna %64,8koa da, eta erdarak %20-30eko nagusitasuna duen udalerrietan (hots, euskarak, %70-80ko nagusitasuna duenetan), gaztelaniaren euste-indarra %82,8koa da, nagusitasun-maila bertsuko udalerrietan euskarak duena baino dezente handiagoa. Erakarpen-indarrarekin antzekoa gertatzen da: %5,3koa du erakarpen-indarra euskarak %20-30eko nagusitasuna duen udalerrietan; eta gaztelaniak %10,2koa du %20-30eko nagusitasuna duen udalerrietan.

Beste adibide adierazgarri bat: nagusitasunaren ikuspegitik euskarak etxeko erabileran gaztelaniak baino indar handixeagoa duen multzoan, etxeko erabileran euskararen pisua %50-60 bitartean duten udalerrietan, handiagoa da gaztelaniaren euste-indarra euskararena baino. Eta erakarpen-indarrari dagokionez, euskararen nagusitasuna %60-70an kokatzen den udalerrietan ere gaztelaniak erakarpen-indar handiagoa du euskarak baino. Horiek denak ikusita, esan dezakegu udalerrri-mailako testuinguru demolinguistikoak hizkuntza-bilakaera zuzenean baldintzatu arren, gaztelania euste-eta erakarpen-indarrean koxka bat goragotik dagoela euskararen aldean. Fenomeno horren bi interpretazio-bide osagarri bururatzen zaizkigu:

- Badago testuinguru orokor bat udalerrriaren maila gainditzen duena eta gaztelaniaren alde egiten duena, eta koxka hori horren ondorio izan daiteke. Testuinguru orokor horretan sartuko lirateke eskualde, Euskal Herri edo hortik gorako testuinguru demolinguistikoa eta baita testuinguru orokorragoa ere (soziala, juridiko-politikoa, kulturala, hedabideei eta sareei dagokiena...), gaztelaniaren alde eragiten duena.
- Bigarren interpretazio-bidea hizkuntza-gaitasunaren araberako hiltunen banaketari lotzen zaio. Lehenago ikusi dugun bezala, hizkuntza-gaitasunaren banaketa desorekatua da gurean. Eta gaitasunaren zorua nolakoa den jakinda, pentsa daiteke erabilerazko hizkuntza-bilakaeran erdalduntzea dakarten ordezkapenak errazagoak direla, oro har, euskalduntzea dakartenak baino. Errazagoa dela jatorrizko gaztelaniadunek gaztelaniari eustea (kasurik gehienetan euskara ez dakitelako) jatorrizko euskaldunek euskarari eustea baino (ia kasu guztietan gaztelaniaz ere hitz egiten badakitelako, eta ez gutxitan euskaraz baino errazago egiten dakitelako gaztelaniaz). Eta logika berean, errazagoa dela jatorrizko euskaldunak gaztelania erabiltzea jatorrizko gaztelaniadunak euskara erabiltzea baino.<sup>309</sup>

## 20.4. TRANSMISIOAREN ETA HIZKUNTZA-BILAKAERAREN OSOTASUNEZKO IKUSPEGIAREN BILA

- ✓ *Zein da osotasunezko ikuspegia hizkuntza-bilakaera eta belaunaldiarteko transmisioa aintzat hartuta? Posible al da bi dinamika horiek aldi berean gertatzea: hau da, transmisioan euskara indartzen aritzea eta hizkuntza-bilakaeran ahultzen aritzea? Nola ezkontzen dira bi dinamika horiek?*
- ✓ *Bi dinamiketatik zein da nagusia? Zein da bi dinamikak aintzat hartuta euskararentzat gelditzen den saldoa?*

---

<sup>309</sup> Gai honen inguruko argi gehiago ekar lezake H1i eta EERI buruzko datuak hizkuntza-gaitasuna ere aintzat hartuta aztertzeak. Beste baterako gelditzen diren lanen zerrendan gehituko dugu hori ere.



### 20.4.1. Bi ikuspegi itxuraz kontrajarri; bi galdera

Orain bukatzen ari garen kapituluan eta aurrekoan euskararen bilakaeraren dinamika ulertzeko baliagarriak izan daitezkeen bi ikuspegi aurkeztu ditugu. Ikuspegi bakoitzak, ordea, irudi itxuraz kontrajarria eskaintzen digu:

- 19. kapituluan familiako transmisioari buruz azaldu ditugun adierazleek ikuspegi baikorra eskaini digute. Hango edukiak asko laburtuz, oro har, euren gaitasunaren zoruak erosotasunaren ikuspegitik emango lukeena baino gehiago transmititzen diete gurasoek euskara seme-alabei etxean. Are gehiago, gaur egungo gurasoek eurek etxean jaso zutena baino euskara gehiago eta erdara gutxiago ari dira ondorengoei ematen. Nazioarteko alderaketak ere toki onean uzten zuen euskal gurasoen transmisio-jokabidea. Datu horiek soilik irakurrita, eta oinarrizko prozesu demografikoak ekuaziotik kanpo utzita (berezko hazkundera eta migrazio-mugimenduak), landutako datuek iradokiko lukete euskal komunitateak, bere maila erlatibo txikian bada ere, indarrez transmititzen diela hizkuntza ondorengoei, eta logikaz komunitatearen hazkunde-prozesu baterako baldintzak jarri direla hazken hamarkadotan.
- 20. kapitulu honetan, hizkuntza-bilakaerari buruzko adierazleekin, berriz, hiztunek bere bizialdian euskararen gaitasunean eta erabileran izan duten bilakaera aztertu dugunean, datuek eskaintzen diguten ikuspegia bestelakoa izan da: landutako adierazleek galera ematen digute euskararentzat eta irabazia gaztelaniarentzat/frantsesarentzat. Laburtuz, lehen hizkuntza gisa euskara jaso duen multzoaren zati handi baten euskarazko gaitasuna higatzen joan da bere bizialdian: gehienek galdu egin dute euskarazko nagusitasuna eta gutxi batzuek euskara ahaztu dute. Lehen hizkuntza gisa gaztelania/frantsesa jaso zuten artean ez da antzematen antzeko higatze-prozesurik. Erabilerari erreparatuz ere atzera egin du euskarak eta aurrera erdarak. Konparazioan, gehiago dira euren erabilera-ohiturak erdaldundu dituzten jatorrizko euskaldunak euren ohiturak euskaldundu dituzten jatorrizko erdaldunak baino. Aldebiko fluxuak dauden arren, euskararentzat irabazitakoek ez dituzte inondik inora berdintzen galerak. Nazioarteko alderaketak ere irudi ezkorra ematen digu euskararen dinamikaz: bizi-indar ahuleko hizkuntza da gaur egun euskara. Hizkuntza-bilakaeraren datuek galbidean dagoen hizkuntzaren irudia jartzen digute begi aurrean.

Itxuraz kontrajarriak diren bi ikuspegi horien argitara, bi galdera multzo sortzen zaizkigu, puntu honen hasieran jarri ditugun horiek hain justu, eta ondorengo orrietan erantzuten saiatuko gara. Horretarako, ahalegin bat egingo dugu bi dinamika itxuraz independente eta kontrajarri horien ikuspegi orokorra era bateratuan ulertzen saiatzeko, 2016ko ISLn oinarrituta.

## 20.4.2. Egingo dugun lanketaren xehetasunak

### 20.4.2.1. Ustiaketan landuko ditugun hiru belaunaldiak eta erreferentzia-data orientagarriak finkatzen

Ikuspegi bateratu horren bila, hiru belaunalditara bideratuko da gure azterketa. Belaunaldi bakoitzak bere bizitzako zenbait unetan izan dituen erabilera-ohiturak eta gaitasunak aztertuta, hizkuntza-bilakaerari buruzko eta transmisioari buruzko errealitateak aztertzen saiatuko gara era bateratu eta alderagarrian.

Hasteko, belaunaldi nagusi bat finkatuko dugu, honako hau zehazki: inkesta egin zen unean (2016an) 38-57 urte bitarte zituztenek osatzen dutena (1959 eta 1978 bitartean jaioak). Urte multzo hori zehazki aukeratzeko prozedura honako hau izan da: lehenik, 2016ko ISLn seme-alabak eta gurasoak dituzten hiztunen batez besteko adina kalkulatu dugu, eta 47,53 urtekoa izan da emaitza. Urte horri goitik zein behetik hamar urteko tartea erantsiz iritsi gara 38-57 urte bitarteko ibiltartera. Interes berezia izan dezake, gure ustez, azterketa adin-multzo horren inguruan antolatzeak, belaunaldi horrek bi berezitasun dituela kontuan hartuta: batetik, *baby boom*aren belaunaldia da, Euskal Herrian inoiz egon den belaunaldirik handiena; euren errealitatea ezagutzeak interes berezia izan dezake alde horretatik. Bestetik, 13. kapituluaren ikusi dugun bezala, etxean euskara jasotzen zuten haurren ehunekoak azken mendeko punturik kaskarrean zegoen garaian jaiotako belaunaldia dugu, euskal komunitatea hondoa jotzen ari zen eta altxatzen hasi zen garaian jaioa. Erreferentzia egokia izan daiteke, horregatik, aurrera zein atzera belaunaldien arteko alderaketak egiteko.


Belaunaldi horren barruan, eta tartean transmisio-prozesuak aztertu behar ditugunez eta horretarako hiztunek gurasoekin eta seme-alabekin egiten duten erabilera alderatzea bitarteko garrantzitsua izanik, ikerketatik kanpo utzi ditugu honako bi baldintza hauek betetzen ez zituzten elkarrizketatuak: seme-alabak izatea batetik eta gurasoak, bietako bat behintzat, bizirik izatea bestetik. Horrela, bada, honako hiztun hauek osatu dute gure oinarritzko ikerketa-unibertsoa: 1959-1978 bitartean jaio eta 2016an seme-alabak dituzten eta gutxienez guraso bat bizirik duten elkarrizketatuak. Belaunaldi horrekin batera, belaunaldi horren gurasoen belaunaldia eta seme-alabena hartuko ditugu kontuan. Guztira, beraz, honako 3 belaunaldi hauek landuko ditugu:

- B belaunaldia deituko diogu aztergai dugun belaunaldi nagusiari. Zehazki, 2016. urtean elkarrizketatuak izan diren eta seme-alabak eta gurasoetako bat bizirik duten 38-57 urte bitarteko belaunaldia (1959-1978 bitartean jaioak).
- A belaunaldia B-ren gurasoek osatuko dute
- C belaunaldia B belaunaldikoen seme-alabek osatuko dute.

Azalpena ulergarriagoa egiteko, datuetatik abiatuta azalduko ditugun fenomeno sozialak denbora-lerro historikoan kokatzen saiatuko gara batez bestekoetan oinarritutako mugari orientagarri batzuk finkatuz A, B eta C belaunaldietarako. B belaunaldiaren kasuan, datuak zuzenean 2016ko ISLn elkarrizketatuak esandakoetatik atera ditugu. Gainerako bi belaunaldietarako erabiliko ditugun urteak ez dira zuzenean elkarrizketatuei jasoak, kalkuluen bidez guk esleituak baizik. Lanketa horren emaitzak

I.44. irudian ikus daitezke; irudiaren azpiko oharretan azaldu ditugu multzo horiek finkatzeko erabili diren irizpide eta prozedurak.

#### I.44. IRUDIA: AZTERTUKO DITUGUN HIRU BELAUNALDIEN KOKAPENA DENBORA-LERROAN.



Iturria: egileak landua.

Oharrak (\*): B belaunaldiaren batez besteko adinetik abiatuta, multzo horren batez besteko jaiotza-urtea kalkulatu dugu. ISLn ageri den informazioa ustiatuta, ikusi dugu elkarrizketatu multzo horrek 46,85ko batez besteko adina duela inkesta egin zaion garaian, 2016. urtean. Adin hori ez da asko urruntzen ISLko lagin osoaren batez besteko adinetik (50,3 urte). Hori bai, multzo horretan adin ertaineko hiztunak soilik ditugu, 38 urtetik beherakoak eta 57tik gorakoak gure ustiatetatik at utzi ditugu. Tarteko adinetan bildua azaltzen zaigu, hortaz multzo hori: multzo horren adinaren banaketak 5,0ko desbideratze tipikoa du. Nolanahi ere, batez besteko adin hori aintzat hartuta eta informazio-bilketa 2016. urtean egin zela jakinda, 1969. urtean kokatzen da multzo horretako elkarrizketatuen batez besteko jaiotza-urtea, eta urte hori erabiliko dugu multzo hori izendatzeko orduan<sup>310</sup>. Argi izan dezagun, hala ere, hiztun horien jaiotztearen ibiltartea zabalagoa dela, 1959-1978 artekoa.

C belaunaldiaren batez besteko adina eta jaiotza-urtea finkatzeko ezin izan dugu prozedura bera erabili, B belaunaldia lehen seme-alabak noiz ekarri zituzten ez baitigu argitzen datu-baseko informazioak (*Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza). Alabaina, datu demografiko orokorretako balioak aplikatuz<sup>311</sup>, kalkulatu dezakegu batez beste 2003. urtean jaiotako zirela multzo horren lehen seme-alabak. Beraz, urte hori erabiliko dugu C belaunaldiaren erreferentzia-urte gisa. Argi dezagun, ordea, 2003ko data batez besteko jaiotza-urtearen estimazioa dela; benetan urte multzo zabalagoan jaiotako zirela C belaunaldiko hiztunak; eta gure laginean gaiari buruzko datu zehatzik ez dugun arren, pentsa daiteke 1993-2012 bitartean jaiotako zirela B belaunaldiko gurasoen seme-alaba gehienak, C belaunaldi gisa izendatu dugun horretakoak.

A belaunaldiaren denbora-kokapena ere kalkuluen bidez egin beharko dugu, jatorrizko iturrian ez baitago horri buruzko informaziorik. A belaunaldia 30 urte lehenago kokatu dugu denboran B belaunaldia baino: batez beste 1939. urtean jaiotako gisa jarri ditugun horiek, urte multzo zabal batean jaiotakoak izango dira, gehienak 1929-1948 bitartean.

Esan bezala, erabiliko ditugun hiru mugarri orientagarriak I.44. irudian ikus daitezke: hiztun multzo hori 1969 inguruan jaiotako batez beste, 1939 inguruan jaiotako gurasoengandik, eta batez beste 2002. urtean izan zituen lehen seme-alabak, eta 2016. urtetik (batez beste 47 urte dituztela) egiten ari gara irakurketa.

<sup>310</sup> Batez besteko zehatzak 1968,47ko balioa ematen du.

<sup>311</sup> INEren *Oinarritako Adierazle Demografikoen* arabera, 2000. urtean 32,1 urte zituzten batez beste EAEn lehen semea edo alaba izan zuten amek (Ikertalde Grupo Consultor, 2020: 28). Bestalde, 1996-2000 tartean ezkonduetako bikote heterosexualetan gizonezkoek batez beste emakumezkoek baino 2,63 urte gehiago zituztela aintzat hartuta (EUSTAT, 2018), belaunaldi horrek lehen semea edo alaba izateko batez besteko adina 33,4 urtetan jarri dugu. Eta, ondorioz, lehen seme-alaba batez beste 2002. urtean izan zituzten ondorioztatuko. Irizpide hori aplikatu diogu lagin osoari.

### 20.4.2.2. Lagina(k)

Gure lagin nagusia 2016ko ISLn elkarrizketatu zituzten B belaunaldiko 1.786 hiztunek osatuko dute. Lagin horri  $\pm\%2,3$ ko akats-tartea dagokio,  $p=q=\%50$  denerako, eta  $\%95$ eko konfiantza-mailan (laginketa prozedura guztiz ausazkoen bidez egin izanaren suposiziopean egindako kalkulua).

Elkarrizketatu horien erantzunetatik aterako dugu eurei buruzko informazioa, eta baita euren gurasoen belaunaldiari buruzko informazioa ere; bestela esanda, A eta B belaunaldiei buruzko informazioa.

Lagin nagusi horretaz gain, C belaunaldiari buruzko informazioa eskuratzeko, ISLko 16-19 urte bitarteko 583 hiztunen lagina erabili dugu<sup>312</sup>. Lagin horri  $\pm\%4,0$ ko akats-tartea dagokio,  $p=q=\%50$  denerako, eta  $\%95$ eko konfiantza-mailan (laginketa-prozedura guztiz ausazkoen bidez egin izanaren suposiziopean egindako kalkulua).

### 20.4.2.3. Landutako datuak (eta datuak sortzeko erabilitako irizpideak)

Hizkuntza-bilakaera eta familiako transmisioa era bateratuan aztertzeko gure lanketarako abiapuntu gisa hartuko ditugun datuak bildu ditugu T.183. taulan, eta azaldu egin dugu datu bakoitzaren jatorri zehatza zein den eta zer-nolako prozedura erabili dugun horiek lortzeko. Aipa ditzagun lehenago datu horiek sortzeko orduan erabili ditugun irizpideak. Lehen hizkuntzari buruzko datuak erabilera- eta gaitasun-datuekin alderatu ahal izateko, hainbat suposizio teoriko eman ditugu ontzat. Batzuk metodologia-atalean eta kapitulu honen hasierako puntuetan azalduko berak dira, eta beste batzuk berriak:

- Gaitasunezko hizkuntza-bilakaera lantzeari begira, ontzat emango dugu lehen hizkuntza jakin bat izateak gaitasunaren ikuspegitik esan nahi duela hizkuntza hori ikasi genuela lehen urte horietan, eta ez besterik. Horregatik, lehen urte horietako "hizkuntza-gaitasuna" honako korrespondentzia hauen bidez sortuko dugu:

#### **Lehen hizkuntza > Haur txiki garaiko hizkuntza-gaitasuna**

Lehen hizkuntza euskara > Euskaldun elebakarra (beraz, euskal nagusitasunezko hiztuna).

Euskara eta erdara > Elebiduna (nagusitasunik gabekoa).

Erdara > Erdaldun elebakarra (beraz, erdal nagusitasunezko hiztuna)

- Erabilerazko hizkuntza-bilakaera azertu ahal izateko, ontzat emango dugu lehen hizkuntza bat edo beste izateak, oro har, bi gauza dakartzala berarekin: batetik, bizitzaren lehen urteetan hizkuntza horretan bakarrik edo nagusiki

---

<sup>312</sup> Gure kalkularen arabera, 13 urteko batez besteko adina izango zuten 2016. urtean C belaunaldiko hiztunek. Horregatik hartu dugu ISLko multzorik gazteena, 16-19 urtekoa, belaunaldi horren errealitatea islatzeko.

hizkuntza horretan mintzatu izan zela haurra, etxe-giroan eta gurasoekiko elkarrizketetan bereziki. Horiek horrela, honako korrespondentzia hauek egingo ditugu, H1i buruzko informaziotik erabilera-tasa esleituen bidez, hiztun multzo baten batez besteko txikitako erabilera kalkulatzeko:

**Lehen hizkuntza > Haur txiki garaiko erabilera**

Lehen hizkuntza euskara > euskaraz %100

Euskara eta erdara > euskaraz %50

Erdara > euskaraz %0

- Hiztun baten lehen hizkuntzari buruzko datuetatik, bere gurasoek haur txikiak hazi zituztenean haiekin zein hizkuntza erabili zuten ondorioztatuko dugu (erabilera-hizkuntza).

B belaunaldiko hiztunek euren gurasoekin gaur egun euskararentzat duten erabilera-mailaren kopuru bera esleituz kalkulatuko dugu A belaunaldiak gaur egun euren seme-alabekin duen erabilera-maila.

**T.183. TAULA: TRANSMISIOAREN ETA HIZKUNTZA-BILAKAERAREN AZTERKETA BATERATURAKO LANDUTAKO DATUAK ZEHATZ EUSKAL HERRIA, 2016**

Belaunaldia	Garaia	Aldagaia	Jatorrizko aldagaia	Balioa	Oharrak	
1	A belaunaldia (1939an jaioak)	Haur txikiak zirela, 1939 urte ingurua	Erabilera-hizkuntza gurasoekin (euskaraz %)	H1 (euren seme-alabek, B belaunaldikoek, 2016ko ISLn emandako erantzunen arabera).	19,1	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu. Amari eta aitari buruz galdetzen da ISLn; amen %aren eta aiten%aren arteko batez besteko balioarekin kalkulatu dugu.
2	A belaunaldia (1939an jaioak)	Haur txikiak zirela, 1939 urte ingurua	Euskararen ezagutza (euskaraz zenbatak zekiten, %)	H1 (euren seme-alabek, B belaunaldikoek, 2016ko ISLn emandako erantzunen arabera).	19,8	Batu egin ditugu lehen hizkuntza euskara izan zutenak eta bi hizkuntzak izan zituztenak. Amari eta aitari buruz galdetzen da ISLn; amen %aren eta aiten%aren arteko batez besteko balioarekin kalkulatu dugu.
3	A belaunaldia (1939an jaioak)	Haur txikiak zirela, 1939 urte ingurua	Hizkuntza-gaitasuna (euskarazko nagusitasuna zenbatak %)	H1 (euren seme-alabek, B belaunaldikoek, 2016ko ISLn emandako erantzunen arabera).	18,4	Lehen hizkuntza gisa euskara izan zutenak. Amari eta aitari buruz galdetzen da ISLn; amen %aren eta aiten%aren arteko batez besteko balioarekin kalkulatu dugu.
4	B belaunaldia (1969an jaioak)	Haur txikiak zirela, 1969 urte ingurua	Erabilera-hizkuntza gurasoekin (euskaraz %)	H1 (euren erantzunen arabera).	15,8	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu (10. lerroko kalkulu berbera da)
5	B belaunaldia (1969an jaioak)	Haur txikiak zirela, 1969 urte ingurua	Euskararen ezagutza (euskaraz zenbatak zekiten, %)	H1 (euren erantzunen arabera).	18,3	Batu egin ditugu lehen hizkuntza euskara izan zutenak eta bi hizkuntzak izan zituztenak.
6	B belaunaldia (1969an jaioak)	Haur txikiak zirela, 1969 urte ingurua	Hizkuntza-gaitasuna (euskarazko nagusitasuna zenbatak %)	H1 (euren erantzunen arabera).	13,3	Lehen hizkuntza gisa euskara izan zutenak.
7	C belaunaldia (2003an jaioak)	Haur txikiak zirela, 2003 urte ingurua	Erabilera-hizkuntza gurasoekin (euskaraz %)	H1 (euren erantzunen arabera, 2016ko ISLn; 16-19 urte zituzten gazteen erantzunak, n=583).	22,2	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu (11. lerroko kalkulu berbera da)
8	C belaunaldia (2003an jaioak)	Haur txikiak zirela, 2003 urte ingurua	Euskararen ezagutza (euskaraz zenbatak zekiten, %)	H1 (euren erantzunen arabera, 2016ko ISLn; 16-19 urte zituzten gazteen erantzunak, n=583).	27,5	Batu egin ditugu lehen hizkuntza euskara izan zutenak eta bi hizkuntzak izan zituztenak.
9	C belaunaldia (2003an jaioak)	Haur txikiak zirela, 2003 urte ingurua	Hizkuntza-gaitasuna (euskarazko nagusitasuna zenbatak %)	H1 (euren erantzunen arabera, 2016ko ISLn; 16-19 urte zituzten gazteen erantzunak, n=583).	16,9	Lehen hizkuntza gisa euskara izan zutenak.
10	A belaunaldia (1939an jaioak)	Seme alabak jaio berritan (1969 inguruan)	Erabilera-hizkuntza seme-alabekin (euskaraz %)	H1 (B belaunaldiko euren seme-alaben H1 etik abiatuta, 2016ko ISLn emandako erantzunen arabera).	15,8	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu (4. lerroko kalkulu berbera da)
11	B belaunaldia (1969an jaioak)	Seme alabak jaio berritan (2003 inguruan)	Erabilera-hizkuntza seme-alabekin (euskaraz %)	H1 (C belaunaldiko euren seme-alaben H1 etik abiatuta, 2016ko ISLn emandako erantzunen arabera).	22,2	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu (7. lerroko kalkulu berbera da)
12	A belaunaldia (1939an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Erabilera-hizkuntza seme-alabekin (euskaraz %)	Euren seme alabek, B belaunaldikoek, 2016ko inkestan emandako erantzunetan oinarrituta.	12,5	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu (14. lerroko kalkulu berbera da)
13	A belaunaldia (1939an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Euskararen ezagutza (euskaraz zenbatak zekiten, %)	Euren seme alabek, B belaunaldikoek, 2016ko inkestan emandako erantzunetan oinarrituta.	23,5	Euskaraz hitz egiten dakitenak. Amari eta aitari buruz galdetzen da ISLn; amen %aren eta aiten%aren arteko batez besteko balioarekin kalkulatu dugu.
14	B belaunaldia (1969an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Erabilera-hizkuntza gurasoekin (euskaraz %)	Eurek, B belaunaldikoek, 2016ko inkestan emandako erantzunetan oinarrituta.	12,5	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu (12. lerroko kalkulu berbera da)
15	B belaunaldia (1969an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Erabilera-hizkuntza seme-alabekin (euskaraz %)	Gurasoekiko erabilerari buruzko C belaunaldiaren erantzunak, 2016ko ISLn (16-19 urte zituzten gazteen erantzunak, n=583).	18,3	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu (18. lerroko kalkulu berbera da)
16	B belaunaldia (1969an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Euskararen ezagutza (euskaraz zenbatak dakiten, %)	Eurek, B belaunaldikoek, 2016ko inkestan emandako erantzunetan oinarrituta.	26,5	Euskaraz hitz egiten dakitenak.
17	B belaunaldia (1969an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Hizkuntza-gaitasuna (euskarazko nagusitasuna zenbatak %)	Eurek, B belaunaldikoek, 2016ko inkestan emandako erantzunetan oinarrituta.	5,3	Euskaraz errazago egiten dutenak.
18	C belaunaldia (2003an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Erabilera-hizkuntza gurasoekin (euskaraz %)	Gurasoekiko erabilerari buruzko euren erantzunak, 2016ko ISLn (16-19 urte zituzten gazteen erantzunak, n=583).	18,3	Tasa esleituen bidez kalkulatu dugu (15. lerroko kalkulu berbera da)
19	C belaunaldia (2003an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Euskararen ezagutza (euskaraz zenbatak dakiten, %)	Hizkuntza-gaitasunari buruzko euren erantzunak, 2016ko ISLn (16-19 urte zituzten gazteen erantzunak, n=583).	61,3	Euskaraz hitz egiten dakitenak.
20	C belaunaldia (2003an jaioak)	Gaur egun (inkesta egin den unean, 2016)	Hizkuntza gaitasuna (euskarazko nagusitasuna zenbatak %)	Hizkuntza-gaitasunari buruzko euren erantzunak, 2016ko ISLn (16-19 urte zituzten gazteen erantzunak, n=583).	13,6	Euskaraz errazago egiten dutenak.

## OHAR HAUEK AURREKO ORRIALDEKO TAULARI DAGOZKIO:

Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Oharra: C belaunaldiko haur/nerabe/gazteek B belaunaldiko gurasoekin inkesta egin den unean dituzten erabilera-ohituretarako, berez, bi iturri genituen. Batetik, C belaunaldiko nerabeek inkestan adierazitakoa; horren arabera, %18,3koa da gurasoekiko harremanean euskarak hartzen duen pisua. Bestetik, B belaunaldiko gurasoek inkestan adierazitakoa; horren arabera, %22,1ekoa da pisu hori. Atal metodologikoaren hasieran, 8.6. puntuari datuen hanpatzeaz esandakoak aintzat hartuta, baliorik apalenak eman ditugu ontzat, C belaunaldiko erantzun aitortuak beraz.

Taula honetako informazio hori bera, erabiliko dugu ondorengo puntuetako grafiko eta taulak sortzeko.

### 20.4.2.4. Landuko ditugun alderatzeak

Azpikapitulu honen hasieran egin ditugun galderei erantzunak bilatzeko, honako lau alderatze hauek landuko ditugu hurrengo orrietan:

- B belaunaldiaren 2016ko egoeraren alderatze sinkronikoa.
- Hiru belaunaldien datuen alderatze diakronikoa.
- Belaunaldien barruan gertatu den hizkuntza-bilakaeraren prozesuak aztertze alderatze diakronikoa.
- Hizkuntza-bilakaera eta belaunaldiarteko aldaketa elkarrekin irudikatzea.


### 20.4.3. **Alderatze sinkronikoa: B belaunaldia 2016. urtean**

Landu dugun datu multzotik jar dezagun orain arreta 2016. urtean B belaunaldiari dagozkion datuetan (G.154. grafikoan erakusten ditugu datuok). Atentzioa ematen duen lehen alderatzea, honakoa: multzo horretako hiztunek euren seme-alabekin askoz ere gehiago egiten dute euskaraz (%22,1) gurasoekin baino (%12,5). Informazio hori bat dator, guztiz, bai erabilerari buruzko kapituluari eta bai transmisioari buruzkoan ere azaldu dugunarekin.

Handia edo txikia ote da datu horiek erakusten diguten erabilera-maila? Erreferentzia gisa, euskaraz errazago egiten duten B belaunaldiko hiztunei buruzko datua txertatu dugu grafikoan: %8,6 lirakeke gure kalkuluen arabera (zuzenean euskaraz errazago egiten dutela esan duten %5,3ari nagusitasunik adierazi ez dutenen zati proportzionala gehituta). Gogora dezagun, 16.3.3. puntuari erabilera erosoari buruzko datua landu dugunean, ez zebilela kopuru horietatik urruti. Han ikusitakoan oinarrituta, pentsa daiteke, B belaunaldiko hiztunek euren hizkuntza-hautua erosotasunean soilik oinarrituko balute, euskararen erabilera %8,6 horren azpitik geldituko litzatekeela (ziurrenik, %5,3 horretatik ez oso urruti). Ikusi berri dugun bezala, kopuru horiek baino dezente gehiago erabiltzen dute hiztun horiek euskara, bai euren gurasoekin (%12,5)

eta zer esanik ez euren seme-alabekin (%18,3). Datuak hortik irakurrita, bereziki deigarria egiten da multzo horrek euren seme-alabekin adierazten duen euskararen erabilera-maila, hizkuntza-gaitasunaren zorutik asko aldentzen delako batik bat: hiru halako eta gehiago da seme-alabekiko erabilera euskarak duen pisua (%18,3) euskaraz errazago egiten dutela erantzun duten gurasoen multzoa baino (%5,3). Horrek adierazten du belaunaldi horretako hiztun ugari euskaraz egiten dutela seme-alabekin, eurentzat erosoagoa izanik ere erdaraz egitea. Are gehiago, seme-alabekin euskaraz egiten dutenen artean gehiago argia izango dira erdaraz errazago arituko lirakeenak. Lehenago ere aritu gara gurean gertatzen ari den masa-fenomeno garrantzitsu horretaz. Azken batean, hiru datu horien alderatze sinkronikoak agerian uzten du berriro ere guraso horiek euskara erabiltzera bultzatzen dituen motibazioa ez dela txikia, eta transmisio-bulkada euskaltzalea indartsu errotua dagoela euskaldunen sail aipagarri batean.

**G.154. GRAFIKOA: B BELAUNALDIAREN ERABILERA EROSOAREN KALKULUA ETA ERABILERA AITORTUA SEME-ALABEKIN ETA GURASOEKIN. EUSKAL HERRIA, 2016 (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %)**



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Erakusten diren hiru adierazleak T.183. taulatik ekarri ditugu. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

#### 20.4.4. Alderatze diakronikoak I: belaunaldien datuak alderatuz

Alderatze diakronikoekin hasteko, saia gaitzen belaunaldiak euren artean alderatzen, belaunaldiz belaunaldi gertatzen ari diren balizko aldaketak antzemateko. Tankera horretako alderaketak egiteko ditugun datuak T.184. taulan bildu ditugu. Taula horretan garrantzi berezia du azken lerroan erakusten den informazioak, A eta B belaunaldiek, bizitzaren fase berean, euren seme-alabak jaio eta lehen urteetan haiekiko erabilera euskarak izan duen pisua aztertzeko aukera eskaintzen baitigu. Emaiza G.155. grafikoan erakusten da: A belaunaldiak %15,8an erabili zuen euskara seme-alaba txikiekin 1969. urte inguruan; B belaunaldiak %22,2an 2003. inguruan. Belaunaldiarteko igoera argia erakusten dute, beraz, datuek. Oraingo belaunaldiak (B deitu dugun horrek) bere gurasoek baino euskara gehiago erabili du seme-alabekin




haiek jaio eta lehenengo urteetan. Datuak bestela irakurrita: 1969. urte inguruan hitzunik jaso zuten baino euskara gehiago jaso dute etxean 2003 inguruan jaiotakoek.

**T.184. TAULA: A, B eta C BELAUNALDIEN ERABILERARI ETA GAITASUNARI BURUZKO HAINBAT DATU ALDERAGARRI, BIZITZAKO ZENBAIT UNETAN.**

	A belaunaldia	B belaunaldia	C belaunaldia
<b>Txikitan</b>	1939	1969	2003
Erabilera gurasoekin (euskaraz batez beste %)	19,1	15,8	22,2
Euskara hitz egiteko gai direnen %a	19,8	18,3	27,5
Euskal gaitasuna nagusi duten hitzunik, %	18,4	13,3	16,9
<b>Umeak hazteko garaian</b>	1969	2003	
Erabilera seme-alabekin (euskaraz batez beste %)	15,8	22,2	

Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Erakusten diren datuak T.183. taulatik ekarri ditugu. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

**G.155. GRAFIKOA: A ETA B BELAUNALDIEN ERABILERA EUREN SEME-ALABEKIN, JAIO ETA LEHENENGO URTEETAN (EUSKARAREN BATEZ BESTEKO ERABILERA, %). EUSKAL HERRIA**



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Erakusten diren datuak T.184. taulatik ekarri ditugu. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Taulan erakusten diren gainerako balioen irakurketa orokor bat eginez, esan dezakegu A eta B belaunaldiaren arteko galera-prozesua erakusten dutela lehenik taulako datuek, eta B eta C belaunaldien arteko indarberritze-prozesua ondoren.

#### 20.4.5. Alderatze diakronikoak II: hizkuntza-bilakaera belaunaldi barruan

Belaunaldien arteko aldeak ikusi ondoren, aldera dezagun orain zer-nolakoa izan den belaunaldi bakoitzak bere bizialdian izan duen hizkuntza-bilakaera. B belaunaldiarekin hasita, eskura ditugun datuek honako alderatze hauek egiteko modua ematen digute (guztiak T.185. taulan eta G.156. grafikoan erakusten ditugu):

- Hasteko, aldera dezagun gurasoekiko erabileraren bilakaera bizitzako lehen urteetatik gaur egun arte (1968tik 2016ra, erreferentzia-datak erabilita). Belaunaldi horren lehen hizkuntzako datuekin garai hartako erabilera-tasa esleituak kalkulatuak, esan dezakegu gurasoekiko euskararen erabilera %15,8koa izan zela lehenengo urteetan (1969. urte inguruan, darabilgun erreferentzia erabilita). Batez besteko erabilera hori %12,5era jaitsi da 2016. urtean.
- Erabilerarekin jarraituta, begira dezagun nolakoa izan den seme-alabekiko erabileraren bilakaera horien lehen urteetatik gaur egun arte (2003tik 2016ra, erreferentzia-datak erabilita). Jaio eta hurrengo urteetan, %22,2koa izan zen seme-alabekiko erabileran euskarak izan zuen pisua; gaur egun (2016an) kopuru hori %18,3an dago<sup>313</sup>.
- Azkenik, ikus dezagun B belaunaldiaren hizkuntza-gaitasunaren bilakaera nolakoa izan den bizitzako lehen urteetatik gaur egunera (1969tik 2016ra erreferentzia-datak erabilita). Multzo horren hizkuntza-gaitasunaz ditugun datuekin, bi alderatze osagarri egin daitezke:
  - Batetik, euskaraz hitz egiteko gai zirenen kopurua handitu egin da, euren haur txiki garaiko %18,3tik 2016ko %26,5era.
  - Bestetik, baina, euskal nagusitasunezko hiztunak, euskaraz besterik jakin ez edo euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutenak, urritu egin dira, haur txiki garaitako %13,3tik 2016. urteko %5,3ra.

---


<sup>313</sup> Kopuru hori C belaunaldiko seme-alaben erantzunetan oinarritzen da. B belaunaldiko gurasoek aitortutakoaren arabera, euskararen egungo batez besteko erabilera %22,1ekoa litzateke. Aipatu dugu lehenago zergatik hobetsi dugun seme-alaben erantzunetan oinarritzen den datua.

**T.185. TAULA: HIRU BELAUNALDIEN HIZKUNTZA-BILAKAERA LANTZEKO SORTU DITUGUN DATUAK. EUSKAL HERRIA, 1939-2016**

	1939	1969	2003	2016
<b>A belaunaldia (1929-1948an jaioak)</b>	<i>Txikitan</i>	<i>Umeak hazteko garaian</i>		<i>Gaur egun</i>
Erabilera gurasoekin (euskaraz batez beste %)	19,1			
Erabilera seme-alabekin (euskaraz batez beste %)		15,8		12,5
Euskara hitz egiteko gai direnen %a	19,8			23,5
Euskal gaitasuna nagusi duten hiztunak, %	18,4			
<b>B belaunaldia (1959-1978an jaioak)</b>		<i>Txikitan</i>	<i>Umeak hazteko garaian</i>	<i>Gaur egun</i>
Erabilera gurasoekin (euskaraz batez beste %)		15,8		12,5
Erabilera seme-alabekin (euskaraz batez beste %)			22,2	18,3
Euskara hitz egiteko gai direnen %a		18,3		26,5
Euskal gaitasuna nagusi duten hiztunak, %		13,3		5,3
<b>C belaunaldia (1993-2012an jaioak)</b>			<i>Txikitan</i>	<i>Gaur egun</i>
Erabilera gurasoekin (euskaraz batez beste %)			22,2	18,3
Erabilera seme-alabekin (euskaraz batez beste %)				
Euskara hitz egiteko gai direnen %a			27,5	61,3
Euskal gaitasuna nagusi duten hiztunak, %			16,9	13,6

Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Erakusten diren datuak T.183. taulatik ekarri ditugu. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

G.156. GRAFIKOA: B BELAUNLDIAREN HIZKUNTZA-BILAKAERA. EUSKAL HERRIA, 1969-2016



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Erakusten diren datuak T.185. taulatik ekarri ditugu. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

Laburtuz, bada, B belaunaldiaren barruan, euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua igo egin da euren bizitzako lehen urteetatik gaur egun arte, eta gainerako hiru adierazleetan behera egin du euskararen pisuak, bai erabilerari buruzko bietan eta baita, modu bereziki indartsuan gainera, gaitasunezko nagusitasunaren adierazlean ere. G.156. grafikoan, euskaraz dakitenen igoera erakusten du gezi berde estuak eta hiru gezi gorriek erabileran edo gaitasunaren nagusitasunean izan diren beherakadak.

Euskaraz hitz egiteko gai direnen igoera familiaz kanpoko euskalduntzearen eraginarizor zaiola pentsa daiteke, eskolak eta helduen euskalduntzeak eragindakoari nagusiki.

Nola interpretatu erabileran eta nagusitasunean jaitsiera adierazten duten hiru gezi gorriak? Gaitasun-nagusitasunean izan den jaitsiera horrek azalpen-ildo nagusi bat dauka, atal teorikoan esan dugunarekin erabat ezkontzen dena: hiztun horien bizi-erperientzian erdarak pisu handia izango zuen, erdara gehiago erabiliko zuten euskara baino, eta, horregatik, euren erdal gaitasuna garatu egin da eta euren euskal gaitasuna kamustu, jatorriz euskaldunak ziren hiztunen alor nagusi batean erdarazko nagusitasunak euskarazkoa ordezkatu arte.

Hiru gezi gorri horiek prozesu orokor baten berri ematen digutela esango genuke, honela laburbildu genezakeena: euskara transmititu duten etxeetan 1959-1978an jaio ziren haurren zati aipagarri batek ordudanik 2016ra bitartean egindako bizialdiak erdaldundu egin ditu.

Taulan ikus daitekeenez, bizitzak euskalduntasuna higitzea ez da soilik B belaunaldiari eragin izan dion fenomeno. Datu gutxiagorekin bada ere, fenomeno horren zantzuak aurki daitezke A belaunaldian ere. Horiek ere gaur egun euskara gutxiago egiten dute seme-alabekin haurrak jaio eta urte gutxira egiten zutena baino (%15,8tik %12,5era jaitsi da erabilera)<sup>314</sup>. Eta berdin C belaunaldian ere: haur/nerabe/gazteen multzoa hartuta, euskara gutxiago darabilte euren gurasoekin orain, jaio ondorengo lehenengo urteetan baino. Horren eskutik, euskal gaitasuna nagusi duten hiztunen pisua ere jaitsi egin da, %16,9tik %13,6ra.

Aitzitik, A eta C belaunaldietan igo egin dira euskaraz hitz egiteko gai direnen kopuruak. Igoera hori bereziki adierazgarria da belaunaldi gazteenean: etxean euskara jaso zutenak %27,5 izanik, %61,3ra iritsi da nerabezaroan euskaraz hitz egiten dakitenen ehunekoa.

Laburtuz, bada, euskaraz hitz egiteko gai diren hiztunen kopuruan egon den igoera gazteen artean bereziki ikusgarri hori kenduta, gainerako adierazleetan bizi-espereziak higitu egin ditu euskaraz hitz egiteko nagusitasuna eta euskararen erabilera, zuzenean aztertzen ari garen B belaunaldian ez ezik, baita zeharka aztertu ditugun A eta C belaunaldietan ere.

#### **20.4.6. Alderatze diakronikoak III: hizkuntza-bilakaera eta belaunaldiarteko aldaketa elkarrekin irudikatuz**

Orain arte, aurreko kapituluan eta orain bukatzen ari garen honetan azaldu diren ikuspegiak berriro ditugu, belaunaldi jakin batzuen inguruan eta datu multzo alderagarriak erabilita. Bi hitzetan esanda, belaunaldien arteko dinamikak euskararen alde egiten du eta hizkuntza-bilakaerak eralduntzera jotzen du. Bi indarretan zeinek du gaur egun indar gehien? Zein da eraginkorragoa? Galdera horri zorrotz erantzuteko, belaunaldi guztien une bakoitzeko datu multzo zabala beharko genuke. Eragiketa demolinguistikoaren edizio berriekin batera, tankera horretako azterketak gero eta oinarri handiagoarekin egin ahal izango dira euskal demolinguistikan. Oraingoan, dagoeneko aurkeztu ditugun datuetako batzuk agertu ditugu G.157. grafikoan, baina oraingoan, bi alderatzeak batera islatzen saiatuko gara. Ikus daitekeen bezala, gurasoen eta seme-alaben arteko erabilera kontuan hartuta, euskara 1969 inguruan baino gehiago erabili da 2003 inguruan (%15,8 eta %22,2 hurrenez hurren; +6,4 puntuko aldea euskararen alde). Jauzi horretan irabazitakoaren zati bat, ordea, hizkuntza-bilakaerak higitu du, eta 2016. urtean, seme-alaba nerabeekin euskararen erabilerak atzera egin du %18,3ra (-3,9 puntutako galera). Azken jaitsiera horrek, belaunaldien arteko jauzian aurreratu denaren zati handi batean atzera egitea ekarri badu ere, prozesu osoaren azken saldoa, nolabait esateko, positiboa izango litzateke, +2,5 puntuko landutako

---


<sup>314</sup> Ohar garrantzitsu bat: A belaunaldiko datuetan biltzen diren hiztun asko Euskal Herritik kanpo jaio eta gero etorritakoak izango dira. Are gehiago, horietako batzuk Euskal Herritik kanpo biziko dira gaur egun. Izan ere, A belaunaldiaren datuak B belaunaldikoaren aitortzen oinarrituta sortu ditugu. Horrela, bada, gauza ziurra da lagin honetako B belaunaldiko hiztunak Euskal Herrian bizi zirela 2016. urtean; ezin jakin, ordea, euren gurasoak non bizi ziren. Errealitate hori kontuan hartu beharko dugu A belaunaldiko hiztunen H1etik sortu ditugun adierazleak irakurtzerakoan. Horregatik, datu hauen eta atal enpirikoaren lehen kapituluan Euskal Herrian jaioak haurren lehen hizkuntzaren bilakaerari buruz eskaini ditugunak ez datoz bat: han, Euskal Herrian jaioak bakarrik zenbatzen ziren; hemen, B belaunaldiko elkarrizketatuen guraso guztiak zenbatzen dira, Euskal Herritik kanpo jaioakoa barne, baita gaur egun bertan bizi ez badira ere.

datuen arabera. Egungo gurasoek euren gurasoekin txikitan egiten zuten baino zer edo zer gehiago egiten baitute euskaraz gaur egun euren seme-alaba nerabeekin. Horrek esan nahiko luke, transmisio euskaltzalearen eta hizkuntza-bilakaera erdaltzalearen arteko talkan, transmisio-grina eraginkorragoa izaten ariko litzatekeela hizkuntza-bilakaeran erakusten den erdararen erakarpen-indar handia baino.

Landu ditugun datuak urriak izanik, kopuruaren arteko alde ez oso handiak eta oinarrian ditugun laginek akats-tarteak ezartzen dizkigutenez, datuok zuhurtzia handiz interpretatu beharra dago. Dena den, datuok bateragarri eta ulergarri egiten dute aurreko orrietan emandako informazio itxuraz kontrajarria. Ikuspegi hau, gainera, bat etorriko litzateke erabileraren bilakaera orokorraren norabidearekin: gure kalkuluek ematen duten saldo positibo hori norabidean bat baitator HEKNko eta ISLko erabilera-datuak azken 25 urteotarako marrazten duten bilakaerarekin.

Hala eta guztiz ere, ausartegia litzateke zenbaki horien bidez prozesu osoa laburbiltzen saiatzea. Bai, behintzat, ikerketa berriekin ikuspegi hori baieztatzeko moduko datu gehiago eskuratu arte.

**G.157. GRAFIKOA: GURASO/SEME-ALABEN ARTEKO ERABILERAREN BILAKAERA, BELAUNALDIAK ETA HIZKUNTZA-BILAKAERA AINTZAT HARTUTA. EUSKAL HERRIA 1969-2016**



Iturria: egileak landua, 2016ko ISLtik abiatuta. Erakusten diren datuak T.185. taulatik ekarri ditugu. [Jatorrizko iturria: *Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoaren datu-basea (1991-2016)*. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.]

### 20.4.7. B belaunaldiaren bilakaeraren kontakizuna eraikitzen

Azpikapitulu honetan, transmisioari lotuta dagoen belaunaldiarteko bilakaera eta hiztunen bizitzan gertatzen den hizkuntza-bilakaera era bateratuan aztertzen saiatu gara. Horretarako, hainbat alderatze egin ditugu, eta horietako bakoitzarekin fenomenoaren alderdi bat ikertu dugu. Saia gaitezen orain, alderdi horiek guztiak uztartuz, deskribatu ditugun fenomeno sozialak era bateratuan azaltzen, gertatu ziren hurrenkera kronologikoa ardatz hartuta. Zehazki, B belaunaldiaren ibilbidea laburtzen saiatuko gara, bere egoera aurreko belaunaldiarekin eta ondorengoarekin ere uztartzen saiatuz. Ea bada.

Batez beste, 1969. urtean jaio zen *baby boom*aren belaunaldi hori, 1959-1978 urteetan zehazki, euskararen etxeko transmisioa minimo historikoetan eta joera aldatzeko une batean zegoen garaian. B belaunaldia osorik hartuta, euren bizialdiko lehen urteetan etxean euskara %15,8an jaso zuen batez beste (%13,3k euskara besterik ez zuten jaso etxean, %5,0k euskara eta gaztelania/frantsesa).

Belaunaldi hori hazi eta seme-alabak izan zituen urte batzuk geroago. Batez beste, 2003. urtea har dezakegu seme-alaben jaiotzaren erreferentzia-puntutzat. Ordurako, euren bizitzako lehen urteetan baino gehiago ziren euskaraz zekitenak, familiaz kanpoko euskalduntzeak bultzatuta: bizitzaren lehen urteetan %18,3 ziren euskaraz zekitenak, eta %26,5era igota zegoen kopuru hori 2003rako. Era berean, ordea, bizitzako lehen urteetan baino askoz gutxiago ziren euren gaitasunean euskara nagusi zuten belaunaldi horretako hiztunak: %13,3tik %5,3ra jaitsita zegoen euskal nagusitasunezko hiztunen kopurua. Euskararen nagusitasunaren galera hori euren bizi-esperientzietan erdarak izandako pisu handiak eta gehienetan iraunkorrak eraginda izango zela pentsa daiteke. Euren bizi-esperientzia, izan ere, erdararen nagusitasun handiko testuinguruetan garatu zuen belaunaldi horren zati nagusi batek jaio zenetik (1969 ingurua) seme-alabak izan zituen arte (2003 ingurua).

Umeak izateko garaira horrela iritsita, haurrak jaio eta lehen urteetan, erosotasun-irizpideei jarraituta erabiliko zuketean baino askoz gehiago erabili zuten euskara seme-alabekin. Berez, euren euskararen erabilera-maila orokorra erosotasunak aginduko lukeenaren gainetik zegoen, baina seme-alaben kasuan areagotu egin zen erosotasunak eskatuko lukeen baino euskara gehiago erabiltzeko jokaera. Masa-fenomeno indartsu eta hizkuntza gutxituen artean ezohiko baten aurrean gaude: milaka hiztunek erosotasun-irizpideek aginduko luketenari amore eman ez eta euskaraz hazten dituzte haurrak etxean, muzin eginez testuinguru gehienetan erdaldunari, hizkuntza nagusian bizitzeko joera orokorrari eta hurrekin erdaraz aritzeko gizarteko joera orokorrari. Portaera hori ez daiteke ulertu hiztun horietako askok barrutik bizi duten euskalduntasuna, euskaraz bizi nahia eta transmisio-bulkada indartsua aintzat hartu gabe.

Era berean, belaunaldiarteko perspektiban esan behar da haiek umetan etxean jaso zuten baino neurri handiagoan eman zietela euskara etxean euren ondorengoei.

Hurrengo urteetan, belaunaldi horretako kide batzuek, pentsatzekoa da euskal gaitasun ahulagoa dutenek bereziki, apaldu egin dute euskararen erabilera seme-alabekin. Apaltze hori, berriz ere, erdararen erakarpen-indarraren ondorio da nagusiki.

Euren erabilera-maila, ordea, erosotasun-irizpideek aginduko luketenaren gainera azaltzen zaigu oraindik ere. Eta azken 25 urteotan belaunaldien artean izan den dinamika ikusita, belaunaldien arteko transmisioaren bulkada hizkuntza-bilakaeraren prozesuek higitu duten arren, belaunaldi berriek euren gurasoek adin bertsuan erabiltzen zutena baino gehiago dabilte euskara.



# ONDORIOAK



# 21. ONDORIO TEORIKO ETA METODOLOGIKOAK

## 21.1. ONDORIO TEORIKOAK

Atal metodologikoko eta azterketa enpirikoko lanketak oinarritzeko behar ziren hainbat puntu jorratu ditugu atal teorikoan, hala nola soziolinguistika eta demolinguistika nola kokatu eta mugatu, hizkuntzen jarraipen-, ordezkapen- eta indarberritze-prozesuen inguruan Fishmanek eta minorizazioaren soziolinguistikak zer-nolako ikuspegiak landu dituzten, prozesu horiek aztertzeo soziolinguistikak zer-nolako ardatz nagusiak erabili izan dituen eta demolinguistikatik nolako bitartekoak erabili izan diren ardatz horietan sakontzeko, zein diren euskal demolinguistikaren eragiketa nagusiak eta aipatu ditugun ardatzak lantzeko zer-nolako bitartekoak landu izan diren eragiketa horietatik... Landu ditugun edukien inguruan, bereziki adierazgarriak iruditzen zaizkigun honako lau ondorio teoriko hauetara iritsi gara:

Lehenengoa: soziolinguistika gaur egun oinarri teoriko bateratua duen diziplina bat izatetik urruti dagoen arren, eta gaur egun ikuspegi teorikoetan sakabanaketa handia badago ere, hizkuntzen ordezkapena, jarraipena eta indarberritzea finkatzen duten aldagai, faktore eta prozesuak zehazteko orduan ez dirudi hain urruti daudenik soziolinguistikan diharduten ikuspegi teoriko batzuk eta besteak. Zehatzago esanda, minorizazioaren soziolinguistikak batetik eta Fishmanen ikuspegiak bestetik, gai horiek nola aztertzen dituzten ikusita, bi ikuspegietan aurkitu ditugu, modu batean edo bestean formulatuta, honako zazpi ardatz hauek: hizkuntza-gaitasuna, erabilera(k), motibazio-jarrerak, testuinguru demolinguistikoa, sozializazio-prozesua, hizkuntza-bilakaera eta hizkuntzaren beraren uzurtzea (azkeneko hori demolinguistikaren ikerketa-eremutik kanpo gelditzen da). Ikuspegi teorikoaren arabera, jakina, aldatu egiten da kasu batzuetan ardatz bakoitzari eman beharreko garrantzi erlatiboa, ardatz bakoitzaren barruan bereziki aztertu beharreko edukia eta aldatu egiten da, halaber, ardatzen eta ardatza osatzen duten alderdien arteko elkarrekintzaren inguruko interpretazioa. Baina oinarritzeko ardatzak zerrendatzeko orduan, ez daude hain urruti ikuspegi teorikoak.

Ez da albiste txarra demolinguistikarentzat. Azken batean, horrek egingarri egin dezake demolinguistikak ikuspegi teoriko guztiak asetzeko moduko oinarritzeko ardatzen zerrenda bateratu batetik lan egitea. Horrela, ikuspegi teorikoen arteko aldeek ez lukete zertan oztopo izan demolinguistikaren garapenerako. Hein handi batean behintzat, litekeena dirudi ikuspegi teoriko guztietara irekita landu ahal izatea demolinguistika, oinarri teoriko horietan sustraituta, eta ikuspegi teoriko horiei datuak

eta azterketak eskainiz, ikuspegi bakoitzak bere oinarri teorikoa osa, molda eta sakon dezan.

Bigarrena: Euskal Herriko azken 30-40 urteotako ekoizpen demolinguistikoa zabala, aberatsa eta ugaria izan da eta honako lau adar sendo hauen eta aski egonkortuen bidez landu da: Hegoaldeko Zentsuak, Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketak, Inkesta Soziolinguistikoak eta haur-nerabeen erabilerari buruzko *Arrue* eta *Izaskun Arrue* ikerketak. Euskal demolinguistikan erabili ohi diren galdera eta erantzun-aukerak aztertuta, esan dezakegu oro har bitarteko egokiak eskaintzen dituela nazioarteko soziolinguistikak ezartzen dituen oinarri teorikoak enpirikoki aztertzeko. Ondorioz, lau eragiketa horiekin biltzen den izugarritzko informazio-masak aukera eskaintzen digu Euskal Herrian jarraipen-, ordezkapen- eta indarberritze-prozesuak angelu askotatik aztertzeko.

Hirugarrena: Euskal demolinguistikako lau eragiketa nagusietatik bik (HEKNk eta ISLk) lurralde osoari buruzko informazioa biltzen dute; horrek aukera ona ematen digu Euskal Herri osoko errealitatea aztertzeko. Gainerako bi iturriek lurralde-hutsuneak dituzte. Garrantzi berezia du zentsuen hutsuneak: Ipar Euskal Herrian Frantziako INSEEk egiten dituen zentsuetan ez da hizkuntzari buruzko galderarik txertatzen, eta, ondorioz, ez dugu udalerrri mailako informaziorik Iparralderako. Hutsune handia eragiten du horrek, lurralde horietarako bereziki, baina baita hiztun-komunitate osoaren ikuspegitik ere. Gure ustez, euskal demolinguistikarentzat lehentasunezkoa beharko luke informazio-hutsune hori betetzeko bitartekoak lantzea.

Laugarrena: euskara-erdaren egoera soziolinguistikoa zertan den eta gertatzen ari diren aldaketa-prozesuak hobeto ezagutzeko, aurrera begira, garrantzitsua litzateke euskal demolinguistikak honako ildo hauetan aurreratzea: alor teorikoan sakontzea, nazioartekotzean aurreratzea eta metodologia-alorra gehiago lantzea. Azken alderdi horretan, garrantzi berezia du, gure ustez, aipatu ditugun lau eragiketen arteko alderagarritasuna ziurtatzeko bitarteko metodologikoak sortzea; horren bidez, egun elkarrekiko lotura handirik gabe diharduten lau adarretatik abiatuta, osotasunezko ikerketa-sistema integratu batera iristeko bidean urratsak egiteko modua izango litzateke. Gure tesi honek ekarpen bat egin eta izan nahi du bide horretan.

## 21.2. ONDORIO METODOLOGIKOAK

Tesiaren izenburuak argi adierazten duen bezala, atal metodologikoak garrantzi berezia izan du gure lanean. Gure hautua izan da euskal demolinguistikako hiru eragiketa nagusietara jo (Hegoaldeko Zentsuetara, Hizkuntzen Erabileraren Kaleko Erabilerara eta Inkesta Soziolinguistikoetara), horien inguruko dokumentazio teknikoa eta mikrodatuen fitxategiak eskuratu, eta atal teorikoaren edukiei ahalik eta gehiena egokitzen saiatuta, adierazle berriak sortzea euskara-erdaren egoera Euskal Herrian zertan den aztertzeko, ordezkapenari/jarraipenari/indarberritzeari dagokienez. Lan horrek aukera eman digu euskal demolinguistikako eragiketak sakonago ezagutzeko; euskal demolinguistikaren ingurukoak dira hurrengo puntuan aurkeztuko ditugun

ondorioak; hurrengoan, berriz, berriaz guk egin dugun lanari eragiten dioten balorazio eta ondorioak aurkeztuko ditugu.

### **21.2.1. Euskal panorama demolinguistikoari eragiten dioten ondorioak**

Hasteko egin dugun lanketarekin, berriz baieztatu dezakegu atal teorikoan ikusitakoa: aberatsa eta zabala da demolinguistikaren alorrean Euskal Herrian dugun informazioa-masa. Argitalpenetan ez ezik, ondo gorde, sailkatu eta antolatutako informazioa dago HZ, HEKN eta ISLren **mikrodatuen fitxategietan**.

Iturri horietatik ekarritako informazioa irakurritakoan, **koherentzia orokor bat** ikusten da iturri batzuk eta besteek eskaintzen dituzten emaitzetan. Gehienetan, iturrien arteko alde logikoak ez dira handiak edo erraz azaldu daitezke ageriko arrazoi teoriko-metodologikoei erreparatuta.

Badira, ordea, **kontraesanak hain txikiak ez diren kasuak ere**, eta zaildu egiten dute aztertu ditugun gaien inguruan ondorio enpiriko argietara iristea. Tankera horretako kontraesanak aipatu ditugu han eta hemen atal enpirikoan. Horien artean, bereziki azpimarragarriak iruditzen zaizkigu honako hauek: 15.1.2. puntuan ikusi dugun bezala, ISL, HEKN eta HZko datuek erabilerari buruz marrazten dituzten bilakaera-joeretan alde aipagarriak daude bilakaeraren intentsitateari eta epekatzeari dagokienez. Alde horien artean bereziki deigarriak dira ISLk eta HZk etxeko erabilerari buruzko datuetan ageri dituztenak. Horretaz gain, 18. kapituluan ikusi dugun bezala, aipagarriak dira nagusitasun-eremuen eta lurraldeen erabilera-mailan HZ eta HEKNko datuek erakusten dizkiguten joera ezberdinak.

Atal enpirikoan saiatu gara, gure lanaren mugen barruan, datu ezberdin horien arrazoietan arakutzen eta, kasu batzuetan, finkatzen zein diren, gure ustez, egiantz handieneko datuak. Dena dela, kontraesankorrek diruditen emaitza horiek guztiek **lanketa teoriko-metodologiko sakonagoa eskatzen dute**, besteak beste, eragiketen laginketa-, haztatze- eta esleitze-prozedurak xehe aztertuz (lan honen helburuetatik at gelditzen da hori). Lanketa hori aipatu ditugun hiru iturriak (baita laugarrena ere, *Arrue*) aintzat hartuz era bateratuan egitea erronka handia da, gure ustez, hurrengo hamarkadetako euskal demolinguistikarentzat, ikuspegi sistematiko-bateratuan aurreratu nahi bada bederen.

### **21.2.2. Guk egindako lanketari eragiten dioten ondorioak**

Behin euskal panorama demolinguistikoari orokorrean eragiten dioten ondorio metodologikoak aipatuta, goazen guk egin dugun lanaren ingurukoak zehaztera. Nola baloratu egin dugun lana? Zer-nolako alderdiak hartu beharko liriateke kontuan aurrera begira antzeko lanetan jarraitu nahi izatekotan? Galdera horiei erantzuteko, adierazleak sortzerakoan guk egin dugun lanketa metodologikoa modu ahalik eta koherenteenean egiten saiatzeko, 8. kapituluan finkatu ditugun hainbat irizpide orokorretara joko dugu, eta horien inguruko hausnarketa egingo.

Eragiketa demolinguistikoen arteko alderagarritasuna aztertzea eta bilatzea izan da gure irizpide nagusienetako bat. Behin lan metodologikoa eginda, ondorioa da, bitarteko egokiak landuta, euskal demolinguistikazko iturrien arteko **alderagarritasun**

**handi batera irits gaitzkeela.** Hori horrela dela frogatu dugulakoan gaude. Zehazki, zentsuek eta ISLk hizkuntza-gaitasunari buruz ematen dituzten datuak alderagarri egitea lortu dugu atal metodologikoan azaldutako adierazleekin, baita bi iturri horien eta HEKNren erabilera-datuak ere. Bide egingarria eta gure ustez emankorra da, hortaz, iturri batzuetako eta besteetako datuak irizpide bateratuekin landu eta guztiekin euskal errealitate soziolinguistikoa ezagutzeko sistema ahalik eta integratuena sortzea.

Gure saialdiaren beste ezaugarri bat izan da, ahal izan den neurrian, **alor metodologikotik adierazleak sortzerakoan, teoriaren alorrean definitutako terminologia eta irizpideak zorrotz erabiltzen saiatzea.** Horrek batzuetan ekarri du gure lanketan azken hamarkadotako euskal tradizio demolinguistikoak erabili izan dituen irizpide propioetatik apur bat aldentzea. Hori gertatu zaigu, zehazki, hizkuntza-gaitasunaren gaia zentsuetako informazioarekin eta ISLkoarekin landu dugunean. Bi iturri horietan, tradizioz, euskara bazekiten eta ez zekiten hiztun multzoen artean, tarteko ezagutza-mailarekin, euren artean ere guztiz bateragarriak ez ziren beste multzo batzuk landu izan dira: “ia euskaldunen” multzoa zentsuetan, “elebidun hartzaileen” eta “euskaldun hartzaileen” multzoak mapa soziolinguistikoetan eta inkesta soziolinguistikoa (gaiaren inguruko azalpen zehatza 5.1., 9.3.5. eta 11.2.6. puntuetan egin dugu). Zalantza izan dugu zer egin: tradizio horri jarraitu edo teoria mailako elebidun hartzaileen kategoriaren edukia aplikatu; bigarren bidea hartu dugu, uste baitugu errealitatearen ezagutzari eta errealitate hori nazioarteko beste eremu batzuetakoekin alderatu ahal izateari mesede egiten diola teoria mailan aski era argian definituta dauden kontzeptuak bere horretan aplikatzeak; bide horri estu lotzen saiatu gara lan honetan, horrek orain arte zentsuek eta ISLk argitaratu dituzten datuekiko kontraesankorrak diruditen datuak argitaratzea ekarri duen arren.

Tradizioz, euskal demolinguistikan lurraldea irizpide soziolinguistikoaren arabera aztertzeko, euskaldunen dentsitatean oinarrituta landu izan diren gune edo eremu soziolinguistikoek gain, **nagusitasun-eremuak** ere lantzea proposatu dugu atal metodologikoan, **udalerrietako erabilera-datuetan oinarrituta**, eta horren aplikazio praktikoa egin dugu atal enpirikoan. Uste dugu adierazle emankorra gertatu dela nagusitasun-eremuena, oinarri teoriko aski sendoa izateaz gain, gurean gertatzen diren fenomeno eta prozesu soziolinguistikoek lurraldean duten aldakortasuna enpirikoki aztertzeko eta ulertzeko ere multzokatze adierazgarria eta argigarria suertatu dela, alegia. Aurrera begira, akaso, erabili dugun adierazleaz gain, komenigarria izan daiteke erdararen nagusitasuna handia den udalerrien multzoa xehatuko duen beste bat ere sortzea, multzo erdaldunenean hiztunen zati handiena biltzen denez, hor barruko errealitateetan sakontzeko azpikategoriak eraikita.

Gure lanak ere izan du **demolinguistikan** (eta oro har gizarte-zientzietako tradizio positibistan) **nagusi izan den sailkapen-irizpide dikotomikoak gainditzeko saiakera metodologikotik.** Bat egiten dugu gurean Hernándezek (2010: 604) eta Kasaresek (2011: 202; 2014: 92, 103) sailkapen dikotomikoen mugez eta gehiegizko erabilpenaz aipatu izan dituzten kritikekin, eta ahalegindu gara, ikerketa kuantitatiboaren eremutik atera gabe, kategoria gutxiko sailkapenen orde, sailkapen xeheagoak lantzen. Ahalegin hori, batez ere, ISLn oinarritutako hizkuntza-gaitasunaren ISL-001 adierazlean gauzatu dugu, hizkuntza-gaitasunak berez duen *continuum* izaerara gehiago hurbilduko zen zazpi kategoriako adierazlea landuta. Tradizioz gurean

gaitasunari buruz landu izan den sailkapen trikotomikoarekin alderatuta, uste dugu guk landu dugun adierazleak aztergaia hobeto ezagutzeko balio duela; gaiaren ikuspegi aberatsago eta osatuagoa eskaintzen duela adierazle berriak alegia. Aurrera begira, interesgarria litzateke irizpide dikotomikoak-trikotomikoak gainditzeko saiakera beste gai batzuetan ere aplikatzea, hala nola, lehen hizkuntzaren gaian edo harreman-sareko banakako mintzakideen hizkuntza-gaitasunean. Bide horri heltzeko, ordea, kasu batzuetan galdetegiak moldatu egin beharko lirateke.

Gure ahaleginaren beste ezaugarri bat izan da, ahal dela, **nazioartean alderagarriak izan daitezkeen adierazleak** sortzea. Uste dugu nazioarteko alderaketak egiteko modua izatea onuragarria litzatekeela diziplinarentzat berarentzat ez ezik, baita errealitatea hobeto ulertu nahian ari diren hizkuntza gutxituetako hiztun-komunitateentzat ere; eta uste dugu, horregatik, komunitate horietatik dihardugun ikerlari guztioi dagokigula, ahal den neurrian, bide horretan urratsak egitea, eta ahal dela, ikerketa-prozeduren eta kontzeptuen arteko nazioarteko zubiak eraikitzea. Bide horretan ekarpen bat egin nahi izan dugu lan honetan denbora osoko hiztunen kalkuluarekin, transmisioaren inguruko indizeekin eta hizkuntzaren bizi-indarraren ingurukoarekin. Norabide horretan landu ditugun bitarteko metodologikoak eta lortu ditugun emaitza enpirikoak aurkeztu ditugu lehenago. Egin dezagun orain lanketa horren balorazio labur bat.

Hasteko, onartu beharra dugu gehienetan ez dela lan erraza izan. Teoria-atalean esaten genuen bezala, demolinguistika tokian tokiko irizpide eta bitartekoen bidez landu da han eta hemen. Ondorioz, zentsu eta inkesta soziolinguistikoetan informazioa biltzeko erabili izan diren galderak ez datoz bat gehienetan, eta horrek ezinezko egiten du askotan, gaur-gaurkoz, nazioarteko erreferentziekin guztiz alderagarriak izango diren adierazleak sortzea. Sozializazioari buruzko adierazleak elikatzeko erabili ditugun jatorrizko aldagaietara joz, adibidez, Euskal Herrian eta Galizian, amarekiko (edo aitarekiko) erabileraz galdetzen zaie ama bizirik duten elkarrizketatuei; Katalunian ama hilda dutenei ere galdetzen zaie amarekin bere garaian hitz egiten zuten hizkuntzari buruz, eta katalanek horiek ere kontuan hartuta ateratzen dituzte indizeak. Hori gutxi balitz bezala, erabilerari buruzko erantzun-aukera ezberdinak darabiltzagu Galizian, Katalunian eta Euskal Herrian atal teorikoko 3.3.2.3. puntuan azaldu dugun bezala. Horrek guztiak asko zailtzen du bateratze-lana egitea eta hizkuntza-komunitateen arteko alderaketa zorrotz-zorrotza egitea. Hala eta guztiz, uste dugu egindako saiakerak erakutsi duela, sozializazioaren eta hizkuntzen bizi-indarrari buruzko indizearen kasuetan behintzat, posible dela iturri batzuen eta besteen artean gutxieneko alderagarritasun batera iristea, eta horien bidez gure errealitatea beste hizkuntza-komunitate batzuetan dutenarekin alderatzea. Honako hau ere, sakontzen eta lantzen joan beharreko ildoak luke, gure ustez, euskal demolinguistikak.

Orain arte, balorazio positiboa merezi duten hainbat alderdi aurkeztu ditugu. Aipa ditzagun, hobekuntza gisa, **egin dugun ibilbidean hobetzeko moduko bi alderdi metodologiko zehatz:**

- ✓ **Tasa esleitueterako** lan honetan ibili dugun **esleitze-irizpide orokorrari buruzko zalantzak** sortu zaizkigu. Ezin da ukatu logika matematiko betea duela landu dugun proposamenak, eta demolinguistikan tradizio ohargarri bat

ere bai; indargune garrantzitsuak dira horiek erabili dugun irizpidearen alde. Baina, horrela lan egin ondoren, zalantzak sortu zaizkigu, horrela kalkulaturako tasek ez ote duten sistematikoki hanpatzen benetako euskararen erabilera-maila. Egia esan, akats hori ere aurreikus zitekeen, demolinguistikan alboratze ez-homogeneoaz gauza jakina dena kontuan hartuta, hots, erabilerari buruzko muturreko erantzunek (guztia euskaraz, guztia erdaraz) baino alboratze handiagoa izan ohi dutela tarteko kategoriek. Akats horri, gainera, 8.4.1. puntuan *esleipen-erroreaz* aritu garenean esandakoa gehitu behar zaio: gure errealitate soziolinguistiko zehatzean, pentsa daiteke erabilerari buruzko galdera xeheetan “beti erdaraz” edo “beti euskaraz” erantzuten duten muturreko bi multzoen arteko benetako portaeretan ere aldeak egongo direla, bi multzo horien trinkotasunean dauden ageriko ezberdintasunak tarteko: beti erdaraz egiten dutela dioten hiztun gehienak erdaldun elebakarrak dira, nekez egingo dute horiek euren jardunaren zati bat euskaraz; beti euskaraz egiten dutela dioten hiztun gehienak, berriz, elebidunak dira. Aurrera begira, hori aintzat hartuta, beste esleitze-irizpide batzuk probatzea komeni dela deritzogu, justifikazio matematikoaren aldetik hain sendoak izan gabe ere, errealitate enpirikora gehiago hurbilduko direnak.

- ✓ **Zentsuen kasuan**, gaitasunari buruzko galderen emaitzetan ikusten zen ziklo-efektua jakitun, eta azken edizioetan 6an bukatutako urteetan Nafarroa Garaia buruzko informaziorik ez genuela jakitun, **1en bukatutako urteetara mugatu dugu ustiaketa**. Horri lotuta, 2011 urtekoak dira guk mikrodatuekin landu ditugun azken emaitzak, atal enpirikoan hortik aurrerakoak ere erabili ditugun arren, informazio eguneratuagoa eskaintze aldera. Orain, aldiz, ez dugu oso argi gure ustiaketa 1en bukatzen diren urteetara mugatzea erabaki zuzena izan ote den. Berez, sistemaren ikuspegitik, esan beharrik ez dago gure lanketa mugatu hau baino egokiagoa eta beharrezkoagoa litzatekeela erakunde arduradunak bitartekoak jartzea zentsuetan antzeman ditugun ziklikotasun-arazo horiek konpontzeko. Nolanahi ere, hori egin arte, auzitan jartzen dugu guk hartutako erabakia ere, ustiaketa 1en bukatzen diren urteetako datuekin soilik egitea. Informazio baliagarri eta eguneratu asko galdu daiteke horrela; agian zentzuzkoagoa da 6an bukatzen diren urteak ere lantzea eta, horrekin ziklo-efektua konpontzen ez bada, datuak irakurtzerakoan zuhurtzia bereziz aritzea, ziklo-efektu hori ere aintzat hartuta.

Ondorio metodologikoekin bukatzeko, garrantzi berezia duen gai bat aipatuko dugu. Atal enpirikoaren hasieran esaten genuen bezala, **eltzea sutan nola, enpirikoki aplikatuta frogatuko da sortutako tresna metodologiko berriek balio ote duten errealitatea hobeto ezagutzeko eta ulertzeko**.

Gogoratu beharra dugu atal enpirikoan oinarrizko hurbilpen mugatu bat egin diogula adierazle berrien erabilerari, eta izan dezaketen potentzialitatearen zati bat besterik ez dugula landu. Dena den, zer esan daiteke lehen lanketa enpiriko horren argitan sortu dugun tresneria metodologikoaz? Balio izan al digute adierazle horiek gure helburu enpiriko orokorrean aipatzen genituen “ikuspegi berriak” eskuratzeko? Gure ikuspegia labur azalduta, uste dugu hein batean behintzat lortu dugula hainbat gaitan gure errealitate soziolinguistikoaz ikuspegi berri hori eskaintzea, hizkuntza-gaitasunaren



gailan eta erabilerarekin duen harremanean landu dugun ikuspegi berrituan, adibidez, edo hizkuntza-bilakaeraren gailan landu dugunean, edo lehen hizkuntzak azken mendean izan duen bilakaera landu dugunean. Alde horretatik, esan beharrean gaude lana hasitakoan genituen espektatibak bete direla, eta sortu ditugun adierazleekin eta horiek emandako informazioaren irakurketarekin euskal errealitate soziolinguistikoaren ezagutzari ekarpen positiboa egin ahal izan diogula, gure ustez.



## 22. ONDORIO ENPIRIKOAK: HIZKUNTZA-JARRAIPENA, -ORDEZ- KAPENA ETA -INDARBERRITZEA EUSKAL HERRIAN

### 22.1. EUSKALDUNAK, HERIOTZAREN AMILDEGI ERTZETIK BUELTAN DATORREN HIZTUN-KOMUNITATEA (XX. MENDE HASIERATIK GAUR ARTEKO BILAKAERAZ)

Ez dira oso ugariak XX. mende hasieratik gaur arterainoko ikuspegia eskaintzen diguten datu demolinguistikoak. Guk zehazki bi datu-serie osatu ahal izan ditugu gaiaren inguruan Hegoaldeko Zentsuetan oinarrituta (Iparraldean ez dago horrelako informazio-iturririk): garai bakoitzean jaiotako haurren lehen hizkuntzaren bilakaera luzea eta nagusitasun-eremuen<sup>315</sup> bilakaera. Datu horiek eskuan, eta batez ere bi datu-serie horien arteko lehenengoa irakurrita, azken mendeko ibilbidearen epekatze orokor baten zirriborroa proposatuko dugu. Badakigu, jakina, errealitate soziolinguistikoa ez dela haurren lehen hizkuntzara mugatzen, adierazle eta aldagai gehiago beharko genituzkeela bilakaera-epeak taxuz erabakitzeko. Honako datua hauek dira, ordea, 1906-1991 tarterako eskura ditugun bakarrak. Horien gainean eraikiko dugu garai horretarainoko gure epekatzea; eta 1991tik aurrerako urteetarako beste adierazle batzuk ere aintzat hartuko ditugu mugarriak ezartzeko orduan.

Atal enpirikoaren 13.1. puntuan aurkeztu ditugun datuak irakurrita, eta ondoren aurkeztuko ditugun zuzenketa batzuk eginda, hiru fase nagusitan bana dezakegu azken mendeko Hegoaldearen historia soziolinguistikoa: ordezkapen-aroa dei genezakeena (1906tik hasi eta 1971 ingurura), indarberritzearen aroa (1971-2001) eta indarberritze-prozesuaren geldotze-aroa (2001 ingurutik gaur arte luzatuko litzatekeena). Ikus dezagun lasaiago.

#### 22.1.1. Ordezkapen-aroa (1906-1971)

**Ordezkapen-aroa** esan diogu 1906. urtetik 1971 ingurura arte luzatzen den faseari. Fase horri 1906. urtean jarri diogu hasiera, ez deskribatzen ari garen prozesua garai horretan abiatu zelako, datu demolinguistiko zaharrenak urte horren ingurukoak ditugulako baizik, berez, deskribatzen ari garen prozesua lehenagotik ere bazetorrela pentsatzeko makina bat zantzu badauden arren. Fase horren ezaugarri behinena

---

<sup>315</sup> Nagusitasun-eremu esaten diegu udalerrien euskalduntasun-maila aintzat hartuta sortu ditugun udalerrri multzoiei, eta bertako hiztunen erabilera-mailaren arabera eraiki ditugu (ikus 9.8.2. puntua).

hizkuntza-ordezkapena da: 1906 inguruan jaio ziren haurren artean %41,0koa izan zen euren lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua<sup>316</sup>. Kopuru hori erdia baino gehiago jaitzi zen 1971rako: urte horretan jaio zirenen artean euskarak %17,8ko pisua izan zuen lehen hizkuntzan<sup>317</sup>. Metodologia-atalean azaldu dugun bezala, gainera, pentsatzekoa da azken kopuru hori baino txikiagoa izango zela berez urte horren inguruan Hegoaldean jaio haurren artean euskarak lehen hizkuntzan izan zuen pisua.

H1en egondako jaitziera handi horrek zer adierazten du? Beste dinamika batzuek ere datu horietan zerikusirik izango zuten arren, 1906 eta 1971ko datu horien alderaketak funtsean erakusten du hiztun euskaldunen multzo aipagarri batek, erabaki zuela etxean jaso zuten euskara euren seme-alabei EZ erakustea, eta komunitateak ordura arte seme-alabak hazteko erabili zuen hizkuntzaren ordez, euskararen ordez alegia, gaztelania hautatu zutela; horrela, euren jokabidearekin eten egin zuten euskararen jarraipenerako prozesu naturala. Hizkuntza-ordezkapenaren azken faseetako funtsezko mekanismoa dugu hizkuntzaren transmisioa etetea (Boix eta Vila, 1998: 191): horixe bera gertatu zen garai hartako Euskal Herrian. Horrek ez du esan nahi, jakina, aro horretan ordezkapena erabatekoa izan zenik, edo ordezkapen-prozesuak besterik ez zirenik gertatu, ez horixe. Epealdi horretan, horretaz gain, jarraipen-dinamikak ere izan ziren euskal hiztun multzo zabaletan<sup>318</sup>, eta horri eskerrak iritsi da euskara hizkuntza bizi gisa gure garaietara. Dena den, aroaren ezaugarri bereizgarria ordezkapena dugu: aztertu dugun aldian, txikituz joan da Hegoaldeko gurasoen artean haur txikiekin euskaraz egiten zutenen multzoa, hori da garai horretan indarrean egon den prozesua.

Prozesu horren lekukotasun kuantitatibo argia ematen digute estatistika ofizialaren eremuan, guk dakigula, gurean egin izan den lehen eragiketa demolinguistikoko datuek. Bilboko Udaleko zinegotzi jeltzaleen eskariz, Rufino Laiseca sozialista alkate zela, Bilboko udalerrian 1920ko erroldan euskararen ezagutzari buruzko datuak jaso zituzten lehen aldiz. Errolda horren adinkako datuek argi erakusten dute garai hartako Bilbon euskaldunen artean oso hedatua zegoela euskara seme-alabei ez erakusteko ohitura (Aizpuru eta Zarraga, 2011: 131). Hori frogatzen du euskararen ezagutzaren arabera garai hartan ageri zen adin-piramideak: haurrak izateko adinean zegoen belaunaldian euskaldunek zuten pisuaren aurrean, txikia zen haurren artean euskaldunek zuten pisua, aurrekoaren laurdena gutxi gora behera. Bilbon 1920 inguruan bizi ziren euskaldun gehienek, hortaz, hiru laurdenek inguruk, ez zieten euskararik erakutsi euren seme-alabei, horietako gehienak Bizkaiko eta Euskal Herriko

---

<sup>316</sup> Gure ustiaketak 1906. urterako emandako kopuru horrek nahiko bateragarria dirudi, printzipioz, XIX. mende bukaeran, garai hari buruz iturri fidagarriena jo izan den Ladislao de Velascok emandako datuekin (Intxausti, 1990: 124). 1867-1868 urteetan egindako neurketen arabera, Hegoaldeko herritarren %50,1 izango ziren garai hartan euskaldunak. Euskaldunen nagusitasun demografikoa handia zen Gipuzkoan (%96,4), Bizkaian (%81,4) eta Iparraldean (%65,0).

<sup>317</sup> Ondorio enpirikoen kapitulu honetan aurkeztuko ditugun datuen iturri zehatzak gai bakoitza landu den atal enpirikoan aurkitu daitezke.

<sup>318</sup> Datuen lehen irakurketa batek esango liguke XX. mendeko belaunaldi guztietan seme-alabak euskaraz hazteko ohiturari eutsi diotenak gehiengoa izan direla euskaldunen artean; hots, jarraipenaren aldeko jarrera izan dela hautu nagusia belaunaldi guztietan. Erdarara aldatzeko joera ere, ordea, batzuetan indartsuago besteetan ahulago, hori egon da epealdi osoan, eta hamarkadaz hamarkada euskaratik erdararako aldaketa hori metatuz joan da; horrenbestez, datu orokorrek galera-prozesu argia erakusten dute.

zonalde euskaldunagoetatik etorritako euskaldun ziur aski gaituak izanda ere. Bilboko errodaren berri ematen digun artikulua horretan bertan, 1922ko Bilboko Comunioneko<sup>319</sup> gazteen *Irrintzi* aldizkarian argitaratutako artikulua bati aipamen eginez, azaltzen da fenomeno hori ez zela Bilbon bakarrik gertatzen, aitzitik, garaiko euskal hirietan arrunta eta aski orokortua omen zen jokabide hori. Orokortua, baita garaian hazten eta sendotzen ari zen euskal abertzaletasunaren esparru sozialean ere: hirietako abertzale euskaldun gehienek ez omen zieten euskara transmititzen seme-alabei. Hain orokortua izango zen jokabide hori arrunta omen zen erdaraz egiteko zailtasunak zituzten euskal gurasoen artean ere, eta horiek ere ez zieten euskara transmititzen seme-alabei (Aizpuru eta Zarraga, 2011: 120). Norbere hizkuntza ondorengoei ez erakustearen oinarri ideologikoaz aritu gara atal teorikoan: mendeetako bazterketa-, jazarpen- eta gutxieste-prozesuen ondorioz, modernitatea eta aurrerabidea ustez gaztelaniaren eskutik zetozen garai haietan, bizitzan aurrera egiteko hizkuntza baliagarria gaztelania izan eta euskara aurrerabiderako oztopo gisa ikusten zelarik, norbere hizkuntza arlotea, baserritarrena, iraganekoa, bizitza berrirako egokitzat ez jotzea nahiko arrunta zen. Aipatzen ari garen joera hori ez da, jakina, garai hartako Euskal Herrian soilik gertatu zen fenomeno. Aitzitik, norbere hizkuntza gutxiesten duten sentimendu eta pentsamenduak nagusitzea gertaera arrunta da gutxiagotzea jasaten ari diren hiztun-komunitateen artean (Thomason, 2018).

Ordezkapen-aroa deitu dugun horretan, bestalde, asko jaitsi zen euskara nagusi zen lurralde-eremuaren pisua. Joera hori testuinguruan jarriz, esan daiteke erdararen hedapena XIX. mende hasieratik zetorrela, baina azkartu egin zela XX. mendean (Zalbide, 2004). XIX. mende erdialdean, euskara, oraindik, herri xehearen hizkuntza ia bakarra zen ahozko eremurako lurralde askotan, eta ez ziren gutxi euskaldun elebakarrak (Zalbide, 2004, 2007b). Ladislao de Velascok emandako datuak (Intxausti, 1990: 124) guk landu ditugun irizpideekin interpretatuz gero, 1867-1868 inguruan Gipuzkoa osoa izango litzateke arnasmunean<sup>320</sup>. Xehetasunetan sartu gabe, egoera bertsuan egongo lirateke Bizkaiko, Nafarroako eta Iparraldeko lurralde-eremu zabalak ere. XX. mende hasierari buruzko gure datuetara etorrira, Hegoaldeko haurren %37,5 arnasmuneetan jaio ziren 1906. urtean, eta pentsatzekoa da gutxi gorabehera proportzio horren inguruan ibiliko zirela arnasmunean bizi ziren hiztunak. Aztertzen ari garen ordezkapen-aroaren amaieran, 1971n, %10,0 baino ez ziren ezaugarri horietako udalerrietan jaioak. Arnasmuneek, hortaz, epealdiaren hasieran zuten pisuaren ia hiru laurdenak galdu zituzten 1906-1971 artean.

Euskal munduaren suntsipen-prozesu argia erakusten dute, beraz datuek, Fishmanen (1991) ikuspegitik hizkuntzaren jarraipenerako giltzarriak diren bi fenomeno erabakigarri lotuta zehazki, hizkuntzaren transmisioari eta arnasmuneei. XX. mende osoari buruzko bestelako datu demolingüistikorik ez dugun arren prozesu hori

---

<sup>319</sup> Comunion Nacionalista Vasca EAJko korrante moderatu-estatutistaren erakundea izan zen 1916-1930 bitartean; garai horretako korrante independentista Aberrin antolatzen zen.

<sup>320</sup> Hori bera ematen digute aditzera ere garai hartan Eguren ikuskatzaileak Gipuzkoako egoeraz egin zituen deskribapenak (Eguren, 1967, apud Fernández de Gobeo, 2016: 94):

La inmensa mayoría de los niños que asisten a las escuelas de nuestro país no entiende el castellano, pues que en los pueblos rurales, que son los que forman parte de la hermandad guipuzcoana, solamente se habla el vascuence, con muy cortas escepciones, y aun en las poblaciones de más importancia no es todavía habitual la lengua castellana sino entre las personas cultas y de más instrucción.

irudikatzen, ez dago zalantza handirik ordezkapen-prozesu hori antzemango zela landu ditugun gainerako ardatzetan ere: horrela, zalantza handirik gabe, baina kuantifikatzerik ez dugun kopuruetan, euskaldunen ehunekoak behera egingo zuen 1906-1971 tartean, berdin euskaldun elebakarren zein orokorrean euskal nagusitasunezko hiztunen kopuruek, euskararen erabilerak ere atzera egingo zuen etxean, kalean eta gainerako testuinguru gehienetan, eta abar.

XX. mendearen hasieran oraindik euskarak bizirik iraun zuen eremuetan gertatzen da nagusiki deskribatzen ari garen fenomeno, gutxi asko M.3. mapan irudikatzen genuen horietan<sup>321</sup>. Esan beharra dago, bestalde, ordezkapen-prozesu hori ez zela linealki gertatu aipatu dugun denbora-tarte osoan. Aitzitik, hainbat gorabehera argi antzematen dira prozesuan; epekatzeari erreparatuta, seme-alabei euskara erakusteko edo ez erakusteko guraso partikularrek hartu zituzten milaka erabaki partikularrek historiaren gorabehera ekonomiko, politiko, militar eta kulturek estuki baldintzatuta hartu zituztela iradokitzen du datuen lehen irakurketa batek. XIX. mendearen amaieran aldi historiko berria hasi zen foruen galerarekin, eta indartu egin zen lehenagotik ere bazetorren ordezkapen-prozesu orokorra, baina aipatu beharra dago 1921-1936 tartean eten bat gertatu zela prozesu horretan, 1931-1936 tartean bereziki; garaiko mugimendu abertzale eta euskaltzalearen indarberritzearekin eta horri lotuta etorri zen euskararen susperraldiarekin zerikusi estua izango duela pentsa daiteke. Galera-prozesu sakonena, berriz, ondoren hasten da eta bete-betean bat dator 1936-37ko altxamendu militarrek Hegoaldean ekarri zuen diktadura-aldiarekin, euskararen aurkako errepresio zuzena gogortzearekin eta euskara zein Euskal Herriaren alde politikoki zein kulturalki lan egiteko ezarri ziren debekuekin eta jazarpenarekin (Intxausti, 1990; Torrealdei, 1998; Anaut, 2013). Galera-prozesu horretan eragin zuzena izango zuten, bestalde, 1960ko hamarkada inguruan hasi zen industrializazio-prozesuak gure gizartean eragin zituen aldaketek. Industrializazio horren eskutik, ordura arte euskararen lurralde gotor izandako baserri giroko herri gehienak jendez husten hasten dira, eta industriaz hornituriko herri handi(tu)agoak erdalduntzen hasi ziren, bertako enpresen lan-indar beharrari erantzunez ehunka mila hiztun erdaldun etorri baitziren gure herrietara (De la Cueva eta Aiestaran, 1982; Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994; Recaño, 2004; Elizagarate eta Lurrebaso, 2006).

Ordezkapen-aro deitu dugun horrek errotik aldatu zuen Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa, ordura arte euskara bizirik iritsi zen gunearena bereziki. Aro horren emaitza gisa, euskarak galdu egin zuen ordura arteko nagusitasun trinko eta lurraldean nahiko jarraitua, eta kuantifikatzerik ez dugun arren, oso ahuldu ziren euskaldun elebakarrak, euskal nagusitasunezko hiztunak eta nagusiki euskaraz bizi ziren hiztunen multzoak<sup>322</sup>. Epe horren azken urteetan lehen hizkuntzari buruz sortu dugun adierazleak erakusten duen kopuru urri hori da hizkuntzak garai horretan zuen indar eta hedadura arras eskasaren erakusle argiena. Are gehiago, esatera goazenari ñabardura eta iruzkin dezente egin ahal zaizkion arren, orokorrean esan daiteke, 1906-

---

<sup>321</sup> Lehen begiratu batean esan daiteke lurralde-eremu horretan ere ez zela homogenoa izan bilakaera-prozesu hori, eta zonalde batzuek besteek baino higadura azkarragoa edo/eta sakonagoa jasan zutela. Hori ere, ordea, etorkizuneko ikerketek argitu beharko duten alderdia dugu.

<sup>322</sup> Ordezkapen-aroaren bukaeran eta indarberritzearen hasieran, 1975-1980 inguruan, euskararen egoera soziala zer-nolakoa izan zitekeen erakutsiz azalpen argigarria egiten du Mikel Zalbidetik (2010a).

1971 bitarteko ordezkapen-aroaren dinamikak bere horretan aldaketarik gabe jarraitu izan balu hurrengo mende erdian, adibidez, euskara belaunaldi berrietara transmititzen ez diren hizkuntzen multzoan sartuko zatekeela bete-betean, hamarkada gutxiren buruan hiztunik gabe geldituko zen hizkuntzen multzora. Argi adierazi zuten hori Ruiz Olabuénagak eta Marañonek (1983: 64): 1960ko hamarkada arteko suntsipen azkarreko dinamikak bere horretan jarraitu izan balu, bi belaunaldiren buruan gertatu izango zela euskararen amaiera. Norabide horretan joan ziren, hortaz, 1921-1936 inguruko parentesiarekin, XX. mendeko lehen 70 urteak.

### 22.1.2. Indarberritze-aroa (1971-2001)

Hizkuntza-heriotzaren amildegi ertzera iritsita, 1971. urte inguruan atzeranzko joera sakon hori eten eta itzulbiratzen hasi zen ordea. Urte horretan kokatu dugu **indarberritze-aroa** esan diogunaren hasiera. Aro horrek 30 urte inguru iraun zuen, 1971 ingurutik 2001 ingurura. Puntu honetan eta hurrengoan ikusiko dugun bezala, fase horren hasiera- eta amaiera-datak eztabaidagarriak dira: hasiera urtea 1960 inguruan ere jar genezakeen, 1971n ordez, berehala ikusiko dugun bezala; eta amaiera-urte gisa 1996a edo 2006a ere jar genitzakeen (hurrengo puntuan ikusiko dugu hori). Eztabaidagarria izan daiteke, hortaz, epeen muga zehatza non ezarri. Nahiko argi dago, ordea, fase horrek berezko ezaugarriak dituela, aurrekoarekiko eta ondorengoarekiko desberdinak. Batetik, indarberritze-aroa deitu dugun horretan errotik itzulbiratu zen ordezkapen-aroko dinamika soziolinguistikoa. Bestetik, aro horren amaierarekin, indartzeko joera hori eten eta beste fase batean sartu ginen 2001 inguruan, aurrerago ikusiko dugu hori.

Horrela, bada, XX. mendeko lehen bi herenetan ordezkapena nagusi zen bezala, hirugarrenean berreskurapena edo indarberritzea izango da protagonista. Ordura arteko dinamika soziolinguistikoen joera irauliko duen fase-aldaketa esanguratsu batez ari gara, historian mugarria izan zen aldaketa-une baten ondoren, aurreko joera nagusia errotik aldatu eta lehenago *shift* zena orain *reversing* bihurtuko zuen joera berri batez. Kopuruek erakusten dute fase-aldaketa: hamarkadetako ordezkapen-prozesuaren ondoren, %17,8koa zen euskararen pisua lehen hizkuntzan 1971 inguruan jaiotako artean; kopuru hori %27,2raino igo zen 1996. urte inguruan jaiotako artean. Aurreko aroz aritu garenean aipatu dugunaren antzera, ezin pentsa daiteke 1971-1996 tartean ordezkapen-prozesuak guztiz eten zirenik. Baina bai esan daiteke dinamika nagusia, aro berria markatzen duena eta emaitza estatistiko orokorretan joera-aldaketa argia eragiten duena indarberritzearena dela.

Argitu dezagun zergatik jarri dugun 1971. urtean fase horren hasiera: urte horretan ageri delako lehen-hizkuntzari buruzko denbora-serieko daturik baxuena, G.27. grafikoan ikus daitekeen bezala. Baina, jakina, neurri horretako joera-aldaketa ez da urte batetik bestera gertatzen. Aldaketa-prozesua mugaketa horrek iradoki dezakeena baino luzeagoa izan zen, eta baita askotarikoagoa ere lurraldean, nahiz eta guk haurrekiko transmisioan landutako datu orokorretan ez igarri prozesuaren alderdi hori.

Datu demolinguistikoak beren testuinguru historikoan kokatuz, esan dezakegu 60ko hamarkadatik aurrera haur jaioberrien lehen hizkuntzaren errealitatean eragingo zuten bi joera garrantzitsu aritu zirela bata bestearen kontra eragiten, oraingoz zehaztu ez dezakegun neurrietan. Batetik, garai horretako industrializazio-prozesuaren

testuinguruan, Euskal Herri kanpotik lanera etorritako herritar erdaldunek<sup>323</sup> seme-alabak izan zituzten. Gertaera demografiko horrek zuzenean eragin zuen garai horretan Euskal Herrian jaiotako leheneren hizkuntza euskaraz izan zela gehiago jaisteko, salbuespen batzuk kenduta, haur horiek gaztelaniaz haziak izan baitziren. Bestetik, ordea, kontrako noranzkoan, eraldaketa sozio-politiko-kultural sakona bizi izan zuen Euskal Herriak garai horretan (Pérez-Agote, 1984; Letamendia, 1994). Eta euskal nazioaren aldarrikapen berregin eta berrindartu batekin batera, euskararen aldeko gizarte-mugimendu biziberritua sortu zen. Garai horretakoak ditugu euskara batuaren finkatzea, gerra ondoko ikastola gehienek sorrera, euskal kulturaren loraldia, eta abar. Testuinguru horretan, gizarteko sektore zabaletan euskal hizkuntzari ospea ematearekin batera, guraso euskaldunen artean seme-alabei euskara transmititzeko joera hedatu zen, gure datuek islatzen duten bezala, eta atzera egin zuen aurreko faseko joerak, seme-alabei euskararik ez erakustearen aldekoak. 60ko hamarkada hasieratik ernatu zen euskaltzaletasun berriak arlo pribatuan sortu zuen emari gisa ulertu daiteke G.27. grafikoko datuek erakusten duten 1976-1996 bitarteko susperraldi garrantzitsua. Arlo sozialean ez ezik, arlo pribatuenean ere txertatu zen euskaltzaletasun berrindartuaren emari gisa. Guraso euskaldunek etxeko transmisioan gero eta gehiago euskara aukeratzearekin batera, euskaldunak ez ziren guraso euskaltzale ugari ere batu zen bultzada horretara, eta eskolaren bidez euren seme-alabak euskalduntzearen aldeko apustua egin zuten.

Bi joera kontrajarri nagusi horiek aurki ditzakegu, beraz, Euskal Herrian 1960-1970-1980 hamarkadetan jaio ziren haurren leheneren urteetako sozializazio linguistikoan eragiten, etorkin erdaldunen seme-alabak jaiotzea eta euskaltzaletasun berrindartuaren eskutik haurrei euskaraz egiteko ohiturak hedatzea. G.27. grafikoko erakusten diren datuak euren ondorio demolinguistikoetan aurkako noranzkoan doazen bi indar nagusi horien saldo gisa irakurri behar dira. Datuek iradokiko lukete bigarren joerak indar handiagoa izan zuela lehenerenak baino. Interesgarria litzateke, aurrera begira, zenbakien bidez bi prozesu horiek nola uztartu ziren zehaztea. Garai hartako migrazio-mugimenduek zer-nolako pisu handia izan zuten jakinda, haurrak euskaraz haztearen aldeko joera berritua zenbaki bidez isolatzea lortuko bagenu, pentsa daiteke datu orokorrek adierazten dutena baino are indartsuagoa eta sakonagoa izango zela.

Esanak esan, gure harira itzuliz, fase horren hasiera 1971n jarri dugun arren, hamarraldi bat lehenago ere koka zitezkeen, leheneren hizkuntza gisa euskararen indartzea ekarri zuen aldaketaren genesis 50eko hamarkadaren erdialdetik hasi eta 60ko hamarkadan bilatu behar delako, euskal herritarren euskaltzaletasuna berpiztu zen aldaketa ideologiko-politiko-kultural sakonen garai haietan (Intxausti, 1990; Agirrezabal et al., 2009; Zalbide, 2010a; Anaut, 2013). Orduan hasitako aldaketa-prozesuak, ordea, 1980 hamarkadaren inguruan lortzen du isla kuantitatibo ukalezina izatea guk landu ditugun datuetan, eta 1976ko %18,0tik 1996ko %27,2ra igotzen da haurren leheneren hizkuntza euskaraz izan zela. Horregatik, hor jarri dugu guk mugarririk, 1971ko baliorik txikienean.

---

<sup>323</sup> 1975eko zentsuko datuen arabera, 760.000 ziren urte horretan Euskal Herritik kanpo jaio baina Hegoaldean bizi ziren herritarrak, biztanleria osoaren %30 (Elizagarate eta lurrebaso, 2006: 127).



Euskaltzaletasunaren eta euskararen indarberritzearen testuinguruan haurren lehen hizkuntzan gertatu zen indarberritze-joera 60ko hamarkadatik bazetorren ere, azkartu egin zen frankismoa amaitu eta hurrengo urteetan, aldaketa politiko sakonen itxaropenak eragin zuen asaldura soziopolitiko handiko garaietan. Euskalgintza sozialaren lan militante emankorraren ondorioz eta, EAEko kasuan, erakunde autonomiko berriek sustatu zituzten politika berriek lagunduta, euskararen prestigioak gora egin zuen, eta horrekin batera gora egin zuen familietan seme-alabak euskaraz hazteko ohiturak ere.

60ko-70eko hamarkadetan euskara ondorengo belaunaldiei transmititzearen aldeko joera nagusitzea eta aurretik zetorren ordezkapen-prozesua iraultzea gertaera soziolinguistiko erabakigarria izan zen XX. mendean. Urte horietan, jatorrizko euskaldunen arteko gero eta alor zabalagoek ez ezik, garai haietan euskaldundu ziren herritar ugari ere euren seme-alabei euskara transmititzeko erabakia hartu zutela erakusten dute datuek. Masa-mugimendu euskaltzale ohargarria izan zen, bilakaera-datuek erakusten duten bezala, eta ordura arte euskara bizirik mantendu izan zen zonaldeetan ez ezik, erdara nagusi zen lurraldeetan ere sumatu zen indarberritze-joera hori. Tankera horretako susperraldia ez dirudi gertaera arrunta denik hiztun-komunitate gutxietan. Aurreko fasea etetea ez ezik, euskaldunen eta euskaltzaleen eremu sozialean belaunaldi berriekiko transmisioan logika eta arau sozial berrituak ezartzea ekarri zuen fase berriak. Pentsa daiteke garai hartan errotuko zela euskaldunek seme-alabei euskaraz egin behar dietelako arau sozial idatzi gabea, egun ere indarrean dagoena.

### **22.1.3. Geldotzearen aroa (2001-2021)**

Azken faseak 2001etik 2021 arteko aldia hartuko luke. Azken 30 urteetan iturri demolinguistikoak ugaritzearekin batera, askoz informazio gehiago dugu azken garai horietako errealitate soziolinguistikoaz. Horrek, ikuspegia aberastearekin batera, zaildu egiten du datuen irakurketa unibokoa egitea. Dena den, euskara-erdaren egoera eta bilakaerari buruz ditugun datuek erakusten digute beste fase-aldaketa bat gertatu zela 1996-2006 bitarteko urteetan. Fase berri horretan, gelditu egingo da aurreko faseko indarberritze-bulkada: datu batzuen arabera, motelago baina indarberritze-prozesuarekin jarraituz, eta beste batzuen arabera, aurrera beharrean atzera egiten hasiz.

Orain arteko bi faseen azalpenean, zentsuetan lehen hizkuntzari buruz ageri den datu-seriea erabili dugu nagusiki, eta horri helduta hasiko gara aro berri honetaz hitz egiten ere. Datuei erreparatuta, 1976tik zetorren goranzko joera jarraitua 1996. urtera arte iritsi zen: urte horretan, %27,2an kokatu zen haurrekiko lehen hizkuntzan euskarak izan zuen pisua. Hortik aurrera, eten egin zen ordura arteko igoera-prozesu argia, jaitiera apal bat izan zuen 1996-2016 bitartean, eta 2021ean berriro gerturatu zen hogeita bost urte lehenagoko mailara. Azken epealdi horren hasiera- eta amaiera-datuek bat datoz: %27,2koa zen 1996an eta %26,5ekoa 2021ean. Atal enpirikoan ikusi

dugun bezala, bestalde, badirudi joera-aldaketa horrek gune euskaldunenei eragin diela bereziki<sup>324</sup>.

Zer-nolako faktoreek azaltzen dute joera-aldaketa berri hori eta euskararen pisuaren hazkundera eten izana azken bi hamarkadotan jaiotako haurrekiko transmisioan? Has gaitezen ageriko faktore batekin: zalantzarik gabe, epealdi horretan immigrazio-fluxuak berriro indartzeak zerikusia izango du etxeko transmisioan euskararen berrindartze-joera etetearekin, haur jaioberrien gurasoen gero eta alor handiago bat kanpotik etorritakoek osatu baitute, eta horien artean salbuespena izango dira seme-alabak euskaraz hazten dituzten gurasoak. Ikus dezagun: INE, EUSTAT eta NASTATen egungo sistema estatistikoak ez du modurik ematen jaioberrien zenbaketa zehatza egiteko euren gurasoen hizkuntza-profilaren arabera. Dena den, badaude datu orokor batzuk gertatu diren aldaketa demografiko adierazgarrien berri ematen digutenak. Horrela, EUSTATek (d.g.d.) eta NASTATEk (2021a) jaiotzei buruz ematen dituzten estatistiken arabera, 1996tik hona gero eta gehiago dira guraso “atzerritarrengandik”<sup>325</sup> Hegoaldean jaiotako haurrak. Bi iturri horiek ematen dituzten datuak batuta, 1996. urtean Hegoaldean jaiotako haurren amen artean %2,1 ziren nazionalitate espainiarra ez zutenak. Kopuru hori %4,8koa izan zen 2001 urtean, %11,4koa 2006an, %16,9koa 2011n, %20,5ekoa 2016an eta %26,6koa 2021. urtean. Amen nazionalitatearen arabera seme-alabei transmititzen zaizkien hizkuntzei buruzko informazio zuzenik ez dugun arren, agerikoa da guraso atzerritarren seme-alaba gutxik jasoko zutela euskara etxean. Eta, ondorioz, huts egiteko beldur handirik gabe esan daiteke lehenagotik ere bertan ziren familien artean haurrak euskaraz hazteko ohiturak igotzen jarraituko zuela 1996tik aurrera ere, 1976-1996 bitarteko indarberritze-fasean baino polikiago, baina kopuru orokorrek adierazten duten baino proportzio handiagoetan.

Nolanahi ere, arrazoiak edozein direla ere, Hegoaldean jaiotako haurrak euskaraz hazteko 1976-1996 bitartean egin ziren urratsak gelditu egin direla adierazten digute datuek. Ez dirudi fase-aldaketa horrek haur txikien sozializazioari soilik eragiten dienik. Aitzitik, landu ditugun gainerako datuetako askok ere joera-aldaketa gertatu dela adierazten dute; batzuek 1996. urtean ezartzen dute mugarría, besteen 2001ean eta besteek 2006an: erabilerari dagokionez, HEKNren arabera 2001tik aurrera jaitsi egiten da kaleko erabilera, eta ISLren arabera aurrez aurreko erabileraren igoerak jarraitzen duen arren, apaldu egiten da 2006tik aurrera, alor informalean batez ere. Erabileraz gain, 2001 inguruan inflexio-puntu bat izan zela baieztatzen du arnasguneen suntsipen-prozesua berraktibatu izanak (horixe diote 2001etik aurrerako datuek). Horrela, bada, aztertu ditugun datu-serie gehienek 1996-2001-2006tik aurrera fase-aldaketa gertatu dela erakusten dute aztertu ditugun alderdietan. Joera-aldaketa irudikatzeko muga data bakar batekin adierazteko, mugarría gisa, hiru data horien erdikoa hartu dugu, 2001a. Epealdiaren amaiera posibleari buruz, adi irakurri eta

---

<sup>324</sup> Hori erakusten du 2006. urtera arteko landu dugun serieak. Hortik aurrerakoak ikergai dira oraindik.

<sup>325</sup> Estatistika ofizialaren “atzerritarren” kopuru horietan biltzen dira Espainiatik kanpo jaiotako herritarrak, baita Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan jaiotako guztiak ere. Ez dira atzerritar gisa zenbatzen, ordea, Espainiako edozein lurraldetan jaiotakoak, Ceutan edo Guadalajaran adibidez.

aztertu beharko dira 2021eko eragiketen datuak, baina orain arte argitaratu diren datuek ez dute erakusten 2016ko errealitatearekiko alde adierazgarririk<sup>326</sup>.

Azken batean, txosten honetan bildu ditugun adierazle askok, ez guztiek, 1971 inguruan hasi zen indarberritze-fase indartsua kasurik onenean moteldu egin dela erakusten digute azken 20 urteotan, eta kasurik txarreanean amaitu egin dela eta atzerakako joera hasi dela.

#### **22.1.4. Iparraldeko bilakaera; eta osotasunezko ikuspegia**

Ipar Euskal Herrian haur txikiak zein hizkuntzatan hazi izan diren aztertzeko ez dugu zentsuko daturik. ISLko datuekin hurbilpen bat egin dugu atal enpirikoan, eta bertan ikusi dugunez, euskara pisua galduz eta galduz joan da ia etenik gabe haur txikiak hazteko hizkuntza gisa 1921 eta 1996 bitartean: 1921ean jaiotakoen artean %64,3ko pisua izan zuen euskarak<sup>327</sup>, eta %12,3ra jaitsita zegoen 1996. urterako. Jaitsiera-prozesu hori ia etenik gabea izan da, eta datuek erakusten duten bezala, Hegoaldean baino askoz galera sakonagoa gertatu da Iparraldean.

Laburtuz, mende luze bateko perspektibaz ikusita, hiru fase nabarmen izan dira azken 120 urteotan Euskal Herrian. Lehenik, XIX. mendetik heldu zen eta XX. mendearen azken herenera luzatuko zen ordezkapen-fasea ezagutu dugu Euskal Herri osoan, zeinaren bidez ordura arteko euskararen mundua suntsitzen hasi baitzen. Lehen fase horren abiapuntua XIX. mende amaierako euskal mundua genuke, uharte urbano erdaldunagoak tartean, baina Bizkaiko ekialdea, Gipuzkoa, Nafarroa Beherea eta Zuberoa osoak, Lapurdi ia osoa, Nafarroako Iparraldea eta Arabako Aramaio eta Legutiano bilduko zituena, lurralde jarraitu bat, non bertako hiztun ia denak euskaldunak ziren, gehienak euskal nagusitasunezkoak eta ez gutxi elebakarrak, lurralde bat non euskarak hurbileko funtzio sozial gehienak betetzen zituen diglosiaren ereduak finkatzen duen egoera teorikotik ez oso urruti (Zalbide, 2011). Gaur egun euskal mundu haren aztarna gutxi batzuk besterik ez da gelditzen; galdu egin da hein handian euskal mundu hura. Galera-prozesu horren indarra eta inertzia da XX. mendean kuantitatiboki gertatu den aldaketa soziolinguistiko nagusia. Euskararen pisua urria den eta erdal nagusitasunezko hiztun eta inguruneen hegemonia indartsu dagoen egungo Euskal Herria fase haren ondorioa da hein oso handian.

Ondotik, ordea, berreuskalduntze-fasea gertatu zen Hegoaldean, zeinaren hasiera historikoki 60ko hamarkadan jar genezakeen, nahiz eta gure epekatzean, arrazoi estatistikoak tarteko, 1971n jarri dugun abiapuntua. Aurreko fasea baino laburragoa izan da denboran, 2001 inguru arte iraun baitu, eta kuantitatiboki ere ahulagoa izan da, ez baita inola ere iritsi galera-fasean galdu zena berreskuratzen. Hala eta guztiz, kualitatiboki fase aldaketa bat erakusten du, eta hiztun-komunitatea beste toki batean

---

<sup>326</sup> Orain arte argitaratutakoekin, HEKNk egonkortasuna deskribatzen du kaleko erabileran 2016-2021 bitartean, eta berdintsu EAEko zentsuek etxeko erabilerari buruzko datuetan. Haurren lehen hizkuntzan datu hobeak eskaini ditu 2021eko zentsuak 2016koak baino. Arnasguneei dagokienez, azkenik, egoerak txarrera egiten jarraitu du 2016-2021 bitartean, EAEko zentsuko datuen arabera (jatorrizko iturriak: Altuna et al., 2022; EUSTAT, 2022).

<sup>327</sup> Atal enpirikoan azaldu dugun bezala, ISLko datuen lanketan, Euskal Herrian jaiotako elkarriketatuen datuak landu ditugu. Horien artean datuak administrazio-eremuka landu ditugunean, datuak bertan bizi diren guztiei dagozkie, ez soilik bertan jaiotakoei, HZko ustiaketan egin dugun bezala.

kokatzen du, bere buruaz duen irudiak ez du zerikusirik aurreko ordezkapen-fasekoarekin, eta etorkizunarekiko asmoen inguruko aldarte-jarrerak ere bestelakoak dira, euskararekiko orokorrean eta bereziki transmisioari buruzko portaeretan. Funtsezko aldaketa kualitatibo bat gertatzen da aurreko fasearekin alderatuta. Berez, galera-prozesua etetea eta itzulbiratzea prozesu bakana da hiztun-komunitate gutxituetan. Horixe gertatu zen gurean bigarren fase horretan. Fase horrek batetik eten egin zuen zantzu guztien arabera hizkuntza desagerraraztera zeraman prozesua, nahiz eta alderdi gehienetan ez zuen ekarri erdararen nagusitasun-egoera euskararen alde iraultzea edo orekatzea. Fase horrek, dena den, bai utzi digu euskararen aldeko azpiegitura eta praktika sozial eta instituzional aipagarri bat eta sozialki euskaldun-euskaltzale sektore zabaletan hizkuntzaren gaia bizitzeko modu berri bat, indarberritzearen aldeko bulkada hedatu samar batekin.

Azken fasea 2001 inguruan hasi zen, guk landu ditugun datuen arabera, eta horretan gelditu egin da haurrak euskaraz hazteko ohitura gizarteko sektore berrietara zabaltzen jarraitzeko prozesua. Aldaketa horretan, azken hamarkadetako migrazio-mugimenduen eragina agerikoa izanda ere, badirudi apaldu egin dela haurrak euskaraz hazteko ohiturara hainbat sektore erakartzeko mugimendua ere, aurreko fasean hasi zena. Horretaz gain, joera kezkarriak antzematen dira erabilera-datueta, arnaguneen bilakaeran eta erabilera-zko hizkuntza-bilakaerari buruzko datuetan.

Asko laburtuz, lehenengo faseak suntsipen handi bat utzi digu oinordetzan: arnagune ia guztien galera, euskararen nagusitasunezko hiztun gehien galera, gaztelaniaren/frantsesaren nagusitasun sozial ia erabatekoa Euskal Herriko txoko gehienetan. Bigarren faseak aldatu egin zuen egoera, kualitatiboki gehienbat, eta hizkuntza-komunitate gutxituaren bizinahia, gizartearen zati handi baten euskaltzaletasuna, eta giro euskaldun-euskaltzaleetan haurrak euskaraz hazteko arau sozial berri bat utzi dizkigu oinordetzan. Hirugarren fasean, indarberritze-joera argia etenda, aurrera ez eta atzera egiten hasiak ote gauden sentsazioa errotu da guban, ozta-ozta eta ziurtasunik gabe irautearen irudipena.

## **22.2. EUSKARAREN EGUNGO EGOERAREN LABURPENA DEMOLINGUISTIKATIK: MINORIZAZIO-EGOERA GORRIAN EGONDA, BIZINAHIA HANDIA DUEN HIZKUNTZA-KOMUNITATEA**

Behin euskararen egoera sozialaren azken mendeko bilakaera nolakoa izan den azalduta, saia gaitezen ikuspegi sintetiko batez deskribatzen gaur egun euskara-erdaren egoera Euskal Herrian zertan den. Oraingoan, bilakaera luzean ez bezala, aldagai eta adierazle ugari ditugu eskura egoeraren argazkia egiteko. Sintesi-ikuspegi baten bila, landu ditugun sei ardatzak hartu eta ardatz bakoitzerako atal enpirikoan ikusi duguna laburtzen lagunduko digun adierazle bakarra hautatzen saiatu gara. Horrela egin dugu ardatz guztietarako, hizkuntza-gaitasunerako eta erabilera-rako izan ezik: ardatz horietarako, bi eta hiru adierazle aukeratu ditugu, hurrenez hurren. Adierazle horien guztien arteko alderagarritasuna errazte aldera, saiatu gara adierazle guztiak sailkapen dikotomiko edo trikotomiko batera ekartzen, non lehenengo aukera batek euskararen nagusitasuna argi islatuko lukeen, non bigarren aukera batek

gaztelaniaren/frantsesaren nagusitasuna argi islatuko lukeen eta non tarteko aukera batek tarteko egoerak islatuko lituzkeen, euskal-erdal nagusitasun argirik gabeko egoerak. Egitura uniforme horretara egokitu ahal izan ditugu adierazle guztiak, hizkuntza-bilakaerari buruzkoa izan ezik; adierazle hori ez da, hortaz, zuzenean alderagarria izango gainerakoekin. Nolanahi ere, adierazle bakoitzak hartzen dituen aukeren esanahi zehatza T.186. taulan ageri da. Ahal izan dugun guztietan, Euskal Herri mailako datu eguneratuekin<sup>328</sup> osatu ditugu adierazleok, eta datuak falta izan zaizkigunean, Hegoaldera edo EAera jo behar izan dugu salbuespen gisa. Adierazle bakoitzaren unibertsoa, dena den, zein lurralde-eremuri eta zein adin-tarteri dagokion, taula horretan bertan zehazten da.

Irizpide horiekin hautatu eta eratu ditugun bederatzi adierazleekin osatu dugu T.186. taulan ikus daitekeen laburpen-panela. Eta bederatzi adierazle horietako zortzitan, hizkuntza-bilakaerari buruzkoan izan ezik gainerakoetan, euskarak izan dezakeen indar erlatiboaren araberrako hurrenkeran jarrita sortu dugu G.158. grafikoa. Taulako laburpen-panelak eta grafikoak egungo egoera soziolinguistikoa ahalik eta era oso eta era berean sintetikoenean erakustea du helburu, betiere datu demolinguistikoa oinarrituta eta, esan bezala, euren arteko alderagarritasuna bilatuta. Laburpen-taulari eta grafikoari begiratuta, saia gaitezen egungo egoera soziolinguistikoaren tonu orokorra zein den finkatzen.

---


<sup>328</sup> Gure asmoa informazio ahalik eta eguneratuenarekin lan egitea izanik, lan honen atal enpirikoan, salbuespenak salbuespen, 2011-2016 arteko datuekin egin dugu lan. Txosten hau ia bukatuta genuenean, azken hilabeteotan argitaratu dira 2021eko HEKNren emaitzak (Altuna et al., 2022) eta urte horretako EAeko zentsuenak (EUSTAT, 2022). Gure adierazleetariko batzuk ezin izango dira eguneratu Inkesta Soziolinguistikoa eta Nafarroako zentsua ere argitaratu arte, eta horiek denak eta aurreko datuak mikrodatu-mailan landu arte. Badira, ordea, orain arte argitaratutako datuekin berriro daitezkeen adierazle batzuk. Horiek ondorioen atal honetan txertatzen ahaleginduko gara, egoeraren argazki ahalik eta eguneratuena eduki dezagun.

T.186. TAULA: LANDUTAKO SEI ARDATZETAN EUSKARA-ERDAREN EGUNGO EGOERAREN BERRI EMATEN DIGUTEN BEDERATZI ADIERAZLEREN LABURPEN-TAULA. EUSKAL HERRIA, 2011-2021

ARDATZA/ Adierazlea:	Euskal nagusitasuna	Nagusitasunik eza	Erdal nagusitasuna	Batura
<b>HIZKUNTZA-GAITASUNA:</b>				
Elebakarrak eta elebidunak (EH, 2016)	Euskaldun elebakarrak (+hartzaileak)	Elebidunak	Erdaldun elebakarrak (+hartzaileak)	
	0,4	28,0	71,6	100,0
Hiztunak, gaitasunezko nagusitasunaren arabera (EH, 2016)	Euskal gaitasuna nagusi duten hiztunak	Nagusitasunik gabeko elebidunak	Erdal gaitasuna nagusi duten hiztunak	
	7,4	8,4	84,2	100,0
<b>ERABILERA:</b>				
Kaleko erabilera (EH, 2021, +02 hiztunak)	Euskaraz	Beste	Gaztelaniaz/frantsesez	
	12,6	2,8	84,6	100,0
Erabilera aurrez aurreko harremanetan (EH, 2016)	Euskaraz gehiago (%60tik gora)	Bietan berdintsu (%40-%60)	Gaztelaniaz/frantsesez gehiago (%60tik gora)	
	12,3	4,9	82,8	100,0
Erabilera telebista ikusten (ETB1 EAEn, 2016, +04 hiztunak)	ETB1 (sharea)		Gainerakoak (sharea)	
	1,9		98,1	100,0
<b>MOTIBAZIOAK-JARRERAK:</b>				
Jarreraren araberako tipologia (EH, 2016)	Euskararen aldekoa	Ezalde ez aurka	Euskararen aurkakoa	
	55,8	28,2	16,0	100,0
<b>TESTUINGURU DEMOLINGUISTIKOA</b>				
Hiztunak nagusitasun-eremuka (Hegoaldea, 2016, +02 hiztunak)	Arnasguneak (euskara nagusi den eremuak)	Nagusitasun argirik gabeko eremuak	Erdara nagusi den eremuak	
	4,7	5,9	89,4	100,0
<b>SOZIALIZAZIOA:</b>				
5-9 urteko haurren lehen hizkuntza (Hegoaldea, 2021)	Euskara	Bi hizkuntzak, beste hizkuntza bat edo daturik ez	Gaztelania	
	17,4	22,3	60,4	100,0
<b>HIZKUNTZA BILAKAERA:</b>				
Hizkuntzen irabazi-galerak erabilerazko hizkuntza-bilakaeran (Hegoaldea, 2011, +02 hiztunak)	Euskararen ordezkapen-saldo garbia		Gaztelaniaren ordezkapen-saldo garbia:	
	-88.356		+ 134.025	

Iturriak: egileak landua. Zehazki guk landutako adierazleen artean, honako hauek baliatu dira: ISL-001 (azalpenak 11.2. puntuan), ISL-404 (azalpenak 11.4. puntuan), HZ-209 (azalpenak 9.8.2.3. puntuan) eta HZ-014/HZ-015 (azalpenak 9.6.3.5. puntuan). Horietaz gain, honako datu hauek erabili dira: kaleko erabilerari buruzko datua (Altuna et al., 2022), jarreraren araberako tipologia (Eusko Jaurlaritz, 2019: 63). Azkenik, 5-9 urtekoen lehen hizkuntza guk kalkulatu dugu, 2021eko EAEko datuak (EUSTAT, 2022) eta Nafarroa Garaiko 2011koak batuta.

**G.158. GRAFIKOA: EUSKARA-ERDAREN EGUNGO EGOERAREN BERRI EMATEN DIGUTEN ZORTZI ADIERAZLEREN LABURPENA. EUSKAL HERRIA, 2011-2021**



**Iturriak:** egileak landua. Zehazki guk landutako adierazleen artean, honako hauek baliatu dira: ISL-001 (azalpenak 11.2. puntuan), ISL-404 (azalpenak 11.4. puntuan), HZ-209 (azalpenak 9.8.2.3. puntuan) eta HZ-014/HZ-015 (azalpenak 9.6.3.5. puntuan). Horietaz gain, honako datu hauek erabili dira: kaleko erabilerari buruzko datua (Altuna et al., 2022), jarreraren araberako tipologia (Eusko Jaurlaritza, 2019: 63). Azkenik, 5-9 urtekoen lehen hizkuntza guk kalkulatu dugu, 2021eko EAEko datuak (EUSTAT, 2022) eta Nafarroa Garaiko 2011koak batuta.

**Oharra:** adierazle bakoitzean euskal nagusitasunak, erdal nagusitasunak edo nagusitasunik ezak zehazki zer esan nahi duen jakiteko, jo T.186. taulara.

T.186. taulako adierazleek hartzen dituzten balioei erreparatuta, bi multzo handitan sailkatu ditzakegu: jarrerari buruzko adierazlea alde batetik eta egitateei buruzko zortzi adierazleak bestetik. Azken horien artean, gainerakoekin zuzenean alderagarria ez den hizkuntza-bilakaerari buruzkoa albo batera utzita, adierazle guztietan euskal nagusitasuna adierazten duen aukerak hartzen dituen balioak ibiltarte ez oso zabal baten barruan agertzen zaizkigu: guztietan balio txiki edo oso txikietan azaltzen zaigu euskal nagusitasuna adierazten duen kategoria. Horien arteko gutxieneko balioa euskal elebakartasuna neurtzen duen %0,4ko balioak ezartzen du; eta gehienezkoa, berriz, 5-9 urteko haurren lehen hizkuntzan euskara jasotzen dutenek 2021ean osatzen duten %17,4an ageri da. Egitateei buruzko gainerako adierazleetan euskal nagusitasuna adierazten duten aukerak bi kopuru horien arteko balioak hartzen dituzte. Aurrekoekin zuzenean alderagarria ez bada ere, hizkuntza-bilakaeraren adierazleak ere saldo negatibo argia ematen du euskararentzat.

Hizkuntza-gaitasuna, erabilera, testuinguru demolinguistikoa, sozializazioa eta hizkuntza-bilakaera, alderdi horien guztien artean ezberdintasun adierazgarriak daude, ez daude guztiak ahultasun-maila berean, aurrerago ikusiko dugun bezala, baina guztiguztiak daude, nolabait esateko, “minorizazio handiko” eskema batean. Ohar gaitezen, aldagai guztietan “euskal nagusitasunezko” aukerak hartzen duen zenbakizko balioa askoz gertuago dagoela hizkuntzaren heriotzarekin bat etorriko litzatekeen 0aren baliotik elebitasun orekatua adieraziko luketen 50aren inguruko balio posibleetatik baino. Hizkuntzaren egitateei buruzko adierazleak maila urri horietan ikusita, hizkuntzen arteko desoreka handiko minorizazio egoera gorri gisa izendatuko dugu euskal hiztun-komunitatearen egungo egoera<sup>329</sup>.

Baten batek pentsa lezake T.186. taulan eta G.158. grafikoan erakusten diren datuek euskararen egoeraren argazki ez objektibo eta ezkor bat erakusten dutela, benetan errealitatea den baino irudi okerragoa erakusten dutela datuok. Horren aurrean, ezer baino lehen, azpimarratu egin nahi dugu zergatik aukeratu dugun adierazle horietako bakoitza: gure ustez, teoriaren ikuspegitik dagokion ardatza hobekien laburbil dezakeena delako. Eta horretaz gain, argitu beharrean gaude, gainera, aski arrazoi badagoela pentsatzeko egitateei dagokien gure errealitate soziolinguistikoa taula/grafiko horietako datuek erakusten duten baino are kontrakoagoa izango dela euskararentzat. Hori diogu, datu horietako gehienak erantzun aitortuetan oinarrituak izanik, aski arrazoi badelako uste izateko, 8.6. puntuan ikusi bezala, erantzunetan euskararen benetako pisua hanpatua egon litekeela. Eta, horregatik, euskararen “benetako” kopuru kuantitatiboak kasurik gehienetan taula horretan erakusten direnak baino apalagoak izango direla pentsa daitekeelako.

Horretaz gain, kontuan hartu behar da adierazle bakoitzean alderatzen diren “euskal nagusitasunezko” eta “erdal nagusitasunezko” taldeak kualitatiboki ere berdintsuak izatetik urruti daudela, eta joera orokor gisa erdal nagusitasuna adierazten duen taldea

---

<sup>329</sup> Ez dugu berehala aurkitu gure minorizazio-egoerarentzat adjektibo egokia. Inoiz, “muturreko minorizazio” terminoa ere erabili izan dugu euskararen egoera laburtzeko. Orain ez zaigu “muturreko” hori egokia iruditzen: termino hori hobeto egokitzen zaie gurea baino egoera aski okerragoan dauden hizkuntza-komunitate ugari, aragoierari, okzitanierari, bretoierari edo Irlanda zein Eskoziako gaelikoei adibidez. Azkenean, Jon Sarasuari (2019) entzundako minorizazio “gorri” adjektiboa egokia iruditu zaigu gure egoera izendatzeko, eta hori eman dugu ontzat.



kuantitatiboki ez ezik kualitatiboki ere trinkoagoa/sendoagoa/indartsuagoa izango dela euskal nagusitasuna adierazten duen taldea baino. Horrela, adibidez, hizkuntza-gaitasunaren adierazlean, askoz gehiago izango dute “euskal nagusitasunezko hiztunek” erdal gaitasunetik, “erdal nagusitasunezko hiztunek” euskal gaitasunetik baino (azken horietako gehienak elebakarrak dira). Kualitatiboki trinkoagoa da, hortaz, erdal nagusitasunezko taldea, “euren” hizkuntza nagusiari nahitaez lotuagoa, eta horrek era indartsuan eragingo du erdararen erabileraren alde eta euskararen erabileraren kontra hiztunen arteko harremanetan. Sozializazio-prozesuei erreparatuta ere, pentsa daiteke etxean euskara transmititu duten gurasoek erabilitako euskararen kalitatea eta adierazkortasuna batez beste apalagoa izango dela etxean gaztelania/frantsesa transmititu duten gurasoek hizkuntza horietan izango dutena baino. Eta horretaz gain, lehen hizkuntza gisa euskara jaso duten hiztun gehienek txikitik jasotako hizkuntza-inputean erdararen presentzia batez beste handiagoa izango zela lehen hizkuntza gisa gaztelania edo frantsesa jaso zutenen inputean euskarak izan duen tokia baino. Ondorioz, euren hizkuntzan batez beste “trinkoagoak” izango dira lehen hizkuntza gaztelania/frantsesa izan duten haurrak euskara izan dutenak baino. Azken adibide bat, testuinguru demolinguistikoei buruzkoa: ingurune horietan bizi izan den edonorentzat agerikoa den bezala, askoz errazagoa da egun arnaguneetan erdara hutsez bizi izatea (horrela bizi dira arnaguneetako milaka biztanle) erdararen nagusitasunezko eremuetan euskara hutsez bizi izatea baino. Aztertu ditugun adierazleetan, hortaz, egungo Euskal Herriko errealitate sozial zehatzean trinkoagoak dira erdal nagusitasunezko taldeak euskal nagusitasunezkoak baino. Eta, ondorioz, aski arrazoi badago uste izateko errealitatean hizkuntzen arteko desoreka are handiagoa izango dela taula eta grafikoko egitateei buruzko datuek erdararen alde eta euskararen aurka erakusten dutena baino.

Ezagutzaren zoruari, lurraldekako hegemonia-espazioei, eguneroko praktika linguistikoari erreparatuta, hizkuntza-bilakaerari, sozializazio-prozesuetan euskara-erdarek hartzen duten tokiari erreparatuta... hots, hizkuntzaren egoera neurtzeko teoria-alorrean zehaztu ditugun ardatz horien egungo datuak irakurrita, izugarri minorizaturik dagoen hiztun-komunitatea osatzen dugu euskaldunok. Minorizazio gorri hori irudikatzen, ez zaigu bururatzen Jon Sarasuari entzun izan dioguna baino metafora argiagorik: euskararen hizkuntza-komunitatea gaixorik dago eta gaixotasuna ez da arrisku handirik gabeko gripe arrunt bat, tratamendu egokiak aurkitu eta aplikatu ezean heriotzara eraman dezakeen minbizia baizik (ZuZeu, 2014).

G.158. grafikora itzulita, egitateei buruzko informazioa biltzen duten zortzi adierazle horiek hartzen dituzten balioen aurrean, kontraste argia eskaintzen dute jarrerari buruz ISLk dakartzan adierazleen balioek. Horrela, laburpen-taulan aurkeztu ditugun adierazle guztien artean jarreraren ingurukoan bakarrik gailentzen da euskararen nagusitasuna erdal nagusitasunaren gainetik, alde handiarekin gainera. Egia da, jarreraren adierazlea nola eraikitzen den kontuan hartuta, nagusitasun-terminoetan aurkeztu ditugun gainerako adierazleekiko alderagarritasuna urruti dagoela perfektua izatetik<sup>330</sup>. Hala ere, adierazle horrek hartzen dituen balioak gainerakoekin alderatzeak

---

<sup>330</sup> Lau esaldiren inguruko iritzien gainean eraikitzen da adierazle hori, eta ez ditu betetzen gainerako adierazleen polaritate-eskema (euskararen nagusitasuna *versus* gaztelaniarena/frantsesarena) eta horri

ondo irudikatzen du gurean egitateen eta nahien artean dagoen leizea. Lan honetan han eta hemen ikusi ditugun datuen arabera, gainera, euskararen aldeko jarrera hori beste ikerketa batzuetako ondorioa ere bada, eta bere gauzatze praktikoa du hiztunen eguneroko praktikan. Minorizazio-egoera gorriarekin batera, hain zuzen, horixe da gure egoeraren bigarren funtsezko ezaugarria: jarrera eta motibazio aldetik egitate mailan baino askoz indartsuago egotea hizkuntza-komunitatea.

Puntu honen izenburuan txertatu dugun deskribapenarekin laburtuko dugu gure egungo egoera: minorizazio gorrian egonda, bizinahi handia duen hizkuntza-komunitatea osatzen dugu euskaldunok. Egitateen errealitate “fisikoan” minorizazio larria bizi duen hiztun-komunitatea gara... baina horrekin batera, jarrera, motibazioa, ametsa, gogoia, nahia euskara indartzearen aldekoa duen hiztun-herria osatzen dugu euskaldunok. Horixe oinarritzeko kokapena, demolinguistikak emandako zenbakietan oinarrituta gure egoerari buruz osatu dugun sintesi-ikuspegia. Hemendik aurrera, hurrengo puntuetan, ardatzez ardatz lasaiago aletuko dugu errealitate hori.

### 22.3. HIZKUNTZA-GAITASUNA: ZORUA AHUL

Hizkuntza-gaitasuna funtsezko ardatza da hizkuntza baten egoera zertan den erabaki nahi denean, atal teorikoan ikusi ahal izan dugun bezala: hizkuntza bat eta bestea ezagutzen dutenen kopuruak, hizkuntza bateko eta besteko elebakarren kopuruak, hizkuntza batean eta bestean hobeto moldatzen direnen kopuruak funtsezko alderdiak dira ordezkapen- eta indarberitze-ikuspegitik hizkuntza baten egoera zertan den zehazteko orduan. Gai horiek lantzeko helburuarekin, hizkuntza-gaitasunak berez duen *continuum* izaerara hurbildu nahirik eta bi hizkuntzak, aintzat hartuta aztertzeko (euskara eta gaztelania/frantsesa), ISL-001 adierazlea aurkeztu dugu atal metodologikoan. Adierazle horren emaitzek argi uzten dute Euskal Herriko 16 urtetik gorako hiztunen gaitasunaren arabera 2016an ageri zaigun banaketa erdal aldera nabarmen lerratuta dagoela eta banaketa asimetriko eta desorekatua dela. Zenbakietara joz:

- Ia hiztun guztiek, %99,6k, dakite gaztelania/frantsesez ongi edo nahiko ongi hitz egiten; herenera ez dira iristen euskaraz dakitenak (%28,4).
- Datu horiek beste aldera irakurrita, %71,6 dira ondo gaztelaniaz/frantsesez bakarrik hitz egiten dakiten hiztunak, euskaraz ez dakitenak, haiekin komunikatzeko nahitaez erdarara joatea *aginduko* dutenak; kopuru hori %0,4ra jaisten da euskaren kasuan, eskura ditugun datu berrienen arabera.
- Hiztunak gaitasunaren araberrako multzokatze simetriko ahalik eta kategoriatu gutxienera ekarrita, hiru multzotan bana ditzakegu: euskararen nagusitasunezko hiztunak, hots, euskaraz errazago egiten dutenak erdaraz baino, %7,4 baino ez dira gaur egun, 195.631 hiztun Euskal Herri osoan; gaztelania-frantsesa nagusi dutenak, berriz, hizkuntza horietan errazago aritzen

---

lotutako simetrikotasun-printzipioa. Adierazle hori nola eraikitzen den, atal teorikoko 5.3.2. puntuan ikus daiteke.

direnak, %84,2 dira, 2.230.038 hiztun; gainerako %8,4k diote berdintsu moldatzen direla euskaraz zein erdaraz.

Esan bezala, hortaz, hizkuntza-gaitasunari erreparatuta, desoreka handia dago egungo Euskal Herrian: gaztelaniaren/frantsesaren gaitasuna indartsu azaltzen zaigu, eta euskal gaitasuna ahul.

Bilakaera-datuei erreparatuta, lehen ideia honako hau genuke: 1991-2016 aldi osoan gaitasun-datuek oinarritzko egitura bera erakutsi dute, erdal mutur indartsuaren eta euskal mutur ahularen artean zabaltzen zen banaketa desorekatu asimetriko bertsua aurkitzen dugu aztertu dugun epealdiko inkesta guztien emaitzetan. Hori horrela izanik ere, gaitasunaren alorrean izan da aldaketa aipagarriak. Euskaraz ulertzen duten hiztunen pisua handitu egin da, 1991ko %26,4tik 2016ko %36,1era; eta handitu egin da, halaber, euskaraz hitz egiteko gai direnena, 1991ko %22,4tik 2016ko %28,4ra. Ez da handitu, ordea, errazen euskaraz mintzatzen direla dioten hiztunen multzoa, euskal nagusitasunezko hiztunen multzoa alegia: %7,7 ziren 1991n, %7,4 2016an. Azken datu hori ezinbestekoa da erabileraren bilakaera aztertzerakoan, aski frogatua baitago hizkuntza batean eta bestean hitz egiteko orduan dugun erraztasuna funtsezko aldagaia dela hizkuntza bat ala bestea erabili erabakitzeke orduan (Aizpurua, 1995: 121; Eusko Jaurlaritza, 2013: 114; Aizpurua, 2018b; Eusko Jaurlaritza, 2019: 62). Euskal nagusitasunezko hiztunen kopuruak 1991-2016 aldian berdintsu mantendu diren arren, multzo horren barne-osaeran arakatuta gertatu da aldaketa aipagarriak: pisua galdu dute arnasguneetan bizi zirenek eta lehen hizkuntza euskara izandakoek. Joera hori nagusitasunik gabeko hiztunetan ere antzematen da.

Gaitasunaren bilakaerarekin bukatzeko, hona beste alderdi garrantzitsu bat: belaunaldi berrietan, gazteetan gertatu da aldaketa positibo hori, eta gazteen multzoa da gaur egun adin-talde euskaldunena, heldu eta zaharragoekiko alde esanguratsuekin gainera. Hala eta guztiz, 15-24 urteko gazteen osaera aztertuta ere, oraindik askoz gehiago dira erdal nagusitasuna duten hiztunak euskal nagusitasuna dutenak baino (%76,0 eta %13,2 hurrenez hurren 2016. urtean). Bestalde, gazteetan gazteenak hartuta, bada azken urteotako azterketetan kezkatzeko motiborik: EAEko ebaluazio-diagnostikoaren emaitzen arabera, euskarazko gaitasun-maila urria duten ikasleen multzoa, jarritako helburuak erdiesten ez dituztenen multzoa, alegia, handitu egin da 2011 eta 2017 bitartean; bai LH4ko haurren artean, eta baita DBH2ko nerabeen artean ere. Aitzitik, epealdi horretan jaitsi egin da ikasleen artean euskarazko maila “aurreratua” duten ikasleen proportzioa (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2019: 89, 91).

## **22.4. ERABILERA(K)**

### **22.4.1. Euskara-erdaren erabilera gaur**

Azken datuen arabera, Euskal Herriko hiztun guztiak aintzat hartuta, 2021ean %12,6koa izan zen euskararen pisua kale-erabileran eta %84,6koa gaztelaniarena/frantsesarena (Altuna et al., 2022: 17); 16 urtetik gorakoan artean,

berri, aurrez aurreko harremanetan %15,3koa izan zen 2016an euskararen batez besteko erabilera aitortua eta %84,7koa erdararena<sup>331</sup>. Gaitasunean ikusten genuen bezala, hortaz, lehen ezaugarri funtsezkoa euskararen eta erdaren erabilera-mailen arteko desoreka handia dugu.

Hiztun guztiez hitz egin beharrean 16 urtetik gorako euskaldunen erabilerari erreparatuz, datu aitortuek diote ia erdi eta erdi banatzen dutela euren jarduna: aurrez aurreko harremanetan batez beste euskaraz aritzen dira %53,8 eta erdaraz %46,2. Horiek ISLko elkarrizketatuen erantzunetatik zuzenean ateratzen diren datuak dira; datu aitortuetatik portaera erreala izan ohi den alboratzea kontuan hartuta, atal enpirikoan ariketa xume bat egin dugu alboratze horren eragina saihestuta kopuruak zer-nolakoak izan daitezkeen asmatzeko. Egindako kalkuluen arabera, egungo hiztun euskaldunaren aurrez aurreko egoeretako batez besteko jarduna honela banatuko litzateke: %41 inguru euskaraz eta %59 inguru gaztelaniaz/frantsesez. Euskararen kopurua are txikiagoa litzateke aurrez aurreko harremanetan sartzen ez diren beste hainbat erabilera-eremu ere sartuko bagenu gure kalkuluetan, hala nola hedabideen, ikus-entzunezkoen eta kulturaren kontsumoa. Zalantza handirik gabe esan daiteke, hortaz, gaur egungo batez besteko euskaldunak bere egunerokotasunean erdaraz gehiago egiten duela euskaraz baino. Lehen begiratu batean, irudi dezake gutxi erabiltzen dela euskara eta euskaldunek euskarari bizkarra ematen diotela euren egunerokotasunean. Aurrerago azalduko dugu ikuspegi hori ez dela guztiz zuzena, eta berez gaitasun-mailan dagoen zorurako handia dela gaur egungo euskararen erabilera.

Argitu beharra dago, halaber, aurreko horiek batez besteko datuak direla, eta, jakina, alde handiak daudela euskaldunen artean hiztunetik hiztunera, (ia) erabat euskaraz bizi direnetatik erabat gaztelaniaz/frantsesez bizi direnetara. Aurreko paragrafoan egin bezala, erantzun aitortuetan egon ohi den hanpatzea saihestuta egin ditugun kalkuluen arabera, egungo euskaldun gehienek, euskaldunen %61,1ek, erdara gehiago erabiltzen dute euskara baino euren aurrez aurreko harremanetan<sup>332</sup>, eta %38,9k euskara gehiago darabilte erdara baino. Kopuru horietan hedabide, ikus-entzunezko eta abarren kontsumoa ere sartuko bagenu, are handiagoa litzateke, jakina, nagusiki erdaraz bizi direnen multzoa eta are txikiagoa nagusiki euskaraz bizi direnena. Honako datu hauek garrantzitsuak dira, dinamikoki begiratuta, euskaldun gehienak nagusiki erdaraz bizi badira, horrek elikatu eta birsortu egiten baitu gaitasunean ere hiztun gehienak hobeto moldatzea erdaraz euskaraz baino.

---

<sup>331</sup> Erabilera-tasa horiek (%15,3ko erabilera orokorra eta %53,8koa euskaldunak soilik aintzat hartuta) B motako adierazle sintetikoaren emaitza dira, hots, koefiziente finkeo bidez eraikiak. Esan dezagun, kalkuluak A motako adierazle sintetikoaren erara eginda, hau da, hiztunen erabileraren batez bestekoak landuta, emaitza oso antzekoak lortzen ditugula: %14,9koa da hiztun guztien arteko euskararen batez besteko erabilera eta %52,5ekoa euskaldunen batez besteko erabilera (A eta B motako adierazle sintetikoari buruz azalpenak 11.4.6. puntuan irakur daitezke).

<sup>332</sup> Kalkulu hauek honela egin ditugu: ISLko elkarrizketatu euskaldunek aitortu dituzten erantzunetan oinarrituta, euren aurrez aurreko harremanetako tasa esleitua kalkulatu dugu. Ondoren, tasa horiei, erantzunak hanpatzeko dagoen joera hutsera ekarri nahirik, %23a kendu diegu sistematikoki, gai horretarako darabilgun erreferentzia aplikatuta (lurrebaso, 2012b). Kalkuluak horrela eginda, hots, aitortuari ustez batez beste hanpatu izan dena kenduta, emaitzak goian ageri diren horiek dira (kopuru absolutuak hauek: 459.354 euskaldunek erdara gehiago erabiltzen dute euskara baino; 292.225 euskaldunek euskara gehiago erabiltzen dute erdara baino).

Orain arte erabilera orokorra zertan den azaldu nahi izan dugu. Erabilera orokorra aztertu beharrean rol-harreman eta espazioen arabera aztertuz gero, alde adierazgarriak aurkitzen dira batzuetan egiten den erabileratik besteetan egiten denera. Dena den, geroago aipatuko dugun salbuespena kenduta, erabilera xeheen ibiltarte ez da hain handia: kasu guztietan %10-%19 bitarteko pisua hartzen du euskarak. Dauden aldeak azaltzeko orduan, ez dirudi rol-harreman eta espazioetan egiten diren erabileren arteko ezberdintasunak diglosiaren eskema klasikoarekin erraz azal daitezkeenik, “behe” mailako harreman hurbilak euskaraz eta “goi” mailako harreman formalagoak gaztelaniaz/frantsesez egitera bideratzen dituen horrekin. Dauden aldeak azaltzeko, badirudi euskara erabiltzeko aukera izatea edo ez izatea dela funtsezko alderdia: mintzakideak euskaldunak izan edo ez eta, beraz, euskara erabiltzeko aukera izan edo ez, lehen mailako alderdia da rol-harreman eta espazio batzuetan eta besteetan jaso diren erabileren arteko aldeak azaltzeko orduan.

Idea horri erantsi behar zaio, erabiltzeko aukera egon daitekeen egoerak kontuan hartuta, hots, hiztun euskaldunek mintzakideak ere euskaldunak dituzten egoerak soilik aintzat hartuta, gaur egun gehiago erabiltzen dela euskara egoera formaletan eta ez egoera informal eta intimoetan<sup>333</sup>. Adibideen bidez azalduz, gehiago egiten du gaur egungo euskaldunak euskaraz lantokian, auzoko dendan, banketxean edo udal-zerbitzuan, lagunekin, neba-arrebekin edo bikotekidearekin baino.

Erabilera xeheen arteko alderaketan bada beste fenomeno adierazgarri bat: alor informal-intimoan, euskararen erabilera handiena seme-alabekiko harremanean aurkitzen dugu. Orokorrago esanda, euskaldunak joera du belaunaldi berriekin euskarara jotzeko bestela egiten duena baino neurri handiagoan. Aurrerago berriro helduko diogu funtsezko alderdi honi, sozializazioaz arituko garenean.

Erabilerarik apalena, alde handiarekin gainera, hiztunek telebista ikusterakoan egiten dutena da. Esan dugun bezala, aurrez aurreko harremanetako erabilera xehe guztiak nahiko ibiltarte estuan kokatzen dira, gutxieneko %10ekoaren eta gehienezko %19koaren artean. Ibiltarte horretatik kanpo, ibiltarte horren gutxieneko balioaren oso azpitik, salbuespen nabarmen negatiboa da telebistaren kontsumoarena: EAEko 2016ko datuen arabera, %1,9an kokatzen da telebistaren kontsumoan euskarazkoak duen pisua. Indarberritzeari galga jartzen dion datu kezkarria da horrako hori, gehienbat kontuan hartzen badugu telebistaren adierazlearen zentzu berean azaltzen direla ikus-entzunezkoekin eta kultur kontsumoarekin zerikusia duten beste hainbat ere. Eta kontuan hartu behar da joera kezkarria horrek zuzenean eragiten diela gure haur eta nerabeei. Izan ere, euskarak oso pisu txikia du gaur egun nerabeen hedabide, ikus-entzunezko eta kultur kontsumoan. Hona datu gutxi batzuk: 14 urte inguruko EAEko nerabeek 2015ean gehien bisitatu zuten webgunea euskarazkoa zela zioten %7,6k, gehien ikusi zuten telebista-saioa euskaraz zela zioen %5,3k, gehien entzuten zuten musika-talde edo abeslariak euskaraz abesten zuela zioten %9,5ek, zineman

---

<sup>333</sup> Formaltasun-mailaren arabera estiloaz, ikus “Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa” (Zalbide et al., 2015: 227).

ikusituzen azken filma euskaraz ikusituzen %2,4k<sup>334</sup>... Haurren artean euskarazko kontsumoak zati handiagoa hartzen du, baina urria da hori ere. Bai nerabeen eta baita haurren artean ere, neurtutako gainerako eremu guztietako erabileraren oso azpitik agertzen da hedabideetan, ikus-entzunezkoetan eta kultur arloan egiten dena: etxeko erabileraren, eskolako erabilera orokorraren eta ikaskideekin jolasgaraian egiten denaren azpitik (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2018: 32).

Ez dugu informazio zuzenik telebista, hedabide, ikus-entzunezko eta kultur-kontsumoko euskararen maila hain txiki horren arrazoiak zehazteko. Dena den, aztertu ditugun gainerako alorretan euskaldunen erabilera-maila azaltzen duen funtsezko alderdi bat erabiltzeko aukera dela kontuan hartuta, alor honetan ere, hipotesi nagusi bezala, datuek erakusten duten euskarazko kontsumo txiki hori, neurri handi batean, euskarazko eskaintza urriak azalduko duela planteatuko genuke. Hitzunen bizitzan alor horiek zenbateko tokia betetzen duten jakinda, pentsa daiteke euskarak horien kontsumoan duen toki hain urria galga garrantzitsua dela indarberritzeari begira, egungo errealitateak ez duelako laguntzen euskaratik urrun dauden sektoreak erakartzen eta, aldiz, euskaraz bizi diren edo bizi nahi duten sektoreak erdalduntzera bultzatzen dituelako.<sup>335</sup>

Erabileraren egungo egoeraren azterketarekin amaitzeko, esan dezagun, gaitasunaren gaian bezala, alde adierazgarriak daudela erabilera-datuak adinka aztertuta: hurrek erabiltzen dute gehien euskara eta adinekoek gutxien. Datuek adinka erakusten duten hurrenkera datu positiboa da, ez bairik gabe, hizkuntzaren indarberritzearen ikuspegitik. Lurraldeka ere alde handiak daude, nola ez, erabileran. Horietaz aurrerago jardungo gara.

#### **22.4.2. Azken hamarkadetako erabileraren bilakaeraz hainbat ikuspegi**

Zer esan dezakegu ikuspegi sintetiko batetik euskararen erabilerak azken 25 urteotan, 1991 eta 2016 bitartean, izan duen bilakaeraz? Iturri guztiak bat datoz: epealdi horretan ez da erabateko lurrikararik gertatu erabileraren alorrean, eta oinarrizko egonkortasun bat erakusten dute hiru iturriek. Hortik aurrera, ISLtik tasa esleituekin sortu dugun ISL-404 adierazleak eskaintzen digu ikuspegiarik baikorra 1991-2016 aldirako<sup>336</sup> (+%2,9 puntuko igoera aurrez aurreko harremanetan) eta HZk ikuspegiarik ezkorrena (-%0,6ko jaitsiera etxeko erabileran). HEKNko datuak erdibidean gelditzen

---

<sup>334</sup> Kopuru hain baxuen artean, salbuespen positiboa da irratia. Nerabeek irratian gehien entzuten duten irratsaioa euskarazkoa zela esan zuten %26,8k (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2018: 32). Pentsatzekoa da kopuru erlatiboki handi horrek zerikusia izango duela eskaintzarekin.

<sup>335</sup> Ez dugu ahaztu behar hitzunen bizitzaren zati geroz eta handiago bat medio horien bueltan garatzen dela. Aztertu ditugun denboren aurrekontuen inkestetan eta audientzia-ikerketetan (INE, 2011; EUSTAT, 2019; Barlovento Comunicación, 2022) gaia zehatz kuantifikatzerik lortu ez badugu ere, bertako datuak aztertuta zalantza handirik ez dago aurrez aurreko gizarte-harremanetan baino denbora gehiago ematen dutela herritarrek gaur egun telebista ikusten, sare sozialetan eta Interneten nabigatzen. Horiek horrela, "euskaraz bizitzeko aukera" orokorra kalkulatu nahiko bagenu, mundu hori dena ere aintzat hartu beharko genuke, nahiz eta ez litzazigukeen batere erraza egingo erabakitzea zer-nolako pisua eman aurrez aurreko harremana ez den mundu berri horri. Mundu horri zenbateko pisua eman erabakitzea oso zaila litzateke, batez ere sozializazioaz arituko garenean azalduko dugun bezala, teoriaren eremuan ere ez dagoelako adostasunik, ikuspegi soziolinguistiko batetik, eremu horiek gure bizitzan izan dezaketan garrantziaz.

<sup>336</sup> Alderatzen ditugun bilakaerak 2016. urtera artekoak dira, 2021ko ISL eta Nafarroa Garaiko zentsuak oraindik argitaratu gabe daudelako.

dira (+0,9ko igoera kaleko erabileran)<sup>337</sup>. Nolanahi ere, irakurketa baikorrena eta ezkorrena eginda ere, ez da aldaketa-prozesu erabatekorik gertatu azken 25 urteotako erabileraren bilakaeran. Bilakaera onena erakusten duten datuei jaramon eginda ere, ISLkoei alegia, erabileraren igoera antzematen da, baina ez suspertze-prozesu orokortu eta bizkorrik. Datu txarrenei (zentsukoei) kasu eginda, etxeko erabileran jaitsiera txiki bat gertatu da, ez berehalako heriotzara eramango gaituen odoluste agerikorik.

Homogenoa izan al da 1991-2016 aldian gertatu den bilakaera? Euskal Herri osoko informazioa eskaintzen duten bi iturrietara jotz (HEKN eta ISL), bialdi erakusten dituzte: HEKNk hiztun guztiei buruz biltzen dituen datuetan igoera antzematen da 1991-2001 tarterako eta jaitsiera hortik 2016ra<sup>338</sup>. Kaleko erabileraren jaitsiera horrek, gainera, gazteen erabilerari ere eragingo lioke, eta baita haurrenari ere 2006. urtetik aurrera. ISLk aurrez aurreko harremanetako erabilerari buruz ematen dituen datuek, berriz, igoera jarraitua erakusten dute epealdi osorako, 1991ko %12,4tik 2016ko %15,3ra. Hori bai, 1991-2006 bitartean igoera-erritmo biziagoa erakusten zuten datuek (+2,1 puntu hamabost urtetan), eta erritmo horren apaltzea 2006-2016rako (0,8 puntuko igoera hamar urtetan).

Laburtuz, bada, ISLk aurrez aurreko harremanetako erabileraren igoera jarraitua baina 2006tik aurrera geldotzen ari dena ematen digu; apaltze horrek gehienbat alor informalari eragiten dio. HEKNk kaleko erabileran euskararen erabilera igo egin dela esaten du 2001 arte, eta hortik aurrera jaitsiera apala gertatu dela<sup>339</sup>.

Erabilera orokorrek zer gertatu den ikusi ondoren, azter dezagun zer-nolako bilakaera izan den **rol-eremuka eta espazioka**. Ondorio argia uzten dute ISLko datuek: oro har alor formaletan bilakaera hobea gertatu da informaletan eta intimoetan baino. Igoera ohargarriak izan dira, adibidez, osasun- eta udal zerbitzuetan eta baita lankideekiko erabileran ere (datu zehatzak atal enpirikoan ikus daitezke). Jaitsierak izan dira, aldiz, seme-alabekiko erabileran izan ezik, etxe- eta familia-giroko gainerakoetan. Egoera informal eta intimoekin lotu ohi diren rol-harremanetan, gainera, eta mintzakideak euskaldunak diren kasuei soilik begiratuta, bilakaera bereziki txarra izan da hurbileko harreman horizontaletako erabileran: lagunekikoan, bikotekidearekikoan eta neba-arrebekikoan. Orain artekoek gain, telebista-kontsumoan euskarak izan duen jaitsiera handia ere aipatu behar da. Horixe da, hiztun guztien erabilera-datuak hartuta, ikertu diren eremuen artean jaitsierarik handiena izan duena: ETB1en *sharea* %5,5etik %1,9ra jaitsi da EAEn 1993tik 2016ra (SOFRES, 1994: 28; Barlovento Comunicación, 2017: 23).

Rol-harreman eta espazioetako bilakaera ezberdin horien atzean harreman-sareen barnean gertatu den bilakaera dago hein handi batean. Baina, horretaz gain, azken 25

---

<sup>337</sup> Berez, iturrien arteko aldeak are handiagoak dira azterketa Hegoaldeko datuekin eginda: +3,7 puntuko igoera ematen du ISLk, -0,6ko jaitsiera HZk eta, tartean, +1,3ko igoera HEKNk.

<sup>338</sup> 2021eko HEKN-n emaitza orokorrak 2016ko datu bera errepikatu du: %12,6ko erabilera Euskal Herrian (Altuna et al., 2022).

<sup>339</sup> Azken urteotako beheerako joerarekin bat egingo lukete, halaber, EAEn 14 urte inguruko DBH 2ko ikasle nerabeek jolasgaraian lagunekin egiten duten erabileraren bilakaera-datuek 2011 eta 2017 bitartean (Martinez de Luna eta Suberbiola, 2019: 46-47).

urteotan euskaldunen artean areagotu egin da hurbileko solaskideekin erdaraz aritzeko ohitura. Horrek guztiak, jakina, zerikusia du euskaldunen nolakotasunean izan diren aldaketekin.

Berriz ere aurrez aurreko harremanetako erabilera orokorrari helduta, bilakaera-joera ezberdinak gertatu dira hiztunen hainbat ezaugarri kontuan hartuta. Hasteko, hiztunen hizkuntza-gaitasunaren arabera, hiztun batzuek eta besteek izan duten bilakaerari erreparatuko diogu. Euskal nagusitasunezko hiztunek (euskaraz errazago egiten dutenek erdaraz baino) %85aren inguruko erabilera handiari eutsi diote epealdi osoan, aldaketa handirik gabe. Leialtasun-maila handia erakutsi dute hiztun horiek epealdi osoan. Nagusitasun argirik gabeko elebidunek euskararen erabilera igo egin dute, 1991ko %54,9tik 2016ko %62,8ra. Aurkako joera antzematen da erdal elebidunetan: euskaraz baino erdaraz errazago aritzen diren elebidunek jaitsi egin dute erabilera. Multzo horretan asko jaitsi da euskararen erabilera, batez ere, euskaraz egiteko aukerak orain lehen baino gehiago dituztela kontuan hartuta. Ez dugu erdal elebidunen bilakaera negatibo horren arrazoiak berri emango digun informazio zuzenik. Hipotesi gisa, beherakada horren oinarrian honako hiru faktore hauek egon daitezkeela planteatuko dugu: hiztun horien eta euren mintzakideen gaitasun-mailan egon ahal izan diren aldaketak, hiztun horien testuinguru demolinguistikoko gero eta erdaldunagoa eta motibazio mailan gertatu ahal izan diren aldaketak. Berriazko azterketa mereziko luke errealitate horrek. Garrantzitsua da multzo horren portaeran eta motiboetan sakontzea, batez ere elebidunen artean gehien handitu den multzoa hain justu horako hori izan delako.

Adin-multzoka ere alde adierazgarriak antzematen dira euskararen erabilerean bilakaeran. Orokorrean, epealdi osoa hartuta, erabilera gehiago igo da adin-tarte gazteagoetan. Aitzitik, adinekoen artean jaitsi egin da euskararen erabilera. Gazteetara itzulita, berriro ere, alde aipagarriak daude iturrien arabera: ISLko datuek igoera handia ematen dute 15-24 urte arteko gazteen erabileran, 1991ko %10,2tik 2016ko 21,6ra (+%112,3ko hazkunde erlatibo indartsua). HEKNren arabera, berriz, 15-24 urtekoen kaleko erabilera 1991ko %9,3tik 2016ko %12,3ra igo zen (+%32,3ko igoera erlatiboa), eta, gainera, igoera hori eten egin zen 2001. urtean.

### **22.4.3. Euskara asko erabiltzen da gaur egun dagoen hizkuntza-gaitasunerako. Ikuspegi berri bat**

Lehenago, egungo Euskal Herriko egoera demolinguistikoa laburtzerakoan, bi ezaugarri funtsezko aipatu ditugu. Batetik, egitateei dagozkien aldagaiek minorizazio gorriko egoera erakusten dutela euskararentzat. Bestetik, aurrekoarekin kontrastean, euskararen aldeko jarrera indartsu azaltzen zaigula.

Egitateen barruko bi ardatzei buruzko ondorioak azaldu ditugu aurreko orrietan, hizkuntza-gaitasunari buruzkoak eta erabilerari buruzkoak. Ikusi dugu bi kasuetan ere minorizazio gorriko errealitateak ditugula. Alderatu al daitezke bi ardatz horiei buruzko errealitateak? Ba al dago esaterik erlatiboki bietatik zein dagoen indartsuago eta zein ahulago, hizkuntza-gaitasuna edo erabilera?

Jakina da galdera horri ia aho batezko erantzuna eman izan zaiola azken hamarkadotan euskal soziolinguistikan. Horrela, gurean oso errotua dagoen ikuspegiak



esan izan du euskara gutxi erabiltzen dela dagoen gaitasun-mailarako; "gaitasunean indartsu, erabileran ahul" deitu diogu ikuspegi orokortu horri. Egia da bestelako ikuspegiak ere landu izan direla gurean. Bereziki aipatzekoa da, gaiaren inguruko datu enpiriko zuzenik ez zegoen garaian, teoriaren eremutik Txillardegik landu zuen eredu matematikoa (Álvarez Enparantza, 1984, 1991, 2001). Gaitasunaren arabera hiztunek zer-nolako osaera duten kontuan hartuta, Txillardegik ondorioztatu zuen handia zela euskararen erabilera; euskalduna oro har leiala zela bere hizkuntzarekiko. Guk datu enpirikoekin egin dugun lanketa ere bat dator ondorio horrekin, berehala ikusiko dugun bezala. Dena den, ikuspegi hori ez da hegemonikoa izan azken urteotan euskal soziolinguistikan, erabileran hizkuntza-gaitasunean baino ahulago geundela esaten zuena baizik. Ikuspegi horrek zioen, halaber, azken hamarkadetan hizkuntza-gaitasunean asko aurreratu dugula, ez ordea erabileran. 16.3. puntuan egin ditugun azterketek bestelako ikuspegia erakutsi digute, aurrekoaren aurkakoa. Gogora ditzagun orain gure lanketaren ondorioz adierazgarrienak.

Hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren aldebiko harreman estuaren barruan, hizkuntza-gaitasuna erabileraren zoru gisa uler dezakegu. Hiztunen eta euren ohiko harreman-sareko mintzakideen hizkuntza-gaitasunak, lehenik, hizkuntzak erabiltzeko aukera eta nahitaezkotasun egitura bat dakar berekin, eta horrekin batera, hizkuntza bat eta beste erabiltzeko gutxienezko eta gehienezko posible batzuk. Hiztun multzo jakin batean, hizkuntza bat eta bestea erabiltzeko dagoen derrigortasuna/aukera aldatu egingo da honako alderdi hauek kontuan hartuta: harreman-sareko mintzakideetatik zenbatek dakiten hizkuntzetako bat bakarrik hitz egiten, zenbatek dakiten beste hizkuntzan bakarrik hitz egiten eta zenbat diren gai bi hizkuntzetan aritzeko. Gaur egungo Euskal Herriko harreman-sareen osaera eta sare horietako hiztunen hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta, harreman gehien-gehienetako hizkuntza (%82,1) gaztelania-frantsesa izango da nahitaez, bertan parte hartzen duten mintzakideetako batek, gutxienez, euskaraz ez dakielako. Nahitaez euskaraz izango diren harremanak, berriz, erdaraz ongi hitz egiten ez dakiten euskaldunekin egiten direnak, oso gutxi dira, %0,8 inguru guk egin ditugun kalkuluen arabera. Azkenik, mintzakide guztiak elebidunak diren egoerak ditugu, euskaraz edo gaztelaniaz/frantsesez gauzatu ahal direnak: horiek egoera guztien %17,0 izango liriteke. Datu horiek bestela irakurrita: euskararen erabilera %0,8 eta %17,8aren artean kokatuko da nahitaez. Gutxienezko eta gehienezko kopuru horiek aldaezinak dira egungo baldintzetan; horiek aldatzeko, hiztunen hizkuntza-gaitasuna edo harreman-sareetan hartzen duten lekua aldatu beharko litzateke. Horiek horrela, egungo baldintzetan, euskararen erabilera aitortua (%14,9<sup>340</sup>) askoz gertuago dago gehienezko erabilera posibletik gutxienezko erabilera posibletik baino.

Atal teorikoan ikusi dugu, halaber, hizkuntza-gaitasuna erabileraren zoru izateak ez dituela baldintzatzen aukeren eta nahitaezkotasunaren egiturak bakarrik, eta beste modu batean ere eragiten duela. Hiztun elebidunen gaitasun erlatiboa tarteko, norberak erosoan, errazen, hobekien mintzatzen duen hizkuntzan egiteko joera sendoa

---

<sup>340</sup> Ehuneko 14,9ko erabilera-tasa hori A motako ISL-404 adierazle sintetikoaren emaitza da, hots, hiztunen batez besteko erabileretan oinarrituta eraikia (ez da, beraz, koefiziente finkoen bidez eraikia). Esan dezagun, kalkuluak B motako adierazle sintetikoaren erara eginda, hau da, koefiziente finkoekin kalkulaturik, emaitza antzekoa lortzen dugula: %15,3 (A eta B motako adierazle sintetikoari buruzko azalpenak 11.4.6. puntuan irakur daitezke).

izango du hiztunak. Horren inguruko metafora argigarria<sup>341</sup> utzi zigun Gotzon Garatek (2000: 86): “Pelotari bat eskubi baldin bada, eskubiz jokatuko du, ahal duen guztietan. Pilota baztertu egiten zaionean, eta ezinbestean joko du ezkerrez”. Hiztunak hizkuntza bat ala bestea erabiltzera bultzatzen dituen oinarritzko bulkada hori aintzat hartu nahirik, “erreferentzia eroso” kalkulatu dugu. Erreferentzia horretan irudikatzen da gurean zer-nolakoa izango litzatekeen hizkuntzen erabilera, baldin eta hiztun elebidunak elkarren artean direnean beti errazen erabiltzen duten hizkuntzan arituko balira (eta elebarkarrek elkartzen direnean, hiztun elebarkar horren hizkuntza erabiliko balute). Erreferentzia horren arabera, baldintza horietan %8,2koa litzateke euskararen batez besteko erabilera Euskal Herrian 2016. urtean. Kopuru horretatik dezente gora kokatzen da aurrez aurreko harremanetako erabileraren ISL-404 adierazlea, %14,9an zehazki. Bi datu horien alderaketak zuzenean adieraziko liguke euskara asko erabiltzen dela gaur egun dagoen gaitasunaren zorurako. Atal enpirikoan azaldu dugun bezala, gainera, ondorio berera iristen gara hiztunek euren hizkuntza-gaitasunen arabera egiten duten erabilera aztertuta: nagusitasunik gabeko elebidunek euskarara gehiago jotzen dute erdarara baino, eta nagusitasuna duten elebidunen artean, gehiago jotzen dute euskarara erdal elebidunek, erdarara euskal elebidunek baino.

Horrela, bada, ondorioa da gure artean hain hedatua egon den *gaitasunean indartsu, erabileran ahul* ikuspegia ezin dela erraz oinarritu datu demolinguistikoetan, datu horiek alderagarritasun-irizpideekin landuz gero bederen. Aitzitik, datu demolinguistikoak aztertuta, ondorioa oso bestelakoa da: euskararen erabilera ezagutzaren gainetik dago gaur egun (eta horrela egon da, gainera, 1991-2016 epealdi osoan).

#### **22.4.4. Ikuspegi berrituaren ondorioak/inplikazioak: leiho bat indarberritzeari**

Hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren arteko harremana modu berritu batean ikusteak galdera berri batera garamatza: nola azaldu hizkuntza-gaitasunak ezartzen duen zoruaren gainetik egotea erabilera? Datuak ikusita, pentsa daiteke nagusitasunik gabeko elebidunen eta erdal elebidunen sail handi bat jardungo dela horrela, erosotasunak aginduko lukeena baino euskara gehiago erabiliz. Zer dela-eta egiten dute erosotasunak azaltzen ez duen hizkuntza-hautu hori? Erantzun bat besterik ez zaigu bururatzen: euskara erabiltzera eragiten duten motiboen artean, erosotasuna ez bestelako alderdiek pisu handia dutelako hiztunen zati handi batean. Iñaki García dio euskal identitateak zerikusituz zuzena duela hiztunen erabilera azaltzerakoan, hiztun horien gaitasunarekin eta testuinguruko ezaugarriekin batera (2004: 74). Guk esku artean dugun informazio demolinguistikoarekin ezin dugu zehaztu zer-nolako arrazoiengatik baztertzeko duten hiztun horiek eurentzat errazena litzatekeen portaera,

---

<sup>341</sup> Ugariak eta adierazgarriak dira fenomeno bera azaltzeko gurean erabili izan diren metaforak. Koldo Mitxelena (1972) egurra ondo moztzen duen aizkora zorrotzarekin alderatzen zuen mintzatzeko eta gogoetak partekatze balioko duen hizkuntza; eta aizkora kamutsarekin horretarako bide ematen ez duena. Joxerra Garziak (2014: 2), aurreko metaforari jarraituta, hainbat hiztunek euskara gutxi erabiltzea euskal aizkora kamutsa izatearekin lotuko du zuzenean, hots, hiztun horien gaitasun urriarekin, eraginkorki komunikatzeko gaitasun urriarekin zehazki. Patxi Saezek (2016b) autoen bidezko metafora proposatuko digu: hizkuntza batean edo bestean nagusitasuna duten hiztun elebidunek “komunikaziorako tresnarik azkarrena eta eraginkorrena aukeratzen dute, izan ere, etxeko garajeen Mister Bean jaunaren Minimorrisa baldin bada eta, ondoan, Sebastian Vettel 1 Formulako gidariaren Ferraria, zein aukeratuko dute gure gazteek lagunekin ibiltzeko?”.

zergatik dauden prest euskaraz egiteak eskatzen dien ahalegin erantsi hori egiteko egunez egun, askotan testuinguruak askorik lagundu ez arren. Edonola ere, motibazioen alorra euskararen indargune nagusi gisa azaltzen da gure ikuspegian.

Horiek horrela, azken hamarraldietan gurean hizkuntzaren egoera soziala deskribatzeko erabili izan dugun hiru ardatzetako egituratze-markora ekarriko bagenu gogoeta (gaitasuna/erabilera/motibazioa), honela laburbilduko genuke gure komunitatearen egungo egoera:

- **Hizkuntza-gaitasunari** dagokionez, euskara oso ahul dago erdaren aurrean. Euskal Herriko hiztun gehienak erdaldun elebakarrak dira; aitzitik, ia ez dago euskaldun elebakarrik. Bestalde, euskarazko nagusitasuna duten hiztunak oso gutxi dira gaur egun erdarazko nagusitasuna dutenen aldean (%7,4 eta %84,2 hurrenez hurren). Horrek oso zoru ahula ezartzen du euskararen erabilerarako, hiztun gehienek ez dakitelako euskaraz hitz egiten, eta dakitenen artean ere gehienek erdaraz errazago egiten dutelako euskaraz baino.
- **Erabilera** gaitasunak ezartzen duen zoruaren gainetik dago nabarmen. Esan berri dugun bezala, egun euskaldunek dituzten harreman-sareetan euskaraz hitz egiteko izan dezaketean aukera erreala kontuan hartuta batetik, eta bestetik jakinda hiztunak zein hizkuntzatan moldatzen diren errazago, erabilera %8,2aren inguruan egongo litzatekeela adierazten digu “erosotasunaren erreferentziak”; baina aurrez aurreko harremanetako erabilera (ISLren arabera) kopuru horren oso gainetik azaltzen zaigu: %14,9koa da. Hiztunen erraztasunak aginduko lukeena baino dezente gehiago erabiltzen da, hortaz, euskara.
- **Euskararekiko jarrera eta motibazioa** litzateke hiru ardatzen artean mailarik onenean dagoena. Guri, bederen, ez zaigu beste arrazoibide sendorik bururatzen erabilera gaitasunaren gainetik egotea azaltzeko. Ezin ulertu erabilerak ezagutza erosoaren erreferentziari ateratzen dion dezenteko koska hori, non eta ez den ontzat jotzen euskaldunen artean hizkuntzarekiko dagoen jarrerak eta motibazioak euskara erabiltzearen alde eragiten dutela.

Esan beharrik ez dago ardatz horien artean aipatu dugun hurrenkera ez datorrela bat, oro har, *Gaitasunean indartsu, erabileran ahul* ikuspegiak irudikatzen duenarekin. Asko laburtuz, ikuspegi horren arabera, gaitasuna nahiko indartsu zegoen eta erabilera ahulago. Eta desoreka hori azaltzeko, ikuspegi horrekin lerratzen den hainbat diskurtsoren (ez guztien) argudioa da hiztun euskaldunen arteko multzo zabalaren leialtasuna/atxikimendua/motibazioa falta dela eta horrek azaltzen duela erabilera ustez txiki hori.

I.45. irudian, *Gaitasunean indartsu, erabileran ahul* ikuspegiaren arabera 3 ardatzak nola banatzen diren erakusten da alde batean, eta guk proposatzen dugun ikuspegi berrituaren arabera bestean<sup>342</sup>. Bi ikuspegiaren arteko aldea honako hau da: ikuspegi


---

<sup>342</sup> Hiru ardatz horien arteko harremana bestela irudikatu zuen Txepetxek, Franco hil ondorengo urteetako (1976-1977) egoera soziolinguistikoa laburtzeko egin zuen grafikoan (Sánchez Carrión, 1999: 108). Egoera zer-nolakoa zen laburtzerakoan, motibazioa jarri zuen berak punturik gorenean (horretan gu bat gatoz haren ikuspegiarekin), eta ondoren ezagutza jarri zuen erabileraren gainetik. Izan ere, Txepetxek komunitatearen hizkuntza-gaitasunaren maila hizkuntza hitz egiten zekitenen kopuruarekin berdintzen


berritu honetan, aurreko ikuspegiaren baino “beherago” azaltzen zaigu hizkuntza-gaitasuna. Horrekin batera, motibazioa “gorago” azaltzen zaigu ohiko ikuspegiaren baino.

**1.45. IRUDIA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, ERABILERA ETA MOTIBAZIOA, ‘GAITASUNEAN INDARTSU, ERABILERAN AHUL’ IKUSPEGIAN ETA GUK AURKEZTUTAKO IKUSPEGI BERRITUAN. EUSKAL HERRIA, 2022**

**Azken hamarraldietan euskal soziolinguistikaren gure errealitateaz nagusitu den ikuspegia:**



**Ikuspegi berria:**



Iturria: egileak landua.

Oharra: zutabeen luzekako neurriak ez dira inongo proportzioaren arabera eraiki. Ardatzen arteko hurrenkera adierazteko eraiki dugun irudi bat besterik ez da.

Zer-nolako ondorioetara garamatza batek eta besteak? Zer esan ahal digu banaketa bakoitzak hiztun-komunitatearen egoera eta dinamika soziolinguistikoko orokorrak? Atal teorikoko edukietara jo beharra dugu galdera horiei erantzuteko. Ordezkapen-prozesuen dinamikaz atal teorikoan azaldu dugunak erreferentzia hauetara ekarrita, hauxe litzateke egoera tipikoa ordezkapen-prozesua indartsu dagoen ingurune eta garaian: X komunitateko hiztunek *betikoa* izan duten eta errazago darabilten Hx hizkuntzaren ordez gero eta testuinguru gehiagotan eta gero eta sarriago Hy erabiltzen eta transmititzen ari dira, nahiz eta hizkuntza horretan gaitasun mugatuagoa izan. Horrekin batera, jakina, gero eta gutxiago erabiltzen dute euren *betiko* Hx hizkuntza. Bestela esanda, ordezkapen-prozesua indar betean dagoenean, euren jatorrizko hizkuntzan hiztunek duten hizkuntza-gaitasuna *gainetik* dago, eta erabilera horren *azpitik* azaltzen zaigu, gero eta gehiagotan *beste* hizkuntza darabiltelako. Kasu horretan, hortaz, gaitasunaren mailaren eta erosotasunak aginduko lukeenaren azpitik egongo da erabilera. Hiztunek portaera hori daramate, kanpoko hizkuntza erabiltzearen aldeko motibazio indartsuak dituztelako, motibazioaren alderdiak betiko hizkuntza uztearen eta kanpoko hartzearen alde eragiten duelako. Horrela, bada, aurreko irudian ezkerrean azaltzen den banaketa, *Gaitasunean indartsu, erabileran ahul* ikuspegiari dagokiona, bat dator ordezkapen-prozesua bete-betean bizi duen komunitatearen irudiarekin. Eta irudi horri dinamikoki eta belaunaldi arteko perspektibaz begiratuta, hizkuntza galbidera daraman banaketa dela ikusiko dugu: gure hizkuntzan dugun gaitasun-mailarako gutxi erabiltzen dugu, eta denborarekin, gure gaitasuna ere kamustuz joango da; beraz, orduan eta gutxiago erabiliko dugu...

zuen, hizkuntza-gaitasunaren ikuspegi dikotomikoa ontzat emanez inplizituki, eta horretan “gaitasunean indartsu, erabileran ahul” ikuspegiarekin bat eginez. Gure ikuspegia bestelakoa da eta hizkuntza-gaitasuna continuum ikuspegitik landuz gero eta hiztunek sare errealean hizkuntza erabiltzeko duten aukera aintzat hartuta, gaitasunaren gainetik azaltzen zaigu erabilera.

Hizkuntzaren heriotzara daraman sorgin-gurpila erraz irudika dezakegu jokabide horrek denboran luzaro irauten duenean. Pentsa daiteke gaur egungo hizkuntza gutxitu gehienen deskribapena jasotzen duela ezkerreko irudiak, norberaren hizkuntzarekiko jarrera negatiboak nagusi baitira munduko hizkuntza indigena askotako hitzunen, baita Europako herrialdeetan ere (Joly eta Uranga, 2010: 211; Thomason, 2018: 70). Pentsatzekoa da, bestalde, egoera horretan aurkituko zela Euskal Herria ere ordezkapen-prozesua indar betean zegoen garai historikoetan, XIX. mendearen bukaeratik XX. mendeko 60ko edo 70eko hamarkada bitartean.

Zorionez, hiztunen multzo batzuek aurreko dinamika horren eraginpean ere funtzionatuko duten arren, ez da hori gaur egungo joera orokorra, puntu honen hasieran azaldu duguna eta eskuineko grafikoak erakusten duena baizik: batez beste dagoen gaitasun-mailarako asko erabiltzen da euskara, eta hori horrela da euskaldunen zati handi batek euskararen aldeko motibazio/jarrera/atxikimendu indartsua duelako. Banaketa horrek denboraren harian dinamikoki iraunez gero, posible da indarberritze-prozesu arrakastatsu baterako bidea irudikatzea: dugun gaitasun-mailaren gainetik erabiltzen dugu euskara, motibazioak horretara garamatzalako; ondorioz, gure euskal gaitasuna ere sendotuz joango da, eta horrek gero eta gehiago eta errazago erabiltzera bultzatuko gaitu... Hizkuntza indarberritzera daraman gurpil baten eskema izan daiteke. Azken batean, hiru ardatz nagusi horien arteko hurrenkera hori da egon litezkeen hurrenkera posible guztien artean eraginkorrena bere hizkuntza indarberritzeko ahaleaginean dabilen komunitatearentzat (hizkuntza gaitasuna < erabilera < jarrera/motibazioa).

#### **22.4.5. Hiztun elebidunari zailago zaion hizkuntzan jardutea; “hizkuntza-hautu ez erosoak”**

Interes berezia du erabileraren barruan “hizkuntza-hautu ez erosoak” aztertzeak, Gotzon Garateren pilotariaren metaforari helduta (2000: 86), berez eskuinak izanda, pilotari eskuinez emateko aukera izan eta hala ere ezker eskuarekin pilotari jo ohi diotenen errealitatea aztertzeak. Metafora horren barruan, berez, bi hiztun mota aurkituko genituzke: euskaraz errazago eginda, euskara erabiltzea posible den egoera komunikatiboetan ere erdara erabiltzeko joera duten hiztun elebidunak batetik, eta, aurkako zentzuan, erdaraz errazago egin arren, euskarara jo ohi duten hiztun elebidunak bestetik. Bi portaera “ez eroso” horien motiboetan sakontzea erronka handia da euskal soziolinguistikarentzat.

Demolinguistikaren tresnekin ezingo dugu askorik sakondu motibo horien izaeran, baina gaiaren inguruko honako ondorio argi hau atera dezakegu: gaur egun Euskal Herrian askoz ere ugariagoak dira bigarren motako portaerak lehenengokoak baino. Hau da, erdaraz errazago egiten duten hiztun elebidunek erdaraz egin ahal den egoeretan erabiltzen duten euskararen bolumena askoz ere handiagoa da euskaraz errazago egiten duten hiztun elebidunek euskara erabil daitekeen egoeretan erabiltzen duten erdararena baino. Datuek diotenez, euskaraz errazago egiten duten hiztunek %7,1eko tokia ematen diote erdarari mintzakide euskaldunekin ari direnean. Aurkako noranzkoan, erdaraz errazago egiten duten elebidunek %39,6ko tokia ematen diote

batez beste euskarari, mintzakideak ere euskaraz badakiten kasuak aintzat hartuta<sup>343</sup>. Kopuruek alde handia erakusten dute bi portaera “ez eroso” horien artean<sup>344</sup>: nolabait laburbiltzeko, gehiago dira portaera ez eroso *euskaltzaleak* (euskarari mesede egiten diotenak) portaera ez eroso *erdaltzaleak* baino.

Erdal elebidunen portaerari buruzko ehuneko horien atzean hiztun partikularrak daude. Erdaraz hobeto moldatu arren, euren seme-alabekin edo lagunekin, adibidez, euskarari tarte aipagarria eskaintzen dioten hiztunak; berez haientzat errazagoa eta erosoagoa litzaiekeen aukera (beti erdaraz aritzea) albo batera utzita, gehienetan euren testuinguruan nagusi den hizkuntza erabili beharrean, euskara erabiltzea hautatuta egunero-egunero ekarpen baliotsua egiten dute euskara indartzeko, horietako gehienek oraindik ere euren jardunaren zati handiena erdaraz egiten duten arren. Demolinguistikaz harago, hiztun berriekin egindako ikerketa kualitatiboek argitu duten bezala (Ortega et al., 2016), egoera horren bizipena asebetetasunetik urruti dago askotan. Horrela, hiztun horien artean ez da arraroa euskara darabiltenean nahi bezain eraginkor komunikatu ezinda, segurtasun falta eta ezerosotasuna sentitzea. Horietako ez gutxi, gaitasun apalena dutenak edo tokiko euskara menderatzen ez dutenak, zuzenean adierazten dute euskara gehiago ez erabiltzeko arrazoi argia dela euren euskarazko gaitasun eskasa. Bestalde, hiztun horietako sail bat ez da ongi sentitzen erdaraz egiten duenean ere, errudun sentimenduak ditu eurek maite duten hizkuntza ez erabiltzeagatik.

Gaiaren inguruko azken gogoeta bat: iruditzen zaigu soziolinguistikatik eta baita euskalgintzatik ere askotan gure nahietatik begiratu izan diogula hiztun horien portaerari, eta euren eguneroko praktika epaitu izan dugula euskararen erabilera trinko batetik zenbat aldentzen den azpimarratuz, tankera honetako pentsamendu-gogoetak eginez: “Begira, seme-alabekin bai, euskaraz egiten du, baina bikotekidearekin eta lagunekin ia dena erdaraz, horrela ez goaz inora”. Iruditzen zaigu begirada hori, hiztun horiekiko bidegabea izateaz gain, ez dela oso eraginkorra izango euren portaerak ulertu eta eurekin batera euskararen erabilera hedatu nahi badugu. Erraztasun eta eraginkortasun komunikatiboaren ikuspegitik, hiztun horiek berez erosoagoa lukete euren seme-alabekin ere erdaraz jardutea; gure ustez, errealitate hori onartzen duen begirada objektiboago eta ulerkorrago batek gehiago lagun gaitzake hiztun horien portaerak interpretatzen eta baloratzen; eta hortik, agian, eurekin eskuz esku, euren erabilera beste esparru batzuetara zabaltzeko gako berriak bilatzen.

---

<sup>343</sup> Egoera guztiak aintzat hartuta, mintzakide gisa euskaldunak zein erdaldunak dituzten egoera guztiak alegia, aldeak ez dira handiak: euskal elebidunek gaztelania/frantsesa %15,5ean erabiltzen dute batez beste; erdal elebidunek euskara, %26,8an. Ikusten denez, ez dago hain alde handirik bi kopuru horien artean eta pentsa daiteke, erantzunetan egon daitekeen alboratzeak zer-nolako izaera duen jakinda, errealitatean are parekatuagoak azalduko zaizkigula bi kopuru horiek.

<sup>344</sup> Pentsa daiteke elkarrizketatuen erantzunetan eta kopuruak kalkulatzeko prozeduretan alboratzeak egongo zirela, eta kopuru horiek adierazten dutena baino handiagoa izan ahalko dela euskal elebidunek erdarari ematen dioten tokia eta txikiagoa erdal elebidunek euskarari ematen diotena. Nolanahi ere, oraingoz zehaztu ez daitekeen neurriko alboratze hori gorabehera, zantzu guztiek pentsatzera garamatzate hizkuntza erabakitzeko aukera dagoenetan gehiago jotzen dutela erdal elebidunek euskarara euskal elebidunek erdarara baino.

## 22.5. MOTIBAZIOA: AMETS EUSKALTZALEAREN INDARRA

Aurreko puntuan, hiztunek oro har duten gaitasun-mailarako euskara asko erabiltzen dutela egiaztatzen, indukzio bidez iritsi gara euskal hiztun-komunitateak euskararen aldeko jarrera/motibazio sendoa duela esatera. Horrekin lotuta esan dezakegu, oro har, euskalduna leiala dela bere hizkuntzarekiko. Modu horretan egin dugu motibazioen inguruko gure lanketa. Erantsi dezagun, labur, ikuspegi hori bat datorrela oro har gaiaren inguruko beste iturri batzuk esaten dutenarekin. Bat dator Inkesta Soziolinguistikoan iritziaren oinarrituta lantzen den jarreraren tipologiarekin. Tipologia horren emaitzak G.90. grafikoan erakutsi ditugu, eta asko laburtuz esan daiteke gehiago direla Euskal Herriko herritarren artean euskararen aldeko jarrera dutenak aurkakoa dutenak baino. Aldekoen nagusitasun hori askoz ere nabarmenagoa da hiztun euskaldunen artean (Eusko Jaurlaritza, 2019: 63-67).

Motibazio-jarreraren alderdia gure hiztun-komunitatearen indargune gisa azaltzea argi ikusten zuen Txepetxek: "Lo que mantiene al euskera en Euskal Herria, incluso en las consideradas sus zonas de predominio, no es de ningún modo, bajo las condiciones sociales imperantes, una primacía del uso. Lo que lo mantiene es una motivación cuyas raíces más hondas son atávicas, afectivas e intuitivas" (Sánchez Carrión, 1999: 110). Inkestetako datuek, esan bezala, berretsi egingo lukete ikuspegi hori. Metodologia eta teknika kualitatiboak erabilia egin izan diren lanek ere aldekotasun orokor hori islatu izan dute, ez beti lurralde guztietan herritar guztien multzoa aintzat hartzen denean, baina bai, modu nabarmenean, euskaldunen multzoan (Erize, 2016, 2018). Kike Amonarrizek ere euskararen jarraipena bermatu izan duten hiru faktore funtsezkoen artean aipatzen du hiztunen atxikimendua, euskaldun elebkarren existentziarekin eta minoria aktibo baten jarrera kontzientiarekin batera (Amonarriz, 2019b: 61). Jon Sarasuak ere, 1960 ingurutik izan den euskararen indartzea hiztunen eta euskaltzaleen atxikimendu sendoari esker gertatu dela dio (2013: 207).

Jarrera-motibazioen alorrean euskal komunitatea sendo dagoela esatea ez da berria gure artean. Testuinguru horretan gure lanak erakutsi duena izan da, iritzi eta aldarrikapenetan ez ezik eta euskaldunen artean hain jarraipen zabala duten Korrika, Nafarroa Oinez, Herri Urrats eta euskararen aldeko antzeko festa masiboetan ez ezik, aldeko jarrera hori eguneroko portaeretan ere gauzatzen dela, hiztunen erabileran zehazki, euskaraz errazago egiten dutenek euskarari eutsiz eta erdaraz errazago egiten duten elebidunen multzo aipagarri batek bere jardunaren zati bat euskaraz eginez. Aurrerago ikusiko dugun bezala, gainera, portaera hori bereziki areagotzen da hizkuntzaren indarberritzearen ikuspegitik estrategikoa den prozesu batean: hizkuntza belaunaldi berrietara transmititzearekin zerikusia duten portaeretan alegia.

Guk landu dugun informazio demolinguistikoak ez digu esaten hiztun elebidunek zergatik ematen dioten euskarari toki gehiago gaitasunaren zoruak aginduko lukeena baino. Gaiaren inguruko literatura soziolinguistikoari erreparatuta, ohikoa da motibazio eta jarreraren artean izaera instrumentala dutenak eta izaera integratzailea dutenak bereiztea. Orokorrean, hizkuntza batekiko jarrera positiboa hizkuntza horren ospari lotuta agertu ohi zaigu: estatus ofizialari, babes instituzionalari, babes ekonomikoari... Horretaz gain, eta estatus ofizialik ez duten hizkuntzen kasuan bereziki, komunitate-identitatearekin estuki lotzen zaigu hizkuntzaren aldeko jarrera positiboa (Joly eta Uranga, 2010: 211). Euskal Herrian, euskara erabiltzeko, ikasteko edo seme-alabei

transmititzeko motibo instrumentalek bere pisua izan dezaketen arren, orokorrean pisu eta eraginkortasun handiagoa aitortu izan zaie motibazio integratzaile-identitarioei, komunitateko kide sentitzeari lotuta dauden motibazioei, nahiz eta joera gisa badirudien arrazoi instrumentalak ere pisua hartzen ari direla (Larrañaga, 1996; Ortega et al., 2016). Dena den, esan bezala, guk zuzenean landu ditugun datu demolinguintikoetan ez dugu gai horren inguruko pista zuzenik aurkitu.

Hari nagusira itzulita, orain arte azaldu dugu azken hamarkadotan motibazio eta jarreraren munduak orokorrean euskararen alde egin izan duela. Gaiaren inguruan irakurri ditugun lan gehienak, arestian aipatutakoak tartean, ildo horretan doaz<sup>345</sup>. Badira, ordea, hainbat zantzu azken mende erdiko biziberritze-ahaleginean ezinbesteko indargune izan den hori ahultzen ari ote den pentsatzera garamatzatenak. Guk landutako datuetatik hasita, G.83. grafikoa ikusten genuen erdal elebidunek 1991-2016 bitartean euskaraz egin ahal izan duten egoeretan gero eta gutxiago erabiltzea horren adierazle izan daiteke agian: beste faktore batzuk ere eragin ahal izan dute beherakada hori, jakina, baina ezin da baztertu motibazioaren ahultzea ere arrazoi garrantzitsua izatea.

Bestalde, badirudi enpirikoki euskalduntasunarekin eta euskaltzaletasunarekin lotuta azaldu izan diren hainbat joera identitario eta ideologiko ere ahultzen ari direla azken 25 urteotan (azken hamarkadan bereziki). Datu bakarra aipatzearen, euren nazio-sentimenduaz galdetzen zaienean “soilik euskaldun” sentitzen direla erantzuten dutenen ehunekoa jaitsi egin da EAEn, 1997ko %33tik 2022ko ekaineko %21era (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea-Eusko Jaurlaritza, 2022: 20). Nazio-sentimenduak euskaltzaletasunarekin eta euskararen erabilerarekin zer-nolako lotura estua eduki izan duen jakinda<sup>346</sup> (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea-Eusko Jaurlaritza, 2015), pentsa daiteke autodefinizio identitario hori ahultzearekin batera, akaso, ahuldu egingo zirela euskararen aldeko jarrerak ere.

Beste gogoeta-bide bati jarraituta, euskararekiko atxikimenduaren ahultzeaz mintzatzen zaigu, halaber, Jon Sarasua bere *Hiztunpolisa* lanean (2013). Bertan, azpimarratu egiten du alderdi subjektiboek funtsezko zeregina izan dutela euskararen indarberritzea bultzatzeko azken hamarkadetako prozesuan, baina azaltzen du zantzu argiak daudela euskararekiko atxikimendu-modalitatea ahultzen ari dela

---

<sup>345</sup> Ez guztiak, ordea. Bestelako iritzia azaltzen dute, adibidez, Hartsuagak (2009) eta Odriozolak (1998, 2004). Euskal demolinguintikan erreferente nagusietako bat izan zen Iñaki Larrañaga soziologo legazpiarrak ere bestelako ikuspegia adierazi zuen 1998. urtean *Zenbat Gara* aldizkariaren 2 zenbakian argitaratutako elkarrizketan: “Euskaldunak lainopean bizitzen ohituak gaudela nioen lehen, gure hizkuntzarekiko daukagun gutxiespen, atxikimendu eskas eta indar gutxiko bulkadagatik, eta baita gizartearen euskara balio gutxiko, prestigiorik gabeko, garrantzi gutxiko gauzak betetzeko erabiltzen delako ere” (Odriozola, 2010). Gezurra dirudien arren, ez dugu uste ikuspegi horiek eta motibazio-jarrereri dagokienez ikuspegi baikorragoa azaldu dugunon ikuspegiak guztiz bateraezinak direnik. Ideologiaren eta alderdi subjektiboaren mundua zabala, konplexua eta kontraesankorra da berez, eta gerta daiteke (hala gertatzen dela uste dugu), gure pentsamolde-sentimeneren geruzetan koherentzia gutxikoak eta kontraesankorrak diruditen elementuak uztartzea.

<sup>346</sup> Hizkuntza-gaitasunaren eta nazio-identitatearen arteko lotura estua argi adierazi dute gaiaren inguruan aspalditik egin izan diren ikerketek (ikus adibidez: Linz et al., 1986; Llera, 1994; Ruiz Olabuénaga et al., 1998)



pentsatzeko<sup>347</sup>. Eta hori arazo handi bat dela oraindik minorizazio-egoera gorrian dagoen gure hizkuntza-komunitatearentzat. Horrekin batera, Sarasuaren hitzetan, etorkizunari begira funtsezko alderdia izan arren, “ez dugu asmatzen atxikimendu eta motibazioaren erreprodukzioa nola eratu” (2013: 208).

## 22.6. TESTUINGURU DEMOLINGUISTIKOA: EUSKARAREN GUNE GOTORRENAK AHULTZEN

### 22.6.1. Arnasguneak, nagusitasun-eremuak eta eskailera mekanikoak

Atal teorikoan ikusi dugun bezala, hizkuntza gutxitu batentzat funtsezkoa da hizkuntza hori nagusi izango den espazio geoterritorialak izatea, “*breathing space*” direlakoak (Fishman 1991: 58). Mikel Zalbidek azaltzen duenez (2019a: 13), alderdi hori nazioarteko soziolinguistikan landuenetakoa izatetik urrun dagoen arren, gurean azken urteotan aztergai eta gogoetagai izan dugu, Zalbideren beraren lanei esker gehienbat. *Arnasgune* terminoarekin ezagutzen ditugu gurean espazio horiek. Asko laburtuta, hauxe da arnasgunea: eguneroko jardun arruntean euskara nagusi den ingurune geoterritoriala, eta, horrekin batera, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisio naturala bermatzen duena.

Arnasguneen gaia, berez, lurraldean hizkuntza bakoitzak duen nagusitasun-maila jaso dezakeen aldagai zabalago baten barruan ere azter daiteke. Udalerrri batzuen eta besteen euskalduntasuna multzokatzeko eta errealitate soziolinguistikoa horren arabera aztertzeko, eremu edo gune soziolinguistikoak landu izan dira tradizioz euskal demolinguistikan, udalerrietan dagoen euskaldunen proportziotik abiatuta. Atal metodologikoan azaldu dugu, gure ustez, euskara-erdarek duten nagusitasun-maila islatzeko aldagai egokiagoak izan daitezkeela erabilerari buruzkoak ezagutzari buruzkoak baino. Eta ikuspegi horretatik abiatuta, batetik udalerrietako etxeko erabileran eta bestetik kaleko erabileran oinarrituta, nagusitasun-eremuak sortu ditugu. Eremu edo gune soziolinguistikoek udalerriak bertako euskaldun-dentsitatearen arabera sailkatzen dituzten bezala, nagusitasun-eremuek erabileraren arabera egiten dute sailkapen hori. Udalerriak, zehazki, bost nagusitasun-eremutan sailkatu ditugu, euskara-erdaren erabilera kontuan hartuta, eta bost nagusitasun-eremu horietatik bi, euskara nagusi den bi eremuak, arnasguneei dagozkie, arnasgune beteei bata eta arnasgune erasanei bestea.

Hortik abiatuta, lehen ustiaketa batean ikusi dugu nagusitasun-eremu bakoitzari errealitate eta dinamika soziolinguistiko berezia lotzen zaiola. Horrela, alde adierazgarriak daude, erabileran ez ezik, baita hitzunen hizkuntza-gaitasunean ere: arnasguneetako hitzun gehienak euskal nagusitasunezko hitzunak dira, euskaraz errazago egiten dutenak erdaraz baino; erdararen nagusitasun handiko udalerrietan ia ez dago horrelako hitzunik, eta gehienak erdaldun elebakarrak dira. Jarreran ere aldeak daude, erdararen nagusitasun handiko eremuen eta gainerakoen artean

---

<sup>347</sup> Ikuspegi horrekin bat, gaia ikertu dutenen arabera, ez dirudi euskara nagusiki eskola bidez jaso duten belaunaldi berrien artean euskararekiko atxikimendua indartsu dagoenik: “badirudi gaur egun hizkuntza ez dela gazte identitatearen ardatzetako bat” (Hernández eta Santamaría, 2021: 20).

gehienbat. Horretaz gain, nola ez, belaunetz belauneko transmisioan eta hizkuntza-bilakaeran ere dinamika ezberdinak antzematen dira ingurune batzuetan eta besteetan. Horri guztiari buruz xehe aritu gara atal enpirikoan, ez ditugu han esandakoak hona ekarriko. Guk landu ditugun iturriez gain, han eta hemen bildutako datuek guztiz berresten dute aipatu dugun logika. Bi adibide besterik ez dugu emango. Lehenengoa, testuinguru demolinguistikoa (hiztunak dituen sareekin batera) funtsezko alderdia da hiztun berrien erabilera azaltzeko orduan (Ortega et al., 2016: 83). Bigarren adibidea: haur eta nerabeen erabilera-ohiturak zeharo aldatzen dira eremutik eremura, *Arrue* ikerketako datuek erakusten dutenez. Ez hori bakarrik: aurrerago sakonago ikusiko dugun bezala, euskararen erabilera jaitsi egiten da haurrak izateari utzi eta nerabezaroa iristen zaienean. Aldaketa hori, ordea, ezberdin ematen da nagusitasun-eremuka: zenbat eta eremu erdaldunagoa, orduan eta jaitsiera erlatibo handiagoa haur izatetik nerabe izatera doan bilakaeran. Arnasguneak<sup>348</sup> salbuespen aipagarriak dira gainera, eta euskararen erabilerak atzera egin ordez nerabe horiek euskara gehiago erabiltzen dute haurrak zirenean baino (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2019: 89, 91).

Informazio enpiriko horrek guztiak berretsi egiten du gaiaren inguruan Fishmanek eta Zalbidek agertu izan duten ikuspegia. Izan ere, berez elkarrekin harreman estuan dauden aldagai soziolinguistikoek eremu batzuetan eta besteetan zer-nolako egoera duten ikusita, esan dezakegu nagusitasun-eremuek nolabaiteko ekosistema soziolinguistiko bereziak osatzen dituztela. Arnasgune beteak dira euskara garatzeko eta transmititzeko baldintza egokienak eskaintzen dituzten inguruneak: beste inon baino errazagoa da ez dakienak euskara ikastea, euskal gaitasun sendo bat garatzea, euskaraz hitz egitea, hizkuntza ondorengoei transmititzea eta norbere bizitzan euskararen aldeko hizkuntza-bilakaera bat izatea. Beste muturrean, erdararen nagusitasun handiko eremuetan, zailagoa du euskarak aurrera egitea, bertan sortzen diren dinamikek indar handiz eragiten baitute erdararen alde (eta euskararen kontra). Tarteko nagusitasun-eremuek, jakina, tarteko posizioak beteko dituzte.

Bidenabar, kontraesankorrak baina berez osagarriak diren bi iruzkin egin beharrea gaude gaiari buruz:

- Batetik, gogoratu beharra dago euskara-erdaren nagusitasun-maila ezberdineko udalerriak elkarrekin harremanetan daudela, euskararen muineko eremua deitu dugun horretan arrunta delako nagusitasun ezberdineko udalerriak elkarren alboan egotea. Are gehiago, Euskal Herriko biztanleria gehiena bizi den espazioa lurralde saretu, interkonektatu, nagusiki urbano eta jarraitu samarra da gaur egun<sup>349</sup>, eta testuinguru horretan euskal hiztun-komunitatea sistema oso gisa ulertu beharra dago. Horiek horrela, oro har,

---

<sup>348</sup> Kasu honetan, *Arrue*ko datuak interpretatzerakoan arnasgunetzat jo ditugu bertako hiztunen artean euskaldunak direnek %80ko langa gainditzen duten udalerriak.

<sup>349</sup> Ez da errealitate berria azaltzen ari garen hau. Euskal Herriko espazio fisiko eta soziala errotik aldatu zen 1960-1970eko industrializazio-prozesuaren eskutik etorri ziren eraldaketa demografiko eta urbanistiko sakonen ondorioz (Llera, 1982; Urrutia, 1984; Gurruchaga Abad et al., 1990). Aldaketa horien eraginez, euskal lurraldea "CINDU-Euskadi" izendatu zuen batasun urbano, interkonektatu eta egituratu gisa aurkeztu zigun Justo de la Cueva soziologoak 1982. urtean (De la Cueva eta Ayestaran, 1982), eta ideia bertsua erabili zuen hamabi urte geroago Amando de Miguel (1994) gure lurraldea "La ameba vasca" izendatu zuenean.

eremu mota batean euskararen ikuspegitik gertatu diren aurrerapen edo atzerapenek eragin argia dute beste mota batzuetako eremuetan ere, eta alderantziz.

- Bestetik, udalerriz gaindiko (eta are Euskal Herriz gaindiko) dinamika orokorragoen garrantzia ukatu gabe, esan beharra dago gaur egun, oraindik ere, testuinguru lokal hurbila funtsezko faktorea dela hiztunei buruzko errealitate eta dinamika soziolinguistikoak ulertzeko. Nagusitasun-eremukako errealitate eta joera batzuek eta besteek hori azpimarratzera garamatzate: errealitate soziolinguistikoak dimentsio lokal sakona du, udalerriz udalerriz euskarak duen nagusitasun-mailaren arabera antzematen diren dinamika arras ezberdinek erakusten diguten bezala.

Errealitate interkonektatuak baina arras ezberdinak ditugu, hortaz, udalerrien nagusitasun-mailaren arabera. Eta euskaraz ikasten saiatzea, euskaraz bizitzen saiatzea, euskara ondorengoei transmititzea... errekan aldeko korrontearekin igeri egitea bezala da arnagunean. Ahalegin hori bera erdara nagusi den eremuetan egitea, berriz, kontrako korrontearekin igeri egitearen parekoa da: indar handiz igeri egin ezean, korrontek eramango du igerilaria printzipioz berak joan nahi ez zuen noranzkoan.

Hona gai bera irudikatzeko beste metafora bat, ondorengo orriotan behin baino gehiagotan erabiliko duguna. Euskalduntze-prozesua eraikin bateko beheko solairutik goiko solairura igotzea bezala irudikatu dezakegu. Eraikin horretan, ordea, era bakarra dago solairuetan gora egiteko: eskailera mekanikoen bidez<sup>350</sup>. Gertatuko dena da, eremu batzuetan (arnaguneetan, arnagune beteetan bereziki), eskailera mekaniko horiek ohituta gauden bezala funtzionatuko dutela, hots, igotzen lagunduko digutela. Beste eremu batzuetan, ordea (erdara nagusi den eremuetan), eskailera mekaniko horiek kontrako noranzkoan etorriko dira, goitik behera alegia. Eta gora joateko, euskalduntzean aurrera egiteko alegia, modu bakarra eskailera horietatik igotzea denez, eskailerak dakarren goitik beherako abiadura gainditu behar du igo nahi duenak, igoko bada. Bestela, geldi egonda, edo eskailerak dakarren abiadura baino motelago ibilita, ez dugu aurreratuko; aitzitik, atzera egingo dugu. Berez, eskaileraren noranzkoa eta abiadura ez da berdina izango toki eta garai guztietan. Gaur egun, adibidez, eskaileraren eragina ez da berdina izango Goizuetan eta Ondarroan (eskailerak gora egiten lagunduko duela pentsa daiteke, euskalduntzearen aldera) edo Angelun, Bilbon eta Tafallan (eskailerak behera egiten lagunduko duela pentsa daiteke, erdalduntzearen aldera). Euskal Herria orokorrean hartuta, eta bertan hiztun gehien-gehienak erdara nagusi den eremuetan bizi direla aintzat hartuta, gure batez besteko eskailera ere, euskalduntze-asmoen kontra eragiten duena, goitik behera datorrena izango da. Aurrerago ikusiko dugun bezala, eskaileraren noranzkoa eta abiadura une eta toki horretako egitura demolinguistikoarekin eta testuinguru orokorraren eraginarekin jarri daiteke harremanetan.

---

<sup>350</sup> Guk baino lehenago, eskailera mekanikoak metafora gisa erabili zituen Txepetxek (Sánchez Carrión, 1991: 171) hiztunek hizkuntza-gaitasunean zuten bilakaera irudikatzeko (hizkuntza ikasteko abiadura eta berau ahaztekoa harremanetan jarrita). Guk, testuan azaldu bezala, beste zentzu batean erabiltzen dugu eskailera mekanikoen metafora.

## 22.6.2. Nagusitasun-eremuen araberako egungo osaera: hiztun gutxi bizi da erdararen nagusitasun-eremuetatik kanpo

Udalerrika hizkuntza baten eta bestearen nagusitasun-mailari erreparatuta, gaur egungo Hegoaldeko<sup>351</sup> hiztunak zein eremu-motatan bizi diren aztertuta zehazki, banaketa oso desorekatua azaltzen zaigu erdal nagusitasunezko eremuen alde. Ikus dezagun. Multzoak 2016ko kaleko erabileraren arabera eraikita<sup>352</sup>:

- Arnasgune beteetan, euskararen nagusitasuna handia den udalerrietan (kaleko erabileran euskararen pisua %80tik gorakoa dutenetan) 44.701 hiztun bizi dira (Hegoaldeko hiztun guztien %1,6). [Udalerrri horien adibide dira<sup>353</sup> Azpeitia, Errezil, Goizueta, Leitza, Muxika, Aulesti eta Ataun.]
- Arnasgune erasanetan, euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrietan (kaleko erabileran euskararen pisua %60-%80 bitartekoa dutenetan) 83.868 hiztun bizi dira (hiztun guztien %3,1). [Udalerrri horien adibide dira Mutriku, Oñati, Azkoitia, Arbizu, Zestoa, Markina-Xemein, Lekeitio eta Ondarroa.]
- Nagusitasun argirik gabeko udalerrietan (kaleko erabileran euskararen pisua %40-%60koa dutenetan) 162.133 hiztun bizi dira (hiztun guztien %5,9). [Udalerrri horien adibide dira Lesaka, Gernika-Lumo, Tolosa, Zarautz, Usurbil, Baztan, Zumaia eta Oiartzun.]
- Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerrietan (kaleko erabileran euskararen pisua %20-%40 artekoa dutenetan) 242.191 hiztun bizi dira (hiztun guztien %8,8). [Udalerrri horien adibide dira Legazpi, Mungia, Andoain, Hernani, Arrasate, Elorrio, Ordizia eta Elgoibar.]
- Erdararen nagusitasuna handia den udalerrietan (kaleko erabileran euskararen pisua %20tik beherakoa dutenetan) 2.211.811 hiztun bizi dira (hiztun guztien %80,6). Horien barruan, gainera, gehienak kaleko erabilera %10era iristen ez den udalerrietan bizi dira (1.827.902 hiztun, hiztun guztien %66,6). [Udalerrri horien adibide dira Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Barakaldo, Getxo eta Tuter (erabilera %10aren azpitik); eta Donostia, Pasaia, Errenteria, Agurain eta Lizarra (%10-%20ko erabilerarekin).]

Banaketa, hortaz, egitatezko gainerako adierazleetan bezala, oso lerratua azaltzen zaigu erdal nagusitasunezko eremuen aldera. Euskarak lurraldean duen

---

<sup>351</sup> Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako udal-mailako hizkuntza-egoeraren berri emango digun iturririk ez dago, tamalez. Hori dela eta, puntu honetan Hegoaldeari buruz soilik arituko gara.

<sup>352</sup> Alde ez oso handiak baina adierazgarriak daude nagusitasun-eremuak kaleko erabileraren edo etxeko erabileraren arabera eraikita. Etxeko erabileran oinarrituta eraiki dugun multzokatzearen araberako datuak 18.1.2.1. puntuan aurkeztu ditugu. Bestalde, argitaratu berri diren EAEko zentsuen arabera, 2011-2021 tartean etxeko erabileraren araberako nagusitasun-eremuetan jaitsi egin da arnasgune beteen, arnasgune erasanen eta erdararen nagusitasun handiko multzoen pisua, eta handitu egin da erdararen nagusitasun ez erabatekoena eta nagusitasun argirik gabekoena (ikus atal metodologikoko T.69. taula).

<sup>353</sup> Puntu honetan 15.6.2. puntuan azaldutako adibide berak erabili ditugu (datu iturria: 2014-2018ko HEKN).

nagusitasunari buruz (herrialde, eskualde eta udalerrietan) informazio xehe ugari eskaini dugu 18. kapituluan. Gogora ditzagun bereziki adierazgarriak iruditzen zaizkigun honako hiru alderdi hauek:

- Arabar, bizkaitar eta nafar ia guztiak erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi dira. Ezaugarri horretako udalerrietan bizi dira arabarren %99,1, nafarren %93,9 eta bizkaitarren %87,3<sup>354</sup>. Gipuzkoan egoera bestelakoa da: hiztunen erdiak inguru (%49,6) erdararen nagusitasun handiko udalerrietan bizi dira, baina beste erdiak (%50,4) gainerako nagusitasun-eremuetako udalerrietan bizi dira.
- Hegoaldeko udalerrri populatuena erdararen nagusitasun handikoak dira guzti-guztiak, 2011ko datuekin egindako azterketaren arabera<sup>355</sup>. Ezaugarri hori dute 50.000 biztanletik gorako zazpi udalerrietatik zazpi, Hegoaldeko lau hiriburuak barne<sup>356</sup>, eta baita 5.000 biztanletik gorako herri gehienek ere. Beste muturrean, gaur egun, EAEko 2021ko zentsuko datuetan (EUSTAT, 2022) eta Nafarroa Garaiko 2011koetan oinarrituta, arnasmune izaera duten 5.000tik gorako lau udalerrri besterik ez dugu Hegoaldean: Azpeitia, Ondarroa, Lekeitio eta Mutriku<sup>357</sup>. 2011 arte arnasmuneak izendatzeko darabilgun langa (etxe erabilera %60tik gorakoa izatea) gainditzen zuten Azkoitiak eta Markina-Xemeinek, baina arnasmune izaera galdu dute, irizpide horren arabera betiere, 2011 eta 2021 bitartean. Lehenago, 2001-2011 bitartean arnasmune izaera galdu zuten Oiartzunek, Oñatik, Bermeok, Baztanek eta Usurbilek.
- Erdararen nagusitasun handikoak ez diren udalerrri guzti-guztiak “muineko eremua” deitu diogun lurralde-eremuan daude, M.5. mapan ikus dezakegun bezala. Lurralde eremu horrek Gipuzkoa, Bizkaiko ekialdea, Nafarroako iparraldea eta Aramaioko udalerrria hartzen ditu, eta bat dator, oro har, euskara historia luzean belaunez belaun etenik gabe transmititu den lurralde-eremuarekin. Muineko eremu hori, ordea, oso urrun dago gaur egun euskara nagusi den gune homogeen-jarraitu-trinkoa izatetik. Alderdi honetan ere, gure errealitatea Galiziakoa edo Kataluniakoa baino nabarmen ahulagoa da: bi herrialde horietan lurralde-eremu zabal eta jarraitu samarretan dira bertako hizkuntzak nagusi hiztunen erabileran (IGE-Instituto Galego de Estatística-, 2019a; Rovira eta Serrano, 2019).

Bere garaian Ruiz Olabuénagak soziologoak 1981eko EAEko erroldetan euskaldunen banaketari buruz egiten zuen azterketan aipatzen zuen euskara

---

<sup>354</sup> 2016ko HEKNko datuen araberrako ustiaketa (ikus 18.3.1. puntua). Zentsuaren araberrako banaketa ez da askorik aldatzen alderdi horretan.

<sup>355</sup> EAEko 2021eko datuak eskuragai daude sarean (EUSTAT, 2022). Nafarroa Garaiko zentsuetako datuak argitaratzen direnean berregin ahalko da Hegoalde-mailako azterketa hori. Dena den, EAEko datuei begiratuta, ez dirudi hor azaltzen diren joera nagusiak askorik aldatuko direnik.

<sup>356</sup> Argitaratu berri diren EAEko 2021eko zentsuen araberrara, Donostia “erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den” udalerrrien multzora pasatu da, etxe erabileran euskarak izandako pisua %21,6an kokatu baita Gipuzkoako hiriburuan, tasa esleituen formula aplikatuta (EUSTAT, 2022).

<sup>357</sup> Ikusten den bezala zentsuen araberrako udalerrrien sailkapena nagusitasun-eremuetan ez dator bat %100ean HEKNko datuekin egin daitekeenarekin. Zonalde euskaldunagoetan, oro har, euskararen erabilera-maila handiagoa zenbatu baita kalean etxeetan baino.

geografikoki uharte batzuez osaturiko artxipelago baten gisa irudikatu zitekeela, uharte horiek batzuetan elkartuago, besteetan isolatuago zeudelarik, baina gune jarraitu bat osatzetik urruti. Horregatik zioen geografikoki zatikaturik dagoen errealitate bat zela euskararena 1981. urtean (1984: 17). Egungo udalerrikako erabilera-datuei erreparatuta, Olabuénagaren ikuspegiak erabateko gaurkotasuna du 40 urte pasatu diren honetan, aipatu dugun mapak erakusten duen bezala. Azpimarratu beharra dago, gainera, errealitatea mapak lehen begi kolpe batez adierazten duena baino dezente ahulagoa dela; orokorrean, muineko eremu zatikatu horren barruan, udalerrri populatuenak baitira erdaldunenak eta udalerrri txikienak euskaldunenak.

Itzul gaitezen puntu honen hasieran eman dugun datu nagusira: oso gutxi dira gaur egun erdara nagusi ez den testuinguruetan bizi diren hiztunak; gehien-gehienak erdararen nagusitasun handiko eremuetan bizi dira. Ez da garrantzi gutxiko datua, erreka igeriketa-saioen eta eskailera mekanikoen metaforekin adierazi nahi izan duguna gogoratuta: hiztun gehien-gehienak, hamarretik bederatzi (%89,4), korrontek euskararen aurka egiten duten testuinguruetan bizi dira; euskaraz bizi nahi izanda ere kontrako noranzkoan datozen eskaileretan gora egin behar izaten denetan. Errekako korrontea edo eskaileraren noranzkoa alde izango dutenak, aldiz, gutxi batzuk besterik ez dira: %4,7 bizi dira arnaguneetan. Gainerako %5,9ak, azkenik, nagusitasun argirik gabeko udalerrietan bizi dira.

### **22.6.3. Arnaguneetako eta nagusitasun argirik gabeko udalerrietako hiztunek ekarpen handia egiten diote euskarari, baita kuantitatiboki ere**

Gutxi dira arnaguneetan eta nagusitasun argirik gabeko udalerrietan bizi diren hiztunak. Euskal hiztun-komunitatearentzat duten garrantzia, ordea, kopuru horiek adierazten dutenetik harago doa. Zalbidek (2019a) ondo azaltzen du arnaguneek euskararentzat duten hil edo biziko garrantzi kualitatiboa. Espazio horien garrantzia, ordea, ez da kualitatiboa soilik, kuantitatiboki ere funtsezkoak dira. Batetik, euskaldunen banaketa ez da proportzionala hiztunen banaketarekiko. Euskaldunen artean kopuru horiek adierazten dutena baino pisu handiagoa dute arnagunean eta nagusitasunik gabeko eremuetan bizi direnek: %10,7 eta %16,2 dira hurrenez hurren<sup>358</sup>. Baina garrantzi kuantitatibo hori erabilera aintzat hartuta ikusten da gehienbat, euskara erabiltzen duten euskaldunen artean nagusitasun-eremu batzuetako eta besteetako hiztunek duten pisan, alegia. Bi datu:

- Etxean nagusiki edo bakarrik euskaraz mintzo diren hiztunen erdiak baino gehiago erdara nagusi EZ den eremuetan bizi dira, arnaguneetan (%23,3) edo nagusitasun argirik gabeko eremuetan (%26,8)<sup>359</sup>. Beste erdiak erdara nagusi den udalerrietan bizi dira (euren etxeko erabileran euskara %40ra iristen ez den udalerrietan). Erreferentzia ezagunago bat erabilita, esan dezakegu UEMAKoak

---

<sup>358</sup> 2011ko HZk ustiatuta kalkulaturako datuak, ikus 18.1.2.1. puntua.

<sup>359</sup> 2011ko HZko etxeko erabileraren arabera kalkulaturako datuak, ikus 18.1.2.1. puntua.

izateko baldintzak betetzen dituzten udalerrietan<sup>360</sup> ekoizten dela egungo euskararen erdia inguru. Zehazki, 2016ko HZn oinarrituta egindako kalkuluen arabera, etxean euskaraz egiten duten hiztunen %51,3 UEMAKo udalerrietan (edo bertako kide izateko baldintzak betetzen dituztenetan) bizi dira; gainerako %48,7a UEMAKoak izateko baldintzetara iristen ez direnetan.

- Kaleko erabilerari jaramon eginda eta jardunaren osaera aztertuta, arnasmuneetan ekoizten zen 2016an kalean egiten zen euskararen %27,0 eta nagusitasunik gabeko eremuetan %22,3a. Udallerri horietan guztietan, hortaz, bertan biztanleriaren %10,7 besterik bizi ez den arren, ekoizten da, ahoratzen da egungo euskara errealaren, egiten denaren erdia. Beste erdia erdara nagusi den udalerrietan ekoizten da.

Errepika dezagun azken datu hori: euskara errealaren, ahoratzen den, erabiltzen den euskararen erdia inguru arnasmuneetan eta nagusitasun argirik gabeko udalerrietan ekoizten da. Kalkuluak modu horretan eginda, deigarriak egin ahal zaizkigun beste alderaketa zehatzago batzuk ere egin genitzake. Adibidez, kaleko erabilerari erreparatuta<sup>361</sup>, esan genezake Azpeitiak Bilbok baino euskara apur bat gehiago ekoizten duela gaur egun. Hots, Azpeitiko hiztun guztiek ekoizten duten euskara Bilboko hiztun guztiek ekoizten dutena baino gehiago dela kuantitatiboki<sup>362</sup>. Edo esan genezake Zarautzen Gasteizen baino euskara gehiago ekoizten dela<sup>363</sup>. Edo Baztanen Iruñean bezainbeste euskara ekoizten dela<sup>364</sup>.

Iruditzen zaigu datu horiek islatzen duten errealitatea, gunee eta udallerri euskaldunenek daukaten garrantzi kuantitatiboa, ezkutuan gelditu izan dela azken hamarkadetako eztabaida soziolinguistikoa eta euskararen aldeko mugimenduaren gogoetetan. Aurkako noranzkoan zabaldu diren mezuek oihartzun zabala izan dute gure artean, gaur egungo euskaldunak gehienbat Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta gisako hiri-inguruetan bizi direla esan izan dutenek. Tankera horretako mezuek errealitatearen alderdi bat jasotzen zuten: euskaldun guztiei pisu berbera eman izan zaie ikuspegi horretan, euskaraz bizi direnetatik hasi eta erabat erdaraz bizi direnetarainoko guztiei. Eta hala

---

<sup>360</sup> UEMAKoak izateko, udallerriek honako baldintza hau bete behar dute: euskararen indizean %70eko balioa gainditzea. Euskararen indizea horrela kalkulatu da: euskaldunen ehunekoari ia euskaldunen ehunekoaren erdia gehituta. Gutxi asko, gure sailkapena erabilita, irizpide horretan kabitzen dira arnasmune guztiak eta nagusitasun argirik gabeko udallerri ia guztiak.

<sup>361</sup> Zentsuko datuetara joz gero ere antzematen da kopuru absolutuetan gertu daudela Azpeitika eta Bilboko hiztun aktiboen kopuruak: etxean euskaraz nagusiki euskaraz egiten dutela aitortu dute 12.476 bilbotarrek eta 9.569 azpeitiarrek.

<sup>362</sup> Hori esateko, azken kale-neurketen datuak hartu ditugu eta, bi udallerri horien biztanleria-datuak kontuan hartuta, denbora osoko hiztunen kalkulua egin dugu. Azpeitian erabilera %86,6koa izanik eta bertako biztanleak 15.329, denbora osoko hiztunak 13.275 lirateke. Bilbon, berriz, erabilera %3,5koa izanik eta biztanleak 342.662, denbora osoko hiztunak 11.993 lirateke, Azpeitikoak baino gutxiago, beraz (Jatorrizko iturriak: Altuna et al., 2022; Soziolinguistika Klusterra, 2022).

<sup>363</sup> Kalkuluak: Zarautzen erabilera %50,7koa izanik eta bertako biztanleak 23.243, denbora osoko hiztunak 11.784 lirateke. Gasteizen, berriz, erabilera %4,1koa izanik eta biztanleak 247.833, denbora osoko hiztunak 10.161 lirateke, Zarauzkoak baino gutxiago beraz (Jatorrizko iturriak: Altuna et al., 2022; Soziolinguistika Klusterra, 2022).

<sup>364</sup> Kalkuluak: Baztanen erabilera %69,5koa izanik eta bertako biztanleak 7.863, denbora osoko hiztunak 5.465 lirateke. Iruñean, berriz, erabilera %2,7koa izanik eta biztanleak 203.081, denbora osoko hiztunak 5.483 lirateke, Baztango kopuru bertsua beraz (Jatorrizko iturriak: Altuna et al., 2022; Soziolinguistika Klusterra, 2022).

da, Bilbon askoz euskaldun gehiago bizi da Azpeitian baino. Errealitateak badu, ordea, beste alde bat, aurkeztu berri ditugun datuen bidez erakutsi nahi izan dugun bezala: “egiten den euskara”, euskara erreala eta ez potentziala, ingurune euskaldunago horietan ekoizten da neurri oso handian, eta ez hainbeste zonalde erdaldundu populatuetan.

#### **22.6.4. Nagusitasun-eremuen bilakaera: arnagune gehienak suntsitu egin dira XX. mendeko lehen zazpi hamarraldietan; gelditzen direnetan higadurak jarraitu egin du azken 30 urteotan**

Arnaguneen, euskal nagusitasunezko eremuen ahultzea eta urritzea XX. mende osoan zehar gertatu den fenomeno dugu, haur txikien lehen hizkuntzari buruzko udalerrrikako datuen bidez zehaztu ahal izan dugun bezala: Hegoaldeko hiztunen %37,5 jaio ziren arnagunean 1906. urtean, (haur txikiekin euskararen erabilera %60tik gorakoa zuten udalerrietan zehazki). Hirurogei eta bost urte geroago, 1971. urtean, haurren %10,0 besterik ez zen jaio ezaugarri horietako udalerrietan. Bitarte horretan, XX. mende hasieran egon zitezkeen arnaguneen hiru laurdenek<sup>365</sup> galdu zuten arnagune izaera eta gehienbat nekazari giroko herri txikiek eta azpiegitura nagusietatik urruti zeuden herri isolatuagoek eutsi zioten ezaugarri horri. Arnaguneen barruan, gainera, bereziki arnagune beteek jasan zuten galera hori, haurrekiko erabileran euskarak %80,0ko pisua gainditzen zuten horiek: horien pisua %33,0tik %3,1era jaitsi zen 65 urte horietan. Horrela, bada, Euskara nagusi zen lurralde-eremuak agortzea ekarri zuten XX. mendeko lehen zazpi hamarkadek. Prozesu hori XX. mende hasieratik gauzatu zen, eta 1936tik aurrera azkartu, 1951-1966 artean bereziki. Hortik aurrera, landu ditugun datuen arabera, egoera nahiko egonkortu zen 70eko eta 80ko hamarkadetan: galera-prozesua ez zen sakondu baina galdutakoa berreskuratzeko prozesurik ere ez zen gertatu. Kuantitatiboki ez ezik, pentsatzekoa da kualitatiboki ere aldaketa sakonak bizi izango zituztela ingurune horiek, eta Amonarrizek dioen bezala, pentsa daiteke garai batekoen tankerako arnagune trinkorik ez dagoela jada (2019a).

Ikuspegia azken hamarkadetakoko bilakaerara ekarrita, lehen hizkuntzan oinarritutako datuak hartu beharrean erabilerari buruzkoetan oinarrituko gara, zentsuetako etxeko erabileraren datuetan eta HEKNko kaleko erabilerarenetan zehazki. Bi iturri horiek bat datoz, eta biek azaltzen dute 1991-2016 tartean ez dela gertatu erabateko aldaketarik eremuen oinarritzko egiturari, eta biek berresten dute, halaber, arnaguneek ahultzen jarraitu dutela<sup>366</sup>. Bi iturrioren arabera, arnaguneen atzerakada Bizkaian eta Nafarroa Garain gertatu da batik bat, ez hainbeste Gipuzkoan. Hizkuntza gutxituaren gune geoterritorial trinkoen ahultze-joera hori ulergarria da maila lokala gainditzen duten fenomeno makro guztiez gain, besteak beste, inguruneen arteko fluxu demografikoak

---

<sup>365</sup> Zehatz esanda: mende hasieran arnagune izaera zuten udalerrietan bizi zirenen pisu demografikoa hiru laurden jaitsi zen epealdi horretan.

<sup>366</sup> Argitu dezagun azaltzen ari garen prozesua ez zela lineala izango, eta guk darabiltzagun adierazleetan (etxeko eta kaleko erabilerari) ez bezala, arnagune gehienetan euskarak aurrera egin duela beste alor batzuetan, hezkuntza-alorrean edo administrazioan, adibidez; baina nagusitasun sozialaren adierazletzat jo ditzakegun kaleko zein etxeko euskararen erabilerak atzera egin du oro har, eta guk arnagune izatearen operazionalizazioa alderdi horiekin lotu dugu zuzenean.



gero eta handiagoak direlako eta lana/ikasketak/erosketak/aisialdia dela-eta eguneroko mugikortasunaren eskutik inguruneen elkarreragina (linguistikoa kasu honetan) gero eta handiagoa delako. Logika orokor horren barruan, ingurune horien ahultzea ez da Euskal Herrian soilik gertatu den fenomeno; antzeko egoerak bizi dituzte, besteak beste, Galesen eta Eskozian<sup>367</sup>.

Zentsuetako datuek eta HEKNkoek, hortaz, arnaguneen ahultzearen berri ematen digute. Aldaketaren intentsitateari dagokionez, ordea, aldeak daude bi iturri horien artean: zentsuen arabera, arnaguneen galera handia gertatu da; udalerrri horien pisu demografikoa 1991ko %7,2tik 2011ko %4,2ra jaitsi da kalkuluak etxeko erabileraren arabera eginda<sup>368</sup>. Horrek esan nahi du udalerrri horietako etxeetan euskara gero eta gutxiago erabiltzen dela. HEKNren arabera, berriz, udalerrri horien pisua ez da ia aldatu 1991-2016 tartean<sup>369</sup>, nahiz eta arnagune bete zein erasanen barruan erabilera handieneko tipologiek pisua galdu duten erabilera apalagokoen alde. Badirudi, azken 2-3 hamarkadetan, aldagai urbanistiko eta sozioekonomikoen ondorioz (Esnaola, 2015) arnaguneei eragin dieten fluxu demografikoen ez dietela maila berean eragin etxeko eta kaleko erabilerari, eta etxeko erabileran euskarak duen pisua dezente gehiago jaitsi dela kalekoa baino. Zergatik ote? Hipotesi gisa, esan dezagun oso litekeena dela azken hamarkadetan arnaguneetara bizitzera kanpotik etorri diren hiztun erdaldunak edo euskaraz jakinda ere erdararako joera handiagoa dutenak gutxiago ibiltzea herriko kaleetan, batez beste, bertako *betiko* hiztun euskaldunak baino; ondorioz, kale-neurketetan ez litzateke antzemango arnaguneetan bizi diren hiztun horien eragina etxeko erabilera neurtzen duten zentsuetan bezainbeste. Horrekin batera, litekeena da arnaguneetako hiztunen azpimultzo batek euskararako joera handiagoa izatea kalean etxean baino, etxeko denak euskaldunak ez direlako, adibidez, edo etxeko hizkuntza-ohitura eta arauak erdarara bultzatzen dutelako, eta kalekoek, berriz, euskarara. Hori dela eta, euskara gehiago entzuten da arnaguneetako kaleetan bertako etxeetan baino. Eta horrek azal dezake, hein batean behintzat, HZko eta HEKNko datuen artean alde horiek agertzea arnaguneen bilakaerari buruz. Arnaguneen bilakaerari buruzko argazki osoa, hortaz, bi iturriek erakusten dituzten datuen erdi bidean kokatu beharko genuke.

HEKNko eta zentsuko datuetan nagusitasun-eremuei buruz landu ditugun datuek ematen dituzten joeretan antzeman diren aldeak ez dira bukatzen arnaguneen bilakaerari buruzkoetan: zentsuko datuen arabera, XX. mendean lurraldean gertatu den lurraldearen erdalduntzeak jarraitu egin du 1991-2011 tartean ere, aurreko hamarkadetan baino polikiago bada ere, eta erdara nagusi den lurralde-eremuaren

---

<sup>367</sup> Bi herrialde horietan, gurean bezala, dentsitate handiko eremuen galera gertatu da (Jones, 2015; Ó Giollagáin et al., 2020). Pentsatzekoa da, nagusitasun-eremuen araberako azterketa eginda, antzeko joerak antzemango zirela han ere.

<sup>368</sup> Nafarroa Garaiko zentsuetako datuen faltan, pentsatzekoa da kopuru hori beste koska bat jaitsiko zela gutxienez 2021rako, urte horretako EAeko zentsuko datuek ageri duten joerari erreparatuta: EAen arnaguneen pisua %4,7tik %3,5era jaitsi da 2011-2021 tartean (ikus T.69. taula).

<sup>369</sup> HEKNren 2021eko datuak argitaratu diren arren, nagusitasun-eremuei buruzko gure adierazlea ezingo dugu eguneratu Hegoalde osoko zentsuetako datuak argitaratu arte. Dena den, argitaratutako datuek erakusten dutenez, euskaldun-dentsitate handieneko udalerrietan jaitsi egin da euskararen kaleko erabilera 2016ko %65,1tik 2021ko %61,9ra (Altuna et al., 2022: 23). Beraz, ziurrena, arnaguneen neurria ere txikitu egingo zen 2016-2021 tartean.

pisuak handitzen jarraitu du<sup>370</sup>. HEKNren arabera, berriz, pisu hori jaitsi egin da, nagusitasun argirik gabeko eremuen mesedetan (azken horien pisua 1991ko %3,2tik 2016ko %5,9ra igo da HEKNren arabera). 18.2.2.3. puntuan azaldutako arrazoiengatik, joera orokorrak marrazterakoan, egiantz handiagoa hartzen diegu HEKNko datuei zentsuetakoei baino. Horien arabera, laburtuz, azken 25 urteotan arnaguneak ahuldu egin dira, baina eutsi egin diete euren pisuari, eta nagusitasunik gabeko eremuek irabazi dute erdararen nagusitasunezko eremuek galdutako apurra (3 puntu inguru).

Iturri horri jarraituz<sup>371</sup>, aldaketa horiek honako logika honi erantzunez gertatu dira: jatorrian arnaguneak ziren lurraldeetan behera egin du erabilerak, erdara nagusi zen lurraldeetan apur bat gora egin du eta gehien tarteko eremuetan egin du gora euskararen erabilerak. Logika horren barruan, erabilera ezberdinak antzematen dira lurraldean. Horren inguruko datu ugari aurkeztu dugu 18. kapituluan. Gutxi batzuk laburtzearren, badirudi, erabileraren bilakaera puntutan neurtuta, euskararen erabilerak gehienbat Gipuzkoan eta bertako eskualde euskaldunagoetako batzuetan egin duela gora (Goierrin, Tolosaldean, Debabarrenan eta Debagoienan), eta, aitzitik, Bizkaiko eskualde euskaldunek bilakaera nabarmen okerragoa izan dutela. Horien artean, bereziki deigarria da Plentzia-Mungia eta Gernika-Bermeo eskualdeetan euskarak izan duen atzerakada. Hiriburuak biltzen dituzten eskualdeak aintzat hartuta, bestalde, Hegoaldeko lauren artea, Bilbo Handiak erakusten du bilakaerarik ahulena. Azkenik, aipatu behar da abiapuntu ahulena zuen Arabak izan duela erlatiboki bilakaera positibo argiena (bikoiztu egin da herrialde horretan euskarak erabileran zuen pisua), eta Nafarroa Garaian erabilerak ez duela aldaketa handirik izan aztertu ditugun 25 urteetan. Ipar Euskal Herrian gertatu da bilakaerarik okerrera euskaren erabileran.

Puntu hau amaitzeko, bilakaera luzeko datuak eta azken hamarkadetakoak uztartuta, esan dezakegu euskara nagusi zen gunearen suntsipen-prozesu bizia garatu zela Hegoaldean XX. mendearen lehen 70 urteetan, frankismo-garaian bereziki, eta hortik aurrera ere gunek horiek, indartzetik urrun, ahultzen jarraitu dutela gaur arte. Horrekin batera, azken 25-30 urteotan, abiapuntuan erdalduenak ziren guneeetan izandako igoera apalak apur bat txikitu du erdararen nagusitasunezko udalerrien pisua, eta nagusitasun argirik gabeko udalerrien pisua handitu. Nahiz eta, oraindik ere, erdararen nagusitasunezko udalerrien pisua oso handia den (bertan bizi ziren 2016an Hegoaldeko hiztunen %89,4).

---

<sup>370</sup> EAEko 2021eko zentsuen bidez erdararen nagusitasunezko udalerrien pisua ez da aldatu 2011-2021 bitartean, nahiz eta horien barruan erdararen nagusitasun handiko eremuek pisua galdu erdararen nagusitasun ez erabatekoen mesedetan (ikus datuak T.69. taulan).

<sup>371</sup> Berez, HEKN-n oinarrituta sortu dugun HEKN-001 adierazleak lurraldean hartzen dituen balioei jarraituta.

## 22.7. TRANSMISIOA ETA SOZIALIZAZIOA: ZENBAIT ERAGILEREN ERAGIN KONTRAJARRIA

### 22.7.1. Familia- eta etxe-giroko transmisioa, indarberritzearen aldeko indargune

Belaunen arteko hizkuntza-transmisioa edo, zentzu zabalagoan, sozializazioa, funtsezko prozesutzat jotzen da hizkuntza gutxituen osasun-egoera neurtzeko orduan, Fishmanek (1991) geroztik. Fishmanek berak landutako BAEN eskalan (2001) eta nazioartean hizkuntzen heriotza-arriskua neurtzeko erabiltzen diren eskaletan toki adierazgarria bete ohi dute transmisioarekin lotutako alderdiek (Lee eta Way, 2018).

Lehen hizkuntzarena dugu, tradizioz, gaia aztertzeko demolinguistikan gehien erabili izan den aldagaia. Hurrei buruzko datu eguneratuena ekarrita, 2021ean Hegoaldeko<sup>372</sup> 5 eta 9 urte bitarteko haurren artean %17,4k euskara izan zuten lehen hizkuntza eta %60,4k gaztelania. Horretaz gain, haurren %16,3k euskara eta gaztelania, biak izan zituzten lehen hizkuntza eta gainerako %5,1ek euskara eta gaztelania ez beste hizkuntzaren bat<sup>373</sup>. Horiexek datuak. Lehen irakurketa: transmisioaren alorrean ere, orain arte ikusi ditugun alderdi (ia) guztietan bezala, handia da gaztelaniaren nagusitasuna eta txikia, erlatiboki, euskarak hartzen duen pisua.

Bigarren irakurketa batean, ordea, datu horiek belaunaldi arteko perspektiban aztertuta, ikuspegia aldatu egiten da. T.186. taulan ikus zitekeen egitateak neurtzen zituzten alderdien artean transmisioari buruzko adierazleak eskaintzen zituela, askogatik, daturik onenak euskararentzat. Atal enpirikoko 19. kapituluan azaldu bezala, datuek argi erakusten dute belaunaldi arteko bilakaera positiboa dela, eta egungo gurasoek euskara gehiago ari direla seme-alabei transmititzen eurek umetan jaso zutena baino. Euskararen indarberritzearen alde doan garrantzi handiko fenomenoak islatzen dute datuek. Ugari dira, gainera, ildo berean doazen datuak, lehen hizkuntzari buruzkoak eta seme-alabekiko eta gurasoekiko erabilera-ohiturei buruzkoak; atal enpirikoan aurkeztu ditugu horietako asko. Gogora ditzagun bakan batzuk: euskaraz erdaraz baino errazago edo bietan berdin moldatzen diren gurasoek ia erabat egiten dute euskaraz seme-alabekin. Eta erdaraz hobeto moldatzen direnen artean ere asko dira euskarari tarte handia eskaintzen diotenak. Esan dezagun, halaber, euskaldunen erabilera xeheari buruzko datuak ikusi ditugunean, seme-alabekiko erabilera gainerako erabilera xehe guztien gainetik azaltzen zitzagula.

Datuok baloratzeko, erabilera orokorraren maila interpretatzerakoan aipatzen genuen ondorio nagusia gogoratuko dugu: euskara asko erabiltzen da dagoen gaitasunaren zorurako. Ondorio hori bera baina indartuta formula dezakegu haur-nerabeekiko erabilerari buruz eta familiako transmisioak gurean duen norabide nagusia erakusteko: gurasoen gaitasunezko zorua aintzat hartuta, euskara asko erabiltzen dute Euskal

---

<sup>372</sup> Hegoaldeko datuak sortzeko, EAEko 2021eko zentsuetako datuak eta Nafarroa Garaiko 2011koak batu ditugu. Herrialde horretako 2021eko zentsuko datuak argitaratutakoan, kopuru horiek berriro egin beharko dira.

<sup>373</sup> Ehunera iristeko falta den %0,8 informaziorik ez dugun erregistroek osatzen dute.

Herriko gurasoek seme-alabekin, erosotasun hutsak eragingo zukeen baino neurri askoz handiagoan. Azken batean, euskara hurrengo belaunaldiari transmititzeko nahi argia erakusten dute alor enpirikoan aurkeztu ditugun datu ugariak. Erantsi dezagun irakurketa hau bat datorrela bai gaiaren inguruan berariaz Euskal Herrian egin diren ikerketa demolinguistikoekin (Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, 2008; SIADECO, 2021), baita gaia zeharka landu duten hainbat lan adierazgarriekin ere. Azken horien arteko bi aipatuko ditugu. Lehenik, haurrekin euskarara gainerakoekin baino gehiago jotzeko joera ageri dela, eta zeharka, euskara transmititzeko nahia islatzen duela HEKNk azken edizioetan sistematikoki jaso izan duen errealitateak: hiztun helduek askoz ere gehiago jotzen dute euskarara tartean haurrak daudenean haurrik ez dagoenean baino (Altuna et al., 2012; Soziolinguistika Klusterra, 2017; Altuna et al., 2022). Norabide berean doan azken lan aipagarri bat gehiago aipatuko dugu, hiztun berrien errealitatean sakontzen duenez, interes berezia izan dezakeena. *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak* lanean argi islatzen da hiztun berriek, norbaitekin euskaraz egitekotan, alde handiarekin gainera, euren seme-alabekin egiten dutela (Ortega et al., 2016: 223). Hori da, bestalde, oraindik seme-alabarik ez duten hiztun berrien nahia ere (Ortega et al., 2016: 231).

Laburtuz, bada, gaitasuna eta erosotasuna kontuan hartuta, handia da seme-alabekiko harremanetan Euskal Herriko gurasoek euskarari ematen dioten pisua. Irudi luke, soziolinguistikako teorikoek transmisioari ematen dioten garrantzi estrategikoaz jakitun balira bezala, euskal gurasoek prozesu horretan jartzen dituztela bereziki euren indarrak. Alderdi horrek, jakina, zerikusia du motibazioen puntuan esandakoarekin. Izan ere, Jon Sarasuak dioen bezala, “euskaltasuna hurrengo belaunaldiei pasatzea ‘ura eskutik eskura’ pasatzea bezalako ariketa prekariora da. Ariketa prekariora horrek bihotza dardaratzen digu” (2013: 40).

Portaera hori indargune argia da gure errealitate soziolinguistikoan, eta euskaldunon kasua ez oso arrunta munduko hizkuntza gutxituen artean. Gaiaren inguruko literaturari (Manterola et al., 2011; Juaristi, 2020) eta atal enpirikoan beste herrialde batzuekin egin dugun alderaketari erreparatuta, esan dezakegu hizkuntza gutxituen gainerako komunitate gehienetako gurasoen bulkada baino dezente sendoagoa dela guraso euskaldunek euren hizkuntza gutxitua transmititzeko dutena.

Bestalde, zerikusirik ez dute egungo euskal gurasoen portaerak eta bilakaera historiko luzeaz aritu garenean Bilboko guraso euskaldunengan 1920 inguruan antzeman dugun portaerak. Orduan, guraso euskaldun gehienek, baita erdaraz gaizki moldatzen zirenek ere, ahalegin bereziak egiten zituzten seme-alabak erdaldun hazteko; gaur egun, guraso euskaldunak, erdaraz hobeto moldatzen direnetariko asko barne, seme-alabak euskaraz hazten saiatzen dira. Egoera irauli egin da. Ordezkatze-joeraren adibide prototipikoa da 1920an Bilbon irudikatu duguna, guraso euskaldun askok jarrera hori hartu zuten-eta XIX. mende bukaerako eta XX. mendearen bi lehen herenetan; indarberritu nahi duen komunitate bati dagokion portaera, bizirik jarraitu nahi duen komunitate batena da egungo guraso euskaldun gehienek erakusten dutena. Orduko errealitatearen eta oraingoaren artean gertatu den irulketa funtsezko gertaera izan da gure historia soziolinguistikoan, lehenago ere esan dugu hori.

Etxeko eta familia-giroko transmisioari buruzko datuak eta egungo gurasoek transmisioaren alde egiten duten bulkada dira euskararen egoeraz eskainiko ditugun egitatezko datu guztien arteko positiboenetako batzuk, positiboenak ez badira: indargune argi bat gure minorizazio-egoera gorrian. Behin hori argi adierazita, esan beharra dago transmisio horretan ere oro ez dela urre. Hasteko, gogora dezagun oraindik ere haurren gutxiengo txiki bat dela etxean euskara soilik (%17,4) edo gaztelaniarekin batera (%16,3) jasotzen duena; eta gogora dezagun, halaber, azken urteetan eten egin dela haurren lehen hizkuntzan euskarak izan duen pisuan lehenagotik zetorren hazkunde-joera. Eta erantsi diezaiegun kopuru horiei guztiak ñabardura kualitatiboago bat: gurasoen profila ezagututa (asko erdal elebidunak), eurretan ez gutxiaren praktika ezagututa (seme-alabekin euskaraz baina gainontzekoekin askotan erdaraz), eta familiak bizi diren testuinguru orokorra ezagututa (gehienak erdara nagusi den eremuetan bizi dira), pentsa daiteke transmisio hori bete-betea izatek urruti egongo dela, transmititzen den hizkuntzaren aberastasunari, adierazkortasunari eta erabilera-ohiturei dagokienez bederen<sup>374</sup>.

### 22.7.2. Gainerako eragile sozializataileen eraginaz

Familien ezaugarri soziolinguistikoek eta euren transmisioaren inguruko portaerek ez ezik, familiaz kanpoko faktoreek ere eragingo dute transmisio-ahalegin horren arrakastan (Kasares, 2014). Atal teorikoan azaldu dugu, Veltman (1983a) eta Zalbideren (2016) eskutik, gauza bat dela familiek etxean egiten duten ahalegina eta beste bat, eragile sozializataile guztien eragina kontuan hartuta, zer-nolako arrakasta erdiesten den hizkuntzaren jarraipenean. Horrela, hizkuntzaren transmisio-prozesuaren eraginkortasuna neurtzeko, zuzenean H1en datuetan oinarritzea baino, bestelako irizpide bat proposatzen du Zalbidek: haurrak hazteko adinean dauden belaunaldien erabilera alderatzea (2016: 33):

Ama-hizkuntzaren etxeko transmisioak belaunez belauneko jarraipenik izan duen jakiteko, hortaz, "A" belaunaldi heldua (demagun 35 bat urtekoa, haur-haztekoa) eta haien hurrengo "A+1" belaunaldia (orobat 35 bat urtekoa, haur-haztekoa) konparatu behar izaten dira, "Benetan zenbatekoa den" neurtu behar da hor, ez etxeko lehen urteetako L1-saioaren argitan "zenbatekoa izan zitekeen".

Euskal demolinguistikak hurrengo urteetan heldu beharko lioke ikuspegi hori datuekin lantzeari. Oraingoan, ordea, ISLk eta HZk 25 urteko denbora-seriea eskaintzen dute gaiaren inguruan (1991-2016 bitartekoa), eta goiztxo izan daiteke Zalbideren ikuspegia gurean enpirikoki lantzeko. Garaiz gaude, ordea, teoria-alorretik familiarekin batera zer-nolako eragile sozializataileak aipatu izan diren gogoratzeko eta horien eragin posibleaz gogoeta egiteko datu demolinguistikoetan oinarrituta. Izan ere, haurren sozializazio-prozesuan ez du, jakina, familiak eta etxeko giroak soilik eragiten. Fishmanen ikuspegian horrek bezainbesteko pisua izango du komunitateak (auzo-, kale- eta lagun-giroak). Horretaz gain, beste ikuspegi teoriko batzuek, Euromosaic-en landu zenak adibidez (Nelde, 1996), eskolaren eragina ere aintzat hartzea eskatuko dute, eta baita, aurreko eragileen garrantzi bera ematen ez zaion arren, hedabideen

---

<sup>374</sup> Aipatu beharra dago, halaber, euskaraz hain erraz moldatzen ez diren gurasoek, euren ahalegin sozializataile euskaltzalean, gaitasun-transmisioa askotan nola halakoa izango bada ere, euskaraz bizi nahia eta euskara elementu garrantzitsua izatearen sentimena ere transmitituko dutela, eta horrek ere baduela bere garrantzia.

eragina ere. Ikus dezagun banan-banan zer-nolako eragina izan dezaketen eragile horiek gure haurren sozializazio-prozesuan.

### **22.7.3. Komunitatearen funtsezko eragina (gehienetan, erdalduntzearen aldekoa)**

Familiarekin batera, komunitatea da (kalea, auzoa eta lagun-giroa) Fihisman eta Zalbideren ikuspegiaren hizkuntza gutxituaren transmisioa gauza dadin eragile nagusia. Ingurune horietan gauzatzen diren harreman informaletan, adinkideekiko harremanetan bereziki, sendotzen dira edo galtzen dira etxetik ekarritako erabilerak ohiturak (2016: 127):

Seme-alabei euskara L1 moduan (...) erakustea ez da aski; D edo B ereduko eskola ere ez: etxean eta eskolan ikasten den hori etxetik eta eskolatik kanpora erabili egin behar du umeak, gazteak edota helduak, euskal familia eratu eta haurrak izan arte. Ziklo hori burutu arte ez dago belaez belaezko transmisio beterik. Etxean eta eskolan ikasitakoa auzoan, kalean, aisialdian, lagunarte hurbilean (eta gero, lan esparruan) zapuztu egiten bada, etxeko eta eskolako saio gogotsu hori ahul gertatzen da hizkuntza-erabileraren belaez belaezko jarraipena bermatzeko. Jarraipen hori gabe, berriz, hiztun-elkarteak ez du etorkizunik.

Zer-nolako kale-giroan, zer-nolako testuingurutan hazten dira Euskal Herriko haur-nerabe-gazteak? Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, egungo Euskal Herrian hiztun gehien-gehienak kale-giroan euskara oso ahul dagoen eremuetan bizi dira: %4,7 besterik ez da bizi euskara nagusi den eremuetan, arnasguneetan, eta beste %5,9 bat nagusitasun argirik gabeko eremuetan, euskara-erdaren erabilerak pisu pareko samarra duen udalerrietan bizi dira. Haur, nerabe eta gazteen banaketa bat etorriko da gutxi-asko banaketa orokor horrekin, eta horiek horrela, haur-nerabe-gazte gehien-gehienak, hamarretik bederatzi, erdara nagusi den testuinguruetan haziko dira. Alderdi hori oztopo argia da euskararen jarraipena ziurtatzeari begira, komunitateko testuinguruak gehienetan gehiago bultzatuko baitu haur, gazte eta nerabeak erdalduntzera horiek euskalduntzera baino, bai hizkuntzen gaitasunaren ikuspegitik eta baita erabilerarenetik begiratuta ere. Kasurik gehienetan, etxean jaso duten hizkuntzarekin, erdararekin, bat egingo du kaleak. Erdara nagusi den eremu horietan etxean euskara jaso duten haur, nerabe eta gazteek, berriz, salbuespenak salbuespen, erdaraz egingo dituzte kaleko, auzoko eta adinkideekiko harremanak, adin batetik aurrera batez ere. Eta horrek, jakina, euren gaitasun-erabilerak erdal nagusitasunera bultzatuko ditu eta oztopatu egingo du euren euskal gaitasuna sendotzea.

Gehienetan, beraz, erdara sendotzearen aldekoa izango da kaleak eta lagun-giroak izango duen eragin sozializatzaile nagusia. Ez da hori gertatuko arnasguneetan: euskara nagusi den eremuetan kaleak sendotu egingo du jatorriz euskaldunak diren haur, nerabe eta gazteen sozializazio-prozesu euskalduna, eta euskarara erakarriko ditu etxean euskararik jaso ez zuten haur, nerabe eta gazteak ere<sup>375</sup>. Horri buruzko informazio aipagarria irakur daiteke, adibidez, *Arrue* ikerketaren azken argitalpenean (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2019: 89, 91): EAEko 14 urte inguruko nerabeen

---

<sup>375</sup> Testuinguru euskaldunenetan, jatorriz euskara ez dakitenentzat, kalea eremu garrantzitsua da gaur egun ere hizkuntza ikasteko orduan (Ortega et al., 2016: 206).

euskararen erabilera, bai etxeko erabilera eta baita jolasgaraian lagunekin egiten dutena ere, nerabe horiek lau urte lehenago 10 urte zituztenean baino handiagoa da arnaguneetan<sup>376</sup>. Euskara nagusi ez den eremuetan, ordea, aurkako joera antzematen da: euskararen erabilerak atzera egiten du gogor 10-14 urteen artean, eta atzerakada hori handiagoa da erlatiboki zenbat eta ingurune erdaldunagoa izan. Kale-eta auzo-giro horren eragina, hortaz, agerikoa da; indar handiko eragilea da belaunaldi berrien sozializazio-prozesuan<sup>377</sup>. Eta eragin hori gaur eta hemen, arnaguneen pisua hain txikia izanik, erdararen aldekoa eta euskararen aurkakoa da nagusiki hiztun gehienak bizi diren testuinguruetan.

#### 22.7.4. Eskola ere indarberritzearen aldeko eragile

Familiarekin eta komunitatearekin batera, eskola aipatzen dute eragile sozializatzailer nagusi gisa adituek, nahiz eta ikuspegi teorikoaren arabera aldatu egiten den hirugarren eragile horri eman beharreko garrantzia. Gure kasuan, badirudi askotariko eragina izan ohi duela eskola-esperientziak ikasleengan, bai eskolaz kanpoko aldagaien arabera, ikaslearen familiaren eta familia bizi den testuinguru soziolinguistikoaren arabera adibidez, eta baita eskolari berari dagozkion aldagaien arabera ere: ikastereduaren, irakasleen prestakuntza eta jarreraren, eta abarren arabera aldatu egingo da eskolaren eragin sozializatzailer. Gaiaren konplexutasuna zenbaterainokoa den antzemateko aski da lehenago ere aipatu dugun *Arrue* txostenetako informazio ugaria aztertzea (Martínez de Luna et al., 2013; Martínez de Luna et al., 2015; Martínez de Luna eta Suberbiola, 2018; Martínez de Luna eta Suberbiola, 2020). Landu daitekeen kasuistika zabala xehetzen hasi gabe, eman ditzagun bi ideia orokor azken hamarraldiotan hizkuntza-sozializazioan eskolak jokatu duen paperari buruz.

Batetik, agerikoa da eskolak ekarpen handia egin duela jatorriz euskaldunak ez ziren hiztunei euskarazko gutxieneko gaitasun bat emateko (ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko trebetasunak). Oro har, eskola izan da familia erdaldunetako haurrak euskarara hurbiltzeko bide nagusia, nagusitasun-eremu erdaldunetan bizi diren familia erdaldunetako haurrentzat gehienbat: nagusiki eskolan ikasi dute dakiten euskara eta inon lantzekotan, eskolan landu dute haietako batzuek erabilera.

Belaunaldi berriek euskararen ezagutzan egin duten gorakada eta aurreko belaunaldietako egoerarekin alderatuta horrek ekarri duen aurrerapena ez daitezke ulertu eskolak egindako funtsezko ekarpena aintzat hartu gabe. Ekarpen horretan, arrakasta ezberdina izan dute A, B eta D ereduak. Azken horrek lortu izan ditu, ikasleen euskalduntzeari dagokionez, emaitzarik onenak, nahiz eta arrakasta betetik urruti egon gaia ikertu duten lanen arabera (Egaña et al., 2005; Egaña et al., 2007). D

---

<sup>376</sup> Berez, *Arrue* ez ditu datuak nagusitasun-eremuka aurkezten, eremu soziolinguistikoka baizik. Guk euskaldunen dentsitatea %80tik gorakoa duten datuei erreparatu diegu arnaguneen errealitateaz aritzeko. Ezaugarri horretako udalerrietan euskararen erabilera igo egiten da haur izatetik nerabe izaterako jauzian, 10 urte izatetik 14 izatera pasatzen direnean: tasa esleituekin lan eginda, %69,0tik %77,2ra igo zen etxeko erabilera eta %85,0tik %90,9ra lagunekikoa jolasgaraian.

<sup>377</sup> Paula Kasaresen azterketak ere (2014: 335) eremu horren garrantzia azpimarratzen du, euskaraz eskolatzen diren Irurita eta Iruñeko haurren adinkideekin zein hizkuntza erabiltzen den alderatzen duenean: etxean erdaraz aritzen diren Iruritako haurrek gehiago jotzen dute euskarara kaleak eraginda, Iruñean etxean euskaraz aritzen direnek baino.

eredua ikasleak irabazten joan da urtez urte, eta 2021-2022ko haur hezkuntzako datuen arabera, Euskal Herri osoko sei urte arteko haurren %66,6k murgiltze ereduan edo D ereduan matrikulatu ziren, %14,4 B eredu elebidunean eta %18,9 A ereduan edo euskara irakasgai gisa ere hartzen ez duten ereduetan (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2022). Datu horiek, jakina, asko aldatzen dira administrazio-eremuak eta zonaldeak kontuan hartuta: D eredukoak %82,4ra iristen dira EAEko haur hezkuntzako ikasleen artean, %28,5 dira Nafarroa Garaiko artean eta %11,2 Ipar Euskal Herriko artean. Argazki orokorrak ageri duenez, beraz, Euskal Herriko haur txikiak bi herenek murgiltze-ereduan ikasten dute gaur egun. Kopuru handi hori beste faktore batzuei ere zor zaien arren, badu zerikusirik guraso askok euren seme-alabek euskara ikas dezaten duten nahiarekin (Amorrortu eta Ortega, 2009; Erize, 2016: 140). Lehen aipatu dugun bulkadaren beste adierazle bat litzateke, euskaraz ez dakiten gurasoen multzora ere zabalduko litzatekeena.

Aipatu nahi dugun bigarren ideia nagusia hau da: eskolak zailtasun nabarmenena duela euskara nagusi ez den eremuetan euskaraz biziko diren hiztunak eta euskaraz erdaraz baino errazago arituko diren nagusitasunezko euskal hiztunak ekoizteko. Izan ere, haurrak hezten dituen egitura formalaz gain, adinkideekiko harreman informaletarako gunea ere bada eskola. Hori ere kontuan hartuta, eskolaren eragina askotarikoagoa izango da eta aldatu egingo da nagusitasun-eremuen arabera eta ikastetxe bakoitzean eta ikastalde bakoitzean biltzen diren ikasleen jatorrizko profil soziolinguistikoaren arabera. Kasuistika zabala dugu hor ere, eta ikasle multzo baten erabilera zer arrazoiri zor zaion aztertzerakoan, eztabaidagarria izango da eragin horren zein zati zor zaion eskolari eta zein zati testuinguru sozio-familiar zabalagoari.

Eskolaren inpaktua zein izan daitekeen irudikatzeko, informazio baliotsua eskaintzen digu *Arrue* ikerketak (Martínez de Luna eta Suberbiola, 2019, 2020a, 2020b). Iturri horretako datuak aztertuta, badirudi eskolak euskal gaitasunean aurreratzeaz gain, haurren jardunean euskalduntze ohargarria lortzen duela 10 urte inguruko haurren artean, baina ez duela lortzen haur horiek nerabe bihurtu ahala euskarari eusten jarraitzea. Alderantziz, nerabe garaira iritsitakoan oso behera egiten du erabilerak, lehenago ere aipatu dugun bezala. Esaten ari gara oinarritzeko, 2017 urtean DBHko 2. mailan dauden EAEko 14 urte inguruko nerabeei erabileran bizi izandako prozesua aztertuko dugu labur. Nerabe horiek haur txikiak zirela etxean jaso zuten lehen hizkuntzan %28,5eko pisua izan zuen euskarak (tasa esleituen formula aplikatuta). 10 urte zituztenerako, euren etxeko erabilera kopuru horren inguruan ia aldaketarik gabe (%27,8) kokatzen zen, eta eskola-giroko euskararen erabilera, berriz, jatorrizko kopuru hori baino dezente gorago azaltzen zitzaigun: %59,0koa zen eskola-giroko erabileran euskarak zuen pisua, *Arruen* kalkulatuak duten adierazle sintetikoaren arabera. Erabilera horren barruan, interes berezia du adinkideekiko harreman informalean erabilera zenbatekoa zen jakiteak: %40,2koa zen euskarak jolasgaraian ikaskideekiko harremanetan hartzen zuen pisua, eskolako beste eremu formalagoen mailatik dezente beherago, baina jatorrizko lehen hizkuntzan eta inkesta egin zen garaian etxeko erabileran euskarak zuen pisuaren gainetik argi eta garbi. Pentsa daiteke lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren mailatik lagunarteko mailara dagoen 12 puntu inguruko koska positibo hori eskolaren eraginari zor zaiola neurri handi batean, kontuan hartzen badugu landuko ditugun beste bi eragile sozializatzaile nagusiek,



komunitateak eta hedabideen munduak, gehiago egingo zutela orokorrean erdararen alde euskararen alde baino.

Gauzak, hala ere, dezente aldatzen dira 10 urte inguruko haur horiek 14 urte inguruko nerabe izatera iritsitakoan. EA Erako *Arruek* eskaintzen dizkigun datuekin jarraituta, ikasleak DBH2ra iritsitakoan, euskararen erabilerak atzera egiten du indarrez alor guztietan. Hasteko, etxeko erabileran euskararen pisua %21,0ean kokatzen da, jatorriz eta 10 urte inguru zituztenean etxean egiten zuten erabileratik dezente behera: adin horretan inoiz baino euskara gutxiago erabiltzen dute nerabeok etxean (7 puntu inguruko galera). Jaitsiera are indartsuagoa da eskola-munduan: eskola-giroa orokorrean hartuta, lau urte lehenagoko %59,0tik %40,7ra jaisten da euskararen pisua; eta jolaslekuko erabilera informalean erlatiboki are handiagoa da galera: ia erdira jaisten da 4 urtetan euskararen pisua, %40,2tik %21,8ra. Aipagarria da azken kopuru horrek erakusten duela, lau urte lehenagoko erabileraren oso azpitik ez ezik, etxean ume txikiak zirela jaso zuten lehen hizkuntzaren erreferentziaren azpitik gelditzen dela nerabeon euskararen erabilera alor informal horretan. Ezin esan daiteke 10 eta 14 urte bitarteko erabileraren jaitsiera handi horren erantzule bakarra edo nagusia eskola denik; jaitsiera hori gehiago izango da ikasle gehien-gehienek orokorrean bizi duten testuinguru erdaldunaren eraginez, jaitsiera hori ez baita gertatzen euskara kalean nagusi den testuinguruetan. Hala eta guztiz, jaitsiera hori bada eskolak eragile sozializatzaile gisa dituen muga erakusgarri. Beste alor askotan bezala, horretan ere badago zer ikertua eragileen arteko elkarreraginaren inguruan.

#### **22.7.5. Hedabideak eta kultur kontsumoa: ia erabat erdaraz kontsumitzen den mundu hazkor hori**

Euromosaic-en aipatzen zaigun laugarren eragile sozializatzaileari helduta, asko luzatu gabe, zalantza handirik ez dago egun nolako eskaintza dagoen ikusita, orokorrean erdararen alde eta euskararen aurka jokatzeko duela hedabideen, ikus-entzunezkoen eta kultur kontsumoaren munduak. Erabileraz aritu garenean azaldu dugun bezala, handia da alor horretan erdararen alde eta euskararen aurka dagoen desoreka, aztertu ditugun gainerako eremu guztietan baino nabarmen handiagoa. Mundu zabal horren eragin erdaltzalea, gainera, testuinguru guztietara iristen da, baita gainerako eragile sozializatzaileek (familiak, komunitateak eta eskolak) orokorrean euskararen alde eragiten duten arnaseguneetara eta udalerrir euskaldunetara ere. Udalerrir Euskaldunen Mankomunitateak argitaratu berri duen ikerketa baten arabera, udalerrir euskaldunetako haur, nerabe eta gazteek, euren bizitzaren alor nagusietan, hala nola eskolan, etxean edo lagunartean, nagusiki euskaraz bizi diren horiek (batez beste %70etik gora egiten dute euskaraz alor horietan guztietan tasa esleituak erabilita), erdaraz egiten dute euren kultur eta ikus-entzunezkoen kontsumoaren zatirik handiena. Hiru datu besterik ez dugu hautatu txosten mamitsu horretan biltzen diren ehunka datuetatik. Lehenengoa: azken telesaila gaztelaniaz ikusi zuten inkestak %73,2k; euskaraz %10,6k eta beste hizkuntzetan %12,0k. Bigarren datua: youtubeko edukiak nagusiki gaztelaniaz ikusten dituzte %70,5ek, euskaraz %9,4k eta beste hizkuntzetan %12,8k. Hirugarren eta azken datua: musika nagusiki gaztelaniaz entzuten dute udalerrir euskaldunetako haur, nerabe eta gazteen %49,5ek, euskaraz %25,8k eta beste hizkuntza batean %24,8k (UEMA -Udalerrir euskaldunen mankomunitatea-, 2022: 25, 34, 46). Udalerrir euskaldunetako haur, nerabe eta gazteak ez ezik, gainerako eremuetan bizi direnak ere kontuan hartuta, jakina, askoz txikiagoa da hedabideetan

eta kultur -kontsumoan euskarak hartzen duen pisua, erabileraz aritu garenean ikusi ahal izan dugun bezala.

Aipatzen ari garen alorrean euskarak hain toki txikia izateak euskararen egoera orokorrean eta indarberritze-prozesuan zer-nolako garrantzia duen esateko garaian, ikuspegi guztiek ez dute berdin ikusten. Atal teorikoan landu ditugun bi ikuspegi teorikoak, zehazki, ez datoz bat honetan. Lan honetan askotan aipatu ditugun eta guretzat erreferentziazkoak diren bi soziolinguistek, adibidez, Mikel Zalbidek eta Xavier Vilak, ikuspegi ezberdina dute gaiaren inguruan: Zalbideren iritziz, hedabideek eta telebistek paper garrantzitsua izan zuten 1960 eta 1970eko hamarkadetan, adibidez, euskal giroko familien artean erdara hedatu zedin (Zalbide, 2010a: 21); hala ere, transmisioari begira ingurune berri horiek baino askoz ere garrantzi handiagoa izaten jarraitzen dute aurrez aurreko harremanek (Zalbide, 2019b: 169); Vilaren iritziz, berriz, sekulako garrantzia dute, eta telebistari buruz ari dela, hizkuntza gutxituko hiztunen artean hizkuntza menderatzailea eta haren erregistro ugariak hedatzeko orduan berebiziko garrantzia duela azaltzen du (2012: 19). Txepetx ere bigarren ikuspegi horretan kokatuko genuke, hedabideei orokorrean eta telebistari zehazki garrantzi handia ematen diotenen artean (Sánchez Carrión, 1991: 40). Gure iritziz, eta aurrez aurreko harremanen lehentasuna ukatu gabe, esposizio-ordu kopuruaren handiagatik eta bitarteko horiek guztiek eredu sozial, kultural eta linguistikoak hedatzeko duten ahalmenagatik, hedabideek, ikus-entzunezkoek eta kultur kontsumoak eragin erdaltzale argia eta orokortua zabaltzen dute gaur egungo Euskal Herrian.

#### **22.7.6. Eragile guztien eragin konbinatua: belaunaldi berriak euskaldunago datoz**

Aipatu ditugun lau eragile sozializataileetako bakoitzaren eragina asko laburtuz, esan dezakegu eragin orokorrean positiboa dutela eskolak eta familiak, euskararen jarraipenaren aldekoa. Ñabardura eta muga ugarirekin bada ere, orokorrean euskararen gaitasuna eta erabilera garatzearen aldeko eragin positiboa argia du eskolak gaur egun. Familien transmisioan gaztelaniak/frantsesak askoz toki handiagoa hartzen duen arren euskarak baino, belaunaldi arteko perspektiban ikusita eta berez gizartean euskarak duen pisuarekin alderatuta, euskararen transmisioaren aldeko eragina dauka, orokorrean, familiak eta etxeko giroak. Beste bi eragileek, ordea, eragin negatiboa daukate orokorrean: haur, nerabe eta gazte gehienak bizi diren testuinguru demolinguistikoak erdararen alde eragiten du gogor; gutxi batzuk bizi diren testuinguruak euskararen aldeko eragin indartsua duen arren, ikuspegi orokor batetik begiratuta, desoreka handia da erdarazkoen alde. Hedabideen, ikus-entzunezkoen eta kultur kontsumoaren munduak, azkenik, modu orokortuan egiten du belaunaldi berriak erdaratzearen alde eta euskalduntzearen aurka.

Zer-nolakoa ote da eragile horien guztien inpaktu globala? Belaunaldi batek jaso duen input sozializatailearen eragin orokorra belaunaldi horrek bi hizkuntzetan duen gaitasunak eta erabilerak emango luke. Horrek emango liguke ahalegin sozializatailearen arrakastaren neurria, eta modua emango liguke garai batzuetako eta besteetako prozesu sozializataileen arrakasta alderatzeko. Horretarako, 15-24 urteko gazteen adin-taldea hartu eta 1991ko errealitatea 2016koarekin alderatuko dugu, eskura ditugun iturri nagusietara jota:

- ISLren arabera, gaitasunari dagokionez, 16-24 urteko gazteen arteko euskal nagusitasunezko hiztunak %4,4tik %13,2ra igo dira 1991tik 2016ra; euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua, berriz, %22,5etik %55,4ra. Eta aurrez aurreko harremanetako erabileran euskarak duen pisua 1991ko %10,2tik 2016ko %21,6ra igo da. Eragile sozializatzaileek euskararen alde egiten duten eragin orokorra, beraz, dezente hobetu da, ISLko datuen arabera 1991-2016 artean.
- Gainerako iturriek bilakaera apalagoa erakusten digute (lehenago ere aritu gara horretaz): HEKNren arabera, kaleko erabilera 1991ko %9,3tik 2021eko %12,5ra igo da 15-24 gazteen artean, eta etxeko erabilera 1991ko %14,1etik 2016ko %18,6ra, Hegoaldeko zentsuen arabera.

Iturri guztiek baieztatzen dute eraginkorragoa izan dela 2016ko gazteen multzoak jaso duen prozesu sozializatzailea 25 urte lehenagokoak jaso zuena baino<sup>378</sup>, nahiz eta aldaketa positibo horren intentsitatean iturriak bat ez etorri. Bilakaera positibo horrek ez du esan nahi, jakina, eragile guztien eragina (familia, kalea, eskola, hedabideak) positiboa izan denik; baina bai eragile guztien elkarreragin gurutzatuaren azken saldoa 25 urte lehenagokoa baino hobea izan dela. Zehatzago esanda: esan dezakegu 1992-2001 tartean jaio zen belaunaldiak prozesu sozializatzaile arrakastatsuagoa/euskaldunagoa izan duela 25 urte lehenago, 1967-1976 artean, jaiotakoak baino.

2016ko gazteen datuek ez dute adierazten, jakina -gogoratu Veltman (1983a) eta Zalbideren (2016) perspektiba-, belaunaldi horien gaitasunak eta erabilerak bere horretan jarraituko dutenik euren bizitza osoan. Izan ere, aldaketak gertatu ohi dira hiztunen gaitasunean eta erabileran euren bizialdian zehar, berehala ikusiko dugun bezala.

## **22.8. HIZKUNTZA-BILAKAERA: ESKAILERA MEKANIKOAREN INDARRAK IRABAZTEN DUENEAN**

### **22.8.1. Hizkuntza-bilakaera: Euskal Herrian bizitzeak erdaldundu egiten du**

Atal teorikoan azaldu bezala, hiztunen hainbat ezaugarri, bereziki hizkuntza-gaitasuna eta erabilera, aldatu egin daitezke bizitzan zehar. Hizkuntza-bilakaerak aldaketa-fenomeno horiek ditu ikergai. Berez, bizitza osoko aldaketa-prozesuak aztertu ahal dira; horixe bera egin dugu, adibidez, aurreko puntuan EAEko nerabeek 10 urte zituztenetik 14 urte zituztenerako tartean erabileran izan dituzten aldaketak aztertu ditugunean. Dena den, demolinguistikan ohikoena izaten da bizitzako lehen urteetako abiapuntua, hots, lehen hizkuntza hartzea eta inkesta edo zentsua egin den garaiko gaitasun- eta erabilera-mailarekin alderatzea. Alderaketa horretatik, ordezkapen-

---

<sup>378</sup> Pentsa daiteke bilakaera are hobea izango litzatekeela Euskal Herrian sozializatu diren gazteak soilik aztertuko bagenitu, azterketatik at utzita Euskal Herrian sozializatu eta ondoren kanpora jo dutenak eta Euskal Herritik kanpo sozializatu eta ondoren gurera etorri direnak. Tamalez, gaur egun ezinezkoa zaigu datuak hain xehe aztertzea.

prozesuei buruzko informazioa eta hizkuntzen bizi-indarrari buruzko indizeak atera ohi dira.

Euskal Herrian hizkuntzaren bilakaera-prozesuak gaztelaniaren/frantsesaren alde eta euskararen aurka egiten du oro har. Gaitasunezko hizkuntza-bilakaera aztertuta, ia ez dago galerarik jatorriz erdaldunak direnen multzoan. Lehen hizkuntza gaztelania/frantsesa izan eta 2016an Euskal Herrian bizi diren hiztunen artean inork ez du txikitan ikasitako hizkuntza hori ahaztu (%0), ia guztiek eusten diote hizkuntza horren nagusitasunari (hizkuntza horretan egiten dute errazen lehen hizkuntza gaztelania/frantsesa izandakoen %97,8k), eta are gehiago, gehien-gehienek, %87,1ek, ez dute “beste” hizkuntza jakin ere egiten (euskara kasu honetan), ondo edo nahiko ondo hitz egiteko moduan behintzat. Jatorriz euskaldunak diren hiztunen errealitatea oso da bestelakoa: txikitan euskaraz hazitakoen arteko multzo txiki baina esanguratsu batek, %5,6k, ahaztu egin du euskaraz hitz egiten; erdiek baino gehiagok (%55,4k) galdu egin dute euskal nagusitasuna, dagoeneko ez dira euskaraz beste hizkuntzan baino errazago mintzatzen, eta ia guztiek, %99,6k ikasi dute “beste” hizkuntzan ondo edo nahiko ondo hitz egiten, gaztelaniaz/frantsesez kasu honetan. Alderaketa edozein modutan eginda ere, saldoa nabarmen da gaztelaniaren/frantsesaren aldekoa eta euskararen aurkakoa gaitasunezko hizkuntza-bilakaeran.

Erabilera ere antzeko joera antzematen da. Labur esanda, batez beste hiztunek haur txikiak zirenean baino euskara gutxiago eta erdara gehiago erabiltzen dute etxean gaur egun, inkesta edo zentsua egin izan den urtean. Hegoaldean, zehazki, eta 2011ko zentsuko datuen arabera, alderaketa denbora osoko hiztunen bidez eginda, euskarak 88.356 hiztun galdu ditu egungo erabilera- eta haur txiki garaikoa alderatuta. Gaztelaniak, berriz, 134.025 hiztun irabazi ditu, jatorriz euskaldun zirenak erakarrita batez ere, eta jatorriz beste hizkuntza batzuetako hiztunak erakarrita ere bai. Gaztelaniak hobeto eusten die jatorrizko hiztunei, euskarak okerrago; gaztelaniak indar handiagoz erakartzen ditu jatorriz hizkuntza horretako hiztunak ez zirenak, eta euskarak erakarpen-indar gutxiago ageri du. Erabilera-zko hizkuntza-bilakaeran ere, hortaz, saldoa gaztelaniaren/frantsesaren aldekoa eta euskararen aurkakoa da nabarmen.

Laburtuz, hiztunek euren lehen urteetatik gaur arte izan dituzten hizkuntzaren-bilakaera-prozesuak askotarikoak izan badira ere, Euskal Herrian bizi garen hiztun guztion multzoa aintzat hartuta, erdalduntzea askoz indartsuagoa izan da euskalduntzea baino. Horrek gaitasun-mailari zein erabilera-mailari eragiten dio. Bi kasuetan erdararen aldeko eta euskaren aurkako ordezkapen garbia gertatzen da, jatorriz euskalduna zen komunitateko zati adierazgarri baten bestelakotzea, erdalduntzea, asimiliazioa Castonguayen terminologia erabilita (1994: 88). Euskal hiztun-komunitateak ere erakartzen ditu jatorriz euskaldunak ez zirenen arteko dozenaka milaka hiztun batzuk, baina euskarara erakarritako hiztun berrien masak ez du konpentsatzen kuantitatiboki aurkako noranzkoan galdutakoen kopurua. Errealitate hori esaldi bakarrean bilduz, esan dezakegu bizitzak erdaldundu egiten duela gaur egun Euskal Herrian.

Bateragarriak al dira hizkuntza-bilakaeraz esaten ari garen hau guztia alde batetik, hots, bizitzan zehar hiztunek euren hizkuntza-gaitasuna eta erabilera-maila erdaldundu

egiten dituztela eta, bestetik, belaunaldi arteko perspektiban transmisioaz lehenago esandakoak, hots, gaur egungo gurasoak amets euskaltzaleak eraginda eurek etxean jaso zuten baino euskara gehiago ematen ari direla seme-alabei? Bai, bateragarriak dira, bi indar dira kontrako noranzkoan tiraka: transmisioak euskara indartzearen alde eta hizkuntza-bilakaerak berriz euskara ahultzearen alde<sup>379</sup>.

### **22.8.2. Errealitatea ez da berri-berria, euskal demolinguistikak ahaztu antzean eduki badu ere**

Hizkuntzaren bilakaera-prozesuetan gertatzen dena, bizialdi barruko batez besteko erdalduntzea, funtsezkoa da egungo egoera eta dinamika soziolinguistikoa ulertzeko, eta ez da berri-berria gure artean. Txepetxek jada, zentsu eta inkesta soziolinguistikoetako gai honen inguruko datuak argitaratu aurretik ere, arreta jarri zuen gai horretan, eta argi adierazi zuen euskara-erdara fluxuetan euskara galtzaile ateratzen dela, eta gaitasunezko hizkuntzen bilakaera-prozesuak bere osotasunean aztertu zituen horretarako. Horretaz gain, prozesu horiek hizkuntza bakoitzak duen estatusarekin lotzen zituen (Sánchez Carrión, 1991: 45):

Tomemos el caso de la Comunidad Autónoma Vasca. Si los nativos euskaldunes continúan aprendiendo efectivamente el erdara, pero los nativos erdaldunes no han empezado a aprender aun efectivamente el Euskara ello quiere decir que la valoración social del Euskara sigue siendo insuficiente, aun en el único territorio político que la reconoce como lengua cooficial, en tanto si lo es en ella valoración hacia el Castellano, pues siendo, por definición, la distancia que va desde una a otra lengua exactamente la misma, solo una de ellas es capaz de provocar un impulso efectivo de aprendizaje. Para que el Euskara recobre terreno socialmente es necesario que entre otros índices se verifique este: el número de no nativos que se euskaldunizan debe ser superior al número de euskaldunes que aprenden efectivamente erdara.

Ildo berean, Eusko Jaurlaritzak laurogeiko hamarkadan argitaratu zuen “Euskararen borroka” ikerketa mamitsuan, berriaz landu ziren euskaraz hitz egiteko gaitasunaren galera eta hizkuntza horretako nagusitasunaren galera (Ruiz Olabuénaga, José I. eta Marañón, 1983: 67). Eta 1991n egin zuen lehenengo inkesta soziolinguistikoaren emaitzak argitaratu zirenean ere, fluxu guztiak aintzat hartu eta guk orain egin dugun azterketaren antzeko ondorioak aurkezten zituzten hizkuntza-bilakaeraren fenomenoari buruz (Aizpurua, 1995: 84):

Laburbilduz, lehen hizkuntza euskara izan zutenek erdara ikasi dute eta, beti ez bada ere, gehienetan eutsi egin diote euskarari, nahiz eta zenbaitzuek elebidun hartzaile edo erdaldun elebakar bihurtu diren. Aitzitik, lehen hizkuntza erdara izan zuten guztiak eutsi diote erdarari, eta gutxi batzuk bihurtu dira elebidun hartzaile nahiz elebidun.

Ondoren, ordea, euskal demolinguistikak beste bide bat hartu zuen hizkuntza-bilakaeraren gaia aztertzerakoan, atal teorikoko 5.6.2. puntuan azaldu dugun bezala: funtsean, gaitasunezko bilakaeran jatorriz euskaldunak ez ziren eta euskara ikasi duten hiztunen kopuruak alderatu egiten dira jatorriz euskaldunak izan eta euskara ahaztu dutenen kopuruekin, lehenengoak irabazitzaile eta bigarrenak galeratzaile joz,

---

<sup>379</sup> 20.4. puntuan eskaini dugu bi fenomeno horien osotasunezko ikuspegia osatzeko lehen ahalegin bat.

baina kopuru horiek hizkuntza-bilakaerako gainerako prozesuekin harremanetan jarri gabe<sup>380</sup>, eta horrela, galdu egiten da fluxu guztien ikuspegi orokorra. Egindako hautu metodologiko horrek ez zuen askorik lagunduko, ziurrenik, azken hamarkadotako dinamika soziolinguistikoa ulertzeko funtsezkoa den prozesu horri behar duen arreta eskaintzen.

### **22.8.3. Alde handiak daude nagusitasun-eremuen arabera**

Argitu beharra dago prozesu hori oso ezberdin gertatzen dela nagusitasun-eremu batzuetan eta besteetan. Atal enpirikoan ikusi dugun bezala, joera argia da: zenbat eta udalerrian erdararen nagusitasuna handiagoa (hots, zenbat eta erdararen erabilera handiagoa), orduan eta indartsuagoa da erdararen erakarpen-indarra eta orduan eta handiagoak euskararen galerak. Arnasguneetan, berriz, landu ditugun datuen arabera, euskarak euste- eta erakarpen-indar handiagoa erakusten du erabileran gaztelaniak baino. Lehen esandako esaldiari, hortaz, ñabardura garrantzitsu hori egin beharko litzaioke: Euskal Herriko toki gehienetan bizitzeak erdaldundu egiten du batez beste, baina arnagunean bizitzeak euskaldundu egiten du. Lehenago argi gelditu den bezala, ordea, erlatiboki hiztun gutxi bizi dira arnaguneetan eta asko erdara nagusi den eremuetan.

### **22.8.4. Euskal hiztun komunitatearen bizi-indar indizeak eta nazioarteko alderaketa**

Hiztunen etxeko erabilera-maila eta lehen hizkuntza harremanetan jarrita, lehenengoan euskarak duen pisua bigarrenean duenarekin zatituta zehazki, hizkuntzen bizi-indarraren indizea kalkulatu dugu, Kanada eta Quebeceko tradizio demolinguistikoa gurera ekarrita (Castonguay, 2005a: 11). Indize horrek 1,00eko balioa hartzen duenean, hizkuntzaren jarraitutasuna adieraziko luke, 1,00 baino handiagoak bizi-indar handia adieraziko luke, hots, komunitateak hazteko joera duela, jatorriz komunitatekoak ez diren hiztunak bereganatuta; 1,00etik azpiko balioek bizi-indar txikia adierazten dute, komunitateak hiztunak galtzen dituela alegia eta gutxitze-prozesuan dagoela. Hegoaldeko zentsuetako datuekin, 2011. urtean 0,817ko balioa hartzen zuen euskararen bizi-indarraren indizeak eta 1,065ekoa gaztelaniarenak<sup>381</sup>. Horrek adieraziko luke euskal hiztun multzoak murrizteko joera duela hiztunen bizialdiko perspektiban; eta gaztelaniaren multzoak handitzekoa.

Hizkuntza-sozializazioaz aritu garenean gure emaitzak nazioarteko beste hizkuntza-komunitate batzuetakoekin alderatuta esan dugu hizkuntzaren transmisioari buruzko indizeetan toki ona hartzen duela Euskal Herriak Galiziako eta Kataluniako eremu gehienekin alderatuta, belaunaldi berrietara hizkuntza transmititzeko ahalegin handia egiten dela gurean gainerako eremuekin alderatuta, gure komunitatearen neurria

---

<sup>380</sup> Azterketa bi fluxu horietara mugatuta, emaitzen ikuspegia guk landu dugunaren bestelakoa da eta tankera honetako irakurketa eta ondorioetara iritsi izan dira aztertu ditugun ikerlanetan: "Euskararen irabaziak (euskaldun berriak) galerak halako hiru dira EAEn. Irabazien hazkundera eta galeren ia desagertzea gazteen artean antzematen da bereziki" (Eusko Jaurlaritza, 2008: 37). Horrela, lehen hizkuntza erdara izanda euskara ikasi duten hiztunak alderatzen ditu euskara etxean jaso eta hizkuntza hori galdu dutenen kopuruarekin, eta lehen kopurua bigarrena baino dezente handiagoa izanik, ikuspegi baikorra eta gure ustez okerra nagusitu izan da hizkuntza-bilakaerari buruzko datuen irakurketan.

<sup>381</sup> EAEko 2021eko zentsuaren arabera, 0,896ko balioa du euskararen bizi-indarraren indizeak eta 1,055ekoa gaztelaniarenak autonomia erkidego horretan (jatorrizko datuak: EUSTAT, 2022).

aintzat hartuz gero gehienbat. Txukun samar ateratzen ginen nazioarteko argazki hartan. Hizkuntza-bilakaeraren kasuan oso bestelakoa da nazioarteko alderaketak eskaintzen digun irudia, 20.3.2. puntuan ikusi dugun bezala: galera handiak, ordezkapen-maila handia eta bertako hizkuntzaren bizi-indar apala erakusten du euskarak Herrialde Katalan gehienekin alderatuta (Andorra, Balear uharteak eta Kataluniarekin), eta berdin Galiziarekin eta Quebeceko zein Brunswick Berriko lurraldeekin alderatuta ere. Nazioarteko alderaketa horretan, hizkuntza gutxituaren gutxitze-maila oso handia duten lurraldeetako bizi-indarra baino ez du gainditzen Hego Euskal Herriak.

### **22.8.5. Azalpen bila: minorizazio larriak zuzenean baldintzatzen ditu prozesu horiek**

Zer dela-eta ditu halako galerak euskarak eta irabaziak gaztelaniak/frantsesak gaitasunezko zein erabilera-zein hizkuntza-bilakaeran? Zergatik hartzen ditu bizi-indarraren indizeetan balio apalagoak euskarak nazioartean azertu ditugun eremu gehienetako hizkuntza gutxituek baino? Orokorrean, nazioarteko datuei erreparatuta, badirudi hizkuntza-bilakaerarekin lotutako alderdiek zerikusi estua dutela hizkuntzaren nagusitasun-maila orokorrarekin. Hori bera ikusi dugu Euskal Herri barruan, hizkuntza-bilakaera nagusitasun-eremuen arabera aztertuta. Oro har, hizkuntza-bilakaera positiboagoa izaten da hizkuntza gutxitua oso ahul ez dagoen komunitate eta testuinguruetan; eta hizkuntza-bilakaera bereziki negatiboagoa da, gure kasuan bezala, hizkuntza propioaren minorizazio handia duten komunitate eta espazioetan. Horrela, bada, gure minorizazio-egoera gorriarekin zerikusi zuzena izango luke hizkuntza-bilakaeran euskarak saldo negatiboa izateak eta bizi-indarraren indizean euskarak hartzen duen balio apalak.

Euren bizialdian euskal hiztunek izan dituzten galera-prozesuak ulertzeko, erdararen nagusitasun handiko testuinguru demolinguistikoak hiztunen egunerokotasuna baldintzatzen duen moduari egin behar diogu aipamena ezinbestean. Etxean euskara jaso duen hiztunak ere, bizi den inguruneko hizkuntza nagusia erdara denean, erdara ezinbesteko tresna izango du bizitzarako. Erdararen ezinbestekotasun hori txiki-txikitatik, natural, ia oharkabean, jasoko du euskal hiztunak. Testuinguruak eraginda, mintzakide elebakarrek *inposatuta* besteak beste (Álvarez Enparantza, 1984; Hartsuaga, 2009), ingurune horietako euskaldun gehienek bizitzaren lehen urteetan ondo ikasiko dute erdara, eta neurri ohargarrian erabiliko dute euren egunerokotasunean, eskolako patioan eta auzoko parkean lehenengo, dendan, kiroldegian, lantokian eta tabernan ondoren, are gehiago aurrez aurreko harremanak ez ezik, ikus-entzunezkoen eta kultur kontsumoaren eremuak ere aintzat hartzen baditugu, horiek ia erabat erdaraz egiten dira eta. Jatorrizko euskal hiztunen erdarazko erabilera sarriarekin eta horri ezinbestean lotzen zaion euskarazko erabilera urriarekin batera, euren erdal gaitasuna findu egingo da eta euskarazko gaitasuna kamustu; eta gaitasun-mailako aldaketa horrek, era berean, erdara gehiago eta euskara gutxiago erabiltzera bultzako ditu hiztunak. Azken batean, etxean euskara jaso duten hiztunek, batzuetan bide horretan aldaketa azkarragoak izanda, bikotekide erdalduna hartzen duten euskaldunen etxeko erabileraren kasuan adibidez (hori da, adibidez, gaur egun bikotekidea duten hiru euskaldunetatik baten egoera), eta beste batzuetan aldaketa mantsoagoak izanda, baina gaitasun eta erabilera aldetik erdarara hurbiltzen eta euskaratik urruntzen dituen prozesu bat bizi izango dute testuinguru demolinguistikoa

oso erdalduna denean. Adierazkortasun handiz, *testuinguru oztopatzailea* ere esan izan zaie ingurune horiei (Ortega et al., 2016: 32). Testuinguru horiek bertan bizi direnengan bultzatzen duten prozesu erdaltzaleari aurre egingo diote kontzienteki bertako euskaldun euskaltzale askok. Eta euskarari eusteko egindako ahaleginari esker lortuko dute batzuetan prozesu erdaltzale horren eragina saihestea edo ahultzea.

Erdararen nagusitasunezko testuinguruetan, bestalde, euskarak ez du hainbesteko indarrik jatorriz erdaldunak diren hiztunak erakartzeko<sup>382</sup>. Eskola euskaldunak funtsezko papera jokatu du zeregin horretan, hiztun horiei euskara erakutsiz eta erabiltzeko aukera eskainiz. Gainontzean, eta sinplifikatzera joz, gizartearen funtzionamendu arruntak ez du askorik bultzatzen jatorriz erdaldunak diren hiztunak euskarara erakartzen. Gaztelania/frantsesa aski dira eremu horietako hiztunen bizitzako egoera (ia) guztietarako, euskara ez da beharrezkoa (ia) ezertarako. Harreman-sareetan, euskaldun ia guztiak elebidunak izanik, eta erdaldunak tartean direnean euskaldunek sistematikoki erdaraz egiteko ohitura dutenez, euskara ez da beharrezkoa jatorriz euskaldunak ez diren hiztun gehienek bizipenean. Are gehiago, jatorrizko erdaldun horietako batzuek euskarara hurbiltzeko urratsa egin nahi izaten dutenean ere, euskara ikasten edo erabiltzen saiatuz, testuinguru orokorrak ez die askorik lagunduko (gertu izan ditzaketen euskaltzale kontzienteenen eta euskalgintzak berariaz sortu dituen espazio eta praktiken funtsezko salbuespenarekin).

Erdara nagusi den ingurune horietan, izan ere, lehenago erabili ditugun metaforetara itzulita, errekako korronteak erdal aldera bultzatzen ditu bai jatorriz euskaldunak ziren hiztunak eta baita jatorriz erdaldunak zirenak ere; eskailera mekanikoek goitik behera dakarten abiadura biziak zail jartzen du jatorrizko euskaldunek euren euskalduntasunari eustea eta jatorrizko erdaldunei euskalduntasunera hurbiltzea. Horiek horrela, eskolaren eragin positiboa belaunaldi berrietan antzematen den arren, jatorrizko euskaldunen erdalduntzea fenomeno arrunta da ingurune horietan eta jatorrizko erdaldunen euskalduntzea gertaera bakanagoa. Bestela esanda, bizitzan zehar gertatzen den euskalduntzea batez beste erdalduntze-prozesua baino indar gutxiagokoa da gaur egungo Euskal Herrian jende gehiena bizi den ingurune erdaldunduetan.

Egoera, esan beharrik ez dago, oso bestelakoa da arnaguneetan. Euskara sozialki nagusi den eremu horiek eraginkorrak dira jatorrizko euskaldunei euren euskalduntasunari eusten laguntzeko eta jatorriz erdaldunak diren hiztunak euskarara erakartzeko. Hala ere, atal enpirikoan ikusi ahal izan dugunez, euskarak arnaguneetan duen erakarpen- eta euste-indarra erdarak erdara nagusi den eremuetan duenaren azpitik azaltzen zaigu. Ez da harritzekoa, arnaguneetan bertan ere erdara hizkuntza beharrezkoa baita hainbat mintzakiderek ere eta hainbat egoeratan

---

<sup>382</sup> Honekin lotuta, interesgarria eta iradokitzailea iruditzen zaizkigu Fermin Etxegoienek plazaratu dituen gogoetak: hark esaten du hiztunen kantitateak, hizkuntza asko erabiltzeak berekin dakarrela hiztunen kalitatea (dentsitatea). Etxegoienek arabera, "gaztelera, frantsesa, ingelesa... egunero ehunka milioika biztanlek berreraikitzen dituzten indar mental erraldoiak dira, bere baitan milioika ideia eta kontzeptu mugiarazten dituztenak. Etengabe dago hori abian, ehunka milioika lagunek hizkuntzok etengabe jorratzen dituzte, eta honek sekulako dentsitatea ekartzen die jorratutako eremuei." (2004: 9) Hori horrela izanik, grabitatearen legeak hizkuntza dentsioen alde erakarriko lituzke hizkuntza gutxituetako hiztunak.



jarduteko; eta zer esanik ez, arnasmuneetako biztanleei erdara beharrezkoa zaie arnasmunetik kanpora jotzen dutenean.

Prozesu ezberdin horiek gertatzen dira, hortaz, Euskal Herriko eremu horietan. Eremu batzuek eta besteek zer-nolako pisua duten ikusita, Euskal Herriko noranzko orokorra askoz gertuago dago erdararen nagusitasunezko eremuetan gertatzen den dinamikatik euskara indartsu dagoen eremuetan ageri direnetatik baino. Horixe bera islatzen dute datu orokorrek: hiztunen bizialdian euskarak batez beste galdu egiten duela eta erdarak irabazi, bai gaitasunean eta bai erabileran.

Azken batean, hizkuntza-bilakaeran euskarak dituen galera orokorrek euskarak bizi duen minorizazio-egoera larriarekin dute zerikusi zuzena. Ez dirudi lan erraza, minorizazio horretatik irten ezean, hizkuntza-bilakaeran gertatzen diren galera horiei buelta ematea.

### **22.8.6. Hizkuntzen botere-desoreka; bide batezko erdalgintzaren indarra**

Testuinguru demolinguitikoak erdarara hurbiltzeko/euskaratik urruntzeko egiten duen indar hori, bestalde, etengabe elikatzen da bizi dugun hizkuntzen arteko egiturazko botere-desoreka egoeran (Joly eta Uranga, 2010: 194). Orokorrean, gaztelania/frantsesa hizkuntza osoak (Boix eta Vila, 1998: 141) dira Euskal Herrian, gizarteko zeregin eta funtzio guztiak (Sánchez Carrión, 1991) hizkuntza horretan egiteko modua ematen dutenak; euskara ez da hizkuntza osoa. Bi hizkuntzen arteko botere-desoreka ez da atzo goizeko kontua eta sistema oso bat dago desoreka hori iraunaraziz eta birsortuz. Horren eragina agerikoa da euskal hiztunengan (Zalbide, 2004: 11):

Hori da kontua, itsurik itsuenak ere azkar asko antzematen duena. Euskara hutsarekin jai duzula. Erdaraz ondo jakin behar duela euskaldunak, bizitzan aurrera (gizarte mailan gora) egin nahi badu. Eta isuri horrek, jakina, etengabe erdal itsasora eramaten du euskaldun jendea: demografia aldetik, gizarte aldetik eta kultura aldetik.

Ez da gure asmoa sistema hori osorik deskribatzea, baina zertzelada orokor batzuk emango ditugu. Frantsesa Iparraldean eta Gaztelania Hegoaldean estatu baten babesa duten hizkuntza ofizialak dira, eta euskarak, aldiz, ez du legezko inolako estatusik Euskal Herriko lurralde zabaletan, eta legezko koofizialitate-estatusa duen eremuetan ere bigarren mailako hizkuntza da gaztelaniaren atzean (Urrutia, 2021; Ruiz, 2022). Lege-babes erabatekorik ez izateaz gain, botere ekonomiko, politikoa eta kulturalaren zein erreferente sozial nagusien hizkuntza nagusia gaztelania/frantsesa da<sup>383</sup>. Hezkuntzaren alorra salbuespen partzial garrantzitsua da Euskal Herriko hainbat ikasmaita eta lurralde eremutan, baina gizartearen gainerako alor adierazgarri gehienetan desoreka handia dago erdararen alde. Administrazio publikoan lanpostu bat lortzeko, adibidez, gaztelania Hegoaldean eta frantsesa Iparraldean nahitaezko hizkuntzak dira beti; euskara, aldiz, lurralde-eremu batzuetako lanpostu batzuetarako da bakarrik beharrezko. Adibideen zerrenda nahi adina luzatu daiteke. Administrazioan

---

<sup>383</sup> Testuinguru orokor hori, eta horrek hiztunen portaeretan duen eragina, bat etorriko litzateke Txepetxek (Sánchez Carrión, 1991) "diglosia glotofagikoa" izenpean azaltzen duen egoerarekin.

edo zerbitzuen alorrean erdaraz egoki artatuko zaituzte beti, euskaraz batzuetan bakarrik. Hedabideen eta kultur eskaintzan ere izugarria da erdaren aldeko eta euskararen aurkako desoreka...<sup>384</sup> Adibideak besterik ez dira, baina irudikatzen duten erdararen aldeko “diskriminazio positiboarekin”, demolinguistikoki indartsu dagoen hizkuntzaren alde eta ahul dagoenaren aurka egiten den bultzada sistematikoarekin, ez dirudi erraza hizkuntza-bilakaeran euskararen aldeko noranzkoan joango diren ibilbideak bultzatzea eta euskaratik erdarara joango direnak saihestea.

Mikel Zalbideri irakurri diogu “berariazko” eta “bide batezko” euskalgintzaren artean bereizten; eta azaldu izan du batzuetan euskararen alde *nahita, propio* egiten den lana bezain onuragarria dela “nahi gabe”, “berez” egin izan dena. Horrekin batera, Zalbidek argitzen duenez, “hizkuntza eta kultura nagusien aldeko plangintza eta jarduna bide batezkoa izan ohi da maiz asko” (2007a: 881). Horixe da, zalantza gabe, gure egoera: gaztelania/frantsesa indartzearen alde, gehienetan “bide batez”, baliabide eraginkor erraldioak erabiltzen direla Euskal Herrian, Espainia-Frantzietan eta mundu zabalean. Eta horren aurrean, eragin ahulekoak gertatzen direla gure eguneroko errealitate soziala finkatzerakoan “berariazko” zein “bide batezko” euskalgintza sozial zein instituzionaletik egiten diren ahaleginak.

Horrek guztiak, berez egitatezko alderdi guztietan demolinguistikoki dagoen desoreka izugarria elikatu, iraunarazi eta hainbat alderditan indartu egiten du. Aztertzen ari garen ardatzera itzulita, horrek guztiak erdararen aldeko eta euskararen aurkako bilakaera-prozesuak bultzatzen ditu.

## 22.9. SINTESIA ETA AZKEN GOGOETAK

### 22.9.1. Euskararen egungo egoera soziala eta azken hamarkadetako bilakaera: sintesi-ikuspegia

Euskararen minorizazio-prozesuan bereziki bortitzak izan ziren XX. mendeko lehen bi herenak, eta areagotu egin zuen euskal hiztun-komunitateari lehenagotik ere gainera zetorkion patua: desagertzeko bidean zihoan ezinbestean. Zorionez, joera-aldaketa bat gertatu zen 60-70eko hamarraldietan, biziberritze-prozesu bat jarri zen abian, eta hein batean geldiarazi egin zen joera hura: horri esker jarraitzen dugu euskaldunok bizirik komunitate gisa. Alabaina, gaur egun ere minorizazio-egoera gorria pairatzen jarraitzen dugu; teoria soziolinguistikoak hizkuntza-komunitate baten egoera zertan den neurtzeko darabiltzan alderdi garrantzitsuenak gurean nola diren aztertuta heltzen gara ondorio horretara. Alderdi horiei erreparatuta, gure lurraldean ditugun hizkuntzen arteko aldea handia da, euskararen kaltetan betiere. Desoreka hori agerikoa da hizkuntzaren erabileran, non erdaraz (gaztelaniaz/frantsesez) egiten diren 7

---

<sup>384</sup> Horren inguruko adibide bakar bat besterik ez dugu jarriko: berriki, Administrazioan Euskaraz taldeak egindako neurketa baten arabera, EAEko telebista publikoak 2022ko maiatza eta iraileko lehen astea bitartean helduentzako 130 film eskaini zituen gaztelaniaz ETB2 katean eta bat bakarra ere ez euskaraz ETB1 katean (Urkizu, 2022). Jakin izan dugunez, ondorengo hilabeteetan eman izan dira film batzuk euskaraz ETB1en, baina 10 eta 1eko proportzioan gutxi gorabehera ETB2n erdaraz emandakoekin alderatuta. Esan beharrik ez dago gainerako Espainiako eta Frantziako telebista publikoek eskainitako film guztiak direla gaztelaniaz/frantsesez, eta baita telebista pribatu ia guztietakoak ere.

elkarrizketa bakoitzeko bat bakarra egiten den euskaraz<sup>385</sup>. Egoera ez da hobea hizkuntza-gaitasunari erreparatuta: hiztunen artean, %7,4 baino ez dira euskaraz hobeto moldatzen direnak gaztelaniaz/frantsesez baino, eta, aldiz, hiztunen %84,2 hobeto moldatzen dira bi hizkuntza horietako batean. Ez hori bakarrik. Horien arteko gehiengo handi bat elebakarra da, eta erdaraz bakar-bakarrik mintzatzen da.

Argazkia osatzeko, funtsezkoak diren beste bi alderdi ere aintzat hartu beharra dago: alde batetik, gaztelaniak/frantsesak nagusitasun ia erabatekoa dute lurraldean (eta, ondorioz, baita hiztunen eguneroko bizitzako testuinguruetan ere), eta badiren arren euskara hegemonikoa den gune txiki batzuk, biztanle gutxikoak gehien-gehienak, gaztelania/frantsesa guztiz nagusi dira, oro har, lurraldean. Eta bestetik, nabarmendu beharra dago hizkuntza-bilakaera prozesuek ere noranzko horretan egiten dutela indarra: jatorriz euskaldunak diren hiztunak erdalduntzeko joera handiagoa da jatorriz gaztelaniadunak/frantsesdunak direnak euskalduntzekoa baino. Joera hori antzeman dugu bai gaitasuneko hizkuntza-bilakaera aztertuta eta baita erabilerazkoa kontuan hartuta ere. Bistan da, beraz, hizkuntzek lurraldearen gainean ageri duten hegemoniak eta hizkuntza-bilakaera prozesuek mesede egiten diotela erdarari, eta kalte euskarari. Ez da ahaztu behar, gainera, testuinguru orokorrak ere (hala nola sistema juridiko, politiko, ekonomiko eta komunikatiboak), salbuespenekin eta izaera kontraesankorra izan dezaketen prozesuekin, orokorrean lagundu egiten duela hizkuntza menderatzaileak nagusitasun hori areagotu dezan (gaztelaniak Hegoaldean eta frantsesak Iparraldean), hizkuntza gutxituaren kaltetan (euskara Euskal Herri osoan).

Euskararen komunitateak baditu, dena den, indargune batzuk, eta horiek eusten diote bizirik. Herritarrek euskararen aldeko atxikimendua ageri dute beren iritzietan, eta erabili ere gehiago egiten dute espero izatekoa zena baino: euskaraz hobeto moldatzen diren hiztunak hizkuntzarekiko leialak dira gaur egun. Eta erdaraz hobeto moldatzen diren elebidunek ere erabiltzen dute euskara aukera- eta erosotasun-irizpideek aginduko luketena baino gehiago. Belaunaldi berriak sozializatzeko prozesuekin zerikusia duten jokabideak ere indargune ditugu, eta horiei esker, gaur egun belaunaldi berriak euskaldunagoak dira bai gaitasunean eta baita erabileran ere beren gurasoenak baino, nahiz eta erdararen nagusitasunak argia izaten jarraitzen duen horien artean ere.

Bere gorabehera guztiekin, euskararen komunitateak bizirik jarraitzen du, indartzera eta ahultzera bultzatzen duten aldi bereko joera kontraesankorrekin. Guk zehatzago aztertu dugun epealdian, 1991-2021 tartean, aldi berean gertatu dira bai euskaren kaltetan gertatzen diren ordezkatzeko-dinamikak eta baita hizkuntzaren jarraipena eta indarberritzea dakarten dinamikak ere.

Arreta azken 25-30 urteotako bilakaeran jarrita, aztertu ditugun datu guztiek ez dute joera bera erakusten:

- Ardatz batzuetan aurrerakada erakusten dute datuek: hizkuntza-gaitasunaren kasua da. Igo egin dira euskara ulertzen eta hitz egiten dakitenen kopuruak,

---

<sup>385</sup> Kaleko erabileraren araberako datuetan oinarritutako kalkulua (Altuna et al., 2022).

nahiz eta euskarazko nagusitasunezko hiztunen kopuruak ez diren igo eta kualitatiboki ahuldu direla pentsatzeko arrazoirik ere ez den falta. Aurrez aurreko harremanetako erabileran izandako bilakaera ere aldekoa izan da, ISLren arabera, alor formalari eragiten dioten eremuetan gehienbat. Bilakaera positiboa gertatu da, halaber, jarreretan: demolinguistikak alderdi subjektiboak lantzeko dituen mugez jakitun, gaiari buruz dauden datuek esaten dute euskararen aldeko jarrerak dituzten hiztunen multzoa handitu egin dela azken 25 urteotan eta txikitu aurkako jarrerak dituztenen multzoa.

- Aurrekoen kontrastean, arnasmuneek ahultzen jarraitu dute azken urteotan, 2001etik aurrera bereziki. Eta horrekin batera, gaitasunez eta erabileraz trinkoa zen “betiko euskaldun” izateko modu bat ere ari da atzera egiten. Atzera egin du, halaber, indar handiz gainera, telebistaren kontsumoan euskarak duen pisuak.
- Landu ditugun adierazleen hirugarren multzo batean, azkenik, aztertu dugun 25-30 urteetako epealdi osoa hartuta aurrera egin bada ere, bi aldi ikusten dira datuetan: gorako joera ez oso indartsua baina argia 1991tik 2001 eta 2006 ingurura, eta igoeraren etetea edo beherako joera hortik aurrera. Joera hori aurkitu dugu etxeko transmisioaren adierazletzat jo dezakegun haur txikien lehen hizkuntzaren barruan euskarak izan duen pisuaren bilakaeran eta kaleko erabilera behatuaren bilakaeran.

Joera horiek denak aintzat hartuta, orokorrean, Euskal Herria bere osotasunean hartuta eta datu demolinguistikoetan oinarrituta, zaila egiten da euskarak aurrera indartsu egin duela esatea edo atzeraka indartsu egin duela esatea. Gauzak aldatu dira, bai, eta alderdi batzuetan hobeto gaude duela 30 urte baino eta besteetan okerrago; eta horrek bilakaeraren irakurketa teoriko ezberdinak egitera eramán gaitzake. Nolanahi ere, balantze orokor bat eginez gero, eta euskararen bizi-indarraren edo osasun orokorraren bilakaera ebaluatu beharko balitz, ez da erabateko aldaketarik gertatu: minorizazio-egoera gorrian zegoen euskara 1991n eta minorizazio-egoera gorrian jarraitzen du egun. Eta azken 15-20 urteetako datuetan ikusten denez, egoerak egonkortzera egin duela dirudi, adierazle batzuetan joera hobek eta besteetan kaskarragoak ageri direla, ez oso nabarmenak hala ere.

### **22.9.2. Zazpi gogoeta, azken 30-60 urteotako bilakaera baloratzen eta aurrera begira jartzen laguntzeko**

**Lehen gogoeta (balorazio moduan I): Mundu mailako hizkuntzen joerak ezagututa, asko lortu da. Ia segurua zen heriotza saihestu dugu (oraingoz behintzat).**

Izan den bilakaera hori, azken 20 urteoi buruzkoa gehienbat, ahula irudituko zaio hainbati, bilakaera-joera orokor hobea espero zitekeelakoan. Bestelakoa da gure ikuspegia. Datu hauek interpretatzeko lehen ezinbesteko markoa, atal teorikoan azaldutakoa da: hizkuntza gutxituen joera orokorra mundu mailan eta Europan atzera egitea da. Ildo horretan, eta nahiz eta tamalez gai hauek sistematikoki lantzen dituen nazioarteko demolinguistikazko iturririk ez egon, erratzeko arrisku handirik gabe esan dezakegu salbuespena garelako munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan. Sakon

hondoratzen ez jarraitzea eta hizkuntzak duen nagusitasun sozialari nola hala eustea salbuespena baita gaur egungo munduan.

Gure komunitateak 1960 edo 1970 inguruan zuen minorizazio-egoera larria kontuan hartuta, minorizazio horretan sakontzeko joera agerikoa zela jakinda eta garai hartan eskura zituen bitarteko juridiko-politiko-ekonomiko-sozialak izugarri urriak zirela aintzat hartuta, normalena, *naturalena*, gutxiagotze-prozesuak sakontzen jarraitzea izango zen, 1906 eta 1971 bitarterako landu ditugun datuek erakusten zuten goitik beherako aldapan behera jarraitzea, hondora (hizkuntzaren heriotzara) gero eta argiago gerturatuz. Eta *berez* tokatzen zen jokaleku hori saihestea lortu da azken 60 urteotako ahaleginarekin. Ez da lorpen txikia.

Baten batek galde dezake: nola da posible euskararen aldeko hainbeste ahalegin eta lan eginda, hain fruitu gutxi jasotzea? Zergatik ez du gehiago aurreratu euskarak? Abiapuntuko minorizazio-egoera larrian eta minorizazio horretara bultzatzen eta birsortzen duten faktore indartsuetan dago erantzuna. Indar eta bitarteko ugari jarri dira euskararen indarberritzearen alde azken 60 urteetan, horretan ez dago zalantzarik. Baina ahalegin hori beherantz datozen eskailera mekaniko batzuetan gorantz egitea bezala izan da. Hizkuntza menderatzaileen nagusitasun demolinguistikoak berezkoa du hiztunak bereganatzeko presioa egiteko gaitasuna, eta hori gutxi balitz bezala, gaitasun hori areagotu egiten da hizkuntza horiek eremu juridiko-politiko-ekonomiko-sozial-mediatico-kulturaletik jasotzen dituzten abantaila eta babesak dela medio. Euskalduntzearen alde egindako ahaleginaren zati handi bat gaztelaniaren/frantsesaren erakarpene-indar edo presioari aurre egin nahian *xahutu* dugu.

Euskararen alde egin diren ahalegin handi horiek balio izan zuten, lehenbiziko fase batean (1960-2001 aldia hartuko luke), ez bakarrik presio erdaltzale hori berdintzeko, baita ordu arteko ordezkatzeko-joera iraultzeko ere, eta gai izan zen hizkuntza biziberritzeko prozesu bat abian jartzeko. Aldi horretan, eskailera mekanikoak kontrako noranzkoa zekarren baino abiadura handiagoz ibiltzea lortu zuen euskal komunitateak. XXI. mendeko datuak aztertuta, ordea, badirudi azken 20 urte hauetan hizkuntzaren alde egin duen lanak balio izan duela erdaren erakarpene-/inposizio-indarrari aurre egin eta egoera berdintzeko, baina ez euskalduntzean aurrera egiteko.

**Bigarren gogoeta (balorazio moduan II): bilakaeraren irakurketa ez da berbera ikuspegi teorikoaren arabera; Fishman-en ikuspegitik ezkorragoa da balorazioa, minorizazioaren soziolinguistikaren ikuspegitik baikorragoa.**

Atal teorikoan aurkeztu ditugun bi ikuspegi nagusietara jota, ez litzateke balorazio berdinean egingo aztertu ditugun datuak Fishmanen ikuspegi teorikotik edo minorizazioaren soziolinguistikarenetik eginez gero. Azken 30 urteotako bilakaera-joeren balorazioak kutsu negatiboagoa hartzen du Fishmanen ikuspegiaren oinarrituz gero, eta positiboagoa minorizazioaren soziolinguistikaren oinarrituta. Izan ere, Fishmanen iritziz funtsezkoak diren honako hiru alderdi eta prozesu hauek oro har ez dute bilakaera positiborik izan azken urteotan: lehenik, 1971-1996 bitarteko goranzko joera etenda, haur txikiekiko etxeko transmisioan euskarak duen pisuan ez da aurreratu azken 25 urteotan. Bigarrenik, iturri batzuen eta besteen artean aldeak dauden arren, badirudi alor informaletako erabileran euskarak duen pisua igo egin dela

apur bat epealdi osoa aztertuta baina ez hainbeste azken 10-20 urteei erreparatuta. Hirugarren eta azkenik, hizkuntza gutxituak behar dituen “physical breathing space” edo arnaguneak, 1991 inguruan euskarak dagoeneko hain urri zituenak, are gehiago gutxitu eta ahuldu dira 1991-2021 bitartean. Horrenbestez, bada, Fishmanen ikuspegian oinarri-oinarrizko diren alderdi horietan azken hiru hamarkadetako balantzea ez da oso ona.

Argazki baikorragoa eraiki daiteke datuak minorizazioaren soziolinguistikaren ikuspegi teorikoan oinarrituta, ikuspegi horretan, Fishmanen ikuspegiko alderdi horiek kontuan hartuta ere, beste batzuei garrantzi handiagoa ematen zaielako eta horietan bilakaera positiboagoa izan delako. Horrela, ikuspegi horretan funtsezkoa da hezkuntza-alorrea eta administrazioan hizkuntza gutxitua sendotzea. Garrantzitsua da, halaber, alor ekonomikoan, eremu formaletan, hizkuntzari estatusa eta prestigioa emango dioten alderdietan aurreratzea. Aurrerako urrats argiak egin dira alor horietan, EAEn eta Nafarroako iparraldean gehienbat. Aldaketa positiboak hezkuntzaren alorrean gertatu dira bereziki, baina baita administrazioan, merkataritzan eta lan munduan ere, ISLko erabilera-datuaren bilakaerak erakusten duten bezala. Are gehiago, ez nahi bezainbeste, baina alor horietan aurreratu da beste guztietan baino gehiago. Horrela, azken 30 urteotako bilakaeraren balorazio baikorragoa egin daiteke minorizazioaren soziolinguistikaren ikuspegitik Fishmanen ikuspegian oinarrituta baino.

**Hirugarren gogoeta (balorazio moduan III): zer erein, hura jaso. Euskararen aldeko lan handiagoa egin den alor eta lurralde- zein gizarte-eremuetan gehiago aurreratu da gainerakoetan baino.**

Lehenengo gogoetan esan dugu gutxitze-prozesuan sakontzen jarraitu ez duen salbuespenetako bat garena hizkuntza gutxituen artean. Hori horrela izan bada, beste hiztun komunitate gehienengatik bereizten gaituzten bi ezaugarriengatik dela pentsa daiteke. Hizkuntzari diogun atxikimenduarengatik batetik, eta horri lotuta, hizkuntzaren biziberritzearen alde gure komunitateak egin duen ahalegin eskergagatik bestetik. Banakako euskaldun eta euskaltzaleen ahaleginik gabe, euskalgintza antolatua bultzada eta jarduna kontuan hartu gabe, erakunde batzuetatik euskararen alde egin diren politikak izan ez balira, gutxitze-prozesuak argi eta sendo asko jarraituko zuen ezbairik gabe, erdaldun elebakarren multzoak handitu egingo ziren eta euskaldunenak jaitsi, erabilerak ere sendo egingo zukeen atzera, transmisio-prozesuetan euskarak duen pisua are gehiago txikitu izango zatekeen, eta abar.

Lana egiteak fruituak eman ditu; ondorio horretara iristen gara gurean egin den lana eta lortu diren emaitzak mundu mailako testuinguruan kokatuta. Eta ondorio horretara iristen gara, halaber, gurean gertatu diren aurrera-atzerako joerak, ordezkapen- eta indarberitze-joerak zein lurraldetan, zein eremutan eta zein alor sozialetan gertatu diren ikertuta. Gutxienez, honako hiru funtsezko alderdietan.

- **Lurraldeari dagokionez**, aztertu ditugun adierazle gehienetan pautak argi bat antzematen da administrazio-eremuka: EAEn izan da bilakaera-joerarik onena, Nafarroan ondoren eta Iparraldean okerrena. Agerikoa da hurrenkera hori bat datorrela bai euskaltzaletasunak eremu batzuetan eta besteetan izan dezakeen indarrarekin eta baita euskarak han eta hemen duen lege-basearekin eta erakunde publikoek hizkuntzaren alorrean egin dituzten politikekin ere.

- **Erabilera-eremuei dagokienez** ere gauza bera esan dezakegu. Azken hamarkadetan zer-nolako erabilera-eremuetan eta zer-nolako alorretan aurreratu den gehien begiratzen badugu, argi ikus daiteke bat datozela azken hamarkadetan lehentasunez landu zituen alderdiekin (Zalbide, 2019b: 178). Joan den mendeko 60ko hamarkada inguruan piztu zen loraldiak, ez kontraesanik gabe, baina euskara “noranahikoa” egitea izan zuen iparrorratz, euskara tradizioaren mundutik, baserri- eta eliza-girotik beste eremu hiritar eta modernoagoetara zabaltzea. Horrela, lehentasunez landu zituen ildoen helburua izan zen euskarak “goi mailako” funtzioetarako urratsak egin zitzala: euskara batuaren sorrera, murgiltzean oinarritutako hezkuntza euskalduna, helduen euskalduntzea eta alfabetatzea, hedabideak eta administrazioa... Ezin esan garai hartako euskaltzaleen ametsak guztiz bete direnik, baina agerikoa da lehentasuntzat jotako alor horietan egin direla aurrerapausorik argienak, landu ditugun datuek erakutsi duten bezala.
- **Belaunaldika** izan den bilakaera aztertuta ere ondorio bertsura iristen gara. Euskararen aldeko mugimenduak urte guztiotan argi izan duen irizpide bat izan da, teoria soziolinguistikoarekin eta zentzuarekin bat eginez, belaunaldi berrien euskalduntzeari ematea lehentasuna. Horren arabera egindako lanak ere izan ditu bere ondorio argiak, lehenago ere ikusi dugun bezala. Horrela, belaunaldi berrietan indarberritze-zantzu argiak erakusten dituzte datuek: epealdiaren hasiera eta amaierako datuak alderatuta, badirudi gure haur eta gazteen artean modu ohargarrian aurreratu dela, bai hizkuntza-gaitasunean eta baita erabilera ere, nahiz eta erabilerari buruzko azken urteetako datu batzuek (ez guztiek) geldialdi edo atzerakada txiki baten berri ematen diguten. Nolanahi ere, zalantzarik ez dago azken 60 urteotan belaunaldi berrien euskalduntzearen alde egin den apustu irmoak emaitza argiak eman dituela: aztertu ditugun errealitate eta joera guztien artean itxaropenerako bidea gehien ireki dezakeena da, hain justu, belaunaldi berrietan gertatu den aldaketa positiboa.

**Laugarren gogoeta (aurrera begira I): egin den lanarekin emaitza hori izan bada, orain artekoa baino ahalegin handiagoa egin beharko da hizkuntza indarberritzeko prozesuan aurrera egitekotan. Are gehiago, etorkizunean baldintzak zaildu egin daitezkeela kontuan hartuta.**

Azken hogeitun urteotan euskararen indarberritzearen alde egin den lan bolumenarekin indarberritze-prozesuan aurrerabide argirik lortu ez bada, agerikoa da bide horretan aurrera egin nahi izanez gero, nahitaezkoa izango dela orain arte baino lan gehiago egitea, eraginkorragoak izatea, bitarteko gehiago jartzea, ahalegin handiagoa egitea... Azken batean, eta gauzak sinplifikatuz, azken urteotan euskalduntzearen alde erretako energia eta indar gehienak aurkako norabidean datorren eskailera mekaniko indartsuaren eragina berdintzen joan zaizkigu, eta aurrera egin nahi izatekotan, eskailerak goitik behera dakarren abiadura gainditu egin beharko dugu guk behetik gora egiten dugun ahaleginaren abiadurarekin. Epe luzeko ikuspegiz, aukera inteligenteagoa dirudi eskaileraren abiadura gaindituko duen aldi bateko esprinta jotzea, eta ez eskaileraren kontrako abiadura aldeko indarrarekin berdindu eta “toki berean” ez aurrera ez atzera gelditzea *betiko*, ahaleginak eginez baina askorik

aurreratu gabe, eta beti beldurrez goitik behera datorren eskailerak noraino estutuko gaituen.

Azkartu behar hori, ahalegin euskaltzalea areagotu behar hori, are premiazkoagoa izango da, gainera, abian diren eta errealitate soziolinguistikoa errotik baldintzatu(ko) duten hainbat prozesuk eraginda, atzera egiten hasi nahi ez badugu. Ugariak eta indartsuak izan baitaitezke hurrengo hamarkadetan errealitate soziolinguistikoa eraginez sortu daitezkeen prozesuak, eta ez, bereziki, euskararen mesedetan. Demografia aldetik, azken hamarkadotako jaiotzen jaitsiera izugarriak, urtez urte areagotzen ari denak, ez du erraztuko indarberritze-prozesua; prozesu hori neurri handi batean belaunaldi berri euskaldunagoek belaunaldi zaharrago eta erdaldunagoak ordezkatzean oinarritzen den heinean. Arazo handia dugu hor indarberritzearen ikuspegitik. Hurrengo urteotan gertatu ahal diren migrazio-mugimenduei buruz, Xabier Aierdi soziologoak dio (2022) hurrengo hiru hamarkadetan 400.000 etorkin "atzeritar"<sup>386</sup> beharko direla EAEn, eta haren aurreikuspenen arabera, datozen urteotan 20.000-25.000 etorriko direla urteko, Latinoamerikatik horietako asko. Esan beharrik ez dago Aierdiren aurreikuspenak beteko balira eta etorkin horien balizko hizkuntza-profila nolakoa den jakinda (euskaldunik ez, gaztelaniadunak ugari), mugimendu horiek aldaketa handiak ekarriko lituzketela gure errealitate soziolinguistikoa: euskara dakitenen proportzioak eta euskararen erabilerak behera egingo lukete nabarmen, gazte-helduen multzoan bereziki; eta horrekin batera, pentsa daiteke transmisio-hizkuntzan euskarak duen pisuak ere behera egingo lukeela modu ohargarrian. Euskararen pisu soziala ahultzea ekarri dezake, halaber, aldaketa klimatikoak eraginda, egun Mediterraneora bideratzen den turismoaren zati gero eta ugariagoa Kantauri itsasertzeko herrietara bideratzeak. Demografia alorrean bezala, aldaketa-joera indartsuak daude abian mundu globalizatuan ekonomiaren, teknologiaren, sare sozialen eta kultur kontsumoaren alorretan, besteak beste. Xehetasunetan sartu gabe, baina ez dirudi aldaketa-prozesu horietako gehienek mesederik egingo dietenik gurea bezalako hizkuntza gutxituei, mundu mailan hiztun-komunitateak gero eta elkarreagin handiagoan egongo direla eta gero eta aldakorragoak izango direla aurreikusten den honetan (Darquennes et al., 2019: 9).

Horrela, bada, faktore ugariaren eskutik, lehenago ere kontrako norabidean datorren eskailerak dakarren goitik beherako abiadura azkartu egingo dela (azkartzen hasia dagoela) aurreikus daiteke. Azkartze hori orekatuko duen neurriko (neurri ez txikiko) esku-hartzea egin ezean, atzera egingo du euskarak, eta egun bizi duen minorizazio-egoera larria are gehiago larriagotuko da.

**Bosgarren gogoeta (aurrera begira II): arnaguneekin batera, hiztun trinkoenak ere ahultzen ari dira, eta hori guztia lehen mailako arazoa da.**

Gogoeta honetan, arnaguneek izan duten bilakaera negatiboa harremanetan jarri nahi dugu lanean aipatu ditugun beste bi fenomenorekin: euskal hiztun trinkoenen gaitasunean izan den bilakaera eta etxeko transmisioan gertatu dena<sup>387</sup>. Haur txikien

---

<sup>386</sup> Espainiatik kanpoko etorkinak.

<sup>387</sup> Bi joera horiekin zerikusia du, halaber, Mikel Zalbidetik, erabileraren bilakaerari buruz ari dela, aipatzen duen beste fenomeno honek ere (2016: 63): "etxe-giroko euskal jarduera trinkoa, menderik mende eta



lehen hizkuntzaren bilakaeraz aritu gara lehenago. Hitzunen gaitasunari dagokionez, euskal nagusitasunezko hitzunen ahultzea aipa dezakegu, euskaraz erdaraz baino errazago egiten dutela aitortzen duten horiena. Horrela, hitzun guztien artean osatzen duten ehunekoetan 1991 eta 2016 bitartean aldaketa handirik gertatu ez den arren, multzo hori kualitatiboki ahuldu egin dela pentsatzera garamatzate datu batzuek: batetik, ISLren arabera, euskararen nahitaezko hitzunen multzoa, euskaldun elebakar eta hartzaileena, txikitu egin zen 1991-2001 bitartean (ez dago datu berriagorik). Bestetik, euskaraz errazago egiten duten hitzunen barne-osaera nolakoa den ikusita ere, agerikoa da nagusitasun horri lotu ohi zaizkion bestelako faktoreetan (testuinguru demolingüistikoa eta lehen hizkuntza) trinkoagoa zela 1991ko euskal nagusitasunezko hitzuna oraingoa baino<sup>388</sup>. Aipatu ditugun hiru fenomenoak, beraz, arnasmuneak ahultzea, euskal nagusitasunezko hitzunen kualitatiboki ahultzea eta haur txikien lehen hizkuntzan euskaraz duen pisuaren hazkunde-prozesua etetea, hirurak eskutik eta elkar elikatuz datoz<sup>389</sup>.

Ondorio nabarmenak ditu joera hirukoitz horrek indarberritzearen ikuspegitik: hizkuntzaren hitzun kualifikatuenak eraginkorki ekoizten dituen eta euskararen erabilera errazen bultzatzen duten inguruneak gutxitzea ez da garrantzirik gabeko joera minorizazio gorrian dagoen hizkuntza-komunitatearentzat. Hizkuntza gutxitua familia eta ingurune hurbil trinkoan ikasi eta hobekien eta gehien erabiltzen duten “hitzun natibo” horien urritzea, hizkuntza gutxituen ahultzearekin lotu izan da literatura soziolingüistikoa, eta are heriotzara daramaten prozesuaren azken faseekin (Hagège, 2001: 78):

Se puede decir pues que una lengua se extingue cuando ya no tiene *hablantes nativos*, utilizadores que la aprendan desde el principio de su vida en el medio familiar y social, y a los que este aprendizaje confiere lo que se puede llamar una *competencia nativa*; esta última se define como un conocimiento completo y una capacidad de uso espontáneo, que hacen de la lengua en cuestión un instrumento de comunicación propio en todas las circunstancias de la vida diaria. En tal perspectiva, una lengua viva será definida como la de una comunidad que renueva sus hablantes nativos; y una lengua muerta, (...) será la de una comunidad en la que la competencia nativa ha desaparecido totalmente, en la medida en que los hablantes nativos sólo han transmitido imperfectamente su saber, y los descendientes transmiten a su vez una aptitud cada vez más débil para hablar y comprender el idioma del grupo

---

belaunez belaun euskararen transmisio naturalaren abiaburu eta oinarri izandakoa, bere buruari ozta-ozta eusten edota nabarmen ahultzen ari da oro har”. 1991-2011 bitarteko ISLko datuak aztertuta iristen zen Zalbide ondorio horretara. Guk, 2016 arteko erabileraren datuak xehe aztertuta, berretsi egin dezakegu ikuspegi hori. Zehazki, 2006tik aurrera jaitsi egin da etxean, bikotekidearekin, neba-arrebekin edo lagunekin beti edo ia beti euskaraz aritzen zirenen proportzioa, eta gora egin du mintzakide horiekin bietara aritzeko ohiturak, batzuetan euskaraz eta besteetan erdaraz. Jaitsiera horiek ez dira oso handiak eta ikusi egin behar da 2021eko inkestak joera horiek berresten dituen edo ez. Joera berretsiko balitz, euskararen gune trinkoena ahultzen ari delako beste sintoma adierazgarri bat gehiago izango litzateke.

<sup>388</sup> Trinkotasun-galera horrekin zerikusi estua izango duela pentsa daiteke hainbat autorek modu batean edo bestean aipatzen duten arazoak, hots, egungo hitzunek, gazteek bereziki, adierazkortasun eta jatoritasun aldetik izan duten higaduraren fenomenoak eta alor informal-intimoan euskaraz aritzeko duten trebezia faltak eta, horrekin guztiarekin lotuta, egun egiten den euskararen kalitatearen inguruko kezak (Garate, 2000; Zuazo, 2000; Salaburu, 2002; Zalbide, 2010; Hualde, 2015; Garzia, 2018; Seguro, 2020).

<sup>389</sup> Hiru joera horiek zerikusia dute Euromosaic-en eredu teorikoan aipatzen den *hizkuntza ugaltzearen* prozesuarekin (Williams et al., 1997: 147-148).

Arnasguneen ahultzeak, bestalde, ondorio handiak ekar ditzake arnasguneetako bertako errealitatean ez ezik, baita arnasgune ez diren eremuetako dinamika soziolinguistikoan ere. Guk dakigula, oraindik ez da sistematikoki aztertu arnasguneetan sortu eta hazi ondoren, bizitzera edo lanera ingurune erdaldunagoetara joandako hiztunek zer-nolako zeregina jokatu duten ingurune berri horietako euskararen indarberritzean. Hipotesi gisa esango genuke ingurune euskaldunagoetatik etorritako hiztun ez gutxi zeregin garrantzitsua jokatu dutela ingurune berri horietan, bai irakasle lanetan arituz, bai euskararen aldeko mugimenduan parte aktiboa hartuz eta baita ingurune horietako harreman-sareetan euskarari tinko eusten dioten hiztun bihurtuz, ingurune berrietako hiztun berrien euskalduntze-prozesuetako bidaide eta solaskide garrantzitsu izateraino. Ikuspegi horretatik, egungo joeretan sakonduz arnasguneek desagertzea joko balute, euskararen gune trinko horien heriotzak ondorio ohargarriak izan litzake gainerako eremuetan ere, eremu horiek indarberritzeko osagai garrantzitsu hori desagertu egingo litzatekeen neurrian.

Hiztun-komunitate osoan duen eraginagatik, arnasguneen galera-prozesuak lotura zuzena du lehenago eskailera mekanikoen metaforarekin azaldu dugunarekin: arnasguneak urritzearekin batera, eskailera mekanikoak aldeko noranzkoan dituen hiztunen multzoa urritzen ari da, euren euskalduntasuna lantzeko korrontea alde duten hiztunen multzoa alegia. Eta horrekin batera, eskailera aurkako noranzkoan izango duten hiztunen multzoa ariko litzateke handitzen, gero eta hiztun gehiagok izango baitute testuingurua aurka euskara ikasi edo euskaraz bizi nahi dutenean. Horixe izan da azken 20 urteotako joera eta, alde horretatik, euskara erabiltzeko baldintza zailetan aritzen diren gero eta hiztun gehiago ditu euskarak; eta euskaraz aritzera bultzatzen duten testuinguru naturaletan bizi diren gero eta hiztun gutxiago. Bilakaera-joera hori oso kezagarria da, arnasguneek agortzen jarraituz gero, komunitate osoaren ahaleginen ikuspegi ekonomiko batetik gero eta zailagoa/garestiagoa izango baita indarberritzean aurreratzea.

Ikuspegi laburrekoa litzateke indarberritze-prozesua banakako hiztunen euskalduntze huts gisa ulertzea (ez dakienak euskara ikastea, jakin baina erabiltzen ez duenak gehiago erabiltzea, eta abar...). Banakako dimentsio hori ere badu eta izan behar du, jakina, indarberritze-prozesuak. Baina, horretaz gain, testuinguruen euskalduntzea/erdalduntzea ere arreta bereziz jarraitu beharreko alderdia da, banakoek testuinguruen araberako portaerak izaten baitituzte. Eta oraindik bizirik gelditzen diren euskararen aldeko testuinguru makro urriak desagertzeak, arnasguneak alegia, ondorio nabariak izango litzuke indarberritzearen dinamika osoan. Castonguayk dioen bezala, lurraldean hiztunen kontzentrazioa izatea funtsezko alderdia da, eta alderdi horretan eragiten saiatzea aurrera begira komeni den estrategia bat izan daiteke, hizkuntzaren bizi-indarra areagotzeko orduan (2005: 22-23).

Gogoeta honen harira, uste dugu azken 60 urteotako euskararen aldeko ahaleginean ez zaiola behar adinako arretarik eskaini *betiko* hiztun osoak eta *betiko* ingurune trinkoak babesteari, sustatzeari eta zabaltzeari. Arreta gutxi jarri zaie ahoratzen den euskararen erdia ekoizten duten udalerrri euskaldunenei. Arreta falta horrek badu zerikusirik, gure ustez, garai batean egon zitezkeen euskalduntze-aurreikuspen oso baikorrek (‘gune erdaldunenak euskaldundu behar dira, ezinezkoa da herri

euskaldunenetan atzera egitea”<sup>390</sup>. Arrazoiak arrazoi, arnaguneen eta hiztun trinkoenen babesa eta sustapena ez dira lehentasunen artean egon ez errealitate soziolinguistikoa ikertzeko garaian, ez gogoetak egiteko unean eta ezta esku-hartzeen lehentasunak ezartzeko garaian ere. Azken urteetan, zorionez, arnaguneen gaiak garrantzia hartu du euskal soziolinguistikan eta euskalgintzaren gogoetetan. Gu ere bat gatoz bete-betean Mikel Zalbiderekin: hark esaten du arnaguneen gaiak “euskara indarberritzeko hizkuntza-plangintza ororentzat lehentasun biziko” izan behar duela (2019a: 12). Horrekin batera, lehentasunezkoa beharko luke, gure ustez, arnaguneetatik kanpora ere, euskal nagusitasunezko hiztun, familia, lagun talde eta era guztietako praktika-komunitate euskaldunak<sup>391</sup> babesteko eta hedatzeko ahaleginak.

### **Seigarren gogoeta (aurrera begira III): euskarazko hizkuntza-gaitasun ahula izan eta nagusiki erdaraz bizi diren hiztun euskaltzaleen sorgin-gurpilaren inguruan.**

*Betiko* hiztun multzo trinkoan izandako galerak orekatu egin dira hiztun mota berriekin. Betiko hiztun horren prototipoa irudikatuz, hauek izango lirateke haren ezaugarriak: ingurune oso euskaldunean bizi da, euskara etxean jaso du, gaitasunezko euskarazko nagusitasuna du, sare hurbila euskaldunez osatua du eta erabilera handia egiten du. Ugaritu diren hiztun motak justu bestelako ezaugarrietakoak dira: ingurune erdaldunduenetan bizi direnak, euskara etxetik kanpo jaso dutenak, erdaraz errazago moldatzen direnak euskaraz baino (estilo informal intimoan ari direnean gehienbat), harreman-sarean euskaldunak eta erdaldunak proportzio ezberdinetan dituztenak, euskararen erabilera ez hain trinkoa egiten dutenak...<sup>392</sup>

Esan bezala, bestelako ezaugarri horietako hiztunak asko ugaritu dira azken hamarkadotan, eta gaur egungo euskaldunaren batez besteko profila gehiago hurbiltzen da ezaugarri horietara “betikora” baino. Eta multzo horiek ugaritu diren maila berean ez bada ere, handitu egin da 1991 eta 2016 bitartean hiztun mota ez betiko horiek ekoizten duten euskararen zatia. Horren inguruko datuak eman ditugu atal enpirikoan. Guztiak errepikatu gabe, gogora dezagun erdaraz euskaraz baino errazago egiten duten hiztunek euskara guztiaren herena baino gehiago ekoitzi zutela 2016. urtean, %35,2a, 25 urte lehenago ekoitzi zutena baino nabarmen gehiago (%29,0koa izan zen 1991n)<sup>393</sup>. Ez dugu erreferentzia-punturik aurkitu nazioartean hiztun mota horren praktika eta ekarpena beste hizkuntza gutxituetakoenarekin alderatzeko. Hipotesi gisa, uste dugu handia dela erdaraz errazago egingo luketen hiztun horiek egindako ekarpen hori. Lorpen garrantzitsua da, indarberritzearen ikuspegitik, erdaraz hobeto moldatzen diren hiztunen jardunaren zati ohargarri hori euskaraz izatea, jatorrizko familiatik kanpo euskaldundutako hiztunen kasuan gehienbat. Lehenago ere esan dugun bezala, euskararen aldeko jarreraren eta hiztun-komunitatearen bizi-

---

<sup>390</sup> Gaiaren inguruko ikuspegi baikor hori, herritarren sail zabaletan hedatua zegoena, argi islatzen da garaiko inkestean emaitzetan (Ruíz Olabuénaga eta Marañón, 1983: 136, 152).

<sup>391</sup> Praktika-komunitateei buruz, ikus Altuna eta Hernández, 2021.

<sup>392</sup> Hiztun mota horren ugaritzeak zerikusia du oro har Euromosaic-ek *hizkuntza-ekoizpena* deitzen duen prozesuarekin (Williams et al., 1997: 147-148).

<sup>393</sup> ISL-601 adierazlearen emaitzak dira; bertan, erdal elebidunek eta nagusitasunik gabe elebidunen parte proportzionalak aurreko harremanetan zenbat euskara ekoitzi duten kalkulatzeko da (ikus atal metodologikoko 11.6. puntua).

nahiaren adierazle argia da. Hiztun horien ekarpena nahitaezko osagaia da, zaindu eta bultzatu beharrekoa, minorizazio-egoera larrian dagoen gure hizkuntza indarberritzekotan.

Errealitate pozgarri horrek badu, ordea, bere ifrentzua. Erdaraz euskaraz baino errazago egiten duten hiztun horiek erdaraz aritzen dira nagusiki (gaztelaniaren/frantsesaren %73,2 batez besteko erabilera aitortua aurrez aurreko harremanetan<sup>394</sup>); eta euskarari jardunaren %26,8 “besterik” ez diote ematen. Euskarari ematen dioten zatia, gainera, txikitu egin da: %31,8koa zen 1991. urtean. Nolanahi ere, epealdi osoan, eta txostenean jada azaldutako hainbat alderdi harremanetan jarrita, esan liteke hiztun mota estrategiko horrekin sorgin-gurpil izaera duen prozesu bat gertatzen eta birsortzen aritu dela, I.46. irudian ikus daitekeen bezala:

- Lehenengo koadroan hiztun mota horren abiapuntua laburtzen dugu: hobeto moldatzen dira erdaraz eta, beraz, erosotasunak erdarara bultzatzen ditu. Era berean, ordea, hiztun horien arteko multzo adierazgarri batek jarrera positiboa du euskararekiko, euskara indartzearen alde dago, eta bere bizitzan tokia egin nahi dio. Hiztun mota horrek, hortaz, tentsioa bizi du ezinbestean bere gaitasun objektiboaren eta bere amets-gogo subjektiboaren artean.
- Bigarren koadroan, euskara/erdara erabiltzeko dituen nahitaezkotasun eta aukeren egituraren errealitatea islatzen da. Bizitzako egoera askotan, nahitaez erdaraz egin beharko dute, mintzakideek euskaraz ez dakitelako. Kopuru zehatzik ematerik ez dugun arren, erdal elebidunek dituzten sareak kontuan hartuta, euren aurrez aurreko harremanen erdia baino gehiago erdaraz izango dira nahitaez<sup>395</sup>. Hedabideen, ikus entzunezkoen eta kultur kontsumoaren eremuetan ere, hizkuntza bateko eta besteko eskaintzak duen desoreka dela medio, ia berez ekarriko du hiztun horien kontsumo-orduetako zati handiena erdaraz egitea. Lehenengo bi errealitate horiek, berez, euren jardunaren zatirik handiena (ia) nahitaez erdaraz egitera eramango dituzte hiztun horiek. Azkenik, hiztun horiek hizkuntza aukeran izango duten egoeretan, batzuetan (gehienetan) erdarara joko dute eta besteetan euskarara. Horretan ere testuinguruak ez du askorik lagunduko. Natxo Sorollak dioenez (2018), hizkuntzak hiztun-sare nahikoa duen lekuetan, hiztunek elkarren artean erabiltzeko joera handiagoa izango dute. Egoera oso minoritarioa denean, berriz, hiztunek hizkuntza hori erabiltzeko joera ere ahulagoa izango dute, baita mintzakideek hizkuntza ezagutzen duten kasuetan ere.
- Hirugarren koadroa argia da: aurreko puntuan azaldu dugun egoera horietan egindako hizkuntza-hautuaren emaitza orokor gisa, hiztun horiek erdaraz egiten dute nagusiki, eta horrek euren erdal gaitasuna are nagusiago bihurtuko du eta


---

<sup>394</sup> Kopuru horiek erdal elebidunen aurrez aurreko harremanei buruzko A motako ISL-404 adierazle sintetikoaren emaitzak dira.

<sup>395</sup> ISL-414 adierazlearen arabera, %55,3koa da erdal elebidunen harreman-sarean euskaldunek duten batez besteko pisua. Multzokako harremanak ere badirela kontuan hartuta, euskaraz egiteko izango duten aukera, eta maila orokorrean egin ditugun kalkuluen proportzioan, ez da erdira iritsiko.

euren euskal gaitasuna ahuldu egingo du<sup>396</sup>. Eta euren euskal gaitasuna ahul egote horrek, berriro ere, aukera duen egoeretan ere erdarara bultzatuko ditu, erosotasuna dela medio; berriro ere bere gogo euskaltzalearekin tentsioan. Eta horrekin berriro sorgin-gurpilaren hasierako puntura itzultzen gara.

**I.46. IRUDIA: NAGUSIKI ERDARAZ BIZI DIREN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUN AHULEKO HIZTUN EUSKALTZALEEN SORGIN-GURPILA**



Iturria: egileak landua.

Ez da zeregin erraza sorgin-gurpil hori haustea, eta une bateko erdal elebidunak euskara erabiltzearen erabiltzez euskal elebidun bihurtzea. Oro har, ez da arrunta hiztun batek hainbesteko aldaketa egitea gaitasunean, saiakera testuinguruz aldatu gabe eta heldu-garaitan eginez gero batik bat. Baina hainbesterako aldaketa ez bada ere, garrantzitsua litzateke erdal elebidun horiek euren euskal gaitasuna lantzeko eta gero eta errazago egiteko dinamikak sortzea.

Eta esaten ari garen horri belaunaldi arteko perspektiban begiratzea da bereziki garrantzitsua: ingurune erdaldunenetako haur eta nerabe euskaldunek, etxean euskara jaso dutenek bereziki, testuinguru orokorrak eraginda euren haurtzaro-nerabearoetan euskal gaitasunaren gaintetik erdal gaitasuna garatzen badute, eta euren jarduna erdaraz egiten badute nagusiki, goiko eskema hiztunentzat deseroso eta

<sup>396</sup> Sorgin-gurpil horren arriskuaz aspaldi ohartarazi zigun Txepetxek. Haren esanetan, erabilera-maila ohargarri batera iritsi ezean, euskarazko gaitasunean atzera egingo du hiztun berriak, eta baita motibazioan ere (Sánchez Carrión, 1991: 47-48).

komunitatearentzat ziurgabe hori betikotzen ariko ginateke (azken hamarkadotan hori gertatzen ari dela pentsatzeko zantzu argiak daude). Sorgin-gurpil hori hautsi ezean, betikotu egingo genuke gero eta ugariagoak diren hiztun horiek ekoizten duten euskara beti motibazioek eraginda ekoitzi behar izatea (hipotesirik onenean, motibazioari eusten jarraitzen badute), baldintza deserosoetan eta are frustrazio-bizipenekin: ez dirudi oso oinarri osasungarria hizkuntzaren etorkizunerako. Horrekin batera, euskara gero eta gutxiago izango litzateke hizkuntza eroso-espontaneo-bizia eta gero eta gehiago arrazoi subjektibo-militanteek eraginda erabiltzen den hizkuntza deseroso samar bat hiztunarentzat.

Laburbilduz, egungo erabilera “ez eroso” euskararen aldekoa izatea seinale ona da, ezbairik gabe, indarberritzearen ikuspegitik. Errealitate pozgarria da, euskara sektore berrietara zabaldu den seinale, baina fase iragankor gisa planteatuta. Izan ere, irudiko korapiloa egoki askatu ezean, belaunaldiarteko perspektiban behintzat, hots, euskaraz bizi nahi duten belaunaldi berriek euskarazko gaitasun sendoagoa eta erabilera-ohitura trinkoagoak lortu ezean, sorgin-gurpil horren dinamika betikotu egingo litzateke.

Funtsezkoa da, gure ustez, sorgin-gurpil horretatik ateratzeko lan-ildo posibleak aztertzea eta lantzea: hiztun horien euskal gaitasuna sendotzeko zuzeneko baliabideak landuz eta eskainiz; hiztun horiek duten euskarazko sarean, euren erabilera ahalik eta gehiena handitzeko prozesuak sustatuz (Euskaraldia eta antzeko ekimenekin); hiztun horien sareetan euskaldunak elkarrengana bilduz (ekimen ugaritako taldekatze-irizpideetan hizkuntzaren aldagaia aintzat hartuz eta euskara erabiltzeko modua emango duten egoerak bilatuz); euskara erabiltzea eroso izango den babesguneak sortuz (Amorrortu et al., 2021; Hernández et al., 2021); erabileraren barruan, gaur egun ia erdara hutsez egiten den alor bat, hedabideena, ikus-entzunezkoena, kultur kontsumoarena, euskaraz egin dadin eskaintza egokia sortuz eta horiek kontsumitzeko dinamikak indartuz; euskarazko gutxieneko gaitasun bat orokortzeko urrats sendoak eginez...

#### **Zazpigarren gogoeta (aurrera begira IV): egoeraren ezagutzan sakondu, kontzientzia hartu, euskara lehentasunetara ekarri eta jauzia egin.**

60ko hamarkadan hasitako indarberritze-ahaleginak erronka handiak ditu aurrean. Bide horretan, ezinbestekoa izango da hiztun-komunitateak egoeraren argazki ahalik eta objektiboena eta osatuena izatea, indarguneak eta ahulguneak argi identifikatzea eta esku-hartzeko ildo posibleen artean eraginkorrenak lehenestea. Xede horrekin, demolinguistikak ekarpen baliotsua egin dezakeela deritzogu, soziolinguistikaren eremu zabalean diharduten gainerako diziplinekin batera. Euskal demolinguistikak azken 40 urteotan egin duen ibilbide oparoak eta metatu duen informazio-masa erraldoiak aukera handiak eskaintzen ditu errealitatearen ezagutzan sakontzeko. Baliatu ditzagun.

Minorizazio-egoera larrian gaude eta etorkizun hurbilean etorriko diren erronkak ez dira makalak indartu nahi duen euskal hiztun-komunitatearentzat. Erronka horiei neurria hartzea eta ekitea dagokigu XXI. mende hasierako euskaldunei, antzinatek datorren katea etetea nahi ez badugu. Zorionez, gero eta gehiago entzuten da euskaltzaleen artean jauzi kualitatibo sendo bat egin beharraren ideia. Gure ikerketaren ondorioek ere behar hori berresten dute bete-betean. Horregatik, mezu hori indartuz bukatu nahi

dugu lan hau: egoera zailaren kontzientzia hartuta, euskararen bizibeharra lehentasunetara ekarrita, eskura ditugun indar guztiak batuta, azken mende erdian metatu den jakintzan eta eskarmentuan oinarrituta, sakon-sakonetik heldu den bizinahiak hauspotuta, inteligentziaz eta erabakimenez, egin dezagun jauzi.





# BIBLIOGRAFIA

- Agirre Dorronsoro, L. eta Eskisabel Larrañaga, I. (2019). *Trikua esnatu da*. Susa.
- Agirrezabal Pertusa, L., Sarasua Maritxalar, J., Garzia Garmendia, J., eta Garabide, E. (2009). *Euskararen berreskuratzea: hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*. Garabide Elkarte.
- Aierdi, X. (2022). *Immigrazioa eta euskararen erronka berriak* [hitzaldia]. Euskaltzeleen Topagunea. <https://plaentxia.eus/soraluze/1666956629318-xabier-aierdi-immigrazioak-hil-ala-biziko-atakan-jarriko-du-euskara>
- Aizpuru Murua, M. eta Zarraga Sangroniz, K. (2011). Hizkuntzaren eremuak. Bilboko euskaldunak 1920. urtean. *Bidebarrieta: Revista De Humanidades Y Ciencias Sociales De Bilbao*, (22), 115-133. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=3808480>
- Aizpurua Espin, J. (2006). Euskararen erabilera eta transmisioa Olabide ikastolako eta Santo Tomas Lizeoko ikasle ohien adibidea. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (60), 132-140. <http://www.soziolinguistika.eus/node/3219>
- Aizpurua Espin, J. (2018a). Erabileraren gakoak azterketa soziolinguistikoen argitan. *Hermes: Pentsamendu Eta Historia Aldizkaria*, (60), 14-18. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/6719775.pdf>
- Aizpurua Espin, J. (2018b). Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (106), 29-45.
- Aizpurua Telleria, X. (1995). *Euskararen jarraipena = La continuidad del euskera = La continuité de la langue basque*. Hizkuntza Politikarako Sailordetza (Eusko Jaurlaritza).
- Altuna Ramírez, J. (2015). Euskara pasilloetan galduta: praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (97), 39-65. [http://www.soziolinguistika.eus/files/jaime\\_altuna\\_bat97.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/jaime_altuna_bat97.pdf)
- Altuna Ramírez, J. eta Hernández García, J. M. (2021). Taldean jardun, taldean hiztun. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (120), 73-92. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=8171043>

- Altuna Zumeta, O. (1998). Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (28), 15-49. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5852547&orden=0&info=link>
- Altuna Zumeta, O. (2002a). Erabileraren IV Kale Neurketa. Emaizen azterketa. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, 43, 37-48.
- Altuna Zumeta, O. (2002b). Erabileraren Kale Neurketa. Ibilbidea eta metodologia. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (43), 25-36. <http://www.soziolinguistika.eus/node/934>
- Altuna Zumeta, O. (2007). Euskal Herriko kale erabileraren neurketa: Ikerketaren nondik norakoak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (64), 21-32. <http://www.soziolinguistika.eus/files/01%20O%20Altuna.pdf>
- Altuna Zumeta, O. (2016). "Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak". Mikel Zalbideren txostenari iruzkinak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (100), 193-208. [http://www.soziolinguistika.eus/files/olatz\\_altuna\\_bat100.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/olatz_altuna_bat100.pdf)
- Altuna Zumeta, O. (2018). Euskaldunon dentsitateak zer-nolako eragina du euskararen kale-erabileran? *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (106), 11-27. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6396472&orden=0&info=link>
- Altuna Zumeta, O. eta Basurto Arruti, A. (2012). Hizkuntza-erabileraren neurketaren metodologia. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (84), 17-30. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4140062&orden=0&info=link>
- Altuna Zumeta, O. eta Basurto Arruti, A. (2013). *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Altuna Zumeta, O., Iñarra Arregi, M., eta Basurto Arruti, A. (2022). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa, Euskal Herria 2021. Emaizen laburpen txostena*. Soziolinguistika Klusterra.
- Altuna Zumeta, O. eta Iurrebaso Biteri, I. (2004). Euskararen datu-basea -EDB 1.0-. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (51), 125-135.
- Altuna Zumeta, O., Iurrebaso Biteri, I., Isasi Balanzategi, X., Martínez de Luna Pérez de Arriba, Iñaki, Ramos, R., eta Uranga Arakistain, B. (2012). Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaiza nagusiak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (84), 31-58. <http://www.soziolinguistika.eus/files/Olatz%20Altuna%20et%20al.pdf>
- Altuna Zumeta, O. eta Urla, J. (2013). The Basque Street Survey: Two Decades of Assessing Language Use in Public Spaces. *International Journal of the Sociology of Language*, 2013 (224), 209-227. 10.1515/ijsl-2013-0061
- Álvarez Enparantza, J. L. "Txillardegí". (1984). *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).
- Álvarez Enparantza, J. L. "Txillardegí". (1991). Oinarrizko ondorio batzuk. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (3), 53-92. <http://www.soziolinguistika.eus/files/04%20Txillardegí.pdf>
- Álvarez Enparantza, J. L. "Txillardegí". (2001). *Hacia una socio-lingüística matemática*. Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen.
- Álvarez Enparantza, J. L. "Txillardegí" eta Isasi Balanzategi, X. (1994). *Soziolinguistika matematikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea.

- Amonarriz Gorria, K. (2007). 2006ko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa: aurreikuspenak eta emaitzak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (64), 33-48. <http://www.soziolinguistika.eus/files/02%20K%20Amonarriz.pdf>
- Amonarriz Gorria, K. (2019a). Arnasguneak: zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira? *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (110), 81-94. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=6916244>
- Amonarriz Gorria, K. (2019b). *Euskararen bidegurutzetik*. Elkar.
- Amonarriz Gorria, K., Mendizabal, J., eta Topalabea-ko gainerakoak. (2016). Berrikasi eta berrikasi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako. *Euskera: Euskaltzaindiaren Lan Eta Agiriak*, 61 (1), 30-41. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80886.pdf>
- Amorrortu Gómez, E., Goirigolzarri Garaizar, J., eta Ortega, A. (2021). Ekintza-ikerketa partehartzailea euskararen hiztun aktibo bihurtzeko babesgune eta zubi-espazio. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (120), 11-26. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=8171040>
- Amorrortu Gómez, E. eta Ortega, A. (2009). Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan? *Euskera: Euskaltzaindiaren Lan Eta Agiriak*, 54 (2), 579-602. <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/74635.pdf>
- Amorrortu Gómez, E., Ortega, A., Idiazabal Gorrotxategi, I., eta Barreña Agirrebeitia, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak* (1. argit.). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Anaut Peña, D. (2013). *Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Aise Liburuak.
- Anderson, B. (1993). *Comunidades imaginadas: reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*. FCE.
- Apodaka Ostaiakoetxea, E., Basurto Arruti, A., Galarraga Ezponda, A., eta Morales-i-Gras, J. (2022). The governance of Basque language revitalisation in the Basque Autonomous Community: from confrontation toward collaboration. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 1-14. 10.1080/01434632.2022.2122479
- Apodaka Ostaiakoetxea, E. eta Morales i Gras, J. (2017). Hiztun kategorietatik hizkuntza praktiken erregistroetara: erabilera sustatzeko neurriaren bila. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (104), 95-137. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6238305&orden=0&info=link>
- Arel, D. (2002). Language categories in censuses: backward- or forward-looking? *Census and Identity* (92-120 or.). Cambridge University Press. 10.1017/CBO9780511606045.005
- Artetxe Sarasola, M. (2020). *Ipar euskal herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta ligitimazio prozesuak* [Doktorego tesia] <https://dialnet.unirioja.es/servlet/tesis?codigo=264506 &orden=0&info=link>
- Astigarraga Pagoaga, A. eta Cañas, X. (2019). Euskararen egoera eta erronkak ingurune digitalean. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (111), 59-78. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=7042779>

- Astigarraga, E., Azpillaga, J., Fernández, L., eta Naberan, A. (2011). Umap, inteligencia colectiva extraída de las redes sociales. *El Profesional De La Información*, 20 (5), 542-547. 10.3145/epi.2011.sep.08
- Atkinson, D., Bengoechea, M., eta de Oliveira, S. M. (2010). Sociolinguistics in Spain and Portugal. *The Routledge Handbook of Sociolinguistics Around the World* (341-358 or.). Routledge. 10.4324/9780203869659-41
- Auer, J. C. P. (1984). *Bilingual conversation*. Benjamins.
- Azagra Ros, J., Chorén Rodríguez, P., Goerlich, F. J. eta Mas, M. (2006). *La localización de la población española sobre el territorio: un siglo de cambios: un estudio basado en series homogéneas (1900-2001)*. Fundación BBVA.
- Aztiker Ikerunea. (2002). *Euskal Herria datuen talaiatik*. Udalbiltza.
- Baetens Beardsmore, H. (1989). *Principis bàsics del bilingüisme* (1. argit.). Barcelona: La Magrana. Retrieved from <https://ehu.on.worldcat.org/oclc/434308222>
- Baker, C. (1997). *Fundamentos de educación bilingüe y bilingüismo*. Cátedra.
- Ballone, F. (2017). *Els usos lingüístics a l'Alguer, 2015*. Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura. Direcció General de Política Lingüística.
- Barlovento Comunicación. (2017). *Análisis televisivo año 2016*. Barlovento Comunicación. <https://www.barloventocomunicacion.es/wp-content/uploads/2017/01/analisis-televisivo-2016-Barlovento.pdf>
- Barlovento Comunicación. (2022). *Informe mensual del comportamiento de los espectadores en televisión. Octubre 2022*. Barlovento Comunicación. <https://barloventocomunicacion.es/wp-content/uploads/2022/11/Analisis-AudienciasTV-Barlovento-Octubre-2022.pdf>
- Barreña, A., Amorrortu Gómez, E., Ortega, A., Uranga Arakistain, B., Izagirre, E., eta Idiazabal, I. (2007). Does the number of speakers of a language determine its fate? *International Journal of the Sociology of Language*, (186), 125-139. //dx.doi.org/10.1515/IJSL.2007.046
- Baxok, E. (1999). Hizkuntz inkesta frantziako erroldan. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (32), 11-18. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5850793&orden=0&info=link>
- Baztarrika Galparsoro, P. (2009). *Babeli gorazarre: bizikidetzarako hizkuntza politika zilegi eta eraginkorra: saiakera*. Alberdania.
- Bélanger, A. eta Sabourin, P. (2013). De l'interprétation des indicateurs linguistiques du recensement canadien. *Cahiers Québécois De Démographie*, 42 (1), 167-177. 10.7202/1017101ar
- Bengoetxea Mujika, X. (2019). "Arnasguneak. etorkizuneko erronkak": aurkezpenari iruzkinak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (110), 129-147. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=6916247>
- Berasategi Sancho, N. (2014). *Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta Euskal-kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak* [Doktorego tesia] <http://hdl.handle.net/10810/13526>
- Blom, J. eta Gumperz, J. J. (1972). Social Meaning in Linguistic Structure: Code-Switching in Norway. *Full: In Gumperz* (407-434 or.). Holt, Rinehart and Winston.

- Boix i Fuster, E. eta Vila i Moreno, F X. (1998). *Sociolingüística de la llengua catalana*. Ariel.
- Bourhis, R. Y. eta Sioufi, R. (2017). Assessing Forty Years of Language Planning on the Vitality of the Francophone and Anglophone Communities of Quebec. *Multilingua: Journal of Cross-Cultural and Interlanguage Communication*, 36 (5), 627-661. <http://dx.doi.org/10.1515/multi-2017-3048>
- Boutet, J. (2016). Langues et enquêtes quantitatives. Introduction. *Langage et société*, 155 (1), 7-14. doi:10.3917/lis.155.0007 Retrieved from <https://www.cairn.info/revue-langage-et-societe-2016-1-page-7.htm>
- Brenzinger, M. (2019). Language maintenance. In J. Darquennes, J. Salmons & W. Vandebussche (Eds.), *Handbücher zur Sprach- und Kommunikationswissenschaft / Handbooks of Linguistics and Communication Science (HSK)* (454-467 or.). De Gruyter. <https://doi.org/10.1515/9783110435351-038>
- Bruguera, C., Ferret Baig, A., eta Torrijos, A. (2022). El Sistema d'Indicadors Lingüístics: diagnòstic i avaluació en política lingüística. *Treballs De Sociolingüística Catalana*, (32), 247-260. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=8638369>
- Cabrera Vergara, I. (2017). Dominar dos idiomas vs. bilingüismo. Definiendo un bilingüismo inclusivo y operativo. *Thélème: Revista Complutense De Estudios Franceses*, 32 (1), 23-33. 10.5209/THHEL.53083
- Canale, M. eta Swain, M. (1980). Theoretical Bases of Communicative Approaches to Second Language Teaching and Testing. *Applied Linguistics*, 1 (1), 1-47. 10.1093/applin/l.1.1
- Casesnoves-Ferrer, R. (2017). La demolingüística al País Valencià. *Llengua, Societat i Comunicació: Revista De Sociolingüística De La Universitat De Barcelona*, (15), 70-75. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6224307&orden=0&info=link>
- Cassan, F., Héran, F., eta Toulemon, L. (2000). Étude de l'histoire familiale. L'édition 1999 de l'enquête Famille. *Courrier Des Statistiques*, (93), 25-37.
- Castonguay, C. (1982). Intermarriage and language shift in Canada, 1971 and 1976. *Canadian Journal of Sociology/Cahiers Canadiens De Sociologie*, 7 (3), 263. <https://search.proquest.com/docview/1311635180>
- Castonguay, C. (1987). The anglicization of canada, 1971-1981. *Language Problems and Language Planning*, 11 (1), 22-34. 10.1075/lplp.11.1.03cas
- Castonguay, C. (1994). *L'assimilation linguistique: mesure et évolution, 1971-1986*. Conseil de la langue française.
- Castonguay, C. (2002). Assimilation linguistique et remplacement des générations francophones et anglophones au Québec et au Canada. *Recherches Sociographiques*, 43 (1), 149-182. 10.7202/009450ar
- Castonguay, C. (2005a). *Les indicateurs généraux de vitalité des langues au Québec: comparabilité et tendances 1971-2001*, (Quebec ed.). Quebec: Office québécois de la langue française. doi:10.7202/014218ar
- Castonguay, C. (2005b). Vitalité du français et concentration des francophones: un bilan 1971-2001. *Francophonies d'Amérique*, 20 (20), 15-24. doi:10.7202/1005333ar Retrieved from <http://id.erudit.org/iderudit/1005333ar>

- Castonguay, C. (2019). Quebec's new language dynamic: French fading fast. *Language Problems and Language Planning*, 43 (2), 113-134. 10.1075/lplp.00038.cas
- Castonguay, C. (2020). *Le français en chute libre: la nouvelle dynamique des langues au Québec*. Mouvement Québec français.
- Castonguay, C. (2021). *Le fiasco de la politique linguistique canadienne*. Du Renouveau quebécois.
- Castonguay, C. (2022). French in Canada: An Uncertain Future. *Language, Policy and Territory* (257-275 or.). Springer.
- Castonguay, C. eta Marion, J. (1974). L'anglicisation du Canada. *Bulletin de l'Association des démographes du Québec*, 3 (1), 19-40. doi:<https://doi.org/10.7202/305747ar> Retrieved from <https://search.proquest.com/docview/1301349368>
- Cenoz Iragui, M. J. (1996). La competencia comunicativa: su origen y componentes. In J. Cenoz eta J. F. Valencia (Eds.), *La competencia pragmática: elementos lingüísticos y psicosociales* (1. argit., 95-114 or.). UPV-EHU Argitalpen Zerbitzua.
- Chessa, E. (2012). *Another case of language death?: the intergenerational transmission of Catalan in Alghero* <https://qmro.qmul.ac.uk/xmlui/bitstream/handle/123456789/2502/CHESSAAnotherCase2012.pdf?sequence=1>
- CLF -Conseil de la Langue Française-. (1992). Indicateurs de la situation linguistique au Québec. Québec: *Conseil De La Langue Française*,
- Commissariat aux Langues Officielles. (2020). *Chiffres en bref sur les langues officielles du Canada (2016)*. <https://www.clo-ocol.gc.ca/fr/statistiques/canada>.
- Cooper, R. L. (1980). Sociolinguistic surveys: the state of the art. *Applied Linguistics*, 1 (2), 113-128. 10.1093/applin/1.2.113
- Coulmas, F. (2005). *Sociolinguistics: the study of speakers' choices*. Cambridge University Press.
- Coyos, J. B. (2010). Hizkuntza-ukipena. In A.Zarraga, JP Coyos, JM Hernandez, L.Loly, I.Larrea, LV Martinez, B.Uranga et P.Bilbao, *Soziolinguistika eskuliburua* (135-184 or.). Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritzua.
- Darmody, M. eta Daly, T. (2015). *Attitudes towards the Irish Language on the Island of Ireland*. The Economic and Social Research Institute.
- Darquennes, J. (2015). Language conflict research: a state of the art. *International Journal of the Sociology of Language*, 2015 (235). 10.1515/ijsl-2015-0012
- Darquennes, J. (2020). Reversing language shift in European language minority settings: A tentative general outline of contemporary strategies and challenges. *Hizkuntza gutxuagotiak jagon* (133-153 or.). Euskaltzaindia.
- Darquennes, J., Salmons, J., eta Vandenbussche, W. (2019). Language contact research: scope, trends, and possible future directions. In J. Darquennes, J. Salmons & W. Vandenbussche (Eds.), *Handbücher zur Sprach- und Kommunikationswissenschaft / Handbooks of Linguistics and Communication Science (HSK)* (1-12 or.). De Gruyter. 10.1515/9783110435351-001

- De Flaugergues, A. (2016). *Pratiques linguistiques en Suisse. Premiers résultats de l'Enquête sur la langue, la religion et la culture 2014*. Office fédéral de la statistique.
- De la Cueva, J. eta Ayestaran, M. (1982). *La crisis de CINDU-EUSKADI (Crisis económica, social y política de una ciudad industrial llamada Euskadi)*. ECO S.A.
- De Miguel, A. (1994). *La sociedad española, 1993-94*. Alianza Editorial.
- De Rosselló i Peralta, C. (2010). *Aprendre a triar. L'adquisició de les normes d'ús i alternança de codis en l'educació infantil* [Doktorego tesia]. Universitat de Barcelona. Retrieved from <http://hdl.handle.net/2445/41625>
- De Rosselló i Peralta, C. (2018). Llengua inicial, llengua d'identificació i llengua habitual. *Anàlisi de l'Enquesta d'usos lingüístics de la població a Catalunya 2013. Volum 1: Coneixements, usos, transmissió i actituds lingüístics* (82-97 or.). Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura.
- De Rosselló i Peralta, C eta Fabà Prats, A. (2017). Dades declarades i observades, pros i contres. *Llengua, Societat i Comunicació*, (15 Monogràfic: La demolingüística. Comptar llengües, usos i persones), 16-22. Retrieved from <https://www.raco.cat/index.php/LSC/article/view/330115>
- De Rosselló i Peralta, C eta Ginebra Domingo, D. (2014). Tries lingüístiques: vuit anys després. L'evolució dels usos lingüístics des de P3 fins a 6è de primària. *Treballs de Sociolingüística Catalana*, (24), 267-280. Retrieved from <https://www.raco.cat/index.php/TSC/article/view/293777>
- De Vries, J. (1977). Explorations in the Demography of Language: Estimation of Net Language Shift in Finland, 1961-1970. *Acta Sociologica*, 20 (2), 145-153. <https://search.proquest.com/docview/60842002?accountid=17248>
- De Vries, J. (1985). Some Methodological Aspects of Self-Report Questions on Language and Ethnicity. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 6 (5), 347-368. <https://doi.org/10.1080/01434632.1985.9994211>
- De Vries, J. (1987). Problems of Measurement in the Study of Linguistic Minorities. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 8 (1-2), 23-31. <https://doi.org/10.1080/01434632.1987.9994272>
- De Vries, J. (1990). On Coming to Our Census: A Layman's Guide to Demolinguistics. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 11 (1-2), 57-76. <https://search.proquest.com/docview/61268333?accountid=17248>
- De Vries, J. (1992). Language Maintenance and Shift: Problems of Measurement. In W. Fase, K. Jaspaert & S. Kroon (Eds.), *Maintenance and Loss of Minority Languages* (211-222 or.). Benjamins. <https://doi.org/10.1075/sibil.1.16vri>
- De Vries, J. (2005). *Language censuses/Sprachenzensus*. Walter de Gruyter.
- De Vries, J. (2006). Language Surveys. (616-625 or.) [10.1016/B0-08-044854-2/01292-X](https://doi.org/10.1016/B0-08-044854-2/01292-X)
- De Yrizar, P. (1973). *Los dialectos y variedades de la lengua vasca: estudio lingüístico-demográfico*. Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.
- Defior, B. (2018). Les llengües a les Illes Balears. *Enquesta d'usos lingüístics a les Illes Balears 2014. Anàlisi* (57-76 or.). Conselleria de Cultura, Participació i Esports (Govern de les Illes

Balears) - Departament de Cultura (Generalitat de Catalunya) - Universitat de les Illes Balears.

Deguillaume, C. eta Amrane, É. (2002). Langues parlées en Aquitaine: la pratique héritée. *Le Quatre Pages INSEE Aquitaine*, (110), 1-6. <https://www.insee.fr/fr/statistiques/2044479>

Dell'Aquila, V. eta Iannàccaro, G. (2019). The geolinguistic treatment of demolinguistic data. *Handbücher zur Sprach- und Kommunikationswissenschaft / Handbooks of Linguistics and Communication Science (HSK)* (523-535 or.). De Gruyter. 10.1515/9783110435351-043

Deprez, C., Filhon, A., eta Heran, F. (2002). La dynamique des langues en France au fil du XX e siècle. *Population Et Sociétés*, (376), 1-4. <https://www.ined.fr/fr/publications/editions/population-et-societes/la-dynamique-des-langues-en-france-au-fil-du-xxe-siecle/>

Deumert, A. (2010). Tracking the demographics of (urban) language shift - an analysis of South African census data. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 31 (1), 13-35. 10.1080/01434630903215125

Direcció General Política Lingüística. (2015). *Anàlisi de l'enquesta d'usos lingüístics de la població 2013: Resum dels factors clau*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura.

Direcció General Política Lingüística. (2016). *Coneixement i ús social del valencià. Enquesta 2015. Síntesi de resultats*. Valencia: Generalitat Valenciana.

Domínguez Serrano, M., Blancas Peral, F. J., Guerrero Casas, F. M., eta González Lozano, M. (2011). Una revisión crítica para la construcción de indicadores sintéticos. *Revista De Métodos Cuantitativos Para La Economía Y La Empresa*, 11, 41-70.

Donnacha, S. M. eta Giollagáin, C. Ó. (2016). The Irish Language and the Future of the Gaeltacht Regions of Ireland. In *A Living Countryside?: The Politics of Sustainable Development in Rural Ireland* (303-318 or.). Routledge.

Drager, K. (2018). *Experimental research methods in sociolinguistics*. Bloomsbury Academic.

Duchene, A. eta Humbert, P. N. (2018). Surveying languages: The art of governing speakers with numbers. *International Journal of the Sociology of Language*, 10.1515/ijsl-2018-0012

Egaña, A., Iriondo, N., eta Olaziregi, I. (2005). *Euskararen B2 maila: Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH-4)*. Bilbo: ISEI-IVEI. [https://isei-ivei.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uuid=733717ae-3ac0-4f09-ab07-9d2d8fe777f9&groupId=635622](https://isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=733717ae-3ac0-4f09-ab07-9d2d8fe777f9&groupId=635622)

Egaña, A., Iriondo, N., Rey, G., eta Olaziregi, I. (2007). *Euskararen B1 maila Lehen Hezkuntzan. Txosten orokorra*. Bilbo: ISEI-IVEI. [https://isei-ivei.hezkuntza.net/c/document\\_library/get\\_file?uuid=239e5720-8043-4837-9323-96d2804db495&groupId=635622](https://isei-ivei.hezkuntza.net/c/document_library/get_file?uuid=239e5720-8043-4837-9323-96d2804db495&groupId=635622)

EKBko Idazkaritza Teknikoa. (1991). Euskararen kale-erabilpenaren neurketa 10.000 biztanlelik gorako herrietan. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, 3-4, 19-37.

Elizagarate Sagastibeltza, A. eta Iurrebaso Biteri, I. (2006). *Euskal Herria datuen talaiatik, 2006*. Txalaparta.



- Erize Etxegarai, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza* [Doktorego tesia]. Nafarroako Gobernua.
- Erize Etxegarai, X. (2016). Euskal herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboaren bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (99), 113-177. [http://www.soziolinguistika.eus/files/xabier\\_erize\\_bat99.pdf](http://www.soziolinguistika.eus/files/xabier_erize_bat99.pdf)
- Erize Etxegarai, X. (2018). *Euskararen inguruko adostasun sozial berrietarako azterketa soziolinguistikoa Nafarroan*. Iruñea: Nafarroako Gobernua. [http://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/EUSKARAREN-AZTERKETA\\_SOZIOLINGUISTIKOA-EUSK-new.pdf](http://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/EUSKARAREN-AZTERKETA_SOZIOLINGUISTIKOA-EUSK-new.pdf)
- Eснаоla, I. (2015). Udalerrri euskaldunen bilakaera sozioekonomikoaz. *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, (95), 103-109. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=5202918>
- Etxeberria Murgiondo, J. (1999). *Regresión múltiple*. La Muralla; Hespérides.
- Etxeberria Murgiondo, J. (2011). *Estatistika aplikatua: teoria eta praktika*. Elhuyar.
- Etxegoien, F. (2004). *Neurona eta zeurona: hizkuntza estetika bezala*. Pamiela.
- Europako Kontseilua. (2005). *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. Eusko Jaurlaritza.
- Euskaltzaindia. (1978). *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. (1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Ediciones Vascas.
- Euskarabidea -Euskararen Nafar Institutua-. (2009). *Euskararen egoera Nafarroan, 2008. Azterlan soziolinguistikoa*. Iruñea: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua. [https://www.euskarabidea.es/fitxategiak/ckfinder/files/5-situacion-euskera-euskera-castellano1\(2\).pdf](https://www.euskarabidea.es/fitxategiak/ckfinder/files/5-situacion-euskera-euskera-castellano1(2).pdf)
